DEUSTUKO UNIBERTSITATEA

HIRUGARREN ZIKLOA

PROGRAMA: LITERATURA

LIZARDIREN POETIKA PIZKUNDEAREN INGURUMARIAREN ARGITAN

LOURDES OTAEGI IMAZek aurkezturiko doktorego tesia
JUAN MARI LEKUONA Doktoreak zuzendurikoa

Egilea

Zuzendaria

1992ko Irailak 22

AURKIBIDEA

SARRERA: AZTERGAIA. HAUTATZE-ARRAZOIAK ETA METODOLOGIA 1

1. Gaia eta metodologiaren mugaketa 2
1.1. Gaiaren aurkezpena eta hautatze-arrazoiak 2
1.2. Metodologiaren justifikazioa eta azterlanaren mugak 4
1.2.1. Lizardiri buruzko azterlanen artean kokatzea 4
1.2.2. Metodologiaren azalpena 5
2. Lanaren egituraketa 10
3. Testu eta ingurumari literarioaren arteko dialektika 14
4. Aitzin-ohar metodologikoak 15

I PARTEA: LIZARDI PIZKUNDEAREN INGURUMARIAREN ARGITAN 17

1. ATALA: Jose Mari Agirre. Zenbait datu biografiko 18
1.1. Formazio urteak 18
1.1.1. Euskara abertzaletasunaren eskutik 19
1.1.2. Lizarde euskal idazle 21
1.2. 1923ko mugarri biografikoa 22
1.2.1. Maitasunezko ezkontza 23
1.2.2. Abertzaletasuna bide kulturaleetatik ezinbestean 23
1.2.3. Bizitzaren alderdi garratzak 24
1.3. 1930ko giro-aldaketa nagusiak: Errepublika eta Autonomi Estatutua 25
1.4. Azken urteetako Lizardi: nortasuna eta egitasmoei buruzko zertzeladak 26
2. ATALA: Pizkundearen ingurumaria eta Lizardi 29
2.1. Lizardiren konpromezu politikoaren garrantzia 29
2.1.1. XX mende hasierako egoera politikoa Euskal Herrian 29
2.1.2. Lizardiren jarrera politikoa: posibilismoa 31

2.1.3. Lizardiren konpromezu politikoa eta literatura. ... 34
2.1.3.1. Konpromezu politikoa hartzea ... 35
2.1.3.2. Konpromezu politikoaren eta literatur zereginaren arteko harrema ... 36
2.2. Eusko Ikaskuntza: Lizardiren ekintza kulturalaren esparru zabala ... 38
2.2.1. Eusko Ikaskuntza Pizkundearen testuinguruan ... 38
2.2.1.1. Pizkunde mogimenduaren sorrera ... 39
2.2.1.2. E.I. Pizkundearen perspektiban. ... 40
2.2.2. Lizardi E.I.ren bazkide ... 40
2.2.3. Lizardiren ekintza kulturalaren bilakaera ... 41
2.2.3.1. I. epea: Euskal eskolak ... 41
2.2.3.2. II. epea: Idazleak ... 42
2.2.3.3. III. epea: Irakurleak ... 43
2.2.4. E.I.ren bidez garaturiko ekintzari buruzko zenbait xehetasun ... 45
2.3. Euskararen normalkuntza premiaren kontzientzia larria ... 47
2.3.1. Hizkuntzaren normalkuntzaren kontzepzio orokorra ... 47
2.3.2. Euskararen normalkuntza soziolinguistikoa. ... 49
2.3.2.1. Euskara kultur mintzabide ... 49
2.3.2.2. "egitezko" euskalzaletasuna ... 51
2.3.2.3. Lizardiren jokamolde konkretoa ... 53
2.3.3. Normalkuntza linguistikoa ... 54
2.3.3.1. Joera garbizaleak nagusi... ... 54
2.3.3.2. Euskaltzaleak eta hizkuntz ereduaren gaia ... 56
2.3.3.3. Hizkuntz eredua auzigai: Kirikiño saria. Batasun ortografikoa. ... 57
2.3.4. Eredu idatziaren normalizazio beharraren kontzientzia ... 61
2.4. Euskaltzaleak erakundea eta olerkariak: Lizardi eta Aitzolen gidaritzen arteko etena ... 61
2.4.1. Pizkunde aroko olerkarien belaunaldia: Mugak eta ezaugarriak ... 61
2.4.1.1. Belaunaldiaren ezaugarri amankomunak ... 62
2.4.2. Euskaltzaleak olerkarien belaunaldiaren ardatz ... 66
2.4.2.1. Lizardi Euskaltzaleak erakundearen lehen moldatzaile (1928-30) ... 67
2.4.2.2. Aitzolen proiektua (1931-36) ... 69
2.4.3. Aitzolen proiektua eta euskaldungoaren arteko dialektika ... 71
2.4.3.1. Aitzolen proiektuaren lehen urratsak ... 71
2.4.3.2. Aldaketa: Olerkigintza herrikoia erakargarriago ... 74
2.4.3.3. Proiektuaren, baliapideen eta hartzaileen arteko desoreka ... 82

II PARTEA: LIZARDIREN IDEIA POETIKOEN LERRO NAGUSIAK ... 85

0. Sarrera ... 86

1. ATALA: Arteari buruzko kontzeptzioa. Arte nazionala ... 86
1.1. Kontzepzio orokorra ... 86
1.2. Arte nazionala ... 89
1.2.1. Indibiduoaren askatasunaren mugak ... 89
1.2.2. Herri literaturaren ekarria ... 90
1.3. Euskal arima eta euskal artea ... 92
1.3.1. Euskal arimaren kontzeptua ... 93

1.3.2. Euskara euskal mundu-ikuskeraren egituratzaile 95

2. ATALA: Literaturaren funtzioa 96

2.0. Sarrera 96

2.1. Olerkaria eta bere zeregina herri gaizkakundeetan 97

2.1.1. Olerkaria eta gizartearen arteko harremanei buruzko kontzepzioa 97

2.1.2. Gizarte "lurgoia" eta olerkari idealista 98

2.1.2.1. Gizarte materialista 98

2.1.2.2. Lizardiren idealismoa 100

2.1.3. Olerkaria mezulari 102

2.2. Euskararen gaitasun espresiboa frogagai 105

2.2.0. Sarrera 105

2.2.1. Espainiako intelektuak eta euskara 105

2.2.2. Euskal intelektualen erantzuna 106

2.2.3. Lizardiren erantzuna 107

2.3. Abangoardiazko euskal mintzo elertitsua modernitatearen erronkari emaniko erantzuna 108

2.3.1. Lizardi modernitatearen aurrean 109

2.3.1.1. Modernitate iraultzailea 109

2.3.1.2. Modernitate erasokorra 110

2.3.1.3. Lizardik erromantizismoa errefusatzea 111

2.3.1.4. Irtenbide abangoardiazalea 112

2.3.2. Abangoardiak eta Lizardi 113

2.3.2.1. XX. mende hasierako abangoardiak 113

2.3.2.2. Lizardiren ikuspuntua... 114

2.3.2.3. Lizardiren abangoardiaren zentzua. 115

2.3.2.4. Abangoardia eta eliteak 116

2.3.3. Lizardiren abangoardiri euskaltzaleek eginiko harrera 117

2.3.3.1. Erromantiko eta errazaleak 117

2.3.3.2. Tradizio herrikoiaren garrantzia: Orixe eta Estefania 118

2.3.3.3. Aitzol: Epikaren lehentasuna 120

2.3.3.4. Lizardiren abangoardiaren kontzeptuaren iraupena 121

2.3.4. Lizardiren kanon estetikoa garaiko literatur ingurumarian 123

2.3.4.1. Lizardiren estetika norma-hauslea 123

2.3.4.2. Mintzaira literario subjetibista 124

2.3.4.3. Lizardiren kanon estetiko tradizio gabea 126

3. ATALA: Lizardiren kanon estetikoaren oinarri teorikoak 127

3.0. Sarrera 127

3.1. Poesia eta errealitatearen arteko harremana 128

3.1.0. Sarrera 128

3.1.1. Olerkariaren ikuspuntu sublimatzailea eta errealitatea 128

3.1.2. Sentimentuen autentizitatearen garrantzia 130

3.1.3. Lizardiren iruditeriaren "hurbiltasuna" 131

3.1.4. Errealitateari hurbiltzeko era 134

3.2. Endelegua eta sentimenduaren arteko oreka: Erromantizismoa eta Olerti Hutsaren arteko bidea 135

3.2.0. Sarrera 135

3.2.1. Endelegua eta sentimenduaren arteko auzia 136

3.2.2. Erromantizismoa eta olerti hutsaren artean 137
3.2.3. Lizardiren sentimendu-era euskaldunaren kontzepzioa 138
3.2.3.1. Sentimendua bai, sentimentalismoari ez 139
3.2.4. Sentimendu neurtua Lizardiren kanon estetikoaren osagarri 140
3.2.4.1. Umorearen funtzioa 140
3.2.4.2. Berarizko jarrera 141
3.2.4.3. Lizardiren kanon estetikoan sentimenduaren definizioa 142
3.2.5. Inspirazioa eta perfekzio teknikoa 142
3.3. Estetika trinkozalearen oinarri teorikoak 144
3.3.0. Sarrera 144
3.3.1. Euskararen nortasun linguistikoa eta euskal arima 144
3.3.2. Kontzeptismoa 145
3.3.2.1. Euskararen kontzeptismo linguistikoa 146
3.3.2.2. Kontzeptismo literarioa 147
3.3.2.3. Idazle kontzeptisten zaletasuna 149
3.3.2.4. Gongora: 27koak eta Lizardi 150
3.3.3. Kontzeptismoa eta mintzaira poetikoaren berrikuntza 152

4. Lizardiren ideia poetikoez zenbait ondorio 153

III. PARTEA: LIZARDIREN PRAXIS POETIKOAREN AZTERKETA FORMALA IDEIA POETIKOEN ARGITAN 157

1. ATALA: Azterketaren maila metriko-fonikoa 158
1.1. Euskal metrika 158
1.1.1. Sarrera orokorra 158
1.1.1.1. Euskal metrikaren oinarrizko unitateaz 158
1.1.1.2. Silaba kontaketa 159
1.1.1.3. Eten erritmikoen garrantzia 161
1.1.1.4. Irakurria izateko poesiaren euskal metrikaren bila 162
1.2. Sabino Aranaren araudi metrikoaren eragina Pizkunde aroko idazleengan 163
1.2.1. Sabino Aranaren araudia 163
1.2.1.1. Arauak 163
1.2.1.2. Salbuespenak 164
1.2.1.3. Araudia eta sistema zaharra 165
1.2.2. Sabino Aranaren araudi metrikoaren erabilera 166
1.2.2.1. Araudiaren lehen erabiltzaileak 166
1.2.2.2. Olerkarien jokaera 168
1.2.2.3. Euskaltzaleak sistema aldaketaren alde 169
1.3. Lizardiren metrika: sistema zaharraren eta berriaren erabilera 170
1.3.1. Sistema zaharrari buruzko zenbait zehaztasun 170
1.3.1.1. Sinalefen askatasuna 171
1.3.1.2. Azentugabeak sinalefan 172
1.3.2. Sistema zaharraren erabilera ezberdinak 172
1.3.3. Lizardi sistema zaharretik sistema berrira 174
1.3.3.1. "Diptongoen araua" 174
1.3.3.2. Sistema berriko salbuespenen erabilera 176
1.3.4. Sistema berriko lizentziak auzigai 178

1.3.4.1. Hitzen forma idatziaren aldaketa 178
1.3.4.2. Lizentziak eta hizkuntz normalizazioari buruzko irizpide ezberdintasunak 181
1.3.5. Aranaren araudia euskal neurkera finkatzeko saioaren oinarri 182
1.4. Erritmoa 183
1.4.1. Erritmoa euskal neurtizgintzan 183
1.4.1.1. Zedarripena 183
1.4.1.2. "Izketak berez dakarrena bezalako prosodia" 184
1.4.2. Lizardiren erritmoari buruzko teoria eta praktika 185
1.4.3. Lizardiren errimari buruzko teoria eta praktika 186
1.4.3.0. Sarrera 186
1.4.3.1. Olerkariak eta errimari buruzko iritziak 189
1.4.3.2. Orixe eta Lizardiren irizpideak errimari buruz 191
1.4.3.3. Lizardiren errima 195
1.4.3.4. Lizardiren errima mende hasierako koordenadetan 196
1.4.3.5. Lizardi eta sinbolisten errimari buruzko ideiak 198
1.4.4. Zangalatrauak 201
1.4.4.1. Zedarripena 201
1.4.4.2. Zangalatrauak Arrese-Beitia eta Jautakolen lanetan 201
1.4.4.3. Lizardiren zangalatrauak 203
1.4.4.4. Lizardiren zangalatrauak eta erritmoaren teoriaren arteko harremana 205
1.4.5. Beste zenbait baliapide erritmiko 207
1.4.5.1. Aliterazioa 208
1.4.5.2. Anaforak 210
1.4.5.3. Errepikapenak 212
1.4.5.4. Korrelazioak 217
1.5. Ahapaldiak eta olerkiaren eraiketa metriko-fonikoa 219
1.5.1. Zedarripena 219
1.5.2. Lizardiren ahapaldi-motak. 221
1.5.2.1. Molde txikiak 221
1.5.2.2. Molde nagusia 222
1.5.2.3. Ahapaldi isosilabikoak 222
1.5.2.4. Ahapaldi mota zaharrak: Kopla eta molde klasikoa 224
1.5.2.5. Ahapaldi berriak 226
1.5.2.6. Molde bereziak 226
1.5.2.7. Bestelako moldeak 227
1.5.3. Lizardiren ahapaldiei buruzko zenbait ondorio 228
1.5.3.1. Barietatea nagusi 228
1.5.3.2. Errima bikoitzak eta gurutzatu gabeak 229
1.5.3.3. Molde txikiaren zaletasuna 229
1.5.3.4. Molde ezberdinen konbinaketa 229
1.5.3.5. Ahapaldi moldea eta gaiaren arteko barne-harremana 230
1.5.3.6. Ahapaldien multzokaketa olerki barruan 230
1.6. Lizardiren metrikaren ikuspegi orokorra 232
1.6.1. Metrika aldaketen garaian 232
1.6.2. Lizardiren metrikaren ardatzak 232
1.6.2.1. Sabino Aranaren prezeptiba oinarri gisa 232
1.6.2.2. Erritmoa eta olerkiaren ereskitasunaren lehentasuna 233
1.6.2.3. Errima eta bestelako baliapide erritmikoak 233
1.6.2.4. Metrikaren alderdi teknikoen garrantzia 234
1.6.2.5. Ahapaldi moldeen eta gaien arteko egokitasuna. 234

2. ATALA: Azterketaren maila morfosintaktikoa 236
2.0. Sarrera 236
2.1. Morfologia Lexikoa 236
2.1.1. Hitz-elkarketa 236
2.1.1.0. Sarrera 236
2.1.1.1. Hitz-elkarketa ohizkoenen sailkapena 238
2.1.1.2. "Aren B" egitura 239
2.1.1.3. [Ako B] egitura 240
2.1.1.4. dvandva elkarteak 242
2.1.1.5. [A den B] formula 243
2.1.1.6. Izen+Izenondo egitura 244
2.1.1.7. Bestelakoak 245
2.1.2. Hitz-eratorketa 246
2.1.2.0. Sarrera 246
2.1.2.1. Eratorketa aipagarrienak 247
2.1.3. Atzizki eratorleez soilduriko lexemak. 250
2.1.3.0. Sarrera 250
2.1.3.1. Kasurik aipagarrienak 250
2.1.3.2. Atzizki kentzearen oinarri teorikoen bila 252
2.1.4. Lizardiren mintzairaren alderdi lexikologikoei buruzko zenbait ondorio. 253
2.2. Morfosintaxi mailako ezaugarriak 254
2.2.0. Sarrera 254
2.2.1. Izen Sintagma mugagabeak 255
2.2.1.1. IS mugagabeen erabilera poetikoaz 255
2.2.1.2. IS mugagabeak Lizardiren olerkietan 257
2.2.1.3. IS mugagabeen erabilera poetikoaren jatorri eta funtzioaz 261
2.2.2. Aditz Sintagmaren gorputz fonikoaren laburpena eta kategorizapen gramatikalaren moldaketak 263
2.2.2.1. Infinitibo eta Partizipioaren arteko neutralizazioa 263
2.2.2.2. [Izena + Ukan/Izan] egitura 268
2.2.2.3. Sintagma predikatiboak 269
2.2.2.4. Aditz sintetikoak 270
2.2.2.5. Zenbait aditz perifrasi 273
2.2.2.6. Adizkera etikoa 274
2.2.2.7. Aditz Sintagmari buruzko azterketaren zenbait ondorio. 276
2.3. Arkaismoak 277
2.3.0. Sarrera 277
2.3.1. Arkaismoak eta kultismoak 277
2.3.2. Arkaismo lexikoak 281
2.3.2.1. Lexiko kultoa 288
2.3.2.2. Aditzari dagozkion arkaismoak 284
2.3.3. Arkaismo morfosintaktiko bereziak 285
2.3.3.1. "Joan" eta "eraman" aditzez osaturiko zenbait Aditz Multzo 285
2.3.3.2. "Egon" eta "ikusi" aditzez osaturikoak 286
2.3.4. Ondorioak: Arkaismoen funtzioa mintzaira poetikoaren prestigiatze saioetan 287
2.4. Sintaxia 287
2.4.0. Sarrera 287
2.4.1. Egitura sintaktiko bereziki laburtzaleak 289
2.4.1.0. Sarrera 289

2.4.1.1. Sintagma laburtuen sailkapena 290
2.4.1.2. Zenbait laburpen berezi 291
2.4.2. Hizketa esaeratsuaren moldeko egitura laburtzaleak 294
2.4.2.1. Ahozko mintzaira iturri 294
2.4.2.2. Atsotitzak eta esaerak iturri 295
2.4.3. Erlatibozkoak 297
2.4.3.0. Sarrera 297
2.4.3.1. "Bait"-en bidez eginikoak 297
2.4.3.2. "Non", "nola", etabar.en bidez sarreraziriko erlatibozkoak 297
2.4.3.3. Lokailurik gabeko erlatiboak. 299
2.4.3.4. Erlatibozkoa ondokoa duen ISren ardadatzaren ostean kokaturik 301
2.4.3.5. Ondokoa isildurik 302
2.4.3.6. Lau kasu berezi 303
2.4.4. Esaldiaren elementuen ordena aldaketak: Hiperbaton 304
2.4.4.0. Sarrera 304
2.4.4.1. Alag. eta AM.ren ordena aldaketak 305
2.4.4.2. [I-Adj] erako I. Multzoaren ohizko barne-lotura haustea 306
2.4.5. Intzisoak 308
2.4.5.1. Azalpen bat egitera datozen intzisoak 309
2.4.5.2. Irudia sarrerazteko bide azkarra 311
2.4.5.3. Irakurlearekiko funtzio konatiboa duten esaldiak 313
2.4.6. Deiktikoen erreferente aldatzearen ondoriozko zailtasunak 316
2.5. Zenbait ondorio Lizardiren mintzo elertitsuaren morfologia eta sintaxiari buruz 318
2.5.1. Morfologia lexikoa: hizkuntza kultoaren espresibitate gaitasunaren adierazbide 318
2.5.2. Sintaxia, jatorri ezberdineko materialen arragoa 320

EPILOGOA:
LIZARDIREN INGURUMARIA ETA POETIKAREN ARTEKO HARREMANA 326

0. Sarrera 326

1. Munduan kokatzeko era pertsonala 326
1.1. Lizardirena, "bizileku sendoa"? 326
1.2. "Begi-belarri erneak eta arima urduria" 330

2. Konpromezu politiko eta kulturalaren garrantzia 332
2.1. Euskaltzaleak. Lizardiren kultur proiektu baten mamikuntza 333
2.2. Modernitatearen arriskuaren kontzientzia larria 334

3. Modernitatearen erronkari erantzuna emango dion mintzo elertitsua sortu beharra 334
3.1. Poemagintza kultoa 335
3.2. Errotik euskalduna den olerkigintza 336

4. Kanon estetiko subjetiboa da berrikuntzaren abiapuntua 336
4.1. Kontzeptismo literarioaren hautapena 336
4.2. "Aintzinako hizkuntzari darion trinkotasun noblea" 337
4.3. Gizartearekiko konpromezu etikoa duen olerkari estetikoia 338

4.4. Euskal estetikari dagokion kanona sortzearen bidetik 339
5. "Biotz-Begietan" eta Lizardiren lirika osoaren perspektiba 339
5.1. *Biotz- begietan* modernitatearen "primitae" 339
5.2. Lizardiren poetikaren zentzua Pizkundearen ingurumarian 342

BIBLIOGRAFIA 345

ERASNKINAK 354

1. Lizardiren Gutunak 359
1.1. Aitzin oharrak 359
1.2. Gutun zerrenda 360
1.2.1. Gutun pertsonalak 360
1.2.2. Gutun politikoak 360
1.2.3. Eusko Ikaskuntzarekiko zereginak eta kultura arloko harremanak 361
1.2.4. Euskal hizkuntza eta literatura 361
1.2.4.1. Euskal hizkuntza: fonetika, ortografia 361
1.2.4.2. Literaturaren inguruko zereginetaz 362
1.2.4.3. *Biotz-Begietan* liburuaren argitaralpenaz: Verdes eta Lizardiren arteko gutunak 362
1.2.4.4. *Biotz-Begietan* liburuari buruzko gutunak 362
2. Lizardiren olerkien Edizio Kritiko baterako 438
2.1. Lizardiren poemagintza lan literarioen testuinguruan 438
2.1.0. Sarrera 438
2.1.1. Kazetari-lanak eta narrazioak 438
2.1.1.1. Berriketak 438
2.1.1.2. Glosas triviales 438
2.1.1.3. Narratiboak 439
2.1.2. Antzerki lanak 440
2.1.1.1. *Laño ta Izar* 440
2.1.1.2. *Bi aizpak* 441
2.1.1.3. *Artaxuriketa* 441
2.1.1.4. *Ezkondu ezin ziteken mutilla* 441
2.1.1.5. Antzerki lanen taxuera 441
2.2. Lizardiren poemagintzaren sailkatze saioak 443
2.2.0. Sarrera 443
2.2.1. Lizardiren poemagintzaren periodizaketa kronologikoa 443
2.2.1.1. Lehen epea 443
2.2.1.2. Bigarren epea 445
2.2.1.3. Hirugarren epea 447
2.2.1.4. Poema ezezagunen erreferentziak 448
2.2.2. Olerkarien sailkapenen irizpideak 449
2.2.3. Lizardiren poemen argitalpenen zerrenda kronologikoa 450
2.2.4.1. Lizardiren olerkien bertsio aldraketak eta ohar kritikoak 454

SARRERA:

AZTERGAIA

HAUTATZE-ARRAZOIAK ETA METODOLOGIA

1. GAIAREN ETA METODOLOGIAREN MUGAKETA

1.1. GAIAREN AURKEZPENA ETA HAUTATZE ARRAZOIAK

Lizardiren poetika Pizkunde aroko ingurumariaren eta dokumentazioaren argitan ezartzea da tesi honen helburu nagusia, eta haren ideia literario eta praktika poetikoaren arteko harremana azaltzea.

Lizardiren poetikaz mintzatzerakoan, haren ideia literarioak eta praktika poetikoak nabarmenerazten duten literaturari buruzko irizpide nagusienen multzo koordinatua dugu gogoan, besterik gabe, eta poetika hitzak literatur kritikaren esparruan izan ditzakeen gainerako konnotazio eta baloreak alde batera utziko ditugu lan honetan.

Lizardiren poetika aztertzeko Pizkunde aroko ikuspuntua berreskuratzeko asmoa hartu izana faktore eragile ezberdinen fruitu da. Lan honi hasiera ematerakoan, hots "Lizardiren poemagintzaren azterketa formal bat" [1] izenburua zeraman lanari ekitean, haren olerkigintzaren baldintzapen pertsonal, politiko eta kulturalei ordura arteko kritikak emandako garrantzi eskasak harritu egin ninduen.

Izan ere, Pizkunde aroko idazleok euskal herriaren, kulturaren eta bereziki literaturaren egoera konkretu bati erantzuna eman nahirik zihardutela topiko arruntenen artean aipatzen bazen ere, beren mezuak zuzentzen zizkioten ingurumari horri buruzko azterketak urriak eta sarritan dokumentuetan oinarritu gabekoak bait ziren. Beharrezko neritzen dokumentuen bilaketari ekitean, 1925-36 bitarteko egunkari, aldizkari eta abarretan aurkitu nuen "giroak" Lizardiz eta Olerkarien belaunaldiaz nuen irudia guztiz aldatu zidan.

Beraz, alde honetatik esan liteke guda osteko idazleek eta literatur historiagileek Pizkunde aroko giro literarioaz emandako irudikapena nolabait idealizatua eta soilegia zela antzeman nuela. Euskal literaturaren eragileak, ideiak, asmoak, eztabaidek azalerazten zituzten jarrera ezberdinek, hots, garaiko literatur sorkundearen nondik-norako nagusiaren lerro nagusiak eta bigarren mailakoen arteko mugaketa denboraren joanak eta azterketa gabeziak desitxuratua zuela.

Era berean, konturatu nintzen literatur historia berriagoek, penduluari beste muturreraino eraginez, oinarri dokumentalik gabeko gaitsezpen borobilegietan hasiak zirela garai hartako egile nagusiei buruz, tamalez, aurreiritzi ideologikoen errotari eraginez sarritan.

Horregatik, ene iritziz behar bezala dokumentatu gabe finkatzen ari zen mogimendu kultural eta literario honen ikuspegiaren "berritasunak" erakarririk ekin nion 1925-37 arteko egunkari, aldizkari eta orokorki argitaralpenak oro aztertzeari, hots, esanguratsu neritzen testuinguru honen argibideak berreskuratzeari.

Beraz, eta bideak hartara eraman ninduenez, Lizardiren azterketa formalari ekiterakoan, olerkigintza edo forma poetiko hori "informatu" eta "konformatu" zuten ideien, presupuestuen eta hautaketa-irizpideen laguntzaren beharra sumatu nuen. Lizardiren poetika azaltzen lagunduko zidatelakoan ekin nion *Itz-Lauz* artikulu bilduman jasoak zeuden artikuluak aztertzeari. Han ere, ordea, ideia edo kontzeptu nagusiez jabetzea gaitza egiten zitzaidan eta jatorrizko egunkari eta aldizkarietara jo nuenean bakarrik ulertu ahal izan nuen zailtasun horren jatorria.

Pizkunde aroko garbizaletasunaren ondoriozko prosaren moldaketa berezia zaharkitua suertatzeaz gain, bazen *Itz-Lauzko* artikulurik hoberenak ere elkor egiten zituen beste faktore bat: Lizardiren artikuluetako izen bereziak, kazeta bidez elkarrizketakide zituenen deiturak ezabaturik zeuden. Era berean, garaiko ideia eta eztabaidagaien ingurumaria falta zuten artikuluok eta ondorioz, zentzu

---

1 Deustuko Unibertsitatearen Donostiako kanpusean burutua 1981-82 urtean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren beka baten laguntzaz. Argitara gabea.

gabeko, kamuts bilakatzen dira, norentzat, zeri erantzunez eta zein ingurumaritan idatziak izan ziren ez dakien gaur egungo irakurlearentzat.

Zehaztasun horiek argitzearren eginiko lanaren fruitu izan ziren 1983an Lizardiren omenezko *Jakin* aldizkariaren "Lizardiren olertia" izeneko 29. ale monografikoan argitaratu nituen "Aitzolen proiektu kulturalaz" eta "Lizardiren poetikaz" [2] izeneko saio-lan laburrak, hoien iturri argitaragabea den "Lizardiren olerkigintzaren azterketa formal bat" izeneko ikerketa-lana burutu nuelarik 1980-81 ikasturtean.

Bide berari jarraiki, *Itz-Lauz* liburuan agertzen ziren idazlanen jatorrizko taxuera berreskuratzeari eta han jasoak ez ziren kazetari-lan guztien bilketa lanari heldu nion.

Euskarazkoak eta erdarazkoak bildurik 113 artikulu dira denera eta bi hitzaldi: Arrasate eta Zumaiakoa; horietatik 22 eta bi hitzaldiak soilik hautatu zituen Joseba Mirena Markiegik 1934ko bildumarako [3] eta Antonio Mª Labaienek 1972an [4] 1934koaren berrargitaralpena soilik egin zuen. *Itz-lauz*erako hautaturiko euskal artikuluen balore literarioa Lizardiren artikuluen artean mailarik hoberenekoa zen. Baina horrezaz gain, zuten balore dokumentala berreskuratu asmoz, jatorrizko bertsioetara jotzean aurkitu nituen gainerako 87ez osaturik, Lizardiren kazeta bidezko iharduna askoz hobeki nabarmentzeko era eskuratuko nuela iruditu zitzaidan. Honela ekin nion egunkariz-egunkari eta aldizkariz aldizkariko bilketa lanari.

1987an eta Erein argitaletxearen bitartez eman nituen ezagutzera Lizardik egunkari eta aldizkarietan 1927-1933 bitartean argitaraturiko artikulu guztiak.

Artikulu bilketa exhaustiboa egin nahi izan nuen gaur eskuartean duzuen tesi lan honen lehen oinarri gisa.

Liburuaren hitzaurrean azaldu nuenez, *Xabier Lizardi. Kazetari-lanak* [5] izeneko artikulu bilduma zenbait urteko ahaleginen fruitu zen. Guda aurreko egunkariak sakabanaturik zeuden liburutegietako egunkarietatik aldatu nituen banan-banan, kasurik hoberenetan fotokopiak eginez, eta okerragoetan berriz, eskuz idatzi nahiz magnetofonoz grabatu eta azkenik, makinaz idatzi nituelarik. Ondoren sailkatu, azpi ohar argigarriak egin, hitzaurrea eta aurkibide kronologiko eta tematikoa prestatu, okerrak zuzendu... Zenbait urtetako ahalegina eraman zidala egia bada ere, ez nuen lana bere horretan amaitutzat. Bilketa lanak azterketa sakonagoetarako bidea eskeintzen zidalako ustean niharduen.

Bere horretan Lizardiren kazetari-lanen edizio kritikoa prestatzeak Lizardiren idazlan poetikoak ikuspuntu berri batetik aztertzeko tresna eskuratu zidalakoan ekin nion lanari eta horrenbestez, aipatzen ari naizen liburu hori tesi honen eranskintzat aipatzea bidezko eta are beharrezkoa iruditu zait. Hauxe da, bada, eskuartean duzuen lanaren etorkia eta asmo nagusiaren azalpena.

Bestalde, 1987ko urtean eman zituen azkenik ezagutzera Lino Akesolok Lizardiren gaztetako 18 poema ezezagun Zornotzako karmeldarren liburutegian gorderiko 1818tik 1923arteko *Euzko Deya* aldizkarietan bilduak [6].

Osatutzat eman zitekeen, beraz, Lizardiren poemagintza osoari buruz egiteko beharrezkoa zen poemario osoaren "corpus"a, eta, ondorioz, kazetari-lanetan, gutunetan eta gainerako informazio

---

2 OTAEGI, L.; "Lizardiren poetikaz" in Jakin, 29, 1933(urria-abendua), 39-52. or. eta "Aitzolen projektu kulturalaz" in *Jakin*, 29, 1983(urria-abendua), 18-27. or.

3 LIZARDI, X.; *Itz-lauz*, Euskaltzaleak, Donostia, 1934.

4 LIZARDI, X.; *Itz-lauz*, Edili, Donostia, 1972.

5 OTAEGI, L.; "Hitzaurrea" in *Xabier Lizardi. Kazetari-lanak*, Erein, Donostia, 1987, 15-37. or.

6 AKESOLO, L. (ed.); "Lizardi gaztearen olerki-mordoa" in *Karmel*, 180, 1987(1), 6-15. or; "Lizardi zanaren beste lau olerki" in *Karmel*, 181, 1987(2), 25-32. or.; "Lizardi-ren gaztetako olerkiak (Azkena)" in *Karmel*, 183, 1987(4), 57-64. or.

pertsonalean oinarriturik, Lizardiren lirikari buruzko azterketa orokorrari ekiteko beharrezko ziren langai guztiak eskura lehen aldiz eskura zeudela iruditu zitzaidan.

1.2. METODOLOGIAREN JUSTIFIKAZIOA ETA AZTERLANAREN MUGAK

1.2.1. Lizardiri buruzko azterlanen artean kokatzea

Lizardiren idazlan literarioari buruzko azterketetan ez da gehienetan ingurumaria, aktibitate kultural politiko eta literarioaren arteko harremana aintzakotzat hartu izan. Ene ustez, berriz, ingurumari horrekiko harremanean eta dialektikan berrezartzeak Lizardiren obrak sortu zenean zuen zentzua berreskuratzen eta haren poetikaren zantzu nagusiak ezagutzen lagun dezake.

Alde batetik, barne muin-muineko lirika egin zuen idazle honen baldintzapenak eta munduikuskera jaso nahi izan ditut lan honetan. Sarritan, alderdi hau gaingiroki aztertu izan da, benetako azterketari ekin baino lehenagoko konpromiso huts bat besterik ez balitz bezala. Horregatik, eta guda aurreko olerkarien belaunaldiari buruzko azterketak behar bezain zehatzak eta dokumentaziorik gabe egin izanaren ondorioz, sarritan gure garaiari dagozkion aurreiritziez epaitua izan da idazle honen ekintza pertsonala, kulturala eta politikoa.

Beraz, Lizardiren obraren testuinguruari, hots, biografia, jarrera politiko, kultural eta munduikuskera ahalik eta gehien aztertzeari garrantzitsua iritzi diot, haren poetika edo ideia poetikoen taxuerak garaiko joerekiko harremanean eta kontrastean bereziki nabarmenerazten bait ditu alderdi jakingarri zenbait.

Jose María Agirre "Xabier Lizardi"ren giza-nortasun eta pertsonalitate literarioari egingo zaion lehen hurbilketa honetan gure helburua idazleak eta haren idazlanak izan zituen baldintzapen pertsonalak, sozialak, kulturalak eta literarioak ezagutzera ematea da, haren poetika pertsonalaren eraikuntza azaldu eta justifikatzen dutela uste dugun heinean.

Ingurumariari buruzko azterketetan ohizkoa izan ohi den egilearen bizitza datuak, ingurumari kulturala eta literarioaren azalpenak, lehen idazlanen argitaralpenak etabarrek badute kasu honetan zeresan berezia, alde batetik eta nagusiki, Lizardi poeta liriko bat delako eta bere bizitzari eta ideiei eragin zioten faktoreak ongi ezagutzeak haren obra hobeto ulertzen eta nabarmentzen lagun bait dezakete, munduan kokatzeko era baten berri ematen bait dute.

Bestetik berriz, Lizardi guda aurreko idazlea da, eta garai hari buruzko bibliografia Sarasolak dioen [7] moduan ugaria bada ere, gutxitan dago garaiko dokumentu eta lekukotzetan oinarritua.

Halaxe, Lizardiri buruz gehienik ezagutzen den guda osteko bibliografiak haren irudiaren alderdi batzuk azpimarratu eta beste batzuk itzalean utzi ditu, sarritan balorazio kritikoak kritikoen aurreiritzi ideiologikoak edo jarrera ikonoklasten lekuko baizik ez direlarik.

Jarrera goraipatzaileak nahiz gaitzesleak benetako Lizardi idazleaz, bere ingurumarian kokaturik benetan zenaz eta zituen asmoez ez ikusiarena eginik ihardun dute, ene ustez, gaurko perspektibatik ikusirik Lizardiren idazlanak izan duen harrera arrakastatsuaren errainuan eta hari buruz ezagutzen diren datu eskasen irudi topikoan fidaturik.

Ibon Sarasolaren iritziko naiz ni ere Lizardiri buruzko bibliografia zabala izanarren "Lizardiz ezer gutti dakigu"la esaten duenean [8]. Hala ere, 1978an Sarasolak hitz horiek argitaratu zituenez geroztik egoki hornitua da Lizardiri buruzko bibliografia, zorionez.

---

7 SARASOLA, I.; "Lizardiren poemagintzaren alde formalen estudio batetarako" in *Homenaje a Julio Caro Baroja*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid, 1978, 953. or.

8 *Ibidem*, 953. or.

Lizardiri buruzko bibliografia hobetze eta osatzearen bidean Ibon Sarasola bera aipatu behar da lehen mugarritzat, *Gabriel Arestiren Obra Guztiak* liburuaren "Euskal Abertzaletasunaren argiak eta itzalak: Olerkariak" [9] hitzaurrean guda-aurreko belaunaldiaren ikuspegi kritiko guztiz fidagarria eskeini bait zuen 1976an.

Lizardiren heriotzaren 50. urteurrena zela eta, 1983an izan ziren ospakuntzek ere haren inguruko bibliografiaren suspertzea ekarri zuen: Luis Mari Mujikak *Lizardiren lirika bideak* izeneko liburua argitaratu zuen [10] Lizardiren lirikari buruzko zenbait alderdi aztertuz; urte berean, *Jakin* aldizkariaren "Lizardiren Olertia" izeneko 29. ale monografikoak [11] ekarri zituen plazara zenbait izen konsagraturen lan berriak, hots, 1975ko *Xabier Lizardi. Olerkari eta prosista* [12] liburuko literatur azterketen egile izandakoetako bi, Andu Lertxundi eta Angel Zelaieta, eta Lizardiri buruzko azterlarien artean berri ziren zenbait literatur kritiko ere bai, Jon Kortazar, Juan Mari Lekuona, eta ni nerau.

Pizkunde aroaren azterketan berriak ginenon arteko lehenak, Jon Kortazarrek, hiru urte beranduago, 1986an eman zuen argitara *La teoría y práctica poética de Lauaxeta* [13] tesiaren muina. Pizkunde aroko idazleon azterketan lan sakon eta dokumentuz egoki horniturikoetan ezarririko lehen giltzarritzat jo behar da Lauaxetari buruzko hau, eta azterlan honetan zehar aipatuko dira Pizkunde garaiko eztabaida literarioen ardatzak hobeto ezagutzeko aukera eskaini duten egile beronen beste zenbait artikulu interesgarri ere.

Berriki, azkenik, Lizardiren bibliografiaren hutsartea handizki bete duen Karlos Otegiren *La poética de "Biotz-Begietan"* aurkeztu da [14], tesi gisa, Deustuko Unibertsitatearen Donostiako kanpusean, 1991ean. Azterketa-lan honek Lizardiren *Biotz-Begietan* liburua isladatzen den poetika praktikoaren lerro nagusiak azpimarratu ditu, metodologia semiotiko guztiz zehatzaren bidez.

Lizardiren olerkigintzaren alderdi semantikoen azterketan funtsezko izango diren oinarriak bota dituela esan daiteke, zalantza handirik gabe.

Honela, 1978z geroztik gehienik azterturik dagoen Lizardiren *Biotz-Begietan* liburuaren arlo semantikoaren azterketari goren maila eskeini diola esan genezake, 1974ko V. Arrillagaren *Introducción a la poesía de Lizardi* izeneko lizentziatura memoriaren lehen ahalegina osatu du [15], Lizardiren unibertso poetikoaren azterketa orokorra eta zehatza eskainiz.

1.2.2. Metodologiaren azalpena

Gaiari dagokionez ez ezik, metodologiaren aldetik ere Karlos Otegiren *Biotz-Begietan*go poetikaren azterketa utziezinezko erreferentzia zait tesi-lan honen aurkezpena burutzeko. Helburu bera izanik, hots, Lizardiren obra poetikoa hobeki ezagutzea, nireaz guztiz bestelako bidea hautatu du helburu hori iristeko.

Bere lana egiteko hautatu zuen metodologia azaltzean obra literaturaren komunikazio prozesuan kokatua ikusten duela esaten du, baina aztertzerakoan, "privilegiamos el texto en sí mismo: él es el

---

9 SARASOLA, I.; "Euskal Abertzaletasunaren argiak eta itzalak: Olerkariak" in *Gabriel Arestiren Obra Guztiak*, I, Kriselu, Donostia, 1976, 22-28. or.

10 MUJIKA, L.M.; *Lizardiren lirika bideak*, Haranburu, Donostia, 1983.

11 "Lizardiren olertia" in *Jakin*, 29, 1983(urria-abendua), 6-117. or.

12 LETE, X., ZELAIETA, A. eta LERTXUNDI, A.; Lizardi, liriko eta prosista, Jakui Arantzazu-Oñati, 1976.

13 KORTAZAR, J.; *Teoría y práctica poética de Lauaxeta* Desclée de Brouwer, Bilbo, 1986.

14 OTEGI, K.; *La poética de "Biotz-Begietan"*, 1991, Argitara gabea.

15 ARRILLAGA, V.; *Introducción a la poesía de Lizardi*, Lizentziatura Memoria, Deustuko Unibertsitatea, 1974, argitara gabea.

punto de partida y de llegada" [16] esaten du sarrera metodologikoan, eta *Biotz-begietan* zehatz-mehatz aztertzean, objetibotasuna iristeko goresgarria den metodologia zehatzaz baliaturik, Lizardiren poetikaren unibertsoaren panorama gardena ematea lortu du.

Ene azterbidea alderantzizkoa da, diodanez, obra izanik helburu, kanpotik abiatu naiz hura ezagutzera. Ingurumaria eta Lizardik berak emaniko informazioaz baliatuz aztertu dut haren *mintzo landu elertitsu*aren sorrera. Beraz, azterketa honen oinarri metodologiko gisa, literatur idazlana ingurumari-egoera batean egileak eta irakurleak duten komunikazioan kokatzen da, eta ondorioz, testuen teoria bat eta komunikazio eta testuinguru literarioen teoria bat hartua dudalarik oinarri.

Ana Maria Toledoren *Domingo Agirre: euskal elaberriaren sorrera* doktorego tesian erabiliriko metodologia aurkeztean aipatzen duen T. Van Dijk-en azalpen batek aditzera ematen duenez, literaturari buruzko teoriak "testu literarioa"z bakarrik arduratu behar lukeela aldezten duten ikuspuntuak ideologikoak eta eutsiezinak dira. Testuko estrukturak bere horretan garrantzitsuak badira, haien funtzioak, zertarakoak ere garrantzitsu dira, obra sortu eta jasoa izan den egoeraren ezaugarriekin batean [17].

Idazlearen, igorlearen errealitatea, orainaldia aztertzea hartu da asmotzat tesi-lan honetan, haren koordenada sozio-politikoan, haren garaiaren argitan haren poetikak zituen zergatiak eta zertarakoak ezagutzeko. Izanez ere, idazlanaren sortze-baldintzak idazlanari itsatsirik bait daude, haren egituraketaren, taxutzearen arduradun eta partehartzaile bait dira.

Lizardiren obra poetikoa komunikazio prozesuan halako egoera jakin batean igorleak irakurleari bidaltzen dion mezua den heinean, idazlanaren sortze-baldintzak eta funtzioak aztertzeari aitortua diogun garrantzia ematen diogularik, bertatik esana dago ez diezaiokegula idazlanaren beraren azterketa luze, zabal eta zehatzari tarte gehiegi eskaini, ez eta azterketa exhaustiborik egin ere. Hartua dugun helbururako beharrezkoa deritzogun heinean soilik lotuko gatzaizkio, bada, funtsean filologian ohizkoa den metodologiari atxikirik. Lizardik sorturiko "mintzo elertitsua" hizkuntzaren moldaketa zehatz batzuen bitartez gauzatu bait zen, haren irizpide edo ideia literarioen isladapen gisa.

Horregatik, Lizardik sorturiko obraren azterketa osorik eskaintzeko asmorik ez dut, ingurumariari buruzko informazioak eta ideia poetikoetan zedarritu zuen ideal estetikoa gauzatzean mamitu zuen kanon estetikoaren alderdi formalei, metriko-fonikoei eta morfosintaktikoei bakarrik lotuko natzaie.

Ene asmoa ez da Lizardiren lirikaren alderdi guztien azalpena egitea. Teorikoki —tarteka-marteka bada ere— adierazi zuen poetika dut gaitzat, bizi izan zuen gizarteari begira eraturiko erantzun estetikoa den heinean bakarrik harturik.

Aztergaiari berari dagokionez, berriz, eta ondoren aipatuko diren gorabehera testualen ondorioz, *Biotz-begietan* liburuan jasoriko poemez gain, *Euzko Deya, Euzkadi, Argia, Euskal Esnalea, Yakintza* aldizkarietan eta *Euzkadi*, eta *El día* egunkarietan argitaraturikoak, bai eta hilondoko *Umezurtz olerkiak* izeneko liburuan jasorikoak ere hartu ditut aztergatzat.

Lanerako "corpus" gisa Lizardiren produkzio osoa hartzean, gogoan dut Lizardik bere lirikaren emaitzarik hoberena *Biotz Begietan* liburuan mamitu omen zueneko ustea oso hedatua dela. Lizardik argitara nahi izan zituen olerkiak *Biotz Begietan* daudenak soilik direla, nolabait; gainerakoei ez ziela egileak berak haien maila bera aitortzen eta horregatik utzi zituela alde batera. Halabaina, gogoan hartu beharreko zenbait datu interesgarri eskeintzen digute garaiko dokumentuek, ene ustez.

---

16 OTEGI, K.; *La poética de "Biotz-Begietan"*, I, 23 or.

17 VAN DIJK, T.; "The pragmatics of Literary Communication" in *Coloquio Internacional*, San Juan, 1977, in TOLEDO, A. M.; *Domingo Agirre: euskal elaberriaren sorrera*, Bizkaiko Aldundia, Bilbo, 1989, 24 or.

Aldez aurretik esan behar da azaldu berria dudan bezalako metodologiak idazlearen obra osoa aztertzea eskatzen duela, 54 olerkiz osaturiko poemarioaren emaitza osoaren zentzu poetika ez bait du agortzen 1932ko liburuak.

Bestalde, berriz, Lizardiren kasuan *Biotz-Begietan* liburuaren sortze-egoerari buruz dugun informazioak zera pentsarazten du, poemen hautapena ez ote zuen Lizardik berak bakarrik egin, eta 1932ko lehen edizio hartan jaso ziren itzulpenak ez zirela bereak uste izateko froga ziurrak daude.

Biotz Begietan liburuko 21 olerkien hautapena Orixek berak egina dela dio [18]. Hau egia bada, ez dago Lizardiren olerkigintzaren baitan hark poetika definitu baten erakusgarritzat hautatuko zituzkeen olerkiak 1932ko liburukoak soilik direla esateko erreferentzia ziurrik, ene ustez.

Orixek hautatu zizkionekin "erara" geratu omen zen, Orixek hala dio, baina era berean, Lizardik bere kabuz, Orixek hitzaurrean dionez, bi olerki egin berri "azken orduan eginak" erantsi zituen *Gure Mintzo* eta *Izotz ondoko Iguzki* [19] izenekoak. Orixeren iritziz, poema horiek besteak bezain "legunak" ez izanarren, Lizardik libururako azken muturrean egin zituela esaten du.

Orixeri besteak bezain legunak ez zirela iruditu arren Lizardik sartu egin izanak, Orixeren iritziaren "erabakigarritasun"aren mugak erakusten ditu eta Lizardik liburuaren moldaketari emaniko azken taxu pertsonalaren segurantza. Bestalde, Lizardik *Biotz-Begietan* olerki solteen bilduma hutsa izan beharrean, helburu edo zentzu jakin bat ez ote zion eman nahi izan susma arazten digu azken datu honek, eta tesi-lan honetan zehar aurkezturiko argudioen ondoriotzat aipatuko dugu.

Lizardik berak liburuaren lehen argitapeneko azpiohar batean dioenez Orixek "espontáneamente" [20] eginiko itzulpenei [21] erantsi zizkien zenbait oharrei erreparatuz gero, liburuaren atontze lanetan izan zuen zerikusia testuak eta itzulpenak prestatu ondorengoa izan zela pentsa liteke; horregatik ez zituen nahi zituen zuzenketak garaiz egin ahal izan eta azpioharrez azaldu behar izan zituen bere iritziak.

Gainerakoan, Edizio Kritikoaren eta Lizardiren Eskutitzak izeneko eranskinaren sarreran zehaztasun osoz ezagutu ahal izango da idazlan honen sorrera prozesuan izaniko beste zenbait gorabehera.

Nolanahi ere, Orixeren aitorpen honek *Biotz-Begietan* liburuak zukeen zentzu poetikoaren batasunaren irizpidea ez du hausten, ene ustez. Lizardik Verdes Elorriagari eginiko gutunek liburuaz buruan aspalditik zerabilen ideia zehatz eta garbia bete arterainoko onik ez zuela izan frogatzen badute, are gutxiago jar daiteke zalantzan Lizardik nahi izan zuen gisan eratu zuela bere liburua, eta

---

18 "Bildu zitzaien laugarren ua, beti nere buruzki ari zan. Zergatik? Iduritu txar batek artu zulako. Bein aita Intza etorri zitzaidan aren anaia zanaren neurtitz sorta batekin, liburu bat agertzeko asmoan: aukera egin nezala. Yainkoak ba-daki, neregatik eta Aita Intzarengatik liburu ua (eta polita ziteken), etzala zokoan geldituko. Baina zer zan iruditu ori? Nik ez nitula oberenak aukeratu. Bekaitzez? Etzait iruditzen. Zazpi griña-buruetan etzaida paltako au ere, beste edozeiñi bezela, *baña Lizardi nik aukeratuekin erara gelditu zan*; eta Jaka ere bai. Onen liburu gaia ere an gelditu zan irarkolan, matxinada etorri zenean". Orixe "Lizardi Ameriketan" in Eusko Gogoa 7-8, 1950, 8. or.

19 "Landuak bai, baina ez bear bezain legunak" (330. or.) in ORIXE; "Biotz Begietan. Orixek idatziriko sarrera" in *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 325-331. or.

20 Ikus "Lizardiren olerkien edizio kritiko baterako" eranskinean *Ondar Gorri*ri buruzko oharrak.

21 ORIXE; "Lizardiren azken olerkiak" in *Yakintza*, VI, 1933, 94-99. or.
"*Ondar gorri* deritzaionean nik esan nion "Lur andrea" ordez "Andre lurra" yartzeko, bestela bitara artu zitekela. Nere esana egin zun gizagajoak. Beste iñoiz ere nik esanda zenbait bertso kendu ere egin zitun, argitara baino len. Au etzidan oraindik erakutsi ta etzun bukatu. Gero agertu da paperen artean. Gauza ederra dala sumatuko zenuten, baina irakurraldi batekin ez diteke bear bezela ezagutu. Ez dizuet berriz irakurriko, baina erderara biurtuta bai, neronek len egin izan nion bezela. *Liburuan nere erdera yarri ere egin zun, berak baino obeki asmatu niola esanez.* Etzaizute beraz gaizki irudituko".

tesi-lan honetan zehar azaltzen saiatuko garen moduan, esanguratsua zen egituraketa eman ziolarik gainera. [22]

Halaere, azpimarragarria iruditzen zait 1932ko liburuaren eta gainerako olerkien artean maila ezberdintasunaren irizpidea ez dela erabakigarria azaltzea.

Liburuan jasoak dauden olerkien eta besteen artean Lizardik berak ikusten ez zuen mugarik eraikitzea ez da komeni, aurreiritzi edo behar metodologikoen korronteari amore emanik. Izan ere, 1932ko liburuan jasoriko 21 poemek sartu ez ziren gainerako poemekiko harremanetan mundu poetiko zabalagoa, *Biotz-Begietan*en agortzen ez den obra poetikoaren errealitatea osatzen bait dute.

Esate baterako, ohar bedi Lizardik *Agur* olerkia *Eusko Olerkiak I* liburuan, 1930eko Errenteriako Olerti Sariketarako aurkeztu zuena, *Maitea* izeneko poema baten "apurño" edo fragmento bat zela azaltzen zuen ohartxo batez agertzen dela [23]. Aitzolek *Umezurtz Olerkiak* bilduman *Maitearen apurñoak* izenburua ipini zion poema luze eta amaigabearen zatia zen, beraz.

Umezurtz Olerkiak liburuan *Maitea* poema sortatik bereizirik agertzen den *Arrats Gorri* izeneko poema ere haren zati da, Xabier Letek 1983ko *Olerkiak* Lizardiren poemen argitalpenean egoki igarri bezala [24] Lizardik aldez aurretik egina zuen poema-hariaren bizkarrezurrari erreparatuz.

Lizardiren poesigintzaren taxuerari begiratuz berriz, zerikusi nabarmena dute biok *Maitea* poema horretan garatzen ari zen mintzaira poetikoarekin. Alde honetatik, bada, Lizardiren idazlanaren kronologia eta sailkapena zaildu egiten duen bilduma da *Biotz-Begietan*, eta horregatik Edizio Kritiko baterako materialak prestatzea beharrezko tresna iruditu zait azterketa-lan hau burutzeko.

Azterlan honetarako beharrezko iritzi diedan Lizardiren idazlan poetikoen edizio kritikoa prestatu dut, *Euzko Deya*n argitaraturikoez Akesolo 18ko bildumari, eta *Biotz Begietan*, *Umezurtz Olerkiak* eta *Yakintza*n argitaraturikoei, orain arte ezezagunak ziren 1926-27 urtean *Euzkadi* egunkarian argitaraturiko *Udazken* eta *Ar uts* izenekoak erantsiz, eta gaztaroko idazlanen artean edizio kritikorako bereziki interesgarri iruditu zaizkidan bi ipuin ere jasoz.

Honela burutu den edizio kritiko baterako materialen prestaketak orain arte ezagunak diren olerkien aldaki edo bariante guztiak alderatu ditu, ezberdintasunak azpimarratu, eta bilakabidearen ezaugarriak azpimarratuz oharrez hornitu. Era berean, olerkien artean sumaturiko harremanak nabarmenerazi dira (metriko, foniko, morfosintaktiko, eta semantikoak). Lizardiren idazlan poetikoak hobeki ezagutzeko eskuetaratu zaigun informazio guztia multzokatu eta erabili ahal izateko eran ezarriz.

Aztergaitzat *Biotz-begietan* hartu beharrean idazlan osora jotzeko abiapuntuetako bat izan den Orixeren lekukotza, fidagarri ote da, ordea? Ibon Sarasolak "Lizardiren alde formalen estudio baterako" deritzan artikuluan [25] Orixeren baieztapenetako bat zalantzan jarri edo hitzez-hitz

---

22 Lizardiren eskutitzen artean José Verdes Elorriagari zuzenduriko 1932-1-31koan esaten du liburua editatzen hasi ondorengoa dela bien arteko harremana, bai eta editaian hasiz gero, alegia Orixek lehen tramite guztiak eginez gero, liburua lehen bait lehen ateratzea nahi lukeela. Ikus 59. dokumentua in "Lizardiren eskutitzak" eranskinean.

23 LIZARDI, X.; "Agur!" in *Eusko Olerkiak 1930*, Euskaltzaleak, Donostia, 1930, 52-55. or.

24 "Oraingo gure iritziz, "Egamin" eta "Arrats gorri" estiloz, tajuz, eta tankeraz, "Maitearen apurñoak" poema narratibo luzearen atalak lirateke. Baina, ziurtasun osorik ezean, Aitzol zenaren ordenaketa errespetatzea bidezkotzat jo genuen" (8. or.) in LETE, X.; "Aintzin-solasa" in LIZARDI, X.; *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 5-11. or.

25 SARASOLA, I; "Lizardiren poemagintzaren alde formalen azterketa baterako", 954. or. Sarasolak Orixek 1963ko *Olerti*, (I-II)an argitaraturiko "Lizardi" artikuluan adierazirikoa du gogoan:
"Ez Machado'tarrik, ez Juan Ramón Jiménez, ez García Lorca, ez nik ordu artan ezagutzen. Orain, izenez, ez irakurriz. Lizardi ere nere moduan zebilela nik uste. Ez genitun aitatu beiñere poeta oiek, ez besterik ere. Ez gendun liburutegirik, literaturazkorik beintzat, ez ark ez nik. Irakurtzeko betarik eta amorraziorik ere ez. Naiko lan gendukan gure euskerarekin. Bein bakarrean ikusi nion eskuetan olerki-liburu bat: Las cien mejores poesías líricas castellanas, Menéndez eta Pelayo'ren bilduma".

sinestekoa ez dela esaten du, Orixek "bere burua baserritar hutstzat agertzeko zuen zaletasuna" kontutan hartu gabe. Ez zaio sinesgarri iruditzen Lizardiren irakurketei buruz diharduelarik Menendez Pidalen *Las cien mejores poesías líricas castellanas* izatea esku artean ikusi zion liburu bakarra.

Baina, Luis Mari Mujikak *Lizardiren lirika bideak* liburuan [26], zenaren liburutegiko zenbait libururen zerrendan liburu hauxe bera jasotzen du, beste zenbaiten artean.

Ezinezkoa iruditzen zaio Ibon Sarasolari, "Madrilen egin zuen aldian bederen, besterik irakurriko zukeen Lizardik". Baina, Antonio Maria Labaienek elkarrizketan esanikoa sinestekoa bada, Lizardik ez zuen berez Madrileko Unibertsitatean egonaldi luzerik egiteko aukerarik izan. Ikasle libre gisa, eta ohi baino denbora laburruagoan egin bait zituen ikasketak, aldi berean Tolosan banku batean lanean ziharduelarik[27].

Nolanahi ere den, Sarasolaren jarrera sinesgogor berak jo bide ditu guda osteko literatur kritiko gehienak, Orixek ezagutzera emaniko iritzi hauek ezagutu arren, hartarainoko garrantzirik eman gabe ihardun bait dute *Biotz-Begietan* liburuko olerkiez gain, balore literarioa nabaria duten *Umezurtz Olerkiak* sortako zenbait bakarrik aztertuz.

Orixeren lekukotzari eman beharreko balioztapena zuhurtasunez hartu beharrekoa da nonbait, haren nortasunaren berri zekitenek emaniko sinesgarritasunari erreparatuz gero, baina era berean, liburuaren moldakeran eta sorreran izan bide zuen partaidetzari buruzko datuak erabat baztertzekoak ez direla ikusten da, esate baterako, itzulpenei dagokienez.

Lizardi eta Orixeren itzulpenen arteko aldea sumatu ere egin daiteke *Bizia Lo* olerkiaz "Olermen irakite" [28] artikuluan eman zuena *Biotz-Begietan* liburuan agertzen denarekin alderatuz gero: Lizardik hitz guztiak aldatzen ditu zehatz-mehatz eman nahi zien zentzua bilatuz, Orixek itzulpen globalagoak egiten ditu eta zenbait zehaztapen ixildu edo aldatu ere egiten ditu. Inpresio hori areagotu egiten da Euskaltzaleak erakundeak argitaraturiko 1930 eta 1931ko *Eusko Olertiak I* eta *II* liburuetan agertzen diren *Parisko Txolarre, Otartxo Utsa* eta *Agur* olerkien itzulpenak eta *Biotz-Begietan*goak alderatuz gero.

Aipatu ditudan *Biotz-Begietan* liburuaren argitaralpenaren inguruko zehaztasunok kezka sortu zidaten niri, Orixeren eraginaren mugak argitzearen zailtasunaren inguruan. *Biotz-Begietan* liburuaren printzipio egituratzailea Lizardik hautaturikoa izanik ere, bazterturiko olerkiak, alboraturikoak ez ote zigukeen Lizardiren poetikaren irudi benetakoagoa ikustea eragotzi:

> "Ikusi ezak bertso-mordoxka au, argitarako gauza ote liteken" esan zidan. Eraman nitun baserrira, ark ekarrarazita naukan baserri artara, eta astiro, goxo goxo irakurriz, "au diagu gizona" esan nion nere buruari. Berela itzaurrea egin nion, eta aren andreak irakurri zun. Lenago, "zeron bertsoakin txoratu egingo zaizue" esaten zunak, orain etzedukan egonarririk liburua argitara arte. Alabearrez, noizean bein Bilbaora yoan oi nintzan, andik ez baininduten oso nere eskuko utzi. Liburua artaraño ekartzea gosta zitzaidan, neronek dakidan ainbat; baiña aurrera ere enun ondotik utzi. Gezurrik izpirik ez diot, berreun aldiz baino geiago Verdes'en lantegietan sartu nintzala ba diot. Lan asko zeukan beti bezela, ta

---

1932an liburua argitaratu zuenean esandakoaren hildo beretik doa, berez. "Biotz Begietan. Lo clásico y lo moderno" (*Euzkadi*, 1932-4-26) artikuluan antzerako baieztapena egin zuen:
"Podemos decir con permiso del autor, que no conoce más poesía que la que leyó en los Trozos escogidos al hacer su carrera. Carece pues, casi absolutamente de lectura, cosa que todavía dice más en su favor. La cuestión de la originalidad de su poesía no nos puede dar ninguna preocupación [] Su formación literaria la debe a los breves ratos que le permite el agobiante trabajo de su cargo".

26 MUJIKA, L.M.; *Lizardiren lirika bideak*, I, 43. or.

27 OTEGI, K.; "Relaciones de intertextualidad" in *La poética de "Biotz-Begietan"*, II, 853-861. or. Olerkariaren semeak gorderiko 1914ko Deretxo ikasketen "preparatorio" ikasturterako prestaturiko literatura ikasgaiari buruzko fitxa moduko batzuen aipamena egiten du, zehatz-mehatz ikus daitekelarik haren literatur formazio akademikoaren nondik-norakoa.

28 *Euzkadi*, 1930-6-1, 5 or.; *K-L* 309-311. or.

eragin-bearra nedukan. Aurreneko irartokerrak neronek zuzendu eta bigarrenak Tolosara bialtzen nizkion" [29].

Puntu hau hainbesteko zehaztasunez azaltzean, aztergaitzat Lizardiren poemario osoa hautatzearen arrazoia emanaz batera, erakusburu bat aurreratu nahi izan dut: Pizkunde aroko ingurumaria ongi azterturik izateak eta olerkariei dagozkien dokumentuak ongi ezagutzeak eskain liezazkigukeen erreferentzia ziurragoen garrantzia azpimarratu nahi izan dut, baita, ustez segurutzat jotzen diren arazo testualei dagozkien arloetan ere. Esate baterako, Lizardiren poemen azterketeta egitean *Biotz-Begietan* liburuaren lehen argitalpeneko itzulpenetan oinarritzeak ekarri izan dituzten ulerpen aldetiko desbiderapenak eragotz zitezkeen.

Horregatik, metodologikoki bereziki azpimagarria deritzot lan honetan Lizardiren obra poetikoaren argigarri izan daitezkeen oinarri dokumental guztiez baliatzeari, haren poetika teoriko eta praktikoa Pizkundearen ingurumariaren argitan ezartzeko.

2. AZTERLANAREN EGITURAKETA

2.1. LEHEN PARTEA: TESTUINGURUA

Azterketa formal hutsa egin ahal izateko azaldu dudan informazio gabeziaren eragozpena eta arriskua sumatu nituelarik, neure aldetik lanari oinarria emateko asmoz hiru partetan bereizteko erabakia hartu nuen: lehenik, arestian aipatu dudan Ibon Sarasolak "Lizardiren poemagintzaren alde formalen estudio baterako" deritzan separatan, Lizardiz benetan zein gutxi dakigun azpimarratuz, aholkatzen duena eginez:

> "Sarrera gisa aurreratu ditugun hitz hauk dei bat izan nahi lukete idazleen berri emateaz arduratzen direnentzat: euskal literatur kritikak, hitz-joko apain bat baino gehiago izango bada, idazleei buruzko beste dato mueta bat behar du bere lana oinharritzeko. Eta Lizardiz eta haren garaiaz bil ditzakegu oraindik aurren eskuko nahiko berri argigarri, olerkarien lagun eta adiskide hurbilik ez baita falta oraindik gure artean" [30].

Ibon Sarasolak ikusten duen datu gehiagoren bilketa premia honek eramanik, ekin nion 1984 urtean Lizardiren kazetari-lan guztien bilketa lanari. Lizardik 1926tik 1933ra bitartean egunkarietan argitaraturiko artikulu guztien artean eginiko hautaketa lana den *Itz-Lauz* liburuxkan azterketan ariturikoak aurkituko du, Lizardiren artikuluek zeri erantzuten dioten, zein gertakizuni edo ospakizuni egokitzen zaizkion jakiteko jatorrizko testuetara jo beharra duela, hau da, garaiko euskal mundu kultural eta literarioaren mintzabide nagusi izan ziren egunkariak aztertzera jo beharra duela.

Horrela bakarrik jaso daiteke Lizardiren idazlan literarioari dagokion ingurumari benetakoa, gerra ondokoen oroimenak, nostalgiaren eta idealizazioaren ikutu ulergarri baina desitxuragarriaz moldaturiko Aitzolen gizaldiaren benetako taxuera errekuperatu beharra dugu azterketa serioari ekingo badiogu.

Esan dezagun bada, gure azken helburua Lizardiren idazlanaren alderdi formalen azterketaz haren obra hobeki irakurtzen saiatzea, eta bere mintzaira poetikoaren zenbait alderdi argitzea baldin bada ere, alderdi formal horiek "informatu" zituen poetika zedarritzea, eta poetika hori eraiki zuenaren

---

29 ORIXE, "Lizardiren azken olerkiak", 94. or.

30 SARASOLA, I.; "Lizardiren poemagintzaren alde formalen estudio baterako", 974. or.

testuinguru pertsonal, politiko-sozialak, kulturalak eta literarioak zehatz-mehatz aztertzea dela hautatu dugun bidea lehen atal honetan.

Lizardiren "poetika" konformatuz joan zen ingurumariari buruzko datuak hiru iturri nagusitatik datozkigu:

1.- Lizardik bere idazlanak argitaratzeko erabili zituen eta garai hartan euskal literaturaren mintzabide nagusi ziren egunkari eta aldizkariak.

Beraz, *Xabier Lizardi. Kazetari-lanak* [31], *Aitzol. Idazlan Guztiak* [32] eta berriki argitaratu den *Orixe. Idazlan Guztiak* III [33] artikulu-bildumak dira ingurumariari buruzko azterketa honen oinarri, garaian argitaratu ziren beste zenbait artikulurekin batean.

Lizardiren idazlanek berek ematen duten informazioak ingurumariaren esparru horretan jarri behar da, egunkari eta aldizkarietan erabiltzen diren gaiekin harremanetan jarriz, hartzen duten zentzua jaso eta interpretatuz.

2.- Bigarren informazio iturria Jokin Zaitegik gorderiko Lizardiren epistolarioak ematen dituen datuak eta frogak dira, "Lizardiren eskutitzak" eranskinean bildurikoak.

3.- Hirugarrena Lizardiren garaikideak dira, haien iritziak jasoz, haiek argitaraturiko idazlanetatik eta elkarrizketetatik, nahiz neuk haien abegi onari esker eginiko ikustaldietatik jasoriko informazioak osatzen du hirugarren iturria

Lehenengo parte hau, beraz, testuingurua, tesi honetan azalduko diren ideia eta "mintzo landu elertitsua" sortzerakoan gogoan izaniko presupuestoak ingurumariaren markoan kokatuz, garai hartan, olerkariaren orainaldi hartan zuten zentzua igartzeko asmoz osatua da.

2.2. BIGARREN PARTEA: IDEIA POETIKOAK

Bigarren partean, egin nahi dugun azterketa formalerako beharrezkotzat deritzogun alor bati, Lizardiren ideia poetikoen azterketari heldu diogu, berez azterketa formalari ekin baino lehen.

Lizardiren idazlanetan, bereziki kazetari lanetan, gutun pertsonaletan eta olerkietan bilduriko ideia poetikoetan oinarrituz, eta zehazki literaturaren alderdi tekniko, linguistiko eta semantikoei buruz adieraziriko iritzien hariari jarraituz, haren poetika, edo nahiago bada, ideia literarioen sarea azalerazi dugu.

Beharrezko deritzot Lizardik kazetari-lanetan adieraziriko ideia poetikoek ez diotela prezeptiba edo poetika jakin bati erantzuten aurreratzeari. Bere gisa moldaturiko ideiak dira, oinarri teoriko handirik gabe adierazirikoak, ingurune linguistiko eta kulturalaren eragin handia nozitzen duten irizpideetan oinarriturikoak, (garbizaletasuna, abertzaletasuna, euskal nortasunaren bilaketa...), eta azkenik, sarritan salatu zioten moduan, oso "sui generis" tankerakoak, iruditu subjetiboetan oinarrituak ere bai.

Alde batera utzi dut, berariz, Orixeren ideia poetikoekin alderatzeari dagokiona, ez bait dago ene ustez, Orixeren ideia estetikoei buruzko azterketa sakonik alderaketa egiterakoan oinarritzat hartzeko. Begibistakoak iruditzen zitzaizkidan aipamenak bakarrik egin ditut bien arteko kidetasunari buruz. Edonola ere den ez dago eta isiltzerik, eskuartean erabili ditudan idatzi, artikulu, etabarrek Orixeren ideia literarioetako batzuekiko harreman nabarmena dutela, hala nola sentimendu neurtuarenak, "gizonezko" sentimendua omen den "sophrosyne" delakoa Orixeren eragina izan zela, ziurrenik.

---

31 Erein, Donostia, 1987.

32 Erein, Donostia, 1987.

33 Etor, Donostia, 1991.

Lizardiren ideia poetikoek, 1927 eta 1933ko epean argitaraturiko artikulu eta bestelakoetan adierazirikoek barne-egokitasun nabaria dute, kontra-esanik ez dugu aurkitu. Lizardik ederretsirik duen kanon estetikoari buruzko intuizioa finkoa eta umoa da, nahiz eta guretzat tamalez, kanon estetiko horri buruzko lan teorikorik garatzeko asmorik ez zuen inoiz hartu.

2.3. HIRUGARREN PARTEA: LIZARDIREN POEMAGINTZAREN MINTZAIRA POETIKOAREN ZENBAIT BEREZITASUN FORMAL ETA LINGUISTIKOREN AZTERKETA

Lizardiren idazlanaren azterketa formalari ekin diogu atal honetan aipatu ditugun bi azterketa preliminar horiek emaniko informazioaren argitan.

Azterketa formal eta linguistiko honek muga jakinak ditu, esana dugunez: Lizardiren ideia poetikoetan nabarmenerazitako zenbait puntu Lizardik praktikan gauzatzeko hautatu zituen "formak" aztertzeari lotu gatzaizkio. Lizardiren *mintzo elertitsuak* [34]., kanon estetiko nabarmenki pertsonal eta subjetiboari erantzuten dion estetika honek hartu dituen forma konkretuak dira nere azterketaren helburu.

Metodologikoki eklektikoa eta eztabaidagarria izan daitekeen azterketa modu hau iruditu zait egokiena Lizardirena bezalako praktika poetikoa aztertzeko. Jakina dago ez dudala honela Lizardiren poetika osoaren berri ematerik izango, eta honi buruz nituzkeen kezka metodologikoak, tesiaren zabaltasun gehiegizkoari buruzko ardurak areagotzen zituen. Zorionez, Karlos Otegiren tesiak eskaintzen duen azterketa semiotiko eta sinbolikoaren sendotasunak ezabatu ditu osoki ene lausoak.

Lan honen helbururako zabalegiak izango ziratekeen azterketaren maila sinbolikoari buruzko azterketa paregabea eskaini du, eta harena eta enea elkarren osagarri izan behar duten azterketak diren uste osoan aurkezten dut honako lan hau.

Haren azterketa-lanean ikusi ditudan zenbait ondoriok eneekin bat egiten dutela ikusteak bihotz eman dit. Baina haren ondorioak eneekin bat egiten duten kasu guztiak aipatzeko asmorik gabe, egoki datorrela iritzi diodanetan bakarrik egin dut lan haren aipamena. Berez aski zabala den lan honen orri-sorta aspergarrikiro ez luzatzea erabaki dut, aipaturiko lana eskura dagoenez lan hau aurkeztu dudan Deustuko Unibertsitateko Donostiako Campuseko liburutegian.

2.4. EPILOGOA. LIZARDIREN MINTZO ELERTITSUA INGURUMARIAREN ETA IDEIA POETIKOEN ARGITAN

Ondorioen atal honetan Lizardiren ingurumaria eta poetika teorikoak eta praktikoak duten harremana nabarmeneraztea izan da ene helburua. Honela, bigarren mailakotzat jo izan diren zenbait alderdik, benetan, olerkariaren sinkronian izan zuten eragin erabakigarria azalerazten da eta garaiko dokumentuak behar bezala ezagutzeak, kezka politiko, kultural eta linguistikoek olerkari gisa hartu arazi zizkien asmo eta formatan izandako eragina eman nahi izan ditugu ezagutzera.

Honek ez du inolaz ere baztertzen olerkari honen nahiz beste edozein idazle edo testura hurbiltzeko gainerako metodologia posiblerik. Obra literarioak berezkoa du irekitasuna, irakurketa-modu asko eta beti berri izateko gaitasuna.

---

34 "Adiskide ori eztet euskeltzale; ezta ere aurkako; beste zenbait bezela, euskeraz guk *mintzo landu elertitsu bat eginnaiak* eztu amorrarazten, errukiarazten baizik". LIZARDI; "Erdi-bearra" in *Euzkadi*, 1930-5-4, 5. or.; *K-L* 302. or.

Lizardiren poemagintza hautatu dudan metodologiaz, azaldu berria dudan lan-moduaz aztertuz, garaiko ideiak, asmoak eta kezkak, eta haien adierazle izan ziren eztabaida literarioak, literatur kritikak eta abarrek, haren obraren irakurketa posibleen artean bidezkoenetako bat egiteko gaitzetsi behar ez diren dokumentuak direla azaldu nahi izan dut.

2.5. ERANSKINAK

Lanaren osagarri eta erreferentzia utziezinezkotzat jo ditudanak sarrerazi ditut azkenik, eranskintzat.

Lehenengo eranskina tesi-lanaren lehen atalari datxekio eta Jose María Vélez de Mendizabalen eskuz ezagutu ditudan argitara gabeko Lizardiren gutunak biltzen ditu. "Lizardiren eskutitzak" izenburua eman diet, Aitzolek Lizardiren paperen artean "Eskutitzak" izenburua zeraman karpetan bilduak zeudela dioelako [35].

Bigarren eranskina Lizardiren olerki ezagun guztien bilduma eta bertsio ezberdinen alderaketa da. Aurretik azaldua dugu Edizio Kritiko honen premiazkotasun metodologikoa eta beraz, hirugarren atalaren, Lizardiren azterketa metriko-fonikoaren eta morfosintaktikoaren oinarri gisa ez ezik, testuen finkapenerako ohar argigarriez gain, garrantzi berezia eman diet ene oharretan edizio ezberdinen artean dauden ezberdintasunen nondik-norakoari Lizardiren poetikaren bilakaera eta finkapenaren zantzuak eskeintzen dituztelakoan. Horregatik beragatik, bertsio alderaketak informaziorik eskeintzen ez duen kasuetan Edizio kritiko baterako materialeak gehiegi ez luzatzearren poema osoa ez aldatzea erabaki da. *Umezurtz Olerkiak* delakoaren kasuan, esate baterako, argitaraturiko poemen bertsio bakarra ezagutzen denez, eta 1983ko *Olerkiak* [36] liburuan osoki jasoa dagoenez, ez aldatzea erabaki dut.

Aparteko aipamena merezi dute, bestalde, prosazko bertsiotik olerki moldera aldaturiko olerkiek: *Aldakeri* eta *Xabiertxoren eriotza* olerkiek, eta baita olerki gisa argitaraturik ere ahapaldi antolaketan aldaketa aipagarriak jasandakoetan *Biotzean min dut* delakoa.

Xabier Lizardiren kazetari-lanak artikulu bilduma ere, tesi-lan honen zerbitzuan egina da, Lizardiren ideia literario nagusiak aztertzeko hartu dudan oinarri dokumentala Lizardiren artikuluak direnez, bigarren partearen eranskintzat aurkeztea zilegi iruditu zait, nahiz eta argitaratua dagoenez, eranskinen liburukian ez dudan haren kopiarik sarrerazi. Hirugarren eranskintzat aipatuko nukeen edizio kritiko hau bigarren atalari dagokio eta bertan egiten diren aipamenak jatorrizko testuan erraztasunez kontsultatu ahal izateko burutua da.

Sarrera honetan dagoeneko aipatu ditudan 1983ko *Jakin* aldizkarian argitaraturiko "Aitzolen proiektu kulturalaz" eta "Lizardiren poetika" artikuluez gain, beste hiru azterketa-lan aipatu nahi nituzke eranskintzat.

Argitaralpen urteari ohartuz aipatzearren, lehena "Lizardi, gizon eta olerkari" artikulua da [37]. Bigarrenik, *Aitzol en su tiempo* liburuan, "El proyecto cultural de Aitzol" izeneko saio laburra [38]. Eta hirugarrenik, "Orixe eta gudaurreko Pizkunde mogimendua" izeneko saioa, *Orixe Mendeurrena (1888-1988)* liburuaren IV. alean "Hitzaldiak" deritzanean argitaratua [39].

---

35 "Su nutridísima correspondencia, clasificada en varias carpetas con el nombre de *Eskutitzak* es una documentación inapreciable para ésta época del renacimiento euskaldun" AITZOL; "El poeta Jose María de Agirre 'Xabier de Lizardi'" in *Yakintza*, III, 1933, 167. or.

36 Erein, Donostia, 1983.

37 in *Habe* 129, 1988-6-15, 18-20. or.

38 Sabino Arana elkargoa, Bilbo, 1990, 29-47. or.

39 Etor, Donostia, 1992, 89-104. or

Izenburuei ohartuz gero erraz antzeman daiteke hirurak ere, lehen parteari datxezkiola, Lizardi Pizkundearen testuinguruan ahalik eta artezen kokatzeko ahaleginari loturikoak dira.

Hirurak tesi honen adaska bigunak dira, lan honetako gai nagusiarekiko zerikusia izan arren, embor nagusitik apur bat aldenduak daudenak. Horregatik, eranskintzat aipatzea bidezko iruditu zait, *Xabier Lizardiren Kazetari-lanak* bezala, hauek ere jadanik argitaratuak badira ere.

3. TESTU ETA INGURUMARI LITERARIOAREN ARTEKO DIALEKTIKA

Sarrera honetan azaldurikoaren arabera, tesi-lan honetan hautatu dudan jomugaren zerbitzuan dagoen metodologiaz baliatu naiz, eta funtsean Lizardiren poetikak Pizkundearen garaian izan nahi zuen zentzua eta konnotazioak azaleraztea zenez helburu nagusia, ingurumariari buruzko ahalik eta informaziorik zehatzena ematen duen metodologia hobetsi dut.

Abiapuntutzat hartu dut Lizardiren ideia poetikoek lotura berezia dutela Euskal Herrian XX. mendearen lehen herenean puri-purian dauden kezka politiko, kultural eta literarioarekin, gudaondoren modan izan zen idazle "engagé"aren zentzurik jatorrenean. Eta, ondorioz, tesi honen helburu nagusienetako bat izan da Lizardiren poetikak euskal nortasunaren zorte historikoaren kezkarekin duen lotura nabarmeneraztea eta Lizardiren aktibitate politiko, kulturalaren eta literarioaren funtsezko batasuna frogatzea.

Bestalde, bizi izan zuen ingurumariarekiko gutxitan bezalako lotura duen poetikak hartzen duen norabide estetikoa ere testuinguru horri zuzenduriko "erantzuna" da. Euskal herriaren hizkuntzak eta nortasunak modernitatearen aurrean bizi zuen kinka larrian aurrera egin ahal izateko egin beharra zuen modernizatzeko entsegua da Lizardiren obra.

Lizardik testuinguruari erantzun positiboa emateko abiapuntutzat hartu zuen ideario poetikoaren deskripizioa saiatu ondoren, haren arabera moldatu zuen kanon estetikoaren zenbait berezitasun formal eta linguistikoren azterketa egitean, ikuspuntu jakin bati lotzen natzaio: Lizardik berak eta bere garaikideek azpimarraturiko alderdiei.

Jakina dago, ikuspuntu hau mugatua dela eta ez duela Lizardiren obraren taxuera osoaren berri ematen, baina, ordainez, gaur eguneko kritika literarioarentzat ezezagunak diren Lizardiren obrak izaniko zenbait konnotazio garaian lehen mailakoak zirela nabarmentzen da; bere idazlanaren moldakera estetiko ohartuki modernoak, kultoak eta errotik "euskaldunak", testuinguruarekin, batez ere hizkuntzaren egoera soziolinguistikoarekin duen harreman dialektikoa azaleratu egiten da.

Testua kontestuarekin harremanetan jartzearen ondorioz, zerikusirik gabekotzat aurkeztu izan diren Lizardiren aktibitate politiko-kultural eta literarioaren funtsezko batasuna nabarmenerazten da, euskal olerkigintza modernoaren hastapenak ezarri zituenaren iharduna kanpotiko eragin literario jakin baten ondorio baino gehiago herri nortasunaren eta hizkuntzaren egoerari ohartuki emandako erantzun estetikoa izan bide zen.

Lizardiren ihardun literarioa 1927tik 1933rarteko artikulu, poema eta gutunetan isladatua geratu den gisan, ahalegin konsziente bat da, eta besteren artean jadanik aipatuak ditugun bi zutabe nagusiren inguruan eraikia. Alde batetik modernotasuna, "estetikoitasuna" eta berrikuntza metriko-fonikoaren, musikalitatearen eta irakurria izateko erritmoaren bilaketaren bidetik abiatu arazi ziona. Beste alde batetik, berriz, garaiko euskaldunen artean euskal "arima"rengatiko kezkaren lekukotza den ardatz poetikoa euskal hizkuntza *mintzo landu elertitsu* bilakatzeko hautaturiko bidea da, metodologia formalaz baliatuz ahalik eta zehatzen aztertu dugun moldaera foniko-metriko eta morfosintaktikoetan mamitu dena, eta Lizardiren iritzi humboldtianoaren argitan olerkiaren mintzaira tankera euskaldun edo jatororaren jantziaz apaintzeko ahalegina baino askoz haruntzago

doana: euskal arimaren adierabide ez ezik, haren moldatzaile den mintzaira literarioa bera mezuaren edo adieraziaren zati bilakatzen delarik.

AITZIN-OHAR METODOLOGIKOAK

1.- Lizardiren idazlan literarioak, liburuak, olerkiak, ipuinak eta antzeslanak beltzez nabarmenaraztea erabaki da, gainerako autoreen liburuen deiturak bezala.

Testuan zehar olerkien deiturak osorik idatzirik ageriko dira, baina kopiatu diren fragmentuen ondoren olerkien deitura izenburuaren lehen hizkiez izendatu da, eta hitz bakarra zen kasuetan, Lehen bi edo hiru hizkiez. Honela, olerkien identifikazio erraza eskeintzea bilatu da.

Esate baterako, *Otartxo Utsa* > OU idatzi da, edo *Sagar-lore* > SL. Hitz bakarrez osaturikoetan Aldakeri > Ald idatzi da, Agur! > Ag, Liorko > Li, etabar.

Izendatze-sistema honen ondorioz, zailtasun bakarrak izen bereko bi *Amona* olerkiak ziren eta Am1 eta Am2 izendatu dira; bestalde *Bizia Lo* eta *Bultzi-Leiotik BiL* da lehenengoa, eta *BuL* bigarrena. Hona hemen zerrenda osoa:

Nere lenengo matte-ibilketa > NLM
Euzko Mendiya > EM
Zelai Urdiña > ZU
Yaun Errukitsuboi > YU
Nere maitiak ditu > NM
Mattasunaren illetea > MI
Maiteder Aselia > Ma
Maite Izaneri > MaI
Aztu, Biotz orrek > ABO
Oia > Oia
Izarkitako sua > IS
Gaiztuen Itzala > GI
Euzkera Sarkundia > Euz
Idazkiya > Id
Gaztiaren Otoitza > GO
Amona > Amo1
Otoitza > Ot
Igesi > Ig
Mendi gaillurra > MG
Udazken > Ud
Xabiertxoren Eriotza > XE
Zeru Azpia > ZA
Ar Uts > AU
Aldakeri > Ald
Bultzi-Leiotik > BuL
Neskatz Urdin-yantzia > NUY
Paris'ko Txolarrea > PT
Otartxo Utsa > OU
Agur! > Ag
Biotzean Min Dut > BMD
Zuaitz Etzana > ZE
Bizia Lo > BiL

Sagar-Lore > SL
Baso-Itzal > BI
Ondar Gorri > OG
Eusko-Bidaztiarena > EB
Asaba Zaarren Baratza > AZB
Izotz-ondoko Iguzki > IOI
Gure Mintzo > GM
Ama Gau Beltzaran > AGB
Gazte'ren esnatzea > GE
Liorko > Li
Amona > Amo2
Muno-Txiki > MT
Gora-Dei> GD
Onki'ren Billa > OB
Ondaurtz-Abestia > OA
Maitale Berriak > MB
Egamin > Ega
Etxeko Keea > EK
Argi Egirazu > AE
Arrats Gorri > AG
Etxeko Sagastia > ES
Euskal Pizkundea > EP

Laburdurak erabiltzen diren aipamenetan, lehen lehenik, olerkiaren deituraren ostean, erreferentziatzat erabili dudan *Olerkiak* (Erein, 1983) liburuan azaltzen diren bertso zenbakia azaltzen dut, eta bigarrenik, liburu horretako zein orrialdetan dagoen. Edizio horretan agertzen ez diren olerkien kasuan, aldiz, aipamenen erreferentzia Eranskintzat aurkeztu dugun Edizio Kritikoari dagokio.

3.- Tesi honetan zehar argigarritzat aurkezturiko liburuetatik harturiko aipamenetan agertzen diren azpimarraketak eneak dira kasu guztietan, eta aipamen horietan bereziki oharterazi nahi dena erraztasunez nabarmendu ahal izateko helburuz egin da. Bestela balitz azpioharrez adieraziko nuke dagokion aipamenaren ondoan.

4.- Autoreak izendatzeko eraren arazoari dagokionez, garaian ezizenek idazleen izenek baino errepresentatibitate gehiago zutela oinarritzat hartuz, gehienik aipatuko diren lau autoreen deiturak ezizenez baliatuz egitea erabaki dut, horregatik Jose María Agirre Egaña, bere ezizenik erabilienaz "Lizardi'tar Xabier" aipatuko da, eta era berean, Nikolas Ormaetxea "Orixe", Jose Ariztimuño "Aitzol" eta Estepan Urkiaga "Lauaxeta". Gainerako kasuetan, eta ezizenaren atzean gorderiko idazlearen benetako izena ezagutzerik izan bada, lehenik hura eta gero ezizena ipiniz aipatuko dira beti.

5.- Sarrera honetan eranskinei buruz esanaren ondorioz, Lizardiren kazetari-lanen aipamena egitean, *Xabier Lizardi. Kazetari-lanak* liburuan jasoak dauden artikuluen aipamena egitean, 1987an prestaturiko argitaralpenaren orrialdea ere aipatuko da *K-L* laburtzapenaren ostean.

I PARTEA

LIZARDI PIZKUNDEAREN INGURUMARIAREN ARGITAN

1.- JOSE MARIA AGIRRE. ZENBAIT DATU BIOGRAFIKO

1.1. FORMAZIO URTEAK

Jose María Agirre Egaña 1896ko apirilaren 18an jaio zen Zarautzen, oraindik, berak ezagutu zuenean bezala, Azara deitura daraman kalean.

Hamar urte zituelarik, familia osoa Tolosara aldatu bazen ere, haurretako jolas-leku izan zuen hura izan zen beti bere jaioterri maitea. Hala adierazten digute bere kazetari-lanek eta "Maitea"ren apurño edo fragmentoek [40].

Zarautzen utzi zituen Tolosara aldatzean senide eta lagun kutunenak (amona, Liorko, Onuzki...), bere olerkietan hain sarri aipatzen den amonaren etxea... Zarautz herriari zion atxikimenduaren lekuko da bere gaztaroa gogoratuz idazten ari zen *Maitea* poema amaigabea, eta bereziki, *Ondaurtz abestia* izeneko "apurño" edo fragmentoa.

Antonio Maria Labaien adiskide mina izan zuenaren lekukotzari esker dakigu Lizardiren amaren aldeko familia Zarautzen ezagun eta errespetatuenetakoa zela. Lizardi hil zenean *Eusko Ikaskuntzaren Deia* aldizkarian idatzi zuen artikuluan hala gogorarazten digu:

> "Goizean-goiz eta baztergabeko ondartzatik Mendi-Lauta barren egurastu naiz. Uda erdian gaudelarik udazken zait oroi. Ta Lizardiren "Urte-giroak" ta batez ere "Ondar-gorri".
>
> Lizardiren aitonaren aitarenak ziran lurralde ondartsu aiek guziak. Lenago "Mendi-Lauta" ondar ta piñari, gaur etxe apaiñez betetako Zarautz berri. Zarautz zarrean kalez inguratua geldi da "Torre Luzea" Egañatarren jauregi:
>
> "Asaba zaarren baratza,
> untzadun ormek esia
> eguzkiak leen maitea..." [41].

Beraz, Ibon Sarasolak dioen bezala [42], idazle honen jatorrizko gizarte-mailaren berri jakiteak haren testuinguru kulturala hobeto ezagutzen lagunduko badigu, gogoan hartu beharko da geroago Tolosan eta Madrilen egin zituen ikasketez gain, famili-jatorriak berak ere kultura mailari dagokionez garaiko euskaldungoaren kultur mailatik gora kokatzen zuela.

Esandako honen osagarri eta Zarautz herriari zion atxikimenduaren adierazgarri gisa aipa daiteke Lizardiren gutunen arteko bat: Aita Venancio de Ameztiri, Zarauzko presbiteroari, zuzendurikoa, datu batzuk eskatzeko egin zizkion bisitaldietan ez zuelako ikusi nahi izan. Gutunean aipatzen dituen dokumentu eta artxibategi familiarrak Lizardiren famili giro kulturalaren berri ematen digu, bidenabar:

> "No he de ocultarle, finalmente, que su actitud me ha parecido doblemente inexplicable, cuando he sabido que para sus noticias se ha servido repetidamente de documentos pertenecientes al archivo de Don Francisco Maria de Egaña, mi abuelo materno, q.e.p.d., prestados por mano de mi tío Conrado" [43].

---

40 "Tristezas de un jocoso sentimental", "Zarautz erdelerri" eta beste zenbait artikulutan ikus daiteke. *Maitea* poemaren eskeman ere bai. Ikus *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 217-219 or.

41 LABAIEN, A. M.; "Lizardi'tar Xabier" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 57, 1933, 18-21. or.

42 "Honenbeste anekdoten artean ez dakigu ezer, adibidez, haren familiaren status sozio-eknomikoaz eta ogibideaz". SARASOLA, I.; "Lizardiren poemagintzaren alderdi formalen estudio baterako" in *Homenaje a Julio Caro Baroja*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid, 1978, 953. or.

43 1932-9-1ean bidalia. Ikus "Lizardiren Eskutitzak" eranskinean 46. dok.

1906. urte aldera Lizardik hamar urte zituelarik, familia osoa Tolosara aldatu zen. Jose María anai-arrebetan zaharrena zen, ondotik zetozkion bi anaia, Ignazio eta Antonio, eta hiru arreba. Herri-aldatze honen arrazoia aitaren bizibidea izan zen; aitak lantegi txiki bat ireki berria zuen Tolosan eta hartaz hurbildik arduratzeko aldatu zen familia osoa aitaren ondora.

Antonio Maria Labaienek elkarrizketan emandako datuen arabera, aitaren lantegi horrek lur jo zuen eta harekin batera familiaren ekonomia osoak. Handik aurrera aitak Tolosako Udaletxean udal kontadore lana egin zuen 1913an hil zen arte.

Haurtzaro eta nerabe aro honen lekukotza azkarra ematen du Lizardik berak *Maitea* poemaren "lehen jalkian", "Ama gau beltxeran" izeneko olerkian. Zarautzen urtero igarotzen zituen udaren hasieraz zera zioen: "Kezkok yaregiña,/gaur Ondaurtz-aldi/ duk asia; gaur buka/ Irizar-aro./ Yoan duk Negu beltz/ ikastaro zail;/".

Zarautz/Ondaurtz, aldiz, askatasunaren erresuma da beretzat, han "zeharoko" oporra du. "Garto" ezizena ematen dion osabak gonbidatzen du urtero bere etxera uda igarotzera, eta gurasoek pozik uzten diote joaten egin-asmo dituen lege-ikasketetarako osabarekin trebatzen hasiko delakoan [44].

*Maitea*ren apurñoetan isladatzen duenari atxikitzen bagatzaizkio, bada, osaba "Garto"ren eragina Lizardigan handia izan bide zen gaztaro osoan, haren lanbidea eta olerki zaletasuna kutsatu bait zizkion haurtzaroan. Poema beronen aurreragoko ahapaldietan, nahiz *Ezkondu ezin ziteken mutilla* antzerki lanean, gaztaroko maitasun-kezken konfidentea eta aliatua ere izan zuela iradokitzen da.

Aita hiltzean, Jose María seme zaharrena zenez, etxeko euskarri bakarra bilakatu zen. Lanari ekin behar izan zion ikasketak utzita. Hamazazpi urte zituen. Aurrenik aitak Udaletxean izaniko lanpostua eskatu omen zuen beretzat. Ez zioten eman, ordea. Geroxeago, "Banco de Tolosa" delakoan sartu zen lan egitera. Lan horretan ziharduelarik, Madrileko Unibertsitate Zentralean lege-gizon bilakatzeko ikasketetan matrikulatu zen ikasle libre gisa. Bi urteren buruan, 1916-1917 urteetan, lege-gizon egin zen. Hona hemen Labaienen lekukotza puntu honi buruz, ohizkoa zena baino denbora gutxiagoan eta Unibertsitatera bertara joan gabe egin izanak zuen meritua azpimarratuz:

> "Se hace letrado; dos años son suficientes para que Lizardi, en un impulso de amor propio, adquiriera un brillante título profesional" [45].

Lanbide hautapena haurretandik erabakia zegoen. Osabaren lanbide bera hartu zuela dio, baina gaztetan bera eta osaba elkartzea "oker larria" zela esaten du, "bion gaia izanik olerkaria" (*AGB* 100, 230), eta ez abogadutza.

Legegizon lanbiderako zaletasun apartekorik ez, eta helduaroan izan zuen enpresako gerentzia lana ere bereziki gogoko ez zuela pentsa daiteke:

> "Qué hermoso convalecer aquí envuelto en cien recuerdos luminosos de infancia, lejos de la labor forzosa con quien jamás hizo pacto de amiga la afición" [46].

1.1.1. Euskara abertzaletasunaren eskutik

Lizardik berak esana omen zion Aitzoli Batxilergo ikasketak amaitu zituenerako ia erabat ahazturik zuela euskara:

---

44 "naiz osaba Gartok/ lan-lagun ustez/ udakide deitu,/ urtero oi-zunez.// Legegizon baitzen/ bera; ta Gazte/ artarako ari.../ Oker larria,/ bion gaia izanik/ olerkari! Gazte'ren gurasoek/ poza artzen dute/ yakiñik oporra dukela yantzi/ buruan xeeatuz/ zenbait-nai auzi". (*AGB* 93- 108, 229-230) in *Olerkiak*, Erein, 1983.

45 LABAIEN, A.M.; "Homenaje a Lizardi" in *El Día*, 1933-3-28, 5. or.

46 LIZARDI, X.; "Tristezas de un jocoso sentimental" in *Euzkadi*, 1929-2-24, 1. or., *K-L* 207. or.

"Al terminar sus estudios de bachiller había olvidado casi en absoluto el euskera. Cuántas veces se lo habíamos escuchado en el seno de nuestra íntima e inquebrantable amistad. (...) Al empezar su carrera de leyes inició sus estudios en el euskera. No se contentó con un teórico conocimiento de su idioma nacional. (...) Apenas pudo desenvolverse en euskera inició su vida de poeta" [47].

Aitzolek dioena baieztatzen digu Lizardiren zenbait artikuluk ere. 1932an idatzi zuen "Nuestra conversión" izenburua duen artikuluan azaltzen zaigu Lizardiren etxean euskarak zuen tokia, bere ezagupenak zenbaterainokoak ziren eta zein zen bere jarrera euskararekiko. Artikulu honetan garbiro ikus daiteke Lizardirengan euskararen garrantziaz ohartzea kontzientzia hartze politikoaren eskutik datorrela, eta ondorioz, konpromezu politikoa eta linguistikoaren arteko lotura hasiera-hasietatikoa dela, bere kasuan.

"Por lo que a mí respecta —cada uno tenemos nuestra historieta acerca del caso, todas iguales en esencia-, recuerdo que a los dieciocho años me sentía españolista furibundo; la hazaña del Gurugú, pongamos por ejemplo, me enajenaba. En cuanto al euskera, no me merecía el menor aprecio. Lo sabía macarrónicamente y por puro accidente. Mis largas estancias en la cocina de harrapiazo, y el obligado, aunque muy somero, roce con los chicos de la escuela de un pueblo sumamente euskaldun, tuvieron la culpa de que mi lengua nacional no me fuese del todo desconocida, bien que jamás la hablase sino con repugnancia y sin sintaxis. Nunca había parado mientes en el hecho sorprendente de aquel idioma vivo diametralmente opuesto al castellano; vegetaba con respecto de ese fenómeno en un estado de inconsciencia como de fumadero de opio, de la que mi educación nada había hecho por supuesto por sacarme.

Un verano —adorables vacaciones aquellas— llegan de un colegio situado al extremo de Navarra, dos o tres de mis amigos, abominablemente contagiados. Y empiezan bravamente a hablarme de Sabino (a quien yo vagamente aborrecía), de mi nacionalidad verdadera, del lugar a que era preciso que llevase a mi buena España... ¡Qué discusiones! ¡Qué momentos de indignación! ¡Con cuál heroica medieval gallardía defendía yo a mi dama! Pero el intercambio de razones iba causando su efecto. Las proposiciones discutidas eran tan graves, que al quedarme solo no podía huír de su influencia, y tenía que vérmelas aún con otro yo bastante barbián que empezaba a revelárseme y rebelárseme dentro" [48].

Artikulu horretan gogoratzen dituen gorabeherak ideia politiko karlistazaleetatik abertzaleetarako aldaketaz gain, euskararekiko kezkaren hasiera ere markatzen dute. Hain zuzen ere, aipatu dugun artikulu horretan zehatz-mehatz kontatzen du aberriari buruzko sentimentu berri horrek, berak "konbertsioa", zentzu erlijiosoz aipatzen duen iritzi-aldaketa horrek, euskararekiko kezka ere batera ekarri ziola. Behin abertzaletasuna beragan itsasiz geroztik, "empezó para nosotros la necesidad del sacrificio, de algún sacrificio".

"Sacrificio" deituraz aipatzen duen hori denbora guztian lagun arteko mintzabide izandako gaztelaniaz mintzatzeagatik euskararekiko kulpabilitatea gainditzea da. Beste artikulu batean, "Euskera andiki-soñekoz"(I) delakoan, berriro oroitarazten du garai hura eta euskarari buruz harturiko erabakia: euskaraz mintzatu beharra zeukaten, horixe zen "sakrifizioa".

"Gogora datorkit oroitzapen zaar bat. Ni ta zenbait adiskide abertzaletu-garaiekoa. Eztabai aundien ondotik jausi gaituzu guziok noizbait egipean: euskozaletu gaituzu buruz ta biotzez. Ez ordea egitez, artean. Ta emen dator elkarri esatea: "Au eztiagu aski. Orain euskeraz ari bear diagu". Bai-al dakizute nolako nekea genduan ori? Euskera umetan erdi-ikasi, gero erdi ortatik iru laurden atzendu... Masaillak gorritzen zitzaizkigun ederki, beti elkarrekin erderaz ari-izanok ordudanik euskeraz ari-bearraz. Bañia, egiñal latz askoren bidez jaundu ginduzun geron buruez, ta geroztik ostera, ezin erderaz ari gaituzu" [49].

---

47 AITZOL; "El poeta Jose María de Agirre "Xabier de Lizardi" in *Yakintza*, 1933, III, 165-166. or.

48 LIZARDI, X.; "Nuestra conversión" in *Euzkadi*, 1932-3-27, 1. or.; *K-L* 379-381. or.

49 LIZARDI, X.; "Euskera andiki-soñekoz" (I) in *El Día*, 1930-9-25, 2. or.; *K-L* 279. or.

Beraz, eta bi aipamen hauen ondorioz pentsa liteke Lizardiren sendia eta lagunarteko ingurumaria erdaraz mintzatzen zela gehienbat, eta umetan Zarauzko haurrei eta neskameei esker ikasiriko hizkuntzak ideia abertzaleekin izan zuela susperraldia Lizardirengan.

Bere olerkigintzaren sinbolo nagusienetakoa bilakatu zen amonak errepresetatzen du Lizardirentzat euskararekiko lokarri familiarra eta afektiboa. *Asaba zaarren baratza* olerkian protagonista delarik, adierazgarria dirudi "Euskaraz ark niri galdegiña/ gogoan besterik ez dut" (AZB 59-60, 191) olerki zatian euskaraz egin ziola azpimarratzea olerkariak. Orixek eginiko itzulpenean dioen moduan "No recuerdo que me hubiese dirigido más palabra en mi idioma" baldin bada, geroago amonaren figurak hartu zuen sinbolismoa poema horretan kontatzen den esperientzia afektibo xume baten ondorio izan bide zen: amona, zahartzaroan, inor ezagutzen ez zuela egon zen, zahartzaroko eromenak jota, eta olerkaria gizon eginik ezagutu ez bazuen ere, haren semea bai eta hari euskaraz aritu omen zitzaion amona, Lizardi bera zelakoan [50].

Lizardiri gertakari hori euskararen transmisioaren katean izaniko hutsartea salbatu, —berea eta bere amarena— erredimitu izanaren sinbolizazio bilakatu zitzaion, bere kezka kultural nagusienetako baten sinbolo. Hortik dator, bada, datu biografiko honen garrantzia.

1.1.2. Lizardi euskal idazle

"El poeta Jose María Agirre "Xabier de Lizardi"" [51] izeneko Aitzolen artikuluan esana dago Lizardik ahalegin haundia egin zuela euskara berreskuratzeko eta 1917an bere lehenengo idazlanak *Euzko Deya* aldizkari bilbotarrean argitaratzen hasi baino lehen, osatuak zituela zenbait idazlan, ahalegin sendo horren frogagarri direnak. Aitzolek esaten du Lizardiren lanen artean aurkitzen direla garai horretan eginiko lanak:

> "... sin embargo, en un cuaderno titulado "Ropavegero", de una de las varias carpetas en las que cuidadosamente ordenados ha dejado Lizardi su trabajo, hay poesías, notas, anécdotas, dibujos y cantos frutos de sus primeros afanes de literato. Era a la sazón colaborador poético-gráfico de "Euzko Deya". Este cuaderno lleva la fecha del 30 de marzo de 1916.Ha transcurrido un año. El tiempo suficiente para llenar las páginas del primer cuaderno. Sobre ellas ha trabajado infatigablemente el joven escritor utilizando el euskera y el castellano para cultivar sus cualidades literarias. El dieciocho de mayo de 1917 empieza un nuevo cuaderno. Lo titula "Naste-borraste". Todo lo que en el escribe es ya en euskera. No hay tampoco un sólo dibujo. Contiene poesías y trabajos en prosa; el esfuerzo total de varios meses, quizás de varios años de paciente aplicación; así se forjó, paulatinamente el gran escritor. No como alguno ha creído repentina y brúscamente" [52].

Aitzolek aipatzen dituen karpeta txukun horiek ez dira tamalez gure eskuetara iritxi eta ez dezakegu, beraz, jakin hango olerki, ohar, pasadizo, marrazki eta kantuen bidez nola gertatu zen bilakera hori, norengandik ikasiz, zer irakurriz... Dena den, garai horretako Lizardiren lan poetikoaren lekukotza geratu zaigu Bilboko Euskeltzale Bazkunak argitaratzen zuen *Euzko Deya* aldizkariaren orrietan.

Aitzolek artikulu berorretan esanda dakigu Lizardi *Euzko Deya* aldizkari horretako lankide grafikoa ere bazela:

> "Era a la sazón colaborador poético-gráfico de "Euzko Deya" [53].

---

50 "Yo tenía una pobre abuela vieja y arrugada, único lazo vivo que me unía con ese tiempo digno que la buena ilusión que el soñador desea con prestigios de precioso retablo cubierto de venerable polvo que poso sobre ingenuas figuras..." LIZARDI, X.; "El tema del día" in *Euzkadi*, 1929-7-13, 1. or.; *K-L* 177. or.

51 AITZOL; "El poeta Jose María de Agirre "Xabier de Lizardi", 165. or.

52 *Ibidem*, 166. or.

53 *Ibidem*, 166. or.

Zaila da jakitea, ordea, zeintzu diren bere marrazkiak, izenperik gabe bait daude. Nolanahi ere, eta Aitzolek 1917tik aurrera marrazkirik ez zuela gordetzen esaten badigu ere, Aitzolen aipamen honek susmarazi egiten du 1928ko *Argia* astekariaren lankide zelarik argitaratu zuen 13 artikuluz osaturiko "Berriketak" sailean agertzen diren marrazki farregarriak ere berak eginak direla.

"Garai horretako bere ingurumariaren azken lekukotza bat ematen du Aitzolek berak, nola ezagutu zuten elkar kontatzen duenean:

> "Hace ya varios años, más de quince, Labayen nos entregaba su primera producción dramática euskaldun. Tanto ayer como hoy aliento y advierto al amigo. El prologuista de la última de sus obras, Xabier de Lizardi, se unió por aquel entonces a nuestra amistad. Juntos los tres en los albores de nuestra juventud emprendimos la senda del Renacimiento euskaldun" [54].

Aitzolen aipamen hau zehatza bada, *Euzko Deya*n argitaratzen hasi zen garaitsuan edo lehentxeago, ezagutu zituen Lizardik Antonio Maria Labaien eta Jose Ariztimuño bera ere. Orduz geroztik, lagunartea ezezik, Tolosako euskaltzalerik aktiboenen gunea ere osatu zuten. Zenbait idazlek "Tolosako taldetxoa" deituraz ere izendatzen zuen hiru adiskideok osatua.

Lizardik *Euzko Deya* aldizkarian argitaraturiko azken lana 1919ko abendukoa da. 1919tik 1926a bitarteko epean ez zuen ezer argitaratu. Honen arrazoitzat aipa daiteke 1920tik 1921era *Euzko Deya* aldizkaria ateratzeke egon zela eta 1923an berriz Primo de Riveraren Diktadura hasi zela eta ondorioz aldizkaria itxi erazi egin zutela, kutsu abertzalea zuen beste argitalpen guztiak bezala. Beraz, Lizardiren produkzio literarioaren lehen epearen amaieratzat eman liteke 1919ko amaierakoa.

1.2. 1923KO MUGARRI BIOGRAFIKOA

Antonio María Labaienen lekukotzaren bidez, badakigu bere bizitza pertsonalean aldaketa nagusiak gertatu zirela 1923 inguruan. Alde batetik, lan proposamen garrantzitsua egin zion Perot entrepresako jabeak lantegi hartako jerentzia lana eskeini ziolarik. Jabea entrepesa beraren Angulemako lantegiaz arduratzen zen [55] eta Tolosako jerentea jubilatzeko garaian zegoen, beraz, Lizardiren prestutasunari buruzko hainbat aburu jaso ondoren, eskeintza hau egin zitzaion. Tolosako Perot lantegiko jerentzia lanetan ihardun zuen 1933an hil zen arte.

Hango betebeharrak zirela medio egin zituen noski, *Parisko txolarre* izenburudun poeman aipatzen duen Pariseko egonaldia, Aitzolen bila ibili zeneko eta Barzelonan elkar ikusi behar zuteneko gora-behera [56], Madrilera joanik Espainiako Legebiltzarrean izan zenekoa [57], eta *Biotz-begietan* liburua ateratzekotan zebilenean egin behar izan zuen bidaia luzea, Verdes Atxirika argitaletxeko jabeari eginiko gutunetan hainbat aldiz atzeratua duela esaten duena [58]...

Lan eta bidaia, gora-behera profesional hauen erdian bere bizitza sentimentalari dagokion beste aldaketa nagusi bat gertatu zen 1923an, Frantziska Eizagirre, "Maitea"rekin ezkondu zen; *Ezkondu*

---

54 AITZOL; "El arte dramático. Renacimiento vasco" in *El Día*, 1931-12-19, 1. or. Lizardik "Nuestra conversión" (*Euzkadi*, 1932-3-27, 1 or.) delakoan aipatu dituen adiskide abertzaleak ziren, hauek, noski.

55 Lizardiren gutunen artean Angulematik M. Charon-ek bidaliriko gutun bat dago, 1932-1-1an bidalia. Ikus "Lizardiren Eskutitzak" eranskinean 4. Dok.

56 "Aspaldian -artean illabete batzuk ziran, guretzat naiko luze-, alkar ikusi ez giñala, Bartzelona'an ura nere billa; ni berriz, nun aurkituko ote nuan, urduritsu. Ez genduen alkar topo egin, Katalunian bizi nintzanekoa da, diodana".AITZOL; "Agirre'tar Joseba Mirena "Lizardi, olerkari ospetsua zenaren il-urtemuga" in *El Día*, 1934-3-11, 1 or.

57 LIZARDI, X; "Etxe-barne bizia. España-Legebatzarrea nere begipean" in *Euzkadi*, 1932-5-18, 1. or.; 381-385. or.

58 Ikus "Lizardiren Eskutitzak" eranskinean, 1932-5-10, 53. Dok.

ezin ziteken mutilla deituriko antzerki lanean eta "Maitea" izeneko poema amaigabean isladatzen diren eragozpenak gainditu ondoren [59].

1.2.1. Maitasunezko ezkontza

Labaienen iritzi zuzen eta enpeinuari esker eman zen argitara gertakizunak hain hurbiletik deskribatzen omen dituen antzerki lana. *Ezkondu ezin ziteken mutilla* obrak duen balore dokumentalaz eta bigrafikoaz baliatuz, ezagutu daitezke Lizardiren egoera sozioekonomikoaren zehaztasun zenbait [60].

Lizardiren ezkontza berarekin bizi ziren ama eta izebaren iritziaren aurkakoa izan zen, nonbait. Antzerkian erabiliriko argudioak egiazko badira, aurkako iritzi horren arrazoiak neskaren jatorri apala eta Lizardi etxeko euskarri bakarra izanik ezkontzaren ondorioz senideek bizibidea galtzeko beldurra izan ziren.

Jose María Agirre eta Frantziska Eizagirreren arteko harremana senargaiaren ohizko bizitokitik aparte garatzen da antzeslan horretan, herriaren deitura aipatzeke; Antonio Maria Labaienen bidez dakigu, bien arteko harremana Zarautzen garatu zela, jaioterria izan zuela Lizardik "gaztetan maitasun-kabi" [61].

Maitea olerkiaren eskeman jasorikoari jarraitzen bagatzaizkio, bestalde, emaztearen eta amaizeben arteko harremanak ez ziren onak izan ezkontza ondoren ere, "Odolkik ta Mta.'k ixuri-edena bide" [62].

Antza denez, 1925eko eguberrietan lehen semetxoa hil baino lehen, emaztea bera ere gaixorik izan zen, *Maitea*ren apurñoen eskemaren VI. jalkia gertakari hauei eskeinia dago, emaztea hil deneko ametsa ere sarreraziz [63].

1923ko mugarri hori bere bizitza sentimentalaren aldaketa gune nagusia den era berean, politika mailako gertakizunak zirela medio, Lizardiren jokabide politikoak eta kulturalak ere aldaketa nagusia izan zuten.

1.2.2. Abertzaletasuna bide kulturaleetatik ezinbestean

"1923an Primo de Rivera jeneralak diktadura militarra ezarri zuen 1930era arte, Euskal Herrian indartzen hasiak ziren joera eta ekintza politiko abertzaleei bide guztiak itxiz zazpi urte horietan. Lizardiren heriotzaren ondoren egunkarietan argitaratu zen zenbait idazleren lanek, bere erreakzio

---

59 *Maitea*ren apurñoen poema-haria azaltzen duen eskemaren IV eta V ataletan jasorikoak: "Ama: Mta. ta Liorkoren arteko azpikeriak - Ondaurtzeko Ama Birgiñari otoi- Konpondu - Ezkondu goizean goiz, pake santuan" in *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 219. or.

60 "Ez arian, par egin araziz, gizarteko utsegiteak ispilluan bezela agertzen dizkigu. Bada, "Ezkondu ezin ziteken mutilla" irudimen utsez, gezur-antzera tajutua izan ordez, zintasun oso-osoan egiña dago; erretratu benetakoa dezute. Egilleari berari gertaturiko auzia, auto-biografikoa dela esanarekin aski da. Jakiña, bestela ere, gizartean sarritan jazo oi dirala antzeko gertakizunak. Lizardik ain zeatz agertzen ditu bere etxekoen gora-beerak, ain argi eta garbi daude argazkian bera ezik, ama, izeba, andre-gai ta senideak, ez zitzaigun bidezko aien baimenik gabe antzerkia aizatzea" (25. or.) LABAIEN, A.M.; "Itz-aurrea" in "Ezkondu ezin ziteken mutilla" in *Egan*, 1953, 2-4, 25-27. or.

61 LABAIEN, A.M.; "Lizardi'tar Xabier" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 57, 1933, 18-21. or.

62 LIZARDI, X.; *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 219. or.

63 Xabiertxo baino lehenago bizkiak ere jaio eta ordu gutxitara hil zitzaizkien. Ik. OTEGI, K., *La poética de "Biotz-Begietan"*, II, 826. or. *Umezurtz olerkiak* bilduman aurkitzen den *Etxeko kea* izeneko olerkiak emazte hilaren gaia darabil. *Arrats gorri* bezala biok ere poema oso horren zatiak ziren, ziurrenik.

famatu bat gogorazten dute, haren nortasunaren erakusgarri. Beste zenbaiten artean Zeletak "Lizardi'tar Xabier (g.b.)" izenburuaz argitaratu zuen artikuluan jasoa dugu:

> "Aitatu dogun Durangoko itzaldi aberkoi eta mamitsu artan azaldu zigunez, "Diktadura"ko aldi lotsagarri artan min ematen zion abertzaletasun-aldez lanik ezin egin izateak, eta egun batez Aberri-aldez lanean jarraitzeko bide bat arkitu nayaz bere lagun batzuen artean onela mintzatu omen zan: "Ezin genezakek abertzale bidetik jo, PRIMO-k eragozten digulako. Euskera bidez jo dezagun" [64].

Aitzolek ere *El Día*n martxoaren 14ean argitaratu zuen "El patriota, el poeta, el cristiano" izenburua zuen artikuluan pasadizo hori bera kontatzen du, esanez, Lizardik seinalaturiko bide kulturalari jarraitzeko sortu zela Euskaltzaleak taldea 1927an.

Euskaltzaleak erakundea Lizardik berak parte hartu ez zuen Elgoibarko eta Motrikuko Euskal Jaien jarraipen gisa 1927an Arrasaten ospatu zen Euskararen Eguna delakoan sortu zen. Lizardik, antza denez, Arrasatekoan hartu zuen Euskaltzaleak erakundearen barruan hurrengo urteetan izango zuen propaganda kanpainak antolatzeko ardura.

"Atari jarduna" artikuluan esaten duenez:

> "Arrasatekoaren hotsak berbiztu nindun, ni beñipein. Arrezkero euskal-egunetan egotzi zitzaidan zeregiñik aski" [65].

1927-1933 urteen artean eginiko aspergabeko ekintza lekuko izan ziren lagunek idatziriko hil-ondoko artikuluez gain, zeregin honi eskainiriko ordu eta orduen frogantza dira egunkarietako eta aldizkarietako hainbat artikulu.

1.2.3. Bizitzaren alderdi garratzak

Bienbitartean, arlo pertsonalean zenbait gora-behera gertatuak dira. 1927ko pertsonalitate ekintzale eta suhar horrek alderdi ilunak zituen bizitza pertsonalaren arlora begiratuz gero, 1926-27ko olerki bakanek bakarrik isladatzen duten goibeltasuna zen nagusi.

Ordurarte bere ezkontzaren fruitu bizi bakarra zen Xabier haurra 1925eko Eguberrietan hil zitzaion. Hari eskeini zion hurrengo urtean *Xabiertxo'ren eriotza* olerki hunkigarria eta gai bereko *Zeru Azpia* moldatu frantsesezko Besse de Larzes poema orijinalean oinarriturik.

Hiru urte geroago aldiz, egunkarietako kanpaina ekintza abiatua zuelarik, gaisoaldi gogor batek hil zorian eduki zuen bera 1928. urtearen bukaera aldera. Adiskide zuen "Mendi-Lauta" idazleak eman zuen *Euzkadi* egunkarian gaisoaldi honen berri Zarauzko kronikan "Lizardi'tar Xabier gexorik" artikuluaren bidez:

> "Gaur arratsaldean ikertzeko asmoan jun naiz bere etxera. Galdetu det beratzaz eta arpegi zurbilduaz erantzun dit bere anayak. Gexorik dago, oean arkitzen da. Gaur ikurtun deunak artu ditu. Zinetsi eziñik edo nengoan oroiturik orain egun gutxi irakurri nubela bere idazkai mamitsu bat eta biotz-atsekabe ikara sartu zait bat batean ainbeste maite detan aiskidearen izpar ituna entzunik. Gexo gogorra daukala esan didate, baño osagilleak itxaropena eman dute aterako dala" [66].

Euzkadi egunkarian Zarauzko berri ematen zuen "Mendi-Lauta" idazleak berak azaldu zuen gaisoaldi hori zela eta, Tolosako Ziaurriz sendagileak Zarautza joateko aholkatu ziola Lizardiri itsasoko haizeaz susper zedin.

"Lizardi gure artean" izenburuaz argitaratu zuen Mendi-Lautak Lizardik Zarautzen egin zuen egonaldiaren kronika:

---

64 GARMENDIA, J.; "ZELETA"; "Lizardi'tar Xabier (g.b.)" in *Argia*, 625, 1933-3-26, 2. or.

65 LIZARDI, X.; "Atari-jarduna" in *El Día*, 1931-12-16, 6. or.; *K-L* 353-354. or.

66 ARRUTI, D., "MENDI-LAUTA"; "Lizardi'tar Xabier gexorik" in *Euzkadi*, 1928-11-11, 6. or.

"Lizardi'tar Xabier idazle azkar, Zarautzar benetakoa, euskeltzale sutsua eta aiskide biotzekoa gure artean degu. Gaitz gogorra igaro ondoren, indarberritzeko asmotan etorri dala esan digu. Egunean, egunean ikusten degu okeltzen eta indartzen ari dala eta pozkiro arkitzen gera.Urte mordoxka polita da ezagutzen detala gure erritar euskeltzale zintzo au, eta Tolosar osalari Ziaurriz argiyak, uste det ezin bialduko zubela toki egokiagora azkar osatzeko.Imán atrae hierro. Oroitze aiz?" [67].

Antonio Maria Labaienek [68] ere aipatu zuen idatzi zuen hil ondoko artikuluan, indarberritu arte Lizardik bolada luzea egin zuela Zarauzko izeba baten etxean, "Mendi-Lautxo" izeneko etxean.

Garai horretakoak dira Lizardik gazteleraz argitaratu zituen "Glosas triviales" saila osatzen duten bost artikulu bereziak. Guztiz tankera ezberdina nabari zaie Zarautzen hasitako idazlan hauei; ez dute zerikusirik euskararen aldeko edo euskal literaturaren gaiarekiko beste hainbat artikulurekin.

"Mendi-Lauta"k eman zuen berriz ere Zarauzko egotaldiaren amaieraren berri, 1929ko otsailaren 16an "Lizardi igesi" izenburuaz argitaratu zuen artikuluaren bidez. Makalaldia gainditua zuen eta bere ohizko zereginetara itzuli garaia zuen. Zuen gaitz sendaezinaren lehen ukaldi gogorrari ihes egin ahal izan zion orduko hartan, baina ez luzarorako.

Garai horretako Lizardiren egoera pertsonalaren adierazlerik egokiena da 1929ko otsailaren 24ean argitaratu zen "Tristezas de un jocoso sentimental" deritzan artikulua:

"Ancha playa. Amplio mar en libertad pacífica. Un tenue acolchado gris-oro velando el horizonte. Permítaseme una exclamación para hacer boca: ¡Qué hermoso es convalecer aquí envuelto en cien recuerdos luminosos de infancia, lejos de la labor forzosa con quien jamás hizo pacto de amiga la afición...!" [69].

Otsailaren amaieran itzulia da berriro bere ohizko zereginetara eta ordurako hasia duen egunkariaren kanpainaren ekintzetako batean, hain zuzen ere, Eusko Ikaskuntzaren bilkura batean ekainaren 27an irakurritako hitzaldian, bere gaisoaldi larria eta Zarauzko egonaldia ñabardura ironikoz aipatuko dituen bidenabarrezko aipamenak dira bere hitzaldiaren sarreran:

"Jaun-andreak: makal-samar nengoalarik, *–ibilia bainaiz soro aundirako langa zabaldu ez zabaldu–*, idazki bat, karta bat, etorri zan gurera..."[70].

1.3. 1930KO ALDAKETA NAGUSIAK: ERREPUBLIKA ETA EUSKAL AUTONOMI ESTATUTUA

1930. urtean aldaketa nagusiak gertatu ziren Euskal Herriko giro politiko eta kulturalean. Primo de Rivęraren diktadura amaitu eta Errepublikaren etorrerak ekintza politiko abertzalearen indarberritzea dakar, joera abertzaleentzako bide politikoak irekiak daude data honetatik aurrera. Alor kulturalean aldiz, Euskaltzaleak erakundeak berregituraketa jasan zuen Arrasateko bilkuran Lizardik eginiko proposamenaren ondorioz eta erakunde berritu honek bi mila lagunetik gorako bazkidetza lortu zuen, bere ekimen gaitasuna sendotuz zihoalarik.

Urte horretan bertan ospatu zen Errenteriako Eusko Olerti Eguna, Jose de Ariztimuñok 1933ko martxoaren 14ean *El Día* egunkarian argitaratu zuen "Xabier Lizardi hil!" izenburudun artikuluan azaltzen denez, Errenteriako jai honen hasibidea urte horren hasieran bildurik zegoen lagun talde baten ekimen asmoa izan zen.

---

67 ARRUTI, D. "MENDI-LAUTA"; "Lizardi gure artean" in *Euzkadi*, 1929-1-31, 4. or.

68 LABAIEN, A.M.; "Lizardi'tar Xabier" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 57, 1933, 18-21. or.

69 LIZARDI, X.; "Tristezas de un jocoso sentimental" in *Euzkadi*, 1929-2-24, 1. or.; *K-L* 207. or.

70 LIZARDI, X.; "Euskel-egunerokoa" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 42, 1929-6-27; *K-L* 179. or.

"Euzko Olerti Eguna", iniciativa que naciera en un cenáculo, en plena fiesta de Santo Tomás, en Donostia, en un cenáculo de euskeltzales, los poetas Ormaetxea, Jauregi y Agirre, el dramaturgo Labayen, Aranguren y el que escribe estas líneas"[71].

Olerti Egun hauek Lizardiren olerkien argitalpen epe berri bati eman zioten hasiera. 1925az geroztik aldian behin aurki daiteke "Txolarre" eta "Xabier de Lizardi" ezizenez izenpeturiko zenbait poema *Euzkadi* eta *Argia* egunkariaren azaleko orrian, baina bere olerkiak sarritasunez ezagutzera eman eta olerkari ospea izaten hasi zen unea 1929tik aurrerakoa da, 1931ko Tolosako Olerti Egunean *Uzta-erdi* deritzan olerkiaz lehen saria irabaztean poeta bezala konsagratzea erdietsi zuen arte.

Data horretatik aurrera eta giroan nabarmentzen den ideia politiko eta kulturalen irakite egoeraren erdian, Lizardik bere lan poetikoari gero eta asti gehiago eskeini zion, azkenean 1932aren erdi aldean *Biotz-begietan* poema bilduma argitaratu zuelarik.

Lizardiren bizitzari buruzko gora-beherak ezagutzera eman dizkiguten autoreek eta gutun pertsonalek, zeregin politiko-kulturalen eta zaletasun poetikoen arteko tira-bira isladatzen dute: alde batetik, Estatutuaren aldeko kanpainaren erdian Lizardik Gipuzko Buru Batzarreko idazkari kargua onartu zuen. Lan-ardurak ere ez ziren gutxi [72].

1933ko martxoaren 12an hil zen biriketako gaitz gogor batez. 1928an hil zorian eduki zuen gaitz hark berak jalki arazi zion azken hatsa, bizitzeko hainbat arrazoi zuen unean [73].

Bide abertzaleak politika giroan urrats sendoak ematen zituela zirudien giroan nagusi, bere olerkari zaletasunak esparru literarioan norabidea aurkitua zuela zirudien unean eta, azkenik, arlo pertsonalean lau seme-alaba haztekoak izateak sortuko zion kezka eta ilusioa biltzen zitzaizkion bihotzean 1932ko "Etxe-barne bizia" [74] izenburudun artikuluan edo *Etxeko sagastia*n jasotzen den bezala.

1.4. AZKEN URTEETAKO LIZARDI: NORTASUN ETA EGITASMOEI BURUZKO ZERTZELADAK

1935ean *Jakintza* aldizkariak argitaratu zuen *Etxeko sagastia* izeneko olerkia bere seme-alabekiko sentimenduen adierazle garbia da. Lizardiren poema horrek duen giro bera sumatzen zuten bere garaikideek haren inguruan bizi zirelarik. Lekuko bakar gisa aipa dezagun, Orixek, Liman ibili zenean, Santa Arrosaren etxea ikustera joan zelarik:"Santa Arrosa'ren etxea ta lore-baratza, ordun bezalaxe zeuden. Lizardi zanaren etxea ta lorebaratza gogora zidanan" [75].

Luis Jauregik Tolosan Lizardiren omenez antolaturiko mintzaldietan emandako "Lizardi. Su personalidad literaria" izena zuen hitzaldian, hil zen garaian Lizardik buruan zerabilen zenbait egitasmo literarioren berri jakin arazi zuen:

"Nos lo ha llevado el Señor cuando estaba fraguando en su mente la composición de un poema originalísimo, extraído de los recuerdos de su vida y planeaba el argumento de una novela de gran envergadura literaria.Su ingenio todavía estaba en formación y crecimiento. Nos consta que

71 AITZOL; "Xabier Lizardi hil!" in *El Día*, 1933-3-14, 1-2. or.

72 Ikus "Lizardiren Eskutitzak" eranskinean, Verdes eta Lizardiren gutunak, 49-56 dokumentuak.

73 "VII. Maitea osatu egin zan- Aur geiago izan zituzten- Etxebarneko biziera: mendira, olerki egitera; bakarrik- Gero maian etxekoen lagunarte atsegiña- Neguko gaua: zirriborroak- Maiteari irakurri- Lau aurtxoena- Bizitzabidea ez da zearo garratz; ez du beti eguzki, besteetan bezela odeiak yartzen baitira bitarte. Ondaurtz, antziñako andregai artu-ez baten antzeko zait orain. Irizar'ekin egin ditut pakeak, an sortu baitira nere aur ta olerkiak. Gaztetako oroipen zarrok berritzen ditudan artean onaa gizon eldu. Neguak elurrez zurituko gaitu, baiño nere naia, aur ok beti olaxe irautea litzake". LIZARDI, X.; *Olerkiak, "Maitea*ren apurñoak", 219. or.

74 LIZARDI, X.; "Etxe-barne bizia" in *Argia*, 573, 1932-6-17, 9. or.; *K-L* 393-396. or.

75 ORIXE; "Quiton arrebarekin" in *Euzko Gogoa*, 3-4, 1950, 16. or.

precisamente ahora era cuando se estaba dedicando al estudio de los grandes maestros de la literatura universal" [76].

Jautarkolen aipamen honek sarrera hitzetan aipatu dugun Orixeren informazioarekin bat egiten du: biografia datu hauek eta ondoko kapituluan jasoko dugun Pizkundearen ingurumariari buruzko azalpenak, nahiz ekintza kultural eta politikoaren intentsitateak adierazten digutena baitetsi baizik ez dute egiten.

Lizardik ez zuen izan asti lasai luzerik irakurri eta idazteko; ikasketa unibertsitariak, aldiz, libre gisa egin zituen, ohi zena baino denbora laburragoan, bi ikasturteren buruan eta aldi berean lanean zihartuelarik. Honenbestez, lojika osoz pentsa liteke ez zuela formazio akademiko, ez informazio kultural eta literario oso zabalerako aukerarik izan.

Giro euskaltzalean puri-purian zeuden gai, irakurketa eta kezkak ziren bereak ere; olerkietan nahiz artikuluetan erabiltzen dituen gaiek islaldatzen duten interesen alorra giro honi lotua zegoela iragartzen dute gehienbat, eta horretatik ateratzen dena egunkari edo aldizkarietan irakurritako informazio jeneralari dagokio.

Funtsean gaztaroko irakurketak izan bide ziren Lizardiri eragin handiena egin ziotenak, "Garto" deitzen duen osabarekin batean ezaguturikoak, eta unibertsitate ikasketetetako programetan eskatzen zizkioten ezagupen orokorrak [77], hortik aurrerakoa bere kontura eginiko irakurketa solteak dira.

Nortasunari dagokionez, Urola'tar Martinek 1933ko apirilaren 15ean *Argia* asterokoan argitaratu zuen "Aztuko etzaigun Lizardi'ri" artikuluan Jose María Agirreren azken egunen berri zehatza ematen duelarik haren gertu-gertuko irudia utzi zigun, ondoren aipatuko dugun Aitzolenaren osagarri eta katalizadorea dena, ene ustez.

Bisitan joan omen zitzaion ostiralez, apirilaren 10ean, hitzaspertu bat egiteko asmoz, ia sendaturik aurkituko zuelakoan...

> "Uste ez nituan berriak eman zizkidaten. Naitanaiezko ebaki-sendakuntza gogor bat egin zizutela goizean. Sukarrak etzizula alde egiten-eta, birika bat betea zenukala-ta...; zekitenak ziotenez sendabide bakarra zala goizeko hori ta...; atseden gozotsu baten ondoren bezela zeundela arrezkero..."Bai, batere miñik gabe, saiets-ezurra kentzerakoan ai aundi bat egin du, baño..."(...)Urrengo egunez, ez aurrera ta ez atzera; egon... egon...Eta igandez, arratseko iru ta erdietan: il da "Lizardi" !!! Zeruan gerta dedilla!" [78].

Osasunez "aultxoatzat" deskribatzen du Urola'tar Martinek Lizardi, gaisoberatzat; izakeraz aldiz, lagunartean atsegina eta umoretsua zela esaten du, baina aldi berean bene-benetako lagunek, estutxotzat jotzen zutela ere adierazten duelarik: "Bakarrean estuago ziñala jakiteko, urrutitik zaitu besterik etzegon" [79].

Urola'tar Martinek aipatzen duen "estutxo" izateko era ezkutu horrek, alegia, kezkatsua, erreflexiboa eta bere barrena aztertzen zuen pertsonaren izateko era horrek, haren olerkiek duten sakontasunerako joeraren eta jarrera bitalistaren arteko lehia nabariaren lekukotza baitetsi egiten du.

Lizardiren kristau fedearen inguruko zehaztasunak ere ematen ditu Urolak:

---

76 JAUREGI, K.; "Lizardi. Su personalidad literaria" in *El Día*, 1933-3-15, 1 or.

77 Karlos Otegik bere tesiaren V. atalean, "Relaciones de intertextualidad" delakoaren barruan, aipamen zehatzaz Lizardirena izaniko liburutegiko liburuen zerrendaz Ikasketen programa eta literatur ikasketa obligatorioen fitxen zerrenda ere egiten du "Datos complementarios" izeneko puntuan. Ikus *La poética de "Biotz-Begietan"*, II, 853-861. or.

78 UROLA, M.; "Aztuko etzaigun Lizardi'ri in *Argia*, 624, 1933-3-19, 2. or.

79 *Ibidem.*

"Nik banekian Jaungoikozkoa ziñala; zerbait kezkatsua ziñala ere bai. Benetako kristau bati dagokion bezalako ezagutu zaitugu beti, gizartean bezala bakarrean eta lagunartean" [80].

Azken orduan berarekin egon zen Aitzolek kontatzen du Bibliako patriarka zaharren benazkotasunaz inguratu arazi zituela bere seme-alabak eta banaka-banaka ohe aurrera deitu eta bedeinkatu zituela [81].

Zeleta, Aitzol eta Urola'tar Martini esker ezagutzen ditugun Lizardiren azken ordu hauetan, arestian bere izakeraren deskripzioan aipatu ditugun ezaugarrietako batzu azpimarratzen dira: alde batetik, bere seme-alabekiko kezka, bestetik, kristau fedearekin borrokan, heriotzaren aurrean izan zuen ezin onartzezko jarrera atsekabetua.

Garaiko egunkarietako idazkietan Lizardi ezagutu zutenek nortasun "estutxo" eta haren fedea zerbait "kezkatsua" zela iragartzen digutelarik, *Urte-giroak ene begietan* poemako bertsoek isladatzen duten sentimenduaren ñabardurak hobeki sumatzen laguntzen digute:

"Oi zein den ituna
beera bear au!
Nik ez nai eguna
biurtzerik gau."
(OG 47-50, 169)

Bertso horiek adierazten duten ezin-etsia garaikide izan zuen Bernardo Estornés Lasak elkarrizketan adierazi diguna berresten dute: bere patu gogorra ezin onartu zuela Lizardik. Horregatik beragatik pentsa liteke fede kristau sakon hura bilaketa, kezka eta hainbat ausnarketaren ondoriozkoa zela:

"Yainko-muño-gañetara baiño leen,
(ederra baita bizia!)
urrezko itsaso bebilt urduria,
Itzal dudala laguntzalle lerden.
Ta udazken-atsarreko goiz batean
esnatu nadi Yainkozko Betean!
(OG 70-76, 171)

Beraz, ezagutu zutenen lekukotzaren arabera, eta geroago haren ideia literarioak aztertzen ditugunean osatuko den nortasun irudiaren lehen hurbilketa gisa, esan behar dugu Lizardiren munduan kokatzeko era ez dela izan zenbaitetan uste izan den bezain gozo eta segurua:

"Ezta zalantzarik Lizardigan. Pozik dago biziak eskeintzen dionaz eta fedeak agintzen dionaz. Alferrik bilatuko duzute beragan Europa eta mundu guztia dardarazten asia zen lur-ikararen berririk. Dardarak ezkinduen artean ukitu edo, ukitu baginduen ere, begi-belarri erneak eta arima urduria bear ziren zirrara sumatzeko. Bizileku sendoan bizi zen. Zimenduetan ez-ezik, etzen paretetan artesiturik ageri. Axalean zertxobait aldaturik ere, bizimodua, uste, iritzi eta sinesteak oiturazkoak ziren, gurasoengandik zetozenak, eta gizaldi berriek aztertu gabe bereganatzen zituzten, beste edozein ondasun bezala. Inguruan, Euskal-erria zeukan, euskal-lurraldea, zugaitz ugariz jantzita. Etzuen inongo amets-errietara iges egin bearrik. Aski zuen aurrean zeukana kontatzearekin. Engañatua zebillen. Gaur badakigu astindu gaituen lurrikarak sortuak zirela ordurako, eta eztirela berealakoan paketuko" [82]

---

80 *Ibidem.*

81 "Handik aurrera bere emazteak Argi Donea irakurtzen ziolarik, azken eskaera gisa hitzok esaten omen zituen: "Otoitz egin zerura nadin". AITZOL; "Xabier Lizardi hil" in *El Día,* 1933-3-14, 1-2. or.

82 Ikus MITXELENA, K. "Sarrera-itz batzu" in ALVAREZ, J.L. "TXILLARDEGI"; *Leturiaren egunkari ezkutua,* Euskaltzaindia, Bilbo, 1957, (5-17. or.)

Biografia pertsonalean gozotasun baino garraztasun gehiago aurkitzen da eta aurrekoengandik heldua zitzaion mundu ikuskera tradizionala ez zuela besterik gabe onartu garbi dago, klase sozial, ideia politiko eta euskal kulturarekiko jarrera pertsonaletan. Azkenik, poeta izatea bera, zuen gizarte-irudiari ez zegokion zaletasuna edo bokazio idealista aitortua zen, ingurukoen "gogo lurkoien irriei" ez-adituarena eginez.

Modernitatearen krisiak berarekin ekarri zituen baloreei buruzko barne-itaunketaren aztarnak sumatzen dira Lizardiren arlo pertsonal nahiz poetikoan, garaikoen lekukotzak eta bere idazlanek tarteka adierazten dutenez. Bigarren gerrate mundialaren inguruko, aurreko nahiz osteko kezka existentzialak jadanik isladaturik ikus litezke bizitzaren eta heriotzaren "izkutuaz" kezkatua bizi izan zen poeta honengan. Eta hala izatea bidezkoago da heriotzarengatiko kezka erreala eta hurbilaren zama zenbait urtetan zehar eramandakoak [83].

2. PIZKUNDEAREN INGURUMARIA ETA LIZARDI

2.1. LIZARDIREN KONPROMEZU POLITIKOAREN GARRANTZIA

2.1.1. XX. mende hasierako egoera politikoa Euskal Herrian

Lizardik bizi izan zituen heldutasun aroko 1915-1933 urte horiek Euskal Herriarentzat itxaropen handiko bezain errealitate mingotsekoak izan ziren.

Hiru Autonomi Estatutu proiektu ezagutu ziren —Lizardik bi bakarrik— eta, azkenik, gudaren mehatxupean zeudelarik soilik lortu zen hirugarrena onartua izatea.

1917an koka daiteke zehazki urte epe honen hasiera, Espainiako Armada baitango egonezina eta gatazka alde batetik, eta bestetik, langileriaren baitan mogimendu sindikal erradikalak indartzea. Grebak izan ziren Espainiako Estatuko hiriburu handienetan: Santiago, Valencia, Bilbo...

1923rarte iraun zuen nola edo hala gobernuak. Gizartean gatazka gero eta nabarmenagoa da eta Barcelona eta Madrileko langile giroetan anarkista eta sozialisten eragina gero eta handiagoa.

Egonezin sozial honek, gobernuaren beraren ahuleziak, eta Marruekos-eko guduak, militarren erreakzioa ekarri zuten. 1923ko Irailaren 13an Primo de Rivera kolpe militarra jo eta agintea bere eskuetan hartu zuen.

Primo de Riveraren diktadurapean, euskal abertzaletasunaren bilakabidea ordurartekoa baino neketsuagoa izan zen. Urte horietako errepresioa eta zentsura eguneroko oztopoa bilakatu zitzaien abertzaleei: aldizkariak itxi arazi, erakunde eta elkarte politikoak legez kanpo ezarri...

Lizardik "Arrasateko itzaldia" deritzanean honela deskribatu zuen egoera Primo de Riveraren garaian:

> "Euskalerri-zaleok garai artan kikilduta bizi giñan, orduko gure egoitzari bizitzea esan aal-ba'lezaio. Geure erriari, geure izaerari, geure izkuntza biguñoni maiterik agertzea, pekatu zala ia

---

83 Lizardiren gorpua, Tolosako San Blaseko hilerrian, Garmendiola pean izan zen hilobiratua, 1933ko martxoaren 13ean, Tolosako Santa Mariako elizan ospatu zirelarik haren arimaren aldeko elizkizunak. Heriotzaren berria Tolosa guztian barreiatu zelarik igande arratsaldean, hurrengo egunean goizeko hamarretatik hasita atergabekoa izan omen zen doluminak adieraztera zetozen lagunen joan-etorria.

sinistarazita geunden. Arri astun baten azpian arturik bezala, itxaropen-begiez etorkizunari begiratzeko ez gifian gauza" [84].

Diktaduraren zentsuraren ondorioz, agintariek Eusko Alderdi Jeltzaleak kaleratzen zituen argitalpenetako batzuk galerazi zituzten; horien artean *Aberri* deitura zuen aldizkaria, eta ondorioz, *Euzkadi* egunkariak ere ateratzeari utzi zion bestearekiko solidaritatez.

Aldi berean, Eusko Alderdi Jeltzalearen barruan ere giro zalapartatsua nabarmendu zen, eta irizpide ezberdintasun horren ondorioz, 1923az geroztik bi korronte nagusitan berezia zegoen.

Martin Ugaldek *Historia de Euskadi* liburuan "Comunión" eta "Aberri"koen artean egiten duen banakuntzaz [85], bigarrena aurrerazaleagotzat, eta lehena, aldiz, kontserbadoreagotzat aipatzen ditu. Julián eta Francisco Agirrek, Eugenio Ibartzabalek *Cincuenta años de nacionalismo vasco* deritzan liburuan eginiko elkarrizketan, banaketa honezaz hitzegiten dutelarik, Lizardik bi zatiak bateratzeko egin ziren bileretan izan zuen jarrera eta ordezkaritza argitzen dute:

> "Uno de los problemas que con más intensidad vivimos los nacionalistas vascos de la época fué el provocado a consecuencia de la escisión entre ABERRI y COMUNION, producida en Juventud Vasca de Bilbao y cuyo núcleo promotor estaba encabezado por hombres de la talla de Eli Gallastegi, Jose Maria Errazti, Ceferino Jemein y Manu Egilleor, y que a la postre no fué sino el resultado de un enfrentamiento generacional y repetido posteriormente: jóvenes impacientes contra mayores más calmosos.(...) La división creada en 1921 daria fín en 1930, en plena "dictablanda" de Berenguer, iniciándose un movimiento de reconciliación deseado por ambas partes, tal como se demostró en la encuesta realizada por el diario Euzkadi.Las diferencias existentes eran mínimas, y las relaciones mantenidas entre ambos grupos en el tiempo de la separación fueron fraternales, por lo que la unión resultó sencilla. Se nombró una comisión que solucionara los problemas concretos, comisión de la que eran miembros dos abertzales por cada región y uno por cada grupo. Por Bizkaia formaron parte Sandalio Tejeda y Patxi Arregi, por Gipuzkoa, Jose Maria Agirre "Lizardi" y Domingo Arruti, por Navarra...() Los primeros de ellos por Comunión y los segundos por aberrianos" [86].

Zerraldoa aldiz, "Perot y compañia" lantegiko geletako batean egon omen zen bisitagai, hango nagusiaren estimazioaren adierazgarri. Lankide estimatua zela frogatzen dute bestalde, Donostiako *El Día*k asteartean, martxoaren 14ean argitaratu zituen argazkiek, Xabier Lizardiren zerraldoa Perot entrepresako langileek eramanik erakusten dutelarik. Aitzolek hurrengo egunetako batean argitaratu zuen artikuluan dioen moduan, ez zen hau seinale makala langileen eta nagusien arteko harremanen giroak urte haietan bizi zuen istiluen erdian gertatua izateko. Handik zenbait egunetara, 1933ko martxoaren 28an omenaldia eskaini zioten "Euskeltzaleak" elkartekoek Tolosako "Iparragirre" zineman. Partaide izan ziren Labaien, Aitzol, Orixe, Lauaxeta... Omenaldi horri esker geratu dira idatziz hurrengo egunetako egunkarietan argitaraturik haren lankide eta adiskide izandako horiek Lizardiri buruz zituzten iritziak eta harekiko zituzten oroitzapenetako asko. Omenaldi horrezaz gain, Zarauzko herrian Azara kalearen deitura "Lizardi" kalea bihurtzeko asmoaren berri ematen du Antonio Maria Labaienek, bai eta "Ernio pean Otazu mendi masailean "Korteta" baserriko barruti txiki batean, maldan gora, bidetik bertan, Zaska gaiñean Lizardik beretzat hartua zuen tokitxoan" oroitarri bat ezartzeko asmoa ere. Gerratearen lehen egunetan gertaturiko gora-behera goibelen artean aipatzen du *Eguna* euskal egunkariak Lizardiren oroitarria lehertarazia izan zela. Lizardik ezagutu ez zuen gerrate hark, bere oroitzapena ez ezik, naturarekiko sortua zuen erreinuaren memoria ere suntsitu nahi izan zuen, ideia politikoen izenean.

84 LIZARDI, X.; "Arrasateko itzaldia", *Euskeltzaleak*, 1930-7-30; *Itz-Lauz* (2. arg.) 129-136. or.; *K-L* 270. or.

85 "Eli Gallastegi era entonces un hombre valioso, importante, y sustituyó a Eleizalde cuando este enfermó; buscaban un camino más hacia la izquierda. Ya está para entonces, EUZKADI en manos del grupo menos avanzado "Comunión" dirigido por Engracio de Aranzadi "Kizkitza", uno de los primeros colaboradores de Sabino Arana, y su representante en los primeros tiempos en Gipuzkoa". UGALDE, M.; *Historia de Euskadi*, Planeta, Madrid, 1982, 418-419. or.

86 IBARTZABAL, E.; *Cincuenta años de nacionalismo vasco*, Ediciones Vascas, Donostia, 1978, 89-90. or.

2.1.2. Lizardiren jarrera politikoa: posibilismoa

Lizardiren jarrera politikoen berri ematen digun Agirre anaien lekukotza honek 1921-30 urteen arteko Lizardiren joera politikoa azaltzen digu eta berak 1927ko "Insistiendo" artikuluan egiten duen aipamenaren bide beretik doa Engrazio Aranzadi "Kizkitza"ren idatziek beregan izaniko eraginaz diharduelarik:

> "Quienes —hace de esto diez, doce, quince años— no bien traspuesta la adolescencia que para nosotros transcurrió en el mas completo letargo y colegial apartamiento de cuanto significase consciencia y conservación del ser y de la tradición vascos, hubimos de recibir en plena alma el choque formidable, doloroso en fuerza de violento e imprevisto— de la nueva idea del renacer, sabemos bien cuánta parte debe la formación de nuestro sentido a la pluma de "Kizkitza" ortodoxa, elocuente e infatigable.
>
> Y permítaseme también, ya que en éstas estoy —que el momento y la ocasión convidan a ello— una exhortación cordial al olvido de pasadas diferencias de criterio y escisiones en nuestra propia familia; ya que pocos somos y de estrecha unión nos vemos necesitados para que no perezca la flor aquella de nuestro manzanal en el ambiente helado de una fraternidad y desidia criminal" [87].

Eli Gallastegik, "aberriano"ak zituzten jokabide eta helburuen zedarriketa egitean, "Aberri" taldearen iritziaren oinarri, abertzaletasuna aditzeko era benetan sabiniarra zegoela dio Ibartzabalen elkarrizketan. Aberrianoak Espainiako gobernuarekiko harreman guztiak haustearen aldeko ziren, haren legezkotasuna ez bait zuten onartzen. Madrileko gorteetara inolako ordezkaririk ez bidaltzea eskatzen zuten, ez bait zuten onartzen eztabaida parlamentarioak ezertarako balio zuenik [88].

Ikusi denez, Lizardi 1921tik 1930ra arteko zatiketa garai horretan elkartasunaren aldekoa zen, eta batasunerako jardunaldietan ordezkari hautatu zuten "Comunión"ekoek.

1930ko urte horrek abertzaletasunaren garapenerako garai hobeen hasiera markatu zuen: Primo de Riveraren diktadurari, Berenguer Jenerala eta Aznar Almirantearen "dictablanda"k jarraitu zion.

1931ko apirilaren 14ean aldarrikatu zen II Errepublika eta hurrengo bi urteetan, 31tik 33ra arte, Espainiako historia aldaketa sozial, ekonomiko eta erlijiosoez zigilaturik dago.

Lehenengo aldaketa Konstituzioarena izan zen; botoa eman zitzaien emakumeei eta soldaduei lehenengo aldiz, Estatua laikoa zela aldarrikatu zen, eta eskualde historikoei Autonomia Estatutua izateko eskubidea aitortu zitzaien.

Erlijioaren arloan gertaturiko aldaketa nagusienen artean eskola eta hilerrien sekularizatzea aipatu genezake eta, beste aldetik, Euskal Herrian eragina izango zuen Josu Lagundia desegitea ere bai; erabaki horren ondorioz aldegin behar izan bait zuten Euskal Herritik euskal kulturaren arloan eragin garrantzitsua zuen Aita Estefaniak, eta hasi berria zen Jokin Zaitegik, beste askoren artean.

Estatutuei dagokienez, Euskal Herrian 1931an hasi zen Autonomia Estatuaren aldeko kanpaina, Eusko Ikaskuntzak estatutu eredu bat osatu zuen lau lurralde historikoetarako eta antolakuntza egitura gisa "alkateen mogimendua" deitu zitzaiona izan zuelarik J. A. Agirreren zuzendaritzapean.

Garai horretan, 1931ko ekainaren 28an egin ziren Espainiako Korte Nagusietarako lehen hauteskundeak, eta Eusko Alderdi Jeltzalea, "Comunión Tradicionalista" zeritzan alderdi eskuindarrarekin aurkeztu zen hauteskundeetara, gehiengoa atera zutelarik euskal probintzietan. Honela osatu zen Minoría Vasco-navarra deitu zen hura.

Eusko Ikaskuntzak osaturiko Lizarrako Estatutua deitura eman zitzaion egitasmoak Azpeitiko 1931ko Biltzarrean zuzenketa-eske garrantzitsu bat jaso zuen bere baitan, hain zuzen ere Euskadirentzat Vatikanoarekin harreman zuzenak edukitzeko eskubidea aldarrikatzen zuena. Baina,

---

87 LIZARDI, X.; "Insistiendo" in *Euzkadi*, 1927-10-21, 1 or.; *K-L* 54. or.

88 UGALDE, M.; *Historia de Euskadi*, 418-19. or.

hain zuzen ere, erlijoari zegokion enmienda horixe izan zen Madrileko Korteetan Lizarrako Estatutua ez onartu izanaren arrazoia, Konstituzioaren aurkakoa bait zen.

Beraz, bigarren estatutu bat egituratzeari ekin behar izan zitzaion. Azkenik, 1932ko ekainaren 19an hauteskundeak egin zirelarik eta Nafarroan izan ezik gainerako probintzietan erabateko onarpena lortu zuelarik.

Ingurumari politiko gatazkatsu eta aldakor honetan kokatzen da Lizardiren 1931-32ko zenbait gutun pertsonal. Lehenengo hiru gutunak [89] 1931. urtearen amaiera eta 1932.aren hasieran kokatzen dira. Lizarrako Estatutuaz hitzegiten dute, haren porrotaldiaz, eta bigarren estatutua osatzeari buruz.

Esate baterako, 1931ko azaroaren 24ko lehen gutuna Bizkai Buru Batzarreko lehendakariari zuzendua dago eta bigarren estatutua osatzeko aurre-bilerak non eta nola egin aipatzen du, honetan berak zuen zeregina frogatzen duelarik.

Bigarrena aldiz, Jose Antonio Agirreri zuzendurik dago eta 1932ko Otsailaren 7an dataturik [90]. Gipuzku Buru Batzarreko hiru burukideen, Barrena, Barriola eta Lizardi beraren arteko bilera baten berri ematen dio Gasteizko Estatutua osatuko duten zenbait punturi buruzko adostasuna adieraziz, eta hartan jarriak dituzten itxaropenak aipatuz.

Azkenik, sail hau osatzen duen hirugarren gutuna datarik gabea da, baina 1932ko martxoa eta ekaina bitartekoa izan behar du aipatzen dituen gaiengatik. Bigarren estatutua amaitutzat ematen du eta haren aldeko propaganda kanpainarekin egiten ari denaz Gipuzku Buru Batzarreko agintariek duten susmoa adierazten dio [91].

Lizardik Gasteizko estatutuaren prestaketan izan zuen zerikusiaren lekukotza ematen diguten hiru gutun hauekin batera, garrantzitsuak dira era berean, beste zenbaiten artean esaterako, 1932ko urte hasierako datarik gabeko Bizkai Buru Batzarraren zirkular batek Alderdiaren Idazkaritza edo Bulego Orokor bat sortzeko premiaz dihardu, geroago, 1932ko Apirilaren 5ean Polikarpo Barrenak Lizardiri bidalirikoak, aldiz, Jose Maria Agirre bera Gipuzkoako Idazkaritza sortu berriaren partaide izendatuz bidaliriko ziurtagiria, Mikel Urreta eta Mikel Mendizabalekin batera izango duelarik kargu hori [92].

Alderdi barruko Lizardiren betebeharrak eta zereginak isladatzen dituzten gutun hauen artean interesgarrienak [93] Aita Segundo Bilbaok 1931-9-30an bidaliriko gutuna eta Lizardik 1932-6-13an bidaliriko erantzuna dira. Bi gutun hauen tarte luzean lehen Estatutuaren eta bigarrenaren arteko gora-behera politikoak gertatu ziren eta gutun horri eskerrak jakin dezakegu Lizardik gertakari horiei buruz zuen iritzia eta ikuspuntua. Gutunez azaldu zizkion Formosan zegoen apaiz horri, bere familia eta lagunei buruzko beste zenbait gora-beheren artean.

Gutun horretan esaten dituenak irakurri ondoren, egoki dirudi pentsatzea benetan Anjel Zelaietak "Lizardiren pentsamolde nagusiak" delakoan [94], Lizardi politiko posibilistatzat jotzen duenean arrazoi osoa duela.

---

89 Ikus 15, 19, 20, 26 eta 27. Dokumentuak "Lizardiren Eskutitzak" eranskinean.

90 Ikus "Lizardiren Eskutitzak" Eranskinean, 15. Dok.

91 *Ibidem*, 20. Dokumentua.

92 *Ibidem*, 21. Dokumentua.

93 Ikus "Lizardiren Eskutitzak" eranskina. 26 eta 27 Dokumentuak. Lizardiren alderdiarekiko betebeharren berri zehatza ematen duten beste zenbait gutun pertsonalen artean, esate baterako, 1831-10-28an Lizardik GBBko lehendakari den Polikarpo Barrenari propagandan erabiltzekoa eta Aitzolek erredaktatua izan den idazti bat aipatzen dio, haren kopia ere batera bidali diolarik. 10., 11. eta 12 Dokumentuak.

94 ZELAIETA, A.; "Lizardiren pentsamolde nagusiak" in LETE, X.; ZELAIETA, A; LERTXUNDI, A., *Xabier Lizardi. Olerkari eta prosista*, Jakin, Arantzazu-Oinati, 1974, 52-59. or.

Hala ere, Anjel Zelaietak bere artikuluan jarrera posibilista hori frogatzeko hartzen dituen Lizardiren artikuluetako aipamenek ez zait iruditzen egileak dioena baitesten dutenik.

Zelaietak harturiko Lizardiren kultura, literatura, eta hizkuntz politikari buruzko zenbait irizpidek gaur egun arrazoi bidezkoak eta neurri-neurrikoak badirudite ere, garai hartakoen artean hainbat polemika altxa zuten, aurrerago zehatzago aztertuko dugunez, euskara kultur mintzabide bilakatzeari buruz "poliki, ez jauzika" egin beharreko bidea ote zen eztabaidatu zuenean bezala.

Politikari dagokionez aldiz, bere gutun eta artikulu gehienek aditzera ematen dutenez, ez zuen Lizardiren jokabide abertzaleak etsimendurik onartzen, ahal zena egitearen aldekoa agertzen da — praktikoa beti— amets handietan eta urrutiko intzaurretan fidatu gabe.

Arestian aipaturiko Agirre anaien hitzei esker Lizardi "Comunión" zeritzan alderdiaren ordezkari izan zela dakigun era berean, hau da, ez zela jarrera erradikalenen aldekoa izan, era berean Aita Segundo Bilbaori bidaliriko gutunak ere, politika arloan jarrera parlamentarioa, Autonomi Estatutua lortzeko Espainiako Estatuko agintariekin itunak egitearen aldekoa azaltzen zaigu:

> "Entonces surgió el problema de si se debía ir o no en busca, no ya del mal menor, sino del BIEN MENOR (menor que el deseado) que la consecución del otro Estatuto, encajable dentro de la Constitución que no tenemos otro remedio que acatar precisamente porque en la politica formamos parte integrante del Estado que nos la ha impuesto" [95].

Lizardik berak hizki handiz idatziriko "BIEN MENOR" delako formulazio horretan agertzen da Lizardiren jarrera politikoa ez dela erradikala, eskura dauden bideak erabiliz jokatzearen aldekoa baizik. Horrek ez du itsu bilakatzen onartu duten bide horrek eskaintzen dituen aukera motel eta zailen aurrean. Errealismo honen frogatzat ikus daitezke Madrilera eginiko 1932ko bidaia batean, Madrileko Parlamentura eginiko bisitaldi batean ikusitakoaz egiten duen deskripzio zehatza.

> "Bata bestearen ondoz yaikitzen dira olako ta alako nork bere eskaria egiñaz. Lendakariak beti legun erantzuten die. Nik uste, eskari oien etorkizuna auntzaren gauerdiko eztula or nunbait ote diran, Bañia mintzalariak, bereak eta bost irauli ondoren, pozik exertzen dira, ta uts egin gabe, bereala atarira diyoaz, inguru-ibilaldietan barna zorionik ematen al-dieten" [96].

Lizardiren Legebiltzarraren deskribapena aski ironikoa da, baina mingostasunik gabea, umore finez egina. Bereziki nabarmentzekoa dirudi Madrileko Biltzar Nagusietan sumatzen duen betiereko joera zentralista, batez ere Ortega y Gassetek Kataluniako abertzaleei erantzunez ematen dizkien erantzunetan: "Erri aundien eta txikien abertzaletasuna ez omen dira gauza bera..." [97].

Abadal, LLigako ordezkariaren ahoan ezartzen du Lizardik euskal estatutuarekin gertatzen ari zen prozesuaren azalpena, Madrileko Gorteek oztopoak eta zailtasunak, aitzakiak asmatu baizik egiten ez zuen bitartean:

> "Orain zenbait urte, guk Lligakoak bakarrik, eskatzen gendunean gutxi giñala erantzuten zenuten; gu ez giñala Katalunya. Pixkanaka, ango alderdi guztiak abertzaletu dituzu, ta orain emen gaude guztiok, kataluñatar aldun oro bat-egiñik, leengoa bera eskatuz. Ori gutxi delarik erri-iritzia nai zenduten eta egin da: Katalunya osoak Estatuaren alde botatu du... Eta zuek, antziña bezala gu ez gerala Katalunya diozute: geienak ez daudela, Katalunyan ere gure alde. Zer bear duzute bada?... Zeok egindako Konstituzioa e-tzazute ukatu bai, ta aski dugu" [98].

Eskura zeuden aukerez baliatzearen aldeko zen aldi berean, garbi nabari zuen euskal abertzaletasunak Espainiako Estatu zentralistaren menpe egonik zituen bide parlamentario estuak, eta

---

95 Ikus "Lizardiren Eskutitzak" eranskina, 27. Dokumentua.

96 LIZARDI, X.; "Etxe-barne bizia. España-Legebiltzarra nere begipean" in *Argia*, 573, 1932-5-17, 9. or.; *K-L* 381-385. or.

97 *Ibidem.*, 382. or.

98 *Ibidem.*, 385. or.

jarrera horrek sortzen zuen egonezina eta desesperoa. Etsimendurako arrazoiak ugariak izan ziren garaian, Primo de Riveraren diktadurapean halako ekimenez saiatu zen era berean, Estatutua eskuratzeko Errepublikaren garaian bizi izan zen giro zurrunbilotsuan ere aurrera jotzera, eta bide batetik ezinezko zirudiena bestetik lortzen saiatzera eramaten zuen. Horra hor Lizardiren posibilismoa.

2.1.3. Lizardiren konpromezu politikoa eta literatura

Kazetari lanen artean gai politikoa darabiltenak bakanak direla esan liteke. Lehenengoak 1930eko azaroaren 16an *Euzkadi*n argitaratua, "Memoria y faro" deritzana, Sabino Aranaren heriotzaren urteurrenerako idatzirikoa da, eta haren biografia idaztearen premiaz dihardu nagusiki. Hurrengo urtean garai beretsuan eta zio bera dela eta, "Sabino poeta" artikulua idatzi zuen eta *Euzkadi*n argitaratu 1931ko azaroaren 25ean.

1932an aldiz, gora-behera politikoan, Estatutuaren atzera-aurretan Lizardik, duen kargua dela bide bizi duen giro irakinean idatzirikoak dira lehen Aberri Egunaren ospaketa dela eta idatziriko "Nuestra conversión", eta "Biztu da Josu, berak gaitza bizi" [99].

Gai politikoa dutenen artean aipa genitzake zalantzarik gabe, "Etxe barne bizia. España-Legebatzarrea nere begipean" deritzana [100], eta azkenik, Gasteizko Estatutuaren bozketen ondoren idatzi zuen "Gravísimo deber pro Nabarra y Araba" [101].

Artikulu horien artean bi dira Lizardiren zeregin politikoak eragiten zizkion sentimenduen eta berak zituen jarreren lekukorik garbienak; alde batetik *Aberri Eguna* deituriko argitaralpenerako idatzi zuen "Biztu da Josu, berak gaitza bizi" izenburu duenean, itxaropena, alaitasuna, agintarien lerroan dihoala eta herriaren apaltasunera berdindu nahirik bere burua, eta egun hori Jesusen Pizkundearen eguna ospatzen den egunean egiteak bat egiten dizkion sentimendu abertzaleak eta erlijiosoak dira nagusi.

Bigarrena aldiz, txanpon beraren beste aldea dela esan liteke, Aberri egunean (1932-5-2) Bilbon bizi izan zuen bozkariozko egun horren ondoren, 1932ko ekainaren 19an ospatu ziren bigarren estatutua onartzeko hauteskundeetan Nafarroan proiektuak onespenik ez lortzean, *El Día*n "Gravísimo deber pro Nabarra y Araba" deritzan artikulua argitaratu zuen .

Bigarren honetan aldiz, amorrazioa nabari da, hain zuzen ere erlijioa erabili izanagatik kausa abertzalearen aurkako tresnatzat:

> "Oiganlo muchos santos varones de sotana y cogulla; óiganlo ciertos grandes católicos y grandes vascos que al final han resultado —¡19 de julio!— no llegar ni a pequeños caballeros; óiganlo los pisímos varones de puño en pecho que tan a gusto aceptarían la legalidad nefanda anterior, y aún la ilegalidad aquella de Primo, en que la patria —la española— se exhibía a lomos de la religión; esos mismos que, con hipocresia indigna, rasgan sus blancas túnicas ante nosotros, porque hemos defendido —únicos que lo hayamos hecho con unanimidad y tesón— no ya un mal, sino un bien menor del apetecido, un estatuto perfectamente lícito, que ellos han hundido a golpes de crucifijo, con grave daño del Crucifijo, naturalmente" [102].

---

99 LIZARDI, X.; "Nuestra conversión" in *Euzkadi*, 1932-3-27, 1 or.; K-L 379-381. or. eta "Biztu da Josu, berak gaitza bizi" in *Aberri eguna 1931*, 1932-5-2; *K-L*, 386. or.

100 *Argia*, 573, 1932-5-17, 9. or.; *K-L* 381-385. or.

101 *Euzkadi*, 1932-7-21, 1. or., 387-390. or.

102 *Ibidem*, 388 or.

2.1.3.1. Konpromezu politikoa hartzea

Artikuluetan Lizardik berak "konbertsioa" izenaz deitu duen abertzaletze, edo euskal herriaren nortasun politikoaz eta nazio eskubideaz ohartze hori gaztetan gertatutzat ematen du, batxilergoa amaitzen ari zeneko garaietakoa. Zehatz-mehatz kontatzen du "Nuestra conversión" artikuluan, hau da, lehen Aberri Egunaren ospakuntzaren bezperetan argitaraturikoan, noren eraginez eta zein ondoriorekin abertzaletu zen [103].

"Nuestra conversión" artikuluan, aberriaren eta euskal hizkuntzaren garrantziaren kontzientzia bateratsu gertatuak direla aitortzea da aipagarrienik. Lizardik bata bestearen ondoriotzat ematen ditu, hau da Sabino Arana-Goiriren ideia politikoak ezagutzeak euskal hizkuntzaren garrantziaz ohartzera eraman zuela adierazten du garbiro.

Sabino Aranaren idealak bereganatzeak konpromezu politikora eraman zuen era berean, hizkuntzaz "jantzi" izanak aldiz, bestelako bideak ireki zizkion, euskarazko literatur espresioarenak alegia [104].

"Il-zaarki bizi dugun gizona!
Egunero berpiz lurrean dagona!
Bezat onets aren izena
aberri ta mintzoz gu yantziarena.

Aren argibidez ni yabetu
enegan bazala norbait atxilotu.
Ordun, yetxi nazu lezera;
Nork gere muiñean dugun itzalera.
(GM 9-16, 207)

*Gure mintzo*n Lizardik poesiak egiteko zaletasuna, "abesmiña" zuela aitortzen du, gazte-gaztetatik osaba "Garto"rekin partekatzen zuen olerki zaletasuna. Kanta nahi hori alferrikakoa zuen halere, mintzoa falta bait zuen, "oskai guri berexa" falta zuen. Ametsetan hitzegin nahi izaten denean eta ahaleginaren ahaleginez, azkenean egiten dugun marru zakarraz geure buruak izutzen ditugunean bezalako abotsa sortzen zitzaiola esaten du.

Beraz, Lizardiren konpromezu politikoak bere izate guztia konprometitzen duela esan liteke, euskal hizkuntzaz zuen premiaz oharterazi bait zuen eta mintzabide poetikotzat behar zuena hura bakarra zela kontura arazi.

Lizardiren ideia literarioen artean, euskara, mintzabide gisa, gune-guneko kokapena duela, euskal nortasunaren funtsezko eta mami-mamiko elementuzat jotzen duela ikus daiteke. Bereziki azpimarragarri da Lizardiren konpromezu politikoak bere izate eta ideologia osoa, mintzaira eta jarrera kulturalekiko kontzientzi-hartze orokorra eragin ziola. Kontzientzia hartze politikoa, Lizardiren kasuan, bere ikuspuntu pertsonal osoa eragingo duen konpromezua da, eta garrantzitsua da berez aktibitate alor ezberdinak diruditen arlo politikoa, kulturala eta literarioaren arteko harreman klabe hau azpimarratzea.

---

103 LIZARDI, X.; "Nuestra conversión" in *Euzkadi*, 1932-3-27, 1 or., *K-L* 379-381. or. Aitzolek hil-ondoko omenezko artikuluetan Lizardi hain gazte zelarik Gipuzkoako Buru Batzarreko idazkari hautatua izanak duen garrantzia azpimarratzen du, haren zintasunean alderdiak zuen konfidantza osoaren lekuko. Gutun pertsonaletan bere kargua zela eta zituen zereginak alde batetik, eta bestetik gero Lehendakaria izango zenarekin zituen gutun bidezko harreman adiskidetsuak Euskadiko politikaren arloan izan zuen goren mailako zereginak eta harremanak frogatzen dizkigute.

104 Artikulu horretan dioenaren beste isladapen bat da *Biotz-Begietan* Sabino Aranaren omenez eginiko *Gure mintzo* olerkia ere.

Aberriarekin eta euskal hizkuntzarekin zituen konpromezuak isladapen zuzena dute Lizardiren zenbait olerki eta idazkietan, baina olerkigintzak berak, literatura lantzen aritzeak helburu abertzalea ere bazuen, Lizardiren ustez. Literaturak herri zapalduen pizkundeetan zeregin garrantzitsua duen ustea Lizardirengan ez ezik, Aitzolengan —Orixerengan bakanago-, itsatsia aurkituko dugu, guda aurreko Pizkunde mogimenduaren gai ardatzetako bat da hau, zalantzarik gabe, eta zabalkiago aipatuko dugu "Aitzolen belaunaldia" izeneko 3.4. puntuan.

> "... el poeta es el hombre providencial en el resurgir y recobrarse de los pueblos. Es, de un modo especial, el taumaturgo de las lenguas populares, de los idiomas incultivados como el nuestro. La mano genial de Dante es la amasadora del italiano y a la garganta de un Mistral estaba reservado el hacer resonar el pobre provenzal hasta los confines del mundo" [105].

2.1.3.2. Konpromezu politikoaren eta literatur zereginaren arteko harremana

Lizardi euskal politikaren gora-beherekin erabat "konprometitua" zegoenez, ez dira falta izan haren figura politikoa eta literarioak ikuspuntu ideologikotik ikusi dituztenen iritzi kritikoak.

Euskal literaturari buruz berriki argitaratu den Jon Juaristiren *Literatura vasca* [106] liburuan, Lizardirengan biltzen ziren tankera ezberdineko interesen artean beharrezkoa dirudien koherentzia hori interpretatzerakoan, oinarri dokumentalik ez duten baieztapenak egiteraino iritxi da.

> "Lizardi (1896-1933), guipuzcoano como Jauregui, era ya una personalidad destacada del Partido Nacionalista Vasco del que llegaría a ser secretario provincial en Guipúzcoa. No es de estrañar, por tanto, que se le considerase —y que él mismo lo creyera así— un poeta "orgánico" de su partido. Pero la poesía de Lizardi no tiene una conexión directa con la política. Por el contrario: salvo un poema dedicado a la memoria de Arana Goiri, su obra se caracteriza por un grado de intimismo lírico pocas veces alcanzado por los autores anteriores" [107].

Jon Juaristik Lizardi "poeta organikotzat" jotzen zen ustea hedatua zegoela esaten badu ere, ez dut uste horren lekukotzarik badenik. Gisa berean, txundigarria da berak ere bere burua halakotzat jotzen zuela entzutea.

Lizardiren zeregin literarioak eta politikoak duten lotura mundu ikuskera berberaren adierazgarri izatearen aldetikoa da. Zerikusi zuzena dute. Helburu politikoak eta euskaldunona bezalako nazionalitate ukatuaren hizkuntzan literatura egiteak konpromezuzko jarrerara eraman zuen. Hori onartzeak ez dakar ordea, berarekin alderdiaren poeta organikoa zenik, alderdiak propaganda egiteko edo bere helburuak hitz ederrez adieraziko zituen bozeramaile bilakatzen.

Ez zela hala izan frogatzen dute alderdiko talde aranazale fidelenekin izandako eztabaida eta tirabira ugariek, eta horren froga garbiak dira, esaterako, hizkuntz ereduaren alorrean alderdiaren korronte ofizialarekin izan zituen tirabirak. "Kirikiño saria" irasterakoan, adibidez, eskola aranazalearen sabotaia zela eta, izan zituen zailtasunak, horren lekuko dira.

Ez dut garaiko egunkarietan, aldizkarietan, gutun pertsonaletan, ez garaikide izan zituen pertsonekiko elkarrizketetan inoiz aipaturik edo iradokirik ikusi Lizardi alderdiaren poeta organikotzat jotzen zenik. Lizardi ez bait zen olerkari izateagatik famatua, egunkarietan idatzitako hainbat eta hainbat propagandazko artikulurengatik baizik. Propagandista eta "agitador en el mejor sentido de la palabra" gisa bait zen ezaguna garaikoen artean [108].

---

105 LIZARDI, X.; "El poeta" in *El Día*, 1930-6-5, 2 or.; *K-L* 305. or.

106 JUARISTI, J.; *Literatura vasca*, Taurus, Madrid, 1987. (68) *Ibidem*, 96-97 or.

107 *Ibidem*, 96-97 or.

108 Ikus I. Parte honetako 2.3.2.1. "Euskara kultur mintzabide" izenburua duen puntua.

Lizardiren konpromezu politikoa eta zeregin literarioaren gaiari buruz, hura hil ondoren, guda osteko literaturgile eta literaturzale abertzale eta jelkideen artean Lizardik izandako aureolak itsuturik aierutan ibiltzea da honelako iritziak jaulkitzea. Nik aztertu ahal izan dudan heinean behintzat, garaiko lekukotzek gezurtatu egiten dute hori horrela zenik.

Lizardi olerkari onartu eta gurtua zenik, eta garaiko hoberenatzat zutenik guztiz zalantzagarri da. Oso eztabaidatua bait zen. Bere taldekoen artean, Eusko Ikaskuntzakoen eta Euskaltzaleen partaideen artean ere bai, zuen nortasun polemiko nabariak hainbat liskar eta gora-behera erakarri zizkiola frogatua bait dago.

Azkenik, berriz, euskal idazleen prestigioa eta itzala ez zen politika mailan erabiltzeko alderdien propaganda indartzat sumatzen, gaur egun ikusten dugun zentzuan ez, behintzat [109].

Lizardiri ez ezik, Jon Juaristik Euskaltzaleak talde osoari hedatzen dio funts gabeko aieru hau, militantzia abertzalearen puntu hau. Antza denez, Lauaxetaren lehen liburuko amaierako oharra du froga bakarra:

> "En primer lugar, como ya he dicho, los poetas vinculados de algún modo a "Euskaltzaleak" se consideraban, ante todo, militantes nacionalistas. Es significativa, por ejemplo, la declaración que el poeta vizcaíno Esteban de Urquiaga ("Lauaxeta") pone al final de su primer libro, publicado en 1931, "Bide barrijak" (Nuevos caminos):
>
> Olerkarija barik jeltzale benetakua nazala entzutiak atseginduko nau. Euskeraz idazten dot, Aberrijaren izkuntza dalako. Soluan atxurretan aberrija goralduko nebala, uste ba'neu, laster itxiko neuke lan au" [110].

Jon Juaristiren bigarren aipamen hau lehenengoa argitzera bezala dator. Hau da, hain zuzen ere, Lizardiri hedatu dion Lauaxetaren aitorpen pertsonalaren mamia eta bere iritziaren jatorria, nonbait. Jon Juaristik dioenaz bestera, ez Eusko Ikaskuntzak, ez Euskaltzaleak erakundeek ez zuten bere burua abertzaletzat aitortzen. Espreski adierazia geratu zen haien estatutuetan zeregin politikoetarako sortuak ez zirela, eta bereziki politikotzat jotzen ziren aktibitateetarako baimena eskatu beharra zegoen [111].

Bestalde, idazleak susper arazteko asmoz, Lizardik bere garaiko idazleen lanei buruz diharduelarik [112], argi eta garbi nabari da haien jatorria ez dela abertzaleen artekoa soilik. Garrantzitsuenera joaz, ordea, ez Aitzol, eta ez Orixe, esate baterako, Euskaltzaleak erakundearen puntakoak ziren partaideak inor izatekotan, ez ziren inongo militantzia abertzalearen menpe kokatzen. Honen frogak ugariak bezain ezagunak dira. Horregatik, ez da komeni garaiko euskaltzaletasuna, ideia abertzaleak eta Eusko Alderdi Jeltzalearen militantzia besterik gabe identifikatzea, ondorio okerretara eraman gaitzake eta.

Jon Juaristik aipatu duen Lauaxetaren aitormen horri dagokionez, aldiz, Lauaxetak esaten duenaren azpian beste zerbait adierazi nahi zuela iruditu zitzaion Lizardiri bere garaian. Liburua argitaratu zenean, eta Lauaxetaren egiazko sentimenduei buruz ezer frogatzerik ez badago ere, Lizardi zuzen zebilen susmoak ez dira falta.

---

109 Orixek kontatzen duenez, Engrazio Aranzadi "Kizkitza" harritu egiten zen Lizardi hain zentzuduna izanik olerkari izateaz (Ikus "Lizardiren azken olerkiak" in *Yakintza*, VI, 1933, 405-415. or.) Herrien Pizkundeetan olerkariaren zereginaz goi mailako balorapena egiten zuen bakarra Lizardi bera zen, eta zentzu restriktibo batean, Aitzol ere bai. Ikus I. atal honetan 3.4. puntua "Aitzolen belaunaldia" eta II partean, 2. puntua: Literaturaren funtzioa.

110 JUARISTI, J.; Op. cit., 98 or.

111 Lizardiren azken eskuhartze Eusko Ikaskuntzaren biltzarrean 1932-12-20ko azken bileran argigarri da (in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 57., 1933, 8-9. or.) Eusko Ikaskuntzak jardun politikoarekiko zuen jokamoldea azaltzen da: ahalik eta hobekien bereizi nahi dira iharduera politikoa eta kulturala, batean eta bestean diharduten eragileak ideia eta pertsona berberak izan arren.

112 LIZARDI, X.; "Baratza azi bearra" in *Euzkadi*, 1929-3-13, 5 or.; *K-L* 209-211. or.

Tesi lan honen bigarren zatian, Lizardiren poetikari buruzko oinarrizko kontzeptuei buruz diharduguneau zehatzago azalduko den arren [113], aurrera dezagun oraingo egokiera hau dela eta, Lizardik baduela susmoa Lauaxetak aitorpen edo aldarrikapen horren azpian ezkutatu duena bere buruari "olerkari" izena gehiegizkoa iritzita, bere burua gerizatu nahiez idatziriko oharra ez ote den. Besteei haundi-maundiarena egiten saiatzen ari den susmoa sortuko zaien beldurrez edo. Lizardiren ustez, mende hasierako euskal gizarteak ez bait du olerkariaren eta, orokorki, idazlearen zeregina aintzakotzat hartzen.

Lauaxeta, gazteegia, berria da euskal letren munduan 1931ean liburu hau argitaratzean, 1930ean Errenteriako Olerti Eguneko lehen saria jaso zuenean bezalako erasoak jasoko dituen susmoz, abertzale gisa euskararen alde egindako edozerengatik estimagarritzat joko dutelakoan, aitzakia hori eranstea otu zaio. Baita Lizardik egoki igarri ere, mundu literario autonomorik, hau da, literatur egitura burujaberik ez dagoen euskal giroan bere burua nonbait gerizatu beharraren beharrez abertzaletasunaren txapelapean izkutatzera eraman zuela.

Beraz, ene ustez, Juaristik aipatzen duen Lauaxetaren baieztapen honek ere bere ingurumari testualean ezarritakoan guztiz bestelako zentzua hartzen du. Izan ere, Orixek [114] esaten duenez, Sabino Aranaren ideia politikoek eragindako mogimenduak euskal hizkuntzaren eta literaturaren ingurura erakarririkoak ugari izan ziren.

Bi idazleok ideia politikoek eraginik hurbildu ziren euskal hizkuntzara eta ideia horien eraginez ekin zioten eginahalean euskaraz idazteari. Ez da harritzekoa, bada, idazleok berok beren zeregin politiko, soziolinguistiko eta literarioen arteko harremana aitortzea.

Aitormen horrek hizkuntzaren egoeraz eta hizkuntza horren galera bideaz oharturik idaztera eraman zituen; alde horretatik, zeukaten formazio abertzaleak eta garaiko informazio soziolinguistikoak, Etxahun edo Bilintx edo Oihenarte baino konszienteago bilakatu zituen, eta idazle gisa zuten arduraren jakile, agian, pentsatu ohi dena baino konszientzia larriagoaz.

Bakoitzak bere erara bete zuen hizkuntzaren eta herriaren zortearekiko hartutako konpromezu sendoa, horrek militantzia abertzalearen barruan besterik gabeko itzala eta ospea erakarri ez bazien ere, Eusko Ikaskuntzaren bitartez Lizardik garaturiko ekintza kulturalaren bilakaerari buruzko atalean ikusiko dugunez [115].

2.2. EUSKO IKASKUNTZA: LIZARDIREN EKINTZA KULTURALAREN ESPARRU ZABALA

2.2.1. Eusko Ikaskuntza Euskal Pizkundearen testuinguruan

Ingurumari kulturalaz hitzegiterakoan, Lizardik ezagutu zuen Pizkunde mogimenduak izan zuen jatorria eta bilakaera ongi zedarritzeak garrantzi berezia du, Lizardiren ekintza, politikoaz eta literarioaz gain, kultura mailakoa ere izan bait zen, hiruen arteko barne koherentzia handiaz jokatu zuelarik. Euskal Herriaren etorkizun politikoarekiko eta kultualarekiko konpromezuak jokamolde literarioaren moldakuntzan eragin erabakigarria izan zuten, bigarren atalean frogatuko dugunez.

---

113 II. partean, ideia poetikoen azalpenari eskainirikoan, gizarteak idazleaz duen irudiaz diharduen 2. puntuan.

114 " Mintza gaitezen bizkor: dezagun bekoki. Azkueren Iztegi aundia sortu ez balitza, oraingo euskera bizte onek bazuken zulorik aski. Ala ere, liburu eder bat ziteken ori, balinba liburutegian alper egon bearra, erri-esnatze edo politika-daldara gerta ezpalitza. Geroz, irugarren biribilkia Arana Goiri'rena bedi..." ORIXE; "Euskal literaturaren atze edo edesti laburra" in *Euskal Esnalea,* XVII, 1927, 246-252 or.

115 Ikus I. partea, 2.2. puntua "Eusko Ikaskuntza: Lizardiren ekintza kulturalaren esparru zabala".

Horregatik luzatuko dugu ekintza kulturalaren alorrean Lizardik eginiko bidea, literatur zeregina ere ikuspegi beraren zatitzat jotzen bait zuen berak.

Euskal Pizkundea deituraz ezagutzen den mogimendua, berez, XIX. mendearen azken zatira arte atzeratu beharra dago, bere fruiturik gailenenak 1925-1936 bitartean eman bazituen ere.

2.2.1.1. Pizkunde mogimenduaren sorrera

Esan daiteke Pizkunde mugimenduak bi jatorri ezberdin dituela, lehenengoa, XIX. mendearen azken zatian Euskal Herriko lau hiriburuetan sortu ziren erakunde euskaltzaleetatik eraginikoa eta bereziki euskal arloko ikerketak, idazlanak, literatur lanak, folklore bildumak argitaratzen ahalegindu ziren aldizkari kulturalen mogimendua. Erakunde euskaltzale eta haren mintzabide zen aldizkariaren bitartez burutu zuen Lizardik bere ekintza kulturaletako batzuk, Eusko Ikaskuntza eta *Eusko Ikaskuntzaren Deia* aldizkaria dugu hango ekintzen lekukotza ematen diguna.

Pizkunde mogimenduaren esparruan aipagarritzat jo genitzakeen aldizkari kultural horien artean garrantzi berezia izan zuen Jose Manterolak 1880an sortu *Euskalerria* aldizkaria. Era berean, aipagarria da Julio de Urkixok 1907tik 1936ra arte argitaratu zuen *Revista Internacional de Estudios Vascos* delakoa, batez ere arlo zientifikoan egiten ari ziren ikerketak ezagutzera eman zituena eta euskal estudioei goi maila kritikoa eta zientifikoa eman ziena.

Bi aldizkari nagusi horien aldean Gipuzkoan Gregorio Mujikak suztaturiko beste bi aldizkari aipatu behar dira garai hartako ihardun literarioaren mintzabide izan zirelako. Alde batetik, *Euskal Esnalea* deiturikoa 1908tik 1931 arte argitaratu zena, eta bestetik, *Euskalerriaren alde* deiturikoa 1911tik 1931 arte.

Biak ere literaturaren arloan, une horretan argitaratu ziren euskaraz idatziriko liburu eskasiari irtenbide bat eman zioten hainbat idazleri lan solteak argitaratzeko aukera eskainiz.

Aldizkarien mugimendua deitu denaz gain, Pizkundeak duen bigarren jatorria inguru politikoa kutsatu zuen Sabino Arana Goirik sorturik *mogimendu abertzalea* da.

Sabino Arana Goirik osaturiko ideologiak bateratu egin zituen proiektu politikoa eta kulturala, euskara bilakatuz kultur berpizkunde horren ardatz nagusi.

Guztiz ezaguna da Sabino Aranak idazlan polikoez gain euskararen arloan ere eragin erabakigarria izan zuela alde batetik bere jokabide lexikoak zirela medio, eta bestetik berak sorturiko alderdi politikoaren bitartez bere bazkideei harrerazi zizkien hainbat jokabide linguistikorengatik: ortografia, pertsona deiturak, e.a.

Sabino Aranaren "eskolako" jarraitzaileek sorturiko argitalpenen artean hiru aipa genitzake garrantzitsuentzat. Aintzinakoena *Euzkadi* aldizkaria dugu, Luis Eleizaldek sorturikoa, bigarrena izen bereko egunkari abertzalea izango litzateke, mende hasieratik guda hasi arte iraun zuena, eta bere barne orrietan euskarari orri bat edo beste eskaini ziona.

Hirugarrenik, *Euzkerea* aldizkaria aipatu behar da 1929tik 1935a arte argitaratu zuen Bilboko "Pizkundia" elkarteak, helburu kultural eta abertzale nabariak zituena eta eskola aranazalearen argitalpenik zainduenatzat aipa liteke.

Orain arte aipaturiko aldizkari guzti hauez gain, ordena erlijiosoek argitaratzen zituzten beste zenbait aldizkari aipa litezke, hala nola *Zeruko Argia* (kaputxinoena), *Jesusen Biotzaren Deya* (Josu Lagundiarena), e.a. Azkenik, aipa ditzagun behar bada herri xehearentzat ezagunenak izan ziren *Argia* astekari gipuzkoarra eta *Ekin* astekari bizkaitarra.

Aipaturiko aldizkari, astekari eta egunkari hauez gain, beste zenbait elkarte eta erakundek argitaraturiko aldizkaritxoak zerrendan aipatzeari ekin gabe, Bilboko "Euskaltzale Bazkunak", Sabinoren eskolakoek argitaratzen zuten *Euzko-Deya* aldizkaria bereziki aipagarria da Lizardik, artean ezizen hori erabiltzen ez zuelarik, bere lehenengo idazlanak bertan argitaratu zituelako.

1917tik 1921a arte argitaratu zen aldizkari honetan eman zituen ezagutzera Jose Maria Agirrek bere lehen olerkiak.

2.2.1.2. Eusko Ikaskuntza Pizkundearen pespektiban

1918an koka daiteke euskal kulturaren Pizkunde mogimenduaren mugarririk nagusienetako bat. Urte horretan ospatu zuen Eusko Ikaskuntza erakunde sortu berriak bere lehen Kongresua Oñatin. Eusko Ikaskuntzak bildu zituen euskal kultur gizonen jakintza maila eta ospeari esker, eragin erabakigarria izan zuen gerrararte iraun zuen euskal kultur mugimenduareen barruan.

Oñatiko Batzarrean Eusko Ikaskuntzak euskal hizkuntzaren arloan harturiko erabakirik garrantzitsuena Euskaltzaindia, euskal hizkuntzaren akademia sortzea izan zen, lau Aldundien laguntzaz. Erakundetze hauekin batera bi aldizkari berri sortu ziren horietako bakoitzaren mintzabide izateko. Alde batetik, *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, eta bestetik, Euskaltzaindiaren *Euskera* aldizkaria, 1920tik aurrera guda bitartean argitaratu zena.

Esan dugunez, aztertzen dihardugun epe honetan dagoen aldizkari ugaritasunaren testuinguruan Lizardik bereziki aranazalea den *Euzko Deya* aldizkarian egin zituen bere lehen argitalpenak 1917tik 1921a bitartean, eskola aranazalearen eragina guztiz nabaria delarik bere idazlanetan: ortografian, lexikoan, nahiz abertzaletasunari buruzko kontzepzioetan: Lino Akesolok *Karmel* aldizkarian 1987an epe horretako olerki guztiak berrargitaratzean esan zuenez, Bilboko Euzkeltzale Bazkunak argitaratzen zuen aldizkari hau oso osorik euskaraz, eta beste zenbaiten artean Kirikiño, Eleizalde, Aizkibel'dar Bingen, Arrugain, Elzo-Azpiazu, Sagarzazu, Tene, Larreko, Zinkunegi eta Domingo Arruti "Mendi-Lauta"ren izenpeak ikus daitezke bertan 1916tik 1923 bitartean [116].

1921etik 1926ra arte Lizardiren idazlanak ez ziren inon argitaratu; urte horietako data duten poemak, edo gorderik geratu ziren argitaratzeke, edo 1927tik aurrera eman ziren ezagutzera *Euzkadi* egunkarian, *Yakintza* aldizkarian, *Argia* astekarian eta *El Día* egunkarian.

2.2.2. Lizardi Eusko Ikaskuntzaren bazkide

1928tik aurrera Lizardi Eusko Ikaskuntzaren elkartean bazkide gisa izendatua agertzen da, hain zuzen ere Eusko Ikaskuntzaren Deia aldizkariak bere 37. zenbakian "socio de número"tzat aipatzen du Jose María Agirre 2020 zenbakiaz, eta aldizkariaren zenbaki horretan bertan Etarbek idatziriko artikulu batean Lizardiren izena agertzen da "uda ikasaldiak" direlako ikastaroetan parte hartzaile gisa:

> "Norbaitek esan zuen Eusko Ikaskuntza zala alkartasun orri suemateko egikari bikaiñena. Eta Eusko Ikaskuntzari gipuzkoar euskeltzale gazte eta zintzo Agirre, Artzeluz eta Bengoa jaunak aztertu dituzte batasuna iritxitzeko arau batzuk. Ez utzik. Eusko Ikaskuntzak ez esan nai erakuste ori ondo dagoen ala ez. Euskaltzaleak berak esan bearko dute au; eta orretarako euskal bazkunai eta euskera maite dutenai deitzen zaiote jun ditezela datorren uztaillan Donostira eta an, guztien artean, aukeratuko da euskeraren alde biderik onena" [117].

Jose María Agirreren izena sartua agertzen den gipuzkoar euskaltzale talde horren helburua batasuna deituraz aipatzen den hori "Eusko Elazkona" deituriko elkarte bat sortzeko proposamenaz aurkeztu zitzaion Eusko Ikaskuntzari; hain zuzen ere, euskaraz une horretan argitaratzen ziren

---

116 Ziurrenik, "Mendi-Lauta", Domingo Arruti adiskidea, izan zen Lizardi *Euzko Deya* aldizkarira erakarri zuena. Hari zuzenduriko oharrak eta olerkiak daude *Euzko Deya*n argitaraturikoen artean. Bestalde, Eli Gallastegik "Comunión" eta "Aberri"koen arteko bateratzeko elkarrizketetan aipatzen diren Gipuzkoako bi ordezkariak Lizardi eta "Mendi-Lauta" izan ziren, hain zuzen ere.

117 ETARBE; "Uda ikasaldiak" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 37, 1928, 11. or.

aldizkari, elkarte nahiz bazkunen artean koordinakundea eta batasuna lortu asmoz. Ikus bedi, esate baterako, 1928ko *Eusko Ikaskuntzaren Deia*ren 39. zenbakian Luzear idazleak argitaraturiko batasuna artikuluan nola azaltzen den delako "Eusko Elazkona" elkartearen nondik norakoa:

> "Arrasateko Euskal Egun ondoren, "Eusko Elazkona" izenarekin elkarte bat eratu nairik genbiltzala, sekulako iskanbilla sortu zan euskeltzale artean. Gure asmoak baño aurreragokorik bazegola zion batek, gure eskutan asmoak beti asmo izango zirala besteak, olloak, arrautzak, ni lenago nauk, ¿i noiztik norakoa aiz ba?, naste ikaragarria itz batean.Esan bearren bearrez, norbaitek indar zatitzera, euskaltzaleak banatzera gentozela ere esan zigun ordea, ta onetxek miñik aundiena eman zigun. ¿Eusko aldizkingi, eusko paper guziak indartzeko elkarte bat egitea, indar sakabantzera nola etorri zitekeen?
>
> Ulerkaitza zitzaigun arren, gure batasun zaletasuna kezkapian gelditu etzedin, ben benetan guziok bat egingo ginduan era eskeñi genion Eusko Ikaskuntzari, Agirre, Bengoa ta beste batek landutako bide garbi bat irikiaz" [118].

Eusko Ikaskuntzari proposamen hori, "Euskeraren aldezko bazkunen batasuna" [119], proposamenaren egileetako bat izan zen Artzeluz jaunak azaldurik ikusi dugu aurreko aipamen horretan. Lizardik berak ere aipatzen du gora-behera hori "Aitaren erreal bikoak" artikuluan, batez ere Eusko Ikaskuntzari egindako proposamen hark nolako bilakabidea izan zuen ezagutzen laguntzen diguna:

> "Eztabai alperra sortu omen det. Txarki egin omen det horrela gogoak naastea, asti orrela galtzea ta galdu-eraztea. Irri det ezpañetan. Orain irutsu urte orrelakoxeak entzun bear izan genitun. Bai besterik geiago ere: obe gendukela, alegia, gutxiago karraxi ta geixeago lan. ¿Ta badakizute zer gertatu zan?... Eztabaikariok geren asmoetaz elkar-kutsatuz, ixtillu artatik gaurko "Euskaltzaleak" sortzea, aurreragoko "Eusko Elazkona" zalakoa eraberritu ta zabalagotuz" [120].

Beraz, Lizardik Euskaltzaleak erakundearen sorreran izandako zerikusia agertzen digularik, ager dezagun, Eusko Ikaskuntza erakundearen barruan Lizardik buruturiko zereginen berri. Guzien artean hiru dira nagusiki *Eusko Ikaskuntzaren Deia* aldizkarian jasotzen direnak eta *Xabier Lizardiren Kazetari-lanak* deituriko bilduman sailik ugarienak osatu dituzten Lizardiren artikuluen gaiak: Euskal eskolak, Kirikiño Saria eta, hirugarrenik, Euskal Egunerokoaren proiektua.

2.2.3. Lizardiren ekintza kulturalaren bilakaera

Egunkarietan Lizardik idatziriko 1927-1930 arteko artikuluetan isladatzen da Eusko Ikaskuntzaren bitartez bultzaturiko "Eusko Elazkona" elkartearen proiektua. Azkenean "Euskaltzaleak" izena hartuko zuenaren sorreraz geroztik, 1928an Euskaltzaleaken buru izendatu zuten eta 1930ean haren estatutuak eta egitura berritu ondoren, Urretaren eskuetan utzi zuen erakundearen zuzendaritza. 1930-36 arteko epean Aitzolen gidaritzapean ihardun zuen. Erakunde honen bilakaeraren baitan Lizardik buruturiko gidaritza hiru ataletan bereiz genezake, harturiko asmo nagusiaren arabera.

2.2.3.1. Lehen epea: Euskal Eskolak

1927tik 1928ko lehen erdialdea hartzen duen lehen epe honetan Lizardik euskal eskolak suztatzea eta haurrek eskoletan euskarazko eskolak izan ditzaten lortzea ditu helburutzat hartuak. Epe honen

---

118 LIZARDI, X.; "Aitaren erreal bikoak" in *El Día*, 1930-11-12, 12. or.; *K-L* 288. or.

119 ARZELUS, A., "LUZEAR"; "Batasuna" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 39., 1928, 12. or.

120 LIZARDI, X.; "Aitaren erreal bikoak", K-L 289 or.

erakusgarririk hoberena "La moda del euskera" [121] izeneko artikulua da. Artikulu honetan hurrengo urtean antolatu nahi duen "Aurren Egunerako" giroa berotzeko ekintza kanpaina baten egitasmoa azaldu zuen: "una explosión de actividad" izango dena eragin nahi du.

Proposamen konkretoak egiten ditu: festa bera antolatu behar da, helduentzako alfabetzate eskolak antolatu, herrietan apaizen eskutik haurrentzako dotrina eta irakurraldiak, egunkarietan propaganda saio gogorra jo giroa berotzeko, pertsona nahiz komertzioetarako "insignia confesional" delakoa, hots, euskaraz badakitela adierazten duen ikurrak erabaki eta banatu, probintzian zehar Egunak edo Jai-egunak antolatu hiri nagusietan, urtero batean, antzerki muntaiak prestatu herriz-herri ibiltzeko... Guzti hori berez badiren baina koordinakuntzarik gabe diharduten taldeak "Eusko Elazkona", gero "Euskaltzaleak" izango zen erakundearen bidez jarri nahi ditu elkar-lanean.

Ezagunak zaizkigu proposamen hauetako gehienak, eta gauzatu ere gauzatu zirela, Lizardik dioen moduan, "aprovechando el ambiente de serenidad política".

1927an *Euzkadi* egunkarian argitaratu zituen euskararen aldeko ekintza kanpainaren barruko hamar artikulu [122]. Lizardiren lehen artikuluak euskal eskola sortzeko premiaz ohartaraztera zuzendurik daude:

1.– "De acción vasca. Unificación de esfuerzos" in *Euzkadi*, 1927-10-9, 1-2 or.

2.– "De acción vasca. El euskera y el niño euskaldun" in *Euzkadi*, 1927-10-14, 1. or.

3.– "De acción vasca" in *Euzkadi*, 1927-10-14, 1-2 or.

4.– "Euskera aldezko asmoak dirala ta" in *Euzkadi*, 1927-10-18, 5 or.

5.– "Insistiendo" in *Euzkadi*, 1927-10-21, 1 or.

6.– "Euskera aldezko asmoak dirala ta" in *Euzkadi*, 1927-10-22, 1-2 or.

7.– "La escuela vasca de Tolosa" in *Euzkadi*, 1927-10-22, 1-2 or.

8.– "La moda del euskera" in *Euzkadi*, 1927-10-26, 1 or.

9.– "Parte de situación" in *Euzkadi*, 1927-11-1, 1 or.

10.– "Euskeraren aldez" in *Euzkadi*, 1928-1-20, 5 or.

2.2.3.2. Bigarren epea: Idazleen epea

Lizardik funtsean Zumarragako bileran, 1928an helburutzat hartu diren egitasmoak gauzatzeari ekin zion. Euskaltzaleak erakundearen arduradun hautatu zuten eta bere asmo kutunenetako bat gauzatzeko aukera ikusten du. Zumarraga egin zen Euskaltzaleen bileran "Euskel-Idazle-Batza" sortzeko proposamena luzatu zuen, eta idazleentzako egitura literarioa sortzeko egitasmoak aurkeztu.

Lizardirentzat Pizkunde mogimenduaren eragileen artean lehen lerroa idazleek osatzen dute, baina, bere ustez, idazleek irakurlego eskasa, harrera hotza izateaz gain, bestelako zailtasunak ere badituzte. Azpiegitura literarioa falta dute: sariketa ugariak, argitaletxe merkeak, kritika literario positiboa eta gidaritza, itzulpenak eta horiek egin ahal izateko gramatikak eta hiztegiak, ortografia erabakiak finkatzeke ditu Euskaltzaindiak...

Horretaz gain, Lizardiren ustez, idazleak ez du garaiko gizartean behar adinako estimaziorik aurkitzen: "Un héroe mal estimado" da [123]. Irakurlegoa hotza da, baina idazleak, animoak emango

---

121 LIZARDI, X.; "La moda del euskera" in *Euzkadi*, 1927-10-26, 1. or.; *K-L* 63-66. or.

122 AITZOL; "El poeta Jose María de Agirre" in *Yakintza*, III., 1933, 163-177 or. Aitzolek aipatzen dituen 10 artikuluak dira, *Xabier Lizardiren Kazetari-lanak* bilduman zortzi bakarrik argitaratu ziren.
"Entonces salió al campo de acción Jose María de Agirre usando, por primera vez, su seudónimo de Xabier de Lizardi. El mes de octubre inició una campaña de prensa en euskera y en erdera, sobre acción euskerista, que explanó en diez artículos" (166. or.)

dionik, estimatuko duenik ez du. Beharrezkoa da arazo horri ekitea, idazleek ez badute hizkuntza lantzen eta kultur maila, literatur maila, ez bada altxatzen ez bait da lortuko hizkuntza prestigiatzea, eta ondorioz, ez du etorkizunik izango mundu modernoan.

Beraz, idazleen zeregina argituz, herrien pizkunde mogimenduetan duten lehen mailako garrantzia azpimarratzera zuzenduriko artikuluetan, behin eta berriro insistituko du hizkuntza prestigiatzeko zereginean giltzarri direla.

Sariketak, prestigio handiko sari bat eratzea da Lizardiren asmoa eta "Kirikiño" saria irastearen aldeko artikuluetan asmo nagusia idazleak suztatzea eta euren artikuluek egunkarietan gero eta leku hobeak lor ditzaten lortzea du helburutzat: "es hora de que el euskera deje de ser el paria de las columnas" [124].

2.2.3.3. Hirugarren epea: Irakurleak

Hirugarren epean asmo nagusitzat hartu zuen egitasmoa ere idazleei egitura literarioa, beren lanak non argitaratua emateko asmoz asmaturikoa da, aldi berean, irakurlegoa ugaltzeko asmoa ere garrantzitsua delarik.

Idazleek mintzabidea, eta bizibidea, trebalekua izan zezaten sortu nahi izan zuen egunkaria, baina irakurlegoa eguneroko berriak euskaraz jasoaz euskaraz irakurtzera ohituko delakoan ari da. Honela aurreko epean helburutzat zituen idazleei mintzatokia emateaz gain, irakurlegoa, hots, Aitzolen egitasmo guztien azken helburua den irakurlegoa prestatu eta ugaltzeko zereginari heltzen dio Lizardik hirugarren epe honetan.

1927an euskal eskolen aldeko apostua egin zuenean Euskaltzaleek egunkariaren egitasmoa lehendik ere bazutela gogoan du Lizardik. 1929an euskal eskoletan euskaraz ezer irakasteko baimenik lortu ez denez, bide horrekiko etsia hartu beharra du eta egunkariarenari ekingo dio.

"Euskal egunerokoa" deritzan hitzaldian egiten du 1927ko eztabaida haren aipamenik eta hurrengo urtean Ikastolaren gaiaz etsiturik, zergatik jo duen egunkariarena suztatzera azaldu ere bai:

> "Aurrean zauzkaten eusko jator oiek arritu-samarturik zakuzkit (sic) neri begira, kolkorako diozutela: —arraio ere ba— gizaseme lasai samarra diagu. Or aritu uan, orain bi urte jo eta keak atereaz, iñoizko "Elazkona" gaixo ari kaikua bete ozpiñ irentsi-erazi nairik. Eta orain berriz, egunkariaren alde, alajainkia! ... kristau orrek alkandora maiz-samar aldatzen ote-duan esango nikek (...), baiña ez atzo jaunak, izparringian aurka, ez gaur ikastola-arloa azturik ez gaude, garai artako lagunak. Leen eta orain, atzo eta gaur, gure euskera zorigabeak laguntza aundia, ta alde askotatiko laguntza bear duala uste dugu. Ta ez dala erraz, alegia, lan ortarako urri baigera nondik marra asi bearra sumatzen.
>
> Euskera goserik dugu ta, orren bazkatze ta suspertzeko zenbait opil gozo eman-bearrik gatzaio. Baña ¿zein opil leenen? ... Nere ustez, lenbizi erre ditekena. Ta egunkari opilla erregaitza delarik, alegia, eztakit gaur-egunean ez ote den zallagoa ikastolarena.
>
> Adibidez, badakizute guztiok, Tolosa'n euskel-ikastola polit bat degula, aspaldiko urteotan. Baña, oraingo aldian, gorriak ikusi bear: ia euskeraren izpirik bertan ezin irakasteraño beartu gaitue.
>
> Errenderiarrak ere, oraindik orain berriro eskatu dute ikastola zabaltzeko baimena, artarako, —gure aolkuz, "Euskaltzaleak"-en aolkuz— ia euskal-usairik geiena kentzen ziotelarik. Baña..., ezta izan baimenik" [125].

---

123 LIZARDI, X.; "Un héroe mal estimado" in *Euzkadi*, 1928-7-27, 1. or.; *K-L* 122-124. or.

124 LIZARDI, X.; "El escritor euskérico" in *Euzkadi*, 1928-10-11, 1. or.; *K-L* 136-138. or.

125 LIZARDI; "Euskal egunerokoa" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 42, 1929-6-27; *K-L* 181. or.

Aitzolek [126] gogoratzen duen bezala, Lizardik egunkaria sortzeko asmo hori azterketa zehatzez borobildu zuen, artikuluak argitaratu eta hitzaldiak eman zituen giroa berotzeko, egunkaria argitaratzeko beharrezkoak ziren aurrekontuak ezagutzera eman eta inkesta moduko bat antolatu jendearen iritzia ezagutzeko; lankide izan zitezkeenak bildu zituen, eta azkenik, 1929ko Eusko Ikaskuntzaren udako ikastaroetan aurkeztu zuen proiektu osoa bi hitzaldiren bidez.

*Eusko Ikaskuntzaren Deia*k 1929ko uda ikastaroez egin zuen kronikan jasotzen du Lizardiren egunkariaren proiektu hori:

> "Las dos sesiones de conversación en euskera acerca de la labor realizable por la Federación de Acción Popular Euskerista Euskatzaleak, estaban a cargo de Jabier de Lizardi y fueron exclusivamente dedicadas a tratar de la fundación de un diario euskérico. En la primera de ellas fue leído su trabajo que publicamos como primer original euskérico de este boletín, se distribuyó un número impreso de dicho diario, al que sólo faltaba el título y que figuraba corresponder al nueve de Junio de 1929 y se repartió un cuestionario para facilitar la presentación de las diversas opiniones sobre el asunto. A la segunda sesión asistió muy numerosa concurrencia, entre los que había distinguidos periodistas del país: se fueron discutiendo cada una de las preguntas del cuestionario y así todo lo relativo a formato, redacción, presupuesto (respecto del que se ofrecieron datos halagüeños) y modo de llevar el proyecto a la práctica; para tal fin se designó una Comisión de la que formarán parte los señores Miguel Espartza, D. Ricardo Leizaola, Andrés Artzeluz, P. Arruti y Jabier de Lizardi" [127].

1930. urteko *Eusko Ikaskuntzaren Deia* agerkariko aktetan Jose María Agirreren eskuhartzea behin eta berriro agertzen da, beraz, alde batetik "Euskaltzaleak" edo Federación de Acción Popular Euskerista delakoaren bileretako partaidetzat; Artzeluz jauna, "Euskaltzaleak" taldearen ohizko ordezkaria dena Eusko Ikaskuntzaren bileretan Lizardik ordezkatu ohi zuen, "Euskaltzaleak"-en arduradun nagusia zenez, 1928ko Zumarragako bileraz geroztik.

1929ko Martxoaren 5ean jasoa dagoenez, han agertzen dira Lizardiren urte horietako ekintza kultural nagusietako bi, bata euskarazko egunkaria egitearena, eta bestea "Kirikiño" saria irastearena.

Egunkariari eskeinirikoek urte beteko epea hartzen dute, lehena, "Euskel Egunkaria" [128] eta sailean jarraitzen zaizkiolarik, "Egunkaria" [129] "El tema del dia" [130] "Euskel Egunerokoa" [131] "Egunerokoa" [132].

1930-4-9an *Euzkadi* egunkarian argitaraturiko "Bi milloiez zer egingo euskeraren alde" deituriko artikuluan egiten da Lizardiren artikuluetan "Bai" izeneko egunkaria ateratzeko proiektuaren azken aipamena. Oraingoan, Lizardiren asmoak, lehengo bideetara itzultzen direla ikus daiteke, hau da, eskolarenera.

Egunkaria sortzea eta "Kirikiño" sariaren iraspenaz gain, 1930 urtearen hasieran, *Eusko Ikaskuntzaren deia*n apirilaren 14ko aktetan Bergarako Kongresuan partaidetzat izendatzen da Lizardi eta "Propaganda y prensa" deritzan sailaren arduraduntzat [133].

---

126 AITZOL; "El poeta Jose María Agirre. Xabier de Lizardi", 167. or.

127 "Crónica de los Cursos de Verano de 1929. Sesiones de conversación" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 42, 27-28. or.

128 in 1929ko *Euzkadi*, 1929-3-16.

129 in *Euzkadi*, apirilaren 26koa.

130 in *Euzkadi*, 1929-6-13.

131 in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 1929-6-27.

132 in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 1929-6-13.

133 in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 44, 1930, 29. or.

2.2.4. Eusko Ikaskuntzan garaturiko ekintzari buruzko zenbait xehetasun

Bergaran ospaturiko Eusko Ikaskuntzaren 1930ko Irailaren 8ko bilkuran biltzar iraunkorrerako izendatua izan dela esaten zaigu, "Enseñanza Primaria" deitu duten euskararen irakaskuntzaz eta eskolez arduratzen den sailaren burutzat [134].

Bestalde, eta *Eusko Ikaskuntzaren Deia*ren aktei esker dakigu, 1930ko martxoaren 9an Euskaltzaleak erakundeak berriztatze aro bati ekin diola, kargu berriak izendatuz eta helburuak eta partaidetza oin-arauak berriztatuz. Lizardik formulatuko ditu Euskaltzaleak erakundearen berriztatzearen oinarriak, "Zumaiako itzaldia" izenekoan, eta aldi berean, arduradun nagusi kargua Mikel Urretaren eskuetan uzten duela iragartzen.

> "Epaillaren 9'enean Igandea Euskeltzaleen Batzarra Zumayan izan zan. Gipuzkoako erri askotako izperkariak eta Bizkai'tik batzuek joan ziran. (Meza).Euskaltzaleak'ren eraberritzerakoan buru batzar auxe aukeratu zuten danen ongi emanarekin: Leendakari: Urreta'tar Mikel jauna. Ordezkoa: Agirre'tar Jose Maria jauna; Idazlari: Artzeluz'tar Ander jauna; Idazkari Ordekoa: Barriola'tar Iñaki jauna. Diruzai: Mendizabal'tar Gaspar jauna. Azken azkenean egunkariatzaz erabaki zan. Lizardi jaunak esan zuan berriro, egunkari ori irtetea al izango bada iru mila arpidedun bear dirala" [135].

Euskararen irakaskintzaren gaiak aldiz, 1930 urtearen amaiera aldera eta hurrengo urteetan behin eta berriro aipatua izango denak, badirudi egunkariaren gaiak baino arrakasta hobea izan zuela [136].

1931ean Lizardi Eusko Ikaskuntzaren Biltzar Iraunkorreko bozeramaile izendatua geratu dela jasotzen da, 1931ko urtarrilaren batetik aurrera. Eta, halaxe, datarik aipatzen ez den Eusko Ikaskuntzaren urteko lehen bileran Euskaltzaleak taldeak proposaturiko zenbait asmoren berri ematen zaio Eusko Ikaskuntzari:

> "El señor Echegaray dió cuenta de los acuerdos de la Academia de la Lengua Vasca, que habían sido también confirmados en la sesión celebrada aquella mañana por la federación del APE, relativos a que los ayuntamientos de zona euskaldun que tienen establecidas escuelas municipales de párvulos hagan que en ellos sea usado el euskera proponiendo igualmente el señor Echegaray que el señor Agirre (Jose María) se encargase especialmente, como representante de la Sección de Enseñanza Primaria, de dirigir la acción necesaria para la consecución de tal finalidad. El señor Agirre indicó las gestiones que en unión de tres personas está realizando y al parecer con éxito, para que en los colegios privados se facilite la enseñanza euskérica que muchos padres desean y que acaso una vez lograda esta aspiración sería más fácil lograr lo que se pretende en los Ayuntamientos, indicando también otras medidas muy urgentes que habría que adoptar en pro de la enseñanza euskérica, como la edición de varios textos, entre ellos un compendio que sirviese para los exámenes de los niños en los Días del Euskera" [137].

Aldatu berria dugun aipamen honetan lehen aldiz aipatzen du Lizardik eskoletarako testuen aldetik dagoen premia larria. Urte hasierako bilera horretatik aurrera, hau da 1931tik 1932ko azken agerkarirarte Lizardi testugintzaren arazoari emana agertzen da; izan ere, 1931ko lehen bilera horretan horretaz arduratuko zen batzordearen arduradun izendatu bait zuen Eusko Ikaskuntzak, Julian Elortza presidente jauna ardurakide zuela.

Zaitegik jasoak edukiriko gutun pertsonalen artean, Eusko Ikaskuntzarekiko harremanez dihardutenak 1931tik 1933ra bitartekoak dira, eta testugintza da, bereziki, darabilten gaia.

---

134 in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 48, 1930, 3. or.

135 in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 45, 1930, 29. or.

136 UGALDE, M.; "Biografía de Aitzol" in AITZOL; *Idazlan guztiak*, Erein, Donostia, 1988, I, 65. or. eta hurrengoak. Martin Ugaldek aipatzen dituen gutunetan Zaitegiri egunkaria ateratzeko ez ezik Orixeren *Euskaldunak* poema ateratzeko diru-arazoak aipatzen dira eragozpen larritzat.

137 *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 49, 1931, 9-10. or.

Gutun pertsonalek erakusten dutenarekiko adostasunean, *Eusko Ikaskuntzaren Deia*ren 1931ko hirugarren agerkariak, udazkenekoak, Irakaskuntzaz arduraturiko batzordeak eginiko lanaren intentsitatea frogatzen du, irailaren 14ean bildurik, *Xabiertxo* liburua agortua dela, eta Eusko Ikaskuntzak ikasleak euskararen irakurketan eta idazketan treba daitezen behar zituzten *Umearen laguna* eta *Txomin ikasle* liburuak argitara zitzala erabaki zen, era berean Euskal Herriko eskola publikoetan dauden irakasle eta ikasle euskaldunen estatistikak egin daitezela erabaki zelarik [138].

Irakurketa liburu horien argitaratze arazoez dihardute Lizardik, Bernardo Estornés Lasak, Angel Apraizek eta Julian Elortzak 1931ko urtean zehar elkarri eginiko gutunek. Jabier Mintegiagak Zumarragatik 1931ko abenduaren 25etik Ekainaren 17ra bitarte eginikoak eta Lizardik hari zuzendurikoak, aldiz, lau arlo nagusitan erabiltzeko euskal testuen prestaketa-lanez dihardute: Aritmetika, Gramatika, Geografia eta Metodoa.

Garai horretan Lizardik buruan darabiltzan testugintzarekiko kezken lekuko dirudi "Neologismos en aritmética" [139] deritzan artikulua, gainerakoan hizkuntzaren arazo gramatikalei nahiz lexikologikoei buruzko artikuluak oso bakanak bait dira Lizardiren luman.

*Eusko Ikaskuntzaren Deia*k jasotzen dituen Lizardiren azken bi eskuhartzeek irakaskuntzaren arloan une hartan bizi-bizirik zeuden gaiei buruz dihardute: Euskal Unibertsitatea [140] eta Euskal Irakaskuntzaren aldeko propaganda egiteari buruzkoa [141].

Amaitzeko, esan dezagun 1828an Eusko Ikaskuntzaren Deian "miembro de número"-kotzat lehen aldiz agertu zenetik, 1933ko azken aipamenerarte [142] ikusi dugun Lizardiren partaidetzak hiru arlo nagusi landu zituela, euskal eskolarena hasieran eta bukaeran, bigarrenik "Kirikiño" sariaren iraspena, eta hirugarrenik, euskal egunkariarena.

Lehen ekinaldia, "Eusko Elazkona" deituriko elkartea, azkenean "Euskaltzaleak" elkartea izango den horretara bideraturiko ahalegina egingo du, euskal elkarteek eta beren argitalpenen arteko koordinakuntza bat sortzera; bigarrenik, idazleak susperrarazteko sari bat sortzeko asmoa hartzen du "Kirikiño"ren jarduna eredutzat harturik; horregatik eman nahi izan zion deitura hori sorturiko sari berriari.

Euskal Egunkaria sortzeko asmoa ez dut uste gaur egun dituen helburu berekin identifikatzearen okerra egin behar dugunik. Gogoan hartu behar dugu, gaur egun egunkariei gizarte adierazpideen alorrean hain konpetentzia handia egiten dieten telebistak eta irratiak ez zutela existitzen. Irratia izan bazen, baina ez zegoen gaur bezala hedaturik.

Beraz, Lizardiren asmoan edo proiektuan zegoen egunkariak euskal idazleen eta irakurleen arteko komunikabide nagusienetako bat izateko aukerak izateaz gain, irakurleak euskaraz idatzirikoa irakurtzen ohitzeko ez ezik, idazle multzo nagusi bat eguneroko ihardunean trebatzeko, eta idazle taldeak sortzeko balio zezakeen [143].

---

138 *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 51, 1931, 23-24. or.

139 *Euzkadi*, 1933-1-28, 5. or.; *K-L* 411-412. or.

140 (1932-2-21).

141 (1932-12-20)

142 "El señor Aguirre (Don Jose María) consultó a la Junta acerca de la aceptación de un cargo que como representante de la Sociedad se le ofrecía en una campaña relativa a la enseñanza vasca, que sin duda debe ser simpática a la sociedad, pero de la que era posible se dedujeran consecuencias políticas de las que Eusko Ikaskuntza debe apartarse. Se decidió en este respecto que sin que la Sociedad pueda aceptar un compromiso permanente en asunto en que se produzcan tales derivaciones, no hay inconveniente en que actúe en cuanto sea pertinente para una enseñanza autónoma vasca". *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 57, 1933, 8-9. or.

143 Ideia hauen isladapena dela esan liteke 1929aren martxoaren 13an, hau da Euskal Egunkariaren aldeko kanpainari hasiera ematen dion "Euskel Egunkaria" (*Euzkadi*, 1929-3-16, 4. or.; *K-L* 171-173. or.) eta "Baratza azi-bearra":

Lizardik 1927-1930 epean Euskaltzaleak erakundeari eman dizkion hiru norabide nagusi hauetan aldaketa nabaria sumatu zuen bigarrenari dagokionez erakundearen zuzendaritza Aitzolen eskuetara igaro zenean.

Literaturaren autonomiari eta gizarte betebeharrei buruzko irizpideak, euskal literaturaren "normaltasuna"ri buruzko irizpideak dira aldatuko direnak efikazia edo eraginkortasunaren izenean. Eta hauxe izango da hain zuzen ere 1930-36ko eztabaida literarioen oinarrian kokatzen den arazoa eta "Aitzolen belaunaldia" izeneko kapituluan azalduko duguna.

2.3. EUSKARAREN NORMALIZAZIO BEHARRAREN KONTZIENTZIA LARRIA

2.3.1. Hizkuntzaren kontzepzio orokorra

Lizardiren euskarari buruzko kontzepzioa olerkigintzan moldatu zituen zenbait sinboloren aldetik ez ezik, interesgarri zaigu, bere horretan ere, kazetari-lanetan isladaturiko ikuspegia modernotasun handikoa delako, eta garaikoen artean bereziki nabarmentzen delako bere zorroztasun eta zolitasunagatik, baina baita hizkuntza literarioaren moldaketan hartu zuen ikuspuntua esplikatzen duelako.

Euskarak balore bikoitza du Lizardiren kontzepzio orokorrean eta biak elkarren osagarri dira: alde batetik, hizkuntza bat, pertsonek elkarren artean komunikatzeko erabiltzen duten mintzabide bat da, hau da, funtsean eta garaian ohizkoak ziren ideologizatze eta idealizatzeen aldean, Lizardirena ikuspegi erradikalagoa da, hizkuntzaren egoeraren kontzientzia larriak eraginikoa eta erromantizismorik gabea.

Bestetik, Lizardirentzat euskara beste edozein mintzabide bezalakoxea izateaz gain, askoz gehiago ere bada: euskal aintzinatearekin, gure historia eta herriaren aurreko belaunaldiekin elkartzen gaituen katea:

> "Asabaen gogoaz elkartzen gaituen urrezko kate zaarra etzazute arren, (...), esku laztankor oiekin betirako eten eta apurtu" [144].

Lizardik Arrasateko hitzaldian emakumeei zuzenduriko hitz hauek itz-lauz adierazten dute bere poetikan, eta baita bere olerkietan agertzen den euskarari eratxekitzen dion balio nagusi hau. Lizardirentzat euskara mintzabide bat da, baina baita gure herriaren ondarearen hari nagusia ere, gure arbasoekin lotzen gaituen "lokarri zaarra" [145].

Lehen atal honetan alde batera utziko dugu euskal hizkuntzaz, literatur mintzaira gisa, Lizardiren ikuspuntutik harturik duen ikuspegia. Alderdi soziolinguistikoaren eta linguistikoaren esparrua, hots, normalizazioaren arazoa da atal honen lan-barrutia.

Garaiko kontzepziorik ohizkoenetan apologisten eraginak indar handia du, eta XIX. mendetik datozen hizkuntzari buruzko hainbat ideologizazioren zamapean aurkitzen da euskara.

"Argi dakuskegunez, tokiaren uts gera euskel-idazleok. Gutxi giñalakoan, amaika negarrek erten digu: baña, egia, gure ingien zabalerako geiegi gera, ezpaitegu non idatzi.
Gertari oni begi-eman bear zaio lenbait-len. Eztegu euskel-idazlea bakantzera jo bear, ugalaraztera baizik. Bestela, zertarako litzake atzeko amabost-ogei urteotan egindako lan etengabea?... Orixe nai ez genduan, bada?... Euskel-idazlea ugaldu-eske ez geniardun? ... Bai, ta zuzenki: ortik bailetorke euskera beñere senda al-izatea". LIZARDI, X.; "Baratza azi bearra" in *Euzkadi*, 1929-3-13, 5 or.; *K-L* 210. or.

144 LIZARDI, X.; "Arrasateko itzaldia", *Euskaltzaleak*, 1930-7-30, in *Itz-Lauz* (2. arg.) 129-136. or.; *K-L* 270-275. or.

145 LIZARDI, X.; *Asaba zaarren baratza* in *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1987, 185-197. or.

Ideologizatze horietako baten ondorio izan da euskara hizkuntza bereziki garbia, Jainkoak berak eta Paradisuan Adan eta Ebak mintzatzen zuten mintzaira biraorik gabetzat jo izana, eta ondorioz, euskara euskal ohitura onen eta kristautasunaren zaindaririk hoberena dela dioen mitoa. Euskara eta kristau fedearen arteko lotura honen lekuko da XX. mende hasierakoa den Txomin Agirreren obra.

Lizardik "Egia ikus dezagun ama!" [146] artikuluan horrelako ideologizazioaren aurka idatzi zuen; horrelako usteen atzean gorderik dagoena euskara idazti lizuneterako nahiz bestetarako gutxiegi erabili izana dela salatzen du. Apologistek mendeetan zehar pilatu dituzten "gezurrek" kalte egiten diote euskarari Lizardiren ustez:

> "Eusko-oikuntza bikañen zaindari oberena euskara omen; kristautasuna ta euskera elkarbildurik, ia-ia soin bakar batean mamiturik omen-dira. Euskera ta Kristautasuna era batera dabiltza...
>
> Ez gero, begiei ta zeuen naikundeari geiegi sinets! Ikus-naaste zoroak dira oiek, bai eroso guretzat, baña bai kaltekor ere euskerarentzat eta kristautasunarentzat.
>
> Eta bazka dezagun bein-betirako gogo euskeltzalea egiaren ogiz eta ardoz. Ta egia au da: euskera ezta, nabarmenki, oker-bide, jakin-bide egin eztegulako; eztegu egin jakinbide zuzen, ta ez makur. Ta gaur daan egunez edozein izkuntzak, Europan beñipein, jakintza-bide bear du, ondatuko ezpa-da" [147].

Lizardiren ikuskera objetibo hau, arazoari aurrez-aurre begiratu eta hartu behar den bideari ekiteko jarrera hau ez da apologisten gezurren aurrean duen jarrera berezi baten fruitu, hizkuntzari buruz duen kontzeptzio modernoaren isladapena baizik.

Ikuspuntu moderno horren nondik-norakoa bi arlo ezberdinetan banatuko dut: Normalizazio soziolinguistikoa eta normalizazio linguistikoa. Bi alderdi hauen inguruko ideiak aurki genitzake Lizardiren idazlanetan nahiz garaiko ekintzei buruzko kroniketan. Euskarak bizi duen kinka larriaren kontzientzia garbia bait du Lizardik.

Kontzientzia garbi eta larri hori, ene ustez, garaiko joera nagusienen aldean iraultzailea bilakatzen da eta bereziki azpimarratzea merezi du, garaiko ideia eta ikuspuntu arruntenekin kontrastatzen bait du, bai eta hainbat urte geroago ere bizirik dirautenekin.

Honetan Ibon Sarasolarekin bat etorri behar dugu osoki:

> "Lizardi handiaren literatur ekintzak eta zenbait artikuluk suposatzen zuten euskaldungoaren problemari buruzko ikusmolde ia iraulariaren garaia ia pasa da urte askotarako" [148].

Euskararen egoera soziolinguistikoaren aurrean, Lizardik jarrera guztiz objetiboa du, Axularrek bere hitzaurre ospetsuan esan zuenari jarraikiz, Lizardiren ustez ere, euskaldunona da hogena:

> "Leen-leendanik gure izkuntza landu izan ba'gendu, gogo-jardun guzietarako erabilliz, gaur berezizko jakintza baten, berezizko elerti baten bidez gizadiak begiratze ta aipatze'aal-ginduzten!" [149].

Soziolinguistikan hizkuntza baten iraupenerako faktorerik erabakigarrienetako bat erabilera da, eta Lizardik 1930an jadanik hala aldarrikatu zuen.

Euskararen iraupenerako faktore eragileei buruzko gaia bere idazlanetan gehienik erabilienetako bat da, eta defendatzen zituen jarrera teorikoak eta praktikoak ohizko euskaltzalegoarenak baino aurrerago jotzen zutenez, —polemika eta eztabaida— erradikal ospea ongi irabazia zuen.

---

146 LIZARDI, X.; "Egia ikus dezagun, ama!" in *Argia*, 471, 1930-5-4, 4. or.; *K-L* 264-267. or. Ikus, halere, "Amonatco zimel maitagarria" ipuina "Edizio kritiko baterako" eranskinean.

147 *Ibidem*, K-L 265. or.

148 SARASOLA, I.; "Euskal abertzaletasunaren argiak eta itzalak: Olerkariak" in ARESTI, G.; *Obra Guztiak*, I, Kriselu, Donostia, 1976, 24. or.

149 LIZARDI; "Eusko Ikaskuntzaren bostgarren batzarra" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 44, 1930-9-9; *Itz-Lauz* (2. arg), 115-119. or., K-L 275-278. or.

Orokorki, —Lizardik hitz hau erabili ez bazuen ere-, hizkuntzaren normalizazioa zen bere proposamena, bai gizarte mailan, inoiz iritxi ez zituen kulturaren mailetara eramanez, alde batetik, eta bestetik, normalizazio linguistikoa, iraun ahal izateko euskara normatiboaren beharra.

2.3.2. Euskararen normalkuntza soziolinguistikoa

Euskara kultur mintzabide bilakatu nahirik 1927-30 urteen arteko epean Lizardik eratu zituen ekintzez gain, hau da, galtzeko arriskuan sumatzen duten hizkuntzak behar beharrezkoak dituen kultur bideetarako trebaketaz gainera, Lizardi bereziki kezkatzen zuen gaietako bat erabilerarena zen: idatzi zituen artikuluetan nabarmenki antzeman daiteke ematen dion garrantzi berezia. Alderdi barruko antolamenduan ere bai. [150]

Euskara goraldu eta "lengua veneranda" esanaz ihardutearekin asetzen zirenen aurka, Lizardik, euskarak hizkuntza bizi eta erabilia bezala iraun zezan, zenbait arlotan ekintza bizkorra eragiteari heldu zion erakundeen bidez: Eusko Ikaskuntzan eginiko ekintzetan, nahiz Euskal Eskolak edo Ikastolak eta eskola testugintzari, nahiz egunkariaren gaiari loturiko lanetan.

Ekintza hauek aurrera zeramatzan garaian kokatzen da Lizardik egunkarietan Bonifazio Etxegarairekin izan zuen eztabaida, euskarak erakundeetan, nahiz ekintza publikoetan, nahiz norberaren idaztietan eta argitalpenetan izan behar zuen tokiari buruzko eztabaida.

Euskarak kultur mintzabide gisa izan behar duen erabileraren premiazkotasun maila da eztabaidaren ardatza. Euskal kulturaren garapenerako eta hedapenerako erabili beharreko mintzabidearen inguruko eztabaida dugu eta horrenbestez, Lizardiren pentsamentuaren alderdi konkretu hau ilustratzeko egoki izan daiteke.

2.3.2.1. Euskara kultur mintzabide

Gai honen inguruko polemikari Etxegarai jaunaren "El euskera en las empresas de cultura" deritzan artikuluan adierazirikoak eman zion hasiera. Kultura mailako ekintzetan euskara bera zenbatetaraino erabili beharko litzatekeen aipatzen du eta "Euskalerriaren Alde" aldizkarian gai gehienak erdaraz idazten dituelako egin zaizkion kritikak jasotzen ditu Etxegaraik, norbaitek esaniko "nada eficáz se hará si se vale del castellano" baieztapenaren aurkako argudioak azaltzen dituelarik.

Artikulua bukatzeko erabili zituen hitzak dira, besteak beste, Lizardi idatzizko erantzun bat ematera bultzatu zutenak:

> "Tengan paciencia los impacientes y procuren evitar que se haga del vascuence una muralla que impida su propia difusión y la de los valores culturales de Vasconia" [151].

Lizardiren erantzuna "Euskara andiki soiñekoz" [152] deituriko artikulu bikoitzaren bidez agertu zen, eta zuzen zuzenean, puntuz-puntu kontrajartzen zaie Etxegarairen iritziei.

Lizardik euskararen garapenerako sortu diren erakundeetan, eta orokorrean Euskal Herriko udal, aldundi edo bestelako erakundeen bileretan euskarari egiten zaion baztertze latza salatzen du. Euskaltzaindiko bileretan bertan ez zutela erabiltzen esan ziotela ere aipatzen du. Are euskararen

---

150 Ikus "Lizardiren Eskutitzak" eranskinean, 8. dokumentua.

151 ETXEGARAI, B.; "El euskera en las empresas de cultura" in *El Día*, 1930-9-21, 2. or.

152 LIZARDI, X.; "Euskera andiki soñekoz" (I eta II) in *El Día*, 1930-9-25, 12. or. eta 1930-9-27, 12. or.; *K-L* 280. or. Arazo konkretoa zera da, euskal kantu, dantza, eta errepresentazioz osaturiko "Saski-Naski" espektakulua eragingarriago egiteko euskaraz ala erdaraz egin behar den. Etxegaraik gaztelaniaz ikuslego zabalagora iristeko aukera azpimarratzen du, Lizardik aldiz, euskaldungoaren eskubidea.

beraren iraupenaz eta edertzeaz gehienik kezkaturik egon beharko lukeen erakundeetan ere erdara hutsean aritzen dira. Hori dela eta, jokabide horren burugabekeria nabarmenerazteko, ipuintxo moduko batez amaitzen du:

> "Leengo batean amets txar bat egiñik nazute, Euskalerria nekusan ordeka soil bat iduri. Ez mendi, ez baserri, ez ezetasunik iñon; ez-ta are euskararik, illa baitzan betirako. Baña, ordeka erdian jaun illezuri agurgarri batzu ari zenituen zerbaitean, maai baten inguruan, paper ta idazti sail aundien artean. Urbildu natzaie, ta... badakizute zer ziarduten? Euskel-iztegi bikain bati azken-orraztuak ematen, euskara ordurako illa ta lurperatua zanik oartzeka. Agian, bazekiten berak, artean; baña... erderaz ari bait zenituen..." [153].

Lizardiren jarreraren zorroztasunari berea eman behar zaio, garaiko idazleek eta kultur gizonek hizkuntzaren aurrean zuten jarreren aurka egiten du, gogor:

> "Egoarri gutxikotzat jotzen gaituzu, ta eramapenez lasa orni gaiteala diguzu esaten. Aolku egiazki bikaiña! Egoarririk, eramapenik eta gibelik asko bear baita, euskaltzaleak txintik atera gabe euskararen igesari begira egoteko" [154].

Lizardik eta Bonifazio Etxegaraik eztabaidagai dutena kultur ekintza eta arloetan euskara erabiltzeak duen garrantzia da. Etxegarairen ustez "poliki, eta ez jauzika" egin behar du euskarak kultur-bidea, eta erakundeetan euskara hain urri erabiltzeko dauden arrazoi gisa aipatzen du gaztelaniaren bitartez eman behar dela ezagutzera Euskal Herriaren kultura-ondarea.

Lizardiren ustez aldiz, askoz arrazoi praktikoagoak daude kultur gizon denek horretara jotzeko:

> "Alegia, zoritxarrez, are aundiki euskaltzaleenok ere gure jardunak euskeraz aritzea gaitz degula. Geren buruon jazte osoa erderaz egin baitegu, alperrik litzake besterik eskatzea: nahi-ta-naiez bear alegin zalla geronen artean bederik gai biurri-samarrak euskeraz erabiltzeko. Ta, bestetik, erderaz aritzea errazago, bestetik erderaren bidez geren buruok ederrago erakusten aal, milla akiakula sumatzen ditugu egitezko erdeltzaletasun ori bidezkotzeko" [155].

Lizardik bere garaiko jende ikasi euskaltzalearen jokabide ohizkoa dena salatzen du, hau da, den-denek ulertzearen eta euskal kulturaren zabalpenerako hizkuntza gaztelania ahaltsuago izatearen aitzakia erabiliz, norberaren ezintasunak izkutatzen dira.

Esate baterako, kultura mailako gaiak euskaraz erabiltzeak dituen zailtasunak ikasketa guztiak gaztelaniaz egin dituenarentzat, eta erdal erretorika ikasiak eskeintzen dizkien baliabideez erantzirik aurkitzean, dotorezia faltaz sumatzen dituztelako beren buruak.

Hitz gogorrez salatzen du Lizardik artikulu honetan jokabide hori, hitzezko euskaltzaletasuna "egitezko erdaltzaletasuna" dela adieraziz, eta gainerakoa "egiaren ingurukako izketa polit utsa ez ote dan" igarriz.

---

153 LIZARDI; "Euskara andiki soñekoz" in *Euzkadi*, 1930-9-25, 12. or.; *K-L* 278-281. or. Honelako erakundeak erdaraz aritzearen burugabekeria salatzen du. Hiztegiari buruz egiten duen ironiak, alegia, euskara bera hilez geroz ere, Euskaltzaindikoak euskal hiztegiari azken orraztuak ematen ariko zaizkiola dioenean, 1928ko beste bi artikuluren oihartzuna sumatzen da: "Traducciones y diccionarios" (*Euzkadi*, 1928-8-7, 1. or.; *K-L* 124-126. or.) eta "Respetuosamente a Euskaltzaindia" (*Euzkadi*, 1928-8-14, 1. or.; *K-L* 126-129. or.). Bi artikulu horietan Euskaltzaindiak hiztegi hori osatzeko duen asmoaren berri ematen du eta berehala esku artean izateko duen itxaropen ona aipatzen du:

> "Creo hacerme intérprete del sentir general del cuerpo de idazles, laboriosos e inquietos, al expresar a Euskaltzaindia desde estas columnas mi particular y vivo deseo, insignificante en importancia, si no fuese refrendado por el general de aquellos, ya que el diccionario que hoy necesitamos y que prácticamente y en el borrador debe estar ya concluido, vea la luz pública en el más breve plazo posible". ("Traductores-diccionarios" in *Euzkadi*, 1928-8-7, 1. or.; *K-L* 126. or.).

154 LIZARDI; "Euskera andiki soñekoz (II)" in *Euzkadi*, 1930-9-27, 12. or.; *K-L* 283. or.

155 LIZARDI, X.; "Euskera andiki soñekoz (I) in *Euzkadi*, 1930-9-25, 12. or.; *K-L* 279. or.

Euskaltzaleak erakundeak Lizardiren gidaritzapean duen helburu edo xede nagusienetariko bat euskara kultur mailan erabiliz prestijiatzea da. "Euskara andiki soñekoz" artikuluan, "andiki soñekoz" dioenean, hau da, jende ikasiaren artean ibiltzeko moduan jantzirik, etiketaz jantzirik ikusi nahi du.

Lizardi eta Aitzoli berari ere gai garrantzitsua iruditzen zaiela erakusten duten froga ugari ditugu haien artikuluetan, eta Euskaltzaleak erakundeak berak antolaturiko ekintza, erakunde eta bileretako asko "andiki" edo jende ikasien artean euskaltzaletasuna itsastera bideraturikoak dira [156].

Lizardiren "Euskera andiki soñekoz" bi artikulu hauei erantzunez, Bonifacio Etxegaraik beste bat argitaratu zuen "La labor de la Sociedad de Estudios Vascos" izenaz, bere lehengo argudioetan bermatuz eta Aitzol ere irizkide duela adieraziz [157].

2.3.2.2. "Egitezko" euskaltzaletasuna

Lizardik "Elkar bidean" artikulua Etxegarai jaunarekin adiskidetu asmoz idatzi bazuen ere, eta erabilitako adierazmodua ohi baino latzagoa izan zela aitortu zuen arren [158]. Lizardik bukatu ustean idatziriko artikulu honi Bonifazio Etxegarairen beste hiruk jarraitu zioten: "Afianzamiento y reconquista" [159]; "La labor de la Sociedad de Estudios Vascos, en sus cursos de verano" [160], eta "Hagamos lo que sea posible" [161].

Hiru horietan bigarrenak garrantzi berezia du, eta Lizardiren proposamenei erantzun zuzenena ematera datorrena. "Euskaltzale praktikoak", edo "egitezko euskaltzaleak" omen direnei buruzkoa da istilua [162].

Bonifacio Etxegarairen ustez, bereizkuntza garbia egin daiteke euskarari buruzko azterketa eta ikerketa sakonak egiten diharduten eta egin dituztenen eta euskaren aldeko kanpainan dihardutenen artean. Ez dute batzuk besteen zereginetan zertan sarturik, alegia, garbi adieraziz, Lizardi ez da

---

156 Ikus LEKUONA. M. in *Deia* 1984-11-29, UGALDE, M.ek aipatua in "Biografía de Aitzol" in AITZOL; *Idazlan Guztiak*, Erein, Donostia, 1987, I., 58-59. or. "Para el sector intelectual de la provincia (Guipúzcoa) creó la Sociedad "Eusko Pizkunde" en la Avenida (de Donostia), así como la revista de cierta altura cultural, intermedia entre Euskalerriaren alde y RIEV, con el nombre de Yakintza".

157 ETXEGARAI, B.; "La labor de la Sociedad de Estudios Vascos" in *El Día*, 1930-10-9, 2. or. Etxegaraik aipatzen duen Aitzolen irizpide honek ez dirudi egunkarietan agerturiko artikuluren batetik jasoa denik, berriki argitaratu diren Aitzolen idazlan guztietan garai hartakoetan begiratuz ezin izan bait dut honi buruzko aipamenik aurkitu. Bestalde, bileraren batean Lizardik berak erderaz mintzatzeko jokabide erreza nola hautatu zuen gogora arazten dio, eta bera besteak ez bezelakoa ez dela oharterazten. "Elkar bidean" artikuluaz erantzun zion orduan Lizardik eztabaida amaitu asmoz, aitortu egiten du bera ere epela izana dela:
"Alegia, arako egi aren ingurukako izketak, ez Etxegarai jaunak bakarrik, baizik-eta euskeltzale guztiok egin oi-ditugula, "Lizardi" berbera "barne" dalarik. Alegia, batzarre baten erdera utsez aritzeko, tarteko erdaldunei, gero oi-ezari, gaiaren zallari ta abarreri errua egotzi izan diegunean, ez oiek baña gure epelkeria, gure eroso-bera soil-soilki ziran errudun." LIZARDI, X.; "Elkar-bidean" in *El Día*, 1930-10-16, 5 or.; *K-L* 283-287. or.

158 "Bizkor-samarki zukutzen nau, ori bai, ta auts xee biurtzen Etxegarai jaun zoliak, ene kolkoko Aitzol gabitzat darabilkielarik. Baña, txautzeak txautze, ta zukutzeak zukutze dira, Aitzolek eta nik berbera diotsagu. Ark bigunki ta esku atseginez. Nik zakarki, erri xeeak bere arteko oi-duan izkeraz". LIZARDI, X.; "Elkar-bidean" in *El Día*, 1930-10-16, 5. or.; *K-L* 283. or.

159 ETXEGARAI, B; "Afianzamiento y reconquista" in *El Día*, 1930-10-23.

160 ETXEGARAI, B; "La labor de la Sociedad de Estudios Vascos, en sus cursos de verano"in *El Día*, 1930-10-28, 2. or.

161 ETXEGARAI, B; "Hagamos lo que sea posible" in *El Día*, 1930-11-30, 2. or.

162 Etxegaraik salatzen duenez, udako ikastaro horietan erdaraz egin diren ikastaroetan parte hartze eskasa izan omen dute euskal kulturari dagozkion hitzaldiak izan arren:

Etxegarairentzat Eusko Ikaskuntzaren baitan propaganda eta euskararen aldeko kanpainen egile xume bat baizik [163].

Lizardiren azken erantzuna "Aitaren erreal bikoak" artikuluaren bidez eman zen ezagutzera. Beren artean dagoen elkartu-ezina onartzen du eta nolabaiteko azalpena eman beharrez, belaunaldien arteko konpon-ezinari egozten dio errua. Funtsean Etxegarai jaunak egozten dion gorrikeria, azkarregi ibili nahia edo erradikaltasuna ukatu egiten ditu Lizardik, elebitasunaren eta hizkuntzaren eskubideen aldeko baieztapenez. Lizardiren ideiak bere garairako aurreratuak ziren:

> "Gorrikeririk gabe, bear-neurrian, elkartu-bearrak omen dira gure bazkunetan euskera eta erdera. Guk dioguna berbera. Nun da gure gorrikeria? "Saski-Naski" seitik batean euskeraz egiteko... "Eusko —Ikaskuntzan ordulaurdentxo batez... Gañontzean erderaz...
>
> Gure auzia eta katalandarrena ez omen dira berdin. Egia andia orixe, zaar-samarra izatea. Bi alde agertzen dira arazo oien artean. Bata: euskeraren bidezkoagoa, beronek añako nortasunik beste hizkuntzarik batek ere eztulako. Bestea: gure lanaren gaitzagoa, asabaen zabarkeria ta izkeraren bereiztasuna bere etsai ditula. Bi alde oiek ondoren bakarra behar lukete ekarri: guk, suagoki, aiek baiño tinkoago ari izan bearra; ta ez epelagoki, gertatzen danez". [164]

Garbi dago urte horietako euskararen aldeko ekintza kanpainaren ondorioz, eragile eta "agitador en el mejor sentido de la palabra" dela Lizardik izan duen funtzioa, Etxegaraik emaniko aholkuz berea egin eta besterenean ez dadila sar esaten zaio garbi-garbi.

Baina Lizardi ez du polemikak izutzen gehienetan. Alderantziz, eztabaiden ondorioz fruituak lortu nahi izaten ditu: jendea arazoaren garrantziaz oharteraztea eta erantzunak eragitea, berea nagusi ikusteko asmo hutsez ez da ari. Esaten duena eginen bitartez ere frogatu nahi du Lizardik, eta esate baterako, eztabaida guzti honetan euskaraz erantzun die gaztelania hutsezko Bonifazio Etxegarairen artikuluei. Euskarazkoa argitaratu ondorengo egunean gaztelaniazkoa argitara arazten zuen.

Bestalde, Bonifazio Etxegararairekiko eztabaida honetan Eusko Ikaskuntzaren batzarretan hitzaldiak euskaraz ere egin daitezela eskatzen aritu denez, *Eusko Ikaskuntzaren Deia*n jasorik dagoenez, Lizardik berak, "Agirre'tar Joseba Mirena jaunak Batzar Iraunkorrari Agurra" deituriko hitzaldia zuzendu zion, "Elkar bidean" artikuluan hitzaldi hori Aitzolek egingo zuela amets egin bazuen ere. Hitzaldi horretan Euskaltzaleak erakundearen izenean zuzentzen zaie eta han harturiko asmo baten bozeramaile da:

> "Azkenik, eta egintza orreri asipena eman-bearrez, ona zer besterik nik zuei adieraztea agindu didaten: alegia, zuen batzarre auetan euskeraren otsa entzutea biziki atsegin luketela euskozale orok.
>
> Naikunde ori baditeke odol beroaren ezin-egonak eragiña: orren etsia eztagokigu guri, eskaleoi. Bañia, euskeraren egoitzari buruz, gauz bat badago ukatueziña: alegia, euskera gero ta guzion beroaren bearrago dala, baño areago jakintsuen, aitor-semeen ta aundikien bero-bearrean" [165].

Handiki euskaltzaleek Lizardiren ustez jende xehearen gidari izan behar dute, haiei erakutsi ez dela lotsakizun jende-aurrean euskaraz mintzatzea eta kultur maila guztietarako gai dela erakustea. Hizkuntza prestijiatzea da helburua eta urte horretan Euskaltzaleak erakundeak antolatu dituen beste

---

"...es decir, que si bien me parece plausible la conducta de los euskeltzales prácticos, segun los denomina Lizardi, lo considero deficiente por su indiferencia entre otras manifestaciones de vasquismos, distintas de las de su singular aprecio". ETXEGARAI, B.; "La labor..." in *El Día*, 1930-10-28, 2. or.

163 ETXEGARAI, B.; "La labor..." in *El Día*, 1930-10-28, 2. or.
"Ni a los varones estudiosos viene bien el papel de agitador en el mejor y mas noble sentido de la palabra, ni a las gentes de acción compete el empeño de dedicarse a resolver problemas que requieren una labor reposada y serena. Cada cual en su esfera debe obtener de su actividad todo el fruto posible, sin exageración de amor propio y sin jactancia alguna".

164 LIZARDI; "Aitaren erreal bikoak" in *El Día*, 1930-11-12, 2. or.; *K-L* 288. or.

165 LIZARDI, X.; "Agirre'tar Joseba Mirena Jaunak Batzar Iraunkorrari Agurra" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 48, 1930-9-8; *K-L* 921. or.

zenbait ekintzekin batera Eusko Ikaskuntzari eginiko eskabide hau ere kanpaina horren barruan aipa daiteke. Emakumeak Euskarari eginiko Omenaldi jaia ere ekintza hauen artean aipatu behar da, emakumeak izan bait dira urte horietan euskararen erabilerari ukorik azkarrena egin diotenak, denen ustez [166].

Eztabaida honen buruan Lizardik eginiko proposamena egitezko euskaltzaletasun horren frogatzat Lizardik Eusko Ikaskuntzaren Batzar Iraunkorrari aurkeztu zion eskabide zehatzean mamitu zuen: eskuhartzeak euskaraz ere egin daitezela eskatzen du, eta egunkariek horren berri iragarri dezatela, euskara prestigia dadin [167].

2.3.2.3. Lizardiren jokamolde konkretoa

Bere burua euskaltzale praktikoen artean kokatzen duen Lizardiren iritzi eta jokabideak nola gauzatu zituen antzeman ahal izateko, Lizardiren eta garaiko intelektualen euskararekiko ohizko jokabidearen arteko aldea neurtu behar da. Parean jar dakiokeen konparabururik egokiena Aitzol dugu. Horretarako, kontabiliza daitekeen arlo batean, egunkarietan argitaraturiko kazetari lanen arloan zein den bataren eta bestearen jokabidea aztertuko dut.

Iñaki Larrañaga soziologoak *Aitzolen Idazlan Guztiak* bildumaren lehen alean, atal berezi bat eskeini die Aitzolek garai hartako ideia soziolinguistikoen alorreko emaitzari, "Aitzol eta euskal soziolinguistika" [168] deritzan artikuluan.

Aitzolek egindako produkzio ia guztia erdaraz egina dagoela dio, % 90, eta euskaraz egina oso gutxi izan zela.

> "Zenbaiten ustetan hauxe da, besteak beste, Aitzolen jokaeran agertzen den kontraesanik handiena: "hainbeste goraipatu euskara eta euskaraz idazten zutenak eta gaitzetsi erdaraz idazten zuten idazle euskaldunak, eta berak gero erdaraz idatzi!". Gainera esan behar da, garai berdineko idazle guztiak ez zutela horrela jokatu" [169].

Lizardiren egunkarietako idatzizko produkzioa osotara harturik, erdia baino gehiago, (% 58,7) euskaraz idatzia dago. Bereziki, 1930.tik aurrerakoa harturik, aztertu berria dugun polemika eta honen ondoriozko Lizardiren jarrera hartzea kontutan harturik: guztira 27 dira euskaraz eta 13 erdaraz. Beraz, bi heren euskaraz eta bat erdaraz [170].

Ikusten denez, Lizardiren euskarazko artikuluen ehunekoa handiagoa da 1930 urteaz geroztik, euskarazkoak ehuneko 67,5 izatera iristen dira, erdaraz idatziriko herenaren aldean.

Bi idazleon artean dagoen jokabide ezberdintasuna adierazgarria da.

---

166 Ikus "El homenaje de la mujer al euskera" in *Euzkadi*, (1930-8-6) in AITZOL; *Idazlan Guztiak*, V, 36-38. or.

167 "Oiek orrela dirala, ta apur-apurka agertuko diran zenbait asmo euskelkoien asibidetzat, batzarre auetan, mintzoz, euskerari gorazarre egitea nai genduke, erriaren jarraibidetzat besterik ezpa'litz ere, Artarako ona ene erabaki-gaia:

I. Iru ilabetez beingo batzarre bakoitzean batzarkide euskeldun batek bederik, itzaldi labur bat euskeraz egin beza.

II. Batzarre oien berri, ez erdera utsez baizik euskeraz ere eman bitzaie izperringiei, ta bai euskerazkoan bai erderazkoan adierazi bedi olakok edo alakok bere gaia euskeraz azaldu zula" LIZARDI, X.; "Batzar iraunkorrari agurra" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 48, 1930-9-8; *K-L* 292. or.

168 LARRAÑAGA, I.; "Aitzol euskal soziolinguistikaren aitzindari?" in AITZOL; *Idazlan Guztiak*, I, 257-290. or.

169 *Ibidem*, 286. or.

170 1930ean, euskaraz 17, erdaraz 6; 1931ean, euskaraz 2, erdaraz 3; 1932ean, euskaraz 6, erdaraz 3; eta 1933ean, euskaraz 2, erdaraz 1.

Lizardiren 1928-1929 urteen arteko erdal artikuluek erdaraz idazteko zuen estiloa eta gustuaren berri ematen digute. Irakurraldi saio sakonak eginak zituen erdaraz, zalantzarik gabe, eta gaztelaniaz adierazbide zehatza bilatua zuenaren lekuko dira.

1930tik aurrera, erabaki konszientea hartua du, eta urte horietatik aurrera euskaraz landuriko, estilo osatu eta bereziaz landuriko bere artikulurik famatuenak argitaratu zituen: "Olermen irakite", "Erdi bearra", "Etxe-barne bizia"...

Bestalde, azken hiru urte horietan argitaratu zituen erdarazko artikuluetan erabilitako gaiak zerikusi handia izan zutela esango nuke erdara mintzabidetzat erabiltzerakoan:

a) Alde batetik, hamairu horietatik bost dira gai politikoa darabiltenak, hau da, irakurlego abertzalearen eta ez abertzalearengan eragina izatera zuzendurikoak: "Patriotismo y cultura" (1930), "Memoria y faro" (1930), "Sabino poeta" (1931), "Nuestra conversión" (1932), "Pro Araba y Nabarra, gravisimo deber" (1930).

b) Hizkuntzalaritzarekin zerikusia duten beste bi ere aipa genitzake gai berezi baten inguruan erdaraz idaztearen arrazoitzat: "Gramáticas euskérikas" (1930) eta "Neologismos en Aritmética" (1933).

Gainerakoak literaturaren ingurukoak, euskal literaturaren ingurukoak izanik, euskaraz erabiltzen ari den gaiak erdaraz ere garatzearen funtzioa dutela dirudi, neurri batean, baina, esate baterako, Lauaxetaren *Bide barrijaki* buruzko bi iruzkinak erdaraz agertzeak ez du inongo azalpenik, ene ustez, liburuari jende kultuaren aurrean propaganda egitea ez bada.

Aitzoli dagokionez aldiz, bere zeregina orokorki propaganda, gidaritza eta "akuilari"tzari dagokionez, badirudi zalantzarik gabe gizartean izan nahi zuen eragina dela arrazoirik begibistakoena.

Iñaki Larrañagak Aitzolen jokabide hori azaldu nahian, zera azaltzen du:

> "Aitzoli dagokionez, erdaraz idazteko zuen erraztasunaz gainera, badirudi erdaraz idaztearen arrazoiak bat baino gehiago izan daitezkeela: alde batetik, garaiko idazlerik irakurrienak erdaraz idazten zutela ikusirik idazle horien maila berdina erabiltzeko gai zela frogatu nahia. Prestijiodun hizkuntza erabili, prestijioa lortzeko asmoz ezkutuko konplexu baten ondorio bezala, eta bestetik, idazle erdaldunek egindako produkzioa irakurtzen zuen irakurlegoa bereganatzea ezinezkoa zela uste bazuen ere gutxienik irakurlego hori informatu nahia, hain zuzen, beste idazleek egindakoarekin bakarrik geldi ez zedin. Erdal irakurlegoa euskal arazoetaz informatu nahiak, beraz alde batetik, jasotzen dituzten informazio faltsuak eta distortsionatuak zuzendu nahiak bestetik, bultzatu zuela dirudi gehienbat erdaraz idaztera. Halaere kontraesan hori hor dago" [171].

2.3.3. Normalkuntza linguistikoa

2.3.3.1. Joera garbizaleak nagusi: Arana eta Azkue

Inguru kulturalaren baitan, joera linguistikoak berezi zituen eskola ezberdinak eta hizkuntzaren aurreko jarrera ezberdinen arteko zatiketak eta tirabirak mende hasierako giroan eragin nabaria izan zuten.

Ortografiari, nahiz morfologiari, nahiz lexikogintzari dagokiolarik, eskola eta korronte finko bat zedarritu zuena Sabino Arana Goiri izan zen, 1896. urtean argitaratu zuen "Lecciones de ortografia del euzkera bizkaino" delakoan.

---

171 LARRAÑAGA, I.; "Aitzol euskal soziolinguistikaren aitzindari?", 287. or.

Lexikoari zegokionez, aldiz garbizaletasunaren kezkak mendearen hasieran goren maila iritxi zuen bi egile nagusiren eskutik: Sabino Arana eta Resurrección María de Azkue.

Sabino Aranak erdal maileguen aintzinatasunari eta euskal hizkuntzaren barruan harturik izan zezaketen ñabardura semantikoari ohartu gabe, haiek ordezkatzeari ekin zion hitz berriak, neologismoak, asmatuz. Sabino Aranaren jokabide lexikologikoa, euskal gramatikaren logika aztertu eta, ondorioz, logika horren arauak erabiliz, asmatu zituen hitzak, honela "euskera berri" izenaz ezagutzen hasi zen hizkuntz eredua osatu zuen.

Azpimarratzekoa da Sabino Aranaren eredu linguistikoaren indarra eta eragina handia izan zela XX. mendearen hasiera honetan, batez ere, arestian esan dugun bezala, politikaren arloan jarraitzaile zituenek bere egin zituztelako haren ideia linguistikoak ere, zenbaitetan politikaren arloan beren buruak abertzaletzat aitortzen zituztenei "Maisuarenganako begiramenez" haren arau linguistikoak ere bete arazi nahi izateraino.

Garbitasunaren kezka da, era berean, Azkueren lan itzelaren eragile nagusienetako bat. Ortografiaren aldetik Sabinoren eredutik gehiegi aldentzen ez bada ere, lexikoaren garbitasunaren arazoari ematen dion irtenbidearengatik, eta morfologiaren arloan duen ikertzaile jarrerarengatik, Sabinok baino askoz eragin iraunkorragoa izan du Azkuek XX. mendeko euskararen bilakaeran.

Azkueren obrak euskal hizkuntzaren alderdi gramatikalen oinarri-oinarrizko funtsak ezarri zituen mende hasieran eta zalantzarik gabe eragin gehiena izandako obratzat 1905-1906 urteetan Euskera aldizkarian argitaratu zen *Diccionario Vasco-Español-Francés* aipatu behar da, Pizkunde mugimenduko idazleen belaunaldia zigilatu zuena [172].

Azkuek lexikogintzaren garbitasunaren arazoari aurre egitean ez zuen Sabino Aranak bezala, hitz berriak osatzearen bidea hautatu, nahiago izan zuen lexikogintzaren alorrean berrezarpen lexikala deitzen den bidea erabili, alegia, testu zaharretan ahazturik zegoen euskal jatorriko hiztegia berreskuratzea, zenbaitetan zentzu berria emanez, eta euskalkietan, jendearen ahotan gordeak zeuden euskal jatorriko hainbat hitz bildu eta ezagutzera ematea.

Pizkunde aroko belaunaldiarengan Azkuek izandako eragin guztizkoa ongi ezagutzen den arren, Lizardiren 1928ko artikulu batek argi eta garbi aitortzen du Azkueren hiztegia guztiz begiragarria bazaie ere, eragozpen nagusi bat nabarmentzen zaiola, alegia, euskaratik erderara egina izateagatik eta gehienetan euskal idazleek alderantziz ihardun behar dutenez, erabilera zaileko gertatzen zaiela:

> "Pidiendo el debido tributo a la valía y méritos de nuestros primitivos diccionarios, fijémonos más especialmente en la presente ocasión en aquellos más modernos que casi exclusivamente han sido y están siendo empleados por los obreros del actual renacimiento euskérico. Se reducen a dos: el del señor Azkue y el de los señores Bera-López Mendizábal. Enorme, valiosísima, bastante a inmortalizar en la historia de nuestras letras de su infatigable autor es la labor que supone el primero, rico el tesoro en él recogido; pero dificulta en extremo su uso eficaz y corriente la carencia de clave romance. A remediar este obstáculo viene oportunamente el segundo, y su ayuda práctica al idazle ha sido por ello meritísima, pero en la actualidad comienza a ser ya insuficiente" [173].

Lizardik artikulu honetan askiezatzat sumatzen duen euskal hiztegien eremuan Euskaltzaindiak egiten diharduenak biltzen ditu garai hartako guztien itxaropenak. Amaitu gabe dago ordea.

---

172 ZAITEGI, J., "ETXETXO"; "Aitzolen gizaldia" in *Euzko-Gogoa*, I, 1950, 5-7. or. Azkueren hiztegiak belaunaldi horretan izan zuen eragina azpimarkatzen du:
"Euskel-iztegiko itzik asko, erdiak baiño geiago, noski, zokondoratuta zeuden; beraz, eskubete diña ez ziran itz moltsoz, beren oldozpenak adierazi behar zituten olerkariek. Amaika itz eztitsu, argi eta ezagun, baldankeriz eta zabarkeriz, ugarra yarioan eta sitsak janda zokondoan geundurik ziran. (...) Len esan dudanez, itz asko erdoiz janda, lizunez beteta, ta elbarriz jota, beste anitz, idazti zaarretan eta oraindik sakabanatu ta bakanduta zeuden. Beraz, alik eta itz berri gutxienik asmatuta, Azkueren iztegiko itz yatorrak bildu ta, erabilliaren erabilliz garbitu, soildu ta egutera ekarri zituten".

173 LIZARDI, X.; "Traducciones-diccionarios" in *Euzkadi*, 1928-8-7, 1. or.; *K-L* 125-126. or.

Lizardik aipatzen duen moduan, Roman Bera apaiz kapuntxinoaren eta Isaak López Mendizábalen artean osaturiko *Euzkel-Erdel-Iztegia* oso hedatua egon zen mende hasierako euskaltzaleen artean. Aita Villasantek *Historia de la literatura vasca*n gogor hartzen du hiztegi txiki hau, hoberik ez zegoelako hain zabaldua egon zen arren, ez delako, bere iritziz, batere gomendagarria nahas-mahas darabiltzalako euskal jatorriko betidaniko hitzak eta unean-unean egileek asmaturiko hitz berriak [174].

Villasanteren iritzi honek hiztegi horren balioa oso zalantzan jartzen badu ere, ez dago ukatzerik Pizkunde aroko idazlerik hoberenek ere iturri horretara jo zutela erdaraz pentsaturiko zenbait kontzepturen euskal ordaina bilatzerakoan. Lizardik behintzat hitzez-hitz aitortzen du hiztegi hori erabiltzen duela eta bere idazlanek lekukotza ukaezina ematen dute, bestelako hiztegietan aurkiezinak diren hitz-berriak, neologismoak, Bera-Mendizabalenean bait daude.

2.3.3.2. Euskaltzaleak eta hizkuntz ereduaren gaia

Lexikoaren arazo zehatz honetaz gain, Pizkunde arokoek, gipuzkoarrek bereziki erabili zuten hizkuntz eredua Azkueren gipuzkera osotua delakoa da. 1930 urteaz geroztik, Euskaltzaleak erakundearen asmoen eta iritzien bozeramaile izan zen Aitzolek ere behin eta berriro gaitzesten du maileguen, euskal jatorrikoak ez diren hitz latinoen ordez besterik gabe hitz berriak, asmatuak sartzea.

"Lucha de idiomas en Euskadi" deritzan 1935eko artikuluan garbizaletasunaren arazoaren aipamena egiten du, hitz berriez eta egitura morfologiko berregituratuez hizkuntzak jasaten duen artifizialtze prozesua salatuz eta hizkuntza biziaren aldeko iritzia adieraziz:

> "En el asalto de idiomas prepotentes por su cultura, la virtud es pactar, dar la bolsa antes que la vida. Toda nueva realidad importada, sea objeto o idea, se impone en las lenguas como un marbete, que es su nombre específico. Aceptarlo es estranjerizarse y desnaturalizarse; traducirlo es renovarse. Esta rara virtud de crear por traducción, en un círculo de lenguas pasivas y penetrables, es lo que explica mejor que todo hecho histórico, la maravilla de su supervivencia. Deben tener muy presente, sobre todo los literatos, que son los sustentadores del idioma que debe imprimirse esa movilidad al euskera si queremos que sea una lengua viva y palpitante huyendo del extremismo nefando de un purismo suicida" [175].

Pizkunde mogimenduaren hizkuntza ereduetan eredugarritzat jotzen zen Orixeren iritziz, euskalki bakoitzak bere bidea bilatu behar du, eta eredu bateratua moldatu:

> "Idazle giputzak on lukete beren phonetikaz zerbait erabaki, iakinsunak elkar arturik zerbait erabaki dezaten arte; nik Axular'i jarraikiko diot itzak bere zarrean, albait, ipiñirik. Sabin zanak bizkaitarrentzat soilik arauak eman zitun. Nere ustez, guk Lapurdiko ta Naparroa Barrenekoekin ere elkarragotzeagatik *itzak bere zarrean eta iatorrean (en sus formas primitivas puras)* erabilli bear ginuzke" [176].

Lizardiren kasuan, hizkuntz ereduari dagokionez, bilakaera sumatzen da lehenengo idazlanetatik azkenekoetara. Izan ere, lehenengoek Gipuzkoako euskalkiaren ezaugarri fonetiko guztiak idatziz adierazirik badituzte ere, eta Bilboko Euskeltzale Bazkunaren *Euzko Deya* aldizkarian idazteko sabindarren arauetara makurtzen da. *Euzko Deia*n argitaraturiko zenbait lan berriro argitaratzean, 1926an jadanik eredu normalizatu baterantz hurbiltzen ari dela suma daiteke: fonetismoak ezabatu

---

174 VILLASANTE, L; *Historia de la literatura vasca*, Sendo, Bilbo, 1961, 397. or.

175 AITZOL; "Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa" in *Yakintza*, II, 1934, 353-365. or. eta 431-438. or.; eta III, 33-42. or. eta 114-125 or. Oharra II. kapituluari dagokio, 435. or.; AITZOL; *Idazlan Guztiak*, II, 223-278. or.

176 ORIXE; "Oarra" in "Eusko Olerkiak. Bide onetik al goaz?" in *El Día*, 1932-8-28, 6. or.

eta hitzen forma "standard"a ematen saiatzen da. Aldeak argi eta garbi nabari daitezke edizio kritikoan 1926ko berrargitaralpenei ohartuz gero.

Azken urteetan berriz, 1926tik aurrerako lan berrietan "Gipuzkera osotua" erabiltzen bait du, Lapurdiko euskalkiaren kutsu gero eta nabariagoaz.

Lizardik eta Orixek bide bera onetsi zuten euskararen baterakuntzari zegokionez, Sabinoren joerak alde batera utziz, Azkueren "gipuzkera osotua" edo Euskaltzaindiaren ortografia erabakiak onartuz, lexikoaren aldetik eta hitzen forma osoak idazterakoan, lapurteraren bidea, lapurtera klasikoaren eredua bereganatu zuten, ortografiari izan ezik.

> "Crear un dialecto central literario, fué también una de sus aspiraciones. Sentía una especial predilección por el labortano. (...) Poco a poco iba extrayendo de los escritores y del habla corriente labortana frases y expresiones, que después, se han infiltrado en el gipuzkoano y en el bizkaino inclusive" [177].

Orixeren joera lapurterazalea Axularrek bezala, hitzak bere osoan eta bere zaharrean idaztera mugatzen bada ere, Lizardiren kasuan eragina areagokoa da, hiztegiaren aldetik eta zenbait egitura sintaktikoren erabileraren aldetik Orixek baino joera nabariagoa dauka, honengan euskalki nafarraren indarra sendoa bait da eta baita gramatikalari jaioa izatearen ondoriozko asmaketak egiteko joera ere.

Nola nahi ere den, ahoskatzerakoan euskalkiek dituzten fonetismoak grafiaz idazteko joera gaindituz, hitzen forma osoak berreskuratuz, eta idazle klasikoen idazlanak ezagutuz eta profitatuz, Lizardik eta Orixek garbizaletasunaren mendebalak euskeraren baitan, nahiz Sabino Aranaren bidetik, nahiz Azkuerenetik euskal literatura idatziaren tradiziotik urruntzeko joera zuzendu zuten, hizkuntza mintzatu biziaren ekarriari berea aitortuz.

2.3.3.3. Hizkuntz eredua auzigai: Kirikiño sariarekiko auzia. Batasun ortografikoaren auzia

Lizardi euskaltzale eta jelkide izanik, Sabino Aranaren hizkuntz ereduetatik urruntzeak gorabehera zenbait erakarri zizkion, eta bi "auzi" aipatuko ditugu hemen gaia konkretatzeko: lehenik, Kirikiño saria eratzerakoan sortu ziren tirabiren atzean zeuden irizpide linguistikoekiko arazoa, eta bigarrenik, batasun ortografikoari buruzko planteamentu konkretoen inguruko arazoa.

A.– Kirikiño sariaren iraspenaren gaia

Irizpide linguistikoen arloan Lizardik, eta orokorrean "Euskaltzaleak" erakundeak zituen joerak izan ziren Kirikiño sariarekiko arazoaren ardatz. Lizardik Eusko Ikaskuntza elkartearen baitan aurrera eramandako hiru ekintza nagusienen artean "Kirikiño" sariaren iraspenaren gaia aipatua dugu, baina hizkuntz ereduen gaiarekiko harremanetan aipatuko dugu orain hemen.

"Kirikiño" idazle mañariarrak hainbat urtetan bere esku izandako *Euzkadi* egunkariaren euskal orria utzi eta bere herrira erretiratu zenean, Lizardik eta Eusko Ikaskuntzako beste zenbait kidek euskal idazleei bihotz emateko, eta egunkarietan euskal idazleen lanak ugaldu eta hobetzeko asmoz, herri harpidetzaz osaturiko literatur sari bat antolatzea pentsatu zuten urteko kazetari idazlanik hoberenarentzat.

"Un heroe mal estimado" [178] deritzan artikuluan euskal idazleak suztatzeko literatur sari bat irasteko proposamena luzatu zuen Lizardik, "institución de un premio literario de importancia"

---

177 AITZOL; "El poeta Jose María Agirre. Xabier de Lizardi", 175. or. Orixek "Eusko Olerkiak. Biotz Begietan. Lo clásico y lo moderno" (*Euzkadi*, 1932-4-26) gauza bera azaltzen du:
"Su euskera, dialectalmente gipuzkoano, toende al nabarro-labortano en su composición gramatical. Tiene gran instinto lingüístico haciendo dar a la lengua lo que ella da de sí. [ ] A un mismo tiempo ha sido cultivador constante y cariñoso de nuestra lengua y de la literatura. En ésta ha sido autodidacto, y en aquella se ha aprovechado hasta de las últimas migajas que escapaban a escritores modestos o ilustrados. Un buen día, hace unos cinco años,

atalaren barruan. Hurrengo beste artikulu batean "De nuestro mundillo literario" [179] delakoan sariketa literarioen gaiarekin jarraitzen du, eta gauza bera esan genezake "Chismorreo literario" [180] artikuluaz. Giroa berotzen, prestatzen ari da sariketa literarioek maila egokia lor dezaten eta idazleak ausar daitezen haietan eskuhartzen.

Eta "Zizka-Mizka" [181] artikuluan Kirikiñoren erretiroa dela eta egiten dion bihotz-agurketaren ondoren, handik hilabetetsu inguruan, aipatzen da lehen aldiz sariketaren gaia, zehazki "El escritor euskerico" [182] artikuluan.

"El futuro premio Kirikiño" [183] artikuluan dago jasoa "Kirikiño saria"ren asmoaren jatorria: Zumarragako Euskeraren Eguneko literaturaren inguruko bilera batean sortu omen zen asmo hau, nahiz eta aurretik *Euzkadi* egunkariaren euskal orritik, Zinkunegik urtean euskaraz argitaraturiko artikulurik onenarentzako sari iraunkor bat irastea proposatua omen zuen.

Honela hartu zuen taxuera, beraz, Kirikiño sariaren asmoak. Helburua, Kirikiño omentzeaz gain, egunkarietako idazleei aintza apur bat eskeintzea izan zen, eta egunkarietan ere euskerarentzat bazterreko txokoak eman gabe, azalak eta lehen orriak eskaintzeko zioa ematea, sariaren garrantzia zela eta.

1929an bertan, eta artean sariaren gaia behar bezala borobildu gabe zegoelarik, Kirikiño idazlea hil egin zen. Lizardik mañariarraren ehorzketa eta elizkizunetara joan zelarik, barne sentimenduz kutsaturiko egun haren deskriptzio sarkorra egiten du "Hora triste" artikuluan [184].

Haren jarraian hurrengo hiru hilabeteetan Kirikiño sariaren aldeko giroa berotzearren, zenbait artikulu argitaratu zituen Lizardik, "Kirikiñoren omenez" [185] delarik horien artean aipagarriena. 1929 urteak aurrera egin ahala, Lizardi konturatua zen proiektuak ez zuela aurrera egiten. Euskaltzaleak erakundearen 1929ko martxoko aktak elkarte honek sariaren gaiari buruz duen irizpidea estimagarria izan arren, herri-harpidetzak ez du aurrera egiten.

> "Por último y a propuesta del Presidente señor Echegaray se acordó hacer constar el gran interés de la federación por la realización de los fines del Premio Kirikiño, interés que deberá ser mostrado por todas las entidades federadas en relación con la comisión nombrada para la organización de dicho premio" [186].

Euskaltzaleak erakundeak bere oniritzirik garbiena adierazi arren, Lizardik proiektuak porrot egingo duela ikusten du, eta horren lekuko dira apirila eta maiatza bitarteko bi artikulu, beren

---

apareció por primera vez la firma de "Lizardi'tar Xabier" en una polémica sobre la preferencia de la Prensa o de las escuelas. Algunas expresiones de sus primeros artículos nos hacían inclinarnos francamente a decidir si era o no euskaldunberri. . a poco, a muy poco, reconocíamos al hombre que lee con cuidado y se aprovecha de los aciertos de los buenos hablistas".

178 LIZARDI, X.; "Un héroe mal estimado" in *Euzkadi*, 1928-8-27, 1. or.; *K-L* 122-124. or.

179 LIZARDI, X.; "De nuestro mundillo literario" in *Euzkadi*, 1928-8-30, 1 or.; *K-L* 130-132. or.

180 LIZARDI, X.; "Chismorreo literario" in *Euzkadi*, 1928-9-9, 1. or.; *K-L* 132-135. or

181 LIZARDI, X.; "Zizka-Mizka" in *Argia*, 386, 1928-9-9, 1. or.; *K-L* 135-136. or.

182 LIZARDI, X.; "El escritor euskérico" in *Euzkadi*, 1928-10-11, 1. or.; *K-L* 136-138. or

183 LIZARDI, X.; "El futuro premio Kirikiño" in *Euzkadi*, 1928-10-12, 1. or.; *K-L* 138-140. or.

184 LIZARDI, X.; "Hora triste" in *Euzkadi*, 1929-2-8, 1. or.; *K-L* 203-206. or. Lizardik deskribapenak egiteko duen gaitasun bereziaren adibidetzat aipa liteke, "Tristezas de un jocoso sentimental" delakoarekin batera. Zaitegik gorderiko Lizardiren paperen artean jasoa dago Kirikiñoren errekordatorioa.

185 LIZARDI, X.; "Kirikiñoren omenez" in *Euzkerea*, 1929-2-15, 23. or.; *K-L* 206. or.

186 in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 1929-3-5, 11. or.

izenburuaz aski argigarriak direnak: "Un proyecto que no debe fracasar" [187] eta "Ez sari eta ez eskupeko" [188].

Proiektuaren bide zail horren eragozpen nagusienetako bat, hain zuen ere, atal honetan aipatzen ari garen hizkuntz ereduen artean Pizkunde aroan gertatu zen banaketa eta are tira-bira izan zela esan daiteke.

Engrazio Arantzadi "Kizkitza"k *Euzkerea* aldizkarian argitaraturiko "Por el euzkera y por Kirikiño" [189] artikuluak eragin zuen aldizkariaren arduradun ziren Jemein, Jaio eta Egilleor jaunek emaniko erantzunak salatzen du benetako eragozpena:

> "Ese proyecto-homenaje tiene un vicio fundamental y a causa de él no atrae a muchos, muchísimos euskeltzales, no arrastra sus nombres a la lista de subscriptores. Y entre los inhibidos nos contamos nosotros. Nosotros, señores promotores, nosotros, señor Kizkitza, los que integramos Euzkerea; los que hemos nacido para recoger la maravillosa escuela euzkerólogica de Arana-Goiri, los que vivimos para defenderla del imnotivado, injusto, vacío, huero y engolado combate que se le ha venido haciendo, unas veces en forma clara y otras con complacencia soslayada. Hemos de acudir con nuestra colaboración a esa idea, cuando conocemos el medio en que ha nacido y la tendencia euzkerista de quienes han de practicarla? ¿Cómo, dados aquel medio y ésta tendencia no hemos de conocer por anticipado, lógicamente, que el proyecto con su estímulo y premios anuales, habría de robustecer sistemas y escuelas euzkerológicas contrarios a los que extendemos y divulgamos desde esta revista?" [190].

Euzkerea aldizkariaren indarra editorialaren azkenaldera esaten dena bezainbestekoa baldin bazen [191] ez da harritzekoa, Lizardik Euskaltzaleak erakundearen bidez hainbat ahalegin egin arren, Kirikiño sariaren proiektuak aurrerabiderik ez izatea. Kirikiño sariaren suztatzaileak beren buruak eskola aranazalearen jarraitzaile ez agertzea zen nobait, ezintasunaren arrazoia.

Jarrerak garbitzen zituen artikulu honetatik aurrera ez zuen Lizardik Kirikiño sariari buruzko beste artikulurik argitaratu, 1929are azaroaren 10ean sariketa irasia zela esanez "Kirikiño saria" zeritzan artikulua argitaratu zuen arte. Azkenik, sariaren harpidetza ugariena eskuraturikoek, Bilbokoek, sariaren epailetzaren esklusiba eskatu zuten berentzat, eta azkenerako hala egitea erabaki zen.

B. Batasun ortografikoaren auzia

Lizardik eta Orixek hizkuntz ereduari dagokionez, sinkopak eta lotura fonetismoak ezabatzea onarturiko erabakia da zalantzarik gabe beren idazlanak eta beren ingurukoenak gehienik zedarritzen dituen ezaugarrietako bat. Orixek Axularri jarraikiz, "itzak bere zaarrean" ipiniko zituela zioen. Gisa berean, Lizardik 1932ean, Eusko Ikaskuntzak antolaturiko uda ikasaldietako hitzaldietako batean Orixek "Bide onetik al goaz?" artikuluaren oharrean duen asmo bera azaldu zuen:

> "Para el renacimiento de la lengua vasca juzgó indispensable el Diccionario y la unificación ortográfica. El señor Jose María Agirre señaló que una de las medidas también indispensables sería la supresión de los fonetismos dialectales en la ortografía vasca" [192].

---

187 LIZARDI, X.; "Un proyecto que no debe fracasar" in *Euzkadi*, 1929-5-5, 1. or.; *K-L* 212-215. or.

188 LIZARDI, X.; "Un proyecto que no debe fracasar" in *Argia*, 419, 1929, 4 or.; *K-L* 212-214. or.

189 "Por el euzkera y por Kirikiño" editoriala in *Euzkerea*, VI, 1929-4-27, 87-89. or.

190 Ibidem.

191 "...este tal vez insignificante grupito por su número y calidad, pero que siente en sí raudales de entusiasmo y cree que de haberlos podido ofrecer sin reservas al proyecto-homenaje éste hubiera constituido un éxito...".

192 "Hoy terminan los cursos de verano de Eusko Ikaskuntza en Donostia" kronika in *El día*, 1932-7-6, 1. or.

atalaren barruan. Hurrengo beste artikulu batean "De nuestro mundillo literario" [179] delakoan sariketa literarioen gaiarekin jarraitzen du, eta gauza bera esan genezake "Chismorreo literario" [180] artikuluaz. Giroa berotzen, prestatzen ari da sariketa literarioek maila egokia lor dezaten eta idazleak ausar daitezen haietan eskuhartzen.

Eta "Zizka-Mizka" [181] artikuluan Kirikiñoren erretiroa dela eta egiten dion bihotz-agurketaren ondoren, handik hilabetetsu inguruan, aipatzen da lehen aldiz sariketaren gaia, zehazki "El escritor euskerico" [182] artikuluan.

"El futuro premio Kirikiño" [183] artikuluan dago jasoa "Kirikiño saria"ren asmoaren jatorria: Zumarragako Euskeraren Eguneko literaturaren inguruko bilera batean sortu omen zen asmo hau, nahiz eta aurretik *Euzkadi* egunkariaren euskal orritik, Zinkunegik urtean euskaraz argitaraturiko artikulurik onenarentzako sari iraunkor bat irastea proposatua omen zuen.

Honela hartu zuen taxuera, beraz, Kirikiño sariaren asmoak. Helburua, Kirikiño omentzeaz gain, egunkarietako idazleei aintza apur bat eskeintzea izan zen, eta egunkarietan ere euskerarentzat bazterreko txokoak eman gabe, azalak eta lehen orriak eskaintzeko zioa ematea, sariaren garrantzia zela eta.

1929an bertan, eta artean sariaren gaia behar bezala borobildu gabe zegoelarik, Kirikiño idazlea hil egin zen. Lizardik mañariarraren ehorzketa eta elizkizunetara joan zelarik, barne sentimenduz kutsaturiko egun haren deskriptzio sarkorra egiten du "Hora triste" artikuluan [184].

Haren jarraian hurrengo hiru hilabeteetan Kirikiño sariaren aldeko giroa berotzearren, zenbait artikulu argitaratu zituen Lizardik, "Kirikiñoren omenez" [185] delarik horien artean aipagarriena. 1929 urteak aurrera egin ahala, Lizardi konturatua zen proiektuak ez zuela aurrera egiten. Euskaltzaleak erakundearen 1929ko martxoko aktak elkarte honek sariaren gaiari buruz duen irizpidea estimagarria izan arren, herri-harpidetzak ez du aurrera egiten.

> "Por último y a propuesta del Presidente señor Echegaray se acordó hacer constar el gran interés de la federación por la realización de los fines del Premio Kirikiño, interés que deberá ser mostrado por todas las entidades federadas en relación con la comisión nombrada para la organización de dicho premio" [186].

Euskaltzaleak erakundeak bere oniritzirik garbiena adierazi arren, Lizardik proiektuak porrot egingo duela ikusten du, eta horren lekuko dira apirila eta maiatza bitarteko bi artikulu, beren

---

apareció por primera vez la firma de "Lizardi'tar Xabier" en una polémica sobre la preferencia de la Prensa o de las escuelas. Algunas expresiones de sus primeros artículos nos hacían inclinarnos francamente a decidir si era o no euskaldunberri. . a poco, a muy poco, reconocíamos al hombre que lee con cuidado y se aprovecha de los aciertos de los buenos hablistas".

178 LIZARDI, X.; "Un héroe mal estimado" in *Euzkadi*, 1928-8-27, 1. or.; *K-L* 122-124. or.

179 LIZARDI, X.; "De nuestro mundillo literario" in *Euzkadi*, 1928-8-30, 1 or.; *K-L* 130-132. or.

180 LIZARDI, X.; "Chismorreo literario" in *Euzkadi*, 1928-9-9, 1. or.; *K-L* 132-135. or

181 LIZARDI, X.; "Zizka-Mizka" in *Argia*, 386, 1928-9-9, 1. or.; *K-L* 135-136. or.

182 LIZARDI, X.; "El escritor euskérico" in *Euzkadi*, 1928-10-11, 1. or.; *K-L* 136-138. or

183 LIZARDI, X.; "El futuro premio Kirikiño" in *Euzkadi*, 1928-10-12, 1. or.; *K-L* 138-140. or.

184 LIZARDI, X.; "Hora triste" in *Euzkadi*, 1929-2-8, 1. or.; *K-L* 203-206. or. Lizardik deskribapenak egiteko duen gaitasun bereziaren adibidetzat aipa liteke, "Tristezas de un jocoso sentimental" delakoarekin batera. Zaitegik gorderiko Lizardiren paperen artean jasoa dago Kirikiñoren errekordatorioa.

185 LIZARDI, X.; "Kirikiñoren omenez" in *Euzkerea*, 1929-2-15, 23. or.; *K-L* 206. or.

186 in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 1929-3-5, 11. or.

1932ko Uda Ikasaldi horietan hizkuntz ereduari buruzko eztabaidaketa izan zen nagusi. Hurrengo egunetan egunkarietan agertuz doazen artikuluen gaiei erreparatuz gero, batasunaren inguruko eztabaida bizia izan zen.

Justo Garatek "Existe una cultura vasca?" hitzaldian euskalkiek euskara idatziaren sorrerarako aurkezten dituzten eragozpenak aipatu zituen. Aitzolek, berriz, Justo Garateren hitzaldi horren kronika egitean, euskalkiak elkarrengadik bereizten ahalegintzen direnek egiten duten kaltea azpimarkatzen du:

> "Dió lugar al pesimismo del conferenciante [Justo Garate] la variedad funestísima de los dialectos euskeldunez. Es lastimosamente cierto. Algunos con una obcecación de mente incomprensible la fomentan, cavando así una sima que impida llegar a la unificación del euskera. La actuación de estos es mas funesta para el euskera que la de Unamuno. El euskera no podrá sobrevivir sin unidad literaria y pedagógica. Creer otra cosa es perder lastimosamente el tiempo. En su intervención el señor Jose María de Aguirre expuso acertadas iniciativas para los escritores euskaldunes para que laboren por la unificación del euskera literario. La unificación gráfica es un hecho. Debemos tender, como medida urgente a la unificación fonética" [193].

Euskalkiak elkarrengandik bereizten aritzen direnei buruzko Aitzolen aipamenek eskola aranazalekoen sentiberatasuna mindu zuen nonbait, eta Lizardi eta Kirikiño sariaren auzian ikusi ditugun izen berak ikus daitezke hiru urte geroago, Aitzolen artikulu honi erantzunez, "Carta abierta a Aitzol" [194] deritzan gutunaren oinean: Manuel Egilleor, J.M. de Errazti, Ceferino de Jemein, Antonio de Irala, Luis de Arbeloa, Estepan Urkiaga eta Manuel de Iriondorenak.

Aranazaleen jarrera euskalkien baterakuntzaren aurkakoa da, Aranak hala esan zuelako, abertzaleena horri eustea delako batetik, eta bestetik, baterakuntza horri kaltegarria irizten diotelako.

Luis Jauregiren eta Aitzolen kroniken bidez ezagutzen da Lizardik horretarako proposamen zehatzak ere egin zizkiela idazleei, eta berak bere buruarentzat harturiko jokabide horren egokitasunaz jabetu arazi nahi zituela bere kideak. Lizardiren jarrera hori zela medio, eta Kirikiño sariaren arazoan zehar eskola aranazalekoek agertu zuten zorroztasunaren ondoren, ez da zaila ulertzen eskola hartakoek eta Aitzolen arteko eztabaida honen antzerako beste "elkarrizketa" moduko bat garatu izana, eskutitzen bidez, Lizardi eta Tomás de Jayoren artean Lizardiren ohitura ortografikoak zirela eta.

Jayo, Jemein eta Lizardiren arteko eztabaida hori gutun pertsonalen bidez garatu zen 1931ko azaroan. Lizardik *Euzkadi*ra "Sabino poeta" deituriko artikulua bidali zion, urteroko haren jaiotegunaren omenaldian argitara zedin, azaroaren 25ean. Argitara baino lehenago, ordea, bere eskuetan jaso zuen Tomás de Jayok gutun bat zuzendu zion Lizardiri 1931ko azaroaren 16an. Euzkadi eta etimo bereko beste zenbait hitzetan ortografia "zuzendu" egingo zizkiotela oharterazi zioten.

Lizardik hurrengo egunean, azaroaren 17an bidaliriko beste gutun batean nahi zituzten aldaketak egiteko erantzun zion, gainerakoan, bere iritziari eutsiko ziola, horrek Sabinori zor zion begiramena ezertan gutxituko ez zuelarik.

---

193 AITZOL; "Existe una cultura vasca?" in *El Día*, 1932-7-8, 1. or. Aitzolek "Carta abierta a Egilleor, Irala, Lauaxeta"(1932-7-14, 1. or.) delakoaz erantzun zuen, batasunaren aldeko izatea Sabinoren irizpideak ez ezagutzea eta harenganako leialtasuna galtzea denik ukatuz, eta eztabaidarako oinarri batzuk proposatuz. Ez da egunkarietan eztabaida horren lekukotza gehiagorik azaltzen. Dena den, garrantzizkoena zena azaldurik geratzen dela uste dut honenbestez: Pizkunde mogimenduko idazleak hizkuntz eredu bateratu baten premia latza sumatzen dute argitaralpenak egiteko, eskolak emateko, idazteko,... eta baterakuntza ortografikoaren hurrena, baterakuntza fonetikoari ekiteko prest agertzen dira, euskara mintzatuaren sinkoparako eta loturazko hotsaz ezabatzeko proposamena eginez.

194 in *El Día*, 1932-7-12.

Azken gutuna Jemeinek Bizkai Buru Batzarretik Lizardiri azaroaren 23an eginikoa da, eta ezaguten dugun argudio nagusi horri lotzen zaizkio oraingoan ere Aranaren jarraitzaileak:

> "Tenemos además la seguridad de una solución que no puede ser rechazada por ningún nacionalista, por ser dictada por nuestro Maestro Sabino de Arana-Goiri" [195].

2.3.4. Eredu idatziaren normalizazio premiaren kontzientzia

Normalizazio linguistikoaren arazoaren inguruan garai hartako jarreren koordenadatan Lizardiren eta Euskaltzaleen proposamenei buruz azaldurikoaren ondorioz, esan daiteke Lizardik euskara idatziaren normalkuntzaz eginiko proposamenak hizkuntzarentzat hil ala biziko auzia dela du oinarritzat. Kultur bideetan sartuz, normalizazio soziala ez ezik, hizkuntzak norma idatzia behar du iraun ahal izateko.

Bere ihardun konkretuari dagokionez, aldiz, 1927tik aurrera, Euskaltzaindiaren arauak onartu egiten dituela frogatzen dute artikuluek, eta erabaki horiek kritikatzen dituen lekuko den artikulu bat ere bada "Respetuosamente a Euskaltzaindia" deritzana. Data horretatik aurrera idazleek erabiliko duten hizkuntz ereduaren baterakuntzak kezkatzen duela ikus genezake, eta hori erdiesteko proposamen zehatzak aurkeztu zituela ere bai.

Aurreko atalean gizartean eta kulturaren arloan euskarari zor zaion normalkuntzaren bidea hartu behar dela ohartzerazi zuen era berean, hizkuntzaren normalkuntza linguistikoaren bidetik ere aitzina egiteko premiak kezkatzen zuen, eta bere bide pertsonalek hizkuntz literario erabat landua sortzera eraman zuten.

Lizardik euskarari buruz duen ikuspuntuaren modernotasuna eta zorroztasuna kultur arloan zuen ikuspuntu orokorrarekin bat egiten du. Lizardi XX. mendeko zenbait ikuspuntu erromantikotatik urruntzen da, nabarmenki. Ama euskeraren heriotzarengatiko malkoen garaia [196] atzera utziz, hil ez dadin lortzen saiatuko da, artez edo moldez. Bide bat baino gehiago saiatu zuen, Eusko Ikaskuntzaren barruan garatu zuen ihardunaren azalpenean esana dugunez.

Xehetasunez azaldu dugun atal honetan frogatu nahi izan duguna Lizardiren planteamentuen modernotasuna eta zorroztasuna izan dira, garaiko epeltasun edo noragabeko ihardunaren aldean. Eta honi dagokionez, nabarmendu beharra dagoela uste dut Lizardiren hitzezko eta egitezko euskaltzaletasuna euskara egoera diglosikoa gainditzen hasteko puntuan kokatu zuen kontzientziadun bakanetako bat izan zela.

Hizkuntzaren normalkuntzaren inguruko planteamentu hauek, bestalde, mintzaira literarioari buruzko ideien esparru berean sortzen dira: beste hizkuntzak bezalakoa, normala izateko egoeran bizitzeko duen eskubidearen aldarrikapena egiten du.

2.4. EUSKALTZALEAK ERAKUNDEA ETA OLERKARIAK. LIZARDI ETA AITZOLEN GIDARITZEN ARTEKO ETENA

2.4.1. Pizkunde aroko olerkarien belaunaldia. Mugak eta ezaugarriak

Euskaltzaleak erakundeak eraturiko Eusko Olerti Jai, olerkarientzako bilera eta sariketen inguruan sorturiko mogimenduari, modu orokorrean, "olerkarien mogimendua" edo Pizkundea deitu izan zaio, garai hartakoek behin eta berriro erabiltzen zuten kontzeptuari jarraiki.

---

195 Ikus "Lizardiren Eskutitzak" eraskinenan, 39., 40. eta 41. Dokumentuak.

196 Ikus "Edizio Kritiko baterako" eranskinean 1918ko *Amonatxo zimel maitagarriya*ri buruzko ohar kritikoak.

Beren buruari Olerkariak zeritzen belaunaldi edo idazle multzoari, generazio literario gisa nortasuna emateko ahaleginetan 1950 urtean Jokin Zaitegik eginikoa da lehena eta aipagarriena. "Atzolen belaunaldia"ren deitura nagusiaz, guda aurreko "olerkari"en multzoa generazio gisa definitu zuen [197].

Jokin Zaitegik izendatu zuen lehen aldiz belaunaldi hau Aitzolen belaunalditzat. Eta honela, gudaurreko euskal literaturaren historian belaunaldikako sailkapen saioetan lehena burutu zuen.

1950ko artikulu hartan Jokin Zaitegik hala izendatzeko ematen dituen arrazoiak honako hauek dira:

> "Orain arte euskarak izan ditun olerkari garaienak eta bikañenak Aitzol'en baranoan loratu ziran, nonbait. Alegia, 1930 garren urtetik 1936rarte. Zazpi urteok, benetan, arrigarriak izan zenitun euskel-olerkarien onerako.Nik uste, zazpi urte ok betirako goragarri izango dirala, Eusko-Olertiaren edestian. Ori dala-ta, nolabait izendatu eta sailkatu bear-eta, aldi ori "Aitzol'en gizaldia" izendatu dezakegu. Aitzol izan bai-genun guziok eragille eta zirikatzalle, nolarebait. Ta beraren zaiñetako odolez edertu baitzigun guzion euskeltzaletasuna."[198].

Jokin Zaitegik Aitzolen izenaz bataiaturiko belaunaldiaren azterketa aipagarria egiten du. Aitzolenen inguruan "loratua" eta "guzien eragile ta zirikatzaile" izateagatik ematen dio Pizkunde garaiko belaunaldi horri haren izena.

Entsegu labur hori sakonki aztertuz gero, aldiz, badirudi Jokin Zaitegirentzat belaunaldi horrek dituen hainbat ezaugarri erkidek ematen diola idazle sail horri belaunaldi deitura emateko arrazoibidea, eta kapitulu honetan aztertuz joan ahala, ezaugarri erkide horiek Aitzolen eraginaren ondorio ez direla ikusiko da. Haren gidaritzapean Euskaltzaleak erakundeak antolaturiko ekintzetara bildu ziren idazleak 1930 baino lehenagotik ezagunak ziren, gehienak argitaratzen ari ziren eta zituzten ezaugarri amankomunetan oinarritzen da Zaitegi belaunaldi gisa zituzten ezaugarriak nabarmentzeko.

2.4.1.1. Belaunaldiaren ezaugarri amankomunak

Jokin Zaitegik berak esaten duenez, edozein literatur historiatan —"elerti-edestietan"— olerkari eta idazleak sailka bildu ohi dira, beraz Aitzolen deituraz bataiatu duen belaunaldi honen ezaugarri erkideak aipatzeari ekiten dio.

Aipatzen duen *lehen arrazoia kronologikoa* da, hain zuzen ere idazle gehientsuenok 1890 urteaz geroztik jaioak izanaren arrazoia. Lehen arrazoi hauxe da, hain zuzen ere, belaunaldien sailkapenean aipatu ohi direnetan ohizkoenetakoa.

Bigarrenik aipatzen duena, belaunaldi hartako idazleen *kultura maila jasoa* da, ikasiak izatearen ezaugarria alegia.

> "Nondik naiko idaztiak irakurtzeko itoak giñan geientsuenak. Batez ere olerti-idaztiak. Parantze, Germani, Ingalaterra ta Itali'ko olerkarien idaztiak irauli genitun. Españikoak ez orrenbeste" [199].

Zaitegik beren irakurketak Espainiako literaturaren mugak gainditzen zituela azpimarratzen du, eta nazioarteko literaturaren eraginpeko literatura egiten zuten idazleak zirela.

---

197 UGALDE, M.; "Biografía de Aitzol" in *Aitzol. Idazlan Guztiak*, I., 67. or. Euskaltzaindiaren liburutegian gorderik dagoen izkribu baten aipamena egiten du, euskaraz dagoela dio, izenburua "La generación de Aitzol" itzultzen duelarik.

198 ZAITEGI, J., "ETXETXO" ; "Aitzolen gizaldia" in *Eusko Gogoa*, I., 1950, 5-7. or.

199 ZAITEGI, J.; *Ibidem*, 5. or.

Hirugarrenik, belaunaldiaren partaide diren idazle hauek *elkarren artean harremanak* zituztela azpimarratzen du Zaitegik. Alde batetik, gutun bidezko harremanak zituztela, eta bestalde, gehientsuenak *Yakintza* aldizkarian idaztearen ondoriozko harremana ere bazutela aipatzen du.

Belaunaldien sailkapenaren arloan ezaugarri edo faktorerik aipatuenetakoa izan ohi da idazleek elkarren artean izaniko harreman pertsonalen argudio hau. Pizkunde aroko idazle hauek elkarren artean izaten zituzten gutun bidezko harremanen lekukotza oso da zehatza. "Aitzolen belaunaldia" deituriko artikulu honetan Jokin Zaitegik dioen bezala:

> "Amaika idazki eder eskuratu nitun Aitzol, Lizardi, Orixe, Lauaxeta ta Etxeberria'k neroni idatziak, beintzat. Idazkiok maitez bildurik ditut oraindik" [200].

Hain zuzen ere, gutun pertsonal horiek artikulu honetan bildurik izan zituenaren lekukotza baliotsuak dira, lan honen sarreran dokumentazioaz aritzean aipatu dugunez.

Aitzolen gizaldiaren zedarriketara itzulirik, hirugarren ezaugarri gisa aipatzen duen *Yakintza*ren partaide ziren argudioari erantsi geniezaioke ia denok izan zirela horretaz gain, Euskaltzaleak erakundearen partaide eta beraz hainbat ekintza kulturalen eratzaile, antolatzaile eta suztatzaile.

Frogagarri gisa, aipa genitzake esaterako erakundearen beraren sorketan eta ekintza nagusietan agertzen diren izen zerrendak eta zehazki bat aipatu behar izanez gero, Euskaltzaleak taldeak eratutako Eusko Olerti Jaietako partaidetza zerrendak ikustea aski litzateke beren arteko harremanaren lekukotza gisa. Zalantzarik gabe, kronologikoarekin batean elkarren arteko harremanen intentsitateari buruzko irizpide hau aipa litezke belaunaldi gisa karakterizatzeko garrantzitsuentzat.

Laugarren ezaugarritzat ezein alderdi politikori loturik ez egotea aipatzen du Zaitegik. Sabino Arana Goiriren eragin nagusia azpimarratu ondoren.

> "Iruzpalau ez beste ez gifian iñongo alderdiko, euskaldun eta euskaltzale baizik. Ori bai euskaldun bakar-bakarrik".

Zatitxo hau irakurriz, eta noizkoa den pentsaturik, batek izan lezake irudipena Zaitegik gerraren ondoriozko egoeraren eraginpean idatzia dela. Aitzolen guda aurreko zenbait artikulu aintzat hartuz gero, ordea, behin eta berriro ikusiko dugu azpimarkaturik ezein alderdi politikori ez atxeki nahi izateko borondate hori, ez bere pertsona bera eta ez Euskaltzaleak erakundea ere [201]

Manuel Lekuonak ere "La época de Aitzol" izeneko irratsaioan ideia bera jasotzen du:

> "La visión certera de Aitzol organizó por entonces la Asociación de "Euskaltzaleak" una institución modelo a base de una neutralidad política total. La mayoría de los socios eran nacionalistas, pero dada su orientación de neutralidad política, contaba también con un buen número de socios de significación tradicionalista o monárquica" [202].

Antonio Elorza ere bat dator Lekuonaren baieztapen honekin Aitzolek Euskaltzaleak erakundearen lerro nagusiari, kultura arloari zegokionari atxikitzea nahiago zuela euskararen aldezpen eta suztaketa lanari politikarik gabeko zentzu euskaltzalea ematea, eta ez "abertzale hutsa" [203].

Azterle guztiek diotenez, Aitzolek berak eta Euskaltzaleak taldeak ere bai, kolore politikoz ez kutsatzea berarizko erabakia zuten, Euskaltzaleak taldeak partaide izan zitezkeen askori atea zabalago uzteagatik.

---

200 *Ibidem,* 5 or.

201 Argibide gisa, Gipuzkoako Aldundiak "Euskaltzaleak" erakundeari ematen zion dirulaguntza xumea erretiratzeko saioa egin zuenean, *El Día,* 1934-11-29.ko "Qué es y cuanto ha hecho por la cultura vasca la Sociedad Euskaltzaleak" artikuluan Aitzolek gogora arazten du berak "no interviene, ni ha intervenido jamás en política".

202 LEKUONA, M.; "La época de Aitzol" in *Idaz-lan guztiak,* VIII, Kardaberaz bilduma-29, Gasteiz, 1984, 362. or.

203 ELORZA, A.; *Las ideologías del nacionalismo vasco,* Haranburu-Altuna, Donostia, 1978, in UGALDE, M.; "Biografía de Aitzol" in AITZOL; *Idazlan Guztiak,* I, 59. or.

Beraz, lehen begiratuz, guda osteko justifikapen edo gisako zerbait dirudiena, guda aurretik ongi zedarriturik zegoen eta garrantzia zuen puntua da. Euskaltzaleak erakundeak ekintza kultural guztietan kolore politiko jakin batetik aldendurik egon nahi izan zuen.

Boskarrenik, bateratzen zituena ekintza politikoa izan beharrean, beren *lanaren helburua* zela baieztatzen du Zaitegik: "euskera orraztu, apaindu ta txukunean olerkiak eusko-gogoz egin. *Euskadiren gogoa asmatu eta azaldu*".

Zaitegik aipatzen duen helburu baterakor honetan hizkuntzaren aldetik Azkueren hiztegiak izan zuen eragin garrantzitsua oharterazten du, haien harrobia izan zela azpimarkatzen du, literatura gaietan "Orixe"'ren euskel-lanak irakasgai gisa erabiltzearekin batera:

> "Berau genun gure otsemalle ta irakasle nolarebait" [204].

Lizardiri dagokionez, Zaitegik aipatzen duen euskal arimaren bilaketa, Euskadiren gogoa asmatu eta azaldu nahi horrek garrantzi berezia duela esan behar da mintzaira poetikoaren moldaketan lehentasuna eman zien ezaugarriak aztertzerakoan [205].

Olerkarien belaunaldi osora itzuliz, "eusko-gogoz idaztea"ren arloan aipagarria den aipamen bat egiten du Zaitegik, beren olerkigintzan arima hori bilatu nahiz eman zuten erantzuna "Europek aizatutako Euzkadi" izan zela, alegia. Hau da, Europako kulturari irekiriko, hango idazlanak irakurtzetik itsatsiriko izpiritua bereganatuz ari zirela, ez zeudela Espainiari begira huts-hutsik, edo heuren zilborrari itsatsirik, baizik eta euskaren benetako arima berria Europagan zetzala, eta hura zela idazleok bereganatu nahi zutena.

Bigarren puntuan aipatu duena bermatzera dator beraz, kultura maila eta munduan barrena sortzen denaren berri jakin nahia. Honen frogagarri aipa daitezke gutxi batzuk baizik ez aipatzearren, Lauaxetaren *Euzkadi* egunkariko idazlanak Europako literaturako hainbat literaturagile eta kultur gertakari eta protagonistei buruz, bai eta Aitzolen artikuluek eta liburuek adierazten duten Europako kultura minoritario nahiz nagusien ezagutza eta kultura zabala.

Seigarren puntu gisa, *olerkigintzari dagozkion berezko arazo teknikoei* heltzen die: hiztegi poetikoari eta metrikari.

Joera garbizaleen indarra azpimarratzen du puntu honetara heltzean. Pizkunde aro horren hasieran zegoen egoera azaltzen du. Hiztegiaren aldetik, euskal hitz asko ahazturik, zokoraturik egotearen arazoa aurkezten du,"ugarra yarioan eta sitsak yanda zokondoan geundurik". Hau da, euskal jatorrizko hitz ugari bazterturik eta erdal maileguez josiriko hizkuntza duten irudipena dute garaiko idazleek bi *garbizale* joerarik nagusienen eraginpean bait daude, Sabino Aranarena alde batetik, eta Azkuerena bestetik.

Garbi dago, hemen Zaitegik dioenarengatik, Azkueren joera onesten duela eta berrezarpen lexikala dela aipatzen duen irteera egokia: sakabanaturik, Euskal Herriko zokoetan gorde diren hitzak berreskuratu eta idazle zaharren idaztietan gorderiko idazlanen berreskuraketaren bidez zuzendu nahi duela ordurarteko zabarkeria:

> "Beraz alik eta itz berri gutxienik asmatuta, Azkueren iztegiko itz yatorrak bildu, ta, erabilliaren erabilliz garbitu, soildu ta egutera ekarri zituten. Orrela, ordurarteko olerkietan erabiltzen zen itz-eli urritxoa ugaldu zan" [206].

Berrikuntza egin zen beste alor nagusia, beti ere Zaitegiren irizpideari jarraikiz, metrikarena, "euskel-itz-neurtizketarena" izan zen.

---

204 ZAITEGI, J.; op. cit., 5 or.

205 Ikus II. partea, 1.3."Euskal arima eta euskal artea".

206 ZAITEGI, J.; op. cit., 6 or.

Alde honetatik ere euskal olerkigintzak eragozpen handia zuen urritasunaren aldetik, "geientsuenik amar silabadun itz-neurtizkera lo-argarria erabilli oi zan" [207].

Olerkarien lanetan isladatzen den errealitate bat da hau, eta froga zehatzak ematerakoan gure lanari mugak jartzearren, Lizardiren ahapaldi berrien aipamena egitera lotu beharko bagatzaizkio ere, aski da Eusko Olerti Jaietako obrak, Lauaxeta, Orixe eta Zaitegi berarenak irakurtzea ahapaldien barietatean belaunaldi honetako idazleek egindako ahalegina sumatzeko. Beraz puntu honetara itzul gaitezke Lizardiren ahapaldien azterketa egin dezagunean.

Ahapaldiez gain, errima egiterakoan, hiztegi urritasunak eta bestalde ohizko errima erraz eta baldanen errepikapen amaigabeak salatu zituen Zaitegik.

> "Beraz, itz-neurtizkera eraberritu bear zuten" [208].

Metrikaren berrikuntza, errima edo "itz-erorkera"ri dagokionez, hiztegi ugalketatik zetorren, horretaz gai, idazleok, berak dioenez, "itz erorkerari garrantzi aundia ematen zioten eta itz-erorkera zail, bakan eta oitu-ezen irrika ari ziran".

Lizardiren metrika alorra azter dezagunean, ikusiko dugu, hain zuzen ere, metrikaren barruan errimak garrantzi berezia duela, baina erritmoaren parte den aldetik, eta ez apaingarri edo osagarri bakan gisa.

Orokorki mintzaturik, zalantzarik ez dago autore hauen eta aurreko belaunaldietakoen artean ezberdintasun nabaria dagoela metrikari dagokiolarik, hain zuzen ere, metrika kultoaren adierazgarri nagusienetarikotzat jotzen bait da, eta, hain zuzen ere, perfekzio teknikoaren bidean Europa guztiko olerkariek baloratu dutenaren bidetik jarraitu besterik ez bait dute egiten.

Metrika aldetiko eraberritze honen frogatzat aipatzen ditu Lizardiren zenbait ahapaldi, zehazki esanik *Baso-Itzal* eta *Izotz-ondoko Iguzki* olerkietatik harturikoak, Lauaxetaren *Maitale Kutuna*, Orixeren *Itzai zekena* eta Zaitegiren beraren *Euskel-kanta atzerrian* eta *Artzaiarena* olerkikoak. Azterketari amaiera emateko, belaunaldi horretako partaiderik aipagarrienen goresmena egin zuen, Lizardi, Lauaxeta eta Orixerena, batik bat, eta ondoren Yauregi, Loramendi eta Tapia-Perurena.

Zaitegik Olerkarien belaunaldiari Aitzolen deitura emateko aurkezten dituen frogek belaunaldiak nortasunik baduela frogatzen dute, ezaugarri eta helburu erkideak bazituztela erakusten du eta nolabait Pizkunde aroko idazle hauen poetika orokor baten berri ematen digu, oso ineteresgarria da alde horretatik. Baina, idazle hauei batasuna eman ziena, suztatu zituenaren deitura emateak Euskaltzaleak erakundeak 1927-1936 artean garaturiko aktibitateak kohesioa eman izanak garrantzi berezia duela azaltzen digu.

Ondoren azalduko dugunez, 1927-30 bitartean Lizardik diseinaturiko Euskaltzaleak elkartearen jomugak eta aktibitateak indar eragile handia izan zuten, Aitzolen gidaritzapean eratuz eta finkatuz joan zen azpiegitura kultural eta literarioa sorreran.

---

207 *Ibidem.* Aipamen honek Orixek hainbat aldiz egindako baieztapena gogora arazten du, alegia zortziko nagusia oso ahapaldi mota zurruna, luzea eta aspergarria zen oihartzuna dirudi. Ikus ORMAETXEA, N.; "Oraindañoko euskal neurtitzak" in *Lenengo Euskal Egunetako Itzaldiak*, IV, Bilbo, 1930.
"Oraindaño egin diranetan, neurri berezia edo bakoitza dutenak irakurri-uste ditut eta ozta-ozta ageri da aukera aundirik, zortziko aundia eta txikia lekutzen baditugu. Batez ere zortziko aundi lo-argarri ori, sartu zaigu ezurretaraño, kantan euskaldunena baldin bada ere". *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan Guztiak*, Etor, 1991, III, 328. or.

208 ZAITEGI, J.; op. cit., 6. or.

2.4.2. Euskaltzaleak olerkarien belaunaldiaren ardatz

Zaitegiren 1950ko artikuluaz gain, bada, Martin Ugaldek egiten duen erreferentziak baitesten duenez, izenburu berekoa den Zaitegiren beste idaztiren bat, eskuizkribu gisa Euskaltzaindian gorderik dagoena.

Martin Ugaldek egiten duen aipamenari esker dakigu, Zaitegik aztergai honi beroni beste tratamendu bat eman ziola eta aurrekoan esaniko zenbait gauzaren inguruko argudio gehiago eskeintzen dituela. Benetan "Aitzolen belaunaldia" deitura egokia ote den da zalantzan jartzen du [209].

Zaitegiren artikulu berri honetan Koldo Mitxelenaren *Historia de la literatura vasca*n, Aitzolen eta olerkarien arteko harremana azpimarkatzen dela aipatzen da bermetzat:

> "Koldo Mitxelena parece estar de acuerdo cuando dice "Historia de la literatura vasca": "Poesia: La renovación en este campo coincide con la labor de la sociedad "Euskaltzaleak", dirigida y animada por José de Ariztimuño ("Aitzol") a partir de 1930". Desde entonces se han dado a conocer: Monzón, Ibiñagabeitia,..." [210].

Mitxelenak ordea, aldi berekotasuna aipatzen du, hots, olerkigintzan egin zen berrikuntza eta Euskaltzaleak erakundearen ekintzaren arteko harremana lotuz. Zaitegik ere Aitzolen belaunaldikotzat 1930 urtetik aurrera Euskal Olerti Jaietako sariketetan parte harturikoak izendatzen ditu:

> "Cuáles son los límites de la generación de Aitzol, y su proyecto?: [...]
>
> Los miembros de la generación de Aitzol participaron en los concursos literarios que este organizó: Lauaxeta, Lizardi, Loramendi, Patxi Etxeberria, Zaitegi, Jauregi, Otamendi, Orixe, Lekuona anaiak, Tapia-Perurena, Jakakortajarena, Loidi, Erkiaga, Gaztelu, Onaindia, Enbeita, Zugasti, Arozena, Labaien, Pagadizabal, Urkidi, Ametzaga, Barrensoro Arrizubieta, y otros fueron celebrados [211].

Zaitegiren bigarren saio honek Koldo Mitxelenaren *Historia de la Literatura Vasca*n [212] bere ustearen baitespena aurkitu uste du. Hala ere, Koldo Mitxelenak, ohi zuen zehaztasunez, "a partir de 1930" dio eta horrekin hitz gutxitan zehazten du nondik norakoa izan zen Aitzolen gidaritza eta eragina Euskaltzaleak erakundearen barruan.

1950ko artikuluan aurkezturiko sei puntu garrantzitsu haietan belaunaldi bat osatzen zutela ongi frogaturik zuela onar badaiteke ere, Zaitegiren bigarren artikulu honek belaunaldiaren deitura Aitzolen belaunaldia egoki ote den, jartzen du zalantzan.

Olerkariak plazaratzea, ezagutzera ematea Euskaltzaleak taldearen zereginari lotua dago zalantzarik gabe, eta 1930 urteaz geroztik, Aitzolen gidaritzari ere bai. Hala ere, olerkari gisa izendatu dituenetako asko lehendik ezagunak ziren, aldizkarietan obrak argitaratzen zituzten... Euskaltzaleak erakundeak eman zien proiekzioak bildu zituen belaunaldi batean: xede euskaltzale, kulturzale eta literario batzuen peskizan jarri zituen.

---

209 "...Habrá una generación de poetas en nuestra hermosa lengua que corresponda al liderazgo de Aitzol, o no se trata más que de una ilusión mía?. ...Yo estoy en que sí. Aitzol creó un buen número de poetas a través de su "Olerti Eguna", o "Día de la Poesía Vasca". La mayoría de ellos eran desconocidos, y después están entre los mejores poetas del país, y no es aventurado decir que florecieron en derredor de Aitzol durante 1930-1936, durante siete años. Habrá que llamar de algún modo a este importante grupo de poetas euskaldunes". ZAITEGI, J. "La generación de Aitzol" in UGALDE, M.; "Biografía de Aitzol" in AITZOL; *Idazlan Guztiak*, I, 67. or.

210 *Ibidem*, 65. or.

211 ZAITEGI, J.; *Ibidem*, 65. or.

212 MITXELENA, K.; *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madrid, 1960, 146. or.
"La renovación en este campo coincide con la labor de la sociedad Euskaltzaleak, dirigida y animada por José de Airiztimuño ("Aitzol"), a partir de 1930. En los libros que se reunieron a las poesías presentadas a los certámenes anuales organizados por ellos aparecen, entre otros, los nombres de..."

Euskaltzaleak taldearen proiekzio horretan bi norabide definitu nabaritzen dira: 1928-1930 epean Lizardirena eta 1930tik aurrera, Aitzolena. Elkarren jarraian dauden bi proiektu dira. Baina, ene ustez, 1932-33an berrizaleen inguruan eman zen eztabaidak bi proiektu hauen arteko etena markatzen du.

2.4.2.1. Lizardiren Euskaltzaleak erakundearen lehen moldatzaile (1928-30)

Gauza ezaguna denez, Aitzolek Euskaltzaleak erakundea sortu garaian mixiolaritzaren arloan eliz-agintariek emandako zeregina betetzen ziharduen.

Aitzolek Euskaltzaleak taldearen sorrera eta Lizardik hartan izan zuen partaidetza azaldu zituen :

> "La Dictadura del general Primo de Rivera había detenido injusta y brutalmente el progreso del renacimiento euskaldun. Se necesitaron varios años para que el pueblo vasco reaccionara dentro del margen legal angustioso y asfixiador. Por fin, hacia 1926 se inició un pequeño movimiento en Gipuzkoa. Difuso, interminado al principio. Promover el fomento del euskera, ésa era la aspiración de aquellos euskeltzales. La primera fiesta se celebró en Elgoibar en 1926. Al año siguiente, en Motrico. El mes de septiembre de este mismo año tuvo lugar, con vivo entusiasmo, el dia "Día del Euskera" en Arrasate. En el tuvo su cuna la Sociedad "Euskaltzaleak". Nacía en plena Dictadura. La aparición de "Euskaltzaleak" volvió a reanimar los espíritus decaídos. ¿Qué camino debia emprenderse para vigorizar el euskera? ¿Ganar a los niños o fomentar la prensa euskaldun? Entonces salió al campo de acción Jose María de Aguirre usando, por primera vez, su seudónimo de Xabier de Lizardi.
>
> El mes de octubre inició una campaña de prensa, en euskera y en erdera, sobre acción euskerista, que explanó en diez artículos. Surgió la polémica. Y Lizardi concibió la idea de crear un diario euskérico. Puso su inteligencia y su actividad al servicio de esta iniciativa. Hizo estudios detallados sobre el nuevo diario, editó un número especimen; escribió artículos y conferencias para crear ambiente; proyecto presupuestos; ideó una encuesta; recabó colaboraciones y, por fin, en el Cursillo de Verano de la Sociedad de Estudios Vascos pronunció dos conferencias sobre el tema.
>
> *Convertido ya en cerebro y alma del movimiento renacentista,* organizó las recordadas fiestas literarias euskeldunes de Andoain en honor de Larramendi y fué uno de los más eficaces colaboradores del Dia de la Poesía Vasca de Rentería, del Niño Euskaldun, en Segura, del del Euskera de Bergara...[213].

Aitzol bera kontatzen ari den ekintzetatik aparte dabil. 1924ean sortua den *Nuestro Misionero. Gure Mixiolaria* aldizkariaren argitaratze eta erredakzio lanetan sarturik dabil eta misio arloko hainbat ekintzetako partaide gisa agertzen da, bere ekintza honen barruan zenbait bidai garrantzitsu ere barne sartzen direlarik.

Garin herrian apaiz "economo" gisa izendatua eta handik lau hilabetera gaisorik Donostiara gerturatzen den epeaz aurrera. 1925ean Erromara eta 1927an Belgika Lovainara bidaia egin zuen; orduan ezagutu bide zituen gertutik gero soziolinguistika arloan hainbat aldiz aipatzen dituen Flandeseko elebitasunaren gorabeherak eta hartan elizak eta beste zenbait gizarte erakundek izaniko eragina.

1928an Barcelona, eta hurrengo urtean ospatuko den Barcelonako Kongresurako zenbait zeregin hartzen ditu bere gain: Kleroaren Misiolari Batasunaren Idazkari Orokorra izatea da horien artean garrantzitsuena, baina 1929 urtean, kargu horien nekeek eragindako makalaldia dela medio, guztiak utzi eta Donostiratzea pentsatzen du.

Urte hauek ikasketa eta eliz aktibitate bizkorreko urteak dira Aitzolentzat, eta ez da Eusko Ikaskuntza edo Euskaltzaleak bezalako erakundeekin harreman zuzenik izan zuenik aipatzen.

---

213 AITZOL; "El poeta Jose maría Agirre. "Xabier de Lizardi" in *Yakintza,* III, 1933, 166-167. or.

Zer dela eta, beraz, nola liteke hurrengo urteetan Euskaltzaleak erakunde horren buru gisa agertzea? Eskatu egin zioten, berak dioskunez.

Aitzolek berak kontatzen du nolakoa izan zen Euskaltzaleak erakundearen eta Aitzolen arteko harreman hori:

> "— Gaxorik al ago? —zidan Joxe Mari, adiskide mina zitzaidanak.Aspaldian —artean ilabete batzuk ziran, guretzat naiko luze-, alkar ikusi ez giñala, Bartzelona'n ura nere bila; ni, berriz, nun aurkituko ote nuan, urduritsu. Ez genduen alkar topo egin, Katalunian bizi nintzanekoa da, diodana. Atzerritik, Donosti'ra itzulitakoan, ogean nengoela asierako galdera zuzendu zidan, Joxe Mari Euskaltzaleak'en buru zan, ordurako. Bera nagusi zala Andoain'go Larramendi-gorasarreari buruz egindako jaiak ospatu berriak ziran, artean.Asmo bi zekarzkian nereganatu zanean: adizkidea ikustea, bat; bestea, Euskaltzaleak eraberrituaz, berau ugaritu eta sendotzea.Aren etorria ez zan nola-naikoa! Berriketaldi batean auxe zesan: euskal asterokoa apain arazi, gerora egunkari biur zedin. Urte artako, igesi zan udan, Eusko Ikaskuntzako Ikastaroan, bere aburu auxe bi itzaldi bikañetan agertu zuan. Alegia, egunkaria sortzea genezakeana zala, eta ez ain zaila ere. Beste bein, berriz, euskel aurren ariari berriketaldia lotuaz, aur-jai oiek maizago eratu bear genituela; euskal eskolak nun-nai sortu arazi bear zirala, eta beste orrelako amaika asmo gozo esaten zizkigun. Joxe Mari adizkide artean abo ederrekoa ba-zan!Egun gutxi barru, arek zirikatuta. Euskaltzaleak'en txedeak zabaltzeko liburutxo apaiña agertu zan. Berak, Zumaya'ko Ayuntamentuan, euskaltzaleak bildu arazi zituan Primo de Rivera'ren diktadura eroritakoan. Lizardi'k bere bizi guzian lendabizi esandako itzaldia Zumaya'ko ura izango zan, noski. Batzar onek ondorengo oparotsuak ekarri zizkigun. Pozgarriena, bazkide ugaritzea. Ia, bi milatik gora giñan, bereala.*Ernaitze onek Eusko Olerti Eguna eratzea sortu arazi zigun. Gure Lizardi'k inork baño beroago, jai au egitea bere gain artu zuan.* Barrenean zaramakin goi-argi berezia orduantxe iñoiz baiño biziago, atarira nabarmendu zitzaiolako bere burua olerkari ezagutuaz bide orretatik jo zuan, aurrerantzean. Eta bai poesi-tontor galenetara, malda gora, bat-batean igo ere!" [214].

Aitzolen lekukotzak argi eta garbi jakinarazten du Lizardiren gidaritzaren nondik norakoa. Izan ere, Koldo Mitxelenak *Historia de la literatura vasca*n dioen moduan, Euskaltzaleak erakundearekiko harreman zuzenak 1930 urtetik aurrera bait ditu Aitzolek, eta urte horretatik aurrera hasten bait dira, jadanik perfilatuta dagoen proiektu baten barruan.

Otsailekoak dira bere lehen artikuluak, urtarrilean Primo de Riveraren destituzioa gertatu bait da eta haren ondotik Berenguer generala delarik agintari, askatasun aire batek garbitzen ditu euskaltzaleek ibilitako karrika estuak eta aktibitate kulturalen ugaritzean eta baikortasunaren loratzean soma daiteke aldaketa.

Argitaratu zuen lehen artikulutik bertatik ezagutu genitzake Euskaltzaleak erakundean une horretan nor diranak: Altzeta, Aberri, Mendilauta, Atarrene, Otarra eta Udalamendi, Luzear eta Ayanbe, "*juntamente con Lizardi, que modela su alma y dirige su acción*" [215].

Urte horretan zehar heldu zien Aitzolek urte batzuetan zehar bere obsesiogai modukoak izango diren bi zeregin nagusiri, literaturari Euskal Herriaren Pizkundean dagokion betebeharra betetzen laguntzea, suztatzea eta horretarako diren bi baliabide nagusi eragitea: poema nazionala idatziko duen olerkari gurena bereiztea eta prestatzea, eta bestetik, idazleen multzoa ugaritzeko eta animatzeko artikuluak idatziz Errenterian ospatuko den lehen Olerti Eguna eratzea.

Eskematikoki aurkeztu ditudan helburu eta eskuarteko nagusi hauek, poema nazionala eta sariketak, Lizardiren 1927-30 epeko artikuluetan jadanik iragarririk ikus daitezke.

Idazleak arriskuan dagoen hizkuntzaren etorkizunarekiko duen hil ala biziko betebarra aski azpimarratu ondoren, 1928ko "Un heroe mal estimado" edo "El escritor euskérico" bezalako

---

214 AITZOL; "Aguirre'tar Joseba Mirena "Lizardi", olerkari ospetsua zenaren il-urtemuga" in *El Día*, 1934-3-11; *Idazlan Guztiak*, VI, 38. or.

215 AITZOL; "Optimismo y actividad" in *Euzkadi*, 1930-2-19; *Idazlan Guztiak*, V, 7. or.

artikuluetan idazlearen gogoa berotzeko sariketek eta argitaratzeko erraztasunek izango duten eragina azpimarratzen du.

Idazleak ugaritu, gogo-berotu eta laguntzeko ahalegina ere bai, eta horretarako jaialdiek, elkartopaketek eta sariketek izan zezaketen indarra azpimarraturik dago. Beraz, funtsean, Aitzolek garatuko dituen ekintza nagusienen lerro nagusiak Lizardik Euskaltzaleak erakundearen buru zelarik zedarriturikoen bidetik doaz, tratamendua ezberdina da, ordea.

Ezberdintasunak, proiektu aldaketak, Lizardik zedarrituriko proiektu kulturala eta Aitzolenaren arteko bat ez etortzeak, literaturaren kontzepzio ezberdina du oinarritzat, eta ikuspuntu ezberdintasun honek sorreraziko ditu 1930-33ko tarte honetako eztabaida literarioak Lizardi eta Aitzolen artean.

Lizardiren proiektuaren eta Aitzolenaren arteko ezberdintasuna zehatz-mehatz azaltzeak biei buruzko datu gehiago eskaintzea eskatzen du, ene ustez. Aitzolenari buruz 1983an *Jakin* aldizkarian "Aitzolen proiektu kulturala" izeneko artikuluan egin nuen ahalegina. Olerkarien ideia poetikoak isladatu arazi zituen eztabaidak aztertzeko lehen saio baten gisa hartu behar da.

Hura osatu eta berregituratzea behar-beharrezkoa da Lizardiren ideia literarioen artean abangoardiazko literatura egin beharrak duen garrantzia komeni den bezala azpimarratzeko.

Beraz, Pizkundearen ingurumariari buruzko informazioak haren ideia literarioen argi eta itzalez hobeki ohartzeko balioko duelakoan, Aitzolen proeiktuaren lehen formulapenei buruzko azalpenak egingo dira atal honen amaieran, bigarrenean aurkeztuko diren Lizardiren ideia literarioen atalerako zubi gisa.

Lizardik eta Aitzolek egoera objetiboari buruzko ikuspegi antzeratsua dute: hil ala biziko auzia duen nortasun nazionalaren eta hizkuntzaren egoerari irtenbidea eman behar zaio. Horretarako osatzen dituzten proiektuak plano kulturalean dihardute, baina ezberdintasunak handiak dira: Lizardik literaturari autonomia bat aitortzen dio eta kulturaren bilakabidean izan lezakeen indar eragileaz epe luzerako proiektuak ditu. Belaunaldiak behar direla deritzo. Aitzolek aldiz, epe laburrean fruituak ikus daitezkeelakoan, literatura indar bizkorreko gizarte eragiletzat hartzen du.

2.4.2.2. Aitzolen proiektua (1930-36)

1930ko artikuluetan jadanik guztiz mamiturik dago literaturaren zereginari buruz Aitzolek duen ideia eta nola duen literatura kultur proiektu orokorrago baten barruan kokaturik. Urte hauetan Europako hizkuntza minoritarien bilakaerari buruz duen ezagupenak eta egin dituen ausnarketek proiektu oso bat moldatzera eraman zuten Euskal Herrian ere halako bizkundea gerta zedin. Proiektu heldua, zoritua dirudi, 1930ko ekainetik aurrera egunkarietako artikuluen bidez ezagutzera ematen digunak.

Frederi Mistralen *Mireio*ren irakurketak egin dion zirrarari buruz diharduenean, zalantzarik gabe, gerora berak eragingo dituen zenbait aktibitateren sorburua aitortzen du:

> "...el surco hiriente que abriera en nuestra alma y la huella refulgente que iluminó nuestra imaginación no han desaparecido jamás" [216].

Gaztetako inpresio hori, berriztatua da 1930 urte horretan Mistralen ohoretan antolaturiko jaialdiak ospatzen ari bait dira Cannes-en.

Pizkunde Aroko gai errekurrente honen iturria, hots, Lizardiren eta Aitzolen proiektuetan olerkariek, literaturak duen zeregin funtsezko horren iturria ideialismo alemaniarraren eragina dela hartu dute oinarritzat Juan Kruz Igarabidek euskal olerkarien kontzeptzio honezaz zihardutela [217].

---

216 AITZOL; "El cantor de un pueblo" in *Euzkadi*, 1930-4-13; *Idazlan Guztiak*, 11. or.

217 IGERABIDE, J.K.; *Herri poesia eta gerraurreko lirika: Lizardi, Lauaxeta, Orixe*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Filologia Fakultatea, Gasteiz, 1990. Argitara gabea.

Jatorria hori dela onarturik ere, bereziki Aitzolen eta Lizardiren kasuan, ideialismo alemanaren eragina Frederi Mistralen eta honen Felibrige mogimenduaren bitartekotzaz, Probentzako pizkunde mogimenduaren galbahetik iragazia heldu zitzaigula zehaztu beharra dago, ene ustez [218].

Euskal kulturaren Pizkunde une horretan Mistralek dituen bi ezaugarrik erakartzen dute, batipat: bata, begi bistakoa dena, arkaikoa, umila eta "vilipendiada" izan den hizkuntza batean idatziz lortu duela Mistralek Homeroren *Iliada* eta *Odisea*rekin, Virgilioren *Eneida*rekin, Danteren *Divina Comedia*rekin, Tassoren *La Jerusalem Libertada*rekin, Ariostoren *Orlando Furioso*rekin, Miltonen *El Paraiso Perdido* eta Camoensen *Os Lusiadas*ekin aldera daiteken obra sortzea, "estrofas que son un himno", "que ni la acción del tiempo ni la carcoma destruirán" [219].

Alde batetik, beraz, hain garatuak ez dauden hizkuntzentzat ere aukera bat badago, idazle gailen batek eskuak laguntzen badio. Hori da Aitzolen proiektuaren barruan toki garrantzitsu bat eskuratuko duen asmoa, euskaraz ere, horiekin aldera daitekeen obra sortzeko gai den idazlea bilatu eta animatzea.

Badu Mistralen *Mireio* idatzia dagoen hizkuntzaren xumetasunaz gain beste ezaugarri nagusi bat Aitzolentzat: tankera idilikoa.

> "Parecen las páginas del mejor poema idílico de los tiempos modernos, descripciones adecuadas y apropiadas de nuestros campos y de las leyendas y creencias populares que imprimen la característica a nuestro pueblo euskaldun. Es que Mistral ha cantado a un pueblo creador fecundo de las naciones latinas, que a través de sucesos trágicos ha conservado sin desfallecer, el tesoro de sus tradiciones, cuentos y leyendas, defendidas amorosamente por la arcaica lengua provenzal" [220].

Handik hiru egunetara argitaraturiko bigarren artikulu batean gehiago zehaztuko du Mistralen ereduak Euskal Pizkundeari nolako irakaspena eman behar dion: hizkuntza guztien pizkunde literarioetan ikus daitekeen gertakizun orokorra da. Olerkariak daude aurreko aldean. Bihotz handiak,..." [221].

Euskal Literaturaren barruan ere idazle multzoa ugaltzen ari da eta meritua aitortzen die umiltasunez, hala ere, ez zaio aski iruditzen hala ihardutea:

> "Mas debemos ser noblemente sinceros en todas nuestras apreciaciones. Nuestros poetas se hallan desorientados. No acaban de fijar las normas precisas de una trayectoria eficaz. Su actuación es aislada. Son meritorios sus esfuerzos; más solos, sin ayuda y dirección alguna, sin mutuo intercambio entre ellos, no han llegado a crear la poesía vasca. Existen, sí, y magníficas poesías en euskera; más triste es confesarlo, no hallamos poesía vasca. Nuestros vates o desconocen o desprecian los elementos más valiosos para una poesía genuinamente indígena. Ninguno de ellos ha estudiado al arrantzale, ni su vida característica, la preocupación y fisonomía del nekazari y baserritar, al aizkolari, al bertsolari, al korrikalari. Las escenas de la vida labriega, tan típica en nuestra patria: la vida pastoril, tan saturada de cuentos amenísimos; las ferias de ganados, con sus festejos y apuestas, no han merecido la atención de nuestros poetas" [222].

1930ko artikulu honetan jadanik isladaturik ikusten da Aitzolek zentzu murriztailea duela literaturaz, berak dituen helbururako baliogarri izan daitekeen literaturaz.

---

218 Lizardiren ideia, kontzeptu eta metaforetako zenbait Mistralen eredutik hartuak dira "Edizio Kritiko baterako" oharretan ikus daitekeenez.

219 AITZOL; "El cantor de un pueblo", 11. or.

220 AITZOL; "El cantor de un pueblo", 11. or.

221 "Es fenómeno general que se observa en el renacimiento literario de todas las lenguas. En las vanguardia figuran los poetas. Grandes corazones, almas llenas de rectitud, la bondad...". AITZOL; "Mistral y los poetas vascos" in *Euzkadi*, 1930-4-16; *Idazlan Guztiak*, I, 13. or.

222 AITZOL; "Mistral y los poetas vascos", 13. or.

Bestalde, berriz, euskal poesia denari buruz duen ideia guztiz zehatza da: "No hallamos poesía vasca. Nuestros vates o desconocen o desprecian los elementos más valiosos para una poesía genuinamente indígena" eta "Arrinconadas nuestras leyendas, véneros de inspiración; olvidadas nuestras tradiciones, retazos interesantes de nuestra vida vasca, desconocimiento absoluto del folklorismo vasco!" dioelarik, bere proiektuan benetan zeregina duen literatura herriaren folklorea jasotzen duen epika da eta efikaziaren izenean olerkariek horretara jo behar dute.

Hemengo lehen formulaketa honetatik aurrera antzeman daiteke Mistralen *Mireio* euskaraz egin behar denaren eredu bilakatu dela Aitzolen proiektuaren barruan.

Bi ekintza nagusira eraman zuen praktikan formulaketa honek: alde batetik, urte horretan bertan *Mireio* liburuaren itzulpena eginaraztea Orixeri, Mistralen jaioturtearen urteurrena denez, eta bestetik, pixkanaka, pixkanaka euskaraz izan behar dugun olerki guren horren egiletzat Orixe hautatzearen prozesua, hain zuzen ere, berak Maillaneko poetarengan nabarmendu duen folklorearenganako eta herriaren bizitza xumearekiko sentiberatasun bera nabarmentzen dituelako Huitzikoarengan [223].

2.4.3. Aitzolen proiektua eta euskaldungoaren erantzunaren arteko dialektika

Aitzolek 1930 urtean zehar azalduz joan zen proiektuak guda hasi bitarteko zazpi urteko epean aldaketa garrantzitsuak ezagutu zituen, batipat garaiko irakurlegoak, berak eragindako kultur mogimenduaren aurrean izandako erantzunaren arabera, eta beti ere ahalik eta efikazia gehiena izatearen irizpidea ardatz gisa hartua zuelarik. Honela, Lizardiren ideia literarioei beharrezkoa duten marko erreferentziala eskainiko diet, bai Aitzolekiko kontrastean, eta bai garaiko euskaldungoaren benetako kopuruei, maila kulturalari, zaletasun eta partehartzeari dagokienez. Olerkarien garaiko pentsamolde nagusiak eta euskaldungoaren erantzunaren benetako panorama berreskuratzea da, honenbestez, ingurumariari buruzko atal honen azken xedea.

2.4.3.1. Aitzolen proiektuaren lehen urratsak

A.– *Lehen epean, 1930-1933 artean, Europako literaturaren bidetik jotzen zuen olerkigintza berrizalearen aldeko apostua egin zuen garbiro,* Errenteriako Olerti Sariketan Lauaxetaren *Maitale kutuna* olerkiak lehen saria irabaztean eta idazle honen *Bide barrijak* liburua argitaratzean eginiko iruzkinetan [224].

Literatur maila jasoa izan zuen Orixe eta Lauaxetaren klasikotasunari buruzko eztabaidaz gain, Lauaxetaren liburuaren argitalpenak, Tolosako 1931ko sariketan lehen saria Lizardik eraman izanak

---

223 Aitzolek poema nazionalaren gaia nola bideratu zuen eta lan horretarako Orixe hautatzea zein arrazoiren ondorio izan zen argitu nahirik "Orixe eta gudaurreko Pizkunde mogimendua" artikulua dut argitaratua in *Nikolas Ormaetxea Orixe (1888-1988) Mendeurrena*, IV, *Hitzaldiak*, Etor, Donostia, 1992, 89-104. or.

224 Jakina denez, Orixek uste zuen Errenteriako epai-mahaiko erabakiaren atzean Aitzolen eskua zegoela, saritua Aitzolek oso maitea zuen joera literarioen jarraitzaile bait zen. Orixe biziro mindua zegoen eta eztabaida luze eta nahasiari ekin zion Lauaxetarekin klasikotasunari buruzko irizpideak finkatzeko. Zalantzarik gabe biek ere klasikoari buruzko kontzeptu ezberdina zuten. Orixek klasikoa zentzunak, disziplinak eta barne-orekak batasuna emaniko obra artistikoari zeritzon. Egilearen gehiegikeriei, bai sentiberatasunarenak, bai endeleguarenei eusten dien zentzunak bakarrik sor lezake oreka ideala duen obra, Orixeren ustez. Lauaxetak klasikoari buruz duen kontzepzioa bestelakoa da. Klasiko bat garai bakoitzaren kera edo izatea ondoenik isladatzen duen idaztia da, beraz, literatur obra batek ez dauka zentzunaren mugetara makurtu beharrik, garaiaren, bere garaiko errealitatearen egiara baizik. Lauaxetarentzat ez da aski idazlan batek barne-oreka eta egokitasunez egina izatea klasiko bat izateko, beharrezkoago da idazlana inguruneari, bere garaiko munduari egokitzea. Klasikotasunari buruz bi literatur gizon hauek izaniko eztabaida Lauaxetaren *Bide Barriak*i buruz Orixek eginiko iruzkin literarioaz hasi zen. Ikus Jon Kortazar, *La teoría y práctica de Lauaxeta*, Desclée de Brouwer, Bilbo, 1986, 34. or. eta hurrengoak.

beren buruak euskara idatziaren ardatzaren jabetzat zituzten zenbait idazleren haserrea eta arbuiapena sortu zuen. Eta egiazki giroan bizi zenaren testigantza utzi zuten Lauaxetaren liburuaren izenburua ikurtzat harturik garatu zen eztabaidaren bidez.

B.– *"Bide berriak" eztabaida*ren aitzakia besterik ez zen izan, berez, Lauaxetaren liburuaren argitapena. Berez kritikak zabalagora jotzen zuen, hain zuzen ere, estetika landua eta hizkuntza literario berritzailea zerabiltenen aurkako jarrerak nabarmendu ziren. Beraz, Aitzolek Euskaltzaleak erakundearen gidaritzatik suztaturiko joera zen zalantzan jartzen ari zena.

Eztabaida honen urratsak bana-banan jarraitzea argigarri gerta daiteke beren buruak erantzuletzat azaldu zituzten Lauaxeta eta Orixek, —eta guretzat garrantzitsuena denak, Lizardik-, egitez ez ezik, ideia poetikoz eta asmoz ere euskal literaturan berria zen literaturaren kontzeptuaren jabe zirela erakutsi bait zuten.

Argia asterokoan, "Euskaldun bat"ek eta "Larreko" izenpetzen zuen Fermin Irigaraik Lauaxetaren liburuari buruzko iruzkina eginez azaldutako iritzi batzuk dira eztabaidaren sorburua.

"Euskaldun bat"ek idatziriko artikulu horretan hiru puntu nagusitan erasotzen die Lauaxeta eta bera bezalako "berrizaleei":

1.– Euskal literatura herriarengandik urruntzen dutela, eta bide hori kaltegarria izan daitekeela irakurlegoarentzat beren idazlana ulertezina gerta daitekeelako.

2.– Ulerkaitzak diren arren, sariketa literarioetan lehen sariak ematen dizkietela, irakurlegoarentzat zapuzgarri gertatzen direlarik.

3.– Zehazki, Lauaxetaren liburuari buruz, "Euskaldun bat"ek bizkaieraz idatzia egoteak beretzat duen zailtasunarengatik ez duela irakurri ahal izan esaten du.

Ziurrenik, "Euskaldun bat"en aipamen honek ez zukeen gehiegizko erantzunik sortuko Fermin Irigarai "Larreko" idazle errespetatuak lehenengo bien antzerako argudioak erabiliz beste artikulu bat idatzi izan ez balu. Larrekoren arbuiorik funtsezkoena idazle berrizaleen ulergaiztasuna da.

Zuzenean Lauxetak, erantzun gisa, argitaratu zuen "Eztabaida" [225] artikuluari erantzunez, Larrekok "Berriz ere bide berriaz" artikuluaz erantzun zion [226]. Lauaxetaren zailtasunari buruz dihardu berriro ere, esanez, bizkaieraz idazten zuen Kirikiño zanaren lanak ez zirela zail gertatzen nafar batentzat ere, baina Lauaxeta, euskalki berean idatzi arren, ulertezina gertatzen zaiola. Horregatik, zailtasun hori dela eta, gaztelaniazko bertsiora jo beharra suertatzen zaiola eta horrela euskal testuak ez duela inoiz autonomiarik lortuko esaten du:

> "Neure burua euskal letraduntzat naukalarik, una non, ezin aditu ditudala orai berriki agertu diren eta agertzen diren euskal lan apañenak...Euskal idazti zaarretan eta euskaldun utsengatik uste nuen euskara garbiena ikasiko nula, baña ori ez bide da aski; bide berriak egiten ari dire eta guk ez jakinki bide berri orietan barna ibiltzen.¡Nor baninde ni; otoiztuko nituen, aspalditik euskel idazle sailan ditugunak, arazo untarik mintza daizten!" [227].

"Larreko" eta "Euskaldun Bat"ek idatziriko iruzkin horiei erantzunez, esan dugun moduan, Lauaxetak "Eztabaida" artikulua idatzi zuen, eta haren laguntzan etorri zen Lizardi "Bide barriak? Bide guztiak?" [228] artikuluaz sartu zen eztabaidan.

---

225 LAUAXETA, "Eztabaida" in *Euzkadi*, 1932-2-9, 7. or.

226 IRIGARAI, F., "LARREKO"; "Berriz ere bide berriez" in *Euzkadi*, 1932-2-14, 5. or.

227 IRIGARAI, F., "LARREKO"; "Bide berriak" in *Argia*, 560, 1932-2-1, 1. or.

228 LIZARDI, X.; "Bide Berriak bide guztiak?" in *Euzkadi*, 1932-2-11, 5. or.; *K-L* 367-370. or.

Lizardiren artikulua "Euskaldun bat"ek [229] Larrekoren gonbiteari jarraikiz idatziriko artikuluari erantzuteko asmoz idatzia da, Mikaitzek [230] izenburu beraz argitaraturikoa bezala.

Lizardiren funtsezko argudioa mundu guztiko literaturaren bilakaera horrela egina dela azaltzea da, hots, idazle erraz-zale eta txukunen aldean, beharrezkoak direla berrizaleak ere herri bateko literaturak goragoko mailak joko baditu noizbait. Aitortzen du irakurlego murritza dutela beren lanek, eta legezkoa deritzo, bai errazagoek zabalagoa izateari ere.

Barrensoro ezizena erabiltzen zuen Tomas Agirre idazleak "Bide berrietatik eta zaarretatik ere bai" [231] artikulua argitaratu zuen. Izenburua ikusirik, haserreak baretzera datorrela dirudien Barrensororen artikulu honek, Lizardiren idazlanei buruz, zehazki Tolosako 1931ko Olerti Sariketan lehen saria eraman zuenari buruzko iritzia berrizaleen joeraren aurrean duen iritzi etsigarriaren erakusgarri da. Funtsezko gai kezkagarri bat planteatzen du berrizaleen olerkigintzaren euskarritzat itzulpenak jokatzen duen funtzioarena, alegia [232].

Barrensororen artikulu horri erantzunez argitaratu zuen Lizardik "Bide eta bide-ondo" [233]. Funtsean eztabaidan zehar sortuz joan diren oker-ulertzeak eta nahaspilak argitzeari ekiten dio, azkenean, elerti-gaietan norberaren edermenaren aginduetara aritzeko askatasuna eskatuz bukatzen duelarik.

Lizardik eta Lauaxetak berrizale gisa erantzuten ari diren eztabaida honetan, aldeko atera zitzaien Orixe, "La crítica menuda" [234], Tolosako sariketan epai-mahaikoa izanik zegokion ardura azalduz. Eztabaidak aurrera jarraitu zuen zenbait hilabetetan. Larrekok "Bide berriez oraiñik" (*Euzkadi*, 1932-3-17), Mitargak "Eztabaida barik, Ekin" (*Euzkadi*, 1932-4-14), Lauaxetak "Barritzaliak" (*Euzkadi*, 1932-2-24).

Lizardik "Rumbos peligrosos" artikuluaz eman zion amaiera eztabaida honi, berari zegokionez [235]. Berriro azpimarratzen du berrizaleek errazaleekin batera bizi izateko duten eskubidea, eta hauen lanak abanguardiarena, hau da, bideak urratzea dela.

D.– Aitzolen 1932ko "Urte Giroak" artikuluan berriro aipatuko du Larrekok eta Barrensorok aurkezturiko Lizardiren ulergaiztasunaren arazoa. Hizkuntzari eragindako iraultza baten bidez, euskeraren aintzinateko muina eta estetikaren aurrerapen aurrerakoienekin elkartu nahi duelako dela zaila esaten du:

> "Lizardi no es sólo poeta y estilista; *es algo más; un revolucionario del lenguaje*; un revolucionario que quiere fundir el nervio tradicional del euskera con los más audaces avances del pensamiento

---

229 "EUSKALDUN BAT"; "Bide Berriak" in *Argia*, 563, 1932-2-7, 1. or.

230 "MIKAITZ"; "Bide berriak" in *Argia*, 564, 1932-2-14, 1. or.

231 AGIRRE, T., "BARRENSORO"; "Bide berrietatik eta zaarretatik ere bai" in *Euzkadi*, 1932-2-19, 5. or.

232 "Gerea ona izanik, besteena ere aintzat ar dezakegu noski. Ruben Dario eta oraikoak onak badire ere, etziran kaxkarrak Lamartine, Hugo, Byron, etabar. Guk ez daramazkigun bide guztiak ez ezeretzat jo. Aor Lizardi izketa askatuan maixu. Garbi, jaukal, adierraz, orrati. Olerkietan -aitortu bear- ez du beronelan jokatzen. Ua duk guk iretsi ezin dugun era berria. Euzkerarik ez ete dakigu? Itz neurtuen azal-azpian azkenengo tantoa jario arteo estutu dik oldozkuna. Gure adimenerako sakonegi al duk? Etzekiat zer dukan *Alboan daraman erderazko argiontzia bidea urratzeko ezpagenu, gure oin-urratsak legartza-tartean barna zaurituko ituzke. Argibide ori ez genukelarik bizitza osoan jarduki ere, ezin ulertu.* [] Lizardiren olerki saritua epai-maiera irixtean erdararik argibidetzat etzukelarik, epailarien lan latza jakiteko ukan. Erdara laguntzat bazuen berriz, epaia bere aldera pitzatzeko ziri bikaña iduri zait. Epaikariak berriz, epaitzeko galbai extu bakarra baidute, andik eken antzekoak bakarrik igaro bear". Ibidem.

233 LIZARDI, X.; "Bide eta bide-ondo" in *Euzkadi*, 1932-2-25, 5. or.; *K-L* 370-372. or.

234 ORIXE; "La critica menuda" in *Euzkadi*, 1932-2-23, 1. or.

235 LIZARDI, X.; "Rumbos peligrosos" in *Euzkadi*, 1932-2-27, 1. or.; *K-L* 372-373. or. Artikulu honen bidez dakigu, "Euskaldun bat" ezizena erabili zuen idazlea guretzat ez ezik, ezezaguna zela garaiko idazleentzat ere, eta beraz, haren artikulua libelotzat jotzen zutela.

estético.()¿Es todo perfecto en Lizardi? No; no lo es. Su fecunda audacia literaria reviste a sus composiciones de una dificultad notable no sólo para los indoctos, sino aún para la gente muy versada en euskera. Y es ello natural. Junto a las narraciones arcaicas del lenguaje, se une la concepción nueva también, y la originalidad acusada en el conjunto y en cada parte de la obra. *Nuestro idioma, aptísimo para la expresión estética en sí, debe, al principio sufrir la forja del subjetivismo del artista. Esa subjetiva concepción del artista que crea formas desconocidas dando nuevo valor a muchas palabras,* engendra la confusión. Eso ocurre clarísimamente, en la obra de "Lizardi". Es esto un mérito o un defecto? Yo creo que *un mérito. Pero a condición de utilizarlo con mucha discreción y por artistas que puedan ostentar patentes de ser los descubridores de nuevos horizontes. De tal conceptúo a "Lizardi"... Su mérito principal está hoy en ser discutido*" [236].

Aitzolek apostu garbia egina zuen berrizaleen alde, berrikuntzak euskal literatura aberastu egiten zuelakoan zegoen, eta epai-mahaikoen irizpidea ontzat emana zuen. Lizardiren eztabaidagarritasuna aintzakotzat hartu eta berak eraginiko iraultza beharrezkotzat onartzen zuen: idazleak bere gisako eredu subjetiboaren arauerako moldaketa egiteko askatasuna onuragarritzat jotzen zuen lehen epe honetan.

Gerora ordea, 1933 urteaz geroztik, idazlearen askatasun hori, bere subjetbitatearen arauerako kanon estetikoak asmatzeari kaltegarri irizten hasi zen. Irakurlegoa zapuztu eta gainerako idazleak desbidera zitzakeen. Horretan arriskua handia izan zitekeela ikusi zuen [237].

2.4.3.2. Aldaketa. Olerkigintza herrikoia eragingarriago

1933 urtearen hasieran Aitzolen irizpideetan aldaketa nabarmen bat gertatzen ari den zantzuak suma daitezke. Halere, Lizardiren *Biotz-Begietan* liburuaren argitalpenari buruzko gutunetan Aitzolek ixilpean berrizaleen joeraren gaitzespena hasia zuela nabari daiteke [238].

Aldaketaren ageriko lehen urratsa "Antziñako oituren piztutzea" artikulua da. Tolosako Euskal Gaztedi elkartean eraturiko Agate Egunerako abesti txapelketa dela eta, Aitzol sumatzen hasi da jendearengan askoz eragin handiagoa dutela kopla zaharren tankerara eraturiko herri bertso horiek, Olerti Egunetan deklamatzen diren olerki kultoek baino.

A.– Herri olerkigintzaren eragingarritasuna

Aitzolek askotan aipatzen ditu euskal kulturaren alorrean folkloreari dagozkion gaiak, ugariak dira hau bezalako artikuluak, Euskal Herriko aintzinako ohiturak deskribituz eta garai hartan duten bizitasuna aipatuz idatzirikoak. Oraingoan ordea, haiek goraipatzera mugatu beharrean, alderatu egiten ditu idazlan kultuekin eta herrikoi tankerakoak ematen ditu gailentzat.

Tolosako Eusko Gaztedikoek eraturiko sariketa horretan Jauregiren bertso batzuk, kopla zaharren tankeran eraturiko bertso herrikoi batzuk gertatu ziren saridun:

> "Jauregi'k izenpetua ez balitz errikoi zala usteko nuen. Alako erri kutsua daramate ez kopla bakoitzak olerki osoak baizik. Irakurri utsaz eta entzun utsaz aditzen dana da.Eta onelako olerkiak eta onelako idaz-lanak bear ditugu. Irakurleak eta euskaltzaleak gure bertso zail eta idazlan ezin entendizkoaz aspertu ditugu. Geok ere, idazleak, aizkenaz naskatzen ari gera. Iñor mintzeagatik ez diot. Neroni naiz erruduna. Baña guztiok bide txarrak utzi eta bide onera jo dezagun.Bide txarra daramakigu olerki eta idazle geienok. Oso bide txarra. Ongarri baño txarkeri geiago euskerari egiten

236 AITZOL; "Urte Giroak. El paisaje de las estaciones" in *El Día*, 1932-6-15, 1. or.; *Idazlan Guztiak*, V, 298. or.

237 Lizardiren abangoardiazko literaturari buruzko ideiei buruz, II. partea, 2.3. puntuan garatu dugu zehazkiago kanon subjetiboari buruzko puntu hau. Atal honetan Aitzolen bilakaeraren lerro nagusiak azaltzea beste helbururik ez dugu.

238 Ikus "Lizardiren Eskutitzak" eranskinean 55., 60 eta 61. Dokumentuak.

diogu. Guztiok euskera maite degu. Gure elburua euskera piztutzea da. Gure baitan sar gaitean eta erabaki egokiena gureganatu dezagun" [239].

"Neroni naiz erruduna" esatean Aitzolek aurreko epean, 1930-33 birtatean suztatu duen olerkigintza berrizalearekiko etsia aitortzen du, bide okerra da berak promozionatu duen hori eta "euskera piztutzea" denez bere helburua, horretarako gaiago den beste bidea, olerti herrikoiaren bidea hobesten du bigarren epe honetan.

Aitzolen iritzi gogor hauek ondo ohartuz gero badute arestian aipatua dugun "Urte Giroak" artikuluan aurreragoko aipamenik: "... a condición de utilizarlo con mucha discreción y por artistas que puedan ostentar patentes de ser los descubridores de nuevos horizontes".

Aitzolek Lizardiren *Urte Giroak* olerkiari buruzko iruzkinean zailtasuna, berrikuntza iraultzaileak, hitzen semantika eremuak aldatzea, mundu estetiko berriak sortzea bidezkotzat jotzen zuen, baldin eta literatur bide berriak urratzeko eta arteaz egiten bazen. Ez zailtasuna zailtasunaren amoreagatik huts hutsik.

Aitzolek artikulu honetako hitzak gogorrak direla ohartzen du, badaki jendea haserratu egingo zaiola, eta horregatik esaten du "Iñor mintzeagatik ez diot". Hala ere, eta erantzun gisa bai Lizardik eta bai Lauaxetak idatzi zituzten artikuluen garraztasunari erreparatuz gero, Aitzolen iritzi aldaketak edo joera berri hau suztatzeko lehengoa arbuiatu izanak zarrasta handia eragin zuela aitortu behar.

Lizardik "Gure bideko mugarriak" artikuluaz [240] erantzun zuen. Lauaxetak, aldiz, "Orreri, orreri!" [241] artikuluaz. Bi idazleen erreakzioa oso ezberdina izan zen. Lizardi, oso mindurik dago; ironiaren bidez gozatu nahi badu ere, haserrea nabari zaio.

Lauaxetak, aldiz, lehenengo "Barritzaliak" artikuluan bezala, taxuera farregarria hartzen dio eztabaida honi eta berrizaleen aurka altxatu den jazargoa, lapurren aurka gizarte zuzenak eraginikoarekin alderaztuz parodiatzen du. Berrizaleak lapurrak bezain kaltegarriak dira gizartearentzat, beraz, harrapatu eta lepoa bihurritu behar zaie.

Nabaria da Lauaxetak ez duela bere burua justifikatzeko premiarik ikusten, ez du literaturaren baitan bere joera berrizalearen arrazoiaren konturik inori azaltzeko premiarik sumatzen.

Lizardi aldiz, Eusko Ikaskuntzaren barruan eta Euskaltzaleak taldearen barruan duen euskararen eta euskal literaturaren aldeko kanpaina antolatzaile eta gidaritza-ohiturak eramanik, irakurlegoari eta lankideei den-dena, beretzat begibistakoena dena ere azaltzen ahalegintzera darama.

Horregatik zaio bereziki mingarri bere borondatea, zaletasuna eta joera garbiak ondoenik ezagutu behar dituen pertsona bera izatea gogorrenik aurka jartzen zaiona. Mindua dago, eta "Urte Giroak" artikuluan Aitzolek eman dion salbuespen izatearen kalitateaz ahazturik, beretzat, berari zuzendurikotzat hartzen ditu Aitzolen kritikak.

Izan ere, geroago azalduko dugunez, Lizardik eta Lauaxetak abangoardiazko literaturari buruz ikuspuntu ezberdina bait dute.

Aitzolek 1933-2-5ko artikulu honetan eman duen aldaketaren lekukotza sendoa ematen du 1933ko urteko Olerti Sariketan irabazle gertatu zena Patxi Etxeberria izateak, "Bost Lore" izeneko olerkiarekin eta Aitzolek suztatzen ziharduen joerako olerki tankera izateak sariturikoak.

Euskaltzaleak erakundeak urtero saritutakoen olerkiak argitaratzeko ohitura zuenez, 1933. urtean ere *Eusko Olerkiak IV* izenburupean, Aitzolek Etxeberriaren olerkiak aurkeztuaz batera, euskal

---

239 AITZOL; "Antziñako oituren piztutzea" in *El Día*, 1933-2-5, 1. or.; *Idazlan Guztiak*, 428. or.

240 LIZARDI, X.; "Gure bideko mugarriak" in *El Día*, 1933-2-12, 6. or.; *K-L* 401-404. or.

241 LAUAXETA; "Orreri, orreri!" in *Euzkadi*, 1933-2-16, 8. or.

estetikari buruz berarengan ernetzen ari zen teoriaren lehen formulaketa eskaini zuen "Eusko Olertikera Berezia" deitu zuen saioan [242].

Patxi Etxeberriaren olerkiak aurreko urteetan sarituak izan ziren Lauaxeta, Lizardi eta Bedoñarenak ez bezalakoak direla esan zuen aurrenik, haien mailakoak ere ez ote ziren susmoa ere izan zuela diosku, gero, taxuera berezi bat antzematen du haiengan, eta berritasun honi guztiz garrantzitsu deritzo euskal estetikaren mamitzearen bilakabidean:

> "Alegia, gorengo ertilariak gaurdaiño taiutu ez duten erara eder-gaiak, antz-irudiak, eta amets ereduak, eusko kutsu yatorraz asma eta sor lezaztekela, euskeldunen begiak ikusi eta beroien irudipenak arasi dituzten lege antzera eta ez atzerritar ertilariak erakutsi diguten gisara" [243].

B. "Eusko olertikera berezia"ren bila

Aitzolek baieztapen hauekin iragartzera datorrena, hain zuzen ere, bere ustez euskal estetika izan daitekeenak euskal literaturaren tradiziotik har lezakeena da:

> "Euskel erriak edergaietan eta antz-gauzetan yokatzeko bere kera berezia ba-du" [244].

Euskal herriak badu bere estetika berezia, beraz; ez da aski euskaraz idaztea euskal olerkia egiteko, bai bait liteke euskal hitzek berez arrotza den gunea estali baizik ez egitea.

Euskal gunea duten olerkiak ordea, "bizitasuna dakarkiten mami irudiak, amets-ereduak izaten dira. Oietxek oldozkun eta asmoei alako edertasun berezia eransten diote: oietxek bertsoei ere apaintasuna ematen diote". Beraz, badirudi, Aitzolek imaginen arloko baliabide literarioetan halako kutsu bereziki euskalduna duten konparazioak eta metaforak azpimarratuko dituela euskal olertikera berezi horren osagarritzat.

Irudiekin batean, gaiak dira olertikera horren bigarren osagarri garrantzitsuak:

> "Errikoi olerkiak besterik dira. Oiek, sakonkiro euskeldun begiak ikusi eta biotz errikoiak maita izan dituzten gaiak, edertasunez aberastuta erakutsi dizkigute. Maiteminduen antziak, guraso-senideen ar-eman etxekoiak, eztai-yaiak, ezkontza arazoak, aurren azitzea, adizkidetasuna, gorrotoa, maitasuna, bertsoetan erriak kanta-gai artu dituanean alako dotoretasun bikain batekin yantzita aurkeztu dizkigu" [245].

Beraz, olerkari "yakitunak" erabiltzen dituzten urrutiko gai zail eta bihurrien aldean, herri tradizioaren iruditeria eta gaiak proposatzen ari da Aitzol euskal olertikera bereziaren hastapentzat. Haiek "euskal gogoari dagokion edertasun gutxi sortu digute", hauek aldiz, "dotoretasun bikain batekin yantzita aztertu dizkigu (gai horiek)".

"Antziñako oituren piztutzea" delakoan, "Iñor mintzeagatik ez diot", oharra sarrerazi zuen gisa berean, oraingo honetan "sasi-yakitun" deitzen dituen horiek aipatu ondoren, zera erantsiko du "Ez diot, noski, gaurko olerkari yaioengatik, dasadana".

Eta polemikak bazter uzteko sarreraziriko ohar horren ondoren Aitzolek bere ustez euskal olerkigintza berriak ezagutu eta berreskuratu beharko lukeen tradizio horren osagarri nagusiak, irudiak eta gaiak azaltzera joko du.

Irudiei dagokienez, konparazioetan eta metaforetan erabiltzen diren erreferentziak azpimarratuko ditu lehenik:

---

242 AITZOL; "Itzaurrea" in *Eusko Olerkiak IV*, Euskeltzaleak, Donostia, 1933; *Idazlan Guztiak*, III, 57-76. or.

243 *Ibidem*, 57. or.

244 *Ibidem*, 57. or.

245 *Ibidem*, 58. or.

"Izadiko gauz guziak dira bertso irudien-gai" [246].

Horien ondoren, Manuel Lekuonaren "La poesía popular vasca" hitzaldiari jarraituz "kopla zaharrak" [247] deitu ohi direnak azaltzeari ekingo dio. Naturatik harturiko irudiez osaturiko lehen bi bertsoen ondoren, benetako gaiaren azalpena datorren kopla mota, hain zuzen ere.

Teknika horren alderdi nabarienak azaldu ondoren, horiei buruz beste aditu batzuen eta bere iritzien arteko ezberdintasunak azaldu ondoren, eusko olertikera berezi horrek euskal literatura berriari egin liezaiokeen aportazioaren berri azaltzera joko du:

> "Alaz ere, adizkide zaizkidan Lauaxeta, Jauregi, Tapia-Perurena, Jakakortajarena, Iturralde, Oxobi, Loidi, Zaitegi, Enbeita anaiak, Erkiaga'tar Eusebi, Gaztelu kaputxinoa, eta Onaindia karmeldarrai Itztxo bat bederen zuzendu nai diotet.Idatzi dedana idatziaz zuek biotz-barruan izan zaituztet. Zuentzako bide berririk idekitzeko asmorik ez det izan. Ausarkeria litzake. Zuek guzia dezakezute eusko olerkia goi-gorengo maillara egazteko. Eusko-elertiaren itxaropenak zeok zerate.Olerti errikoia igartzera dator. Zuaitz zar ori eusko-edertasunaren gordeillu izan da. Idazleak eta olerkari apainduak erakutsi ez digutena erriko kanta zarrak irakasten digute eusko gogoaren edertiari buruz yakin dezakeguna.Irakaspen ori biltzea besterik ez det egin. Arbasoen apaldi txorta zuei eskeintzen dizutet. Lore-kanta zaar oien lausaro auxe miaztu zazute. Antziñako bertsolarien esakun, irudi eta asmoak ausnartu itzazute. Orrela zuen irudimena aberastu eta olermena eusko kutsuz igurtzitzea lortuko dezute.Goi-arnasak irudimena irakin-arazi eta olermena arrotzen dizutenean mara-mara, naroki oso, sortzen dituzuten edozein oldozkun, iñungo asmo, eta asmaketa arrigarrienek ere eusko gogoari dagokion edertasunez yantzi araziko dizkizute gure ederkera berezi onek" [248].

Orixeri *Euskaldunak* poema egiteko eskatutakoan bezain proposamen zehatza da Aitzolen hau. Badute zer ikusirik batak eta besteak, bide beretik jotzen dute, baina oraingo honetan gaien erabilkeratik iruditeria eta teknika konkretu batzuen proposamenera igaroko da.

Herri olerkigintzaren bideei oharturik eginiko proposamen honek arrazoi bikoitza duela esan genezake. Alde batetik, euskal kulturaren erroen berreskurapena egiten diharduten euskal kultur gizonen kezka berak kutsatua dirudi Aitzolek, hots, benetan euskal estetikak dituen bere berezko ezaugarrien azterketa eta haien berreskurapena. Kasu honetan gainera, ezagutzera emateaz gain, olerkariek beren idazlanetan haiek erabili eta aintzakotzat har ditzaten da bere helburua, honela euskal kutsu sakonagoaren jabe egingo bait dira.

Beraz, lehenik eta behin, herri olertikeraren bide honek gai eta teknikaren aldetik bere baitan badu balore liluragarririk. Bestalde, urte horietan Espainia eta Frantziako literaturan literatura popularraren eragina handia izan zen. Espainian joera horren esponenterik nagusiena Federico García Lorca izan bazen ere, Frantzian sinbolismoaren eta surrealismoaren garaikide izan ziren beste zenbait autore, hain zuzen ere, Aitzolek Orixeri horren tankerako olerkigintza egiteko proposatzen zion Francis Jammes eta ospe gutxiagoko beste batzuk bilatu zuten inspirazioa herri literaturan.

Aitzolek eginiko proposamen honek badu ordea, beste alderdi bat, zalantzarik gabe bere jokamolde aldaketan pisu handia izan zuena: herri literaturaren teknikez baliatuz eta hango gaiak erabiliz sortuko zen literaturak irakurlego zabalagora iristeko gaitasuna izango zuela noski.

"Antziñako oituren piztutzea" artikuluan jendearentzat horrela sorturiko olerkiek zuten adierreztasuna eta erakargarritasuna ohartu zituen, zalantzarik gabe entzulegoa prestatuago eta adiago egongo zatekeen tankera honetako olerkiak entzun eta estimatzeko, besteetarako, "yakintsuek" eginikoetarako baino.

---

246 *Ibidem*, 59. or.

247 LEKUONA, M.; "La poesía popular vasca" in *Idaz-lan guztiak*, I, Kardaberaz bilduma-22, Librería Técnica de Difusión, 1978, 199-213. or. Manuel Lekuonak 1930ean Eusko Ikaskuntzaren Bergarako Batzarrean emandako "La poesía popular vasca" izeneko hitzaldiaren bigarren partean kopla zaharrei buruzko azalpenak ematen ditu.

248 AITZOL; "Itzaurrea" in *Eusko Olerkiak IV*, Euskeltzaleak, Donostia, 1933; *Idazlan Guztiak*, III, 74. or.

Beraz, proposatzen ari den bide horrek bi helburu bete ditzakeelakoan dago Aitzol eta horregatik egiten die proposamena orduko literaturgile nagusienei, tradizio horren berezko balio estetikoengatik eta irakurlegoarentzako dituen erraztasunengatik.

D.– Aitzolen joera berriaren eragina idazleetan.

Puntu honetara heldurik, eta Aitzolen proposamen honek nolako arrakasta izan zuen aztertzerakoan, Lauaxetak 1935ean argitaratu zuen "Arrats-Beran" liburuan dauden herri kutsuko olerkiak aipa daitezke, ene ustez.

Behin baino gehiagotan aipatu izan da liburu horretan Federiko Garcia Lorcaren *Romancero Gitano* (1928) eta *Poema del cante jondo* (1931) liburuen irakurketa eta eraginatzat jotzen den horri ez ote zaion elkartu behar Aitzolen proposamen honi emandako erantzuna, hau da euskal literaturaren gai, iruditeria eta teknika bereziak berreskuratzeko ahaleginaren eragina.

Nire ustez, susmoaren arlotik ez gintezke aurrerago joan Lauaxetaren olerkigintzan Aitzolen proposamenak izaniko eraginari buruz diharduganean. Bakar bakarrik esan dezakegu bere lehen liburuan ez zuela honen tankerako olerkirik, eta dagoeneko Lorcaren obra ezagutzeko aukera izana zuela, 1931ean argitaratu bait zuen *Bide barrijak,* eta *Romancero gitano* 1928koa bait da.

Bigarren honetan aldiz, Lorcaren arrastoak ukaezinak dira, euskal literaturan, ez ikasian ez herrikoian, ohizkoak izan ez diren irudiak eta teknikak nabari bait dira. Euskal jatorriko herri olerkigintzaren eraginari buruz zerbait zehatzagorik jakiteko asmotan Jon Kortazarren *Teoría y práctica poética de Lauaxeta* tesi doktoralera jo beharra dago:

> "Se ha venido repitiendo con cierta frecuencia que la aportación de la lírica popular en *Arrats-Beran* tenía dos fuentes o bien era una influencia de Aitzol, a partir de lo que hemos dado en llamar giro hacia la poesía popular en 1934, o bien, partía tras el conocimiento del *Romancero Gitano* [249].

Iturriak argitzen ez dituen Kortazarren aipamen honetan argudio hau arruntki erabilitzat ematen da. Jakina, *Romancero Gitano*ari buruzko aipamenak ez dira falta izan Lauaxetaren bigarren liburuari buruzko iruzkinetan. Aitzolen 1933ko proposamen honekiko harremanei buruz, aldiz, ez dut uste aipamenak ugariak direnik [250].

Jon Kortazarrek esaten du Aitzolek herri olerkigintzaren ezaugarriak suztatzeko harturiko joera aldaketa hau 1934koa dela, nik neuk ere 1983ko "Aitzolen proiektu kulturala" izeneko lehen saioan 1934ean kokatu nuen iritzi aldaketa; arestian esana dugunez, ordea, joera berri honen mugarria, aurreragokoa da, 1933raino atzeratu beharra dugu, gutxienez.

"Eusko Olertikera berezia"ri buruz 1933ean argitaraturiko artikulu sakonaren argitalpenean konkretatu zuen Aitzolek euskal estetikari buruzko ikuskera, eta ordudanik jarrai litezke bere

---

249 KORTAZAR, J.; *Teoría y práctica poética de Lauaxeta,* Desclée de Brouwer, Bilbo, 1986, 90-91. or.

250 Ustez ausarkeria handia zelakoan, aurreratu nuen proposamen hau 1983an argitaratu nuen "Aitzolen proiektu kulturalaz" deituriko artikuluan, eta ausarkeria bati dagokion zuhurtasun osoaz. (OTAEGI, L. "Aitzolen proiektu kulturalaz"in *Jakin,* Aranzazu-Oinati, 1983, 18-27. or.) Aitzolen proposamen honen arrakastari eta eragin sakonari buruzko gaia guztiz aztertzeke dago, ene ustez. Kortazarrek Lizardiren joera aldaketaren ziotzat aipatzen dituen urrutiko eragileak, aldiz, ez zaizkit neuri behintzat, Aitzolen eragina bezain garrantzitsu iruditzen. Izan ere, Kortazarrek Lauaxetak bigarren liburuan agertzen duen herri literaturaren eraginaren iturriak aipatzerakoan biak posibletzat aipatzen dituen arren, hau da, Aitzolen asmoena nahiz Lorcarena, Lauaxetaren beraren zaletasunak ere bide horretatik jotzen zuela frogatzearen hirugarren bidea irekitzen bait du.

Aitzolen eraginaren indarra onarturik ere, Kortazarrek ez du eragin bakar eta erabakigarritzat ematen. Egokia da, hala izatea, ez bait zen Lauaxeta berrizaleen polemikaren bi ataletan 1932 hasierakoa eta Aitzolen "Antzinako oituren piztutzea"ren ondoriozkoetan Aitzolen jokamoldeekin erabat ados etorri, eta horregatik *Maiatzeko autorkuntza* deritzan olerkiari erantsiriko oharrak polemika bietan izan zuen jarrera umoretsua eta zirikatzailearen lekuko bait da.

artikuluetan herri literaturari buruzko azalpenak, eta proposamen konkretoak ere bai, arestian ikusi ahal izan dugunez.

Nolanahi ere den, gerraondoko kritikagintza literarioan Lauaxetaren 1935ko herri-olerkigintzarunzko bideraketaren iturrietan Aitzolen proposamenak eta teoriak izan zezakeen eragina frogatua ez bada ere, aski finkatutzat eman daiteke azken urte hauetan Aitzolen proiektuari buruz argitaratu diren artikuluei esker.

Aitzolek ordea, herri literaturaren altxorrak literaturgintza berriari ekar ziezaiokeen antzinako euskal kutsuari ematen zion berezko baloreaz gain, lehen esan dugun bezala, arrazoi praktikoak ere bazituen olerkarien tonoa eta sofistikazio joerak apaldu eta ulerterrazago bilakatzeko.

Nolanahi ere, herri poesira joaz gainditu nahi izan zuen Aitzolek guda aurreko mogimendu honek bere baitan ezagutu zuen krisia. Irakurleak erakartzeko ahaleginaren porrota eta "efikazia"ren aldetiko krisia dela gogoratu behar dugu, halere. Berez Aitzolek proiektatua duen epe laburrerako proiektua da porrot egiten duena eta ez mogimendu kulturala eta haren emaitza konkretoak.

Gudak euskal kulturaren mintzabide guztiak isilerazi baino lehenago Pizkunde mogimenduak bere baitan gora-behera zenbait ezagutu zituela jasoa du Ibon Sarasolak Gabriel Arestiren *Obra Guztiak* argitalpenaren hitzaurrean:

> "Adierazten saiatu garen joera kontraesale horiek sortu zuten egoera problematsu baina etorkizunari buruz hain esperantzatsua gerrak suntsitu eta deuseztu zuen" [251].

Ibon Sarasolak modu orokorrean azaltzen duen problematika hau ez da oso ezaguna izan. Olerkigintza jasoa, zaila eta errazaren arteko gora-behera honetan zehaztasun gutxi ematen duen arren, giroan, are giro abertzaleetan ere gaztelaniak zuen guztizko garrantzia azpimarratzean eztabaidaren gunea literatur joeren artetik kanpo, euskararekiko berarekiko jarrera soziolinguistikoetan ez ote dagoen susmarazten digu.

Baliteke Ibon Sarasola hizpidean egotea eztabaidetan eskuhartu zuten askoren sakoneko zioei buruz. Aitzoli dagokionez, ordea, beste zerbaitek ere eragiten zion: Literaturak eraginkorra izan behar zuen, kultur arloan lehen sailekoek egiten duten gidaritza lana egin beharra zuen, nola edo hala: literatura kultuaz ez bazen, literatura herrikoiagoaz.

E. Aitzolen proiektuari euskaldungoak emaniko erantzuna

1935-1-6an *Euzkadi* egunkarian argitaratu zuen "Balance literario euskaldun" deritzan artikuluan jende aurrean, herri-iritziaren aurrean bere proiektuan nabaritzen zuen funtsezko behaztoparria lehenengo aldiz salatu bazuen ere, lehenago ere, 1934rako lagunartean adierazia zuen bere iritzia.

Jokin Zaitegiri 1934-6-6an idatziriko gutun batean Aitzolek ematen dituen iritziak:

> "... tengo que hacerle un ruego: los que tenéis una sensibilidad particular, tenéis que tratar de bajar el tono.( ) No suelen querer leer nada. Hasta entre nosotros, nos cuesta leer los trabajos. (...) Queremos despertar en el pueblo la afición a la lectura, no tenemos otro camino...( ) Y esto, de verdad, es !lamentable! Tenemos que tratar de llegar al nivel popular si queremos atraerlos a la lectura" [252].

Geroagoko beste gutun batean berriz, irakurlegoak duen mukertasun horren arrazoia bilatu duela adierazten du:

> "Con el euskera que estamos produciendo, estamos hastiando a los lectores. Los libros no se venden. Estamos haciendo una literatura artificial. No sabemos bajar a las entrañas del pueblo, y los

---

251 SARASOLA, I.; "Euskal abertzaletasunaren argiak eta itzalak: Olerkariak" in ARESTI, G.; *Obra guztiak,* I, Kriselu, Donostia, 1976, 26. or.

252 Aitzolek Zaitegiri gutuna (1934-12-31) in UGALDE, M.; "Biografía de Aitzol" in AITZOL; *Idazlan Guztiak,* I, 65. or.

del pueblo nos huyen; es de verdad lamentable lo que nos está ocurriendo. Cada vez se habla menos en euskara; y se lee menos también" [253].

Aitzolek olerkariek eta hauen inguruko idazleek sorturiko euskara ereduari egozten dio errua, irakurleak gutxi dira, baina, hain zuzen ere, eskaintzen zaienak ez duelako erakarpenik haientzat. Aitzolen ustez, herri baten aurrerapen intelektualaren neurgailurik hoberena liburu produkzioaren kopurua da, eta ondorioz, 1934ean Euskal Herrian euskaraz argitaratu denaren balantzea egiterakoan, Lizardiren bi hil-ondoko idazti bilduma *Itz-Lauz* eta *Umezurtz Olerkiak* aurkitu ditu; bestalde berriz, Urretxuko IV Olerti Eguneko olerkirik onenen argitaralpenak aurkitzen ditu euskaraz originaltzat eman daitezkeen literatur lantzat. Iritzi etsikorra du haietaz, ordea:

> "Sin embargo, estos tres tomos, a pesar de su indiscutible valor literario, no llegarán, casi podemos asegurarlo, a robustecer y vigorizar el euskera. Fáltales lo esencial:la frescura, la naturalidad de un euskera fluido, fácil, inteligible. Están escritos con fórmulas lingüísticas la mayor parte de las poesías y artículos y nótase en ellos la ausencia del sentimiento de lo sencillo y natural, propio de un idioma vivo y palpitante. Hay en estas poesías y escritos un gran caudal de estudio, de trabajo, de decisión y hasta de ingenio; pero en ellos domina el artificio sobre el arte, lo rebuscado sobre lo natural, lo retorcido sobre lo espontáneo. Y es ya hora de que todos lo advirtamos" [254].

Aitzolek Lizardiren idazlan hauez gain, Orixeren *Barne-muiñetan* ere aurkitzen du 1934ko argitaralpenen aldean. Laudoriorik gabe, urteko libururik onenatzat ematen du, gehiegizko intelektualismoz salaturik. Hala ere, behin baino gehiagotan erderara jo behar izan duela dio eta horrelako zailtasuna etsigarritzat jotzen du:

> "Y si no se nos da una producción literaria que sin esfuerzo podamos leer y saborear, la literatura euskeldun nacerá muerta. No es ciertamente de esta clase la inspiración de "Orixe", quien antes más que al presente se ha distinguido por la suma facilidad en inteligibilidad de expresión, aun en materias no al alcance de los rudos. La mayor parte de los literatos, y desde luego los poetas, imitándolo, deben acentuar esta tendencia, buscando el placer estético de sus lectores, que no lo provocarán sino de esta suerte" [255].

Orixeren joera artifizialtzen ari dela salatzeaz, lehengo ereduarekin, 1931ean *Euskaldunak* poema idazteko eskatzeko izan zituen arrazoiekin jarraitzen du.

Aitzolen 1935eko irizpide honek ordea, gutunetan agertzen du benetako aurpegia: Aitzolek ez du aurrera eraman nahi dituen ekintzetarako beharrezko duen laguntzarik aurkitzen, ez irakurlegoak, ez erakundeek ez dituzte eskaintzen bere proiektuak beharrezko dituen motorrak: jendearen berotasuna eta zaletasuna, eta bestetik, erakundeen diru-laguntzak.

Esate baterako, Orixeren *Euskaldunak* 1933rako amaiturik bazegoen, zer dela eta ez zen argitaratu euskararen iraupenerako hain garrantzitsua izan beharreko "olerki gurena"? Zaitegiri 1935-3-15ean idatziriko gutunean azaltzen du, euskal egunkaria egiteko proiektuaren nahiz Orixeren liburua argitaratzeko zailtasunak nondik norakoak diren:

> "El poema de Orixe, estoy con ello, y tengo una preocupación grande: necesito diez mil pesetas para editarlo y no sé de dónde van a salir. A nadie le importan los temas del euskara y nuestra cultura, no se lee nada... Nuestro Curso de Poesía Vasca ha sido un rotundo fracaso, no ha venido nadie a escucharnos. Y para lograr adhesiones para "Euskaltzaleak" y para otras actividades euskéricas nadie ofrece un céntimo... Sigo luchando por el euskera, tiene muy pocos ayudantes y enamorados". "Nadie

253 *Ibidem.*

254 AITZOL; "Balance literario euskeldun de 1934" in *Euzkadi*, 1935-1-6; *Idazlan Guztiak*, V, 141-142. or.

255 *Ibidem*, 142. or.

ofrece ayuda... ¿Cómo vamos a pensar en editar un diario? ¿Cómo podríamos recoger medio millón de pesetas" [256].

Aitzolek Belgikan dagoen Zaitegiri egiten dizkion aipamen zehatz hauek argitzen dute Orixe eta Lizardiren ahaleginen fruitu ziren *Euskaldunak* poema eta egunkariaren proiektuaren inguruko atzerapena eta isiltasuna.

Ez zen Aitzolen nahimena arazoaren istilua, antza denez, Euskaltzaleak erakundeak zuen dirubideketa egoera zaila baizik.

Bigarrenak konponbide zaila bazuen, legenengoak irakurzaletasunarenak, irakurlegoa sortzearenak irtenbideren bat izan zezakeelako ustean abiatu zen Aitzol bere proiektuaren hirugarren urratserantz: bertsolaritza suztatzearen biderantz, alegia.

Aitzolek olerkari eta idazleek Pizkunde aro honetan sortu duten euskararen ereduari buruz duen iritzi negargarri horrek ez ezik, erakundeek, eta are garaiko euskaldunen jarrera nagi eta ezaxolazkoak kezkatzen zuen Aitzol.

1934. urtearen literatur balantzea egiterakoan, nabaritzen duen desorekarik handiena zera da, Euskal Herrian irakiten dagoen giro politiko eta sozialaren aldean, hizkuntzak eta honen literaturaren bilakaerak duen bizitza geldoa da. Desoreka horrek euskal kulturaren bizi iraupena eta "sasoiari" buruzko kezka larria sortzen dio:

> "La pasión y el ardor políticos palidecen o se exacerban; los conflictos sociales recrudecen o amenguan, sin reflejar muchas veces el estado íntimo, las ansias secretas del auténtico espíritu racial, siempre, y desde luego, con ser ellos más elocuentes que el progreso material y la prosperidad económica. El síntoma que no engaña en la existencia de un pueblo es el estado de lozanía o decadencia de su lengua vernácula y el raquitismo o progreso de su literatura nacional. [ ] Juzgue el lector si la actividad euskeldun corre pareja con el ardor político, electoral y social que hoy el País Vasco experimenta. Y vea si a él alcanza algún tanto de responsabilidad en esta tan patente postración de nuestro idioma" [257].

Aitzolek bere iritzi eta gogo-egoera adierazi zuen artikulu honetan, ez zuen parekotasunik ikusten giroan nabaritzen zen hauteskunde sukar, gizarte eta politikaren aldetiko bizitasunaren eta literaturak eta hizkuntzak berak bizi zuten giro baztertuaren artean. Kezkagarri zitzaion eta irakurlegoa ere hortaz kontura arazi nahi izan zuen, artikulu gogor honen bidez.

Aitzolek argitaraturiko artikulu bereziki garrantzitsu honen erantzun gisa, hau da, irakurlego murritza izatearen arazoari heldu zioten zenbait artikulistek. Adibide gisa, "Gurbindo" ezizena erabiltzen zuen idazleak "Los males del idioma" [258] artikuluan benetako arazoari buruzko zehaztasun gehiago aurkeztu zituen.

Liburuak merkeak direla eta haien kalitate maila ona dela onarturik, irakurleen mukertasunaren arrazoiaren bila abiatu zelarik, irakurlegoaren kultura mailaren apaltasunean kokatu zuen gakoa:

> "Si pues ni por falta de interés por parte de los autores, ni por lo costoso de su adquisición cabe explicar el retraimiento de los lectores euskaldunes, ¿cómo no ha de preocupar el tan corto número de lectores de las obras euskéricas?¿Es acaso que no interesan los temas de estos libros, por ejemplo? No sostendremos que el contenido de algunos de ellos, por ejemplo Itz Lauz y Umezurtz Olerkiak son de franco sabor popular, pero de todas formas entre los estudiosos renacentistas, ¿no cabe el que pueda arbitrarse arriba de trescientos compradores?. Esto revelaría un índice cultural pobrísimo. ¿Dónde

---

256 Aitzolek Zaitegiri gutuna (1935-3-15) in UGALDE, M.; "Biografía de Aitzol" in AITZOL; *Idazlan Guztiak*, I, 65. or.

257 AITZOL; "Balance literario euskeldun de 1934" in *Euzkadi*, 1935-1-6; *Idazlan Guztiak*, V, 141-142. or.

258 AGERRE, J., "GURBINDO"; "Los males del idioma" in *El Día*, 1935-1-1, 1. or.

están esas élites vascas que sacamos a relucir cuando se trae a la miente la potencialidad de nuestro pueblo? [259].

Salatzen dituen axolagabekeria, kultura maila eskasa eta euskaltzaleen arteko uste okerrek, Aitzolek proposaturiko bide bera hobestera eraman zuten Gurbindo: hizkuntz eredua soiltzea eskatzera eta gaien herrikoitasuna eta ulerterreztasuna areagotzera, gai erakargarriagoak erabili daitezela proposatzera.

2.4.3.3. Proiektuaren, baliapideen eta hartzaileen arteko desoreka

Aitzolen kultur proiektuaren baitan aipatu ditugun bi epe hauetan olerkigintzaren funtzio eragileari buruz zuen ideiak gaur egungo ikuspuntutik ikusirik mekanizistegiak dirudite literaturak herri pizkundean bete lezakeen funtzioari buruz. Efikaziaren irizpideari lotuegi dago proiektua, eta zalantzarik gabe, punturik harrigarrienetako bat epopeia nazionalaren gaian zehatz-mehatz ezagutzen den bilakabideak garai hartako euskal giroaren ingurumarian bakarrik uler daiteke, hots, hizkuntzaren galtzoriaren kontzientzia larriak jotako euskaltzaleen esparruan.

Manuel Lekuonak dioskun bezala, "obsesio" baten ondorio diruditen arren, eta efikazia horren izenean Aitzolek baztertu eta gaitzetsi zuen Pizkunde aroko olerkigintza berrizalearen garrantziari ohartuz gero, haren eragina kaltegarri izan bide zen [260].

Aitzolek euskal literatura planifikatu, antolatu, bideratu eta nolabait kudeatu zitekeela uste izatean, literaturari berari buruzko ikuspuntu batez ere artistikoa zuten hainbat idazleri min eman eta kalte egin zion. Lizardiri kasurako, eta Orixe bezalako idazle independientearen haserrebidea eragin zuen bere agindu nahia eta guztizko esku sendoarengatik.

Halere, literaturaren bilakabideari eta funtzioari buruzko usteetan urrunegi joana bazen ere, eragile aparta izan zen, gainerakoan sakabanatuegia, indargabetuegia eta noragabetuegia zegoen euskal literaturaren bideei zentzu bat ematean, betebehar bat ematean, eta batez ere, ahal izan zuen neurrian, azpiegitura eskaini ziolarik.

Haren eragina garaiko olerkigintzan ez ezik, antzerkigintzan eta bertsolaritzaren joera berrietan nabari daiteke, aparte utzirik jakina, kazetaritza, gizartegintza, eta ideien nahiz euskal kulturaren ezagutaraztean izan zuen eragina [261].

---

259 AGERRE, J., "GURBINDO"; *Ibidem.*

260 "Aitzol tenía como una obsesión por la poesía. De ella y los poetas esperaba un verdadero renacimiento cultural y lingüístico"... LEKUONA, M. aipatua in UGALDE, M. "Biografía de Aitzol" in AITZOL; *Idazlan Guztiak*, I, 81. or.

261 Ikus 1935ean Aitzolek argitaraturiko "Balance literario 1934"" artikuluari erantzunez, Latsurregi'tar Pelik argitaraturiko "Aitzolen iritzi bat" (*El Día*, 1935-1-20, 1. or.) deritzan artikuluan dioena:

"Estuegiak gera nere ustez, elkarren buruak epaitzen; erizpide bedarregikoak, Euskal Pizkunde au bide zabaletik bearrean bidetxior batetik eraman nai izatean. Ez, Aitzol, ez. Len ere erantzun naian gelditu nintzaizun Urretxuko Olerki idaztiaren aurre-itza irakurri nizunean. Ta oraingoa ikusi detanean, ezin izan diot neure buruari eutsi.

Aurre-itz artan saritutako "Bost Lore" olerkiaz diarduzula auxe diozu:

"Baita oraindiño izan diran olerkariei ere irakaspen ederrik erakutsi lezaieke "Bost Lore" onetxek, alegia, orain arteko ertilariak gaurdaiño taiutu ez duten erara eder-gaiak, antz-irudiak eta amtes-ereduak eusko kutsu yatorraz asma ta sor lezaketela euskeldunen begiak ikusi eta beroien irudipenak arasi dituzten lege antzera, ta ez atzerritar ertilariak erakutsi diguten erara."

Beraz, ortik kanpora ez daiteke euskal kutsurik duen olerkirik egin? Oraindaiñoko olerkariak ez ote dituzte "beste eraz" mila olerki eder sortu? Zuk dakarkizun eredua ez ote geienez, abesteko edo dantzatzeko egiten diranen eredu bakarrik? Euskal ederkera dena ote da era ori, ala euskal ederkeraren adar bat? Euskal irudi ta oldozkunak soñeko orretaz bakarrik jantzi al diteke? Euskal kutsua eran ala mamiñÂan, gunean ote dago? Neretzat zuk jarri dituzunak aiña euskal kutsu badute Lizardiren "Urte Giroak" eta Orixeren "Bil nadin barnera". Len aitatutako idazlan ortan ere kriterio edo irizpide au darabilzu. Beraz, idazle denok errikoi

Aitzolek 1935ean bere begiak euskal literaturaren arloan bizitasun gehienik eta ikuslegoari erakarmen gehienik sortzen dion ekintzetara, hau da, bertsolaritzara itzuli izanaren arrazoiak badirudi ongi ezkontzen direla olerkigintza idatziaren arloan sumatu diogun porrot susmoarekin.

Askotan esan izan da Aitzolek bertsolaritzarekin zuen zaletasuna Manuel Lekuonak itsatsia izan daitekela. Izan ere, Manuel Lekuona irakasle izan bait zuen Aitzolek Gasteizeko apaiztegian. Manuel Lekuonaren oroitzapenak jasotzen dituen Martin Ugaldek eginiko elkarrizketetan Aitzolek bertsolaritzarekiko izaniko interesaren berri jaso genezake.

Manuel Lekuonak batez ere 1930ko Bergarako Kongresuaz geroztik gogoratzen du Aitzol; hitzaldia 1931ko otsailararte atzeratu behar izan zuela, eta hitzaldi horren jarraipena, Eusko Ikaskuntzaren lokaleetan eman zuena bakarrik ezagutu zuela Aitzolek:

> "Y cuando llego este día, Aitzol estaba allá, y cuando escuchó todo aquello, !Jesus!, sí, entonces dijo que había que dedicarse al bertsolarismo. Este ambiente que nació allí se mantuvo, comenzó a trabajar en este campo del canto popular vasco con mucha emoción [262],

Aitzolek berak, aldiz, 1936. urtean Euskaltzaleak erakundeak Donostian argitaraturiko *Bertsolari-guduak* liburuskan 1935 eta 1936ko urtarrilean ospaturiko bertso-guduetako bertsorik hoberenei jarritako hitzaurrean azaltzen du Euskaltzaleak erakundeak bertsolaritzaz zuen interesa.

Bertsolaritzari buruzko lauzpabost orrialdetako sarreraren ondoren, "Bertsolari-guduak" deituriko azpi-atal batean, Antoine D'Abbadiek antolaturiko bertsolari jaialdiak eta Donostiako "Consistorio de los Juegos Florales" delakoak 1877az geroztik Antzoki Zaharrean Santo Tomas egunez ospatzen zituzten bertso-guduak gogora arazten ditu:

> "Gaurko mende au argitara zitzaigunean guda oiek, aulkeriaz yota eriotzera zetozen. Azken-aldi larrira españar Diktadurak zekarkin bertsolarien yoku eder auxe. Betirako igartuko ote zitzaigun euskal-landarea? [263].

Beraz, bertsolari saioek aurretik zuten tradizioa galdua zela oharturik, Euskaltzaleak erakundeak ekintzaren bat aurrera eramatea pentsatu zuen:

> "Koplakarien il bear onek larri genkarzkin "Euskaltzaleak"ekoak. Alegiko errotan alkartu giñan "Lizardi" zana, Yauregi olerkaria, Labaien antzezlaria eta Erauzkin bertsolaria, gaitz orrentzako sendagairik aurkitzen ote genduan edo. Ango asmoak zerbaiterako izan ziren nonbait [264].

Aitzolek hau idazterakoan sei urteko urruntasunez gogoratzen du Alegiko errotako bilera hura. Izan ere, 1930ean Euskaltzaleak erakundeak "Centro Católico" antzokian bertsolari-gudu bat antolatu bait zuen Altzaga'tar Toribi jaunaren omenez. Horretarako, Donosti zaharrean bizi zen eta "Consistorio de los Juegos Florales" direlakoetan epaile ibilitako Iñaki Urangaren laguntza estimagarria izan zuten.

---

bakarrik idatzi bear?

Gañera errikoi zer dan nork mugatu? Alde batzuetan errikoi diren itzak, bestean ezezagunak baitira, euskera orokor bat egin artean. Ez ote obe askatasun geiago, ta bakoitzari bere eran egin dezan uztea? Geroak (erriak) erabakiko du. Ez det uste batek besteari kalterik egiten diotenik. Horati ta Virgili'k Tacitus eta Ciceron'ek guziok 8bakoitzak bere eran edertu egin zuten beren izkera. Alatsu beste izkuntza guztietan ere: batzuk labur, besteak ugari, onek zorrozki, ark biribil. Bebil bakoitza bere bidean. Mugarrien idazlan ura burutik kendu ezinda nago. Irakurri zazu berriro, bere landu-usain ta guzti, mami apur bat ere badu ta. Eta irakur ondorean zure eritziko ez diranen erruki apur bat sortuko zaizulakoan nago... "Ta gauzaez (ikasi-zale) oeri... ez ukatu beren arako mugarri lakartxo bat bederik bidertzean sartzea".

262 UGALDE, M.; "Biografía de Aitzol" in AITZOL; *Idazlan Guztiak*, I, 80. or.

263 AITZOL; "Bertsolaria, nor degu?" in *Bertso-guduak*, Donostia, 1936, 11-23. or.; *Idalan Guztiak*, III, 113. or.

264 AITZOL; *Ibidem*, 113-114.or.

"Antzerti-Egunak berekin zaramakiten lanik asko sortu eta iraunarazteko. Alako baten, ordea, Bertsolari-egunari ere bere garaia iritxi zitzaion. Liburutxo onen asieran irakur zenezake. "Euskaltzaleai", Donostiko Eusko Gaztedi gartsuak eskeiñitako laguntza anaikorraz, bertsolarien guduak orain beiñere baiño biziago eta kementsuago eraberritzea erabaki azi zion" [265].

Hain zuzen ere, Aitzolen artikuluen bildumaren zerrendari ohartzen bagatzaizkio, artikulu horiek argitaratzen hasi zen 1930ko urte hasieratik bertatik aurki daitezke bertsolari buruzko artikuluak txitean-pitean, baita Euskaltzaleak erakundeak bertsolaritzari iraunarazi eta maila goragoko batera eramateko dituen asmoak: "El bertsolari" 1930, "Desaparecerá el bertsolari? Una inquietud" 1930, "El bertsolari Xenpelar" 1930...

"Concursos de bertsolaris" [266] deritzanak hain zuzen ere, 1930. urte amaieran ospaturiko bertsolari-guduaren berri ematen du, eta berez sagardotegi eta taberna zokoetara bazterturiko joko literario horrek antzokietara eta kultur ekintzetara eramanez gero har lezakeen goren mailari buruz espekulatzen du.

1931ko lehen zantzu horietatik 1935erarte Aitzolek aldian behin bertsolariei buruz egiten dituen aipamenak izen propioz, Xenpelar, Bilintx edo Iparragirreri buruzkoak izaten dira aurreragoko asmorik gabe. 1935rarte ez du Aitzolek asmo hura berriro eskuetaratuko eta urte horretan eta hurrengoan bertsolaritzari bide berriak eskeintzearen jokabidea hartuko du. 1935-1-20an ospatu zen lehena, "Gran Kursaal" zeritzan antzokian eta ikuslego ugariaz. Aitzolek "Qué es el bertsolari" artikulua argitaratu zuen egun berean *Euzkadi*n, bertsolaritza goralduz eta entzulegoa animatuz.

Bigarren Bertsolari eguna, aldiz, 1936-1-19an ospatu zen. Aurrenekoan, irabazle Basarri gertatu zen arren, bigarrenean antolatzaile izan zen eta Txirritari eman zitzaion lehen saria.

Aitzolek hautatu zuen hirugarren urratsa osatu behar ote du bertsolaritzak?, lehenik, olerkigintza kulto eta landua, gero, olerti herrikoia, eta azkenik bertsolaritza? Bide honetatik jotzea pentsatu zuela garbi konstata genezake, bertsolaritzaren inguruko azken urrats honek ordea, nolazbait esateko ez du mailadi hori osatzen. Aitzolek bertsolaritza suztatzen duenean ez du bere proiektuaren motore edo tresnatzat aipatzen.

Urte horietan bertsolaritzari buruz idatziriko artikuluek bertsolaritzaren fenomenoa bere horretan ulertu eta ezaguterazteko asmoa eta helburua dute, hari dagokion maila eta tokia eskaintzekoa, baina literatura kultoari lehen urteetan ematen zion funtzio bera eransten dionik ezin esan.

Halere, konfidantza osokoak diren iturriek hala adierazten digutenez, ez dezakegu aipatzeke utzi ziurrenik Aitzol konturatua zela ahozko literatura moeta honek zuen jendea erakartzeko eta berotzeko gaitasunaz.

Besteren artean, Manuel Lekuonaren lekukotza har daiteke honen frogagarri:Así nació en Aitzol la nueva idea que fué el motor dentro de una cultura oral y ágrafa, era fundamental" [267].

---

265 AITZOL; *Bertsolari-guduak*. Euskaltzaleak 1936; *Idazlan Guztiak*, VI, 114. or.

266 AITZOL; "Concurso de bertsolaris" in *El día*, 1931-1-10; *Idazlan Guztiak*, V; 95-96. or.

267 LEKUONA, M. aipatua in UGALDE, M.; "Biografía de Aitzol" in AITZOL; *Idazlan Guztiak*, I, 81. or.

II PARTEA

LIZARDIREN IDEIA POETIKOEN LERRO NAGUSIAK

0. SARRERA

Lizardiren ideia poetikoen lerro nagusiak azaltzeko asmo edo helburua du atal honek, alegia, kazetari lan, iruzkin literario, hitzaldi eta zenbait olerkitan isladaturik utzi zituen ideia poetikoen sarea berreraikitzea, hirugarren partean ideia-sare horrek eta Lizardiren olerkiek zein zerikusi duten aztertzeko beharrezkoa den oinarri teorikoa osatzea.

Atal honen metodologiak testuetan oinarritzea eskatzen du, eta Lizardik formulaturiko, idatziz aditzera emaniko ideia poetikoek osatzen duten egitura kontzeptuala agerian jartzea denez gure hemengo helburua. Horrenbestez, aldez aurretik adierazia geratzen da lan honen muga jakinak Lizardik aditzera emandako ideia poetikoak direla soilik, eta ondorioz, haren obra poetikoaren poetikaren ikuspegi oso-osoa agertzeko asmorik ez pretentsiorik ez duela.

Ene ustez, Lizardiren idazlanetan zehar adieraziriko ideia literarioek haren poetikaren ikuspuntuaren zenbait alderdi jakingarri nabarmenerazten dituzte, esate baterako, beretzat lehentasunezko irizpideak zeintzuk ziren, edo bere mintzaira poetikoaren moldaketan hizkuntzaren elaborazio linguistikoak berak duen ustegabeko garrantzia.

Lau kapitulutan bereizi dut Lizardiren ideia poetikoei buruzko bigarren parte hau: lehenik, arteari buruz dituen ideiek hartzen duten abiapuntu teorikoa azaltzera bideratua, Lizardik izadian kokaturiko gizaki gisa hartzen duen perspektiba filosofiko eta erlijiosoaren esparrutik, eta euskaldun gisa Pizkundearen ideien esparrutik abiaturik.

Bigarrenik, abiapuntu teoriko horrek ematen dion artearen funtzioari buruzko azalpena egingo da, hiru arlo bereiziz: Pizkunde mogimenduetako literaturaren funtzioa, euskararen gaitasun espresiboa frogatu beharra, eta modernitatearen eskakizunei egokituko zaien abangoardiazko literatura.

Hirugarren kapituluan, aipaturiko abiapuntu teoriko eta gizarte betebehar horietarako Lizardik moldaturiko kanon estetikoaren ezaugarri nagusienen oinarriak aztertuko dira hiru ardatzetan bidurik: errealitateaganako hurbilketa, endelegua eta sentimenduen arteko harremana eta kontzeptismoa.

Lizardik sorturiko eredu pertsonal horren lerro nagusiak laburbilduko ditut azkenik, hirugarren partean egingo den azterketa formalerako lotura gisa balio dezan, ideia estetiko horien arteko harremanei buruzko zenbait ondorio eskainiz.

1. ARTEARI BURUZKO KONTZEPZIOA. ARTE NAZIONALA

Kontzepturik orokorrenetatik abiatzez gero, Artea da Lizardik aipatzen dituen ideia estetikoetan zabalena eta kontzeptu filosofiko eta erlijiosoen esparru berean kokatzen duelarik.

1.1. KONTZEPZIO OROKORRA

Lizardiren ustez, Naturak, Izadiak berak borondate artistiko bat du, gizadiaz gainerako bizidun eta bizigabeak ere edertu-nahi batek jota daude, baina Jainkoaren arauetara mugaturik daude, hau da, ez dute erabateko askatasunik nahi bezala jokatzeko, eta sail bateko eta bestekoek edertzeko era ezberdina badute ere, beti berbera darabilte gizaldiz gizaldi:

> "Erti. Eder-ti'z da sortua; ta orrenbestez, orra erdi-adierazirik aren mamia. Olertzale-antzo esan genezake erti autsu dala: izadiaren edermiñak bizitza ikutua... Gure bizitoki maitagarri ontan guztia dirudi Jainkoaren ala gizonaren edermenak igortzia: laztan oien bidezko ume da ertia [1].

---

1 LIZARDI, X.; "Eusko Ikaskuntzaren bostgarren batzarra" (1930-9-9) in *Itz-lauz* (2. arg.) 115-119. or., K-L 196. or.

Lizardirentzat Izadia eta Jainkoa borondate orokor bat eta bera dira, printzipio eragile berberaren deitura ezberdinak. Delako printzipio horrek edertu-nahi batez igortzitzen ditu bizidun eta bizigabe guztiak:

> "Irudimenari lokarria etenik, uste dezakegu are bizigabeak ere edermiñik badutela... Or arria, bere burua edertu bearrez, aitzurdin (mármol) biurtu...
>
> Ezin-igizko bizidunen artean, ertia lore da ta adaburu jori...
>
> Bizidun ibilkorretan —gizakia ez barren— maila bat gurenagoa atzemanik dezu ertia. Or erlearen abaraska arrigarria; or txoriaren kabi ta abestiak...
>
> Ludian zer-oro ba-da edertzale —arria, zuaitza, aberea— nola ez bide-litzake gizona?...
>
> Adimengabeak, onakoak itsuki, arakoak oldeutsez, guziak Egilearen arauari lotuta, erti-lana dagie, aiena beti da bat eta alda-eziña" [2].

Lizardiren natuaren ikuspegi honek, Jainko edo Naturaren edertu-nahi baten arabera moldaturiko bizigabe eta bizidunak nolabaiteko borondate orokor baten zatitzat hartzen ditu. Arteari ematen dion azalpen modu honek Maurize Maeterlinck-en idazlan bati buruzko azalpen-saioaren hitzaurrean dioenarekin lotuz gero, zentzu konkretoagoa hartzen du.

*Yakintza*n argitaratu zen "Txindurriak" [3] liburuaren laburtze-saiotxoan adierazi zuen bere ustez, Maurize Maeterlink idazlea natura eta biziaren misterioak, "enigmak", "biziaren eta geroaren izkutuak" urduri zerabilela, aitortu nahi ez bazuen ere.

Berari enigma horrek sortzen zion kezkaren, "urduri"tasunaren alderdi berezi bat da Lizardiren artearen kontzeptzio hau bera ere. 1933ko "Txindurriak" izeneko saiotxoan dioenak 1930ko Bergarako "Eusko Ikaskuntzaren bostgarren batzarra" hitzaldian zioenaren iturria zein den argitzen du. Maeterlinken ikuspuntua bere egiten du oso-osorik 1930ean, haren izenik aipatu gabe. Baina bi ezberdintasunez ohartu behar da, Lizardik ez du Maurize Maeterlinken eszeptizismoa partekatzen, eta hark "enigma" deitzen duen horri Jainkoa deitzen dio berak.

Lizardik hiru urteko aldeaz idatziriko bi artikulu hauetan aipatzen duen naturaren enigma eta edertu-nahiaren gaia Maeterlink-en zenbait idazlanetan aurki daiteke. [4]

Idazle belgiar honek (Gante 1862-Niza 1949), antzerki eta olerkiak egiteaz gain, naturari eta gizonaren misterioari buruzko zenbait ensaio ospetsuak ziren Lizardiren garaian: *Le trésor des humbles* (1896), *La vie des abeilles* (1901), *L'intelligence des fleurs* (1907), *La mort* (1913), *Le grand secret* (1921), *La vie des termites* (1926) eta *La vie des fourmis* (1930). 1911ean Nobel saria irabazi zuen eta entsegu liburu poetiko-filosofiko hauengatik ez ezik, antzerkigile eta poeta sinbolista gisa ere ospetsu zen. 1892ko *Pelléas et Mélisande* antseslanak mundu-mailako errekonozimendua eman zion, eta gizakion bizitzaren patuaren izakera zentzugabeko eta kontrolaezinaz mintzatzen da [5].

Lizardik ezagutzen zituela ziur dakigun bakarrak *La vie des abeilles eta La vie des fourmis* dira, eta iturri haietara joko dugu argitasun bila.

Maeterlinken ustez, biziaren printzipio orokor horri menderik mende izen ezberdinak eman bazaizkio ere, funtsean beti gauza bera da, ezagutzen ez den borondate misteriotsua, enigma:

> "(al enigma) Se le encuentra en todas partes cuando se sigue la vida hasta en su principio todopoderoso. A este principio, de siglo en siglo, le modificamos el epíteto. Después se ha reconocido que esos consuelos y esa precisión eran ilusorios. Pero que le llamemos Dios, Providencia, Naturaleza, Azar, Vida o Destino, el misterio sigue siendo el mismo, y todo lo que millares de años

---

2 *Ibidem*, 115-116. or.

3 LIZARDI, X.; "Txindurriak" in *Yakintza*, II, 1933, 84. or.; *K-L* 404-408. or.

4 "Izadiaren Izkutukiak" edo "naturalezaren misterioak" delakoaren aipamen farregarria ere bada 1928-4-15eko "Petra Gorra'enean" artikuluan.

5 BALAKIAN, A.; *El movimiento simbolista, Guadarrama, Madrid, 1969, 162-170. or.*

de experiencia nos han enseñado, es a darle un nombre mas vasto, mas próximo de nosotros, más flexible, mas dócil a la espera y a lo imprevisto" [6].

Lizardiren 1930ko Bergarako hitzaldian, "Eusko Ikaskuntzaren Bostgarren Batzarra" izenekoan, Maeterlinken *La vie des abeilles*etik harturiko behin eta berriroko aipamenak egiten ditu, egilearen izenik aipatu gabe, eta 1933ko "Txindurriak" saioan Maurize Maeterlinken *Les fourmis* (1930) liburuaren mamia jasotzerakoan eginiko sarrera bibliografikoan, arteaz duen ikuspuntua idazle honen ikuspuntu filosofiko orokorrarekin harremanetan jartzen duela ikus daiteke.

Lizardik, Maeterlinkek bezala, naturaren misterioa, "izkutu-izkutuko arrigarria" miresten du eta enigma horren zentzua ikertzea jotzen dute giza-bizitzaren benetako helburu "organikoa". Naturaren errealitate txikienetan bilatzen dituen egia txikien bitartez egia nagusi horren nondik-norakoa igartzea eta pentsamendu horren edertasunaz gizateria aberastea da gizonaren betebeharra. Horra Lizardiren idealismoa.

Lizardik ideia literarioen abiapuntutzat hartzen duen ikuskera, beraz, ikuspuntu filosofiko eta erlijiosoaren esparru berean kokatzen da, eta horregatik, aurrerago aztertuko dugunez, Lizardik olerkariaren funtzioa gizartearekiko harremanetan ikusiko du, Maeterlinken ustez, gizakion funtsezko betebehar izpirituala, horixe bait da:

> "Y así como está inscrito en la lengua, en la boca y en el estómago de las abejas que deben producir miel, está incrito en nuestros ojos, en nuestros oídos en uestras médulas, en todos los lóbulos de nuestra cabeza, en todo el sistema nervioso de nuestro cuerpo, que hemos sido creados para transformar lo que absorbemos de las cosas de la tierra en una energía particular y de una calidad única sobre este globo. Ningún ser que yo sepa, ha sido dispuesto para producir como nosotros ese fluido extraño, que llamamos pensamiento, razón, alma, espíritu, potencia cerebral, virtud, bondad, justicia, saber, pues posee mil nombres, aunque no tiene nada mas que una esencia [7].

Izadiaren misteriaren magalean kokatzen den poetaren ikuspuntuak naturaren elementu ezberdinetan, zehazki txindurri eta erletan, txori, lore eta zuhaitzetan gizakietan ikusten dituen jokamolde berak ikusten ditu:

> "Badirudi maiz txindurria gu bezalaxe, sen itsuari ala bere asmamenari, zeri jarraiko, artega ta zalantzan ote dabillen". [8]

Izan ere, Maeterlinkek bezala, erle eta txindurrien elkartasun horietako barne-antolamenduan giza taldeentzako eredugarri litzatekeen errepublika modua, "erriketa-eredu bikaña, gizartean beiñere ezagutuko ez degun bezain egokia ta osoa" ikusten duela.

Ene ustez, Maurize Maeterlinck idazle belgiarraren liburuak ezagutzen zituela jakiteak argitzen du Lizardik naturarekiko hartzen duen ikuspuntua [9]: biziaren bilakaerari zentzua ematen dion pentsamolde egituratzailea da. *La vie des abeilles* delakoan azken ondoriotzat esaten dena gauzatzen duen poetika eraikitzen du Lizardik, hain zuzen ere bizitzaren enigmari zentzua bilatzen jarduteak bere bizitza pertsonalari ere zentzua eman liezaiokeelako:

> "Del mismo modo que las abejas van de flor en flor recogiendo más miel de la que necesitan para ellas y sus hijos, busquemos también, de realidad en realidad, todo lo que pueda alimentar esa llama incomprensible, a fin de hallarnos dispuestos a todo acontecimiento con la seguridad del deber orgánico cumplido. Alimentémosla con nuestros sentimientos, con nuestras pasiones, con todo lo que

---

6 MAETERLINK, M.; *La vida de las abejas* (1901), Losada, Buenos Aires, 1990, 147. or. (6. arg.)

7 *Ibidem*, 180. or.

8 LIZARDI, X.; "Txindurriak", K-L 407. or.

9 Ikus Lizardiren naturaganako hurbilketaz, AITZOL. "Urte giroak"in *Euzkadi*, 1932-6-15, eta MITXELENA, K.; "Biotz-Begietan". Lizardi'tar Xabier. Olerkiak" in *Egan*, 1956 (2), 84-86. or.

se ve, se oye y se toca, y con su propia esencia que es la idea que saca de los descubrimientos, de las experiencias y de las observaciones que trae de todo lo que visita [10].

Lizardiren errealitateaganako hurbilketa Maeterlinkek aholkatu bezalakoa da atal honetan zehar ikusiko dugunez: "halabeharrak, oroitzapenen batek, iruditu batek, barrengo lera batek edo beste edozein ziok objeturen bat edertzat jo arazten badizu, inoiz baino hurbilago zaude errealitate horren egiatik. Eta miresteko edo harritzeko gaitasun horren bidez, egiara hurbiltzeko bide bat hartzen duzu gauza guztien atzean aidean geldia dagoen edertasunaren pareko den egia ezezagun eta betierekoa. [11]

Arretagarria da arteari buruzko teori estetikoak puri-purian dauden garaian, eta "el arte por el arte" deituriko teoriak indarrik gehiena izan duen garaian Lizardik arteari buruzko teoria mende hasierako ikerketa zientifikoetan oinarrituriko ikuskera filosofikoen esparruan kokatzea, Maurize Maeterlinki jarraikiz. Azpimarragarri da Lizardiren estetikaren oinarriak aztertzen dihardugularik, garaiko korronte nagusien eragin teorikoen artean artearen kontzeptzio filosofiko honetara jo zuela nabarmentzea, eta Lizardiren esperientzia bitalak eta olerkigintzak duten harremana oinarri-oinarritikoa dela ohartzea.

1.2. ARTE NAZIONALA

1.2.1. Indibiduoaren askatasunaren mugak

Arte askatasunari dagokionez, gizakiari aitortzen dio askatasun mailarik altuena: artean formak asmatzeko eta nahi duen erara, asmamenez eta irudimenez eder-zaletasunari irteera emateko askatasuna du gizakiak bizigabe eta adimen-gabeek ez bezala:

> "Gizona, ordea, jare baita, buru-aalmenen jaurbidea bere esku baitu; ertigintzan ere, gañerako egintzabideetan ainbat, oarrez, asmamenez ta gorago-joranez diardu, jaiotzetik il-ondoraño bizitza erti-lanez eztitzen seaska-eresia leenen dala ta obi-arria azken" [12].

Gizakiak berak ere, naturaren beste elementuek bezala mugak ditu bere edermenari eman diezazkiokeen formetan, senak eragindako joera edo bide jakin batzu hartzen ditu, beraz, adimengabeek bezala, erdi-senezkoak diren joerak hartzen ditu.

Animaliek beren espeziearen senari jarraitzen zaizkio, "oro-lege bearkor bat"ek eragiten die, "nork eta nola adierazia den ez agertu arren, aren indarrak daragio". Era berean, gizakia ere bere giza-talde bereziari, bere herriari dagokion estetika bereziari jarraitzen zaio, Lizardiren ustez:

> "Alabaña: are gizakiaren aria ere, jaretasun-utsezkoa ezik, erdi-oldezko danik badasakegu. Alegia: intxaurrak ezpaitu pagoarenaren tankerako ostotsaz bere burua jazten; ta ez-ta enarak kabia zozoak alakoxea egiten; alatsu, giza-enda —giza era, giza-erri— bakoitzak eder-era berezia dakar ta, ondoz, erti-era berezkoa. Txinatarren ertia, Kolon-ek Ameriketa'n arki-gizadiena, izoztar larruz-jantziena, eztira ertiera berdintsuak" [13].

Lizardik arte nazionalaren izaera kokatzen duen ingurumariarengatik, eta haren izaeraren jatortasuna edo izaera ez-bortxazkoa, naturala azaltzeko, erabiltzen dituen alderaketak, oso soilak edo tolesdurarik gabekoak dira. Badirudi Lizardiri hitzaldi honetan interesatu egiten zaiola herri

---

10 MAETERLINK, M.; *La vida de las abejas*, 181. or.

11 *Ibidem*, 181. or.

12 LIZARDI, X.; "Eusko Ikaskuntzaren...", 116. or. Bergarako hitzaldian ageri duen bizidunen "oldezko" edo senaren arauerako edermen horri matizazioak egiten dizkio 1933ko "Txindurriak" saioan, dirudienez hauetan norbere gisako ekimen gaitasuna ere sumatu baitute azterlariek.

13 *Ibidem*, 196. or.

bakoitzak bere estetika berezia izatearen *naturaltasuna* azpimarratzea. Bestelako konnotazio politiko edo nahaspiletatik urrundu nahi du gero definitzen saiatuko den euskal estetika bereziaren izaera:

> "Erri bakoitzak, odoletiko zalearen, bere bearraren, bere bizieraren, zeru argi ala lañoaren antzo ta arabera sortu-ertiera, eta ertiera orren arauz sortutako erti-lanak, orra, erri-ertia zer" [14].

Beraz, herri bakoitzaren artearen ezaugarrien faktore determinatzaileak guztiz "naturalak" dira, eta ondorioz adibide soil batzuen bidez ahalegintzen da herri estetika berezi horrek sorturiko fruiturik arruntenak aipatzen, eta horien anonimotasunaren altzoan estetika berezi horrek berez darion iturri batek bezala sortu duela hura:

> "Lan ertitsu erritar dituzu, adibidez: noiz ala nork egiña eztakigun abesti zaarra; olerkari auen, erri-olerkarien neurtitz edo bertsoak; pozaldiak jaitzeko erriak asmatu ditun dantzak; jazkera; ..." [15].

1.2.2. Herri literaturaren ekarria

Olerkarien edo Pizkunde aroko idazleen artean estetikaz diharduten gainerako euskal idazleen artean, Lauaxeta, Orixe eta Aitzol aipa genitzake garrantzitsuentzat, eta beraz, horien iritziekin kontrastatuko dugu Lizardirena.

Euskal olertikeraren berezitasunaz azaldu duen kontzepzioa, eta berezitasun horren iturritzat aipatzen duenak ezberdintasun nabarmenak ditu hiru urte geroago Aitzolek argitara eman zuen olertikerari buruzko teorizazioarekin. Olerkigintza berriari "lan ertitsu erritar" delakotik ekarri behar zitzaionaren inguruan bien arteko aldeak nabarmen bilakatzen dira.

Aitzolek "Eusko olerti-kera berezia (estetika)" deritzan atal zabal eta interesgarria garatu zuen; 1931z geroztik ezagutzera ematen ari zen estetika-era zuen gaitzat, eta euskal literaturak hartu beharreko bidearen argigarri teoriko garrantzitsuez ziharduen.

Lizardik bezalaxe, euskal estetika bat badela abiapuntutzat hartu, eta hura zertan gauzatzen zen erakusteari ekin zion, "Euskel erriak edergaietan eta antz-gauzetan yokatzeko bere kera berezia ba-du. Ez beste errien kidekoa, ez berdiña baizik. Areago oraindik olerti eta bertso gaietan" [16].

Aitzolek zuzenean jotzen du literaturan eta bereziki "olerti"aren alorrean euskal literaturak duen berezitasuna azaltzeari. Bere ustez, ez da aski euskaraz idaztea euskal literatura egiteko, zerbait esentzialagoren bila dabil bera eta hura azaltzeari ekingo dio:

> "Ez deritzaigu eusko olerkari litekenik euskeraz bere bertsoak neurtzeagatik bakarrik. Baliteke orrela idazten duanak euskel yantzi dotoreaz gun arrotza estaltzea: baliteke gure edertasuna ez dagokion erara oartzea: baliteke edertasun ori adierazi naiaz eusko adimenak ulertu eta irudipenak sortzen oi ez duten gisara erakutsi nai izatea" [17].

Euskal hizkuntza erabiltze hutsak ez du euskal olertia sortzen, zerbait muinagokoa bada, bere ustez, eta hori da euskal herriak bere erara moldatu duen estetikaren bihotza:

> "Eder ikuste eta erakuste onek berekin darama eder-oitura eta eder-legea sortzea. Nor bakoitzak bezela, erri osoaren atsemenak ere bere kerara yasotzen du edertasuna.

---

14 *Ibidem*, 197. or.

15 *Ibidem*, 117. or.

16 AITZOL; "Itz-aurrea" in *Eusko Olerkiak IV*, Euskaltzaleak, Donostia, 1933; in *Idazlan Guztiak*, Erein, 1986, III, (55-76. or.); 57. or.

17 *Ibidem*.

Erri-atsemen tankera berezi auxe bere-berekoi estetikaren iturburu da. Beraz, euskeldun erria ederzale izanik edertasun ori berari dagokion eran ikusi, eta bere irudimenak agintzen dion eran, iduri moltsoaz apainduta, agertzen du" [18].

Aitzolen ustez, euskal olertikera berezia ez dago ez hizkuntzan, ez metrikan eta ez bertsoak egitearen neurketa eta arazo teknikoetan, mamian baizik:

"Bertsoak olerti arazoan azal yantzia besterik ez dira. Olerti giarra oldozkuna, asmoa dezu. Gun orren bizitasuna dakarkiten mamia irudiak, amets-ereduak izatean dira. Oietxek oldozkun eta asmoei alako edertasun berezia erasten diote: oietxek bertsoei ere apaintasuna ematen diete" [19].

Beraz, eusko olertikera berezian, oldozkunak ez ezik, irudiak, amets-ereduak dira garrantzitsu, horietan dago euskal estetikak sortu duen olde bereziaren mamia. Eta horri ohartu behar zaizkio Aitzolen ustez olerkari berriak. Ez jakitunen olerkiei, olerkari herrikoi horien olertikera berezi horri baizik [20].

Aitzolek eusko olertikeraren muina iruditerian kokatzen du, eta horiekin batera, errikoi olertiak erabiliriko gai jakin batzuk ere bai: "Maiteminduen antziak, guraso-senideen ar-eman etxekoiak, eztai-yaiak, ezkontza arazoak, aurren azitzea, adizkidetasuna, gorrotoa, maitasuna, bertsoetan erriak kanta-gai artu ditu" [21].

Iruditeria hori eta Aitzolek euskal olertikeraren muintzat jotzen duen amets-asmoen gai horiek izadia dute iturri nagusia. Manuel Lekuonaren *Aozko literaturan* "kopla zaharretako teknikak" deituraz ezagunak direnak osatzen dute Aitzolen iruditeria. Gauza jakina da, Aitzolek ezagutzen zituela Manuel Lekuonaren hitzaldiak ahozko literaturari buruz: 1918 Gasteizeko Apaiztegian sarrera hitzaldia "Métrica Vasca" eta 1930ko Bergarako Eusko Ikaskuntzaren Kongresuko "La poesía popular vasca" delakoa [22].

Direlako kopla zahar hauek euskal folklorezaleen artean izan duen estimazioak aldaketa handiak jo ditu, baina zalantzarik gabe bere neurri justuan baloratu zituen lehena Manuel Lekuona dugu, gaur egun ere bere azterketa eta irizpen teknikoak aipatzeke utzi ezinezkoak bilakatzeraino.

Aitzolentzat euskal olertikeraren muina diren teknika horiek berak, tono galtze hutsa ziren XIX. mendeko folklorezaleentzat.

"Neroni entzunik nago A. Donostia bati, lantua jotzen "Arranoak Bortietan" aztartzean; eta lantua joaz nola esaten zigun itzaldi polit batean, lastima andia dala kanta egalari eder ortan, arranoaren egada gaingirozkoa pintatu ondoren, olerkariak giro orri ez eustea, eta jeistea, gero esaten dituan uskerietara. Gero ikusiko degu, nola ta zergatik jeisten zan bertsolaria, goi aietatik, itz auek esatera:

Ni ere lehen andereki/ ebilten kanberetan.
Orai, aldiz, ardura-ardura/ nigarra dizut begietan

Aita Donostia'ri bere garaiko giroari jarraikiz, bukaera sentikor orri nolanaiko uskeria zerizkion.

---

18 *Ibidem*, 57-58. or.

19 *Ibidem*, 58. or.

20 "Euskalerriari dagokiyoten olerti-errikoiak sabelean daramaten edertasun orreri begira zayogun. Ez yakitunen olerkiei: oiek, oraindañokoan, argalegi eta kaskarregiak izan zaizkigu. Geienetan, gaiñera, erdel kutsuak ikutuak dira. *Eusko gogoari dagokion edertasun* gutxi sortu digute sasi-yakitun izan diran sasi-olerkari oiek. Ez diot, noski, gaurko olerkari yaioengatik, dasadana" *Ibidem*, 58. or.

21 *Ibidem*, 58. or.

22 LEKUONA, M.; *Idaz-lan Guztiak*, Kardaberaz bilduma-22, I, Librería Técnica de difusión, Tolosa, 1978; 131-157. or. eta 259-540. or.

Azkuek ere, zenbait kantu erdera-kutsukoai egiten zizkion muxiñak, oso ezagunak dira. Olako giroa zegoan orduan. Gaur gauzak beste era batera irizten ditugu. Itzari baño pentsamentuari obeto begiratuaz" [23].

Aitzolen ustez, aldiz, "Eusko-olertikera berezia" saioan zehar, naturaren irudiaz hasiriko kopla oldozkun edo gai nagusiarekin jarraitze horrek eusko olertikera bereziaren ezaugarri nagusienetako bat osa lezake eta horri erreparatu behar diote olerkari berriek "euskal gogoa"ri, euskal arimari dagokion edertasuna sortu nahi izanez gero.

Lizardik aldiz, ez du euskal olerkigintzan estetika horren bilaketa hainbeste konkretatzen, lehenago aipaturiko zatitxo batean aitortua du herri-elertiaz:

"Lan ertitsu erritar dituzu, adibidez: noiz ala nork egiña eztakigun abesti zaarra; olerkari auen, erri-olerkarien neurtitz edo bertsoak; pozaldiak jaitzeko erriak asmatu ditun dantzak; jazkera; ...[24].

Baina aintzinako arte sorketa horiek zein ekarri dute, zein garrantzi dute gaur egungo artistentzat? Galdera honen erantzunean bat datoz Aitzol eta Lizardi, aintzinako eredu horien ekarriak garai horretan egiten ari diren berpizkunde literarioari odol zaharraren kutsua ekarri behar dio, aberastasuna dakarkio:

"Orain galdegin zadakezu: ta zertarako erri-ertiarekiko batzarre bat? ...Ea esan orren elburua...

Ona. Gaurko erti landuagoa, naasiagoa, guzitikakoa, odol zaarrez bizkortzea, asabaen etxeko ats beroaz kutsatzea. Erti-zuaitz berria antzin-ezeaz bazkatzea; leengo errotiko muskillez bear baitu erri bakoitzak bere ertia berritu, naiz iñongo txertorik ere edergarritzat artu" [25].

1.3. EUSKAL ARIMA ETA ARTEA

Lizardik nahiz Aitzolek Pizkunde aroan dihardute eta une horretako Europa aldeko literaturetan herri literaturaren ikerketak eta zenbait tekniken berreskuraketak arrakasta izaten ari badira ere, Aitzol eta Lizardiren kasuan literatur ikerketa, zaletasuna eta aintzakotzat hartzeak badu beste betebeharrik. Ez da edertasunaren bilaketa hutsa; aintzinako edo herri sustraietan edertasuna ezezik, esentziak ere bilatzen dituzte. Aitzolek hitzez hitz formulatzen du: "Eusko gogoari dagokion edertasuna" [26] bilatzen dute.

Lizardik aldiz, ez du olertikera herrikoiaren ekarria aintzinatearekin, gure aurrekoekin lot gaitzakeen mendutzat baizik ikusten. Ez du eredu egin bakartzat hartzen, Aitzolek bezala, euskal literaturaren berrikuntzan "lehengo errotiko muskillez" baliatu, baina "beste iñongo txertorik" ere edergarritzat arbuiatu gabe.

Izan ere, Lizardiren zenbait artikulutan eta bereziki "Nuevos Rumbos" delakoan konkretatuko den eran, suztatu eta piztu nahi duten euskal olerkigintzaren arloan literatur genero ezberdinei su ematen ari bait zaizkio, Aitzolek epika, Lizardik aldiz lirika.

Eta azken honi buruz Lizardik oso ideia zehatza bait du, inongo eredurik onartzen ez duena, Aitzolek 1930 urtean sortu nahi duen euskal genero poetikoaren gaiak, 1933ean idazleei erabil ditzatela esanez aurkeztuko dizkien euskal olertikera bereziaren baliapide jatorrak onartuko ez dituena. Lizardik lirikaren muina beste zerbaitetan bait dakusa:

---

23 LEKUONA, M.; "La poesía popular vasca", 272. or.

24 LIZARDI, X.; "Eusko Ikaskuntzaren bostgarren batzarra", 197. or.

25 *Ibidem.*

26 AITZOL; "Itz-aurrea" In *Eusko Olerkiak IV.* Ikus 14. oharra.

"...me parece evidente que si en algo ha de ser superior el verso lírico a la prosa no será por lo que todo verso tiene inevitablemente de convencional, sino por lo que ayuda a extraer del lenguaje el máximo de sustancia expresiva" [27].

Lizardi zati honetan formulatzen ari dena, olerkigintzaren ikuspegi kontzeptistaren aldeko aitorpena den hau, Aitzolen asmo nagusia izango denetik urrun dago, bai eta euskal olerkigintzak ordurarte erabiliriko gai eta estetikatik ere.

Lizardiren berrikuntza estetikoa ez doa euskal ahozko olerkigintzaren bidetik, ez eta hizkuntza arrotzetako estetikaren bereganatze soilaren bidetik ere. Bere estetikaren formulaketa guztiz pertsonala da atal honetan zehar frogatzen ahaleginduko garenez. Garrantzia ematen dio herri-literaturaren ekarriari, 1930ko Bergarako hitzaldian adierazi zuen bezala, baina ez du bide bakartzat onartuko herri literaturaren bidea, beretzat artearen zuhaitzak berritu egin beharra du, eta iturri ezberdinetatik edan behar du, herri literaturarenetik, beste inongo literaturenetik bezalaxe.

"Ona. Gaurko erti landuagoa, naasiagoa, guzitikakoa, odol zaarrez bizkortzea, asabaen etxeko ats beroaz kutsatzea. Erti-zuaitz berria antzin-ezeaz bazkatzea; leengo errotiko muskillez bear baitu erri bakoitzak bere ertia berritu, naiz iñongo txertorik ere edergarritzat artu" [28].

Izan ere, Lizardi erdal literaturek euskal literaturan izan behar duten betebeharraz ere garbiro mintzatzen bait da Lauaxetaren *Bide Barrijak* liburuari eginiko iruzkinean:

"...Lauaxeta ha recorrido los campos floridos de otras literaturas, y asimilando en lo profundo del corazón pensamientos inspirados en esas lecturas, los ha hecho reflorecer, dotados de una nueva savia en el idioma amado" [29].

Pizkunde aroko idazleetan arteari, eta batez ere, arte nazionalari, herri-ertiari buruzko kontzepzioak, gerraondoko literaturan eragile bizkorrak diren Koldo Mitxelena edo Txillardegi bezalako idazleetan ere badirauen *euskal arima*ren errealtasunaren kontzeptuaren inguruan eraikitzen dira.

Ikusi dugu Aitzolengan formulazio garbiak dituela. Asmo politikoetarako ez ezik, arte eta zientziaren alorretan eragina izango duen errealitate horren presentzia suma daiteke Lizardirengan ere, Zaitegik "Aitzolen gizaldia" izeneko saioan ere "Euzkadiren gogoa asmatu eta azaldu" [30] egin nahi zutela ikusia dugu, "olerkiak eusko-gogoz" egin nahi zituztela.

Mitxelenaren zenbait artikulutan ikus genezake euskal arimaren kontzeptu horren iraupena, eta inongo zalantzarik gabe, honi dagokionez, Lizardiren kontzeptua hartzen du oso osorik, hark erabili zituen metaforak eta hark eman zien zentzu eta guzti [31].

1.3.1. Euskal arimaren kontzeptua

Lizardiren idatzietako euskal arima, gogoa edo gogamenaren aipamenei begiratuz gero, literaturaren alorrean haren adierazbideak zedarritzerakoan Aitzolek baino osagarri zabalagoetara jotzen duela ikusten dugu, eta berez, hark baztertu egin duen harria bilakatzen du Lizardik bere eraikuntzaren giltzarri: euskal hizkuntza.

---

27 LIZARDI, X.; "Rumbos nuevos (II)" in *Euzkadi*, 1931-12-30, 1-3. or.; *K-L* 359-360. or.

28 LIZARDI, X.; "Eusko Ikaskuntzaren bostgarren batzarra", 117. or.

29 LIZARDI, X.; "Rumbos nuevos" (I) 1931-12-17, 3. or.; *K-L* 349-352. or.

30 ZAITEGI, J., "ETXETXO"; "Aitzolen gizaldia" in *Euzko-Gogoa*, I, 1950, 5-7. or.

31 "Galdera askoren artean batek kezkatu izan nau behin baino gehiagotan. Gure izatearen zatirik barrenena, geureena, zein ote dugu? Gaurko askoren erantzuna aldez aurretik jakina daukagu, (...)

"Esanak esan, zein ote-da euskotarren erti-iturbururik naroena?... Zein mamian ta ez axal-utsean gure bizierari euskotasunik itsatsi dezaiokena?...Guk geronek ezetsiena: gure izkuntza.

Leena berriz oroituz —abaraskaz erleak darakusan ertigaitasuna, alegia— esan genezake: gure gogaien eztitzeko nor-gere izkuntza degula abaraskarik oberena; erle gogatiaren eztia nor-bere abaraskan ainbe ezti eztitekela, iñorenaren txuloetan ixuri-ezkero.

Eusko-gogamena, edesti-zear, txiro agertua, euskerari zor zion tokia ukatu diolako ez ote?... Leen-leendanik gure izkuntza landu izan ba'gendu, gogo-jardun ta bear guzietarako erabilliz, gaur berezizko jakintza baten, berezizko elerti baten bidez gizadiak begiratze ta aipatze'aal-ginduzten!..."[32].

Lizardiren eusko-gogamena hizkuntzaren baitan aurkitzen da, eta bere lanak euskotasunez blaituak ikusi nahi dituenak euskararen beraren sustraira jo behar du,, bestelako izpiritu atziezinen bila ibiltzeke.

"Eri zaar ortaz senda ditzagun gere buruok, osa dezagun urte joanen utsa, euskeldundu gaitean asmoz ta jakitez...Euskerari ele landuen artean toki txukun bat jadestea: orra guretzat egundoko ertilanik ederrena" [33].

Hau da Lizardik aurkitzen duen muina, eta sistema antolatu baten gisan horren inguruan altxako du bere poetikaren eraikuntza, bestelako aurrekontzepturik onartzeke.

Lizardiren olerkirik famatuenetako batean jasoa dago, *Asaba zaarren baratzan* mamitu zuen metafora baten bidez adierazi zuen beste artikulu batean euskal hizkuntzak eta euskal gogoak bere eraikuntza poetikoan duten lokera:

"Entzun itz auxe soilki. Asaba zaarren gogoaz elkartzen gaituan urrezko kate zaarra, etzazute, arren, emakumeok, esku laztankor oiekin betirako eten eta apurtu" [34].

Asaba zaharren gogoa, euskal arimaz elkartzen gaituen katea, beste zenbaitetan "lokarri zaarra" deitu zuena bera da:

"Leena zegoan orañaz
ele gozoka. Bitzuok
mintzo beraz ziarduten.
Ene asaben lokarri zaarra
jaunari zor, etzan eten."

Oraingo zenbaiten ustez, beraz, ni naiz ni eta besteak beste, eta nere-nerezko dudana ikara eta nahigabe hutsa den bakartasun tristea. Besterik aurkitu zuen horratik gure Lizardik bere arimaren lezean, "nork gere muñean dugun itzalera" jatxi zanean.

Gerekoikeriak maitasun hori maiz lainotzen badu ere, maiteago ditut —neureago, alegia— neure nortasun berezia baino eta, behar bada, geure bizi bakar ezin-berrituzkoa galbidean jarri ez-ezik, galdu ere egingo dugu ezinbestean zori gaiztoa onarturik, aurrekoengandik ondorengoengana doan "lokarri zaharra" eten ez dedin.

Eta gainerakoen gain, gorago eta barrenago, gure izaera osoa biltzen eta barrentzen duen hizkuntza, barrengo mintzabeharrari hitz-iturri luzea ematen diona. Hizkuntzaren guretzako balioa, berriz, zein gurea, zein ezin-utzizkoa dugun ezin jakin,..." MITXELENA , K; "Euskal literaturaren etorkizuna" in *Egan* 1951 (3), 17-21. or.

"Ez dut nik esango, harrokeriaz mintzatzea litzake-ta, euskal arima zer-nolakoa den aditzera eman duenik.(...)

Maiz ari gara euskalduntasunari buruzko asmo eta lanak adierazi beharrean. Zertarako? Adieraziak dauzka Lizardik, ez guk esan genitzazkeeen baino ederkiago bakarrik, baita zehatz eta zorrozkiago ere. Errainu artean bizi zen amesgile hark, egiazko poetaren dohaia izaki hori, begi argiagoak baitzituen lurreko gauzetarako jakintza-gizonek baino. Asaben lokarri zaharra ez baldin bada eteten, ez dugu besteren beharrik. Aski genduke beti begien aurrean edukitzea euskarari "amets-bideetan barna" eragin zion ibilaldi luze hura. Euskarak inoiz egin duenik ederrena, eta halere egiteko —geure egiteko dagoena". MITXELENA, L.; "Biotz-Begietan. Olerkiak", in *Egan*, 1956 (2), 84-86. or.

32 LIZARDI, X.; "Eusko Ikaskuntzaren bostgarren batzarra", 118. or.

33 *Ibidem.*, 198. or.

34 LIZARDI, X.; "Arrasateko Itzaldia", 1930-7-30; K-L 272. or.

(AZB 85-90, 195)

"Nire Tabor mendi: nire
baratz zaarraren antzalda!
egi, mami, biur adi:
leenaren muiñak aldatu beza
baratz zaarra baratz berri!" (AZB 101-105)

1.3.2. Euskara euskal mundu-ikuskeraren egituratzaile

Hizkuntza da, hain zuzen, euskal arimaren muina. Hauxe da Lizardiren poetikaren giltza eta horrenbestez, 1930-1933 bitartean Lizardi eta Aitzolen artean ematen diren bat ez etortze eta eztabaida literarioen iturrietako bat.

Ikusi dugunez, Aitzolek herri olerkigintzaren molde eta ereduen erabileran kokatzen du euskal estetikaren mamia eta gunea, Lizardik aldiz, euskal hizkuntza bera jotzen du euskal gogoaren gordailutzat. Diogunaren frogagarri franko ekar litezke artikuluetan zehar bildurik. Aipagarriena, identifikazio honen indarra eta finkotasuna aurkezten dituen *Gure Mintzo* olerkiaren azken ahapaldia da.

Ezaguna denez, Lizardiren olerki hori Sabino Aranari eskainia dago, eta maisu hark bere baitan gordea zuen euskararen garrantziaz oharterazi zuela kontatzen du:

"Ene leozpetu yare-berri,
eusko orok zaitzagu miñen eztigarri,
ta besteren gogo-menbetik
yare-gagizu usu, geurea gaiturik!"
(GM, 49-52, 211)

Poema honetan nahiz beste zenbait aipamenetan Lizardik isladatzen duen ikuspuntua sustrai erromantikoak dituen Wilhelm von Humboldt-en teoria ezagunaren bertsioa da, alegia hizkuntzak direla herrien "weltansicht" edo mundu-ikuskera bereziaren moldatzaileak [35]. Horregatik, euskal hizkuntzak gure arimaren askatasuna eskura liezaguke, besteen izpirituaren menpekotasunetik aska gaitzake.

Lizardik Aitzolek baino hizkuntzaren kontzepzio izpiritualagoa du. Hizkuntza ez da azal hutsa, hau da, ideiak, asmoak etabar adierazteko mintzabide huts, Aitzolen adierazpenetan sumatzen den bezala. Aitzolek uste du badaitekela eusko olerkari batek bere bertsoak euskeraz neurtuagatik euskal olerkari ez izatea, "euskel yantzi dotoreaz gun arrotza estaltzea". Lizardirentzat, aldiz, euskara ez da azal huts, jantzi huts, azala eta mamia da, aldi berean.

Hizkuntza euskaltasunaren muina da, eta gure nortasunaren konformatzaile. Ondorioz, euskara erro errotik ezagutzeak idazle baten lana euskaldunago bihur dezakeelakoan dago. Hau da, euskara erabiltzerakoan haren sena ez dela kontutan hartzen edo ez dela ezagutzen antzemanez gero, idazlanaren kalitateari funtsezko osagarria falta zaiola deritzo.

Puntu hau bere idazle garaikideen liburuei buruz idatzi zituen iruzkinen bidez froga daiteke, batez ere Lauaxetaren *Bide Barrijak* eta Orixeren zenbait itzulpen eta olerkiei buruzkoetan. Lauaxetaren *Bide Barrijak* liburuari egin zion iruzkin bikoitzean, lehen iruzkinean aipatzen duen puntu nagusiena hizkuntza bera menderatzeari buruzkoa da. Euskal eta erdal bertsioa alderatuz, euskarazkoa

35 Ikus VALVERDE, J.M.; "Prólogo" in HUMBOLDT, W.; *Escritos sobre el lenguaje*, Peninsula, Barcelona, 1991, 5-24. or.

motz, eskas geratzen dela iruditzen zaio, hain zuzen ere hizkuntza erro errotik ez menderatzearen aitzakia aipazten duelarik:

> "Quiero decir () que en ocasiones no llega a la entraña del idioma, quedando el original como adoleciente de insuficiencia expresiva, en tanto que la traducción da la impresión de decir más, y más flexiblemente que aquel" [36].

Lizardirentzat funtsezkoa den puntua da hau, hain zuzen ere bere lan zehatzaren, bere bilaketa nekaezinaren zioa horixe bait da. Berak ere ahalegin horretan, euskaraz adierazbiderik jatorrena, indartsuena aurkitzen saiatzean izaten dituen nekeak ere azaltzen ditu artikulu horretan:

> "... expongo mi opinión de que no da con *el filón de oro que todos hemos presentido y que tantas veces, al querer expresar algo, hemos en vano buscado angustiosamente*; abrigo en cambio, no la esperanza, sino la seguridad de que esa voluntad todo nervio de ese casi-niño y casi euskaldunberri ha de oradar, en nuevos ensayos, la corteza áspera hasta *dar con la corriente ubérrima que corre por el alma del idioma* y entregarse totalmente a ella..." [37].

Lizardik euskararen baitan bilatzen duen izpiritua, bi metafora ezberdinen bidez adierazten du Lauaxetaren idazlanari buruz eginiko iruzkin honetan, "filón de oro" diosku alde batetik, eta bestetik "corriente ubérrima". Biak hizkuntzaren barne arima horren muin edo gunearen funtsezko balorazioa egiten dute.

Lizardik bere ahalegina eta nekea hori dela adierazten du garbiro, eta horren bilaketan sumatu dituen ezintasunak ere adierazten ditu. Ez da hau harrigarria, lehenago ikusi dugun moduan, hizkuntza bera bait da Lizardiren ustez, euskal estetikaren adierazlerik zuzenena eta euskal arimaren isladapenik garbiena. Ondorioz, hizkuntzaren bihotzak, barne-muinak izan behar haren bitxirik baliotsuena eta olerkariarentzat poesi gairik preziatuena.

Orixe beste muturreko eredua da Lizardirentzat, "De nuestro manzano en flor", "Traductores de Cervantes" eta "Tormes'ko itsu-mutilla" deritzen iruzkin literarioetan suma daitekeenez. Hizkuntzaren izpiritua ongienik ezagutzen duen eta menderatzen duen euskal idazlea da bere ingurunean eta eredu bilakatzen zaio osatu nahi duen kanon estetikoaren zenbait ezaugarriri dagokinez: sentimentu eutsia, neurtua eta trinkozaletasunari dagokionez bereziki.

2. LITERATURAREN FUNTZIOA

2.0. SARRERA

Aitzolen belaunaldiaz hitzegiterakoan aipatu dugunez, idazleek pizkunde mogimenduetan izan beharreko funtzioa garaiko ikusmolde hedatu eta onartua da. Lizardiren artikuluetan ere, idazleek herrien pizkundeen mogiemenduetan duten garrantzia azpimarkatzen da [38]. Literaturaren gaitasunean sineste handiko itxaropenak kokatze hau idealismo alemanean sorturiko ideia bada ere, Pizkunde aroko idazleetan, eta Aitzol eta Lizardirengan bereziki, Mistralen eraginpeko ikusmoldea dela esan behar da.

---

36 LIZARDI, X.; "Rumbos nuevos" (I) in *Euzkadi*, 1931-12-17, 1. or.; *K-L* 352. or.

37 LIZARDI, X.; "Rumbos nuevos" (II) in *Euzkadi*, 1931-12-30, 1-3. or.; *K-L* 352. or.

38 "Olerkari deritzan gizatxoro ori gabetanik, ezta ezagun izan erri-pizkunderik, ez eta erri-elerti betetasunik. Aberrialdeko gogo-gudari sailletan olerkaria beti da leen-oñean. Ta beroni zor zaizka, gogo lurgoien irriak gora beera, gudate orietarik gurenda ozenenak. LIZARDI, X.; "Erdi Bearra" in *Euzkadi*, 1930-5-8, 5. or.; *K-L* 299. or.

Frederi Mistralek XIX. mendearen bukaera eta XX. mendearen hasieran bilduriko taldeak bere gain hartua zuen helburu bera aldarrikatzen dute olerkariek. Eta bereziki, Mistralek Nobel saria irabaztean bere hizkuntza eta literatura nazionalari erakarritako ospe eta prestigioak sinesgarri bilakatu zuen literaturak berbizkunde kulturaletan eragin handia izatea.

Lizardiren artikuluetan jasoa dagoenez, hiru norabide nagusi dira orokorrean idazleak ekin beharrekoak.

Lehenik, maila kulturaleko hiztunari, eta orokorrean euskaldungoari, herri osoari zuzendurik, haik euskal literaturara hurbildu eta beren kultura bertan isladaturik ikusirik, euskaltasunaren aldeko jarrera linguistikoak, kulturalak eta are politikoak eragin behar ditu.

Bigarrenik, Espainiako intelektualei euskararen gaitasun espresiboaren frogak eskaini behar dizkie, euskarak duen prestigio gabezia, eta are irudi primitibo eta zantarra ezabatzeko.

Hirugarrenik berriz, euskal literaturaren beraren esparruan berrikuntzari ekitea, euskal literatura gaurkotu eta kultur maila egokia duten hizkuntzen artean, euskaraz ere olerkigintza duina egin daitekeela erakustea.

Lehenengo bietan hizkuntzaren egoera soziolinguistiko diglosikoaren arazoari erantzun beharra gertatuko zaio idazleari. Euskaldunon eta erdaldunen artean prestigioa, errespetua eta lehenengoen atxikimendua irabaztea da idazleari dagokion zeregina.

Hirugarrena ordea, hots, euskaraz mintzo elertitsu bat sortu eta kultur maila egokiko hizkuntzen artean toki bat irabaztea, sarritan zenbait idazlek euskararen egoera soziolinguistikoari loturik aztertuz bere onetik aterako badute ere, Lizardirentzat literarioa den arazo bat da, gustokoa duen estetika eta literaturari soilik dagokiona, euskal hizkuntzari dagokion estetikari erantzungo dion kanon edo poetika bat sortzearena, alegia.

Azter ditzagun banan-banan hiru norabide nagusi hauetaneginiko bide-urraketak, saiaketak eta urratsak, Lizardik eta bere garaikideek hiru norabide horietan eginiko bidearen luze-laburra azalduz.

Aipatu berriak ditugun moduan, hemen idazlearen eta gizartearen arteko harremanez, bereziki olerkariak euskara bezalako hizkuntzekiko duen betebeharrez osaturiko kapituluan metodologikoki hiru atal bereziko ditugu:

2.1.– Olerkaria eta bere zeregina herri-gaizkakundeetan.

2.2.– Euskararen gaitasun espresiboaren frogantza.

2.3.– Abangoardiazko euskal mintzo elertitsua modernitatearen erronkari emaniko erantzuna.

2.1. OLERKARIA ETA BERE ZEREGINA HERRI-GAIZKAKUNDEETAN

2.1.1. Olerkaria eta gizartearen arteko harremanei buruzko kontzepzioa

Gudaurreko Pizkunde mogimenduaren barruan eta bereziki Aitzolen proiektu kulturalaren baitan olerkariari ematen zitzaion zeregin nagusia, hots, hizkuntzaren etorkizunean erabakiorra zen betebehar hori dela eta, logikoa dirudi, olerkariari buruz garaikoek guztiz irudi idealizatua izatea. Hizkuntzen etorkizunaren arloan duen zeregina dela eta, Lizardik olerkaria "taumaturgoa" dela esaten du, ia-ia aztiaren gaitasunak bere esku dituen pertsona da.

Lizardiren artikuluetan zehar, garaiko gizartean eta are euskaltzaleen artean olerkari izateak estimazio handirik ez zuela suma daiteke, ordea. Sarritan ateratzen duen gaia da olerkariaren garrantzia, eskuzabaltasun eta idealismoaren eta gizarteak hari egiten dion harrera hotzaren arteko desoreka. Gizarteak ulertzen eta estimatzen ez duen heroea da idazlea.

Sarritan aurki daitezke Lizardiren artikuluetan idazlearen irudia eta zeregina prestigiatzera zuzenduriko saioak, eta hau alde batetik bultzatzen ari den Pizkunde literarioaren ingurumarian guztiz logikotzat jo badaiteke ere, berak olerkari izateagatik sumatzen duen gaitzespen edo iseka giroari eman nahi dion erantzuna ere izan daiteke.

"Erdi bearra", "Olermen irakite", "El poeta", "El escritor euskérico"... artikuluetan zehar olerkari izatea gaitz izkutagarritzat duten idazleen zoritxarraren lekukotza ugari aurkitzen dira.

> "Tiénese del poeta gracias a las demasías de algunos sedicentes tales, un concepto desolador. En vista de ello, nosotros deberíamos definir ahora lo que es un poeta. Mas como la definición es cosa complicadísima y de laboriosa gestación, permítasenos no hacer del poeta sino una semblanza fácil y de bulto, no del todo seria además, para que nadie vaya a creernos parte interesada en el asunto" [39].

Beraz, gizarteak olerkariaz duen irudi gaitzesgarri hori dela eta, olerkari direnak beren buruak izkutatzera jotzen dute, inork antzeman ez diezaien...

Olerkari izatearen lotsaz, izkutagarritasunaz eginiko aipamenak ugariak dira. Esate baterako, olerkari izatearen harrotasunarengatiko aldarrikapena dirudien "Erdi Bearra" artikuluan lotsa horren adierazle gehienak "gaitz"arena, legenarenak dira:

> "Olerkariok degu orain aldi, gorapenak jasotzen. Bazan ere garaia! Irutsu urte auetan kikilduta bizi giñan, "Orixe"k eman baitzizkigun beñola ederrak ... Izneurtuz idaztea txaldankeri agiria dala, bertsoak beti dirala txar, beti mintzo aizun; eta abarra.
>
> Gauza ez, jarkitzeko, gizagaxo batzuk baigera; ta nik dakit nolako nekeak eramanik gauden, gure neurtu-griñatxo au —zauri lotsagarri bat bai'litzan— izkuta eziñik!.
>
> Gaur besterik da. Leen ergel ta arlote ainbat, gaur gizaguren, gizarteko bitxi etsirik gaitue" [40].

Artikulu osoan zehar gaitzaren sinonimotzat edo inguru semantiko berekotzat jo genitzakeen "izurri", "miña", "zauria", "legena", "erdibear", "larri eta estu", "axkure", "barren-axkure", "erditze", "elgorria", "otzikarak astindua", "sukar larri", "gaitz beldurgarri", "goragalea", "larritasuna, "izerdi otzak", "estualdiak", "neke"... Beraz, orokorrean, idazle edo zehazki olerkari gisa Lizardik duen sentsazio nagusiena lotsarena, enbarazuarena da. Isilpean eraman beharreko zaletasuna.

2.1.2. Gizarte "lurgoia" eta olerkariaren idealismoa

Gizarte praktiko, "lurgoi"ak harrera hotza egiten dio idazleari. Idazleak bere burua "nabarmentzeko" dituen beldurrek bi jatorri dituzte, lehengoa jende arruntaren irriak, eta bigarrena goi-mailakoen ikasien begietan olerkari izena merezi izateko duin ez izatea.

2.1.2.1. Gizarte materialista

Lehenengoaz hitzegitean, jendeak olerkariekiko izaten duen erreakzioaz mintzatzean, olerkariek jende arruntari farra eta iseka, errukia ere eragiten diotela esaten du.

> "Ona zer ikusi zuan nere adiskide ark, parretxo lotsagabe bat ezpañetan zebilkiolarik: () Ura begirakune errukiorra bota zidan! Nik nere burua enekin nolatan garbitu: bazirudidan lotsagarrikeri batean atzeman nindula.
>
> Adiskide ori eztet euskeltzale; ezta ere aurkako; beste zenbait bezela, euskeraz guk mintzo elertitsu bat egin-nahiak eztu amorrarazten, errukiarazten baizik" [41].

---

39 LIZARDI, X.; "El poeta" in *El Día*, 1930-6-5, 2. or.; *K-L* 304. or.

40 LIZARDI, X.; "Erdi-Bearra" in *Euzkadi*, 1930-5-8, 5. or.; *K-L* 299. or.

41 *Ibidem.*, K-L. 301. or.

Euskaraz egiten saiatzeagatik ezezik, olerkiak egiteagatik beragatik ere, erridikuluak dirudite olerkariek:

> "Esos empedernidos pecadores que vara métrica en ristre y diapasón en mano irrumpen por el campo de nuestras letras declamando largas series de renglones medidos y rimados para nada de ordinario interesantes..." [42].

Hauek dira, ezer interesgarririk esateko ez duten bertso-egile horiek dira jende arruntarengan olerkariaren irudi farregarri hori itsatsi dutenak, baina jende arrunta ez ezik, orokorrean, abangoardien zereginez Lizardik duen ikuspegia aztertzean ikusiko dugunez, mende hasierako gaia hau Lizardiren begietan bereziki zaila da olerkarientzat, idazleak "héroes mal estimados" dira, eta "Axari Beltz"i esaten dion moduan, zibilizazio honek aurrera daraman gobernatzeko joeran jarraitzez gero, debekatu ere egingo du idazteko zeregin kaltegarria:

> "Tenemos la odiosa manía de sentirnos poetas cuando menos falta hace, y nuestros excesos en la materia —Oh Axari-Betx míranos con clemencia— han llegado en ocasiones hasta la endecha rimada; extravío que si las humanas repúblicas hubieran aprendido a gobernarse, y ya no están lejos de ello, con algún indicio de talento, sería materia de las mas severas sanciones" [43].

Izan ere, gehienetan modu farregarrian aurkezten duen olerkariaren zaletasun izkutaezina, serioski ari denean, olerkigintzaz duen ikusmoldean beti dirauen ezaugarria dugu galerazi ezintasuna, ia-ia kontrolaezintasuna ere dei genezaiokeen barne-indarra da olerkiak egitera daramana. Modu ironikoan "neurtzeko grinatxoa" deritzana, beste zenbaitetan "erdi-beharra"ren metaforaz jantzi zuen, hots, barrenean sortu den bizitza berriaz erditzea bezala dela esanez isladatu zuen zehatzenik beretzat olerkigintza egiteaz Lizardik zuen ikusmoldea eta intuizioa.

"Begi-biotzean zatzaidate sortu" [44] dio; olerkiak isladatzen dituen sentsazioak, sentimenduak, irudiak beregan itsatsi dira, olerkariaren borondateak horretan zerikusirik izan ez duelarik. Lizardik olerkigintzaren ikusmolde honezaz kritikoek haren olerkigintzan antzemango duten naturaltasun gabezia gezurtatzen du. Esate baterako, *Euzkerea*ko "Euzkal elertitzaz" deituriko sail kritikoan, "Agarel"ek haren olerkiei "kalkulatu"egi izatea salatzen die, naturaltasun eskasia duela. Artifizio kutsu hori ordea, Lizardik sentimentua eta endeleguaren artean bilatzen duen orekaren fruitu da [45].

Olerkariak bere aktibitatean duen kontrolagaiztasun hori azpimarratu egiten du sarritan, barrenean jaulki gabe jasan ez daitekeen indarra da poesia:

> "Si la poesía en su más alto concepto, es sobreabundancia de luz y de calor que no se pueden represar dentro del alma en creación, la época heroica de Sabino nos revelaría, aunque no hubiera escrito un verso, que allí dentro había un formidable poeta" [46].

Baina olerkariak bere burua izkutatzera, ezizenak erabiltzera eta inork olerkari deitura ematetik alde egin nahi izatera daramatzan jarrera horrek badu beste arrazoi nagusi bat, intelektualek goitik behera begiratuko ote dieten beldurra, beren buruak nabarmentzeko beldurra.

Lizardik Lauaxetak *Bide Barrijak*i erantsiko "Uarra" delakoan inork olerkari deiturarik ez diezaiola eman eskatu izanaren arrazoitzat jotzen duena:

---

42 LIZARDI, X.; "De nuestro mundillo literario" in *Euzkadi*, 1928-8-30, 1. or.; *K-L* 130-132. or.

43 LIZARDI, X.; "Glosas Triviales" in *Euzkadi*, 1929-7-31, 1. or.; *K-L* 159. or. Beren buruak gobernatzeko abilezia zerbait erakutsi duten errepubliken aipamenak XX. mendearen lehen herenean sorturiko totalitarismo komunistaren eta faszistaren zeharkako aipamena dirudi.

44 LIZARDI, X.; *Biotz Begietan* liburuan sarrera bertsoetan.

45 Ikus II parte honetako 3.2. puntua.

46 LIZARDI, X.; "Sabino poeta" in *Euzkadi*, 1931-12-25, 1. or.; *K-L* 346. or.

"Mire usted Lauaxeta, y esto es ya algo confidencial, (cerciórese usted de que nadie nos escuche) yo comprendo su reparo, comprendo que se sienta usted un poco "lotsati" ante el dictado tan codiciadero para otros del poeta. Usted es vasco ...()

Como usted sabe (aún me cuesta algún sonrojo el confesarlo, ya ve usted si le comprenderé), también yo tengo una endiablada propensión a medir conceptos y a casarlos por lo civil y puedo decirle que jamás en momento que me dedicase a la famosa tarea, he sentido rumor de pasos que se acercaban, (...) que no haya precipidamente guardado mis papeles... "[47].

Izan ere, olerkariak merezi bait du tratamendu hoberik eman dakion, Lizardiren ustez. Ez bakarrik hizkuntzaren pizkunde mogimenduan zeregin garrantzitsua duelako, jendeak alfer, ero eta gezurtitzat jotzen dituen arren, guztiz bestera, idealista, langile porrokatu eta jenderik zentzudunena direlako baizik.

"Tiene esta (la gregaria turba) a los poetas por locos, y son sin embargo, los hombres de cordura más probada porque extraen el oro del ideal de entre la escoria de lo prosaico. Tiene el vulgo a los poetas por holgazanes, cuando la verdad es que son la gente más activa del mundo: la única capaz de trabajar para los demás sin esperar una retribución, sin soñar en un incremento de comodidad o de fortuna" [48].

Giro materialista axolakabe honek ez dio olerkariari euskal literaturaren kasuan duen funtsezko betebeharra betetzen ausartzen uzten, aldendu egiten du lotsaz eta aintza faltaz. Horregatik ekin zion Lizardik 1928tik aurrera olerkariaren irudia prestigiatzera bideraturiko artikuluak argitaratzeari, eta bereziki, "Un héroe mal estimado" deritzanean helburu horretarako sortu beharreko egitura literarioa sortzeari.

2.1.2.2. Lizardiren idealismoa

Jon Kortazarrek "Los debates literarios en la poesía del País Vasco (1930-35)" [49] deritzan artikuluan, identifikatu egiten ditu Lauaxetak eta Lizardik olerkiak egiteaz duten kontzepzioak, biak ere olerkariaren ikuspuntua jende arruntak iritxi ez dezakeen zerbait delakoan oinarrituz:

"Los poetas post-simbolistas comienzan renovando el mismo significado de poeta cuando se acercan al idealismo. Lauaxeta afirmará con Novalis que "Poesia es la Absoluta y más auténtica realidad" [50].

Kortazarrek Lauaxetaren ikuspuntua Lizardik duen ikusmolde bereziari alderatzen dio: "... una visión especial, que mirando a través del prisma sublimador los elementos del panorama de la vida nos los presenta de forma sorprendente" [51] delakoa Lauaxetaren poetikaren giltzarritzat joa duen aitorpen honi:

"Ludi onen bestaldez loratzen diran landaraen usañak goxalde bakotxak dakarkidaz. Auxe da nire sakona! Bestiak entzuten ezdaben egalotsa neure gelara jatort eta barneko zugaitz oneitatik txorijak aidatu ziren arren, abar dardarea ezta amattu" [52].

Kortazarrek sumatu duen definizio antzekotasun honetan oinarritzen da artikulu horretan, Lizardi ere "era un poeta neoidealista que aspiraba a la expresión del "otro mundo" zela esateko.

---

47 LIZARDI, X.; "Rumbos nuevos" (I) in *Euzkadi*, 1931-12-17, 1. or.; *K-L* 350-351. or.

48 LIZARDI, X.; "El poeta" in *El Día*, 1930-6-5, 2. or.; *K-L* 304. or.

49 KORTAZAR, J.; "Los debates literarios en la poesía del Pais Vasco (1930-35)" in *Memoriae L. Michelena Magistri Sacrum*, ASJU, 1991, Pars Altera, 1187-1200. or.

50 KORTAZAR, J.; *Ibidem*, 1192. or.

51 LIZARDI, X.; "El poeta" in *El Día*, 1930-6-5, 2. or.; *K-L* 305. or.

52 LAUAXETA; *Arrats beran*, Verdes Atxirika, 1935, 13. or.

Nire ustez, bi definizio hauetan erkide dagoen bakarra "bestiak entzuten ezdaben" hori da soilik. Bat datoz Lizardi eta Lauaxeta olerkiak isladatzen duena jendeak antzematen ez duen zerbait dela, eta Lizardik ere zehatz-mehatz deskribatzen du jendearen eta olerkariaren ikuspegiaren artean dagoen aldea:

> "Pongamos un ejemplo. Si en medio de una cruzada idealista ustedes aperciben un hombre que, dejando de lado más liberales ocupaciones, se encuentra arrodillado en tierra, enrollando paquetes y pegando fajas, no duden un momento que se encuentran delante de un poeta. Sospechando hallarse rodeado de gentes rígidamente prácticas, que no se tomarían ese trabajo ni aun a cambio de expandir entre sus hermanos la luz de un bello pensamiento ha puesto el mismo manos a la obra. Y no la considera baja, como la juzgarían un infinito número de conciudadanos suyos. No encuentra que todo aquello se reduzca a unos trozos de papel y a un bote de goma, a unos sellos de correos, *ve en ellos otras cosas, pero precisamente las ve porque es un poeta*" [53].

Lizardik eta Lauaxetak iritzi bera dute jendearen eta olerkariaren ikuspegien artean dagoen aldeari buruz. Baina alde hori arrazoi ezberdinagatik sortua dela esaten dute.

Lauaxetak "mundu onen bestaldez" dagoen zerbaitez diharduelako, berari bakarrik iristen zaion "egalotsa"z ari delako dela esaten du; Lizardik berriz, errealitatean finkaturiko hurbileko gauza ezagunez diharduen olerkigintza iragartzen du. Prosaikoari, eguneroko arrunta denari urrea bilatzen diona da poeta, Lizardiren ustez, bizitzaren panorama sublimatzailea da bere ikuspuntua.

Maurize Maeterlinkek ere olerkariak errealitateari hurbilduz, konkretoari begiratuz egin behar duen haruntzagoko bilaketa horrezaz dihardu *La vie des abeilles* delakoan olerkariak egia eta poesiari buruz eginiko itaunari erantzutean:

> "El pequeño hecho de la ejercitación del órgano del zángano, que no puede tener efecto sino después de la hinchazón de las vesículas tráqueas, lo admitimos evidentemente, porque es incontestable. Pero si nos contentásemos con él, si nada mirásemos más allá, si de él sacásemos por consecuencia que todo pensamiento que va demasiado lejos o demasiado arriba hace mal necesariamente, y que la verdad se encuentra siempre en el detalle material; si no buscásemos, dondequiera, en certidumbres a menudo más extensas que las que la pequeña explicación nos ha obligado abandonar, por ejemplo en el extraño misterio de la fecundación cruzada, en la perpetuidad de la especie y de la vida, en el plan de la Naturaleza; si no buscásemos en ello una continuación de esta explicación, un prolongamiento de belleza y de grandeza en lo desconocido casi me atrevo a asegurar que pasaríamos nuestra existencia a mayor distancia de la verdad que los que se obstinan ciegamente en la interpretación poética y enteramente imaginaria de esas bodas maravillosas" [54].

Beraz abiapuntua guztiz ezberdina delako, ez dut uste kontzeptzio bera dutenik esan litekeenik.

Lizardiren kanon estetikoaren oinarri teorikoak aztertu ditudan bigarren parte honetako 1.3 atalean frogatzen saiatuko naizenez, Lizardiren abiapuntu nagusia, errealitatea bera da, guztiontzat berdina den egunerokoa. Berak ordea, poeta delako, prisma sublimadorea du, errealitate horretan urrea antzemateko gaitasuna du eta olerkian gauzaturik eskaintzen dio irakurleari.

Eskeintza horren jarreran ere funtsezko ezberdintasuna nabaritzen da Lauaxeta eta Lizardiren artean. Esango genuke Lauaxeta Juan Ramón Jiménezen bidetik doalarik, gutxiengoarentzat ari denaren konszientzia osoaz ari dela. Lizardik aldiz, bere gogoa bestelakoa den arren, gutxiengoaz ari izatearekin etsi egin beharra duela esaten du. Jarrerak oso ezberdinak dirudite eta jarrera horien oinarri diren poetikak ere bai.

Lizardik olerkariak duen gizarte irudiaz arduraturik dirudi: jendeak dioenak toki garrantzitsua du bere iritzietan. Jendeak olerkaria gezurti, zoro eta alfer direla esaten du eta berak ukatu egiten ditu hirurak: olerkariak ez dio gezurrik. Errealitatean dauden gauzez dihardu, gehiengoak erealitate

---

53 LIZARDI, X.; "El poeta"; 2. or., K-L 305. or.

54 MAETERLINK, M.; *La vida de las abejas*, 140. or.

hori ikusi eta atzean dagoena suma ez balezake ere. Ez dira zoro, "urrea" bait da errealitate horretatik xurgatzen duten ideala. Ez dira alfer, inolako itxaropenik gabe bait dihardute inork aintzakotzat hartzen duen lan eskergabean.

Lizardi nekez ari diteke "para la inmensa minoría". Ez du gutxiengoarentzat ari denik onartzen. "Gure bideko mugarriak" delakoan etsiturik onartzen duen marginalitatea da Lizardirentzat "liriko zoroen" esparru hori [55].

Abangoardiako lana egiten ari denez, onarturik du garaikide gutxi batzuk baizik ez dutela estimatuko eta geroko idazleen lorkuntzek bakarrik egingo dutela estimagarri bere ahalegina. Bere abangoardia lanaren legamiak, oker eta guzti, altxatuko den ogiaren egile izango direnen fruitu arrakastatsuen aintzidari izena merezi izango du, noizbait, eta esperantza horretan dago. Lizardik ez du bistatik galtzen gizartean izan nahi duen eragina, olerkari gisa herri-gaizkakundean dagokion betebeharra. Epe luzerako itxaropenak dira, ordea.

Lizardik ez du, Lauaxeta bezala, abangoardistek ohi duten harrotasunaz berri izatearen duintasunaz gutxiengo selekto batentzat bakarrik ari denik aldarrikatzen.

2.1.3. Olerkaria mezulari

Idazle bakar batek euskararen eta are euskal izate osoa, kultura eta aberriaren etorkizuna erabakitzeko gaitasunik ez dezakeela izan ikusten du, garaikide zituen askok ez bezala. Baina, hala ere, gizarteari eskainiriko mezutzat du olerkia, gizartearen zerbitzura eginiko ahalegin eskergabea da olerkariarena, eta luzera, harengan eragina izatea espero du.

Lizardik "El poeta"n dioenez, olerkariak duen ametsa zera da, "expandir entre sus hermanos la luz de un bello pensamiento" [56].

Lizardik gizarteaz, gizateriaz zehazkiago mintzatuz, ikuspegi solidarioa duela esango genuke, olerkariak gizarteari bizitzaren panoramaren ikusteko era berezia, sublimatua, harrigarria eskaintzen dio:

> "Sus dedos ponen alas a un amable ideal, ante cada rollo listo, cree dar suelta *a una blanca paloma mensajera*" [57].

Zein da, ordea, olerkariak gizarteari bidaltzen dion mezuaren mamia? Zer da olerkariak gizarteari esan nahi diona? Bada, artikuluan zehar erantzuna emateke geratzen bada ere, mezuaren metafora diren *uso zuri* horiek berriro ere azaltzen dira *Gure mintzo* deritzan olerkian. Eta argigarri gertatuko zaigu metafora hori azaltzea.

Gure mintzo 1931ean dataturiko olerkia Sabino Aranari eskainia dagoelarik, Lizardiren biografia poetikoa, olerkari izatearen aitortza, zergatikoa eta asmoak alegoria batean isladatzen dituen olerki garrantzitsua da.

Dituen hizkuntza zailtasunen ondorioz, liriko aldetik gehiegi estimatua izan ez den arren, olerkari aitortzaren aldetik, Lizardiren poetika osatzerakoan, guztiz estimagarri da.

Lehen ahapaldietan berriro ere jasoa dago olerkizaletasuna Lizardigan barren-barrengo jaiotzatiko gaitza dela, "nerekin yaio nun abes-miña" dio, eta zaletasun hori mingarri izan duela ere segituan erantsiko du, atal honen hasieran azaldua denaren ildotik:

---

55 LIZARDI, X.; "Gure bideko mugarriak" in *El Día*, 1933-2-12, 6. or.; *K-L* 401-404. or. eta "Txindurriak" (*Yakintza*, II, 1933, *K-L* 404-408. or.) saioan ere gizartean bezala, txindurri taldeko "erdibe (minoría) azkar ekikor baten kemenez" burutzen diren aldaketa onuragarriez hitzegiten du.

56 LIZARDI, X.; "El poeta", 2. or.; K-L 305. or.

57 *Ibidem*, 2. or.; K-L 305. or.

"ta aurtandik min ori dut izan samiña..."
(GM 2, 209)

Alegoria batez azaltzen du Sabino Aranaren "argi"ari esker emazteki/euskararen aurkikuntza eta erreskatea. Metafora guztiz erromantiko hau alegoria oso batez garatu ondoren, azkenean kantatzea lortuko du eta bere mezuak itsasoan zehar, "gezal mugagabez", "bizitza-itsaso otxan barea" zehar dihoaz. Berriro ere itsasoan zehar, nonbaiteko lurraldera bidaliriko mezuak dira olerkiak, *Eusko bidaztiarena* olerkian bezala mundu zabalera bidalirikoak eta "nuestra Terranova literaria" aurkitzea dute asmo.

*Gure Mintzo*n mezuak hartzen duen esparrua zabalagoa da, uso zuri antzean bidaliriko mezuak itzuli egiten dira eta itxaropenezko hostoa dakarte ahoan, Noeren untzira oliondo hostoz etorri zirenak bezala:

"Aapaldiak elkarren ondoren
yalki ta, uso zuri antzean zetozen
itzuli, itxaso urdiña zear,
mokoan edergai, basoaren abar.

Itzuli zetozen aapaldiak;
itzuli zetozen nere uso txuriak
Aberriarentzat damesgun
legor gizenetik, yai-ostoa lagun..."
(GM 41-45, 209-211)

Beste zenbaitetan bezala, kristautasunari loturiko irudi batez, Testamentu Zaharreko Noeren Arkaren kontakizunetik harturiko irudi batez Lizardik, "mundu honen bestaldez" ez, baizik eta etorkizunean, han aurrean nonbait dagoen eta guziok amesten dugun Aberriarena izango den lurraldera bidaltzen ditu mezuak, hango basoko hostoak direlarik bere nekeen sari.

Alegoriak etorkizuneko euskal aberriari bidaliriko mezuak egiten ditu uso zuriak. Beraz, olerkariak gizarteari eskainiriko "amable ideal" hori, "bello pensamiento" hori, olerkariari ez saririk, ez erosotasun edo diru itxaropenik gabe lan eginarazten dion ideala, noizbait etorriko dela sinesten duen euskal aberriaren asmoa da, euskal hizkuntzaren berreskuraketak, "yare-berri" duen "leozpetua"k izango bait du gaitasunik euskal gogoa gaitu eta besterenetik, erdal hizkuntzen menpetik askatzeko.

"Ene leozpetu yare-berri,
eusko orok zaitzagu miñen eztigarri,
ta besteren gogo-menbetik
yare-gagizu usu, geurea gaiturik"
(GM 49-53, 211)

Lizardik olerkariaren eragiletzat jotzen duen ideala Jon Kortazarrek "Los debates literarios en la poesía del País Vasco (1930-35)" deritzan artikuluan bestelako zentzu batez hartua du. Estetika eta Etikaren arteko lotura, —idazle hauetan zalantzarik gabe oso hestua dena— Juan Ramón Jiménezen eraginpekotzat azaltzen du. Euskal liriko berrizale hauek euskal kultura unibertsalizatzeko helburua zutela esaten du, eta zera eransten du:

> "El suyo era un intento incardinado en los simbolismos, en el modernismo (Juan Ramón pretendía exaltar a su pueblo a dimensión universal), y que desde posiciones ideológicas idealistas pretendían una renovación literaria, pero también espiritual, ética y social" [58].

58 KORTAZAR, J.; "Los debates literarios en la poesía del País Vasco (1930-35)", 1194-5. or.

Kortazarrek azaltzen duenez, olerkariek bereganatu egiten dituzte Juan Ramón-en presupuesto literario hauek,

> "...defenderán que la poesía no sólo sirve para salvar a la lengua, sino también redime a las masas. La vitalización de la lengua no era la única misión del poeta (que "el euskera se declare redimido por el amor de una selecta minoría ("El tema del dia", 1929-6-13) sino que su objetivo consistía en enseñar a las masas el camino del ideal, purificarla del materialismo, alejarla del positivismo, crear en la sociedad las condiciones de una renovación total" [59].

Kortazarrek egiten duen muga zabaltze hau, hots, olerkariak hizkuntza salbatzeagatik ez ezik, jendeari idealaren bidea erakutsi eta berrikuntza izpirituala eta etikorantz bideratzearen xedea ere bazutela azpimarratzea, baliteke Lizardiren zenbait testuetan "ideal" hitzak duen erabilera zehaztugabeegian oinarritua izatea.

Lizardik arestian ikusi ahal izan dugunez, idealaz hitzegiten duenean euskararen berreskuraketaren xedeaz eta harekin euskal arimaren berezko nortasunaren berrezarketaz ari da zalantzarik gabe, horretan konkretatzen du beti: "besteren gogo menbetik yaregin, geure gaiturik".

Kortazarrek aipatzen duen materialismoaren eta positibismo gorriaren aurkako aipamenak, jende praktikoz inguraturik dagoen poetaren ahalegin idealista aipatzen duenean, hizkuntza arrotzek, gaztelaniak eta frantsesak euskaldunei eskaintzen dieten bide errazari buruz ari da soilki; haren indarrari aurka egiteaz, norbere buruari joaten uztearen erosotasuna eta erraztasun praktikoari lepoa bihurritu eta aurkako korrontean igeri egiteak suposatzen duen ahaleginaz ari da, beste gabe.

Erraztasun praktikoei, positibismoari eginiko ukoa ez da orokorra Lizardiren artikuluetan, euskal arimari iraunarazteak suposatzen duen idealismoaz, materialismo ezaz, positibismo ezaz dihardu soilik, ene ustez.

Kortazarrek eginiko hedakuntza horrek baduke oinarririk Lizardik progresismo gorria, positibismoa, gorputzaren gorabehera fisikoei ohartuegi zaion, kirolaz eta eroso bizitzeaz bakarrik ohartzen den gizartearen izpiritualtasun gabeziaz diharduten zenbait aipamenetan; eta bere mezuek eskeintzen duten bizitzaren panoramaren ikuspuntu sublimatzaileak ere idealismo orokorragoaz pentsa arazten digu. Ene ustez, aipamen horiek egitean ere, beti dauka gogoan aurrerazaletasun eta positibismo horrek euskal hizkuntza eta are euskal nortasun osoa edo arima osoa irensteko arriskua dakarrela eta horri oharturik dihardu, bereziki.

Murriztapen honen oinarri, besteren artean, Lauaxetari olerkari deitura baino abertzalearena nahiago duela beretzat esatean eginiko aitorpenari erantzunez, Lizardik zera dioela gogoratu behar da:

> "Por esa declaración se yo —pues mi forzosa inerudicción me vedará descubrirlo por propios medios— que Lauaxeta ha recorrido los prados floridos de otras literaturas, y asimilando en lo profundo del corazón pensamientos inspirados en esas lecturas, los ha hecho reflorecer, dotados de una nueva savia en el idioma amado. En ese idioma propio necesariamente único, que tiene el don maravilloso de hacer luchar épicamente y eficázmente contra la apisonadora formidable de la facilidad, de la conveniencia material, de la generalización a que dicen que la humanidad tiende en todos los medios, y en todos los órdenes" [60].

Aipamen honetan, aurreko beste zenbaitetan bezala, munduak eskaintzen duen komenientzia eta erosotasunaren zanpagailu hori ez da etika alorreko kontzeptua Lizardiren hitzetan. Lizardirentzat munduan nagusi diren mintzaira eta kulturek eskeintzen duten erosotasunera lerratzeari uko egitea da idealismoa, euskaraz idaztearen idealismoa da fomulazio konkretoetan, nahiz eta bere hitzen muga zabalek sarritan idealismo etikoaren bidea ere poetaren betebeharra dela idarokitzen duten.

---

59 *Ibidem*, 1195. or.

60 LIZARDI, X.; "Rumbos nuevos" (I) in *Euzkadi*, 1931-12-17, 1. or.; *K-L* 350. or.

2.2. EUSKARAREN GAITASUN ESPRESIBOA FROGAGAI

2.2.0. Sarrera

Olerkariak hizkuntzaren etorkizunean duen zeregin erabakigarria azpimarratzean, Pizkunde aroko idazle eta teorikoek hizkuntzaren iraupena ziurtatzerakoan bi alderdi nagusiri erreparatu behar diote, alde batetik hiztunen artean beren hizkuntzarenganako atxikimendua eta kontzientzia suztatzeko literatura erakargarria sortu, eta bestetik, hizkuntza kultur mailako gaietarako prestatuz eta goi-mailako literatura sortuz, hizkuntza hori lehen mailetan beste hizkuntza kultoen parean egoteko duina dela frogatzea, hots, bere gaitasun espresiboa frogatzea.

Azken honi dagokionez, Pizkunde aro honetan hizkuntzaren prestigioa areagotzeak garrantzi berezia duela esan genezake. Esate baterako, eta arestian aipatua dugunez, Lizardik kontzeptismoa eta laburzaletasuna literatura modernoan modan egoteak euskal hizkuntzarentzat hizkuntza kultoen abangoardiako lerroetan jartzeko aukeratzat jotzen du, bere berezko izaera eta taxueraz baliatuz.

2.2.1. Espainiako intelektualak eta euskara

Hizkuntza prestigiatzea da zalantzarik gabe, Pizkunde aroko euskaltzale eta idazle guztien kezka. Kezka honen iturria ez da ordea, euskaldunek beren hizkuntzaz duten axolagabekeria bakarrik, hau handia izanik ere. Bada kanpoko eragilerik ere. Espainiako mende hasierako intelektualen artean ugariak dira euskararen gaitasun espresiboa guztiz murritza dela baieztatzen dihardutenak. Unamuno dugu ezagunena, aurrerago azalduko dugunez, eta haserrealdi handienak eragin zituena —Lizardik sarritan aipatu zuen-, baina euskaraz eta honen gaitasun espresiboaren mugez deus gutxi dakiten idazleek ere helduko diote euskararen gaitasun espresiboaren gaiari.

Horietan xelebrerena gertatzen zaigunenetako bat aipatuz hasiz gero, Ramón María del Valle-Inclan idazleak *Sombras de vida* liburuaren hitzaurrean honela ziharduen:

> "En los idiomas primitivos apenas existen vocablos para dar idea de color. En vascuence, el pelo de algunas vacas y el color del cielo se indican con la misma palabra: "artuña" y sabido es que la pobreza de vocablos es siempre resultado de la pobreza de sensaciones" [61].

Beraz, alde batetik euskara hizkuntza primitibotzat jotzea sentsazioak adierazteko moztasuna izatea, eta ondorioz hitz urritasuna izatearen iturritzat jotzen da, topiko hedatua da mende hasierako Espainiako intelektualen artean.

Beste zenbaitzuk diotenez, berriz, euskararen aintzintasuna ez, baizik eta euskaldunok geurezkoa dugun moztasuna, espresibitate gaitasun murritzaren ondorio da.

Esate baterako, artearen deshumanizazioaren teoriaren sortzaile zen José Ortega y Gasset intelektualaren iritziak bide horretatik joan ziren. *El espectador* 1916-tik 1934-ra bitarteko saiakera multzo luzean, izenburuz "Los hermanos Zubiaurre" (1920) duen eta Zubiaurre anaien pintura erakusketa bati buruzko iruzkin berezia aurki daiteke [62].

Zubiaurre anaiak gor-mutuak ziren, beraz zentzuei zegokienez, muga jakinak zituzten hotsen bitartezko elkar-aditzearen alorrean, ezintasun horri Ortega y Gasset-ek pinturaren berezko adierazbidea grafikoa izanik, hotsei dagokienez berez mutu izateari, euskaldun izatearen berezko mututasuna ere eransten dio, garaian zegoen euskal izaeraren inguruko topiko itsatsienetako bati eraginez:

---

61 VALLE-INCLAN, R.M.; "Prólogo" in DE ALMAGRO, M.; *Sombras de vida*, Madrid, 1902, 3. or.

62 ORTEGA Y GASSET, J.; "Los hermanos Zubiaurre" in *El espectador*, 1920 (urria), in *Obras completas*, II, Revista de Occidente, Madrid, 1961-83, 267-270. or. (6. arg.)

"Los hermanos Zubiaurre son vascos, sordomudos y pintores. Esto quiere decir que hay en ellos tres potencias de mutismo. *Ser vasco es, sin más, una renuncia nativa a la expresión verbal.* El misterioso pueblo vascongado posee un idioma elemental que apenas sirve para nombrar las cosas materiales, y es por completo inepto para expresar la fluencia fugitiva de la vida interior. Por otra parte, no es la pintura complacencia en la mudez de las cosas y una divina organización de la taciturnidad" [63].

Baina topiko arruntez josiriko aipamenak nahi adina luza balitezke ere, euskal Pizkundearen garaiko idazleek batez ere, Barojatarren eta Unamunoren euskararen gaieztasunari buruzko ihardunari erantzun beharrean gertatu ziren, batez ere, euskaldungoan iritzi horiek gure hizkuntzaren prestigioari egiten zioten kalteaz oharturik. Beraz, ez da apologisten eraso berri baten zentzuan hartu behar, hizkuntzaren normalizazio soziolinguistikoan hizkuntzaren prestigioak duen garrantziaz oharturiko euskal intelektualen erantzuntzat baizik.

2.2.2. Euskal intelektualen erantzuna

Espainiako 98ko belaunaldiko partaide nagusi diren hauen iritziak erantzuteko idatzi zuen Aitzolek "La muerte del euskera o los profetas de mal agüero" deritzan entsaioa eta zatika 1931ko abenduaren 7tik 28ra argitaratua *El día* egunkarian.

Baroja anaien eta Unamunoren argumentua euskarak kultur bideak urratzeko ez duela balio da:

"El euskera no sirve de vehículo de la cultura" [64].

Eta argumentu horren inguruan 1931ko urte horretan bertan euskal intelektualak asaldatuko dituen erasoari ekiten diote Unamunok iraileko 18an Madrileko Korte Nagusietako hitzaldi ospetsuarekin; Baroja anaiek aldiz, hitzaldiak eman zituzten; Píok Barcelonan, Rikardok berriz, Irunen.

Euskararen iraupenaren inguruko iritzi etsikorrez gain, Unamuno da zalantzarik gabe, euskararen beraren ezgaitasunari buruz gogorrenik eraso zuena eta iritzi pertsonal hori argudio linguistikoez aurkeztu zuena:

"El argumento Aquiles que Unamuno esgrime contra nuestra lengua nacional, es el de la incompatibilidad entre ella y la cultura. Se basa para lanzar semejante afirmación en las siguientes razones: el euskera no posee palabras abstractas; el euskera no posee palabras que encierren ideas de universalidad. Por lo tanto, una lengua que no está dotada de estos elevados elementos de expresión, no puede ser compatible con la cultura.

Los idiomas que no son capaces de fecundar la cultura, en su doble aspecto científico y literario, llevan en sus entrañas la enfermedad mortal que causará su muerte inevitable" [65].

Beraz, Unamunok euskarak kontzeptu orokorrak eta unibertsalak adierazteko balio duten hitz-gabezia, hots, hitz horiek latinetik edo erromantzeetatik mailegatu beharra aipatzen du euskararen ezgaitasun horren frogatzat.

Pío Barojak berriz, "es una lengua que carece de potencialidad de expresión" esana du, eta euskaldunaren definizioan ere pentsamentuak eta sentimentuak adierazteko motza den nortasuna hartzen du eredutzat:

"Yo no sé —dice él mismo— definir de un modo sintético el caracter de los vascongados; si sé que casi todos tienen un fondo guerrero, que casi todos en el campo tienen algo de bruma en su cerebro, que hablan poco, que peroran poco, que son serenos, pensativos y silenciosos.

---

63 *Ibidem*, 267. or.

64 AITZOL; "La muerte del euskera" in *El Día*, 1931-11-7tik 28ra bitartean folleto moduan argitaratua. *Idazlan guztiak*, Erein, 1986, I., 335-381. or.

65 *Ibidem*, 357. or.

Después de citar a San Ignacio, Zumalacarregui, Legazpi, Urdaneta y Elcano, añade: "De ninguno de estos hombres queda una frase, de ninguno de ellos queda un discurso; todos ellos fueron parcos en hablar y abundantes en ejecutar" [66].

Aitzolek iritzi horien aurka erabiltzen dituen argumentuak ugariak dira, horien artean, ordea, garaiko joera nagusi bat deskribatzen duena, hots, Lizardiren idaztankeraren ezaugarri nagusienetako bat dena proposatzen du hiztegi teknikoaren gabezia hori osatzeko: euskal hitz konposaketa eta eratorketaren baliapidea.

Hitzen abstraktotasuna hiztunen arteko konbentzio baten ondorio dela esaten du, eta bestalde hitz abstraktuak gaztelaniak bezalaxe hizkuntza kultoagoetatik mailegatzeko eskubidea duela.

2.2.3. Lizardiren erantzuna

Pizkunde aroko idazleek euskararen gaitasun espresiboaren frogantzan eginiko saioa, euskara kultur mailara eramateko egiten ari diren ahalegina alferrikakotzat jotzen duen intelektual horien iritziak kalte handia egiten die, euskara prestigiatzeko egiten ari diren eginahalean.

Horregatik aurkitzen da beti alderdi honekiko aipamena idazle hauen idazlanei buruzko iruzkinetan. Kanpotik datorkien presio honek zenbateraino kitzikatzen dituen frogatzen du, zein garrantzitsu zaien erakusten du.

Lauaxetak esate baterako, Orixek eginiko "Mireio"ren itzulpena ona delako, euskara bera "autorizado" geratzen dela esaten du. Hots idazlan horrezaz egin diren gainerako itzulpenen artean euskarari leku bat egin diola [67].

Lizardik ere Lauaxetaren *Bide Barrijak* liburuaz ari delarik, aipatzen du Lauaxetaren ahalegin horrek intelektualek euskarari ukatzen dioten adieraz gaitasuna, abstraktua adierazteko ezintasuna gezurtatu egiten duela:

"O cree mi buen amigo que quien se aventura soinutsik ontzipuntan sakoneko lemazain, itsaso barne... zidor ezezagunaren gain", en expedición audaz lamentablemente loca para los Unamunos, a la conquista de nuestra Terranova literaria no es poeta nato, que a la vez que tiene la obligación de seguir navegando poéticamente en bien de la patria, carece del derecho de prohibirnos a los demás que se lo llamemos?" [68].

Euskararen gaitasun expresiboaren frogantza beraz, garaiko euskaltzale guztien zeregina bilakatzen da, hots, euskara "autorizatu" eta hizkuntza kultoen artean toki bat izateko berezko ezintasunik ez duela frogatzea da beren ahaleginetako bat [69].

Lizardik berak, bereziki gogoan zuen helburu hau, hortik dator, *Biotz Begietan*go olerkiak itzulpen eta guzti argitaratzea, hortik dator sarritan Orixeren olerkiak gaztelaniaz baino adierazkorrako direla esatea eta Lauaxetari, aldiz, indar adierazkor eskasaren arriskua erakustea:

"Cual es la finalidad del libro? Demostrar, nos dice, que en euskera pueden cristalizar todos los pensamientos. () Efectivamente, la lectura aun superficial e incompleta del libro da la impresión de un meritísimo esfuerzo por adaptar al euskera los conceptos difíciles a las altas ideas cuya expresión creen monopolizar las lenguas llamadas cultivadas demasiado olvidadas de su rústico origen" [70].

---

66 AITZOLek aipatua in "La muerte del euskera", 361. or.

67 LAUAXETA; "Mistralen Mireio" in *Euzkadi*, 1930-12-30.

68 LIZARDI, X.; "Rumbos nuevos" (I) in *Euzkadi*, 1931-12-17, 1. or.; *K-L* 350. or.

69 Horregatik, Orixek, Lauaxetaren *Bide Barrijak* liburuaz diharduela, liburu hori euskararen gaitasun espresiboa frogatzeko aski zela eta bide "frantses-zale horiek utz" zitzala aholkatu zion. Ikus ORIXE; "Bide Barrijak" in *Euzkadi*, 29-11-31.

70 LIZARDI, X.; "Rumbos Nuevos" (I) in *Euzkadi*, 1931-12-17, 1. or.; *K-L* 350. or.

Lizardiren ideia literarioetan berebiziko eragina du intelektualek egiten duten presio honek.

Eusko Bidaztiarena deritzan olerkia dugu horren lekuko. Aitzolek 1931ko intelektualen erasoaldi hori duela jatorri azaltzen du, Unamunori eskainia dagoela gogora arazi ondoren:

> "... para demostrar con un argumento incontroversible la adaptabilidad del euskera para expresar cualquier manifestación del pensamiento moderno" [71].

Orixek ere konfirmatu egiten du olerki horren helburua horixe zela, hots, "zarpazu esan dioten andere aberats batek aterako luken yantziz yantzita" [72].

Lizardik *Eusko bidaztiarena* olerkirako aukeratu duen gaiak berriz, Mistralen metafora bat du oinarritzat, hots, mendi-neska zarpazu bat ederretsi duen zaldunak munduaren aurrean eder erakutsi nahi du. Zaldun hori bezalakoa da hizkuntza ezetsian idazten duen olerkaria. Idazlea eta hizkuntza senar-emazte gisa irudikatzearen ondoren, mundu zabalera jotzen du itsasoz euskal arrantzaleek Terranovara jotzen zuten era berean. Itsasoratze honek, berriz, Lauaxetaren "Itsasora" olerkiaren gaia gogora arazten du, hots, arestian aipatu dugun zatian Lizardik euskal idazlearen ausardiaren lekuko gisa aipatu duen *Bide Barrijak* liburuko olerkia.

Lizardiren helburu nagusietako bat da beraz, euskararen gaitasun espresiboa frogatzea, eta Lauaxetari eskatzen diona horixe bera da, bere liburuaz eta liburua erdal itzulpen eta guzti argitaratzean frogatu nahi duena:

> "Miñarazi nindun arranoak, eta esan nion jarriko nitula erderaz izneurtu aiek; etortzeko urrengo egunean ta nik erakutsiko niola, euskeraz sortutako izneurtua mamiago zitekela, ta indarrago, aien erdel itzulpena baiño.(...)
>
> Ori irakurri ondoren goitik beera begiratu nindun itzal-apur batez. Gero, aurreko egunean ez bezela, euskerazkoa astiro-irakurtzeraiño bere burua eratxi zun. Erderaren indarra; izketa luze atsegin ...() Nik uste, orrela ale geiago salduko nituke. Bestela euskeraz ezer irakurtzeko eztiranetarik zenbaitek erosiko lukete agian. Ta askoek, bear ba-da, ikasi, gauzak ederki ta mamiz adirazten euskerak eztiola erderari batere zorrik" [73].

2.3. ABANGOARDIAZKO EUSKAL MINTZO ELERTITSUA MODERNITATEAREN ERRONKARI EMANIKO ERANTZUNA

Lizardik bere idazlana jendeari aurkezteko aukeratu zituen hitzek bere olerkigintzaz zuen ikuspegia zedarritzen dute, euskal kulturaren eta literaturaren esparruan kokatu egiten dute:

> "LÉEME
>
> Poesías Vascas con traducción castellana. Ensayo de modernidad en una de las lenguas mas viejas del mundo.
>
> Si el fenómeno de su floración en el siglo del comunismo y del cubismo te interesa,
> LÉEME" [74].

Bere idazlanaren aurkezpen gisa hautatu zituen esaldi hauetan, ene ustez, euskal literaturaren esparruan hartu nahi zuen tokia erakusten digu, modernitateari aurre egiterakoan hartzen zuen jarrera

---

71 AITZOL; "El poeta Jose María Agirre "Xabier de Lizardi" in *Yakintza,* III, 1933, 163-177. or.;

72 ORIXE; "Lizardiren azken olerkiak" in *Yakintza,* VI, 1934, 412. or.

73 LIZARDI, X.; "Erdi-Bearra" in *Euzkadi,* 1930-5-8, 5. or.; *K-L* 302. or.

74 Lizardiren *Biotz-Begietan* liburua 1932an argitaratu zenean biltorri hau aldez aurretik ongi pentsaturik zuen plazaratzeko modua izan zen. 1930ean *Euzkadi* egunkarian, maiatzaren 8an argitaratu zuen "Erdi-bearra" artikuluan (*K-L* 303-306. or.) liburu hori egiteko erari buruz dituen asmoak azaldu zituen:

azaltzen digu, eta bestetik, berea bezalako idazlan batek bete behar zuen gizarte-betebeharra zein zen eta nola bete asmo zuen.

Hain zuzen ere, Lizardiren modernitateaz eta abangoardiako lanen zereginaz diharduten bi alderdi nagusi hauek dira atal honetan aztertuko ditugunak.

2.3.1. Lizardi modernitatearen aurrean

Lizardik bere idazlana "ensayo de modernidad" dela esaten du, baina modernitate ahalegin horren meritua zehazteko munduko hizkuntzarik zaharrenetako batean burutua dagoela esaten du.

Euskarari modernitatea itsasteko saioa egin nahi du eta bere ustez modernitate hori zedarritzen duten bi gizarte mogimenduren aipamena eginez aurkezten du, bata artistikoa, kubismoa, eta bestea politika alorrekoa, komunismoa.

2.3.1.1. Modernitate iraultzailea

Modernitatearen testuinguruan bi iraultza nagusik zedarrituriko mendean kokatzen du zehaztasunez Lizardik bere saioa, batek mendeetan zehar nagusi izan den figuratibismoaren ardatza hautsi du, eta besteak gizarte egituraketaren ierarkia zilipurdikatuko du. Berak, aldiz, aintzinatearen zama gainean duen hizkuntza batean egiten du saioa eta ahalegina.

Kontraste hau azpimarratuz aurkezten du Lizardik bere idazlana, esparru horretan kokatzen du bere saioa, eta, beraz, horrekin bakarrik jadanik iraganaren minez dagoen mogimendu erromantiko nostalgikoak beragandik deserrotu duela aldarrikatzen du. Bere garaiko munduari, garaikide dituen mogimenduei, pentsamoldeari ausardiaz heltzen eta erantzuten dion saiaketa bat da bere poesia.

Nolakoa da ordea, Lizardik modernitate horrekiko duen harremana? Izan ere, Lizardik olerkigintzaren alorrean berritzaile ospea badu ere, garaikide zituen mogimenduekiko zaletasunik ez ote zuen, tradiziozalea ez ote zen esan izan da.

Jo dezagun lehenik, eta aurreiritzirik jaulkitzeari uko eginik, bere artikuluetan eta olerkietan jaso, antzeman eta ondoriozta genezakeen jarrera aztertzera.

Gai honekiko jaso daitekeen lehen erreferentzia 1928ko "Cómo decaen las lenguas culturales" delako artikulukoa dugu. Artikulu horretan arte garaikidearen aurrean duen jarrera azaltzen du. Kubismoak "harri eta zur" uzten du, kolorea eta formak nabaritzen ditu, baina ez du figura inon aurkitzen. Kubismoak aurreko artearen gehiegikerien aurka egiten duela dio, "relamido eta artificioso" izateko joerari emaniko erantzun bortitza dela esaten du, baina bere gusturako hausturaren ondoriozko artea ere gehiegikeria da.

Zuhurtasunez botatzen ditu ordea, iritzi hauek:

> "Pero conste que yo no me meto en esto. La materia rebasa todo mi poder digestivo. Por si acaso bueno será destacar mi profundo respeto..." [75].

"Idazki txiki bat egingo nuke, bitxi-azaldun, paper bikañez, sakelerako erakoa. Olerkirik gutxi: amabost-ogeitsu. Ta olerkiok enituke emango euskara utsez: alboan zeñek-bere erderalpena luteke, aalik ondoen egiña. Saltokian biltorri (bildu orri) nabari bat jantzita agertuko nituke: bertan hitz arro batzuk, erderaz".

75 LIZARDI, X.; "Cómo decaen las lenguas culturales" in *Euzkadi*, 1928-11-3, 1. or.; *K-L* 140-144. or.

2.3.1.2. Modernitatea erasokorra

Lizardik ezjakinaren plantak egiten ditu arte berri honen aurrean, zuhurki baina ironiaz begiratzen dio mogimendu honi. Arte berriaren zalea omen den adiskidearen aldean "zaharrago"aren papera hartzen du Lizardik beretzat;

> "Mi interlocutor era un joven muy culto que no ha alcanzado a contemplar —como yo— el poniente de la decimonona centuria" [76].

Arte berriaren aurrean harritua egoteko duen aitzakia bakarra hain gaztea ez izatea da, hots, 32 urte izatea alegia. Aurreraxeago ikasketak ere eredu zaharrekoak egin zituela erantsiko du, ezintasun horren barkagarritzat:

> "Cuando uno ha cursado el bachillerato antiguo —bien haga de ello muchos años-..." [77].

Lizardik "armada de hormigón" [78] dagoela iruditzen zaion gaztediaren aurrean, zahartzat, seniortzat jotzen du bere burua, eta hori dela eta, modernitatearen aurrean duen defentsibazko jarrera hori bidezkotzen duela esan daiteke. Modernitatearen mogimendua "erasokorra" edo jarrera defentsiboak eragiten dizkion mogimendua da, bere kultura eta bere hizkuntza suntzitzeko arriskuan jartzen dituen "zanpagailu" berdintzailea dela esaten du.

Azpimarratzekoa da komunismoaren aipamena liburuaren biltorrian bakarrik egin bazuen ere, kubismoaren aipamena, hogeigarren mendea "el siglo del cubismo" dela beste behin ere aurki daiteke arestian aipatu dugun artikuluan.

Aipamenak kubismoarekin berarekin baino gehiago, kubismoa modernitatearen lehen errenkako mogimendu iraultzaileena eta arte alorrekoa izatearekin du zerikusia.

Lizardik kontrastea azpimarratzea du helburutzat, mogimendu aurrerazaleenak eta bortitzenak gertatzen ari diren unean jazotzen ari dela, hain zuzen ere, munduko hizkuntzarik zaharrenetako baten loratze mogimendua.

Kubismoaren aurrerazaletasun eta berritasunarekiko kontrastean dago euskal hizkuntzaren zahartasuna. "Cómo decaen las lenguas culturales" izeneko artikuluan esaten du, hain zuzen ere, modernitatea bizienik dabilen, sendoena den kubismoaren aroan gertatzen ari dela hizkuntzarik zaharrenen eta ezetsienen berritze eta aldarrikatze mogimendu bizia.

Beraz, kubismoaren izenez adierazi nahi duena zera da, mogimendu erradikalenak gertatzen ari diren unean, modernitateak zaharraren suntsipena eskatzen ari dela dirudien unean, ustegabean, azpiratuek aukera bat izan dezaketela nabarmenerazi nahi du, eta izan ere, badutela izan munduan barrena.

Kubismoaren aroa deitzen duen garaia euskal kulturari hil ala biziko erronka egiten dion errealitatea da Lizardirentzat. Mundu berria uniformatzera jotzeko arauari lotzen bait zaio nonbait. Eta mundu osoan tankera berdineko bizimodua, lanmodua eta pentsamodua hedatzen doan era berean, hizkuntzen arloan ere joera bera jarraituko dela egia itzurezintzat aurkezten da.

Badu ordea, itxaropen izpia ekartzen dion beste fenomenu bat, erromantikotasun atzeratutzat jo ohi duten indar batek Europaldean azken mendeotan zanpaturik eta galbidean ziren hizkuntzen berrindartzea ekarri du. Modernitateak dakarren itxaropen aukera horrek euskarari onuragarria zaion

---

76 *Ibidem.*, K-L 140. or.

77 *Ibidem.*, K-L 142. or.

78 *Ibidem.*, K-L 142. or.

kemena eman liezaiekeela iruditzen zaio, eta horregatik ez du atsegin garaikide duen artearen gorabeherek behar bezala ezagutzen ez dituenaren posturan gera arazten badiote [79].

Hain zuzen ere, besteen begietan ez-modernotzat agertzea ekidin nahiez, mundu zaharrekoa dela dirudien euskal hizkuntza eta kulturak ere modernitatean tokirik izan dezaketela frogatzen ahalegintzen da.

2.3.1.3. Erromantizismoa errefusatzea

1928-11-3ko artikulu honetan, nahiz 1929ko "Glosas Triviales"etan, bai Uztailak 31ko eta bai Abuztuko 8ko artikuluetan, "Axari-Beltz" ezizena darabilen idazle bati erantzunez idatzirikoetan, jarrera berbera ikus dezakegu modernitatearekiko. Ez du gogoko gazteen artean euskarari buruz egiten den identifikazioa, mundu zaharra eta euskal kulturaren artean egiten duten ekuazio sinplea, alegia.

Horregatik, "Glosas triviales" direlakoetan agerturiko jarrerengatik "Axari Beltz"ek Euskal Herriaren irudi atzerakoi eta erromantikoa egozten dio, "...además de tradicionalistas nos llama Werther" [80].

Lizardik garaikoen artean ohizkoa den euskal kulturaren irudi atzeratu eta jarrera erromantikozale nostalgikoekin identifikatzeko joaera hautsi nahi du. Ironiaz erantzuten dio "Axari-Beltz"en erasoari, batez ere atzerakoi eta erromantiko negartiaren deiturak berarekiko esanik oker nabaria direla nabarmenerazi nahiz:

> "Sí, debemos declarar, no sin rubor, que lloramos con frecuencia y en forma quejumbrosa. Tenemos la odiosa manía de sentirnos poetas cuando menos falta hace, y nuestros excesos en la materia —Oh "Axari Beltz" míranos con clemencia!— han llegado en ocasiones hasta la endecha rimada; extravío que si las humanas repúblicas hubieran aprendido a gobernarse, ya no están lejos de ello, con algún indicio de talento, sería materia de las más severas sanciones" [81].

Kasu honetan ikusten dugu Lizardik erromantizismoa negar egiten duen olerkariarekin identifikatzen duela, lehen-minez dagoen olerkariarekin. Mundua eta olerkaria elkarri aurka jarririko bi indar bezala aurkezten ditu, olerkaria eta azpiratu egingo duen gizarte uniformatu eta guztiz antolatuaren arteko lehia planteatzen du.

Lizardik "tradicionalistas románticos" deitzen dituenak euskaltzaleekin identifikatu ohi dituzte, modernitatearen aurrera-indarrari eutsi egin nahi diotela argudiatu ohi dela agertzen du Lizardik, eta identifikazio horren aurka jo nahi du.

Zehazki aipatuz, Lizardik aldaketa bizian dagoen Zarautz herriaren kasua aipatu du eta hango jendearen jokaera erdaltzalea salatu, modernitateak erakarririko aldaketekin batean, autoak, lantegiak, turismoa eta abarrekin batean, hots, "las exigencias de este ingente progreso que nos absorbe" deitzen duen oldeak euskara bera ere porrokatzen duela ikusten bait du.

---

79 *Ibidem.*, K-L 142. or.
"...no obstante mi posición desventajosa de hombre vuelto de espaldas a la modernidad, creo no caer en jactancia si digo que...".

80 LIZARDI, X.; "Glosas Triviales" in *Euzkadi*, 1929-7-31, 1 or.; *K-L* 159. or. Lizardiren artikulu honetan Werther erromantizismoaren prototipo ezaguntzat aipatzen da.

81 *Ibidem.*

2.3.1.4. Irtenbide abangoardiazalea

Bere garaikideek euskara eta aintzinako Euskal Herriaren irudia eta mundu modernoaren artean jartzen duten hesia hautsi nahi luke, modernismoak egiten dion erronkari abangoardian hartu lezakeen joera berri bat aurkeztuz, eta benetako berritasuna duen abangoardiatzat joaz:

> "El vasquismo ha hecho alguna cosa de más empeño que definir la significación transcendental de la alpargata. *El vasquismo por ejemplo, ciñiéndonos siempre al problema euskera, ha pretendido y pretende sublimar el uso literario y plegar a las exigencias excesivas del poder no-vivir a una lengua que llegó hasta nosotros a través de la triste incuria de innúmeres siglos.*
>
> *He ahí una obra revolucionaria, progresiva, de "vanguardia"* —mas aún que los pujos de modernidad de ciertas delgadas saltarinas plumas— impulsada por retrógados "Werther tradicionalistas" [82].

Hona hemen, labur, Lizardik proposatzen duen egitasmoa modernitatearen erasoari eman beharreko irtenbidea abangoardian kokatzea da. Ez dago gauzak lehengoan edukitzearen alde, aurrekoengandik heldu zaion ikuspegiaz guztiz konforme dagoenaren eran. Modernitateak eginiko erronkari erantzun egin beharra ikusten du eta literaturaren alorrean hizkuntza literarioa goren mailara eraman eta mundu berrian iraun ahal izateko euskara behar bezala moldatzea dira Lizardik proposatzen dituen lan aurrerazale, iraultzaile eta abagoardiazkoak.

Ondorioz, bada, Lizardik *Biotz Begietan* aurkezteko "ensayo de modernidad" zioenean, arestian aipatuak ditugun bi helburu iraultzaile horiek zituen gogoan, hots, hizkuntza literario autonomoa sortzea eta hizkuntzaren gaitasun espresiboak kitzikatuz, mundu modernoan iraun ahal izateko prestatzea.

Aldi berean, bere garaian oso hedatua dagoen euskara eta euskal kulturaren tradizionalismoa eta erromantizismo negartiaren iruditik banatzea du helburutzat. Horretarako, ausardiaz jokatu beharra ikusten du, liburuaren biltorrian ezarriko dituen hitzak "arroak" direla esaten du "Erdi Bearra" artikuluan, eta aipatu berriak ditugun artikuluetan, ekuazio horren sinpletasun gehiegizkoa farregarritzat uzten du.

Modernitatea, zirimol eutsi-ezin baten gisa agertzen da Lizardiren artikulu hauetan, "gehiegizko larderia" du, "dena irensten du" esaten du modernitate horri buruz.

Modernitateak Lizardirentzat duen tankera erasokorra, bizkorra da, eta jarrera defentsiboak sortzen dizkio, baina ez atzerakoiak.

Zenbait olerkitan ere isladatzen du erronka horrek erantzun positiboa behar duela.

Lehenik eta behin, *Bultzi leiotik* olerkia aipa daiteke, mendi-zelaietan dagoen "gurazko aberria" eta beheko munduaren arteko kontrajartzea azaltzen du. Lizardi gurazko aberria miretsi arren, geldi dirauen paisaiatik aldenduz, "zoro doan" bultzian alde egiten du. "Beheko behar goriak" darama, progresuak ez dio lehenaren kontenplazioan egoten uzten.

Parisko txolarren ere "gizon zoro" batzarre den Bourse ondoko Paris erdian dagoelarik, Lizardik arlote eta lotu aurkitzen du bere burua, baserritarra, "nun-naitar izan miñez" dagoena. *Eusko Bidaztiarenan* ere, hiri nagusia ikustatzera joatean, hango bizimodua korapilotsua eta zaila aurkitzen du, baina geureganatu beharra:

> "Iri nagusi, giza-erlauntza:
> zorapenezko aruntz-onuntza
> sumabearra, yakintza
> sal-eros ekurugaitza,
> gure elkar-indarrak itzuli bitza!"
> (EB 65-69, 181)

---

82 LIZARDI, X.; "Glosas Triviales" in *Euzkadi*, 1929-8-8, 1. or.; *K-L* 164. or.

Hiri handietako bizia zorapenezkoa da, gurazko aberriaren ondotik doan bultziaren abaila eta Boursen dabilen jendea bezalakoa. Baina euskal hizkuntzak guzti horri aurre egin behar dio, hori da behin eta berriro Lizardiren mezua. Benetako abangoardiazko ekintza horixe da eta ez besterik.

2.3.2. Abangoardia eta Lizardi

Lizardirentzat literatur hizkuntza sublimatuko duten, goi mailara eramango duten eta zernaitarako gaituko duten abangoardiazko idazleak behar dira, gainerako idazle guztiez gain. Lizardik abangoardia hitza darabilenean ordea, nolako abangoardia zuen gogoan jakitea beharrezkoa da, lehen lerroetan burrukatu behar zuten "gogo-gudari sailek" zein bide hartu behar zuten beren helburuak erdiesteko?. Hona hemen gaiaren bigarren urratsa. Gudari izpiritualen sailetako lehen lerroko idazleek zeri ekin behar zioten, zein baliapidez?

2.3.2.1. XX. mende hasierako abangoardiak

Hogeigarren mendearen lehen herenean abangoardia hitzak duen kutsuaz ohartu beharra dago lehenik. Modernitatearen fenomenu orokorraren baitan abangoardiak jarrerarik muturrekoenak, erradikalenak eta berrizaleenak dituzten mogimenduak dira, artearen alorrean pinturan, musikan nahiz literaturan ematen ari dira. Espainian "ismo" izenez ezagutzen dira, eta askotan arteari buruz duten ikuspegiak arte-alor bati baino gehiagori eragiten dio; adibidetzat inpresionismoa aipa liteke, pinturaren arloan hasi zelarik, musikarenera eta are literaturarenera iritxi bait zen.

Mende hasierako Europan, modernismoak XIX. mendearen amaieran ekarritako baino haustura nabarmenagoa gertatzen ari da aurreko tradizioarekiko artearen eremu osoan zehar [83].

Frantseseko "avant-garde" izenez ezagutzen diren XX. mendeko mogimenduek hautsi egiten dute —sarritan zakarki— aurreko estetikaren kanonarekin. Arte eta letrei buruzko kontzepzio guztiz berriak aurkezten dituzte "manifestu"-en bitartez. Elkarren segida bizkorrean gertatzen dira manifestu hauek, espresionismoa, futurismoa, kubismoa, dadaismoa, surrealismoa,... Horietako askok, arte plastikoak ez ezik, zinema, antzerkia, literatura eta filosofia bera ere iharrosten dituzte. Batzuk guztiz iragankorrak izan ziren arren, beste batzuk sortu zuten haustura ezabaezinezkoa izan da.

Espainiako mundu kulturalari dagokionez, bereziki azpimarragarria da 1914 aldera sentsibilitate berri batek, joera estetiko berriek hartzen duten indarra, eta Europako gerra-arteko epean berebiziko protagonismoa lortzen dute. Estetikaren alorrean esperimentalismoaren grina da nagusi, forma berriak aurkitzeko ahalegina da epe honen ezaugarri berezia.

Espainian tertulia literarioen eta aldizkari literarioen eklosio garaia da, eta Espainiara iritxiz joango dira Europa aldean puri-purian dauden abangoardiazko mogimenduen uhinak: futurismoa, hizkuntzaren posibilitateei askatasun berri bat eskaini ziona; kubismoa, Lizardik aipaturikoa, eta Apollinaireren eskutik literaturan ere eragina izan zuena, errealitatearen elementuak deskonposatuz, kontzeptu, imagina eta esaldien arteko harreman askeak sortuz, eta olerkien moldaketa grafiko berezien bitartez esanahia "margoztu" egiten zuena. Kaligramak eta kolageak esaterako, kubismo literario honen fruitu dira.

Dadaismoa da hurrena, norberaren fantasiaren lehentasunaren aldarrikatzailea izan zena eta mintzaira inkoherentea, inhibiziorik gabearen baloraketa ekarri zuena; Ultraismoa, Kreazionismoa, Surrealismoa...Azken hauxe da, zalantzarik gabe, mende honetako iraultza artistikorik garrantzitsuena, eta abangoardiazko mogimendu horietako zenbaiten bateratze gunea bilakatu zen [84].

---

83 ELKAR LANEAN; *Arte abstracto y arte figurativo,* Biblioteca Salvat de Grandes Temas, Salvat, Barcelona, 1973.

84 GIMENEZ FRONTIN, J.L.; *Movimientos literarios de Vanguardia,* Salvat, 1974 (Libros GT, 61), 73-124. or.

2.3.2.2. Lizardi eta XX.mendeko abangoardiak

Ismo edo abangoardia mogimendu hauek Lizardiren kubismoarekiko aipamenetan zer dela eta agertzen diren aztertu nahi izanez gero, zein abadagunetan egiten dituen ikustea da esanguratsuena, ene ustez. Mogimendu hauek duten erradikal ospeak, eta bestalde, jende ikasiaren arteko mogimenduak izatearen kutsu jakintsu eta kultoarekiko errespetuak bultzatu bide zuen Lizardi "Como decaen las lenguas culturales" bezalako artikuluetan kubismoa eta pintura abangoardien gaia, tentu handiz aipatzera.

Gauza bera egiten du literaturaren arloan abangoardiazko edozein mogimenduren aipamena egitea suertatzen zaionean. Esate baterako, Lauaxetaren *Bide Barrijak*ez 1931ean iruzkin literarioa egitean, bi puntutan nabari dezakegu zuhurtasun eta apaltasunezko jarrera hori, ezjakinarena, behar adinako formaziorik ez duenaren jarrera.

Lehenengo aldiz, Lauaxetak bere olerki horiek egiteko "ha recorrido los prados floridos de otras literaturas" aipatzen duenean, Lauaxetak berak aitortzen duelako dela dio, berak ez zukeela berez igarriko:

> "Por esa declaración sé yo —pues mi forzosa inerudición me vedara descubrirlo por propios medios-..." [85].

Zuhurtasuna eta apaltasuna, era berean, "los señores de la poesía pura" aipatzean, Aitzolek aipatu dituelako aipatzen dituela esateak aditzera ematen du ez dituela bere kabuz erlazionatu Lauaxetaren eta poesia puraren taxuerak.

Ondoriotzat esan liteke Lizardik erreparu eta tentu osoz egiten dituela garaikide dituen abangoardia artistiko eta literarioen aipamenak, besteek aipatu dituztelako, antonomasiaz modernitatearen bandera den kubismoaren aipamena duten balore enblematikoarengatik, etabar.

Berak "mi forzosa inerudición" aipatzen du bere burua zuritzeko: nahi zukeena baino asti gutxiago eskain ziezaiokeen arte gosea asetzeari. Biografian azaldua dugunak berak aditzera emana digu lanak eta Eusko Ikaskuntzako zereginez gain, ekintza politikoak, kazetari-lanek eta idazle lanek bete eta are gainezkatu egiten zizkiotela egunak dituen hogeita lau orduak. Bestalde, eta gaztetan ia nerabea zelarik lanean hasi izanak, eta ikasketa unibertsitariak "Ikastegi Nagusira" edo Unibertsitatera azterketetarako soilik joanez egin izanak erakusten du ezin bestezko ta bere borondatearen aurkako "ezjakintasuna" zela berea.

Beraz, "mi forzosa inerudición" esanez, Lizardik barren barrengo egia bat isuri zuela pentsa daiteke eta ez itxurakeriazko apaltasunaren apaingarri hutsa. Hil ondorengo artikuluen artean Jautarkolek ere azken urteetan literatur alorrean zituen ezagupen-müga horiek gainditzeko egin zituen ahaleginen lekukotza eskaini zuen, jadanik aipatua dugunez.

Horregatik pentsa dezakegu Lizardik euskal literaturaren alorrean abangoardia zer den eta nolako bidea hartu behar duen aditzera ematen duenean ziurtasun osoz ari bada, ideia garbiak eta ongi finkatuak dituelako dela. Ongi ezagutzen duen alor honetan egin beharreko abangoardia lana zedarritu eta praktikan burutzeko bidea hartzen duenean, munduan zeharko "ismo" guziekiko konplexuak baztertu eta ziurtasunez abiatzen da. Arte modernoaz zukeen ezagupenaz zehaztasunik ez du ematen, baina azterketa formalari ekitean garbiro nabarmendu ahal izango dira arte modernoaren zenbait ezaugarri Lizardiren obran, hala nola, perfekzio teknikoa poemaren alderdi metriko-fonikoetan, erritmoaren berrikuntza, olerkiaren egituraketa osoari ematen dion lehen mailako garrantzia, edo kritiko gehienek oharteman duten adjetibaketa zaindua, kolore eta efektu sentsorialen garrantzia, sinestesia eta metafora moldeetan...

---

85 LIZARDI, X.; "Rumbos nuevos" (I) in *Euzkadi*, 1931-12-17, 1. or.; *K-L* 350. or.

Munduko literaturez aitortzen duen ezjakintasunak ez zion eragotzi literaturari buruzko ideia garbien jabe izatea, eta haien erabileran garaikide izan zituen euskaltzale gehienek baino zuhurtasun eta begi zoliagoz bideratzen jakitea.

2.3.2.3. Lizardiren abangoardiaren zentzua

Lizardik proposatzen duen abangoardiak zentzu berezia du, nolabait esateko sema bikotza du: alde batetik, berak bizi duen garaiari loturikoa, eta bestetik euskaldungoari loturikoa. Alde batetik, modernitatearen testuinguruan abangoardia hitzak dituen konnotazioak bereganatu nahi ditu, modernoa, lehen mailakoa, kultoa, baliotsua den zeregin kulturalari ekin behar zaio, ordurarte euskarak eta euskal kulturak izan duen konnotazio erromantiko, tradizional eta atzeratuaz erantzi.

Bestetik, berriz, bideak irekitzearen zentzua ere badu abangoardia horrek, euskal abangoardiako gudari izpirualetako lehen lerrokoek bideak urratu eta prestatu behar dituzte hurrengo belaunaldientzat.

Halaxe, garaikide guztien ahotan ibili zen epos nazionalaren gaian, besteek ez bezala idazle guren hori hel zedin, idazle belaunaldien lantze umil eta neketsua beharrezko zela aditzera ematen saiatu zen, idazle bakar bati eskatuz eginiko lanak gorabehera. Euskaltzaleak erakundearen buru izan zenean eginiko egitasmoan ikusi ahal izan dugunez, horretara zuzenduriko ekintzak proposatu zituen: idazleak suztatzeko beharrezkoa zen lan kritikoak, argitaletxe merkeak, egunkarietan toki nagusiagoak, "aintza apurra" etabar ere bat bateko jeinuak baino itxaropen hobea sortzen zioten [86].

Aitzolekin eztabaidan ari delarik euskal literaturaren Pizkundeari komeni zaion ala ez abangoardiazko literaturarik izatea, nabari da euskal literatura munduko beste edozein literaturak bezalako biziera duela sinesten duen bakarra dela Lizardi, eta beraz, organismo bizi bati dagozkion prozesu guztiak beharrezko dituela sinesten duen bakarretakoa dela:

> "El progreso de una literatura no se puede dirigir a golpes regidos de batuta sino que es preciso admitir la variedad simultánea de diversos estilos, desde el bertsolari más primitivo, hasta el novista más rabioso, pues la obra de estos, como un poco de vanguardia al fin, ejerce siempre cierta acción de levadura" [87].

Berrizale izateagatik 1931etik aurrera berak eta Lauaxetak jasoko dituzten erasoetatik beren buruak babesteko Lizardi behin eta berriro saiatzen da moderninateari aurre egin ahal izateko euskal literaturak ere erantzun berrizale eta abangoardista eman behar diola azaltzen.

Berritu behar horretan akatsak egingo badituzte ere, hurrengo belaunaldiętarako euren saioaren oinarria eskaini dezakete berrizaleek, Lizardiren ustez. Hizkuntza literarioari autonomia eman, goi mailara eramango bada, berrikuntza saioa egin beharra dago, eta bide urratze horrek, abangoardia lan horrek fruiturik emango badu, egin duten lanaren artean hurrengo belaunaldiek urrea eta ganga bereiziko dute, hots, poesiaren alorrean irabazi diren mailak oinarritzat erabili eta gehiegikeria, okerra dena, baztertu.

Irizpide honi beroni eusten dio "Bide berriak. Bide guztiak" deritzan artikuluan ere, berrizaleen eta errazaleen arteko tirabira, edo tradizioaren zale eta abangoardisten artean izan ohi den dialektikaz ziharduelarik.

---

86 Baina 1931tik aurrera gai honi buruz aurki daitezkeen aipamenek beti dute gogoan Orixeren idazlanaren tankera eta, duen helburu jakin horretarako mugen barruan onartu egiten duela eta egokitzat jotzen duela esan daiteke. *Eusko Bidaztiarenan* eskatzen zuen "olerki garaia", ustez, erdi-eginik ikusirik hil zela esaten du Orixek "Lizardiren azken olerkiak" deituriko artikuluan (*Yakintza*, VI, 1933, 94-99. or.) Ikus 59. Dokumentuan egiten duen aipamena.

87 LIZARDI; "Rumbos Peligrosos" in *Euzkadi*, 1932-2-27, 1. or.; *K-L* 373. or.

"Gauzak berezko bideetatik atera nai dituzute. Mallak elkarrekin lotuak bear dute, igotzeko malladirik osatuko ba-da. Gure elertia beste errietakoa ez bezelako eraz azitzea nai zenukete, ta oker zoazte ortan. Opilla ez da jaikitzen legamirik gabe.

Baña lenbait-leen aitor dezadan erraz-zale aserrekoiok ere bear-bearreko ta naita-naiezko zaituztegula. Elerti guzietan agertu izan zerate aurrerazaleei buruzki; urrengo gizaldiek, ordea, ez dute ukatu izan aal, aien bultzaldi goragarria: akats eta guzti" [88].

Beraz, arestian abangoardiaren lana zedarritu dugunean, hizkuntza literario autonomoa sortzea eta euskara modernitatean iraun ahal izateko gaitzea zirela helburu nagusiak ondorioztatu badugu, abanguardia horrek nolakoa izan behar duen azaltzen saiatu gara bigarren urrats honetan.

Lizardik, abangoardia berrizalea, hautsi-zalea, eztabaidatua eta ausarta irudikatzen eta praktikatzen du, hots, mundu guztiko literaturan izan ohi diren abangoardien pareko eta ez gutxiago. Estetika berrien, esperimentu zaletasunaren aldezketan eta praktikan, Lizardi bere garaiko gizona izan zen, eta abangoardiako mogimenduek Lizardigan izan zuten eragin zehatza sumatzea sarritan nekeza bada ere, ikerketaren, eta estetizismoaren baloraketan mende hasierako arteen giroaren zigilua antzeman diezaiokegu.

2.3.2.4. Abangoardia eta eliteak

Lizardik aurreko atal horretan azaldu den bezala, euskal literaturaren normaltasunaren alde eginiko apostuak ez du bere garaikide askoren oniritzia jasoko. Euskal literatura euskal hizkuntzaren egoera soziolinguistikoari kateaturik ikusten dutenek eta hizkuntzaren etorkizunean zeregin konkretu eta berehalakoa duela uste dutenen aldetik iritzi zorrotzak bideratu ziren Lizardiren irizpide eta praktikaren aurka.

Lauaxetaren *Bide Barrijak*en argitaralpenaren ondorioz eztabaida irekia gertatu zen Lizardik bezala abangoardiazko literatura egiten dutenen lanaren inguruan. Hasieran Lauaxetaren aurka bakarrik, hots, haren olerkiaren zailtasunari buruz bakarrik badihardute ere, gero, Olerti Egunetan saituak izaten ari direnak ere zaku berean sartu dituztelarik, Lizardi ere inplikatua gertatzen da zuzen-zuzenean.

Eztabaidak olerkigintza berriaren hizkuntzaren ulergarritasuna hartzen du ardatz gisa, baina aurreratu ahala, irakurle gehienek iritxi ezin duten eta beraz duen zailtasun mailagatik elite batentzat soilik izango den literaturaren inguruko eztabaida bilakatzen da, tartean nabarmen daitezkeelarik, euskal literatura "normala",hots artearen alorreko, giza-sorkuntza artistikoen alorreko aktibitate bat ala hizkuntzaren iraupenaren zerbitzu hutsean ote dagoen aldezten duten irizpideak suma daitezkeelarik. Bidenabarrez, ordea, literatura aldetik interesgarri diren zenbait iritzirekin batean, garaiko irakurlegoaren urritasunari buruzko kezka ugariak, idazleari liburuak egiten hasi nahi izanez gero sortzen zaion galera ekonomikoen zerrenda, saltzen diren liburu kopuru farregarrien berri... suma ditzakegu, olerkarien mogimenduak zuen oinarri sozial ahulegiaren lekuko.

Lizardiri dagokionez, 1931 urteko amaieratik, 1933rarte hedatzen den epean idatziriko lau artikulu bakarrik aipa daitezke gai honi dagokionez, eta horietan barne egokitasun handiko kontzepzioa nabari genezake abangoardiaren zernolako eta helburuei dagokienez.

Lizardik ez arroa ez aristokratikoa eta besteak gaitzetsi-zalea ez den abangoardia aldezten du, horregatik eztabaida literarioetan alde horretatik egiten zaizkion erasoak mingarri zaizkio bereziki, eta errespetua da beretzat eta bera bezalako "liriko zoro berrizale"entzat eskatzen duena [89].

Abangoardietan ohizkoa den harrotasuna, hautsizaletasun garratzik duenik ez du onartzen. Lirika estremu hori eginez inor epatatzeko, harritu eta eskandalizatzeko helbururik ez duela nabarmentzen

---

88 LIZARDI, X.; "Bide berriak. Bide guztiak?" in *Argia*, 565, 1932-2-21, 5. or.; *K-L* 368. or.

89 *Ibidem*, 5. or.; K-L 368. or.

da. Gizarte euskaltzaleak kritikatu egiten badu ere, eta zaletu sail handirik ez badu ere, "otxan etsi" egiten duela esaten du Lizardik, beren "bakartasunean" "publiko handi"rik ez badute ere [90].

Abangoardia honek elite baten tankeran jokatu beste aukerarik ez du, beren apaltasuna, otxantasuna eta etsimendua gora-behera. Lauaxetak enbarazurik gabe aitortzen du "Orreri, Orreri" deritzan 1933ko azaroaren 16ko artikuluan eliteak, "minorias selectas" deritzenak beharrezko direla, eta Lizardik ia beren zoroak darabiltzan lirikoen askatasun eskubidea aldarrikatzeaz etsitzeko prest agertzen bada ere, giroan sumatzen duen ezin-irentsiaren ondorioz.

Lauaxeta ordea, ausardia, edo literatura normaletan ohizkoa den abangoardiazaleen jarreraz, jazarri egiten zaie herriaren mailatik aldendu egin direla salatzen dietenei:

> "Errizaletasun aundiak dira, baina "demokraziaren" arerio edo etsai amorratua nozu. Erriak eztau erririk zaindu ta aurreratu. Errian diran lau edo bost argienak eta azkarrenak bere gidariak ixan dira. Eta ixango dira. Erderaz, "minorías selectas". Onein gurtzalle nozu" [91].

2.3.3. Lizardiren abangoardiari euskaltzaleek eginiko harrera

Olerkigintza berrizale horri lotzen zaizkion idazleen zailtasuna eta ulergaiztasunak bi arerio-mota ezberdin ditu, Jon Kortazarrek "Los debates literarios en la poesía del País Vasco 1930-35" deritzam artikuluan biziro egoki bereizi dituen bezala: Lizardik atzera utzi dituen erromantiko eta erraz-zaleak, tradizio herrikoiaren zaleak eta hauen artean Aitzol bezalako epiko-zaleak.

Arerioez gain, ordea, modernitateaz eta abangoardiaz Lizardik eginiko proposamena aintzakotzat harturikoak ere badira. Aitzolek 1934-35ko artikuluetan borrokatu zuen joera Lizardiren abangoardiaren norabidearen jarraitzailea da, eta Aitzolek kanon estetiko horri egozten dizkion akatsak eta arriskuak Lizardirenari salatu zizkion berberak dira.

2.3.3.1. Erromantiko eta erraz-zaleak

Euskal literaturaren arloan luzaro landu diren erromantiko tankerako olerkigintzaren zaleak, giza-sentimendu ezagunenen isurtzeari emanak, eta euskal herriaren irudi topikoaren nostalgiak edo "lehenmiñak" eraginik olerkigintza narratiboa egin dutenak dira Lizardiaren abangoardia proposamenari lehen ukoa egiten diotenak.

Hauen aurka egitea egoki karakterizatua du Kortazarrek aipaturiko "Los debates literarios en el País Vasco (1931-35)" eta "La posición de Aitzol en los debates literarios de preguerra" izenekoetan [92].

---

90 Zenbaitetan, etsimendu hori otxana bai baina ironikoa ere bilakatzen da "Gure bideko mugarriak" deritzan azken artikuluan. Artikulu hau estilistikoki aztertuz gero, ironia satira eta erresumina antzeman daiteke, ohizkoa duen hizkera fin, matizatu eta errespetuz beterikoa, beti mintzaira txukun eta garbizalea, zorrotza eta esaeratsua bilakatzen da, herriak erabiltzen dituen gaztelaniatiko maileguak ugari darabiltza (konprendi, solamente...) eta hautatzen dituen irudiak, konparazioak eta metaforak bereziki arruntak dira:
"Saieskia babarrunetan egosia baiño naiago omen luteke euskeraz idazten dan guzia nornaik atxikitzekoa ba'litz; baña beren lan mamijario errez oiek nai baño nekezago agertzen dira...Ai! Ez nik bezala egingo ba'lute: bertsotan naiz itz zelaiez, nik barrena ustutzea, ta Bedaio'rañoko guziak mara-mara jabetzea, guzia bat izaten baita!..." "Gure bideko mugarriak" in *El Día*, 1932-2-12, 6.or.; *K-L* 403. or.

91 LAUAXETA; "Orreri, orreri¡" in *Euzkadi*, 1933-11-16, 8. or.

92 KORTAZAR, J.; "Los debates literarios en la poesía del País Vasco (1930-35)", 1192. or.
"Es decir, se trata de un enfrentamiento entre dos maneras de concebir la literatura: entre dos (o tres escuelas). Por un lado, se sitúan los autores cercanos al modernismo y simbolismo, y por otro los defensores de los románticos vascos, aunque estos se alejen notablemente de Lamartine, Byron y Hugo".

Agirre'tar Toma "Barrensoro" idazleak idatziriko "Bide zaharretatik eta berrietatik ere bai" [93] deritzan artikuluan oinarrituz, berez hizkuntza literarioaren mailaren inguruko eztabaidak eskola literario ezberdinen arteko tirabira ere tartekatua zuela jakinerazten digu: hauei postromantikoak deritze Jon Kortazarrek.

Euskal literaturan literatura herrikoiaren zale agertzen direnak koka daitezke bigarren frente batean, nahiz eta denek ez dituzten arrazoi berberak zaletasun hori izateko, eta guztien artean herrikoi izateari helburu berezi batzuk erantsiak dituztenak diren gogorrenik eta mingarrikienik erasoko dituztenak.

Literatura herrikoiaren zale hauen artean literaturari buruzko ikuspegi murritza dutenak ere badira, euskal literaturaren normaltasuna, hots, inguruko literaturen parekoa ez, baizik hizkuntzaren egoerari loturik ikusten dutenak, eta ondorioz, berrizaleon lana duen ulergarritasun zailtasunengatik gaitzesgarri iruditzen zaiena. Hauek izango lirateke abangoardiazko literatura egiten duten hauek elitearen zentzurik okerrena hartuko dutenak, hots, berena bakarrik ederresten duten artista harroputz eta diboak.

Azken hauek dira noski, eztabaidaren alderdirik nabarienak harrotuko dituztenak, "gaitz-zale" eta "mordoilozaleen" arteko eztabaida, "ikasi" eta "herrikoien" arteko eztabaida bilakatzeraino.

Baina "Euskaldun bat" eta "Barrensoro"k zenbaitetan ikasi/herrikoiren arteko eztabaida bilakatu nahi duten horrek badu alderdi interesgarriagorik, hots, euskal literaturan tradizio herrikoiaren korrontearen garrantzia lehen mailakotzat dutenena, Lizardik eta Lauaxetak egiten zuten abangoardia lana ukatu gabe, euskal literaturan tradizio herrikoiari balore berezia egozten ziotenena.

2.3.3.2. Tradizio herrikoiaren garrantzia: Orixe eta Estefania

Orixe edo Aita Estefania bezalako euskaltzale eta literaturzale ikasiak baina euskal literaturaren tradizio herrikoiaren garrantzia azpimarratzen dutenak aipa daitezke hauen artean.

Biak ere antzerako kasuan aurkitzen dira Lizardirekiko; adiskide dute, haren olerkigintza ederresten dute, baina tradizio herrikoia, eta Kortazarrek arestian aipaturiko artikuluetan esaten duen moduan, herrikoitasunari ez ezik, narratibotasunari eta epikoari lehentasuna ematen diete lirikaren aldean.

Orixek 1932ko Bide Berriak eztabaidan argi uzten du abangoardiazko lanek euskal hizkuntzari kalterik ez diotela eragingo, baina era berean argi nabari da saio berrizaleak borobiltasunik gabeak iruditzen zaizkiola, eta era berean ez duela Lizardik abangoardiaren funtzioaz zuen teoria bere egiten.

Adiskidearen izen ona garbitu egiten du beti, bai guda aurretik bai guda ostean. Berak sari emateen gaian izan zuen jarrera, hots, Lizardiri lehen saria ez ematezkoa jakinarazten du, eta sarritan eztabaida maila pertsonalean bakarrik kokatzen duela antzeman dezakegu. Izan ere, Lizardiren aurkako irizle izandakoak "bekaiztiak" besterik ez zirela esaten bait du. Funtsean esan genezake Orixe ez zela literaturaren eta jeneroen eta hizkuntz mailen funtzioen gaiaren sakonean posizionatu.

Aita Estefaniak Lauaxetaren eta Lizardiren literatura ederresten du, baliogarritzat ematen du, bi idazleoi animozko hitzak zuzentzen dizkie, Lizardik erantzunezko gutunean aitortzen duenez:

> "Jaun agurgarri ta adiskide miña: Zure atzokoa gaur jaso det, eta poz aundia eman dit. Zu bezalakoen adorezko itzak biotza azi egiten dute" [94].

Hitz hauek adierazten dutenagatik Loiolan zegoen josulagunak Tolosako olerti sariketan lehen saria eraman zuelako zorion agurra bidali zion.

---

93 AGIRRE, T., "BARRENSORO"; "Bide zaarretatik eta berrietatik ere bai" in *Euzkadi*, 17-2-32, 5. or.

94 Ikus "Lizardiren Eskutitzak" eranskinean 1931-10-2an bidaliriko gutuna, 44. Dokumentua.

Lauaxetaren *Bide Barrijak* liburuaren iruzkinak ere ahalegin berrizalea estimatzen duenaren frogagarri da, baina ez da Estefaniaren sakoneko irizpidea Orixeren *Mireio*ren itzulpenari eginikoan bezala beste inon agertzen. Esan daiteke funtsean une horretan Aitzol eta Aita Estefania irizkide direla: abangoardiazko lana ongi dago, baina tradizio herrikoia jasoko duen eta jenero epiko-narratiboan fruitu gorena emateko gai den idazlea behar da euskal literaturaren etorkizuna, eta, beraz, euskal hizkuntzarena berarena "ziurtatzeko".

Orixeren idazlanen, ordurarteko itzulpen, narrazio eta olerkien iruzkinak gorespenez abailtzen ditu Aita Estefaniak. Orixe jotzen du euskal literaturan gidari eta maisu lana egin dezakeen idazle gailentzat:

> "...lo que pierde la renaciente o naciente literatura con que el no quiera o no pueda, como tenemos por más seguro, por impedírselo sus ocupaciones ineludibles, dedicarse con todas sus fuerzas a solo esta clase de trabajos. Es más que probable que en mucho tiempo no aparezca otro ni de lejos tan capacitado. Y es tanto más de lamentar esto, cuanto que el euskera del señor Ormaetxea es sin disputa de lo más castizo, o de lo mas elegante entre todos los escritores antiguos y modernos. (...)
>
> No es otra la razón sino esta excepcional aptitud de nuestro traductor de "Mireio" para servir de orientador seguro con su obra literaria, la que nos ha hecho detenernos aquí a dar cuenta de su versión meritísima..." [95].

Beraz, Aita Estefania eta Aitzolek Orixeren hizkuntz eredua euskal literaturan argi gidaria izan daitekeela uste dute, "castizo" hitzaz hizkuntza jatorraz ari direla ulertzen bada, eta aldi berean aberatsa, ugaria, dotorea... Herriko euskal hizkuntzaren eredutzat dute Orixe [96]. Horregatik, Lizardiri egin zion zorion-agurrari eginiko erantzunean, adorezko hitzak eskertu orduko, hurrengo pasartean jadanik bere olerkigintza berrizalearen justifikapena egiteari ekiten dio. Arrazoia izan daiteke jadanik hasiak bide zirela bere zailtasun eta iluntasunarengatiko gaitsezpenezko iritziak, idatzizko lekukorik geratu ez bazaigu ere, baina era berean Aita Estefaniaren zaletasunak ezagunak zirela:

> "Zure gogarako erazkoa ezta egina nere olerki ori: erriarentzat zalla da, aitortzen det. Baña, nik uste, guzietatik izatea on da. Nork-bere esku-erara landu beza euskera. Erriarentzat, nik baño eun bider obeto egin lezaketenak eta egingo dutenak badira: Orixe, Yaka-Kortajarena, Jauregi, ta abar" [97].

Beraz, eta zuzenean nire iritziz eztabaidaren tornu erabakigarria izan zenaren azken puntura, hots, Aitzolen ezadostasunera igaro baino lehen, esan dezagun Orixe eta Aita Estefaniaren jarrerak Lizardik azken errekurtsu bezala eskatzen zuen askatasunaren eskubidea eskaintzen dioten irizleenak direla, hark eskatzen zuen flexibilitatez, iritzi zabaltasunez hartzen zutenak abangoardisten lana.

Izan ere, Lizardik abangoardiazko literatura egitean ez bait du Lauaxetak duen irizpide literario ausarta. Abangoardia egin behar dela deritzo, egiten saiatzen da, eta bere bereak dituen irizpide-ardatz poetikoen inguruan eraikitzen bere olerkigintza; baina ez du beste literatura normaletan abangoardiek izaten duten elite-taldearen babesa, eta horregatik, berean tinko iraunez, "liriko zorotzat", bere "esku-era"ri indarrik ezin egin dion idazletzat besterik ez bada ere onar dezatela eskatzen du.

Euskal literaturaren bilakabide naturala, hots, mundu guztikoa bezalako literatura dibertsifikatuaren bilakabidea dirijitu daitekeela uste dutenen iritzia da benetan Lizardiri kezka gehien sortuko diona. Aitzolek gidaturik, euskal literaturaren bilakabideari hesiak jarri eta indarrak halako helburu jakin batera bideratu behar direla eta egin ere egin daitekeela uste dutenena.

---

95 ESTEFANIA, J.M.; "Mireio de Orixe" in *Euzkadi*, 1931-4-14, 4. or.

96 Aita Estefaniaren jarrera zabalago azaldurik in OTAEGI, L.; "Orixe eta gudaurreko pizkunde mogimendua" in *Orixe Mendeurrena (1888-1988)*, IV, *Hitzaldiak*, Etor, Donostia, 1991, 89-104. or.

97 Ikus "Lizardiren eskutitzak" eranskinean 1931-10-2an Lizardik Estefaniari eginiko gutuna, 44. Dokumentua.

2.3.3.3. Epikaren lehentasuna: Aitzol

Aitzol, Orixe eta Aita Estefaniarekin batera aipatu behar da tradizio herrikoiari eta epikotasunari lehentasuna ematen diotenen artean. Ezberdintasun nabaria dago haien eta Aitzolen artean: honek kaltegarritzat jotzen bait du abangoardien eragina 1933 urtetik aurrera.

1930 inguruko artikuluek euskal jenero epiko bat sortzea proposatzen dute jadanik, baina ez die oraindik beste gainerako bideei langa jarri, 1933tik aurrera egingo duen moduan. Ez da berrizaleen joera lirikoaren aurkako jarrerarik ezagutzen 1933 baino lehenagoko artikuluetan adierazirik.

Aitzolek jadanik zedarritua utzi dugun kultur proiektu baten zerbitzuan ikusten du literatura. Beraz, literatura bitartekoa da, eta bitarteko horrek helburuari egokitu beharra dauka, autonomiarik ez dio aitortzen, euskararen egoeraren larritasuna dela medio. Hizkuntzaren pizkunde eta irautea bera, eta nazioaren nortasunaren Berpizkundean zeregin berezia duen literaturaren bidean eragina izateko ahaleginak gero eta indartzenago doaz 1930tik 1933ra bitartean.

Lizardiren iritzietan ikusten denez, eta Aitzolek berak ere lehen urteetan literatura zentzu osoan hartzen du funtzio hori betetzeko bidetzat. Gerora ordea, *euskal genero* berri bat sortzeari buruzko artikuluetan gero eta gehiago nabarmentzen da gaiengatik euskal bizikera eta isladatuko duten olerki epiko-narratiboak dituela gogoan, eta Orixek garai horretan argitaraturiko lanek horrelako olerkigintza egin lezakeen idaztankeraren eta idazlearen eredua aurre-aurrean duela sinestarazten die.

Honetan dago banaketa, ene ustez. Lizardik ez du ukatzen literaturak euskaren iraupenean izan lezakeen eragina, irizkide da horretan, eta epe luzera proiektuak egiten ditu horri buruz. Hizkuntza literarioa sublimatzeak eta modernitateari aurre egiteko gaitzeak euskal hizkuntzaren iraupenean prestigioak duen garrantziaren heinean ez du zalantzarik aurkitzen.

Lizardik euskal literatura normala denaren irizpidea duela antzematen da, bat-bateko salbazioan ez duela sinesten. Noizbait sortuko den idazle gailenari bidea lautuko dioten idazle belaunaldiak behar dira. Aitzolek aldiz, planifikatu eta gauzatu daitekeen kanpaina gisa hartzen du euskararen gaizkakundea erakarriko duen olerki gurenaren gaia, bai eta euskal literatura osoaren bilakabidea ere.

Berez Aitzolek herri literaturak kutsaturiko euskal jenero epiko baten aldeko aukera esklusiboa 1933ko "Oitura zaarren piztutzea" artikuluan aditzera eman bazuen ere, badirudi bere iritziak horren aldekoak zirela gauza ezaguna zela lehenagotik ere, askoz lehenagotik ere, aukera efikaz bakartzat 1933tik aurrera aipatzen du.

Herri literaturaren ekarria baloratzea Lizardiren artikuluen artean 1930ko Irailaren 9koa den Eusko Ikaskuntzaren aurrean emaniko Bergarako hitzaldian Euskaltzaleak erakundeak "Erri-Ertia", hots, arte herrikoiari buruzko batzarre bat egiteko asmoaren berri adierazten du, artearen alor guztietan tradizioaren kutsua itsatsiz euskal nortasunaren zigilua markaturik duen artea sortzeko helburuz.

Orokorrean Lizardik eta Aitzolek batera jokatuko zuketen arlo bat dirudi batzar horrek, baina batek eta besteak generoa hautatzean duten irizpide ezberdintasuna eta euskal "genero" hori sortzean batek eta besteak duten egoarria eta literatur bilakaeraren gorabeherei buruzko irizpide ezberdintasunak ere berehala sortu bide ziren.

Esate baterako, eta 1931eko amaieran Lizardik Lauaxetaren *Bide Barrijak* liburuaz ari delarik, lirikak berezkoak dituen berezitasunak azpimarratzen ditu eta gainerako jeneroen aukera ere geratzen dela gogora araziz izenez aipatzen ez duen norbaiti baina zalantzarik gabe Aitzol den epikozale bati:

> "En cuanto al ropaje de sus conceptos poéticos —ya se lo indiqué en mi primer escrito— creo que debe usted esforzarse en alcanzar cada vez una expresión más justa y más densamente vasca; me parece evidente que si en algo ha de ser superior el verso lírico a la prosa no será por lo que todo verso tiene inevitablemente de convencional, sino por lo que ayuda a extraer del lenguaje el máximo de sustancia expresiva.

> Se por repetida experiencia que esta concepción tiene entre nosotros a numerosos y acérrimos enemigos: a ellos me dirijo para hacerles observar que la poesía tiene otros géneros, como el épico, que no pide el mismo grado de concentración, y cuyo cultivo procuramos promover los que a el no nos sentimos llamados" [98].

Beraz, badirudi Lizardik epikaren aldeko apostua egina duen joera nagusi bazter utzirik diharduela, lirika, eta bereziki, lirikaren kontzepzio trinkozale eta kontzeptistari helduz. Alde batera uzten du Pizkunde mogimenduaren abangoardia literarioak duen gizarte funtzioa aldarrikatzen duen argudioaren adiera murriztua, eta, bide lirikoari, geroago, "lirika zoroa" ere deituko duenari ere askatasuna eskain dakiola eskatzen du, luzaroragoko proiektuari begi emanik.

Aitzolek berak, ordea, eta aipamenengatik bakarrik ezagutzen ditugun presio gogorrez gain [99], 1933an argitaratu zuen "Eusko Olertikera Berezia" deituriko azterketan, eta "Oitura zaarren piztutzea" delakoan hasten da epika genero onuragarri bakartzat izendatzen. Gainerakoaz erakutsitako iritzi zorrotzaren mugak argitu nahiz bezala, beraizik adierazi zuen han esan zuena, hots, "geure lan ezin-entendizkoa" esatean ez zela idazle konsagratuei buruz ari, eta herri olerkigintzaren baliapideen erakusketa hori ere ez zela haiei ezer erakusteko asmoz egina.

2.3.3.4. Lizardiren abangoardiaren kontzeptuaren iraupena

Idazleen artean Lizardiren abangoardiaren kontzeptuak Aitzolen eraginak baino iraupen eta indar handiagoa izan zuela frogatzen dute Aitzolen azken urteetako artikuluek.

1934 urteko bataz bestekoa egitean azalduko ditu lehen aldiz idatziz Aitzolek, bere barruan aspaldi zituen kezkak eta irizpideak. "Balance literario euskaldun 1934" deituriko artikuluan besteak beste, Lizardi eta Orixeren idazti lirikoek gaitsezpenak baizik ez dituzte jasotzen, batipat duten euskara landu eta ulerkaitzek duten freskotasun eta naturaltasun falta dela medio. Gainera, ez dute Aitzolek literaturari erantsia dion helburu kulturala betetzeko balio, hots, irakurleak zaletu eta haiek euskal kulturara hurbiltzearen jomugan ez dute ezertan lagunduko, bere ustez.

Lizardik azken artikuluetan, marginalitatean bada ere, berea bezalako lirikari irauten utz dakiola eta ez dakiola lepoa bihurritu eskabideak ez dauka izaterik. Aitzolentzat joera horrek irautea kaltegarria da.

Berrizaleek euskal literaturari egin diezaioketen kaltea bikoitza da, Aitzolen iritziz: batetik euskal literaturara hurbiltzen den irakurlegoa aspertu eta alferrik nekarazi egin baizik ez luke egingo; bestetik, sortzen diren idazleek berrizaleekiko mirespen desbideragarria dute, haien zailtasuna kalitatearen adierazgarri delakoan, haiek jarraitzeari ekiten diote, gainerako bide "naturalagoak", hots, herrikoizaleagoak bazterrera utziz.

> "No debe haber poesía sin claridad ni transparencia. Porque lo conceptuoso, lo esotérico tanto de concepto como de expresión y de palabras produce fatiga, cansancio y, muchas veces, como consecuencia lógica el hastío" [100].

---

98 LIZARDI, X.; "Rumbos nuevos" (II) in *Euzkadi*, 1931-12-30, 1-3. or.; *K-L* 360. or.

99 Lizardiren *Biotz Begietan* liburuaren argitaralpenarekin batera *El Día*n argitaratzen hasi ziren iruzkinei eta bereziki Orixek idatziriko sailari eragozpenak jarri zizkiotela badakigu. Orixek Lizardiren "iru bekaiztiak" zentsuratu zituela esaten du, horietako baten hitzak "ya es mucho Jose Mari" izan zirela esanez. ("Lizardi Ameriketan" in *Euzko Gogoa, I*, 1950 (7-8), 8. or.) Orixek esaten du delako horrek bere biziaz ordaindu zituela bere ausarkeriak, beraz, garbiro ulertu behar dugu Aitzolez ari zela Orixe. Jokabide honen erreferentzia gehiago ere ezagutzen da, horien artean aipagarriena Lizardik Lauaxetari idatziriko ohartxo baten zatian jasorik:
"Azal berrian atera dediñean pozik irakurriko det erderaz agintzen zenduan iritzia. Argitaltzen uzten badizute, noski, bai-baitakit orko Tcheca'ri "Orixe"ren idazkiak "galdu egin zaizkiola".Ikus "Lizardiren eskutitzak" eranskinean 1932-6-6, 66. Dokumentua.

100 AITZOL; "Balance literario euskaldun 1934" in *Euzkadi*, 935-1-6; *Idazlan guztiak*, VI, 141-143. or.

Lizardik aipatzen duen lirikaren kontzeptu trinkozale horren etsai "acérrimo"aren hitzak dira hauek, ene ustez [101].

"Conceptuoso" hitzak, berriz, nabariagoa egiten du Lizardiren olerkigintzaren ardatzari eginiko erasoa "Rumbos nuevos" artikuluan adierazirik ikusi den gisan formulaturik.

"Lo esotérico" esateko erarengatik edo esan nahi denaren zailasunarengatik iluna gertatzen denaz mintzatzen denean ere, Lizardik sarritan erabilitako argudio batez ari da, hots, erabiltzen den gaiaren zailtasunaren arauerakoa izan ohi dela adierazmoduaren iluntasuna ere.

Aitzolek aipamen horietan Lizardiren olerkigintzaren ardatz poetikoen aurkako eraso zuzena egiten du 1934ean. Haren hizkera poetikoak duen askatasuna, hizkuntza autonomo bat sortu eta hitzei esanahi berriak emateko hartzen duen lizentzia ausarta ere kritikatzen du:

> "Euskera subjetivista, personalmente arbitrario con un valor en las palabras imágenes y frases totalmente personal, que el lector no puede interpretar, ni adivinar sin grandes esfuerzos" [102].

1934ko artikulu honetan dioena 1932ko "Urte Giroak. Paisaje de las estaciones" [103] delakoan esaten duenarekin jarri behar da harremanetan. Zalantzarik gabe iritzi aldaketa sakona izan duela garbiro frogatzeaz gain, 1934ean zuzenean aipatzen ez duen joera horren aitzindaria Lizardiren olerkigintza berrizalea dela argitzen digu.

1932ko artikulu hartan erabiltzen duen terminologiari erreparatuz gero, 1934-35koetan ageri den idazlearen subjetibotasunari buruzko aipamenak behar den bezala uler daitezke:

> "Es todo perfecto en "Lizardi? No; no lo es. Su fecunda audacia literaria reviste a sus composiciones de una dificultad notable no solo para los indoctos, sino aun para la gente muy versada en euskera. Y es ello natural. Junto a las narraciones arcaicas del lenguaje, se une la concepción nueva, también y la originalidad acusada en el conjunto y en cada parte de la obra. *Nuestro idioma, aptísimo para la expresión estética en sí, debe, al principio, sufrir la forja del subjetivismo del artista. Esa subjetiva concepción del artista, que crea formas desconocidas dando nuevo valor a muchas palabras, engendra la confusión. Eso ocurre clarísimamente en la obra de Lizardi.*
>
> Es esto un mérito o un defecto? Yo creo que un mérito. Pero a condición de utilizarlo con mucha discreción y por artistas que puedan ostentar patentes de ser los descubridores de nuevos horizontes. De tal conceptúo a Lizardi... Su mérito principal está hoy en ser discutido" [104].

1936ko beste artikulu batean berriro aipatzen du Aitzolek euskal literaturari inposatzen ari zaizkion "los cánones de un estilo elaborado con criterios muy subjetivos" [105] aipatzen du.

Aitzolek kritikatzen duen joera berrizale horrek Lizardiren abangoardia proposamenaren bidetik doa.

Aitzol 1936an, —Lizardi hil eta hiru urte geroago—, oraindik hark sorturiko eredu estetikoaren ezaugarrien aurka aritzeak Lizardiren olerkigintzak eta ideiek literaturazaleen artean irabazia zuen prestigioa eta jarraigoa handia zela frogatzen digu.

Idazleen artean izan ezik, olerti sariketen epai-mahaietan egon beharreko epaileek berek ere joera horren zaleak izaten jarraitzen zuten, Jokin Zaitegik 1934ko saria irabazi zuenean aurkezturiko "Tori nire edontzia" izeneko olerkia da horren lekuko. Beste horrenbeste esan liteke garai hartako Zaitegiren poesiez. Lirika baino epikarako joera handiagoa bazuen ere, Zaitegi Aitzolek 1934ean gaitzesten duen joera horren jarraitzaileetako bat da.

---

101 LIZARDI, X.; "Rumbos Nuevos" (II) in *Euzkadi*, 1931-12-30, 1-3. or.; *K-L* 357-361. or.

102 AITZOL; "Por la literatura euskaldun", in *Euzkadi*, 1934-12-18; *Idazlan Guztiak*, VI, 127-128. or.

103 AITZOL; "Urte Giroak. Paisaje de las estaciones" in *Euzkadi*, 1932-6-15; *Idazlan Guztiak*, V, 298-299. or.

104 *Ibidem*, 299. or.

105 AITZOL; "El VII día de la Poesía Vasca Euskeldun" in *Euzkadi*, 1936-5-13; *Idazlan Guztiak*, VI, 432-433. or.

Lizardiren poetikari buruz atal honetan zehaztuko dugun lirikaren berezko kontzeptismoaren ardatza, euskal hizkuntzaren egitura morfo-sintaktikoari berez dagokion trinkozaletasunaren irizpideaz elkartuz sorturiko nolabaiteko "teoria poetikoak" arrakasta izan zuela dirudi. Aitzolek zioen moduan, kontzeptismo edo trinkozaletasunaren estetika horren oinarriak oso subjetiboak, Lizardirenak eta ez besterenak dira. Eta irizpide pertsonalez sorturiko estilo baten kanona osatzen dute.

Teorizazio pertsonal eta oso pertsonalean oinarrituriko eredua da, baina, Aitzolen hitzek adierazten dutenez eta zenbait olerkariren lanek frogatzen duenez, arrakasta berezia, idazleen arteko onespena zuen.

Bestalde, Lizardik literatur-mintzaira edo, zehazki mintzatuz, bereziki lirikarako asmaturiko hizkuntza honen autonomia aldarrikatzen zuela dakigularik, Aitzolek ausarkeria semantikoez diharduenean euskal abangoardiak hartu dituen bide lizarditarrak arbuiatzen ari da, hots, hitzen esanahia aldatu zabaldu edo murriztu, hitzen balore sintaktikoa aldatu, izena dena adjetibo gisa erabili eta abar. Irakurleari lana zaildu egin zaio honela eta hortik bide datoz Aitzolen kezka nagusiak.

2.3.4. Lizardiren kanon estetikoa garaiko literatur ingurumarian

2.3.4.1. Lizardiren estetika norma-hauslea da

Jon Kortazarrek bere tesian Lizardiren hizkuntzari buruz diharduelarik, hizkuntzarekin jokatu egiten badu ere, ez duela norma Lauaxetaren moduan hausten dioenean, ez dut uste garaiko norma linguistikoaz ari denik. Ez da honi dagokionez Lauaxeta ausartago, ene ustez.

Metaforizazioan bai ordea, Lizardik sorturiko imajinek elkarrekin kateatzeko eta esanahi orokorragoak, halako errealitate alegoriko berriak sortzeko duten joerari esker konkretoagoak bait dira. Hizkuntzaren norma haustearen beraren aldetik, ordea, Lizardi da askeago zalantzarik gabe azterketaren arloan frogatzen ahaleginduko garenez, eta garaiko ingurumari literarioan sortu zuen lurrikarari erreparatzen badiogu, berriz, ukaezina da.

Aitzolek, euskara artifiziala eta naturaltasunik gabeaz, hitzen balore pertsonalaz esan berri dituenak ilustratzeko Lizardiren hizkuntza poetiko autonomoak, morfosintaxian eta lexikoaren arloan harturiko lizentziak, hots, norma-hausteetako batzuk ikustea komeni da.

Hitzek mintzaira arruntean, norma mintzatuan eta idatzian ohizkoa duten balorea eraldatu zituen zenbait adibide aipa daitezke. Esate baterako,

"Ai, aren esku, laztankor igaz izana"(Ald 77, 51)

Kontestu honetan garbi dago Lizardik "igaz" hitzari ohizkoa ez den baloreren bat ematen diola, ez du esan nahi "joan den urtean" itzulpenean "antaño" hitzez itzultzen denez. Lizardik "igaz" hitzaren esanahia bere gogara aldatu duela pentsa daiteke. Ez da hala ordea, antzinako euskaraz ezaguna zen azeptzio bat berreskuratu baizik ez zuen egin. Bai Azkuek eta bai Ixaka Lopez Mendizabalek beren hiztegietan Lizardik erabiliriko azeptzioa jasoa dute.

"Igaz"ek "behiala" edo "garai batean" adberbioen esanahia izatea ez da XX. mendeko euskaran eguneroko azeptzioa, beraz, hizkera mintzatuan duen balorea baztertu eta literatur hizkuntzan sarrerazten du aintzinako euskaran zuen balorearekin. Horrekin esanahia ilundu eta Aitzolek subjetibista eta arbitrario deitzen duen hizkuntza sortzen hasten da, baina Lizardirentzat eguneroko hizkeratik aldendu eta mintzaira literarioa sublimatzeko balio duen hizkera sortuz doa, kasu honetan arkaismo batez baliatzen delarik.

Esaldi berorri helduz gero, sintaxi aldetiko beste "urruntze" edo aldentze ahalegin bat suma dezakegu, hiperbatonaren bidez eginikoa eta ahapaldiaren betebeharrei ez ezik, musikalitatearen zerbitzura dagoena, aldi berean irakurlearen adimenari eginiko engainu joko bat dena:

"Ai aren esku, laztankor igaz izana!

"Igaz laztankor izaniko aren eskua" esaldiaren ordena izango litzateke euskara arruntean ohizkoena. Esaldiaren ordenari eraginiko ordena aldaketak "esku" eta "laztankor" elkartzea dakar, beraz, irakurleak neskatxaren eskua laztankor dela esatera doala espero du isilaldiaren ostean ordea, ukapena dator. Eta "izan" aditzaren aurreko galdearen kokalekua "laztankor"i legokiokeen arren, esananhi poetikoan "igaz"ek kentzen dio ukapenaren distantzia, handitasuna areagotuz.

Beraz, hiperbatonak esanahia zaildu egiten du, eta irakurlea pentsatzera beharturik dago olerkiaren esanahia ulertu eta gozatuko badu, nolabait bere endeleguari eginiko erronka baten modukoak dira aldaketa hauek eta jokoan sartzeko ahaleginik ez eginez gero jai dauka.

2.3.4.2. Mintzaira literario subjetibista da

Arkaismoaren erabilera, edo hiperbatonarenaz gain, Lizardiren olerkietan zeinuaren adierazi aldaketaren aldetik jauzi handiagoak ere aurki daitezke, eta hauetan hiztegiek eta gramatikek laguntzarik ez digute eskaintzen. Sentsibilitate artistikoa izatea eskatzen dute, edo Lizardiren olerkien "eskuera" edo estiloa ezagutuz nolabaiteko "igarpena" egitea. Hortik dator, noski, Aitzolen kritika: "euskera subjetivista, personalmente arbitrario con un valor en las palabras imágenes y frases totalmente personal, que el lector no puede interpretar, ni adivinar sin grandes esfuerzos" [106].

Honen adibidetzat Lizardik berak bere ausarkeria "gongorino"tzat aipaturiko "arto musker" sintagma hautatu dugu, hots, *Bultzi leiotik* olerkian agertzen den moduan:

"Arto musker,
mendi, baserri zaarrak;
ale gorriz
abailduta sagarrak"
(BuL 5-8, 91 or.)

Lizardik "una poesía gongorina —una en que llamaba lagarto al maiz" aipatzen du "Gramáticas euskéricas" [107] deituriko artikulu batean.

Olerki horretan izena den "musker" adjetibo gisa erabilirik dago, kolorea adierazteko, gaztelaniaz ohizkoa den sinekdoke figura literarioa erabiliz, hots, "un vestido malva" edo "verde limón" esatean egiten den aldaketa bera eraginez. Gehienetan, adjetibo bilakaturiko izenaren kolorearengatiko erreferentzia egiten da. Lizardik *Bultzi leiotik* olerkian eginikoak beste olerki batean ere badu oihartzunik, *Baso Itzal* delakoan ere kolorearengatiko lotura dute bi hitz hauek:

"Beroak zapalduta datza oro:
bizidun, landare, aitz eta soro.
Muskerra ta artoa dagotzu soilki
eguzki gorritan ezin izerdi."
(BI, 23-26)

Kolorearen idarokizunak dira ahapaldi honen atzean daudenak, beroaren ondorioz zapalduta daude, geldi gauza guztiak, muskerra eta artoa, aldiz, berde eta izerdirik gabe.

---

106 AITZOL; "Por la literatura euskaldun" in *Euzkadi*, 1934-12-18; *Idazlan Guztiak*, VI, 127. or.

107 LIZARDI, X.; "Gramáticas euskéricas" in *Euzkadi*, 1930-11-2, 1. or.; *K-L* 319. or.

Honelako figura literarioak irakurlearen sentsibilitateari eraginiko idarokizun ausartak dira, Aitzolek esaten duenez, "un valor en las palabras personalmente arbitrario", hitzei irakurleak igarri edo sumatu bakarrik egin ditzakeen hitz, irudi eta esaldiei balore pertsonala erantsiz.

Arkaismoez, hiperbatonez, sinekdokeez eta abarrez hizkuntzari eraginiko behartze-indarrek estrainamentu efektu bat dute ondorioz. Irakurleari ohizko hizkuntzaren arloan ez dabilela oharterazi nahi zaio, autonomoa den mintzaira literarioan mintzatzen ari zaizkio, artearena bakarrik den errealitate batean dabilela soma arazten, eta olerkia bere sentimenduari zuzenduriko gezia ez ezik, bere adimenari ere zuzentzen zaiola oharterazten diote formaren aldetiko bereiztasun hauek.

Azterketa metriko eta morfosintaktikoan zehazkiago zedarrituko ditugun poetika pertsonal honen sustraiak, oso zabalki ez bada ere, sendo samarrik finkaturik aurki genitzake literaturari buruzko Lizardiren artikuluetan, Aitzolek esaten duenez, "elaborados con criterios muy subjetivos" baldin badaude ere.

Lizardiren kanon estetikoari zuzendurikotzat jo ditugun Aitzolen aipamenak gogoan hartzen baditugu, kronologikoki Lizardik eraginiko mogimenduari dagozkio, haren idazlanari berari baino gehiago. 1934ko Olerti Sariketan saritua izan zen Jokin Zaitegi eta haren antzeko beste zenbait autore ditugu Aitzolen iritzien jomuga. Hipotesi honen zutabeak Jokin Zaitegiren gutun pertsonalak ditugu. Alde batetik, Jokin Zaitegik 1932an Lizardiri bere olerkiak bidali eta iritzia eskatu ziola badakigu, hark erantzun ziola ere bai bere hitz goragarriak eskertuz.

Jokin Zaitegi Lizardiren jarraitzaileetako bat zen. Saria irabazi zuen urtean Aitzoli bidali zizkion Zaitegik bere olerkiak, iritzi eske. Eta gorago jasoa dugun iritzi berbera adierazi zion honek:

> "... tengo que hacerle un ruego: los que tenéis una sensibilidad particular, tenéis que tratar de bajar el tono..." "No suelen querer leer nada. Hasta entre nosotros, nos cuesta leer los trabajos". "Queremos despertar en el pueblo la afición a la lectura, no tenemos otro camino"."Y esto de verdad! Es lamentable! Tenemos que tratar de llegar al nivel popular si queremos atraerlo a la lectura." [108].

Zaitegi eta Aitzolen arteko gutunetan garbiro isladaturik dago Aitzolen azken urteetako irizpide gogortze eta jarrera kritikoa. Euskal literaturaren irizpide utilitarista gero eta gehiago nabari zaio, irakurlego bila dabil, eta irakurlegoa ugaritzeak erakarriko lukeen indar linguistiko, kultural eta politikoaren bila azken batean.

> "Con el euskera que estamos produciendo, estamos hastiando a los lectores. Los libros no se venden. Estamos haciendo una literatura artificial. No sabemos bajar a las entrañas del pueblo, y los del pueblo huyen; es de verdad lamentable lo que nos está ocurriendo. Cada vez se habla menos euskera y se lee menos también" [109].

Aitzolek olerkarien artean gailentzen den euskera subjetiboa, arbitrarioa, mintzaira poetiko autonomoa eta ederresten duten "kanon" eredu guztiz pertsonal hori zorrozki kritikatzen duenean ez da literaturaz ari, ez eta jeneroaz ere azken urteetan, irakurlego eskasiaz, salmenta kopuru farregarriez —harako 300 aleen aipamen etengabea gogora bedi— eta, ondorioz, proiektu osoaren frakasoaz.

Jon Kortazarrek "Los debates..." deritzan artikuluan hitzez hitz hartzen ditu Aitzolen hitzak "No debe haber poesía sin claridad ni transparencia" (1934-21-4) dioenean, edo "euskera subjetivista, personalmente arbitrario..." aipatzen duenean. "La posición de Aitzol en los debates literarios de preguerra" izeneko artikuluan ere, ideia berari jarraituz, zera aipatzen du ondoriotzat:

> "En resumen, en nombre de la comprensión de la poesía, y en contra de la excesiva subjetividad lírica, Aitzol, propondrá un acercamiento a las formas populares, que lleva como consecuencia un

---

108 Aitzolek Zaitegiri bidaliriko 1934-6-6ko gutuna in UGALDE, M.; "Biografía de Aitzol" in AITZOL; *Idazlan Guztiak*, I, 64. or.

109 1934-12-31ko gutuna, *Ibidem*, 65. or.

acercamiento a las formas poéticas narrativas, lo que de hecho, supone una crítica a la originalidad y libertad de experimentación de los poetas" [110].

Ene ustez, Aitzolek poesia hizkuntzaren arloan subjetibotasunak dakarren zailtasuna seinalatu nahi du, batipat. Komunikazioaren arrakasta ziurtatzen duten zeinuaren adierazle eta adieraziaren arteko harreman finkoa hausten dute olerkariek gero eta ausarkiago, eta poesiak mezua bidaltzeaz gain, mezua bera adierazirik dagoen zeinuari garrantzi ematen dion komunikazio mota kodifikatu gabekoan idazten dute. Bestalde, Lizardik kanon estetikotzat proposaturiko kontzeptismoak irakurleari lana ikaragarri zailtzen diola azpimarratzen du batez ere, argudio soziolinguistikoez baliatuz. Aitzolek euskaldungoaren hoztasuna eta olerkarien hizkuntzari atera nahi dioten urrutiko dizdiraren arteko aldea nabarmenerazi nahi du, eta bere proiekturako distantziamendu hori dramatikoa da.

2.3.4.3. Lizardiren kanon estetikoa tradizio gabea

Argudio literarioetara itzuliz, Lizardiren kanona hark berak finkaturikoa eta asmaturikoa dela azpimarratzen dute garaiko kritikoek, ez dela prezeptiba ezagun edo olerkari eskola baten ondoriozko kanona.

Literatur hizkuntzaren autonomiak modernitatean garapen berezia izan du eta geroak frogatu du Lizardi modernitatearen ateetan kokatu zela bere sena literarioari jarraituz. Kontzeptismoak Gongoraren mendeurreneko belaunaldiarekin harremanetan jartzen du Lizardi, eta zaletasun literario pertsonal horrek baduke zerikusirik hizkuntzaren elaborazioan izan zuen askatasunarekin: normarekiko jokoan, irakurlearen sentimenduari ez ezik endeleguari eginiko deian, hitz-joko, hiperbaton, ironia eta bestelakoen bidez Lizardik nortasun handiko olerkigintza egin izanarekin.

Aldi berean, gogoko zuen kontzeptismo literario horrentzako euskararen nortasun linguistikoaren "berezko trinkozaletasuna"ren oinarri teorikoak ere guztiz modu pertsonalean formulatu zituen. Hala ere, garaiko idazleen artean lortu zuen itsasteko indarrean zerikusi handia izan bide zuen une horretan arlo politiko eta kulturaletan egiten ari den euskal esentzien bilaketarekin. Euskal arima idoro eta nabarmenerazteko ahalegina arlo guztietara hedaturik bait zegoen, eta Lizardik, hain zuzen ere, bilaketa horren muinean kokatua zuen bere estetika.

Lizardik euskal hizkuntzari eta literatur estiloari berezko laburzaletasuna zegokiola "frogatzeak" edo aldeztu izanak balore "aberkoia" eransten dio haren olerkigintzari. Horregatik zenbait kritiko Lizardiren olerkigintzak euskal esentzien ikuspegia eskaini zuela esan du eta haren olerkiak herriaren idiosinkrasia "balakatu" baizik ez duela egiten esateraino iritxi da [111]. Lizardiren kanon horren eraiketaren euskarri diren irizpideak euskal esentziekiko kezkaren bidetik, hots, Pizkunde aroko euskal kultura guztian nabaritzen den berberaren ildotik doaz. Lizardik euskal hizkuntzari duen gaitasun espresibo guztia atera nahiz diharduelarik, euskal arimaren adierazpenaren bila dabil.

Pizkunde mogimenduaren alorrean hartu zuen posizioa literatura normal batean abangoardiazko mogimenduei dagokiena zen, baina garaiko euskal kulturaren alorrean indar gehiena zutela erakutsi zuten joerek marjinalitatera baztertu nahi izan bazuten ere, urtez urtez, Lizardiren abangoardiaren norabideak eta bere "kanon" pertsonalak gero eta jarraigo handiagoa izan zuen.

---

110 KORTAZAR, J.; "La posición de Aitzol en los debates literarios de preguerra" in *Aitzol en su tiempo*, Sabino Arana elkargoa, Bilbo, 1990, 56. or.

111 Ikus Jon Kortazar in *Teoría y práctica poética de Lauaxeta*, Desclée de Brouwer, Bilbo, 1986, 11. or.

3. LIZARDIREN KANON ESTETIKOAREN OINARRI TEORIKOAK

3.0. SARRERA

Lizardik eginiko hizkuntz berrikuntzaren oinarriak zehazterakoan, sarritan Orixeren iturrietara jotzen da, hura maisu izan bide zuela adieraziz. Hala izan zela onar daiteke zeharkako eredu gisa, Orixek berak esaten duenez, Lizardiren paperen artean bere artikulu asko aurkitu bait ziren azpimarraturik eta azterturik. Orixe bera da ordea, zuzeneko eraginik ukatzen duena. Eta ez dut uste umiltasunaren amoreagatik egiten duenik. Lizardiren olerkietan nondik norainoko eskua duen zehaztuta utzi zuen xehe-mehe.

Horrezaz gain, Lizardiren hizkuntza poetikoaren ardatza diren irizpideak ideia poetikoen azterketaren hirugarren zati honetan frogatzen saiatu naizen moduan, bere gisa finkatuak zituen Lizardik, eta abangoardiazko lanari ekitean hartu zituen oinarriak olerkigintza herrikoitik urrundu egin zuten, Orixe ez bezala.

Lizardik bere artikuluetan adierazten dituen irizpideekiko adostasunean dago bere olerkigintza, eta Orixek inon adierazten ez dituen zenbait alderdi baditu Lizardiren poetikak, Orixeren herrizaletasunari eta klasikozaletasunari baino gehiago modernitateari dagozkionak.

Orixek *Barne-muinetan* liburuan, hots "incursión en la lírica" deritzona egitean oinarri horiek beroiek hartu zituela diosku Kortazarrek. Orixek berak hitzaurrean adierazia utzi zuen ordea, Lizardik eskatu ziola lirikan aritzeko, eta ordurarte epika gisako olerkiak, herri literaturaren kutsuko edo olerki erlijioso-narratiboak besterik egiten ez zituenez, ez daiteke borobiltasunez baieztatu Orixe izan zenik lirikaren alorrean Lizardiri oinarri estilistikoak eskaini zizkiona.

Aitzolek azpimarratu egiten du berrizaleek sorturiko ereduak ez duela oinarririk, tradiziorik ez duela, pertsonala dela eta hizkuntza subjetibista erabiltzean, kontzeptista izatean ulerkaitz eta iluna gertatzen dela irakurlearentzat.

Uste dut Aitzolen kritikek Lizardiren estetikari eta haren jarraitzaileei eginiko aipamenak aski frogatutzat jo genitzakeela. Horregatik, zalantzarik gabe ondoriozta daiteke Orixek olerkigintzaren alorrean zuen ikaragarrizko prestigioa, Zaitegik berak "Aitzolen gizaldia" saioan azpimarraturiko maisutza, izan dela Lizardiren poetika pertsonalaren iturritzat garaikoek nahiz gaurkoek izendatu izanaren arrazoi nagusia.

Garaiko kritikoen iritziek behin eta berriro adierazirikoa itzalean uzterainokoa izan da ospe hori. Lizardik sortu zuen kanon berriaren arduradun nagusia bera da; Aitzolek esaten zuen moduan, frogatzeko ahalegin teorikorik egin ez zuen zenbait baieztapenetan oinarritu zuen Lizardik bere praktika literarioa.

Herriaren tradizio literarioa alde batera utzirik, eguneroko hizkuntzaren norma behartuz eta nahi zuen eran moldatuz, hizkuntza literario autonomoa, errealitate poetiko berriak sortzeko balio zuen mintzaira osatzen ahalegindu zen. Iturriak idazle zaharrak, herri mintzairaren molde esaeratsuak eta bestelako baliapide morfo-sintaktiko bereziki trinkozale eta kultuez literatur mintzairaren moldaketa pertsonala osatu zuen, askatasun handiaz jokatuz.

Abangoardia literarioari ekinez, Lizardik eginiko hizkuntz literarioaren berrikuntzaren norabidea, nondik norakoa eta originaltasunari eskainiriko atal hau, Lizardik horretarako bere buruari eskaini zion askatasunaz mintzatzen duen Aita Estefaniaren aipamen hau jasoko dugu, esandako guztia borobildu eta dagokion prisman kokatzen duelakoan:

> "Aunque Lauaxeta haya dado más ocasión a este reproche que su amigo y *personalísimo* J.M. Agirre (Lizardi'tar Xabier) los que se lo hacen, se olvidan, tal vez, de lo que afirma Escalante —el cual fué clásico refinadísimo y nunca un insurrecto literario— de que lo mejor de la poesía, sus toques más felices consisten no pocas veces en puras infracciones de la sintaxis" [112].

---

112 ESTEFANIA, J.M.; "Urkiaga'tar Estepan "Lauaxeta". Bide Barrijak (Nuevos Rumbos)" in *Razón y Fé*, 425, 1932-ekaina, 267-269. or.

Dena den Lizardiren ustez olerkariak herrien Pizkunde mogimenduetan duen zeregin nagusiak aintzakotzat hartzen baditugu, logika osoz, pentsatu behar da Lizardik moldaturiko "mintzo landu elertitsua"k bere eskuera eta gustu literarioaren ikutua ez ezik, helburu horiei begira sorturiko taxua ere izango duela.

Horregatik, segidan azalduko diren kanon estetikoaren oinarri teorikoak bi alderdi hauek hartuko dituzte kontutan, izan ere, oinarritzat hartuko ditugun artikuluetan bere gustu pertsonalaren irizpidea eta euskal estetikak eskatzen duen kanonaren irizpideak ageri bait dira zutabetzat.

Aitzolen hitzez esateko Lizardiren "kanon estetiko" berriak, hots, haren olerkigintzak dituen moldaerak zenbait artikulutan zehar adieraziriko ideia edo teoria literariotan oinarriturik daude.

Ez du ordea, "poetika" teoriko oso bat eratzen, tamalez. Ideia poetiko solteak dira, irakurlearentzat eginiko gogoetak, baina ideia horiek elkarrekiko duten adostasunak eta orekak haren ideia poetiko nagusienen lerroak zedarritzeko adinako materiala eskaintzen diote ikerlariari.

Beraz, ideia sare hori eratzea eta nabarmeneraztea izango da gure helburua Lizardiren kanon estetikoaren oinarri teorikoei buruzko kapitulu honetan.

Hiru ardatz nagusiren inguruan biltzen dira ideia poetiko horiek:

3.1. Poesia eta errealitatearen arteko harremana.

3.2. Poetaren sentimendua eta endeleguaren arteko oreka.

3.3. Euskal hizkuntzaren berezko egitura eta kanon estetikoaren trinkozaletasuna.

Hiru ideia ardatz hauek aldez aurretik ohartu nahi nuke ez ditudala poetika osotzat jotzen, Lizardiren olerkigintzaren azterketak beste zenbait kontzepziok hauek adinako garrantzia dutela froga lezake. Baina, ene ustez, Lizardiren artikuluek haren ideia poetikoak isladatzen dituzte, haren poetikaren alderdi konkretu batzuk besterik ez badira ere.

Bereziki interesgarriak iruditzen zaizkit, berak aipatu zituenak hauek direlako eta ez besteak. Besterik gabe gaurko ikuspuntutik begibistakoak izaten ez diren lehentasunak zituela erakusten dutela deritzot, eta, ondorioz, Lizardiren poesigintzak berarentzat eta garaikoentzat zituen konnotazioak hobeki ezagutzen lagun diezagukete.

3.1. POESIA ETA ERREALITATEAREN ARTEKO HARREMANA

3.1.0. Sarrera

Poeta izatea zer den azaltzen ari delarik, ikusi dugu Lizardiren ustez olerkariak bizitzaren panoramari erreparatu eta era harrigarria, sublimadorea den ikuspuntu batetik ikusiz aurkezten digula irakurleoi. Eguneroko gauza arruntetatik urrea ateratzea da bere zeregina eta bere ingurukoei hori dastatzera ematea. Beraz, olerkariak errealitatearekiko duen harreman horretan definituko da Lizardik aukeratua duen "prisma sublimador" delako hori. Ondorioz, atal honetan dugun zeregina errealitate edo bizitzaren panoramarekin Lizardik, olerkari gisa, duen harremana azaltzea da.

3.1.1. Olerkiaren ikuspuntu sublimatzailea eta errealitatea

Ikusia dugu, zeharka bada ere, garaiko gizartean Lizardik aipatzen duen olerkariaren mintzoaren faltsutasunari buruz eginiko aipamena: "beti mintzo aizun" omen zen olerkia "Olermen irakite"n dioen bezala, eta "El poeta" delakoan berriz, olerkariak aurkezten duen bizitzaren ikuskera

sublimatzaile eta harrigarri hori "falso de toda falsedad" dela esaten omen du "la gregaria turba" delakoak [113].

Beraz, eta errealtasuna, egiatasuna behaztoparritzat aurkezten duen sarritasunari ohartzen bagatzaizkio, olerkiaren mailak eta errealitateak duten egizkotasunari buruzko gaiak garaiko idazleak kezkatu egiten zituela ondorioztatu behar da.

Lizardik 1930ko bi aipamen horietan olerkarien hitzak gezurrak baizik ez direla jende arruntaren iritzia dela esaten badu ere, olerkiaren egiazkotasunari buruzko kezka Orixerena eta are Lauaxetarena ere bada, hots, olerkiak eta errealitateak euskaldunengandik gertu dagoen errealitate ezagunaz iharduteak olerkiari eskaintzen dizkion erreferentzi seguruez behin eta berriro dihardute olerkariok.

Lizardik berak ere bai. Gudaurreko literaturaren ardatzetako bat bilakatu zela esan beharko da, nahiz eta kezka gisa teorikoki garaturik baino gehiagotan aurkeztuko zaigun arren, tamalez.

"Aurrerago dire egiik eta egiñek, ipuiek baño" esan zuen Orixek "Orain arteko euskal neurtitzak" 1928ko hitzaldian. Eta olerkietan askotan ezagutzen ez diren gauzez, sentitu ez diren gauzez iharduteak duen oihartzun faltsuaz hainbat aipamen aurki litezke Orixeren idazlanetan.

Orixeren aipamen horien artean guretzat interesgarriena Lizardiren olerkigintzaz diharduelarik puntu honi ematen dion garrantziaz oharterazten diguna da, noski.

> "Gizon oro gezurti" esan du Yainkoak Dabide'en bitartez; olerkaria gezurtiago esan diteke. Ez noski gezurra esateko asmorik dualako, askotan beintzat, baiña iduripenezko ta biotzezko gauzak asmo gabe eta ustegabe bapikatuz (exageratuz) zentzugabeko ta neurriz gaiñeko gauzak esaten ditulako" [114].

Eta ondoren Lizardi bereziki "egizale" zela azpimarratzen du, irudimenari oinak errealitatearen lurrean itsasten zizkiola esanez:

> "Olerkari onak ere ori du: buruak iruditu asko ta gezur asko iraultzen dizkio txarrari bezela, baiña lekutu egiten ditu. Nola diteke, esan zidan bein "Kizkitza"k Lizardi bezelako zentzuzko gizona olerkari izatea? Orrexegatik bada, esan nion: irudimenaren eta biotzaren yardunetan zentzuz eta aukeraz yokatzen dalako. Batez ere, berak bere buruz ikusia, ondo ikusia agertzen zun. "Urte Giroak" eta "Biotz-begietan" liburuaren izena. Gauzai ondo begiratu, berriz begiratu, sarri begiratu, ta ola asmatzen dira egiak. Itsasoa sekulan ikusi gabe ango berri eman duten olerkariak badirala esaten da. Urrutiko gezurrak bear nai ta nai ez. (...) Gauzekin berekin artu-emana bear da, ondo ezagutzeko. Ta ezagutu-ezkero, maitatu ere egingo dira. Ezaguerak maite-txingarra aterako du" [115].

Lizardi beti "egizale eta maitazale" zela esaten du Orixek Lizardiren "Umezurtz olerkiak" liburuaren argitaralpena dela eta eginiko artikulu honetan. Garrantzi handia ematen dio Lizardik errealitateari sakonki erreparatzeari emana bizi zen olerkaria zela gogoratzeari, eta olerkietan jasoriko guztia errealitate zela adierazteari.

Orixek "Lizardi" izenburuz jasoriko oroitzapenetan [116], berriro aurkitzen da *Urte Aroak ene begietan* deituriko poemak oinarritzat duen naturaren errealtasuna:

> "Bestela, zuzen ateratzen giñan mendira, etxe-atzetik tren-bidea utzita. Txelaiaren eskubitara, azkenean, arkaitz bakarti bat Rio de Janeiro'ko azukre-opillaren antzekoa, bere txikian. An asten zan aldapa zearra, aski pikoa, ezkerretara eta biurgune bat eginda, eskubitara beste ainbestetsu. Goraxeago baserri bat; Arane, ondoan iturri batekin. Iturri ari nik urde-iturri ipiñi nion, ura etenka, tarteka bialtzen baitzun. Oraindik goraxeago beste baserri bat: Bereterbide. An gurdibide zelaiagoa utzi Mutitegi aldera, ta aldapa gora asten giñan bidetxurretik. Aldapa bere basotxoarekin, eta aldapa gaiñean, bereala, zuzen, "gurdibide bakan-ibill" ua, untzez eta larrostoz apaindua. "Gurdibide bakan-

113 LIZARDI, X.; "El poeta" in *El Día*, 1930-6-5, 2. or.; *K-L* 304. or.

114 ORIXE; "Lizardiren azken olerkiak" in *Yakintza*, VI, 1933, 406. or.

115 *Ibidem.*

116 ORIXE; "Lizardi" in *Olerti, I-II*, 1963, 107. or.

ibill ertzetan, masusta (beste nunbait untza) dago loretan". Bertantxe ezkerretara, bide ertzean, pago-ondo bat erakutsi zidan, osto guziak erorita oraindik bi orri igar jalki nai ezik zeuzkanak: "nola oi baituten neskazar ezin-etsiak". Aurreraxeago, ezkerretara "sagasti zuria, inguma atseden-toki iduri, elurte arian geldia". Oraindik aurreraxeago soilgune bat, gu biok eseritzen giñaneko tokia. Ezkerretara ua ere, ta Urkizu aldera begira. Tartean arru aundi bat ura baso ederrarekin: udazkenean "Tarteka gorri garoa". Erakutsiko nizueke nun agertu zitzaion Itzala, "basoaren ume yaukala". Lau urte-giro oietan ez da batere xeetasunik nik ikusi ez dudanik" [117].

Orixeren oroitzapen hauek isladatzen duten egiazkotasun bera erakusten dute *Biotz Begietan* liburuan jasoriko beste zenbait olerkik, esate baterako, amonaren zahartzaroko gaitza eta heriotzari buruzkoak diren *Asaba zaarren baratza* eta *Biotzean min dut* izenekoak, eta bi hauei *Euskal Pizkundea* deritzana ere erantsi geniezaieke. Funtsean apuntaturik dagoen anekdota, oinarri den historia zertzelaturik bakarrik egoten da olerki horietan, gero zentzu literario berezia ematen diolarik.

Lizardik olerkiek duten oinarri anekdotikoa estilizatu eta olerkiaren baitan hartzen duen zentzuari garrantzi berezia hartzeko eran moldatzen du.

Biotzean min dut olerkiaren eta edizio kritikoan jaso dugun deskripizioaren artean ikus genezakeen bidea hautapen prozesu baten ondorio da, errealitatean zentzu poetikorik idarokikorrena duena, emozioa gogorarazten duten elementuak soilik interesatzen zaizkio, elementu horiek sentimendu, oroitzapen, pasio edo beste zeinahi zio dela medio olerkariaren begi-biotzean zentzu berri bat, pentsamendu eta erreflexioak erantsiriko zentzu goitarragoari ateak zabalduz [118].

Sentimenduari dei egiten dion gaia edo anekdota dugu Lizardiren bizitzan amonaren heriotza, baina sentiberaegi egiteari uko egin eta sentimentalismoari biderik ez utzi. Gertakariei buruzko erreflexioak, olerkariak sentitutako eta ausnartutakoak gailentzen dira zabalagoa den zentzua hartuz, irakurlearen sentiberatasunari ez ezik, haren adimenari mezu bat bidaliz.

Teoria mailan ere adierazi zuen Lizardik olerkian adieraziriko sentimenduen autentizitateak edo jatortasunak beretzat zuen garrantzia.

3.1.2. Sentimenduaren autentizitatearen garrantzia

Lizardirentzat autentizitate edo jatortasun hori zertan zen argitzen diguten bi iturri ditugu: Sabino Arana Goiriri buruzko bi artikulu dira "Sabino poeta" [119] eta "Memoria y faro" [120].

Lehenengoan, eta Sabinoren idazlan poetikoez diharduelarik, haren olerkien beste zenbait ezaugarrien artean sentimentuen egiazkotasuna azpimarratzen du:

> "Si examinamos las características de su verbo poético, yo la resumiría así: enorme sinceridad, concisión magnífica, vigor soberano. Cuando en "Lenago" él dice:
>
> Il najago dot /ikusi baño
> Aberrijaren/ amaja."

---

117 *Ibidem.*

118 Karlos Otegik *Lectura semiótica de "Biotz-Begietan"* tesiaren ondorioetan, esaten du egin dituen alderaketen ondorioz ez dagoela zalantzarik *Biotz-Begietan*go olerkien mamia eta testuz ateko errealitate enpirikoaren arteko harremana handia dela:
"Lizardi toma el material para su universo poético del entorno conocido y familiar. Es cierto que la experiencia plasmada en el texto es limitada y que el poeta, en general, no penetra en esos estratos recónditos y misteriosos de la experiencia personal y circundante, pero *siempre busca la autenticidad y consigue imprimir a realidades evidentes un sentido simbólico universal*" (II., 877. or.)

119 *Euzkadi*, 1931-11-25, 1. or.; *K-L* 345-349. or.

120 *Euzkadi*, 1930-11-16, 1. or.; *K-L* 333-335. or.

que significa "prefiero morir a ver tu fin ¡Oh patria mia!" quienes tenemos noticia de como vivió y porque murió aquel hombre, hemos de reconocer que esas palabras no fueron *vana retórica*, sino sublime sinceridad" [121].

Egizaletasunarekin batean aipatzen dituen trinkozaletasuna eta sentimendu eutsia, geroxeago "gizonezko" sentimendua deituko duenari buruz 3.2. eta 3.3. kapituluetan ihardungo dugu, Lizardiren beraren balore estetiko nagusienen artean aurkituko bait ditugu beste zenbait iruzkinetan ere. Horregatik pentsa daiteke Sabinoz diharduenean horiekin batera aipatzen duen hau ere, bere iritziz, ardatzetako bat zela, era berean.

Egizaletasunaren aurkakoa edo antónimoa "vana retórica" da Lizardiren hitzetan. Orixeren zentzu berean dihardu Lizardik ere benetako sentimendua, ezagutzen den eta bizitu izan denaren gainean eraikiriko olerkiaren baloraketan: bihotzean oihartzunik aurkitzen ez duen ihardun erretorikoa gaitzesten da.

"Memoria y Faro" artikulua dugu bigarren iturria [122]. Egizaletasunak, errealitatearekiko atxikimenduak eta benetan bizitutakoak duen indarraz eta baloreaz dihardu oraingoan, zehazki.

Egia dela jakinez, irakurlearengan eragina sakonagoa izan daitekeela adierazten digu; irakurritakoa fikzioa ez deneko ziurtasunak irakurleari ausnartu arazi egiten dio eta eredu baten tankeran eragin zuzenagoa egiten dio:

> "Verdad es que la novela —la novela natural, la novela humana, no la dedicada, por ejemplo a plasmar con apariencia de vida meros sueños imaginativos o visiones más o menos proféticas del porvenir— debe ser traslado y aliño de caracteres y sucesos vividos. *De tal modo que tanto más suele interesarnos cuanto más estrechamente venga a coincidir en los moldes que nuestro contacto con la vida circundante nos ha vaciado en el yeso del conocimiento*" [123].

Beraz, Lizardirentzat literaturan egiantzekotasunak indar berezia duela frogatzen digute bi aipamen hauek, aipatua dugun bigarren artikulu honetan aurreraxeago dioen moduan, egiantzekotasuna autentizitateari lotzen bazaio, hots, benetako gertakarietan oinarriturikoa bada, orduan,

> "... no sólo nos ha interesado durante su lectura sino que su acción transcendente y profunda es precisamente reservada a *la rumia intelectual que provoca después*. Esta meditación, alimentada por la convicción sugestiva de la realidad de lo leído, nos pone en contacto cada vez mas íntimo con el sujeto; *de cuyo modo puede éste ejercer sobre nosotros una influencia aleccionadora máxima*" [124].

Gogoan hartzen baldin badugu aurreko atalean esan duguna, hots, Lizardirentzat olerkiak bere urkoei bidaliriko mezuak direla, pentsamendu eder baten berri eman nahirik, orduan, ondorioz esan genezake sentimenduen jatortasunak, errealitatearen ispilu izateak, bizitzaren panoramari erreparatuz idazteak funtzio hauxe duela bere poetikaren barruan, hots, irakurleak ezagutzen duenaren esparruan ihardunez, ausnarketarako, erreflexiorako giroan jarriz, harengan eragin sentimentala ez ezik intelektuala ere izatea.

3.1.3. Lizardiren iruditeriaren "hurbil"tasuna

Hona aldatu ditugun bi testuotan "vana retórica" delakoak, eta "meros sueños imaginativos o visiones más o menos proféticas del porvenir" delakoetan irudimenari kate motza jartzeko jarrera hartzen zaio Lizardiri. Honek esanikoaren parean jarri litezke Orixek Lizardiz esanikoa: "irudimenaren eta biotzaren yardunetan zentzuz eta aukeraz yokatzen da". Bihotzari eginiko hesiaz

---

121 "Sabino poeta" in *Euzkadi* 1931-11-25, 1. or.; K-L 346. or.

122 "Memoria y Faro" in *Euzkadi*, 1930-11-16, 1. or.; K-L 333 or.

123 *Ibidem*,; K-L 334. or.

124 *Ibidem*.; K-L 334. or.

aurrerago mintzatuko gara, Lizardik bereziki aipatzen duen gaietako bat bait da, irudimenari jarririko mugari dagokionez berriz, ikusi ditugu Lizardik bere poetikan irudimena mugatzea hobesteko zituen arrazoiak.

Teorian eta praktikan eginiko hautapen honek, hots, irudimenaren zabaltasuna berak eta irakurlegoak esperientziaz ezagutzen zutenera murriztea, kritiko gehienek azpimarratu duten Lizardiren imaginen "ezagun" edo "hurbileko" izatearen ezaugarriaren oinarri teorikoa da.

Lizardiren olerkietako gaiak Lizardiren bizitza pertsonalarekiko lotura hestua izateak, gertakari pertsonalak, heriotzaren hurbiltsuna, berea propioa eta bere hurbilekoena, natura, aberria, euskara..., eta era berean, amaitzeko utzi zuen *"Maitea*ren apurñoak" datu biografikoez josia egotea, bere antzerki lanik ezagunena *Ezkondu ezin ziteken mutilla* ere autobiografiko erakoa izateak indar berezia ematen dio, ene ustez, sentimenduen jatortasuna eta gertakarien autentizitateari ematen dion balore literarioak eta literario-ondokoen argudioari.

Zenbait kritikoren ustez, irudimen "lotu" hau Lizardiren mugetako bat da [125].

Iruditeriaz mintzatuz gero, euskal esentzien irudiak baino areago Lizardik, oso ezagunak zaizkigun beste erreferentzia askoren artean, irudi erlijiosoak erabiliz ezagunak zaizkigun oihartzunak bilatu dituela ikus dezakegu.

Esate baterako, *Gure mintzo* olerkian jaulkitako ahapaldiak uso zuri antzean joan eta itzultzean dakarten jai-ostoaren iradokizun baikorraren irudia. Lizardiren irudi hau gertuko egiten zaigu. Ez euskadun garen aldetik, kristau kulturaren partaide garen aldetik baizik, hots, Noeren untziaren eta irudiaz baliatzen delako.

Anjel Zelaietak [126] Lizardik naturari begiratzeko duen era hau harturik modernisten joera estetikoekin harremanetan jartzen du Lizardi. Diaz Plajak [127] aipatzen duen begiratzearen ikaskuntzaren garapen berezia aipatzen du. Mundua ikusteko era berriak, gauzetara hurbiltzeko modu berriak artearen historian Paul Cezanne du hastapentzat. Mundua ikusteko gose eta egarri ikaragarria sortzen da garai horretan artean.

Ez ukatu ez baieztatu ez daitekeen idarokizuna dugu hau, Lizardik ez du bere joera horren funtsa jadanik aipatua dugun muga horretatik aurrera garatzen eta garatze zabalagoetara joz gero, bizitzaren panoramaren irudi sublimatua ematea dela olerkariaren zeregina dioen baieztapen orokorragoak topa daitezke. Artea egiten duen olerkariak errealitateari begiratu beste inork ikusten ez duen urrea ikusten bait du eguneroko gauza arruntetan.

Garaikide izan zituen Aitzolek eta Lauaxetak aldiz, bereziki azpimarratzen dute Lizardiren iruditeriaren "ezagun" izateko era hau. Deigarri egiten da bi literatur gizon hauek Lizardiren

---

125 KORTAZAR, J.; "*Teoría y práctica poética de Lauaxeta*, Bilbo, 1986, 13 or.

> "Por eso, a pesar de su dificultad Lizardi aparece cercano. Las imágenes de Lizardi están ya asumidas, y si no él las integra. Resulta curioso observar a Lizardi, como ya lo vió el profesor Mitxelena, posee una gran capacidad de integración de lo ajeno. A este respecto, resulta curioso que el título de su libro *Biotz-begietan* que puede encontrarse en un verso de Leopardi, se haya interpretado siempre como genuinamente vasco".

Nire ustez, Lizardiren liburuaren tituluaren "euskaltasuna"ri dagokionez gogoan izan behar da inolaz ere, oso Lizardirena den formulazioa dela, haren teoria poetikoaren zutabe, hots errealitatearen obserbazioak eta bihotzeko sentimenduen arteko harremanak haren poetikan duen funtsezko garrantziaren lekuko zuzena.
Lizardirengan, "ezagun" izate hau, iruditeriaren aldetik euskal irakurleontzat duen gertutasun hau ordea, ez da euskal esentzien azalpena egiten duelako soilik gertatzen. Egia da, euskal paisaia agertzen dela, baina, askotan, erabiltzen dituen imaginek eta metaforek gizaki garen aldetik, bizi ditugun esperientzien azalpen diren aldetik egiten zaizkigu gertuko eta ezagun, eta ez euskaldun garen aldetik.

126 ZELAIETA, A.; "Orixe eta Arana Goiriren eragina Lizardirengan" in *Jakin*, 29, 1983, 33-34. or.

127 DIAZ-PLAJA, G. *Estructura y sentido del novecentismo español*, Madrid, 1975, 330-331. or., in ZELAIETA, A.; "Orixe eta Arana Goiriren eragina Lizardirengan" in *Jakin*, 29, 1983, 33-34. or.

iruditeria definitzerakoan antzerako eran jokatzea. Izan ere, bai Aitzolek eta bai Lauaxetak Lizardiren irudimenaren taxuera zer ez duen egiten esanez definitzen bait dute.

Lauaxeta dugu zehatzena. 1932an *Euzkadi* egunkarian, Ekainaren 14ean argitaraturiko *Biotz Begietan* liburuari buruzko iritzietan, aipagarriak diren bi puntu aipatzen ditu. Lehenik, Lizardik naturagana hurbiltzean duen jarrera "klasikoena" bezalakoa dela esaten du, izan ere, 1932an Orixerekin izaniko eztabaidan erakusten duenez, klasikoa esatean, zera esan nahi bait du Lauaxetak:

> "...porque las formas prácticas también se gastan y si a los griegos *les bastaba ver la naturaleza y escribir*, hoy es preciso pensar sobre la naturaleza" [128].

Honela dihardu klasikoa denaz eta amaneratua denaz mintzatzean, eta bereziki Lizardiz ari delarik:

> "es un poeta de la observación griego, clásico y sencillo ... y no de la reflexión, (amanerado)" [129].

Beraz, Lauaxetak Lizardiren naturaganako hurbilketa amaneramenturik gabea, pentsamenduaren tartekorik gabea delako, griegoa, klasikoa dela deritzo. Baina, hala ere, hurbilketa horretan zerbait berezia ere sumatzen du, hurbilketa hautatua dela ikusten du, ez dela orokorra, ñabardura xarmadunetan soilik erreparatzen duela ohartematen du [130]: "un matiz japonés" duela dio.

Honi dagokionez, Lizardik berak "Gure baratzatxoa" deituriko artikuluan literatura eta pinturaren artean ikusten duen muga-lerroaren ezabagarritasuna aipatzen du "Dunixi" idazlearen deskripzioaz ari delarik. Ez da ausarkeria handiegia esatea Lizardiri berari ere aplika dakiokeela pasarte hau:

> "Esaera eta itzak aukerako ditu, ezetsu, mami; adiraz-gaiari ain dagokie zeazki uste baitet, ez bera ez gu oar gatzaiola norbaitek eskutik idazkortza ken ta erraztilla (brotxa) ipiñiko ba'lio aldapena igarri gaberik baietz jarraitu margoz lan itzez-asiari, ta are gu ere, leen-arian, 'margozkia irakurtzen'" [131].

Bigarrenik, Lizardiren soiltasun eta "klasikotasun" berezi hori, ukatuz ere definitzen du, eta bigarren honetan datoz bat Aitzolen eta Lauaxetaren iritziak: Lizardik ez du zer ikusirik modernisten irudi exotikoekin, haiengandik berariz aldendu dela balekite bezala:

> "Lizardi se aleja de los ensueños de las perlas de Ormuz y de los diamantes, de los ensueños de los morfinómanos..." [132].

Lauaxetak, modernisten irudi, metafora eta konparaketetan sarri aurkitzen diren harri-bitxi eta materiale preziatuen aipamenaz, droga-hartzaile ospea zuten frantses simbolista eta surrealisten iruditeria bisionarioa alde batera utziz idazten duela esaten digu.

Aitzolek aurreratu ere egiten du irudi horiek baztertzeak zukeen arrazoia:

> "Desterró toda petulante fraseología de los zafiros, perlas de Ormuz, corales de Capri, esmeraldas y rubíes... Magnificiencias, sin duda, pero que no despiertan en la imaginación vasca sensaciones de belleza" [133].

Biek harri-bitxien iruditeria eta exotismoaren erabileraren joera baztertzen duela aipatzea halabehar hutsa izan daiteke. Aitzolek Lauaxetarena irakurria zuela eta irudi bera erabiltzea egoki

---

128 LAUAXETA; "Biotz begietan" in *Euzkadi*, 1932-6-14, 1. or.

129 LAUAXETA; *Ibidem.*

130 *Ibidem.* "Contienen un matiz japonés; el paisaje de encantos mimosos..."

131 LIZARDI, X.; "Gure baratzatxoa" in *Euzkadi*, 1930-2-1, 5. or.; *K-L* 298. or.

132 LAUAXETA; *Ibidem.*

133 AITZOL; "El poeta Jose María Agirre. "Xabier de Lizardi" in *Yakintza*, III, 1933, 172. or.

iruditu izatea izan liteke arrazoia. Baina hirugarren aukera bat ere bada, hain zuzen ere, Lizardiren beraren adierazpenetan oinarritua izatea, hots, Lizardik zein bide hautatua zuen definitu izatea garaian modan zeuden iruditeria diztirante eta exotikoetatik aldenduz, ez dago honi buruzko konstantziarik ordea.

"Ezaguna" izatearen ezaugarria paisaiari edo irudiei dagokienez ia-ia topikoa bilakatzen da guda-aurreko olerkarietan. Esate baterako, Lauaxetak Lizardiren *Biotz Begietan* olerki liburuan egiten den irudien erabilera eta ezagunak diren gauza eta paisaiez diharduela esatean, garaiko joera horren aldeko agertzen da harrigarrikiro, eta hain zuzen ere, berriro exotismoaren baztertze espresoa eginez, horiek beregan ez dutela irudirik sortzen adieraziz:

> "Dante irudi billa ez zan urrunera joaten, bere liburua irakurriko zutenak ezagutzen zituzten tokietatik irudiak artzen zituelako. Or alboko mendi ori inpernuko arek dirudi, edo Erromako zubi ura. Erritarren buruan diran gauzai irudi bat eskeintzen zien. Ormusko perlak edo Chinaco lorak ez ditut ezagutzen, leen bezain illun nago" [134].

3.1.4. Errealitatearako hurbilketa

Lizardiren errealitatearekiko harremana adierazten duen "prisma sublimador" [135] horri buruzko gaurko eta garaiko iritzietako batzuk ikusi eta kontrajarri ditugu eta ondoren, Lizardiren errealitateari hurbiltzeko eraren inguruko ideia nagusiak azpimarra genitzake.

Lizardik teorikoki nahiz praktikoki obserbazioan, errealitatearen obserbazioan oinarritzen du bere olerkigintzaren irudimen esparrua, ez da horretan geratzen ordea.

Errealitatea ez ezik, egian, hots, benetako gertakari eta sentimenduen inguruan eraiki zuen bere olerkigintza, hots, bere begientzat eta bere bihotzarentzat egia ezaguna zena hartu zuen olerki oinarritzat, abiapuntutzat, egi konkretu eta txiki horien bidez egia nagusi eta ezezagunera hurbiltzeko helburuz.

Errealitatearen panorama horretan ordea, hautapen bat egiten du, anekdota bizitua, ikusirikoa, sentiturikoa galbahe batetik iragazirik Orixek "aukeraz" deitzen duen estilizazio prozesua iraganarizirik, zentzu berri batetarantz bideratzen du, hots, irakurleari bidali nahi dion "mezua" bilaka dadin.

Lizardik olerkiak lagun urkoei zuzentzen dizkienean haiengan ahalik eta eragin positiborik sendoena itsasteko asmoz egiten du, eta horregatik, berak ez ezik, irakurleak ezaguna duten esperientzian oinarrituz egitea erabakitzen du, mezua ahalik eta zuzenen iritxi dadin.

Honela, Lizardi konkretoa denaren olerkari bilakatzen da Aitzolek esaten duenez, baina aldi berean, konkretoa den hori pentsamentuarekin harremanean jartzean maila sinbolikora hegaldatzen du ziurtasunez, erabiltzen duen mintzaira poetikoaren zailtasunak gora-behera, irakurleari guztiz ezaguna egiten zaion iruditeria erabiliz.

Koldo Mitxelenak aipatzen duen Lizardiren gaitasun berezi hura, hots, bere ez dena berea egiteko gaitasun harrigarri hura, hizkuntzaren elaborazio pertsonala sakona izatearen ondorio ez ezik, olerkiari

---

134 LAUAXETA; "Biotz-Begietan" in *Azalpenak*, Labayru, Bilbo, 1982, 154-155. or. Lauaxetaren idazlanen azterle den Jon Kortazarrek, aldiz, Lizardiren eta Lauaxetaren iruditeria alderatuz biek aurkako joerak dituztela azpimarratzen du, ordea:

"Lauaxeta propugna un régimen de la imaginación distinto (al de Lizardi). Propone lo que no está asumido. Su obra poética es incansable, contradictoria, nada le tranquiliza, nada le satisface totalmente. Su lenguaje rompe la norma. Algunas de sus imágenes provienen directamente de un autor europeo; por decirlo de una forma simple, no halaga la idiosincrasia del pueblo, sino que la pone —muchas veces— en crisis" KORTAZAR, J.; *Teoría y práctica poetica de Lauaxeta*, 11 or.

135 LIZARDI, X.; "El poeta" in *El Día*, 1930-6-5, 2. or.; *K-L* 304. or.

batasun emozionala eta sinbolikoa emateko dion irizpide sendoaren ondorio dirudi, kanpoko eraginak izkutatzeko borondate espresoaren ondorio baino areago [136].

Lizardi olerkigintzan edertasunaren nagusitasunaren garaian, "olerti hutsa"ren garaian idazten ari bada ere, zenbait idazlek bezala giza sentimentu jator "autentiko"ari edertasunari hainbat balore ematen dio. Errealitatean sakonduz egiaz batera edertasuna bilatzen du, bere lagun urkoei iritxiko zaien "pentsamendu eder" horren fruitua eskuratu arte.

Bien arteko oreka horrek Espainiako zenbait idazlerengan garrantzi berezia du, batzuek "Poesia purua"ren eraginez, giza edo bizitza anekdota olerkitik zeharo desagertzea proposatzen duten aldi berean, beste zenbaitzuk, Pedro Salinasek bezala, zera esateraino iritxiko dira:

> "Estimo en poesía, sobre todo la autenticidad. Luego la belleza..."

Lizardik eta Pedro Salinasek oso olerkigintza ezberdina badute ere, bereziki Lizardik hautatu dituen ardatz poetikoen ondorioz, errealitatearen, anekdotaren aurrean duten jarreran antzekotasunak ez dira gutxi. Biak ere Ortega y Gasset-ek artearen deshumanizazioaren aldarrikapena egina zuen garaian, "artea bere giza-anekdotaz" eranztea eskatzen duten garaian, eta olerkiari berari dagokion beste emoziorik onartzen ez den garaian, Salinasek eta Lizardik bere olerkigintzan endelegua, ingenioa erabiltzen dute giza-sentimenduetan, bizi izan dutenean sakondu, eta gertakari edo pasadizo konkretuen sakonean dagoena bilatzen dute: "absolutoari" hurbildu nahi zaizkio bide horretatik. Itxuraz, Lizardik eta Salinasen olerkigintzak zerikusirik ez dute, eta ene helburua ez da sakonagora joatea antzekotasun honetatik abiaturik. Zera bakarrik azpimarratu nahi nuke errealitatearekin duten harremanari dagokionez eta errealitatean sakontzerakoan endeleguari eta sentimenduari ematen dioten tratamenduan Leo Spitzer-ek "barne kontzeptismoa" deritzan ezaugarria dutela nagusiena euren olerkigintzan [137].

3.2. ENDELEGUA ETA SENTIMENDUAREN ARTEKO OREKA. ERROMANTIZISMOA ETA OLERKI HUTSAREN ARTEKO BIDEA

3.2.0. Sarrera

Lizardik errealitatearekiko harremanean begiei eta bihotzaren ekarriei emaniko lehen mailako garrantziaz ihardun dugu, hots, Lizardik begiek ikusiari eta bihotzak sentituari ematen zien batasunaren garrantziaz. Jo dezagun orain errealitatea eta bihotzaren arteko binomioan endeleguak nolako antolakuntza ezarri behar duen, garaikoen iritziz eta Lizardiren iritziz.

Garaiko olerkigintzan erromantikoentzat bihotzaren sentimendua komunikatzea nagusiena den era berean, garaikide diren "poesía pura"ren zaleek adimenari lehen mailako betebeharra egozten diote: sentimentalismoaren eta intelektualismoaaen joerak dira eztabaidan.

---

136 "Primero nadie que hoy en día escriba puede privarse en absoluto de beber en ajenas fuentes, después de los dos mil y un años que el hombre lleva siendo un animal literato (Perdón, humanidad).
Segundo: esas mismas flores, aquí y allí cortadas, pueden recibir perfumes originales en el jardin interior a que las transportó y en que amorosamente las regó el poeta (perdon! Lauaxeta) es que el mismo hecho de entregarse a esa brega agobiadora de plegar un idioma semivirgen a la exigencia expresiva de altos pensamientos, y de entregarse a ello por la patria, sin otra ambición, no es ya de por sí bastante..." LIZARDI, X.; "Rumbos Nuevos" (I) in *Euzkadi*, 1931-12-17, 1. or.; *K-L* 350. or.

137 Ikus SPITZER, L. in "Una generación poética" in ALONSO, D. *Poetas españoles contemporáneos*, Gredos, Madrid, 1969, 169. or.(3. arg.)

3.2.1. Sentimendu eta endeleguaren arteko auzia

Lizardiren olerkigintza garaikidean erromantikoen sentimentalismoaren gaitzespena eginez, intelektualismoa gailentzen ari den aldi berean, euskal literaturaren esparruan sentimendu eta endeleguaren nagusigoari buruzko eztabaida literarioa klasikoa denari eta ez denari buruzko eztabaidaren inguruan ari da garatzen.

Orixek, edertasunaren eredu aldaezinaren zutabea aukeratu duenaren tinkotasunez, zera esaten zuen "zerbait ederrik sortzeko aukera dagoen bitartean, beti indarrean egongo dira Horatioren *Ars Poéticaren* Arauak ez dituzte betetzen zenbait bertsoegile pizkor eta zenbaitetan eszentrikok". Izan ere, Lauaxetak *Bide Barrijak* liburuan harturiko zenbait jarrera abanguardistek ez bait dute Orixe gogobetetzen, berak behin betirako araudi poetikotzat joa duen Horatioren Arautegiari jarraikiz:

> "Pensamientos y afectos fundidos armónicamente son los que han de constituir las grandes obras artísticas que hayan de sobrevivir a través de los siglos. En su polo opuesto están los conceptillos y los suspiros de falsete, con frecuencia divorciados, descuadernados que engendran tanta multitud de poesía enteca. No hay que enamorarse de ninguna escuela como tal, ni de esta ni de aquella estética imperante, hay leyes filosóficas que están asentadas sobre el buen sentido, la disciplina, la armonía, la medida y sobre todo la unidad artística, que hoy tanto se descuida" [138].

Orixek irudimenari eta sentimenduari gehiago eusteko aholkatzen dio Lauaxetari, eta bien arteko oreka bilatuz,

> "que procure buscar y encontrar siempre la UNIDAD ARTISTICA QUE ES LA PIEDRA DE TOQUE DE TODA OBRA DE ARTE: las ideas y los afectos no deben formar mosaicos rígidos, el pensamiento y el sentimiento no deben ir como dos líneas paralelas distintas, sino sobre una misma recta fundiendo su acción para un mismo efecto" [139].

Lauaxetaren erantzunak prezeptiba klasiko hori eztabaidan jartzen du, batez ere praktikatik abiatzen delarik:

> "Zentzuz lirikan gitxi ibilli dira, biotzetikoa dala olerkari jarioa, zentzunak jarri bear deutsozala arau ta neurriak biotzari? Baia, noragiño? [140].

Jon Kortazarrek *Teoría y práctica poética de Lauaxeta* deritzan tesian klasikoen aportaziotzat aipatzen da, hain zuzen ere, bihotzaren gehiegikeriei eta sentimentalismoari mugak jartzearen irizpidea, idazlanari batasuna ematearena, humanistika deitzen den jakituriaz baliatzearena eta egiazkotasuna, hots, jatorki sentiturikoa adierazteko zaletasuna.

Azken hauxe, barne sentimenduen adierazpenean bapikatzerik, esageraziorik gabe, baina endeleguari gehiegizko katearik jartzen utzi gabe iharduteko aholkua eman zion Aita Estefaniak ere Lauaxetari *Bide Barrijak* argitaratzean:

> "...abandónese al impulso interior de sus momentos inspirados, reproduzca al modo de Maragall, su propia emoción con exactitud fidelísima" [141].

Beraz, ikusten dugu errealitatearekiko harremanean, egiazkotasunaren eta sentimentuen egiazkotasunaren gaiarekin batera, bihotzaren bulkoari eustearen irizpide "klasikoa" ere behin eta berriro aipatzen dutela Lizardiren garaiko euskal kritikoek. Berak ere, ikusiko dugunez, sentimenduari nahiz intelektualismoari eusteko aholkatzen zion Lauaxetari, baina berak proposatuko

---

138 ORIXE; "Bide barrijak" in *Euzkadi*, 1931-11-29., lehenengo orrialdea.

139 ORIXE; *Ibidem.*

140 LAUAXETA; in Azalpenak, 133. or.

141 ESTEFANIA, J.M.; "Urkiaga'tar Estepan "Lauaxeta"."Bide Barrijak (Nuevos Rumbos)" in Razón y Fé, 425, 1932(Ekaina), 267-269. or.

dion eredua ez du klasikotasunaren izenean aurkezten, euskal nortasunari dagokion "neurria"ren izenean baizik.

3.2.2. Erromantizismoa eta olerti hutsaren artean

Jon Kortazarrek klasikoa denari buruzko eztabaidaren kontestuan kokaturik, irakaskuntza humanista, hots kultura greko-latinoaren eraginpeko ziren Orixe, Estefania, eta Lauaxetaren kezka teorikoaren esparruan aipatzen du gai hau. Dena den, euskal literaturaren esparruan jesuiten ikasle izanikoen formazio klasikoaren garrantzia zalantza gabekoa bada ere, badu gai honek, Lizardiren olerkigintza garaikidean oihartzun zabalagorik, irizpide klasikoekiko derrigorrezko loturarik gabe.

Izan ere, 1927ko belaunaldikoen "intelektualismoa" dela eta, sentimenduaren eta intelektuaren nagusitasunaren inguruan iritziak etengabekoa eta aurkajarriak bait dira. Antonio Machadok, esate baterako, belaunaldi berrikoak intelektualtzat zeuzkan, "más ricos en conceptos que en intuiciones" zirela esan ohi zuen.

Jarnés bezalako kritikoek ere esaten dute 27koetan emozioak endeleguak egituraturik emateko joera aurkitzen dela, "lepoa bihurrituriko emozioak", eta aldi berean, "barne-barnetik doan patetismoa" ere bai. Bergaminen aforismoa ere egoki datorkie: "Inteligencia, sentimiento y sensibilidad contra intelectualismo, sentimentalismo y sensiblería" [142].

Beraz, bai euskal klasikozaleak eta bai garaikide dituzten Machado eta 27koak sentimentalismoaren eta intelektualismoaren poloen artean ibili beharrean gertatzen dira, atzean utzi eta deserrotu nahi duten erromantismoaren sentiberatasun gehiegizkoaren eraginpetik atera nahiz, "olerti hutsa"ren intelektualismoak, artearen deshumanizazioaren eraginpeko olerki hotz eta gogorrarekin egiten dute topo.

Olerti hutsaren zantzuen aipamenak Lizardiren garaiko idazlanen artean agertzea ez da harrigarri endelegu eta sentimenduaren arteko oreka bilakuntza honetan.

Aitzol Lauaxetaren *Bide Barrijak* liburuaz ari zelarik, liburuaren hitzaurrean hain zuzen ere olerkari gazte hau olerti hutsaren artean kokatzen duten intelektualismorako joera horretan oinarritzen da:

> "Maitasun minkuntasun basoa lagata, adi zelaietara datorkigu olerkaria. Ara bere goitar indarrak noruntz daramakin, "olerti-uts" aranetara. France'n batez ere, poesi gaia, aldakuntza gogorra jaso bearrean dago. Olerkariak buru-belarri, era berriak sumatzen ari dira, olertiak goratu eta edertzekotan. Bremond, Valery, Claudel, eta Souza "poesie pure", "olerti uts" bidexurretik jo ta, poesi osertza zabaltzearren leiatsu dabiltza.
>
> Adi poesia, oldozkun poesia, olerti gaillurrenetzat daukate. Iturri garden, aran sotil, baso itzal, mendi zorrotz, maite min eta minkuntasunak beratutako gaiak goiar biarentzat egokienak dirala ez uste; beste alako gai sakon eta barnekoak, adikorrak alegia, olerkari kementsuenentzat berekikoenean zaizkiotelakoan egon ginezke, ertilari oiek dasatenez.
>
> "Lauaxeta" oien kidekoa zaigu. Aizken neurtitz sailletan, eztabaidarik gabe, poesi uts zalea dagerkigu. Gaztetasun biozkadari uko eginik, adi jauregi barnean itxi zaigu [143].

Gudaurreko olerkigintzan erromantizismoaren sentimentalismotik olerti hutsaren intelektualismorako poloen artean Lizardik bilatu nahi duen tokia zedarritzen hasten da Lauaxetaren *Bide Barrijak* liburuaz ari delarik. Aitzolek goraipatu dituen olerki intelektual horien lirikotasun hotza eta arrotza kritikatzen ditu. Bere ustez, endeleguak olerki sorkuntzan batasuna emateko,

---

142 TUSÓN, V.- LAZARO, F.ek aipatua in *Literatura del siglo XX*, Anaya, Madrid, 1989, 222. or.

143 AITZOL; "Itzaurrea" in *Bide Barrijak*, Verdes Achirica, Bilbo, 1931; *Idazlan Guztiak*, 32-36. or.

hautapena egiteko funtzioa besterik ez du, hain zuzen ere begiek eta bihotzak ematen dizkioten zantzuen eta idarokizunak mezuari batasuna emateko helbururako baizik ez da erabili behar:

> "Con perdón de los señores de la poesía pura que cita Aitzol, yo le aconsejaría, amigo mío, que se haga usted todo corazón y todo ojos, y que apenas deje a la cabeza sino aquel cuidado recomendado ya de dar unidad y encauce a los elementos aportados por aquellos; no le consienta usted demasiado a la conjetura, la disquisición, la pregunta capciosa, al silogismo: creo que eso, exagerándolo al menos, y aún quizás sin tanto, enrarece y hiela el ambiente lírico" [144].

Orixe eta Estefaniaren iritziak puntu berera iristen diren ikusmoldea da hau. Lizardigan, klasizismoaren irakaspena eta Orixeren eragina ote den alde batera utziz, zalantzarik gabe esan daiteke bere poetikaren egituraketan funtsezko osagarrietako bat dela. Errealitatea kaptatzen duten begien eta sentimendua sumatzen duten bihotzaren ekarria dela funtsa, bi iturri horiek bat egin dezaten lortzeko zeregina besterik ez du endeleguak.

3.2.3. Lizardiren sentimendu era euskaldunaren kontzepzioa

Lizardiz Orixeren aurrean norbaitek "Biotzik bai ote zun" galdetu omen zuen arren [145], bereziki joera intelektualisten aurkakoa zen, Lauaxetari eginiko iruzkin honetan ikusten denez. Ez zen ordea, poesia erromantikoaren sentimentalismoaren zalea ere. Lizardik lirikoa denez, sentimentua beregan nagusi dela aitortzen du, nostalgiko erromantikotzat salatu zuen "Axari-Beltx" delakoaren erasoei erantzunez, zera aitortu zuen:

> "Nosotros que más bien tenemos corazón que ideas..." [146].

Baina ez du onartzen erromantikotzat har dezaten ere, eta ironiaz esaten dio "Axari-Beltx"i bera "Werther" edo erromantiko negartiekin identifikatzea okerra dela.

Lizardik, beste olerkariren idazlanez ari denean, beti aipatzen duen sentimenduaren adierazpenarekiko auzi hau oreka arazo bat da. Sentimenduari "eutsi" egin behar zaiola deritzo. Gai honetaz aipa genitzakeen iturrien artean garrantzitsuenak, Orixeren "Bil nadin barnera", Lauaxetaren *Bide-Barrijak* eta Sabino Aranaren *Olerkijak* liburuei buruz eginiko iruzkinak eta Zaitegiri eginiko gutuna ditugu. Guztietan dago sentimendu neurtu eta eutsiaren baloraketa berezia eta erromantikoen sentimendu "uholdearen" baztertze sistematikoa.

Aipamen hauetan aintzinakoena Orixeren *Bil nadin barnera* olerkiaren iruzkina dugu, beste zenbait gauzen artean, Lizardik Orixeren sentimendu adierazpena goraipatzen bait du:

> "Campea en la pieza comentada aparte de una profunda unción mística y de una posesión del idioma al que arranca chispas incandescentes de expresión viril, *ese sentimiento que podríamos llamar de estilo vasco*, que florece dentro de ejemplares muy acusados racialmente, fríos y carentes de corazón

---

144 LIZARDI, X.; "Rumbos nuevos" (II) in *Euzkadi*, 1931-12-30, 1-3. or.; *K-L* 359. or.

145 "Maitezale ote zen "Lizardi? Biotzik bai ote zun?
Ezetz ere esan du norbaitek itzez nere aurrean. Olakoarentzat olerkari izatea negarti izatea da bear bada. Biotzak ixur-xulo asko ditu: batetik negarra dario, bestetik parra, atsegiña, alaitasuna, gorrotoa, maitasuna. Parra ta poza, alaitasuna, atsegiña eragiten, batere ez da errazago. Biotza ez du "Lizardi"k ixuria bai ordea eraginbera (sensible)ta eragillea (que hace sentir). Besteren biotzari eragiten dionak, berea geldi ezin eduki. "Negar eragin nai badidazu, ezazu min zerorrek lenik", esan zigun Horati'k. Maiz ordea biotzak min geiago du negarrik gabe. Dardararik andienak ez dute malkorik. (...) Gizonetan ere zenbait biozberago izan oi dira; orregatik ez biozdunago. "Lizardik" biotza gizakia zun, euskalduna zun, gordea zun, baina biotz aundia, berez eraginbera ta besterenaren eragilea" ORIXE; "Lizardiren azken olerkiak" in *Yakintza*, VI, 1933, (405-419. or.); in *Nikolas Ormaetxea "Orixe". Idazlan Guztiak*, III, Etor, Donostia, 1991, 395. or.

146 LIZARDI, X.; "Glosas Triviales" in *Euzkadi*, 1929-7-31, 1. or.; *K-L* 160. or.

en apariencia, cuando es precisamnete tal su estima por el suyo de oro macizo que sólo por ello lo recatan a las miradas superficiales en lo mas íntimo de su ser" [147].

Orixeren sentimendu adierazpen eutsiaz goraipatzen duen "gizonezko"tasun hori bera agertzen da Sabino Aranaren *Olerkijak* liburuaz "Sabino Poeta" deritzan artikuluan aipatzen duenean:

> "Qué decir de su vigor una vez leída la muestra de esos mismos versos o bien aquella otra de "Otseña" ahora que traducidos dicen: "Lávate esa mancha, oh patria!. Mas no con lágrimas las laves, sino con sangre". Eleizalde en su prólogo euskérico al libro *Olerkijak*, dice de estas que *son de gizonezko.* Y la expresión vasca es tan jugosa: tan sabrosa es, gracias al sufijo material, que es difícil dar una idea castellana de ella, como no sea diciendo que los versos de Sabino están hechos de carne y de sangre y de hueso de varón" [148].

Beraz, eta tradizioz gizonezkoen sentimentuen adierazpen neurtua, biguntasunik eta gehiegikeriarik gabearen eredua goraipatzen ari da Lizardi iruzkin hauetan. Sentimenduak neurtua eta eutsia izanik, "vigor", indar berezia biltzen du, intentsitate berezia du, Lizardiren ustez.

3.2.3.1. Sentimentala bai, sentimentalismoa ez

Ez du sentimentuaren errenuntzia egiten, gizonezkoek ohi duten moduan, era neurtuan eta eutsian adierazteak, sentimentu horren indarra eta intentsitate handia adieraztea bilatzen baizik ez dihardu.

Lauaxetaren lehen liburuari buruzko iruzkina, "Rumbos Nuevos" (I) iruzkina iritzi honen froga dugu. Lizardik maitasunari buruzko olerkiak kritikatzen ditu bereziki "biguntasun" gehiegi, sentimentalismo gehiegi nabaritzen du:

> "Hay piezas donde se advierte un sentimiento profundo y de buena ley; pero con frecuencia degenera en sentimentalismo, como he dicho, y en gran parte de la sección amatoria me parece algo artificioso" [149]

Lauaxetaren liburuari eskaini zion bigarren artikuluan Lizardik, iritzi orokor horiez gain, zenbaitetan halako maitasun olerki batean duen "estilo, con exceso lacrimoso para mí" gaitzesten du; beste batean berriz, "Gabeko irrintzija" izeneko olerkiari buruz, zera dio,

> "...describe acertadamente al principio como para inclinarse luego a *ese sentimentalismo demasiado "emeegia"* -por decirlo de algún modo- a que tan profuso es nuestro Lauaxeta en una parte importante de su producción" [150].

Lauaxetaren olerkien "eme"tasun horrek biguintasun gehiegia, negarberatasuna adierazi nahi dute, eta aurreko aipamenekin alderatuz gero, iritzi berberari heldurik dirauela ikusten da: sentimendua "gizonezko"ena, eutsia, intentsoa, indarduna behar da, ez negartia edo emeegia.

Identifikazio honek, sentimenduen adierazpenean jarri behar den galbahea erromantikoen gisako sentimendu uholdearen estetikarekiko gaitsezpena da, funtsean, erromantizismoak eraginiko olerkigintzaren gehiegizko sentiberatasun nostalgiko eta hitsarekiko gaitsespena.

Horregatik egiten dio Lizardik Lauaxetari sendotasunaren gomendioa "Rumbos Nuevos" iruzkinean:

---

147 LIZARDI, X.; "De nuestro manzano en flor" in *El día*, 1930-7-9, 2. or.; *K-L* 313. or.

148 LIZARDI, X.; "Sabino Poeta" in *Euzkadi*, 1931-11-25, 1. or.; *K-L* 346-347. or.

149 LIZARDI, X.; "Rumbos nuevos" (II) in *Euzkadi*, 1931-12-17, 1 or.; *K-L* 359. or.

150 LIZARDI, X.; "Rumbos Nuevos" (II) in *Euzkadi*, 1931-12-30, 1-3. or.; *K-L* 358. or.

"Cierto es que la tristeza puede dar lugar a bellas obras; y es el propio poeta comentado quien se encarga de demostrárnoslo, pero si adquiriera mayor reciedumbre en el sentir, su obra ganaría aún en los casos en que exprese dolor" [151]

Lizardiren iritziz, sentimentalismoaren gehiegikerien aurkakoa ez da intelektualismoa, ez du Lizardik beste muturra aholkatzen; olerki landua, ausnartua, eta bitxitua baizik. Nolabait adieraztearren, sentimentalismo gehiegikeriaz Lizardik gaitzesten duena ez da sentimendua bera, sentimentuaren adierazpen nabariegia eta zuzena baizik, inspirazioaren izenean, sentimendua den oro urre gorri delakoan jaulkitzearen irizpidea da ukatu nahi duena.

Jokin Zaitegik 1932ko azilaren 14ean eginiko zorion-agur eta iritzi-eskaerazko gutunari erantzunez Lizardik funtsezkoa den sentimentuaren adierazpenari nolako galbaheratze lana egin behar zaion azaltzen du. Begiek ikusi eta bihotzak sentitzen dutena da funtsezko olerki-gaia baina buruak, eta artistaren teknikak behar adina igurtzi, orraztu eta ikutu eman behar dizkio azkenean belarriari atseginenik zaion taxua eman arte.

"Biotzeko olerkiak bear duan barne ixuria ta goxotasuna ba dezu; baita irudimenik aski; beraz, ezpal-jatorrekoa iruditzen zatzait.

Aolku bat eman nai dizut: nere aburuz, zure lan oietan neurtitz zabarrak edo erderaz "prosaísmos" esango nukena aurkitzen da bear baño maizago. Ots: olerkari-arnasa izanik, iruditzen zait lanari ez diozula ekiten bear aña astiz, biotzean dezuna laisterregi jalkitzen dezula, ots, neurtitza aski-landu-gabe, bitxitu gabe.

Baditeke ori nere iruditu bat besterik ez izatea: *zenbaitek utsartetzat jotzen didate; baña, nere iritziz, lirikan beintzat neurtitzak bitxia bezala bear du izan, geldiro ausnartua, norbere belarriari alik atsegin geienik eman arteraño.*

Nere aolkua auxe da, beraz; *olerki-gaia ongi ausnartu lenik, eta gero, geldi-geldiro, yalki, neurtitzak al dan osoen eta pitxien osatuz...*" [152]

3.2.4. Sentimendu neurtua Lizardiren kanon estetikoaren osagarri

Lizardik komentatzen ari den autoreetan aurkitzen duen sentimentu neurtuaren eta eutsiaren iturria, "sophrosyne" jarrera horren eredua, zer dela eta jo ote zuen hain funtsezkotzat?. Esan duenaren arabera, estilo negartiak ez zituen gogoko, eta lehen-minez dagoen Werther erromantiko malko-jario izateaz salatu zutenean ironiaz hartu zuen. "Gizonezko" sentimendu-era ito hau euskaldunaren izateko eraren adierazmodu jatorrena zelakoan hobetsi bide zuen, bereziki euskalduna eta modernoa izatea nahi zuen kanon estetikoaren adieraz-moldetzat.

3.2.4.1. Umorearen funtzioa

Beste aldetik, berriz, esana dugu Lizardik bere buruaz "ideia baino sentimendu gehiago" zituela aitortzen zuela. Hain zuzen ere, bere sentimenduez lasaitasunez dihardu artikuluetako askotan eta baita olerkietan ere; esate baterako, 1929-2-24ko *Euzkadi* egunkarian argitaratu zuen "Tristezas de un jocoso sentimental" izenburua egoki doakio berari gehienetan.

Sentimentalak, eta oso ere sentimentalak dira gaztetango maitasun olerki gehienak. Gerora maitasunaren aipamena oso zeharka bakarrik agertzen bada ere, 1917-20 bitarteko olerkietan gairik

---

151 *Ibidem.*, 359. or.

152 Jokin Zaitiegiri Lizardik, 1932-12-14ean, in *Jokin Zaitegi*, Izarra, Arrasate, 1981, 50. or.

erabiliena da, batzuetan erromantiko berankorren tankeran, bazterrean utziriko maitalearen mingostasunak adieraziz, eta beste zenbaitetan, Bilintxen tankerako maitasun eta irri-bertsoak eginez.

Gai aldatzeak, eta batez ere, helduaroan sentimentuen adierazpen libre eta erromantikoari jarririko hesi eta are galbahearen jatorria, pertsonala izan daiteke, biografian azalduriko esperientzia latzak sentimenduak kontrolatzen eta oinazea eramaten erakutsi bide zioten, baina eman nahi zuen ereduaren zerbitzuan, sortu nahi zuen kanon estetiko euskaldunaren zerbitzuan harturiko jarrera ere bai.

3.2.4.2. Berarizko jarrera

Horixe zen ziurrenik Lizardik berariz erakutsi nahi zuen irudia, ikusi ditugun autoreei buruzko iruzkinetan goraipatzen zuen sendotasuna eta gizonezkotasuna. Orixek ere Lizardiren azken olerkien argitaralpena zela eta *Yakintza*n argitaraturiko artikuluan "Lizardiren azken olerkiak" delakoan sendotasun horren ispilua erakusten digu. Orixek eta Lizardik elkarren balorapenaren antzekoa egiten dute, sentimenduak neurtuki adierazteak, gordetzeak, poz edo oinaze adierazpen gehiegizkorik ez egin arren, irakurlearengan eragitea balore positibotzat aurkezten da, sentimenduaren benetakotasunaren frogagarri gisa.

Ohar gakizkion ordea, balore hori azpimarratzean Lizardik egin duen identifikazio bati, hots, Orixeren "Bil nadin barnera" aipatzean esan duena bera dela Orixek hemen Lizardik jasorikoari. Lizardik "ese sentimiento que podríamos llamar de estilo vasco" azpimarratzen du eta Orixek ere Lizardiren bihotza euskalduna zela esan du arestian. Beraz, gizonezkoen sentimenduen adierazpen neurtuarekin ez ezik, euskaldun izateko erarekin, euskal arimaren berezko tankerarekin ere identifikatzen dute.

Aitzolek ere, Lizardiz 1933an *Yakintza*n argitaratu zuen "El poeta Jose María de Agirre" deritzan artikuluan puntu hau bera azpimarratzen du, hain zuzen ere Lizardiren kasuan, Orixerenean ez bezala, berarizko jarrera zela adieraziz:

> "Corazón y ojos necesita el poeta para recoger flores de poesía. Flores que brotan en el mismo corazón y en las niñas de los ojos. Y las que así brotaron a Lizardi, las ordenó en su librito. *Se dice que el vasco no es sentimentalista. Es parco para expresar sus más íntimos sentimientos.* No por eso deja el euskaldun de sentir muy honda e intensamente. Fué preocupación de Lizardi el imprimir a sus poesías la idiosincrasia del espiritu vasco. Por esta razón, apenas en ella se deja paso al sentimentalismo. Sí, hay en algunas intensidad en el dolor y en el amor. Pero es dolor del que no llora y es amor del que apenas suspira. Debido a esto puede decirse que en la poesía de Lizardi domina la fantasía y el pensamiento reflexivo sobre el sentimiento" [153].

Aitzolek, Lizardiren idazlanaren gorabeherak hain ongi ezagutzen zituenak -gehienetan Lizardiren idazlana ezagutzeko datu zuzen eta garrantzitsuak eskaintzen ditu-, irizpide hau bere buruari inposatua, euskalduntasunari hobeki egokitzen zitzaiolakoan hautatua zuela erakusten digu. Nolabait, berezko zuen isuri sentimentalari hesiak jarriz; askotan sentimendua adierazteko, haren gozotasunari edo mingostasunari gehiegizko iritzitakoan, ironiaren neutralizazio dohaiez baliatuz.

Sentimentala izanik ere, jokosoa ere bai bait zen, eta gai sakonen adierazpenean sentimentu isuria kontrolatuki adieraztean idazle klasikoen izpiritualitatea edo adierazmolde euskaldunaz egitea iritxi nahi badu ere, askotan, sentimenduaren matizazioa ironiaz lagundurik egindakoan Lizardiren nortasunaren alderdi garrantzitsu baten benetako aurpegia ikus daiteke.

---

153 AITZOL; "El poeta Jose María de Agirre", 170. or.

3.2.4.3. Lizardiren kanon estetikoan sentimenduaren definizioa

Lizardik bere idazlan nagusia burutu zuen garaian, *Biotz Begietan* liburuan dauden olerki nagusienak egitean begien aurrean izan zuen irizpide nagusienetako bat dugu sentimenduekiko hau.

Lehenik, euskal izpiritua edo arimaren zigilua duen olerkigintza sortzen ari zirela hartu behar da gogoan, eta garai hartan egia onartua zenaren ereduari ere lotu zitzaiola, sentimenduen adierazpenean lotu, neurtu eta eutsia euskal arima edo nortasun berezkoa zela onartuz.

Erromantikoek sentimenduari egozten zioten intentsitatea ukatu gabe, inbokazio hutsalik eta aiene ozenik gabe sentimendua komunikatzea lortzea zeharka eta iradokizunen bitartez egiten du, zenbaitetan sentimenduaren emetasuna ironiaren bidez zuzenduz ere bai. Ez bait dagokio euskal arimari bestelako tonurik edo erretorikarik erabiltzea, bere ustez.

Aldi berean esan liteke, irizpide hau Lizardik bere buruari ezarririko eredu bat dugula, euskal olerkigintza sortzean, euskal izpirituaren taxuerari egokituko zitzaion estiloa sortzean, beharrezkotzat jo eta berariz hautaturiko irizpidea dela hau, klasikoen kanonetan edo bilakaera pertsonalean oinarriturikoa baino areago [154].

Hirugarrenik, berriz, bide hau hautatzean Lizardik berezko zuen joera sentimentala hezi egin bide zuen, ironia eta umorearen laguntzaz sarritan hartzen duen arnasaldiak sentimenduaren adierazbide ohargabeko bilakatzen direlarik.

3.2.5. Inspirazioa eta perfekzio teknikoa

Intektualismoaren eta sentiberatasunaren poloen arteko oreka bilaketan Lizardik hautaturiko ereduan isladatzen da, aldi berean, inspirazioari eta olerkariaren teknikaren garrantziari buruzko irizpidea. Honetan ere, Lizardik modernitatearen aldeko hautapena egiten du, erromantizismoak ekarririko olerkariaren inspirazioaren kontzeptu mistikoaren aldean.

Olerti-gaia ongi hausnartu ondoren, lirikan diharduenak olerki-gaia ongi bitxitu eta landu beharra azpimarratu zion Lizardik Zaitegiri, ikusia dugunez. Arazo teknikoak, olerkiari ematen zaion taxueraz bereziki axolatu beharra azpimarratu zion, nahiz eta azken finean olerkariak berak bere belarriarentzat atseginen den eran moldatu arte igurtzi behar duen.

"Belarriari" hots, olerkiaren alderdi fonetikoari, sonoroari, erritmikoari goren mailako garrantzia ematen diolarik, bereziki bere garaikoa duen modernisten musikalitatearen lehentasun-irizpidetzat aipatuz Lizardik Verlainen "toujour la musique" bere egiten duela erakusten du.

Azterketaren maila fonikoan azpimarratuko duguna iragartzen digun arren, orain olerkariak erabili beharreko baliapide teknikoen aipamen zehatza azpimarratzera joko dugu, soil-soilik.

Lizardik olerkariaren betebeharraz eta izaeraz kontzeptu idealista duen arren, ez du inspirazioaren kontzeptu erromantikoa bere egiten. Esan liteke olerkiaren lantze zehatz-mehatz eta errukigabekoan zorroztasun handiz ere jokatzen duela, olerkigintza modernoan onarturiko arau klasikoari jarraikiz.

Aitzolek hitzez-hitz esaten du Lizardik

---

154 Aitzolek sentimenduarekiko jokabidea nahiz kontzeptismoa euskal arimaren adierazmoduaren ezaugarri "erabaki" edo "berarizkotzat" azaltzen ditu.

"*Parco ha sido también* el vasco en sus palabras. Por lo mismo el genio del euskera tiende de por sí al laconismo en la expresión: densidad en el pensamiento, sobriedad en la forma. *De esta faceta psicológica del alma vasca hizo Lizardi norma de su poesía.* Usa el poeta las palabras precisas, pero hace que ellas sean las más apropiadas, las más adecuadas. Es el poeta del laconismo en la forma y de la densidad en el pensamiento y en la imagen". (AITZOL in "El poeta...", 70-71. or.)

"Severo consigo mismo, tenía como lema de su actuación literaria el buscar la perfección en sus producciones. Era cuidadosísimo en la forma del lenguaje de sus versos y se afanaba, constantemente, por hallar concepciones nuevas y originales para las ideas que deseaba expresar" [155].

Lizardik duen perfekzio teknikoaren aldetiko larderia, Lauaxetaren eta Zaitegiren idazlanei eginiko ohar zorrotzek frogatzen dute; Espainiako hogeitazazpiko belaunaldikoek zuten ikuskera bera zuela nabari daiteke.

Federico García Lorcak inork baino hobeki esana utzi zuen bera "Jainkoari(edo etsaiari) eskerrak zela poeta, baina ez gutxiago teknikari esker eta saiatuaren poderioz" [156].

Lizardik Jokin Zaitegiri behar baino "bertso zabar" gehiago sarrerazi izana aurpegiratzen zion, eta asti gehiagoz iharduteko, olerkiak "igurtzi" eta "orrazten" gehiago saiatzeko eskatzen zion. Olertiak, lirikak berezkoa duen "bitxitasun"ak, hots, harri bitxiak bezala, guztiz ongi pulitua egoteak ematen bait dio bere eitea, bere ustez.

Lauaxetari eginiko kritikek berriz, arlo zabalagora joko dute, Lizardik oker gramatikalak eta ortografikoak ez ezik, bertso-neurketan eginiko okerrak, Sabino Aranaren arauak betetzerakoa eginiko erruak zuzentzeko eskatzen dio. Zuzenketa horiek egitean ematen duen justifikapenak ere argia eskaintzen digu:

"Y ahora voy a descender a minucias. Cuando se ha procurado hablar con honradez de lo esencial, por qué no llegarse también a lo accesorio *en un afán de integral perfeccionamiento.*

Abundando en la idea de que *el verso lírico debe aspirar a concentrar en sí el mayor grado posible de belleza* conviene que ponga usted atención ..." [157]

Garbi dago perfekzioa eta edertasuna direla Lizardiren helburu nagusiak lirikan, eta horretarako alderdi teknikoek ere bereziki zainduak izan behar dutela.

Puntu honi begiratzen badiogu, Lizardik klasikoen irizpidea den teknikaren balorapenean, bertsoan konbentzionala denaren balorapenean klasikoen irizpideetatik gertuago dago erromantikoengandik baino. Olerkariak ezpal-jatorrekoa behar du, Zaitegiri esaten dion moduan, baina gero saiatu egin beharra dauka, aspertu gabe ihardun olerkia bitxitu arte.

Formalismotzat ere mintzatu ahal izango genuke Lizardik berak bere olerkietan, eta bereziki informazio gehienik dugun *Biotz-Begietan* liburuaren osaketan izaniko ardura formalari ohartzen bagatzaizkio.

Esate baterako, "Lizardiren eskutitzak" eranskinean jasoak ditugun liburuaren argitaratzaile izan zen Verdes Atxirica eta Lizardiren arteko gutunek ardura formalista handia zuela jakinerazten digute. Liburua nolakoa izatea nahi duen irizpide guztiz zehatza du Lizardik aspalditik, "Erdi-Bearra" zeritzan artikuluaren amaieran deskribatzen duen era berean [158].

Ideia finko horri eutsirik ihardun zuen 1932an bere liburuaren prestakuntzan. Azalaren kolore, letren tamaina, paperaren kalitateaz, bere izenpearen taxueraz, etabar., hainbat xehetasun aurki daitezke Lizardik Verdesi bidaliriko gutunetan...eta, halere, maiatzaren 10ean bidali zioten liburuak erabat zapuztu zuen. Hurrengo eguneko gutunean, beste edizio bat prestatzeko eskatu zion Verdes-i berak nahi duen bezalakoa egin arte.

---

155 AITZOL; "El poeta Jose María Agirre...", 168-169. or.

156 "Entre una concepción cuasi-mística de la poesía una lucidez rigurosa en la elaboración del poema" LAZARO, F.-TUSON, V.; *Literatura del siglo XX*, Anaya, Madrid, 1989, 222 or.

157 LIZARDI, X.; "Rumbos Nuevos" (II) in *Euzkadi*, 1931-12-30, 1-3. or.; *K-L* 360. or.

158 LIZARDI, X.; "Erdi-bearra" in *Euzkadi*, 1930-5-4, 5. or.; *K-L* 303. or.

Ekainaren 3an oraindik zuzenketak egiten ari zaio, eta Estatutuaren aldeko kanpainaren abarrotsek bere liburuaren aurkezpenerako prestaturik duen kanpainak oihartzun gutxi izango duen beldur da. Baina azkenean, Ekainaren 17an liburua banatzen diharduela ikusten dugu. Amaitu da hainbat kezka sortu dizkion liburuaren argitaralpena. Liburuaren itxuran ere perfekzioa bilatu du Lizardik, barruko olerkiek ez ezik, liburukiak berak ere bitxitua behar bait du izan.

3.3. ESTETIKA TRINKOZALEAREN OINARRI TEORIKOAK

3.3.0. Sarrera

"Eusko Ikaskuntzaren bostgarren batzarra" hitzaldian ditu formulatuak Lizardik arteari buruz eta, bereziki, euskal arteari buruz dituen irizpide nagusienetako batzuk; han dago jasoa era berean Lizardirentzat euskal-gogamena, euskal arimaren nondik norakoa ezagutzeko dugun tresnarik hoberena euskara bera dugulako iritzia. Euskal arima euskal hizkuntzaren bidez adierazten denez, berak ematen dio taxuera berezia. Beraz, haren taxueraren tankera edo berezko joerari erreparatu beharra dago euskal arimaren nortasunaren berri izateko.

Horren ondorio da, Aitzolek 1933ko "El poeta Jose María Agirre" deritzan artikuluan esaten duenez, Lizardik euskal hizkuntzaren berezko moldaketari erreparatu ondoren, hizkuntza honetan nabari den aglutinazio, edo trinkozaletasunerako joera irizpide estetikotzat hartu izana.

3.3.1. Euskararen nortasun linguistikoa eta euskal arima

Lizardiren ustez, "euskotarren erti-iturbururik naroena" [159] euskal hizkuntza bera dugu, ordurarte euskaldunek berek ezetsiena izan duten hura. Lizardirentzat euskal hizkuntza mintzabide hutsa baino gehiago da, ez da euskal nazioak duen berezko hizkuntza soilik, euskal arimak duen adierazbiderik fidelena ere bada, euskal arimari tankera berezia emaniko mintzaira. Horregatik euskal hizkuntzaz mintzo delarik,

> "Asaba zaarren gogoaz elkartzen gaituan urrezko kate zaarra, etzazute, arren emakumeok, esku lazatankor oiekin betirako eten ta apurtu" [160].

Beraz, euskal hizkuntzaz diharduelarik "urrezko kate zaarra"ren metafora erabiltzean, ez da sinboloaz bakarrik ari, euskal hizkuntza ez da guretzat baliogarri gure asabek mintzatzen zuten hizkuntza bera izanik haiekin lotzen gaituelako, kate horrek haien arimaren muinaren ondarea ekartzen digulako, euskal arima adierazbide izanik hura ezagutzeko aukera eskaintzen digulako. Lizardirentzat euskararen sakoneko egitura jatorrek, euskarak berezkoenak dituen egitura morfologiko eta sintaktikoek balore berezia dute, euskal psikologiaren adierazle jator bait dira.

Horregatik aitortzen dio Lauaxetari bera ere ezinean aritzen dela askotan zerbait adierazterakoan urre gorrizko filoiaren bila, esamolde egokienaren bila, hor dagoela jakin arren, aurkitu ezinik. Ezintasun hori euskaldun berri izateari egozten diola dirudi.

> "Y yo (...) debo decirle, con toda sinceridad, que encuentro admirable su esfuerzo renovador vivificador, creador de formas y que si con igual franqueza, expongo mi opinión de que *no da con el filón de oro que todos hemos presentido y que tantas veces, al querer expresar algo, hemos en vano buscado angustiosamente; abrigo en cambio, no la esperanza sino la seguridad de que esa voluntad todo nervio de ese*

159 LIZARDI, X.; "Eusko Ikaskuntzaren bostgarren batzarra" in *Itz-Lauz*, 1972, 118. or.; K-L 198. or.

160 LIZARDI, X.; "Arrasateko itzaldia", *Euskeltzaleak*, 1930-7-30; *K-L* 274. or.

casi-niño y casi euskaldunberri ha de oradar, en nuevos ensayos, la corteza áspera hasta dar con la corriente ubérrima que corre por el alma del idioma y entregarse totalmente a ella"[161].

Horregatik, *Asaba zaarren baratza* olerkian, hots euskal arbasoen eremua, haien espazioaren mintzabidea den euskara ez dela galdu esateko, "lokarri zaarra"ren metafora darabil berriro,

Leena zegoen oraiñaz
ele gozoka. Bitzuok
mintzo beraz ziarduten.
Ene asaben lokarri zaarra,
Yaunari zor, etzan eten!"
(AZB 86-90, 195)

Lokarriak eten gabe irauteak ematen dio bizitasuna espazio horri, euskal baratza horri, bera da uriturri, bizi-iturri.

Baina nolakoa da euskal hizkuntzaren eite bereziak egituratu duen euskal arima? Pizkunde arokoek badute euskaldun nortasunaren irudi jakin bat, gaurko begiez topikotzat jo daitekeena, baina —Lizardiren kasuan— aintzat hartu beharrekoa den kontzeptua da, derrigorrez, haren poetikaren oinarrian bait dago.

Aitzolek esan duenez, Lizardiren garaikoek uste dute euskalduna hitz gutxikoa dela, eta horregatik, euskarak berak pentsamentuak hitz gutxiz adierazteko joera duela; pentsamentuan trinko, labur, eta formatan berriz, sobrioa, apainketa eta zurikeria gutxikoa da. Hauxe da, Aitzolek dioenez, Lizardik bere olerkiaren ardatz modura hautatu zuen euskal nortasunaren ezaugarria. Euskaran sakonduz, ikerketa psikologikoak eta gramatikalak egiten saiatu zen hizkuntzak adierazten duen euskal nortasunari buruz.

Honen ondorioz ohartu bide zen, esate baterako, ideia literarioen artean aipaturik ez ezik, praktikan aztertuko dugun mintzo elertitsuaren ezaugarri morfosintaktiko bereziez: hala nola, euskal hizkuntzak duen taxuera trinkozaleak gramatikalariek hizkuntza aglutinantea dela esanez deskribatzen duten eite berezia duela, hitz konposaketa eta eratorketa morfologia alorrean garapen handia duela, menpeko perpausen adierazleak berak ere atzizkiak direla, esaldi barruko sintagmen funtzioak ere deklinabidearen bidez egiten direla, eta guzti honek euskal hizkuntzari inguruko hizkuntza erromanikoei baino aglutinazio maila handiagoa ematen diola.

3.3.2. Kontzeptismoa

Kontzeptismoari buruzko irizpide hau, aurreko atalean aipatu dugun sentimendu neurtuaren irizpidearekin, errealitatearekiko atxekipenarenarekin eta musikalitatearen lehentasunezko irizpidearekin batera, Lizardiren poetikaren oinarri aitortu sendoenetako bat da.

Irizpide hori nola joan den osatzen, eta pixkanaka euskal hizkuntzaren berezko eitetzat jotzen duen hori euskal estetikaren ardatzetako bat nola eta zergatik bilakatzen duen azaldu behar da. Estetika kontzeptistarako lerratze honetan, Lizardigan era bateko baino faktore gehiagok eragin bide zuten. Nik atal honetan zehar haren artikuluetan isuritako iritzi literarioetan oinarrituz hiru nabarmeneraziko nituzke bereziki.

Lehenik Aitzolek aipatu duena, hots, euskararen berezko ezaugarritzat jo zuela aglutinazioa edo trinkozaletasuna eta sortu nahi zuen eredu estetiko euskaldunaren ardatz gisa hautatu zuela, inguruko hizkuntzen eta herrien "gogo-menpekotasunetik" aska gaitzakeen ezaugarri bereiztaile gisa.

---

161 LIZARDI, X.; "Rumbos nuevos" (I) in *Euzkadi*, 1931-12-17, 1. or.; *K-L* 352. or.

Bigarrenik, sortu nahi duen euskal estetika jatorraren ezaugarritzat ez ezik, lirika kontzeptistaren aldeko ere agertzen da, modan dagoena hauxe dela azpimarratuz, eta euskarak berezko trinkozaletasuna duenez, nortasunik galdu gabe erraztasun osoz abangoardia literarioetan kokatzeko abadagunea duela seinalatuz. Kontzeptismoa, dentsitate poetikoa lirikaren berezko eitearen ezaugarritzat jotzen du, eta honi dagokionez, Espainiako 98ko belaunaldiko zenbait idazleetan, —Baroja, Azorín, Antonio Machado...— erretolika eta farfaila erromantikoaren aurkako erreakzio bera antzeman dakikoke.

Hirugarrenik, berriz, kontzeptisten artean bereziki miresten duen Góngora kulteranoaren nolabaiteko eragina ere aipatu daiteke, 27koen omenaldia eta gongorazaletasunaren bide beretik jo zuelarik.

3.3.2.1. Euskararen kontzeptismo linguistikoa

Kronologikoki hartzen baditugu Lizardik zenbait idazleen laburzaletasunaren inguruan eginiko iruzkinak Orixeren "Don Kixote"ren bederatzigarren atalaren itzulpenari dagokionez esanikoak dira aintzinakoenak, "Traductores de Cervantes" [162].

Argienak eta adierazgarrienak, ordea, Orixeren *Tormesko itsu-mutilla*ri buruzko iruzkinean aurki daitezke. Itzulpenek izan beharreko ezaugarriez diharduelarik, laburzaletasuna, zatiketa eta inpresioa aipatzen ditu.

> "Las dos primeras tienen cierta relación entre sí y se complementan. No gusta el euskera castizo de prodigar adjetivos ni giros de puro ornato: plácele elegir viejas palabras, plenamente sabrosas y servir la idea con las menores complicaciones que sea posible. *Esta noble concisión que transciende a la lengua primitiva,* es gran cualidad de todo traductor, y de un modo especial en el vasco, siempre que no la obtenga a costa de escamotear trozos o matices del original" [163].

Lizardik formulatu duen moduan, bere ustez aintzinako euskarari darion ber-berezko ezaugarria da laburzaletasun hori, sobrietate hori, eta horregatik beragatik, berak sortuko duen kanon estetikoaren ardatz bilakatuko du.

> "Sobrio, fluido, expresivo, quizás a las veces lo supera (al original) suprimiendo hartas redundancias y alguna obscuridad" [164].

Aitzolek ere, Lizardiren argudio hau garatzen du idazle honek euskararen berezko taxuera errekuperatu nahiz kontzeptismora jo zuela azalduz:

> "*La amplificación, la exhuberancia de expresiones, eran sin duda alguna influencia de las lenguas latinas. y tendió a la brevedad, a la concisión.* y no solamente en la expresión de las ideas, procurando la supresión de verbos y palabras, recurriendo al "suplet", o sea, a la forma supletoria, en todo aquello que diera vigor a la forma y no oscureciera la frase, sino que adoptó el criterio de simplificar las mismas palabras y los verbos, quitando a aquellas, en muchas ocasiones, la determinante "a" y la terminación a estos de la forma verbal.
>
> Con todo ello quiso dar una cierta impresión de arcaísmo, pero no por restablecer moldes viejos, sino *porque creyó que por ese camino se iba directamente a imprimir al euskera su peculiar genio sintético y expresivo*" [165].

---

162 LIZARDI, X.; "Traductores de Cervantes" in *Euzkadi*, 1828-7-20, 1. or.; *K-L* 120-122. or.

163 LIZARDI, X.; "Tormesko itsu-mutilla" in *Euzkadi*, 1929-7-17 eta 1927-7-26, 1. or.; *K-L* 236. or.

164 *Ibidem.*; 236. or.

165 AITZOL; "El poeta Jose María..." , 170-171. or.

3.3.2.2. Kontzeptismo literarioa

Lizardik goraipatzen duen bigarren ezaugarria, hots, esaldiak zatikatzearena, euskal hizkuntzaren berezko izaerari dagokiona dela esaten du, ez dituelako euskarak maite esaldi luze, bihurriak, elkarri kateaturiko esaldi amaiezinak.

> "Hay todavía escritores que se empeñan en escribir así en euskera, lo que no presenta ninguna ventaja, pues ni es fácil, ni es claro, *ni*, por añadidura, *está de moda en la literatura actual.*
>
> *Lo que está de moda, precisamente, aún en las lenguas que mas han abusado de la profusión, es la conjunción de esas dos cualidades naturales del euskera (concisión y división), que algún ribete o color habíamos de hallar en él por lo que nos persuadamos, y persuadamos a los demás, de que puede tomar puesto distinguido y honroso en la vanguardia del arte literario contemporáneo, pese a su vetustez, que rebasa todo calendario"* [166].

Hona hemen Lizardiren ideia poetikoen adierazpenetan formulaziorik garbi eta konstanteenetako bat. Lizardik abangoardia literarioan egon beharrari buruz dituen ideiez garatu dugun kontzepzioaren osagarria dugu hemen: euskal hizkuntza, munduko zaharrenetako bat izanik ere, berezko ezaugarriak dituen laburzaletasuna eta banaketa direla medio, literaturaren abangoardietan modan dauden estetika kontzeptistetan lehen mailakoen artean egoteko erraztasuna du.

Beraz, Lizardik laburzale eta esaldi sarri ebakiaren aldeko irizpidea izatearen funtsezko bi arrazoiak hauek dira: alde batetik, euskal hizkuntzari berez dagokion ezaugarria delako bere ustez, eta bestetik, literatura modernoan abangoardiazko joerek baloratzen dituzten ezaugarri estetikoak direlako.

Orixe beraren "Bil nadin barnera..." olerkiaren iruzkina egiten duen "De nuestro manzano en flor" [167] artikuluan berriro ere Orixeren mintzaira poetikoaren "indar expresiboa" azpimarratzen du, euskal hizkuntza menderatzen duen bezala menderaturik, "espresibitate txinpartak" ateratzen dizkiola esaten du.

"El futuro premio Kirikiño" deritzan 1928ko artikuluak erakus liezaguke Lizardik ez duela laburzaletasunaren gaia "Orixe"ren lanei loturiko artikuluetan bakarrik aipatzen.

Bere ideia estetikoetan irizpide nagusienetako bat bilakatua du 1928rako. Esaldi laburra, trinkoa bezain ebakia hobesterakoan, euskal hizkuntzari hobekien egokitzen zaiona dela aipatzen du beti:

> "Sea la frase breve y nítida, como conviene al conciso genio del idioma empleado, y *sacrifíquese a la mayor claridad todo retorcimiento, todo giro excesivamente retórico*, todo vocablo difícil que permita sustituto mas asequible a los no iniciados" [168].

Beraz, "esta noble concisión que transciende a la lengua primitiva" esanez, euskal hizkuntza zaharraren ezaugarri berezkotasunaren arrazoiari, modan egotearena erantsi dio, oraingoan erretorika eta bihurrikeriak baztertzea hobesten du.

Funtsean, "Tormesko..." itzulpenean azpimarratu dituen bi ezaugarriei eusten die aurrerantzean ere, hots, laburzaletasunari eta esaldi sarri-ebaki eta zuzenari. Irizpide hauek konstante bilakatu ziren bere iruzkin literarioetan.

"Sabin poeta" deritzan artikuluan ere azpimarratzen dituen kualitateen artean ageri zaigu laburzaletasuna:

---

166 LIZARDI, X.; "Tormesko itsu-mutila" in *Euzkadi*, 1929-6-11; *K-L* 236. or.

167 LIZARDI, X.; "De nuestro manzano en flor" in *El Día* 1930-7-9, 2. or.; K-L 311-314. or.

168 LIZARDI, X.; "El futuro premio" in *Euzkadi*, 1928-10-12, 1. or.; *K-L* 139. or.

"Nada digamos de *la concisión* que está bien patente en los ejemplos arriba aducidos y en general en toda la obra poética de Arana Goiri" [169].

Laburzaletasunaren teorizazioan, literatur zaletasun pertsonalak, garaiko literaturan bere ustez "modan" zeuden joera literarioak eta hizkuntzaren nortasunari buruzko irizpideak bateginik, euskaraz abangoardiazko literatura egiteko osatua duen kanon estetikoaren formulazioa egiten du "Rumbos nuevos" deritzen 1931ko artikuluetan. Azpimarratu behar da, gainera, ez duela, eredu pertsonaltzat soilik aurkezten, euskal lirikarentzako eredu edo kanon gisa baizik.

"Rumbos Nuevos" izeneko bigarren artikuluan utzi zuen adierazirik euskal hizkuntzaren berezko trinkozaletasuna hizkuntzaren egiazko izpirituaren ezaugarri nagusi zela, eta lirikaren dentsitate expresiboa ere, hots, kontzeptismo literarioa hizkuntzaren laburtzaletasunarekin bat egiten zuela.

"En cuanto al ropaje de sus conceptos poéticos —ya se lo indiqué en mi primer escrito— creo que debe usted esforzarse en alcanzar cada vez *una expresión más justa y más densamente vasca*; m e *parece evidente que si en algo ha de ser superior el verso lírico* a la prosa no será por lo que todo verso tiene inevitablemente de convencional, sino *por lo que ayuda a extraer del lenguaje el máximo de sustancia expresiva. (...)* ... y que, en un género u otro, el espíritu auténtico del idioma tiende a la densidad expresiva en grado muy superior al romance, que tanto ha tenido que pesar sobre nosotros para hacernos agradable lo redondeado y relamido" [170].

Hain zuzen ere, Lauaxetari eginiko iruzkinaren bigarren zatian aurkitzen da azaldurik hizkuntzaren "corriente ubérrima" hori olerkariak aurkitu eta hari emanik aritu behar duela Lizardiren ustez. Irizpide honen ondorio da Lauaxetaren olerkietako bati buruz, "no plenamente lograda en punto a hilación sobria, ni a expresividad", beste bati buruz, "corta e incompleta de expresión; como en algunas otras la clave romance da cosa más ligada y comprensible que el original" esatea. Lizardik garrantzi berezia ematen bait dio puntu honi, euskal lirikari berezko duen, funts-funtsezko duen zerbaitetan hutsegitea dela iruditzen zaio.

Beraz, laburzaletasuna —hasieran euskal hizkuntzaren morfosintaxiaren berezitasun bat besterik ez dena— euskal estetika bereziaren ardatza bilakatzearen azken arrazoia inguruko hizkuntzek euskal idazleei erantsi dieten "lo redondeado y relamido" delakoaren gustua deserrotu eta euskal hizkuntzaren benetako izpirituari dagokion literatura egitea da. Euskararen aintzinako eta berezko eitea eta modernotasuna, modan dauden joera literarioak elkartzeko abadagunea suertatu zaie.

Baina euskal hizkuntza literario modernoak, gaztelaniaren eraginez, ezaugarri hori ahuldurik du; esaldi luze bihurriak, erretorika ponperiatsua eta perifrasiak atseginago izatera eraman ditu idazleak erromantzeen eraginak.

Horregatik, euskal estetika berezia, euskal izaerari eta euskal hizkuntzaren senari berari hobeki atxekitzen zaion estetika errekuperatzeko helburua du Lizardik. Horregatik, berak esaten ez badu ere, garaikide eta aurreko belaunaldien estetikak eta mintzaira literarioak alde batera utzi zituen.

Zerbait berria asmatzeari ekiten dio tradizioaren ereduak alde batera utzirik. Horregatik jotzen du euskal hizkuntzaren lantze literarioaren lekuko diren aintzinako idazleetara. Errefrau eta atsotitz bildumak, Etxepare, Leizarraga, Axular... Euskal idazle klasikoen lanak ezagutzen ahalegindu zela adierazten digute Lizardiren adiskide izaniko Orixe, Labaien, Markiegi eta Aitzol; estetika eredu kutsatu gabea, inguruko hizkuntzen eraginaren ondorio izango ez zenaren bila zihardueu.

Idazle zaharrengandik ikasirikoa ere ez zuen besterik gabe imitatzera jo, bere irizpidearen arabera moldatu zuen, Aitzolek esan zuen moduan, erabat borobiltzeko astirik izan ez zuen "kanon" berri bat sortu nahiz.

---

169 LIZARDI, X.; "Sabino poeta" in *Euzkadi*, 1932-11-25, 1. or.; *K-L* 346. or.

170 LIZARDI, X.; "Rumbos Nuevos" (II) in *Euzkadi*, 1931-12-30, 1-3. or.; *K-L* 359-360. or.

Lirikak berezkoa du dentsitate expresiboa, hori da bere ezaugarririk bereziena bere ustez, eta horregatik, arrazoizko da lirika egiten duten autoreak kontzeptistak izatea, hizkuntzari ahalik eta espresibitate txinparta bizienak ateratzen ahalegintzea.

Hauxe da Lizardik egiten duen manifestu kontzeptista. Horregatik, euskarari berez dagokion izaera zaharra izateaz gain, bere estetika berezia gaitzetsi eta gaztelaniaren egituretara hurbilduz, esaldi borobila eta erretorika bihurria hobestera okerbidez joan delako, euskal nortasuna, euskal izpirituaren nortasuna berreskuratzeko eta sendotzeko era bat da hizkuntzaren egitura laburzale eta trinkoetara jotzea.

3.3.2.3. Idazle kontzeptisten zaletasuna

Lizardik bere nortasun literarioaz eta zaletasunez eginiko aipamenak guztiz bakanak dira. Aurki genitzakeen aipamenik zehatzenak "Gramáticas euskéricas" izenburua duen artikuluan daude. Artikulu honetan, hirugarren pertsonaren azpian gordetzen du bere burua.

Bere buruari ematen dizkion deitura edo goitizenak "conceptista"rena eta "Góngora-zalearena" dira:

> "Porque aparte de un mi amigo, inquieto y laureado dramaturgo; de otro amigo mío, versificador impenitente cuanto notabilísimo, y de *un tercero, amigo mío también y de lo mas íntimo, que pare de vez en cuando pequeños engendros merecedores por parte de los patriarcas del idioma, de la reconvención de que escriba mas argi y menos garbi,* no sabía yo que en Irizar..."[171].

Aipatzen dituen hirurak Labaien, Orixe eta Lizardi bera behar dute izan. Izan ere, artikulu horretan aurreraxeago, Labaien eta biak, egunkarietan agertu berria den idazle ezezagunaren bila ikerketetan hasiak direla adierazterakoan, bere burua "saldu" egiten bait du:

> "Tiende esta disgresión a caldear el ánimo del lector poniéndole a tono con la sorpresa que en el ciclillo literario euskérico de Irizar produjo la aparición de un solo golpe de tres nuevos astros, y haciéndole comprender el interés con que *mi amigo el dramaturgo y el otro, el conceptuoso, nos hemos puesto a hacer el sabueso dispuestos, cueste lo que cueste, a dar con esas que casi podríamos presumir crías nuestras desconocidas*" [172].

Bi zati hauetan iluntasuna eta garbizalekeria salatzen dizkioten kontzeptuoso hori, aurreraxeago gongorazale dela ere esaten du: "Luego que se encontró con algunas fuerzas propias, vino la sobrealimentación imprudente: vino a leerse un drama de mi amigo y una poesía gongorina —una en que llamaba lagarto al maíz— del otro;..." (K-L 319. or) Beraz, Aitzolek esanikoari beste zentzu berri bat ere erantsi dakioke.

Aitzolen iruzkinean Lizardik hautatu duen kontzeptismoa euskal hizkuntzaren idiosinkrasiaren joera aintzakotzat hartuz irizpide estetiko bilakatua da, baina Lizardik berak, zaletasun poetiko pertsonaltzat ere aurkezten digu: ez da euskal hizkuntzari dagokion kontzeptismoa bakarrik, olerkigintzan eta lirikan atsegin duen joera kontzeptistak garaikide dituen gongorazalekin zerikusia badu.

Azpimarragarri deritzot beraz, Lizardik euskal hizkuntzari berari dagokion idiosinkrasiaren irizpidea kontzeptismoaren aldeko arrazoitzat izan zezakeela seinalatzeari; baina aldi berean, lirikaz duen kontzeptua poetika kontzeptista baten lekuko ere bada, Lauaxetari esana dion moduan, bere ustez, lirikak berezkoa bait du dentsitate espresiboa, hizkuntzari ahalik eta txinparta espresiborik biziena ateratzea.

---

171 LIZARDI, X.; "Gramáticas euskéricas" in *Euzkadi*, 1930-11-2, 1. or.; *K-L* 318. or.

172 *Ibidem.*; K-L 318. or.

Horrezaz gainera, esaldi luze bihurriak, borobilburiko esaldiak, erretorika handi-maundia ez dagoela modan esaten du, modernoena alderantzizkoa dela, kontzeptismoa, esaldi labur, trinko eta esanguratsua.

Lizardik zeharka aitortu zuen Góngoraren mirespenaren aipamen hau Labaienek *Itz-Lauz* liburuaren sarreran konfirmatzen du: Lizardik gogoko zuela esaten duen bidenabarrezko azalpena baizik ez du egiten, baina ohar bedi, Gongoraren izena, aipatzen duen bakarra izateaz gain, "estetikoi" izatearekin lotzen duela:

> "Ekiñaren ekiñez Axular, Etxepare, Mendiburu, ta abar aztertu zituan. Markiegi'k zer nolako bidetatik ibilli zan esaten digu. Ez da ahaztu bear bere aldi artan euskal literatura arruntkerian eroria zegoala eta astiñaldi aundi baten bearretan. Lizardi'k euskera "aundiki soñekoz" jantzitzeko asmoa zuen gogoko. *Berez "estetikoia" bait zan, Gongora zale ta izkuntza aztertzaille aukerakoa.* Onek barka arazi bear digu iñoiz zerbait illun eta zail aurkitzea. Bestaldetik, euskerari aberastasun berri bat eman diolako" [173].

3.3.2.4. Gongora, 27koak eta Lizardi

Lizardik bereziki zaila den kontzeptismoaren bidetik estilo berri bat asmatzeari ekiten dio, bere gustu pertsonalaren jaierari ohartemanik, tradizioari eta garaiko olerkigintzaren ezaugarri ezagunei jarraitu gabe. Baina aldi berean, Lizardik Góngora gogoko zuela esaten zuen, kontzeptismoaren bidetik jo zuenean, hots, "oldozkunari eta mintzoari dagokionean zorrotz eta labur" izatearen estetika hautatu zuenean, Espainian idazle barrokoarenganako mirespen giroak ere eraginik egin ziola pentsa liteke.

Espainiako barroko garaiko kontzeptisten estetika hartu zuen Lizardik bere kanona osatzeko irizpidetzat, Gongorak korronte horren barruan errepresentatzen duen estetizismoaren bidetik. Ideia elaboratuak hitz gutxitan esatea dute helburutzat kontzeptistek, eta hitzen esanahi bikoitzak, paradojak eta bestelako joku kontzeptualak gogoko dituzte. Ez dute apaingarririk erabiltzen ia; hiztegia laua gehienek, kulteranoek izan ezik, baina esanahi erreferentzia ustegabekoetara zuzendua askotan; sintaxiari dagokionez esaldi motza atsegin dute, lakonismorako joera nabari zaielarik. Lizardi beraren hitzez esateko "densidad expresiva" dute helburutzat [174].

Konzeptismoaren barruan aipatu ohi da kulteranismoa edo gongorismoa. Bide berezitzat, ordea. Edertasun formalak ere garrantzia hartzen du kulteranismoan. Gaia aitzakia hutsa izan daiteke, baina estilo dotoreaz garatzen da: hitz ozenak, efektu sentsorialak, metafora ausartak, perifrasi diztiranteak... Hiztegia kultismoz betea, sintaxia ordena aldatzeko askatasun handikoa, eta gaztelaniari, Imperio handi bateko mintzairari dagokion noblezia eman nahiz, latinaren baliapide sintaktiko eta lexiko kultoaz hornitua. Poesiari hizkuntzaren barruan hizkuntza berezi bat eskaintzeko lehen ahalegina da Gongorarena, eta 27ko belaunaldikoek azken aldarrikapen hau bereganatu zuten batez ere, Dámaso Alonsok "Góngora y la literatura contemporánea" 1927ko lanean, adierazi bezala [175].

Lizardik atsegin duen estetika kontzeptista logikoa da hogeitazazpiko olerkariek hartu zuten bide beretik hartu zuela pentsatzea, eta ez zuzenean, bere gisa, idazle barrokoaren dizdirak erakarrita.

---

173 LABAIEN, A.M.; "Itzaurrea" in *Itz-lauz*, Edili, Donostia, 1972, 6. or.

174 "Una cosa resulta, pues evidente: en el fondo del gongorismo hay siempre una tendencia que tenemos que llamar conceptista. Las definiciones que sitúan conceptismo y gongorismo como dos mundos distintos y contrapuestos son falsas" (89. or.) ALONSO, D.; "Diferencias y semejanzas entre Gongorismo y Conceptismo" (86-93. or.) in *La lengua poética de Góngora*, V, *Obras Completas*, Gredos, Madrid, 1972-75.

175 ALONSO, D.; "Gongora y la literatura contemporánea" in *Obras Completas*, V, 725-770. or.

Puntu eztabaidagarria da hau, ordea. Zertan dago Lizardiren gongorazaletasuna? Lizardik duen Gongoraren ereduaren mirespenak mintzaira poetikoaren autonomia aldarrikatzearen aldetikoa bada, zalantzarik gabea da. Horretan 27koen pareko da. Lizardik ez ditu ordea, 27koek Gongoraren izena aldarrikatzean hiru mendetako historia literarioak bazterturiko giltzarria aldarrikatzeko zituzten arrazoiak. Baina, Dámaso Alonsok dioenez, 1927ko gazteek osatzen duten pizkunde literarioaren gongorazaletasuna ez da haren olerkigintzaren egiazko imitazioan gauzatzen, haren askatasun poetikoaren aldarrikapean baizik.

> "La enumeración que hemos hecho de los principales escritores de la nueva generación y el análisis de sus características, prueban patentemente dos cosas: el conocimiento que de Góngora tienen los jóvenes de hoy y la devoción que le profesan, absolutamente distintos de la ciega y postiza admiración, sin conocimiento verdadero, de los escritores del 1900. Esto de una parte, y de otra, la inexistencia de un influjo directo por lo que se refiere al estilo, a los elementos formales de la lengua poética actual. En todo lo anterior sólo hemos podido señalar un caso de influencia directa en dos composiciones del poeta Alberti. *Frecuentemente la crítica más ignorante ha solido motejar de gongorinos a los jóvenes que hoy representan un renacimiento literario. Lo son por el fervor hacia el poeta de las Soledades y por la intención netamente artística. Pero no por un espíritu de imitación ni aun por coincidencias esenciales*". [176].

Lizardik ere aipatua dugun "Gramáticas euskéricas" artikuluan delako idazle berri horrek bere olerki bat irakurri zuela aipatzean "una poesía gongorina —una en que llamaba lagarto al maíz— del otro" dioenean, Dámaso Alonsok "gongorino" aipatzen duen zentzu honetan darabilela dirudi: ilun, ulerkaitza eta estetizantearen zentzu ironikoan, alegia.

Gongoraren zaletasun hori ironiaz aipatzean, Lizardik bere garaiko literaturan puri-purian zeuden joerekiko harremanetan jartzen du bere burua, eta ez da, ene ustez, halabehar hutsa, "gongorino" hitza aukeratu izana.

Hogeitazazpikoen belaunaldiari berari izena ematen dion gertakaria 1927an Góngorari eskainiriko omenaldia da, izan ere, Sevillan urte horretan ospatu zen Gongoraren hirugarren mendeurrena. Prestakuntzaren inguruko gorabeheretan Alberti, García Lorca, Guillén, Dámaso Alonso eta Gerardo Diego idazleek hartu zuten parte, giroa prestatuz eta omenaldiari zegokion dizdira eman nahiz.

Hogeitazazpikoen artean, ikerlariek diotenaren arabera, Gongorarekiko zaletasunak "perfekzio teknikoaren" garrantzia areagotu egin zuen olerkariengan. Hiru mende lehenago jadanik poesiarentzako hizkuntza berezi bat sortzeari ekin zion idazle honek, garaiko idazleen hizkeratik aldendu egin zen idazle honek, autonomiadun hizkuntza poetikoa osatzea, literaturarako bakarrik balio zuen "azpikodigo" bat sortu zuen, estetizismoaren aldarrikapena egin zuen.

"La lengua poética de Góngora (I parte) [177] izeneko 1932ko Dámaso Alonsoren ikerketak azpimarratzen duen perfekzio teknikoa eta estetizismoaren aldarrikapenak, lirikarako bakarrik izango den mintzaira literarioaren aldarrikapena egiteak argitu egiten du Labaienek Lizardi "estetikoi" eta "gongorazale" zela esatean bi hitz hauek elkartzean adierazi nahi zuenaren zentzua.

Góngora zaletasunak hogeitazazpiko idazleengan eragin formalista izan zuen. Olerkigintzari perfekzio tekniko handia ematea, imaginen alorrean metaforaren nagusitasuna aitortzea, olerkitik osagarri errealak izkutatu eta metaforikoak bakarrik uztea, adimenari zuzenduriko olerkigintza idarokikorra egitea...[178] hauek dira Dámaso Alonsok Góngoraren eragintzat aipatzen dituen joerak.

Zailtasunik gabe antzeman daitezke horiek Lizardiren poetikan. Lizardik duen ikuspuntu orokorrean integratuak daude XX. mende hasierako Espainiako giro literarioaren eragin horiek,

---

176 *Ibidem*, 768. or.

177 ALONSO, D.; "La lengua poética de Góngora" (1932) in *Obras Completas*, V, 9-240. or.

178 ALONSO, D.; *Gongora y la literatura contemporánea* (1932), in *Obras Completas*, V, 727-770. or.

jadanik aipatuak ditugun errealitatearen ikuspuntuarekin, irudien hurbiltasunarekin eta abarrekin bat eginak, kanon estetiko batean. Oso modu pertsonalean bilbaturiko estetika kontzeptista hauxe da Lizardik euskal lirikari zegokiona zela zeritzona.

Beharbada, esan beharko dugu Lizardirengan Gongoraren eragina hogeitazazpikoetan aurkitzen ez den zenbait alderditan ere igarri daitekeela, eta estetikozaletasunean, perfekzio teknikoaren aldetik, nahiz metafora garatuz olerkiaren osagarri errealak haien azpian izkutatzerainoko joeran ez ezik, Lizardik Góngoraren kontzeptismoa ere bereganatzen duela zenbaitetan, kontzeptismoa deskribatzeko erabili diren hitz berberez, hots, "densidad expresiva" delako printzipioa lirikaz zuen kontzeptzio pertsonalaren ardatza eta funtsa dela aitortzeraino.

Ideia poetikoen alorrean ez daiteke, ene ustez, aurrerago jo gongorazaletasun honen mugak norainokoak ote ziren frogatzearen bidean, beraz, azterketa formalari ekiten diogun hurrengo atalerako zeregintzat hartuko dugu Lizardiren mintzaira poetikoaren sorreran kontzeptismo kulteranoak edo gongorazaleak izaniko eredu funtzioa aztertzea.

Harrigarria badirudi ere, Lizardiren olerkigintzari, lirikaren zedarripenari eskainiriko pasarteek literatura manualeetan Espainiako Barroko garaiko kontzeptismoaren irizpide nagusitzat aipatu ohi diren definizioekin bat egiten dute. Hitzez hitzeko definizio kointzidentzia honek egiantza handia du, Lizardiren formazio literarioaren muga akademikoak garaiko batxilergo eta Unibertsitaterako "preparatorio" ikasketak direnez, eta geroagoko irakurketak ez bait zuten historia literarioa edo kritika literarioarekin harreman handirik izan zuenik iradokitzen.

Konparazio baterako, olerkian dentsitate expresiboa bilatu behar dela esatean, hizkuntzaren posibilitateak ahalik eta gehien zukutu behar direla esatean, Espainiako barroko garaiko kontzeptismoaren ezaugarri nagusienetako batzuk bereganatzen ari dela ikusten da, helburu eta asmo ezberdinenetarako erabiliz.

Bestalde, Barroko garaiko olerkigintzak hizkuntzari dagokionez ausardia handia erakusten du Lizardik bezala: hitz berriak sortzen dira, hots-jokoak egiten dira, sintaxiaren ordena hausteak, antitesiak, paradoxak, ustegabeko metaforak erabiltzen dira... Efektua askotan sakontasun handikoa da, baina beste batzuetan esanahia iluntzea ere gertatzen da.

Lizardik hizkuntzaren elaborazio handia egina duela egia aitortua eta ezaguna da. Lizardiren idazlanen inguruko iritziak azaldu zituzten guztiek aipatu zuten puntu hau, era batera edo bestera.

Aitzolek hizkuntzari emaniko taxuera horrek tankera arkaizantea zuela esanez egin zuen, Detxepare gogora arazten zuela esanez, eta ideia poetiko gisa euskal hizkuntzaren berezko trinkozaletasuna irizpide estetiko bilakatu zuela esanez.

Labaienek nolabait, estilo kontzeptistaren beste iturria erakutsi zuen, hots, Gongorarekiko eta Barroko garaiko kontzeptismoarekiko Lizardik zuen zaletasunarena.

Ez dute bi azalpen hauek elkarren aurka egiten. Eta berez, Lizardik bat egiten zituela aitortu ere aitortzen du, oso zeharka bada ere, Orixeren *Tormesko itsu-mutilla*ren itzulpenak duen estilo motz eta adierazkorra oso euskalduna izateaz gain, estetikaren munduan berri-berritzat jotzen dela jasotzen duenean eta hori gure hizkuntzari aurkeztu zaion aukera dela esaten duenean.

Hona hemen bada, Lizardiren ideia poetikoek sakonean duten egituraketa finko eta helduaren beste katanbegietako bat: euskal literaturan abangoardiako lana egin behar da, abangoardiako lan hori garaikide duen joera estetikoak bereganatuz eta euskal hizkuntza zaharra berrituz egingo du.

3.3.3. Kontzeptismoa eta mintzaira poetikoaren berrikuntza

Lizardik azpimarratuak ditugun irizpide poetikoen bidetik, alegia, hizkutzaren gaitasun expresibo guztiak zukutuz eta olerkigintzarako bakarrik izango den hizkuntza, mintzaira bat sortuz ekingo dio berrikuntza prozesuari. Euskal hizkuntzaren "berezko" laburzaletasuna eta esaldia

zatitzeko joera estetiko berriekin bat eginez, bere ustez, euskal literaturak profitatu egin behar duen une ezin-hobea du abangoardia literarioari ekiteko.

Honela, berrikuntza horren bidez, euskaren gaitasun expresiboak mundu modernoan eta literatura garaikidearen panoraman leku bat irabazi dezakeela ikusten du eta kanontzat aurkezten die beste idazleei. Hori da Lizardiren proiektu literario anbiziotsua eta euskal liriko guztiei eredu edo kanon gisa aurkeztu zien kontzeptismoa.

Olerkigintzaren joera kontzeptista hori poesian mamitzeko hautatu zuen hizkuntza literarioak, Lizardiren olerkigintza bereziki zaila bilakatu zuen bai mamiz, bai azalez.

Lizardik, honenbestez agerian dagoenez, berariz ekin zion euskal mintzaira poetikoaren berrikuntzari, ez halako idazle atzerritar baten edo korronte baten jarraitzaile gisa edo ustekabeko senari jarraikiz. Ohartuki eta argitasun handiaz azaltzen dituen bi oinarritan finkatua dago bere berrikuntza: alde batetik, euskal hizkuntza bera, baina zaharra, "dentsitate jator hori darion mintzaira zaharra"ren muinari atxikiz, eta bestetik joera kontzeptista modernoak bere eginez.

Aitzolek 1933an jadanik garbi ikusi zuen Lizardiren asmoa euskal estetikaren kanona sortzea izan zela, eta borobildua ez bazuen ere, itsatsia zegoela jadanik, eredu garbia zela eta jarraigo handia izan zezakeela:

> "No ha podido terminar su obra renovadora. Cuando la había iniciado, Dios se ha complacido en arrebatárnoslo. Pero en los escritores y poetas euskaldunes la influencia de Lizardi es ya notoria, a pesar de su recentísima labor innovadora. Con todo deja marcado un sendero lo suficientemente claro y despejado para que otros lo lleven a feliz término, perfeccionándolo.
>
> Ningún escritor ni antiguo ni contemporáneo, ejercerá la influencia que Lizardi sobre los futuros literatos y poetas. Tales son las innovaciones por él introducidas que contribuirán a remover la savia adormecida del euskera.
>
> Lizardi, ya que la brevedad de su actuación literaria no se lo permitió en vida, llegará a formar escuela peculiar en el futuro. Se entreven las características de la misma. No ha habido tiempo suficiente para estudiar detenidamente las nuevas direcciones marcadas por el poeta zarauztarra. *Los estudios venideros que sobre él se hagan llegarán a formar cánones consagrados de la expresión vasca de la belleza. Las orientaciones impresas por Lizardi permitirán concretar fórmulas estéticas de puro sabor euskeldun*" [179].

Gorasarreetan ohizkoak izaten diren laudorio eta omenetan bereziki aipagarria da Aitzolen artikuluaren amaiera hau, igarle baten hitzak dirudite, bere garaian hain epe laburrean izan zuen eragina ohartzeaz gain, Lizardik euskal hizkuntza literarioari eraginiko berrikuntzaren iraupen luzea antzeman izan balu bezala da; gerora, ordea, eragin horren ondorioak ikusirik, eta batez ere Pizkunde mogimenduaren motor eragile gisa zuen indar eskasak zapuzturik, bide okertzat eta kaltegarritzat jo bazuen ere.

4. LIZARDIREN IDEIA POETIKOEZ ZENBAIT ONDORIO

Lizardiren ideia poetikoak, artikulu eta zenbait olerkietan isladaturik dauden moduan, forma jakinik gabeko konstelazioa osatzen dute. Puntu ugariz osaturiko irudia osatzen dute, eta ikerlarion zoritxarrerako, Lizardik ideia horiek sistematizatu eta elkar-lotzeko ahalegin xume batzuk besterik ez zituen egin.

Hala ere, eta helduaroan argitaraturiko olerkigintza umoak iragartzen duenez, Lizardik bere zeregin poetikoari buruzko ideia garbiak ditu, eta sarritan, nahi genukeen baino azalpen eta justifikazio gutxiago eskeintzen badu ere, ideia horiek elkarrekiko egokitasunean moldatuak daude, orekadun konstelazioa osatzen dute, ideia sare ongi lotua osatzen dute.

---

179 AITZOL; "El poeta Jose María Agirre. "Xabier de Lizardi", 176. or.

Aldez aurretik esan beharrekoa da ordea, Lizardiren ideia poetikoak inongo eskola edo eredu ezagunera ez daitezkeela bil. Autodidakta batek ohi duen sistema gabeziaz, bere intuizioaren helduleku bakarraz, batez ere bere sena poetikari jarraitzen zaion olerkari honek ez du, ez Orixeren ikasketa formazioaren araudi klasikoarekiko atxikimendurik, ez eta Lauaxetak bezalako literatura europear berriaren lehen eskuko ezagutza akadamiko zabalik ere; zehatz-mehatz aipatu zituen frantsesez irakurri zituen zenbait idazle (L. de Besse, Frederi Mistral, Maurize Maeterlink) eta Espainiako literatur giroak kutsatua bide zuen Gongoraganako zaletasuna.

Horregatik, atal honetan banan-banan harilkatzen saiatu garen ideia mataza honetan ez da nabari idazle, prezeptiba edo eskola bakar baten eraginik. Garaiko korronte literario eta mogimendu ezagunetan aurkitzen diren ideietako batzuk bereganatuak dituela ikus daiteke, baina poetikaren inguruko ideia ausnarketa luze-sakonetan ez zuela ihardun ere bai.

Bere ideal estetikoei eta xede literarioei egokitzen zitzaien kanon estetiko bat sortzen ahalegindu zen, irizpide guztiz pertsonaletan oinarrituz, bereganainoko tradizio literarioan haustura nabaria eraginez eta ahozko mintzairatik gertu dagoen mintzaira literarioa baztertuz.

Azterlan honen bigarren parte honetan aztertu ditugun ideia poetikoen azterketaren ondorioak laburbilduko ditugu jarraian, alde batetik ideia nagusienak nabarmenerazteko eta, bestalde, hirugarren parteari ekiteko, hots, Lizardiren poesigintzaren azterketa metriko-fonikoa eta morfo-sintaktikoaren sarrera edo erreferentzia gisa erabili ahal izateko.

Hona hemen Lizardiren ideia poetikoen lerro nagusiak:

ARTEAz Lizardik duen ikusmolde ikuspuntu erlijioso eta filosofikoaren esparruan sortzen da: Izadiak, Naturak edertu-nahi batek joa dirudi eta gizakiok ere Izadi osoan dagoen edertasun horri ohartzen gatzaizkio. Edertasun horren bidez hurbildu asmo dugu natura, Jainkoa edo Maurize Maeterlinkek enigma eta Lizardik "izkutu-izkutuko arrigarria" deitzen duen printzipio eragile horrengana.

Gizakion arte askatasunak mugak ditu, ordea. Herri bakoitzak bere baldintzapenen arauerako artea sortzen du.

Ondorioz, euskal HERRI-ERTIA sortu nahi da, eta horretarako, landu gabea, kultura maila nagusietara iritxi ez den euskalduna bezalako herriak bere literaturan EUSKAL GOGOA adieraztea bilatu behar du, herri gisa nortasuna eta entitatea ematen dion "ezaugarri bereiztaliea" delakoaren adierazpena.

EUSKAL ARIMA edo GOGOA zer-nolakoa den jakin ahal izateko euskal hizkuntza da iker-arlorik hoberena Lizardirentzat. Hizkuntzak moldatzen du herriaren nortasuna, izateko era berezia, psikologia, eta beraz, euskal olerkariak hizkuntzaren indar adierazkorrari heldu beharra dio.

Inguruko kulturen eraginpean desagertzear dagoen euskal nortasunak hizkuntza du "asabaen gogoaz elkartzen gaituan katea edo lokarri zaarra". Horregatik, Euskal Herriak bere buruaren jabe izateko nahitaezkoa du euskal hizkuntzak asaba zaharrengandik ondare gisa jasoriko hizkuntzak, euskal pentsamoldearen adierazbide bakarrak eskaintzen duen informazioa esplizitatzea. Horregatik, guztiz garrantzitsua da euskal hizkuntza erro-errotik ezagutzea eta bere egituraren zoko guztiak ongi aztertzea.

Hizkuntzaren egitura, moldaera eta taxuera bereziak biziki adierazgarriak dira; euskara euskal gizonak duen pentsatzeko moldearen, mundua ikusteko era edo "weltansicht"aren egituratzaile eta adierazbide da, aldi berean.

OLERKARIAk GIZARTEAN duen ZEREGINA bereziki azpimarratzen duen gaia da, nahiz eta olerkariak bere olerkiekiko duen kontrol-maila mugatua dela ere aipatzen den: Olerkariak izkutatu ezin duen, eutsi ezin duen zaletasuna du olerkiak egitekoa.

Lotsagarri eta alferrikakotzat jotzen den zereginean diharduen olerkari IDEALISTAren zereginaz gizartean funtzioa da Lizardik gehienik azaltzen duen alderdia. Bereziki azpimarratzen du

Lizardik olerkariaren idealismoaren eta gizartearen erantzun hotzaren arteko desoreka, gizartea materialista, praktikoa, lurkoia da.

Idazle euskaldunak, olerkariak hiru frontetan egin behar du lan:

a) Euskal herriaren barruan berriz, euskal literaturarekiko, eta azken batean, euskal kulturarekiko atxikimendua sortu behar duen GOI-MAILAKO LITERATURA, euskal "mintzo landu elertitsua" sortu beharra dago.

b) Munduari, eta bereziki intelektual espainiarrei, euskara kultur-gaien mintzabide dela, EUSKARAREN GAITASUN EXPRESIBOAREN FROGANTZA eskaini behar dio idazleak bere lanaren bidez, eta hizkuntza kultoetako literaturaren parean jartzeko moduko literatura sortuz.

d) Euskal literaturaren arloan, literatura berritu beharra dago, ABANGOARDIAKO MAILAN koka gaitzakeen berrikuntza eragin behar zaio euskarari, honela modernitatearen erronkari erantzun positiboa eman ahal izateko.

ABANGOARDIAZKO BERRIKUNTZA horri ekin ahal izateko Lizardik kanon estetiko pertsonal bat eraikitzen du, bere irizpide pertsonal batzuen arauerako estilo "subjetiboa" sortzen du, XIX. mendetikako tradizioarekin hautsiz.

Lizardik sorturiko EUSKAL ESTETIKAREN KANONAren eraikuntza zenbait irizpide literariotan oinarritua dago:

a) POESIA ETA ERREALITATEA. Lizardik errealitatean, ezagutzen duen bizitzaren panoraman bilatzen du erreferentzia bere olerkigintzarako, eta ezaguna, erreala eta are prosaikoa den horretaz, harrigarria, errealitateari balore berria ematen dion ikuskera edo prisma bat hartzen du olerkariak.

Gizarteari zuzenduriko mezua da olerkia, eta errealitate ezagunarekiko erreferentzia seguruari eusten zaion heinean, olerkiaren efektua estetikoa eta irakurtze-unetik aurrera, hausnarketa pertsonalaren, erreflexio sakonaren efektua ere lor lezake.

b) Olerkariak begietan itsatsiriko sentsazioei eta bihotzean sumatuturiko sentimendu eta emozioei lotura emango dien endeleguaren laguntzaz sortzen du olerkia. Ideiek edo endeleguak ala sentimenduak edo intuizioak nagusitu behar duen eztabaidatzen duen auzian, hots, "olerti hutsa"ren INTELEKTUALISMOAren eta SENTIMENTALISMO erromantikoaren arteko tirabiran, Lizardik oreka bilatzen du.

Sentimenduaren errenuntziarik egin gabe, inspirazioaren ekarria, begi-bihotzek atxikirikoa buruak, endeleguak landu beharra dauka, teknika zehatzaren bidez. Aurrenik, gaia ongi hausnartu eta biribildu, gero olerkia bitxitu egin behar da, teknika aldetik perfekzioa bilatu, "edertasunaren bilaketa integrala"ren bidetik. Endeleguak batasuna eman behar dio olerkiari, poetaren teknikak, berriz, edertasun sentsoriala, "belarriari atseginen zaion" tankera.

d) ABANGOARDIAZKO LITERATURAREN BIDETIK EUSKAL GOGOARI datxekion estetika kontzeptismoa da. Lizardiren ustez, euskal hizkuntzak adierazten duen psikologiari ongienik egokitzen zaion estetika KONTZEPTISMOA edo trinkozaletasuna da. Euskal hizkuntzaren berezko nortasunari ongienik egokitzen zaiona.

Kontzeptismoa da bestalde, erromantizismoaren gehiegikeria erretorikoen aurkako erreakzioz, "modan" dagoen joera estetikoa. Erretorikaz zamaturiko poesiaren aurkako erreakzioa sumatzen den joera literarioetan kokatzen da, sentimendu eta sentsazio xumeagoetarako interesa duen eta mintzaira itxuraz soilagoaz autentizitatea bilatzen duen olerkigintzaren esparruan.

Bestalde, Gongoraren erreibindikazioaren garaia da, eta Lizardiren zaletasun pertsonalak ere hogeitazazpikoekin batean Barroko garaiko idazle kontzeptista-kulteranoaren estetizismoa mirestera darama.

Lizardik Gongoraren zaletasunaren ondorioz bereganatuak zituzkeen olerkigintzaren ezaugarrietako batzuk badiren arren, esate baterako, zentzumenen ekarriari arreta berezia, metaforak elkar-kateatzeko joera alegorizantea, pertsonaia mitologikoekiko erreferentziaren bidez errealitateari egituraketa finkoa ematea, etabar, ene ustez, ziurtzat eta frogatutzat jo daitekeen eragin bakarra Lizardiren jarrera "estetikoia" da.

Euskaraz mintzaira poetiko autonomoa osatzeko ausardia, olerkigintzarako bakarrik den "mintzo landu elertitsu bat egin-naia" da. Honen ondorioz, hurrengo kapituluan aztertzera goazen zenbait berezitasunetan isaladatu zuen bezala, hiztegiaren nahiz morfologia eta sintaxiaren alorrean askatasunez jokatzen ausartu zen, sarritan, ikusiko dugunez, euskararen normaren hesparrutik at dabilelarik.

III PARTEA

LIZARDIREN POEMAGINTZAREN AZTERKETA FORMALA IDEIA POETIKOEN ARGITAN

1. AZTERKETAREN MAILA METRIKO-FONIKOA

2. AZTERKETAREN MAILA MORFOSINTAKTIKOA

1. AZTERKETAREN MAILA METRIKO-FONIKOA

1.1. EUSKAL METRIKA

1.1.1. Sarrera orokorra

Lizardiren olerkigintzaren alderdi metrikoari ekiterakoan, lehen lehenik, euskal ikerketa literarioetan dagoen alor zabal bati, euskal metrikari buruzko teorizazioari begirada eman gabe ez dago hasterik. Izan ere, euskal metrikaren zenbait alor ilunek, arau metriko kulto eta herrikoiaren arteko ezberdintasunek eragotzi egiten bait diote ikerlariari sarrera teorikorik gabe zuzenean autore baten obra poetikoari heltzea.

Hastapeneko zailtasun honi zera erantsi behar zaio, aztertzen dihardugun garai honetan aldaketa garrantzitsuak eman zirela arau metrikoei zegokienez; bertsolarien tradizioari jarraitzen zion XIX. mendeko Lore Jokoetako praktika metrikoetatik, Sabino Aranak finkaturiko arauetarako aldaketa egiten dute olerkariek.

Lizardi bera aldaketa hori bere obran zehar nozitu zuen poetetako bat da, definitzen saiatuko garen sistima zaharretik bestera aldaketa egin zuenetakoa. Aldaketa hau zein testuingurutan gertatu zen azalduko dugu eta Sabino Aranaren araudi metrikoaz egin zuen erabilera pertsonalaren nondiknorakoa.

1.1.1.1. Euskal metrikaren oinarrizko unitateaz

Metrikari buruz orokorrean ezinbestez egin beharra dagoen gai honen abiapuntutzat Koldo Mitxelenak 1977an argitaraturiko "Euskal hizkera eta euskal neurkera" deritzan artikuluan eginiko baieztapen batzuk hartuko ditugu:

> "Maiz entzun izan dugu euskal poesia, oraintsu arte eta are orain bertan musikari lotua ibili dela. Hori gehiegizko baldinbada ere erabat harturik, egia da bai Ziburuko Etxeberri teologo jakintsuari dagokionez, eta bai orobat, Txirrita ezjakinari bagagozkio. Poesiaren batean, beraz, musika ere aztertu behar litzateke. Noizkoak dira gutti gora behera, ezagutzen ditugun doinuak? Berriago direnean, nondikoak ditugu? Ze neurritan aldatu dira ahoz-aho zebiltzala mendez-mende? Erantzunak inondik etortzekotan, musikalarien bitartez etorri zaizkigu. (...)
>
> Bertsoak, musika ez ezik, berezko du neurria, eta hortik datorkio gure artean hartu duen deitura: neurtitza edo hitz neurtua alegia.
>
> Neurriaz gainera, besterik ere izan dezake, baina badirudi han eta hemen, premiazko duela neurria, nahiz neurkera batera nahiz bestera egin. Hontan ere, oker ez banabil, ez dakigu zein izan zitekeen garai batean euskal neurkera hori, zenbaiten saioak (Lekuona, Orixe, Leizaola, Gaztelu, etabar...) gora-behera ez baitugu oraindik guztiek onhar dezaketen teoriarik. Azterturik dagoena, edo azter daitekena bederik, besterik da: nola neurtzen diren eta, gainera, nola neurtu behar liratekeen (Arana Goiri etabar) orain.

Orain eta lehentxeago, Etxeparez geroz, silaben kontua da neurkeraren muina, kontaketan bereizkuntzak aurkitzen badira ere" [1].

Koldo Mitxelenak artikulu honetan musikaren eta poesiaren arteko harremanaren ia erabateko finkotasunari buruz diharduelarik poesia eta neurriaren artekoa frogatzera dator, hau da euskal neurkera aintzinakoa nolakoa izan zitekeen igarri nahian egin diren ahaleginen ugaritasunaz eta haien erabateko argitasun gabeziaz dihardu.

Mitxelenaren artikulu hau gaien aurkezpena eta puntu garrantzitsu batzuen planteamendua delarik, musika, neurria eta olerkiaren arteko harreman horri buruzko argi gehiago ekartzera dator Antonio Arana-Martija euskaltzain eta musikologoak 1976an argitaratu zuen *Música vasca* liburua.

Mitxelenak berak ere, aipatu dugun artikulu horren eranskin gisa argitaratu zuen "Ate osteko eranskin gisa" deritzan ataltxoan berak esanikoek eta Arana-Martijak bere liburuan dioenak duten zerikusia azpimarratzen du:

"Musikari buruz, badugu orain liburu mardul bat, bere eta besteen iritziak ederki biltzen eta agertzen dituena: J. A. Arana-Martijaren "Música Vasca" [2].

1.1.1.2. Silaba kontaketa

Izan ere, Arana-Martijak Mitxelenak berak silaben neurketak eta musikaren doinuak duten harreman justuaz ideia argigarriak eskaintzen bait dizkigu, musikaren arloan aditua den aldetik:

"Con relación al poema, la melodía puede ser melismática o silábica. Es silábica la melodía que para cada nota musical tiene una sílaba correspondiente en el texto; melismática es, en cambio, aquella que en algunos trozos hace oír varias notas musicales con una sola sola sílaba.

Tanto el canto griego como el vasco —observó Azkue— son silábicos. En cambio, el gregoriano fundado sobre textos latinos, hubo de adaptar su música a letras en que hacía perfecta distinción entre sílabas largas y breves; con las primeras de mayor duración, podían cantarse varias notas. De ahí que el canto romano y gregoriano sean melismáticos.

También en euskera hay sílabas largas pero a efectos musicales son siempre normales, no cabe sino una sílaba por nota en cualquiera de los casos.

Nuestros bertsolaris dicen o cantan con gran sencillez y concisión, y es que ponen todo su empeño en que se entienda bien la letra a la que se da primacía en la canción.

No oiremos a nuestros bertsolaris grandes vocalizaciones... como en los alleluias gregorianos o en las canciones trovadorescas. Porque la canción vasca es fundamentalmente silábica. Y si está en lo cierto Gevaert al afirmar que el canto melismático "es un estilo musical sui generis de una técnica trabajada, de una época menos antigua que el canto silábico del cual procede directamente", podemos ratificarnos sobre la ascendencia arcaica de nuestro cancionero netamente silábico" [3].

Badirudi, bada, Arana-Martijak dioenaren arabera, euskal neurkera, kantatzeko egina izan den poemena behintzat, sistema silabikoan oinarriturik dagoela, eta geroago, irakurtzeko eta ez kantatzeko egin diren olerkiek ere kontaketa silabikoari jarraitu zaizkiola, nahiz bertsolaritzarekin izan duten lotura estuarengatik, nahiz erdal hizkuntza erromanikoen sistemaren kutsaduraz.

---

1 MITXELENA, K.; "Euskal hizkera eta euskal neurkera" in *Euskera*, XXIII (1977), 721-733. or.; Eusko Jaurlaritzaren klasikoak sailean, 24 zka. *Euskal Idazlan Guztiak, IV, Literaturaren inguruan, I*, Elkar, Zarautz, 1988, 93. or.

2 *Ibidem*, 100. or.

3 ARANA-MARTIJA, J.A.; *Música Vasca*, C.A.M., Donostia, 1976, 272. or.

Hala ere, herri olerkigintzak ez du beti sistima hau erabili izan, dirudienez. Guregana heldu diren kantetako batzuk ez dirudite silaba kontaketari loturik daudenik. Arazo honen aurrean, neurkeraz arduratu direnek interpretapen ezberdinak eman dituzte azalpentzat.

Neurkera eta silabismoaren arteko arazo horren aurrean eman den teoriarik ezagunenetako bat Manuel Lekuonak 1918an euskal metrikari buruz eman zuena dugu. Euskal metrika "anisosilabikoa" dela diosku, ez omen dagoelako neurri silabikoan oinarriturik, neurri erritmikoan baizik: oin metrikoetan.

> "Esta fué también, y no otra la manera según la cual el vasco, llevado de su instinto rítmico, practicó el arte de la versificación. Prescindió en absoluto del número de las sílabas y, atento solo al de los ictus rítmicos, a dos versos de un número de sílabas desigual los miró como iguales, a cambio solamente de que coincidieran sus ictus rítmicos o los pies, de que constaban.
>
> No cabe duda alguna de que el estro popular vasco concebía de este modo el verso" [4].

Oraintsuagoko azterketek zalantzan jarri dute Manuel Lekuonak oin metrikoetan oinarritzen duen teoria erritmikoa, eta aintzinako euskal poemetan oinarrituriko anisosilabismoaren arazoari beste irtenbide bat emanez, euskal metrika betidanik silabaren unitatean oinarritu dela frogatu nahi dute.

Silabaren nagusitasunaren teoria aldezten duten egileen artean Jean Haritchelharrek Etxahun bertsolariari buruz eginiko tesian, *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862)*, eta Etxahunen bertsoetan sarritan aurkitzen den neurri ezberdineko bertsoen aurrean, silaba berdintasunaren alde egiten du hala ere, zenbait arrazoitan oinarrituz, eta Etxahunentzat balio duenak, aintzinako euskal eresien neurri ezberdintasunaren arazoa azaltzeko ere balio dezakeela pentsatuz.

> "Le syllabisme est donc la règle d'or de toute la métrique romane et il en est de même pour la métrique basque. Seul Manuel Lekuona a cherché à bâtir une théorie du rythme et de la métrique basque en se basant sur la prosodie latine.(...)
>
> Si nous examinons les exemples qu'il donne, nous devinons que les longues correspondent à des notes de musique de durée plus grande ou à des temps forts musicaux qu'il marque d'alleurs par l'accent placé au-dessus" [5].

Manuel Lekuonaren teorian sumatzen duen oinarria musika notaren luzera eta silabaren luzeraren arteko nahasketa azaldu ondoren, Manuel Lekuonak aipatzen duen euskal eresi zaharren anisosilabismoaren arazoari heltzen dio hurrena.

> "Le compte des syllabes dans la poésie populaire n'est pas toujours chose aisée. En effect, les nombreuses versions que l'on peut recueillir diffèrent toujours et il se pose un certain nombre de questions qui ne sont pas toujours faciles à résoudre. Toutefois, l'existence de manuscrits d'Etchahun représente dans la littérature populaire basque un trésor sans prix, car il nous permet de juguer sur pièces d'une manière irréfutable la manière dont il ecrivait ses vers.
>
> Une première remarque s'impose: Etchahun dans la oeuvre qu'il nous a laissée, écrite de sa propre main ou publiée de son vivant, compose des vers justes qui contrastent avec les nombreux vers faux que l'on a pu recueillir de la tradition orale. C'est là un point extrêmement important. Comme il existe un grand décalage entre la langue parlée et la langue écrite, par suite des contractions si usuelles au basque commun ou aux variétés dialectales, le poète a donc le choix entre des mots de différentes longueurs qu'il a la liberté d'employer selon les besoins de la mesure des vers" [6].

Jean Haritchelharren iritziz, herri bertsolaritza, Etxahunen kasuan oinarritzen bagara, beti jarraitzen zaio silabismoaren legeari; baina ahoz-aho bertsoen neurria igaroz doan heinean, aldatuz

---

4 LEKUONA, M.; "Métrica vasca" in *Idaz-lan Guztiak. Aozko literatura*, Kardaberaz bilduma-22, I, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1978, 149. or.

5 HARITCHELHAR, J.; *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862)*, Société des amis du Musée Basque, Bayonne, 1969, 415. or.

6 *Ibidem*, 417. or.

joaten da, eta melodia eta doinu ezberdinetara egokituz joan ahala, "apparence d'annisosylabisme" izatera heldu da [7].

1.1.1.3. Eten erritmikoaren garrantzia

Haritchelharek finkatua utzi duen euskal metrikaren silabismoaren irizpideaz ihardun du berriagoki metrikari buruz Patxi Altunak, *La versificación de Dechepare* izeneko tesian [8].

"El metro y el ritmo acentual" deritzan atalean, euskal metrikaz eman diren teoria ezberdinen eta garrantzitsuenen laburpen eta kritika egiten du. Han daude jasoak olerkari ez ezik, metrikaren arloan teoriko ere izan ziren Oihenarte, Arana-Goiri, Lekuonaren eta Orixeren teoriak, teoriko huts izan zen Leizaolarenarekin batera.

Zehatz-mehatz jorraturik agertzen dira Patxi Altunaren tesiaren atal honetan euskal metrikaren oinarrizko unitateari buruzko teoriak eta euskal neurkerak izan behar lituzkeen arauei buruz idatzi dutenen berri.

Han esanikoa erreferentziatzat harturik beraz, Orixeren teoria jotzen du baliotsuenatzat. Patxi Altunaren iritziz, euskal metrikaren funtsa ez bait da silaba, ez azentua, erritmoa baizik. Bere teoriak erritmoan oinarritu izan dituztenak Lekuona eta Orixe izan dira. Lehenengoari buruz ordea, Haritchelharen iritzi berekoa da, garrantzi guttiko gora-behera batzu alde batera utzirik [9].

Patxi Altunak hobesten duen Orixeren iritzia Gaztelu poetaren *Musika ixilla* [10] deituriko obrari eginiko hitzaurrean agertzen da formulaturik, eta teoria haren inguruan Manuel Lekuonak "Orixeren metrika" deituriko artikulua eskaini zion *Orixeri Omenaldi* delakoan [11]. Beraz, gu ere formulapen hari ohartuko gatzaizkio.

Gazteluren *Musika ixilla*ren hitzaurrean Orixek puntua edo errima eta neurria ez direla beharrezko diosku, etenen bidez ongi markaturiko erritmoa edo "higikera" aski bait da "neurtitzari bere ariurria emateko".

> "Niretzat etena aski da neurtitzari bere ariurria emateko. Izan ere, zer da igikera edo ttunttuna? Etenak mugatzen duen mintza-neurrien sailla, neurri ori oso zurruna ez izanik ere. Izketa neurrigabean ere, asierako azentua emaiten dugu beti, azken silaban ordea, berez du euskerak mintzo borobilagoa , ta ez du eskatzen indarrik eman dakion. Au aski da nire aburuz. Ongi auteman zuen Kikeron-ek "etengabean ez dagoela tuntunik, eta norbaitek beiñere etengabeko arnasa balu, itsusi leukela atergabe mintzatzea". Beraz, tuntunak etena du doarik bearrena. (...)
>
> Izkuntza berriekin naasirik, euskaldunak nekez egiten degu bertso bat esateko balio dunik (para recitar), ozenki esateko, alegia" [12].

Orixeren hitz hauetan antzeman daitekenez, eta 1943-44 urteetan Altube eta Zatarain jaunei eginiko gutunetan argi agertzen denez, errezitatzeko, ozenki esateko, irakurtzeko balio duen olerkigintza eta metrika euskaldun baten bila dabil bera, euskarari ongi egokituko zaion erritmoa

---

7 *Ibidem*, 415-417. or.

8 ALTUNA, P.; *La versificación de Dechepare*, Mensajero, Bilbo, 1979.

9 "No son las sílabas la unidad métrica del verso vasco, como opinaba Arana-Goiri, y como consecuencia de ello, sílaba más o menos el verso no se altera ni se quiebra, aunque hemos de añadir que las cláusulas positivas que complementan y justifican en Lekuona estas dos negativas no son de nuestro agrado; a saber, que sean los pies métricos la unidad métrica, y que el verso sea igual sílaba mas o menos, siempre que el número de los pies sea el mismo. (...)
Lekuona a nuestro parecer se deja llevar por el argumento musical de las melodías..." *Ibidem*, 99. or.

10 GOIKOETXEA, J.I., "GAZTELU"; *Musika Ixilla*, Auñamendi, Donostia, 1963.

11 LEKUONA, M.; "Orixeren metrika" in ORIXE; *Omenaldi*, Izarra, Donostia, 1965, 210. or.

12 ORIXE; "Itzaurrea" in GOIKOETXEA, J.I."GAZTELU" *Musika ixilla*, Auñamendi, Donostia, 1963, 48. or.

asmatu nahirik, baina ez nolakoa izan den deskribatu nahiz. Bertsolarientzat uzten ditu neurtze eta puntuketa gordetzea:

> "Ez diñot ez, kantatzeko neurtitzetan puntua oso kentzekorik. (...), bañan neurtitzak irakurtzerakoan, askatu bear genuke kate astun ori.(...) Guk asi dugun bide au ibilten asiko al dira laister gure ondotik datozenak" [13].

Beraz, Orixek euskal bertsogintza tradizionala nolakoa izan den esan baino gehiago —horri dagokionez ez bait du ez neurria eta ez errima ukatzen-, badirudi bere ustez euskarari gehien egokitzen zaiona, "izan behar luke"ena deskribatzen ari dela, hau da, errezitatzeko, goraki esateko balio duen bertsoak ez duela zertan kontatua eta errimatua izan, aski duelarik erritmo edo higikera egokiaz horniturik egotea.

Altuna ordea, Orixeren ustez euskal metrikaren arloan erritmoak duen garrantzi horrezaz baliatzen da bertsogintza herrikoiaren erritmoa definitzerakoan ere. Erritmo honek duen garrantzia areagoturik, euskal bertsoaren ezaugarri nagusi eta ia-ia muintzat hartua du, puntua eta neurria bazterturik. Izan ere, oso interesgarriak bait dira Orixeren iritzi hauek Mitxelenak arestian aipaturiko artikuluan dioenarekin harremanetan jarriz gero:

> "Orain eta lehentxeago, Etxeparez geroz, silaba kontua izan da neurkeraren muina, kontaketan bereizkuntzak aurkitzen badira ere. Lehenago ordea, Erdi Aroko kanta zaharretan esaterako, bertsoak ez dira berdinak luze-laburrean, neurri jakin baten ingurutsuko badira ere. Itxura ohi baino engainagarriago gertatzen ez bada, badirudi, gainera, hitz andanek silabek ez ezik, zer ikusirik badutela antzinako eta are geroko euskal neurkerarekin" [14].

1.1.1.4. Irakurria izateko poesiaren metrikaren bila

Ez da ahaztu behar Orixek euskal bertsoan erritmoa osagarririk beharrezkoenatzat jotzen zuenean, bertso irakurria edo musikatik aske dagoen olerkiarentzat metrika berri baten bila zebilela. *Bertso kontuak* izenburuaz Euskaltzaindiaren Bilboko Azkue liburutegian dauden Orixe, Leizaola eta Zatarainen arteko gutunen artean, Orixek Altuberi 1944-6-2an zuzendurikoan Orixek ez du onartzen kantarako beharrezko diren neurri eta puntuaketaren beharrik dagoenik errezitatzeko eta ozenki esateko diren olerkietan. Horiek erabiliz gero, gainera, bertsoa zurruna eta aspergarria bilakatzen dela deritzo:

> "Neurri ta neurri, euskerarentzat nolako? Aspaldiko erriena ala oraingoena, geron neurririk asmatzen duguño?
>
> Ta ez dezakegu asmatu ere, bearrik ez! Gure prosodia len-aldiko egoeran baitago (en estado primitivo). Griegoaren silabak ez ziran aurren-berri artan ez luzeago ez laburrago; Izkuntza kaxkartu-ala, endakatu-ala, agertu ziran. Gaitz ortaz edo premi ortaz baliatuki (haciendo de la necesidad virtud), zorioneko bertso ori asmatu zuten, musikaren batez ere, dantzaren babesean. Ez ordea irakurtzeko! Euskeraz astakeria da bertsoa irakurtzea, euskeraren berekiko doñua galdu gabe ez baititeke yalki. Ar dezagun estrofarik edo ahapaldirik jatorrena (...). Lotutxoa gelditzen da, koskatu egiten da, urgundu egiten da, batetik; eta bestetik, euskerak duen gorabera-mintzo lasaia (la amplitud melódica) zurrundu egiten da, beti batera erortzen da. Kantatzerakoan or konpon. Nik ere ortarako egin ditut, bertsoaren etsai agertu arren. Irakurtzeko etsai, alegia. (...) Nere ustez, bertsoan bearrenik mintzo-etena edo zesura da. Amaika saio egiña naiz gaztetan gure izketaren gorabeerari nengokiola, hebertarren paralelismo antzera, euskerarentzat, bertsoren bat asma ote nezan. Alper alperrik. Doñu biurgune bera edo antzekorik arkitzerik ez nun, erdietan, ondoko bi bertsoetan ere, oinbeste bertso egiñik ere.

---

13 *Ibidem*, 16-17. or.

14 MITXELENA, K.; "Euskal hizkera eta euskal neurkera" in *Euskera*, XXIII (1977), 721-733 or.; *Euskal Idazlan Guztiak IV, Literaturaren inguruan I*, Elkar, Zarautz, 1988, 93. or.

Mintzo-etenaz gain, beste zerbait bear genukela nengoan iñola ere ez puntuketa itsusi ori —irakurtzeko beintzat. Gaur guzia alde batera utzita itz-etenari bakarrik nagokio, batez ere irakurtzeko moda gaiztoa gutartean sar baledi" (15).

Orixeren teoria, gutun honetan azaltzen duenari gagozkiolarik, euskal bertso idatziarentzat neurkera bat asmatu nahian dabil, batez ere erritmoari ohartuko zaiona, eta, bere ustez, inguruko hizkuntza erromanikoen eraginez euskaran itsatsi den neurketan eta puntuketan oinarrituriko olerki neurkera baino "euskaldunagoa" izango dena.

Lizardik, ikusiko dugunez, erritmoaren garrantziaz ohartua zebilen, baina ez du Orixek bezala, —ez teorikoki eta ez praktikoki— neurkera eta errima gaitzesten.

Idazle gisa heldutasuna iritxi garaian bertso librearen aldeko joera nagusien artean, bera Sabino Arana-Goirik emaniko "la ley de diptongos" delakoari lotzen zaio neurkera sistema finko gisa, bere gisa, izan zitzazkeen eragozpenei irtenbide pertsonala eman zielarik.

1.2. SABINO ARANA-GOIRIREN ARAUDI METRIKOAREN ERAGINA PIZKUNDE AROKO IDAZLEENGAN

1.2.1. Sabino Aranaren araudia

Sabino Arana-Goirik osatu zuen araudi metrikoaren lehen argitalpena *Lecciones de Ortografía del Euzkera Bizkaino* [15] liburuaren eranskin gisa eman zen ezagutzera 1986 urtean.

Sabino Arana-Goirik sorturiko araudi honen jatorria azaltzerakoan, Ibon Sarasolak "Lizardiren poemagintzaren alde formalen estudio baterako" deritzanean dioenez, Sabino Aranaren beraren irudimena edo "lojika" berezi hura besterik ez daiteke aipa, 1916an azalduriko araudi horretako arauak ez bait dira lehenago beste inork formulatutzat jotzen ahal.

Sabino Arana-Goiriren araudi honek orokorki oso soil eta laburterreza dirudi: bi arau eta lau salbuespen besterik ez bait dira.

Sabino Arana-Goiriren arauen formulaketa berez Lizardik "la ley de diptongos" deitzen duena da:

> "En la forma del verso euskérico hay dos puntos de estudio: el metro y la rima. La rima estriba en su terminación fónica. La unidad del metro vasco euzkérico es siempre la sílaba; luego el sistema métrico se basa en la fonética y por esto trataremos aquí de él.
>
> El verso euzkérico se mide pues por el número de sílabas de que consta. Pero hay casos en que dos sílabas contiguas se emiten como una sola. Esta síncopa se llama sinalefa.
>
> La sinalefa solo puede ocurrir entre vocales y tiene el caracter de forzosa, esto es, de obligar al versificador a tenerla en cuenta en todos los casos, porque el fenómeno fonético en que consiste se efectúa también en el habla corriente".

1.2.1.1. Arauak

Mende hasieran euskal metrikaren inguruan sortuko ziren teori guztien aurkako iritzia agertzen duen Sabino Aranaren sarrera teoriko honek silaba hartzen du oinarrizko unitatetzat, eta bertso baten barruan silaba kontaketak izan behar dituen arauak finkatzea da bere hurrengo helburua.

---

15 ARANA GOIRI, S.; "La fonética en el metro del verso" in *Lecciones de otorgrafía del euzkera bizkaino*, Sebastián de Amorrortu, Bilbo, 1896, 189-200. or.

"1) Cuando un vocablo termina en el mismo sonido vocal con el que empieza el que le sigue. Modo: ambos sonidos se reducen a uno solo.

Subcaso 1. Que ambos sonidos vocales sean simples: a-a >a.

Subcaso 2. Que el primer sonido vocal sea regido de diptongo y simple el segundo: au-a> au

2) Cuando un vocablo termina en vocal simple capaz por su naturaleza y colocación de formar diptongo con la inicial del vocablo subsiguiente. Modo: se forma diptongo. au, ai, eu, ei, oi, y ui".

Sabino Aranak aipaturiko bi arau horiekin, bada, finkaturik utzi zuen sinalefak egiteko araua. Ordurarte sinalefak egiteko bertsolariek, nahiz idazle ikasiek ez zuten inolako arau finkorik jarraitzen. Hain zuzen ere, esan daiteke Sabino Aranak aipatzen duen hurrengo puntuak oso ongi jasotzen duela bere garaian, eta lehendik zetorren tradizioan erabiliriko sinalefarekiko araua edo, hobeki esanik, arau gabezia:

"*Vicios usuales.* Son de dos géneros relativos a la sinalefa.

1) No aplicar la sinalefa cuando se debe.

2) Hacer sinalefa donde no se debe".

Aranaren iritziz, anabasa, arau gabezia zen nagusi ezagutu zuen bertsogintzaren neurkera praktika. Horregatik, ortografian egin zuen era berean, honetan ere araua ematea du asmo, eta aurreko zati horretan emaniko sinalefaren arauak euskararen fonetikari ohartuz erabakitzen dituenez, egoki iruditzen zaio euskal diptongoa osatzen duten bokale loturazko sinalefak soilik aipatzea, bere garaian onartzen ziren bestelako bokale lotura "desegokiak" baztertuik.

1.2.1.2. Salbuespenak

Sabino Aranaren araudi soil honek, ordea, baditu lau salbuespen, hain zuzen ere euskal fonetikari, euskarazko eguneroko mintzairan egiten diren aldakuntza zenbaiti ohartzen zaizkienak. Hona hemen onartzen dituen neurkera salbuespenak:

"Licencias métricas.

No hay más que las cuatro siguientes en el verso euskérico:

1) La de poder reducir una voz, aisladamente tomada, cuando en el habla usual legítimamente se reduce:

   euzkijak por eguzkijak

2) La de poder prolongar una voz aisladamente tomada, cuando suele en el habla usual legítimamente prolongarse:

   zarean por zaran

3) La de poder utilizar en una misma composición voces de distintas variedades del dialecto en que se versifique.

4) La de poder emplear contracciones usuales legítimas entre el verbo y su auxiliar.

   "emongeutsan" por "emongo yeutsan"

1.2.1.3. Aranaren araudia eta "sistema zaharra"

Sabino Arana-Goiriren metrika araudi honi buruzko iritzia ematerakoan, bai Patxi Altunak [16] eta bai Ibon Sarasolak [17] puntu berari ematen diote garrantzia, hots, Sabino Aranak ez zituela araudi

16 ALTUNA, P. *Versificación de Dechepare*, 91-95. or.

17 SARASOLA, I. "Lizardiren poemagintzaren alde formalen estudio baterako" in *Homenaje a Julio Caro Baroja*, CIS, Madrid, 1978, 962. or.

hau osatzeko bera baino lehenagoko teorikoek ez olerkariek erabiliriko arauak oinarritzat hartu; aitzitik, batzuk eta besteak bazter utzirik, bere ustez euskal hizkuntzarentzat, euskal fonetikaren arabera egokiena zirudien araudia osatzeari ekin zion, hutsetik abiaturik.

> "Su doctrina sobre la versificación vasca expuesta en *Ortografía del euskera vizcaíno* no responde a un estudio y análisis de lo que fuera en el pasado dicha versificación, o al menos no se contiene en el ninguna referencia concreta a ella, aunque sin duda, la conocía y la tuvo presente, sino que se cifra en una serie de leyes y normas de la que consideraba métrica vasca correcta" [18].

Arana-Goirik osatu zuen araudi honetan, bi arlotan nabaritzen du Patxi Altunak berrikuntzarik nagusiena: bertso librearen sorketarenean eta sinalefaren legearen finkapenean. Bigarrenari dagokionez, ordea, eta batez ere Aranaren arauaren eta errealitatean poetek egin ohi dituzten sinalefen artean dagoen aldea nabarmenduz, eragozpen larria ikusten dio Aranaren araudiaren bidezkotasunari eta zuzentasunari:

> "Arana basa el caracter obligatorio de sus sinalefas en el hecho de que "el fenómeno fonético en que consiste se efectúa también en el habla corriente". Cabe preguntarse ¿son acaso las sinalefas por él prescritas las únicas que tienen lugar en el habla corriente?. El señala, además de los casos de identidad de la vocal final e inicial, solamente éstos: au, eu, ai, ei, oi, y ui. Un simple repaso de las sinalefas registradas en Etxepare nos evidencia que existen varias más" [19].

Arana-Goirik hain zuen ere sinalefa horiek eta ez beste batzuk zergatik aukeratu zituen jakiteak ez dirudi oso zaila, ikusi batera behintzat: euskaraz onargarritzat ematen ziren diptongoak hartu zituen oinarrizko irizpidetzat.

Esana geratu da Arana-Goirik ez zuela bere araudia euskararen euskalki guztietako poesi produkzioaren azterketa sakon batean oinarritu. Gehienez ere, bertsolaritzaren, hegoaldeko bertsolaritzaren eta honen inguruan sortuz joan ziren olerki idatzietan isladatua ikusi zuen praktika jaso zuela igarri dezakegu, nahiz eta ez dagoen aipamenik jasorik honi buruz.

Euskal diptongotzat aipaturiko "beherunzko diptongoak" bakarrik hautatu zituen sinalefa onargarri gisa. Koldo Mitxelenaren *Fonética Histórica Vasca* delakoan diptongo hauek euskalki guztietara hedaturikoak direla esaten da eta honen aintzintasuna frogatuz:

> "Los diptongos que son comunes a todas las variedades conocidas de la lengua y que se pueden postular como mínimo para el protovasco son au, eu, ai, ei, oi (1). El diptongo ui es poco frecuente y su carácter secundario puede ser probado o por lo menos sospechado. Por otra parte, su realización más común parece ser (wí): por lo tanto, como diptongo ascendente se aparta de todos los que acabamos de citar" [20].

Beraz, euskal diptongo hauek fonetikstek euskaraz onarturiko bakarrak direla aintzakotzat hartuz gero, Sabino Aranak sinalefa arauak ezartzean ordurarteko prezeptisten iritzia ez eta poeten neurkera ohiturak erabili ez bazituen ere, gutxienez aitortu beharra dago oinarri teorikotzat gramatikari buruz eskura zituen deskripzioak erabili zituela.

Koldo Mitxelenak aipamenean agertzen den (1) puntuan egiten duen azalpenari erreparatuz gero "(1) "Dans la langue cantabrique il y a cinqu diphtongues: ai, au, ei, oi, aitorra, confession, haurra, enfant, hei, a ceux-la, gueurea, notre, oyhua, cry".(Pierre D'Urte, *Grammaire*, 6), diptongoei buruzko ezagupen hau aintzinakoa dela ikus daiteke: XVIII. mendearen amaierakoa dugun Urteren gramatikan azaltzen den irizpidea hau bera da, eta ziurrenik, Sabino Arana Goirik, bere kabuzko azterketa metrikoetan galdu gabe, irizpidetzat hartu zuen baina aipatzen ez duen euskal

---

18 ALTUNA, P.; *La versificación de Dechepare*, 93. or.

19 ALTUNA, P.; *Ibidem*, 94. or.

20 MITXELENA, L.; *Fonética histórica vasca*, Seminario Julio de Urkijoren argitaralpena, Donostia, 1976, 87. or.

gramatikariren baten irizpidetan oinarriturik, fonetikan errealitate den bokale lotura, jadanik diptongoak onartutzat ematen duena hartu zuen arautzat.

Arana Goiriren prezeptiba berria Ibon Sarasolak 1916tik aurrera datatu duen "sistema berria"aren erabileraren oinarri teorikoa da, baina "sistema zaharra" delakoaren ezaugarriak aztertzean ikusiko da diptongoen legean oinarrituriko sinalefak soilik finkatu zituela dioen arren, ohargarri da "sistema zaharra"ren lizentzia metrikoetako batzuk jaso zituela salbuespenak formulatzean.

1.2.2. Sabino Aranaren araudi metrikoaren erabilera

1.2.2.1. Araudiaren lehen erabiltzaileak

Sabino Aranak formulaturiko araudi metriko honen erabilera zenbaterainokoa izan zen jakitea da orain arazoa, eta Pizkunde aroko idazleen artean suposatzen den bezain onartua izan al zen.

Araudia sortu zuena bera izan zen neurkera arau hauen lehen erabiltzaile, beraz, alde honetatik, Sabino Arana beste euskal prezeptista ospetsua dugun Arnaut Oihenarteren antzerakoa dugu honi dagokionez. Baina, zuberotarraren kasuan ez bezala, Arana-Goiriren araudi honek erabilpen zabala izan zuen, berak sorturiko mogimendu kultural eta politikoaren jarraitzaileek haren obrari eman zioten suztapenaren ondorioz.

Ibon Sarasolak, jadanik aipatua dugun "Lizardiren poemagintzaren alderdi formalen estudio baterako" delakoan, 1896an ezagutzera eman zen araudi honek lehen erabiltzaileak 1917 aldera izan zituela dio, Nikolas Ormaetxea "Orixe" eta Luis Jauregi "Jautarkol".

> "Bide berritik lehen abiatu zena Orixe dateke. Hain zuzen, Orexako idazleak 1915-1920 urteetan moldatu zuen lan poetikoan eraberritze formal horren aurren ezaugarria nabari da, aipatu dugun neurtze-sistimarena prezeski. Horrela, adibidez "Igesi" poeman, argitara zen aurrena, "Jesus'en Biotzaren Deya"-ren lehen zenbakiaren (1917, urtarrila) 22 orrialdean azaldu zena. (...)
>
> 1917 urtean bertan argitaratzen du Jautarkolek bere lehen poema, "Maitasun indarrak", era berrian hau ere, "Euskal Erria" aldizkarian argitaratu zen 1917ko alearen lehenengo hiru-hilabeterokoan, 309 orrialdean.
>
> Orixek eta Jautarkolek hasi zuten sistema berria, mendearen bigarren hamarkadaren bukaeran finkatu zen, olerkarien mogimendua "Euskaltzaleak" taldearen eraginpean bizkortu eta plazaratu zenean hain zuzen" [21].

Ibon Sarasolak bere azterketa lan honi "Gehigarria" izenaren pean erantsi zion ataltxoan eman zuen aditzera "sistema berria" deritzana Sabino Aranaren neurkera araudia baizik ez zela. Beraz, bertatik pentsa arazten digu ez dela erabat sinesgarri 1917an Orixe eta Jauregi izatea sistema honen lehen erabiltzaileak.

Ibon Sarasolak berak dioen moduan, Orixe ez bait zen "prezezki aranazalea", izan ere, Orixek, Arana-Goiriren arau ortografikoak ez betetzeaz gain, behin eta berriro idatzi bait zuen R.M. Azkuerekin batera Arana-Goiriren joera linguistikoen aurka. Bestalde, arrazoizkoa dirudi pentsatzea Sabino Arana-Goirik sorturiko mogimendu kultural eta politikoaren eraginpeko idazleak izango zirela 1986-1917 bitarteko epe horretan arau metriko horiek erabiltzeari ekingo ziotenak.

Mende hasierako aldizkarietan arakatuz, lau ditugu batipat beren orrialdeetan olerkiak argitaratzeko ohitura zutenak: *Jesusen Biotzaren deya*, *Euskal Erria*, *Euskal Esnalea* eta *Euzko Deya*, hedadura gutxiagoko beste zenbaiten artean.

---

21 SARASOLA, I.; "Lizardiren poemagintzaren alde formalen estudio baterako", 958. or.

Ibon Sarasolak aipatzen duen 1917ko data baino lehenagoko alerik ez dute ez *Euzko Deyak*, ez *Jesus'en Biotzaren Deyak*. Beste bi aldizkariek, ordea, bai. Dakigunez, *Euskal Erria* aldizkaria, Jose Manterolak fundatu zuen 1880an, eta *Euskal Esnalea* aldiz, Gregorio Mujikak suztatu zuen 1908an fundatu eta 1933an izkutatu zen arte.

Bi aldizkari hauek literatur idazlanak eskaintzeko ohitura zutenez, garaiko olerkarien mintzabide ia bakartzat jo ditzakegu mende hasierako epe honetan olerki liburuak oso bakanak izan bait ziren. Aldizkari hauetan azaltzen diren izenpeen artean bat nabaritzen dut bereziki, "sistema berri"aren araudiaren jarraitzailetzat, Zarauzko Arruti eta Olaizola'tar Andoni Aba delakoa.

Andoni Arrutiren izena 1913ko Tolosako olerti sariketa batean, "Ola-gizona" deituriko olerkiaz saridun gertatu zelako eman zen ezagutzera *Euskal Esnalea* aldizkarian.

Hain zuzen ere, 1913ko olerki horretantxe nabari dira lehen aldiz, Sabino Aranaren arau metrikoak praktikara ekarrita.

Zenbaitetan zalantzak sor ditzake, esate baterako, "eta" konjuntzioak hurrengo hitzaren hasierarekin sinalefa osatzen duenean, Andoni Arrutik "t'"apostrofoa erabiltzeko ohitura bait du. 1917z geroztik Sabino Aranaren arauak erabiltzen zituztenak aldiz, "eta" konjuntzioak hurrengo hitzarekin sinalefa onartua osatzen zuenean osorik idazten zuten, eta bestela zenean aldiz, apostrofez.

Andoni Arrutiren joera hau ordea, Mujikak suztaturiko aldizkarietan erabiltzen zen ortografiaren arauerakoa denez, haren ondoriotzat jo genezake.

Aipatu ditugun aldizkarietan Andoni Arrutiren idazlanak 1913-1919 bitartekoak dira, hau da, 1913an Tolosako Euskal Jaietako lehen saria irabazi zuenetik 1919an hil zen arterainokoak [22].

Goi-mailako ikasketak zituen idazlea zenez, Arrutiren olerkietan metrika landua, neurtua eta arautua aurki dezakegu, eskola aranazalearen eraginez hedatzen hasia zen hiztegi berriarekin batean. Ez dezakegu Arrutiren idazlanetan bere garaian ohizkoa zen bertsogintzan oinarrituriko olerkigintzaren zantzurik aurki. Ahapaldiak landuak, berriak, ez-ohizkoak dira, hizkera garbizalea, zaindua...

Euskal Esnalea (181, 1919(1)) "Zugana" poema argitaratuz batera, Arrutiren olerki argitaratuen zerrenda ematen du, *Euskal Esnalea* eta *Euskal Erria* aldizkarietan argitaratzen zituela argituz.

Bestalde, "Ola-gizona" olerkian benetan Sabino Aranaren arauak erabiltzen ari ote den zalantzak garbitu egiten dira, arauak betetzeko ahaleginak egitura sintaktiko berezi samarrak sortu arazten bait dizkio. Olerki honen ahapaldi egitura honako hau da 19-5-9-10-5-9. Errima berriz, a-a-b-c-c-b [23].

Sarasolak "sistema berria" deitu duen neurkera sistemaren arauak betetzearren, ikus ahapaldi honetan egiten duen sintaxi bihurketa:

"Garbitutzeko baso zatarra
Kentzeko larra
Burnia dute bear oso
Ikazkin eta nekazariak
Gizon guztiak
Bizi badute nai eroso"

Euskaraz ohizkoa den ordenaz esan izan balu "bizi nai badute eroso" zortzi silabatakoa izango zatekeen "badute-eroso" hitzek sinalefa egin beharko bait zuten.

---

22 Andoni Arruti, Luis Villasantek *Historia de la Literatura Vasca*n (316-317. or.) dioenez, zarauztarra zen 1884an jaioa eta frantziskotarren ordenan bere ikasketak egina. Ikasketetarako zuen jaiera bereziak Erromara eraman zuten eta Oliteko Idazki Sagaratuetarako katedradun ere bai, baina oso gaztetan itsutu eta Zarautzen eta Tolosan igaro zituen bere azken urteak. Arrutiren formazioaren ondorioz, Arruti berezko euskara jatorraren jabe izateak olerkari klasiko eta argien artean kokatzen du.

23 Villasantek dioenez, olerki honen zati bat "Homenaje a la seráfica Provincia de Cantabria" delakoaren 177. or. eta P. Onaindiaren Antologiaren 814. or. daude argitaraturik (Ikus *Historia de la Literatura Vasca*, 317. or.)

Andoni Arrutiren ihardun poetiko bakarti baino sendo honek harrigarri dirudi garaiko olerkarien joeren artean. Izan ere, *Euzko Deya* aldizkarian, 1916 urteaz geroztik, aurki bait daitezke aldian aldian Sabino Aranaren arauak jarraitzen dituzten olerkariak, ez ordea izen edo lan jarraitu ziur bat azaltzen duten olerkaririk nabarmen arazteko lain.

1.2.2.2. Olerkarien jokaera

Ibon Sarasolak *Orixe* eta *Jautarkol*en olerkiak aipatzen ditu Aranaren sistema berriaren lehen erabiltzaletzat, 1917. urtean argitaratu zituzten olerkietan. Izan ere, aipagarri da 1917tik 1922ra bitartean, Orixe eta Jautarkol elkarrekin Comillas-eko apaiztegian zeudela esatea, eta hauekin batera gertatu zela, geroago "Aitzol" ezizena erabiliko zuen Jose Ariztimuño ere [24].

Urte epe hauxe da Orixek bere "zazpi urte beltzenak" izendatu zituenek osaturikoa, hain zuzen ere, Josu Lagundiko agintariek sei urtez eduki bait zuten maixu txiki lanetan Comillasen, Carrion de los Condes-en, Tuteran eta Xabierren, Oñara teologia ikasketak egitera bidaltzeke [25].

Comillas-eko apaiztegian bildu ziren hiru josulagun-gai hauen arteko harremanak ez ziren berdintasunezkoak, ordea. Orixek "maixu txiki" zereginak izateaz gain, eskola euskaltzale moduko bat ere bazuen osaturik hango apaizgai euskaldunen artean. Manuel Lekuonak, Eugenio Ibartzabalek *Cincuenta años de nacionalismo vasco* libururako egin zion elkarrizketan ematen du, argitasunez, hiruen arteko harremanen berri.

> "De diametralmente opuesto a estos dos últimos poetas (Orixe eta Lizardi) se puede calificar el estilo de Luis de Jauregi, Jautarkol, producto de la escuela euskerista de Comillas, cuya dirección caía en Orixe, a la sazón "maestrillo" en aquel centro docente. Fué allí donde le conoció Aitzol, incorporando a Jautarkol a sus planes de obra poética" [26].

Eskola euskaltzale hau osatzen zuten hiru idazle hauen artean poeta zirenen praktikan ikus dezakegu Sabino Aranaren arau metrikoak erabiltzen zituztela. Horretan nork eragin zien zehatz-mehatz jakiterik ez dago oraingoz. Dena den, Aitzol han zen denboran Arana-Goiriren *Lecciones de ortografía del euzkera bizkaino* obra ezagutzen eta miresten zuela dokumentatu daiteke, 1931ean aranazale porrokatu ziren Egilleor, Irala, Jemein eta Urkiaga (Estepan)en gutun bati erantzunez eginiko eskutitzean egiten duen baieztapenenen artean:

> "Con idéntica energía a la de ustedes rechazo la gratuita pretensión de ustedes de involucrar en censuras dirigidas a actuaciones de hoy a don Sabino Arana y Goiri.
>
> Contra lo que ustedes dubitativamente exponen, *me lancé estudiando ya en 1915 la 'Lecciones de ortografía del Euskera Bizkaino'*. No es la obra de Arana coto cerrado para que en él nos esté vedado entrar. Más aún de interpretar sus teorías conforme a nuestro leal entender. Ni cedemos en veneración y lealtad en este punto a nadie, ni aún a ustedes que indiscutiblemente son los más adictos a la obra del maestro" [27].

Araudia erabiltzeko suztapena Aitzolengandik zetorren ala ez, ez dezakegu eskura ditugun frogen bidez ziurtatu. Hala ere, elkarrekin leku berean zeuden idazle hauen iharduna sistema berriari atxikitzea aldi berekoa izateak "eskola" moduko baten tankera du, Andoni Arrutirena bezalako ihardun bakartiaren aldean.

---

24 AZURMENDI, J.; *Zer dugu Orixeren kontra*, Jakin, Arantzazu-Oñati, 1976, 26. or., eta IZTUETA, P.; *"Quiton arrebarekin" irakurriz*, Etor, Donostia, 1989.

25 ALTUNA, P.; "Jose María Estefanía Zabala (1889-1942)" in *Euskera*, XXXV, 1991, 75-97. or.

26 IBARZABAL, E.; *Cincuenta años de nacionalismo vasco*, Ediciones Vascas, Donostia, 1978, 80-81. or.

27 AITZOL. "Carta abierta a Eguilleor..." in *El día*, 1932-7-14, 1. or.

Jautarkolek eta Orixek beren olerkiak argitaratu zituzten *Jesusen Biotzaren Deya*n argitaratu zuen Areitio'tar Peli josulagunak 1920an "Nire anaitxo Joseba Mirena'ri bere ziñitz-egun zoriontsuban" olerkia (339-341 or) [28], eta neurkera sistema aranazalearen eragina nabari du.

Beraz, josulagundian araudiaren erabiltzaile foko bat dago, 1917ko urtearen inguruko Jautarkol eta Orixeren garaian hedatzen hasia. Lizardi, Labaien eta Aitzol jadanik adiskideak zirela badakigunez datu biografikoei esker, harreman bat ere suposatu beharko da metrikari buruzko aldaketari dagokionez, urte horretan bertan ekin bait zion Lizardik *Euzko Deya*n sistema berriari lotzen zaizkion olerkiak argitaratzen.

1.2.2.3. Euskaltzaleak elkartea sistema berriaren aldeko

Euskaltzaleak taldeak 1927an sortu eta 1930ean lehen Olerti sariketa antolatu bitartean Sabino Aranaren araudiaren erabiltzaileen saila gero eta ugariagoa da. 1931ean egin zen lehiaketarako deialdian lehen aipamen zuzena.

Izan ere, 1931ko Olerti sariketan eskuhartzeko asmoa zuten olerkariei araudi hori erabil zezatela eskatzen zitzaien espreski, arauak eta salbuespenak laburki azaltzen zitzaizkielarik aldi berean:

> "*Aolku bat olerkariei*: neurtu-legeak bateratu naiez, guziei eskatzen dizutegu Arana Goirirenak artzeko, *zabalduen oiek baitabiltza.*
>
> Laburrean autxek dira: a-a, e-e, i-i, o-o, u-u, a,e,i,o,u egiteko, a-u, e-u, a-i, e-i, o-i, u-i, au, eu, ai, ei, oi, au-u, eu-u et abar.Izki oien elkartera beti otsaldi bakarra, neurtu-aldi bakarra egitea da, eta ez ditezke berezi.
>
> Gañontzekoak ez dezakete elkar itstsi: adibidez, a-o beti a-o, ta ez ao, e-a berdin, eta abar." [29].

Euskaltzaleak taldeak eragina izandako Pizkundearen hamarkada honetan euskal olerkigintzaren metrikaren arloan zeudekeen joera ezberdinen artean uniformatzeko ahalegina sumatzen da, horregatik, goi-mailetara jotzeko bidea ikusi zuten hedatuenik zegoen araudiari lotzea.

Olerkariek bere egin zituzten Arana-Goiriren jarrera prezeptistak metrikari zegokionean, beren kultur proiekturako araudi ziur bat eskaintzen zielako euskal kulturaren egituraketaren zerbitzuan, dena finkatzeke zegoen unean: ortografia, hizkuntz eredua, hizkuntzaren erabilera normatiboa, erabilera arloak... eta guztia nazio baten egiturak eraikitzeko asmoak suturik zebiltzanen artean izekirik.

Arautegia erabiltzerakoan eskatzen zuten batasun honek olerki idatziaren irakurketa "zuzena" ziurtatzen zion irakurleari, inguruko beste edozein hizkuntzatako irakurleari hizkuntza horietan finkaturiko sinalefa legeek sineresi eta dieresiaren ikurrek irakurketa zuzena ziurtatzen dioten era berean. Lizardik 1931ko "Nuevos rumbos" artikuluan lege metrikoei buruz esaten duenak Aranaren arauen erabilerari zegokionez olerkariek harturiko erabakiaren berri azaltzen du: diptongoen legeak jarraitzen zituzten, eta arrazoia irakurleari bertsoak neurtzeko era ziurra eskaintzea zen:

> "En la medida del verso hay, de cuando en cuando, transgresiones a la ley de diptongos que hemos dado ya todos en seguir. Me refiero a la formulada por Sabino Arana-Goiri, que a mi juicio debe ser obligatoria rigurosamente, por la razón que aquel preclaro tratadista expone, y porque aún con eso y

---

28 Lizardiren gutun pertsonalen artean Areitio'tar Pelik bidalirikori 1932-6-4ko erantzuna ezagutzen da. Gutun horretan *Biotz Begietan* liburuarengatiko zorionak bidaltzeaz gain, beren lagun min den Aita Estefaniaren berri ematen dio. Aldi berean, Orixe ere aspaldiko laguna duela eta hari ere bere goraintziak emateko eskatu zion. Ikus 59. Dokumentua.

29 EUSKALTZALEAK; "Eusko olerti sariketa" in *El Día*, 1931-2-22, 16. or.

todo tiene el verso vasco dificultad bastante para ser leído con propiedad por quienes tenemos el oído educado en romance" [30].

Aipaturiko bi datuok 1931ean kokatzen dute Euskaltzaleak erakundearen posizioa Aranaren araudi metrikoaren alde, eta erakundearen gidari ziren Aitzol eta Lizardik berak 1917z geroztik ezagutzen zuten araudia.

Lizardik *Euzko Deya* aldizkarian argitaratu zituen bere lehen idazlanak, eta 1917an argitaratu zituenen artean, *Nere lenengo matte-ibilketa* (28. alean), *Euzko Mendiya* (29. alean), *Zelai urdiña* (33. alean) eta *Jaun errukitsuboi* (41. alean), azkenengoak bakarrik betetzen ditu Sabino Aranaren arau metrikoak zehatz-mehatz. Izan ere, azken honen izenpea aldatua egin bait du: ordurarte erabiliriko "Samaiko-Zulo"ren ordez, "Zarautz'ar Sabin" ezizena erabiltzen hasten da.

Valverde argitaletxeak eginiko 1973ko argitalpenean, olerki honen eskuizkribuzko bertsio bat jasotzen da 1917an dataturik, eta *Euzko Deya* aldizkarian agerturiko bertsioa ez bezala, "Samaiko Zulo" ezizenez izenpeturik. Berez, ez dago aldaketa handirik 1917kotzat ematen diren bi bertsioen artean, bai ordea, hau eta *Biotz Begietan* liburuan agertu zenaren artean, hiztegia eta sintaxia argiagoa bilakatzen du eta "Samaiko Zulo"-ren *Euzko Deya*ko bertsioan lehen aldiz agerturiko egitura eta hiztegi bereziki aranazaleak ere murriztu egiten dira.

Lizardik arauak erabiltzen hasteko unea 1917 urtearen bigarren zatian koka genezake, ordurarte erabiliriko "Samaiko Zulo" ezizen nolabait "toponimikoa"ren ordez, (Samaiko Zuloa Zarauzko herrialdeko toki berezi bati esaten bait zaio), ideologikotzat edo ideologia aitormenekotzat jo genezakeen "Zarautz'ar Sabin" ezizena erabiltzeari ekiten dion garaia.

Izen aldaketaz eta, orain azpimarratu berria dugunez, ideologia abertzalea aitortzeaz batera, ideologia horren sortzaile izandakoaren araudi metrikoa erabiltzen hasten den une honek baduke bere biografian jadanik aipatua utzi dugun Aitzol eta Labaienekiko harremanarekin zerikusirik.

Izan ere, 1916-1917 aldera kokatzen bait du Aitzolek, bera, Antonio Maria Labaien eta Lizardiren arteko adiskidantza, ikusi dugunez. Aitzolek dioenez, 1915erako *Lecciones del euskera bizkaino* Sabinoren liburua ezagutzen zuen, beraz, ez da guztiz desbideratua izango Lizardi ideia abertzaleetara garai horretan gerturatu berria delarik, Aitzol eta Labaienen bidez ezagutzen hasi izana "maisuaren" irizpide linguistiko, ortografiko eta metrikoen berri.

Horrela, Jautarkol eta Orixek 1917-23 bitartean Comillasen erabiltzen hasiak ziren araudi honi berari lotu zitzaion Lizardi ezagutzen ditugun datu dokumentatuen arteko harremana Aitzol bera soilik da: 1915z geroztik Comillasen "maestrillo" gisa dagoelarik Orixek bere inguruan bilduruko eskola euskaltzalearen partaide eta Lizardiren adiskide.

1.3. LIZARDIREN METRIKA: SISTEMA ZAHARRA ETA BERRIAREN ERABILERA

1.3.1. "Sistema zaharra"ri buruzko zenbait zehaztasun

1917ko bigarren zatian "Zarauztar Sabin" ezizena erabiltzen hasi aurretiko olerkietan Lizardik erabiltzen duen "sistema zaharreko" araudia garaiko olerkari gehienek erabiltzen dutena bera da.

Beraz, gaztaroko lehen olerki horien bidez, sistema zaharraren zenbait ezaugarri ezagutzen ahaleginduko gara.

---

30 LIZARDI; "Nuevos rumbos" (II) in *Euzkadi*, 1931-12-30, 1-3. or.; *K-L* 357-361. or. Lizardik aipatzen duen Aranaren arrazoia, hots, sinalefak bete behar izateko arrazoia zera da:

"La sinalefa sólo puede ocurrir entre vocales y tiene el caracter de forzosa, eso es, de obligar al versificador a tenerla en cuenta en todos los casos, porque el fenómeno fonético en que consiste se efectúa también en el habla corriente".

1.3.1.1. Sinalefetan askatasuna

Sistema zaharren deituraz aipatzen ari garen sistima honen ezaugarririk nabariena, atal honetan dihardugunerako, sinalefak egiterakoan darabilten askatasuna da. Sinalefak ez dira euskal diptongoak osatzen dituzten bokale loturetara mugatzen, Sabino Aranaren arauetan bezala, beste bokale elkarketa asko onartzen ditu, eta gainera, lotura horiek beti egin beharrik ere ez dago.

Esate baterako, Lizardiren *Euzko Mendiya* 1917ko olerkian ikus dezakegu "neurkera sistema" honen erabilera.

Lizardiren olerki honen ahapaldiak zortziko nagusiak deitzen direnak, edo neurri nagusiko 10/8ko bertso-lerroak eta bi puntuz eginak dira.

Sinalefa edo loturei dagokienez, berriz, bokale berdinen artekoak aipatuko ditugu aurrenik:

a+a "bere logurea+astindu du"

e+e "ta orixe+esanda, goiko lañuaz"

o+o "arrano+oyuba oroimen zan"

i+i "Mendi+ixuriko errekatxuak"

Bokale ezberdinen artean eginiko loturak beste hauek ditugu:

a+e (sei bider)

a+o (bi bider)

a+i (behin)

a+u (behin)

e+a (lau bider)

e+o (behin)

e+i (hiru bider)

e+u (bi bider)

i+a (lau bider)

i+e (hiru bider)

i+o (behin)

o+a (hiru bider)

o+e (behin)

o+i (behin)

u+a (bi bider)

u+e (behin)

u+i (behin)

Beraz, ikusitakoaz ondoriozta liteke ia bokale lotura guztiak erabiltzen dituela olerki honetan, eta ez dago zalantzarik beste edozein olerkitan hainbat adibide aurki genitzakeela horren frogagarri.

Era berean, eta arestian esan dugunaren arabera, bertso neurkerari eusteko beharrezkoa baldin bada, sinalefak egiteke utzi ere egiten ditu:

e+e "Ta agure, *gazte, eme* ta ume" 10

a+u "Ta agure, gazte, eme *ta ume*" 10

a+i "Euzkel-*erriya illotz* ustela" 10

1.3.1.2. Azentugabeak sinalefan

Lizardiren lehen olerkietako sinalefa hauei oharturik, beste zenbaiten artean, badirudi bokale lotura eragiten duten osagarririk arruntenak azentugabetzat edo enklitikotzat jo ditzakegun zenbait osagarri direla, hala nola, "eta" eta "ere" juntagailuak, bai eta, kasu berezi batzuetan, zenbait euskalkitan azentugabeak diren "adjetibo posesiboak" ere, "nere, bere..."

Hauei dagokienez, gainera, idazteko tankeran edo ortografian bilakaera nabari da urteetan zehar, eta Sabino Aranaren arauetara egokitu ahala, "eta" eta "ere" juntagailuak laburturik eta apostrofez idazteko ohitura hedatu zen idazleen artean.

Esate baterako, sistema berria erabiltzen hasitako lehenengoen artean aipatu dugun Luis Jauregi "Jautarkol"ek, 1928an argitaratu zuen *Biozkadak* liburuko "Aizkorri oinetan" deritzan olerkian:

> Zure erraietan daude idatzirik Lekobide ta
> Leloren egintza-otsak
> zuk dakizkitzu Jaun Zuriaren guda-mutillen
> birau, irrintzi ta aiotsak.
> Zure begiak negar samiñez ikusi zuten
> Zara'ren doillorkeria;
> t'Oñaz-Ganboen anai-arteko gorroto beltza
> t'odol-ixurtze gorria.
> (1927)

Olerki honetan ikus dezakegunez "eta" juntagailua bi eratara idaz zezakeen: alde batetik, lotura zilegizkoa bazen "ta+aiotsak" delakoan bezala, osorik. Baina ez bazen zilegi "t'Oñaz" eta "t'odol" delakoetan bezala, orduan apostrofea erabiltzea zilegi zen.

Lizardik berak ere *Biotz Begietan* liburuan argitaraturik dauden bi poemetan aipatu ditugun bi juntagailu hauen idazkera apostrofatuaren adibideak aurki ditzakegu:

> "t'ez eskeiñi bizitzak beazuna baizik"
>
> (Ag 7)
>
> "zu're il ote zera"
>
> (EP 36)

Lizardiren eta Jautarkolen olerkietan sumatu dugun konstante honezaz gain, ordea, sistema zaharretik berrirako aldaketan geratu ziren zantzu hauezaz gain, sistema zaharreko sistima darabiltenen artean bokale loturek ez dute arau finkorik, beharrezkoak badira egin egiten dira, ez badira egoki neurria ongi egiteko, orduan ez egitea erabaki eta kito.

1.3.2. Sistema zaharraren erabilera ezberdinak

Zehazki Lizardiren *Euzko Mendian* ikusi ahal izan ditugun ohitura metriko hauek Pizkunde aroan ere bizirik zirauten, adibide gisa, elkarren artean adin ezberdintasun handia duten lau idazle hauen idazlanak aztertuko ditut: Emeterio Arrese, Satarka, Elzo-Azpiazu eta Manuel Lekuona.

Sistema zaharra azaltzerakoan, bi ezaugarri nagusi aipatu ditut: alde batetik euskaraz ohizkoak ez diren diptongoen bokale loturak egitea eta Sabino Aranaren arabera lotura egitea beharrezko litzatekeenean lotura egiteke uztea, bigarrenik berriz, azentugabeen idazkeran aintzinako bolake loturak egiturak egiten jarraitzen da, baina laburtzea komeni denean apostrofea erabiliz.

Lehenengoari dagokionez, esan beharra dugu Satarka olerkariak ez duela adibiderik eskaintzen bere idazlanetan, eta Manuel Lekuonak berak ere eskaintzen duen bakarra, *Euskal-erriko sinesmena* deritzan olerkian (*Euskal Erria*, 1144., 1916-1-15, 13 or.) "eta" juntagailuaren garaiko idaz-ohituren ondorio dela:

Jaun-goikoaren izena
ta Fediaren kemena
adierazi eta jasotzen
berdiñikan ez dubena
aingerubak len-lenena
zeruban egin zutena,
ta ¿esango aldet? ... Euskera da bai
izkuntz Jaungoikoarena

Emeterio Arresek eta Elzo-Azpiazuk batez ere, adibide ugari eskaintzen dizkigute, horietako asko "eta" eta "ere" juntagailuaren ondorio dira:

Ontzi au degu seaska *t'eche* 10
itsaso dena sorterri 8
aizea lagun, eta goi zabal 10
urdiña biotz pozgarri. 8
(Arrese *Itsas-mutillak* 1916)

Orduan 3
zu beste 3
Bai-zan beko *loia-ere* 7
Loretxo 3
Gaxoa! 3
Loitan belztutakoa! 7
(Elzo-Azpiazu *!Gaxoa!* 1916)

Elzo-Azpiazuren olerkietan oso ugariak dira bestela ere, "ere" eta "ere"k zerikusirik izan gabe eginiko bokale loturak.

Atozkit, maite! gure zai dago 10
Mendiko etxean zoruna, 8
bere ega txuri biguñ men-pean 10
Ondo zaindu nai gaituna. 8

An goyan daukat *basetxe apal* bat, 10
nere aurrekuak utziya; 8
Aspaldi *aspaldi egiña*, baño 10
edurra bezin txuriya. 8
(Elzo-Azpiazu, *Atozkit!* 1917)

Nikolas Ormaetxea "Orixe", sistema berriaren erabiltzaile gisa 1917an ageri zaiguna, aurreragotik argitaraturiko zenbait olerkitan sistema zaharrari jarraitzen zitzaion.

Euskaldunak poema eta olerki guztiak biltzen dituen liburuan aurki daitezke 1915ean dataturik dauden *Nere ama*, *Mañaxi* (434. or.), *Gorritiko andreak* eta *Laiariak* deritzen olerkiak, eta 1916kotzat berriz, *Artzaiarena*, *Ziza garaia* eta *Esia* direlakoak [31].

31 433-439. or.

Erabiltzen duen araudia "sistema zaharra"ri dagokiona da, hau da, loturak komeni denean bakarrik eta edozein bokaleren artekoak eginez. Ugariak dira, era berean, "eta" eta "ere" enklitikoek sorturiko sinalefak, bestelakoak ere badira ordea, bakanak badira ere.

Idazle guzti hauetan ematen da, bestalde, sistema zaharraren ezaugarri nagusitzat aipatu dugun hura, hau da, komeni denean eginiko sinalefak, nahiz bokale berdinen eta ezberdinen artean eginiko sinalefak egiteke uzteari dagokiona, hain zuzen ere.

Ibon Sarasolak, aipatua dugun "Lizardiren olerkigintzaren alde formalen estudio baterako" delakoan, lasaikeriazkotzat definitu zuen "Lore-Joko"etatik zetorren sistema zahar honen jokabidea.

Egia da, ordea, autore batzuetatik besteetara aldea handia dela, eta Manuel Lekuona, Satarka eta Orixe sistema zaharraren askatasunaz neurriz baliatzen direlarik, Elzo-Azpiazu eta Emeterio Arresek esate baterako, lasaiago aritzen dira.

Azkenik, azterketan zehar nabarmendu dugun konstante baten garrantzia azpimarratzea dagokigu: alegia "eta" eta "ere" konjuntzio enklitiko, azentu gabeak direla Arana Goirik euskal diptongoekiko adostasunean ontzat ez emandako eta sistema zaharrean egiten diren bokale loturetako asko sortzen dituztenak, eta ohitura grafikoak aldatuz, Pizkunde aroko idazleek egiten jarraitu zituztenak.

1.3.3. Lizardi sistema zaharretik sistema berrira

Ibon Sarasolak Lizardiren olerki ezagunen artean, hau da *Euskal Esnalea, Yakintza, Eusko Olerkiak* eta *Biotz-begietan* ezagutzera emandako olerki guztiak sistema berrian eginak daudela diosku, baina aldi berean oharterazi egiten du gauza ezaguna dela Lizardik "asko ukitu zituela bere lan zaharrak argitara baino lehen" [32].

Ibon Sarasolak *Agur* izenburua daraman olerkiak 1930ean *Eusko Olerkiak* delakoan argitara zen bertsiotik 1932an *Biotz-Begietan* liburuan argitara eman zuenera aldaketak daudela aurreratzen du. Eta Lizardiren idazlan guztien edizio kritikoa osaturik, ezagutu ahal izan ditudan bertsio guztien artean alderaketa egin ondoren, Ibon Sarasolak aipamenez eta susmoz aurreratzen duena baitetsi eta bermatu egiten da.

Lizardik bere lehen garaiko olerkietako bertsio ugariegirik ez du eskaintzen, hala ere, argi eta garbi nabari da garai horretako bi olerkitan eragiten dituen bertsio batetik besterako aldaketak, hizkuntza poetikoa "limatze" eta "poetikoagotze"az batera, neurkera sisteman ere hobetze joera nabari dute.

Lizardik Sabino Aranaren araudi metrikoari, "sistema berria" erabiltzeari ekin baino lehen hiru olerki eman zituen argitara:

1.– *Nire leenengo matte-ibilketa* (1917)

2.– *Euzko mendiya* (1917)

3.– *Zelai urdiña* (1917)

1.3.3.1. "Diptongoen araua"

Hiru olerki hauetan "sistema zaharreko" idazleek erabiltzen zituzten sinalefa, lizentzia eta idaztarau berak erabiltzen ditu.

---

32 SARASOLA, I.; "Lizardiren poemagintzaren alde formalen estudio baterako", 959. or. Gogora artikulu hau 1976koa dela eta Lino Akesolok *Euzko Deya* aldizkariko Lizardiren olerkiak 1987ko *Karmel*, 180, 181 eta 183.aleetan argitaratu zituen.

1917. urteko udaren ondorengo olerkietan aldiz, "sistema berria" edo Sabinoren arau metrikoak betetzeko ahaleginean, zenbaitetan ezintasun edo "akatsak" antzeman ditzakegu.

Esate baterako, *Maiteder* deritzan 1918ko olerkian 14 silabatakoa izan behar duen bertso batean, a+a sinalefa egin gabe uzten du bokale berdinen artean sinalefa egin beharra dagoela dioen Sabinoren araua hautsiz:

Maiteder, 3
Maiteder...! 3
A zan eguzkiya" 6
A zan ederrenetan ederra! 10
Izar nagusiya... 6
Iñularraz aurrena/agertzen dan lakua...! 14

Egin beharreko sinalefa hau ez egiteaz gain, gainerako guztian olerki honek "sistema berria"ri dagozkion bokale loturak egiten ditu.

Gauza bera gertatzen da *Maiteder* olerkiaren hurrena argitara zuen *Maite izaneri* deritzan 1919ko olerkian. Honetan ere bertso bakar baten neurkeran sumatzen da sistema berriko legeen arabera egin beharreko sinalefa bat egiteke uzten duela, molde nagusiko 10/8/10/8 egituradun ahapaldi honetan:

Nere gogoko lore bakarra, 10
nere gabeko/izarra... 8
Samin-eztiya zeran oroya 10
nere parre bai negarra. 8

Aipa dezagun hirugarrenik, antzerako arazoa aurkezten duen 1919ko beste bertso bat *Gastiaren otoitza* otoitza deritzan olerkitik harturikoa, alegia.

Azken olerki hau, *Gastiaren otoitza* izenburuaz 1919ko *Euzko Deya* aldizkarian argitaratu zena lehen aldiz, bigarren aldiz ere argitaratu zen 1925ean Argia astekariaren ekainaren 12ko alean. Bi bertsio ezagutzeko aukera dugun lehen olerkietako bat dugu, *Jaun errukitsuboi*ren ondoren.

Bigarren bertsioaren izenburua aldatua dago, *Gastearen otoia* deritza, eta neurkeraren alorrean ere hobekuntza bat eragin dio, hizkuntzaren eremuan, Ibon Sarasolak bere artikuluan dioskunez [33], "hizkuntzaren lapurteratze eta jatortze argi bat gertatzen" den aldi berean. Kasu honetan "lapurteratze" deitu den hori bokale artean gertatzen diren aldaketa fonetiko herrikoiak idatziz ez adierazteko joera garbia nabari da izenburuaren aldaketan bertan sumatu ahal izan dugunez:

"Gastiaren otoitza" > "Gastearen otoia"

Olerki honen 1919ko bertsioan, "sistema berria"ren arabera oker edo akats bat egiten du Lizardik hirugarren ahapaldian:

"Zaurituta, gaxorik, 7
gasterik nekatuta, 7
listor-eztiz aseta 7
samiñez gogua, 6
zeure+eztiya nai-det 7> 6
ezti goitar-gozua, 7
ludiko loriena 7
ez bezelakua... 6

Lizardik, edo hobeki esanik, "Zarautz'ar Sabin"ek ohizkoa duen 14 eta 13 silabako ahapaldia, kasu honetan, 7/7/7/6/7/7/7/6 bihurtu duen ahapaldiaren bostgarren bertsoan "sistema berri"ko

33 SARASOLA, I.; *Ibidem*, 959. or.

arauei jarraituz zazpi silabatakoa ateratzen da, e+e eginez gero, beraz, aurreko beste bi olerkietan sumatu ditugun "akats"en artean aipatu beharrekoa.

1925ean argitaratu zuen bertsioan ordea, akats hau zuzendua agertzen da:

"Zaurituta, gaxorik, 7
gazterik nekatuta, 7
listor-eztiz aseta 7
samiñez gogoa, 6
Ezti zeurea nai-det 7
ezti goitar-gozoa 7
ludiko loriena 7
ez bezelakoa 6

Lizardik esaldiaren ordena aldatuz galerazi du, 1919ko bertsioan nabaritzen zen akats hura:

"Zeure+eztiya nai det" 6

"Ezti zeurea nai det" 7

Beraz, zera ondoriozta daiteke zalantzarik gabe: Lizardi era konsziente batean lotzen zaio "sistema berriari" 1918z geroztik, eta olerki horietako batzuetan, hiru guztira, nabaritzen ditugun "akatsak" sistema berriari egokitzen ari zaion poeta hasi-berriaren ezintasunen lekuko baizik ez dira.

1.3.3.2. Molde berriko salbuespenen erabilera

1925eko olerkietatik aurrera nabari dugun metrika alorreko perfekzio zaletasunean, bada beste joera xume bat azpimarkatu beharrekoa: Lizardik Sabino Aranaren araudiak onartzen dituen lizentzia metrikoak ahalik eta gutxien erabili nahi ditu.

Izan ere, hizkuntzaren hobetze, lapurteragotze eta eredu bakar bati lotzeko duen joera linguistiko eta poetiko aitortuaren bidetik, Sabinok onartzen dituen hitz beraren ahoskera ezbedinak ez ditzake onar, eta alde horretatik, Lizardiren baitan bi ideia hauen artean koordinazioa bilatzen ari dela sumatzen da 1918tik 1930ra doan hobekuntza prozesuan.

Sabino Aranak bere arauen formulaketan onartzen dituen salbuespen edo "lizentziak" direlakoei dagokienez, Lizardik 1918ko lehen olerkietan erabili zituen batzuk izkuta arazteko joera nabari zaio hurrengo bertsioetan, arestian aipatu dugun hobetze ahalegin hori salbuespen horiei ere aplikatzen dielarik.

Lizardik gehienik erabiltzen duen salbuespena bokale artean hizkera mintzatuan erortzen diren leherkari ozenak, (b,d,g) erortzen uztea da, horrela elkarren ondoan geratzen diren bokaleek diptongo onargarria osatu ahal izan dezaten.

Esate baterako, *Nire maitiak ditu* deritzan 1918ko olerkian:

"Bañan zuk neretzako 7
eztezunez gero 6
beazuna ta ozpin-garratz-miña baño 7/6
nere malkuak-arren 7
ezpai-nazu maite... 6
negarra biarrian *ein* dezadan parre 7/6

Azken bertsoan ikusten den "egin>ein" aldaketa, beraz, silaba kontaketa ongi ateratzeko lizentziaz baliatzen da.

Izarkitako sua 1919ko olerkian ere lizentzia bera darabil:

Ai, oroitzapen 4
deunatzai lez 4
mun goguak 4
ein oi-dizutenak!" 6

1919ko *Idazkiya* olerki luzean ere antzerako lizentziak darabiltza:

"Ai "Mendi-Lauta" 5
aizkide ona 5
ta adar jotzaille 5
bikaña..." 3

Lehenago aipatu dugunez, kasu honetan ere leherkari ozenak bokale artean hizkera mintzatuan duten isiltzeko joeraz baliatu da hemen ere:

adiskide> aizkide

Tamalez, ez dugu olerki hauen beste bertsiorik ezagutzeko aukerarik izan, lizentzia horiekin gerora zer egingo zukeen jakiteko. Badugu ordea, *Mendi gaiña* deritzan olerkiaren bertsio bat baino gehiago, eta, beraz, lizentzia horiek erabiltzea galerazteko duen joeraren berri jaso daiteke. Olerki hau 1925ean argitaratu zuen *Euskal Esnalea* aldizkarian "Txolarre" ezizenez, eta gerora, zertxobait aldaturik *Biotz-Begietan* liburuaren lehen orrialdeetara aldatu zuen, 1920ko data emanik.

Bi lizentziaren erabilera nabari dezakegu bereziki lehen bertsioan, *Euskal Esnalea*koan:

"Arren, *aizkide* urruna, 7
Otoi, mendi maitea, 7
Negar-aran beltz oni 7
kendu nazakiok!" 6

Beste lerro batean ordea, leherkari ozenen (b,d,g)ren erorkeraz baliatu beharrean, hizkera mintzatuan oso ohizkoa den dardarkari bakunaren (r)-aren isiltzeaz baliatzen da:

"Egiz, Jaun-goikoaren 7
Esku ta aunditasuna 7
Ete-dituk an goitik 7
nabaitzen bertago ?" 6

Biotz-Begietan liburuan argitaratu zuen eta 1920an datatu zuen bertsioan aldiz, "aizkide" "adiskide" idatzirik ageri zaigu, eta azkenik aipatu dugun bertsoan "nabaitzen" laburdurari dagokionez, hitza aldatzeko aukera egiten du:

"Ete-dituk an goitik 7
sumatzen bertago?" 6

Hala ere, eta olerki honen bi bertsioen artean sumatzen dugun ezberdintasunak lizentziak kentzeko joera nabari den, *Biotz-Begietan* liburuan agertzen diren zenbait olerkik, "aiskide" bezalako leherkari ozenen erorkerak onartzen dituzte, bakanak badira ere.

Lizardiren lehen garaiko olerkiei bigarren bertsioetan eragin zizkien aldaketek Arana-Goiriren lizentzia edo salbuespen horiezaz ahalik eta gutxienik baliatzearen joera nabarmenerazten dute, hain zuzen ere, Lizardi Orixe eta Azkueren joerako idazleek bezala hitzak "bere osotasunean" idaztearen aldeko bait da, eta hitz-lauzko idazlanetan, nahiz olerkietan hitzak idazteko erari buruzko bariaziorik aurki ez daitekelarik.

Behar bada, Lizardiren metrikaren arloan sumatzen dugun joera honen ondoriotzat jo liteke Tolosako II. Olerti sariketarako egin zen deialdian Sabino Aranaren araudia erabiltzeko aholkua luzatzean salbuespenen aipamenik ez egitea [34].

Halere, ez da *Biotz-Begietan* liburuan ere horren frogarik falta. Esate baterako, *Oia* delakoan:

"Neke-sendalaria, 7
buru-argitzaillea, 7
lanaren saria... 6
Amestegi guria, 7
naigabeen azkaia 7 (e+e lotura egingabe)
nagien *nausia*" 6

Jadanik aipatuak ditugun leherkari ozenen erorkeraz, leherkari ozen (b,d,g) direlakoen bokale arteko isiltzeaz gain, inoiz edo behin, Sabino Aranak lizentzien artean aipatzen duen aukerazko luzaketaz ere baliatzen zen Lizardi. Esate baterako, *Otartxo utsa* olerkian 6/6/6/6 egitura duen ahapaldiaren neurriari eustearren, bigarren ahapaldian honako luzaketa hau egiten du:

"Udaberriero 6
baizenkustan ikus 6
lore-ontzi naro, 6
zergatik gaur ain uts?..." 6

Nolanahi ere, Lizardirengan honelako luzaketak ez dira ohizkoak. Lizentzien baliaketa ugariagoa egiten du Lizardik zenbait hitzen bukaera moldatuz egin beharrekoa izango lukeen sinalefa lotura bat galerazteko. Esate baterako, *Xabiertxoren eriotza* deritzan olerkian, ahapaldiek 7/ 5a /7/7/3a egitura dutenez, hirugarren zatiko bigarren ahapaldian honela luzatzen ditu hitzok:

"-Ixo... Nortzu ditezkek
atarikuok?
Nor zetorkek, algaraz,
miñagotzera gure
malkuok?"

1.3.4. Molde berriko lizentziak auzigai

Lizardik bakan samar baina, ikusi dugunez, beharrezko deritzanean zuhurtasunez erabiltzen dituen Sabino Aranaren araudiaren salbuespenen alor honek kritika zorrotzak jaso ditu euskal metrikaren aztertzaileren aldetik.

1.3.4.1. Hitzen forma idatziaren aldaketaz

Aztertzaile horien artean Patxi Altuna aipa genezake Sabinoren araudia euskal neurtizgintzan izan diren joera eta arauemaileen azterketa sakonaren egile dugunez:

> "Guzti honi buruz, ez genuke ezer kontra esatekorik eta bai, aitzitik, txaloak jo beharrik, zenbait arrisku ikusten ez bagenu bide horretan. Har dezagun Arana Goiri exenplutzat: bi lege eman zituen, esan bezala, elisio-sinalefei buruz eta ondoren lau salbuespen erantsi eta onartu, bi lege haiek bete gabe noiz utzi zitezkeen aditzera emanez. Gero lau salbuespen onartu baino ez al zen hobe bi lege haiek ez ipini? Legeak baino, salbuespenak gehiago? Horretarako ez zen lege beharrik, mamian eta funtsean ia

34 *El Día*, 1931-2-22, 16. or.

dena ontzat emana gertatzen bait da, gainera, lau salbuespen horietan eta edozein bertsolarik beretzat hartzen dituen baimen guztiak ere bai... Demagun Etxeparek honako bertso hau paratu zuela 'Bai ederra eguzkiaren goizaldeko diztira!'; Aranak txartzat emango zukeen bertso horrek bere legeekin ongi ez datorren sinalefa —ae— nahitaezko bait luke, hamabost silabatakoa izateko. Baina hori bera honela eman baligu 'Bai ederra euzkiaren goizaldeko diztira!!' orduan, ontzat.

Lege horiek direla bide, alde batetik irabazten dena bestetik galtzen da, eta dudarik gabe, hizkuntza batetan garraintzi handiagokoa den aldetik gainera. Hauxe esan nahi dut: elisio-sinalefan dena zilegi izatea txuliatu nahi da, baina hori erdiesteko ontzat ematen da hitzak osorik ez idaztea.

Eta zerk bortxatzen du hizkuntza gehiago: eguzkiaren idatzi eta nahiz lehen aipatu sinalefa —ae-, nahiz —g— mututzea, nahiz —i— bokalerdi egitea aukeran uzteak (Hori ikerlariak finkatu beharko luke poetaren bertsolan osoaren argitan) ala, nahi ta ez, horko sinalefa hori zilegi ez omen dela eta, —g-ren mututzea bortxaz ezarri ez ezen, hori idatziz ere hala agertu beharrak? Hitz baten esateko formalismo hutsean erortzeko arriskuan jartzen gara.

Zergatik ez, ordea, diogu guk, hitzak osorik idatzi eta inoizko ikerlariei utzi bere bertsogintzan onartzen fonetika aldakuntzak aztertzea? Hartara gaurko ikerlariren batek esan beharko zukeen Arestik, Etxeparek bezala, inoiz, bokale arteko —h— mutu egiten zuela eta berebat —g— hau Etxeparek ez bezala eta Aranaren lehen salbuespenaren arabera. Ala hobe ote hitzak laburtzea nahiz luzatzea, hitz batean aldatzea? Nik ez uste. Azterketa zailtzen du lasaikeria horrek? lioke Sarasolak. Azterketa izango bada, zaila izan behar du beti, gutti ala asko" [35].

Patxi Altunaren artikulu honetan Sabino Aranaren araudiari buruzko galdera edo arazo interesgarri batzuen planteamendua egiten da, eta Pizkunde aroa baino lehenagoko eta ondorengoen artean dagokeen ezberditasun batez ohartzera ere eraman gaitu.

Alde batetik, lizentzia edo salbuespenek hitzen forma aldatzeko arriskua dakartela aipatzen du, eta guztiz bat etortzea baizik ez dago. Izan ere, Lizardiren olerkigintza bi puntu hauen arteko tirabiran dabilela sumatzen bait da: alde batetik, hizkuntz eredu "berdindu" eta finko baten bila dabil, Orixek dioen bezala hitzak "bere zaharrean" eta bere osotasunean erabili nahi dituelarik; bestalde, ordea, zenbait bertsotan neurria beteko badu, hitzen forma apur bat aldatzea beste aukerarik ez du ikusten eta horretara jotzen du, Aranaren araudiak eskaintzen dizkion lizentziez baliatuz.

Nolanahi ere, Lizardiren olerkigintzan "lizentzia" edo salbuespenen erabilera, horixe besterik ez da, salbuespen bat, ahalik eta gutxien erabiltzen duen irtenbide bat, eta aukera duenean txuliatu ere egiten duena gainera. Esate baterako, *Mendi-gaiña* 1925ean argitaraturiko bertsioan "nabaitzen" hitza laburturik erabili arren, *Biotz-Begietan* liburuko bertsioan "sumatzen" hitzaz ordezkatu zuen dardarkari bakuna, bokale arteko —r-a isildu beharrik ez izateko.

Hala ere, Sabino Aranak hitzak idatziz ere laburtzeko joera hartu zuelarik, eta honek bera baino lehenagoko eta ondorengo idazleek —Patxi Altunak Etxepare eta Aresti aipatzen ditu-, erabilitako beste joera, alegia hitzak osorik idatzi eta neurtzerakoan behar diren aldaketa fonetikoak ikerlarien azterketetan finkatzeko uztearen aurka jotzen zuen.

Pizkunde aroko idazleen praktika eta neurkera sistemen erabilera ezagutu ondoren, eta batipat Sabino Aranaren idazlanek izan ohi zuten helburuari ohartuz, zera esan genezake Patxi Altunaren iritzi hauei buruz: alde batetik Sabino Aranak, eta bestetik, Pizkunde aroan olerkigintzan nahiz literaturaren inguruan zebiltzan ikerlariek euskal neurkerari maila jasoagoa ematea zuten helburutzat argi eta garbi. Horregatik nahi zuten prezeptiba orokor baten araua, irakurtzeko arauak finkatzea olerkarien artean.

Euskararen alorrean, ortografia finkatzen mende hasieran egin ziren ahalegin ugariak eta arrakastatsuak honen lekuko egokiak izan daitezke. Euskal olerkigintzak nolakoa izan behar zuen "eraikitzen" ari zirela esan genezake eta horretarako, une hartan eskura zituzten ezagupenak eta biderik ezagunenez baliatzea besterik ez zuten egin.

---

35 ALTUNA, P.; "Etxepare herri poeta" in *Euskal Linguistika eta Literatura bide berriak*, Deusto, Bilbo, 1981, 338. or.

Esate baterako, Sabino Aranak elisio-sinalefen alorrean onartu zituen bokale loturak eta gaitzetsi zituenen artean dagoen muga euskal diptongoen muga bera den era berean, hitzak laburturik idazteari dagokionez, bere garaian nahiz beranduago, hainbat eta hainbat idazlek zuten ohitura eta joera bati jarraitu baizik ez zitzaizkion egin esan genezake.

Bokaleen arteko elisio-sinalefei buruzko atalean aipatu ditugun olerkari berak, hau da, 1910-1925 urteen inguruan *Euskal Esnalea* eta *Euskal Erria* aldizkarietan ohizkoenak ziren Emeterio Arrese, Satarka, Orixe, Elzo-Azpiazu idazleek izenpeturiko olerkietan sarri aurki daitezke hitzak laburturik nahiz luzaturik neurkerta-premien arabera.

Hona hemen zenbait adibide:

"Zorungetu dek usotxo kutuna 11
Nere biotzak geien maite duna... 11
Eta neri ere 6
Ura zorun gabe 6
Uztearekin, *kendu-idak* zoruna... 11
Baña !*egon ai*! !badakuskek gugan 11
Zoruna laxter nola berreldu dan!" 11
(Elzo-Azpiazu. "Nere maitea negarrez!" *Euskal Esnalea*, 1916, 279 or.)

Olerki beraren beste ahapaldi batean Lizardiren zenbait olerkitan aurkitu dugun laburdura bera egiten du:

"Zer atsegiña ditek iganatzen? 11
Nere maiteak ¿zer egin dik iri 11
Ik min *eiteko* nere maiteari?" 11

Ohar bedi gainera, elkarren jarraian diren bi bertsotan, Elzo-Azpiazuk lehenegoan "egin" darabilela, eta azkenekoan, berriz, "eiteko". Eta zalantzarik ez daiteke izan Elzo-Azpiazuk ez zituela Sabino Aranaren arauak jarraitzen sinalefen atalean frogatu dugun bezala, bera bait da sinalefa loturarik askeenak egiten dituena.

Emeteri Arresek ere, esate baterako, 1918an *Euskal Esnalea*n argitaraturiko "Amaitu bedi gudaldia"n egiten du honelako laburdura bat:

"ez *bei* orbandu" 5

Orixeren lehen olerkietan ere bai, *Euskaldunak eta olerki guztiak* (Auñamendi, 1972) bilduak dauden 1916ko olerkien artean aurki daitezke "malda burûn" (*Gorritiko andreak*), "egueldi" (*Artzaiarena* olerkian eta —ue— diptongo eginez), eta "esi iten, esi iten" (*Esia*) bezalako laburdurak.

Beraz, eta garaiko autore gehienek olerkietan beharrezko zituzten laburdurak eta luzaketak idatziz ere adierazteko ohitura zutenez, ez dirudi harritzekoa denik Sabino Aranak ere bere salbuespenen artean onarturiko luzaketa eta laburdurak idatziz ere adierazteko "agindu" izana.

Bertsoak ongi irakurri eta neurtu nahi izatea ikerlarien eta adituen lana ez ezik irakurle olerkizalearen nahikaria izan behar du Lizardiren ustez, "azterketa zailagotzen duen lasaikeria horrek", hau da, bertsoak neurtzerakoan, elisio-sinalefak komeni denean bai, komeni denean ez, eta hitzen barruan egiten diren luzatze laburketak idatziz ez adierazteak, Lizardik esanaren arabera, zaildu egingo luke irakurle soilaren nahiz adituaren irakurtze ahalegina eta ondorioz dastaketa ere bai.

Sabino Aranak arau ematean harturiko jokaerak bere garaiko ohitura metrikoak jaso zituen, beraz, hein batean eta sinalefei dagokienez diptongoen irizpideari lotu zitzaion, besterik ez. Patxi Altunak aipatzen dituen Bernard Decheparek eta Gabriel Arestik bestelako joera hartu zuten ordea, biek hitzaren barruan gertatzen ziren kontsonante mututzeak idatziz ez adierazteko jokabidea hartu zuten. Etxeparek jokabide hau hautatzeko izan zituen arrazoiak igartzea zaila dirudien arren, Gabriel

Arestik —h-ak mututzat zergatik jotzen zituen jakitea erraza da: alde batetik -h- horiek entzuten ez ziren eta beraz bokale artean ez baleude bezala egiten den euskalkietan neurtzen ohiturik zegoelako, eta bestetik, jakina, euskara batuaren sorketa urteetan idatzi zuelarik ez zezakeelako inolaz ere neurkera arazoak zirela eta hitz beraren bi idazkera ezberdin erabiltzea onar.

1.3.4.2. Lizentziak eta hizkuntzaren normari buruzko irizpide ezberdintasunak

Gaur egungo ikuspegiak Gabriel Arestiren jokabideetatik gertuago jartzen gaitu gu, hizkuntz eredu finko baten aldeko ahaleginaren partaide garelako nolabait, eta euskalkietan ortografia eta hitzen formen alorrean izaniko anabasak alde batera utzi nahi ditugulako.

Sabino Aranak ordea, ez zuen arau hauek emanez bere hizkuntz proiektuarekiko inolako kontraesanik sortu. Berak ez bait zuen fonetismorik eta sinkoparik gabeko hizkuntz eredurik helburutzat.

Bestalde, araudia modu ezberdinean erabili zuten batzuek eta besteek, eta, salbuespenei dagokionez ere, joera ezberdinak nabari daitezke. Esate baterako, Lizardiren olerkien artean, arestian aipatu dugunez, "nausia" (*Oia*, 1920), "aiskide" (*Mendi-gaiña* 1920) eta "aiskide" (*Aldakeri* 1925) bezalakoak aurki daitezkeen era berean, idazle begiratuak ziren Jaka-kortajarena, Yagoba Onaindia eta batipat Jokin Zaitegiren olerkietan ere oso bakanak dira salbuespenen alorrean aurki daitezkeen adibideak [36].

Hauei dagokienez, esan liteke, hizkuntzaren eredu normalizatua eta beharkizun metrikoen arteko konpromisozko neurtizgintza sortu zutela, eta Lizardiren *Biotz-Begietan* aipatu behar da, ziurrenik, ahalegin horren erpintzat.

Jakina, olerkari guztiek ez zuten era berean jokatu, eta beren perfekzio teknikoaren egarriaren arabera lizentzien erabileran gehiago ala gutxiago lehiatu ziren.

Horregatik, onar zitzaketen laburdura ugariak ez dira Lizardiren adibide bakan horietan bezala, bokale arteko eta hitzaren barruko leherkari ozenak eta dardarkari bakunak isiltzera edo mututzera mugatzen, zenbaitetan, hitzaren amaiera deklinabide atzizkiarekin lotzerakoan euskalkietan ohizko diren laburduretara ere hedatzen dira.

Esate baterako, genitibo posesiboaren atzizkiaren "-re-" delakoa isiltzea ere ematen zen:

"atzo nê laguna" (*Gogalbena* 1918, Jautarkol)

"loan mende" (Onaindia, S.; "Saratsa ta Itxaropena" in *Yakintza*, XII, 1934, 408. or.)

"euzki" eta "aiskide" (Zaitegi "Egunabarrean" in *Yakintza*, XIII, 1933, 23. or.)

Edo soziatiboan:

"Igande ta jai goizetan
bere *amakin* jeisten zan
eleizara
ta meza entzun-ondoren
pozez bere amatxokin
mendiara"
(*Malentxu* Jautarkol. 1928. *Biozkadak*)

36 "nausia" (Jakakortajarena, "Burgosko eizak" in *Yakintza*, XIV, 1935, 96 or.)

Ahapaldi honetan ikus daiteke hitzaren bukaera eta atzizkiaren eransketan neurriaren barruan sartzeagatik eragin diren aldaketak, eta jokabide horrek zenbaitetan euskaraz oso bitxiak gertatzen diren luzaketak ere egin daitezkeela [37].

1.3.5. Aranaren araudia euskal neurkera finkatzeko saioaren oinarri

Sabino Aranaren araudia euskarazko neurtizgintza eraikitzeko sortu zen, arauetan sinalefa loturen tradizioari gehiegi ohartzeke, diptongoen lege fonetikoei atxikitzen zaie, salbuespenetan, ordea, garaiko ohiturak jaso eta, bere erara,onartu egiten ditu.

Araudia ez zaio hizkuntzaren eredu finko bat sortzeko irizpideari ohartzen, neurkera sistemaren finkotasunari, eta araudiaren erraztasunari baizik.

Lizardi bertsoak neurtzerakoan araudi baten premiaz oharturik dago, eta bi arrazoitan oinarritzen du Sabinoren arauen egokitasuna: lehena, araudiak finkatzen dituen bokale loturak edo diptongoak hitz askatuan ere gertatzen direlako, eta bigarrena, irakurleari bertsoak irakurtzerakoan nola egin behar duen erreztuko dion tresna direlako, metrika arloan belarria gaztelaniaren arauetara egina dutenentzako lagungarri gisa.

Lizardik, Sabino Aranak bezala, bertsoaren neurkera silabikoa hartzen du oinarritzat, silaba kontaketa alegia, eta beti beteko diren arau batzuen premia ikusten du. Irakurriak edo goraki esanak izateko sortuak diren olerkietarako arauditzat jotzen du, eta, bere ustez, olerkariek tinko betetzea beharrezkoa da, "porque aún con eso y todo, tiene el verso vasco dificultad bastante para ser leído con propiedad, para quienes tenemos el oído educado en romance" [38].

Bertsoak neurtzeko duen "neurtu-griñatxo" hori dela bide, eta neurkera silaban oinarrituz, sinalefak egiteko arauak onartzen dituelarik, Lizardi Orixeren irizpideetatik aldendu egiten da.

Biotz Begietan araudiaren erabilera zainduaren ispilurik gardenetako bat da, eta salbuespenik gutxien erabiltzen duenetakoa da; izan ere, Orixerekin batera hizkuntz eredu eta hitzak idazteko era bakar eta osoa erabiltzearen aldeko bait da, hizkuntzaren normalizazio linguistikoaren aldeko.

Lizardiren erabilpenean helduaroan lorturiko perfekzio hori ahaleginaren fruitu da. 1916-1917 inguruan sumatzen diren araudiaren lehen erabiltzaileen artean aipatu behar da Lizardiren izena, Andoni Arruti, Orixe, Areitio'tar Peli, eta Jautarkolekin batera.

Urteetan zehar argitaratu zituen olerkien bertsio ezberdinek araudia erabiltzerakoan bilakabide bat erakusten dute, hain zuzen ere, neurria gero eta zehatzago eman eta lizentziak edo salbuespenak ahalik eta gutxien erabiltzeko joera nabari delarik. Hitzen laburdurak eta luzakerak ahalik eta gutxien erabiltzen ditu, eta erabiltzen dituenen artean, bokale arteko b/d/g eta r kontsonanteak erortzearen ondorioz kontaktuan geratzen diren bokaleak elkartuz diptongoa egin eta silaba bat gutxiago izatea da.

Alde nabaria dago autore batzuetatik besteetara salbuespenen edo lizentzien erabilerari dagokionez, herrikoienek erabiltzen dituzte gehienik, eta kultoenek ekidin eta noiz-behinka baizik ez dituzte erabiltzen. Lizentzia poetikotzat jotzen dituzte, zentzurik meharrenean.

---

37 Jautarkolen jokabide hau ez da isolatua, ordea, bera bezala garaiko zenbait olerkarik ugari eta eragozpenik gabe erabiltzen dituzte salbuespenak, esate baterako, Tapia-Perurena olerkariak. *Yakintza,* XIII, 1933ko "Erregeak digaroz" (18. or.) Tapia-Perurenaren olerkian Jautarkolen askatasun bera nabari genezake: "nitzat", "egitentuzte", edo "apezan zakurra" bezalakoak azaltzen zaizkigu; bai eta Jautarkolen "Malentxu" olerkian ikusi dugun "mendiara" bortxatu hura bezalako, "odol gorriazko" egitura desegokia ere Tapia-Perurenaren "Sagardi loretsuak" (*Yakintza,* XVIII, 1935, 417. or.)

38 LIZARDI; "Rumbos nuevos" (I) in *Euzkadi,* 1931-12-17, 1. or.; K-L 360. or.

Beraz, praktikan, hizkuntzaren eredu normalizatua sortu nahi duten Lizardi bezalako idazleentzat Sabino Aranaren araudiak onartzen dituen laburdura eta luzaketak kontraesanean erortzeko arriskua bilakatzen dira, eta ahalik eta gutxien erabiltzen dituzte.

Metrikaren arloan, neurkeraren eta Aranaren araudiaren erabileraren arloan ere Lizardiren nortasuna isladatzen da: zuhurtasuna, aurrera begira eginiko egitasmoak betetzeko ahalegina, arauetara makurtu eta antolamenduaren abantailak ikustea... Euskal kultura eta politika arloan duen proiekzio berbera antzematen da honetan ere: etorkizuna eraikitzen lagunduko duten ekintzei lotzen zaie, erromantikoen artean ohizkoa den olerkari geniala, aldartetsua eta erromantikoaz guztiz bestelako aurpegia erakusten du honetan ere. Ez bait da era berean ahantzi behar Lizardiren olerkigintzak helduaroan egiten duen modernitate saioa perfekzio teknikoari emandako garrantziaren ispilu ere badela, garaiko literatura modernoetan nabari den "ongi buruturiko" obra artistikoaren gustua, Lizardiren ideia literarioen atalean jadanik adierazia dugunez.

1.4. ERRITMOA

1.4.1. Erritmoa euskal neurtizgintzan

Arazo metrikoei buruzko sarrera orokorrean euskal neurkerari buruzko teorietan oinarrizko unitatetzat silaba eta osagarri erritmikoak aipatu dira.

Aurreko 1.2 eta 1.3. puntuetan olerkariek erabili zituzten sistema zaharra eta berria zehazten ahalegindu naiz, Lizardiren metrikaren oinarri orokorrenak deskribatuz batera. Erritmoari buruzko atal honetan, berriz, Lizardiren idazlan teoriko eta lirikoen azterketa metriko-fonikoan funtsezkotzat jo behar den osagarri erritmikoen azalpena egiteko asmoa dut.

1.4.1.1. Zedarripena

Erritmoaren zedarripen bat bilatzerakoan, hots, aztertu nahi dugunaren mugak ongi ezagutu nahi ditugularik, euskal olerkigintzan erritmoak dituen ezaugarrien azterketan ihardun duten bi ikerleren hitzetara joko dut, bata bestearen osagarritzat jotzen ditudalarik.

Alde batetik, Joan Mari Lekuonak "Euskal Erromantzeen atarian" delakoan euskal azterle gehienek duten irizpidea jasotzen du:

> "Batzuetan —eta honetan bat etorri beharra dago Orixe, Mitxelena eta Altunarekin— gauza hauen ondorio da euskal erritmoa: hitzen katean etenaldi berdinak egitearen ondorio edo-ta neurri jakineko etendurek sortutako isiluneen ondorio.
>
> Gainera, etenaldi eta ixilune horiek perpausaren edo-ta perpaus atalaren azkenean joango dira, edo, nahi bada, berdin nahiz antzeko diren multzo fonetikoen atzetik, hau da: "hitz multzoa"ren edo "multzo foniko"aren atzetik" [39].

Lekuonak Altunaren irizpidea onargarritzat jotzen du:

> "Tales grupos de palabras no son por otra parte, susceptibles de una ulterior división interna, dado que ni siquiera el número de sílabas es requisito indispensable, mucho menos la coincidencia de ictus o acentos en sílabas determinadas (Goikoetxea) y la distinción de tiempos fuertes y débiles (Lekuona)" [40].

---

39 LEKUONA, J.M.; "Erromantzeen atarian" in *Euskal Linguistika eta Literatura bide berriak*, Deusto, Bilbo, 1981, 293-320. or.

40 ALTUNA, P.; *La versificación de Dechepare*, 79-121. or.

Beraz, euskal metrikaren ikertzaile nagusiak bat datoz euskal erritmoa etenek zedarritzen dutela esatean. Honek orokorki balio du euskal neurtizgintza guztirako: Altunak Etxepareren bertsoetan eten nagusi eta txikien azterketa egin duen moduan, Haritchelharek ere gauza bera frogatu du Etxahuni dagokionez [41].

1.4.1.2 "Izketak berez dakarrena bezalako prosodia"

Erritmoa etenetan oinarritzean, ordea, Orixek aipaturikoek baino aurrerago jotzen du, "higikera" euskal bertso errezitagarriak edo irakurgarriak behar duen ardatz bakarra bilakatzen bait du, neurkera, silaba kontaketa eta errima bazterturik:

> "Nire ustez, bultzaratxo esaten zaion bidemodu ori ez dagokio euskarari (sistema de apoyaduras en las partes fuertes) ez baitu indar azentu nabarmenik. Niretzat etena aski da neurtitzari beure ariurria emateko. Izan ere, zer da igikera edo tuntuna? Etenak mugatzen duen mintza-neurrien sailla, neurri ori oso zurruna ez izanik ere" [42].

Beraz, nolabait erritmoaren alorrean etenek duten garrantzia euskal metrikaren arloan ikerlari ibili diren guztiek azpimarkaturikoa da, eta gehienek etenen funtzio erabakitzailea nabarmendu dute. Orixek etenen araua azken ondorieotaraino eraman du, ordea, euskal olerkiak izan beharko lukeen irizpide bakarra bilakatzeraino.

Honi dagokionez, Orixe prezeptista bilakatzen zaigu. Etenetan bakarrik finkatzen den olerkigintza proposatzen du, hain zuzen ere, prosak berak duen erritmoa bakarrik hartuz. Honela, inguruko erdarek eragin diguten kutsuaz askatu eta euskal hizkuntzari ongienik egokitzen zaion erritmoa, hitz lauzkoa bezalakoa da egokiena:

> "Izkuntza berriekin nahasirik, euskaldunak nekez egiten dugu bertso bat esateko balio dunik (para recitar), ozenki esateko alegia. Logaedicos esan oi ziotena, batez ere Aeskepiadel-ena ederki datorkigu" [43].

1928an emandako "Oraindañoko Euskal-Neurtitzak" hitzaldian [44], irizpide berberari eusten zion: higikera ona duen bertsoak ez duela beste ezeren beharrik; horixe da euskal hizkuntzarentzat, irakurria izateko euskal olerkiarentzat irizpide bakarra, gainerakoak bazter utzirik. Hona hemen zortziko nagusiaz diharduelarik, esana:

> "Arrese ta Beitiak, Karmelo Etxegaraik eta bizi den Arresek ere, neurri orretan eman digute bertso ederrik aski. Ez det ukatuko; baña neurri ori, an erren, or trinkin, emen oztopo dabillela iduri zait. *Izketak berak dakarrena bezalako mintzorik edo prosodiarik ez da.* Beaz, neurtitzetan, izketari darraikiona edo izketaren ondoagokoa ta ederragoa, gerko-latiñen logaedikos bezela; solaskara edo izketa-antzekoa. Kantarako berdin da nolanaikoa ere" [45].

Arestian aipatu dugun Gazteluk, Jose Ignazio Goikoetxeak esaten du "Orixe-ren bizi-berri laburra" deituriko artikuluan [46] hitzaldi hauetan lagun egin zirela Lizardi eta Orixe, eta ondoren ikusiko dugunez, erritmoari buruzko iritzietan ere hurbilketa handia gertatu bide zen.

---

41 HARITCHELHAR, J.; *Le poète ...*, 443-444. or.

42 ORIXE; "Itzaurrea" in GOIKOETXEA, J.I., "GAZTELU"; *Musika ixilla*, 21-22. or.

43 *Ibidem*, 48. or.

44 *Itzaldiak*, VI, 127-168. or.

45 *Ibidem*, 164-165. or.

46 in *Orixe. Euskaldunak poema eta Olerki guztiak*, Auñamendi, Donostia, 1972. Anjel Zelaietak "Orixe eta Arana-Goiriren eragina Lizardirengan" (*Jakin*, 29, 1983, 28-38 or.) Lizardi eta Orixeren adiskidantza aintzinakoagoa dela esaten du, 1922ko "Donapaleuko yoan-etorria" deituriko artikuluan "adiskide min"tzat aipatzen den "Uitzi"

1.4.2. Lizardiren erritmoari buruzko teoria eta praktika

Silaba kontaketari buruzko gaian Lizardik bere iritziei eutsi eta Orixerenetatik alderatua ibili bazen ere, honetan erabat irizkide dira: Orixek irizpide bakartzat du, Lizardik ordea, besteekin, silaba kontaketa, errima eta abarrekin baterakotzat. Azaldu berria dugun Orixeren irizpidea hitzez-hitz jasoa aurkitzen dugu Lizardiren "Sabino poeta" artikuluan:

> "Mucho se discute acerca del metro vasco y sobre la manera y posibilidad de recitar vascamente el verso vasco. Todo esto lo trae nuestra intensa castellanización, que nos lleva a dar al verso euskérico un ritmo monótono y trotante, arbitrario en relación con la entonación con que estas mismas palabras serían pronunciadas en el lenguaje corriente. Eso es abusivo. No semejante libertad exista en el verso de ningún idioma, excepto al cantarlo.
>
> *Para mí todo el secreto del asunto se reduce al huevo colombino de construir versos que sencillamente se lean como prosa*" [47].

Bai Orixek eta bai Lizardik behin baino gehiagotan aipatua duten euskal bertsoaren nortasuna bilatze eta erromantzeetako irakurtze modutik askatzeko premia horrek garaiko irakurtze-ohituren ondorio dirudi, alegia gaztelaniazko metrika arauak jarraituz irakurtzeko joeraren ondorio. Hori da, behintzat, Lizardik ematen dion azalpena, nahiz eta Orixek erdal azentuazioa eta errima arauei ere egozten dien errua.

Lizardik Orixeren mugetaraino jo gabe, irakurketa zaindua egitea proposatzen du, aldez aurretik finkaturiko arau batzuez baliatuz, eta olerkariek irakurleen lana erraztuko duen araudiari, Sabino Aranaren araudiari lotzea hobesten du [48].

Hala ere, Lizardirengan erritmoa markatzen duten elementuak aztertzerakoan, etenez gain, hots, nahiz bertso-lerro barruko, nahiz amaierako etenez gain, beste zenbait baliapide erritmikoren laguntza ere baduela azpimarratu beharra dago hasiera-hasieratik.

Definizioz erritmoa markatzen duten etenei dagokienez, Lizardiren olerkigintzan aurkitzen ditugun ahapaldi egiturak herri olerkigintzan erabiltzen direnak baino laburragoak dira eskuarki, eta ahapaldi horien egituraketa moldatzean eta lantzean kokatzen du berak erritmo konpasa, bertso barruko eten finkoetan baino gehiago.

Lizardiren bertsoetan oso gutxik onartzen dute etenik, eten finkorik ez behintzat. Eten edo zesura dutenetan *Agur* aipa genezake: hamabiko bertsoak seigarrenaren ondoren eten txikia onartzen dutelarik. Kasu bakana da, ordea.

Beraz, eten finkoak ez daitezke Lizardiren olerkietako erritmoaren arduraduntzat aipatu, bai ordea bestelako, etenak, erritmo izkutuagoa suposatzen duten hitz andanen konbinaketaren fruitu.

Hala ere, Lizardiren erritmoa Orixeren teorizazioak ametitzen ez dituen zenbait elementuk markatzen dute: osagarriak errima, zangalatrauak, aliterazioa, errepikapena, anafora eta paralelismoak bezalako baliabide fonikoek ere markatzen dutela esan daiteke, gaien arauerako ahapaldien egituraketa bereziki hautatuarekin batean. Baina ez dago baliabide hauetan, ez aipatu dugun hitz andanen konbinaketaren kasuan nagusitasun nabaririk azpimarratzerik, erritmoak berez gehiegi markatu gabe daude, orohar, ez du behin eta berriroko erritmo motaren aldeko zaletasunik

---

Orixe baizik ez daitekeelako izan. Zelaieta *Itz-Lauz* liburuan agertzen den data oker batean oinarriturik dihardu. "Donapaleura..." izeneko artikulua 1929-12-25ean *Euzkadi* egunkarian argitaratu zen, berez.

47 LIZARDI, L.; "Sabino poeta" in *Euzkadi*, 1931-11-25, 1. or.; *K-L* 348. or.

48 LIZARDI, L.; "Rumbos nuevos" (I) in *Euzkadi*, 1931-12-17, 1. or.; *K-L* 349-352. or.

"En la medida del verso, hay de vez en cuando transgresiones a la ley de diptongos, que hemos ya dado todos en seguir. Me refiero a la formulada por Sabino Arana y Goiri, que a mi juicio debe ser rigurosamente obligatoria por las razones que aquel preclaro tratadista expone, y porque aún con eso y todo, tiene el verso vasco dificultad bastante para ser leído con propiedad, para quienes tenemos el oído educado en romance".

ageri. Gaiari ongienik egokitzen zaion ahapaldia erabiltzean eta sarritan propio hartarako sortzean erritmo egoki bati heltzen dio eta eskura dituen baliapideez idarokitzen du maisutasunez.

Banan-banan aztertuko ditugu osagarri erritmiko hauek ondoko orrialdeetan, baina aldez aurretik ohartu beharko dugu Lizardik ez duela erritmo nabarmenegia sortzea bilatzen. Erritmo nabarien zurruntasuna hautsi nahi du eta barietatea izango da neurri, ahapaldi, erritmo eta ahal duen elementuen konbinaketaz bilatuko duen efektua; erritmo nabari eta "trotoia", erritmo markatuegiak sortuko lukeena ez du gogoko. Horregatik, ondoren aipatuko ditugun baliapide erritmikoak ez dira banaka harturik ugaritasun eta garrantzia handiegikoak.

Guztiak batera harturik, ordea, olerkiaren "ereskitasunari", musikalitateari erantsi dioten erritmo guztiz zainduaz ohartu behar da, kasuan kasuan. Horixe da Lizardiren bertsoek bilatzen duten plazer estetikoa, esanahia atxikitzetik datorkeen plazer intelektuala eragotziko ez duen eta belarriari atseginen izango zaion olerkia egitea.

Hiru alorretan bereiziko dugu erritmoari buruzko azterketa: Lehenengo biak bertso-lerro amaierako etenari dagozkio, errimak hots-berdintasunari, zangalatrauak, aldiz, berdintasun sintaktikoaren hausketari. Hirugarrena aldiz, bertso-lerro, ahapaldi nahiz olerki barruko elementu fonikoen hoskidetasunari dagokio.

1.4.3. Errima

1.4.4. Zangalatrauak

1.4.5. Beste zenbait baliapide erritmiko

1.4.3. Lizardiren errimari buruzko ideiak eta praktika

1.4.3.0. Sarrera

Lizardi kokatzen den mende hasierako garai honetan bertsoak beti neurria eta errima behar ditueneko printzipioa oso eztabidatua izan zen, alde batetik, bertso librearen edertasun zaila azpimarratzen da, eta bestetik erritmoaren benetako poetikotasuna goraipatzen da errima baliapide erritmiko gisa gutxiesten delarik.

Euskal Herrian ere joerak berdintsuak dira, arau metriko zehatzak eman zituen Sabin Arana-Goirik bertso librea erabili zuen batipat, eta Euskal Herrian metrikaren arloan jakintsuenetarik zen Orixek behin eta berriro azpimarratu zuen bertso idatzi eta errezitatuan neurkera eta errima ohizkoek bere ustez zuten meritu eskasa.

Errima, definizioz fonema edo fonema multzoen errepikapenean oinarriturik dagoela esaten den arren, hotsaren aldetik, fonetikaren aldetik bakarrik hartzea okerra litzateke, errimak hoskide diren hitzen arteko harreman semantikoa ere aintzakotzat hartu behar bait du.

Roman Jacobsonek *Lingüística y poética*[49] deritzan hitzaldian bi errima mota bereizten ditu, bata atzizki eratorleen edo deklinabide atzizkien bidez egiten direnak, hau da "homotelenton" deitzen duena egiten dutenak, eta bestea, errimaren bidez batzen diren hitzak gramatika kategoria berekoak ala ezberdinekoak diren.

Jacobsonek dioenez, errimari buruz bi hauek duten ikuskera ezberdina da, eta orokorrean errima gramatikalaren alde ala ez, atzizkien bidez eginikoaren alde ala aurka egotean datza arazoa.

---

49 JACOBSON, R.; *Lingüistica y poética*, Cátedra, Madrid, 1981.

Jacobsonek Hopkins aztertzaile britainiarra aipatzen du, haren iritziz, errima gramatikalak baztertzen dituenarentzat errimak bi edertasun mota dituela helburutzat: lehenegoa hotsen antzekotasuna eta esanahien ezberdintasuna [50].

Izan ere, Jacobsonen ustez, errima neurria bezala funtsezkoa den ardatz poetiko beraren gainean eraikia bait dago, paralelismoaren gainean, alegia.

> "La parte artificial de la poesía (quizá haríamos bien en considerarla toda ella artificio) se reduce al principio del paralelismo. Su estructura es la del paralelismo continuo, pero ese paralelismo ha de ser de dos clases —allí donde la oposición aparece claramente marcada y donde es más bien transicional o cromática-. Sólo la primera —la del marcado paralelismo— tiene que ver con la estructura del verso (en el ritmo, la repetición de una cierta secuencia de sílabas; en el metro, la de una determinada sucesión de ritmo en la aliteración, asonancia y rima). Ahora bien, la fuerza de esta repetición consiste en engendrar otra o un paralelismo que responda con palabras o con el pensamiento (), paralelismo en las palabras y en el sentido. A este paralelismo más delineado pertenecen la parábola y el símil" [51].

Errimaren izaera poesiaren paralelismo ardatzaren inguruan kokatzen duen Jacobsonen aportazio garrantzitsu honen inguruan azal genezake beste zenbait autorek hoskidetasun gramatikala eta bestearen artean egiten duen bereizkuntza. Olerkigintza garatu ahala, exigenteagoa bilakatzen joan dela baieztatzen dute zenbait autorek, eta errima gramatikalen arbuiapena eta errima zailago eta zentzuaren aldetik kontraste gehiago egiten duten poeten ahaleginak zaildu duela bereziki errima. Jean Cohenek, *Estructura del lenguaje poético* liburuan [52]. Frantziako olerkigintzaren bilakaeran errimari buruzko kontzepzioak izaniko garrantzia azpimarratzen du.

Erdi Aroko olerkigintzaz ari delarik, errima asonantea askitzat ematen zela gogora arazten digu, eta geroago, hizkuntza poetikoa landu ahala, XVIII. mendean errima kontsonantea nagusi izatera heldu zela. Jean Cohenek ere, Roman Jacobsonek bezala, bi errima mota bereizten ditu, atzizki bidez lorturikoa, hau da, berak, errima "erraza" deitzen duena, eta bestalde, eratorketa atzizki edo flexio (deklinabide) atzizkiari esker ez, baizik eta amaiera berdina duten hitzen artean egiten dena.

Errenazimendu edo Europako Pizkunde aroan eragozpenik gabe onartzen ziren errima gramatikalak edo "errezak" XVIII. mendean arbuiatuak izaten zirela jakinerazten digu.

Beraz, "zailtze" prozesu bat eman da, baina errima ez da olerkariaren akrobazia ahalegin hutsa, Jean Cohenen ustez, XVIII. mendean ematen dena. Bada beste arrazoirik. Cohenek aipaturiko (81 or.) XIX. mendeko Banville-k idatziriko *Petit Traité de Poésie française*liburuan Jacobsonek aipaturiko zentzuan doan araua ematen du:"Ahal den neurrian, elkarren artean antza handia baina oso esanahi ezberdina duten hitzak errima itzazue".

Beraz, errimarako hautatzen diren hitzek ahalik eta antza gehiena izanik, oso esanahi ezberdina izan behar badute, orduan entzuleari hotsaren aldetik antzerako diruditen esanahien artean dagoen ezberdintasunaz sorpresa edo uste okerra sortarazi nahi zaiola dirudi, irakurlearen enteleguari eginiko keinua bezala da. Esanahia ahalik eta zuzenen heleraztea baino gehiago esanahi horren ñabardura eta esateko moldeaz oharterazi nahi zaio, "adierazlea" signifikanteaz beraz ohar dadila eskatuz.

Sorpresa edo "keinu" honen bilakaeran, hotsez antzeko eta esanahiz ezberdin diren hitzen arteko errimaketan, aurreragoko urrats bat suposatzen du kategoria gramatikal ezberdineko hitzen arteko hoskidetasuna bilatzeak.

---

50 Cualquiera que sea la relación que haya entre sonido y sentido en las distintas técnicas rítmicas, ambas esferas están necesariamente relacionadas" *Ibidem*, 58. or.

51 *Ibidem*, 58. or.

52 COHEN, J., *Estructura del lenguaje poético*, Gredos, Madrid, 1975.

Euskal bertsogintzaren arloan ere zailtasun mailaketa antzerakoa proposatzen du Juan Mari Lekuonak adibide gisa bertsolarien artean onarturik dauden errimari buruzko irizpideez diharduelarik:

> "Eta azkenik, puntuen arazoa, erderaz "rima" esanez ulertzen duguna. Guk hemen-honetan, bertsolarien usarioari begiratuz, lau edo bost mota sailkatzen ditugu: puntu zailak, puntu aberatsak, puntu errazak eta puntu baldanak.
>
> Adibidez;
>
> Puntu zaila:
>
> "ni nork", "iñork, "diyot", "biyok" (Bilintx)
>
> Puntu aberatsa:
>
> "elkarri", "ekarri", "jarri" "garbi" (Xenpelar)
>
> Puntu erraza:
>
> "lasatzen", "emen", "eskatzen", "amaitzen" (X.X)
>
> Puntu baldana:
>
> "etxetik", "kanpotik", "burutik", "begitik" (X.X) [53].

Juan Mari Lekuonak zailtzat jo dituen errimak edo puntuak laurak kategoria gramatikal ezberdina dute eta esanahi ezberdintasun handia: lehena izenorde galdetzailea, bigarrena izenorde ukatzailea, hirugarrenak aditz jokatuaren forma bat eta laugarrena aldiz, izenorde zenbatzailea plural hurbilean. Laurak ezberdin eta lehenengo biak esanahiaren aldetik aurkako ere badira.

Aberatsa deitu duen bigarrenean, bi kategoria gramatikal berekoak dira "ekarri" eta "jarri" aditz partizipioak alegia, baina beste biak oso ezberdinak, lehena izenorde elkarkari deklinatua (nori kasuan) eta azkena berriz adjetibo edo adberbioa. Hiru kategoria aski ezberdinak, bada.

Errez eta baldanetan, kategoria gramatikalen arteko urruntasuna ezabatuz doa, esate baterako baldanetan, denak deklinabide atzizki berarekin eginik daude ablatiboarekin, hain zuzen ere, errazen artean berriz, hiru aditz nominalizatuaren inesibo zaharrean, deklinabide atzizki baten bidez eta laugarrena, aldiz adberbio batez eginik dago.

Ohargarri deritzot beste alderdi honi ere, puntu zailtzat ematen diren hitzen artean dagoen errima ez da kontsonanteetan oinarritzen bokaleetan baizik. Beraz, euskal bertsogintzan Lekuonak ematen dituen adibideen arabera, kontsonatzia ez ezik bokaleen arteko kidetasuna silaba batez baino atzerago jotzeak eta arestian aipatu dugun kategoria gramatikal ezberdinen bidez eginiko hoskidetasunak ere estimagarritzat jotzen dira.

Euskal bertsogintzak gaztelaniazko kontsonante eta asonatearen arteko zailtasun mailaketa horri berorri ez erantzuteak baduke noski zerikusirik euskara hizkuntza "aglutinante" direlakoen artean sailkatzen direnen artekoa izatearekin. Gaztelaniaz atzizki eratorleei esker eta aditz jokabidearen ondorioz egin daitezke errima errazak, eta gauza bera gertatzen da frantsesez Jean Cohenek azpimarkatzen duenez. Euskaraz ordea, hitz-eratorketa sistema garatuagoa izateaz gain, deklinabide atzizkiak ere baditugu, hemezortzi denetara, beraz errima kontsonantiko errazak egiteko bidea oso zabala litzateke gure hizkuntzan. Ez da hori estimatzen dena, ordea.

---

53 LEKUONA, J.M.; "Euskal erromantzeen atarian" in *Euskal Linguistika eta Literatura bide berriak*, Deustoko Unibertsitatearen argitarazioak, Bilbo, 1981, 313. or.

1.4.3.1. Olerkariak eta errimari buruzko iritziak

Inguruko hizkuntzetan mende hasieran, olerkari klasizistengandik erromantikoengaino XIX. mendean emandako urratsez aldatzen da, eta erromantikoengandik sinbolistengainokoak guztiz aldatu zuela esaten du Jean Cohenek. Bestalde, Juan Mari Lekuonaren arabera, ohituraz euskal bertsogintzan estimatu izan den errima motaz ohartu ondoren, Lizardiren iritziak eta praktikak nahiz bere ingurukoek zituzten iritziek dituzten ezberdintasunak azpimarratzera joko dugu bi erreferentzia puntu horiez oharturik.

Atalaren hasieran aipatua dugunez, errimaren beharrari eta nolakotasunari buruzko krisi moduko bat nabarmentzen da euskal olerkigintzaren mende hasierako teorikoen artean.

Esate baterako, eta Pizkundeko olerkarien gidaritzat aipatu dugun metrika araudiaren sortzaile izan zen Sabino Arana Goirik, Arnaut Oihenartek bere garaian egin zuen bezala, euskaraz bertsoak egiten dituztenek errimak egiterakoan duten ganoragabekeria eta zehaztasun eza salatzen du, errimari buruzko aipamena egiten duen azpiohar batean:

> "En alguna ocasión pienso tratar de ella, pues son grandes los defectos que también en este punto se notan en todos los versificadores más o menos poetas. Sólo advertiré que la rima del Euzkera es muy limitada, porque no tiene más que consonacias monosilábicas (a no ser que otra cosa requiera la música a la que la composición se aplique) ya que todas las sílabas tienen la misma intensidad de tono y los versos, en sí mismos considerados basta que consuenen en su última sílaba gramaticalmente diferencial. De aquí que el verso libre, o sin consonancia perfecta o imperfecta, sea el más apropiado al Euzkera" [54].

Sabino Aranak ohartzen du euskaraz ez daitekeela azentuarekin kontatu errima egiterakoan, baina bestalde, horrek berak euskarari errima kontsonanteak egitea galerazten ziola eta bertso librea euskaraz erabil zitekeen egokienatzat iriztera jo zuen. Euskal bertsogintzan asonantzia aski zela oharteraztean zuzen bazebilen ere, kontsonantziaren nahitaezko edo meritu berezia azpimarratzeak hizkuntza erromantzeetako araudi metrikoaren irizpean zegoela salatzen du.

Sabino Aranak euskal metrikari buruz duen ikuspuntu arauemailea ez bezalakoa, antzinako olerkigintzaren usarioen berreskurapena eta irtenbide proposamenaren bidea hautatu zuen folklore eta antropologiaren alderako zaletasun berezia izan zuen Manuel Lekuonak. Bere iritzia jakitea ere guztiz baliagarri zaigu garaiko poetika joera nagusien berri jakiteko.

Manuel Lekuonak, dagoeneko esana dugunez, 1918rako ezagutzera emanak zituen euskal metrikari buruzko iritziak eta Pizkunde aroko idazleengan eragina izan bide zuen.

Guda ondoren, liburuaren jatorri eta sorrerari buruz hitzegiten duen zenbait elkarrizketetan, hitzaldi hura eta liburu hura argitaratzera eraman zuten arrazoiak azpimarratzen ditu. Bere garaian bertsolaritzak zuen estimazio eskasa gogora arazten du, batez ere kritikarik nagusienak errima errazkeriarengatik eta ahapaldi barietate eskasengatikoak izaten zirelarik. Manuel Lekuonak bere garaian esan eta idatzi egiten ziren gehiegikeriei erantzuteko premia sumatzen omen zuen. Bertsolaritzaren arteak izandako ezaugarri dotoreak erakutsi eta berrindartzeko premia omen zekusan. Horregatik heldu omen zion bertsolaritzaren aintzinako ereduak aztertu eta baloratze lanari, eta bere garaian zuen estimazio eskasaren arrazoi omen ziren errazkeria eta ahapaldi barietate eskasari irtenbide bat erakusteko lanari.

Barietate eskasiari irtenbidea proposatzeko egin zuen eredu zaharren eta teknika zaharren azterketa lana. Bai eta aukera oparoa zegoela erakutsi ere. Errimaren arloan berriz, bide errazak utzi eta errima zailagoak bilatzen saia zitezela aholkatzen zien bertsolariei.

---

54 ARANA GOIRI, S.; "La fonética en la medida del verso" in *Lecciones de ortografía del euzkera bizkaino*, Sebastián de Amorrortu, Bilbo, 1896, 187-200. or.

Sabino Aranak euskaraz azenturik ez omen dagoelako errima erabat baztertu behar dela dioen gisa berean, Manuel Lekuona ez zen iritzi honetakoa:

> "Muchos sostienen la opinión de que en una lengua sufijativa, como lo es esencialmente la nuestra, el consonante y toda rima resulta un procedimiento demasiado cándido y pueril, que por lo mismo se ha de rechazar en absoluto.
>
> Es este un inconveniente que creemos afecta en mayor o menor medida a todas las lenguas, pues todas son más o menos sufijativas, inconveniente que se puede eludir, imponiendo al poeta aquellas normas de sobriedad, que, siendo dictadas por un exquisito gusto artístico, le exijan que en campo tan rico en flores, sólo escoja para su ramillete las más bellas, las mejor coloreadas y las que más poderosamente puedan contribuir a la belleza del conjunto" [55].

Lekuonak ez du irtenbide zehatz bat proposatzen errima errezetarako joera "sendatzeko". Selekzioa eta gustu poetikoaren irizpideak agindu behar dutela azpimarratu baizik ez du egiten. Bide beretik jo zuten Jokin Zaitegiren iritziz, Azkueren jarraitzailetzat aipatzen diren Pizkunde garaiko olerkariek. Zaitegik Azkueren hiztegiaren eraginpean Pizkunde aroko idazleen artean gertaturiko berrikuntza formalaren barruan errimaren berrikuntza azpimarkatzen du bereziki:

> "Aldi ori sortzean, euskel itz-neurtizkera nola zetzan aurrenik ikertu dezagun.
>
> Euskel-iztegiko itzik asko, erdiak baño geiago, noski, zokondoratuta zeuden; beraz eskubete diña etziran itz moltsoz, beren oldozpenak adierazi bear zituzten olerkariek.
>
> Amaika itz eztitsu, argi ta ezagun, baldankeriz eta zabarkeriz, ugarra yarioan eta sitsak yanda zokondoan geundurik ziran. Erdalkeriak yotako gaitz-miñez, euskera dena ezurruts biurturik zan. Olerkietan erabilli oi ziran itzak, alik eta erdel-mordolloenak izan bear zuten. Arrezkero, esakera urri, murri eta bakana izan bear.
>
> Itz-neurtizkera ere, itzak bezala, erabat urria zenun. Geientsuenik amar silabadun itz neurtizkera lo-argarria erabilli oi zan.
>
> Gañera, itz-kopuru urri ta beartsuak itzen berdin-amaitze urriak ekarri zitun; itz-erorkera geientsuenak erraz eta betikoak ziran. Ordurarteko itz-neurtuetan ere, zatarri ugariegi ikusten ziran.
>
> Asmo berrien geznari ziran Aitzol-en gizaldiko euskel-olerkariek ezin zituten artu bide estuok: lagungarri izan bearrean eragozpengarri bait ziran. Beraz, itz-neurtizkera eraberritu bear zuten.
>
> Orain aldiz, Aitzolen gizaldikoek olerkari zurrian egiten zuten lana, osotara bederen, azalduko dizut.
>
> Len esan dudanez, itz asko oroldiz estalita, erdoiz yanda, beste ainitz, idazti zarretan eta or-andik sakabanatu ta bakanduta zeuden. Beraz, alik eta itz berri gutxienik asmatuta, Azkue'ren itz yatorrak bildu, ta erabiliaren erabilliz, garbitu, soildu eta egutera ekarri zituten. Orrela ordurarteko olerkietan erabiltzen zan itz-eli urritxoa ugaldu zen.
>
> Itzak ugaldu ondoren, itz-erorkera ere asko ugaldu ta aberasatu zuten Aitzol'en gizaldikoek: gañera itz-erorkerari garrantzi andia eman zioten eta itz-erorkera zail, bakan eta oitu-ezen irrika ari ziran.
>
> Orra itz-erorkera zaillen zenbait erakusburu:
>
> Itzal! Baso'ren ume yaukal
> xaloagorik ezin al:
> beltxeran, begi bai azal:

55 LEKUONA, M.; "Métrica vasca", 1918, Gasteizko Seminarioko hitzaldia in *Idaz-lan Guziak*, Kardaberaz bilduma-22, I, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1978, 131-157. or.

Itzal!
Itzal! [56].

Ikusten dugunez, olerkarien artean errimarengatik kezka handia edo berritu nahi handia zegoela agertzen du Zaitegiren artikuluaren zati honek. Azpimarragarria deritzot Zaitegik aipatzen dituen aspergarri eta eskastasunaren unean zertan dautzan aztertzeari. Alde batetik, zortziko nagusi "lo-argarria"ren erabateko erabilera aspergarritzat aipatzen du, eta honetan Orixerekin guztiz bat zetorrela ikusten da. Beraz, ahapaldi barietate urria da honen bidez salatu nahi dena. Bestetik, berriz, hiztegi murritzegiak errima gehientsuenak "errez" eta "betikoak" izatea zekarren, Zaitegiren ustez.

Aipagarria da Pizkunde aroko idazleen berrikuntza formalaren arloan errimari "garrantzi berezia eman zioten eta itz-erorkera zail, bakan eta oitu-ezen irrika ari ziran" esatea Zaitegik. Errimak garrantzi handia bazuen, errima zailagoen bila bazihardutenen, jakin behar dugu Zaitegik adibide gisa aipatzen dituen errima berri eta zail horiek zein bidetatik edo alderditatik diren zail.

Adibide gisa, guk aipaturiko zatian Lizardiren ahapaldi hori bakarrik jaso badugu ere, bera baita jasotzen duen lehenengoa, Lizardiren beste bi ahapaldi, Lauaxetaren eta Orixeren beste bana, eta bereak, Zaitegirenak, beste bi.

Lizardi: yaukal/ al/ azal/ Itzal/ Itzal

yario/ baitaragio

naspil/ orril/ urbil/ dabil

Lauaxeta: gardena/ arrena

ortzira/ begira

Orixe: sal/ gal / al / zabal

Zaitegi: bai-dut/ zut / ut/ dizut

pake-giro/ berriro

urdin / errimin

Zaitegik aipatzen dituen adibideetan amaierak berak dira zail, oso bakanak, hizketa askatuan ohizkoak ez diren hitzen bidez eginak. Baina beren bakantasunaz gain, hitzen artean dagoen kategoria gramatikalaren ezberdintasuna handia da. Errimaren arloan, birtuosismo moduko baten bilaketan ari direla dirudi.

Delako birtuosismo horretan, hots, errima bereziki zail, ez-ohizkoen bilaketan gehienik saiatu zirenen artean Zaitegik aipatu dituenetako bi nabarmendu ziren, Orixe eta Lizardi, biak ere, hizkuntzaren morfologiari eta sintaxiari bihurrialdi berezia eraginez zenbaitetan, eta Zaitegi bera berriz, haien jarraitzaile aitortua izaki.

Orixeren idazlanak dira errima aberats, ez-ohizko eta bereziki landu hauen iturri, baina halaz ere, guda aurrean nahiz guda ondoren, Orixe neurtizgintzaren alorrean kontraesanez betea aurkitzen dugu, alde batetik Lizardiren zenbait artikulutako "neurtitz-gorroto" den pertsona bera da bestalde, errimak eta erritmoak nolakoa izan behar duen teoriz eta egitez ikertzen eta frogatzen ahalegintzen dena.

1.4.3.2. Orixe eta Lizardiren irizpideak errimari buruz

Orixe guda-aurreko garai honetan, alde batetik, bertsoaren ohizko ezaugarriak, hau da errima, erritmoa eta neurria dituen bertso motaren etsai azaltzen da behin eta berriro, eta badirudi Aitzol eta Lizardiren eraginez, eta baita beste batzuen aholkuz, Orixe olerkigintzara berriro gerturatzeko bidea

56 ZAITEGI, J., "ETXETXO"; "Aitzol'en Gizaldia" in *Euzko Gogoa*, I, 1950, 5-7. or.

egin zuela Olerti sariketetan eskuhartuz, Aitzolek eskaturiko *Euskaldunak*poema sortuz, eta Lizardi hil ondoren, *Barne-Muiñetan*liburua argitaratuz.

Hala ere, garbi ikusten da Orixek ongi bereizten dituela kantatua izateko eta errezitatua edo goraki irakurria izateko neurtitzen arteko ezberdintasuna. Irakurriak izateko neurtitzek behar dituzten neurkera, errima eta erritmoa ez daitezke inguruko hizkuntzetako bertso modernoetakoak bezalakoak izan, bere ustez, azentuan oinarriturik bait daude eta euskaraz azenturik ez dago.

> "Me ceñiré a manifestar la base de nuestra métrica que me parece razonable, en consecuencia de lo expuesto sobre el acento. En el verso rítmico y en la rima son esenciales los acentos intensivos, como nosotros no los tenemos, nuestra métrica no debe estribar en el acento intensivo. Los versos que usamos hoy día solo valen (...) para cantados, no para declamados" [57].

Lizardik, berriz, Orixeren iritzi ukakor horien aldean bere iritziari eutsiz jarraitzen du, neurtzeko joerari eutsiz, Orixeren garai horretako hitzaldi zorrotzen erasopean ere:

> "Olerkariok degu orain aldi, gorapenak yasotzen. Bazan ere garaia! Irutsu urte auetan kikilduta bizi giñan, Orixek beñola eman baitzizkigun ederrak... Izneurtuz idaztea txaldankeri agiria zala, bertsoak beti dirala txar, beti mintzo aizun; eta abarra...
>
> Beltzena au zan: geren artekoxe batek, bere leena ukatuz —amaika izneurtu ederren egille baita Orixe jauna— ain errukigabez gu yo-bearra. Bederen Aljebra-irakasle bat izan balitz, ziri-olerki edo epigrama diralako oien bitartez esate'al genizkan bereak eta bost. Baña geronen senide-artekoak uka: orretxek biozkabetu ginduzan oso. Gauza ez, ari yarkitzeko, gizagaxo batzuk baigera; ta nik dakit nolako nekeak eramanik gauden, gure neurtu-griñatxo au —zauri lotsagarri bat bailitzan— izkuta-eziñik" [58].

Aipatua dugun Lizardiren artikulu horrek ematen duen data kronologikoaren arabera, Orixeren iritzi horien 1927 aldera eman bide ziren ezagutzera. Errima eta neurriaren funtzioak gutxietsiz erritmoarena azpimarratzen zuten idatziak ugariak dira guda-osteko Orixeren lanetan, eta adibiderik garatuena Jose Ignacio Goikoetxea "Gaztelu"ren *Musika Ixilla*liburuari eginiko sarrera da.

Guda-aurreko bere jarreren berri azalduz, Jose Maria Leizaola "Barazar"ek Anbrosi Zataraini eginiko gutunaren zati batean aipatzen du Orixeren jarreren berri:

> "En la época de mis conversaciones con Orixe a que he aludido éste se mostraba resuelto adversario de toda concesión a la regularidad del verso, el del "Gernikako Arbola" verso alterno de 7 y 6 sílabas lo consideraba aspergarri. Yo emprendí el convencerle de las razones estéticas y útiles del verso y creo que lo logré. Entonces el había hecho la traducción en prosa del "Mireio" de Mistral, maravillosamente. Después fueron Lizardi y Aitzol quienes empujaron hacia el verso a Orixe, con franco acierto" [59].

Leizaolak aipatzen duen garaia 1930 urte ingurua da zalantzarik gabe, eta 7/6ko neurri txikia aspergarritzat jotzea, aurreko idatzi batzuetan 10/8 neurri nagusiari buruz gauza bera esandakoari jarraitzen zaio. Orixeren irizpide hau bera da Jokin Zaitegik "Aitzolen gizaldia" deituriko artikuluan esaten duena:

> "Itz-neurtizkera, itzak bezala, erabat urria zenun. Geientsuenik amar silabadun itz-neurtizkera *lo-argarria* erabili oi zan" [60].

---

57 ORIXE; "Acento vasco" in *RIEV*, IX, 1918, 12-13. or.

58 LIZARDI, X.; "Erdi-Bearra" in *Euzkadi*, 1930-5-8, 5. or.; K-L 299. or.

59 Leizaolak Zataraini eginiko gutuna, 1943, *Bertso Kontuak*.Argitaragabea, Euskaltzaindiaren Azkue liburutegian jasoa.

60 ZAITEGI, J.; "Aitzol'en gizaldia", 6. or.

Guda-aurretik berriro olerkigintzara hurbildu arazi zuten bi adiskideen eraginak ez zuen, ordea, funtsean zuen irizpidea aldatu. Guda-osteko idatzietan arakatuz gero, Orixek erritmoaren garrantzia azpimarratzen jarraitzen du, errimaren eta neurriaren aspergarritasuna, "monotonia" delakoarengatik, eta bestalde, euskararen berezko melodiari erromantzeetako erritmoak ez diola onik egiten iruditzen zaiolako.

Orixek errimari buruz agertzen duena kontrajarriko diegu Lizardiren idatzietan agertzen den iritziei. Orixek errima edo puntua, olerkariek erabiltzen zuten eran, erabat gaitzesten zuen. Ez zen hau, ordea, euskal bertsoari ikusten zion akatsa, edozein hizkuntzatan eginiko errimaren akatsa baizik. Orixeren iritziz, aintzinako klasikoen bertso errimagabeak geroztikako errimadunei erraz gailentzen zitzaizkien, erritmoaz egiten zuten erabilera magistralarengatik.

Zataraini guda ostean idatziriko gutun batean "Ars Poética" moduko bat bidali zion Orixek, bertsoari buruzko bere irizpide guztiak bilduz. Guk hemen errimari buruz diharduen zatia bakarrik jasoko dugu:

"Oiñezko izketa / zaldizko izketa / zein egokiago?
Zaldizkoa dago/aiputan aspaldi/ Homer zarragandik
egun otaraiño./ Bebi bañan erri/ bakoitzak agoa
-edo belarria-/ ez baitu berdiña,/aspaldiko aiek
bertsotan punturik/ etzuten onartzen/Alde egiten zuten
berrizko soñutik/ bai oiñezkotan/ bai zaldizkoetan.
Oraingo orde,/ bi belarri pare/ jantzi-erantziko
au oñezkorako/ au zaldizkorako/ Oñezko izketan
berrizko soñutik aldegiten dute/ denik aulenik.
Zertako bi neurri/ Bi belarri— ori/ naiz lau, naiz lau zulo
binaka ixteko/ alper alper dira/ belarri barrena
beti bera baita./ Geza den esnea/ katillu batetik
bestera aldatuta/ gazi gertatzen al?/ Belarriak ez du
atserik aldatzen./Goazen gorago./ Zentzuen gañetik
ezagumena da;/ onek egin beza/ itzen etorria.
ez aldekoz-beste/ Itzak elbarritu/ nai danik esan ez
ez nai dan bezala/nai danez beste esan/damurik askotan.
Ez dut nai neretzat/ olako bertsorik" [61].

Orixek Roman Jacobson-ek arestian aipaturiko artikuluan dioena eta Jean Cohenek jasotzen duen oinarrizko irizpide haren aurka egiten du, hots, prosak, "oinezko izketa" delakoak paralelismotik ihes egiten duen era berean, poesiak, "zaldizko izketa" delakoak paralelismoa "ardatz" duela bait diote hauek.

Orixek errima aspergarri eta "geza"tzat jotzen du, eta gainera, erritmoa euskaraz ez estimatzeko beste arrazoirik ere badu, azentu gabezia.(1944-8-11ako gutunean).

Orixek puntuketari ikusten dion lehen eragozpena edertasunik ez dakarren lotura dela da, estuasunak esan nahi ez duena esanarazten dio olerkariari:

"Itzak elbarritu/ nai danik esan ez/ ez nai dan bezala/
nai danez beste esan/ damurik askotan..." [62].

---

61 ORIXE; Zataraini gutuna, 1944-6-2.

62 *Ibidem.*

Euskaraz errimak ez dira behar bezain zehatzak azentu ezberdinak dituzten hitzen bidez egin nahi direlako.

Sabino Aranak eta Orixek errima egiteko azentua aintzakotzat hartu beharra oinarrizko irizpidetzat jotzen badute ere, Manuel Lekuonak argi eta garbi dio azentua ez dela errimaren arloan nahitaez aintzat hartu beharreko osagarria.

Orixeren iritzi hauek, garai hartan euskal olerkigintzaz gehienik zekienetako batengandik zetozen arren, eta hizkuntzaren arloan, ortografian nahiz neurtizgintzan eraginik handiena izaten ari zen Sabino Aranaren araudiak euskal errimaren arloan zalantza handiak adierazi ondoren bertso librea, neurri eta errimarik gabeak gomendatu arren, Pizkunde aroko olerkaririk gailenenak Jokin Zaitegik azpimarratu duen bezala, errima berritzearen bidetik jo zuten, eta bereziki Lizardi gailendu zen arlo honetan olerkaririk berritzaileena eta ausartenatzat.

Errima aberastekotan, Zaitegik "Aitzolen gizaldia" delakoan aipatzen dun hiztegia berreskuratzearen bideaz gain, Lizardik beste zenbait baliapide ere erabili zituen.

Lizentzia horien artean, Izen Sintagma mugagabeen erabilera da azpimarragarrienetakoa, eta bestetik, berriz, euskal neurtizgintzan lizentzia ia usatu gabea den zangalatraua edo enkabalgamendua. Bertsoaren eta esaldiaren arteko paralelismorik ezarekin jokatzen duen baliapide erritmikoaz 1.4.4. puntuan ihardungo dugu, sintagma mugagabeez aldiz, hirugarren atalean, bereziki morfosintaxiari dagokion berezitasuna denez. Dena den, bi baliapide hauen bidez Zaitegik aipatzen duen hiztegi berreskurapenak bezainbesteko lorpenak erdietsi zituela gogoratu behar da.

Lizardik bere artikuluetan errimaren erabileraz eta balio estetikoaz adierazten duen iritzia zenbait puntutan Orixerenen oihartzuna ezagun du, baina taxuera pertsonal batez inguratzen du, eta bere olerkigintzarako baliogarri izango zaion eran moldatu...

Lizardik errimaren funtzioa ez du funtsezkotzat jotzen, horretan bat dator Orixerekin, baina bai edergarritzat: musikasilatetaren funtzioan ikusten ditu neurria eta errima eta intuizio poetikoaren, belarriaren etsiaren izenean aintzakotzat hartu beharrak direla esaten du:

> "Azkenik, esan-aalak entzunik gera oskidetza edo "rima" delakoari buruzki. Yakiña, neurtitzak eztu bearrezko oskidetasun ori. Gabe ere egin izan dira ta baditezke egin neurtitz eder askoak; agian ederragoak. Baña, berez bezala, esaldia biurritu gaberik, olerkariaren antzetsuz datorrenean, belarriak egia esan, eztu ain gaizki artzen. Mintzatzea, gizakumeek elkarri gogapenak adiraztea, otsaren bidez egin bearreko gauza danezkero, esanaren ereskitasunari (musicalidad), otsaren eztiago-bearrari zor zaio berea; ta ez izneurgintza, ez eta ere oskidegoa, eztira gauz uts eta zokoragarri" [63].

Orixeren zenbait esaldiren oihartzuna entzuten da Lizardiren "Olermen irakite" artikulu honetan, behar bada, "Euskal Olerki Neurritzaz" delakoan esandokoei edo antzerako baieztapenei erantzuten ariko zaie:

> "Itzen berdin amaitzea, erderaz rima diotena, guretakotu bear al dugu? Beste izkuntza batzutan ere ez dute askok uste itzen atzenkide edo guenkide izate ori edergarri denik: gu gaizki oiturik gaude, ta ez dugu erraz osotara kenduko oitura au; baño ederrik aski baluke gure mintzoak ori gabe ere; askotan bada estutu egiten du orrek ere; itzen yoskera gañezberatu ta nasi. Goraberako igikera oni yarrai bear diogu; nai ta nai ez ari yabon beagu, neurtitzik egiñen ezpadugu ere" [64].

Lizardik, nolazbait, bateratu egiten ditu erritmoari buruzko iritzietan aipatu duen "huevo de Colón" hura, alegia, euskal olerkiak behar duen erritmoa prosazkoarena bezalakoa izatea, baina neurriak eta errimak eskaintzen duen musikalitatea. Honetan bere-berea den formulapena egiten du Lizardik eta Orixeren ereduaren jarraitzaile hutsa ote zen dioten teoriak arbuiatzen.

---

63 LIZARDI, X; "Olermen irakite" in *Euzkadi*, 1930-7-1, 5. or.; K-L 309-310. or.

64 "Eusko Olerkitzaz" in *Lenengo Euskal Eguneko Itzaldiak*, Bilbo, 1922, 53. or.

Dena den, errima, neurria eta erritmoari buruz mende hasieran izandako eztabaidaketak Lizardiren praktikan erasanik izan zuen, zalantzarik gabe, eta errima aldetik hurrengo puntuan aztertuko dugun joerak hartu arazi zizkion.

1.4.3.3. Lizardiren errima

Juan Mari Lekuonak Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak aztertuz eginiko azterketan [65] Lizardik errimak egiterakoan duen joera aztertu eta ondorio interesgarrietara iristen da.

Alde batetik Lizardik errima egiterakoan, errima pareado edo bikoitzetik aurrera ez jotzeko duen joera azpimarkatzen du, eta bestalde errimako letren hoskidetza nondik hasten den aztertuz, sei eredu ezberdin bereizten ditu:

A eredua: Atzizki edota morfema berdinez % 8'59

B eredua: Lexema ezberdinetako azken

silabaren bolaketik edo kontsonantetik

hasiz egiten dena:"baino/ banekielako

.....% 3O,O1

C eredua: Lexema desberdinetako azken silaba

osotik edo kontsonantetik hasiz:

oin/itxoin .....% 36,18

D eredua: Lexema desberdinetako azkenaurreko

bokaletik edo kontsonantetik hasiz:

"ago/pozago".....% 18,18

E eredua: Lexema desberdinetako azkenaurreko

silaba osotik, edota bi letretatik hasiz:

zegoen/ zegioten.....% 4,81

F eredua: Lexema ezberdinen heren silabatik

hasiz egiten dena: besteri/eseri...% 2,28

Lizardiren olerkietako errimak honela sailkatu ondoren, ondorioak ateratzeari ekiten dio, Lizardik errimaz egiten duen erabilera praktikan egiten duenaren arabera deskribatuz.

Alde batetik, atzizki edota morfema berdinaz eginiko errimak % 8,59an ontzat ematen dituenez eta erabili egiten dituenez, ez zaigu "estilista betea agertzen puntu honetan", Lekuonaren iritziz.

Bigarrenik, "hirutatik bi B eta C ereduez osaturik dago, lexema desberdinen azken silabatik pasatzen ez dela oskidetza. Beraz, C eredua nahiko aberats gertatzen bada ere, eta proportzio ederrean etorri (36,18) Lizardik lautatik bat bakarra lantzen du estilista zehatzek egingo luketen neurrian.

Hirugarrenik, berriz, "poemen erdietan baino gehiagotan hoskidetza (*aliterazioa?*) nabaria agertzen du Lizardik estrofagintzan. Beraz, errimaz atzeragoko hoskidetzak badirudi osatu egiten duela bete-beteko errimaren hutsunea, erizpide estetikoen garrantzia errima onean eta aliterazioan jartzen duela, bata bestearen osagarri".

---

65 LEKUONA, J.M.; "Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak" in *Jakin*,29, 1983, 53-89. or.

Lizardiren errimarekiko jokabide honetan, Lekuonak aipatua duen bezala, koordenada historiko-kulturalen eraginari erreparatu beharra dago, alegia, Lizardik irakurri eta ezagutu zituen idazleek berarengan izaniko eraginaren arrastoak aurkitzen saiatu. Beraz, honi dagokionez, puntu hauek hartu behar dira kontutan: alde batetik, aurrenik, Lizardiren garaikide ziren idazleen jokabidea errimarekiko, hots, simbolisten joera metrikoak aztertu, eta bestetik, Lizardiren beraren iritziak aztertu, euskal literaturaren arloan indarrean zirenekin alderatu, eta azkenik, praktikan egin zuenaren azterketa bere aurrekoekiko eta garaikideekiko ezberdintasunak ikusiz eta interpretatuz.

1.4.3.4. Lizardiren errima joerak mende hasierako koordenada historiko-kulturaleetan ikusirik

Jean Cohenek *Estructura del lenguaje poéticon* aipatzen duen moduan errimak bi bide nagusi jarraitu ditu: alde batetik errima aberastera jo da parekotasun sonoroa edo hoskidetasuna gero eta gehiago areagotuz, beraz, asonantziatik kontsonantziara jo du, batez ere XIX mendean.

Errezkeriazko errimak zeritzen haiek, errima gramatikalak, baztertzera jo zuten beraz. Bigarren joera kategoria gramatikal ezberdinetakoak izango diren hitzekin eginiko errima bilatzen da: Cohenen hitzetan esanik, "kategorialak ez diren errimak" bilatzen dira.

Beraz, aurkako diruditen bi joera nabari dira, batetik hotsaren aldetiko antza areagotu egin nahi da, errima kontsonantea eskatzen da, eta bestetik, atzizki berdintasunean oinarrituriko errimak "errazak" edo baldanak direla etsiz, hizkuntzaren barruan halabeharrez antzeko gertatu, suertatu diren hitzen arteko errima bilatzen da, zerikusi gramatikalik ez dutelarik.

Honen ondorioz, Jean Cohenek esaten du errimak sakoneko beste zentzu bat hartu zuela, alegia, hotsaren aldetiko antzak zentzuaren antza ere isladatu behar duela, errimak harremanetan jartzen dituela bi hitzen zentzu edo esanahia.

Juan Mari Lekuonak eginiko kontaketen ondorioei jarraituz, Lizardiren olerkietan errimak duen erabilera berezia ikusi ahal izan dugu: ez du Lizardik errima kontsonantearen bidetik aurreraegi jotzen eta bokaleetan oinarrituriko hoskidegoa erabiltzeaz gain, bi puntu emateaz aski etsitzen duela askotan.

Bestalde, Lizardiren errimak kontsonanteak ez badira ere, hots, gehienetan azken bokalean bakarrik oinarritzen badira ere, errima aberatsak izaten dira, Jean Cohenek zehaztu duen bezala, hitzaren antza gramatikaren, atzizkien antzekotasunean oinarrituriko a izan gabe, kategoria ezberdineko hitzetan oinarritua bait dago. Jean Cohenek errimari eskainiriko atalean azken mende horretan errimak sortzen dituen zailtasunak azpimarratzen ditu:

> "Si, al prohibir la rima fácil la poesía se resignó a complicarse tanto el trabajo, porque lo determinaron a ello motivos más solidos, motivos ligados a la función profunda de la rima" [66].

Lizardik berak ere, "Olermen-irakite" deituriko artikuluan errima bilaketak beretzat duen nekearen berri adierazten digu:

> "Orrelako estualdietan ezer ezta nekagarriagorik, ezer ez lazgarriagorik itz oskideen edo kontsonanteen eizketa gordiña baño. Arraiotan, motellek!... Iztxoak ere bai-baitute beren norberetasuñoa, beren arrotasun-ondarra; zuk neurtitz bat amai-ordurako, beronen oskide diran itz lirañenak sakabanatzen zaizkizu iñon diran bazterretan, kolkorako diotelarik: — "Ez, enetxoa!... Zuk nai dezula-ta, besterik gabe, indarbeartuta, zere asmakunde txaldan orretan geren buruok parregarri eztitugu ikusiko... Ederki eman ere!..." —Ta etsitu-bearrik jo zak batera, jo zak bestera eskuak zabalik, ukaldiak boteaz... Alperrik. Suangilla izutuak irudi, zere neurtitz jaioberri orren itz oskide guztiek aaztumenaren zirritutik xeenetan izkuta zaizkit!...

66 COHEN, J.; *Estructura del lenguaje poético*, Gredos, Madrid, 1975, 81. or.

> Neke oien berri ongi baitakit, oraingo ontan itzei, asi-aurretik, esan nien: "Ez izutu. Ni enazute atzetik ibilliko gogorrean atzeman-naika. Onez-onean etorrik nai ba-dezute, oskide otxanok, ongi-etorri. Nai eztezutenok, antola or" [67].

Lizardiren "Erdi Bearra" artikuluan agertzen den errima egitearen lanaren irudi farregarri honek Lekuonaren iritzia bermatzen du. Lizardik errima luzeak erabiltzeari uko egiten dio, eta horretarako ematen duen arrazoia nekeza egiten zaiola dela esaten digu artikulu honetan, eta behartu egin behar dituela hitzak, errimarako balio diezaioten.

Izan ere, Lizardik "Olermen irakite" deituriko artikuluaren goiko aipamenean esaten bait du hoskidetasuna musikalitatearen zerbitzura dagoela, "berez bezala datorrenean eta esaldia bihurritu gaberik", beraz, Lizardiren errimari buruzko poetikak eta praktika literarioa harreman zuzena dute: errima landua erabiltzen du, baina ez ugaria. Errima musikalitatearen zerbitzuan dago eta beste zenbait elementuekiko konbinazioan erabiltzen du aliterazioarekin eta batez ere erritmoa markatzen laguntzen dioten beste zenbait baliapiderekin.

Esana dugu jadanik Lizardik ez duela aurreraegi jotzen errima kontsonanteari dagokionez, beraz, alde horretatik Cohenen bigarren taldekotzat jo dezakegu era berean Lizardiren olerkietako errima gramatikalen kopurua ez bait da handia. Esate baterako, Arrese Beitiaren *Olerkiak*liburuko olerkien azterketa eginez gero aurkituko dugu Lore Jokoetako olerki guztiak bezala errima gramatikalak eta kategorialak ugariak direla, eta ondorioz errima kontsonanteak ere erraz aurki daitezkeela bere idazlanetan.

Esate baterako, "diadarrak/ saguzarrak/ zantarrak/ ziranak" edo "negarrak/ deadarrak/ izarrak/ sugarrak" edo "ikusi/ berari/ ezarri/ berari".

Arrese-Beitia euskal olerkigintzaren XIX. mendeko ohizko metrikaren eredutzat joz gero, Jean Cohenek dioen moduan, errazkeriazko errimatzat jo eta XX. mendean baztertu direnen artean kokatu beharko genuke.

Koldo Jauregi "Jautarkol" olerkaria errimari dagokionez aldaketa bidean kokatu ahal izango genuke. Jautarkolek Arrese-Beitiak baino errima gramatikal gutxiago erabiltzen ditu, atzizki bidez eginikoak gutxitu egiten dira, baina oraindik errima kontsonanteak ugariak dira errima kategorialak eta deklinabide atzizkiez eginikoak ehuneko 70 osatzen dutelarik.

Lizardik aldiz, eta Juan Mari Lekuonak gorago aipaturiko artikuluan eginiko datu bilketaren ondorioz, garbiro ikusten da Lizardiren olerkietan errima kontsonantea ez dela ehuneko 25era iristen. Izan ere, Juan Mari Lekuonak D, E eta F eredukotzat jotzen dituenak, hots D eredukoak, lexema ezberdinen azken silaba eta erdiz (18,18), E eredukoak, bi silaba osoz eginikoak (4,81) eta F eredukoak, lexema ezberdinen bi silaba eta erdiz edo gehiagoz osaturikoak (2,21), denak batera harturik, ehuneko 25,20 ematen bait dute.

Juan Mari Lekuonaren azterketak salatzen duenez, Lizardiren errimen gehiengoa silaba osoz ala erdiz eginikoa da, B eredukoak, lexema ezberdineko azken bokalaz bakarrik eginikoak ehuneko 30,01 osatzen dutelarik, eta C eredukoak, lexema ezberdineko azken silaba osoaz eginikoak ehuneko 36a osatzen dutelarik.

Azkenik, esan behar dugu Juan Mari Lekuonak lehenengo sailean, A sailean sarturikoak, hots, atzizki edo morfema berdinez eginikoek ehuneko 8,59a ere osatzen dutela eta hori dela eta estilista fintzat ez daitekeela jo diosku. Hala ere, eta ikusi ditugun beste bi autoreen aldean bilakaera handia izan dela ikus daiteke eta are bere garaikoa dugun Lauaxeta idazlearen aldean errimaren aldetik ahalegin handiagoa egiten duela errepara daiteke.

Bestalde, Juan Mari Lekuonak aipaturiko artikulu horretan bertan emaniko datuez baliatuz, ikusiko dugu errimari buruzko ahalegin estilistikoari dagokionez ere Lizardik bilakabidea jasan

---

67 LIZARDI, X; "Erdi-Bearra" in *Euzkadi*, 1930-5-8, 5. or.; *K-L* 300-301. or.

zuela urteetan zehar, esate baterako 1930 urtearen inguruan dataturikoak errima aldetik landuagoak dira, gazte-aroan eginikoak baino. Ikus esate baterako, errima errazak edo atzizki edo morfema berdinez eginikoak ehuneko 23 eta ehuneko 28,57koak direla 1917ko *Jaun errukiorra*eta *Oia*delakoetan. Zer esanik ez *Euzko Deya*aldizkarian argitaratu zituen gaztaroko olerkietan hauexek direla errima modu ugarienak. Baina Lizardiren zeregin poetikoaren erpinetako bat dela esan genezakeen *Sagar-Lore*olerkian esate baterako, errima kontsonantea da nagusi ehuneko 89an.

Beraz, laburtuz, Lizardiren errima arloko joerak bi ezaugarri nagusiren arabera zedarri genitzake:

1.– Alde batetik ez du errimaren arloan hoskidetasun ugaria bilatzen eta gutxitan egiten ditu errima parea baino ugariagoak.

2.– Bestalde, eta bere obraren barruan eman zen bilakaera gogoan izanik, bere goien mailara iritxi zenean, errima zailak zituen atsegin, errima ez kategorialak, nahiz eta horretarako gehinetan errima kontsonanteak bilatzeari uko egin behar eta azken silabaren bokaleaz edo azken silaba osoaz eginiko errimak askitzat jo.

Juan Mari Lekuonak bere azterketaren ondoriotzat dioskunez, Lizardik errima aldetiko hutsunean "errimaz atzeragoko hoskidetzaz osatzen duela dirudi, "irizpide estetikoaren garrantzia errima onean eta aliterazioan jartzen duela, bata bestearen osagarri" [68] .

Baina errimaz gainerako aliterazioa, anaforak errepikapenak, eta antzerako baliabideak erritmoaren barruan aztertu ohi direnez, puntu horrezaz dihardugunerako utziko dugu errimaren urritasuna osatzen duten elementu hauen nondik norakoa.

Hala ere, kontutan hartu beharrekoa dugu Juan Mari Lekuonak errima eta puntuari buruz duen irizpidearen ondorioz, aliterazioak harreman estua duela errimarekin.

Lekuonaren ustez, euskal metrikaren gorabehera hau erabat finkatu gabe dagoela aitortzen badu ere, bi gauza ezberdin dira puntua eta errima. Errimak "batez ere letrekin du zerikusia, eta azken letraz/ez egindako hoskidetza berdina emango luke aditzera, asko edo gutxi direla letra horiek; eta puntuak, letrekin ezezik, erritmoarekin ere badu zerikusi, adibidez, oinekoekin; eta letrei dagozkienetan, errimarena baino luzeagoko hoskidetza ere balekarkiguke, bai hoskidetza magikoa deritzana, bai aliterazioz ematen zaiguna, gero ikusiko dugunez" [69].

Irizpide hau hartuz gero, ez da harritzeko aliterazioak errimarekin batean aztertu izana. Guretzat ordea, errima bera ere erritmoaren, modernistek erritmoaz duten kontzeptu modernuaren baitan aztertzea egokiago da. Izan ere, neurriak, nahiz errimak nahiz erritmoak, hirurek osatzen dute olerkiaren maila fonikoa eta elkarrekiko lotura estua dute.

1.4.3.5. Lizardi eta simbolisten errimari buruzko ideiak

Lizardik "Olermen irakite" deritzan artikuluan errima guztiz gauza eztabaidatua dela diosku. Hala zen, izan, euskal literaturaren esparruan, Orixeren kritikaren ondorioz, eta literatura kultorako metrika baten zernolakoak zedarritzeko ahaleginek tradiziorik aurkitu ez, ahozkoaren edo kantuaren tradizioa hartu nahi ez, eta atzerriko garaikidea hartzea desegoki iritzita bait zebiltzan. Jadanik aipatua dugu gorabehera honen luze-laburra, baina errima kinka larrian zegoen Lizardiren garaiko Europako literaturan ere. Errima olerkigintzaren alderdirik erretorikoenatzat arbuiatzen zen.

---

68 LEKUONA, J.M.; "Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak", 87. or.

69 LEKUONA, J.M.; *Ibidem*, 54. or.

Simbolisten aitzindari nagusitzat jo genezakeen Paul Verlaine olerkariak bere "Ars Poétique" [70] izeneko olerkian bertan hitzez-hitz esana utzi zuen errimaren gehiegikerien aurrean izan beharreko arretaz, olerkigintzan musikalitatea bait zen batez ere zaindu beharrekoa:

"Ars Poétique" poemaren hasiera simbolisten musikalitatearen aldarrikapen garbia da:

"La música antes que nada
y para ello prefiere lo Impar
más vago y más soluble en el aire
sin nada en el que pese o se pose"

Eta bereziki errimari buruz mintzatzen den zatian, honela dio:

"Coge la elocuencia y retuercele el cuello!
Habrás aprovechando tu energía,
de devolver un poco de sensatez a la Rima.
Si no vigilamos ¿hasta dónde irá?

¿Quién hablará de los errores de la Rima?
¿Que niño sordo o que negro loco
nos forjó esta joya con una moneda que suena
a hueco y a falso bajo la lima?

!La música aún y siempre!
Que tu verso sea la cosa volada
que sentimos huir de un alma en marcha
hacia otros cielos y otros amores".

Anna Balakian simbolismoaren azterleak *El movimiento simbolista*n dioskunez, Paul Verlainen eragina erabatekoa da simbolisten artean, eta, beraz, Espainiako modernisten artean ere bai.

> "En el mismo libro (*Fêtes galantes*) descubrió que la media luz es mas rica en fuerza sugestiva que la plena luz del sol; que las palabras que "implican" emoción tienen mas poder comunicativo que las palabras que designan la emoción misma. Estos descubrimientos llegan a su plenitud en *Romances sans paroles*, donde los fragmentos del escenario actúan como prismas entre la delicada sensibilidad del poeta y la receptividad del lector. [] Verlaine establece los sentimientos, igual que un un músico establece la clave: cielos, nubes, la luna, el viento, la nieve, los grajos, la lluvia, la llanura —estos sustantivos, tan usados por Verlaine, se convertirán en el vocabulario simbolista en simbolos reconocibles, desgraciadamente demasiado reconocibles y perderán finalmente el valor que aún conservaban en la poética de Verlaine— . Se les juntará con los adjetivos menos específicos posibles: gris, incierto, blanco, pálido, profundo, huidizo, blando...; y con verbos sujeridores de melancolía, mas que de pasión tales como llorar, sollozar, aburrirse, suspirar, temblar, huir...[]
>
> El escenario está preparado para la imaginería simbolista.La poesía es música como Verlaine repetirá en su famoso verso del *Ars poétique*: De las musique avant toute chose. Está claro que al elegir las palabras su principal preocupación sera el sonido de la frase más que el sentido que comporta.[] En la poesía de Verlaine no es la palabra aislada la que pone en movimiento asociaciones de imágenes en la mente del lector, o provoca vagas emociones como la música, sino que las asociaciones de combinaciones especiales de palabras, que contienen inflexiones de sonido, como il pleure dans mon coeur, suenan en efecto como música. Hacen música del mismo modo que la armonia de una serie de sonidos musicales. La poesía se convierte en música porque se dirige al oído" [71].

---

70 VERLAINE, P.; *Oeuvres Complètes*, Bibliothèque de la Pléiade, París, 1957.

71 BALAKIAN, A.; *El movimiento simbolista*, Guadarrama, Madrid, 1969, 83-84. or.

Balakianen simbolismoaren zedarripen honetan adjetibazioaren arloan Lauaxetaren olerkigintza Lizardirenak baino isladapen garbiagoa ematen digula badirudi ere, musikalitatearen garrantziari dagokionez Lizardiren olerkiari buruzko kontzepzioa eta praktika askoz simbolistagoak dira izan, Lauaxetarenak baino.

Ana Suarez Miramonek *Modernismo y 98*deritzan liburuan [72] dioen bezala, modernistak metrika alorreko berrikuntza teknikoez guztiz arduraturik izan ziren, olerkiaren musikalitatea balore estetiko garrantzitsua bait zen berez.

Metrika berriztatzera jotzen dute ahantziriko ahapaldi motak berreskuratuz, endekasilaboa, eta hexametroa, Erdi Aroko rima monorrimoak berreskuratuz, eta eneasilaboa sarreraziz, esate baterako.

Rubén Daríoren olerkietan errima asonantea aurkitzea ez da harrigarri izaten eta erritmoak, baliapide ugari eta ezberdinez baliatuz, hartzen du errimaren efektu musikalaren ordezkotza. Izan ere, Lizardiren olerkien aurrean sumatzen dugun lehen harriduretako bat hauxe bait da, hain zuzen ere, ahapaldien egitura berriak sortzen egiten duen ahalegina eta errima bakantzearen ezaugarria bera ere modernisten ezaugarria da. Ana Suarezek dioskunez, Rubén Daríok Verlaineri jarraiki, musikaren nagusitasunari men egin zion bertsoak ideien musikalitateari hitzen musikalitateaz erantzun behar ziola aldarrikatuz. Lizardik ere bide beretik jo zuela dirudi.

Modernisten ezaugarritzat aipatzen da, esate baterako, Erdi Aroko errima monorrimoak berbalioztatzea, ahantziriko ahapaldiak (hexametroak eta endekasilaboak berreskuratzea) "arte mayor"eko bertsoen zaletasuna.

Hurrengo atalean ikusiko dugu musikalitatearen nagusitasun hori frogatzeko Lizardik errimaz gain erabiltzen dituen beste baliapideen nondik norakoak, aliterazioak, erritmoa hausteak, errepikapenak, zangalatrauak etabar, baina oraingoz aski bekigu gogoratzea ia-ia hitzez-hitz aurki genezakeela Lizardiren "Olermen-irakite" artikuluan (*Euzkadi*, 1930-6-1, 5 or.) simbolisten musikalitatearen nagusitasunari buruzko irizpidea adierazirik:

> "Mintzatzea, gizakumeek elkarri gogapenak adieraztea, *otsaren bidez egin bearreko gauza danezkero, esanaren ereskitasunari (musikalidad), otsaren eztiago bearrari zor zaio berea; ta ez izneurgintza, ez-eta ere oskidegoa, eztira gauza uts eta zokoragarri*".

Hain zuzen ere, betidanik aipatu den Orixeren iritzien eraginpetik urrundua dirudi honi dagokionez, eta, aitzitik, garaikoen artean zuen morderno ospeaz bat egiten duen joera izan zuen errimari eta geroago ikusiko dugunez, erritmo eta ahapaldiei dagokienez ere.

Olerkiaren musikalitatea belarrira zuzendua izatean eta haren hotsez musikalitate efektuak sortzean kokatzen ditu.

Halaxe, hitzez-hitz, olerkiaren elaboraketa osoaren azken helburua "belarriari atseginen zaion eran taxutzea dela" esaten dio Lizardik Zaitegiri aholku nagusitzat:

> "Ba diteke ori nere iruditu bat besterik ez izatea; zenbaitek utsartetzat jotzen didate; baña, nere iritziz, lirikan beintzat neurtitzak bitxia bezala bear du izan, geldiro ausnartua, norbere belarriari alik atsegin geienik eman arteraño" [73].

---

72 SUAREZ MIRAMON, A.;*El modernismo y el 98: Rubén Dario*, Cuadernos de estudio-18, Cincel, Serie Literatura, Madrid, 1980, 47-49. or.

73 1932-12-14ean Lizardik Zaitegiri eginiko gutuna in VELEZ DE MENDIZABAL, J.M.; *Jokin Zaitegi*, Arrasate, 1981, 50. or.

1.4.4. Zangalatrauak

1.4.4.1. Zedarripena

Erritmoa definitzerakoan, Altunak zedarritu duen geldiune metrikoaren kontzeptuan oinarrituz gero, geldiune sintaktikoak eta geldiune metrikoak bat egin behar dutela da herri olerkigintzaren araua.

Altunak Etxeparerengan olerkietan ederki frogatu duenez, geldiune edo etenetik etenera dagoen tartean kokatzen da "hitz andana" deitu duen osagarria, olerkiaren erritmoa marka lezakeen osagarria, alegia.

Honela zedarritu den erritmo honek euskal olerkigintza herrikoian du errealizapen bete-betea: orokorki esanik, geldiune metrikoa eta geldiune sintaktikoa bat etortzea nahiz bertsolaritzan, nahiz ahozko olerkigintzan, nahiz bertsolaritzaren inguruan sorturiko herri olerkigintza idatzian bete izan da, honela ahozko bertsolaritza nahiz olerkigintzari behar beharrezkoa zaion garbitasunaren eta ulergarritasunaren irizpide nagusiari jarraitzen zaiolarik.

Bertsolaritzan, beraz, garrantzi handiko ezaugarritzat du esaten denak, hitzak izatea lehentasuna, eta esaten dena ulergarri izatea. Horregatik diosku Antonio Arana-Martijak *Música vasca* liburuan euskal kantagintzan ez dela ematen bokalizazio aldetiko edertze edo filigranarik. Ulerterreza izateko lehentasun irizpidea duenez, ez dauka bokalizazio jokorako zaletasunik, ez eta ulergarritasuna zaildu dezakeen inolako luzapenik edo dislokaziorik muga sintaktiko eta metrikoaren artean.

Bertsolaritzaren joera metrikoak gutxi gora-behera jarraitu dituzten idatzizko bertsogileen artean ere ez dugu hitz multzoa eta bertsoaren neurri-etenen arteko bat ez etortzerik aurkituko, beraz, euskal literaturan ere zangalatrauak olerkigintza kultoaren tradizioari lotu zaizkio eskuarki. Euskal literaturaren esparrura mugatzen bagara, Arnaut Oihenarte eta Ziburuko Etxeberriren neurtitzetan aurkituko ditugu lehenik erabiliak. Gerora berriz, Lore Jokoetatik Aitzolen gizaldiko olerkarietaraino doan bilakabidean zangalatrauaren erabilerak garapen nabaria izan du.

Herri olerkigintzan sintagma zenbait ez osorik amaitu eta hurrengo lerrora igarotzea onartzen da. Adibide batez argitzeko, zortziko nagusi batean 10 eta 8ko bertsoen arteko etena gaindi dezake sintagma batek. Ez inoiz ordea puntu ondorengo etenaldia.

1.4.4.2. Zangalatraua Lizardi baino lehenagoko idazleetan: Arrese-Beitia eta Jautarkol

Metrikaren alor honetan Lizardiren zangalatrauak aztertzeko konparaburutzat hautatu ditugu Felipe Arrese-Beitia eta Jautarkolen olerkiak. Lore Jokoetako hainbat urtetako saridun izaniko Felipe Arrese-Beitiaren olerkietan [74] zangalatrauek duten sarritasuna eta kokapena bertsolaritzan ere ezagunak eta erabiliak diren berberak dira. Horien artean, adibidez, Izen Laguna+Izena osaturiko Izen Sintagma da errazenik hausten duena:

> "Beti ta beti izan zara zu
> Alako argikaria,
> Iduriturik *Ipar-Aldeko*
> *Izar distidaria*;"
> ("Uste ez neban ordu bat", 48. or.)

Menpeko esaldiak eta esaldi nagusia ere bana daitezke erraz, eta jakina, erlatibozko esaldiak ere bai:

---

74 ARRESE-BEITIA, P.; *Olerkiak*, Euskal Idazleak, Euskaltzaindia, Bilbo, 1956.

"Beeratu, Jauna, zuk gure kontra
Jaso dezun ezpatea;
Bigundu, Jauna, *guretzat dezun*
Antzinako aserrea..."
("Nere erriko ujola" 52. or.)

Hauezaz gain, eta adibideak banan banan azaldu beharrik ez izatearren, esan dezagun beste zenbait zangalatrau mota ere badarabiltzala: aditza eta aditz laguntzailea bereizten dituena. Baina nolanahi ere, zangalatraua beti punturik gabeko bertso amaieran ematen da, sekula ez puntua ematen den bertso amaieran.

Jautarkolen praktika bigarren konparaburutzat harturik, esan genezake ahapaldien moldaera berri eta ohigabekoen erabilera sarrerazten duen lehenengoetakoa dela. Jauregik bere aurrekoek eta are garaikideek baino ahapaldi motzagoak erabiltzen ditu. Ohizko ahapaldiak erabiltzen dituenean ere, itxuraldatu egiten ditu beste era batera idatziz eta zenbait bertso lerro errepikatuz.

Jautarkolek ohizko ahapaldiei eragiten dizkien eraldaketa hauen ondorioz erritmoaren baitan aldaketa eragiten du, erritmoa arinagoa bilakatuz. Etenak ugariagoak izatearen ondorioz, Jautarkolen ahapaldietan aurki daitezkeen egitura sintaktikoaren hausturak ausartagoak dira.

Orokorki, eta hainbat olerkitan zehar ematen den barietate guztia laburtuz, esan genezake Jautarkolek, Arrese-Beitiak bezala, erlatibozko esaldia ondokotik banatzea eta Izen Laguna+Izena egitura banatzea direla sarrienik hautatzen dituen hautsi-guneak.

Horiek baino aurrerago ere jotzen du Jautarkolek), esate baterako, 1928ko *Biozkadak* liburuko olerkietan, Izena+Adjetiboa egitura ere banatzen du:

"Nere barruan
berez sortuta
jaio den *lore*
usaiduna."
("Nere eresia" 49-52, 6)

"Ezerk asetzen
ez dun alako
barrengo *gose*
zerukorra:
irudimenak
laztandu nai ta
ezin dun *amets*
illezkorra."
("Nere eresia" 65-72, 6)

Zalantzagarri dirudi Jautarkolek horrela inprimarazi zituen ahapaldi hauetan berez inolako zangalatraurik denik ere. Gauza bera gertatzen da hurrengo kasuekin ere, alegia, lotura sintaktiko estuagoa osatzen duten egitura konparatiboa eta adjetibo zehaztugabea izenaren ondotik banatze kasuak.

"Itxaropenak
bezala goruntz
egin nai luken
nai samiña"
("Nere eresia" 41-44, 6)

"Masti gazte bat

ibai ertzean
badet neronek jarria
mendian beste
zar bat ere bai
mats beltzez dana josia"
("Bizitz menditarra", 25-30, 23)

Benetako zangalatrauak diren ala ahapaldia idazterakoan eratzeko modu ezberdina izan, ondorio bera ateratzen zaigu hala ere, Jautarkolek ez duela inoiz zangalatraurik kokatzen puntua ematen den bertso-amaieran. Nolanahi ere, eta Jautarkolek sortzen dituen zangalatrau hauek halakotzat onartuz gero, oso ugari darabiltzala esan beharrik ginakeelarik ere, urratzen dituen egitura sintaktikoak ez dira Lizardik hautsi zituenak bezain ausartak eta batez ere, ez dira, Lizardirenetan bezala, inoiz puntua ematen den bertso-amaieran kokatzen.

1.4.4.3. Lizardiren zangalatrauak

Lizardik Jautarkolen kasuan aipatu ditugun egitura hautsiak baino zangalatrau ausartagoak direnak ere egiten ditu. Esate baterako, hitz elkartuak bana ditzake. Eta hitz elkartu hauek puntua ematen ez den etenetan, nahiz puntua ematen denetan erabiltzen ditu:

"Parre gozo bat amak eginda,
aurrari ala diotsa:
– Bêtik dakusgun urdiña *zeru-*
azpia baizik ezpaita"
(ZA 5-8, 41 or)

"Ai aren esku laztankor igaz izana.
Lore-orria arantz biur!
Leengoa ditekek, zakarki *edur-*
pera egotzi auena?"
(Ald. 77-80, 46 or)

Beraz, hitz bat, elkarturiko hitz bat osatuko luketen hitzak bana ditzake Lizardik, postposizioa eta aurretik dagokion izen sintagma deklinatua bana ditzakeen era berean:

"Sartu ta jo, *beldurrik*
gabe. Gaxoa
lotan dezute, bañan
otsak astindu-gaitza
du loa...
(XE 156-159, 77 or)

"*Ondar ximelenik*
gabe zen otarra
Yaso dut geldirik
Ari dut negarra..."
(OU 37-40, 107 or)

Ikus daitekeenez, lehenengoan hautsiriko egitura ez da errima ematerakoan gertatzen bigarrenean berriz, bai.

Jautarkolen olerkietan aurkitu ditugun zenbait "zangalatrau"ren antzera, Lizardik egitura konparatiboetan ere egiten ditu zangalatrauak:

"Nere neurtitzok *orren*
lo-erazle bizkorrak
uste ez nun ziranik!
(Oi 106-109, 29 or)

Beraz, Lizardiren olerkietan gertatzen diren zangalatrauen ondoriozko egitura sintaktikoren haustura nabarmenenak aztertu ondoren, esan daiteke, ugaritasunari dagokionez, Jautarkolekin alderatzekoa ez dela, alegia Jautarkolenak zangalatrau direla onartuz gero; baina, ugaritasuna baino gehiago zangalatrauen ausardiari eta zangalatrauak puntua ematen den bertsoa eta hurrengoaren artean ere egin ahal izateko lizentziari erreparatuz gero, Lizardik aurrerago jotzen duela esan behar da. Geldiune metrikoaren eta geldiune sintaktikoaren arteko bat ez etortzeak edo zangalatrauak sortzen duen "ezusteko erritmikoaz" baliatzen da mogimendu efektua lortzeko.

Hona hemen zenbait adibide eredugarri:

"Txuriaz naasi, pipil gurien,
ler-gabe-lore zabal-zorien
gorrixka, nabari duk sarri,
odol-tantoak antzo ... Begira:
erditze-baten azatarnak dira:
Bizi-erditze zoragarri!"
(SL 55-60, 151 or)

Urte Giroak deituriko lau olerkiak dira zangalatrau adibide ugarienak eskaintzen dizkigutenak, horiez kanpo berriz, *Eusko Bidaztiarena* olerkian ere badira zenbait zangalatrau aipagarri:

"Ta ala yaunaren gogo baledi
nik gogo dudan bezin gartsuki
euskotar azal ta mami,
gure erriaren *olerki*
garaia, norbaitek lenbait-len begi!"
(EB 13-17, 177 or)

Eta olerki horretan bertan:

"Ez adi beldur nere Maiteder:
baserriz landa nai aunat *ager-*
arazi, bazterrik-bazter,
arroki; ezpaitun ezer
lurbiran ederrik i bezain eder!"
(EB 25-29, 177 or)

Olerki honetan hain zuzen ere, zangalatraua, errima ugariagoa eta harrigarriagoa egiteko baliapide bilakatzen du, erritmoa hautsi eta hurrengo bertsoan jarraitzearen ezusteko erritmikoaz gain, errima bitxi eta ohi gabekoen berritasuna eransten diolarik.

Parisko txolarre olerkian ere baliatzen da zangalatrauak eskeintzen dizkion aukera erritmikoez eta homofoniak sortzeko aukerez:

"Farol itzali baten
txapel-gallurrera
etorri aiz txutxen
apur ostu bat yaten:
batetik bestera,
txapelaren muturrak arin dituk gaintzen.

Salto banakin, begi
ernaiak lurrera,
ez aiz i makala:
begiraldi luzeegi
gabe, baator bêra:
ez, alearen ordez, yasotzera azala"
(PT 7-18, 97 or).

Lizardiren olerkietan zangalatrauez zatiturik aurkitzen ditugun egitura sintagmatikoak honako hauek dira sailkaturik:

1. I+Izenlaguna (ko/ren): oso sarritan 40tik gora dira adibideak.
2. Erlatibozko esaldia+Ondokoa: bost adibide *Biotz-Begietan.*
3. Izena+Adjetiboa: hamabi adibide *Biotz-Begietan.*
4. Hitz konposatuak: zazpi kasu gertatzen dira *Biotz Begietan.*
5. Aditzaren erroa eta laguntzailea banaturik: ugariak dira adibideak, hamalau dira *Biotz-Begietan.*
6. Postposizioak, egitura konparatiboak, etabar, bost besterik ez dira *Biotz-Begietan.*
7. Juntagailuz elkarturiko sintagmak edo esaldiak: gehienetan juntagailua (eta) lehen zatian utziz eta errimarik gabe, eta gutxi batzuetan, bitan lehen zatia mugatu gabe utzirik eta errima ere eginez.

Hauek dira guztira Lizardiren olerkietan banaturik aurki daitezkeen egiturak.

Sail hau gehiegi ez luzatzearren, esango dugu bereziki era honetako zangalatrauen erabilera epe batetara mugatzen dela. 1929az geroztiko olerkietan bakarrik topatzen dugu. Aurreragoko bertsoetan Lizardik ez du honelako lizentzien adibiderik eskaintzen, *Aldakeri* alde batera utziz gero. Izan ere, olerki hau *Biotz-begietan* liburuan 1925kotzat jotzen duen arren, ipui modura kontaturik 1917rako argitaratua zuen Lizardik *Euzko Deya*n, 1929rarte ez zen olerki modura argitaratu. *Biotz-Begietan* liburuko bertsioan aldaketa gehiago ditu, ondorioz, azken urte horietako olerkien ezaugarriak biltzen ditu eta ez aurreko garaikoenak.

1929ko muga ez da data hutsa, zangalatrauei buruzkoan ez ezik, beste zenbait olerkari ezaugarriekin bat bait dator, Lizardik epe modernistagoa, berrizaleagoa eta ausartagoari ekin zion epearen hasiera zedarritzen bait du.

1.4.4.4. Lizardiren zangalatrauak eta erritmoaren teoriaren arteko harremana

Lizardiren garaikide ditugun Espainiako eta Frantziako korronte literarioaren ezaugarriei erreparatuz gero, mende hasierako olerkigintzaren ezaugarritzat aipatzen dute adituek alderdi teknikoak edo metrikoak berriztatzeko joera nabaria, eta, bereziki, aztertzen dihardugun zangalatrauaren erabileran garapen nabaria izan zela.

Jean Cohenek lizentzia metriko honen garapenaren abiapuntuaz zera esaten du:

> "Teniendo en cuenta que la pausa de final del verso es la mas larga de las pausas métricas, y que es la única que se ha de observar siempre, debemos, si deseamos reducir la discordancia entre metro y sintaxis, hacerla coincidir con una pausa semántica fuerte, es decir, con un punto o al menos con una coma. Tal es lo que trataron de hacer los clásicos" [75].

75 COHEN, J.; *Estructura del lenguaje poético*, Gredos, Madrid, 1975, 67. or.

Zehatz-mehatz deskribatzen du irizpide honetatik urruntzen hasten diren korronteen bilakabidea. Aurrenik erromantikoak, eta XX mendearen hasieran sinbolistak dira errimaren bertso amaieran bertan, olerkariak etenik handiena kokatu ohi duen unean, klasikoek ezin banatuzkotzat joko zituzketen sintagmak ezartzen hasiko direnak. Honela, errima egiteko hitz gisa, preposizioak, konjuntzioak edo lokailuak berak erabiltzen hasi ziren lehen aldiz.

Jean Cohenek (66 or.) adibidetzat aipatzen duen Paul Verlaineren olerki baten zatian artikulua bera errima egiteko erabilia ikus daiteke. Prosazko esaldiaren egitura eta ordena batere behartu gabe, musikalitatea, erritmoa, sonoritatearen zerbitzuan dauden hitzen bitartezko errimak leuntasun berezia ematen dio olerkiari:

"Et je m'en vais
Au vent mauvais
Qui m'emporte
De ça de lá
Pareil a la
Feuille morte"

Modernisten artean musikalitatea eta erritmoa delarik nagusi, bertsoaren "soinuak" halako garrantzi handia du, eta erritmoa bere ezaugarri nekagarri eta konbentzionalez arindu nahi da. Verlainek zioen moduan, bertsoa astun zezakeenaz arindu behar zen, musikalitatea beste era batera lortu, bestelako baliabide sujerenteagoak bilatzen dira Sinbolismoaren edo Modernismoaren garaian.

Errima eta neurri finkoak eta etenaldi guztiz finkoek eman lezaketen erritmo ohizkoa bazterturik, aliterazioez, errepikapenez, ahapaldi asmatu-berriez, etabarrez lortu nahi da musika berria, arinagoa, sujerentea.

Sinbolisten artean, "aldaketa"ren sentsazioa sujeritzeak, Carlos Bousoñok [76] *Teoría de la expresión poéticaren* azaltzen duenaren arabera, garrantzia handia izan zuen.

Lizardiri dagokionez berriz, erritmoaren arloan esana dugu ez dela bereziki errima ugari, aberats eta kontsonanteak egin zalea, nahiago duela errima ona eta bakana, aliterazioez, bertso barruko homofoniez lagundurik.

Errepikapenek, anaforek, bihurki, eta korrelazioek beren adieraz-indar guztiaz janzten ditu haren olerkiei egokien dohakien erritmo musikala emanez, Lizardik bere artikuluetan zehar adierazia bait du gaztelaniazkoa bezalako erritmo azentual zurrunak ez diola euskal olerkigintzari mesederik egiten, eta bestelako erritmoa aurkitzen saitu beharra dagoela euskal bertso idatzirako.

Sabino Aranaren olerkigintzaz diharduelarik "Sabino Poeta" artikuluan, berriro ere Orixek gogorki planteaturiko euskal metrikaren astuntasunaren gaia hartzen du berriro, ordurako —1931koa dugu artikulu hau-, euskal olerkigintzak hartu behar duen bideari buruz irizpide garbia eta finkatua duela adierazten duelarik:

> "Podrían hacerse algunas consideraciones en punto a la materialidad métrica del ropaje, ajustado y severo, que a las concepciones poéticas dió Arana-Goiri. Nos limitaremos a decir que, por su natural, tiende a la independencia, a la creación y combinación de metros que agraden a su oído, sin curarse de moldes consagrados por el exiguo caudal de nuestra anterior poesía.
>
> Mucho se discute acerca del metro vasco y sobre la manera y posibilidad de recitar vascamente el verso vasco. Todo eso lo trae nuestra intensa castellanización, que nos lleva a dar al verso euskérico un ritmo monótono y trotante, arbitrario en relación con la entonación con que las mismas palabras serían pronunciadas en el lenguaje corriente. Eso es abusivo. No semejante libertad exista en el verso de ningún idioma, excepto al cantarlo.

76 BOUSOÑO, C.; *Teoría de la expresión estética*, Gredos, Madrid, 1976, 473-480. or.

Para mí todo el secreto del asunto se reduce al huevo colombino de construir versos que sencillamente se lean como prosa" [77].

Lizardik teorikoki azaltzen duen irizpidea gero bere olerkigintzan deskribatuko dudan praktikarekin bat dator. Lizardik ez du errima kontsonantea bilatzen, errima ona baizik; aliterazioez eta ondoren aipatuko ditugun anafora, errepikapen eta morfosintaxi mailako beste zenbait baliapideez ematen dio erritmoa bertsoari.

Etenaldi eta neurri finkoen baliapide metrikoei eman ez zaien funtzioa betetzera datoz errima bariatu eta zainduak, aliterazioak, zangatrauak, anaforak, errepikapenak, korrelazioak..., alegia olerkarien belarrientzat eder eta egoki diren sonoritateak adieraztera.

Zangalatrauen erabilera ausarta Lizardik aipatu duen erritmoari buruzko irizpidearekin, alegia, funtsezko irizpidea hitz lauzkoen gisa irakurtzen diren bertsoak egitearen irizpidearekin guztiz bat dator, amaitu ez diren sintagmak ezin bait dira irakurri, hots, zangalatrauak ezin bait dira irakurri gaztelaniaren eraginez ohi den azentuazio erritmikoarekin, errimagunean amaitzen den erritmo "trotoi"arekin, Lizardik berak esan zuenaz baliatuz.

Bestalde, Lizardiren olerkietako batzuk aurrenik narrazioak, hitz lauzko deskripzioak eta gertakarien narrazioak izan direla jakinik, eta zenbaitetan, *Aldakeri* poemaren kasuan bezala narrazioak olerki nola bilakatu diren aztertu ahal izan dugularik, "Sabino poeta"ren atal honetan dioskunak garrantzi berezia hartzen du eta olerkari honen poetikaren alderdi garrantzitsuenetako bat zedarritzen du.

1.4.5. Beste zenbait baliapide erritmiko

Lizardiren olerkien erritmoa indartzera datozen zenbait baliapide erritmikoren garrantzia azpimarratu behar da. Izan ere, eta ikusi dugun moduan, neurri bakar baten erabilerak, errimak eta eten finkoek Lizardiren olerkigintzan erritmo markatuegiaren zaletasunik adierazten ez dutenez, erritmoa zedarritzera datozen beste osagarri hauek arreta berezia merezi dute, Lizardiren olerkien musikalitatearen, ereskitasunaren arduradun bilakatzen bait dira, haiekin batean. Horiek dira batez ere aliterazioak edo Lekuonak "errimaz atzeragoko hoskidetzak" deritzenak sorturikoak, bai eta errepikapenek, anaforek, leloek, korrelazioek...

Lizardiren baliapide erritmiko hauen erabileraren nondik-norakoa ikertu dute zenbait azterlek, horien artean Juan Krutz Igarabideren tesi argitaragabea dugularik azkeneko ahalegina, jatorri herrikoiaren bidetik abiaturik. Era berean, ordea, modernismoarekin sortzen den sentsazioetarako arreta erabatekoan ere kokatu izan da erritmoa "bestela" markatzeko joeraren jatorria.

Musikalitate berri baten bila, ahapaldi, eta erritmo berriak sortuko dituzte sinbolistek. Ahapaldi zaharrei erritmoa aldatzen diete azentuen bitartez, errimak asonanteak askitzat jotzen dituzte eta homofonia ezohizkoak erabiltzen...

Anna Balakianek [78] Verlaineren olerkigintza belarriarentzat egina dela azpimarkatzen digu, ez dela hiztegi selektoaren ebokazioen fruitu hutsa bere olerkiek duten kutsu berezia: "halako hots kidetasun berezia duten hitzen konbinaketaren elkarketatik sortua da haren olerkiaren efektu musikala, irakurlearen irudimenean hitz soilek hala irudien arteko armoniek sortzen duten emozio armonikotik baino gehiago.

Lizardik ere errimaz mintzatzen zelarik, musikalitatearen lehentasun guztizkoa azpimarratu zuen, eta honela, bere garaiko ideia poetiko nagusienei lotu zitzaien, erritmoan kokatu zuelarik bere olerkigintzaren ezaugarri formal berezienetako bat. Horregatik, azpimarratu ditugun errima eta

---

77 LIZARDI, X.; "Sabino poeta" in *Euzkadi*, 1931-11-25, 1. or.; *K-L* 348. or.

78 "La poesía se convierte en música porque se dirige al oído". BALAKIAN, A; *El movimiento simbolista*, 84. or.

zangalatrauez gain, Lizardiren erritmoari nortasun berezia ematen dioten lau baliapide erritmiko aipatu behar dira, bereziki: aliterazioa, anafora, errepikapena eta korrelazioa.

1.4.5.1. Aliterazioa

Juan Mari Lekuonak bezala, Jean Cohenek ere aliterazioaren izaera zedarritzerakoan errimarekiko harremanetan jartzen du, bere ustez, errimarenaren antzerako baliapidea da, hizkuntzak bere baitan dituen ezaugarri fonikoez baliatzen bait da homofonia efektuak sortzeko, errimak bertsoz kanpoko aldetik diharduelarik, eta aliterazioak barruko aldetik.

Bestalde, gogora arazten digu olerkia olerki denetik erabili den baliapidea dela eta bereziki errimarik erabiltzen ez duten hizkuntzetan erabilera zabalagoa izaten duela. Aliterazioak izan dezakeen helburuaz diharduelarik, berriz, errepikapenaren efektu musikalaren arrazoia baztertuz, helburu adierazlea, espresiboa ote duen planteatzen du, hainbat azterlek bilatu duten sinbolismo fonetikoaren arloko azterlanak, batez ere bokaleen sinbolismoari dagozkionak aipatzen dituelarik.

Azkenik, errimaz esan duen moduan, aliterazioak ere, Cohenen ustez, ohizko mintzairaren aurkako araua edo efektua sortzea du helburutzat:

> "En el discurso prosaico es molesta cualquier rima, cualquier aliteración, y el escritor se esfuerza con la mayor naturalidad por evitarlas. Por el contrario el verso las busca, y hasta hace de la rima una regla constitutiva. La única conclusión que de tales hechos se desprende es la de que la versificación no tiene más que una función negativa: su norma es la antinorma del lenguaje corriente. Éste realiza su función a través de un máximo de diferenciación. El verso parece encargado de realizar una indiferenciación. El fonema, que no funciona en la lengua más que como rasgo distintivo, en poesía funciona en sentido exactamente inverso" [79].

Lizardiren *Biotz-Begietan* liburuko olerkien azterketa egiten du Juan Mari Lekuonak aliterazioaren presentzia erabatekoa aurkitu du olerki nagusietan *Xabiertxoren Eriotza* kenduta. Juan Mari Lekuonaren ustez, hain zuzen ere aliterazioak Lizardik errimaren alorrean dukeen "hutsunea" betetzera dator:

> "Poemen erdietan baino gehiagotan hoskidetza nabaria agertzen da Lizardiren estrofagintzan. Beraz, errimaz atzeragoko hoskidetzak badirudi osatu egiten duela bete-beteko errimen hutsunea, erizpide estetikoaren garrantzia errima onean eta aliterazioan jartzen duela, bata bestearen osagarri" [80].

Juan Mari Lekuonak egiten duen aliterazioen azterketen ondorioek erakusten duten praktikaren arabera esan daiteke Lizardik aliterazioak egiteko joerarik handiena puntua edo errima ematen duen bertso-lerroan duela, hain zuzen ere zehazki esanez, *Biotz-Begietan* liburuko 21 olerkietatik 10etan aurkitzen du Juan Mari Lekuonak. Hauexek dira, izan ere, Lekuonak errima eta aliterazioa Lizardiren olerkietan "puntua" kontzeptua erabiltzearen oinarria eskaintzen diotenak.

Gainerakoan, beste bost olerkitan etenaldien aurreko partean hoskidetza zailagoa dutenak, beraz aliterazioaren arloan goragoko maila luketenak aipatzen ditu: *Agur, Zuaitz etzana, Baso Itzal, Ondar Gorri* eta *Gure mintzo*. Atal berezi batean aipatzen du *Bizia lo*, "molde desberdineko hemistikioen erabilera libreak dakarren hoskidetza zailagoa" duelako. Eta *Sagar-lore* izango litzateke errima eta aliterazioen aldetik ugaritasun gehiena aurkezten duena, hots, erritmorik markatuena duena.

Horiexek dira beraz, errimaren eta aliterazioen baliakuntzaz erritmorik markatuena dutenak.

Beste zenbaitetan aliterazioek eragin handirik ez dutenean, erritmoa errimaren konplexotasunak orekatzen du, esate baterako, *Aldakeri* eta *Parisko Txolarrek*, errima gurutzatuak dituzte, eta alde

---

79 COHEN, J.; *Estructura del lenguaje poético*, 87. or.

80 LEKUONA, J.M.; "Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak", 87. or.

horretatik duten zailtasunak eta puntu ugaritasunak aliterazioen funtzioa murriztu dute. Bide honetatik goren puntua gaztaroko olerki batek errepresentatzen du *Jaun errukitsuoi* aliterazioak bakanak ditu, baina errimak ugariak eta gurutzatuak.

Kasu berezitzat aipatu beharko genuke *Xabiertxoren eriotza* ia prosa poetikotzat har bait liteke. Aliterazioak Lekuonak dioenez, "inoiz ez dute tokirik", puntuak berriz, bakanak dira, eta ahapaldiak narraziorako askatasun handia ematen dio.

Aliterazio, errima eta erritmoa markatzearen alor honetan, agian Lizardiren lan egiteko eraren erakuskarri izan daiteke olerki eta prosazko bertsioan ditugun kasuak aztertzea. Hain zuzen ere, *Xabiertxoren eriotzak* ez du ia aldaketarik jasaten prosazko bertsiotik bertsozkora igarotzean, anaforen alorrean aipatuko ditugu zenbait, hala ere. Ez du errimaren arloan, edo aliterazioetan ahalegin berezirik erakusten. Kontakizuna fragmentarioagoa bilakatzen da, zenbait pasarte ixildu egiten dira.

Aldakeri olerkiaren kasuan berriz, poetizatze prozesuak askoz aurrerago jotzen du. Zati osoak isiltzen dira, beste gorabehera zenbait idaroki besterik ez dira egiten ñabardura estilizatuen bidez aditzera emanez, eta alderdi metrikoei eta sintaktikoei dagokienez, hizkuntzaren kondentsazio prozesuak oso aurrera egiten duen aldi berean, errima aberatsak bilatzen dira, gurutzatuak gainera.

Hain zuzen ere, *Aldakeri* olerki honetaz diharduelarik, erritmoaren aldetik duen zailtasuna eta definizio eza azmiparkatzen ditu, ahapaldiaren beraren egitura deigarria azpimarratzen dituelarik.

> "Arretagarri gertatzen da neurkera hau, neurri berak konbinaketa desberdinetan eskaintzen dizkigunez Lizardik. Errimetan ABBA gurutzatzea ezaguna zaigu, hamalaukoan ikusi dugunez. Gero, silaben kontuan bost silabadun multzoa sartzen du, multzo librea; bigarren bertso-lerroan lehen eskeman, eta lehenengo bertso-lerroan bigarren eskeman. Berau molde nagusiaren ildotik badoa ere, 5/5/8), gauza berezia bezala dakar Lizardik, idazkeran ere espazio zabal batez bereizten duela. Eta azkenik, hamaika silabako bertso-lerroa, laugarren lerroan lehen eskeman, eta hirugarren lerroan bigarren eskeman. Orohar, lau aldiz sartzen du autoreak hamaika silabako bertso-lerroa bere liburuan.
>
> Estrofaren dinamika nahiko ohargarria dela esan daiteke: anisosilabikoa denez, eta errimak gurutzatuak doazelarik ABBA eskema erakutsiz, zailtasuna litzateke lehenik nabari dena, eta erritmo jakinik eza pentsamenduaren agerkundean. Askotan tartekatzen dira komentario lirikoak, zailtasunaren amorez edo, ipuinaren haria eta xehetasunak iluntzen eta banatzen direla" [81].

Juan Mari Lekuonari deigarri egiten zaion idazkeran adieraziriko espazio zabal horrek adierazten duen etena hain zuzen ere azken bertsioan bakarrik dago, eta erritmoa definitu nahiak dakar, hain zuzen ere. Orokorrean olerki honek ipuina kontatu beharrari gehiegi zor dio eta ez du beste hainbat olerkik duen musikalitatea lortzen. Esate baterako, prosazko bertsio ezaguna duen hirugarren olerkiak *Biotzean min dut* delakoak askoz erritmo definituagoa du, oso arrakastatsua gainera. Izan ere, kasu honetan, olerkariaren barrengo eta kanpoko erritmoak bat egitea, bihotzaren taupadek eta hiletarien oinotsek bat egitean sorturiko leloak erritmo guztiz definitua ematen bait dio olerkiari, ahapaldi molde ezberdinen konbinazioek olerkiaren egitura borobiltzen dutelarik.

Lizardiren olerkigintzaren tekniken bilakaeran prosatik olerkira bitarteko bidean teknika hobetze eta estilizazioaren tekniken erabilpen iaioa nabari

dela susma daiteke gaztaroko lanetatik, *Aldakeri* (1923), erdi-bidean dugun *Xabiertxoren eriotza* (1926) eta helduarokoa den *Biotzean min dut* (1930) delakoak mugarritzat hartuz [82].

---

81 *Ibidem*, 63. or.

82 Ikus "Edizio Kritiko baterako" eranskinean hiru olerki hauei buruzko oharrak.

1.4.5.2. Anaforak

Aliterazioetan bokale edo silaben arteko bertsotik bertsorako paralelotasunaren arloan aurrera pausu bat bezala da, anaforak formula sintaktiko edo sintagma oso baten errepikapena aurkezten du bertso hasieran. Hotsetara mugatu beharrean semantikaren aldetiko paralelotasunean oinarritzen da. Irakurlearengan lehengo melodiaren oihartzunaren bitartez, zentzuaren aldetiko harremana ere gogoratzen du.

Adibide gisa *Mendi-gaina* olerkia aipa daiteke erritmoa markatzeko hautatu duen baliapide nagusia anafora delarik. Ahapaldi gehienak anafora batez sarrerazirik daude:

"*Oi*, udaberri goizez
mendiaren gallurra!...
Oi aren ametsezko
zorakortasuna!...

"*Zein* ezkutuzko indarrez,
zein atseden egarriz,
zein gorago-yoranez,
narakark igana?..."

Egiz maitagarriak
dituk ire basoetan?
Egiz duk arnaskai bat
ezilkortzen duna?
Egiz, eguzkiaren
lendabiziko muñaz
sortzen duk zorunaren
lore ezezaguna?...

(MG 5-20, 35)

Anaforaz baliatze honetaz gain, olerki osoak badu intentsitatea indartzen duen beste errepika bat ere, galdera egiturarena alegia. Bestalde, berriz, olerkia ireki eta itxi egiten duten ahapaldiak bat eta bera dira. Beraz, 1920an dataturiko olerki hauxe da egituraketa erritmikoari dagokionez eredurik garbienetakoa eta goiztiarrenetakoa, 1919kotzat azaltzen zaigun *Oian* zenbait anafora erabilirik ikus badaitezke ere, irakurlea lozorroan sartu edo leloaren zurruntasunean sartu ondoren, hots, hitzek adierazten duten ametsean sartu ondoren, anaforaren hausturak efektu umoretsua bilatzen du kasu honetan olerkiaren taxuera nagusiaren hildotik:

"...*Ames dagit*, basoan
il nauela, parreaz,
maitagarri batek
ta gozorik, illeta
abesten didatela
berreun mila lorek...

...*Ames dagit* nautela
tximirritek eortzi
abaraska baten,
ta ilobia, lasaki
ta ixilka ari naizela
para-parra jaten...

...*Ames baña* zer dantzut?
Irakurle guztiok
zurrungaka lorik?
Nere neurtitzok orrein
loerazle bizkorrak
uste ez nun ziranik!"
(Oi 91-108, 29)

Gaztaroko olerki hauetan anaforaren erabilerak geroago baino erabilpen ugariagoa aurkitzen du, aipatuko dugun zenbait salbuespen kenduz gero. 1925ekotzat datatua dagoen eta, beraz, ez gaztaroko eta ez helduarokotzat jo ez genezakeen *Xabiertxoren eriotza* olerkian bada anafora legun bat, olerki luze horrek dituen hiru zatietatik lehenengo eta bigarrenaren hasieretan kokatua eta azaltzera doan gertakarien aldiberekotasuna eta errotiko ezberdintasuna azpimarkatzera datorrena:

I

"*Gabon-egun-goizean*
Yaun Aita pozik
yaiki, ta aingerutxoak
orra non bildu ditun,
esanik:"

(XE 1-5, 61)

II

"*Gabon-egun-goizean*
seaskatxoan,
Xabiertxo gaxoa
gaitzak ito-zorian
zegoan."

(XE 66-70, 67)

Lizardik aurreko hiru adibide hauetan anafora efektu ezberdinak lortzeko erabilia du: lehenengoan intentsitatea, bigarrenean monotonia, hirugarrenean berriz, kontrastea...

Azken honen helburu bera eta zerbait gehiago ere adierazten du *Biotzean min dut* olerkiaren hasieran eta amaieran kokaturiko bertsoen hasierak berdinak izateak, kontrastea eta progresioa, aldaketa eman da olerkariaren baitan olerkian zehar, eta anaforak iragartzen duen paralelotasuna sentimendu minduaren antzekotasunean bakarrik geratzen da negarra atertu eta eriotzaren galazi-eziñaren onarpena eman bait da:

"Biotzean min dut, min etsia,
negar ixilla darion miña.
Amonatxo bat nun; gaur, enarak
etorri-garaiez aldegiña"

(BMD 1-4, 119)

"Biotzean min dut, min etsia,
zotinik-gabeko negar-miña.
Alatsu txoriak, uda-ondoz,
negua du galazi-eziña."

(BMD 124-127, 129)

Laugarren adibide honetan Lizardi berez erritmikoa den baliapidea helburu espresiboak lortzeko erabiltzen ari da, olerki itxia edo zirkulu itxia osatzen duen olerkiaren sarrailtzat baliapide foniko honezaz baliatu delarik, sentimenduaren alorrean gertaturiko bilakaeraren kontrastea azpimarratzen du, berdina denaren aldean "miña"ren aldean etsimenduaren aldetiko ezberdintasuna, azpimarratzen du.

Anaforetan ordea, jatorragoa, puroagoa dugu *Bultzi-Leiotik* olerkian erabilirikoa eta oker ez bagaude, efektu sonoroa baizik ez du, musikalitatearen efektua indartzeko helburu soila du erritmo baliapideen erabilera ugaria dela eta ospetsuena den olerki honetan:

"Oi lur, oi lur!
Oi, ene lur nerea!
Oi goiz eme,
parre gozoz ernea!...

(BuL 1-4, 91)

"Oi, ene lur,
ba'ninduzu zerea,
zu landu, ta
zure sariz asea!...

(BuL 21-24, 93)

Anaforak poemaren egitura osoaren erritmoari dagozkio, eraikuntza osoaren erritmoa moldatzen duen errekurtsua da aurreko zenbait adibidetan erakutsi dugunez.

1.4.5.3. Errepikapenak

Anaforak bezala, errepikapenek ere funtzio bikoitza dute, alde batetik erritmoa markatzea edo erritmo biziagoa egitea, eta bestetik olerkiaren ahapaldien arteko lokeraren ardatz gisa jokatzea, erritmo batasuna emateaz batera, paralelotasun sintaktikoa ere sortzen bait dute.

Lizardik bere olerkietan erabiltzen dituenen artean, zenbait sail txiki egin daitezke, erabateko sailkapenik egiteko helbururik izan gabe.

A) Errepikapenen artean esaldi soil batzuen errepikapena besterik ez direnak aipatuko genituzke:

"Baaramate eraman! Zuaitz eroria...
Errukia garaituz, betor nerekoikeria.
Baaramate eraman! bestela mendia
ezpainikek geiago begiaren pozgarria".
(ZE 53-56, 137)

Errepikapen hauek emotiboak edo adierazkorrak direla esan genezake. Sentimenduen kolpatze edo pilaketa beste helbururik ez dutenak.

B) Bigarren sailtxoa leloek edo errepikapenaren ugaritasunagatik kantuetako estribilioa "leitmotiv" bilakatzen diren errepikapenak ditugu:

Hauen artean aipagarrienetakoa *Biotzean min dut*en agertzen den "Ots, ots, enegan biotz!" delakoa litzateke, errepikapena izateaz gain, duen onomatopeia efektuaz olerkiaren ardatz emozionala bilakatzen bait da.

Aurrerago aipatuko ditugun beste zenbait lelo bezala, hau ere olerkiaren arian aldatuz, bilakatuz joango da:

1.– Hiletarien urratsen hotsaren zurruntasunaz batera:

"Ots!
ots!
bizion oñok..."

2.– Elizan sartu eta mogitzen eta hots dagien bakarra olerkariaren bihotza denean:

"Ots!
ots!
enegan biotz!

3.– Mogimendua kanporatu egiten da eta berro barneratu hilkutxaren atea zabaltzean:

"Ots!
ots!
ler adi biotz!

Ots!
ots!
yauzika, biotz!

Lelo hau mogimenduaren barruko eta kanpoko mogimenduen adierazle eta identifikatzaile bilakatzen da oinen hotsa eta bihotzaren taupadak erritmikoki bat egiten dutelarik.

Leloen artean aipatu nahi nukeen bigarren adibidea *Xabiertxoren eriotza* delakoan aurki daitekeena da, hots, olerkiaren hirugarren zatian etxekoen eta belenzaleen arteko elkarrizketan kokatu dena.

Belenzaleek hiru ahapaldi kantatzen dituzte etxekoei erantzunez. Hasiera eta amaiera berdinak dituzte 3. eta 4. bertsoa aldiz:

"Etxeko-andre ona,
kantatzerik nai?
yaiotzedunak gera,
begirunez beteak
zure zai..."

(XE 126-130, 73)

"Etxeko-andre ona,
kantatzerik nai?
belenzaleak gera,
sari-ustez beteak
zure zai..."

(XE 136-140, 75)

"Etxeko-andre ona,
kantatzerik nai?
Gabon-zaleak gera,
ezin-etsiz beteak
zure zai..."

(XE 146-150, 75)

1925ekotzat dataturik eta *Biotz-begietan* liburuan agerturiko bertsioa eta *Argia* aldizkarian argitaratu zuenaren artean, hain zuzen ere, leloa osatzen duen ahapalditxo honetan aldakuntza zenbait egin zituen, errepikapenaren balore erritmikoari eragiten diotenak.

Lehen bertsioan ez da jaiotzedunak/ belenzaleak/ gabon-zaleak aldaketa-mailaketa ematen, hiruetan "Jaiotz-zaleak" jartzen du, beraz, leloaren barruko aldaketa bakarra laugarren lerroan zegoen hasierako bertsioan: "begirunez/ sari-ustez/ ezin-etsiz"en bidez intentsitatean lortzen duen goranzko mailaketa, alegia.

Berez, ez da esanahiaren aldetik aldaketarik gertatzen bertsio batetik bestera, baina intentsitatea irabazi du bigarren bertsioan. Begirunez hasirikoek saria espero dutela adierazten dute eta azkenean insistentzia gogorraren ondoren, "ezin-etsia" dutela esaten dute.

Jaiotzatik Belenera eta handik Gabonera berriz zabalagotze eta orokortze bilakaera gertatzen dela esan daiteke eta, beraz, Lizardik leloa errepikapen hutsaren efektu musikalaz baliatuz, efektu adierazkorragoetara, espresiboagoetara bideratzen da, *Biotzean min dut*en lortzen duen maisutasuna lortzeraino. *Xabiertxoren eriotza*ren bi bertsioek bilakabide, teknikez baliatze eta trebatze bide horren erakusgarri bilakatzen dira.

D) Errepikapenen artean tankera berezia duten hirugarren sail bateko adibideak bihurkia deitu ohi direnak dira.

Bihurkia deitzen den baliabide hau, funtsean errepikatze bat litzateke, "ritornello" gisako bat, esaera bera birresatea. Errepikatze hau askotan juntagailu baten laguntzaz egiten da. Juan Mari Lekuonak *Ahozko Euskal Literatura* [83] hiru bihurki egitura aurkezten dizkigu "Santa Klararen koplak" aztertuz:

1.– Aurreko koplaren azkenengo bertso-errenka hurrengo koplaren lehenengo errenkan errepikatuz. Esaterako, ahapaldiaren amaieran "urre gorrizko bizarra" esaldiaz amaitu delarik, hurrengo kopla "urre gorrizko bizarra eta..." hasiz.

2.– Kopla baten barruan, bigarren bertso errenka hirugarrenean errepikatuz:

"Amazazpi urtetan
moja sartu ziñan
moja sartuta bere
klara izan ziñan."

3.– Kopla berberaren barruan lehenengo bertso errenka hirugarrenean errepikatzea:

"Ogi bakar batekin
zitun janaritu
ogi bakar batekin
erdia gelditu."

Bihurkiek literatura aldetik duten zeregina ikusteko alderdi bat baino gehiago azpimarratu beharko genituzke. Lehenengo errepikatze-modua kopla baten bukaerarekin bestea hastea, oroitzapenari laguntzeko bidea izan daiteke. Ahoz erromantzea abesten duenaren lagungarri. Koplaren barnera sartu denean, berriz, bihurkiak enfasi bat, kontraste bat, garrantzizko idearen bat-edo markatzeko balio du".

Esan daiteke, noski, bihurkiak joskera-indarra ere baduela. Perpausa konposatuen esanahia indartzen duela esan dezakegu juntagailuaren garrantzia adieraziz. Galdetuz errepikatzen denean, galderazko aditza elipsi eran joan ohi da, galderaren garrantzia azpimarratuz.

---

83 LEKUONA, J.M.; *Ahozko Euskal Literatura*, Erein, Donostia, 1982, 86-87. or.

Kopla zaharrei buruzko eta bihurkiari buruzko xehetasun hauek erakus diezagukete, literatur prezeptiba orokorrak izan ditzakeela lege bereziak Euskal Herriko herri literaturan, eta besteak beste erromantzeen alor mugatuan.

Juan Mari Lekuonak lehen sailekotzat jo dituenen teknikaz eginikoa dugu Lizardiren *Agur* olerkian bosgarren eta seigarren ahapaldi laburraren arteko lotura, Lizardik ez du, ordea, lerro osoa errepikatzen juntagailuaren erabiltzeko modua ezberdina delarik:

"Gaberik gabeen-gaupean bai'ago;
gaztetzaro-ogitik yakide ninduken
onen onginaia ezpaituk siñisten;
ai, nik aal-banezaik, nik aal (eztiago
loak ar-basoan illargia baiño)
ene oiu au sar biotz illeraiño!

Ene oiu au sar ta biotza biztu,
ia itzal-yauregian giz-argia izetu!"
(Ag 21-28, 114)

1930ekotzat dataturik dagoen olerki honetan bihurkiaren teknika bereganatua eta bere erara moldatua darabil Lizardik. 1927kotzat agertzen den *Neskatx urdin-Yantzia* delakoan berriz, modu klasikoagoan darabil teknika hau olerkiaren lehen ahapaldiaren barruan:

"Udaberri, uste-ezik,
arki dut basoan.
Neskatxa da, *ta urdiñez*
yantzita ziyoan.
Urdiña yazkia, ta
begia areago:
alakorik itsaso
barean ez dago".

(NUY 1-8, 83)

Errepikapen modu honezaz Lizardik enfasi berezia lortu du neskaren soineko eta begien urdintasunaren intentsitatea adierazterakoan, konparazio hiperbolikoaz borobiltzen duelarik urdintasun horren sakontasuna.

Adibide honetan ikusi dugu Lekuonak bigarren sailekoen artean aipatu dituen bihurki egiturak. Badira, ordea, Lizardiren olerkietan bihurkiaren teknikaren antzeko diruditen errepikapen moeta zenbait, baina zerbait erantsia dutenak, alegia, errepikatzen den sintagma ordenaz aldatua, "gurutzatua" ematen du:

"Aapaldiak elkarren ondoren
yalki ta *uso zuri antzean zetozen*
itzuli, itxaso urdiña zear,
mokoan, edergai, basoaren abar.

Itzuli zetozen aapaldiak;
itzuli zetozen nere uso txuriak
Aberriarentzat damesgun
legor gizenetik, yai-ostoa lagun..."
(GM 41-48, 209-210)

Lizardik ahapaldiak uso zurien metaforaz identifikatzen dituen olerkian errepikapen edo bihurki gurutzatu honen bidez lortzen du olerki honetan ia amaiera arte erritmo motel eta itunekoa dena biziagotzea eta aidosoa egitea anafora eta bihurki gurutzatua dei genezakeen baliapide hauen bidez. Honela erritmoa gaiaren azkenaldeko bizitasunari, atsegintasunari ederki egokitzea lortzen duelarik.

Gurutzatze joko bera darabil, bestalde, *Bultzi-leiotik* deituriko olerkian ere. Egitura sintaktiko berberean hitz bat errepikatu baina lekuz aldatuz lortu du hirugarren ahapaldiko efektu erritmiko fin hori:

"*oro* laiño
mee batek estalia,
urrez *oro*
eguzkiak yantzia..."

(BuL 9-12, 91)

Hitz bakar bat edo sintagma labur bat ahapaldi beraren barruan errepikatuz hitzari intentsitatea, indarra ematea lortzen du aldi berean musikalitatea ere legunki markatzen duelarik. Hona hemen bi adibide Lizardik askotan darabilen baliapide honen erakusgarri:

"Ta sarri (gogoan
iduritu bizi)
lore bat, ondoan
eginik du mami.

Lore bat gorria
mardul, eze beti;
erts-ezin zauria
odolezko iduri..."

(OU 45-52, 109)

Antzerakoa den beste erabilera honek itxiko du adibideen sail hau:

"Egun eunez yantzia
berrikusi naiez,
bira ditut begiak,
bira, baña... iñon ez!
Non da, non da sorgiña,
basoak maitea?"

(NUY 69-74, 87)

Hain zuzen ere, errepikapenak irakurleari iragartzen dion paralelotasuna haustean sorpresaren efektua sortzen duen egitura hau gaztaroko beste olerki batean ere aurki daiteke:

"Il ziñan gaxua!
Il bai ... baiña illotza
—obitzat biyotza—
nigan dirau oraindik,
lurrintsu-ustelgaitza".

(MatI 10-15, 185)

1.4.5.4. Korrelazioak

Dámaso Alonsok Góngoraren plurimembrazio eta korrelazioez diharduelarik, esaten du literatura europearrean Petrarcarekin hasten dela bertso bakar batean edo ahapaldi batean zenbait nozio herrenkan aurkezteko zaletasuna [84]. Zaletasun hau batez ere, azken bertsoa amaitzeko modu dotoretzat jotzen dela esaten du Errenazimentu garaian, eta Góngorarengan tresna guztiz baliosa dela:

"...ver a Dios, vestir luz, pisar estrellas"

"...larga paz, feliz cetro, invicta espada"

Dámaso Alonsok Góngorak erabiltzen dituen korrelazio bimembreen funtzioaz diharduelarik, zangalatrauekin batera aztertu eta ahapaldiaren barruan mogimenduaren sentsazioa sortzen duten elementutzat jotzen ditu:

> "En general, sin embargo, se puede decir que los bimenbres producen con su contrabalanceo o equilibrio un efecto serenador o aquietador; los encabalgamientos abruptos, en cambio, suelen conllevar una idea de movimiento, o de desazón y deseo, o de violencia" [85].

Korrelazioak bi osagarri edo gehiagoz osaturik egon daitezkeela gogorazi ondoren, antzinateko literaturetan ezagunak zirela gogora arazten du: indiar, greziar, erromatar, arabiar pertsiar, probentzal nahiz italiarren artean; Espainiara zalantzarik gabe azken hauen eraginez etorria dela ziurtatzen duelarik.

Lizardiren olerkietan zenbait kasu aurki daitezke, ene ustez, zenbaitetan, bi elementuz bakarrik osaturik eta bestetan berriz, enumerazio ugariagoz.

Azken ahapaldian bilduriko bi elementuen balantzaz bareturiko olerkiaren erritmoaren adibidetzat, Dámaso Alonsok honako adibide hauek aipatzen ditu [86]:

> gimiendo tristes y volando graves...
> cíñalo bronce o múrelo dimante
> lamiendo flores y argentando arenas...
> a libar flores y a chupar cristales...
> calzada abriles y vestida mayos...

Lizardiren olerkietan bi elementuz osaturiko korrelazioetan argiena *Neskatx Urdin Yantzia* olerkiaren azken ahapaldia da:

> "Maitetasun azia:
> ene udaberria:
> *neskatz tankerakoa*
> *eta urdiñez yantzia*!..."
>
> (NUY 82-84, 87)

Olerki honetan udaberriaren pertsonifikazioaren agerpenak oso-osorik ere Gongoraren pertsonaiekiko kidetasunik badu ere, alderdi erritmikoei bakarrik loturik, olerki honetan sumatzen diren gainerako osagarri bizigarrien baretzaile gisa jokatzen du amaierako bertso honek.

Efektu bera du *Bizia lo* olerkiaren azken ahapaldi laburrak. Naturak otsail erdian ageri duen berbizte zantzu txikien ahalegin urduria adierazi ondoren:

---

84 ALONSO, D.; "la lengua poética de Góngora" in *Obras Completas*, V, 179. or.

85 *Ibidem*, 181. or.

86 *Ibidem*, 180. or.

"O, zein aizen eder loa:
eriotzaren anaitzakoa:
bizitzazko urloa!..."

(BiL 44-46, 143)

Bi osagarriz baino gehiagoz osaturiko korrelazioak, Dámaso Alonsok "pluralidad de correlación" deiturikoak aurkezteko honako adibide hau eskeintzen digu:

"Ni en este monte, este aire, ni este rio,
corre fiera, vuela ave, o pece nada...
Eta soneto berean beherago beste bi korrelazio daudela esaten du:

"cuando a cada cual de ellos más le agrada
fresca cueva, árbol verde, arroyo frío...
dejan la sombra, el ramo y la hondura...

Dámaso Alonsok eskainiriko adibide konkretu hau soneto oso batean zehar nola gertatzen den ikusi nahirik, Góngoraren Sonetoen artean bat aurkitu nahi izan dut konparaburu gisa erabiltzeko:

XLVII

NO DESTROZADA NAVE EN ROCA DURA

No destrozada nave en *roca dura*
Tocó la playa más arrepentida,
Ni pajarillo de *la red tendida*
Voló más temeroso a la espesura;
Bella ninfa la planta mal segura,
No tan alborotada ni aflijida,
Hurtó de *verde prado* que escondida
Víbora regalaba en su verdura,
Como yo, Amor, *la condición airada,*
Las *rubias trenzas y la vista bella*
Huyendo voy, con pie ya desatado,
De mi enemiga, en vano celebrada.
Adiós, ninfa cruel; quedáos con ella,
Dura roca, red de oro, alegre prado [87].

Góngoraren sonetoen artean "Mientras por competir con tu cabello" eta beste askotan ematen da Dámaso Alonsok dioenez, azken bi lerroetan poema osoan zehar agerturiko elementuen bilketa den korrelazioa.

Korrelazio pluralitate hau Lizardik berak bere olerki gogongorinoa zela esanikoan ematen dela esan liteke berak eginiko aipamenak hartaraturik:"...una poesía gongorina —una en que llamaba lagarto al maíz— " [88].

Lizardiren olerki gongorino hori *Bultzi-Leiotik* da, eta ikusi batera, Gongoraren estilotik oso gutxi duela badirudi ere, —gogora literatur kritiko gehienek Lizardiren olerkigintza inpresionistaren adibidetzat aipatu dutela-, korrelazioen erabilerari dagokionez, izan lezake olerki honek gongorazaletasunik.

87 GÓNGORA, L; *Sonetos*, Emiliano Escolas editor, Madrid, 1980, 40. or.

88 LIZARDI, X.; "Gramáticas euskéricas" in *Euzkadi*, 1930-11-2, 1. or.; *K-L* 319. or.

Olerkiaren lehen ahapaldietan "Arto musker,/ mendi, baserri zaharrak; ale gorriz/ abaildutako sagarrak:" aipatzen ditu. Baita aurrerago, "soroan zut" dagoen nekazaria ere. Horregatik azken ahapaldiak, Gongoraren azken bertsoak bezala, agur esaten die olerkian zehar aipaturiko osagarri nagusei:

"Baiñan... ezin:
beeko bear goriak
narama... Agur
soro, sagar, mendiak!..."

(BuL 25-29, 93)

1.5. AHAPALDIAK ETA OLERKIAREN ERAIKETA METRIKO-FONIKOA

1.5.1. Zedarripena

Lizardiren ahapaldiei buruzko azterketa atal hau irekitzerakoan, euskal metrikaren beste gakoetako baten aipamena egin behar da, besterik ez bada ere, definizio gisa erabiliko ditugun irizpideak argitzeko eta nahasketarik sor ez dadin.

Jean Haritchelharrek [89] ahapaldi hitza onartzen du estrofa hitzaren ordezko gisa, nahiz eta euskaraz betidanik "kopla", "bertsu" edo "bertset" deitu izan zaion. Izan ere, gaztelaniaz jatorri berekoa den "verso" hitzak guretzat bertso-lerroa dena adierazteko balio bait du. Bertso-lerroak berak ere ordea, ez du adiera finkoa euskal metrikan; izan ere, ifarraldean eta hegoaldean bertsoak idazteko bi tradizio ezberdin bait ditugu. Horregatik, lauko nagusia adibide gisa hartzen badugu, ikusiko dugu ifarraldekoek 18 silabak 5/5/5/3A banaturik idazteko ohitura dutela, hegoaldekoak, aldiz, 10/8A idatzi izan dugu betidanik, hots, eten nagusiari bakarrik erreparatuz.

Dena den, definizioz, neurri aldetiko kidetasuna duten, errima joko batez kateaturik dauden eta, eskuarki, zentzu osoa duten bertso-lerro multzoak osatzen du ahapaldia. Horregatik, ohitura izan da betidanik ahapaldiak elkarren artean zuriuneak utziz idaztekoa.

Euskal olerkigintza idatzian kantutegietako ahapaldi moldeak hartzea izan da ohizkoena, edo bestela, kanta berriak euskal ahozko olerkigintzan, erromantzeetan, kopletan eta abarretan erabilitako moldeei letra berriak ezartzea. Izan ere, Lizardik berak "Sabino poeta" deritzan artikuluan eta Arana-Goiriren zenbait olerkiri buruz ari delarik, lehengo doinuez baliatzean, olerkiari aintzinakoaren oihartzunaren emotibitate berezia eransteaz gain, iraunarazteko eta erraz gogoratua izateko erarik hoberena bait da:

> "Quiero citar aún dos composiciones de Sabino bien conocidas de todos los patriotas. "Itxarkundia" ejemplo a mi juicio típico del arte de Sabino para la adaptación de letras originales a viejas melodías. Procedimiento que puso en práctica con clara visión, pues en efecto, es el medio más emotivo y más seguro de propagar aquéllas" [90].

Beraz, eta Oihenarte bezalako berritzaileak Espainiako eta Italiako metrika joerak euskal olerkigintzan itsasteko saio bakartiak alde batera utzirik, ahozko literaturaren ahapaldiak eta doinuak erabili dituzte batipat olerkariek beren neurtitzak egiteko.

---

89 HARITCHELHAR, J.; *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun (1786-1862)*, 474. or.

90 LIZARDI, X.; "Sabino poeta" in *Euzkadi*, 1931-11-25, 1. or.; *K-L* 348. or.

Era berean, ohizko moldeak berriztatzeko bertsolarien artean ezaguna den teknika ere zabalkiro erabili izan da olerkigintza idatzian egiturak zarberritzeko, hain zuzen ere, Jean Hartitchelharrek "euskal ahapaldien bilakaera-modu jatorra edo berezia" deitu zuena:

> *"Développement original des strophes basques"*
>
> "Dans la poésie populaire basque le mélodie est très souvent à la base d l'évolution de la métrique, aussi bien de celle du vers que de celle de la strophe.[]
>
> Il n'est un Bas que qui ne connaisse le "Gernikako arbola". La mélodie —originale— comme les paroles sont l'oeuvre du poète quipuzcoan Iparraguirre qui l'a composée vers les années 1853-1854, est le classique zortziko ou huitain 7/6, qui cepandant, pour les poètes basque-francaises représente un quatrain monorrime. Or, en 1868, c'est-à-dire une quinzaine de années après la création, Otxalde présente au concours de la poésie basque de Sare, le poème "Soldado ondoa" qui obtient le premier prix. Ce sont neuf quintils monorrimes qui se chantent su l'air de... "Gernikako arbola".[]
>
> Il ne nous reste plus qu'à supponer qu'à cette époque la dernière ligne mélodique était bissée. Ainsi la poésie basque, en partant du quatrain, est capable de créer le quintil" [91].

Haritchelharrek deskribatu digunaren arabera, ahapaldi berrien sorreran halako bertso-lerro baten errepikapenaz egiten da sarritan, gehienetan azken bertso lerroa errepikatuz. Baina badira zenbait adibide azken aurrekoa edo beste bertso-lerroren bat errepikatuz sortuak direla frogatzen dutenak.

Ahapaldiak zarberritzeko era hau mende hasierako zenbait olerkarik erabiltzen dute. Eta jadanik ezaguna dugun konpara buru bat erabiliz, Jautarkolek *Biozkadak* deituriko liburuan sarritan erabiltzen duen teknika da hau.

Halaxe adierazi ere zuen Jesus Maria Leizaolak 1930an argitaratu zenean *Euzkadi*n egin zuen erreseina batean: "Jauregiren ahapaldiak" deritzanean hain zuzen ere. Leizaola ahapaldien egituraz ari delarik bereziki, zortziko nagusien kideko diren beste zenbait ahapaldien erabilpenaz ohartzen da:

> "Orra lendabizi sortutakoak. Zortziko aundiari 5 izkidun neurtitz bat edo geitu edo kendu zati bakoitzean egin dio. Orrela atera dituan erak abek dira:
>
> Gehituta: 5,5,5,5,3 = 5,5,5,5,3
>
> Kenduta: 5,5,3 = 5,5,3.
>
> Lendabiziko era geyenetan 15-8 = 15-8 idazten du, ez baña zuzenean. "Biozkadak" idaztitik aterata, ara emen ahapaldi oyen ereduak. Zortziko aundiarena: "umetxo batek bere zeruko amari"). Geitutakoarena: "Errenderi nere jaioterriari". Kendutakoarena: "Aitonak bere ilobatxuari".
>
> Bi bostdun neurriz geituta ere Jautarkol'ek zortziko aundiaren kideko ahapaldi bat sortu du: 5,5,5,5,5,3= 5,5,5,5,5,3 "Bertso gaxoak" izena duan lendabiziko olerkiaren ahapaldia ontakoa da" [92].

Ikusten denez, Leizaolak eta Haritchelharrek bertso-lerroa nondik norainokoa denari buruz irizpide ezberdina dute. Leizaolarentzat Jautarkolek erabiltzen dituen eten grafikoak, berez eten txikiarenak edo hemistikioarenak direnak, lerrotzat onartzen ditu eta horien errepikapenez dihardu, Haritchelharrek aldiz, punturainokoa hartzen du bertso-lerrotzat.

Ahapaldi berrikuntzan askotan errepikatzen dena punturik gabeko bertso lerroetako bat da, esate baterako, 7/6a-7/6a, lauko txikia deitzen zaionetik, 7/7/6a — 7/7/6a sortzen da. Eta adibidetzat Lizardik *Biotz-Begietan* liburuko olerkietan erabili zituen biko txiki honen aldaki moeta bat baino gehiago aipa litezke.

Beraz, bertsolaritzan ohizkoak diren ahapaldien eta ahapaldiak berritzeko era honen esparrutik abiaturik aztertuko ditugu Lizardiren ahapaldi egiturak.

---

91 HARITCHELHAR, J.; *Ibidem*, 501-502-503. or.

92 LEIZAOLA, J.M.,"BARAZAR"; "Jautarkolen ahapaldiak" in *Euzkadi*, 1930-5-7.

1.5.2. Lizardiren ahapaldi-motak

1.5.2.1. Molde txikiak

Mendi-gaiña deritzan olerkiaren lehenengo eta azken ahapaldiak neurri txikian eginak dira eta laukoak dira: 7/6a 7/6a. *Neskatx urdin yantzia* deiturikoa ere bai, nahiz eta, bi bertsoz behineko errima konstanterik ez duen olerki guzti horretan zehar. *Euskal Pizkundea* eta *Izotz-ondoko Iguzki*, ordea, neurri txikian eginiko lau puntuko hizkoak dira. Baita *Maitea*ren apurñoak olerki saileko *Maitale berriak* olerkia ere. Hamairu silabatakoak dira bertso lerro guztiak, zazpigarrenaren ondoan etena dutelarik, eta errima bi puntukakoa egiten duelarik.

Neurri txiki hau gogoko zuen Lizardik, berau da ugarienik erabili zuena. Batzuetan, arestian aipatuak ditugun horietan, molde tradizionaltzat baliatuz, eta beste batzuetan aldiz, lerroetako batzuk errepikatuz sorturiko sistema berrian. Esate baterako, *Oia* eta *Mendi-gaiña* direlakoak 7/7/6a 7/7/6a pareatuak eginez sorturikoak dira.

Beste zenbaitetan, berriz, errepikatzen duena punturainoko egitura osoa da. Esate baterako, *Biotzean min dut* olerkian 7/6/7/6a 7/6/7/6a egitura edo 7/6a — 7/6/7/6a erabiltzen ditu. Molde tradizionaleko errima modua egin gabe utziz.

Hauek dira *Biotz Begietan* liburuko olerkietatik neurri honetan egin zituenak. Baina gaztaroko olerkietan, eta baita helduaroko beste zenbait moldatzeko egitura honezaz beraz baliatu zen. Esaterako, *Nere maitiak ditu* deituriko olerkian *Neskatx urdin yantzian* darabilen aldaki bera, hots 7/6a — 7/6a egitura duten pareatuak agertzen ditu; bai eta *Etxeko sagastia* delakoan, helduaroan bere etxekoei eskeiniriko olerkian. Kasu honetan ordea, *Izotz ondoko eguzki* eta *Euskal Pizkundea* eta *Egamin* delakoetan bezala, ohizko bi puntutik laukora jotzen du. *Aztu biyotz orrek* eta *Euzkera Sarkundia, Gaztiaren otoia* olerkiek, aldiz, *Oia* delakoak bezala, 7/7/7/6a 7/7/7/6a egitura dute.

Hauxe dugu, beraz Lizardik gehienik erabili zuen egitura, nahiz egitura jatorrean, nahiz aldatuan, bi nahiz lau puntuz. Ahapaldi honen ezaugarriak zedarritzerakoan, Juan Mari Lekuonak "Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak" [93] artikuluan, eta bereziki, 7/6a —7/6a pareatua eta 7/7/7/6a-7/7/7/6a egiturak dituen *Mendi-gaiña* olerkiaz diharduelarik, zera azpimarratzen du:

> "Errepikak lauko txikiaren neurkera du. Erritmo azkarra, flexibilitate handikoa, egitura bikoitza, errimen arabera.
>
> Barruko estrofek (7/7/7/6a), funtsean behintzat bi errima nagusi baizik ez dituzte nahiz-ta han eta hemen, sistemarik gabe, hoskidetzak agertu bertso-lerro libreen artean. Binako erritmoa darama pentsamenduak, estrofen bi zatien arabera. Silaben aldetik ahalbide zabalak ditu puntu batetik bestera: 27 silabako hemistikioa. Estrofak azkartasunean galtzen duena, aberastasunean irabaz dezake" [94].

Ikusten da Lekuonak, estrofa honen azkartasuna eta flexibilitatea azpimarratzen dituela, bai eta puntu bikoitzera murriztuz gero, erritmo bizitasunari eusteko erraztasuna. Lau puntukoa denean, ordea, hots, *Izotz-ondoko Iguzki* olerkian aspergarriagoa bilakatzeko duen arriskua aipatzen du:

> "Idazteko ahalbideak 13 silabakoak errimatik errimara, puntuak ugaritzeak dakarren bereizkuntza guztiekin, batez ere monotoniaren arriskua, formen barrokismoa, etabar" [95].

Beraz, Lekuonaren ustez, Lizardik egitura hau bere flexibilitate eta azkartasunagatik erabili bide zuen, gaien arabera, erritmo bikoitza ezartzeko, eta puntuak bakanago direnean lasaitasuna ere

---

93 LEKUONA, J.M.; "Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak", 53-88. or.

94 LEKUONA, J.M.; *Ibidem*, 60. or.

95 *Ibidem*, 83. or.

eskaintzen diolako nabardurak nahi bezala adierazteko 27 silabatan zehar. Esate baterako, *Oia* olerkian, 7/7/6a 7/7/6a egitura duelarik zera diosku:

> "Estrofaren egitura bikoitza da, bi parte dituenez, bi puntuen arabera. Molde txikikoa denez, eta sei lerrokoa, azkartasuna eta flexibilitatea bereak ditu, eta konta-poesiarako ahalbide egokiak eskaintzen ditu eredu honek. Idazteko 20 silaba daude puntutik puntura hiru etenaldi markatuz" [96].

Izan ere, ahapaldi honek Lizardiren olerki askoren errítmo bizia, monotonia gabea, eta aldi berean lasaitasuna, kontaketaren aurrera egite ostropozorik gabea adierazteko ezin hobea bait da. Irakurketa puntu ugariegiz neka arazi gabe, errítmoa astundu gabe.

Azkenik eta molde txikiko, 7/6ko neurri honetan Lizardiren lanetan aurkitzen dugun azken eredua, bietan, bai zazpikoan bai seikoan, errima egiten duen eredua dugu, *Parisko txolarrea* olerkian aurki daiteke, errima gurutzatuak eta ugariak dituelarik eta beraz, molde txikiaren antzekoa izan arren, zailtasun gehiagokoa eta gaiari dagokion eran saltariagoa bihurtzen delarik:

7a /6b/ 6c/ 7a/ 6b/ 13c (7-6)

Molde txikikoak alde batera utzirik, jo dezagun molde nagusia noiz-nola erabiltzen duen ikustera. Zalantzarik gabe, molde txikia baino bakanago, errítmo motelago eta astunagokoa denez.

1.5.2.2. Molde nagusia

"Zortziko nagusia" deituraz ezagutzen den 10/8ko ahapaldia *Biotz Begietan* behin bakarrik ageri da, *Zeru-azpia* delakoan. Baina gaztarokoen artean badira gehiago: *Euzko Mendiya, Maite izaneri* eta *Igesi* deiturikoak, hain zuzen ere. Hala ere, Lizardiren ahapaldi barietate zabalaren baitan sarritasun gutxikotzat jo behar da, eta era tradizionalean erabilia dago.

1.5.2.3. Ahapaldi isosilabikoak edo molde berdina

Ifarraldekoentzat, ahapaldi isosilabikoak, edo Juan Mari Lekuonak "molde berdina" deitura eman dienak heldu aroan bakarrik erabili zituen batez ere.

Silaba kopuru luzekoak dira, zenbaitetan, esate baterako, *Agur* olerkian, nahiz 12A/12A pareatua, nahiz 12A/ 12B/ 12B/ 12A laukoa eta errima gurutzaturik aurki ditzakegu, beti ere etena edo zesura seigarrenaren ondoren ematen delarik. Sendimendu hits eta taxuera barnekoia duen olerkia denez, errítmo zurrunak eta monotonoak ongi ematen dio, eta egoki dirudi.

Otartxo utsa izeneko olerkia ere molde berdinekoa da, hots, sei silabako bertso errimadunez egina dago, errima a-b-a-b gurutzatua duelarik. Neurri motza gai triste baten inguruan erabiltzeko errítmo pausatu eta geldikoa, baina sentimendu sotilak adierazteko hautatua, ez ausnarketa sakon eta bihurrietan sakontzeko, aurrekoa bezala, horregatik da neurri motzekoa.

Gainerakoan, oso tarteka bakarrik erabiltzen du isosilabismoa huts-hutsik beste ezerekin tartekatu gabe. Aipagarrienik, *Baso Itzal* delakoa dugu. Olerki horretan ohizko ahapaldi egitura 11a/ 11a dugu, behin darabil 11a/ 11a/ 11a hirukotea. Errítmo geldia, pausatua du olerki honek, inguruneari begira dago olerkaria basoko itzalpean jarririk, eta erreparatu egiten die atseginez neguan eta udan ikusi dituen bazterrei. Errítmo geldi honek ongi ematen dio errepasatze lan presarik gabeko horri. "Egonean bon-bon" egoera horretan ematen den aldaketa silabiko eta errítmiko bakarra "Itzal" pertsonaiaren agerraldiari dagokiona da orduan errítmoa bizitu, silaba gutxiagoko ahapaldia eta errima ugariak darabiltza hurrengo hamaikakoan dion bezala "taupaka biotza":

"Itzal!, Basoren ume yaukal, 9a

---

96 *Ibidem*, 58-59. or.

xaloagorik ezin aal: 8a
beltzeran, begi bai azal: 8a

Itzal! 2a

Itzal!" 2a

Urte Giroak olerkietako azkeneko bietan, beraz, *Baso-Itzal* eta *Ondar Gorri* direlakoak ere hamaika silabako ahapaldia distikoez osaturik daude. Zenbaitetan ahapaldia distikoak bakarrik osatzen du, beste batzuetan hiru errima ere biltzen ditu ahapaldi batean, eta beste zenbaitetan errima gurutzatua darabil sei edo zortzi bertsoko ahapaldi batean.

Hamaika silabako bertsoz osaturiko ahapaldi mota hau Jesus Maria Leizaolak aztertu zuen bere artikulu batean "1808-1914 en la poesía popular vasca" delakoan [97] hamaikako bertso mota honen antzinatasunaz hitzegiten digu: Erdi Aroan erakusten dizkigularik lehen ereduak, zehazki XIV. mendetik hasita Bizkaian, eta XVI. mendean berriz, Bernard Dechepareren "Amorosen disputa" deritzan olerkia aipatzen digu. Hamaikako ahapaldiak izan duen bilakaera historikoan, Leizaolak bi kostatazio nagusi nabarmendu ditu:

– 4/4/3 etenak egiten direla gehienetan.

-Hamarrekoak eta hamaikakoak konbinatzen dituzten ahapaldiak ugariak direla. Adibiderik ezagunena "Intxauspeko alhaba dendaria" izango litzatekeelarik, 4/7 eta 5/6 etenak egiten dituztelarik.

-Hamaikako ahapaldiaren bilakaeran bide ikasiak eta bide herrikoaiak bereizi daitezkeela eta irizpidetzat errima monorrimoa den ala gurutzatua den har daitekeela.

Hemeretzigarren mendeaz geroztik hamaikako bertsoak ifarraldeko eliz kantetan tradizio luzea dutela azaltzen digu, eta horien ondoren Lizardiren "Baso-Itzal" olerkiaz zera dio:

> "El mejor ensayo del empleo del endecasílabo en la poesía vasca es, sin duda, el de Lizardi en "Baso-Itzal". Deja muy atrás todo cuanto hasta ahora se ha visto y exige —por sus méritos— un análisis amplio y meditado.
>
> La composición tiene 63 endecasílabos dispuestos en pareados, salvo un terceto monorrimo. Pero el autor ha agrupado 42 versos (21 pareados) al comienzo y los 21 endecasílabos restantes al final. Entre las dos series hay una quintilla monorrima del siguiente tipo: 9/8/8//2/2.
>
> Por esta intercalación de un ritmo diferente, cortando la uniforme serie de endecasílabos, y por no haber cruzado la rima, el poeta de nuestros días se ha mantenido fiel a las tradiciones populares que Elizamburu tambien observó en "Lau andreen besta". Con Lizardi tenemos el endecasílabo totalmente independiente de la música (carece de un ritmo determinado por la melodía, mientras que el de Elizamburu sí). El mismo que intentaron Moguel y Zabala. Un endecasílabo emancipado también del canon general de Oihenarte (la observancia de las cesuras)" [98]

Leizaolaren ustez, beraz, Lizardik tradizioari eutsi zion errima gurutzatuak ez eginez, baina aldi berean, eten finkorik ez onartzean musikatik, melodiatik aske utzi zuen.

Lizardik *Biotz Begietan* liburuan hamaikakoa, endekasilaboa lau bider erabili zuen arren, garaiko idazleen artean hamaikako ahapaldirik nekez aurkitzen da, nahiz eta Orixeren gaztarokoen artean *Jesusen Biotzaren Deia* aldizkarian argitaratu zuen "Adoro te" olerkia ere hamaikakoa den, baina kasu honetan ere eten finkoa aurkitzen dugu, 6/5 erakoa hain zuzen ere.

---

97 LEIZAOLA, J.M.; "1808-1914 en la poesía popular vasca" in *Obras Completas de J.M. Leizaola*, II, Sendoa, Donostia, 1981-87, 404. or.

98 Ibidem, 404. or.

Berriz ere olerkien neurkera, ahapaldiaren egituraketa erritmikoa, gaiari egokitzen zaiola ikus daitezke, halako neurri jakin batekiko atxekipenari edo erraztasunari amore eman gabe. Lizardik askatasunez jokatzen du, ahapaldien barietate kapritxosoan erori gabe, gaiarekiko egokitasuna bilatuz.

Azpimarratu dugunak Orixek olerkigintzan beharrenik erritmoa dela azpimarratzean aipatzen zuen irizpide nagusiarekin bat egiten du, zehazki 1922eko "Eusko Olerki neurritzaz" izenburuaz [99] adierazi zuenarekin eta beste zenbait artikulutan aipatu zuenarekin:

> "Neurtitzetarako bada, mintzoaren igikera gogoan artu beaugu. Gure neurtizkera, oraingo erdera berriena ez-bezelakoa izan bearko du, bada oraingo izkuntz orien igikera indarmintzara duna da" [100].

Eta testu berean honako proposamen hau egiten du ahapaldiei buruz:

> "Ez dut itzegin strophe edo ahapaldietaz; ez dago itzeginbear aundirik ere, bada batzutan edo geienetan eragozpen litzaiguke gure mintzo yarean lotu egiten baitu. Noizpait e-legoke gaizki norberak ikus dezakenez, eta kantatzeko beti aizu diteke, mintzatzeko ez bada ere. Gaiari ta gogoari dagokionaz neurri bear ditugu itzek, eta ez estutu, ez moteldu" [101].

Hamaika silaba eta binakako errima duten lau bertsoko ahapaldiak dituen beste olerkia *Ondar gorri* dugu. *Urte-giroak* olerkietan *Uzta-erdi* delakoaren hurrengoa da, eta beraz, haren erritmoari eusten dio "emeki" eta "udaren atseden" giroan darraielarik. Lehenengo 26 bertsoek egitura honi eusten diote. Udan eginiko bide bera egiten du eta "nekez" doanez, moteltasuna adierazten duten ezaugarri metrikoa erantsi dio olerkiaren lehen zati honi, azkenik, "natza" aditzez amaitzen duelarik.

Olerki honetan bere ohizko gauzei egingo dien errepasoak bestelako erritmoa du ordea, hamaikako bertsoak zortzikoez nahasturik agertzen zaizkigu, izan ere orain ikusten dituen gauzen egoera ez bait da hain lasaia eta nagia: naturak "erdoitua" dirudi, aizea dabil, zomorroak isildu dira, txoriak alde egiten ari dira... Lizardik ahapaldiak erabiltzerakoan duen maisutasuna ikus daiteke, gaiaren bilakaerak erritmo aldaketa arrazoituak sortarazten ditu. Kadentziak egokitu egiten dizkio gaiari, eta hitzek ez ezik, elementu metrikoek, beste norbaitengan bertsoaren jantzi hutsak izango ziratekeenak adieragarri bilakatzen dira bere olerkietan.

Molde berdina, silaba kopuru bera duten bertsoez osaturikoa eta, halere, errima aldetik askeago, bi bertsoz behin bakarrik egiten duena dugu *Biotzean min dut* olerkia, hain zuzen ere, egin nahi duen narraziorako, silaba gehiago eskaintzen dizkion era berean, 10/10a /10/10a, erritmo geldia, ausnarketari eta barne sentimenduen adierazpen hitsari erritmo geldoa eskaintzen diona.

1.5.2.4. Ahapaldi mota zaharrak: kopla eta molde klasikoa

Ahapaldi egitura jakinak, ezagunak edo klasikoak bakarrik erabiliz eginiko olerkiak aski bakanak dira Lizardiren olerkietan, hiru aipatuko ditugu: kopla *Asaba zaarren baratza* olerkian agertzen zaiguna, hamalaukoa *Jaun errukiorra* olerkian darabilena eta molde klasikoa 8/7A/8/7A egitura duena, eta gaztaroko olerkien artekoa den *Idazkiya* eta 4/4/7a/4/4/7a eran idatzia aurkeztu zuen *Otoitza* olerkietan darabilena. Azkenengo biak egitura jakin bat erabiltzeak ematen duen erraztasunarengatik hautatuak dirudite gaiarekiko eskaintzen duten egokitasunagatik baino. Gaztaroko, hots, helduaroan iritxiko duen maisutasuna ez zuen garaiko tresna edo baliapide huts dirudite.

---

99 ORIXE; "Euskal Olerkitzaz" in *Lenengo Euskal Egunetako Itzaldiak*, Bilbo, 1922, 48. or.

100 *Ibidem*, 48. or.

101 *Ibidem*, 53. or.

Kopla erabiltzeak *Asaba zaarren baratza* delakoan, aldiz, gaiak adierazten duen euskal lokarri zaharrarekiko atxekitasuna adierazteko helburua izan dezake. Bestalde, koplek betidanik eskaini duten kontaketarako askatasuna ere egoki dator gaiarekiko.

Juan Mari Lekuonak "Lizardiren eskeman metrikoak eta puntoak" aipaturiko artikuluan kopla luzearen tankera duela esanarren, hark baino errima gutxiago egiten dituela diosku:

> "Hasieran zortzi silabakoak errenka, kopla luzeak bezala, baina lehenengo biak ez dira errimadunak kopla luzean hala diren bezala. Horregatik, aipagarria da autoreari molde honek eskaintzen dion idazteko askatasuna. Bigarren aldean, koplak bezala: 10 silabako librea, eta gero zortzi silabako errimaduna. Beraz, koplaren bidetik doa; baina lehen partean idazteko posibilitateak azkartuz, luzatuz" [102].

Koplaren aipamena eginik dugularik, kopla zaharren egitura metrikoa eta ezaugarriak bete-betean azaltzen dizkigu *Biotz-Begietan* liburua eta geroagokoak diren *Etxeko-kea* eta *Maitea*ren apurñoak delako olerki sailean agertzen diren zenbait olerki, batez ere azkenaldera jasoa dagoen eta sail horretakoen artean mamituenetakoa den *Ondaurtz abestia.*

*Etxeko-kea*n agertzen den kopla mota 8A/ 8A/ 10/ 8A delakoa dugu. Esate baterako, Eguberrietako eta Santa Agedako eske-kantetan erabili ohi dena. Lizardiren olerkiak ahapaldi egitura ezezik, errima bera, eta kopla zaharretako teknikak darabiltza, Aitzolek "Eusko olertiketa berezia" deituriko artikulu ospetsuan idazleei gomendaturikoak bezalakoa.

Ondaurtz abestia deiturikoan, aldiz, "kopla luzea" ahapaldia erabili du, hots:

"Ondaurtz! Itsaso ataurre, 8A
ondardia atari-lege... 8A
ondardia atari-lege... 8A
Damasko-oialki urdin yoriak 10
ertzeko litsean urre". 8A

Kasu honetan pentsa liteke berariz erabili zuela ahapaldi mota ezagun bat Lizardik. *Maitea*ren apurñoak deituriko olerkietan narrazioa eta deskribapena dira nagusi, eta horietan bestelako neurriak erabiltzen ditu. Zarautzi, Ondaurtzi eskainiriko kanta, "abesti" honetan molde ezaguna erabiliaz Lizardik beste helburu bat du, doinu ezagunaren laguntza bilatuz, kanta hori hobeki itsastea jendearen gogoan eta herrikoi bilakatzeko bide errazagoa eskeini.

Izan ere, eta "Sabino poeta" tikuluan zioen moduan horixe bait da biderik hoberena jendearen oroitzapenean itsasteko:

> "Quiero citar aún dos composiciones de Sabino bien conocidas de todos los compatriotas. "Itxarkundia" ejemplo a mi juicio típico del arte de Sabino para la adaptación de letras originales a viejas melodías. Procedimiento que puso en práctica con clara visión, pues en efecto, es el medio más emotivo y más seguro de propagar aquellas. Encuentro admirable en esta poesía el acierto pleno con que el poeta acomoda la solemnidad y el brío alternativos a su letra a iguales características de la música elegida. Diríase que todo ha salido del mismo chorro de inspiración 'El sol de la libertad ha salido del bosque, rápidamente se difunde su luz por doquier'. Esto canta en frase musical lenta, solemne" [103].

Eredu klasikoa 8/7koa eta molde txikiaren arteko konbinazioa diren olerkiak ere baditugu: bereziki *Zuaitz etzana* olerkia 13a /15a/13b/13b egituraz, eta 8/6a/8/8/6a egituraz, berriz, *Bizia lo* delakoa.

---

102 LEKUONA, J.M.; "Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak", 81. or.

103 LIZARDI, X.; "Sabino poeta" in *Euzkadi*, 1931-11-25, 1. or.; *K-L* 348. or.

1.5.2.5. Ahapaldi berriak

Ezagunak diren ahapaldi mota hauetatik aurrera, Lizardik berak bere olerkietarako bereziki sorturikoak ugari ditugu. Gaztaroko olerkietatik hasiz gero, askotan jotzen du bertso kopuru urriko ahapaldietara, eta badirudi nekeza egiten zaiola bertsoetan neurri jakin batzuei eustea, gerora hain ugari erabiliko dituen elipsiak, sintagma mugagabeak erabiltzea, sintagma egitura berak elkarren ondoan jartzea eta pilatzea eta abarrez ez da baliatzen oraindik, prosatik hurbil dabilen mintzaira darabil eta behin baino gehiagotan jotzen du bertso librea egitera.

Lehenengo olerki argitaratuan, *Nire lenengo maitte ibilketa* delakoan 5a/5b/5b/5a egitura erabiltzen du, *Maiteder* izenekoan berriz, 3a/ 3a/ 6b/ 10c/ 6c/ 14c, *Zelai urdiña* delakoan, 5etik 15era bitarteko bertso luze eta laburrak konbinatzen ditu, binakako errimari eutsiz. *Mattasunaren illetea* olerkiak ere neurri askatasun bera du, biko errimak eginez. *Izarkitako sua* delakoak 4/4/4a/6a egitura duten distikoak egiten ditu, eta *Gaiztuen itzala* delakoan, berriz, 5 eta 8 silabatako bertsoak konbinatzen ditu ordena jakinik gabe eta errima bikoitzak eginez asistematikoki.

Azkenik eta, *Biotz Begietan* liburuan sarrerazi ez zituen 1926 eta 1927ko bi olerkietan ahapaldi molde bereziak darabiltza, biak ezberdinak. Lehenengoan *Udazken* delakoan,

7/ 8A/ 7/ 10A darabil, bigarrenean *Ar uts* delakoan, aldiz, 4a/ 8A /5 /5 / 8A ahapaldia.

1.5.2.6. "Molde bereziak"

Lekuonak "molde bereziak" deitura eman dienak olerki bakoitzean molde berezi bat erabili duenak dira.

Zehazten dituen bi lehenak *Aldakeri* eta *Xabiertxoren eriotza* direlako olerkietan erabilitakoek biek prosazko bertsio ezaguna dute, eta aipagarri da, testuaren finkatze garaiaren arabera errima ugariago eta zailagoak, gurutzatuak ere bilatzeko ahaleginaren aldetik duten ezberdintasuna. Hain zuzen ere, *Xabiertxoren eriotza*ren prosazko bertsioa 1926ko abenduaren 26an argitaraturikoa da, nahiz eta *Biotz-Begietan* 1925ekotzat datatzen duen. Garbi dago liburuan egite-data ipini ziola.

Errima egiten duten hitzak bi besterik ez dira: 7/ 5a/ 7/ 7/ 3a; honela, narrazioa garatzeko silaba kopuru zabala du, eta 1926ko prosazko bertsiotik, 1932ko *Biotz-Begietan* liburukora hiztegi eta ahapaldi multzokatze aldaketak baizik ez dira egiten.

Aldakeri delakoari dagokionez, hiru bertsio ezagutzen dira [104], bat prosazkoa 1917koa, eta bertsozko bi, bata 1929koa eta bestea, *Biotz Begietan* liburuan datorrena.

Narraziotik olerki bertsiora doan aldea edizio kritikoari dagokion zatian azaldu dugu, bertsozko bi bertsioen artekoak berriz, hiztegiari buruzkoak ez ezik, ahapaldiaren egituraketari dagozkionak ere badira. Izan ere, azken bertsioan agertzen diren zatituriko, edo zuriune batez zatituriko lehengo edo bigarren bertsoek ez bait zeuden banaturik lehen bertsioan:

8A
5+8B
8B
11A

eta

5+8A
8B
8B
11A

104 "Edizio Kritiko baterako" eranskinean hiru bertsioen alderaketa egina dago.

Aldakeri olerki honetan Lizardik ahalegin metriko handiagoa du egina, errimak ere ugariagoak eta zailagoak dira, nahiz eta sentimenduaren benetakotasuna eta indarra besteari darion errotsuago, bigarren honi baino. *Aldakeri* olerkian gaiak sensibleroegia izateko joera du, nolabait, nahiz eta Lizardik, egin zituen hiru bertsioek adierazten dutenez, zaletasun berezia zion gaiari eta zenbait zati ederki borobiltzea lortu zuen. Baina ez du beste zenbait olerkiren trinkotasun eta emoziorik.

1.5.2.7. Bestelakoa moldeak

Ahapaldi guztien saila osatzeko beste bost molde falta ditugu: lehena 10A/ 12A/ 9B/ 12B egitura duena, *Gure mintzo* olerkian ageri dena eta errimaren ahaleginaren aldetik eta trinkotasunaren eta egitura sintaktiko bihurriagatik gogortxoena egiten dena. *Ondar gorri* olerkian 11A/ 8B/ 7B / 11A egitura topatuko dugu, *Eusko Bidaztiarena* delakoan 10A/10A/8A/8A/10A ahapaldia landu du, Lizardiren olerkietan ahalegin metrikorik handienaren lekukotza den olerkia zalantzarik gabe, erabiltzen dituen errima berdin ugari eta aberatsengatik, begibistakoa da zerbait frogatzeko ahaleginez eginikoa dela. *Sagar-Lore* delakoan ere errima ugari eta gurutzaturiko ahapaldia dugu: 10A/ 10A/ 9B/ 10C/ 10C/ 9B.

Azkenik, ospetsua den *Bultzi-leiotik* olerkiaren erritmo sinkopatua markatzen duen 4/ 7a/ 4/ 7a ahapaldia dugu, Juan Mari Lekuonak aipatzen duenez, kantutegi zaharreko "Intxauspeko alhaba dendaria"ren lehen zatiaren erritmo berekoa dena. Eskaintzen duen erritmo azkarrak olerkaria estilizaziora eramaten duela diosku:

> "Gauza inpresionista bat egiteko egoki-egokia. Abiada azkarrekoa, trenaren ziztoari dagokion eran. Silaben konbinaketak, lau silabakoa monosilabo hutsez, eta zazpi silabakoa monosilaboz eta bisilaboz egina, badu zerikusirik trenaren onomatopeiak markatzen duen erritmoarekin" [105].

Lekuonaren iritzi berekoak dira Andu Lertxundi "Garaiko handikien artean" [106] eta Mikel Zarate "Lizardi euskal lirikaren ezaugarri" [107] artikuluetan, olerki honetan olerkiaren erritmoak eta gaiak elkarrekiko duten egokitasunari dagokionez. Bi autoreek aipatzen dute erritmoa eta gaiaren arteko elkar-egokitze hori sinbolismoaren edo bestela esanik, Modernismoaren lorpen estilistikoen artean kokatu behar dela. Guk, gure azterketaren ondorioz, esan genezake elkar-egokitze hori beste zenbait olerkietara ere hedatzen dela, eta Lizardiren lorpen estetikoetako bat dela.

Lizardik behin bakarrik erabili dituen ahapaldi horietako bat, hain zuzen ere *Euzko Mendiya* delakoan eta aldaturik *Sagar-lore* delakoan darabilena jadanik agertzen da erabilirik, Jautarkolen *Biozkadak* liburuko "Nere eresia" delakoan:

10
9 A
10
9 A

eta

10 A
10 A
9 B
10 C
10 C
9 B

---

105 LEKUONA, J.M.; "Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak", 67. or.

106 Ikus LETE, X.; LERTXUNDI, A; ZELAIETA, A; *Xabier Lizardi, olerkari eta prosista*, Jakin, 1974, 101-124. or.

107 ZARATE, M.; *Euskal Literatura II, Azterbideak, Azterketak, Aztergaiak*, Leopoldo Zugaza, Durango, 1978, 9-25. or.

Umetandikan
nekin daramat
eresitxo bat
biotzean:
udazkeneko
iluntze baten
nabaitu nuan
barrenean.
("Nere eresia", 1-8, 5)

Arrese-Beitiaren *Olerkiak* liburuan ere agertzen da honelako moldea erabilirik, nahiz eta oso bakana den bai Jautarkol, bai Arrese-Beitiaren lanen artean.

Arrese-Beitiaren liburutik "Uda barriari" deituriko olerkian hautatu dugun eredua:

"Kantatu gura neuke gauza bat
kantatu noa egitera,
kantatu, baña nork al leikean
kantatu, gauza aiñ ederra?"
("Uda barriari", 1-4, 92)

Lizardik ohizko molde hori erabiltzen du *Euzko Mendiya* deituriko olerkian, baina *Sagar-Lore* delakoan, berriz, eraldaturik, eta errimak ugari eta gurutzatuez ematen digu.

Juan Mari Lekuonak "Molde nagusia eta berdina nahasian" deitu duena, *Biotzean min dut* olerkian erabili zuenak, berriz, badirudi jatorri herrikoia duela edo berak baino lehenago erabili zuenik izan zela. Juan Ignazio Barrutiaren *Gabonetako ikuskizuna* delakoan agertzen da eta Felipe Arrese-Beitiaren olerkien artean "Otsoa, aizeria eta tximiño jueza" izenburudun olerkian ikus daiteke adibidea:

"Otsoa baten kejaz joan zan 10
Tximiño juez artezagana, 10 A
Alboan bizi zan aixeriak 10
Eukan guztia ostu eutsola. 10 A
("Otsoa, aizeria eta tximiño jueza", 1-4, 395)

1.5.3. Lizardiren ahapaldiei buruzko zenbait ondorio

1.5.3.1. Barietatea nagusi

Ikusi ditugun ahapaldi mota eta molde ezberdin ugariek pentsa arazten digute Lizardik bertsoei dagokienez aldaketa, hots, barietatea zuela irizpidetzat, erritmoa aspergarri eta zurruna gertatzetik ihes egitea zuela helburutzat. Ikusi dugu, gainera, ahapaldi ugariz osaturiko olerkietan molde bat baino gehiago darabiltzala elkarrekin konbinatuz, errimak gurutzatuz, etabar. Barietate honen lekuko gisa esan genezake, esate baterako, *Biotz-Begietan* liburuko olerkien artean molde txikia bakarrik erabili zuela birritan, gainerako guztiak ezberdinak direlarik.

Barietateaz gain, gutxi erabilitako edo bereziki berak propio olerki horietarako asmaturiko ahapaldi moldeak erabiltzen ditu. "Sabino poeta" deritzan artikuluan dioen moduan, agian urriegia zeritzolako euskal literaturan kondairan zehar zoritutakoei [108].

Ugaritasun honek, bestalde, zera adierazten du, metrika alorreko janzkera Lizardirentzat ez zela mamia adierazteko egitura formal hutsa, gaiaren beraren adierazle baizik; beraz, hautatzen zuen molde metrikoak gaiarekiko funtsezko lotura eta egokitasuna behar zuen. Oinarrizko balio estetikoa egozten zion autoreak. Orixek zenbait hitzalditan adieraziriko irizpide nagusiari jarraikiz, beharbada,

> "Los versos usados hoy día solo valen (...) para cantados, no para declamados. Propongo, pues, la siguiente que no me parece descabellada: igual amplitud de escala con igual cadencia". (...) La prosodia y la sintaxis, o dicho de otra manera, la parte musical y la ideológica son tan una cosa en nuestra lengua, que no se puede de ordinario faltar a la una sin que sufra la otra" [109].

1.5.3.2. Errima bikoitzak eta gurutzatu gabeak nagusi

Ahapaldi hauetan zerabilen errima gehienetan bi puntukoa da. Bereziki landuak dituen *Urte-Giroak* olerkietan eta *Eusko Bidaztiarena* delakoetan bakarrik egiten ditu 3, 4 edo 5 errima berdin. Errima gurutzatuak ere erabiltzen ditu, *Parisko Txolarre* delakoan bezala, baina gehienetan puntu parea elkarren jarraian ageri da euskal olerkigintza tradiziozko eta herrikoian ohizkoa den moduan.

1.5.3.3. Molde txikiaren zaletasuna

Halako molde jakin baten aldeko zaletasunik agertzen badu, molde txikien aldekoa da batez ere. Jadanik adierazia utzi dugu Lizardik gehienik erabili zuen ahapaldi mota lauko txikia dela, eta kontaketari ekinez gero, ikus daiteke Lizardiren *Biotz-Begietan*go 21 olerkiei, gaztaroko 19ak eta helduaroko 15ak (*Maitea*ren apurñoak barne harturik), beraz, 55 olerkietatik 10etan molde txikia edo haren aldakia erabili zuela ikus daiteke.

Molde nagusia edo lauko nagusia, berriz, lau olerkitan bakarrik erabili zuen. Halere, molde txikiaz gain, silaba kopuru bera duten ahapaldiak erabili zituen gehien eta errima gurutzatua zuten ala ez alde batera uzten badugu, zortzi olerkitan erabili zuen, nahiz sei, hamar, hamaika, hamabi edo hamalau silabako bertsoak izan. Beraz, hauxe dugu Lizardik molde txikian hurrena gehienik maite zuen ahapaldi mota. Ahapaldi mota honetan *Biotzean min dut* delakoaren sarrera eta amaiera diren hamar silabatako bi ahapaldiak alde batera utzirik, errima dute bertso guztiek parezka, eta elkarren segidan batipat.

Beraz, eta honen ondorioz esan behar dugu Lizardik molde txikia maite zuela, Juan Mari Lekuonak dioskunez, "hemistikio laburrek lehentasuna dute Lizardiren estrofagintzan, hamar silaba dituen errimarik gabeko bertso-lerroari arreta estetikorik jartzen ez diola" [110].

1.5.3.4. Molde ezberdinen konbinaketa

Lizardik, lehen ondorio gisa aipatu dugun barietatearen amorez, ahapaldi moldeak sarritan ez erabiltzeaz gain, olerki beraren barruan sarritan aldatzen du ahapaldi moldea, ezohizko moldeen

---

108 "Nos limitaremos a decir que, por su natural, tiende a la independencia, a la creación y combinación de metros que agraden a su oído, sin curarse de *moldes consagrados por el exiguo caudal de nuestra anterior poesía*". LIZARDI, X.; "Sabino poeta" in *Euzkadi*, 1931-11-25, 1. or.; *K-L* 348. or.

109 ORIXE; "El acento vasco" in *RIEV*, IX, 1918, 12-13. or.

110 LEKUONA, J.M.; "Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak", 86. or.

konbinaketa kalkulatuak erabiliz *Biotz Begietan* liburuko 21 olerkietatik 13 honela osatuak dituelarik, gainerako olerkietan proportzioak hain gora joko ez baluke ere. Beraz, Lizardiren estetikaren ezaugarrietako bat dela esan liteke silaba kopuru berdineko ahapaldien erritmo berdintasuna hausteko aldaketaren teknika erabiltzea.

Bestalde, eta "Sabino poeta" deritzan artikuluan melodia ezagunetara egokituriko letra berriek gogoratzeko eta ezagunak egiteko duten berezko gaitasunaz ohartzen den arren, bera gutxitan baliatzen da horietaz, ia salbuespen dira *Asaba zaarren baratza* delakoan eta *Maitea*ren apurñoa den *Ondaurtz abestia*n erabili zituen kopla egitura ezagunak. Gehienetan nahiago du Lizardik ahapaldiaren erritmoa berak sortzea eta erabili nahi duen gaiaren tonuari egokitzea.

1.5.3.5. Ahapaldi moldea eta gaiaren arteko barne-harremana

Erabili nahi duen gaiaren taxuerari jarraituz hautatzen du Lizardik ahapaldi moldea, erritmoa eta are errima, tradizioz egin ohi izan den bezala, ahapaldiaren idazteko ahalbideez baliatuz, hots, eskaintzen dituen erraztasun, bizkortasun edo geldotasun aukerez egoki baliatuz. Hala, eta Juan Mari Lekuonak erabiliriko sailkapen-deiturei jarraituz ahapaldi oso laburrak hautatu zituen "armonia imitatiborako", eta hau esatean, *Bultzi-leiotik* olerkian ahapaldiaren egituraren ondoriozko erritmoak eta gaiak elkarrekin duten antzaz diharduela pentsa liteke. Berau litzateke "armonia imitatibo" horren adibiderik egokiena.

Bestalde, molde laburra, esate baterako "molde txikia" erabiltzen du "kontaera, idilio-antza eta lirika finerako" [111], eta honen adibide egokia genuke *Neskatx urdin-yantzia*, esate baterako.

Gai sakonak erabili nahi dituenean, edo taxuera "solemnea" eman nahi dienean, molde luzeagoak, silaba gehiagokoak hautatzen ditu. Kasu honetan, *Agur* olerkia genuke adibiderik egokienetako bat, hamabi silabatako eta binakako errima pareatuetan zehar eroturiko lagunarenganako sentimendu hitzak eta borondatea adierazten duelarik bere konplexutasun osoan.

1.5.3.6. Ahapaldien multzokaketa olerki barruan

Lizardik ahapaldiak elkarri lotzeko eta multzotan antolatzerakoan eman nahi dien egitura bateratua ere adierazkorra dela gogoratu behar da.

Lizardiren olerkien argitaralpenetan ohargarri da zenbaitetan ahapaldiak desagertarazi edo bertso lerro batzuk aldaerazten baditu ere, oso gutxitan aldatzen duela ahapaldiei emaniko multzoketa mota. Izan ere, Lizardiren olerkietan ahapaldien multzokako banaketak funtzio garbia bait du, gaia adierazterakoan atal ezberdinak, antzerki eszenak banatzea edo nobela bateko atalak ongi bereiztea garrantzitsua den era berean.

Askotan aurkitzen ditugu Lizardiren olerkien idazkeran ahapaldi multzoak bereizten dituzten marratxo zerrendak edo izar iladak. Bai gaztaroko eta bai helduaroko olerkietan Lizardiri antolamendu orekatua eta berarizkoa, ahapaldiak biltzeko eraz egitura bat sortzeko ahalegina sumatzen zaio.

Esate baterako, gaztaroko *Euzko mendiya*n protagonistaren bi kokagune eta jarrera ezberdinak, batetik besterako aldakuntza markatzeko, tartean kanta baten leloak "leit motiv" gisa jokatzen du. *Agur* olerkiak bi zati nabari ditu: lehenak gaia aurkeztu eta garatu egiten du, bigarrenak aldiz olerkariaren nahia eta eskaerak jasotzen ditu. Bi adibide hauek ez dira salbuespen.

Egitura sorketa honi dagokiolarik, behin baino gehiagotan erabiltzen du Lizardik olerkia hasteko eta amaitzeko ahapaldi-molde berbera. Batzuetan hitzez-hitz errepikatzen du, esate baterako, gaztaroko *Nere maiteak ditu* olerkian edo ezagunagoa den *Mendi-gaiña* delakoan. Beste zenbaitetan

111 LEKUONA, J.M.; *Ibidem*, 86. or.

ordea, oso antzerakoak izan arren, olerkian zehar garatutakoaren ondorioz, aldaketaren bat jasotzen du amaierako ahapaldiak. Hauxe da, esate baterako, *Biotzean min dut* olerkiaren kasua, hasieran adieraziriko "etsi"penak deseperazioaren zentzutik erresignazioarenera jotzen du.

Zenbaitetan, azken bertsoa bakarrik da puntu edo izar marratxoez bereizirik idazten duena eta orduan egitura borobiltzearen eta olerkia ixtearen funtzioaz gain, bertsolarietan bezala ondorio edo azken hitza esatea, "moraleja" modukoa adierazi ohi du, gaiari buruzko ebazpen orokorra ematea, giltza ematea izaten du helburutzat.

Neskatx urdin-yantzia, Gure mintzo, eta gaztaroko *Gaiztuen itzala* eta *Idazkiya* olerki jostalaria ere ahapaldi egituraketa mota honetan eginak dira.

Esate baterako, *Xabiertxoren eriotza* eta *Zeru-azpia* olerkiak hiru atalez osaturik daude eta narrazioetan edo antzerki lanetan ohi den moduan, aurkezpena, korapiloa eta ondorioa edo amaiera zatiak nabarmentzen dira garbiro. *Aldakeri* delakoan ere berez egitura bera ematen da, baina bi zati nagusiak, gaiaren aurkezpena eta gatazka bakarrik bereizten ditu.

Urte-Giroak olerkiek narrazio egitura hirukoitza izan beharrean sinfonikoa dutela esan liteke. Neguak, Udaberriak Udak eta Udazkenak bakoitzak bere doinua joko balu bezala, elkarren artean erreferentzia egiten dute. Hasiera geldoaz eta aurreratu ahala erritmoa bizituz, udaren *Uzta-erdi*aren betetasunaren ondoren gainbehera dator *Ondar Gorri*rekin batean, azken olerki honen bigarren zatian entzun ditugun doinu guztien oroimena berriztatu eta bateango ondorio edo amaiera ematen zaie.

Lizardik egitura guztiz markatua ezarri zien lau olerki hauei, izenburu enblematikoen azpian, urtearoaren deitura ezarri zien:

I "Bizia lo" Otsail-erdi

II "Sagar-Lore Loreil-bete

III "Baso-Itzal" Uzta-uzta

IV "Ondar-gorri" Azaro-leena

Lehengo bien ahapaldien artean ez du zatiketarik egiten, azkeneko bietan ordea, marratxoez bereizten ditu, giro eta une ezberdinak bereiziz.

Multzokaketaren bidez eginiko olerki egituratzeetan azken urratsa, ahapaldi multzo bakoitzari izenburua ipini zien olerkietakoa da, jakina. Bi adibide besterik ez ditugu, haiek ospetsuenetakoak eta olerkariaren arorik emankorrenean eginikoak: *Eusko Bidaztiarena* eta *Asaba zaarren baratza.* Biak dira narrazioak eta biak dute alegoria baten egitura, hots, euskararen bi metaforaren inguruan eraikitako alegoriak dira. Ahapaldi multzo bakoitzaren gainean ezarritako izenburuek egitura guztiz nabarmenerazi egiten dute.

Biotzean min dut olerkiaren kasua berezienetako bat dugu ahapaldi multzokatze adierazkor honi dagokiolarik. Aldaketak eragin bait zizkion 1929ko bertsiotik 1932an argitaratu zuenera. Multzoak urritu eta zazpi ziren zatiak bostera murriztu zituen amaierakoak pilatuz, eta, beraz, azkenengo horiek zuketen dramatikotasunari "sentimendu eutsiaren" irizpidea aplikatuz etsimenduaren bidea, Jainkoaren nahia onartzea indartzen duelarik ondorioz. Hona hemen, bada, bere buruari inposaturiko sentimendua lotzearen kanonaren ondoriozkoa den aldaketa formala, ene ustez.

1.6. LIZARDIREN METRIKAREN IKUSPEGI OROKORRA

Lizardiren olerkien alderdi metriko-fonikoaren esparru honi dagozkion ondorio orokorrak biltzean, Lizardiren idazlanetan jasoriko iritziak, bere ingurukoek eskainiriko argibidea aintzakotzat hartu eta haren olerkietan ikus daitekeen erabilera elkarrekiko harremanetan aztertuko dira.

1.6.1. Metrika aldaketa garaian

Lehenengo ondorio orokorra zera izango litzateke, Lizardik olerkiaren alderdi metriko-fonikoak teoria nahiz praktikan eztabaidan eta aldaketa aroan zeuden unean idatzi zuela. Europaldeko literaturaren ingurumarian metrika aldetiko aldaketek errimaren funtzio erritmikoa eztabaidatu, leundu eta olerkiaren alderdi erritmiko sutilagoak bilatzera jotzen du.

Euskal literaturaren arloan berriz, Pizkunde aroko beste zenbait alorretan bezala, nortasun bilaketa, literatura zaharraren, ahozkoaren eta orokorrean folklorearen azterketak ematen dituen aztarnak ikertuaz batera, zenbait jarrera prezeptistek eraginik, eredu finkoak sortzeko joera nabari da giroan, eta Lizardik ingurumari horretan bilatzen du bere tokia.

1.6.2. Lizardiren metrikaren ardatzak

Olerkigintzaren alderdi metriko eta fonikoen eremu honetan Lizardiren ideia eta jokabide praktikoak aztertzeko hiru ardatz nabarmentzen dira:

1.6.2.1. Sabino Aranaren prezeptiba oinarri

Sabino Aranaren araudian oinarrituz, idazle eta irakurleentzat balioko duten joko-arauak onartzeko eta finkatzeko ahalegina egiten du.

Euskal metrikaren alorrean mende hasierako garaian metrikaren oinarrizko unitatearen inguruan sortzen ari diren irizpide ezberdinen artean, Lizardik Sabino Aranak bezala silaben kontaketa hartzen du irizpidetzat. Silaba kontaketa edo neurtzea egiteko arauak erabili ez ezik gomendatu egiten ditu, hain eztabaidatua izaten ari den irakurtzeko eginiko olerkien arlo horretan ere, irakurleek bertsoak irakurtzeko eta neurtzeko modu finko bati heldu ahal izan diezaioten.

Honetan Lizardik jarrera guztiz praktikoa erakusten du, euskal irakurle eta olerkariak gaztelaniazko metrikaren arauetara ohiturik daudelako irakurketa "okerrak" eta erromantzetuak egitearen irtenbidetzat, euskal olerkigintzarentzat sortu den araudiari lotzearen irtenbideari heltzen dio.

Arana-Goiriren araudi hori erabiltzean, gero eta trebatzenago doa. Bi bertsio dituzten eta urte alde nabarmena duten olerkietan bigarren bertsioetan metrika arauak betetzearen aldetiko hobekuntzak nabari dira, silaba loturak egiterakoan, baina, batez ere, Arana-Goiriren araudiak eskaintzen dituen salbuespenen erabilera urritzearen aldetik.

Batez ere, hitzen osotasun fonikoari eragiten dieten lizentziak, hots, laburpenak —nausi, aiskide...– eta luzapenak —atarikuok, udaberriero— baztertzeko joera nabari daitezke bertsio batetik besterako aldaketen artean, hitzen formaren arloan finkotasuna izango duen hizkuntz ereduaren bilaketa, "hitzak bere osotasunean" erabiltzeko joerak giroan gailenduz doazen ahala.

Bestalde, Pizkunde aroan egin zen Sabino Aranaren araudiaren erabilerak zenbait ikutu baditu sistema zaharra deitu dugunaren ondare gisa hartuak. Esate baterako hitz enklitikoak (ere, eta) eta zenbait adjetibo posesibo apostrofez idazteko joera gailendu zen Sabino Aranaren araudiak onartzen ez zuen bokale lotura edo sinalefa egin nahi zenean.

1.6.2.2. Erritmoa eta olerkiaren "ereskitasuna"ren lehentasuna

Erritmoa eta errima dira neurkerarekin batera guda-aurreko belaunaldiko teorikoek gehienik astinduriko kontzeptuak, euskal metrikaren kasuan arazoaren iturria, Europaldeko poetiketan olerkiaren ezaugarri hauek azentuarekiko duten lotura delarik, antza.

Bai Sabino Aranak, bai Orixek eta bai Manuel Lekuonak arazo honen gorabehera aipatzen dute, erritmoaren gakoa, euskal azentuaren berezitasuna dela eta metrika gaietarako alde batera utzirik, etenen ardatzaren inguruan biltzen dutelarik, eta errimaren arloan berriz, askatasuna eta gustu ona aholkatuz olerkariei.

Lizardiren kasuan, gaia eztabaidagarritzat aurkezten da bere artikulu teorikoetan. Irakurria izateko olerkiek zailtasuna dutela esaten du, euskal olerkien erritmoa erromantzeek kutsaturik, "trotoia", beraz Orixek dioen moduan zaldien ibilkeraren modukoa bihurtzen delako. Errima bera ere euskal prosodiari oker egokitzen zitzaiola zeritzon Orixek. Lizardiri, aldiz, Orixe hizkuntza erromantzeen kutsua zela frogatzen ahalegintzen bazen ere, olerkiaren ereskitasunari ez ziola gaizki ematen iruditzen zitzaion.

Orokorki harturik, olerkigintzaren alor honetan euskal metrikaren nortasun propioa bilatzen ari diren prezeptisten artean, hots, gerra-aurreko belaunaldian orokorki nabari den inguruko erromantzeen eraginpetik ateratzeko ahalegin kordokatuan, Lizardik haien iritziei erreparatu eta aintzakotzat hartu arren, teorian nahiz praktikan bere senari edo "belarri"ari jarraituz jokatu zuen, ustezko erdal kutsuak eta ingurukoen aurkako iritziak gora-behera.

Lizardik duen olerkari senak, poetikak errimaren eta neurketaren balio estetikoaz baliatzea eskatzen dio. Olerkiaren "ereskitasunari" dagokion ezaugarria dela deritzo, nahiz eta, Juan mari Lekuonaren azterketek erakutsi dutenez, ez duen errimaren arloan aurreraegi jotzen.

1.6.2.3. Errima eta bestelako baliapide erritmikoak

Errimaren arloan Lizardik gutxitan jotzen du errima pareatua egitetik aurrera, eta bere olerkietan asonantzia, azken bokalean oinarrituriko errima da nagusi. Bestalde, ordea, errimak aberatsak eta zenbaitetan oso ezohizkoak eta bereziki zailak ere bihurtzen dira, euskal bertsolarien puntuaren kontzeptuari jarraituz, errima aurreko hitzetako bokalen hoskidegoa edo aliterazioaz osatzen duelarik, eta ondorioz, musikalitate, ereskitasun berezia lortzen duelarik.

Lizardik errimaren balio estetikoaren muga nabariak erakusten ditu, zangalatrauak erabiltzeari esker errima berriak eta bereziki zailak lortzen ditu ahapaldiaren kontzeptzio berri baten barruan, baina errimaren arloan euskal tradizioari lotzen zaio errima gurutzatuak oso bakan bakarrik erabiliz.

Bestalde, berriz, Orixek aipatzen zuen bezala, errimak askotan, esaldia bihurritzea eta indarbehartzea dakar. Lizardik aintzakotzat hartzen du errima aipatzen duenean, "Baña, berez bezela, esaldia biurritu gaberik, olerkariaren antzetsuz datorrenean, belarriak, egia esan, eztu ain gaizki artzen" ("Olermen-irakite" in *Euzkadi*, 1930-6-1, 5 or.)

Nahiz eta Lizardik errimak, esaldia bihurritu gaberik datorrenean egoki ematen duela baieztatzen zuen, nahiz eta, Orixeri jarraituz, olerkian hitzek prosazkoan duten kadentzia edo erritmo berbera behar dutela esan, gero, praktikan, Lizardik esaldi bihurri, kiribilduak ere badarabiltza, zenbaitetan errima aberatsagoa bilatzeagatik, bestetan neurkera arauak betetzeagatik, eta askotan, bere sena edo zaletasun estetikoari jarraikiz, Lizardik metrikari eta egitura sintaktiko morfologikoetan gero ikusiko dugunez, bi bide ezberdin bateratu nahian zebilelako. Olerkiaren joera berriak eta kultuak, euskararen egitura jatorren eta are aintzinakoenekin elkartu nahirik bait zebilen.

Errimaz gain, azterketa metriko-foniko honetan Lizardiren olerkigintzan agertzen diren beste zenbait baliapide foniko azpimarratu dira hala nola aliterazioak, errepikapenak, anaforak, leloak eta korrelazioak.

Errimaren arloan erabilera murritza eta zaindua, gurutzatu eta errima ugariak egiteko joerari jarraitu gabe, olerkiaren "barneko erritmoa"ri dagozkion efektu estetikoak adieraztea bilatu duen bezala, aipatu ditugun baliapide foniko hauetan ere bereziki azpimarratu beharrekoa da baliapide hauek poemaren egitura foniko osoari dagozkiola, olerkiaren barrengo erritmoari erantzuten diotela.

1.6.2.4. Metrika arloko alderdi teknikoen garrantzia

Lizardiren ideia poetikoen artean estetika kontzeptistarako zaletasuna, Gongorazaletasuna aitortzen du eta alderdi metrikoei erreparatzen badiegu, perfekzioaren bilaketan egiten duen ahaleginak, neurria eta errimaren lanketan hartzen duen neke asperezinak, eta hain barroko garaikoa den enkabalgamentu edo zangalatrauaren erabilerarako zaletasun hori eragin literariotzat ere aipa daiteke, nahiz eta era berean gogoratu beharra dagoen perfekzio teknikoaren esigentzia olerkigintza modernoaren ezaugarria ere badela. Nolanahi ere, bi iturriak bat dira, azken batean, Lizardi bizi den unean Góngoraren estetizismoaren aldarrikapena egiten ari bait da poesia modernoa eta kultua.

Lizardik, teorikoki Orixeri jarraikiz, prosan hitzek duten azentuazio berari jarraituz bilatu behar dela erritmoa esanik, erritmo zailagoa eta landuagoa duten ahapaldiak darabiltza, ohizko etenen eta errimaren baliabideak guttituz, eta erritmoa karakterizatzen duten bestelako baliapideak erabiliz: aliterazio, anafora, errepikapen eta korrelazioak, zangalatrauak...

1.6.2.5. Ahapaldi moldeen eta gaien arteko egokitasuna

Erritmoari dagokionez, ikusi dugu Lizardik gutxitan darabiltzala ahapaldi egitura klasikoak eta nagusiak, eta ez duela eten finkorik onartzen gehienetan. Lizardiren ahapaldien erritmoa errima aberatsak eta zainduak ez ezik, aliterazio ugariek, anaforek, egitura sintaktiko paraleloek, errepikapenek eta korrelazioek sortzen dute ezarian bezala, ereskitasun, "musikalitate" nahastezina eta harrigarria lortuz.

Ahapaldien erabilera berezian erritmoaren kontzepzio berri bat nabari daiteke. Lizardik molde txikia estimatzen du, baina sarritan aldatzen du ohizko errimaketa. Sarritan erabiltzen ditu "molde berdinak" deiturikoak, sei, hamar, hamaika eta hamalau silabakoak, baina ez dute ohizko etenik onartzen eta errima egiteko era oso propioa du gehienetan. Gainerakoan, ahapaldi berriak, bereziki beretzat sortuak darabiltza, luzeerak konbinatuz, eta olerki baten beraren barruan ahapaldi molde bat baino gehiago erabiliz.

Teoria mailan Sabino Aranak bertso librea erabili izana goraipatzen du eta erritmoari buruzko teorian Orixerekin bat dator euskal bertsoak prosa balira bezala irakurtzeko egin behar direla esaterakoan; berak, ordea, silaba kontaketari eusten dio, estrofismoan diharduenez, baina etenen sistimari eta errimaren kontsonantziari gehiegi erreparatu gabe.

Lizardirentzaz ahapaldietako erritmoa beraz, bestelako osagarrietarik sortua da, alde batetik jadanik aipatuak ditugun errepikapenek, aliterazioek, egitura sintaktiko paraleloek, anaforek eta abarrek sortzen dute, baina baita olerkiaren antolaketari ideien ordenamendu eta garapenari emaniko egiturak ere.

Zenbaitetan forma grafikoek, izartxo edo puntuez banaturiko ahapaldi multzoez eta ahapaldi molde ezberdinak erabiliz nabarmenerazten duen egitura sinfonikoa aurkitzen da Lizardiren olerkietan. Elkarren oihartzuna egiten duten "melodia"k tartekatuz, olerkiaren musikalitateari ideien arteko errefentziek eta kontrasteek ere armonia semantikoa batzen zaiolarik bere olerkirik hoberenetan, esate baterako, *Biotzean min dut* eta *Urte Giroak ene begietan.*

Beraz, ahapaldiak diren unitate olerkia baino txikiagoko unitate nagusienari dagokionez, molde barietate handia aurki daiteke Lizardiren obran, ahapaldi mota zailua, adierazkorra eta malgua bilatzen du, eten finkorik gabea, gehienetan, gaiaren arabera hautatua, narraziorako arintasuna eta

askatasuna ematen dion molde txikia hainbat eratara moldatuz, edo hausnarketa filosdofikorako eta deskriptziorako zabaltasuna eskeiniko dion molde nagusiak erabiliz.

Aipagarria da, era berean, poema beraren barruan erritmo ezberdinak markatzeko ahapaldi mota ezberdinak sarreraztea, sarritan hasierak eta amaierak markatuz Lizardiren poemen artean ohizkoak diren egitura narratiboen etapak markatuz (hasiera-garapena-amaiera) eta gehienetan haren poemek duten egituraren "borobil"tasuna markatzen duelarik.

2. AZTERKETAREN MAILA MORFOSINTAKTIKOA

2.0. SARRERA

Lizardiren olerkigintzaren maila morfo-sintaktikoan, Lizardik hautatua duen estetikarako balio duen hizkuntzari eman dion moldaerak nere ustez dituen alderdirik azpimarragarrienak azaltzen ahaleginduko naiz.

Lizardiren poetikari dagokion atalean hitzegin dugu kontzeptismoaren eredu estetikoan hizkuntzaren ahalbide espresiboak azken mugaraino profitatzeari ematen zaion garrantziaz. Beraz, eta jadanik finkatua dugunez, olerkigintza kontzeptistak esanahia laburki eta trinko adierazteaz gain, esamoldea bera ere modu trinkoan adieraztea bilatzen du, eta, jakina, bere hizkuntzaren morfologiari eta sintaxiari molde berezia ematen dio, ondorioz.

Atal honetako gure helburua ez da Lizardiren "mintzo elertitsua"aren zer-nolako guztiak zehatz mehatz agertzea, luzeegi joko bait luke horrek. Teoria poetikoan azalerazi dituen iritzi linguistikoak eta estetikoak nola ezkontzen diren, zein bitarteko konkreturen bidez gauzatu dituen azaleraztea da gure asmoa.

Helburu hau iristeko Lizardiren olerkigintzaz lan kritikoak argiratu dituzten iruzkingileen lanaz baliatu gara, eta bereziki, arreta biziaz jarraitu nahi izan ditugu Lizardik berak ez ezik, bere garaikide, adiskide eta are gidari izan zirenek argitaraturiko oharrak, artikuluak, iruzkin luzeak...

Beraz, eta aurkezpen gisa Lizardik erabili zituen baliapide morfologiko eta sintaktikoen ezaugarri bereziei buruzko eskema honi lotuko gatzaizkio, haren mintzaira literarioari, hiztegi hautatu, eta adjetibaketa bereziki landuarekin batean, haren olerkigintzari eite berezi eta nahastezina eman dioten zenbait ezaugarri nabarmenerazteko asmoz.

Lau arlo ezberdinetan banatu dira azterketa honetan Lizardiren "mintzo elertitsuaren" arlo morfosintaktikoari dagozkion ezaugarri formalak:

2.1. Morfologia lexikoa

2.2. Morfosintaxia

2.2. Arkaismoak

2.4. Sintaxia

2.1. MORFOLOGIA LEXIKOA

2.1.1. Hitz-elkarketa

2.1.1.0. Sarrera

Pizkunde aroko idazleengan Resurrección María Azkueren lanek —*Diccionario vasco-español-francés* eta *Morfología Vasca*k, bereziki— izaniko eraginaren lekukotza ematen dute garaikoek: Orixek "Euskal Literaturaren atze edo edesti laburra" izenekoan, Jokin Zaitegik "Aitzolen Gizaldia" delakoan eta Lizardik berak ere bai, "Traducciones y Diccionarios" delakoan [112].

[112] LIZARDI, X.; "Traductores-Diccionarios" in *Euzkadi*, 1928-8-7, 1. or.; *K-L* 124-126. or.

Beraz, eragin aitortu honen nondik-norakoak jaso, aztertu eta nabarmenerazteari deritzogu egokien morfologia lexikologikoaren atal honetan.

Euskera aldizkarian 1923-25 bitartean argitaratu zen Azkueren *Morfología Vasca* liburuaren ekarri nagusienetako bat da euskal hizkuntzaren berezko morfologiak konposaketan nahiz eratorketan duen mekanismo bizia eta sortzeko gaitasun handia azpimarratzea eta ezagutzera ematea. Euskarak konposaketa edo eratorketa bidez hitz berriak sortzeko inguruko erdal hizkuntzek baino gaitasun handiagoa duela erakusten du.

Atzizkiak elkarri gaineratzeko aukerak, bestalde, hizkuntzak mekanismo honetan errekurtsibitate handia duela frogatzen du, eta beraz, gaztelaniaz perifrasiaz edo sintagma oso batez esan beharrekoa euskaraz hitz konposatu edo eratorri bakar batez adierazteko gaitasuna daukala.

Hizkuntzaren posibilitate hauek azpimarratuz sortua da, noski, euskal hizkuntzaren "aglutinante" kalifikapena eta berezko trinkozaletasunaren teoria. Lizardiren ideia poetikoei buruzko atalean ikusi dugunez, Lizardik bere eredu estetikoaren ardatzetako bat bilakatzeraino jo zuen, eta zalantzarik gabe, bere hizkuntza poetikoaren expresibitate kontzeptistaren iturririk oparoenetako bat da [113].

Azkueren eraginpean, bada, Jokin Zaitegik esaten digunez, euskal hiztegia zabaltzeko ahalegin erraldoia egiten da euskalkien eta idazle zaharren lanen azterketa asperrezinaren ondorioz: berrezarpen lexikala deitzen den prozedura lexikologikoaren bidetik jotzen dute beraz [114].

Baina era berean, hitz berrien premiari erantzuteko hizkuntzaren berezko baliapide hauen, konposaketaren eta eratorpenaren erabilpena egitean, Azkueren eragina erabakiorra izan zen Pizkunde aroko idazleon artean, Aranarena baino areago, nahiz eta honen eraginaren zantzuak ez diren falta.

Lexikologoen artean ezaguna da Pizkunde aroko idazleak direla euskal morfologiaren baliapide hauei etekinik gehiena atera zietenak, eta Larramendiren hiztegiaren eraginpeko idazleen garaian ere hitz-berrien sorketan sarri erabili baziren ere, azken batean literaturan izaniko eragina ez dakioke ez kalitatez ez kantitatez, guda aurreko belaunaldiarenari aldera. *

Orixek "Euskal Olerkitzaz" [115] delakoan euskal hizkuntzaren morfologia ezaugarriez diharduela konposatuetarako euskarak duen erraztasuna azpimarratuz esana duguna baieztatu egiten du:

> "Izen-yoskera edo composicio'an ez dut oraindiño euskeraren aldera litekeenik ezagutzen, ezta greziera ere".

Aurkezpen labur hau osatzeko, azal dezagun bestalde, hizkuntzaren maila kulturalak iristeko premietarako eratorketak eta elkarketak eskaintzen duten irtenbidea egokitzat joa izateaz gain, euskal hizkuntzaren alderdi morfologiko honek garai honetan duen prestigio garbizalea, euskal hizkuntzaren muin-muineko ezaugarri honezaz ongi baliatzeak hizkuntzaren jatortasunari eransten dion prestigio balorea ere aipagarri dela.

Lizardiren idazlan poetikoetan hitz-elkarketak eta eratorketari buruzko zernolakoak aztertzeari ekin behar diogun atal honetan, garrantzitsua da aldez aurretik gogoratzea morfologia ez dela ezaugarri gramatikal huts eta koloregabea. Lizardiren kasuan, konposaketa eta eratorketa estetika kontzeptistaren zerbitzuan egoteaz gain, beste zenbait helburu estilistikoren zerbitzutan ere badaude.

* ERANTSI: ARE GUTXIAGO SABINO ARANAREN LEXIKO SORKUNTZA NEOLOGISTAK IZANDAKO ERAGINA KONTUTAN HARTZEN BADA.

---

[113] "Esana da euskalduna 'eginetan luze, esanetan labur' dela ta egiagorik ez da izan oraino" ORIXE; "Euskal literaturaren atze edo edesti laburra" in *Euskal Esnalea*, XVII, 1927, 191. or.

[114] LIZARDI, X.; 1917ko *Jauregi zaarra* ipuinak gai honi buruzko alegoria literarioa sortu zuen, berrezarpen lexikalaren aldeko iritzia aurkeztuz. Ikus "Edizio Kritiko baterako" eranskinean.

[115] ORIXE; "Eusko Olerkitzaz" in *Lenengo Euskel Egunetako Itzaldiak*, Bilbo, 1922, 32. or.

Konposaketaren mailan esate baterako, morfologiaren ikuspuntutik Lizardiren olerkia definitzerakoan, Xabier Letek azpimarratu zuen prozesu baten lekuko bilakatzen da: "Poesia diskurtsibo batetatik poesia metaforikora pasatzen zaigu" [116].

Lizardiren olerkigintzaren maila semantikoaz ari da Xabier Lete zati honetan, baina morfologian isladapen nabaria du aldaketa honek, eta hizkuntza arruntean sintagma osoak izango liratekeenak, metafora bilduko lukeen sintagma osoak hitz konposatu bakar batez sintetikoki adieraziak ikusten ditugu.

2.1.1.1. Lizardiren hitz-elkarketa ohizkoenen sailkapena

Miren Azkaratek *Hitz elkartuak euskaraz* tesian euskal hizkuntzaren lexikogintzaren alor honi eman dion azterketa oinarriaz eta Euskaltzaindiaren LEF batzordearen lanez baliaturik, Lizardiren hizkuntz elaborazio lexikologikoak alor semantikoan eraginiko moldaketa bereziaren berri eman nahi da, azterketaren lehen kapitulu honetan [117].

Lizardiren hitz-elkarte ohizkoenetako batzuk, (Izen Laguna+Izen Multzo+ mugatzaile) egituratik sortuak dira, haiek ordezkatuz eginikoak, hobeki esan. Bilakabide morfologikoan Lizardik Izen lagunak behar izaten duen "ko" edo "ren" atzizkiaz gabetzen ditu, honela hitz berria sortuz, eta aldi berean, jakina, semantika mailan ere aldaketa eraginez kontzeptu bakar batean biltzen dituelarik.

Hona hemen zenbait adibide *Mendi-gaiña* olerkitik harturik:

> "Oi udaberri-goizez
> mendiaren gallurra!...
> Oi, aren ametsezko
> zorakortasuna!
> (MG 4-7, 35 or.)

Ahapaldi honetan ikus daitezkeen hitz-elkartuak berez Izen Sintagma batetik sortuak dira, eta kontzeptu bakar batean biltzean, zentzu berri bat hartzen dute, entitatea eskuratzen dute:

"Udaberri-goizez", "Udaberriko goiza" Izen Sintagma du jatorritzat, baina hitz konposatua bilakatzean "izantasuna" irabazten dute hitz horiek kontzeptu berri bat osatzen dute. Sintagmak esplikatu egiten duenari "entitatea" ematen dio hitz-elkarketaren bide morfologikoak.

Argudio honen bidetik are argiagoa den beste adibide hau ere aipa liteke: gizonaren argia> "giza-argia" (Ag 28, 115) > "gizargia" (AZB 52, 189).

Agur olerkian Onuzkiren eromenaz diharduelarik, Lizardik argia eta itzalaren sinbologiaz jokatzen du gizakiaren arrazoinaren eta alderdi irrazionalaren errepresentazio gisa. Itzalak, kasu honetan, ilunpea ordezkatzen du literarioki, beste zenbait kasutan bezala: "erbeste itzalera" (Ag 10, 113), "gaur, arriak / ere bait dira itzal" (BMD 42-43, 121) / "nork gere barruan dugun itzalera" (GM 16, 207)... Bada, urrun aldegina den Onuzkiren "itzal-yauregian" "giz-argia" izetu nahi luke olerkariak (Ag 27, 115).

"Gizonaren argia" denok sumatzen dugu zer ditekeen, gizonari bakarrik dagokion zentzumen hori, arrazionaltasuna edo dena delakoa da Lizardik "giza-argia" esatean sorturiko hitz-berriaren edukin semantikoa. Behin sortuz gero,erabili egiten du *Asaba zaarren baratzan* aurkitu duen amonak

---

116 LETE, X.; "Xabier Lizardi edo lirika gailen" in LETE, X.; ZELAIETA, A.; LERTXUNDI, A.; *Xabier Lizardi Olerkari eta Prosista*, Jakin, Oinati, 1974, 4. or.

117 AZKARATE, M.; *Hitz elkartuak euskaraz*, Mundaiz, Donostia, 1990, eta Euskaltzaindiaren Lexiko Erizpideen Finkapenerako batzordearen *Hitz-elkarketa 1* (1987) eta *Hitz-elkarketa* 3 (1991).

ere "lausorik du gizargia begietan" esaten du eta, jadanik, hitz elkartuetan ohizkoa duen gidoia kendurik du.

Aipatu berria dugun hau da euskal morfologian hitz konposaketa modurik arruntena. Eta bera da, Lizardiren hitz elkartu askoren eredua ere:

2.1.1.2. "Aren B" egitura dutenak:

neke-sendalaria (O 1, 21)
buru-argitzaillea (O 2, 21)
oi-asmatzailea (O 112, 29)
atseden-egarriz (MG 10, 35)
negar-aran (MG 35, 37)
urre-dirdira (ZA 3, 41)
zeru-azpia (ZA 6, 41)
askatasun-eguna (Ald 35, 47)
bidazti-zai eder (BI 40, 159)
leen-oiartzuna OG 52, 169)
bizitza-indar (OG 56, 169)
leen-min (OG 58, 169)
udalen-sortoge (OG 64, 169)
Yainko-muiño-gainetara (OG 70, 171)
udazken-atsarreko (OG 75, 171)
jakite-egoek (EB 20, 177)
amets-bideetan (EB 24, 177)
ibilgo-buru (EB 32, 177)
maitasun-edermen-zitu EB 33, 177)
bidazti-begiek (EB 47, 179)
urrun-ertzean (OG 5, 165)
giza-erlauntza (EB 65, 181)
aur-kezka (ZA 17, 43)
zeru-gainkia (ZA 23, 43)
maite-ezpainek (XE 109, 71)
marrubi-odola (NUY 16, 83)
Egun-eunez (NUY 59, 87)
Maitetasun-azia (NUY 81, 87)
gogo-yolas (PT 24, 99)
Adi-muga (Ag 10, 113)
Adi-yauregia (Ag 13, 113)
Itzal-yauregia (Ag 28, 115)

Argi-Aberria (Ag 31, 115)

Poz-oiñaze-kateak (BMD 99, 127)

Itxaro-kabi (BMD 115, 127)

inguma-atsegintoki (SL 26, 149)

yaureĝi-atea (SL 42, 149)

azken-arbazta-begiez (BiL 41, 143)

Maitasun-Iturri (YE 14, 17)

olerti-loreak (Eskeintza, 15)

berbizkun-berria (IOI 37, 201)

izotz-arnasa (IOI 53, 203)

Ikusten dugunez, oso ugariak dira Lizardiren olerkietan "A.ren B" egituraren bidez sorturiko hitz-elkartuak. Ez dira guztiak mintzaira literarioa denaren aldetik ikusirik abstrakzio maila berdinekoak, ordea.

Batzuk, "maite-ezpaiñek" edo "aur-kezka" direlakoak bezala, hitzez-hitz elkarturiko hitzen esanahiaren elkarketatik sortuak dira: maitearen ezpainek eta haurraren kezka baino haruntzagokorik ez dute.

Beste batzuk berriz, zentzu metaforikoan harturik bakarrik dute esanahirik. Esate baterako "izotz-arnasa" delakoa izotzaren lurruna bizidunen hatsa edo arnasarekin identifikatzetik sortua dugu, edo adimenak, endeleguak, lurralde, baso eta sailek bezala mugak dituela metaforikoki onartuz sortua dugu "Adi-muga" delakoa bezala.

Beste zenbaitzuk berriz, hitz-elkartu batean biltzen dute olerkariak poema horretan aurretik landua duen alegoria edo metafora multzoa. Esate baterako, "poz-oiñaze-kateak emen dik etena"(BMD 99, 127). Hitz-elkartu hau abstrakzio maila handiegiko hitz-berria izango litzateke, baldin eta olerki berean, amonaren bizitza-urteak aipatzerakoan zera aurreratu izan ez balu:

Egun zaarrak joan ta
berriak etorri,
gaur *poz* biar *oiñaze*,
noiz burni noiz zillar,
zenbaitek ondamendi
baituten *katea*
lore-sorta bekizu
goi-muñoak zear!
(BMD 49-56, 123)

2.1.1.3. [A-ko B] egitura

A-ko B egituraz sorturikoak ere askotan aurki daitezke:

udazken-ostoa (Ald 119, 55)

negu-gaua (IOI 21, 199)

udaberri-goizez (MG 5, 35)

goi-jauregi (MG 23, 37)

Gabon-egun-goizean (XE 1, 61)

Loreil-laiño (NUY 15, 83)

gaztetzaro-ogitik (Ag 22, 115)

ondo-atsedena (ZE 31, 135)

larrera-miña (SL 8, 147)

Ondaurtz-miña (MT 15, 259)

mendi-aldi (SL 9, 147)

zelai-bitxi (SL 30, 149)

ler-gabe-lore (SL 55, 151)

goiz-jardun (BI 17, 155)

lur-yauregia (OG 69, 169)

larre-lore (EB 10, 175)

garai-larre (IOI 6, 199)

goi-muñoak (BMD 56, 123)

udaberri-lamiak (IOI 8, 199)

Adibide hauetako askotan ordea, izkuta arazi den Izen Lagunaren "ko" edo "ren" atzizkiarekin batean, honen azpian zegokeen Aditzlagunaren atzizkia ere izkutarazten du:

"izar argien zilar-begiak" (ZA 15, 41)

Delako "zilar-begiak" ez da zilarraren edo zilar+ko Izenlagun soiletik sortua, instrumentala deitzen dugun "-z" atzizkia ere izkutatua dugu hor:

zilarrezko begiak > zilar-begiak (ZA 15, 41)

izotzezko bitxia > izotz-bitxia (IOI 86, 205)

gorago joateko joranez > gorago-joranez (MG 11,35)

Hau ere ez da Lizardiren bereizgarria, euskaraz honelako hitz-elkartuak bai baitira:

eurizko jasa > euri-jasa

alanbrezko sarea > alanbre-sarea

burdinazko zalia> burrunzalia

Zenbaitetan ordea, Lizardik hitz-elkartuak sortzeko erabili duen moldea arrunta izan arren, hitz-elkartuaren lehen osagarria maila metaforikoari dagokiona eta bigarrena maila konkretuari dagokiona batzen dituelako, eta kontzeptuaren berritasuna dela bide, irakurlearen adimenari eginiko deia eta are erronka ere bilakatzen dira:

Egun-eunez yantzia (NUY 69, 87)

kabigai-lor (SL 23, 147)

oro-mintzo (EB 18, 177)

gaztetzaro-ogitik (Ag 22, 115)

"Egun(aren kolorezko)+eunez" jantzia dago neskatxa, baina zilegi da Eguna bera izatea bere jantziaren materiala, azken batean neskatxa ere urtaro baten pertsonifikazioa bait da.

Zer ote da "gaztaroko ogiaren yakide" izatea? Badirudi egunerokoa partekatzea, gaztaroan elkarrekin tarte asko egitea dela, gaztetan ohizkoak diren kezka ohizkoak elkarrekin bizi izan zituztela adierazi nahi duela Lizardik egunerokotasunaren errepresentazio den "ogi" delakoaz.

Irakurleak konkretuak diren "ogia" eta "yakide" hitzak konposatuaren zati metaforikoa direla ohartu behar du, zeren metafora diren igerri, eta igerritakoan bakarrik uler dezake zergatik egiten zaion olerkariari hain mingarria bi adiskideen artean sortu den tarte gaindiezina.

Hala ere, eta honelako adibideak bakanak ez badira ere, Lizardiren hitz-elkartu gehienak soilagoak dira, gardenagoak; gehienetan, perifrasi edo, sintagma osoaren ordez hitz bakar batean, izenondo bakar batean indar espresiboa adierazkorragotzat hobestearen ondorioz sortuak dira.

Esate baterako,

"Dirdaiez ikus egiña
mende-neurle dugun kurpil ariña"
(EB 38-39, 179)

"Uri nagusi, *giza-erlauntza*:
zorapenezko arutz-onuntza..."
(EB 65-66, 181)

"Lekaro zabal lurraren gerri,
ondardi kixkal eriogarri:
*bidazti-begi*ek sarri
aidean baso ta iturri:
bertarañokoan ondarra gorri!"
(EB 45-48, 179)

Aren B eta Ako B egitura duten hitz-elkartuetan garbi ikusten den egitura morfo-sintaktiko bat soildu baizik ez da egiten. Beste zenbaitetan, berriz, bi izen, bi adjetibo edo bi aditz elkartzen ditu, esanahiak elkartuz semantika mailan kontzeptu berri bat sortuz.

2.1.1.4. dvandva-hitzen elkarteak

Hitz elkarketa honen jatorria, euskaraz *esanahi bereko edo antzeratsuko bi osagairen elkarketa*tik sortua genuke. Esate baterako, *Gure mintzo*ko laugarren bertsoan agertzen den "izu-ikara" bezalakoak.

Larramendiren jarraitzaileen artean oso ezaguna eta erabilia izan zen hitz-elkarketa mota da berau, Mendibururen idazlanetan aurkitzen delarik sarritasun handiz [118].

Lizardik erabiltzen dituen kasuetako askotan, esanahi ezberdineko bi osagarri elkartzen dira, matiz berri bat sortuz:

"Urte yoanen zitala!
Zuek *zarpildu-itzalia*
leenera nork lekardake?
Zabal-naroa nuen baratza
gaur ain estu, gaur ain gabe!"

(AZB 31-35, 187)

Bi izen, izenondo edo aditzen esanahiak hurbilekoak dira, baina ñabardura ezberdina dakar bakoitzak.

---

[118] Mendiburu da Orixek Axularrekin batean, euskal literaturaren historian gehienik goraipaturiko idazlea (Ik. "Mendiburu" in *Euzkadi*, 1924-7-4). Bestalde, Antonio Maria Labaienek Lizardik landuriko idazleen artean aipatzen du Mendiburu. Ikus LABAIEN, A.M.; "Itzaurrea" in *Itz-Lauz*, 1972, 6. or.

"Zarpildu"k gauzen edo pertsonen itxura aldatze eta bereziki okertzea adierazten duen aditza da, endakatu, kolore galdu, maiztu egin diren gauzen prozesua definitzen du. "Itzalia"k, berriz, argi gabetu, eta koloreen arloan maiztu ere esan nahi izan lezake. Errealitateak jasan duen okerrerako aldaketa aipatzeko asmaturiko hitz-elkartua dugu. Eta oso adierazkorra gainera. Gauza bera esan liteke zabal eta naroa den baratzaz, gaur sasiak jana eta hain txiro dagoenaz.

Honelakoen bidetik sortuak ditugu beste zenbait ere, ondoko zerrendan ikusiko dugunez:

sudur ospeldu-zorrotza (Ald 75, 51)

zabal-naroa AZB 34, 187)

zarpildu-itzalia (AZB 32, 187)

biotz-begietan (izenb.)

lor-atsekabe (YE 5, 17)

tximist-ortziri (YE 8, 17)

buru-oin (Oia 51, 25)

bare-ozkarbi (ZA 14, 41)

zuti-baldarrak (SL 47, 149)

lan-izerdiak (ZE 30, 135)

zain-giar (SL 11, 147)

zuaitz-soroak (SL 65, 151)

itzal-zokondoetan (IOI 85, 205)

gose-nekeak (Ald 89, 53)

kezka beldur-eztia (NUY 79, 87)

Antzekotasun semantikoa izenondoetan eta izenetan, hurbiltasun semantikoa edo fisikoa edo bestelakoa duten izenen "gehiketa" da hitz-elkartu hauen emaitza, nahiz eta zenbaitetan antzekotasuna ez baizik eta aurkakotasuenan dauden adjetiboen arteko paradoxa adierazteko erabiltzen duen, "kezka beldur-eztia" delakoa bezala.

2.1.1.5. Olerkiaren maila sinbolikoa eta erreala elkartzen dituen [A den B] formula

Lizardiren hitz-elkarturik karakteristikoenetako batzuk dira hauek.

Elkarketaren bi osagarriak maila poetiko ezberdinetakoak dira, bata erreala, metaforaren plano errealitik harturikoa, bestea berriz, maila sinbolikoari dagokiona. Lizardik metaforaren esanahia ziurtatu nahiz eginiko elkarketak ditugu hauek. Esate baterako, *Asaba zaarren baratzan* honelako adibide zenbait aurki daitezke:

"Sar eta... zuaitz yantziak.
Urrats bat egin, ta adar uts.
Oroipen-txoriez zeuden
beterik: ni ikus ta, bat-batean,
egoei eragin ziten".
(AZB 16-19, 185)

"Ta leen ikusi-gabeko
zuaitz berri bat zegoan
erdian, guzien buru...

Aren gerizak *erri-baratzak*
ezin-ilkor egin ditu."
(AZB 95-100, 197)

Honen gisakoak ditugu, esate baterako beste hitz-elkartu hauek ere:

"Gezal mugagabez bide-ginyoazen:
bizitza-itsaso otxan barea
goiz-eguzkiaren txinpartez ernea!"
(GM 34-35, 209)

"Gazte otoi luzeetan asi baiño leen
xerbelduxe bait zegon *maite-ardoarren*
iraulka zebiltzian bazter orotara
begi yakinbearrak, orien gogara"
(MB 49-52, 283)

Hitz-elkartu hauen egituraren oinarrian [A den B] formula dugu, euskal hitz-elkartu aski arrunten eskema dena bestalde, "Ama lurra" eredua hartuz "Atributuzko AB izen-elkarteak" izenez ezagutzen direnak dira eta definizioz bigarren hitza da esanahiaren zama daramana. Lehenak, berriz, izenondoaren balioa hartzen du. Honen kidekoak genituzke, *Hitz elkaketa 3*ren arabera: Aita Jaungoiko, Atso andre, dorre-etxe, otso-zakur, etabar.

Lizardik berak "Andre Lurra"z hitzegiten du *Ondar gorri*ren 13. bertsoan, eta kasu honetan "Ama Lurra"ren eskema berari jarraituz. Naturaren elementuak eta maila sinbolikoa elkartuz sorturiko "erri-baratza" eta "oroipen-txoriek" egitura beraren ondorio dirudite.

Honela, Lizardik joera guztiz pertsonalari atxikiz, naturaz euskal gizonak izaniko ikuskerarekin eta ikuskera hori linguistikoki adierazteko adierazbidearekin egiten du bat, "ilargi amandrea" ospetsua eta ezagunaren bidetik sortuak dira "Negu agurea".

Honelako hitz-elkartuak ez dira bereziki arruntak Lizardiren olerkigintzan, baina haren metaforen joerarik azpimarragarrienetako baten adierazbide direnez, merezi du haien originalelitatea azpimarratzea, aldi berean euskal pentsakeraren bideari ohartuki atxikirik harturikoa denez.

Beraz, Lizardik hitz-elkartu hauen bidez, euskaraz ohizkoa den bide morfologikoa darabil, hain zuzen ere, euskal pentsamentu naturalean dagoen ikuskeraren adierazbide den [A den B] egituraz baliatuz. Honela, metaforaren ulergarritasuna ziurtatzearekin batean, espresioaren alorrean metafora bera ahuldu gabe, maila erreala eta sinbolikoaren arteko harremanak argitu egiten du metaforaren irudiaren indarra. Espresio aldetik ahuldu egin beharrean, metaforan bilbaturiko edo mamituriko kontzeptu berri bat sortzen du. Ikusi ditugun hitz-elkarketa motetan Lizardik duen joera metaforizantearen adierazpide egokiak bilakatzen direla ikus daitezke.

2.1.1.6. Izen sintagma osatzen duten Izen+Izenondo egitura trinkoez osaturiko hitz elkartuak, esate baterako, tresna egoki zaizkio izen eta izenondo berriak sortzeko:

aur begi-argi anitz (EB 35, 177)

morroi mantal-zuriak (PT 30, 99)

azalez, soin-arrea (PT 40, 99)

auts-irakin/ antzean (XE 59, 67)

ega-baldar baitabil txoria ((Ag 16, 113)

begi-lauso ta urgun (BMD 67, 123)

neska-kozkortzen ari al dan (SL 39, 149)

Itsaso...muga-biribil, belar-berdiña (EB 36, 179)

argi-leenenkia (BL 34, 143)

Bidenabar esanik, hauexek dira Orixek eredugarritzat aipatzen dituen euskal izenondo karakteristikoenen artean:

> "Badakizue izkeraren arintasuna ta xalotasuna iñon ageri baldin bada, izenondoetan ageri dela. [] Onetan ez dute ezagutzen askok greziera bezalakorik. Oraingo izkera berritan ez duzu beñipein olakorik. Eta euskeran? Bear bada grezieran baiño geiago. Odisean daudenak euskeraldu ditezke nekerik gabe, ta euskera dirudite. [] Homerok leukolene, glaukopis, podas okys, eliopis, kynops,eukomos, esaten badu, guk esan dezaguke besazuri, begiurdiñ edo beturdin, oiñarin, begi-ikara edo begiloka, zakur-mutur, illeder, baita ankoker, gerrigogor, besamotz" [119].

Bahuvrîhi elkarteak deitu ohi diren hauek dira euskaraz izenondoak sortzeko bide morfologikorik erabilienetako bat, oso adierazkorra gainera, edozein hiztunek askatasun osoz bapatean hitz berriak asmatzeko erabili lezakeena.

2.1.1.7. Bestelakoak

Bestelako egitura sintaktikoen laburtzapen diren hauek ere aipagarri dira:

A) Posposizioa Izen sintagmari lotuz eginikoak, aurreko -ren kenduz.:

uda-ondoz (BMD 126, 129)

seaska-aldean (ZA 33, 43)

bide-goenean (OG 6, 165)

biotz-alboan (ZA 17, 43)

B) Izen+aditz :

lurra lurrun-jario (BI 57, 159)

elkar-ordainaren ezti berdiñaka (Ag 5, 113)

txoria / lurrera-bearka (Ag 17, 113)

ingumak ari, gozo-miazketa (OG 18, 165)

ega-iraulka (XE 44, 65)

D) Aditzondo+aditz:

ebaki sarri-berritua (ZE 4, 133)

Gurdibide bakan-ibil ertzetan (BI 9, 155)

berandu-beldurrak (OG 46, 167)

E) Sailkatu gabeak:

eder-ametsik eziñena (Ald 30, 47)

eder-lanetan (XE 49-50, 65)

begi eder-goseok (NUY 8, 83)

maite-bestak (SL 24, 147)

---

[119] ORIXE; "Eusko olerkitzaz" in *Lenengo Euskal Eguneko Itzaldiak*, Bilbo, 1922, 35-36. or.

"Eder" eta "maite" izenondoak gerora bereziki aipatuko ditugun lexematzat hartu behar dira. Sarritan erabiltzen ditu Lizardik izen eta kontzeptu abstraktu gisa, hots, "edertasun" eta "maitasun" ordez, eta 1.1.3 puntuan aipatuko dugunez, euskaraz hitz abstraktuak sortzerakoan atzizki eratorle eta mugatzailerik gabe hartzen duten balore semantiko "orokorra" dute "eder" eta "maite"k hitz-elkartu hauetan ere.

F) Sintagma ihartuak

Zenbaitetan, laburturiko hitz-elkartuan bildu nahi izan dena sintagma bat izan beharrean, esaldi oso bat da, hiru osagai elkartuz egina:

berriz-jaio-poza (GM 33, 209)

ezin-Itzal-Argiruntz (BMD 33, 121)

azken-arbazta-begiez (BL 41, 143)

Yainko-muño-gaiñetara (OG 70, 171)

poz-oiñaze-kateak (BMD 99, 127)

maitasun-edermen-zitu (EB 33, 177)

inguma-atsegintoki (SL 26, 149)

Udalen-sortoge (OG 63, 169)

Hiru osagarriz osaturiko hitz-elkartu hauetan sarritan imagina bakar batean bildurik ikus daiteke, izen bakar batean bilbaturik, olerkian zehar edo aurreko olerkiren batean garaturiko metafora.

Esate baterako, bere soiltasunean harturik "ezin-Itzal-Argiruntz" delakoa jakin genezake zer den, Yainkoaren metafora errekurrentea bait da argia Lizardiren olerkietan. Hil-ondoko munduaren metafora "goi-muñoak" (BMD 56, 123) den era berean.

Ikus goiko zerrenda honetan "Yainko-muño-gañetara" delakoa. Hirurak ere eufemismoz aipatu nahi ez den edo aipatua izateko handiegia denaren zeharkako alusiotzat har genitzake. Eta egoki dirudi heriotzaren gaia darabilen *Biotzean min dut* olerkian dauden beste alusio eufemistiko askoren artean kokatzen bait dira:"enarak etorri-garaiez aldegiña", "urte urdin igesak","Uri ixil bat", "Egun Aundirarte"...

Zerrendako azken bi adibideak, "inguma-atsegintoki" (SL 26, 149) eta "Udalen-sortoge" (OG 63, 169) *Sagar-Lore* olerkian garaturiko metaforen laburtzapena dira, eta beste zenbait kasutan ere suma daitekeen konstante bati erantzuten diote: Lizardik olerkietan erabiliriko metaforak iraunkor bilakatzen ditu. Olerkietako batean garatu egingo du, bestean berriz haren oihartzuna erabiliko du epiteto gisa, kasu honetan sagarrondoari loturiko irudi errekurrente gisa, irudi finkoaz baliatuz. Hitz-elkartuok metaforizazio irudi-karakterizaketa azkarra egiteko aukera eskaintzen diote, lehenik garaturikoaren oihartzuna oroitaraziz.

2.1.2. Eratorketa

2.1.2.0. Sarrera

Morfologiaren arlo honetan hitz-eratorketaren alorrera joko dugu orain. Laburki eta bidenabar baizik ez dugu egingo, hizkuntzaren eta literaturaren historian leku berezia izan baitu Lizardik Orixerekin batean baliapide morfologiko honen erabilera oparo bezain arrakastatsua dela medio. Horregatik guk lan honetan ematen diogun beste ezaugarrien arteko garrantzi erlatiboaren arabera bakarrik aztertu arren, morfologia aldetiko azterketa sakonagoa merezi duelakoan gaude.

Eratorketak, aditzari ere eragiten badio ere, (-tu atzizki aditz-egilearen bidez ugarienik), izen eta adjetiboei eragiten die batipat, eta adberbio edo aditzondoari ere bai, baina ez hain oparo.

Lizardiren kasuan adjetiboak, izenen nolakotasunari buruzko ñabardurak emateko adierazbidea eskaintzen dioten izenondoen atzizki eratorleak garatu zituen bereziki; esate baterako, -bera, -kor, -garri, -koi, -gaitz, gabe, -ka , ez- aurrizkia...

2.1.2.1. Eratorketa aipagarrienak

Lizardiren kasuan atzizki eratorleei dagokienez izenondoak dira bereziki aipagarriak, izenondo kalifikatzaileak sortzeko balio duten atzizkiak, hain zuzen ere; eta horregatik, alor osoari heldu gabe hauetara mugatuko gara lan honetan.

*-BERA atzizkia*ren bitartez, sortzen ditu Lizardik nortasunaren zaletasun, joera eta berezko, kontrolaezinezko lerak. Adibide ugariena *Agur* olerkian aurkitzen dira, lagunaren nortasunaren gora-beherak deskribatzerakoan:

"Odol eri batek ezetua iduri,
beltz-ikusbera uan, izukoi, urduri"
(Ag 19-20, 113)

"azpildu-gabeko biotzaren jabe,
onerako zabal, ederrak *su-bera*
(Ag 2-3, 113)

"aldegiña aiz urrun lagun *biotz-bera*
adi-mugaz aruntz, erbeste itzalera"
(Ag 9-10, 113)

"*Ederberak* xerbeldurik,
ardoa bailuten,"
(MT 13-14, 259)

Zuaitz etzana olerkian ere badugu beste adibide bat, "bihotzbera"ren ereduaren antzerakoa:

"Azpian duk ikusi aren gorabera
aurtzaroan yolasti, mutilletan *amets-bera*"
(ZE 29-30, 135)

Villasantek Lizardiren hitz eratorrien egokitasuna azpimarratzen du, hain zuzen ere, —bera atzizki honetarako zuen zaletasuna azpimarratuz:

> "El vascuence de Lizardi está construido sobre el vascuence auténtico, el real, apenas recurre a los neologismos de forja (lo que Unamuno llama terminachos). Tiene sí, multitud de creaciones felices, pero obtenidos por los procedimientos propios a que da pie el propio euskera (la derivación y composición); como, por ejemplo, nora-agiria por pasaporte, arpetarrak por cavernícolas, etc. Saca mucho partido del sufijo —bera, en sentido de inclinado, propenso. "Xamurbera natzaio" ("siento cierta debilidad cariñosa hacia él"). Extiende también el significado de la palabra a acepciones nuevas, pero relacionadas con su sentido fundamental o usual, como "zabala" por espacio [120].

[120] VILLASANTE, L.; *Historia de la literatura vasca*, Sendo, Bilbo, 1961, 338. or.

-KOR atzizkiaz, aurrekoak eta ondotik aipatuko dugun —koi atzizkiak bezala zaletasuna, joera, edo jaiera adierazteko balio du. —koi izen erroei lotzen bazaie ere, —kor hau aditz erroei lotzen zaie gehienetan.

Azkuek nahiz Villasantek aipaturiko jokaera morfologiko orokor honi lotuz sortuak dira —kor atzizkiaz Lizardik asmaturiko adibide guztiak, hots, aditz erroari loturik eta zaletasunaren zentzu honi loturik, eta ez eragilearena, hots —garriren funtzioak hartu gabe.

Hona hemen zenbait adibide;

– "lur *emankorra*" (GE 61, 243)

– "ele *maitekorrak*" (Ald 24-25, 47)

– "mokoz bai egoz *otoikor* astindu ditu" (Ald 121, 55)

– "Aren esku *laztankor* igaz izana" (Ald 76, 51)

– "*Ekarkor* bekigu zure azaroa: ..." (AG 62, 311)

– "Igan ipiñitako/ amesak, baña/ *auskorrak* ete-ziran/ inguma ta loreak /ez aña?..." (XE 113, 71)

– "ez bedi nere esanik iñorentzat *galkor*" (GD 23-24, 265)

Ikusten dugu bigarren atzizki hau ugariagoa dela, sarriago erabiltzen duela Lizardik, hedadura zabalagoa bait du, gauzak, fenomenoak, keinuak, sentimenduak maitekor, laztankor, edo hauskor izan bait daitezke, —bera aldiz pertsonak bakarrik.

*-KOI atzizkia*k ere gizakien joera edo zaletasunak zedarritzen ditu —berak bezala, baina ez du haren nahitaezko afektibitate edo zerbaitetarako zaletasunean norberaren ahultasun zentzurik.

– "beltz ikusbera uan, *izukoi*, urduri (Ag 20, 113)

– "Udalenak irria/ oi du zoro ozena;/ udaak *aragikoia*/ udazkenak bena;"(IOI 17-20, 199)

– "Amets *etxekoia* du min" (Am 20, 251)

– "yaun katu *eldekoi*/ ozta nabari." (AGB 173, 235)

-GARRI atzizkia dugu laugarren atzizki izenondo sortzailea, hots, zerbait gertatzea ekartzen duena, kausatzen duena. Lizardik jatorrizko erabilera honen araupean sortuak ditu honako hauek:

– "Ustez ur orlegiak/ nituan oñean/ izarrok zirelarik/ islatzen urean.../ gezur *amesgarria*/ lilurak sortua" (NUY 49-52, 85)

– "ondardi kixkal *eriogarri*"(EB 46, 179)

– "ez edozein eguzkik *ernerazgarria*" (MB 31, 281)

Hizkuntza erromanikoetan grekerazko a- aurrizkiak, eta latinezko in- aurrizkiak adierazten duten "ezezkotasuna" adierazteko bide morfologiko bat baino gehiago erabil daitezke eta erabili zituen Lizardik:

1.– Hizkuntza erromanikoetako aurrizkiak, "ez-" eta "ezin-" aurrizkiez ordezkatuz. Esate baterako:

"lore *ezezaguna*" (MG 20, 35)

"gogamenaren ezkon *ez-antzu* (EB 30, 177)

"arnaskai bat *ezilkortzen* duna?" (MG 16, 35)

"otalore *eziñegona*" (OG 61, 169)

"neskazar *ezinetsiak*" (BL 20, 141)

"*ezin-itzal-Argiruntz*" (BMD 33, 121)

"Aren gerizak erri-baratzak/ *ezin-ilkor* egin ditu" (AZB 99-100, 197)

2.– Aurrizki horiek beroiek atzizki gisa ere erabiltzen ditu:

"*galazi-eziña*" (BMD 127, 129)

"*erts-ezin* zauria" (OU 51, 109)

"*ilkor-ezik* "(OU 13-14, 105)

"aize *erruki-eza*" (BMD 78, 125)

Adibideoi erreparatuz gero, adjetibaketa zehatza sortzeko helburuz osaturiko hitz eratorrietako batzuk duten itxura "behartua" ukaezina da. Bertsoaren neurriaren behartzea ere sumatzen da zenbaitetan, "errukieza"ren kasuan "errukigabea" hitz ezagunaren ordez baitago garbiro.

"Ezezkotasuna" adierazteko beste bi atzizki ere aipa genitzake, lehena, "-gaitz", bigarrena "-gabe", nahiz eta emankortasunean alde handia dagoen bien artean. Lizardiren olerkietan lehena behin bakarrik aurkitu dugu, bigarrena aldiz sail ia amaiezinaren iturri da:

a) "-gaitz" atzizkiaz eginikoa:

"sal-eros *ekurugaitza*" (EB 68, 68)

"lo *astindu-gaitza*" (XE 159, 77)

b) "-gabe" atzizkiaz eginikoak:

"lagun *zorigabe*" (Ag 1, 113)

"kale *pozgabeok*" (BMD 39, 121)

"gezal *mugagabez* bide ginjoazen" (GM 34, 209)

"gau *etengabean*" (OU 28, 107)

"Aintza goian Yaunari *askigabea*" (XE 181-2, 79)

"urdin *baztergabean*' (XE 64, 67)

d) Atzizki honen aldakitzat jotzen den —ka atzizkiz eginikoak ere aurki daitezke:

"elkar-ordaiñaren ezti *berdiñaka*" (Ag 5, 113)

"sagar bat, *elduka*" (Ag 8, 113)

"Mitxeleta gorri, zarpil egoak,

maitatzeka atsotu diranetakoak" (OG 20, 165)

Lizardiren olerkietan eratorketa eta elkarketa prozedura morfologikoaren ustiaketaz sorturiko hizkuntza poetikoaren arloan hizkuntzaren elaborazio jakin bat aurkitzen dugu, euskal idazleetan oso bakanka bakarrik aurki daitekeena, hots, hizkuntzaren indar espresiboaren arloan etekinik gehiena atera nahi denean eginiko ahaleginaren ondorio da zalantzarik gabe.

Kontzeptismoak Lizardiren olerkietan morfologia ezaugarri nabariak ditu, sailkapen osoa egiteko asmorik gabe, sintagma ihartuen bidez sorturiko "Ezin-Itzal-Argi" eta tankerakoen justeza espresiboa behin eta berriro azpimarratu izan dituzte literatur kritikoek, hitz berriak ez ezik, kontzeptu poetiko berrien adierazpide diren hitz elkartu eta eratorri hauek haren estiloaren ezaugarri nabarienetakoak ere badirelarik.

2.1.3. Atzizki eratorleaz soilduriko lexemak

2.1.3.0. Sarrera

Morfologiaren, eta bereziki, lexikologiaren alor honetan deskribatu ditugun joera morfologikoen artean badugu azken puntu bat zalantzarik gabe aurreko joera horien bide beretik doana, hots, hizkuntzaren ahalbide adierazkorrak ahalik eta gehien profitatzearen bidetik jotzen duena: Atzizki eratorleak erabiltzeari ihes egiten dioten kasuak ditugu hirugarren atal honetan aipagarri.

Arreta berezia merezi du, nire ustez, orokorrean hitzaren balore semantikoa abstraktua bilakatzeko, edo kategoria gramatikala aldatuz perpausaren barruan beste funtzio bat betetzeko atzizki eratorleez baliatzeko gaur egungo euskaldunek dugun joerari Lizardik uko egiten dion kasuen sailak.

Esate baterako, eta jadanik aipatua dugun adibide bati helduz, euskaldun arrunt batek "oroipen-txoriek", "erri-baratzak" edo "bizitza-itsaso" bezalako adibideen aldean "itxaro-kabi" delakoak zerbait berezia duela antzematen du: "itxaro" hitzari atzizki eratorlea kendu dio, eratorketa berriari ekiterakoan.

Arrazoia neurria duela esan ahal izango genuke, eta salbuespentzat jo. Baina hitz-elkarketak eskaintzen dituen laburtzeko aukeren artean osagaietako bakoitzaren atzizki eratorleak kentzea agertzen ez den arren, Lizardik arau morfologiko hau makinatxo bat aldiz hausten du, atzizki eratorlerik gabeko lexemaz soilik osaturiko hitzaren aldeko joera duela ikusiko dugu.

Beraz, Lizardik eratorketa eta hitz-elkarketak euskal morfologia behartu egingo badu ere, adibide honen kasuan "itxaro" lehen osagaia bera bakarrik doanean ere atzizkirik gabe erabili izan zuen.

Esate baterako, beste testuinguru batean ere aurkitzen dugu izen abstraktoaren balioaz eta atzizkirik gabe:

"batak *itxaro*, besteak berpizte,
irugarrenak bizitza indar bete"
(OG 55-6, 169)

eta

"emeki duk *itxaroz*
piztu garai-larre"
(IOI 5-6, 199)

2.1.3.1. Kasurik aipagarrienak

Atzizki eratorleaz soilduriko izenen esanahi semantiko eta funtzio sintaktikoen aldaketak erakusten dituzten kasuak honako hauek dira:

Zenbaitetan Lizardik, "itxaro" hitzaren kasuan ikusi dugun bezala, atzizki osoa isilerazten du, batez ere hitzaren kategoria gramatikala izena eta izenondoaren esparrutik ateratzen ez denean eta abstrakzio maila denean auzia, hots, *izenondoak adierazten duen kualitatea kontzeptu abstraktoa bilakatzea* denean arazoa.

Horrela, "-tasun" bezalako atzizkirik gabeko eta izen balioa duten zenbait izenondo izen bilakaturik aurki daitezke:

A) "txori gaxoei aztu
gau latzaren *urbil*" (IOI 45-46, 201)

B) "Itz ori, soilki, *zaarrak* dit ondu
ardoa oi-dun bezela" (BMD 44, 189)

C) "otsaren *zakarrez* izu-ikara nintzen" (GM 8, 207)

D) "*Eder*rez ain motza dala" (Ald 55, 49)

E) "*Eder*rak su bera" (Ag 3, 113)

F) "Bat-batez, eun txoriek/ eztarriak eten/
ta aberaski *zabala*/ bitxiz yantzi zuten"
(NUY 65-68, 87)

G) "Gertu ta gero, urrezko/ txilibitoak/ aoratu, ta abia/ ziran, *zabala* arrotuz/ egoak." (XE 51-55, 65)

H) "Irudimena uan *giarra*, yoria" (Ag 15, 113)

I) "beso *giarrez*, yotzen
al duzu, arrika" (GE 52-53, 243)

Ohar bedi bi azken kasu hauetan ez dela "-tasun" atzizkia beharko litzatekeena. "zabal"en kasuan izenondoak "-di" atzizkia hartu izan du izena bilakatzeko. H eta I kasuetan aldiz, izena da izenondo bilakatzeko -tsu atzizkiaren beharrean beharko zukeena, H kasuak bezala, bestalde.

J) "adi-mugaz aruntz-erbeste *itzal*era" (Ag 10, 113)

K) "*geldia*k gizendu, *egona*k goza,
*nagia*k noizpait jalkiaraz bitza..." (BI 21-22, 157)

Azken adibide honek atzizki gabetze honen oinarrian dagokeen teoriaren urraspidean jar gaitzake. Lehen bi aditz burutuak nominalizaturik izen balioa dute, eta berez "geldia" jatorragotzat joko litzateke "gelditasun" delakoa baino. Hirugarrenak "nagiak", "nagitasuna" du aldaki arruntagotzat, Azkuek berak esaten digu bere Hiztegian. "Nagia" eta "Maite" hitzak kasu berdinak direla esaten du, hots, izen ez ezik izenondo balio ere baduten lexemak direla. Atsotitzetan aurkitzen da sarritan, nagia izen balioaz: "nagiak erre eieban uria".

Beste zenbaitetan atzizkia laburtu edo ordezkatu egiten du laburragoa den beste batez:

"mintzo ozenak zabaldu
berbizkun-berria" (IOI 84, 205)

Olerki berean ordea, atzizkia oso-osorik aurki daiteke:

"berbizkunde-berria
maiteak yario" (IOI 37-8, 201)

Hitz bera, beste zenbait testuingurutan laburragoa den —te atzizkiaz egiten du:

"batak itxaro, besteak *berpizte*,
irugarrenak bizitza indar bete" (OG 55-6, 169)

Geroago aipatuko ditugun mugatzailerik gabeko sintagmen kasuan ikusiko dugun bezala, bertsoaren neurria eta errima dela eta, hizkuntza behartzera iristen da olerkaria askotan, Hauxe genuke kasu horietako bat, zalantzarik gabe: —kun eta —kunde atzizkiak berdintzea.

Antzerako kasua bide da hurrengo hau ere:

"*Bakarte* Yaungoikozkoa" (EB 57, 181) [121]

---

121 -te atzizkiak ez du balio izan lekua adierazteko, leku bakartia adierazteko. Ez ote da "bakartegi" hitza Lizardik hemen laburturikoa? Azkuek jasoa du azken hau "(B) soledad, lieu solitaire" balioaz.

Beste zenbaitetan, atzizki osoa ezabatzen du, *Eusko Bidaztiarena* olerkian aipatzen zaigun maitale bikotean, emazteaz honela dio:

A) "gogamenaren *ezkon* xuria"(EB 2, 175)

Ezkontide beharrean "ezkon" erabiltzea Lizardiren aukera ez ezik, bere garaiko hiztegietan zilegitzat jotzen den hitza da, Bera-Lopez de Mendizabalen hiztegian senar edo emazte adierazteko baliogarritzat ematen da.

Asaba zaarren baratza delako olerkian berriz,

B) "...nire/ baratz zaarraren *antzalda*!" (AZB 101-2, 197)

Lizardik bere gisa eginiko beste laburtzapen horietako bat dirudien honek, ordea, aurrekoak bezala badu Lizardiren garaian erabilpenik.

Esate baterako, *Orotariko Euskal Hiztegia*n egiazta daitekeenez, bai Olabidek *Testamentu Berria*ren itzulpenean (1931) eta bai Emeterio Arresek *Olerti Berrizte* (1952) izeneko liburuan Lizardik bezalaxe erabili zuten. Baina Olabide eta Arreseren idazlan horiek Lizardirena baino beranduagokoak ditugu, eta hitzaren moldaera horrek izaniko arrakastaren lekuko besterik ez dira.

Eredu bera du beste adibide honetako hitz elkartuak ere:

D) "*giro-alda* ain usurik..." (AG 52, 309)

Atzizki eratorlerik gabeko hitzak, lexemak beren soiltasunean eta esaldiaren barruan duten zentzua, kategoria gramatikala eta funtzioa tokiak eta zentzuak markatzen dute. Lizardiren irizpide kontzeptisten zerbitzari egokiak dira, esaldiak "gihar huts" eginik, soberakinik eta erredundantzia alferrikakorik gabe uzten ditu.

Aipaturikoez gain, hona hemen beste zenbait adibide aipagarri:

A) "ale gorriz/ abaildutako *sagarrak*" (BuL 7-8, 91) (sagarrondoak)

B) "Ortzi oro ta *egute* oro

yaso, ikus-ala, ta abes gozoro..." (EB 70-71, 181)

Lehenengoa aski garbi ulertzen da aurren-aurrenetik, zituaren izenaz izendatu du zuhaitza, "Aldapeko sagarraren..." kanta ezagunean erabiltzen den bezala.

Bigarrenean aldiz, "egute" hitzaren zentzuak zalantza egin arazten du: —te atzizkiak denbora atmosferikoa adierazten duelako erantsi ote dio egun lexemari?

"Egute" hitza ez dago hiztegietan jasoa, baina klima, edo giro atmosferikoa adierazteko sortua bide du Lizardik Azkuek *Morfología Vasca*n eta *Hiztegia*n —te atzizkiari ematen dion balore tenporala oker ulertuz.

2.1.3.2. Atzizki kentzearen oinarri teorikoen bila

Lizardiren olerkigintzaren alderdi morfosintaxikoei buruz sarritan aipatu izan den mugatzaile kentzearen gaiari buruz dihardugunean zabalago aipatuko dugun Orixeren "Muga-itz edo artikulua euskaraz" deituriko artikuluan, hitzak atzizki eratorleez gehiegi zamatzeko joeraren aurkako iritzia ikus genezake:

> "Zerbait nortzen dugularik (cuando personificamos cosas): Eder eta On aide dira: La Belleza y la Bondad, o lo bueno y lo bello tienen relación entre sí. Ortaz tasun isiltzea da. *Sarri zakarki erabiltzen ditugu atze-izkiak, isildu genezazkean*" [122].

[122] ORIXE; "Muga-itz edo artikulua euskaraz" in *Euzko-Gogoa*, II, 1950, 15-16. or.

Orixek aipatu irizpide honen barruan koka genezake Lizardiren zenbait aldaketa morfologikoren jatorria.

Azken puntu honezaz, bada, Lizardiren laburzaletasunaren eta mintzaira poetikoaren sorreran harturiko eredu kontzeptistaren alderdi zehatzetako eta ezezagunenetako batekin egiten dugu topo, hots, mugatzaile isiltzeez gain, atzizki eratorleak zuhurtasunez, "alferrikako" erredundantziez gabetzeko joerarekin.

Atzizki gabetzea, edo atzizki eratorleez gaurko hizkera mintzatu eta idatzian baino erabilera urriagoa egitea idazle zaharrak, eta bereziki, atsotitz bildumak eta testu arkaikoak aztertzearen ondorio bide da, ene ustez, Orixeren irizpidea jarraitzearen ondorio ez ezik. Idazle zaharren joera honek euskal hizkuntzaren berezko trinkozaletasunaren lèkukotza eman bide zion.

Izan ere, ez bait dira salbuespenak ondorengo atsotitz honetan ikusten den sintagma bezalakoak:

"gizon *bearra*, gogo uts" (Garibay Cc 79, XXI)

Balore berekotzat aipatzen du Urkijok "gizon nekatua gogo ush"[123].

Atzizki-eratorlerik gabeko izenondoak moldatzeko joera morfosintaktiko honen beste adierazbide bat ere badu esaldi esklamatiboetan euskaraz gorde den esamolde berezi batek.

Hain zuzen ere, esaldi esklamatibo batean adjetiboari garrantzi berezia eman nahi zaionean, izena balitz bezala hartu, hots, sintagma bateko ardatz edo izen multzoaren ardatz gisa hartu eta berarekin doan izena Izenlagun bilakatu ohi da.

Esate baterako,"Gaztelupeko sagardoaren gozoa!" esaldian, gozoa adjetiboa izen sintagamaren ardatz bilakaturik ikusten dugu inolako atzizkiren laguntzarik gabe, hots, "gozotasuna" behar luke izan egungo hizketa arruntean izena izatez gero.

Ugariak dira herri kantetan honelako esklamatiben adibideak, batez ere literaturan, eta Lizardiren olerkietan eskema bera erabilirik sorturikoak ere bai, baina esaldi esklamatiboen testuingurutik aterata.

Hona hemen esate baterako, beste bat,

"Uts bainun oskai guri berexa,
atsa jaurti arren ezin sor abesa;
amets-arteko oiu bailitzan,
otsaren zakarrez izu-ikara nintzan"
(GM 5-9, 207)

Adibide honetan ere hizkera arruntean sarriago aurkituko genuke "hotsaren zakartasuna", baina esaldi esklamatiboetako esapide horren indarrez, zilegi zaio Lizardiri, esklamatiben ingurumariatik ateratako molde hau erabiltzea bere hizkera literarioan eta sortu nahi duen "mintzo elertitsu"aren kontzeptismoaren zerbitzuan: kontzeptu poetikoen adierazpenean Artiz'tar Xabierrek azpimarratu duen gihartasuna lortzeko, euskal hizkuntzaren berezko baliapide literarioen bitartekotzaz egitea.

2.1.4. Lizardiren mintzairaren alderdi lexikologikoei buruzko zenbait ondorio

Lexikoaren alorrean sumatua dugun joera honetan nabari dugu Lizardik hizkuntzari eraginiko antzaldatzearen bidea. Hizkuntzak dituen adierazpideetan trinkozale eta sintetikoenak hobetsi eta ahalik eta hobekien profitatzen ditu, alde batetik konposaketari etekin ugari ateraz, eratorketaren alorrean erabilera zuhurra eginez, eta ahalik eta erredundantzia gutxienari bide emanez, zenbaitetan

123 URKIJO, J.; *El refranero vasco, I, Los refranes de Garibay*, Donostia, 1919, 10. or.

gabetasun gorriaz hitzaren kategoria gramatikalaren alorrean eta esanahiarenean ere zalantzak sortzen dituelarik.

Lizardiren mintzairak hizkuntzaren norma ez duela hausten esan izan da, Lauaxetarenari aurkajarriz. Uste hau Aita Estefaniak Lauaxetaren *Bide Barrijak* liburuari eginiko iruzkinean adierazi zen lehen aldiz [124]. Berak aipatu zituen bi egileon mintzairak Lauaxetak hizkuntzaren arau-hausle izateagatiko erasoa Lizardik baino gehiagotan merezi izan zuela esatean. Jon Kortazarrek ere jasotzen du iritzi hau bere tesian Lizardik euskal hizkuntzaren norma intetsifikatu egiten duela baino ez duela hausten esaten duenean.

Atal honetan ikusiaren gainean, arau-hausketarik ere badagoela ohar daiteke, garaiko gramatikalariek azpimarratzen duten araua intensifikatzearen bidetik datorren arau-haustea bada ere. Hitz elkartuen sarritasuna areagotzea da alde batetik Lizardiren mintzairak hautaturiko bide morfologikorik nabarmenetako bat, baina baita eratorketan hitzaren lexemaren gihartasunari lehentasuna ematea, atzizki eratorlea erredundantetzat jotzen denean baztertuz.

Hizkuntzaren erregistroetan honelako ezaugarri trinkozale edo kontzeptistenak dituzten ereduetara hurbiltzen da Lizardi baliapide bila eta zalantzarik gabe esan daiteke geroago morfosintaxiaren alor konkretoetan berretsiz joango garen ondorioa zilegizkoa dela atal honi dagokionez ere, alegia, Lizardiren mintzaira ahalegin pertsonal baten fruitu dela, eta ahalegin horretan, hizkuntzaren azterketa gramatikala bera, euskararen baitan sumatzen duen muinik jatorrenari eta aintzinakoenaren taxua bere mintzaira poetikoan itsatsi nahi izatea funtsezko irizpideetako bat dela bere poetika teoriko eta praktikoan.

Eusko Bidaztiarena, euskararen adieraz-gaitasunaren frogantza, "arimaren egoera iheskorren adierazle" izan nahi zuen olerkian eta ondoren aipatuko dugun morfosintaxi alorreko hainbat joeren mamikuntza umotzat eta erpintzat aipa liteke.

2.2. MORFOSINTAXI MAILAKO EZAUGARRIAK

2.2.0. Sarrera

Morfologiaren sarreran aipatu dugu Lizardik sortu nahi duen mintzo elertitsu hori sortzeko zenbait moldaera berezi hartu zizkiola euskarari. Lehen maila horretan morfologiaren arloan ikus litezkeenak aipatu ditugu, hitz berriak eta kontzeptu poetiko berriak sortzean izaniko fintasuna eta bestalde eginiko ahalegin aipagarria. Baina baita aldi berean, neurria dela eta edo hitz-elkartuaren batasunaren alde eginiko arauz besteko atzizki zatiketak ere.

Bigarren sail honetan, berriz, hizkuntzaren berezko eiteak, egitura morfo-sintaktikoak berak aldaketak, behartzeak jasaten dituela esan behar. Hizkuntza poetikoan mundu guztiko hizkuntzetan onartu ohi diren lizentzia poetikotzat har genitzakeenak, bestalde.

Batzuk zaharrak dira, olerkigintzaren esparruan ezagunak, bakanki erabiliak badira ere; beste batzuk berriz, Lizardiren beraren gustu aho-gozo literarioaren senaz sarreraziak.

Hiru atal nagusi aztertuko ditugu maila morfosintaktiko honetan: Izen Sintagma eta Aditz Sintagmaren alorreko zenbait berezitasun lehen eta bigarren azpiataletan, eta hirugarrenean berriz, arkaismo lexiko eta sintaktikoak.

---

[124] ESTEFANIA, J.M.; "Urkiaga'tar Estepan "Lauaxeta. Bide Barrijak (Nuevos rumbos)" in *Razón y Fé*, 425, 1932-8-19, 267-269. or.

2.2.1. Izen Sintagma mugagabeak

2.2.1.1. I.S. mugagabeen erabilera poetikoaz

Ibon Sarasolaren "Lizardiren poemagintzaren alde formalen estudio baterako" deritzan artikuluan [125]puntu honi buruzko ohar garrantzitsua dago jasorik:

> "Errima beharkizunez zilegi da hitz bati mugatzen duen "a" atzizkia kentzea.Dirudienez, Lizardi ez zen zilegitasun hortaz 1931n moldatu zuen "Eusko bidaztiarena" olerkirarte baliatu. Olerki horretan ikusten ditugu legearen adibide argiak:
>
> "Kanta ditzagun ango gau luze,
> ango illunabar su gorriz bete;..." (12, 1-3)
>
> Euskal poemagintzari prestutasun bat eman nahi zion lege hau ere ez da Lizardik asmatua. Olerkarien artean Orixek erabiltzen du lehenik, 1930ean hain zuzen, "Yainkoagan bat" izenburuko olerkian:
>
> "Iparra geldi da, legun dator ego,
> hegatsetan dakar maitetasun bero"
>
> ("Eusko olerkiak 1930 34-35)
>
> Delako "a" mugatzailearen baztertzearen jatorria arakatzen ari ginelarik, P. Lafitte jaunak adierazi zigun Orixek Hiribarrenen lehenago aipatu dugun *Euskaldunak*etik hartu zuela. Hara jorik, Lafittek eman pistaren egiatasunaz ohartu ginen.Elipsi joskera, hiperbaton eta bestez, Hiribarren Lore-jokoetako poetak baino modernoagoa agertzen zaigu, hots, olerkariei hurbilagotzat. Hiribarren da hain zuzen alde honetatik olerkarien aitzindari bakarra. Mugatzailearen baztertzeari dagokionez sarritan erabiltzen du bere poema luzean:
>
> "Populu bethi zahar eta bethi berri,
> Nork ez du maitaturen bethi euskal herri" (II, 45-)
>
> "Etzen ohore handi populu ohahuzte
> Altehatzea menditan milaca gurutze;"
> (II, 245-246)

Ibon Sarasolaren aipamen honen ondotik argitaratua da Patxi Altunaren "Etxepare herri poeta" [126] deritzan artikulua, eta bertan puntu honi buruzko zenbait ohar gehiago aurki daitezke, batez ere, mugatzaile baztertze honen jatorriari dagokionez:

> "Ohitura hori olerkariek nondik ikasi ote zuten aztertzen ari delarik, Lafitte jaunak behin esan omen zion Hiribarrengandik jalkia zutela bere ustez, "Euskaldunak" poeman maiz egiten omen bait du hori Hiribarrenek.Nik neure buruari galdetzen diot, aldiz, ez ote den ohitura hori Hiribarren baino zaharragoa. Etxeparerengan honelakoak irakur ditzakegu:
>
> "Zuhamuyek dacartela odolezko ycerdi" (1,313)
> "Hayn hayn noha penatu (beste bertsoan "oha galduya" dioelarik) (1,431)
> "dagien hari ohore" (2,33)
> "daguien zuri ohore" (2,109)

---

125 SARASOLA; I.; "Lizardiren poemagintzaren alde formalen estudio baterako" in *Homenaje a Julio Caro Baroja*, CIS, Madrid 1978, 960. or.

126 ALTUNA, P.; "Etxepare herri poeta" in *Euskal Linguistika eta Literatura bide berriak*, Deustoko Unibertsitatearen argitarazioak, Bilbo, 1981, 330-331. or.

(Beste hainbatetan esaten du "Eguidazu baquia")

"ni ari niz beqhatu" (1, 128)
"behar duguya conquista berri" (11,1) [127]

Patxi Altunak, bada, sintagma mugagabeen erabileraren hasiera XVI. menderarte atzeratzeaz gain, Sarasolak eman dion funtzioa ere zalantzan jartzen du, ez bait du uste mugatzailea kentzea errima egiterakoan bakarrik gertatzen denik:

> "...errimagatik balitz, poetak bere buruari ematen dion baimena dela eta aski barkagarri bait litzateke, mundu guztiak dakienez, errimak gauza askotara bortxa bait dezake poeta, baita Etxepare bera ere" [128].

Errima gunetik kanpo eginiko mugatzaile ezabaketak ere aipatzen ditu Altunak Detxepareren adibideen artean:

"miraculu vanagui ere,..." (13,22)
"bidegabec aritu nu bide ez nuyen leqhutic" (13,5)
"Gayz eqhussi eztuyenak..." (13,54) [129].

Etxepareren idazlanetan aurkituriko adibideez gain, Altunak Ziburuko Etxeberri eta Tartasen zenbait adibide ere azaltzen ditu; ondoren hipotesi bat aurreratzen du:

> "Ez ote zen gero herri hizkeran gaur baino gehiago zabaldutako ohitura?" [130].

Beraz, Patxi Altunak ekarririko adibideek frogaturik uzten dute mugatzaile kentze edo sintagmak mugagabetzeko errekurtsua aintzinakoa dela eta ez hogeigarren mendeko olerkarien berezitasuna, eta ez dagoela, ondorioz, errima beharkizunetarako lizentzien artean bakarrik aipatzerik.

Baina, aldi berean, esan genezake, ifarraldeko idazleetan aurkituriko adibideak direla aurkezturiko guztiak eta Orixe eta Lizardi, hots, lapurteraren miresle sutsuak biak, izan zirela erabilera horri olerkigintza berrira ekartzearen arduradunak.

Ibon Sarasolak mende honetan mugatzailerik gabeko Izen Sintagmak osatzeko joera honen hasiera Orixeren 1930ko olerki batean kokatzen badu ere, 1930 baino lehenagoko beste zenbait olerkariren lanetan ere topa daiteke. Esate baterako, Manuel Lekuonaren "Euskal-erriko sinismena" [131] olerkian:

"Esan bai nola berexi zuben
Jaunak erri au beretzat,
baita autatu *izkuta-leku*
Sinismen ederrarentzat:"

Eta

"Erakus ziyon *Euskera ezti*,
izkuntzetan ederrena,
lizunkerien itz lasai eta
zatarrik ez dakiena."

---

[127] *Ibidem*, 330. or.

[128] *Ibidem*, 330. or.

[129] *Ibidem*. 331. or.

[130] *Ibidem*, 331. or.

[131] LEKUONA, M.; "Euskal-erriko sinesmena" in *Euskal-Erria*, 1144, 1916-1-15, 13-14. or.

Altunak esana baieztatzen dute adibideok, ez bait daude errima egitearen betebeharrei loturik.

1913ko Enbeitaren "Baztango uyolde naguzijari" [132] delakoan errimaren betebeharretarako agertzen da:

"Estalduten da laño artian
Zorioneko eguzki!"

"Aurkitzen ziran egasti
Abeslarijak ixiltzen dabez
Pozezko euren abesti
Eta nik dar-dar lau ikaratan
biotz esku ta oñazpi".

Lekuonaren eta Enbeitaren adibideok, orain arte esandakoari zera erantsi arazten digu: ez dela mugatzailearen ezabaketa Ifarraldeko idazleetara mugatzen, eta hogeigarren mendeko idazleetan Orixe baino lehenagoek ere erabili izan zutela. Orokorrean bada, euskal idazleen artean erabilera arrunta ez da izan, baina ezaguna bai, garai historikoetan eta hogeigarren mendean ere konstatatzen dena, Ifarraldekoetan nahiz Hegoaldekoetan.

Azken puntu honezaz, ordea, Orixek "Muga-itz edo artikulua euskeraz" [133] delakoan ezagutzera ematen duenagatik pentsa daiteke Lekuonak eta Enbeitak Ifarraldeko bertsolariei ikasirikoa dutela erabilera hau.

2.2.1.2. Izen Sintagma mugagabeak Lizardiren olerkarietan

Orixeren iritzia 1934ko artikulu batean jasoa dago eta *Euzko Gogoa* aldizkarian 1950an berriro argitaratu zuen Zaitegik. Euskal artikuluaren eta mugagabetzearen arautze saio bat da, batipat, eta agi denez, Orixek mugagabea erabiltzeko arauen zerrendatze-saio hau "Artiz'tar Xabier" izeneko idazle batek eginiko galderari erantzunez egin zuen [134].

Jokin Zaitegik galdetzailearen gutuna ere berrargitarazi zuen, eta gutun honi esker jakin daiteke galdera-egileak Lizardi eta Orixe beraren hizketarekin identifikatzen duela mugatzailea ezabatzeko joera hau. Ez du bereziki olerkigintzarekin lotzen, ordea. Orokorrean euskarazko artikulu mugatu eta mugagabeari buruzko galdera bat dugu Artiz-ena. Orixeren erantzuna, berriz, gramatika saio serio bat dugu, mugatzaile kentzearen funtzio estilistikoak gramatika hutsezkoen artean tartekatzen direlarik.

Lizardiren mugatzaile ezabatze adibide gehienak Orixek zazpi arautan zehar azaldutako teoria gramatikal eta estilistikoaren bidez azal daitezkeenez, Orixek idatziriko saio honen luze-laburra azalduko dugu, aldi berean Lizardiren praktikarekiko harremanean jarriz.

Lehenengo eta behin, Orixek Altunak erabiliena eta ezagunenatzat jotzen duen "izan" eta "ukan" aditzarekin sintagma atributibo eta aditz iragankorren ISnor mugagabeen kasua aipatzen du:

---

[132] ENBEITA, P.; "1913ko Bagillako Baztango ujolde nagusiyari" *Euskal-Erria*, 1145, 1916-1-30, 62. or.

[133] ORIXE; "Artikulua edo muga-itzez" in *El Día*, 1933-4-16; eta *Euzko-Gogoa*, II, 1950, 15-16. or.

[134] "Idazle askori oso atsegin zaizkigu Lizardi ta zure idazkera: baña zuen bidetik jarraitzeko araurik eztegu ta erditsurik gaituzu sarritan. Euskereak, euskelgi guzietan dituan apaingarriak batuaz, neskatu (sic) bear du askoren iritxiz, ta ni ere uste orretan nazu: baña gure jakin-urriz lotuak gelditzen gera asko eta asko."

Edergarri oietarik bat, nere aburuz, itzak "artikulo" gabe erabiltzea da. Gure artean ezta orrelakorik: guk geiegi erabiltzen degu artikulo ori eta orrengatik erdeldunak sarritan esan digute: "el vascuence todo termina en a". Izan ere onenbeste artikuloz izkuntza moteldu egiten zaigu. Artikulu-kentzeak ordea, euskeriari gizena kendu ta giarri-uts eginda uzten du gure izkuntza.

Zuei ikasi-bide au artu nai nizuke bada, baña ez jakin zenbateraño utzi diteken artikulo ori: noiz bearreko degun ta noiz baztertu al-dan...". ARTIZ, X.; "Orixe'ri", *El Día*, 12-4-1933; *Euzko-Gogoa*, II, 1950, 15. or.

"Erri ontan entzun dut "emen oteak indar du". Nola erdera diteke? "Aquí el argoma tiene mucha pujanza". Ez daiteke "mucha" ori kendu. Beste itzez emagun: "emen oteak badu indarra" naiz, "emen oteak indarra badu". Bi otara esan oi da gaur, batez ere etzinaldeko euskalkietan. Zenbait euskaldunek, "aquí el argoma ya tiene fuerza" itzuli lezakete, ya ori indarrez edo énfasis emanik. Ortaz muga-itz orrez gaiñera, beste zerbait ere isiltzen dugu. Esagun bestera euskaraz: "emen oteak indar aundia du"; "zer indarra dun emen oteak"; "oteak bai emen indarra dula". Erdera-kutsuz ordea. "Emen oteak indar du", ederkiago. Beraz,

1.go arau: esanari indar ematearren zerbait ixiltzen dugunean (aundi, asko, bai, zer...) ixil dezaguke muga-itz edo artikulua ere. Oar ordea, olako itza galde-itz edo "inquisitivo" gertatzen delarik, aditza azkenera bialtzen du: "ba du indar: indar du".

2.garrena: (lengora yotzen du, baiña bakoizteko xea dezaguke). "Gauza itz au ixiltzen dugunean, ixil dezaguke daraman izenondo edo "adjetibo"aren muga-itza ere. Adibidez:

Eder zeruan izarra,
errekondoan lizarra...

Askan eder da garia,
aren gainean txoria,
erraztun batek bildu lezake
andretxoaren gerria."

"Oraindik Gipuzkoan ere, Olentzaro-kantetan, gelditu da esabide eder au" [135].

Orixek ematen dizkigun lehenengo bi arau hauen legepean sar litezke Lizardiren bertsoetako zenbait sintagma mugagabe:

"Belarpeko txuloa kilkerrak bai *eder*
baña gizontxoa-alegia— ez izaki *kilker*!"
(ZE 43-44, 135)

"Lurra ta biok elkarri muinka zaudete
ain adiskide zaarrek azken-agurra bai *neke*"
(ZE 51-52, 137)

"Zigor ontaz, Uda ba'al duk *aterpe*?
Ara zuzen nazak, luzatu-gabe!"
(BI 35-6, 157)

Adibide hauetan, Orixek esanaren arabera, mugagabeak funtzio intentsibo bat du, enfasia indarra emateko zeregina, eta, esan dugun moduan, "izan" edo "ukan" aditzekin funtzio atributiboan daude.

Hauen antzerakoak dira Lizardik hain ugari erabiltzen duen molde berezi batean agertzen zaizkigun mugagabeak, erabat funtzio enfatikoa dutelarik, bokatibo gisan ezarriak:

"Itzal! Baso'ren ume jaukal,
xaloagorik ezin aal:
beltzeran, begi bai azal:"
(BI 43-45, 159)

"Atsedenaren eliz, zutoiz bete,
osto pillo ta izai izunak abe:
ta i bertan oianeko jaupaleme..."
(BI 54-56, 159)

135 *Ibidem*, 15. or.

"Uda! gar zoragarri, suzko itsaso:
untzi geriza untan nai aut igaro..."
(BI 67-68, 161)

"Uda —suzko itsaso— baitut ibili
gerizpe atsegin bat nuela untzi,
ondoaz legorra jo dit emeki:
ondarreta bat du, soil eta gorri."
(OG 1-4, 165)

"Txindoki, orain agokit aurrean
goriak astundu-tantai arrizko..."
(BI 28-29, 157)

Beraz, apostrofe enfatiko gisa erabiliriko hauek, nahiz haien aposizio gisa jokatzen duten beste hainbat sintagmetan, beti "izan" aditza suposatu behar denez, lehen multzo honetan sartu behar dira, eta funtzio enfatiko bera, indar emateko funtzio bera dutela esan. Sailik ugariena dugu zalantzarik gabe, Lizardik duen sintagma nominalak elkar gainkatzeko joeraren ondorioz.

Orixek aipatzen dituen mugagabea erabiltzeko arauen artean gaur egungo gramatika guztietan jasoa dagoen zenbatzaile zehaztugabeekiko duen lotura ere azpimarkatzen du hirugarren arautzat:

> "Oinbesteko bat zeatz adirazi nai ez dugularik, "a" isildu egin oi dugu: "Elur-melur, enuk ire beldur; etxean badiat arto ta egur". Bestera "badiat (naiko, aski, bear ainbat...) arto ta egur" [136].

Laugarren arautzat aurkezten duenak, ordea, zerikusi zuzenagoa du hemen darabilgun gaiarekin. Hots, errimaren betebeharrak eta mugagabearen erabilerak duten zerikusia aipatzen duenekoa:

> "Beste zenbait aldiz, itz-erorkera edo 'rima" dala bide, sortaldeko bertsolariak batez ere" [137].

Hona hemen bada, Altunak eskaintzen dituen autore zaharretako adibideak ikusirik ondorioztatzen genuen lehen irudipen hura baitetsirik, alegia, Orixeren ustez ere Ifarraldeko olerkarietan aurkitzen dela mugagabearen erabilera hau errimarako lizentziatzat harturik.

Lizardik errima eta mugabearen erabilera elkarloturiko adibideak, ziurrenik bere errima zailenen adibidetzat ere aipatu ahal izango genituzke:

"Sagasti solla lotan,
abar makur naaspil;
zelaiek, orbelpean,
ametsetan Orril;
(IOI 41-44, 201)

"Orra noizpait ere beeraño el,
ta leotza arki dut ondoaren sabel"
(GM 21-22, 209)

"Aapaldiak elkarren ondoren
yalki ta uso zuri antzean, zetozen
itzuli itsaso urdiña zear,
mokoan, edergai, basoaren abar"
(GM 41-45, 209)

---

136 *Ibidem*, 15. or.

137 *Ibidem*, 15. or.

Orokorki esan liteke errimarako erabili izan duenean bakarrik izan direla aztertuak Lizardiren sintagma mugagabeak. Izan ere, mugatzailearen amaiera beti berdinaren itxurazko erraztasuna baztertu eta amaiera berri eta ustegabekoak aurkitzeko aukerari heltzen bait dio Lizardik.

Hain zuzen ere, eta alderdi metriko eta fonikoak aztertzeko Lizardirekin alderatu ditugun beste bi olerkariren praktikak, hots, Arrese-Beitia eta Jautarkolenak ikusi ondoren, bilakaera nabaria sumatzen dela esan behar da.

Arrese-Beitia eta Jautarkolen olerkietan deklinabide atzizkiez osaturiko errimak dira ugarienak, eta Lizardirenetan aldiz, deklinabide atzizkiek osatzen dituzten errimak beste guztien artean gutxi gora-behera erdira besterik ez dira iristen, metrikari buruzko azterketa egin dugunean azaldu dugunez.

Orixeren seigarren arauak bideratzen ditu, bestalde, Lizardiren olerkietako sintagma mugagabe aipatuenetako batzuk:

> "Zerbait nortzen dugularik (cuando personificamos cosas): Eder eta On aide dira: La Belleza y la Bondad, o lo bueno y lo bello tienen relación entre sí. Ortaz tasun isiltzea da. Sarri zakarki erabiltzen ditugu atze-izkiak, isildu genezazkean" [138].

Beraz, Lizardiren Naturaren mitologia sail osoaren nortze prozesu linguistikoa bideratzen duen araua dugu hemen Orixek azaldurik. Nortze edo pertsonifikatze betebeharretarako, Lizardik mugagabean ezartzen ditu zenbait izen sintagma, eta izen propioak balira bezala, hizki larriz idazten du horien lehen hizkia:

"*Itzal! Baso*'ren ume jaukal..."
(BI 43, 159)

"zelaiek, orbelpean,
ametsetan *Orril*"
(IOI 43-44, 201)

"Badut zalantza zein giro izaki
otzaren aala danentz ebaki;
ikus ez baitut *Udaberri*..."
(SL 13-15, 147)

"Anitz egunez, ez gera alaitu
lurtarrok. Goien sar egin baitu
Euri'k Eguzki giltzapean;"
(SL 1-3, 147)

Behin halako hitz bat nortu edo pertsonifikatuz gero, Lizardik mugagabetzat hartzen du eta harekiko sintagma guztiak ere bizidun batekiko errejimen beraz deklinatzen ditu. Esate baterako, pertsonaiarik erabilienetakoa duen "Eguzki/Iguzki" delakoari errege izena elkartzen dionean:

"Egonean daude zuaitzak ere...
Sagarrak eskuan ditu igaliak
Eguzki erregeri eskeiñiak:"
(BI 20-22, 157)

Orixek zazpigarren arautzat azaltzen duenak zerikusi handia du aurreko honekin, izan ere, izenen zentzua orokortzeko erabiltzen diren mugagabeen araua jasotzen bait du bertan:

---

138 *Ibidem*, 15-16. or.

"7.garrena: Lenengo arau ortan sar ere daiteke muga-kentze, guzitaratze edo delako "generalización" [139].

Eratorketa atzizkirik gabeko lexemen zentzua orokorturik duten zenbait kasuren aipamena egin dugu jadanik, —tasun, —kunde, —keta bezalako atzizkirik gabe, mugagabean erabiltzen dituen zenbait lexemaren zentzu orokorraz: "gau latzaren urbil", "otsaren zakarrez", etabar [140].

Zazpi hauek ditugu Orixek jasoriko arauak, mugagabearen erabilera egokia bideratzen duten zazpi legeak. Lizardik ordea, muga zabalagoak onartzen ditu eta mugatzailearen erabilera askeago egiten duela esan genezake. Edo agian esan beharko genuke Orixek oso bidenabarrez bakarrik aipatzen duen arau baten zati diren erabilerak badituela Lizardik.

Hain zuzen ere, Orixek sintagma mugagabeak "izketa esaeratsuan (en estilo sentencioso) ere" erabil daitezkeela esaten bait du. Hizkera esaeratsuan, izan ere, Lizardiren joera estetikoekin bat egiten duen laburzaletasuna, trinkozaletasuna, hitz gutxitan pentsamendu konplexua biltzeko joera bait da nagusi, elipsia izan ohi delarik teknikarik erabiliena.

Geroago ikusiko dugunez, bi ezaugarri horiek sintaxian esaera edo erran zaharren eran laburtzale izatea eta elipsiaren erabilera Lizardiren mintzo elertitsuaren zutabeetako batzuk dira, izan; eta horregatik horiekin batera sintagma mugagabeak ere hizketa esaeratsuaren baliapideetako batzuk direlarik, Lizardiren olerkietan ere aurkitzea ez da harrigarri.

Esate baterako, eta geroago sintaxiaren atalean zehat-mehatz aipatuko dugun egitura trinkozaleen arteko batez adibide gisa baliatuz, ikusiko dugu, euskara kolokialean, egunerokoan eta mintzatuan ezaguna den esamolde batez baliatu dela Lizardi "Sagar-lore" olerkian.

Hala, herrian bizi ez dena berriro herrian ikustean, edo ohituraz, mintzatzen dena bai baina entzulea ibili ohi ez den leku batean ikustean, bere ohizko bizitoki edo lantokitik urrun ikustean, erraza da bertakoak, zera esatea: "Zer, hemengo aldi?". Lizardik esaera horren moldeaz baliatzen da "Sagar-Lore" olerkiaren bigarren ahapaldian:

"Gaur, orra agiri, tarteka, urdiña...
Sor zait barruan larrera-miña;
ta, *aspaldi ez-ta, mendi-aldi.*
Bete ditzadan argiz begiok;
eten zain-giar lotuegiok;
bularra asetuz noan geldi.
(SL 6-12, 147)

"aldi" hitzak hemen "gokaldi" hitzean bezala, bolara, kapritxoa, bat bateko eta zio handirik gabeko griña edo zaletasuna aipatzen du. Hauxe genuke Lizardiren olerkietan batzuetan sumatzen den hizketa esaeratsuari sarrera emateko ahaleginaren lekuko xume bat, azterketa sakonagoa ere merezi duena, ene ustez.

2.2.1.3. I.S. mugagabeen erabilera poetikoaren jatorriaz eta funtzioaz

Lizardiren olerkietako izen sintagma mugagabeek garaikoen artean arreta berezia erakarri zuten, hortxe dugu Artiz-en gutuna lekukotzat. Guda-ondoko aztertzaileen artean ere Pizkunde aroko praktika honen jatortasunari buruzko ikertze-saioak izan dira, Lafitte, Sarasola, Altuna..., batipat erabilera honen jatorri kulto ala herrikoia finkatzeko.

---

139 *Ibidem*, 16. or.

140 III parte honen bigarren kapituluaren 1.3. puntuan azterturik daude kasu hauek.

Lizardiren mugagabetze gehienak azaltzeko erabili dugun Orixeren artikuluak hainbat urraspide ziur eskaintzen ditu, erabilera hori herri hizkeraren altzotik, garaiko euskalariek euskararen muin jatortzat duten herri-hizkeratik harturiko erabilera dela esateko.

Jatorri herrikoia aitortzen dio Orixek, eta errima egiterakoan Ifarraldeko bertsolariek erabiltzen dutela. Patxi Altunak ere "herri poeta" den Etxepareren idazlanetan eta Ziburuko Etxeberrirenetan ere erakutsi digu, garai hartan hedatuago zegoen erabilera ez ote zen idarokiz.

Bestetik, ziurtzat jo daiteke bertsolaritzan ez ezik, olerkigintzan ere erabilera honen jatorria "etzinaldeko euskalkietatik" harturikoa dela, ziurrenik, Ifarraldeko bertsolariengandik ikasia. Herri hizkeraren molde esaeratsuak eta laburtzaleak nahiz Ifarraldeko idazleen idazlan klasikoen azterketaren bidez Lizardiren lanetara heldurikoa dirudi.

Mugatzailea ezabatzea eta ondoren aipatuko dugun Infinitiboa eta partizipioaren arteko neutralizaketa Lizardiren ezaugarri morfo-sintaktiko nabarienen artean koka genitzake. Poetika kontzeptistaren arloan ederretsia zuen hizkuntzaren gaitasun espresibo guztia zukutzearen bidetik, hizkuntzaren berezko egitura laburtzaleenak aztertu, ikasi eta ustiatu zituen, batzuetan baita beren ingurumari arruntetatik aterata ere, ikusi dugunez.

Jatorria finkatu dugularik, funtzioa ere azpimarragarria da. Lizardiren kasuan, Artiz'tar Xabierrek esanikoak guztiz justua dirudi "euskeriari gizena kendu ta gierri-uts eginda uzten du gure izkuntza".

Helburu estilistiko horixe du Lizardik mugatu gabeko sintagma hauez egiten duen erabilerak, eta euskal pentsakeraren, arimaren adierazmolde diren aldetik, beregan bildua duten mundu ikuskera isladatu-nahia ere bai.

Mugatzaile kentzeari dagokionez behinik behin, izenen esanahia abstraktoago bilakatzea, orokorrago egitea da lortzen duen efektu semantikoa, eta ideia poetikoen artean azaldu dugunez, kontzeptu abstraktoak adierazteko euskarak omen zuen ezintasuna zen hain zuzen ere, intelektual espainiarrek euskarari egozten zioten errotiko akatsa. Kontzeptu abstraktoak adierazteko bide morfologikoa bilakatu zuen mugagabetasuna.

Efektu estetikoari edo estilistikoari dagokionez, beraz, sintagma mugagabe hauek Lizardiren mintzaira poetikoari halako kutsu berezia ematen diote: errefrau eta atsotitzetan, herri-hizkera kolokialearen zenbait moldaeratan sumatzen den hizkuntzaren barrengo-muinaren espresibitate bera, estilistika bera.

Hizkuntzaren molderik jatorrenaren erabilerak sortzen duen efektua, agian Aitzolek aipatzen zuen estilo "arkaizantea"ren misterioak eragiten digu, euskararen jatorrizko egiturek adierazten duten ikuskeraz arduratu den olerkari batek haiek mintzaira poetikoan sartzen ahalegindu denaren obraren aurrean kokatzen gara.

Morfosintaxiaren lehen atal honetan, hots, Izen Sintagmaren berezitasunei eskainiriko honetan lau dira, funtsean, mugatzailerik gabeko sintagmak erabiltzeak dituen zereginak:

1.– Errima beharkizunetan lagungarri izatea. Zaitegik aipatu duenez olerkariek zuten errima berriztatzeko asmoaren zerbitzuan erabiltzen dute.

2.– Esanari indar enfatikoa ematea. Lizardirentzat olerkiaren indar expresiboak duen garrantziarekin erlazionatuz gero, ezaugarri morfosintaktiko honek bere olerkigintzan helburu hau bilatzen du sarritan.

3.– Hitzen zentzua orokortzea eta abstraktizazioa lortzea. Ideia poetikoen artean hizkuntzaren adieraz gaitasuna frogatzeak Lizardirentzat duen garrantzia gogoan hartuz gero, bera dugu Izen Sintagma funtzio honekin gehienik erabiltzen duen olerkarietako bat.

4.– Hizketa esaeratsua, prestigioduna, aintzinakoaren finkotasuna eranstea. Funtzio estilistiko hau duten zenbait pasarte bereziki azpimarragarri eta karakteristikoak dira Lizardiren estiloan.

2.2.2. Aditzaren gorputz fonikoaren eta kategorizapen gramatikalaren moldaketak

2.2.2.1. Aditzaren infinitiboa eta partizipioaren arteko neutralizazioa

Sintagma mugagabeen erabilerari beste berezitasun morfosintaktiko bat lotu ohi zaio Lizardiren hizkuntzaren azterketetan. Aditzaren infinitiboa eta partizipioaren arteko ezberdintasun morfologikoa neutralizatu eta duten distribuzio konplementarioaren arauak gainditzea, alegia.

A. Jatorria

Ibon Sarasolak, aipatua dugun azterketan jasoa duen ezaugarri morfosintaktikoa dugu hau ere, eta garbiro bereizten du lehena olerkigintzaren hizkuntzari atxikirikotzat hartu behar dela, eta bigarren hau aldiz, prosalarien artean ere aurkitzen dela:

> "Iñoiz kontrakoa esan bada ere, ez da "a" mugatzailearen baztertzea nahastu behar olerkariengan nabari daitezkeen gainerako hizkuntz bitxikeriekin, adibidez aditzaren infinitiboaren eta partizipioaren arteko bereiztasun gabeziarekin. Azkeneko hau garaiko prosalariengan ere maiz gertatzen den gauza da. Bestea, ordea, inoiz ez olerkigintzatik at. Beraz, azken honen ezaugarritzat hartu behar dela uste dugu dudarik gabe" [141].

Sarasolak aipatzen dituen prosalariengana jo gabe, Lizardiren beraren aipamenak egin genitzake. Adibide gisa, euskaraz argitaratu zituen lehen kazetari-lanak aipatuko ditugu. 1928an *Argia*n argitaratu zituen "Berriketak" artikulu sailean "astirik galdu nai dutenentzat" delakoan, honela dio:

> "Artabururen batek kaska ezurra mallatu ote-zidan ere jakin naiko dezute, ba... Baña ez, enetxoak; *ez zan orrelakorik gerta*, Jainkoari ta nere oin bizkorrei eskarrak" [142].

Eta aurrerago, baserritarrentzat eginak bide diren bertso batzuetan,

> "Gaizki-esan guztiak
> *barka dizkizutet*;
> bakar-bakarrik min bat
> kolkoan gorde det" [143].

Mende hasierako eta Lizardi baino lehenagoko olerkarien artean aurki daitezke zenbait kasu. Bereziki partizipioaren markaz gabetutako zenbait aditz sintagma azpimarratzera mugatuko gara, ez da oso sarri aurkitzen den moldea, hala ere, eta erregulartasunez, Orixeren idazlanetan bakarrik topatzen da.

Partizipioaren —i edo —tu amaierak dira izkutatzen direnak berez agertu egin beharko luketen aditz-sintagmetan. Esate baterako, Orixek, *Olerki guztiak* liburukian bilduriko olerki zenbaitetan:

"... urruti bial ninduzun" ("Nere ama", 1915)

"ez det uste ikus denik" ("Maitagarriena" 1916)

Orixez aparte, eta euskalkiz hurbilekotzat jo genezakeen Manuel Lekuonaren olerkietan ere aurki genezake adibiderik:

> "*Erakus* ziyon Euskera ezti
> izkuntzetan ederrena,
> lizunkerian itz lasai ta

---

141 SARASOLA I.; "Lizardiren poemagintzaren alde formalen estudio baterako", 961. or.

142 LIZARDI, X.; "Astirik galdu nahi dutenentzat" in *Argia*, 356, 1928-2-12, 1. or.; *K-L* 77. or.

143 *Ibidem*, 1. or.; K-L 79. or.

zatarrik ez dakiena."
("Euskal-erriko sinismena" *Euskal Erria*, 1144, 1916-1-15, 13. or.)

"Euskalerria / pozez jauzia/
zure oñetan/ daukazu,
gipuzkoarrak biotz-sukarra
oyuz *erakus*/ nai dizu."
("Arantzazuko amari" in *Euskal Esnalea*, 1918, 161. or.)

Ezaugarri morfosintaktiko honen hedadura geografikoa eta historikoari ohartuz gero, gauza ezaguna da, infinitibo eta partizipioaren arteko ezberdintasuna ez dela maila berean gorde izan euskararen alor geografiko guztian zehar, eta euskalki beraren barruko diakronian zehar ere ez. Esate baterako, partizipioa gero eta infinitiboaren arlo zabalagoak bereganatuz joan da diakronian zehar sartaldeko euskalkietan, azkenean bizkaieraz eta gipuzkeraz infinitiboaren erabilera ia-ia aginteraren alorrera mugatu delarik.

Hala ere, badira gaur egun ere zenbait euskalkiren aldakietan alderantzizko joerak, infinitiboa partizipioaren ordez erabiltzeko joerak alegia. Orixek esate baterako, Goi-Nafarreraren zenbait herrietan "etor da" eta "ikus du" erabiltzeko joeraz hitzegiten du "Oraindañoko euskal neurtitzak" deituriko artikuluan [144].

Bestalde, Azkueren azterketa morfologikoei esker, euskal gramatikazaleen artean zabaldua zen mende hasieratik —tu atzizki aditz-egilea berez —i edo —n atzizkiz eginiko aditz-partizipioei gaineratzeko joera erredundantea zela. Berez, partizipio amaiera zaharren gainean eransteko joera okertzat salatu zen bidali>bialdu, egon>egondu, irakurri>irakurtu...joera, azkenik, —tu gabeko aditzak zaharragotzak jotzen zirelarik.

Nolanahi ere den, eta aipatu ditugun arrazoi hauetatik Pizkunde aroko idazleoi eragingarrien izan zitzaiena nabarmendu ez genezakeelarik —ez dago nik dakidala honi buruz Orixenaz gaineko beste azalpenik-, jo dezagun olerkarien artean izan zuen erabilera deskribatzera eta zein helburuz erabili zuten aztertzera.

B. Funtzioak

Alde batetik eta begibistakoa denez, errima ugariagoak, berriagoak egiteko aukera eskaintzen zien. Bestetik, mugatzaile ezabaketaren kasuan aipatu dugun indar adierazkorra eta trinkotasunaren alorrean muina nabarmentzeko joera morfologikoa ikusten da, infinitiboa aditzaren erroa, alderdi lexematikoa soilik bait da, eta aldi berean hizkera esaeratsuan ohizkoa den labur eta trinkoaren kutsua hartzen du:

"Izadiari zizkiok kendu-alak *ken*
Aren irentsi-bearra ez dik ezerk asetzen.
Larreko zezena, oianeko basauntza,
odeietako txoriak... Oro gizkonak *eiza*..."
(ZE 40-44, 135)

Ahapaldi honetan ikusten diren bi adibideek partizipioaren ordez infinitiboa erabiltzea esamolde berezietan espresibotasun berezizko esamoldeetan gertatzen da, "esaera eginak" dira edo haien tankera hartzen dute.

Gehienetan ez dira partizipio/infinitibo neutralizaketak esaldi arruntetan gertatzen, indar espresibo berezia eman nahi zaienetan baizik. Galdera erretorikoetan edo bestelakoetan, esate baterako:

144 *Itzaldiak*, VI, Durango, 1930; *Idazlan Guztiak, III Artikulu eta saiakerak*, Etor, Donostia, 1991, 327-346. or.

"Betidanik, eskale labur, emale eder:
ire bizi guztian, txarkeri bat al-duk *ager*?
(ZE 15-16, 133)

"*Ikus dun* ori, laguna?
Ez din, orratik, orretxek yaso makala,
"ederrez ain motza dala..."
(Zozoak beleari... dakiguna)"
(Ald 53-56, 49)

"Sartu" eta "ikusi" aditzak sarri izaten du erabilera hau, galderetan bezela, bait— aurrizkiaz eginiko esaera esplikatiboetan edo kausaletan:

"Anitz egunez, ez gera alaitu
lurtarrok. Goien *sar egin baitu*
Euri'k Eguzki giltzapean;"
(SL 1-3, 147)

"Badut zalantza zein giro izaki
otzaren aala denetz ebaki;
ikus ezpaitut Udaberri..."
(SL 12-15, 147)

Narrazio egiten duenean eta bat-batean gertaturiko akzioak azaltzeko ere aditz laguntzailea izkutaturik, aditz erroa erabiltzen du partizipioaren ordez:

"*Sar* eta... zuaitz jantziak.
Urrats bat egin, ta... adar uts.
Oroipen-Txoriez zeuden
beterik: ni *ikus* ta, bat-batean,
egoei eragin ziten."
(AZB 16-20, 187)

"Ikusi" eta "ageri" aditzak kenduz gero, gainerako adibide guztiak *-tu* atzizkiaz eginiko aditzak dira, hots, atzizki erromanikoaz eginiko aditzak, eta partizipio markaz gabeturik, erroek zuten balore gramatikala berreskuratzen dute, adjetiboa edo izena gehienetan, eta zenbaitetan elkarketa harrigarria, zentzu berri bat, esamolde anbibalentea lortzen da aditz laguntzailea eta erro nominalaren artean:

"Beste erpin musker bat or baita agiri,
maldan-gora *zaizka zuaitzak geldi*:
oker, ats-estuka, lurrari itsatsi-
mendizale makal unatu iduri."
(BI 31-35, 157)

"Larreko xomorro ozenen zantzurik
ez da iñon. Aspaldidanik
ixil zen olerkari jaun Kilkerra:"
(OG 37-9, 167)

"Ark jo ta ik ezin baituk burua *geriza*,
amildu aiz goitik, atereaz lertu-ots gaitza.
(ZE 47-8, 137)

D. Sailkapena

Lizardik hizkuntzari eragiten dizkion aldaketa horien sistematizazioan, partizipioa mugagabean emanez lortzen dituen efektu estilistikoei dagokiena aipagarrienetako bat da eta zehatz mehatz biltzeari ekitea iruditu zait egokiena.

D1) Zenbait aditz, modu laburtuan bakarrik agertzen dira Lizardiren olerkietan, forma bakartzat, arruntzat —tu gabekoa balitz bezala:

Arki: arkiko al dituzte (O 644, 25)

arki dut (NUY 2, 83)

arki ditek (ZE 24, 135)

erdian dut arki (AZB 36, 189)

arki dut (GM 22, 209)

Erabilera ezaguna da, konparaburu bakar bat aipatzearren, 1928an Arrese'tar Emeterik, ordurako idazle konsagratua zenak argitaratu zuen *Txindor* liburuan ere, "arki" da "aurkitu"ren formarik arruntena:

> "... Lili bikañez apaindu zeran
> udaste naro, maitea:
> zartu naiz, baña zugan *arki det*
> gogo-muin berri ezea"
> ("Udaberri" 29-32, 31)

Edo

> "Arratsalde da.
> Itxasoan *arki naiz*".
> ("Agur, Euzkadi" 1-2, 39)

D2) Bigarren sail batean bil daitezke, esaldi bereziki espresiboetan, esaldi esklamatiboetan, esaeratsuetan, etabar, kokaturiko kasuak:

Esklamatiboak:

"oro gizonak eiza ..." (ZE 40, 135)

"ezin baituk burua geriza" (ZE 47, 137)

"egunero berpiz lurpean dagona!" (GM 10, 207)

"orra noizpait ere beeraño el" (GM 21, 209)

"uka maitasunak baitik /... t'ez eskein" (Ag 6-7, 113)

D3) Hirugarren sail honetan, berriz, aditzaren aspektu burutua adierazten duen *-tu* atzizkia kendurikoak. Ez diote, esaldiari inongo zentzu berezirik ematen, laburrago aritzea, edo zenbaitetan, agian efektu foniko edo erritmiko berezi bat lortu nahiaren ondorio direlarik.

"eska zioten" (ZA 27, 43)

"abia ziran" (XE 53-54, 65)

"bultza naute" (BMD 64, 123)

"suma nuen" (GM)

"biur dan biotzak" (BMD 116, 127)

"sor zait barruan" (SL 8, 147)

"sar egin baitu" (SL 2, 147)

"ordi-antzo sar nazu" (BMD 66, 123)

"sar naun geldixe" (BI 48, 159)

"Eguzkia nondik sar atsedenean" (OG 9, 165)

"sar eta zuaitz jantziak" (AZB 16, 187)

"ikus ezpaitut Udaberri" (SL 15, 147)

"mintza zitzaidan" (AZB 54, 189)

"Ikus amonak" (AZB 79, 195)

"gauez kalerik-kale/ ibil oi diranak" (O 63, 25)

Alderantzizko kasuak, hots, aspektu ez-burutua behar lukeenean *-tu* atzizkiak baliatuz olerkariak silaba bat gehiago lortu duen kasuak ere badira, bi besterik ez badira ere:

"barkatu zaiozu" (Ag 30, 115)

"esnatu nadi" (OG 76, 171)

Garbi dago, neurria, silaba kopurua, duela hauetan eragile.

D4) Esana dugunez, ez dira mende hasierako idazleetan bakanak bereziketa hau gaindituz bertsoaren neurria lortzen duten olerkarien bertsoak. Sarasolak prosalariek ere ohitura hori bazutela gogoratzen digu eta Orixek 1928ko hitzaldian zenbait herri nafarretan "etor da" eta "ikus du" bezalakoak esateko ohitura aitzinkaritzat aipatzen du. Beraz, ez da mintzaira literarioaren esparrura mugatzen "lizentzia" hau.

Nik neure aldetik erantsiko nuke Lizardiren beste zenbait hizkuntz ezaugarri bezala, infinitibo eta partizipioaren arteko mugaren arau gramatikala gainditze honek Orixe edo XX. mendeko idazleak baino aurreragoko aitzinkaririk badutela: atsotitzak.

Atsotitzetan, Ifarraldeko idazleek bildurikoetan, sarri aurkitzen ditugu horrelako laburdurak:

"Behorraren ustikoak; eztitu senti garanoak" [145]

"Artzainak samurtzuz (sic) direnean gasnak ager" [146]

Beharbada gogoratu behar da bigarren adibide honen sakoneko egituran "ager zitezen" aditza legokeela. Bai, ezagunak dira "Artzainak haserra zitezen, gasnak ager zitezen" moduko aldaerak, baina kasu honetan, esaldiaren lehen zatian dagoen aditzaren aspektua ohiturazkoa ez ote den nago ni. Lehen adibidean ere halatsu: "ez ditu sentitzen" izango genuke azpian.

Ondoren aipatuko ditudan Lizardiren bertso hauetan, hirugarren sailekoetan ez bezala, aspektu ez-burutu ohiturazkoa legoke isildurik:

"Betidanik eskale labur, emale eder,
ire bizi guzian, txarkeri bat al-duk ager"
(ZE 15-16, 133)

"Kalerik ez ageri,
baratza dago tarteka;
beso giarrez, yotzen
al duzu, arrika;
Gazte'z aurreka
arako torre zarra
zuti, baratza non buka"
(GE 50-56, 243)

"zu'ka zoroki mintza zitzaidan
zaldu arrotza bainintzan"

---

[145] (Oihenarte, *Proverbes*, 76)

[146] Duvoisin; *Euskara*, XXV, 1978, 174. or.

(AZB 54-5, 189)

"koskak elur-dirdira
bil ta, dirudia
amets eder mamitu
ortzian geldia"
(IOI 69-73, 203)

"Gogapenak elkar bil-ari meeñoa
beñola zaik eten... Adi-yauregia!"
(Ag 12-13, 113)

D5) Azken sail honetan bilduko ditugu azkenik, partizipio marka kendurik izen edo izenondo, eta are aditz lagun formarekin bat egiten duten aditz formak.

Alegia, aditz multzoa berez laguntzailea denak bakarrik osatzen duenaren efektua ere egiten duten kasuan, aditzaren lexemak izen, izenondo, aditzondo edo aditzlagunaren betebeharra dutela ere badiruditenak:

Eredua "erne da bizia" (NUY 31, 85) edo "aier zaizkio" (BiL 34, 143) izango litzateke.

Izenak

"bira ditut begiak" (NUY 71, 87)

"otoi nizun zerua" (PT 58, 101)

"badoa dei-dion ao gorrira" (Ald 40, 47)

"laztan dut" (AZB 56, 191)

"laztan du" (AZB 81, 195)

Izenondo "narras dut gogoa" (YE 2, 17)

"lasa adi" (BMD, 125)

"ixil zen" (BI 39, 167)

"muinki dut estu" (GM 38, 209)

Aditzlagun: "bertara danean" (NUY 28, 85)

"basora naiz" (BiL 25, 143)

Hauen kidekotzat aipa litezke "ukan" eta "izan" aditzak sintetiko gisa erabiliz Lizardik sarri erabiltzen dituen "biotzean min dut" (BMD, 119) edo "beldur naiz" edo "yabe dituk geroz gaua ta naasia"(Ag 14, 113) edo "eder aunagu" (EB 7, 175) bezalako aditz egiturarekin bat egiten dutenak.

Honelako egiturak osagarri zuzena mugagabean duen "min dut" delakotik eta atributua mugagabean duen "beldur naiz" bezalakoetatik, azken bi adibideetako sintagma predikatiboetarako bidean daude. Beti ere, aditzaren esanahi lexematikoa izen sintagmaren gainean kokatzen da eta aditz osagarri guztiak laguntzaile den "izan" edo "ukan" aditzaren forma sintetikoaren gainera biltzen direlarik.

2.2.2.2. [Izena + Ukan/Izan] egitura

Egitura honezaz baliatuz, aditz multzoa berez aditz laguntzaileak bakarrik osatzen du eta aditzaren osagarri lexematikoa atributo edo osagarri zuzena den IS batek ematen dio. Honela lortzen du Lizardik euskal idazleek —garai hartakoak nahiz oraingoak— aipatu duten euskal aditzaren manejagaiztasuna eta astuntasuna.

"Biotzean min dut" edo "beldur naiz" bezalakoen eredura sorturikoak dira ondoren aipatuko ditugun hauek, "ukan" eta "izan" aditzak sintetiko gisa erabilirik eta izena edo adjetiboa mugagabean dituztelarik:

"Egur ezearen kea / goiak *du kolore*" (BiL 2, 141)

"nik *gogo dud*an bezin gartsuki" (EB 14, 177)

"lore bat ondoan/ *eginik du mami*" (OU 46, 109)

"*yare dik* Euskadi" (IOI 96, 205)

Adibide hauetan aditzak laguntzaile baten gisa jokatzen du "kolore", "gogo", "mami", "berezi" eta "yare" izenondo edo izenekiko, baina aditz horiek ISnor edo ISatributua da.

Ondoren aipatuko diren hauetan aldiz, aditz iragankorrak osagarri zuzena zehaztera datorren atributo moduko bat ere badarama, IS Predikatiboa deitu ohi zaion IS bat. Oihenarten "proverbe" honetan ikus daiteke eredua:

"Ahoan min duenari eztia karmin" [147]

Morfosintaxiaren alor honetan bereziki aztertzen ari garen bi moldeen eredu gisa balio du Oihenarten atsotitz honek: alde batetik, "min ukan", eta bestetik, "eztia" ISnor delakoari eratxekiriko Izen Sintagma Predikatiboaren "karmin" eredua.

Beraz, berriro ere euskal erran zaharretan edo atsotitzetan aurkitzen dugu Lizardiren zenbait egitura morfosintaktikoen eredua, alde batetik, aintzintasunak ematen dion bermeari trinkotasunarena, aditzaren elipsia (zaio) eta Izen Sintagmak atzizkirik gabe, soil, ematearen abantaila estetikoa gehitzen zaiolarik.

2.2.2.3. Sintagma Predikatiboak

Berez, oinarrizkoa den Izen Sintagmetako bati erreferitzen dion Sintagma burujabe bat da, honela, predikatiboak ISnor, nork edo nori bati loturikoa izaten da, baina esaldiaren barruan askatasunez mugitzeko ahalmena izateaz gain, hots, halako sintagma bati buruzko zehaztasuna esaldiaren barruan nahi den unean, hautatzen den unean emateko askatasuna eskaintzeaz gain, sarritan "ukan" edo "izan" aditzaren ondoan emanik, arestian aipatu ditugun aditz multzoen antzekoak osatzeko aukera eskaintzen du: hona hemen beltzez markaturik sintagma predikatiboak eta haien oinarri den sintagma erreferentziala azpimarkaturik:

1.– "*yabe* dituk, geroz, *gaua ta naasia*" (Ag 14, 113)

2.– "*begiok ero* ditut" (BMD 82, 125)

3.– "Alatsu txoriak uda-ondoz

negua du *galazi-eziña*" (BMD 126-7, 129)

4.– "*leen-oiartzuna* dut *ozen* gogoan "(OG 52, 165)

Lehen lau adibide hauetan predikatiboa, atributoak bezala, mugagabean dator.Hurrengo hauetan aldiz mugaturik:

5.– "*aizea* dabil *busti setatia*" (OG 35, 167)

6.– "*irudimena* uan *giarra*" (Ag 15, 113)

7.– "*zabal-naroa* nuen *baratza* (AZB 34, 187)

8.– "*otsak astindu-gaitza* du *loa*" (XE 159-160, 77)

---

[147](Oihenart; *Proverbes*, 541)

9.– "Udalenak *irrial* oi du *zoro-ozenal*

udak *aragikoial* udazkenak *benal*" (IOI 17-25, 199)

10.– "*Urrezko itxaso* bebilt *urduria*" (OG 72, 171)

11.– Ene leozpetu jare-berri,

eusko orok zaitzagu (*zu*) *miñen eztigarri*"

(GM 49-50, 211)

Berez, predikatibo osagarri erreferentea, isildurik, baina aski begibistakoa den "zu" da, ISnor delakoa. Lehen hamaika adibide hauetan predikatiboa ISAdjetiboak betetzen du, benetako atributu baten gisakoa da, baina kopulatiboa ez den aditzaz.

Beste zenbait kasutan predikatuaren funtzioa, hots, halako IS baten zehaztapena emateko beste Izen Sintagma batez baliatzen da. Eredu gisa euskaraz ezaguna dugun eredu bati lotzen zaiola esan daiteke, inguruko hizkuntzetan parekorik ez duena, eta hizkuntza kolokialenetik poetikoenerako ahalbideak eskaintzen dituena:

12.– "Zenbaitek *ondamendi*

baituten *katea*

Lore sorta bekizu

goi-muñoak zear! (BMD 55-56, 123)

13.– "Negargarria! Leio ostean itzalia

bizitz-bizitza uan *garra*" (Ald 81-82, 51)

14.– "*Zuaitz-tartetandiko urre-nabarra*

bezagun *udaren bitxi bakarra*" (BI 61-62, 161)

15.– "Gaztetzaro ogitik *yakide* ninduken (Ag 22, 115)

16.– "Ba'aramakete eraman! bestela *mendia*

ezpainikek geiago *begiaren pozgarria* (ZE 55-56, 137)

17.– "otoi nizun zerua,

zeatz adiraziz

gizon baiño naiago nuke *txolarre*" (PT 60, 101)

2.2.2.4. Aditz sintetikoak

Aditzaren erabileraren alorrean, ikusi dugu IS predikatiboaren atalean batez ere aditz laguntzaile gisa erabiltzen diren Izan, Ukan, Edin eta Ezan direlakoak aditz sintetiko burujabe gisa erabiltzen dituela, batez ere trantsitiboak edo iragankorrak direnak.

"Ukan" aditza sintetiko eran jokaturiko adibide ugari aurkitzen dira Lizardiren olerkietan. Euskararen normaren barruan dihardu, zalantzarik gabe, baina norma hori intentsifikatua dago, euskaraz ohi dena baino sarriago erabiltzen du Lizardik, tresna egokia bait zaio aipatu diren egitura morfosintaktiko horien bidez aditzaren gorputz fonikoaren astuntasuna ekiditeko.

Hona hemen sintetiko gisan eta ez laguntzaile gisa erabilirik dauden kasuetako zenbait:

IZAN "ondar ximelenik gabe zen otarra" (OU 37, 107)

"arriak ere baitira itzal" (BMD 42-43, 121)

"basora naiz" (BiL 25, 143)

"bertara danean" (NUY 28, 85)
"aldegiña aiz" (Ag 9, 113)
"joana da...joana" (NUY 77, 87)
"izu-ikara nintzan" (GM 8, 207)
"amets-arteko oiu bailitzan" (GM 7, 207)

EDIN "bitez agur nereak.../zuretzat"(O 7-12, 21)
"leengoa ditekek" (Ald 79, 51)
"bekik iretzat oiu alai au" (SL 67, 151)
"Begi-ogeak nork sakon-askiak/
gaiñez ez dakien aren argiak" (BI 5-6, 155)
"ez adi beldur" (EB 25, 177)

UKAN "bizitz-bizitza uan garra" (Ald 82, 51)
"baninduzu zerea" (BuL 22, 93)
"ari dut negarra" (OU 40, 107)
"eginik du mami" (OU 48, 109)
"yabe dituk" (Ag 14, 113)
"gogo dudan" (EB 14, 177)
"irudimena uan giarra" (Ag 15, 113)
"badut zalantza" (SL 13, 147)
"txoriak, uda-ondoz,/ negua du galazi-eziña"
(BMD 126-127, 129)
"zalantza dut" (OG 22, 167)
"odola dut begietara" (OG 34, 167)
"eder aunagu" (EB 7, 175)
"elurpe du oro" (IOI28, 201)
"iluntzeak ditun sorbeltzak" (Ald 12, 45)
"zizukean zorra" (Ag 30, 115)

EZAN "zuatzi tartetandiko urre nabarra/
bezagun udaren urre bakarra" (BI 61-62, 161)
"(zu) zaitzagun minen eztigarri" (GM 50, 211)

Aditz Laguntzaile gisa erabiltzen ditugun hauek sintetiko gisa erabiltzearen ondorioz aditzaren gorputz morfologikoa arintzea lortzen badu, jadanik aipatuak diren sintagma predikatiboaren egituraz edo [Izena/Izenondo + Ukan/izan] egituraz baliatuz, zer esanik ez dago aditz sintetiko ezagunak direnen hainbat molde erabiliz lortzen duena.

Hona hemen *Biotz-Begietan* liburuko 21 olerkietan erabiltzen dituen aditz sintetikoak zerrendaturik:

JOAN bijoa (O 11, 21); goazeman (EB 79, 183);

IKUS zakuste (O 24, 23); dakusgun (ZA 7, 41); baizenkustan ikus (OU 6, 105);

lekuskez (BMD 44, 121); akust (AZB 82, 195)

bekusat (OG 62, 169); nenkusanetan (AZB 14, 185);

ERRAN erraidazu (OU 30, 107);

ERION zeneriodan (YE 13, 17); darite (BMD 114, 127);

maiteak yario (IOI 38, 201);

EMAN dama (NUY 31, 85); baidamada (OG 58, 169);

EGIN ames dagit (O 91, 29); par zegioten (ZA 16, 41); otoi-zegian (ZA 34, 43); goruntz egik (BMD 86, 125); begi (EB 17, 177); dagigun arraun (EB 50, 179);

dagio (IOI 40, 201); yare-gagizu (GM 52, 211);

ETZAN natza (OG 26, 167); zetzan (EB 44, 179);

ENTZUN dantzut (O 103, 29);

IBILI nenbilke (MG 4, 35); bebil (PT 53, 101);

dabilt (BMD 84, 125); bebilt (OG 72, 171);

ERABILI darabil (AZB 50, 189);

EKARRI narakark (MG 12, 35); banekar (PT 48, 101);

ekatzan (EB 4, 175); bekargu (EB 35, 177);

lekardake (AZB 33, 187).

EGON balegok (MG 32, 37); begira nagoka (OU 43, 107);

agozkik (ZE 9, 133);

bego, beude, bego (SL 43-45,149);

dagotzu (BI 25, 157); begoz (BI 63, 161);

yoka nagokik (AZB); dagokit (AZB);

zaudate (51, 137).

ESAN diotsa (ZA 6, 41); ziotsan (ZA 20, 43); dio (Ald 30, 47); zioskan (Ald 50, 49);

oiuka dio (BMD 120, 129); diotsat (AZB 62, 191).

ETORRI atorkit (Ag 4, 113); datortzu (BMD 77, 125); datorkik (ZE 45, 137); betor (ZE 54, 137);

atorkit (EB 5, 175).

ERAMAN ba'aramakete eraman (ZE 53-55, 137);

zaramate (OG 47, 167).

IRAUN balirau (BMD 107, 127).

IRAKIN irakin diraki (BI 13, 155).

IRUDI dirudia (IOI 70, 203).

IHARDUN iardukan (ZE 34, 135); ziarduten (AZB 88, 195).

EDUKI zedukan (ZE 36, 135).

ERAGIN daragio (OG 36, 167) daragio (BI 58, 159).

UTZI uztagun (EB 6, 175).

Honaino aipaturiko aditz sintetiko guztiak dira gaurko euskaraz erabilera arruntekoak, batzuk hain sarri erabiliak ez badira ere, esate baterako, "ba'aramakete eraman" edo "daragio" bezalakoak.

Arreta berezia merezi dute aipaturikoetan, zalantzarik gabe, aditz laguntzaile direnak sintetiko gisa erabilirik hartzen duten indarra, hasieran aipatu dugunez, eta azkenik, aditz sintetikoen kopurua hain ugaria izanik, alde batetik laburzaletasunaren zerbitzuan eginiko aukera dela azpimarratu behar da, aldi berean Aitzolek 1931ean jadanik azpimarratu zuen kutsu arkaizantea:

> "Este año ha sido premiado. Su poema *Uzta Erdi* ha merecido el galardón simbólico. Es un fragmento de las estaciones del año. Poesía de valentía artística. De acusada fisonomía, personalísima. Original y nueva. Sin embargo, su estilo tiende a un marcado arcaísmo. El corte de sus versos, el giro sintético del verbo, su concepción concisa nos recuerda algunos versos del más antiguo de nuestros poetas, de Dechepare" [148].

Aditz sintetikoei buruzko ataltxo honetan aipa ditzagun azkenik, Sabino Aranaren inguruko gramatikalarien eraginez, Eleizalderenaz batipat, garatu zen aditzaren jokaera sintetikoa. Mende hasieran zegoen iritzi gramatikalak zionez, adizkera sintetikoa zen jatorrizkoa eta aintzinakoa aspektu puntukaria adierazteko modu jatorra eta aintzinatean aditz orotara hedatzen zena.

Mende hasieran, sistematikoki sortu ziren Sabino Aranaren eskolakoen eraginez aditz guztien era sintetikoei, eta Lizardiren lanetan horren frogak ikus daitezke. Dena den, Lizardik honelako aditz sintetiko asmatuetarako zaletasun gutxi-gutxi duela azpimarratu behar da, bere garaikide den Lauaxetaren erabilerarekin alderatuz gero, esate baterako.

Ohar bedi aipa genitzakeen zazpi adibideetatik lau *Izotz ondoko Iguzki*tik harturikoak direla, alegia, errima, sintaxi eta aditz sintetikoari dagokion honetan ere joera erradikaleenen lekuko den olerkikoak:

EDAN "dadat" (IOI 13, 199)

ARI "ario" (IOI 36, 201)

OTOI "dotoigu" (IOI 79, 205)

AMESTU "amestan" (MG 21, 37); "damesgun" (GM 47, 211).

IGO "ikustera aal-baningoke" (ZA 24, 43).

2.2.2.5. Zenbait aditz perifrasi

Aditzaren erabilerari buruzko atal berezi honetan Lizardiren hizkera literarioan aipagarri gertatzen diren beste zenbait puntu ere aipatu behar dira. Esate baterako, "jo" aditzaz baliaturik ordezkatzen dituen bestet zenbait aditz.

Jo aditzaz eginikoak

"Yo dizut begiz..." (YE 10, 17) < begiratu

"Begiak ez du jotzen..." (XE 63, 67) < nabaritzen

"Begiaz dut ...yo" (NUY 75-76, 87) < begiratu

"Yo dezadan murkil" (O 45, 25) < murgildu

"Begi bear diot" (SL 32, 149) < begiratu

Perifrasi hau erabiltzearen arrazoia, ene ustez estilistikoa izan daiteke barietatea eman nahi izatea, baina baita aditzaren gorputz fonikoa laburtzea ere. Malgutasun handiagoa eskaintzen diote

---

[148] AITZOL; "De la fiesta literaria de Tolosa" in *El Día*, 1931-11-8; *Idazlan Guztiak*, 185. or.

perifrasi hauek, ordenaz alda litzake, eta eskuinaldean jarri ditugun ohizko ordezkoek baino erritmo biziagoa eskaintzen.

Ikus, esate baterako, *Jaun errukitsuboi* delakoaren bi bertsioetan erabiliriko perifrasiak ordena aldaketa askatasuna eskeintzen diola heldu aroko bertsioan:

a) "Ta zeu asperkunde-tximist ikaragarriya
uste nula, *begiz-jo nuban* goya, izu-izirik..."(1917)

b) "Ta zure zigorbidezko oiñaztarri larria
usterik, *yo dizut begiz* ortzia, izu-izuna..." (1932)

2.2.2.6. Adizkera etikoa

"Zutanoa" deituraz ezagutzen den aditzaren jokaera etikoa, Lizardiren olerkietako giro intimoaren sortzaileetako bat da, tratamendu etiko honi eskerrak irakurlearengan olerkian sentitzen, egiten edo gertatzen denarekiko harremana sortzea lortzen du, irakurlea inplikatu egiten bait du olerkariak komunikatu nahi dion horretan.

Orixek "Lizardiren azken olerkiak" deituriko artikuluan [149] bereziki azpimarratzen du Lizardik tratamendu etiko hau erabiliz lortzen duen "berotasuna", irakurlearenganako hurbiltasuna, irakurleari ere badagozkion sentimenduak eta gertakariak balira bezala aurkezteko modua eskaintzen dion tratamendu hau nabarmenerazten du:

"Bizi ote dut?" (AZB 15, 185)

"Nor zaitut?" (AZB 58, 191)

Esapide hauek azpimarratzen ditu bereziki Orixek. Bizitasuna, sentimentua adierazteko era segurua iruditzen zaizkio:

> "Nor zaitut? Leizarraga ta olakoak irakurrita ikasi zitun esaera apaiñ ok. Nor zera? askoz otzagoa da" [150].

Orixek esaten duenez, Lizardik euskal idazle zaharrak irakurriz harturiko baliapide "apain" [151] hau ez da berez aditzaren jokaera etikoa edo "zutanoa", elkarrizketakideari dagokion zerbaitetan, "bizi", "izan"... hitzegiten duena ere afektatzen duela adierazteko erak dira. Izan aditza ukan bilakatuz eta akzioaren sujeto norbera bilakatuz. Zutanoan, aldiz, hikanoan bezalaxe, akzioan inplikatzen dena mintzatzen duena izan beharrean mintzakidea da. Baina biak ere erabilera etikotzat jo daitezke.

Orixek berak ere, bestalde, sarritan erabiltzen du tratamendu hau bere idazlanetan.

Baina nondikoa duenaren gaia alde batera utziz, noizkoa duen azalerazi nahi izanez gero, garbi ikus daiteke Lizardiren lehen idazlanetan ez daitekeela tratamendu honen arrastorik ikusi.

Esate baterako, *Jaun errukitsuboi* izeneko olerkiaren bi bertsio ezagutzen direlarik, eta bien artean aldeak txikiak izanik ere, *Biotz-Begietan* liburuтako egin zuenak badauka "zutanoa" erabiliz eginiko esapidea, baina 1917an argitaraturikoak ez:

a) "Lor-atsekabe larriya sortu zuban nigan

---

[149] ORIXE; "Lizardiren azken olerkiak", 409. or.

[150] Harrigarri samarra dirudi Orixek Leizarraga aipatzea zutanoaren erabileraren iturritzat. Etxeparerengandik ikasia izatea sinesgarriago da.

[151] ORIXE; *Ibidem*, 409. or.

obenak;... garratza bai-da eztisuba baño!...
Bildur-izan nintzan, Jaunoi, bai-nekiyelako,
tximist-ostotsaren jabe, Zu zeundela goyan..."
(1917)

b) "*Beldurrez ninduzun*, Yauna, banekielako...
(YE 5-9, 17) (1932)

a) "Ta zeu asperkunde-tximist ikaragarriya
uste nula, *begiz-jo nuban* goya, izu-izirik..."
(1917)

b) "Ta zure zigorbidezko oiñaztarri larria
usterik, *yo dizut begiz* ortzia, izu-izuna..."
(YE 9-10, 17) (1932)

Zutanoa eta "nor zaitut?"-en gisako aditz molde etikoak lehen-lehenik prosazko idazlanetan aurkitzen dira. 1928ko lehen kazetari-lanetan "izadiaren ezkutukiak dituzu oiek" edo "orra nun nagokizuten ni,."[152] bezalako tratamendua erabili zuen irakurlearekiko.

Biotz-Begietan liburuan agertzen diren olerkietan 1930koa den *Biotzean min dut* olerkia da zutanoa tratamendu etikoaren erabilera sarrerazia duen lehena, gero datoz *Baso-Itzal* (1931), *Ondar Gorri* eta *Izotz ondoko Iguzki*koak.

"Bultza naute barrura
nir-nir aunitz argi...
ordia-antzo *sar nazu*,
begi-lauso ta urgun" (BMD 64-68, 123)

"Beroak zapalduta datza oro:
bizidun,landare,aitz eta soro.
Muskerra ta artoa *dagotzu* soilki
eguzki gorritan ezin izerdi" (BI 23-26, 157)

"Berriro *igo nauzu* ene mendira..." (OG 11, 165)

"negu-gau ozkarbien
izotz-ondorena
berriz, bakarra *duzu*:
denetan emeena!" (IOI 21-24, 199)

"Ordun *yetxi nazu* lezera;
nork gere muiñean dugun itzalera" (GM 15-16, 207)

Orixek aipatzen dituen *Asaba zaarren baratza*ko "Nor zaitut?" edo "Bizi ote dut?" bezalakoetan aditz laguntzailearen bidez pertsona gramatikalen artean objetiboki ez dagoen "ukaite"zko harreman sortzea da Lizardik sarritan darabilen teknika.

Esate baterako, Sabino Aranaren gorasarrez diharduen *Gure mintzo* olerkian:

"Il zaarki bizi dugun gizona!" (GM 9, 207)

Guk bizi dugula ez dago esaterik objetiboki, berez bizitzen da bakoitza, baina erabilera metaforiko hau euskara kolokialean ezaguna da.

Aldakeri olerkian irakur genezakeen esaldi honetan indar poetiko berezia du jokaera honek:

---

152 LIZARDI, X.; "orra nun nagokizuten ni" in "Astirik galdu nahi dutenentzat" in *Argia*, 365; 1928-2-12, 1. or.

"Illuntzeak ditun sorbeltzak" (Ald 12, 45)

Berez ez dago iluntzea eta sorbeltzaren arteko jabetasun, edo ukaite harremanik, baina aldi berean ematen dira, leku-denboraren koordenadek elkartzen dituzte eta elkarren arteko harremana sortzen. Era berean,

"Ustez buru gaiñean
gaua *dut* argia (NUY 45, 85)

Hauxe genuke arruntena, olerkariak inguruan dituen pertsona, gauza eta are abstraktoekiko harreman afektiboa adierazten du ukan aditzaren erabilera berezi honen bidez.

"Begira non *dedan*, aterpean zai,
gorputza sotilla, betartea arrai" (BI 41-42, 159)
Olerkariak ez ezik, metaforikoki argiak ere,

"Urrezko yarioz argiak
belarrean *oi ditun*
begibil zoliak" (NUY 57-60, 87)

2.2.2.7. Aditz Sintagmari buruzko azterketaren zenbait ondorio

Aditz Sintagmari buruzko atal honetan nabari diren joera nagusiak hauexek dira funtsean:

Aditzaren gorputz fonikoa laburtzeko joera nabaria:

a) AM edo alderdi lexematikoaren aspektu adierazleak ezabatuz.

b) Laguntzailea sintetiko gisa eta izenak eta izenondoak nahi+ukan gisako ereduan bezala erabiliz.

d) Sintagma predikatiboak eta aditz erdi-kopulatiboez baliatuz.

e) Aditz luze, hiru silabaz goitikoen ordez perifrasiak erabiliz.

f) Aditz elipsiak eginez.

Bestalde, Aditza irakurlearekiko eta munduko gauzen arteko korrespondentziaren adierazbide ere bada, zutanoa eta ukan poetikoaren bidez.

Aditzaren arloan nabaritzen den aditzaren gorputz fonikoarekiko arreta honek Lizardik sortu nahi duen mintzaira poetikorako aditzari egiten dion malgutasun eskaera salatzen du alde batetik: hizketa esaeratsuan behar dituen egitura laburzaleak, elipsiak, etabar, horren lekuko dira.

Indar espresiboa areagotzea, bizkortasuna, estilizazioa denean helburua aditza erredundantea gertatzen da, astuna. Lizardik ahalik eta gehienetan ezabatzera jotzen du.

Aditzari eragin zizkion eraldaketen iturritzat Etxepare, Leizarraga?, atsotitzak eta erran zaharrak eta ahozko hizkera molde kolokialak izan bide ziren, garaikoen iritziaren arabera eta azterketa lan honetan eginiko alderaketen ondorioz.

2.3. ARKAISMOAK

2.3.0. Sarrera

Lizardiren olerkietako zenbait egitura morfosintaktiko bereziren aipamena egitea beharrezko egiten da, batetik, bereziak direlako hainbat merezi dute, baina oinarrizko arrazoi honezaz gain, duten zahar kutsuak, arkaismo itxurak Lizardiren olerkigintzaren joera nagusienetako baten urraspidera garamatza, zalantzarik gabe. Idazle zaharrak aztertu eta sortu nahi zuen mintzairaren iturri bilakatu zituen; haien idazlanetan gorde diren euskararen egitura berezi batzuk berreskuratuz aintzinako euskararen eitea berpiztu eta eite horren arima izpiritua edo mundu-ikuskera erreskatatu nahi ditu Lizardik.

Idazle zaharrei buruz XX. mendearen bigarren zatian argitaratu diren idazlanei esker, hasi Lafonen aditzaren azterketatik eta Axular, Sarako Etxeberri eta Etxeparez egin diren azterketa eta edizio kritikoek, Lizardik egin bide zuen arakaketa eta bereganatze lana antzemateko aukera eskaintzen dute.

Idazle zaharren idazlanekin harremanetan jartzeko bide honetatik abia arazi gaituzte alde batetik, Lizardiren lanei buruz garaiko kritikoek emaniko iritziek. Orixek, Labaienek, Aitzolek eta Markiegik, denek azpimarratu dute Lizardiren mintzaira literarioaren moldaketan euskal idazle zaharrengandik ikasirikoak izan zuen eragina.

Gaur egungo kritikan inoiz aipatu gabeko puntua den arren, Lizardiren obrari buruzko iritzi kritikoak argitaratu zituzten lau idazle hauek, Lizardirekiko harreman estuak zituzten, adiskide zituen, eta beraz, bere iturriak aipatzerakoan lehen eskuko informazioaz baliatu zirela bistan da. Aintzakotzat hartu beharreko puntua deritzot honi.

Balizko eta urrutiko eragin literarioak baino lehenagokotzat aipatzen dute haren adiskideek, eta, bestalde, bereziki euskarak hizkuntza zen heinean zuen moldaerak Lizardirentzat euskal arimaren adierazle zela jakinik arrazoizko dirudi, euskararentzako sortu nahi zuen kanon estetiko kultuaren iturritzat idazle zahar prestijiodunak hartzea.

Honetan oinarriturik, gehienetan idazle zaharrekin bakarrik erabili ohi den azterketa linguistiko eta filologikoa egitera jotzea bidezko iruditu zait, Lizardiren obrari hurbiltzeko modu berri eta aberasgarria delakoan, eta bereziki sortu zen garaian bide hau hartzean iritxi nahi zuen helburuaren adierazgarri den heinean.

2.3.1. Arkaismoak eta kultismoak

Espainolaren lexikografian kultismo deritzaio latinetik gaztelaniaratzean ohizko aldaketa fonetikoen aldakuntzak jasan ez dituen hitzari eta zehatz— mehatz gaztelania finkatua zelarik latinetik zuzenean harturiko hitzari edo esamoldeari.

Dámaso Alonsok Luis de Góngoraz 1932an buruturiko *La lengua poética de Góngora* (I parte) azterketan zionez, kultismoak ez dute filologoen arreta erakarri "latinetik zuzenean harturikoak" izanik, fonetika diakronikoaren arrastorik ez dutenez, interes filologikorik gabeak zirelakoan, horregatik esaten du zaila dela, Góngorak bakarrik erabilitako kultismoen arrastoa jarraitzea [153].

Hain zuzen ere, berari egotzi zitzaizkion kultismo ia gehienak bere garaikideek eta aurrekoek erabiliak zituztela frogatzen du Dámaso Alonsok. Dámaso Alonsok Góngoraren berezitasuna kultismoak hain ugari eta hain sarri erabiltzean kokatzen du.

---

[153] ALONSO, D.; *Obras Completas*, V, 122- 235. or.

Hori izan zen nonbait Quevedok iseka egitean haren kultismo joera ziotzat hartu izanaren arrazoia, nahiz eta berak ere, behin baino gehiagotan hitz horiek berak erabili.

Euskararen kasuan zer genuke kultismoa? Latinetik zuzenean harturiko hitzak? Leizarragak erabiliriko piscatore eta antzerakoak?. Orduan alferrik genuke gai hori aipatzea Lizardiren garaian, joera garbizaleak puri-purian dauden garaian bait zihardueen eta joera garbizaleena utzi zituenean, 1926tik aurrerako olerkien argitalpenean garbizaleek bereen ordez erabil zitzaketen hitzen zerrenda eransten zuen olerkiaren azpian.

Lizardiren *Itz-Lauz* liburuari hitzaurrea idatzi zion Joseba Mirena Markiegik dioen moduan, "igatu-itzak" alde batera utzi eta balore literario berezia sumatzen zienak bilatzeari ekin zionean, ez ote zebilen Lizardi hitz kultoen bila?

> "Sumatu zenezake noizik beinka olerkari-arnasa goitarra, gauza xee utsei eder-yantzia emanez; badituzu agian aiek ainbat giarreko olerki-gai naroak ere, baiña jaulkiaren piztugarri, ez esanaiaren gerri.Ta bearreko ez ote, esakera lauan ere? Ala, igatu-itzez asmamenaren biotz-begien atea lau giltzez itxi ondoren, bidezabal ertzetako makal txutxenak baitliran, xut, mee, oillargabeko oillo-lerro, josi-bearrak ote gaituzu itzok esangaia nabarmen larri ez danean? [154].

Markiegik "igatu-itzak" olerki mintzairarako eragozpentzat aipatzen ditu, alderantzizko adibidea aurkeztuz. Beraz, hiztegi hautatua, maiztu gabea behar du olerkigintzak; nora jo liteke ordea, eguneroko euskara mintzatuaren hitz, esaldi, eta joskerak ordezkatuko dituen "hizkera jasoago" horren iturri bila?

Lizardik aintzinatera jo zuela esaten digu:

> "Ekiña ekin, Axular ta Etxepare irakurtze ta zeatz aztertzeari eman zion aldi: itz, esaldi, joskera... an dituzu oro arretaz jasorik ez errazbidez buru aztukor-altzoan, arkatza erne ta errukigabe erabiliz, idazti-zokondo ta lerroazpietan piloturik baizik" [155].

Lizardik berak aitortu ere egiten du, bidenabar bezala, "Traductores-Diccionarios" [156] deituriko artikuluan, eta Zaitegik "Aitzolen gizaldian" berretsi, Lizardik idazle zaharrak aztertuz osatu zuela bere hizkuntza literarioa behin eta berriro aipatzen digute garaikide izan zituen Joseba Mirena Markiegik eta Aitzolek ez ezik, Antonio Maria Labaienek berak *Itz-Lauz* liburuaren hitzaurrean:

> "Lizardi asko entzun, ikasi ta irakurri ondoren euskeraz sakon jabetzera iritxi zan. Ekiñaren ekiñez, Axular, Etxepare, Mendiburu ta abar aztertu zituan. Markiegi'k zer nolako bidetatik ibilli zan esaten digu. Ez da aaztu bear aldi artan euskal literatura apurra arrunkerian eroria zegoala, eta astiñaldi aundi baten bearretan. Lizardik euskara "andiki soñekoz" jantzitzeko asmoa zuen gogoko. Berez "estetikoia" bait zan, Gongora-zale ta izkuntza aztertzaille aukerakoa. Onek barka erazi bear digu iñoiz zerbait illun eta zaill aurkitzea. Bestaldetik euskerari aberastasun berri bat eman diolako" [157].

Deigarria da, ene ustez, Labaienek batera aipatzea garaiko euskararen arrunkeria baztertu nahi izatea, Gongorazaletasuna, idazle zaharretara jotzea eta hizkuntza aztertzaile aukerako izatea. Ez ote da laurak dutelako zerikusia elkarren artean, eta horien ondorio delako Lizardiren "illun"tasuna eta "zail"tasuna? Baietz dirudi.

Berrizaleen eztabaida literarioan Lizardik ilun eta zail izateagatiko erasoa jasan behar izan zuelarik, zer esanik ez dago Gongora bezain ondo defendatu zela garaikoen erasoetatik. Bere

---

154 MARKIEGI, J.M.; "Itzaurrea" in *Itz-lauz*, Edili, Zarautz, 1972, 6. or. (2. arg.)

155 *Ibidem.* 7-8. or.

156 LIZARDI, X.; "Traducciones-Diccionarios" in *Euzkadi*, 1928-8-7, 1. or.; *K-L* 124-126. or.

157 LABAIEN, A.M.; "Sarrera-gisa" in *Itz-lauz*, Edili, Zarautz, 1972, 2. or.

irizpideetan, literatura jasoa edo kultoa egiteko irizpideetan hura bezain finko zegoen, haren arrotasunik agertu ez bazuen ere [158].

Idazle zaharrek Lizardigan izan bide zuten eraginaz hitzegiten duen beste garaikide eta idazlea Orixe da. Joseba Mirena Markiegik idazle zaharrengandik ikasirikoaren aldean Orixe bera ere Lizardiren gidari nagusienetako bat zela aipatzen du:

> "Ala bearrez, desagun Yainkoak ala naita, gora-bide neketsu zail biurgune batean, yaun zuur, buruyantzi, aldatz aiek are goragokoak aspaldidanik ibillia, sortu zitzaion lagun: "Orixe". Alkar ezagutu aurretik ere bazizun Lizardi'k, ikasi-naiak eraginda, "Orixe"ren idazlanetarik, Atsular-Etxepareren idaztiak bezala, oar yasogarri ederrez ertzaturik. Gero leen-ikustaldiz egin bait-ziran bein-betiko elkar-bearreko lagun min, eguneroko yardunean, solas-bide naasian, elkar-idazki bidez..., aren buruyazten onen edergaillu-ixuria noraiñokoa izan denik ez bide da erraz mugatzen" [159].

Orixek "Markiegi zana"[160] izeneko artikuluan Lizardik beraganako omen zuen ixuri horren mugak azaltzen saiatzen da:

> "Gauza bat aitortzen du Markiegi'k edo ta otean uzten: "Aren (Orixe'ren) ixuria (Lizardirengana) norañokoa izan danik ez dala erraz mugatzen (11). Bai gizona, bai, oso erraz. Neregandik ez zun artu ezertxo, itz eta esaera baizik, naiz idatzietan, naiz izketan. () Olerki gaietan zerbait erakutsi ote nion? Ezer gutxi. Zenbait oarkizun, ausaz, Horati edo olakoren batez. Neurtitzetan lerro bat bakarra du nik ukiturik. Ua ere txar egotzi zion RIEV'ean kritiku batek: etzala euskera. Bejondeiola. Adiskide irizle, orduan euskaldun berri, esaera ori neronek Naparroa'n ikasia nizun. Ez naiz oroi beste lerrorik bat ere ukitu nionik. Kendu edo bakandu, bai, bost edo sei ahapaldi. Ori duke neregandiko ixuri guzia. Aski argitasuneko zan, eta gure aldi ontako ele ederra, batez ere atzerrikoa, nik bañon obeki ezagutzen zun.Zanaren paperak arakatu genituenean, nere artikuluetan oarkizun asko zeuzkan (Kirikiño'renetan ez), arkatz gorriz ipiñiak. Batean bakarrean berrogei. Euskera ikasia du nererik; bestela, bera zan bera, naiz izketa askatuan, naiz neurtuan. Ez zun inoren bearrik" [161].

Guda-ostean Orixek eginiko zehaztasun hauek Lizardiren hiztegi eta zenbait egituraren iturrien berri zehatzagoa eskeintzen du, eta artikulu honetan aipatzen diren zenbait puntu atal amaieran aipatzeko utziz, ikusten da Labaienek aipatu duen Lizardiren "hizkuntza aztertzaile aukerako" izate horrek hildakoaren omenez eginiko ohar goragarriak baino gehiago balio duela.

Aipatu diren lau iritzi-emaile, garaikide eta are adiskide ziren Markiegi, Aitzol, Labaien eta Orixek ematen duten Lizardiren iturrien zerrenda bera da: Etxepare, Axular eta Orixe. Labaienek Mendiburu ere aipatzen du, eta ondoren aipatuko dugun Orixeren beste iruzkin berezi batek, Lizardiren hizkuntzaren xehetasunak aipatzen dituen batek, beste euskal idazle batzuen izena eransten die aurrekoei: Leizarraga, eta Haraneder.

Hauei buruzko aipamenak Aitzolek aipatzen duen euskara idatzirako sortu nahi zuen euskalki zentralaren ildotik ere bagaramatza, idazle zaharrengandiko ikasketaren ondoriotzat [162].

Orixek *Biotz-Begietan* liburuko azken olerkien iruzkina egiten duelarik argitaraturiko "Lizardiren azken olerkiak" delakoan [163], Lizardiren zenbait ezaugarri morfologikoz oharkizunak egiten ditu, hiru puntutan bil genitzake, den-denak aditzari buruzkoak:

1.– "*dabilda*"

---

158 "Honra me ha causado hacerme escuro a los ignorantes, que ésa es la distinción de los hombres doctos". ALONSO, D.; "La lengua poética de Góngora" in *Obras Completas*, V, 133. or.

159 MARKIEGI, J.M.; "Itzaurrea", 12. or.

160 ORIXE, "Markiegi zana" in *Euzko Gogoa*, 9-10, 1950, 9-11. or.

161 *Ibidem*, 10. or.

162 AITZOL; "El poeta Jose María Agirre, "Xabier de Lizardi", 175. or.

163 ORIXE; "Lizardiren azken olerkiak" in *Yakintza*, VI, 1933, 408. or.

"Dabilda dio dabilt ordez. Atsegin ematen zion da orrek, zenbait aldiz ondo dator bertsotarako, baina izketa askatuan ere erabili oi zun. Dit ordez dida (dide) gaur ere esaten da Leitzan; asko direnean, didea. Au bai Berastegin eta Orexan ere".

Orixek aipatzen duen ezaugarri morfologiko honek "Arrats Gorri" izeneko olerkian aurki genezakeen "zakida" delakoarekin batera euskaraz arkaismotzat jo genezakeen saila irekitzen du. Baliteke *"Izotz ondoko Iguzki"* olerkian agertzen den "dirudia" ere hauen gisakoa izatea. Dena den Orixek aipatzen duen arrazoi metrikoaz gain, Lizardik gogoko zuela nagusitzen da, eta agian morfologikoki aintzintasun kutsua ematen diolako aditz formari. Orixek berak ere erabili zuen *Euskaldunak* liburuaren eskeintzan "Zatozkida goi-arnas, egizu nerekin lan ...".

2.– "Bizi ote dut?" "Nor zaitut?"

Jadanik aditzari buruzko atalean 2.2.5 atalean aztertuak ditugun esapide hauek azpimarratzen ditu bereziki Orixek. Bizitasuna, sentimentua adierazteko era zuzena iruditzen zaizkio:

"Nor zaitut? Leizarraga ta olakoak irakurrita ikasi zitun esaera apaiñ ok. Nor zera? askoz otzagoa da" (409 or.) [164].

3.– "ostutzen oi zituena"

"Makartxo bat du alare, guzia esateko: "ostu oi zituena" bear luke, "ostutzen"ek berekin baitu "oi" ori".

(1) Alare Haranederrek "gertatzen ohi da" (Philot 10-12) gertatu oia da ordez; "ocupatzen ohi ninduten" (Philot 32-8) okupatu ohi ninduten ordez..." (409 orr.) (*Orixeren oharra*) [165].

Lizardiren idazle zaharrenganako joera baitesten dute zabalki aipatu ditugun idazle hauek, eta guk geurok aztertu ditugun egitura morfologiko eta morfosintaxiaren alorreko zenbait ezaugarrik apaltasun gehiegizkotzat etsi arazten digute Lizardik Larrekoren 1930ko artikulu bati gutun bidez erantzutean egiten duen aitorkuntza:

"*Euskal Esnalea*n bi milloiekiko galde-erantzuketa ortara biali dezun lan polita ikusi det. Eta arrezkero kezkatxo bat dabilkit buruan. Diralako intelektual ulergaitz aien artean ni ere etsirik otenazun. Iñoiz lagunok esan baitidate orren antzekorik, eta bestalde ezagutzen baitet nik ere euskel idazle zaarrak gutxi ausnartu izan ditudala, gaurdaiño beintzat, astiaren urriz. Nik beldur-bezala balitz..." [166].

Beraz, idazle klasikoen iturrietatik ez ezik, gure azterketaren ondorioz atsotitzetan eta erran zaharretan aurkitzen zituen molde morfologikoen erabilerarekin batean joskerari dagokionez ziurrenik, Orixeren eragina, ahozko euskara mintzatu bizi eta espresiboenaren, adierazkorrenaren txertakuntza ere aurkitzen ahal da, Axular eta Etxepareren eraginaren zenbait lekukotzarekin batean.

Lekukotza horien artean ezinbesteko aipamena dugu Lizardiren gutunen artean Etxepareren bibliografia espezializatuaz eginiko eskaera. Gutuna 1931-10-29koa da eta Bernarta Estornés Lasari zuzendurikoa Honela dio azken zatian:

"*NERE ESKARI BAT* — Bernard Echepare'tzaz zerbait ikustatzen ari nauzu.

J. Vinson'en BIBLIOGRAPHIE BASQUE or al dezute? Ta idazle berorren VOCABULAIRE DES MOTS CONTENUS DANS LES POESIES BASQUES DE DECHEPARE?

Gañera RIEV'en Etxepare'tzaz esandakorik oro ikusi nai nuke. Otoi, betarik artuko al-zenukete, RIEV'eko arkibidea asieratik aztertuz, zein iyekietan Etxepare'tzaz mintzo dan?

---

164 *Ibidem*, 409. or.

165 *Ibidem*, 409. or.

166 Tolosa, 1930-7-17. "Lizardi eta Larreko ziranek elkarri egin-gutunak" titulupean argitaratuak in *Euzko Gogoa*, Ilb-Otsaila, 1956, 94-99. or.

Ni orrera noaken batean irakurriko nituke lan oiek.

Aurretik eskerrak, eta zuk ere agindu bear nauzunetarako". [167]

Gutun honek, eta arestian Larrekori eginikoak idazle zaharren idazlanak behar bezala asimilatzeko ahaleginaren lekuko dira, lehenengoa, asimilaketa hori behar adinakoa,behar bezain sakona ez ote den susmoa zela esaten badigu ere. Bigarrenak, zalantza hori argitzera jotzen du zuzenean, adituen lanetara joaz.

Bereziki ohargarria da Lizardik Etxepareren obraz duen interesa. 1933an Julio Urkixok *RIEV*en Pariseko ale bakarraren facsimila argitaratu zen arte (XXIV, 523-577), Etxepareren obraren edizioak bakanak ziren. Lizardik erabili bide zuena 1893en Burdeosen F. Destouessek, V. Stempf-en zuzendaritzapean eta Mr. Vinson-en aholkularitzaz eginikoa zen. Aipatu dugun 1932ko gutunean Vinson "Essai d'un Bibliographie de la Lange Basque par Julien Vinson" ezagutzen duela adierazten du, eta honen "Vocabulaire, page par page, des poésies Basques de B. D., 1888" delakoaren berri ere bazuen.

Aitzolek 1933ean *Yakintza*ren lehen alean argitaratu zuen "El primer renacentista y poeta euskaldun" izeneko artikuluak olerkarien belaunaldiekoek Etxeparez interes berezia zutela adierazten du garbiro. Pizkunde literarioaren enblematzat hartua bide zuten, eta Lizardiren kasuan erreferentziak ugariak dira, ikusi dugunez, eta ez lehen euskal idazlea zen aldetik bakarrik —hau ere garrantzitsua bazen ere-, mintzaira poetikoaren aldetiko interesa ere bazuen beretzat [168].

Orain arte ikusi ditugun zenbait arkaismo edo klasikoen moldeen erabileran desbiderapen zenbait sumatu da, baina aldi berean ahalegin horrek berak haren morfologia eta sintaxian testu zaharretarako zaletasun honek utziriko arrastoak begi zoliagoz bilatzera eraman behar gaitu. Izan ere, ondoren aipatuko ditugun hautapen lexiko eta zenbait egitura morfosintaktikoren erabileraz Lizardik, Gongorak bere garaian bezala, hizkuntzaren iturri gardenetara jo nahi bait zuen gure hizkuntzaren loraldiari dagokion mintzo elertitsu duina, apaina, jasoa sortzeko.

2.3.2. Arkaismo lexikoak

Morfologiari buruzko azken puntu hau osatzeko, esan dezagun lexikoari dagokionez Lizardik hiztegi "kultoa", hots, eguneroko erabilian higatu-hitzak ordezkatuko dituen antzinako testuetako edo lapurtar literaturan hiztegi "kulto"aren tankera sumatu zien zenbait hitz eta molde bereganatu zituen: adatsa, oraila, biluzik, yoria, emea, zolia, zut, eri, min dut, aunitz, urloa, danentz, moltso, maite-bestak, udalen, yaukal, so, naroa, peitu... Lexiko honek berak, halako dizdira berezia ematen dio Lizardiren bertsoari, fonikoki leun ezezik, eguneroko hizketan erabiltzen ditugunek duten arruntasuna gainditu egiten dute.

---

167 Ikus 45. Dokumentua "Lizardiren eskutitzak" eranskinean.

168 Lizardik *Biotz Begietan* liburua egin garaian Etxepareren lana eskuartean zerabilkiela eta ongi ezagutzeko ahaleginetan ari zenaren lekuko da, aipaturiko erreferentziez gain, Orixek 1932an liburua argitaratzean *El Día*n agerturiko artikulu saileko baten amaieran Lizardiri eginiko "txantxa pribatua": artikulua amaitzean zera dio, "bertzea bego", jadanik hasia zuen artikulu sailaren beste ale bat emana duela adierazteko. Etxepareren "Potaren galdatzia"ren bertso batez baliatzen da horretarako *(El Día,* 1932-8-2). Hona hemen Etxepareren bertsoa:

"Etay lelory bay lelo pota franco vercia vego
Andria minça albaycinde verce aldian emiago".

DECHEPARE, B; *Lingua Vasconum Primitiae. Edizio kritikoa,* Patxi Altunak paratua, Mensajero, Bilbo, 1980, 174. or.

2.3.2.1. Lexiko kultoa

Lizardiren estetikazaletasunaren adierazgarri da lexiko hautatu, zaindu hau. Baina Lizardik hitz bereziak bilatzeaz gain, hitz zehatzak ere bilatzen ditu: dagokion unean bereziki adierazi nahi duen huraxe adierazten duen hitza bilatzen du, batzuetan harrigarria ere gertatzen den azkerketari ekin ziola antzeman daitekeelarik.

Esate baterako, eta lexiko hautapenaren urraspide zenbait aurkezteko asmoa duen atal honen hasieratzat ikus "Maitearen apurñoak" zikloko "Maitale berriak" izeneko olerkiaren ahapaldi bipil honetan "autua" hitzak duen zentzua:

"Maitetasuna dator azi ezkutu batez
guziok baitaukagu barnean yaiotzez:
ez edozein eguzkik ernerazgarria,
*autua*ren begiek bear dute ukia;
ta oartzen ez gera danik ernetua
arik eta biotz dan arte loreztua"

(MB 32-37, 281)

"Autua" hitzak "autatu"ren laburdura dirudien arren Azkuek jasoa du Hiztegian, eta Bizkaian "aukeratu"ren adieraz erabiltzen dela dio. Azkuek adibidetzat aipatzen duen esaldian Uriarteren testuan "autuak" hitzak "los elegidos, los predestinados" delakoaren adiera duela jasotzen du:

"Asko dira deituak, gutxi berriz autuak" (Uriarte, Math XX-16). [169]

Ziurrenik, Lizardik hautatu, aukeratu hitzaren zentzu zabala murrizturik nahi zuen, "autua" ez da bihotzak aukeraturikoa, norberarentzat bihotzean aurrez "izendatua" edo, dagoena baizik, Uriartek darabilen zentzuan, hots, "predestinado" zentzua eman nahi ziolarik.

Susmo honen aldeko argudio da 1928ko "Berriketak" saileko "Ustegabeko euri-zaparra" deritzan artikuluan maitasunaz mintzatuz Lizardik berak dioena:

> "Maitetasuna giza-biotzean nola sortzen dan eztizute gaurdañoko pillosopoak, egiñalak eginda ere, somatu. Dana dala, askoek diote gizakumeak bere artean, igerri gaberik eta azitarako gordea bezela, euki izaten duala bete betean dagokion maitagarriaren, emaztegaiaren, iruditxo ezkutu bat: ta irudi orren kidako emakumerik iñoiz begien aurrean ikusiezkero, bat-batean biotza artzen diotela sugar kiskalkor batzuek" [170]

Honen ondorioz, Lizardik arkaismoak erabiltzean, idazle zaharren testuak arakatzean, zahar kutsua hartzea baino gehiago hitzen esanahiaren aldetiko ñabardurak bilatzen zituela pentsa liteke, esan nahi zuenaren zertzelada zehatza emango zuten hitz-adierak berreskuratzea aintzinako euskaratik gaurkora ekarriz.

Ifarraldeko idazle klasikoei harturiko hitz eta egitura morfologiko hauek eguneroko hizkera arrunt eta maiztua alde batera utziz beren arrarotasunaren edertasunaz baliatu nahi delarik, zenbait egiturek kutsu kultoa ez ezik, adiera arkaikoa dutela esan behar dugu.

Alegia, Lizardiren olerkietan duten zentzua mende hasieran jadanik Azkuek arkaikotzat jotakoa da.

Esate baterako, "Mende-neurle dugun kurpil ariña" (EB 39) Eguzkiaren alusioa den kurpil ariñaren metafora honek ez du mendea neurtzen, guk ulertzen dugun zentzuan, "denbora" baizik.

---

[169] AZKUE, R.M.; *Diccionario vasco-español-francés*, I, La gran enciclopedia vasca, Bilbo, 1969, 112. or.

[170] LIZARDI, X.; "Ustegabeko euri-zaparra" in *Argia*, 382, 1928-8-12, 1. or.; *K-L* 92. or.

"Denbora" adierazteko "Aldi" hitza ere erabili du pertsonifikaturik, hots, Orixen hitzetan esanik mugagabean zentzua orokorturik, eta hasierako hizkia larriz idatzirik.

Baina kasu honetan hitz horren erabilera bera, pertsonifikaturiko euskal "Kronos" horren kidekoa beharrean, denboraren alderdi abstraktoa adierazi nahi duenez, egoki datorkio Axularren testuan oinarrituriko "mende"ren adiera hau.

> "*Mende.* 3.tiempo. Ikhusirik ezen bertzela galdua zoazila, egiten duzu urrikimendu handi batekin konfesione jeneral bat, zeure mendean egin dituzun falta guztiaz" (AX. 3º-187) [171].

Baina, Axularren aipamen honetan jasoa dugu "mende" hitzaren adiera berezi hau, Etxepareren bertsoetan ere ageri da:

"Amorosek badaguite vehin bere nahia
Handiago gitençaye berce nahicaria
Eciuqhen behinere bere conplimenduya
Bethi peytu deramate bere mende gucia
Emazte eta guiçon oroc har amore maria
Eta orori vaytequegu berac conplimenduya" [172].

Bide batez aipaturik, bestalde, Etxepareren ahapaldi honetan ditugu bildurik Lizardiren bertsoetan jasoak dauden "peitu izan" bezalako aditz arkaikoak (Azkuek BNera ote den iradokitzen du, eta Oihenarteren atsotitzetan eta bertsoetako adibideak aurkezten) edo "peytu deramate" bezalako egitura sintaktiko arkaikoak.

"Dagigun arraun izotz errira,
zaarren aztarrik danentz begira:
amaika yoan ta bira
egiñik *igaz* baitira,
eskuan arpoia, soiñean zira!

(EB 50-55, 179)

"Igaz"ek ez du esaldi honetan joan den urtean esan nahi, "antzinako denboretan" baizik. Azkuek jasoa du, eta *Refranes y Sentencias*etik harturiko adibideaz agertu ere:

"Igazko abietan aurten txoririk ez" (Ref. 530).

Eta Mogelen *El doctor Peru Abarca*n ere dokumentatzen du:

"Igazko txakurra, aurtengoaren urkatzaille" (122-21).

Lizardik *Aldakeri* olerkian zentzu honezaz darabil:

"Ai aren esku laztankor *igaz* izana!
lore-orria arantz biur!" (Ald 77-80, 51)

Arkaismo lexikoen bidetik jarraituz, hasiera batean Sabino Aranaren hitz-berrietako baten tankera hartu arren, Azkuek arkaismotzat ematen duen "galena" hitza agertzen da *Ar Uts* izeneko olerkian, "escarmiento" zentzuaz, Azkuek Bizkaiera arkaikoan zuela dioen baloreaz.

Antzerako irudipena sortzen du hurrengo honek:

"Mugak berriro *zabaliz*" (AZB 95, 195)

---

171 AZKUE, R.M.; *Diccionario vasco-español-francés*, II, 29. or.

172 DECHEPARE, B; "Amorosen gaztiguya" in *Lingua Vasconum Primitiae. Edizio Kritikoa*, Mensajero, Bilbo, 1979, 44-48. or.

Kasu honetan berriz, inon dokumentaturik aurkitu ez dudan arkaismo itxurako aditz moldea darabil: "zabaldu" ordez, "zabali" asmatu du, zabaldu aditzaren aintzinako moldea "zabali" delakoan, "bialdu"rena "bidali" den era berean.

2.3.2.2. Aditzari dagozkion arkaismoak

Aditzaren konjugazio molde zenbaitetan ere idazle zaharren kutsua nabari zaio. Esate baterako,

"Yondone goiangeru
garaille goitarra,
gure arazo latza
duk bizi-bearra;
artarako, nagusi
dukan Yaun bakarra
ire bidez dotoigu,
damaigun indarra"

(IOI 73-80, 205).

Idazle zaharretan sarri agertzen den aditzaren morfologiaren ezaugarri hauxe azpimarratu behar da Lizardiren bertsoetan. Kasu bakarra da, baina zalantzarik gabe idazle zaharren kutsuz ikasitako indikatibo+N formulak duen balore subjuntiboa da "damaigun" > "eman diezagun"en ordekoa.

Aditzaren egitura edo zahar kutsuko aditz egituraketen artean ALBA— aurrizkiaz Lizardik osaturiko zenbait aditz multzoren azalpena egingo dugu.

Agur olerkian aurki daitezke zenbait adibide:

"Gaberik gabeen gaupean bai'ago;
gaztetzaro ogitik yakide ninduken
onen onginaia ezpaituk siñisten;
ai, nik *aal-banezaik*, nik aal (eztiago
loak ar-basoan illargia baiño)
ene oiu au sar biotz illeraiño"
(Ag. 21-26, 115)

"Ezin *al-baledi*, Yaun errukiorra,
barkatu zaiozu zizukean zorra;
ta Argi-Aberrian ikus aal-nezake
lauso-eziñezko adiaren jabe;
ta aal-bezat, Jaun, otoi, besarka negarrez,
beste iñon ez ainbat negarra dan emez!"
(Ag 29-35, 115)

Lizardik olerki honetan erabilirikoari "un potentiel de suppositif" deitzen dio René Lafonek:

> "Le potenciel du 1. suppositif exprime une hypothèse ferme portant sur une possibilité ferme: le potentiel du 2. suppositif exprime une possible envisagée à titre de condition, sur un plan autre du reel. Le 2. suppositif et son potentiel peuvent servir a exprimer un desir, un souhait, un regret.Dechepare emploie dans plusieurs passages le potentiel du suppositif, que tous les dialectes n'ont sans doute pas connu:
>
> "Albadaguic ioanadi eliçara goycian" (A3v4)

"Albanerra eguya nic dut pena handia" [173].

Eta aurreraxeago, Etxepareren ereduko ALBA— aurrizkiaz osaturiko ahaleraren baldintzazko honen adibide gehiago aurkezten ditu:

"Elas *yzul albaneça* yraganden denbora
segur oray enyqueci dudan gogan veharra" [174].

Etxepareren "elas yzul albaneça yragan den denbora" hau eta Lizardiren "ain nik albanezaik ()ene oiu au sar biotz illeraiño!" oso antzerakoak dira. Hitzez-hitz hartua dirudi. Biek nahikaria adierazten dute, Lafonek "souhait" deitzen duena, eta biak daude esaldi esklamatiboetan kokaturik.

2.3.3. Arkaismo morfosintaktiko bereziak

*2.3.3.1. "Joan" eta "eraman" aditzez osaturiko zenbait aditz multzo*rekin ohiturazko aspektua adierazten duten perifrasiak aurkitzen dira idazle zaharretan eta Lizardiren zenbait aditz egituraren iturri dirudite.

Azkuek "joan" aditzaren hirugarren adieratzat aipatzen du Urkixok atsotitzen artean aipatzen duen "galdu doa" egitura honen argigarri:

> "*Joan.* 3.º soler Es uno de los procedimientos para indicar el modo habitual. Se usa solo con los verbos intransitivos así como eroan se emplea con los transitivos" [175]

XVI. eta XVII. mendeko atsotitz bildumetan aurkituriko hainbta adibide aipatzen ditu jarraian:

"Urre gakhoaz athe guziak *ireki doaz*" (Oihen. Pr.466).

"Bethegiz zorroa *lehertu doa*" (Oihen. Pr. 511).

"Gitxika gitxika asko *egin doa*" (Refranes 61).

"Alperreria *izan doa*" (Añibarro. Esku-lib. 77-18).

"Eskurean ahora okelea *galdu doa*" (J. Urkixo XLVII).

Etxepareren obrak ere adibide ugari eskaintzen ditu, hiru besterik ez aipatzearren:

"Picher ebilia *hauxi diohaçu*
çuc ny laydo handiz vetheren nuçu
Othoy cenyçayçu nyri uztaçu
Niçaz axeguinic ecinduquezu"
("Amorosen disputa" 53-57)

"Harçaz orhit nadinian vihotza *doat ebaki*"
("Amorosen partizia" 6)

"Hanbat da eder eta gentil harçaz *erho narama*
çori honian sortu date haren bessoan daçana"
("Amoros secretuqui dena" 23-24)

Beraz, atsotitzetan ez ezik, Etxepareren bertsoetan ere sarri aurkitzen den molde honen egokitzapentzat hartu ahal izango genuke Lizardiren hurrengo ahapaldi honetako aditz multzoa, baldin eta lehenik "zauri" aditz gisa hartzearen zailtasuna gaindi bageneza:

---

[173] LAFON, R.; *Le système du verbe basque au XV. siècle*, Elkar, Zarautz, 1980, 477-478. or.

[174] ETXEPARE, B.; "Amorosen partitzia" in *Linguae Vasconum Primitiae. Edizio Kritikoa*, 19. or.

[175] AZKUE, R.M.; Diccionario Vasco-Español-Francés, I, 417. or.

"Irudimena uan giarra, yoria,
baiñan, ega-baldar baitabil txoria
lurrera-bearka *zauri doanean*"
(Ag 15-17, 113)

Azkueren hiztegian "zauri" hitzaren adierak arakatuz gero, azkar aurkitzen da Lizardiren iturri izan bide zena, hots, "zauri" hitza aditza ere izan zitekela bermatzen zion idazlearen eredua: Detxepare.

"*Zauri.* 2. (BN, S) indet.de zauritu. Zure irudi ederrak gaizkiago zauri nizi ezi dardo zorrotzak (Etx. 41-24) [176].

Lizardik honela erabili zuen:

"Itzuli zetozen aapaldiak;
Itzuli zetozen nere uso txuriak
Aberriarentzat damesgun
legor gizenetik, yai-ostoa lagun ..."
(GM 45-49, 211)

"Itzuli zetozen" egitura hau ere eroan/eraman edo joan bezala, Lizardiren adibide honetan "etorri" aditzarekin darabilen egitura sintaktikoak ere "ohiturazko aspektu ez-burutua" adierazteko eratako bat da.

Azkuek bere hiztegian azaltzen du aurrean dugun adibide honen oso antzeko egitura. "Itzuli" hitzari buruz diharduelarik aipatzen du beste zenbaitetan bezala Lizardiren iturri izan bide zen Oihenarten "Atsotitzak" edo "Proverbes" delakotik harturiko eredua:

"Itzuli. 6(AN, B-zig, BN-aezk-am-gar-s,L) regresar, volver "Sor-lekura itzuli doa" suele volver al lugar de nacimiento" [177].

Azkuek aipatzen duen erran zaharra osorik harturik hauxe dugu: "Burla gaxtoa bere sorlekura itzuli doa" (Oih. Proverbes 565) eta aurrekoetan bezala aditzaren aspektua ez-burutua eta ohiturazkoa dela adierazteko eratako bat da.

Lizardiren adibideak ikusirik eztabaidagarri da egitura hauek beren balore arkaikoan, hots, ohiturazko aspektua adierazteko hartu ote zituen, hala sujerenteak iruditzen zitzaizkiolako bakarrik, estetikazaletasunez soilik bereganatu zituen.

Gerora ikusiko dugu beste zenbait kasutan, arkaismoen erabileran ez zela Lizardi guztiz zehatz ibili.

2.3.3.2. "Egon" eta "ikusi" aditzez osaturiko zenbait Aditz Multzo

Ondoren aipatuko diren hiru adibide hauetan, antzerako egiturak osaturik ikusten dira, "egon" eta "ikusi" aditzez. Partizipioaren aspektuak burutua behar du izan, zentzuari ohartzen bagatzaizkio, beraz, ez gaude aurreko kasuen antzerakoen aurrean, itxuraz molde bera erabiliz eginikoak izan arren.

Ulergarriak egiten diren erabilpenak dira, eta "itzuli", "itsatsi" eta "esegi" partizipioek atzizki modalen bat falta dutela antzeman besterik ez daiteke egin. Lizardik bere gisa estrapolaturiko egitura ote den ala benetan, hau ere litekeena da, berak ezagutu zuen aintzinako egituraren bat erabili zuen eredutzat.

"Arru beera *itzuli nago*"
(OG 27, 167)

---

[176] AZKUE, R.M.; *Diccionario Vasco-Español-Francés*, II, 421. or.

[177] *Ibidem*, I, 445. or.

"Goiza laiñotan jaio
zan noizbait. Leioan
apar zuri motela
itsatsi zegoan"

(EP 8-12, 315)

"Nireganuntz erne zenuen gogoa
zerk arinduz ta nork emanez egoa
dioakit iges, ta aidean *esegi*
dakust, txori lillurarazia iduri?"

(AG 9-12, 305)

Nolanahi ere den, eta orain arte Lizardiren egitura sintaktiko bitxiek euskal idazle zaharretan, errefrauetan eta abarretan oinarri sendoak zituztela ikusirik, guztiz bidezkoa da hiru adibide hauen egituraren eredua ere aintzinako euskararen esparruan aurkitua zuela uste izatea.

Nolanahi ere, haietan oinarriturikoa izan arren, gogo estetikoak, arkaismo honen formak erakarririk bereganatu zituela pentsa liteke, jatorrizko funtzioa, hots, "itzuli, itsatsi eta esegi" aditzen aspektua ohiturazkoa bilakatzeak ez bait dirudi Lizardik bilatu duena, -ta edo -rik atzizkiez izango zuten balore modala atzizkirik gabe adierazteko modu laburra izatea baizik.

2.4. SINTAXIA

2.4.0. Sarrera

Lizardiren olerkien zailtasuna eta iluntasunari buruzko iritzia ematean kritikoek sarritan aipatu izan dituzten puntuak honako hauek izan dira: mugatzaile kentzea, aditz infinitibo eta partizipioa ez bereiztea eta aditzaren elipsia.

Hiru puntu hauez gain, Lizardiren trinkozaletasunaz erehitzegin izan da, gehienetan haren olerkietan hautaturiko ahapaldiak frogatzat aurkeztuz, baina trinkozaletasun hori nola gauzatzen den zehazten ahalegindu gabe.

Sintaxiari eskainiriko atal honetan ezaguna eta sarri aipatua izan den aditz elipsiaz gain, Lizardiren olerkigintzaren ulerpena zaila egiten duten zenbait ezaugarri sintaktiko aipatuaz bat, trinkozaletasun horrek erakusten duen joera kontzeptistari buruzko zehaztasun gehiago emateko mailara iritxi nahi dugu, alegia, ideia poetikoen alorrean aipaturiko zenbait punturekin erkatzeko egoeran jarriko gaituen gunera.

Horregatik, Lizardiren idazlan poetikoen azterketa sintaktiko hau orokorra izan beharrean, bereziki haren joskera zaildu egiten duten egituren azterketara bideratuko dugu.

Sarrera moduko deskripzio bat egitez gero, esan beharko da Lizardiren joskerak bi ezaugarri nabarmen dituela, alde batetik, esaldi nagusiak ebaki eta motz jalkitzeko zaletasuna nabari zaio, menpeko esaldiak elkarren gainka pilatzeari uko egiten diolarik; bigarren ezaugarria berriz, esaldi

horietako Izen Sintagmak batez ere nor nork edo zerik gisakoak gailentzen direla, sarritan elkarri aposizio gisa kateaturik.

Lizardik, ideia poetikoei buruzko atalean jaso dugunez, esana du ez dituela esaldi luze korapilotsuak maite. Gongorazalea bada ere, sintaxiaren alderdi honetan guztiz barrokoaren aurkako ageri da, Gongoraren metafora bera erabiliz ukatzen diolarik estetika horri inolako edertasunik: elkarri geriza bikoteen gisan kateatzen zaizkion esaldi luze bihurri eta alanbikatuak ez ditu gogoko.

Dámaso Alonsok jasoa duenez [178], Gongorak "las palabras se enredan como las cerezas" esanez defendatzen da sintaxi nahasiegia duela esaten diotenez. Lizardik, aldiz, estetika horren aurkako iritzia ematen du, konparaketa bera erabiliz:

> "Llamamos división a la cualidad, casi diríamos consustancial a nuestro euskera, de repugnar la formación de largos períodos semejantes a puñados de cerezas, en que las frases se ligan obstinadamente las unas a las otras, dificultando la retención del total sentido" [179].

Izan ere, Lizardik esaldi motz ebakia bait du atsegin: motz eta adierazkorra, bizia. Hainbesteraino non, *Biotz Begietan* liburuaz diharduelarik, Eli Agirrek, Agarel deituriko kritikoak *Euzkerea* aldizkarian "de ilación un tanto dura" dela esaten bait du [180].

Lizardiren sintaxian segituan nabari da lokailuak kentzeko joera, esaldiak elkarri lotzen dituzten konjuntzioak, bakanak dira, eta esaldien arteko oihartzuna egiteko balio duten deiktikoak ere behar beharrezkoak baizik ez daude, gero ikusiko dugunez, horixe bera delarik Lizardiren joskeraren zailtasun iturrietako bat.

Frogantza beharrik ez dutela iruditzen zaidan ohar orokor hauei, ordea, zenbait ezaugarri konkretu elkartzen zaizkie, Lizardiren joskera zailduaz batera, guztiz nortasun handiko estiloa eraikitzeko zerbitzen diotenak, eta aldi berean, aztertu ahala, haren estiloan nabarmenago egiten den elaborazio eta hizkuntz azterketa neketsuaren ondorio dela frogatzen dutenak.

Lizardiren olerkien "azal gogorraz" hitzegin izan da metaforikoki belaunaldiz belaunaldi Mitxelenaren irudia erabiliz. Lizardiren garaiko zenbait irizlek "artifizialtasuna" (Agarel) eta "canon arbitrario de belleza" (Aitzol) deitu zutena hizkuntzaren elaborazio, prestaketa eta eraldaketa baten fruitu da zalantzarik gabe, iritzi emaileen ikuspuntua gora-behera.

Alderdi honetatik, Lizardi Lizarraga edo Oihenarteren senide ageri zaigu, bizirik ezagutu zuen eguneroko hizkera mintzatu nahiz idatzitik urrunduz, berak egokienatzat jotako irizpideen arabera eraiki zuen mintzaira poetikoa sortu zuen.

Lizardiren "mintzo elertitsu"aren ezaugarri orokorrak azaldu ditugularik, jo dezagun orain gure iritziz haren olerkigintzari zigilurik sakonena ezarri dioten eta, aldi berean, zailtasun eta iluntasun kutsu gehiena eratxeki dioten zenbait puntu aztertzera.

Sintaxiaren atal honetan honako puntu hauek aztertuko ditugu:

2.4.1.– Egitura sintaktiko bereziki laburzaleak.

2.4.2.– Hizketa esaeratsua: elipsia, yustaposizioa, adierazbide adierazko eta kolokialak.

2.4.3.– Erlatibozko esaldiak.

2.4.4.– Hiperbaton. Hitz-hurrenketa aldaketak.

2.4.5.– Intzisoak edo esaldi etenak.

---

178 "Sin freno la actividad química de las palabras, las valencias que potencialmente pugnan dentro de los vocablos por hallar otros elementos con que sociarse, encuentran ahora campo abierto a su actividad: "Las palabras se enredan como las cerezas".ALONSO, D.; "La lengua poética de Góngora" (I parte), in *Obras Completas*, V, 181. or.

179 "Tormesko itsu-mutilla (I-II)" in *Euzkadi*, 1929-6-17 eta 29-7-26; *K-L* 236 or.

180 AGIRRE, E., "AGAREL"; "De literatura vasca. Lizardi'tar Txabier" in *Euzkerea*, 1933-4-15, 320. or.

2.4.6.- Deiktikoen erreferente aldaketaren ondoriozko ulerpen zailtasunak.

2.4.1. Egitura sintaktiko bereziki laburzaleak

2.4.1.0. Sarrera

Azterketaren maila morfo-sintaktikoan ikusia dugun moduan, Lizardik hizkuntzaren baliapide espresiboen erabilera jakin bat du ederretsirik: laburzale bezain adierazkor dena. Horretarako, hitz elkarketak eskaintzen dion kontzeptu berriak sortzeko aukera profitatzen du ahalik eta gehien, eratorketari, berriz, erredundantzia alferrikakoak, bestela uler daitezkeenak eta aisetasunez ulertzeko beharrezko liratekeen atzizki eratorleak kimatzeari ere ekiten dio, morfologikoki atipikoak, arauz bestekoak bilakatzen diren hitzak erabiliz, zenbaitetan.

Morfosintaxian, kimaketa lan berari jarraitzen zaio, mugatzaile, mugagabe eta pluralaren erabilera berezia eta partizipio burutuaren morfema gabetzea, molde arkaikoez eta hiztegi kulto eta arkaismoez baliatzen da, guztiz tankera bereziaz giltzatzen du bere mintzaira poetikoa. Ez da harrigarria bere garaiko literatur kritiko guztiek haren mintzaira poetikoaren originaltasuna azpimarratu izana.

Lizardik idatzi zuen garaian joskeraren "purismo" boladaren eraginpean daude zenbait idazle. Izan ere, Sabino Aranaren eta Azkueren garbizaletasun lexikoaren ondoren, sintaxiaren jatortasunnaren bilaketari ekiten zaio. Lexikoa azken batean hizkuntzaren azala besterik ez bait da, joskera da muina, hizkuntzaren arima, garbizale berriek diotenez.

Joskeraren purismoaren suztatzaile izan zirenetako batzuk aipatzekotan, Patrizio Orkaiztegi aipatu behar. Idazle zaharren "zein", "zeren" eta antzerako anaforikoen gaitzespenik borobilena egingo duen lehenengoetakoa da Orkaiztegi tolosarra [181].

Sebero Altubek 1920an argitaratua zuen *De sintaxis euskérika*ren jarraipena da *Erderismos* [182] liburua, sintaxi joera garbizalearen liburu paradigmatikotzat aipa litekeena [183]. Karlos Aotegik tesiaren bigarren alean "Datos Complementarios" deritzan atalean Lizardiren liburutegian "Erderismos" liburuaren ale bat dagoela esaten du.

Altubek bi iturri nagusi ditu Luis Villasantek 1975ko *Erderismos*en birrargitaralpenari egin sarreran dionez, alde batetik ahozko mintzaira, eta bestetik idazle zaharrak, Axular goraipatzen duelarik bereziki. Bere garaiko joera garbizalelaren seme da Altube ordea, eta ondorioz, euskararen berezitasuna, inguruko hizkuntzak ez bezalakoa izatean jartzen zuen bereziki azpimarra:

> "Euskera, hizkuntza berezia dela, apartekoa, besteak ez bezalakoa, ondo barnera sartu zitzaigun euskaltzaleoi. Berezitasun hori agirian jartzean, urrunegi joan gara ordea. Eta gehiegikeria guztiak bezala, hau ere geure buruon kaltetan izan da" [184].

Eta bereziki juntagailu kentzeaz diharduelarik:

> "Gauza jakina da zenbat eta eskolatuagoa izan hiztuna, orduan eta juntagailu gehiagoren premia sumatzen dela.
>
> Eta halaber hizkera idatzian (mintzaira denetan ikusten denez), baliakizun, aparailu eta tresna gehiago behar izaten dira; hitzegiteko behar izaten direnak baino gehiago, noski. Guk, berriz,

---

[181] ORKAIZTEGI, P.; Observaciones para escribir tolerablemente en nuestro idioma eúskaro, E. Lopez, Tolosa, 1906.

[182] in *Euskera*, I-IV zka, 1929,

[183] VILLASANTE, L.; "Hitzaurre-gisa" in ALTUBE, S.; *Erderismos*, Indauchu, Bilbo, 1975, V-XII. or.

[184] VILLASANTE, L.; *Ibidem*, VI-VII. or.

baserritar eskolagabearen hizkera hartu ohi dugu sarritan ispilu bezala, eta neurri horrekin neurtu nahi izaten dugu euskera idatzia" [185].

Sintaxiari dagokionez, Morfosintaxian bezala, estilizazio poetikoaren bide beretik ihardun zuen Lizardik, baina oraingoan ongi zedarriturik dagoen bide kontzeptistari jarraitzen zaiolarik: laburtasuna ez ezik, Lizardik literaturaren historian estetika kontzeptistari loturik doazen hiperbatona bezalako zenbait ezaugarri sintaktiko ere badarabiltza.

Lizardiren idazlanei buruzko azterketa guztiek aipatu dute haren sintaxiaren ezaugarri gisa elipsiaren teknika.

Aditzaren elipsia azpimarratu izan da sarrienik, eta arrazoi osoz. Horregatik eta begi bistakoa den honen inguruan frogak pilatzen ari gabe, aski da Edizio Kritikoan alderatu ditugun *Aldakeri* eta *Asaba zaarren baratza* izeneko prosazko eta olerkien bertsioen bilakaeran sumatzen den zorrozte eta soiltze prozesuari erreparatzea.

Partizipioaren morfema, mugatzailearena eta are aditz laguntzailea nahiz aditz osoa isiltzearen ildotik, Lizardiren olerkietan gertatzen diren beste zenbait laburtze ere aipagarri dira, bere poesiaren ezaugarri orokor honen beste adierazbideetako bat direlarik.

Sailkapen batean antolatzeko aukera gutxi eskeintzen dute euskal sintaxiari egiten dizkion laburketak, baina nolabaiteko multzo batzuetan ordenaturik aurkeztuko ditut aipagarrienak iruditu zaizkidanak.

2.4.1.1. Sintagma laburtuen sailkapena

Arruntena jadanik aipatua dugun mugatzaileaz gabetze kasuak ditugu, nahiz sujeto, nahiz osagarri zuzen, nahiz sintagma atributoa denean [186]. Muga-kentzearen gaia aipatua dugunez, jo dezagun bestelako zenbait ikustera:

Postposizioak eta ISren deklinabide atzizkiari eragiten dioten laburtzeak dira orokorrenak. Lizardiren olerkietako kimaketa edo laburtzeen artean postposizioei dagozkienak ugarienetakoak dira: postposizioaren beraren amaierako deklinabide atzizkia, nahiz postposizioa daraman Izen Sintagmaren amaierako atzizki egokitzailea, ezabaturik aurki daitezke:

A.– "Otoi au egin arte(AN)
gezur-yainko goriari
norbait dizu sumatu,
xee ta bixkorrik, beean,
urrats usuz ibiltari"
(Am_2 10-15, 251)

B.– "Etxeko sutondotik ibili-ondo(REN)
oroigarriz betea dakusazu oro:
(MB 53-55, 583)

D.– "zitalak nai au eratxi, burruka koldar-bidez"

---

185 *Ibidem*, VII. or.

186 Arretagarriena, dena den, sujeto funtzioa egiten duen ISnor mugagabean ematen denean izaten da:

"Maitetasuna dator azi izkutu batez,
guziok baitaukagu barnean jaiotzez:
ez edozein eguzkik ernerazgarria,
autuaren begiek bear dute ukia;
ta oartzen ez gera danik ernetua
arik eta *biotz*dan arte loreztua" (MB 33-34, 281).

(ZE 46, 137)

Konparatiboaren arloan ere ematen dira laburketak:

A) "Lurralde gizenik gabe
gure Euskalerriaz ain guziz beste"(lako)
(EB 63-64, 181

Beste zenbaitetan laburdurak euskal egitura sintaktiko jakintzat eman eta hartan oinarriturik eginak dira:

A) "Uda suzko itxaso baitut ibili
gerizpe atsegin bat nuela untzi"
(OG 1-2, 165).

Arruntagoa litzateke "nuela untziTZAT" aurkitzea baina egitura hau bera ere ulergarri eta ezaguna zaigu.

Hurrengo adibide honetan, ordea, aditza eta atzizki modala bera ere izkutaturik ditugu esaldi nagusiko aditza ez ezik...

B) "*Izotz bat untzi* gure ibilgoa..."
(EB 55, 181)

C) "dantzari talde baco'tiarrak
naaspil zoroan zuti-baldarrak
esku goituan ontzia ardo..."
(SL 46-48, 149)

Sagar Lore izeneko olerkian dagoen ahapaldi zati honetan ere aditza eta are atzizki modala -larik isildurik aurki genitzake.

2.4.1.2. Zenbait laburpen berezi

Beste zenbaitetan Lizardik eraginiko laburketa gaitzagoa da. Adibide gisa hartuko dugun honetan esate baterako, hiru hitzetan du bildurik hodeiak oihalekin erkatu eta haiek bezala litsetan urratu direla adierazten duena. Irakurleak ezin du aditz laguntzaile batez osatu esaldia, elipsiak aditz sintagma osoa kimatu bait du: "lits"en moduko "urratu"ak dituzte. Kimaketak biak izen bilakatzen ditu —ohar bedi "lits urratu"ren paralelotzat hurrengo lerroan emana dagoena "orro" izena dela-, eta euren alderdi fonikoaz baliatzen aliterazioa egiteko, eta ekaitzaren aizearen eta itsas kolpeen hotsa imitatzeko:

"Odeiek lits urratu;
itsasoak orro,..."
(BMD 9-10, 119)

odeiek lits urratu o-e-i-e-i-ts-u-rr-a
itsasoak orro i-ts-s-o-a-o-rr-o

Beste zenbaitetan, hizkera mintzatuan bakarrik erabiltzen diren adierazbide laburzaleez baliatzen da, bereziki kutsu kolokiala duten egiturez. Esate baterako, —ki atzizkiaz zenbait aditzekin sarri erabili ohi den aditz-izenen bidez emaniko esaldi kausal esplikatiboak sarri aurki daitezke:

[Aditz izena+ki] atzizkiaz eginiko esaldi kausal esplikatiboak modu esaeratsuan, laburrean eta bereziki espresiboan azalpena eman nahi denean erabili ohi da:

A) "Belarpeko txuloa kilkerrak bai eder,

baiña *gizontxoa —alegia!— ez izaki kilker!"*
(ZE 43-44, 135)

B) "Yun baita, betiko
yun, aitaren poza!
Loreak biltzeko
ez izaki gauza!"
(OU 21-24, 107)

Lehenengo bi adibide hauetan ikus daitekeenez, jatorrizko maila kolokialean bezala, esaldi esklamatiboetan agertzen da egitura hau. Beste zenbaitetan, aldiz, esaldi hasieran eta isilaldi batek mugaturik, [aditz izena+ ki] egiturak eskeiniriko "azalpenak" balore kausal-modala ere izan lezake:

D) "*Ego begi izaki* ta aizeak garra:
irakin diraki, beroz ez ezik
erleen egoek jo ta naasirik..."
(BI 12-15, 155)

Aurki genitzake ordea, hain ezagunak ez eta ezagunak direnik ere zalantzan jar genitzakeen [aditz izena+ki] egituraren erabilera sintaktikoak:

E) "Badut zalantza *zein giro izaki*"
(SL 13, 147)

Adibide honetan, esate baterako, "zein giro ote den", beraz, zehar galdera baten zeregina betetzen ari da. Ikus hurrengo lerrokoa hala dela: "otzaren aala *danentz* ebaki".

Lapurteraz, eta niri ezagunak egiten zaizkidan Hondarrabi-Irun inguruko eta Baztango euskaldunen ahotan entzun ditudan —ki atzizkiaz lagunduriko aditz izenek beste erabilera bat ere izan lezakete, arestian aipatu den esplikatibo-modal horrezaz gain, hain zuzen ere aditz jokatuetan aspekto puntukaria duten zenbait aditz forma adierazteko: "Etxera faki naz" = Etxera noa esateko, edo "Zer, lanean ariki?" Zer, lanean ari al zara? galdetzeko.

Honetan oinarritu bide zen Lizardi [aditz izena+ki] atzizkiaz zehar galdera egin eta aditz laguntzailea+eN ezabatuz "badut zalantza zein giro izaki" bezalako bertsoa egiteko.

Azkenik aipatzera goazen —ki atzizkiaren erabilerak aurrekoen arteko bat dirudi, ikusi batera, hots [aditz izena+ki] moldekoa. Ez da hala ordea.

E) "*Il-zaarki,* bizi dugun gizona!" (GM 9, 207)

Sail berean sartzeko joera semantikak eragiten digu, guk bai bait dakigu Lizardik esan nahi duena "aspaldi hila izanik" delakoa dela. Baina, gaia alde batetik baino gehiagotik aztertuta ere, oso nekeza da Lizardik euskal joskerari eraginiko eraldaketaren bidean honen aurrera joan zenik sinestea.

Esaldia esklamatiboa da, beraz ingurumari egokia [aditz-izena+ki] egituraz esaldi kausal-modaletako bat emateko. Baina, kasu honetan, —ki atzizkia ezin esan aditz izen bati loturik dagoenik.

Egitura bitxi honen jatorria besterik dela uste dut. Kasu honetan —ki atzizkiak aditzondoak egiteko erabiltzen denean bezalako betebeharra du, Lizardik berak "aberaski" aditzondo berria sortzeko erabili duen zentzu beraz.

Aditzondo modalen zentzua ematen dio —ki atzizkiak "il zaar" sintagmari. Sintagma honen jatorria izan daitekeena, berriz, Lizardiren beste olerki batean aurki genezake:

"Ta asi zan biraka berriz
*il zaar*ei oska negarrez"

(AZB 71-72, 191)

Eta egitura horrek, berriz, ezaguna zaigun beste esamolde kolokial batetara garamatza, bere esanahia ez bait da "hildako zaharrak"-en parekoa, "aspaldi hildakoak"-ena baizik:

Ez gara gu egon zaharrak! Mintzatu berriak gara.

Hitz elkartuak dira hauek berez,"jaioberria" bezalakoak, eta idatzi ere Lizardik hitz elkartuak egin ohi dituen moduan idatzi du "il-zaarki". Hitz elkarketaren bide morfologikotik sorturiko izenondo bat da, "-ki"ren bidez aditzondo bilaka bait diteke.

Morfema beraz sortuak dituen esamolde laburtzale hauek ez dute beti esanahi eta balio sintaktiko berbera. Sail berezi bat eskeini izanaren arrazoia zera da, Lizardik euskal sintaxiaz egiten duen erabilerak ahozko mintzairari zenbat zor dion erakustea, eta bestetik, hizkuntzaren normaren barruan dauden eskuartekoez egiten duen erabilera askeak zenbaitetan oso perpausa elaboratuak, abiapuntutzat duten ahozko mintzairatik ez ezik, literatur tradizioaren esparrutik aldendu egiten direla, azken adibidean ikusia denez.

Sintaxi laburtzalean Lizardik erabiltzen duen beste atzizki bat ere aipagarri da, kasu honetan, aurreko kasuan ez bezala, jatorrizko erabileraren esparrutik atera gabe erabiltzen badu ere, bere gisa osaturiko sintagmetan darabil, Azkuek aipatzen dituen ezagunenen ereduari jarraituz.

-arren atzizkiaz baliatuz eginiko zenbait laburtze ere aipagarri dira. Azkuek atzizki honezaz honela dio *Morfologia Vasca*n:

> "AFIJOS ADVERBIALES DE MODO: Arren. Tiene este sufijo aceptción de adverbial de modo cuando sirven de tema nombres que indican pasiones.
>
> Arroarren, Damuarren, Gurarren, Larriarren, Lotsarren, Naiarren, Nagiarren, Pozarren, (B)
>
> En el Ms de Otx. 341 se lee "alperrarren mezea uts egin" faltar a Misa por flojo, por haragán. Hay vocablos en los cuales es dificil asentar si el sufijo indica meramente modalidad o transciende a la categoria de causa" [187].

Lizardik erabiltzen duen eran balore kausala duela esango genuke, "-gatik" atzizkiak ordezkatu ahal izango lituzke, baina hau luzeagoa izateaz gain, erabiliagoa da, arruntagoa, eta beraz mintzaira literarioan erabilia izateko ezagunegia, "igatu"egia ere bai.

A) "Biar?... Gogapen txarrok
urrun! Egun banari
gau bat darraikio
egiñaz atsartzeko,
ez *eginkizunarren,*
orde, kezkatzeko"
(O 79-84, 27)

B) "Txoriaren poz-ikara!...
Ur-ontzitxoan murgildu ta astinduz-gero,
maitetasunarren ero,
badoa dei-dion ao gorrira"
(Ald 37-41, 47)

D) Gazte otoi luzeetan asi baiño leen,
Xerbelduxe bait zegon *maite-ardoarren,*
iraulka zebiltzian bazter orotara
begi yakinbearrak, orien gogara"

[187] AZKUE, R.M.; *Morfología vasca,* I, La gran enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969, 363. puntua, 233. or.

(MB 49-53, 283)

Lizardiren joskeran aurkitzen diren bi egitura bereziki laburtzale aipatu dira: lehenago -ki atzizkiaren jatorrizko balore kausal-modala, eta -arren atzizkiaren erabilera. Ingurumari kolokialean soilik edo baztertuxe dauden erabilerak dira, hizkuntzaren sinkronian arkaismotzat ere jo daitezke, -ki aspektu puntukaria adierazteko erabiltzea bezala. Lizardiren olerkietan joskera egitura laburtzale, kontzeptista horiek kutsu esaeratsua, esaldi eginen tankera, aintzina zoldutakoen tankera hartzen dute, neurri eta errimaren betebeharretarako egoki etorriaz batera.

2.4.2. Hizketa esaeratsuaren moldeko egitura laburzaleak

Puntu honetan frogatzen ahaleginduko garenez, Lizardiren esaldiek hartzen duten kutsu esaeratsua berarizkoa da, estilo-nahi baten ondorio. Atsotitz, esaera edo errefrauek izaten dituzten hizkuntz-ezaugarriez baliatuz, idazle zaharrek, Etxeparek nahiz Sarako Etxeberrik ohi duten estilo sententziotsu, didaktiko moralizanteari heltzen dio zenbaitetan.

Morfologiaren alorrean ikusi ditugun ezaugarriak, hots, muga-kentzeak, partizipio eta infinitibo ezberdintasuna ezabatzeak hizkuntzari aintzin kutsu eta gotortasuna. Molde zaharren eta hizkuntzaren muin-muineko egiturak, hizkuntzak adierazten duen euskaldunen mundu ikusmoldearen adierazbideen bilaketaren lekuko dira Lizardiren praktika poetikoan.

2.4.2.1. Ahozko mintzaira iturri

Sintaxi mailan ere antzeman daiteke aurreko atalean ahozko mintzairaren ekarriaz egiten duen erabilera; ahozkoan sarri erabiltzen diren zenbait espresio eginen moldeaz baliatuz, zenbaitetan hura bera erabiliz, bestetan haren eredura sorturiko beste batzuez baliatuz eginiko pasarteak aurki daitezke Lizardiren olerkietan.

Esate baterako, eta lehenago -ki atzizkiaren erabileraren arloan aztertu dugun adibidearen bigarren zatian ere euskara mintzatuan ohizkoa den esamolde batez baliatzen da Lizardi. Norberaren gurasoez hitzegiterakoan "aita bizi dugu oraindik" bezalako espresioak arruntak dira. Lizardik hemen Sabino Aranaz "aspaldi hila izanik ere, bizi dugun gizona!" esaterakoan, modu metaforikoan erabilia du esamolde hau. Ez da egia hila izanik, benetan bizi denik, baina "guk bizi dugu"la esatean, paradoxaren indarrez eta guk hura bizi izatean dugun partea azpimarratzen duelarik, elkarrizketaren ingurumarian arrunta den esamolde bati kutsu berria, indartsuagoa, adierazkorragoa ematen dio:

A) "Il zaarki, *bizi dugun* gizona!"
(GM 9, 207)

Gauza bera gertatzen da hurrengo adibide honekin:

B) "ta, aspaldi ez ta *mendi-aldi*"
(SL 9, 147)

Esate baterako, eta leku batean lagun bat ikustean, bertan bizi ez delako edo aspaldian agertu gabea delako, zera esatea ez da harrigarri izaten: "Zer, hemengo aldi?"

Esan nahi delarik, ia harako gogoa eginda agertu den.

Lizardi adierazbide kolokiala den honezaz baliatzen da, hitz-elkartu berri bat sortuz eta aipatu dugun esamolde hori ez ezagutuz gero, bortxatua dela pentsatuko mendi+aldi hitzen elkarketa eginez.

D) "Izadiari zizkiok *kendu-aalak ken...*"
(ZE 37, 135)

Azken adibide hau berriz, eta *Zuaitz etzana* bezalako olerki moralizante edo didaktikoan kokaturik dagoelarik, hain zuzen ere, atsotitz gisako esaera gehiena pilatzen diren olerkian dagoelarik, hizkera mintzatuan aski ezaguna den esamolde hau "egin ahalak egin", "esan ahalak esan" etabarren antzekoa erabiltzean, olerkiak duen taxuera areagotzeko balio du.

2.4.2.2. Atsotitzak eta esaerak iturri

Beste zenbaitetan, Lizardiren mintzaira poetikoaren kutsu esaeratsua atsotitzetako hizkeraren ezaugarriez baliatuz egiten du: zenbait izenen balorea orokortuz eta haiekiko egintzak denboratik kanpo kokatuz, aditzaren denbora, aspektu, pertsona eta gainerako ezaugarriak ezabatuz. Esate baterako,

A) "Amaika aldiz lurpera gizonek gizonak..."
(ZE 35, 135)

Hain ezagunak diren "Mendiak mendia bear ez, baya guizonak guizona bai" [188] bezalako esamoldeen tankeran egina dugu Lizardiren bertso hau "lurpera" aditza bere ezaugarri marka guztiez gabeturik eta gizona hitzak gizadi osoa, gizon guztiak ordezkatzen dituelarik.

B) "Larreko zezena, oianeko basauntza,
odeietako txoriak...*oro gizonak eiza...*"
(ZE 39-40, 135)

Bigarren adibide honetan lehenengoaren ezaugarri berberez gain, esaldiak balore moral bat ere baduela suma liteke, "oro" hitzak ematen dion kutsu orokorraren ondorioz, apika.

Ohar bedi bestalde, Lizardik kutsu esaeratsua, errefrauetan ohi den bezala esaldia osatzeko, fragmento bat, noizpait egoki esaniko zerbait aipatzean osoki adierazteke aidean uzten den bezala, Lizardik puntu suspentsiboak idatzi ohi ditu honelako esaldien ostean.

Benetako errefrauak aipatzean egiten duen modu berean:

D) "Ikus dun ori laguna?...
Ez din, orratik orretxek jaso makala,
"ederrez ain motza dala..."
"(*Zozoak beleari ...dakiguna*)"
(Ald 53-56, 49).

E) "*Geldiak gizendu, egonak goza,*
nagiak noizpait jalkiaraz bitza..."
(BI 21-22, 157).

Elkarri lokarririk gabe, yustaposizioz errefrauetan ohi den moduan, eta era berean, Etxepareren bertsoek ohi duten moduan, loturik dauden hiru esaldi hauek sagar aleen umotze prozesua azaltzen dute, hiru sujeto eragileak maila berekoak ez izan arren, hiru esaldien palalelotasunak berdindu egiten ditu. Lehenengoak eta hirugarrenak gaur egungo mintzairan —tasun atzizkiaz izango luketen balore abstraktoa hartzen dute berez adjetiboak diren arren. Bigarrena aldiz, ondoren aipatuko dugun atsotitzetako aditzek duten taxuera berbera du:

"Asiak eguina dirudi, asakatuak eder"

"Lo começado parece acabado, lo acabado hermoso".

---

[188] URKIJO, J.; *Los refranes de Garibay* in *El refranero vasco*, I., Donostia, 1919, 31-32. or.

Julio Urkixok Garibairen atsotitz hau azaltzen ari delarik, zera eransten du: Azkue advierte en *Euskelzale* que ha oido decir: "Asiak egiña dirudi, egiñak urrea" (69-70 or.).

Ondoren aipatzera goazen adibidea ia hitzez hitz oso ezaguna den atsotitz baten aldaera dirudi, urrutiko paradisuetan gehiegizko konfidantzarik ez izateko aholkatzen digun esan-zuhurra: "Urrutiko intxaurrak hamabost, bertara joan da bost".

F) "Bidazti-begiek sarri
aidean baso ta iturri
bertarañokoan, ondarra gorri!"
(EB 47-49, 179)

Lizardiren idazlan poetikoetan nireak baino begi zoliagoek aipatuak baino adibide ugariago, honelako esamolde eta esan-zuhurren tankerako esamolde gehiago nabarmendu ahal izango dituzte ziurtasunez. Gaia agortzeko ametsik egin gabe, aurkeztu baizik egin ez dudalako ziurtasun osoz, hizkera esaeratsu honezaz baliatuz Lizardik sortu asmo zuen mintzairan zolduriko mezu eta irudi berrien eredu gisa merezi duen ahapaldi honezaz itxi nahi nuke atal hau:

G) "Ta asi zan biraka berriz,
il zaarrei oska, negarrez,
eriotzaren egarri...
bizitzaren ondar-aleak
larraiñean eultzen ari..."
(AZB 71-75, 191)

Lizardik modu gogoangarrian adierazi nahi du amonaren azken orduak direla, burua nahasirik inor ezagutzen ez zuelarik, birrumeturik eta senideei lan ikaragarria ematen zielarik igarotako urte horiek amaitzen ari direla. Denbora agortzen ari zaiola adierazteko modu metaforiko bat bilatu du: larrainean aletzen ari den gariaren azken aleak, "ondar-aleak" modukoak dira amonaren azken egunak.

Erka dezagun orain, *Asaba zaarren baratza*n denbora igarotzearen inguruko metafora hau *Aldakeri* olerkiaren azken bertsioan agertzen denarekin. Funtsean elementuak berberak ditugu: azken-orduak aleak dira, norbaitek aletzen diharduen "galburu edo artaburu" batekoak:

H) "Aleak une diardu, nagiz, Aldiak
yalkitzen artaburua...
Agurea baita, dardar eskua,
logura, berriz, begiak..."
(Ald 109-112, 53).

Biak irudi beraren adierazbide ditugu, bi irudiak kontatzen ari den narrazioaren une kritikoan kokaturiko ahapaldi zatiak. Bizitzaren amaieraz ohartzearen larria azpimarratu nahi duen uneari dagozkionak. Aldia, garia edo artoa aletzen ari den agure dardaratiarekiko metaforizaketaz gain, metafora, irudia adierazteko modua da funtsean aldatzen dena, ene ustez, *Aldakeri*tik, *Asaba zaarren baratza* delakora.

Bigarren honetan irudiaren osagarri esentzialak bakarrik aipatzen dira, aletzailea nor den esan gabe, Europako literaturan hain ezaguna den Aldia, Kronos agurearen irudiaz baliatzen da, aipatu gabe utzi, eta sortzen ari den imaginaren maila erreala eta metaforikoa esaldi berean nahastuz:

"bizitzaren ondar-aleak..."

Teknika honek, hitz elkartuetan aipatua utzi dugun bizitza-itsaso, oroipen-txori, maite-ardo eta itxaropen-kabi bezalakoekin du zerikusia. Metaforizatzeko modu estilizatuagoa ekeintzen dion aldi berean, irudi estereopatuaz baliatzeko bidea eskeintzen dio, topikoaren desabantailak jasan beharrik izan gabe.

2.4.3. Erlatibozkoak

2.4.3.0. Sarrera

Sintaxiaren azterketaren maila honetan atal berezi bat merezi dute erlatibozko esaldiek. Euskal joskeraren osagarririk berezienetakoak dira, inguruko hizkuntzetako sintaxiaren ordenaz guztiz bestelako den kokapena dela eta.

Horrezaz gain, Lizardik erlatibozko esaldiak osatzeko baliapide bariatuak, ugariak, gramatikalariek hobetsi eta gaitzetsitakoak erabiltzen ditu, eta azkenik hiperbatonak, leku-aldaketak eragiten ditu hauen artean ere, esaldi ordena bitxiak, zailak eta ausartak sorreraziz.

2.4.3.1. Bait-en bidez eginikoak

Lehen sail honetan bildu ditugu "bait" aurrizkiaren bidez eta zenbaitetan erlatibozko "-n"ren laguntzaz eginiko erlatibozko esaldiak.

Lehenengo adibide honetan ikusi ahal izango dugunez, "bait-" aurrizkiak ez du bereziki funtzio handirik, erlatibozkoa amaierako -n ren eskurik dator eta, ohi bezala, ondokoaren aurrean kokaturik dugu erlatibozko esaldia:

A) "Zenbaitek ondamendi baituten katea
lore-sorta bekizu
goi-muñoak zear"
(BMD 53-55, 123)

Bigarren adibide honetan, aldiz:

B) "Entzun bezat iñoizko olerkaria,
zelaian baitzun lur-yauregia"
(OG 67-68, 165)

"Lur-yauregia zelaian zuen iñoizko olerkaria" ordena aldatzeko askatasuna eman ohi du euskaraz "-n" atzizkiaren ordez "bait-" erabiltzeak.

Gauza bera gertatzen da hirugarren adibide honetan, erlatibozko esaldia ondoren datoz:

D) "Maitetasuna dator azi izkutu batez
guziok baitaukagu barnean yaiotzez:"
(MB 29-30, 281)

2.4.3.2. Non, nola edo antzeko izenordeek sarreraziriko erlatibozkoak

"Bait-" aurrizkiaz eginiko erlatibozko esaldiak hain arruntak ez izanik ere, ahozko mintzairan erabiliak dira, eta Lizardiren sintaxian erlatibozko esaldiak ohizko lekutik aldendurik erabiltzeko askatasuna eskeintzen badute, NON, NOLA eta antzerako izenordeek sarrerazitakoek, ordea, ez dute euskaldun gehiengoarentzat erabilera zabalegirik.

Zenbait gramatikalarik hizkuntza idatzian eta literarioan ere arroztzat jo ditu, eta Lizardik gehienbat lapurtar klasikoei ikasiak dizkiela pentsa liteke. Hona hemen lehen adibide eredugarri bat:

A) "Or pago bat, lerden-aski,
igazko apaingarriak
(gaur orbel gorriak)
oso yaregin nai-ezik,

nola baituten oi
neskazar ezin-etsiak"
(BiL 15-20, 141)

Lapurtar klasikoek ohi zuten moduan Lizardik ere NOLA izenordainaz sarreraziriko erlatibozko esaldiko aditzari bait aurrizkia eransten dio. Berez, balore konparatiboa duen esaldia da: "neskazahar ezinetsiak ohi duten moduan/ bezala"ren kideko dugu, baina egituraren sailkapenari eutsiko diogunez, antezedenterik gabeko erlatibozko/ konparatibo honek *Agur* olerkian aurkitzen dugun beste konparatibo honen ahaide dirudi, biak ere lapurtar klasikoengandik ikasirikoaren lekuko direlarik:

B) "Elkar-ordaiñaren ezti berdiñaka
bein ta berriz uka maitasunak baitik,
t'ez eskein bizitzak beazuna baizik
(*ala baita mikatz sagar bat elduka*),
aldegiña aiz urrun, lagun biotz-bera
adi-mugaz aruntz-erbeste itzalera"
(Ag 5-10, 113)

1932ko *Biotz-Begietan* liburuan agerturiko bertsio hau 1930ko bertsioarekin alderatzea interesgarria zaigu sintaxiari buruzko atal honetan. Erlatibozko esaldiaren sarrera izenordain galdetzaile batez egina du, "ala"ren ordez, "nola" ageri da, eta Lizardik eginiko itzulpenean "ofrendas de hiel cual pudiera una amarga manzana no madura" esaten da [189].

Konparatiboak egiteko ez ezik, erabiltzen ditu Lizardik honela eginiko erlatibozkoak bestelako ingurumarietan ere:

D) "(Itsasoak bai baitu, urrun-ertzean,
urre gorizko bide-goenean,
legor bat — odol-uts iñularrean-
Eguzkia nondik sar atsedenean..."
(OG 5-9, 365)

Kasu honetan, esaldi nagusian "ondokoa"ren funtzioa duen hitza "legor bat" genuke, intzisoak banatzen ditu erlatibozkoa eta ondokoa, eta, horretaz gain, bait- aurrizkiaz eginiko erlatibozkoek bezala, ondokoaren atzetik joan ahal izateko askatasuna du, aditzaren aspektu marka, —ohizkoa dela pentsa genezakeena "sartzen den"— eta aditz laguntzaile osoa ere ezabaturik daude, bait- aurrizkia edo -n atzizkia ere falta delarik.

Azken honen antzekoa da atal honetako adibideak osatzeko hautatu dugun beste hau:

E) "Gaztez aurreka
arako torre zaarra
zutik, *baratza non buka"*
(GE 54-56, 243)

"Baratza bukatzen den tokian" esan nahi duelarik erlatibozko esaldi honek aurrekoaren oso antzeko ezaugarriak ditu, baina "ondokoa" behar lukeen "tokian" edo antzerako hitzik ez dugu esaldi nagusian, beraz gaztelaniazko zenbait erlatibozkoen gisakoa da: "Donde termina la huerta, ante el joven, la antigua torre, en pie..."

[189] Ikus "Edizio Kritiko baterako" eranskinean *Agur* olerkia.

2.4.3.3. Lokailurik gabeko erlatibozkoak

Aurreko ataletako erlatibozkoen berezitasun sintaktikoa lekuz aldatzeko askatasuna bazen, batez ere ondokoaren segidan kokatu ahal izateko askatasuna bazen, izenburu honetan bildu ditugun erlatibozkoen ezaugarri nagusia laburtasuna da, aditza jokatu gabe egoteaz gain, gehienetan aspektu burutua duen partizipioa da menpeko esaldiaren aditza, baina inolako atzizkirik gabe eransten zaio ondokoari.

Grafiari dagokionez, azpimarragarria da menpeko esaldiaren aditz jokatu-gabea eta "ondokoa" den izenaren artean gidoia idazten duela Lizardik, hitz elkartuetan ohi duen moduan.

Hegoaldeko euskalkietan ohizko diren -tako edo -riko lokailuak ezabaturik edo hobeki esanik, horien beharrik gabe adierazten dute Ifarraldeko euskalkiek, eta beraz lapurtar klasikoak ere bai, menpeko esaldiaren eta izenaren arteko harremana.

Idatziz adierazteko moduak [erlatibozkoek + izenondoak] Izen Sintagma beraren zati, kontzeptu bakar bat osatzen dutela azpimarratzen du.

Lizardik ezagutu zezakeen Orixeren hitzaldi batean 1921-9-4/8an Durangoko Euskal Egunetan irakurritako "Eusko Olerki Neurritzaz" izenekoan, Lizardiren lanetan garapen zabala izaniko egitura honezaz hitzegiten du, berak ere hitz elkarketaren alorrekotzat jotzen duelarik.

Orixe, berez, "neurtitz" hitz-berria ongi sortua ote dagoen argitzen ari da:

> "Itz-neurtu euskera balin bada, baita neurtitza ere. Euskeran itzek askatuta dauden tokigarreneen erauntsitzen badire, au da, izketa neurrigabekoan itzek aurreen edo atzeen balinbazeuden tayu ortan bertan uzten badire, ederki yosirik daude. Egii da bai, itz neurtu esateko, neurtuu itz ez dugula esaten neurri-ez-izketan; baño oartu, neurtu-itz au, neurtutako itz en laburkera dela: geroz neurtutako itza, neurtu-itza, neurtitza. Gaur ere Lapurdin esaten dute:"txakurrak il erbia yan dut", txakurrak ildako erbia, edo txakurrak il zun erbia yan dut, esan ordez. Lapurdiko ta Zuberoko liburuetan ugari arkituko dituzue esaera oriek: ona batzuk: "Daniel Profetek aipatu denborak (Sain Bizitz. Joanategi I ,415 orr)...[] Ola bada tako ori laburtzen da, ta ez dira itzek tokialdatzen [190].

A) "*ostobakandu*-sasian kabi bat urratua..."
(BiL 21, 141)

Honela, "Ostoak bakandu zaizkion sasia" eta "ostobakandu-sasiak" trinkotasun ezberdintasunaz gain, semantika aldetik ere "zuaitz etzana" bezalako sintagmek baino batasun maila handiagoa du, Izenak eta izenondoak duten elkartasun maila baino areagokoa lortzen du.

Horregatik honelako moldea erabiltzean, lokailurik gabeko erlatibozko hauek erabiltzen dituenean, Lizardik gehienetan osagarri gutxiz osaturiko menpeko esaldiak kateatzen ditu lokailurik gabe:

B) "Ar maitez, otoi, *lerregin*-arrotza"
(BI 49, 159)

Bi osagarriz osaturiko menpekoak dira ugarienak, honelakoen artean, gehienetan nork eta aditz jokatu-gabeaz osaturikoak:

D) "*yoan*-elurte gaitzaren
ondarrak nabari"
(BiL 27-28, 143)

E) "ai, nik aal-banezaik, nik aal (eztiago

---

190 ORIXE; "Eusko Olerki Neurritzaz" in *Lenengo Euskal Egunetako Itzaldiak*, Bilbo, 1922, 48. or.

loar ar-basoan illargia baiño
ene oiu au sar biotz illeraiño"
(Ag 24-26, 115)

F) "Mendian, oillarrek
elkarri "gabon",
Loak ar-baratzan
badoa, geldi,
yaun katu eldekoi,
ozta nabari"
(AGB 169-178, 235)

G) "Txindoki, orain agokit aurrean,
goriak astundu-tantai arrizko"
(BI 28-29, 153)

H) "Kanta nai, nai alper; mintzoa
peitu, *miñak bear*-eztigai gozoa"
(GM 3-4, 207)

I) "Elkar-zorion" ori etzan soindun ume,
lur kixkali-lurruna bezain mamitzeke"
(MB 25-26, 281)

J) "Eguzkiak inguma
bezin maitea;
ala, maiteminduak,
Maite-ezpaiñek ukitu
lorea!..." (XE 106-110, 71)

Ikusten dugu goiko bederatzi adibide hauetan erlatibozko esaldia eta esaldi nagusiaren arteko mugak nabarmentzea ez dela hain nekeza, lotura faltak egitura behar bezala ezagutzen ez dutenei sor lekieeken iluntasuna gora-behera, egitura aski argiak direla. Izan ere, ohartu behar da Lizardik komak adierazten duen geldiune sintaktikoaren ostean kokatzen dituela, eta errima edo puntu guneak berarekin dakarren atsedenaren ostean, kokatzen duela egitura honezaz sarreraziriko erlatibozko murriztailea.

Ondoren aipatuko dugun bi adibideetan ez da hala gertatzen, lehenengoan zangalatrauaren gunean kokaturik bait dago menpeko esaldia eta ondokoa elkartzen dituen marratxoa:

K) "oker, ats-estuka, lurrari itsatsi-
mendizale makal unatu iduri"
(BI 33-43, 157)

Beraz, eta egituraren laburtzaletasunaren berezko zailtasunari —laburtzaletasunaren ondoriozko gaiztasunari-, zangalatrauaren gunean kokatua izatearen ondoriozko tarteak sorturiko bereizketa gehitu behar zaio.

Hirugarren atal batean bildu ditut bi osagarri baino gehiagoz osaturiko erlatibozko esaldiak. Aurrekoek baino zailtasun nabariagoa dute. Menpeko esaldiko aditza isildurik agertzen da zenbaitetan edo aspektu burutugabean:

L) "Adiskide laztan, eun bider gaxoa:
gogapenak elkar-bil-ari meeñoa

beñola zaik eten... Adi-yauregia!"
(Ag 11-13, 113)

Aspektu burutugabea izango luke izan ere menpeko esaldi horretako aditza osorik jokaturik eman nahi izanez gero: "biltzen dituen ari meheñoa".

Hurrengo bi adibide hauetan menpeko esaldiko aditza isildurik dago, hitz-elkarketan egin ohi den moduan beraz.

LL) "*Adi-mugaz aruntz*-erbeste itzalera"
(Ag 10, 113)

M) "*Ari beltz oker naasi* sareak"
(SL 19, 147)

Lehenengoan "dagoen" aditza izango genuke isildurik eta guztiz erraza gertatzen da igartzea. Bigarrenean aldiz, hitz-elkarketan ohizkoa den elipsia dago eginik: "alanbrez eginiko sarea" alanbre-sarea esan ohi den modu berean, eta agian hori bera eredutzat izanik, "ari beltz oker naasiz eginiko sarea" da laburtu duena.

Azken adibide honetan grafian elkarketa adierazten duen marratxorik, gidoirik aurkitu ez arren, aurrekoen sailekotzat joko dugu, bidenabar, honelako erlatibozkoek Lizardik erabiltzen dituen gisan hitz-elkarketaren bide morfologikoekin duten harreman estua ondoriotzat azpimarratzen dugularik, trinkotasunaren eta esanahi batasunaren aldetik, erlatibozko murriztaileak izatetik datorkien esanahi batasuna dela medio.

Ikusten da lokailurik gabeko erlatibozko esaldi hauek ere gaitzago bilakatzen direla luzatu ahala, menpeko esaldiko aditza sintagma gehiagoz zamatu ahala. Orain ikusiko dugu luzaerak ez ezik ordena aldaketa, esaldi nagusiaren barruan tokiz aldatzeak ere zaildu egiten duela bertsoa lehen ukaldiz ulertu ahal izatea.

2.4.3.4. Erlatibozkoa ondokoa duen Izen Sintagmaren ardatzaren ostean kokaturik

Jokatu-gabeko aditza duten erlatibozkoen alorrean darraigularik, ondokoari aurretik eta gidoi batez loturik agertu beharrean, ondotik, eta Izen Multzoa eta mugatzailearen artean kokaturikoei buruzko azalpena egin nahi nuke orain.

A) "mendizale makal *unatu* iduri"
(BI 33, 157)

Aurretik "lurrari itsatsi" dioen erlatibozko esaldi bat loturik duen "mendizale" izenak, ondotik beste bi kualifikatzaile daramatza, Txindoki mendiaren udako itxurarekiko alderaketa egiteko hautatu duen irudia behar bezala zertzelatzeko: alde batetik, mendizalea lurrari itsatsia dago, bestetik makala da, hirugarrenik "unatua" dago. Hirugarren hau izenondotzat jo genezakeen aditz partizipio burutua dugu, Izen Sintagma honen amaieran kokatua, eta Sintagma Atributua denez, mugatzailerik gabe agertzen delarik, unatu+iduri sinalefa egiteko aukera eskeintzen duena.

Ondoren aipatuko ditugun adibideotan aldiz, partizipio burutu horiek izenondotzat hartzerik ez dago, menpeko esaldietako aditz jokatu gabe gisa ageri bait dira, esaldi horretako Izen Sintagma ezberdinez lagundurik:

B) "Ai, aren esku, laztankor igaz izana"

(Ald 77, 51).

D) "egun nekez-yaioaz bat

(Ald 120, 55).

E) "Mokoz bai egoz otoikor astindu ditu
leiarki lausoz beteak"
(Ald 121-122, 55).

F) "Aran ta muño gaiñez
Aralar aundia,
euskotarren zaindari
Mikel'en mendia:
koskak elur-dirdaiek
bil ta, dirudia
amets eder mamitu
ortzian geldia"
(IOI 65-72, 203).

Zailtasunik ez dutenez, sintaktikoki aipamen luzerik merezi ez badute ere, ondokoaren ostean, eta Izen Multzoa —Izen soilez nahiz Izen+Izenondoz osaturiko Izen Multzoa— eta mugatzailearen tartean kokatu ahal izateak sintaxi aldetiko askatasun handia eskaintzen dio olerkariari, bai eta teknika poetikoaren aldetik jadanik aipatua dugun zer bati buruzko zertzeladak patxaraz eransteko aukera, kasu honetan ez bait dira erlatibozko murriztaileak, azalpenak gehitzeko, zertzeladak ugaltzeko aukera eskeintzen duten erlatibozko ez-murriztaileak baizik.

2.4.3.5. Erlatibozkoa ondokoa isildurik

Aurrekoen aldean, zailtasun sintaktiko gutxiago duten erlatibozkoak ditugu hauek, ohizkoago eta gramatikalari guztiek onarturikoak bait ditugu erlatibozko ez-murriztaileak, aposizio gisa jarriak.

Hala ere, eta azkenengo bietan ikusiko dugunez, aditza jokatu gabe utziz eta mendebaldeko euskalkietan ohizkoa den -tako/-riko atzizkirik gabe utziz joskera gaitzago bilakatzen da:

A) "Il-zaarki, bizi dugun *gizona!*
Egunoro berpiz lurpean dagona!"
(GM 8-9, 207).

B) "Bezat onets aren *izena,*
*Aberriz ta mintzoz gu yantzi*arena"
(GM 10-11, 207).

D) "Oin kolokak zuur, begiak yoran,
zurubi biurrez poliki ninyoan.
Guri argia ematearren
*itzali*arena eskuan nenkarren"
(GM 19-20, 207).

Azken adibide honetan ondokoa ez da ahapaldi berean ez esaldi nagusian agertzen, bi ahapaldi lehenago aipatzen den "gizona" bait da. Azpimarragarri da beraz, *Gure Mintzo* olerki honetan bertan biltzen diren alusioak egiteko balio duen erlatibozko hauen pilaketa. Olerkiari joko kontzeptualetarako zaletasunaren kutsu nabarmena ematen dion pilaketa, hain zuzen ere.

2.4.3.6. Lau kasu berezi

Sintaxiaren alor honetan, erlatibozko esaldien kokapena eta hitz-ordena dela eta, bereziki aipagarriak deritzedan adibideak azaltzeari helduko diot, bestelako ezaugarri sintaktikoak azaltzeari ekin baino lehen.

Ondoren aipatuko diren lau kasuok "berezitzat" jo daitezke, bereziki bihurriak diren joskera-egiturak bait dituzte. Dena-den, aurretik aipatuak ditugun berezitasun eta zailtasunen azken-erpintzat ere jo litezke, hots, esaldi nagusiko ondokoa eta erlatibozko menpeko esaldiaren ohizko hitz-hurrenkeraren hausketa-bidearen azken mugatzat.

A) "biraka asi zan, dei ta dei
aita dei, ta ama; aurtzaroko
lurrak irentsi-lagunak"
(AZB 46-48, 189)

Arestian aipaturiko sail batekoen kidekoa dugu, berez, erlatibozko esaldi hau "lurrak irentsi", hots, aditz jokatu gabea eta aspektuz burutu-gabea, nork+aditza osagarriak dituena eta marratxoz loturik esaldi nagusiko ondokoari. Kokapena du bitxia erlatibozko esaldi honek: Izen Sintagma bateko Izen Lagun eta Izenaren tartean dago kokaturik.

Izan ere, atzizki gabeko erlatibozko egitura hau erabiltzez gero, beste ordenarik ez zezakeela hautatu iruditzen zaigu. Nolanahi ere, eta errimaren gunean geratu denez Izen Laguna, haren eta erlatibozkoaren artean isilune bat badago, esaldiaren mamia jasotzea errazten delarik.

Atzizki gabeko erlatibozko hauen kokapena dela eta aipamen berezia merezi du hurrengo honek:

B) "Ipui zaarrak, atozte gogora!
Atozte erregingai *begizkoak zora*!"
(GM 25-26, 209)

"Begizkoak zoratu(riko) erregingaiak" plurala beharko zukeen sintagma mugagabean jartzeak ez ezik, hitz-hurrenkeraren aldaketak, hots, erlatibozkoaren aditz aspektuak burutua behar zuelarik burutugabea izateak, eta ondokoaren atzetik ezartzeak, bereziki ulerkaitza bilakatzen du *Gure Mintzo*ren zati hau, hizkuntzaren norma ez ezik, hizkuntza beraren posibilitate enpirikoen mugak jo egiten bait ditu, ene ustez.

Ondoko bi esaldietan, ordea, hitz-hurrenkera eta funtzio-sintaktikoen trukaketak bilakatzen du ulerkaitza bertsoa, aditzaren aspektoa, aditz laguntzailea, ohizko erlatibozko lokailua den —N atzizkia eta ondokoa bera ere ageri-agerian egon arren.

D) "Ezin aal-baledi, Yaun errukiorra,
barkatu zaiozu zizukean zorra;
ta Argi-Aberrian ikus aal-nezake
lauso-eziñezko adiaren yabe;
ta aal-bezat, Yaun, otoi, besarka negarrez,
beste iñon ez ainbat *negarra dan emez*!"
(Ag 29-34, 115)

Kontzeptisten artean ohizkoa den hitz-trukaketa aurki genezake esaldi honetan. Berez joskeraz okerra dirudi: "beste inon ainbat" konparatiboak ez du, berez, negarra kuantifikatzen, *eme*tasuna baizik.

Hala ere, negarra eta emea hitzak esaldiz trukatu eta erlatibozko esaldian atributuarena egin behar zuen adjetiboa bilakatu du ondokoa, eta ondokoa, berriz, menpeko esaldiko atributoa. Aurreko bertsoaren puntuari ohartzen bagatzaio, poto egiteko bildurrak eragin ziola esan lezake norbaitek, nik

ordea, eta beste hainbatetan bezala, konponbide errazagoak bila zitzakeela gogoraturik, zera esango nuke, berarizkoa dela hitz-joku kontzeptualista hau. Are gehiago *Agur* olerkiaren ingurumarian ematen diren beste zenbait ezaugarri bereziki kontzeptualisten baranoan agertzen dela hartzen badugu aintzakotzat.

Bigarren adibide honetan, zailtasuna ez dator hitz-trukaketaren bidez eginiko joko kontzeptualistaren ondorioz, menpeko esaldiaren barruko hitz-hurrenkeraren aldaketa eta esaldi nagusiko "unerik" "besterik" delakoen banaketaren ondorioz baizik:

> E) "Ezin oar txoroak zerk elkarrengana
> darakartzien. Baiña, nerez dakidana:
> *zorion uts geroak letsiken* unerik
> aien aldi laburrak eztizu besterik"
> (MB 5-9, 279)

Menpeko esaldiaren barruan, galdegaiaren arauari hutsegin zaiola dirudi, "geroak zorion uts etsiko dituen unerik", "zorion hutstzat joko dituen unerik besterik ez dizu haien aldi laburrak".

Hain nabarmenki bazterturiko galdegairen arauari baino lehentasun gehiago eman ote dio Lizardik bertsoaren alderdi fonikoari? Alegia uts eta letsiken hitzen afrikariak elkarrengandik berezi nahiari. Ez jakin. Dena den, *Maitale berriak* azken olerkietako bat da, Lizardik argitaratzeko amaitutzat eman gabea.

2.4.4. Esaldiaren ordena aldaketak: hiperbaton

2.4.4.0. Sarrera

Metrika alorrean bereziki nabarmendu diren poetika kultoaren ezaugarriei eta sintaxian jadanik ikusiak ditugun zenbait egitura sintaktiko ikasiekin batera aipatu beharrekoa dugu esaldi barruko osagarrien ordena aldaketaren ezaugarri hau. Elipsia, juntagailurik gabeko esaldi multzokaketa yustaposiziozkoa izatea, hitz-joko kontzeptualak, etabarrekin batean, estetika kontzeptista kultista baten ezaugarririk nabarmenenetako bat dugu hau, Lizardik naturalitate handiz, bertsoaren erritmoaren zerbitzuan nahiz esanahia sujerenteago, estetikoki aberatsago egiteko maisuki erabiltzen duelarik.

Euskal joskeraren alorrean hitz-hurrenkerak galdegaiaren legea baizik ez du, eta sintagmek bere barruan duten ohizko hurrenkeraren araua. Gainerakoan askatasun handia eskeintzen duen joskera da.

Badira, bestalde, eguneroko mintzairan ere ohizkoak diren hiperbaton espresibo zenbait, hala nola aditzaren laguntzailea aurreratzeko aukera eskaintzen duena galdegaia bereziki azpimarratu nahi denean. Esate baterako, *Gure Mintzo* olerkiaren bigarren lerrokoa:

> "min ori *dut izan* samiña" (GM 2, 207)

Hitz-hurrenkerari dagokionez arau zorrotzak badirela aldezten dutenen artekoa den Sebero Altubek ere, aldaketa honi egoki irizten dio:

> "Los vascos orientales se valen con frecuencia de un giro especial, muy expresivo, para recalcar aún más el caracter inquirido de los miembros de oración. Consiste en desarticular la flexión perifrástica invirtiendo sus componentes a fin de hacer seguir el nombre verbal al terminativo auxiliar; vease en los siguientes ejemplos:
>
> "Han zako lotzen bizkar-hezurrari" ...[191].

[191] ALTUBE, S.; *Erderismos*, 14. or.

Gaztelaniaz ere hiperbaton kasu gehienek aditzari eragiten diote, euskaraz ere bai, eta horregatik, ezagunenak eta ohizkoenak berak direlako, lehenik eurak eta geroago, bestelakoetara joko dut.

2.4.4.1. Aditz Laguntzaile eta Aditz Multzoaren arteko ordena aldatzeak

Baiezko esaldietan Laguntzailea aurreratzea eta tartean Izen Sintagma sujetoa ala objetoa sartzea dira ohizkoenak:

A) "Begiaz *dut/ yo* alperrik/ aren bidea" (NUY 75-77, 87)

B) "azpian *duk ikus*" (ZE 29, 135)

D) "zitalak *nai au eratxi*" (ZE 46, 137)

E) "...*uka* maitasunak *baitik*...

t'ez eskein bizitzak beazuna baizik" (Ag 6-7, 113)

F) "Izadiari *zizkiok* kendu-alak *ken*" (ZE 37, 135)

G) "Leio zekenera *dut* nerekin *narrez*" (GM 32, 239)

H) "Emeki *duk* itxaroz/ *piztu* garai-larre (IOI 5-6, 199)

Ezezkoetan laguntzailea atzeratzea:

I) "iñorentzat onginaia besterik *izan eztek*
bizitza guztian txarkeri bat al duk ager?"
(ZE 14, 133)

J) "ta *oartzen ez gera* danik ernetua
arik eta biotz dan arte loratua"
(MB 33-34, 581)

Adibide gehienetan ikusten dugunez, Lizardik aditz laguntzailea aurreratzea da aldaketarik arruntena baiezko esaldietan, aditz multzoa segidan dator gehienetan; ezezko esaldietan berriz aditz multzoa aurreratzea. Dena den eta aditz multzoa eta laguntzailearen arteko ohizko ordena haustea galdegaia azpimarratzearen beharraren ondorio ez denez, ahozko mintzairan ohizkoa den ordenaren haustura dakar, eta ondorioz zailtzea eta ulergaitzago bilakatzea.

Beste zenbaitetan, olerkiaren alderdi erritmikoak, etenaren hausturak beharturik egina dirudi hiperbatonak:

K) "Elkar-ordaiñaren ezti berdiñaka
bein ta berriz *uka* maitasunak *baitik*,
t'ez eskein bizitzak beazuna baizik"
(Ag 5-8, 113)

Horrezaz, gain hemen ikusten ditugun zenbait adibidetan aditz multzoko partizipio burutuaren ezaugarri diren —tu/-i amaierak ezabaturik ere ageri zaizkigu. Ordena aldaketa hauen arrazoia, silaba kontaketaren zerbitzuan sinalefaren bat galeraztea izan bide da:

"min ori+izan dut samiña"
Bestetan, Aditz Multzoaren amaieraz errima egiteko asmoa:

L) "iñorentzat onginaia besterik izan eztek
bizitza guztian txarkeri bat al duk ager?
(ZE 14-15, 133)

Baina beste gainerakoetan helburu estetiko hutsak, "belarriari atseginago" zaion eran moldatzearren eginiko leku aldaketak edo hiperbatona direla esango nuke.

Esate baterako, eta azkenik aipatuko dugun adibide honetan ikus daitekeenez, esaldiari eraginiko ordena aldaketa "printzadura" izenez deitzen den errekurtsu literarioaren zerbitzuan dago:

LL) "Ezin oar txoroak zerk elkarrengana
darakartzien. Baiña, nerez dakidana:
zorion uts geroak letsiken unerik
aien aldi laburrak eztizu *besterik*"
(MB 5-9, 279)

Azken adibide honetan ikus daitekeen "besterik" eta "unerik" printzatzeko joko bera suma daiteke beste bi kasutan ere, gutxienez. Idazle zaharretan "printzadura" deituraz ezagutzen den hiperbaton mota da sintagma bateko osagarriak banatu eta bertso banaren bukaeran kokatzen dituen egitura, hain zuzen ere.

Sarako Etxeberriren *Manual Devocionezcoa* delakoan aurkitzen daiteke sarritan idazle barrokoetan ezaguna den hiperbaton mota hau. Aipaturiko liburu horretxen lehen orrialdean jadanik agertzen da honen gisako bat:

"Hartaracotz ingura çac señalea erhian
Bethi hautçaz orhoitçeco, biçi aiçen guztian
Eta pintaçac beguien aitçiñean enea,
Athal gain eta pareta churietan leguea"

Honelako beste printzadura kasu bat aurki genezake *Gure Mintzo*n, maila berekotzat jo ez bagenitzake ere, badirudi eskema horri erantzuten diotela:

M) "Bezat onets aren izena,
Aberriz ta mintzoz gu yantziarena"
(GM 11-12, 207)

2.4.4.2. [Izen + Adjetibo] erako Izen Multzoaren ohizko barne-lotura haustea

A) "*inguma bi xurizta*"
(MB 3, 279)

Adibide honetako ordena aldaketak kolorearen efektoa areagotzea du helburutzat, ene ustez, *Otartxo Utsa* poeman "lore bat gorria/ mardul, eze, beti" (OU 49) bezala. Sintagmaren amaiera dirudien zenbatzailearen ostean dator adjetiboa, jadanik espero ez denean, sintagmaren esanahia jasorik denean, isilaldiaren ondoren zertzelada berri bat ekartzera dator: "xurizta" edo "gorria".

B) "Eguzkiak *orailen adatsa* dunean"
(MB 1, 279)

Maitale berriak olerkiaren lehen bertsoa den esaldi honetan ageri da izenondoari Lizardik eraginiko leku-aldaketarik dotoreenetako bat, superlatiboa aurreratuz Lizardik kolorearen efektoari lehen planoa ematea lortzen du, metaforaz eguzkiaren izpiak adatsaz identifikatzen dituelarik. Metafora honetan bertan ere, translazioa gertatu dela dirudi, *Neskatx urdin yantzia*n ere Eguzkiak ilediarekin egiten bait du efektua , neskatxaren, Udaberriaren iledia da, ordea kasu hartan:

"Arbazta igarrarena
bezin su zolia

Egun'ek biztu dio
jorik iledia"
(NUY 17-21, 83)

Ondoren aipatzera noan bi adibide hauek ere izenondoa lekuz aldaturik dute, baina kasu honetan esaldiaren barruan mugitu dira amaieraraino, aditzaren ondoren agertzen dira, beren baitan dakarten zertzelada berriak esaldiko zein osagarriri dagokionari buruzko zalantza, anbiguitate azpimarragarria sortzen dutelarik.

Esate baterako, *Ondar Gorri*ren azken aurreko ahapaldian, joan diren urtaroei errepasoa egiten diharduelarik, berriro ere "Udaren urrezko itsaso urduria ibil bezat" adierazteko, hots, olerkairen hasierako ahapaldiaren oihartzuna den "Uda —suzko itsaso— baitut ibilli" (OG 1) oroitzean, izenonodoa aditzaren ondoren ipiniko du:

D) "Yainko-muño-gaiñetara baiño lelen,
(ederra baita bizia!)
urrezko itxaso bebilt *urduria*
Itzal dudala laguntzaille lerden."
(OG 70-74, 171)

"urduria" izenondoa udari dagokio, *Baso-Itzal* izeneko zatian deskribatu duen giroaren laburpena da, baina "bebilt", hots, "nik ibil bezat"-en ondoren egonik, olerkariak ere urduritasun hori sumatu nahiko balu bezala gertatzen da, Itzal-en laguntzaz "gerizpe atsegin" batean igaro nahi badu ere [192].

Ohartu behar dugu "urrezko+itxaso+urduria bebilt" idatziz gero silaba bat gutxiago izan beharko lukeela bertsoak, neurria izan bide da olerkaria honelako leku-aldaketa egitera behartu duena. Nolanahi ere, hurrengo adibidearen antzekotasunak hiperbatonaren "berarizkotasuna" frogatzen du, eta hori izan ez bagenu ere, ordena aldaketaren posibilitatean sinetsi izanak berak bidezkotuko luke, sorturiko egituraren edertasun handiaz beste, jakina.

E) "Begi-beltz, oin-illaun, ama Gau naroa,
ekarkor bekigu zure azaroa:
egun begi-urdin betoz ugariak
gure elkarmin onen gaiñezkagarriak!..."
(AG 61-65, 311)

Kasu honetan ez dago sinalefaren arriskurik, ordena batean edo bestean 12 silaba izango zituzkeen. Errima ez jakina, baina hiperbatona aurreko esaldikoaren antzekoa izanik ez dut uste berarizkoa denik uka litekeenik, ez eta honela sorturiko efektu estetikoak "ugariak" izenondo atzeratuari azpimarragarria den lehentasuna, garrantzia ematen dionik esaldiaren amaieran kokaturik.

[Izena + izenondo] egiturari, Izen Multzoaren ordenaren barruan eraginiko aldaketen artean ausarteenetako bat dugu azken adibide hau. Izena eta adjetiboaren artean Aditz Laguna+ko gisako Izen Laguna sarrerazi du:

F) "Barru-muiñeko gauean
su itzalitzako zaarra gar gorri
dabilda biur naiean"
(AZB 23-25, 187)

---

192 Edizio Kritiko baterako eranskinean ikus litekeenez, Lizardik "bebilt" aditzaz ez du "ibil bekidala" esan nahi, *Olerkiak,* Erein, 1983, 170. or. esaten den moduan. Orixeri "navege yo.." itzulpena ere ez zitzaion aski, eta hitzez-hitzezko itzulpena luzatu zuen lehen edizioan, azpiohar batean, "gire aún en mi derredor..." itzuliz. 1983ko ohar egileak ere, ziurrenik Orixeren interpretazioari jarraituz, "ibil bekidala" aldatu du. Lizardik berak "vuelva a nevegar" dio, hots aditz iragankorraren sujetoa olerkaria bera delarik: "ibil bezat". Ikus "Edizio Kritiko baterako" eranskinean *Ondar Gorri* poema.

Kasu honetan zein da "itzalitza(-t jota)ko su zaarra" Izen Sintagmaren ordena aldaerazi duena? Silaba kontaketa izan dela esan daiteke. Ahapaldiak 8-8-8-10-8 egitura du. Beraz, eta guk ohizkotzat jo dugun ordena erabili balu, 11 silaba aterako ziratekeenez, batere ohizkoa ez den Aditz Laguna destinatibo kasuan dagoen Aditz laguna+ko sarrerazi du Izena eta Izenondoaren artean.

Dena den, eta eragile bide zuen silaba kontaketaren arauaz gain, azpimarragarria iruditzen zait Lizardik honelako ordena aldaketak zilegitat jo izana. Horrek ikuspuntu estetiko berezia zuela ematen du aditzera, eta ikuspùntu "estetikoi" horrek berak ematen dio zangalatrauak egiteko askatasuna, nahi bezalako hitz— berriak asmatzeko, morfosintaxian egokien iruditutako kimaketak egiteko askatasuna. Ideia poetikoekin bat egiten duen jokamolde praktikoa dugu hau, inolaz ere poetika kulto baten aldeko apostua, ahozko mintzairaren urruntzeko erabaki sendoaren lekuko direlarik.

2.4.5. Intzisoak

Lizardiren olerkietan sarritan aurkitzen dira intzisoak, hots, esaldiaren osagarrien hurrenkeran eginiko etenaldi batean sarturiko perpausak edo perpausa zatiak. Batzuetan oso laburra da, beste batzuetan esaldi osoa, eta are ahapaldi osoa ere bai.

Intzisoa muga grafiko guztiz nabariez agertzen zaigun hitz multzoa da, beti ere marratxoen artean edo parentesi ikurren artean bildua ematen digu Lizardik, guztiz berea duen grafiarekiko txukuntasun eta arreta biziaz.

Gaztetako olerkietan ez da intzisorik aurkitzen. Lehenengoak, *Zeru-azpia*n, 1925ko bertsioan, aurki genitzake, edo 1923kotzat dataturik ageri den *Biotz-Begietan*go *Aldakeri*ren bertsioan eta 1925eko bertsioan.

Intzisoak, hots, sintaxiaren hurrenkera hausten duten etenaldi luze nahiz laburrek zalantzarik gabeko erreferentzia egiten diote olerkigintza kultoari, bereziki irakurria izateko olerkigintzaren adierazgarri bait dira, eta Lizardiren olerkigintzan Gongoraren poetika kontzeptistak izaniko eraginaren lekuko ere bai, apika.

Aurkitu ditudan 26 intzisoak, grafiaren arabera sailkatzen saiatu ondoren, marratxo ala parentesi artean agertu arabera antolatzeari uko egitea erabaki dut, inolako ondoriorik ez bait liteke atera sailkapen modu horretatik.

Intziso horien ekarri semantikoak zein helburu duen bertsoaren barruan, horixe izan da ene sailkapenaren helburua, funtsean hiru zeregin nagusitarako erabiltzen bait du Lizardik intzisoa:

1.– Azalpen bat emateko.

2.– Esaldian zehar azalduriko zerbaitekin lotu nahi duen irudi bat aurkezteko, bidenabar bezala.

3.– Irakurleari eginiko dei emotiboa helerazteko, esaten ari denarekiko idazlearen emozioak azaltzeko: harridura, poza, ironia, samina...

Azken batean, intzisoek beranduagorako utzi nahi ez den informazio bat da, batzuetan, azalpen bat erantsi besterik ez du egin nahi, azkarki, bestetan, tximista bat bezala, begien aurrean zart eginiko bat-bateko irudi baten argitasuna duen irudia helerazteko ere erabiltzen du, laburki eta ustegabean, ahapaldiaren haria hautsiz, eta beste batzuetan, irakurleari olerkiaren gaiarekiko hurbiltasuna sentiarazteko eginiko hausturak dira diskurtso poetikoaren haria eten edo oztopatu egiten duten geldialdiak. Beraz, helburu plastikoak edo emotiboak dira nagusi.

2.4.5.1. Azalpen bat gehitzera datozen intzisoak

A) "Zure bazter,
gurazko aberria,
doa zoro
ta *(bertan ni)* bultzia..."
(BuL 17-20, 91) [193]

B) "Kafetxean bainago
astiaren yabe,
zer egin oberik,
(*ezer ez gogoarago*)
muiñak urtu gabe,
zerbait, alarik ere, gogo-yolas baizik?"
(PT 19-24, 99)

D) "Geroztik iñoizka,
urbiltzen natzaio;
Begira nagoka,
begira, luzaro...
Ta sarri (*gogoan
iduritu bizi*)
lore bat, ondoan,
eginik du mami"
(OU 41-48, 107)

E) "Mendian, oillarrek
elkarri "gabon"
Loak ar-baratzan
badoa, geldi,
yaun katu eldekoi,
ozta nabari.
Gazte'k galde (*artean
goxo baitzegon):*
– Oera beartu
nai, dagoneko?"
(AGB 169-178, 235)

F) "Etsi zun mutillak...
Barnera doa.
Ez pizten argirik
(*Eltxoen lotsa*).
Susmo dut ote den
usu billosa,
ta usuago dukela
nagusi loa"
(AGB. 190-200, 237)

[193] 1932ko *Biotz-Begietan* agertzen den bertsioan parentesia irekitzeko guneak okerra dirudi. Bultzia doa zoro (eta bertan ni)... Nolanahi ere, olerkariak gaiarekiko duen kokaera azaldu egiten duen etena da intzisoa kasu honetan, eta 1929ko bertsioan parentesia "ta"ren aurretik irekitzen da, izan ere.

Lehen bost kasu hauetan begi bistakoa dirudi olerkiariak parentesi artean kokaturik emandako azalpenak objetiboak, informazio emateko helburuz eginak direla, beste gabe. Denak parentesi artean kokatuak dira, Espainiako antzerki klasikoan eginiko "aparte"en gisako direlarik.

G) "(Maitagarriari, betazal-ertzetan,
oskorriak dirdai, nonbait malko-intzetan,
ta mutillak, ipui bat asma dio
laztanari leen-poza itzul balekio...)
(AG 21-24, 307)

Lehenengo bost horien antzekoa dugu *Arrats Gorri* olerkiaren lehen partea eta bigarrenaren artean kokaturiko aparte moduko honek. Lehen eskena batean bi maitaleen arteko elkarrizketa azaldu ostean olerkariak mutilak neska alaitzearren kondaturiko ipuinari ekin baino lehen tarteko ahapaldi hau kokatu du. Azalpena ematezko intzisoetan luzeena dugu hau, ahapaldi osoa hartzen duelarik, baina bigarren multsoan biltzeko asmoa dudan irudia sortzezko helburuz sarrerazitakoen antzik ere badu, maitagarria negar egiteko zorian dagoela deskribatzen duelarik. Izan ere erdi-bidezkotzat jo genitzakeen zenbait kasu ere bai bait dira, hots azalpena ematez bat, irudia ere sarrerazten dutenak:

H) "Or pago bat, lerden-aski,
igazko apaingarriak
(gaur orbel gorriak)
oso yaregin nai-ezik,
nola baituten oi
neskazar ezin-etsiak"
(BiL 15-19, 141)

I) "Ta, beeko gaiok agor-ezkeroz,
Iguzki'k ezin urtuzko egoz
(Ikar'ek ez bezelakoz)
goazeman zerura igoz,
izar urdiñetaraiñoko asmoz!"
(EB 75-80, 183)

J) "Txolarretxo, txolarre,
Paris-erdikoa:
Bourse'ko iskanbilla
(gizon zoro batzarre)
ez ote naikoa
i izutzeko, axolakabe biribilla?"
(PT 1-5, 97)

H) adibidean metaforikoki azaldu duen hostoen aipamena "igazko apaingarriak" zehazteko asmoz jarria dirudi "(gaur orbel gorriak)", baina, aldi berean, irudiaren kolore eta texturaren bitartez urtaroan zehar aldaturiko, endakaturiko hostoen aldaketaren kontrastea azpimarratzen du.

I) adibidean berriz, jadanik irudiak hain betebehar funtzionalik ez du. Esana du "Iguzkik ezin urtuzko egoz" joan behar dutela, beraz Ikaroren mitoari eginiko alusioak azalpena ematea baino areago irudia sortzea du helburutzat, gehiago garatzeko asmorik ez duen irudi azkar eta iradokikorraren gisa.

Esate baterako, K) adibideak ere, Bourse'ko iskanbilaren arrazoia emateaz gain, inurriak bezala, "zoro" dabiltzan gizonen irudia aurkezten digu, txolarrearen patxararekin gehiago kontrajartzeko.

K) "Amonatxo! Bakarrik

zagoku atean
otz ta gogor, entzuten
zure azken-Meza!
Zerraldo-olen artetik
(*negu gaua iduri*)
ez al-datortzu, uluka,
aize erruki-eza?"
(BMD 71-79, 125)

K) adibide honetan ere esan daiteke Lizardik irudi baten bidez azalpen bat aurreratu nahi izan duela: negu gauetakoa dirudien aizea dabil, ez negu eta ez gau ez den arren. Gaiaren ariarekin alboko zerikusia baizik ez duen irudia sarrerazten du idazleak. Hurrengo bi bertsoetan aipatuko duen aizearen erruki-eztasuna azaltzera baletor bezala da intziso hau.

2.4.5.2. Irudia sarrerazteko bide azkarra eta sintaktikoki ustegabekoa

Olerkiaren gaiarekin zerikusi zuzenik ez duen irudia sarrerazten duten intzisoek, "iduri" edo "alatsu" hitzez sarreraziriko konparazioa, olerki berean edo beste olerkiren batean aipatu den edo aipatuko den irudia lehen aldiz aurkeztu edo bergogoratzen du, olerkigintza modernoaren "leitmotiv" baten gisa:

A) "Aurraren naia zeruratu zan
(*alatsu otoitz garbia*)
ta aingerutxoak eska zioten
Yaunari lagun berria"
(ZA 25-29, 43)

Haurraren nahiaren zeruratzea eta otoitz garbiarena parekatzean, nahi horrek eskaera, Jaunari eginiko erregu bilakatu eta ondorioz aingerutxoek eta Jainkoak berak abegi ona egingo diotela iragartzen.

B) "Uda yoan da. Marduldu zaizka mordoak
matsondoari. Beñola
-egari mozkorra— yo du kaiola
gazteenik ildako ostoak"
(Ald 57-60, 49)

D) "Il aurreko indar-ondarrak zuzpertu? ...Beintzat
txoria leoiruntz doa,
mozkorki —*alatsu udazken-ostoa* —
egun nekez jaioaz bat"
(Ald 117-120, 55)

Olerki beraren bi zati ezberdinetatik, lehen eta bigarren partetik harturiko bi ahapaldi hauetako intzisoek elkarren oihartzuna egiten dute: lehenengoan, hostoa da txoriaren kaiola inguruan igatu eta eroritakoa, bigarrenean berriz, txoria bera. Baina lehenengoan erorkoaren deskriptzio gisa esaten dena, beraz, irudia sortzeko egiten den metafora, bigarrenean txoriaren erorkoa jadanik "mozkorki" aditzondoz deskribatzen da, intzisoak aditzondo horri dagokion irudia eransten duelarik.

E) "Ta zuek, nora, txoriok, saldoka
zoazte, iraduz urrundu bearka?
Adiskide Urretxindor il zaizute,
ta aren ilkizunetara

—egoak ikara—
berandu-beldurrak al-zaramate?"
(OG 41-46, 167)

F) "Orriz-orri jazten da
basoa gozoro...
Bakan-bakanka, leenen...
Sarri-sarri, gero.
Eguzki itzulberriak
(maitari goiztarrak)
munkatu du basoa,
(munkatu senarrak)...
Emazte ezkonberria
dala uste basoa...
Aren dardar emea...
Aren par gozoa!"
(NUY 33-44, 85)

Adibide honetan esate baterako, bi intzisoak elkarrekin errima egiteaz gain, hausten duten esaldiari dagokion maila metaforikoa sarrerazten dute, irudia aurkezten dute: "Eguzki itzulberriak munkatu du basoa". Laztan horren zernolakoak senarra eta emaztearen irudiaz azaltzen ditu. Eta hurrengo ahapaldian, olerkariak udaberria neskatxa dela eta eguzkiaren begi-bilak izarrak, eta haien islada ura dela uste duen bezala, eguzkiak ere basoa emazte duela uste du. Eguzkia eta olerkaria beren irudimenaren eraginpean dabiltza.

Aurreko adibide horietako batzuetan ikusi dugunez, intzisoek zenbaitetan geroxeago garatuko den irudi bat deplauki, bat batean aurkezteko erabiltzen ditu. Ondoren aipatzera goazen lau adibide hauetan berriz, aurkezten zaigun irudia, edo azpimarratzen zaigun zertzelada bereziki adierazkorra bat batean kolore, zapore edo ukimenari eginiko erreferentzia den irudia sarrerazten dute.

G) "Elkar-ordaiñaren ezti berdiñaka
bein ta berriz uka maitasunak baitik,
t'ez eskein bizitzak beazuna baizik
(ala baita mikatz sagar bat elduka),
aldegiña aiz urrun, lagun biotz-bera,
adi-mugaz aruntz-erbeste itzalera"
(Ag 5-10, 113)

Lagunaren bizitzaren mingostasunari eginiko erreferentzia honek konparatu ez ezik, bizitza eta sagarraren garraztasuna alderatzeaz gain, umotu gabe dauden sagarren mingostasuna duela azaltzen du, beraz, noizbait helduaroan gozatuko denaren itxaropena izan behar dela gogoratzen du honen bidez, honez gero alferrikako oharra den arren.

H) "Gaberik gabeen-gaupean bai'ago,
gaztetzaro-ogitik yakide ninduken
onen onginaia ezpaituk siñisten;
ai, nik aal-banezaik, nik aal (*eztiago*
loak ar-basoan illargia baiño)
ene oiu au sar biotz illeraiño!"
(Ag 21-25, 115)

Zapore edo dastamenari eginiko erreferentzia zelarik G)sailekoa, oraingoa ukimenaren eztitasuna azpimarratzen duen konparaketa sarrerazten da *Agur* olerkian, berez, iluna tristea, kontzeptu abstratoegitan dabilen olerkian heldugabeko sagarraren eta loak harturiko basoan sartzen

den ilargiaren irudiak intziso bidez sartu dira hauek. Hega-baldar lurrera-beharka doan txoriaren hegadarenaz, eta aurrez aipaturiko bi intzisoekin batera, Lizardiren estilo ezaugarri karakteristikoenetako bat bipilenik erakusten duen olerkietako bat bilakatzen da, ene ustez.

I) "Uda —*suzko itsaso*— baitut ibili
gerizpe atsegin bat nuela untzi.
ondoaz legorra yo dit emeki:
ondarreta bat du, soil eta gorri"
(OG 1-4, 165)

Ondar Gorri olerkiaren sarrera den ahapaldi honetan, lehen lerroan ageri den intziso honek *Baso-Itzal*, urte giroen artean udari eskainiriko olerkiaren amaieran dagoen metafora bat jasotzeko egiten du: "Uda gar zoragarri, suzko itxaso" (BI 67-68, 161). Aurrerago ere udaren metafora errekurrentea, haren ohizko epiteto finkoa bilakatzen duena gogoraziko du *Ondar Gorri* olerkiaren amaieran bertan "uda urrezko itsaso bebilt urduria" (OG 72, 171) dioelarik.

Olerki honen bigarren ahapaldian ere badago intziso bat, koloreari dagokiona hau ere:

J) "(Itsasoak bai baitu, urrun-ertzean,
urre gorizko bide-goenean,
legor bat — *odol-uts iñularrean-*
Eguzkia nondik sar atsedenean...)"
(OG 5-9, 165)

Bigarren atal honetako intzisoen ezaugarriak laburbilduz, irudiak, gaian aipaturiko zerbaiti buruzko kolore, mogimendu, zapore edo bestelako zentzumenen bati dagokion zertzelada bat, bat-bateko irudi batek sorturiko konparazio edo metafora, zuzenean ez aipatu arren, zerbait iradoki egiten duen sintagma laburra (egoak ikara: beldurra, hauskortasuna,...) sarrerazteko erabiltzen dituzte.

Ikusi dugunez, batzuetan erreferentzia bakana da inolako jarraipenik gabea, bestetan berriz olerkiaren barruan oihartzuna bilatzen duen irudia da, aurrerago edo geroxeago gertatu edo agertuko den zerbaiten iradokizun edo oroitzapen delarik. Hartu ditugun adibidei erreparatuz gero, intziso bidez sarreraziriko konparazio, metafora, sugerentzia etabarrek indar berezia dute, ustegabeko gunean kokatzen bait dira, esaldiaren aria hautsi egiten bait dute, argi edo kolore txinparta baten efektoa bait dute dizdirarengatik ez ezik, laburtasunarengatik.

2.4.5.3. Irakurlearekiko funtzio konatiboa duten esaldiak

Irakurleari eginiko iruzkinak edo obserbazioak, olerkariaren eta irakurlearen komunikazioaren islada, bien sentimenduei eginiko deiak diren intzisoak ere baditugu: olerkariaren sentimenduak harridura, damua, poza, etabar adierazten dira exklamazioen bidez, beste zenbaitetan ironiaz eginiko komentarioek irakurleari zuzenduriko begi-keinuak bezalakoak dira.

Lehenik aipatuko ditudan hauetan, irakurleari eginiko deia esklamazio labur bat besterik ez da, sentimendua adierazten du, enfatizatu egiten du ahapaldian esaten den zerbait. Zuzenki iristen da olerkaria irakurlearengana, optimismoa, humorea edo ironia adierazten duten esklamazioen bidez:

A) "Sapailloan zuti
-gaurko gaugiro!-
Gogo-soiñetan duk
atsegin guri!"
(AGB 25-29, 225)

B) "An ageri duzu

leiardi baten,
okotz-masailletan
belar-ebaten...
(*Aparra yaten,*
obeto dirudit
ari ote den...)"
(L 15-20, 245)

D) "Leioak itxitako yauregia
basoak iduri. Lo nagusia.
Baiña, badu norbait —*zoragarria!*-
bidazti-zai eder; bai,alegia!
Begira nor dedan, aterpean zai,
gorputza sotilla, betartea arrai"
(BI 37-42, 159)

E) "Belarpeko txuloa kilkerrak bai eder
baina gizontxoa —*alegia!*— ez izaki kilker"
(ZE 43-44, 135)

F) "Gazte'k —*egia dasagun*—
ez du birimiña beldur;
urdail-zorria ere,..."
(Am2 46-49, 253)

G) "— Pozik —erantzun zion Maitea'k— Goazen.
Ta, masaillak gorrituz (*zerek al-zekien!*):
-Baiña eska-bearrik zer dugu, biona?
Ta mutillaK, zalantzez: —Elkar-zoriona..."
(MB 21-24, 281)

Adibide honen oso antzekoa dugu *Biotzean min dut* olerkian gorpua elizaratutakoan, zera dioenean:

"Gorputza laga dugu
nunbait. Al-dakit nun!"
(BMD 62-63, 123)

Galdera erretoriko honen bidez olerkariak adierazten duen sentimendua berbera da olerki batean eta bestean, baina azken kasu honetan ez dago olerkiaren protagonista eta olerkariaren arteko bereizkuntzarik lehen pertsona lirikoan ari da *Biotzean min dut* delakoan, orainaldi intentsibo horretan dihardu.

Berehalakotasun, hurbiltasun berezia du olerki honek. *Maitale Berriak* delakoan berriz, narrazio moduan dirudi, beraz, protagonistaren sentimenduak ez dira zuzenean irakurlearengana bideratzen, olerkaria da bitartekotza egiten duena, horregatik darabil parentesia, irakurleari hurbilduz, protagonisten sentimenduen berri dakienak bezala hitzegiten du.

Goiko arrazoi berberok azaltzen dute *Maitale Berriak* olerkian 19-20 bertsoek azalpenezko parentesi tarte bat osatzea:

H) "(Biotzak ala agintzen baitzion, elkarren
arteko lokarriak zaillago zitezen)"
(MB 19-20, 281)

Ondar Gorri olerkian aipatu dugun ahapaldiaren funtzio berbera luke bertso pare honek (ikus G adibidea), olerkiaren lehen eta bigarren "eskenen" arteko lotura edo artikulazio gune gisako zeregina betetzea, alegia.

I) "Yainko-muño-gañetara baiño leen,
(*ederra baita bizia!*)
urrezko itsaso bebilt urduria,
Itzal dudala laguntzaille lerden.
(OG 70-74, 171)

Lizardiren olerkietako intzisoetan irakurleari ezagunena egingo zaiona da hau, zalantzarik gabe. Lizardiren ideia poetikoen artean sentimendua adierazpenari jarririko hesi hestuaz gogoratu behar gune honetan. Olerkariaren sentimendua zeharka adierazia dago *Ondar Gorri* olerki osoan zehar, giroa, txoriak, naturaren gainbehera da deitoratzen ari dena, lehen-mina ematen dio naturari begiratzeak. Baina, halako batean, olerkia zuzenean Yaunari zuzentzen hasten zaionean, "ikus bezat"... "Bekusat" "Ikus bitzat" "Entzun bezat" eskatzen hasten denean, heriotzaren aipamen guztiz zeharkakoa "Yainko-muño-gaiñetara baiño leen" esan ondoren, barrengo sentimenduaren lehertze baten gisakoa da esklamazioa:

J) "(ederra bait da bizia!)
(OG 70, 171)

Hain ezaguna den *Biotzean min dut* olerkiko leloan ere, amaiera aldera, lelo horren azken bi aldakiak parentesi artean ageri dira. "Ots/ Ots /bizon oñok..." leloa elizaratzean, alegia olerkariak "dantza naasi bat darabilt irudimenean" esaten duenean, esklamazioa bilakatzen da "Ots/ ots/ enegan biotz!", hurrengoan esaldia berbera da, baina ez da jadanik esklamazioa, bihotz egoera hitsaren leluko da, hurrena berriz ere, "bizion oiñok" delakoak ordezkatuko duelarik.

Azkenik, parentesi artean agertzen diren bi leloen barianteak zer ote dute berezirik? Olerkiaren erpin emotiboan egotea, ene ustez. Amonaren muxu ximela begiratzean "parre-antxa, bizirik/ balirau bezala" ikusten du, eta beraz, bere buruari hitzeginez, aginduz, hitzegiten dio:

K) (Ots!
Ots!
ler adi biotz!"

(BMD, 108-110, 127)

"(ederra baita bizia!)" esatean bezala, emotibitateari irtenbidea ematen dion adierazpidea bat batekoa da, zuzena, kontakizunaren aria hautsiz egina, ezin eutsi izan den "lehertze" baten gisakoa.

Olerkiaren erpin emotiboa den honetan itxaropen-kabi bilakatu da olerkariaren bihotza, horregatik, hurrengo expresioak pozezkoa behar:

"(Ots!
Ots!
yauzika, biotz!)"
(BMD 117-119, 127)

Honela beraz, eta olerkiaren ari arruntari eraginiko etenaldi hauek, intzisoek dituzten funtsezko hiru funtzio hauek aztertu eta kasuz-kasu azaldu ondoren, zalantzarik gabe, Lizardiren olerkigintzaren baliapide aipagarri direla azpimarratu behar da, olerkariaren irudimen poetikoari eta sentimenduari bat bateko irtenbidea eskeintzen dion ubide baten gisako direlarik.

Teoria poetikoaren arloan azpimarratu dugun sentimendu eta sentimentalismoaren arteko eztabaidaren alderdi enpiriko bat aztertzeko abadagunea da hau. Lizardik heriotzaz, heriotza

ondokoaz, maitasunaz, sufrimenduaz, eta antzerako gai emotiboez mintzatzean ere, ez da negarti, erromantikoak ziren era berean. Emotiboa bai, baina emotibitate hori zeharka emana dator. Aipatu ditugun adibideok, horren lekuko izan daitezke. Narrazioaren aria hausten duten bat-bateko irudi exklamazioek, obserbazioek udazkenean urretxindor adixkidearen hilkizunetara berandu-beldurrez iraduz doazen txoriak "-egoak ikara-" doazela esatean, emotibitatea sugeritu egiten zaigu, eta horregatik lortzen du Lizardik hain benetako izatea, erretorika kutsurik ez izatea.

2.4.6. Deiktikoen erreferentea aldatzearen ondoriozko zailtasunak

Lizardiren joskeraren zailtasun berezien artean iluntasunik gehiena sortzen duten kasuak deikitikoen erreferentea aldatzearen ondoriozkoak ditugu. Aurreko lerro edo ahapaldian aipaturikoaren erreferentzia, zenbaitetan gertuago dagoen beste batekin kateatzen da irakurleari ulertze zailtasunak erakarriz.

A) "*Irudimena uan* giarra, yoria,
baiña, ega-baldar baitabil txoria
lurrera-bearka zauri doanean,
orren antzo *zian ark* oi, maizenean.
Odol eri batek ezetua iduri
beltz ikusbera *uan*, izukoi, urduri..."
(Ag 15-20, 113)

Lehen lerroko *uan* eta azkenekoak aditzek "hik irudimena giarra uan" eta "hik irudimena beltz-ikusbera uan..." azaltzen dute. 17. lerroko bertsoan berriz, "zian" aurkitzean, irakurleak hirugarren pertsonara igaro delakoan harritu egiten da: "hark, Onuzkik hala oi zian, ega-baldar doan txoriak bezala" pentsa arazten dio. Baina Lizardik irudimena du oraindik sujetotzat, eta kasu honetan esaldiaren sujeto ergatiboa, aktiboa bilakaturik, "hi" (Onuzki) era etikoan edo ISnori gisa, jasotzen du: "Orren antzo,(txori ega-baldarraren antzo), oi zian (irudimenak) egin oi zian (hiri, Onuzkiri).

B) "Mendea ia betea,
ta ain illaun, gorputz xaar!
Bezak gogoa goien
i bezin ariña,
ta *bezat* nik nerea,
dei nazatenean,
ezin-itzal-argiruntz
egatzeko diña!"
(BMD 27-34, 121)

Testuak interlokutoretzat amona du denbora guztian, "zure aur-jolasak", "zure kalean", "bekizu", "zagoku"... Baina ahapaldi honetan hika mintzatzen zaio "i" bati, tonu aldaketak harridura sortzen du, lehen lerroetan apostrofatu duen gorpu hilari ari zaiola konturatu arte:

"Bezak (hik gorputz horrek) gogoa goien i bezin ariña,
ta bezat nik nerea (nere arima) dei nazatenean,
ezin-Itzal-Argiruntz egatzeko diña!

Bestalde, lehen aditzak "bezak" gorputzari arima bera bezain arina izan dezala desio dion arren, bigarrenak "bezat" nik ere badirudi gorputzari zuzendua behar duela, olerkariarenari, esanahiaren aldetik ordea, gogoaz, arimaz ari dela ulertu behar dugu.

Antzerako elipsi baten ondoriozko zailtasuna du *Gure Mintzo* olerkiko ahapaldi honek ere:

D) "Atozte erregingai begizkoak zora
Bazterrean ikus *nerea*
Ene ta asabaen oarrezak botea..."
(GM 25-27, 209)

E) "Zuaitz-tartetandiko *urre nabarra*
bezagun udaren bitxi bakarra.
Begoz emendik ate *ire* ederkiak;
ar bitzate besteek laztan goriak.
Nik *ireak* naiago, *oianeko Itzal*,
ezpaitiñe egiten odola kixkal..."
(BI 61-65, 161)

Ahapaldi honetan agertzen diren bi izenordain pertsonalak, "ire ederkiak" eta bi lerro beheragoko "ireak" ez dute erreferente bera. Irakurleak adi ibili behar du, biak erreferente berekotzat joz gero, kontraesana antzeman beharko bait luke "begoz ate" eta "nik ireak naiago"ren artean. Izan ere, lehenengo "ire" delakoa, ez bait dago "oianeko Itzal"i loturik, bigarren deiktikoa bezala, aurreko ahapaldian aipaturiko "Euri goria" edo ahapaldi honetan bertan beste metafora batez adieraziriko "urre nabarra" baizik:

"Gure inguru lurra lurrun-yario,
urre urtuzko yasak baitaragio.
Euri gori ortaz basoa aterri.
Gauden bada, maite, basoan geldi"
(BI 57-59, 159)

F) "Itxaso bare, zelai urdiña,
muga-biribil, belar-berdiña:
goizaldea *duk* sorgiña!
Dirdaiez ikus egiña
mende-neurle dugun kurpil ariña..."
(EB 35-39, 179)

Ahapaldi hau berriz ere elkarrizketa gisako hi tratamendua ematen dion emazteari mintzatuz eginiko ingurumarian kokatzen da: "eztei ondoko bide diñagu" esaten du, aurreko ahapaldian. Horregatik, ahapaldi honetako "duk" horrek harritu egiten du.

Esklamatiboak, une batez irakurleari hitzegiten diola dirudi, okerrez, "goizaldea magikoa duk" adierazi nahiez bezala. Baina, berez, emazteari mintzo zaion kontestuan ez lirudike egoki irakurleari eginiko dei honek... Beraz, hirugarren erreferente posiblea aurreko lerroetako "itsasoa" dugula pentsatu behar dugu. Eta, orduan, "duk" laguntzaileak esaten diguna "da+aditz etikoa" izan beharrean, zera diosku: "goizaldeak sorgindurik dauka itsasoa, eta horregatik dago bare, zelai urdin gisa, "belar-berdina" adjetiboa merezi izaterainoko lasai eta geldi, "txori lilurarazia iduri".

2.5. ZENBAIT ONDORIO LIZARDIREN MORFOLOGIA ETA SINTAXI EGITUREI BURUZ

2.5.1. Morfologia lexikoa: espresibitate gaitasunaren adierazbide

Morfologiaren arloan eginiko azterketaren ondoriotzat esan daiteke hiztegiaren arloan Lizardiren poetika edo ideia kontzeptistek izaniko gauzatze edo isladapen fidelak direla hitz-elkarketa eta eratorketa.

Hitz-elkarketak batipat, kontzeptuak, prozesuak, irudiak sintetizatzeko gaitasun handiko baliapidea eskuratzen dio Lizardiri, euskararen lexiko aldetiko garbizaletasunaren eta euskal morfologiaren gaitasun zabalaren goraipamena egiten den garaian, iturri gisa, Azkueren Morfologia eta irakurlegoaren belarri ohiturarekin kontatzen duelarik.

Hitz-elkartuek kontzeptu abstrakto berriak eta bat-batekoak adierazteko nahiz adjetibo berriak sortzeko aukera eskaintzen diote, perifrasi zabaletara jo beharrik izan gabe.

Hitz-eratorketan ez da sumatzen hizkuntzaren ohizko moldea behartzen duenik, hizkuntzak berezkoa duen joera areagotu intentsifikatu eta nahi duen helbururako egokitu egiten du.

Poetikoki garrantzi berezia dute hitz-elkarketen artean metafora baten plano erreala eta poetikoa biltzen dituzten "erri-baratza" edo "bizitza-itxaso" bezalakoek. Izan ere, hitz-elkarketaren bide morfologikoaz baliatzen bait da olerkiaren maila alegorikoa eta erreala modu guztiz "ekonomikoan" elkartzeko.

Biotz-begietan liburuko olerkiek elkarren oihartzuna egiten dute zenbait metaforatan; hala, batean garaturiko metafora, hitz-elkarketaren bitartez epiteto bilakaturik aurki daiteke beste batean.

Euskaraz hitz-elkarketaren bide morfologikoaren irekitasunak eskeintzen duen askatasunak eta irakurlegoak hitz berriak aurkitzeko duen ohiturak ez du bereziki zaila egiten Lizardiren mintzairaren elaborazio-alderdi hau, nahiz eta, zenbaitetan, hartu duen morfologikoa ezaguna eta gardena izan, lotzen dituen hitzek adierazi behar duten kontzeptua eta metaforaren zentzua bereziki erraza ez izan, morfologiari buruzko atalean aipaturikoak bezala.

Hitz eratorketaren alorrean berretsi egin daiteke Lizardik morfologiaren alorrean eginiko ahalegina: elaborazioa, hitz sorketarako prestakuntza eta prozedimentua guztiz xeheki egina dago.

Hala ere, zenbaitetan laburzaletasunak morfologikoki onartezinak diren zenbait atzizki laburtze egin arazten dizkio (-Kunde>-kun esaterako [194].

Lizardik baliapide morfologiko hauen bitartez zehaztasuna bilatzen du, esan nahi duena garbi eta xehetasunez iristea irakurleari. Honetan zerikusi berezia du Orixek eginiko erdal itzulpenetan aurkitzen ditugun hitz-baliokidetasunak.

Aipamen berezia merezi dute bestalde, Lizardik atzizki eratorlerik gabe egiten dituen lexema hutsez osaturiko hitzen erabilerek. Atzizki eratorlerik gabe lexemari ematen dion balore orokorraz hitz abstraktoak sortzen ditu: zabala (zabaldia), bakarte (bakartegi), antzalda (antzaldaketa), itxaro (itxaropena), itzal (itzaltsu)... Atzizkia errendundantetzat jotzen du horietako zenbaitetan, bestela ere erraz ulertzen bait da, bestetan berriz, euskaraz izen eta adjetiboen artean dagoen muga meheaz baliatzen da kategoria batetik bestera atzizkirik gabe eta Izen sintagmetan emandako tokiaz ("erbeste itzalera") funtzioa adierazteko.

Lizardiren ezaugarri morfosintaktikorik ezagunenak: artikulu gabetzea, partizipio eta infinitiboaren arteko ezberdintasuna neutralizatzea eta aditz sintetikoak erabiltzea garaiko nahiz gaur

---

194 Ez da Lizardi lehenengoa, ordea. Emeteri Arresek, *Txindor* (1928): "oroitz-ausnarka", "otoi-urriñez", "txantxaniztuna" ("Txantxangorria"), "oroitz-ernemin-ikara" ("Ñir-ñir")...

egungo kritikoek sarritan azpimarratu dituzten ezaugarriak izan dira, euren jatorria eta nondiknorakoak azaltzeari ekin zaiolarik.

Lizardik ez ezik, beste idazle batzuk ere erabili izan dituzte: zenbaitek Lizardik berak baino sarriago, —aditz sintetikoak Lauaxetak esate baterako-. Baina hiru ezaugarri hauek ondoren aipatuko ditugun morfosintaxi eta sintaxi alorreko beste zenbait ezaugarrirekin batean molde jakin batean bilbatu direnez, Lizardiren hizkuntza poetikoari atxikirik egin dira ezagun eta batasuna duen "molde" poetiko baten partaidetzat aitortu ahobatez.

Izen Sintagma mugagabeak laburtasunaren irizpide nagusiari ez ezik, beste zenbait helburu espresibotarako erabili zituen Lizardik. Beste zenbaiten artean, errimak aberasteko, erritmoa bizkortzeko, hitzari zentzu abstratoa edo "orokorra" emateko, pertsonifikazioak egiteko, hizketa esaeratsuaren osagarri gisa...nahiz eta gogoko duen forma huts gisa ere, estetika zaletasun hutsez ere erabili.

Aditz Sintagman partizipio eta infinitiboaren arteko ezberdintasuna gainditzearen ondorioz, jatorri ezberdineko beste zenbait aditz multzo motaren antzerako bilakatzea ere lortzen du, sintaktikoki aditz laguntzailea sintetikoa balitz bezala jokaturik eta atzizkiaz gabeturiko lexema "behar", "nahi" edo "gogo" bezalako aditzekin berdindurik agertzen delarik.

Aditz sintetikoaren erabilera zuhurtzat zedarri genezake, Aranaren jarraitzaileen eraginpeko puztuketa gogoan hartzen bada. Ugariak izan arren, euskararen diakronian jokaera sintetikoa izan duten edo duten aditzak dira gehienak, konta-ahalak direlarik (igo, amestu, ari) halakoak ez direnak.

Aditzari dagokionez, orokorrean olerkietarako astuntzat jotzen den euskal aditzaren gorputz foniko konplexua soiltzea eta arintzea da helburua. Bi joera nagusi azpimarratu behar dira: aditzaren lexema huts-hutsik erabiltzera daraman, edo aditz laguntzailea sintetiko eran balego bezala aditz esanahia daraman izena edo adjetiboaren gainean zamatzekoa.

Sintaxi mailan aditzaren osagaiei eragiten dien leku-aldaketak ere poetarentzat euskal aditzak berarekin dakarren malgutasuna eman nahi izan zionaren lekuko dira. Horregatik eragiten dizkio Lizardik aditz multzoari aldaketa morfologikoak eta hiperbatonak. Mintzaira adierazkor eta bizia sortuko badu, euskal aditzak berez ez duen malgutasuna eman behar.

Morfolgiaren eta morfosintaxiaren alorrean aztertu dugun azken puntua arkaismoena da. Euskal lexikografiaren esparruan honelako azterketa bat egin ahal izateko eskura dagoen tresneria murritzaren ondorioz, tamalez, zaila da Lizardik mintzaira poetikoa hiztegiaren alorrean arkaismoak eta kultismoz osatzeko eginiko ahalegina behar bezala neurtzea.

Gaingiroki bada ere, ordea, nabari da hiztegi hautaketa serioa egina duela, idazle zaharrengandik ez ezik, bereaz gaineko beste euskalkietatik harturiko hitz higatu gabekoez, edo erabiliak izanik ere, aintzina zuten beste adiera batez erabili zituela erreparatzean, (igaz, mende, autu...) Lizardik mintzaira poetiko benetan kultista sortu nahi zuela, eta arkaismoez edo kultismoez hornitzean, mintzairari zahar kutsua emateko asmorik gabe, zehatza izatea zuela helburutzat. Hain zuzen ere, "autu" hitzak "hautatu" edo "aukeratu"k inoiz izan ez duten "predestinado" zentzua izan bazuelako hautatu bait zuen, ene ustez. Orixeren itzulpenak dira nolabait, hitzei eman nahi dien adieraren, balio kulto edo poetikoaren lekuko. Gazteleraz, "hace tiempo"tik "antaño" esatera doan aldea nabarmenerazi nahi bait du Lizardik, "garai batean" esan beharrean "igaz" esanez, laburragoa da, gainera, eta Lizardiren neurri eta erritmo aldetiko ezaugarrietarako erabilgarriago.

Egitura morfosintaktiko bitxiak ere aurkitzen dira Lizardiren idazlanetan. Horietako zenbait idazle zaharren laguntzaz argi daitezke, garaikoen iritzien arabera idazle zaharrengandik ikasitakoak Lizardiren lanetan eragina izan zuela abiapuntutzat harturik, eta bere dokumentu pertsonaletan ziurtasunez baiezta daitekeen iturria denez.

Euskal hizkuntza literatur mintzaira bilakatzerakoan hizkuntzari berari moldaera jakin bat eman nahi izan ziola badakigu, berak aitorturik ("Gora Dei" in *Maitea*ren apurñoak"). Bestalde, garaiko

iritzi-emale guztiek azpimarratu zuten moldaera horren berritasuna eta berezitasuna alderdirik aipagarrienatzat.

Moldaera berezi hori idazle zaharrengandik nahiz ahozko mintzairatik behar zuen materiala hartuz sortu zuen, eta bere gogora moldatuz, jatorrizko balioz, nahiz balio berria emanez bere-berea zuen irizmenaren arabera ezkonduz, jatorri bateko eta besteko osagaiak estilo, taxu bateratua duen molde batean integratu edo bilbatu zituen.

Aipaturiko ezaugarri morfosintaktikoak dituen mintzaira literario honen kanon berrian ikusi dugunez, Lizardik ez du dena berrikotik bere gisa asmatzen, Aitzolek aurpegiratu bezala. Asma-ahalak egiten ditu oinarriak bilatzen idazle zaharretan, ahozko mintzairan, atsotitzetan, etabarretan.

Batzuetan bere sena propioari jarraikiz adjetibo berriak "musker" bezalako sinestesiaren ondoriozkoak erabiltzen, hitz-elkartu konplexuak asmatzen ausartuko da. Bestetan, gehienetan, aurreko idazleek, herri-mintzairak edo erran zaharrek zolduriko egiturez baliatzea nahiago izango du, edo hitzek garai batean edo halako autore batek emaniko baloreaz baliatuz egingo du zilegi hitzari ematen dion adiera edo erabilpena.

Ukaezinezkoa da elaborazioa Lizardiren mintzairan, irakurleak lehen irakurraldian suma lezakeena baino askoz haruntzago doan lanketa da, ikusi dugunez, baina azalez leguntasun edo berdintasuna, naturaltasuna emateaz ere arduratu delarik.

Berritasunak, zailtasunak ere ez datoz bat batean; mailakatu egiten ditu. Esate baterako, olerki batean aurkezturiko metafora, hurrengoan hitz elkartu gisa, epiteto bilakatua dugu aurkitzen.

Oraindik ere, honelako azterketak egin ahal izateko, batez ere lexikoari buruzkoak egin ahal izateko, baliapide edo tresneria murritzegia du aztertzaileak. Nolanahi ere, Azkueren Hiztegia eta Morfologia ezinbestekoak izango dira beti, zalantzarik gabe, Lizardiren elaboraketaren oinarri-oinarrizko lanabesa izan bait ziren.

Hala ere, *Orotariko Euskal Hiztegia* osa dadinean balio handiko lanabesa luzatuko zaio azterleari Lizardiren iturri oparoenak izan bide zirenak idoro ahal izateko.

Aintzinako testuetara jotze honen zioa hizkuntzaren muinaren bilaketa izan bide zen alde batetik, hizkuntzaren bitartez suma daitekeen euskal arimaren boza entzunaraztea, baina bestalde oso bidezkoa dirudi zera ere pentsatzea, oinak jadanik eraikia den hizkuntza literarioaren oinarrian finkatuz, kultoa eta duina izango den mintzaira literario modernoa eraikitzea zuela Lizardik asmotzat.

> "Bañia, oar bati gatxikion: olerkari guren oiek eztira bakar soillean azten, gure Aizkorri zelai lau-utsetik bulartu ez-antzo, beti ditute olerkari zeeagoak aitzindari eta laguntzat" [195].

2.5.2. Sintaxia: Jatorri ezberdineko materialen arragoa

Sintaxiari eskeiniriko bigarren kapituluan Lizardiren mintzaira poetikoaren iluntasuna edo "azal gogorra" delakoaz hitzegiten denean lexikoak eta morfo-sintaxiak ez ezik, gehienetan aztertzeke uzten den joskeraren alorreko zailtasun bereziak aztertu dira atal honetan.

Lizardiren mintzaira poetikoaren sintaxiaren ezaugarri orokorrak laburbilduz, zera esan liteke: alde batetik, esaldi nagusiak direla ugarienak, eta hauek ere ebaki eta motz jalkitzeko joera nabaria duela, menpeko esaldiak sarrerazteari eta pilatzeari uko egiten diolarik. Beraz, alde honetatik argitasuna bilatzen du, irakurlearengana zuzen-zuzenean iristeko zaletasuna du.

---

[195] LIZARDI, X.; "Olermen-irakite" in *Euzkadi*, 1930-6-1, 5. or.; *K-L* 310. or.

Beste alde batetik, berriz, esaldi nagusi horietan sarritan aditza isildurik egoten da, edo soildurik, edo aditz laguntzailea isildurik, Izen Sintagmak bilakatzen direlarik nagusi, nor edo nork kasuetan, eta elkarri aposizio eran kateaturik.

Lizardik bere ideia poetikoetan jaso dugun moduan esana du ez dituela esaldi luze korapilotsuak maite. Gongorazalea bada ere, sintaxiaren alderdi honetan guztiz kontzeptismo kulteranoaren sintaxi korapilotsuaren aurkako amorratua ageri da, Gongoraren metafora bera erabiliz ukatzen diolarik estetika horri inolako edertasunik: "elkarri geriza bikoteen gisan kateatzen zaizkion esaldi luze bihurri" eta alanbikatuak ez ditu gogoko.

Esaldiak elkarri lotzerakoan Lizardik ez du lokailurik erabiltzen gehienetan, eta menpeko esaldiak nagusiari lotzeko ohizko diren atzizkien artean, laburrenak eta adierazkorrenak bakarrik ditu erabiltzen. Ahal bada, aditz laguntzailea ixildurik, aditz izenkiez baliatuz.

Horregatik, diskurtso logikoan, saiakeran eta narrazioan ohizkoak diren deiktiko erreferentzialen eta lokailuen gabeziaz irakurketa zaildu egiten da.

Hala, garaiko kritikoek *Biotz Begietan* liburuaz dihardutelarik, salatu egingo dute gogortasun, naturaltasun gabezia hori, batez ere joskeran yustaposizioari lehentasuna ematearen ondorioz. Eli Agirre "Agarel"ek bezala:

> "Lenguaje: se me antoja un poco duro el empleado por Jose Maria Agirre: la ilación mas que arbitraria muchas veces, y un tanto dura" [196].

Lizardi idazle heldua den garaian nagusi zen joskera aldetiko garbizaletasun boladaren ondoriotzat jo daiteke Lizardik juntagailuekiko duen joera hau. Aipatu behar da bestalde, Aitzolek esaldi ebakia eta parataktikoki ezarririkoaren zaletasuna Lizardik Etxeparerengandik ikasia duela dioela. Dena den, Lizardik poetikan ikusi ditugun irizpideekin jotzen du idazle zaharrengana eta bere asmoetarako egoki zitzaizkion ezaugarriak soilik hartu zizkiola gogoan hartuz, bi eraginok, praktikan, bat egin zituela esan daiteke.

Kritikoek Lizardiren "azal gogorraz" hitzegin izan dute metaforikoki belaunaldiz belaunaldi Mitxelenaren irudia erabiliz. Lizardiren garaiko zenbait irizleen hitzetan, "artifizialtasuna" (Agarel) eta "canon arbitrario de belleza" (Aitzol) deitu zutena *hizkuntzaren elaborazio, prestaketa eta eraldaketa pertsonalaren fruitu da zalantzarik gabe*, iritzi emaileen ikuspuntu aldeko ala aurkakoak gora-behera.

Alderdi honetatik, Lizardi Lizarraga edo Oihenarteren senide da, bizirik ezagutu zuen eguneroko hizkera mintzatu nahiz idatzitik urrunduz, berak egokienatzat jotako irizpideen arabera eraiki zuen mintzaira poetikoa sortu zuen.

Lizardiren "mintzo elertitsu" horren ezaugarri orokorrak azaldu ditugularik, jo dezagun orain gure iritziz haren olerkigintzari zigilurik sakonena ezarri dioten eta aldi berean zailtasun eta iluntasun gehiena eratxeki dioten zenbait puntu aztertzera.

Lizardiren garaiko literatur kritiko guztiek haren *mintzaira poetikoaren originaltasuna* azpimarratu zuten [197]. Baina gaur egungo iritzi topikoetako bat da Lizardiren hizkuntza literarioaren oinarriak Orixerengan aurkitu behar direla, baina zenbait joeratan hala baitetsi badaiteke ere, ondoren aipatzera goazen batzuetan guztiz bide pertsonalak hautatu zituen Lizardik.

---

[196] AGIRRE, E., "AGAREL"; "De literatura vasca. Lizardi'tar Txabier" in *Euzkerea*, 1933-4-15, 320. or.

[197] JAUREGI, L. "JAUTARKOL"; "Biotz-begietan". Un gran poeta vasco" in *El Día*, 1932-6-8, 1. or.
"Salir de los caminos trillados hasta el presente para adentrarse en las vías laberínticas del arte poético y conseguir iluminar con la antorcha de la originalidad artística es mérito reservado a los grandes ingenios poéticos. Poeta de altos vuelos y marcada originalidad. Esta originalidad campea a través de casi todas las páginas del libro, no sólo en la factura irreprochable de nuevos moldes de versificación, inventados por el autor, sino también en la expresión soberanamente vasca del sentimiento lírico, unida a una excepcional potencia de concisión para describir líricamente las maravillas del paisaje".

Sintaxiaren atal honetan honako bi alderdi nagusi hauek aztertuko dira: alde batetik, haren mintzaira poetikoaren ezaugarri bereziki trinkozaleak gauzatzerakoan hartzen dituen moldeak, eta bestetik, sarritan hizketa esaeratsua, ahozko mintzairan diren esamolderik adierazkorrenak ez ezik, idazle zaharretan aurki litezkeenez osatzen duen joskera bizkor, motz eta bereziki espresiboa.

Bigarren atal batean, poetika kultoa, kultur mailari altuenean dauden literaturekin pareka daitekeen mintzaira poetikoa eraikitzean hizkuntzari hartu arazten dizkion moldeen azterketa egin da.

Egitura bereziki trinko, adierazkorretan elkarrizketazkoak, zenbaitetan herriaren ahozko mintzairan ohizkoak diren esamolde bereziki adierazkorrei leku egiten die bere olerkietan, haiek dituzten ezaugarri guztiez: aditz ixiltzea, esaldia aidean uzteak, ezagunak diren erran zaharrak gogoratzea, ahozkoaren kontestuan bakarrik erabili ohi diren ("ez aiz i makala!" edo "an ziak") bezalakoak sarrerazteaz, bizitasuna lortzen du, eta bere joskerari jatortasun kutsu nabarmena erastea.

Lizardik erabiliriko zenbait esamolde laburtzale herrikoiak izan arren, ez dira bereziki ezagunak, erabilera marginala dutelako, edo hogeigarren mendean bizirik ez dagoen esamoldeak direlako. Horietako batzuren iturri gisa idazle garbizaleak eta gramatikak, eta bereziki Azkueren Morfologia eta Hiztegia hartu bide zituen.

Bestalde, eraginiko zenbait laburdurek ez dute herriaren ahozko mintzairan parekotasunik bat ere. Berak eraginiko laburketak dira helburu espresiboak direla medio, bai eta zenbaitetan ageri-agerikoak diren helburu estilistikoetarako: aliterazioak lortzeko esate baterako.

Lizardik euskal sintaxiaz egiten duen erabilerak ahozko mintzairari zenbat zor dion frogatzen da atal honetan, baina aldi berean, hizkuntzaren normaren barruan hautatzen dituen baliapideez egiten duen erabilera askearen ondorioz, zenbaitetan oso perpausa elaboratuek, abiapuntutzat duten ahozko mintzairatik ez ezik, literatur tradizioaren esparrutik ere ihes egiten dute.

Hizketa esaeratsuaren moldeko egitura laburtzaleak ere bereziki azpimarragarri dira Lizardiren joskeran. Euskal hizkuntzaren joskeraren arima osatzen duten adierazpide bereziki espresiboak hautatzen ditu.

Hautapen honen ondorioz, hizketa esaeratsuak atsotitzetan ohizkoa den tonu sententziotsua eta erabakia eratxekitzen dio bere olerkiari. Idazle zaharren, batez ere Etxepare eta Sarako Etxeberriren idazlanetako euskarak duen taxu kontzeptista didaktiko eta, zenbaitetan, moralizantea bereganatzen du, haien mintzairaren zenbait ezaugarri bereganatuaz batera: bere mintzaira poetikoari taxuera ikasia, landua eta noblea ematen diolarik era honetan.

Lizardiren mintzaira poetikoaren kutsu esaeratsua atsotitzetako hizkeraren ezaugarriez baliatuz egiten du: zenbait izenen balorea orokortuz et haiekiko egintzak denboratik kanpo kokatuz, aditzaren denbora, aspektu, pertsona eta gainerako ezaugarriak ezabatuz..."Amaika aldiz lurpera gizonek gizonak..."

Lizardiren egitura laburtzale, kontzeptista horiek kutsu esaeratsua ematea lortu ezik, esaldi eginak, aintzinakoak aspaldi zoldutakoen tankera hartuerazten die.

Kutsu esaeratsua, errefrauetan ohi den bezala, esaldia osatzeke utziz lortzen du, fragmento baten gisan, noizpait inork egoki esaniko zerbait aipatzean osoki adierazteke aidean uzten den bezala. Lizardik puntu suspentsiboak idatzi ohi ditu honelako esaldien ostean, benetako errefrauak aipatzean egiten duen modu berean.

Elkarri lokarririk gabe, yustaposizioan errefrauetan ohi den moduan, eta era berean Etxepareren bertsoek ohi duten moduan, juntagailurik gabe elkarri atxekirik dauden esaldi labur eta adierazkorrak elkartzen ditu.

Molde zaharretan adierazirikoak batzuetan aspaldi zolduriko erran zaharren moduko esamolde orokorrak biltzen baditu ere, beste batzuetan kontzeptu berriak, berari bururaturikoak,

Mendebaldeko olerkigintzan denboraren kontzeptuaren inguruko metafora edo irudiak ere biltzen ditu, mintzamolde horren poderioz behin-betirako fosilizatatuak utzi nahi izango balitu bezala.

Erlatibozko esaldiak Lizardiren joskeraren alderdirik aipagarrienetako bat dira. Baliapide bariatuak, ugariak, garaiko gramatikalariek hobetsi eta gaitzetsitakoak erabiltzen ditu. Arestian aipatu dugun elaborazio eta moldaketa pertsonalaren ondorioz, leku-aldaketak eragitean, zenbait erlatibozkoetan hiperbatonak sarreraztean, esaldi ordena bitxiak, ausartak eta ohiz kanpokoak eragiten dizkio euskal sintaxiari.

Lokailurik gabeko erlatibozkoek grafian elkarketa adierazten duen marratxoa aurkitu ohi da beti Lizardiren olerkietan (salbuespen bat bakarrik aipa daiteke). Honelako erlatibozkoek Lizardik erabiltzen dituen gisan hitz-elkarketaren bide morfologikoekin duten harreman estua azpimarratu behar da, trinkotasunaren eta esanahi batasunaren aldetik, erlatibozko murriztaileak izatetik datorkien esanahi batasuna dela medio.

Lokailurik gabeko erlatibozko esaldi hauek gaitzago bilakatzen dira luzatu ahala, menpeko esaldiko aditza sintagma gehiagoz zamatu ahala. Luzatzeak ez ezik, esaldi nagusiaren barruan tokiz aldatzeak ere zaildu egiten du bertsoa lehen ukaldiz ulertu ahal izatea.

Erlatibozko esaldia ondokoaren ostean, eta Izen Multzoa, Izen soilez nahiz [Izen + Izenondo] osaturiko Izen Multzoa, eta mugatzailearen tartean kokatu ahal izateak sintaxi aldetiko askatasun handia eskaintzen dio olerkariari, bai eta teknika poetikoaren aldetik jadanik aipatua duen zer bati buruzko zertzeladak patxaraz eransteko aukera, erlatibozko esaldiak ez-murriztaileak direnean.

Zenbaitetan ondokoa ez da ahapaldi berean ez esaldi nagusian agertzen, bi ahapaldi lehenagoko hitz bat izan daiteke. Bereziki azpimarragarri gertatzen da honi dagokionez *Gure Mintzo* olerkia joko kontzeptualetarako zaletasunaren kutsu nabarmena ematen dioten ezaugarri sintaktiko eta morfosintaktiko kultisten eredu gisa.

Erlatibozko esaldien kokapena eta hitz-ordena dela eta bereziki aipagarriak deritzedan lau kasu xeheki azaltzearen ondoriotzat esan liteke aurretik aipatuak ditugun berezitasun eta zailtasunen azken-erpintzat ere jo behar direla, hots, esaldi nagusiko ondokoa eta erlatibozko menpeko esaldiaren ohizko hitz-hurrenkeraren hausketa bidearen azken mugatzat. Zenbaitetan, *Gure Mintzo* olerkiaren zenbait ahapaldiren kasuan bezala, hizkuntzaren norma ez ezik, hizkuntza beraren posibilitate enpirikoen muga jo ere egiten duelarik.

Metrika alorrean bereziki nabarmendu diren poetika kultoaren ezaugarriei eta sintaxian jadanik ikusiak ditugun zenbait egitura sintaktiko ikasiekin batera, aipatu beharrekoa dugu esaldi barruko osagarrien ordena aldaketaren ezaugarri hau. Elipsia, juntagailurik gabeko esaldi multzokaketa yustaposiziozkoa izatea bezalako kutsu "herrikoia" duten ezaugarriekin batera, estetika kontzeptista, kultista baten ezaugarrik nabarmenenetako bat da hiperbatona.

Lizardik naturalitate handiz, bertsoaren erritmoaren zerbitzuan nahiz esanahia sugerenteago, estetikoki aberatsago egiteko maisuki erabiltzen du. Euskal joskeraren alorrean hitz-hurrenkerak galdegaiaren legea baizik ez du, sintagmek bere barruan duten ohizko hurrenkeraren arauaz gain; gainerakoan askatasun handia eskeintzen duen joskera da. Lizardik askatasun arau hau areagotu egiten du eta joskera askatasun hori komeni zaion punturaino eramaten.

Hurrenkera aldaketak neurriak edo sinalefa legeek beharturik egin bide zituela dioen iritziaren aurrean, hiperbatonaren "berarizkotasuna" frogatu uste dugu, joskeraren jatortasunari halako garrantzia ematen dion idazleak ordena aldaketaren posibilitatean sinetsi izanak berak, sorturiko egituraren edertasunak haren araua hausteak dakarren iluntasun eta artifizialtasunaren eragozpenari aurre egin izanak, poeta gisa duen nortasun helduaren eta burujabearen lekukotza eskaintzen du. Eredu propioa sortzen ari denaren askatasunaren eta segurtasun pertsonalaren lekukotza.

Hiperbatonaz ohartuki baliatzeak ikuspuntu estetiko berezia duela erakusten du, zangalatrauak egiteko askatasunak, komeni bezalako hitz-berriak asmatzeak, morfosintaxian egokien iruditutako kimaketak egiteak bezalaxe.

Poetikan azalerazi ditugun ideia poetikoekin bat egiten duelako, inolaz ere poetika kulto baten aldeko apostua, ahozko mintzairaren urruntzeko erabaki sendoaren lekuko dira.

Lizardiren olerkietan aurkituriko intziso ugariak grafikoki marratxoen artean nahiz parentesi artean agertzen dira.

Intzisoek gehienetan beranduago garatzeko asmorik ez dagoen azalpen, irudi edo emozio adierazpen azkarra eskaintzeko, tximista bat bezala, begien aurrean zart eginiko bat-bateko txinparta baten argitasuna duen irudia helerazteko, edo irakurleari olerkiaren gaiarekiko hurbiltasuna, sentiarazteko eginiko hausturak dira, diskurtso poetikoaren aria eten edo oztopatu egiten duten geldialdiak dira. Esaldi nagusiko hitzek olerkariari bat batean sorturiko hitz-asoziazio libreak adierazteko bide dira, nagusiki.

Sailkapen semantikoa eginez, hiru helburu nagusitarako erabiltzen ditu Lizardik : Azalpen bat emateko, edo esaldian zehar azalduriko zerbaitekin lotu nahi duen irudi bat aurkezteko, bidenabar bezala, edo irakurleari eginiko dei emotiboa helerazteko, esaten ari denarekiko idazlearen emozioak azaltzeko: harridura, poza, ironia, samina...

Antzerkian bezala azalpen bat ematen duten itzisoez gain, irudiak, gaian aipaturiko zerbaiti buruzko kolore, mogimendu, zaporre edo bestelako zentzumenen bati dagokion zertzelada bat sarrerazte dutenak dira literarioki interesgarrienak, bat-bateko irudi batek sorturiko konparazio edo metafora, zuzenean ez aipatu arren, zerbait iradoki egiten duen sintagma laburra ("-egoak ikara-"> beldurra, hauskortasuna,...) sarrerazteko erabiltzen ditu.

Ikusi dugunez, batzuetan erreferentzia bakarra da, librea, inolako jarraipenik gabea; bestetan berriz, olerkiaren barruan oihartzuna bilatzen duen irudia da, aurrerago edo geroxeago gertatu edo agertuko den zerbaiten iradokizun edo oroitzapen delarik.

Hartu ditugun adibidei erreparatuz gero, intzisoen bidez sarreraziriko konparazio, metafora sugerentzia etabar.ek indar berezia dute, ustegabeko gunean kokatzen bait dira, esaldiaren aria hautsi egiten bait dute, argi edo kolore txinparta baten efektoa dutelarik, dizdirarengatik ez ezik, laburtasunarengatik.

Hirugarren sailean bilduriko intzisoak irakurleari eginiko iruzkinak edo obserbazioak, olerkariaren eta irakurlearen sentimenduei eginiko deiak diren intzisoak ere badira: olerkariaren sentimenduak harridura, damua, poza, etabar adierazten dira esklamazioen bidez, beste zenbaitetan ironiaz eginiko komentarioek irakurleari zuzenduriko begi-keinuak bezalakoak dira.

Olerkiaren harian eraginiko etenaldi hauek, zalantzarik gabe, Lizardiren olerkigintzaren baliapide aipagarri direla azpimarratu behar dugu, olerkariaren irudimen poetikoari, eta sentimenduari bat bateko irtenbidea eskeintzen dion ubideen gisako direlarik.

Teoria poetikoaren azpimarratu dugun sentimendu eta sentimentalismoaren arteko mugaren perspekltiban kokatuz gero, intzisoek emotibitateari irtenbidea emateko ubideen gisakoak dira. Lizardi heriotzaz, heriotza ondokoaz, maitasunaz, sufrimenduaz, eta antzerako gai emotiboez mintzatzean ere, ez da negarti, bere ustez erromantikoak ziren era berean. Emotiboa bai, baina emotibitate hori zeharka emana dator.

Narrazioaren haria hausten duten bat-bateko irudi plastiko eta exklamazioek, obserbazioek, emotibitatea sujeritu egiten digute, zuzenean aipatu gabe. Horregatik lortzen du Lizardik sentimenduen adierazpenean hain benetako izatea, erretorika kutsurik ez izatea.

Beraz, ondorio orokortzat esan liteke Lizardiren joskera alorreko zailtasuna eta iluntasuna gehienetan aipatu izan den jatortasunaren aldetik, euskaraz muin-muineko diren eta poesi-mintzairan erabili ahal izateko kolokialegitzat joko genituzkeen esamoldeak erabiltzetik ez ezik, bere mintzairari behar adinako duintasuna emango dion tankera esaeratsua eman nahi izatetik eta poetika kultoaren ondoriozko ezaugarriak bereganatzetik datorrela maila beretsuan.

Ahozko mintzairaren esamolde adierazkor eta biziak, aintzinakoak diren edo bazterreko euskalkietan bakarrik erabiltzen diren egiturak elkarren ondora bilduz sorturiko joskera honi Lizardik, teoria poetiko kontzeptista irizpidetzat hartu izanaren ondorio diren baliapide literarioak elkartzen dizkio: alusioak, hitz-hurrenkera arruntaren hiperbatonak, joskera-eten edo intzisoak eta deiktiko erreferentzia ilunak...

Bi iturri nagusi hauek bat egiten ditu molde guztiz originalean. Jatorri oso ezberdineko elementuak bilbatzen dituen kanon poetiko honek, irakurlegoa euskal hizkuntza eta literaturan aditua izateaz gain, poetika kultoaren baliapaideez eta gustu poetiko kontzeptistaz zaleturik egotea eskatzen du [198].

198 Luis Jauregi "Jautarkol"ek *Biotz-begietan* liburua argitaratzean eginiko iruzkinean dioen bezela, Lizardirena estilo berri hau "gesto artístico" berritzailea da:

"Es un salto tan gigantesco el que este libro representa en el momento actual de nuestra literatura, que su gesto artístico difícilmente será apreciado cual merece por la generación actual de los aficionados a nuestras letras, aunque abrigo la convicción íntima de que su publicación ha de quedar grabada en aúreos caracteres en las páginas de nuestra historia literaria.

No puede negarse que aún para muchos de nuestros literatos, son de muy difícil comprensión algunos conceptos poéticos que este libro contiene. A veces por la excesiva concisión de la frase, consecuencia premeditada por el autor al encerrar el mayor número de ideas en la menor cantidad posible de palabras, empresa de por sí expuesta al riesgo de caer en el defecto aludido; otras por el uso casi de continuo de palabras y giros del lenguaje, de rancio abolengo vasco, pero hoy en desuso en el marco actual de nuestra literatura, y no pocas veces, por la alteza misma de las ideas poéticas y la profundidad de los pensamientos jamás expresada hasta ahora en nuestro viejo idioma". JAUTARKOL; "Biotz begietan. Un gran poeta vasco" in *El Día*, 1932-6-8, 1. or.

EPILOGOA

LIZARDIREN INGURUMARIA ETA POETIKAREN ARTEKO HARREMANA

0. SARRERA

Hiru ataletan zehar garatu dugun azterketan Lizardiren nortasun pertsonalaren eta literarioaren hiru alor ezberdini begira ihardun dugu: lehenengoan, poeta sortzez dagokion ingurumarian kokatzen ahalegindu gara, bigarrenean berriz, haren idazlanetan isladaturiko ideia literario eta poetiko nagusienen lerroak nabarmendu ditugu, eta azkenik, presupostu teoriko horien argitan azterketa formalari, maila metriko-fonikoa eta morfosintaktikoaren azterketari ekin diogu.

Epilogo honetan, azterturiko hiru alorren arteko harremanei buruzko ondorioak biltzea hartu dut helburutzat, nortasun eta ingurumariari buruzko datuek argituriko poetika literarioak eta praktikak elkarren artean duten barne-egokitasuna azpimarratzea, lanaren ondoriotzat.

1. MUNDUAN KOKATZEKO ERA PERTSONALA

1.1. LIZARDIRENA, "BIZILEKU SENDOA"?

Euskal literaturaren historiek eta kritiko gehienek Lizardi olerkigintza modernoaren sortzailetzat aipatzen dute, Lauaxetarekin batean.

Ezaguna da Lauaxetak berrikuntza honetara ekarririkoa Europaldeko eta Espainialdeko olerkigintza garaikidearen landareak aldatuz egin zuela, eta bere olerkigintzaren bilakaeran, ezagutu zituen idazle atzerritarren eraginaren nahiz euskal literaturaren barne-munduan herri literaturarako hurbilketaren ardatzen inguruan kokatu ohi dutela kritikoek.

Horrezaz gain, Lauaxetak "novissimo"ek ohi duten irudi eta jarrera hautsizaleaz, berrizale izateko ongi hornitua aurkezten zaigu. Literaturaren hizkuntza mailari, klasikotasunari eta abarri buruzko artikuluetan "gutxiengo"arentzat ohartuki ari dela ageri du, eta lotsarik gabe defenditzen da, bere formazio intelektualak eskeintzen dion ezkutuaz.

Lizardiren kasuan aldiz, garaian kazetari polemikoa, olerkari berrizale eta "liriko zoro"aren irudi modernoa itzali egin du bere olerkien giro intimistaren sentiberatasunak, eta gerra ostean, irudi xalo, goxoa gailendu dela dirudi.

Ana Maria Toledok [1] "Lizardik munduan kokatzeko modu horretatik poesigintza eraberritu ahal izan zuela" esaten du haren mundu-ikuskeraz, munduaren aurrean, batez ere, modernitatearen krisialdiaren aurrean izaniko jarrera tipifikatzeko Koldo Mitxelenak Txillardegiren gudaosteko nobela existentzialistei kontrajarriz eginiko zenbait baieztapenetan oinarrituz [2].

Lizardirena "bizileku sendoan" bizi denaren jarreratzat zedarritu zuen Mitxelenak, Txillardegiren pertsonai urduri, artega eta kezkatiei kontrajarririk. Kontrajartze horren ondorio da, Lizardi "inongo amets-herrira ihes egin beharrik" ez zuen idazletzat jotzea eta aurrean zuena kontatzearekin aski zuela esatea. Kontrajarpenetan sarritan ezaugarriak areagotu egiten dira ordea, eta ñabardurak galtzen.

---

1 TOLEDO, A.Mª; *Domingo Agirre: Euskal Elaberriaren sorrera*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1989, 716. or.

2 MITXELENA, L.; "Sarrera itz-batzu" in TXILLARDEGI; *Leturiaren egunkari ezkutua*, Leopoldo Zugaza, Durango, 1977, (2. arg.) 12. or.
"Ezta zalantzarik Lizardi'gan. Pozik dago biziak eskeintzen dionaz eta fedeak agintzen dionaz. Alferrik bilatuko duzute beragan Europa eta mundu guztia dardarazten asia zen lur-ikararen berririk. Dardarak ezkinduen artean ukitu edo, ukitu baginduen ere, begi belarri erneak eta arima urduria bear ziren zirrara sumatzeko. Bizileku sendoan bizi zen. Zimenduetan ez-ezik, etzen paretetan artesiturik ageri. Axalean zertxobait aldaturik ere, bizimodua, uste, iritzi eta sinesteak oiturazkoak ziren, gurasoengandik zetozenak, eta gizaldi berriek aztertu gabe bereganatzen zituzten, beste edozein ondasun bezala".

Lehen atalean azaldu ditugun datu biografikoek eta ingurumariari buruzko azterketetan azaldu ditugun ekintza politiko, kultural eta literarioetarako barne-eragileak ordea, Lizardigan aurrekoengandik heldu zaion mundua ez onartzea eta aldatzen saiatzea direla ikusten da.

Lizardiren mundu-ikuskerak, munduan zuen kokatzeko moduak eta literaturaren arloan eraginiko berrikuntzak badute zerikusirik, ene ustez, modernitatearen krisiak Lizardiri erakarririko mundu-ikuskeraren aldaketarekin.

Nire ustez, eta atalez atal erakusten saiatu naiz, Lizardik ez du besterik gabe onartu aurrekoengandik heldu zaion mundu ikuskera: herri baten kultura osoa, euskal kultura osoaren gainbehera sumaturik ari da, modernitatearen erasopean izkutatzeko kinka larrian ikusten du, eta urte gutxiko gorabehera delakoan dago.

Hartu zituen jarrera politikoa eta kulturala herri-nortasunaren krisiaren kontzientziarekiko adostasunean ulertzen dira, eta, ondorioz, literatur mintzairan eragin zuen iraultza modernoa ere, besterik gabe bere gogara erabakiriko berrikuntza formala baino askoz gehiago dela susma liteke.

Nere ustez, ez da halabehar hutsa Lizardik Elizambururen "Ene etxea edo laboraria" bezalakorik ezin egina, garaikide izan zituen Jautarkolek eta Emeterio Arresek sarri erabiltzen zuten gaia eta ikuspuntua zen arren. Zer da Lizardigan aldatu dena? "Gurazko aberria" denak, hura lantzeak ez du besterik gabe asetzen, berak hala izatea nahi izango lukeen arren. Errealitate berri baten aurrean kokatzen da Lizardi, eta horrek ikuspuntua aldarazten dio. Bera euskal herriaren kulturaren galtzeaz kontzientzi hartze larriak, ideiak eta moldeak berritu arazi egiten dizkio, ohartuki eta berariz.

XIX. eta XX. mendeko krisi-giroa, Mitxelenak "lurrikara" deituriko balore-krisia, eszeptizismoa eta jarrera ez-erlijiosoa, Barojaren literaturak isladatzen duen errealitate aldakor eta askotarikoaren aldarrikapena da: "Ez dago egiarik, egiak daude". [3]

Balore krisia da mende-hasieran nagusi, eta horrek ez omen du Lizardiren mundu segurua ukitzen. Lizardik bere garaiari buruz zuen iritziaren berri azaltzean, modernitatearen aurrean harturiko jarrera deskribatzerakoan, ikusi da, ordea, Lizardik ez duela oso gogoko modernitatearen izenean Euskal Herrira iristen ari diren zenbait moda eta zaletasun.

Izpiritualtasunik gabeko gizartea, gogo lurkoiak dituzten gizataldeak aurkitzen ditu Lizardik bere garaikideei begiratzean: kirolaren, bozeo eta futbolaren popularizaketa sukartsuaren garaia da, teknifikazioak, komunikabideek eta abarrek bizimodu erosoagoen izenean, bizimodu zaharra suntsitzen ari dela ikusten du.

Gazte garaikideak charleston, kirolez eta antzerakoez arduraturik ikusten ditu, idealismo oro bazterturik; turismoa, trafikoa, aurrerakuntzek... Mundu osora hedatzen ari diren kultura eta bizimodu berdintasun zanpatzailearen ondorioz, nortasuna galtzeko zorian dagoen herri zaharrak modernitatearen pausua hartzeko duen zailtasunaz ohartzen da Lizardi, baina baita pausua nahita nahiez eman beharraz ere.

Euskal Herriko garaiko gizartean aldaketak azkarrak, erasokorrak egiten zaizkio, baina, sarritan, artikuluetan salatzen dituen aldaketa hauen alderdi kaltegarrien aipamena egitean, ezin eutsi den indar baten aurrean aurkitzen dela sumatzen da, badakiela ez dezakeela lehengo bizimodu tradizionalean iraun. Ironiak, umoreak eta berezkoa duen baikortasunak, jarrera gaitzestailea eta nostalgikoa alde batera utzi, eta berria ezagutu eta onartzeko bidean jartzen du, bere ustez ondo erabiliz gero, euskaldunoi ere ekar liezazkigukeen abantailez oharteraziz.

Lizardik ezagutzen duen gizartea hobetzeko helburu idealistaz dihardu, bere kideak pentsamentu eder baten zuziaz argitzeko asmoz dihardu.

---

3 TOLEDO, A.M.; *Domingo Agirre: Euskal elaberriaren sorrera*, 717. or.
"Gurasoengandik datozkion sineste, bizimodu, uste eta iritziak bere hartan ontzat eman behar; ez dauka agindurik ematen dion federik, ez dauka bizileku sendorik. Ibili dabilen mundua da berea (Leturiarena)".

Aurrekoz heldu zaion mundu-ikuskera onartu eta Orixek esango lukeen moduan, "erara" gelditu zela pentsatzen dutenek, ene ustez, *Biotz-Begietan* liburuaz egin den irakurketa mota baten taxuera orekatsu eta neurtuari jarraitzen zaizkio hestu-hestuki. Kazetari-lanek isladatzen duten mundu-ikuskerak batipat, eta Orixek *Biotz-Begietan* liburuan argitaratzeko hautatu ez zituen olerkien eta liburukoen artean osatzen duten panoramak irudi nabarragoa eskaintzen dute, ene ustez.

Mende hasierako balore-krisiak erlijioari eta gizarte egituraketari buruzko irizpideak kolokan jarri zituen eta Lizardik ere ezagun du giro-aldaketa horren zantzua. Garaikoen iritziek jasotzen duten Lizardiren sinesmen kezkatsuak bat egiten du olerkietan nahiz kazetari-lanetan isladatu zuen munduari buruzko hausnarketarekin.

XX. mendeko ikerketa zientifikoek eskaini zuten unibertsoaren eta izadiaren antolamendu eta ikuspuntu berriek munduari beste era batera begiratzeko modu filosofikoak eta erlijiosoak erakarri zituzten. Lizardik Maeterlinken saio filsofiko-naturalisten bidez harturiko ikuspuntutik, errealitate naturalari hurbilduz bilatu zuen "bizitzaren eta geroaren izkutua"ren zentzua.

Lizardiren mundu ikuskeraren modernotasuna arlo soziolonguistikoan zituen ideietan antzeman daiteke. Esate baterako, Txomin Agirreren nobeletan tesirik sendoenetako bat den "euskaldun fededun" delakoari buruz, hots, euskara kristau fedearen babesleku egiten duen teoriaz Lizardik zuen ikuspuntua "Egia ikus dezagun ama!" izeneko artikuluan adierazi zuen. Kaltegarri diren "aberkoi-usainezko" gezurren artean kokatzen du formula hori, erosoak diren "ikus-nahaste zoro"tzat jotzen ditu eta hizkuntzarentzat nahiz erlijioarentzat kaltegarri direla irizten [4].

Behar bada, ideia sozio-linguistikoetan, euskeraren iraupenaren arazoaren larritasuna eta hartu beharreko bideari dagokionez aurkezten dituen normalkuntza soziolinguistiko nahiz linguistikoari buruzko irizpide modernoak dira Lizardik duen munduan kokatzeko era hobekienik erakusten dutenak.

Aurrekoengandik datorkion mundu-ikuskerari buruzko hausnarketa Lizardigan sarritan esaten dena baino sakonagoa izan zela aitortu behar da. Gogora bitez, esate baterako, euskara kultur-mintzabidetzat erabiltzeari buruz Bonifazio Etxegarairekin izaniko eztabaida, Eusko Ikaskuntzaren jokabideen salaketa, Euskaltzaindiari zuzenduriko eztenkadak, garaiko euskaltzaleen epeltasuna, udal, fraide eta monja eskolen axolagabekeriaren salaketak...[5].

Askotan, garaikoen artean Lizardik, "illaunezko tiroa" baino, "berunezko tiroak" diren kritika zorrotzak jaurtitzea eraginkorragotzat jotzen zuenez, gordin xamar ere eraso zituen aipaturiko horietako zenbait eta berak aitortu ere egiten zuen [6].

Lizardik giroa berotu egin nahi du, isilean eta jator, denok elkarri arrazoia ematen ihardun zalea ez da. Polemizatu egin nahi du, eta inoiz propio ardaila jartzearren aritzen zela ere aitortzen zuen [7].

Ustezko Lizardiren mundu segurua, ez lurrikararik eta ez artesirik gabearen irudia zalantzan jartzen dute ene ustez, euskaldunei nahiz erdaldunei zuzentzen dizkien erasoek. Ez dute, ene ustez,

---

4 "Eusko-oikuntza bikañen zaindari oberena euskera omen; kristautasuna ta euskera elkarbildurik, ia-ia soin bakar batean mamiturik omen-dira. Euskera ta Kristautasuna era batera dabiltza...Ez, gero, begiei ta zeuen nahikundeari geiegi siñets! Ikus-naaste zoroak dira oiek, bai eroso guretzat, baña bai kaltekor ere euskerarentzat eta kristautasunarentzat". LIZARDI, L.; "Egia ikus dezagun ama!" in *Argia*, 471, 1930-5-4, 4. or.; *K-L* 264-267. or.

5 LIZARDI, X.; "Euskara andiki soiñekoz" (I) in *El Día*, 1930-9-25, 2. or.; *K-L* 278-281. or.

6 "Ori da, agi danez, nere okerra. Baña, gauzak gordinki esateak ere baditu alderdi onak: Etxegaray berak dionez. Adiskide artean ez berunezko baizik illaunezko tiroa bear dala uste izaten dute askoek: nik bestera, baña adiskidetasuna ezertarako galdu, ez-ta ere otzitu gaberik". LIZARDI, X.; "Elkar bidean" in *Euzkadi*, 1930-10-13, 5. or.; *K-L* 285. or.

7 LIZARDI, X.; "Aitaren erreal bikoak" (*El Día*, 1930-11-12, 12. or.) artikulua dugu honen frogarik garbiena, Etxegarai eta berbaren artean belaunaldi ezberdinekoen ekintzaletasun joera ezberdinak kokatzen ditu eta bere jokabide ausart eta zorrotzaren zioa aurkezten:

seguru eta bakean dagoenaren jarrera isladatzen; atsegin ez duen gizarteari, nahiz bere aurrekoek, nahiz bere garaikideek osatzen dutenari buruzko nolabaiteko gaitzespena baizik.

"Glosas Triviales" artikulu sailekoen artean, *Euzkadi*n 1928-7-31ean argitaraturikoak, probokazioaren bide beretik jotzen du, kasu honetan euskal gizartean modernotasun eta aurrerazaletasunaren izenean euskal nortasun kulturalaren suntsiketa ontzat ematen dutenen probokazioa.

1.2. "BEGI-BELARRI ERNEAK ETA ARIMA URDURIA"

Alde batetik, gizartearen egitura, ohiturak aztertzeke onartzeari dagokionez, aldarrikapen ozenik egin gabe praktikan —"egitez"— kritikoa zela esan baliteke, bestetik, baloreei buruzko barneitaunketa eta kezkak, hitz batean Europako gerra arteko balore-krisiak nolabait Lizardi ukitu zutela esan daiteke, ene ustez.

Tesi honen lehen atalean aurkeztu ditugun datu biografikoek zenbait alderdi nagusi eta berri aurkezten dituzte Lizardiren nortasun pertsonal eta literarioari dagokionez: datu biografikoek gaztetako espektatiba baikorraren eta helduaroko "bizi behar latza", errealitate gorriaren arteko haustura eta desoreka salatzen dute. Aitaren heriotza eta lehen haurtxoena, gaitzak... Munduaz zuen ikuskeraren aldaketa, hein batean behintzat, gertakari hauek eragina da.

Gaztaroko olerkietan sarritan aurkitzen den Jainkoaren eta fede erlijiosoaren aipamenek "hotzaldi zoro baten itzuli"ko ibilbidea iradokitzen dute: *Jaun errukiorra, Gastiaren Otoitza, Otoitza...*

Beste zenbait olerkik kezka, ihesi joan nahia adierazten dute, "Bizitzako bidea/arantzezkua dala igertzen asten geran bide unian nago" dio 1918ko *Gastiaren otoitza* olerkiak. "Gazterik zartuta" sentitzen da, eta "negar aran beltz" hau utzi eta alde egin nahi du. Gai hau bera dute *Aztu, biyotz orrek!, Igesi, Mendi gaillurra* olerkiek:

> Egaztiya aiz: egaka, goyan galdu adi!...
> (*A*BO 1919)
>
> "Ai, lur aztun au ezin-utziya...!
> Ai, ba'neki nik egatzen...!
> (I 1919)
>
> "Ai, egaztia banintz
> gaiñik-gain nenbilke!
> (MG 23-24)
>
> "Zein ezkutuko indarrez
> zein atseden-egarriz,
> zein gorago-yoranez
> narakark igana?"
> (MG 9-12)

Gaztearen otoia izeneko poeman "bere bidea" zein den jakin nahia adierazten du 1918an eta 1925eko bigarren argitaralpenak hizki larriz idatzia dakar galdera hau:

> "Ta illunpean nora da
> bidearen txurizta?
> Arren, zein da ta, Jauna
> nun NERE BIDEA?...
> (GO 41-44)

"Yoran esigaitzaren lasterrak" eraman zuen poeta "itsasoztia" edo nabigatzailea, *Euzkera Sarkundia* izeneko 1919ko poeman, eta bere burua hegazti zuri bat zen "ames-itxaso ziar", nundik sortua zen ez nora zihoan ez zekiena.

Bere bihotzean itsatsi den desengainoa edo galenaren belar gaiztoa, giza-gogotik urre-ametsen aldentzea deitoratzen dute 1925 urtearen inguruko poemek, *Udazken, Ar uts, Aldakeri...*

"Osto igar bat aizeak
biali dit leioraño...
Galena ala, biziak
dakar, giza-biotzaganaño"
(U 1-4, 1926)

Jainkoa ez da Orixerentzat bezala presentzia betiereko eta erabatekoa, harengan duen fedea ez da zirkinik egiten ez duen argia bezalakoa, itaunketa, kezka eta bilaketa lehiatsuaren ondorio baizik. Lizardirentzat sufrimendua eta heriotzaren gaia "bizitzaren izkutuko" edo enigma filosofiko horietako bat ez ezik, bizipen hurbila ere izan zelarik, oinazea eta desengainoa dakarren bizitzari norabiderik ezin aurkiturik zebilela, "dantza naasi bat" zebilkion "irudimenean", "lauso ta urgun" zebilela aitortu zuen, *Biotzean min dut* olerkian...

Bilaketan zebilela, seinale baten eske ari izan zen: "osertz-illuna autsita/ gaban izar bat jarri/ zazu..." eskatzen zuen 1919ko *Gastiaren otoitza* poeman, eta "noizbait itxaro-kabi" bihurtzen da bihotza: bere gau beltzak izar bat biztu du *Biotzean min dut* helduaroko olerkian.

Gaztaroko olerkietan Jainkoari zuzenduriko olerkietan seinale bat eskatzen dio, 1919-1925 bitartekoetan idealak, giza-gogoaren urre-ametsak galdu bildurrak darabil. 1926-27an argitaratu zituen eta desengainoa, bizitzaren alderdi garratzaren onarpenaren gai beraz diharduten *Xabiertxoren eriotza* eta *Zeru-azpia* olerkietan aurkitzen da helduaroan finkatuz joango den jarrera neurtu eta orekatsua. Etsimendua galerazi-ezina den behera-beharraren onarpena, aldiz, 1925eko *Ar uts* eta *Udazken* olerkietan jadanik mamitua da, naturaren zikloen metaforekiko lehen aipamenekin batera.

Sarritan isladatzen da Lizardiren idazlanetan datu biografikoek adierazten diguten beste alderdi hau ere: Jende artean umoretsu eta ekintzalea, hiztuna eta odol berokoa izanik ere, bakarrean "estutxo" zela, erreflexiboa, bere buruari emana. 1933an *Yakintza*n argitarazi zuen "Txindurriak" saioan Maeterlinkez dioena berari itsasi lekioke: "biziaren eta geroaren izkutuak urduri" zerabilen [8]. *Euzkera Sarkundia*n aitortu zuen eran "yoran asegaitzak" zeraman, eta "oarrez, asmamenez eta goragoyoranez" zihardueu bizitzaren enigmari, "izkutu" horri antza hartu nahirik, bizipide pertsonalean bai, eta jakina, zeregin literarioan ere bai.

Kazetari-lanetan bere garaiari buruzko ausnarketa nabariago egiten den era berean, olerkiek zentzu-bilaketa filosofikoaren arloan dihardute sarritan. Errealitatez errealitate, Lizardik bilatzen duen azaleko egien bitartez sakonagoko egiaren zantzuak antzemateko jarreraz irakurleari hausnartu araziko dion mezua bidali nahi dio.

"Eztabai alperra sortu omen det. Txarki egin omen det orrela gogoak naastea, astia orrela galtzea ta galdu-eraztea. Irri det ezpañetan. Orain irutsu urte orrelakoxeak entzun bear izan genitun. Bai besterik geiago ere: obe gendukela, alegia, gutxiago karraxi ta geixeago lan. Ta badakizute zer gertatu zan?... Eztabaikariok geren asmoetaz elkar-kutsatuz, ixtillu artatik gaurko "Euskaltzaleak" sortzea, aurreragoko "Euskal-Elazkona zalakoa eraberritu ta zabalagotuz". (Ikus *K-L* 289. or.)

8 "Ura (Maeterlinck) Jaungoikoaren lanaz bai- baita arritzen, ta ederresten baitu; baña ez aitortu nai Egillea. ***Biziaren eta geroaren izkutuak urduri darabil***, besterik erakutsi nai ba'lu ere". LIZARDI, X.; "Txindurriak" in *Yakintza*, II, 1933, 84. or.; *K-L* 405. or.

Berez hutsalak diren errealitate txikiei ohartzean, bizidunen arloko beste hainbat gertakariren ordezkari direlako ohartzen zaizkie, eta zertzalada konkretuetatik emozioa soilik zaio garrantzitsu.

Horrela, sagasti zurian sortu berriak diren "ler-gabe-lore zabal-zorien/ gorrixka" odol tantoak bezalakoa da, haur baten erditzea bezalakoa, baina Lizardirentzat biziaren erditzea da lore horietan gertatu dena. Erditzeetako odolaren kolorea eta loreetako gorrixka dira bizitzaren misterioaren berritze horren perpetuatzearen errepresentazioaren lotura, gertakari xumearen mirespenaz gain, ezezaguna zaion misterioaren handitasun eta edertasunaren adierazbide bilakatzen du.

Sufrimenduaren aurreko jarrera bitalista eta ekintzalea da Lizardigan nagusi helduaroko olerkietan, "min etsia". Beretzat hurbileko bizikizuna zen hil-beharraren aurrean izan zuen ezin-etsia, ezin-onartu latza, ezinbesteko datua dugu haren olerkietan isladatzen den jarrera ulertzerakoan, eta zalantzarik gabe, bizi behar izan zuena eraman ahal izateko Jangoikoagan zuen fedea —kezkatsu eta itauntzailea bazen ere-, euskarri sendoa gertatu bide zitzaion. Bere olerkietan ez dago erretorikarik, ez dago pose puzturik.

Gaztaroko olerkietan nabarmenki antzeman daitekeen kezka eta "yorana", definitu ezin den ihesi joateko nahikari bizia eta bideak bilatzen ibiltzea bera da, ene ustez, helduaroko *Biotz Begietan*en sumatzen den barrengo ahots apala, naturaren bizi-nahi bera partekatuz gainbeeraren galaziezinari buruzko kontzientziaz ohartua dagoen ni hausnartzaile eta asegaitza.

2.- KONPROMEZU POLITIKO ETA KULTURALAREN GARRANTZIA

Lizardiren jarrera politikoaren deskribaketatik eta dokumentuetatik ateratako ondorioek ideia abertzaleekiko konpromezu garbia adierazten dute 1914 edo 1915z geroztik. Konpromezu politikoa hartzea lagun artetik datorkio, eta familiaz dagokion karlismoa alde batera utzirik, Sabino Aranaren ideien zaletasunak erro sakonak bota zituen beragan. Tolosako giroan, ziuraski jadanik lanean eta libre gisa Legegintza ikasketetan diharduelarik, *konbertsio* baten tankera du konpromezu-hartze honek. Errotik aldatu zuen pentsamoldez eta gizon konprometitua bilakatu.

Politikoki bere kabuz harturiko konpromezuak hizkuntzarekin eta euskal kulturaren suertearekin konprometatzera eraman zuen, era berean. Bere famili giroan, bazterturiko edo garrantzirik eman gabeko euskal nortasuna berreskuratzera eta hartan trebatzera eraman zuen, zalantzarik gabe ordurako gaztelaniaz landua zuen idazlumari bide berriak harreraziz.

Bere hitzetan esanik, "apartamiento colegial" horrek gaztaroan isolaturik edo eduki ondoren, ohartemate politiko honek gehienetan egotzi ohi zaion baino gehiago markatu zuela esan daiteke. Gaztaroko olerkiek ohizkoa zen abertzaletasun sutsua eta aldi berean xaloa jasotzen dute: bere etorkizunaren espektatiban aldaketak gertatu arren, gaztaro horretako idazlanek adierazten duenak, maitasunaren, naturaren nahiz aberriaren gaiaren tratamenduak isladatzen duena sentimentalismoa eta ideialismoaren sinpletasuna da.

Aurrerago isladatu zen pertsona mailan eta gizarte mailan ematen ari ziren aldaketek, gaisoaldi eta heriotzek, debeku politikoak eta diktadurak, ideien sakontzea eta sentimenduen umotzea ekarri ziotela. 1925-27 urte horietan argitaratu ziren lehenengoz isilaldi horren emaitzak eta aldaketa giroa isladatzen dute garbiro. Errealitate berri bati egokitzen ari zaio [9].

---

9 1918koak diren *Gastiaren otoitza* eta beste zenbait olerkik zuzenean zerk eragina den ez dakigun etsikortasunaren lekukotza aurkezten dute, arestian esan dugunez. Jarrera edo pose hutsa izateko konstanteegia dirudi, olerki batetik bestera hedatzen da, bere literatur lanen lehen epe guzti honi eragiten dio. Frustazio sentimentala eta etsikortasunak, desengainoak, bi fede segururen irtenbidea bakarrik uzten diote, jadanik aipatua dugun Jaungoikoarena eta aberriarena. (Ikus "Edizio Kritiko baterako" eranskinean, *Aztu, biyotz orrek!*, 1919).

2.1. EUSKALTZALEAK. LIZARDIREN KULTUR PROIEKTU BATEN MAMIKUNTZA

Lizardiren "ezin genezakek politika bidetik ekin, jo dezagun kulturaren aldetik" ospetsuak Euskaltzaleak-en gidaritzatik 1928-1930 epean euskararen eta euskal kulturaren alde eginiko plangintza osoaren azken zioa politikoa ere badela suma arazten digu. Euskal nazionalitatearen nortasunari bide politikoetatik ezin dionean irtenbiderik eman, kulturaleetatik ekiteko irtenbideari heltzen dio.

Nazio-nortasuna modernitatearen erasoaren aurrean galzorian ikusirik, erantzun behar bat sortzen zaio Lizardiri eta bide bikoitza hautatzen du Euskaltzaleak erakundearen zuzendaritzatik: alde batetik, euskal kontzientziak esnatzera bideraturiko kanpainak egitean, eskolak, idazleak eta irakurleak hartzen ditu helburutzat, eta bestetik, erakunde euskaltzaleen ekintzak modu eraginkorrean lanean jartzeko asmoa hartuko du.

Lizardiren ekintza kulturala konpromezu politikoaren ondoriozkoa da. 1927z geroztik sumatzen den aktibismoa "aprovechando un ambiente de serenidad política" bezala deskribatzen duen giroaren babesean hasi zuen, funtsean bi erakunderen bitartez garatuz: Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaleak.

Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaleak erakundeen bidez garatzen dituen aktibitateek hizkuntzaren normalkuntza premiaren kontzientzia larritik abiatzen dira. Gizarte mailan, falta duen prestigioa eta erregistro barietatea sortzera bideraturiko ekintzak bultzatzen ditu: euskal eskolak, egunkariak, itzulpenak...

Funtsean Pizkunde mogimenduaren eragiletzat jotzen duen Pizkunde kulturalaren aktibitateak antolatu eta kudeatzeko asmoz Euskaltzaleak erakundearen bidez proiektu bat borobiltzen saiatu zen 1928-30 urteen artean.

Bere ustez, Pizkunde mogimenduaren lehen lerroa idazleek osatzen dutenez, idazleei falta zaien azpi-egitura literarioa eskaintzera bideraturiko ekintzak suztatu zituen: sariketak, argitaletxe merkeak, kritika literario positiboa, itzulpenak eta hauek egin ahal izateko gramatikak eta hiztegiak, ortografia erabakiak finkatzeko Euskaltzaindiari oharrak... Kirikiño saria irasteko kanpainan sariaren indar suspertzailea eta prestigioa azpimarkatzen ditu: "es hora de que el euskera deje de ser el paria de las columnas".

Irakurlegoaren arazoa ere kezkagarri zitzaion. Egunkaria sortzea idazleok mintzabide eta trebaleku zabala izan dezaten bultzaturiko egitasmoa da, eta aldi berean, euskarazko irakurlego zabala prestatzen joateko helburua ere bazuen.

Euskaltzaleak erakundeak aurrera eraman beharreko egitasmoaren proiektua Lizardik zedarritu duena da. 1930tik aurrerako askatasun politikoak eta 1930eko Zumaiko bileraz geroztik Euskaltzaleak erakundeak hartu duen indarrak Aitzoli aktibitate posibilitate handiagoa eskaintzen zioten, Lizardiri aurreko urteetan baino. *El Día* egunkariaren zuzendaritza eskuan zuelarik antolaturiko kanpainek, urteroko sariketa, Euskal Jai, Olerti Egun eta abarrek eraginkortasun handia eman zioten Aitzoli bere iritzien araberako proiektua bilakatzeraino.

Funtsean, Lizardik hiru urte horietan zehar suztaturiko proiektuak eta Aitzolenak oinarrizko ideia berberen ondorio dira: Literaturgileek, idazleek funtzio berezia dute hizkuntzen berreskurapen kulturalean eta herri nortasunaren iraupenean. Berreskurapen kultural horretarako berriz, hizkuntza jakintza-bide bilakatu beharra dago, nahi-ta nahi-ez, hondatuko ez bada.

Baina euskara jakintza-bide eta mintzo elertitsua bilakatzerakoan hartu beharreko bideez, eta batez ere, bilakaera hori suztatzerakoan, artearen ohizko aurrerabidea errespatzeari buruz dituzten iritzi ezberdintasunetik sortuak dira 1930tik 1933ra arteko eztabaidak.

Lizardik 1930ean Euskaltzaleak erakundearen berriztapena egitean finkaturiko puntuetatik aldendu da Aitzol. Proiektuak banatu egiten dira.

Lizardiren proiektua eta Aitzolena elkarren segidakoak dira baina aurkajarriak. Lizardik euskal kulturaren normaltasunerako eskubidea aldarrikatzen bait du. Euskal literaturaren bilakabidea autonomiadun entitate baten garapentzat du eta uko egiten dio Aitzolek gainezarri nahi dion antolamendu artifizialari eta irizpide estuari.

Bien arteko ezberdintasun nagusia literaturari buruzkoa da. Biek aitortzen diote literaturari zertarako bat, gizarte funtzioa du bien ustez, baina idazlea eta gizartearen arteko harreman edo eragite horretan, Lizardik matizazio egin beharra ikusten du. Literaturaren kalitate maila eta aberastasuna, eta batez ere gizartean eragina izango duen literaturgintza ez du formula jakin batzuen bidez gidatu ditekeenik uste, "a golpe de batuta". Idazle, obra eta itzulpen oinarri bat sortu beharra dago, belaunaldiz belaunaldi, idazleok elkarren bizkarretan oinarriturik igo daitezen goi-mailetara. Hauxe dugu, izan ere, epos nazionalaren gaian Lizardik erakutsi zuen eszeptizismoaren azalpentzat erabili zuen argudioa ere.

2.2. MODERNITATEAREN ARRISKUAREN KONTZIENTZIA LARRIA

Euskal kulturak modernitatearen erasoaren aurrean duen aukera ahulaz oharturik dihardu Lizardik. Nire ustez, horixe da 1927-1933eko proiektua bultzatzean duen motor eragilea: "Bizkortu gaitean. Gure gaizkakundea ala ondamendia, urte gutxien aukera baita, eztago asti galtzerik" [10].

Modernitatearen erasoak dakartzan arriskuei aurre egiterakoan, Lizardik eskura dituen baliapideez ekingo dio: politikoak, kulturalak, linguistikoak, bai eta literarioak ere. Horregatik da Lizardiren aktibitate arloa hain zabala. Eskola testuez arduratua batean, herri bateko jaialdian egin beharreko antzerki errepresentazioaz bestean, eta hurrengoan Estatutuaren kanpainaldia egoki egiten ari ote den kezkatsu ikusiko dugu.

Aktibitate arlo zabal hau, ene ustez, aintzakotzat hartu beharreko herriarekiko konpromezuari dagokion garrantzia emanez bakarrik uler daiteke. Herriaren etorkizunarekiko konpromezu politikoak bere astiaren zati handi bat hartzen dio. Horregatik literaturaren arloan, sarritan aitortua zuen bokazio pertsonalari ematen dion taxueran ere isladatzen da euskal kulturak bizi duen modernitatearen aurreko krisialdia ohartuki bizi zuela, eta era berean ohartuki ekin ziola literatur mintzaira berritzeari, abangoardiazko literatura egiteari.

XX. mendeko iraultza sozial eta artistikoen artean, "ismo" edo abangoardiazko mogimenduen zurrunbiloan Lizardik euskararentzako aukerarik badagoela esaten du. Euskara aintzinako ikusmolde, kontserbadore, erromantiko eta negarti edo apologistekin identifikatzetik ihes egin beharra ikusten du.

Horrezaz gain, mundu modernoaren indar berdintzailearen aurrean, herri nortasunen birrintzaile izan daitekeen mogimenduaren indarraren alderdirik hoberenak profitatu eta euskaldunontzat benetako abangoardia hizkuntza zahar honetan "ensayo de modernidad" egitea izan daitekeela proposatzen du.

3.- MODERNITATEAREN ERRONKARI ERANTZUNA EMANGO DION MINTZO LANDU ELERTITSUA SORTU BEHARRA

Modernitatearen krisialdiari Lizardik ematen dion erantzun formala, ene ustez, olerkigintzaren berrikuntzan hautatu zuen bidean isladaturik dago garbienik: olerkietan mamituriko kanon poetiko berezia krisialdi horri erantzuteko sortua du.

---

10 LIZARDI, X.; "Andoain ondoren negu egitaraua" in *Euzkadi*, 1929-10-4, 1. or.; *K-L* 195. or.

Krisialdi honi irtenbide bat bilatzeari ekiten dio eta haren ideia poetikoetan zehatz-mehatz isladaturik dago zein bide duen hautetsia krisialdi horri erantzuna emateko: gizarte berriari, mundu berriaren beharkizunei egokituko zaion poetika egin behar da, aldi berean errotik euskalduna izango dena.

3.1. POEMAGINTZA KULTOA

Literatura kultoaren bidea hautatu du berak, euskal kulturak bizirik iraun ahal izateko nahitaezko duela oharturik, eta herri-literatura berak baino hobekiago egin lezaketenak badirela aitortuz. Orixe aipatu zuen zehazki zeregin horretarako.

Lehen eta bigarren atalean hizkuntzaren egoera soziolinguistikoaren eta euskararen gaitasun espresiboa frogatu beharraren koordenatan harturik, literatura kulto horrek egin dugun azterketan azaldu dugunez, gauzatze konkreto nahastezinak ditu. Lehenik, maila metriko-fonikoan, neurkera-modu finko eta segurua bilatzen du eta horregatik Sabino Aranaren arau metrikoen erabilera ahalik zehatzen eta zorrotzenari ekiten dio.

Irakurlegoak erreferentzia ziur bat behar bait du irakurtzerakoan egin beharreko loturez, salbuespenez, etabar. Ikusi dugu olerkien bertsio ezberdinen artean arauen erabileran gero eta perfekzio maila handiagoa nabaritzen dela, salbuespenen erabilera erabat murriztuz, eta bokale loturak direla eta esaldi ordena aldaketetara ere joaz.

Era berean, bere ustez euskal poesia idatzirako egin gabe dagoela deritzoten erritmoa sortu beharra dago, bertsolarien kantuzkoa ez bezalakoa izango dena, eta aldi berean, azentuetan oinarrituriko gaztelaniaren erritmoaren menpekotasunetik askatuko duena. Errezitatuz ere bai, baina bereziki testu idatziaren bidez adieraziko den olerkigintza sortu nahi du: horregatik ematen die horrenbesteko garrantzia osagarri erritmikoen moldaketei. Errima zaindua bai, baina ez ugaria, zangalatrau adierazkorra, aliterazio, paralelismo, anafora eta lelo, korrelazioen eta antzerako baliapide erritmiko ezberdinez lorturiko ereskitasuna, belarriaren atsegintasuna bilatzen du, adimenerari helerazi nahi zaion mezua eragotzi gabe.

Doinuaren eztitasuna da helburua: maila foniko hutsezko baliapideez ez ezik, ideien eta irudien azalpen estrategikoaz, ahapaldi eraketa eta multzokatze era konnotatiboaz ere bilatzen du eztitasun hori.

Erritmoaren eten eta geldiune direnen adierazbidetzat darabiltzan zeinu ortografikoen zehaztasuna ere aipagarria da: komak, puntuak, puntu suspentsiboak... Olerkigintza kultoa, idatzia egin nahi duela adierazten dute. Esate baterako, erritmo hausle diren parentesiei eta intzisoak sarrerazteko balio dioten marrei berebiziko garrantzia ematen die eta olerkien bertsio batetik bestera arlo honi dagozkion ñabardurak eransten ditu. Bertsifikatze-modu hauxe izan zen kritikoen ustez Lizardiren berrikuntzaren alderdirik originaleetako bat: "la factura irrepochable de nuevos moldes de versificación, inventados por el autor" [11].

Maila morfo-sintaktikoan poetika kultoaren adierazle nabariak dira kultismoak edo "higatu gabeko hitzak", hitz eratorri eta elkartu berriak, arkaismoak, hiperbatona, intziso ugariak, erreferente aldaketak... Hizkuntz elaborazioan euskal olerkigintzan batere arrunta ez den mugetaraino jo zuen; bere garaiko eta batez ere gerraosteko literaturaren panoraman txundigarria egiten den askatasunaz jokatu zuela suma daiteke, euskararen adieraz gaitasunaren frogantzan, euskaraz pertinenteak izan ez diren adierak eta ñabardurak adierazteko lehian inguruko hizkuntza kultoekiko parekotasuna bilatu zuelarik.

11 JAUREGI, L., "JAUTARKOL"; "Un gran poeta vasco" in *Euzkadi*, 1932-6-8, 1. or.

3.2. ERROTIK EUSKALDUNA DEN OLERKIGINTZA

Baina poesia kultoa, konpetentzian dituen hizkuntzen parean egoteko moduko olerkigintza landua egiteaz batera, Lizardik euskal arimaren islada izango den olerkigintza egin nahi du aldi berean. Eta horrek ere modu berezian markatuko du Lizardik sorturiko kanon estetikoa.

Humboldt-en teoriari jarraikiz, Lizardiren ustez, euskal hizkuntzak moldatu du euskal arima eta, beraz, haren adierazbiderik ziurrena da. Horregatik, Pizkunde une horretan euskarari dagokion olerkigintza sortu nahirik dabilelarik, berariz bilatzen du euskal hizkuntzaren molderik adierazkorrenak eta jatorrenak sarreraztea.

Jakina dago, gudaurreko belaunaldiak euskararen purismoaren eragin handia izan zuela, hiztegiaren garbizaletasuna eta sintaxiaren jatortasuna ziren garaiko idazleen ardura linguistiko nagusiak. Horretaz gain, Lizardik hizkuntza euskal psikologia, nortasuna, mundu-ikuskeraren moldatzailetzat jotzen zuenez, garrantzi berezia eman zion okerrez ardura formal hutsa dela uste izan daitekeen honi: funtsezko puntua da hizkuntzaren moldaerak euskal mundu-ikuskera adieraztea, "gurea gaiturik, besteren gogo-menbetik" aska gaitzakeen tresna baita, Lizardiren ustetan.

4. KANON ESTETIKO SUBJETIBOA DA BERRIKUNTZAREN ABIAPUNTUA

Presupuesto teoriko hauetan oinarrituz, Lizardik "kanon estetiko" berri bat sortzeari, eraikitzeari ekin zion. Kanon horren funtsezko bi zutabeak literatura kultoa egitea eta euskal arima adieraziko duen mintzairari emana idaztea dira, baina bi norabide orokor hauen inguruan Lizardik "eusko gogoari" ustez zegozkion ezaugarriak bateratuz, bere gisako mintzaira poetikoa sortzeari ekin zion.

Modernotasunaren arazoak, maila kultoko poesia egin nahiak eta euskarak hizkuntza gisa eskaintzen dion mundu-ikuskera trinkozaleak estetika kontzeptista hobestera daramate: "lirika ezertan bada gailen hizkuntzatik indar adierazkorrik oparoena ateratzearen aldetik da" aldarrikatu zuen euskara modernoak behar zuen kanon estetikotzat. Ez zuen gustatzen zitzaion joera pertsonaltzat bakarrik hartzen, besteei ere baliogarri gerta zekiekeen eredutzat baizik, bere ustez euskal nortasunari hobekien zegokiona bait zen.

4.1. KONTZEPTISMO LITERARIOAREN HAUTAPENA

Lizardiren beraren eta Labaienen aipamenek ziurtatzen digute Gongoraganako zuen zaletasuna. Ez da harritzekoa 1927ko belaunaldikoen garaikide izanik. Baina Lizardik Gongorari ezer ikasi bazion metafora kateatze, alegoria eta alusio garden eta dizdiranteak, sinestesiazko sentsazio nahasketak eta sentsazio horien nagusitasun guztizkoa, koloreen dizdira eta argitasuna dira. Ez du haren esaldien, figura erretorikoen korapilotze amaigabea gustoko. Ideia ahalik eta zuzenenik ematea du helburutzat.

Natura ez da Lizardirentzat Gongorarentzat bezala eskenatoki ideal, guztiz eder hori, gizon-emakume ezin ederragoek poblatzen dutena, atsedena hartu eta ihesbidea eskaintzen dion leku patxaratsua. Lizardik bizitzaren eta geroaren kezka existentzialistari, Maeterlinkek "enigma" deituriko bizitzaren "izkutuko"ari, naturan bilatzen dio zentzua. Naturari begiratzeko modua ezberdina da.

27koen Gongorazaletasuna zertan den aipatzean, Dámaso Alonsok esaten du literaturaren historiak bazterturiko genio guztiz berezi hura errekuperatzean bakarrik zetzala. Ezer gutxi hartu ziotela berez; haren izena aldarrikatzean, estetikotasunaren lehentasuna eta metaforaren nagusitasunaren aldarrikapena egiten ari zirela esaten du.

Lizardik Gongora literaturaren historiarako zertan erreibindikaturik ez zuela bistan da. Baina olerkariak estetikoi izateko eskubidearen aldarrikapena egin beharra bazegoen euskal literaturaren

esparruan eta, ene ustez, zentzu horretan ulertu behar da batez ere Lizardiren Gongorazaletasuna, bai eta literatur mintzaira "jasotzeko" eta dignifikatzeko hautaturiko bide kultoan ere.

Lizardik errealitatean eta errealitate horren atzean dagoen zentzuaren bilaketaz diharduen olerkigintza egiteko, kanon estetiko subjetibo batez, irizpide bereziki pertsonalez sortu zuen mintzo elertitsu berria.

Hautatu zuen mintzabide poetiko hori ez dago, ordea, mintzabide liriko gisa bizitzaren gainerako adierazbideetan azalatzen dituen jarreretatik banandurik.

Teoria poetikoak eta azterketan zehar ikusi dugun praktikak azaleratzen duenez, Lizardi ideia eta praktika literarioen barne-egokitasunaren esparruan mugitzen da: arlo pertsonalean, politikoan, kulturalean dituen kezkekin batera doaz literatura arloan dituen asmoak eta hartzen dituen moldeak. Ikuspuntu bat beraren adierazgarri dira ene ustez. Dituen ideia estetikoen moldaketan eragin handia izan dute gainerako aktibitate horietan harturiko jarrerek.

Horregatik, politiko eta kulturalki euskal nortasun bat baldin badago, politikoki "hecho diferencial vasco" delakoa baldin badago, hizkuntzari dagokionez ere euskara euskal arimaren adierazbide da, eta euskal arimaren psikologia edo mundu-ikuskera mintzabide denaren molde beretan zigilatua geratu da. Horregatik, euskal mintzaira poetikoa sortzea bilatzean olerkariak ohartuki bilatu behar du mundu-ikuskera horren adierazbide diren moldeak nabarmeneraztea "esa veta de oro que todos hemos buscado" [12].

Beraz, Lizardirekin hizkuntza sinbolu izatetik, ikurra izatetik tresna bilakatzen da, baina ez beste edozein tresna edo "oskai"ren gisan, izan ere euskal nortasuna euskal mintzairaz bakarrik adieraz bait diteke: "erle gogatiaren eztia nor-bere abaraskan ainbe ezti eztitekela inorenaren txuloetan ixurizkero" [13].

4.2. "AINTZINAKO HIZKUNTZARI DARION TRINKOTASUN NOBLEA"

Arimaren adierazbide den mintzo elertitsua sortzean Lizardik iturri ezberdinetara jo zuen: alde batetik, ahozko edo hizkuntza mintzatuaren esapideetara, elkarrizketan soilik erabiltzen diren esamolde bizi eta bereziki adierazkorrak inkorporatzen ditu olerkietara. Aldi berean, ahozkoan, nahiz idatzian idazle zaharretan aurkitzen den hizketa molde "esaeratsu" zorrotz eta laburra bereganatzen du, atsotitzak, errefrauak eta erran-zaharrak bait dira herri-jakintzaren edo ikusmoldearen adierazbiderik aitortuena.

Hizkuntzaren laburtzaletasuna "esta noble concisión que transciende a la lengua primitiva" [14], hizkuntza zaharrari darion edo nabarmentzen zaion laburtzaletasun horixe da, hain zuzen ere euskara literatura modernoaren lehen lerro "distinguido y honroso"etan toki bat hartzeko aukera eskain liezaiokeena. Horixe da Lizardiren ideia poetikoetan antzinako euskararen trinkozaletasuna eta arte modernoaren eskakizunak elkartzen dituena [15].

Gaztaroko lehen olerkietatik trantsizio eperakoetan aldaketa nabaria sumatzen da trinkozaletasunaren irizpide honi dagokionez. Lizardik bere olerkigintzari, apurka-apurka gaineratuz joan zaion irizpidea da hau: bere ustez, idazle zaharren eta hiztunik jatorrenen joera dena hobetsi du.

Bere-berezkoa zuen joera "Tormesko itsu-mutilla" artikuluan Orixeren itzulpenaz ziharduelarik hitzez-hitz aitortu zuen, ordea:

---

12 LIZARDI, X.; "Rumbos Nuevos" (I) in *Euzkadi*, 1931-12-17, 1. or.; *K-L* 352. or.

13 LIZARDI, X.; "Eusko Ikaskuntzaren bostgarren batzarra", Euskaltzaleak, 1930-9-9; *Itz-Lauz*, 115-119. or.; *K-L* 198. or.

14 LIZARDI, X.; "Tormesko itsu-mutilla" in *Euzkadi*, 1929-7-26; *K-L* 236. or.

15 *Ibidem.*; *K-L* 236. or.

"Y he aquí que a fin de cuentas, después de encendidas alabanzas de la concisión y sobriedad del lenguaje, vengo a dar en no haber dicho aún la mitad de lo que tenía pensado, todo ello gracias a *esta mi profusa proligidad*, de que soy el primero en renegar, siguiéndome en orden cronológico —seguro estoy de ello— el propio Orixe" [16].

Teoriaren mailan hobetsi zuen trinkozaletasunaren irizpide literarioari lotu zitzaion, bada, eta iturri gisa, idazle zaharren lanak izan ziren Lizardiren sustrai bilaketaren harrobietako bat. Mende hasierako euskarak galduriko egitura molde adierazkorretarako bidea eskaintzen diote. Euskararen benetako izpiritua berreskuratzeko bidea.

4.3. GIZARTEAREKIKO KONPROMEZU ETIKOA DUEN OLERKARI ESTETIKOIA

Idazle zaharretara jo, ahozko mintzairaren ekarria olerkigintzan sarrerazi, olerkigintza kultoaren ezaugarriak landu eta perfekzionatu dituen olerkaria ohartuki ari da taxuera berri bat asmatzen: euskal poesia kontzeptista eta kultoa da euskal poesiarako moldatu duen mintzaira bereziaren kanona.

Lizardik badaki zerbait berria eta oinarri teorikoari dagokionez aitzinkaririk gabea dela osatzen diharduen kanon estetikoa, baina euskal literaturan ere poesiarako mintzo elertitsu autonomo eta subjetiboa, bere irizpideen arabera moldatzeko eskubidea aldarrikatzen du.

Iluna eta zaila izatea aldez aurretik kalkulaturik duen eragozpena da. Ederraren, estetikoi izatearen aldarrikapen "zoroa" da berea, jarraigo handirik izango ez duena, baina Lizardiren ustez, legamiak bezala altxagarri gisa ondoren etorriko direnentzat hartan oinarritu eta abiapuntu gisa balioko duena, dituen okerrak eta gehiegikeriak zuzenduz.

Beraz, Lizardik modernotasunak euskal kulturarentzat eta hizkuntzarentzat errepresentatzen duen erronkari ausardiaz erantzun behar zaiola deritzo, modernitatearen beharrei erantzungo dien eta, aldi berean, euskal gogoari dagokion ederkera edo estetika moldatzen saiatuz.

Baina "hizkuntzaren ariman barrena doan korronte ugaria aurkitu eta hartan murgilduz, hari emanik" diharduen olerkariak gizartearekiko erantzunkizun handia du: alde batetik herri gaizkakunde prozesuetan abangoardiazko sailetan egon behar du, "gogo-gudari" sailetan lehen postuetan egotea dagokio, eta "pentsamendu eder baten mezua" helerazi behar die bere herrikidei: haien gogoa berotu, ernarazi eta hausnarketa eragin.

Euskaldungoari zuzenduriko helburu honekin batean, kanpoko aldera begira dagoen funtzioa ere badu olerkariak: hizkuntza prestigiatzearena. Euskararen gaitasunaren frogantza eman behar die euskaldun ikasiei nahiz intelektual erdaldunei.

Lizardik olerkigintzaren zeregin estetikoaz gain, zio etikoa ere azpimarratzen du: horregatik seinalatzen du bere olerkietan errealitateari buruz diharduela, erretorika alferra baztertu, eta errealitatearen, bizi izandakoaren, ezagutzen denaren indar berezia aldarrikatzen du.

Errealitatean izan den edo denaren egiatasunak indar berezia du irakurlearengan: hausnartu egin arazten dio eta hausnarketak eraginez, transzendentala izatea lortzen du. Horregatik jotzen du beti Lizardik ongi ezagutzen dituen sentimentuak eta gaiak hautatzera.

Erretorikaren indarrak gezurrezko errealitateak eta sentimenduak adieraztera eramango lukeelakoan, bere "ego" errealetik oso hurbil dauden sentimenduak, nahiak eta ideiak bakarrik adierazten ditu, eta haien adierazbidetzat beti imagina ezagunak erabiltzen.

Honetan guztiz urruntzen da estetika gongorazaletik eta 27koen artean hedatua zegoen artearen deshumanizazioaren printzipiotik. Lizardik, "estetikoi" izan arren, ez du edertasunaren izenean irakurlearekiko duen betebehar etikoa baztertzen.

---

16 *Ibidem*; *K-L* 237. or.

Lizardik "perfekzioa iristeko erabateko afana" duela aitortzen du, ordea, eta honetan olerkigintza modernoak ezaugarri orokortzat duen nahikaria adierazten du.

Erromantikoen artean, sentimenduen exaltazioa inspirazioaren indarrak emantzat justifikaturik badago, modernoentzat, Lizardiren garaikide diren 27ko belaunaldikoentzat estetikozaletasunaren aldarrikapenak, formaren aldetiko guztizko perfekzioaren bilaketak ordezkatzen du "jainkoengandiko inspirazio"aren kontzepzioa.

Horregatik, edizio kritikoan zehatz-mehatz jarraitu daitekeenez, maila metrikoan nahiz morfosintaktikoan bilakabidea eragin zion perfekzio nahi honek.

4.4. EUSKAL ESTETIKARI DAGOKION KANONA SORTZEAREN BIDETIK

Aipaturiko herriarekiko betebeharraren esparruan, eta aipatuak ditugun presupuestu teorikoetatik Lizardik sumatua duen euskal estetikaren araberako poetika egiten du. Irakurketek, azterketek, obserbazioek euskal nortasunari dagokion estetikaren perfila hartzen du zutabetzat eta haren araberako poetika sortzen du, sarritan berezkoak dituela aitortzen dituen joeren aurka eginik.

Trinkozaletasunaren hautapena egitean, berezko zuen prolijotasuna apurka-apurka menderatzen ikasi zuen bezala, sentimentuaren adierazpenari dagokionez ere antzerako prozesua jarraitu zuela esan genezake.

Berezko zuela aitortu zuen joera sentimentalari hesiak jartzea ere teorikoki "el sentimiento de corte vasco" hitzez zedarritu zuen irizpidearen menera hezi zuela pentsa daiteke: alegia, bere garaian hain euskalduntzat jotzen zen lakonismoa, hitz gutxiko izatearen irizpideari egokitu nahirik bere kanon estetikoa.

Esanarekiko adostasunez, lehen epeko olerkietan gailentzen den maitasun sentimenduen ingenuitatea eta ideien sinpletasuna izkutatu egiten da helduaroan. Gertakizun biografikoen ondoriozko sentimenduen sakontzearekin batera, 1925-27ko epean agertzen diren desengainoaren olerkiak ideia poetikoen trantsizioaren lekuko dira eta sentimendu adierazpenari dagokionez, efektu sarkorragoa lortzen dute.

Osagarri erretorikoez erantzi eta benetakotasuna, taxuera "sintzeroagoa" ematearren, *Aldakeri* olerkian antzeman daiteken bilakaerak batez ere sentimenduen adierazteko molde honi eragiten dio. Sentimendua idaroki egiten du zuzenean aipatu baino gehiago. Zuzeneko elkarrizketak, irudien bitartezko zeharkako aipamenak, intzisoak... dira azken bertsioan lehenengoetako aipamen eta sentimendu deskripzioak ordezkatzen dituztenak.

Beraz, trinkozaletasuna nahiz sentimendu eutsi, neurtu eta adierazmodu lakonikoaren hautapena Lizardik osatu nahi zuen eredu edo kanon estetiko moderno eta euskaldunaren moldaketaren adierazbide formalak dira, eta teoriko nahiz praktikoki konprobatu ahal izan dugunez, Lizardik berak elaboraturiko poetikaren ardatz nagusiak.

5. "BIOTZ-BEGIETAN" ETA LIZARDIREN LIRIKA OSOAREN PERSPEKTIBA

5.1. *BIOTZ-BEGIETAN* MODERNITATEAREN "PRIMITIAE"

Biotz-Begietan liburuari Lizardik berak ipiniriko biltorriak azpimarragarria den definizio bat eskaintzen digu bere poetikaren zentzuaz: kubismoaren eta komunismaoren aroan, hots, gizarte eta arte mogimenduetan den-dena iraultzeko kinkan dagoen unean, modernitate-saio bat egin du berak euskara bezalako hizkuntza zahar batean.

Mundu modernoaren kultur eskakizunei erantzuteko euskaraz sortu beharreko mintzo elertitsua egituratzeko ahalegina da bere obra: "un ensayo de modernidad" eta nolabaiteko sentsazionalismoz aurkezten duen berrikuntza saio honek badu hasikin edo "primitiae" literario baten ausardia eta aldarrikapena ere.

Ene ustez, aurkezten ari zen lanaren berritasunaz oharteraztera bideraturiko biltorri honetako hitzekin euskaldunen aurrean, Errenazimendu europearrean euskara lehen aldiz inprimatua jarri zuen Bernat Etxepareren "primitiae"rekiko oihartzuna ere bilatu zuen.

Pizkunde aroaren ingurumariaren argitan ikusirik, Lizardiren poetikak euskal arima adieraziko duen eta aldi berean modernoa izango den kanon estetikoaren sorkuntza mamitu nahi duen obra euskal literatura modernoaren hasikin gisa aurkeztu zuen.

Tesi-lan honen hirugarren atalean azaldu ditugun Lizardiren Etxeparekiko zaletasunaren lekukotzez gain, Lizardik bilatu zuen erreferentzia literario honen hipotesia indartzera dator *Biotz-Begietan* liburuaren egituraketan azkenaldera eragin zuen aldaketak.

Orixek 1932ko liburuaren hitzaurrean zioen moduan, *Izotz ondoko Iguzki* eta *Gure mintzo* poemak azken orduan eginak zituen, libururako bereziki sortu bide zituen, eta Orixeren ustez "landuak bai, baina bear bezain legunduak" ez ziren arren, sarrerazi egin zituzten. Zer dela eta? Orixek Lizardiren borondatearen errespetuz onartu zituelarik, Lizardik zein helburu zuen bi olerki horiek erantsiz?

Ene ustez, *Biotz-Begietan* liburuaren azkenean dauden euskarari buruzko lau poemak Etxepareren "Contrapas" eta "Sautrela"ren paraleloak dira nolabait. Lizardik bere poema liburuaren egitura eta zentzua Bernat Etxeparerenarekiko harremanean ezarri nahi izan zuen.

Bi egileek bere obra "primitiae" izatearen asmo garbiaz aurkeztu zituztela onartu arren, bi liburuen arteko paralelismoak kasualak izan daitezke hein handi batean, baina aipagarriak, nolanahi ere: hasierako poemak gai erlijiosoa izatea, erdigunean olerkariaren kezka eta lirika pertsonalaren araberakoak izatea, eta azkenean euskararen unibertsaltzeaz eta euskarari bere "thornuya" eman dionari esker ona eraskusten duen poemaz amaitzea ohargarria da.

Etxeparek euskarak Garaziko herria lauda dezala eskatzen duen modu berean, Lizardik "aberriz eta mintzoz gu yantziaren izena "onetsi" nahi du *Gure Mintzo*n.

Etxeparek euskara inprimaturik ikusirik, garaiko munduan onartua izatea eta prestigiatzea bilatzen du, eta euskaldunez beren mintzaira dela eta trufatzen direnei "engainatu zirela phorogatzea".

Lizardik euskal literaturaren modernizatzeko saio bat eginez, euskarak XX. mende hasierako kulturarekiko duen atzerapena salbatu nahi du, euskara munduko hizkuntzari zaharrenetako bat delarik ere, berak "ensayo de modernidad" egin du eta bere hasikin honezaz euskarak modernitatean iraun ahal izateko gaitasunik, adiezgaitasunik ez duela dioten Unamuno bezalakoei "enganatu zirela" frogatu nahi die.

Euzkadi egunkarian 1931-11-24an Sabino Arana-Goiriren heriotzaren bezperan argitaratu ziren idazkien artean Lizardik *Eusko Bidaztiarena* argitaratu zuen, Bernard Detxepareren aipamen batez horniturik:

> "Heuskara, ialgi adi kanpora!
> Heuskara, habil mundu guzira!
> (Etxepare'k, orain lareuntsu urte)" [17]

17 *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 175. or.

Eta mundu osoan barrena euskararekin batera eginiko bidaia horrek euskararen adierazgaitasuna adierazi behar dio "Unamuno'tar Mikel, yaun argiari, gure ausardi gorriaz yabetu dedin" [18]. Alegia, Etxepareren "Contrapas"ean euskara ezin idatzi zitekela uste zuten "berce jendec" bezala.

Eusko Bidaztiarena poemak argitaratu zenean, 1931-11-24ean argitaratu zela ohartuz gero, Lizardik gutunez B. Estornés Lasari, 1931-10-29an egin zion Etxepareri buruzko bibliografia eskaerarekin zerikusia izan zuela garbiro ohar daiteke.

Bere gaitasuna frogaturik "hi engoitic ebiliren / mundu gucietaric" esaten dio Etxeparek euskarari, eta Lizardik bere garaiko mundua ezagutzera eramaten du euskara: hor erakusten dizkio, esate baterako, bere garaian mundu osoko itsasoetan barrena ibiltzen zen Gerbault nabigatzaile bakartia, basamortuak eta euskaldunen Izotz-erria (Terranova), hiri handiak..., azkenik, mundura ialgi den euskarari mintzatzen zaio "agi gai adierazteko gizaki guzien alderdi ta asmo" (EB 73-74, 181).

Eusko Bidaztiarena olerkian Etxepareren "Contrapas"aren aipamena guztiz esplizitoa delarik, *Gure Mintzo* olerkiak "Sautrela"rena egiten du, *Biotz-Begietan* liburuaren egituraketan "Linguae Vasconum Primitiae"ren oihartzunak erakarriz.

Euskarari "bere thornuya" eman dion "Garacico erria/ benedica dadila" (Contrapas 3-4) eta "O heuscara lauda ezac Garacico herria" (Sautrela 2) esaten du Etxeparek. Lizardik aldiz, *Gure Mintzo*n

> "Il-zaarki, bizi dugun gizona!
> Egunoro berpiz lurpean dagona!
> *Bezat onets aren izena,*
> *aberriz ta mintzoz gu jantziarena*"
> (GM 9-12, 207)

"Bezat onets" esatean Lizardik "benedika edo lauda dezadan" dio, "onetsi" aditzak garbizaleen artean mende hasieran ordezkatu bait zituen beste aditz horien adierak [19].

Lizardiren asmoak *Izotz-ondoko Iguzki* eta *Gure Mintzo* poemetan euskararen etorkizunari ez ezik, euskal izate osoaren etorkizunari buruzkoak dira, beraz, Etxepareren obraren zentzua bereganatu, eta XX. mende hasierako egoera politiko-kulturalari egokiturik, proiektu abertzale baten baitan ulertzen du.

*Izotz-ondoko Iguzki*k irudi eta metafora ezberdinen bitartez Pizkundearen gaia darabil, amaieran nazio askatasunaren aipamen guztiz argia eginez. *Gure Mintzo*k aldiz, euskarak bere baitan gordea duen euskal nortasunaren bitartezko askatasun izpiritualaren aspirazioa ematen du aditzera. Izan ere, Lizardik euskarari mundura ateratzeko eskatuz batera, euskaldun gisa dugun nortasuna adieraziz inguruko herrien menpetasun intelektualetik aska gaitzala eskatzen bait dio, bere adierazgaitasuna frogatuz.

Guzti honen ondorioz, Lizardik *Biotz-Begietan* liburuaren egituraketaren bidez euskararentzat Errenazimendu edo Pizkunde berri baten aldarrikapena egiten ari zen euskal literaturaren modernitate saio hau aurkeztuz eta erreferentzia honen bidez Etxeparek bezala "primitiae" berri baten gisa eginez.

---

18 *Ibidem.*

19 Ikus Bera-Mendizabalen hiztegian, "bendecir" esateko "goraldu"ren ostean agertzen du (83. or.) eta "onetsi" hitzaren berri ematen "ur onetsiya" esamoldea hitzez-hitz aipatzen du (480. or.) Lizardik, *Maite Berriak* olerkian duen adiera bera:

> "Ur onetsia Gazte'k eskeiñi: Maitea'k
> beatz zurigorriak dardarez beteak..."
> (MB 35-36, 281 or.)

5.2. LIZARDIREN POETIKAREN ZENTZUA PIZKUNDEAREN INGURUMARIAN

Lizardik modernitate saio hori burutzeko ezaguna duen mundu erreferentzialaz baliatuz egiten du, erretorika erromantikoari lepoa bihurritu eta sentimenduen adierazpena heziz. Bere poetikaren funtsezko ardatza aldarrikatuz liburuari ipini zion tituluak dioenez bihotzak sentitua eta begiek ikusia, "la sobreabundancia de luz y de calor" hitzez definitu zuena [20] elaborazio eta depurazioaren galbahetik iragazten du, poesia modernoaren eskakizunen araberako "afán de integral perfeccionamiento" [21] delakoa lortu arte: inspirazioa ez zaio aski, teknika ere behar da, olerkia ahalik eta ederrenik, "bitxituenik" eta "belarriari atseginenik" bilakatu arte landu behar da.

Beraz, Lizardiren mintzaira poetikoa berarizko ahalegin egituratzailearen ondorio da: bere ustez olerkari gisa zituen akatsak zuzendu egiten zituen "profusa prolijidad" delakoa saretuz, bihotzondoaren adierazpideak bideratuz, eraiki nahi zuen kanon estetikoak izan beharreko ezaugarrien bila ziharduen.

Urteetan zehar, baina bereziki 1926-29ra doan epean elaborazio modu berria antzeman daiteke maila metriko-fonikoan, nahiz morfo-sintaxian eta edizio kritikoan hurbilketa saioak egin ditugun maila semantikoan ere bai.

1927z geroztik argitaratzen hasi zen artikuluetan tarteka adierazten dituen iritzietan isladatzen diren ideia poetikoak joera berriaren adierazbide dira.

Lizardi kanon bat sortzen ari da azalduak ditugun irizpide estetikoetan oinarrituz, eta urte horietan duen ikuspuntuaren arabera, oinarririk ez tradiziorik ez duten iruditu estetikoen gainean eraikiz.

Biotz-Begietan Lizardiren poetikaren isladapen osoa dela ere esan izan da. Ene ustez, eta poemario osoaren aldean liburuko olerkiek duten kalitatearen gaia alde batera uzten bada, liburuan biltzen diren olerkiek adierazten dutena azken urteetako ideia poetiko eta mundu-ikuskeraren alde nagusi bat da, batez ere, euskal pizkundearen ingurumari horretan, zituen helburuak betetzeko momentu horretan Lizardik aditzera eman nahi izan zuen mezuaren isladapena da, alegia, kanon estetiko modernoa eta aldi berean errotik euskalduna izan zena aurkeztea eta euskararen gaitasunaren frogantza ematea lortzeko egokiena iruditu zitzaion egitura poetikoa da.

Horrezaz gain, bestelako mugakizun zenbait ere izan ote zituen pentsatu beharra dago, hein batean Orixek hautaketa egitean zerikusia izan bide zuela aintzakotzat hartuz gero, gaztaroko olerki sentimentaletatik bakar bat ere ez duela hautatu ohartu behar litzateke. Manuel Lekuonak Lizardik bere ezkontza-gaua gaitzat harturik eginiko olerki "galdua"ren argitalpena zela eta, Orixek Aitzolekin izaniko haserrealdia ere datu jakingarria zaigu maitasunaren gaiak *Biotz Begietan*go olerkietan duen presentziaz hitzegiteakoan. Baina, zalantzarik gabe, Lizardik aurkeztu nahi zuen kanon estetikoak, eredugarria izatea nahi zuenez, sendoa, "osasungarria" eta neurtua izan behar zuen.

Norabide bila, igesi joan nahian eta "yoranez" dabilen bigarren epeko olerkietatik bat bakarra sartu zen 1932ko liburuan: *Mendi-gaiña*, baina liburuaren hasieran ezarri zion hitzaurrean zera erantsi zuen Orixek olerki honi buruz: "Aski polita. Olerkari on batek bere dunik uka ez lezaken adiñakoa; baiña liburu onek olerki aulik ba lu, nere ustez aulena" [22]. Beraz, Lizardik olerki horretan ageri dituen joerak ahulak direlako jotzen du Orixek eskasagotzat *Mendi gaiña*, ez bestelako akatsik duelako.

Orixek adieraziriko irizpide honen garrantziaz ohartuz gero, pentsa daiteke *Biotz-Begietan* liburuaren gerraosteko irakurleek harturiko inpresioa, hots, Mitxelenak Lizardiren mundu-ikuskera etxe seguru eta artesirik gabekoaren paradigmatzat hartzea 1932ko Pizkundearen ingurumarian

---

20 LIZARDI, X.; "Sabino poeta" in *Euzkadi*, 1931-11-25, 1. or.; *K-L* 346. or.

21 LIZARDI, X.; "Rumbos nuevos" (II) in *Euzkadi*, 1931-12-30, 1-3. or.; *K-L* 360. or.

22 *Olerkiak*, Erein, 1983, 326. or.

liburuaren bidez proiektatu nahi izan zen eredu neurtu eta "osasungarri"ari gehiago dagokiola, Lizardiren beraren mundu-ikuskera errealari baino.

Lizardiren liburua besteren hautapenak mugatua izan zitekela pentsatzea harrigarri gertatzen da, gaurregungo ikuspuntutik. Zergatik utzi besteren esku norberaren lan poetikoaren hautaketa, argitarapena, itzulpena, eta, zenbaitetan baita zenbait zatiren inausketa? Erantzuna inguruari buruzko erreferentzia eginez bakarrik uler daiteke.

Zaitegik olerkariek Orixe bide-erakusle eta gidari zutela esaten du, eta Orixek berak ere Lizardiren olerkien artean berak egin zuela hautapena aitortzen duen artikulu berean, beste zenbaitena ere egin zuela eransten du, Jakakortajarena tarteko zelarik.

Bestalde, berriz, arrazoi zirkunstantzialak ere aintzakotzat hartu behar dira. Estatutuaren aldeko kanpaina hastear zegoela argitaratu behar izan zuen, euskaldungoaren arreta giro politikoaren gorabeheretan korapilotua zebilen unean. Garaiko Lizardiren gutunek kanpainaldi politikoarekin konpetitu beharraren beldurra adierazten dute, eta hain zuzen ere, Lizardik ez bait du bere liburua besterik gabe, ez zerurako eta ez lurrerako, oharkabean erortzerik nahi.

Liburuaren biltorrian ezarririko hitzak "arroak" dira Lizardiren beraren iritziz, arreta erakarri nahiz hautatuak dira; era berean, Orixek egunkarian argitaratu nahi zituen artikuluek eta Lauaxetak gutunez iragartzen dion iruzkina liburua ezagutzera ematea dute helburutzat. Giroa sortzea.

Ez da jokamolde berria, Lizardik 1927ko kanpainaldiaren hasieran artikulu jorraketa intentsiboa eginez irakurlegoarengan "bomba" baten efektua izatea nahi duela esaten du; giroa berotzea, eragina sortzea da Etxegarairekin izandako eztabaidan idatziriko artikuluak nahiz "Glosas Triviales" saileko artikuluetan berariz bilatu duen polemikak eman beharreko frutua.

Liburua argitaratzea egokitu zaion une honetan, aldiz, gauzak gogoz bestera dihoazkio, ez dago pozik Verdesek prestaturiko lehen inprimaldiaren itxurarekin eta bigarrena eginarazten dio, Orixeren artikuluen erdiak *El Día*ko "tcheca"k zentsuratu ditu [23]... eta gainera, berak bidaia luze bat egin beharra dauka liburuaren azken ukituak egiteko aukerarik izan gabe. Horregatik, Orixek prestatu zizkion itzulpenei egin zizkien zuzenketak, azpioharren bitartez sarrerazi ziren lehen argitaralpenean. Itzulpenak berak aldatzeko astirik ez, nonbait.

Gerraostean Lizardiren liburuak izaniko harrerak alde batera utzi ditu garaiko gorabehera guzti hauek. Jakina dago txikikeriak direla horietako asko, eta munta gutxikoak direla obraren balio intrinsekoari soilik ohartzez gero. Beste zenbait zehaztasun, aldiz, garrantzitsuak dira eta errotik alda lezakete, ene ustez, Lizardiren olerkigintzaz kritikak duen ikusmoldea. Batez ere modernotasunari eta garaiko literaturarekiko harremanei dagozkien puntuetan.

Lizardiren poemagintzaren modernotasuna ahalegin pertsonal, guztiz ohartu eta berarizkoaren ondorio izan zela nabarmenerazten dute dokumentuek, zalantzarik gabe.

Bestetik, Lizardi arteka-martekako olerkari zela frogatzen digute, ez zela Orixe edo Lauaxeta bezala beren lumaren kontura bizi, horrek berarekin dakartzan muga eta ezintasunekin. Ildo beretik joaz, formazioari zegokionez, Lizardik ez zuen Orixek, Lauaxetak edo Zaitegik bezalako kultura humanista eta literario zabalaren panorama eskolan hartu. Bere gisa, osaba literaturzalearen liburutegia eta oharrez, edo batxilergo eta Zuzenbide ikasketetan eskatzen ziren literatur ezagupenez gain, berezko joerek, nahiz azkenaldera Orixeren aholkuek bideraturiko irakurketen ondorio da Lizardiren kultura literarioa. Horregatik esaten du Jautarkolek hil ondoko omenezko artikuluan ohartzen zuen formazio falta hori osatzeari ekina ziola azken urteetan.

Beste alde batetik, kritika modernoak aintzakotzat hartu ez duen puntu bat nabarmenerazten da Lizardi Pizkundearen ingurumarian kokaturik aztertzean, bere mintzaira poetikoaren iturrietako bat

23 Ikus "Lizardiren eskutitzak" eranskinean Lizardik Lauaxetari eginiko gutuna, 1932-6-6, 61. Dokumentua.

euskal idazleak berak direla, aintzinakoak nahiz XIX-XX.koak, eta irakurtzen zituen idazleen iturrietatik edan arren, bere-bere zituen irizpide estetikoen galbahean iragazten zituela.

Dena den, iturri posible eta probable horiek ez dute ezer definitiborik frogatu ahal izateko adinako pisurik, eragin literario gisa aipatzeko, gaien aldetik autentizitate liriko handiko olerkaria delako, eta irudi, adjetibazio edo bestelako eragin literarioa bere mintzo literarioan itsasten zuelako. Hortik dator, noski, kritiko guztiek, eta garaikoek bereziki azpimarratu zuten Lizardiren originaltasuna.

Dokumentuek, garaikoen iritziek, Lizardiren ideia poetikoek eta haren obra osoa harturik burutu dudan praktika literarioaren azterketa formalak ez dute Lizardi halako korronte literario prestigiodun bati lotzeko biderik ematen. Eta balirudike hori gabe ezinezko dela haren modernotasunaren auzia azaltzea. Baina Lizardiren kasuan ezinbestean hala esan beharra dago.

Formazio zabalaren faltan, bokazio eta sentsibilitate poetiko harrigarria zuen. Bere burua poetatzat izan arren, eta horrezaz zuen irudi akonplexatua eta guzti, ez zitzaion ausardia falta izan, kinka larrian ikusten zuen kultura indarberritzeko ahaleginaren funtsezko oinarria eraikitzen saiatzean. Poeta gisa jarrera pertsonala hartu eta eredu estetiko berri bat sortzeko gaitasuna izan zuen, erasoak eraso.

Garrantzisua deritzot Pizkundearen giroan zeuden joera nagusien artean azalpen mota guztiak saiatu ondoren, bere joeraren zilegitasuna "liriko zoroek" beren zoroari emanik jarraitzeko duten eskubidea aldarrikatu behar izan zuela gogoratzeari; batez ere, gerraoste osoan izan duen jarraitzaile saldo ugariaren mirespenaren ondorioz guregana heldu den irudi kontsagratuegia erlatibizatuz, Pizkundearen argitan begi berriez begiratu ahal izan dakion. Baita, era berean, azken urteetako kritikak duen malditoen zaletasunak eta heterodoxiaz bakarrik arduratzeko joerak Lizardiren irudia erabat estereotipatu dezan eragozteko.

Ulergarria da bestalde, Lizardiren kasuan irudi hau nagusitu izatea. Alde batetik, objetiboki dokumentuetarako bidea eragozpentsua izan delako, eta bestetik, guda ondoren bizirik iraun zutenek garai hartaz zuten irudia nostalgikoa izanik, ustez alderdi ilunak zirenak ahantzi nahiz zihardutelako [24].

Orain dokumentuetarako bidea irekia delarik, uste dut garaia dela kritika literario ziurragoa egiteko eskura ditugun datu guztiez baliatuz eta horiek interpretatuz euskal literaturaren historia eta bilakaeraren kritika benetazkoagoa, errealagoa egiteko, aurreiritzi ideologikorik gabe. Horixe izan da ene asmoa, ingurumariak, datuek eta horien ondorioz eginiko azterketaren argiak Lizardiren poemagintzaren barrutian eragiten dituen argi-itzal berriak ezagutzera ematen hastea.

---

24 Ikus *Itz-Lauz*, 1972ko argitalpenean Joseba Mirena Markiegiren "Itzaurrea" (9-15. or.) eta Antonio Mª Labaienen "Sarrera gisa" (5-8. or.).; *K-L* 5-9. or.

LIBURU ETA ARTIKULUEN ZERRENDA BIBLIOGRAFIKOA

AGERRE, J., "GURBINDO"; "Los males del idioma. Un balance negativo" in *El Día*, 1935-1-10,

AGIRRE, E., "AGAREL"; "De literatura vasca. Lizardi'tar Txabier" in *Euzkerea*, V, 1933-6-15, 320. or.

AGIRRE, J.M.; Ikus. LIZARDI, X.

AGIRRE, T., "BARRENSORO"; "Gure olerkariak" in *Yakintza*, I, 1933(1-3), 21-25. or.

— "Bide berrietatik eta zaarretatik ere bai" in *Euzkadi*, 1932-2-19, 5. or.

AKESOLO, L. (ed.); "Lizardi gaztearen olerki-mordoa" in *Karmel*, 180, 1987(1), 6-15. or.; "Lizardi zanaren beste lau olerki" in *Karmel*, 181, 1987(2), 25-32. or.; "Lizardiren gaztetako olerkiak (azkena)" in *Karmel*, 183, 1987(4), 57-64. or.

ALVAREZ ENPARANTZA, J.L., "TXILLARDEGI"; *Euskal Gramatika*, Ed. Vascas, Donostia, 1978.

ALONSO, D.; "La lengua poética de Góngora" in *Obras Completas*, V, Gredos, Madrid, 1972, 9-240. or.

— "Góngora y la literatura contemporánea" in *Obras Completas*, V, Gredos, Madrid, 1972, 725-770. or.

— "Características del estilo de Góngora" in *Obras Completas*, VII, Gredos, Madrid, 1972, 131-184. or.

— "La correlación en la poesía de Góngora" in *Obras Completas*, VII, Gredos, Madrid, 1972, 437-461. or.

— "Una generación poética" in *Poetas españoles contemporáneos*, Gredos, Madrid, 1969 (3. arg.).

ALTUBE, S.; *Erderismos*, Indauchu, Bilbo, 1975.

ALTUNA, P.; *La versificación de Dechepare*, Mensajero, Bilbo, 1979.

— "Etxepare herri poeta" in *Linguistika eta literatura bide berriak*, Deustoko Unibertsitatearen argitarazioak, Bilbo, 1981, 321-341. or.

— "Jose María Estefania Zabala (1889-1942)" in *Euskera*, XXXV, 1990, 75-97. or.

ARAMBURU, J.; "Conversación con el hermano del poeta" in *Deia*, 1983-3-10, 19. or.

ARANA-GOIRI, S.; "La fonética en el metro del verso" in *Lecciones de ortografía del euzkera bizkaino*, Sebastián de Amorrortu, Bilbo, 1896, 189-200. or.

ARANA-MARTIJA; J.A.; *Música vasca*, CAM, Donostia, 1976.

ARANTZADI, E., "KIZKITZA"; "Por el euskera y por "Kirikiño" in *Euzkadi*, 1929-4-27, 1. or.

ARIZTIMUÑO, J., "AITZOL"; *Aitzolen idazlan guztiak*, Erein, Donostia, 1987.

— "Optimismo y actividad" in *Euzkadi*, 1930-2-19, 1. or.

— "Mistral y los poetas vascos" in *Euzkadi*, 1930-4-16, 1. or.

— "El cantor de un pueblo" in *Euzkadi*, 1930-4-13, 1. or.

— "El bertsolari. Su significación histórica y social" in *Euzkadi*, 1930-4-5, 1. or.

— "El homenaje de la mujer al euskera" in *Euzkadi*, 1930-8-6, 1. or.

— "El bertsolari Xenpelar" in *Euzkadi*, 1930-12-9, 1. or.

— "Concursos de bertsolaris" in *Euzkadi*, 1931-1-10, 1. or.

— "Elerti pizkunde kimatxoak" in *Eusko Olertiak I*, Euskaltzaleak, Donostia, 1930, 4-25. or.

— "Mistral restaura un pueblo. Mireio y el euskera" in *El Día*, 1931-1-25, 2. or.

— "Una revelación literarioa. De la fiesta literaria de Tolosa" in *El Día*, 1931-11-8, 1. or.

— "El arte dramático en el Renacimiento vasco" in *El Día*, 1931-12-20, 1. or.

— "Del renacimiento catalán al Estatuto" in *El Día*, 1932-6-9, 1. or.

— "Urte Giroak. Paisaje de las estaciones. Poeta e innovador del lenguaje" in *Euzkadi*, 1932-6-15, 1. or.

— "Existe una cultura vasca" in *El Día*, 1932-7-8, 1. or.

— "Carta abierta a Jemein, Jayo, Eguilleor, Lauaxeta" in *El Día*, 1932-7-14, 6. or.

— "Antzinako oituren piztutzea" in *El Día*, 1933-2-12, 1. or.

— "El poeta Jose María Agirre. "Xabier de Lizardi" in *Yakintza*, III, 1933, 163-177. or.

— "Lizardi. El patriota, el poeta, el cristiano" in *El Día*, 1933-3-14, 1-2. or.

— "Xabier Lizardi il!" in *El Día*, 1933-3-14, 1-2. or.

— "Itz-aurrea" in *Euzko Olerkiak IV*, Euskaltzaleak, Donostia, 1933, in *Idazlan Guztiak*, III, 55— 76. or.

— "Itzaurrea" in LIZARDI, X.; *Umezurtz Olerkiak*, Euskaltzaleak, Donostia, 1934, in *Idazlan Guztiak*, III, 99-104. or.

— "Agirre'tar J.M. "Lizardi" olerkari ospetsu zenaren il-urtemuga" in *El Día*, 1934-3-11, 1. or.

— "Umezurtz Olerkiak" in *Euzkadi*, 1934-5-8, 1. or.

— "Homenaje a "Jabier de Lizardi". Hoy en el V. día de la Poesía Euskaldun" in *Euzkadi*, 1934-6-10, 1. or.

— "Balance literario euskeldun 1934" in *Euzkadi*, 1935-1-6, 1. or.

— "Lucha de idiomas en Euskadi y Europa" in *Yakintza*, II,1934, 353-365. or. eta 431-438. or.; *Yakintza*, III, 33-42. or. eta 114-125. or.

— "La muerte del euskera" in *El Día*, 1931-11-7.tik 28.ra.

ARRESE, E.; *Txindor*, Leizaola, Donostia, 1928.

— *Olerti berrizte*, Itxaropena, Zarautz, 1952.

ARRESE-BEITIA, F.; *Olerkiak*, Euskal Idazleak bilbuma, Euskaltzaindia, Bilbo, 1956.

ARRILLAGA, V., *Introducción a la poesía de Lizardi*, Memoria de Licenciatura, Universidad de Deusto, 1974. Argitara gabea.

ARRUTI, D., "MENDI-LAUTA"; "Lizardi'tar Xabier gexorik" in *Euzkadi*, 1928-11-11, 6. or.

— "Lizardi gure artean" in *Euzkadi*, 1929-1-31, 6. or.

— "Lizardi igesi" in *Euzkadi*, 1929-2-16, 6. or.

— "Lizardi oroituaz" in *Euzkadi*, 1934-6-6, 12. or.

ARTETXE, J.; "El poeta de la concisión" in *Caminando*, Zarautz, Itxaropena, 1947, 63-67. or.

ARTIZ, X.; "Orixe'ri" in *Euzko-Gogoa*, 2, 1950, 14. or.

ARZELLUS, A., "LUZEAR"; "Batasuna" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 39, 1928, 12. or.

AULESTIA, G.; "Lizardi, poeta lírico y culto" in *Muga*, 72, 1990(Martxoa), 24-39. or.

AZKARATE, M.; *Hitz-elkarketa eta eratorketa euskaraz*, Mundaiz, Donostia, 1990.

AZKUE, R.M.; *Morfología Vasca*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969 (2. arg.)

— *Diccionario vasco-español-francés*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969 (2. arg.).

AZURMENDI, J.; *Zer dugu Orixeren kontra*, Jakin, Oñati, 1976.

BALAKIAN, A.; *El simbolismo*, Guadarrama, Madrid, 1969.

BERA, E.M.-LOPEZ MENDIZABAL, I.; *Diccionario erdera-euzkera, Euzkera-erdera*, Lopez Mendizabal, Tolosa, 1916.

BOUSOÑO, C.; *Teoría de la expresión estética*, Gredos, Madrid, 1976.

COHEN, J.; *Estructura del lenguaje poético*, Gredos, Madrid, 1975.

ELORZA, A.; *Ideologías del nacionalismo vasco (1876-1937)*, L. Haramburu, Donostia, 1978.

ESTEFANIA, J.M.; "Urkiaga'tar Estepan (Lauaxeta). 'Bide barrijak' (Nuevos Rumbos)" in *Razón y Fé*, 425, 1932(ekaina), 267-269. or.

ETARBE; "Uda-ikasaldiak" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, XXXVII, 1928, 11. or.

ETXEBERRI, J.; *Manual Devotionezcoa*, Bordele, 1627.

ETXEBERRIA, G.; "Lizardi. 'Asaba zaarren baratza'" in ETXEBERRIA, G.-IÑURRIETA, I.; *Euskal Literatura. Textu azterketak*, Bilbo, Euskal Herriko Unibertsitatea, 1985, 111-132. or.

ETXEGARAI, B.; "El euskera en las empresas de cultura" in *El Día*, 1930-9-21, 2. or.

— "La labor de la Sociedad de Estudios Vascos" in *El Día*, 1930-10-9, 2. or.

— "Afianzamiento y reconquista" in *El Día*, 1930-10-23, 2. or.

— "La labor de la Sociedad de Estudios Vascos en sus cursos de verano" in *El Día*, 1930-10-28, 2. or.

— "Hagamos lo que sea posible" in *El Día*, 1930-11-12, 12. or.

— "Algunas aclaraciones y una rectificación" in *El Día*, 1930-12-7, 2. or.

ETXEPARE, B.; *Linguae Vasconum Primitiae*, Patxi Altunak paraturiko Edizio Kritikoa, Mensajero, Bilbo, 1980.

EUSKALTZAINDIA. LEF batzordea; *Hitz elkarketa 3*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1991.

"EUSKALDUN BAT"; "Bide Berriak" in *Argia*, 563, 1932-2-7, 1. or.

GARMENDIA, J., "ZELETA"; "Lizardi'tar Xabier.(G.B.)" in *Argia*, 625, 1933-3-27, 2. or.

GOENAGA, P.; *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia, 1980.

GOIKOETXEA, J.I., "GAZTELU"; *Musika ixilla*, Auñamendi, Donostia, 1963.

— "Orixeren bizi-berri laburra" in "ORIXE"; *Euskaldunak poema eta olerki guztiak*, Auñamendi, Donostia, 1972, XXIII-XXXVII. or.

HARITCHELHAR, J.; *Le poète souletin Jean Topet Etchahun. Contribution a l'étude de la poésie populaire basque du XIX. siècle*, Societé des Amis du Musée Basque, Baiona, 1969.

— "Bihotz-Begietako Euskal Herria Lizardirengan" in *Euskal Lingusitika eta Literatura Bide Berriak*, Bilbo, Deustuko Unibertsitateko argitarazioak, 1981, 369-392. or.

"IBARTZABAL"; "Lizardi'tar Xabier" in *Euzko Gogoa*, I, 1950 (Ilbeltza), 9-11. or.

IBARTZABAL, E.; *Cincuenta años de nacionalismo vasco*, Ediciones Vascas, Donostia, 1978.

IBERO, E., "IBER"; *Ami Vasco*, Euzko-argitaldaria, Zarautz, 1932.

IRIGARAI, F., "LARREKO"; "Bide berriak" in *Argia*, 560, 1932-2-17, 1. or.

— "Berriz ere bide berriez" in *Euzkadi*, 1932-2-14, 5. or.

— "Bide berriez itz bat orainik" in *Euzkadi*, 1932-3-17, 5. or.

IZTUETA, P.; *"Quito'n arrebarekin" irakurriz*, Etor, Donostia, 1988.

JAUREGI, K., "JAUTARKOL"; *Biozkadak*, Ama Doloretako Irarkola, Iruñea, 1929.

— "Biotz-Begietan. Un gran poeta vasco" in *El Día* 1932-6-8, 1. or.

— "El porvenir de la literatura vasca" in *El Día*, 1932-7-6, 5. or.

— "Lizardi. Su personalidad literaria" in *El Día*, 1933-3-26, 1. or.

JACOBSON, R.; *Lingüística y poética*, Ed Cátedra, Madrid, 1981.

JEMEIN, JAYO, EGUILLEOR; "Por el euzkera y por Kirikiño" in *Euzkerea*, 1929-5-5, 87-89. or.

JEMEIN, JAYO, EGUILLEOR, LAUAXETA; "Carta abierta a Aitzol" in *El Día*, 1932-7-12, 6. or.

JUARISTI, J. *Literatura vasca*, Taurus, Madrid, 1987.

— *El linaje de Aitor*, Madrid, Taurus, 1987.

KEREJETA, M.J.; "Xabier Lizardiren lehen olerkiak" in *ASJU*, XVIII, 1984, 201-215. or.

KORTAZAR, J.; *Teoría y práctica literaria de Lauaxeta*, Desclée de Brouwer, Bilbo, 1986.

— "Los debates literarios en la poesía del País Vasco (1930-36)" in *Memoriae L. Michelena Magistri Sacrum*, ASJU, 1992, Pars altera, 1187-1200. or.

— "La posición de Aitzol en los debates literarios de preguerra" in *Aitzol en su tiempo*, Sabino Arana Elkargoa, Bilbo, 1990, 47-56. or.

— "Lizardiren "Ondar Gorri". Azterketa formal eta sinbolikoaren saioak" in *Euskeraren Iker Atalak 2*, Labairu Ikastegia, Bilbo, 1983-Uztail, 51-64 or.

— "Ohar pare bat Lizardiren iturriez" in *Jakin*, 29, 1983 (urria-abendua), 53-88. or.

LABAIEN, A.M., "AYANBE"; "Lizardi'tar Xabier" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 57, 1933, 18-21. or.

— "Homenaje a Lizardi" in *El Día*, 1933-3-28, 5. or.

— "Itzaurrea" in "Ezkondu ezin ziteken mutilla" in *Egan*, 2-4, 1953, 25-27. or.

— "Sarrera-gisa" in LIZARDI, X.; *Itz-lauz*, Edili, Donostia, 1972, 5-8. or. (2. arg.)

LAFON, R.; *Le système du verbe basque au XVIème siècle*, Elkar, Zarautz, 1980 (2. arg.)

LANDA, J., *Gerraondoko poesiaren historia*, Donostia, Elkar 1983.

— "Bakoitzari berea" in *Egin*, 1983-2-20, 19. or.

LARRAÑAGA, I.; "Aitzol euskal soziolinguistikaren aintzindari?" in AITZOL; *Idazlan Guztiak*, Erein, Donostia, 1987, 257-290. or.

"LAUAXETA"; *Azalpenak*, Labayru, Bilbo, 1982.

— "Eztabaida" in *Euzkadi*, 1932-2-9, 7. or.

— "Barritzailiak" in *Euzkadi*, 1932-2-24, 5. or.

— "Biotz-begietan" in *Euzkadi*, 1932-5-11, 1. or.

— "Biotz-Begietan" in *Euzkadi*, 1932-6-14, 1. or.

— "Orreri, orreri!" in *Euzkadi*, 1933-2-26, 8. or.

— "Lixardi_tar Jabier-i azken agurra" in *Euzkadi*, 1933-3-14, 8. or.

— "Lizardi olerkaria" in *Euzkadi*, 1933-6-1, 8. or.

— "Biotz-Begietan" in *Euzkadi*, 1933-4-1, 4. or.

LATSURREGI ; "Aitzolen iritzi bat" in *El Día*, 1933-1-20.

LEIZAOLA, J.M., "BARAZAR"; "Ahapaldi-erak Jautarkolen olerkietan" in *Euzkadi*, 1930-5-7, 5. or.

— *Obras Completas de J.M. Leizaola*, II, Sendoa, Donostia, 1981-87.

LEKUONA, M. "La época de Aitzol" in *Idaz-lan Guztiak*, Kardaberaz Bilduma-29, VIII, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1984, 354-375. or.

— "Métrica vasca" in *Idaz-lan Guztiak*, Kardaberaz Bilduma-22, I, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1978, 131-157. or.

— "Literatura oral vasca" in *Idaz-lan Guztiak*, Kardaberaz Bilduma-22, I, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1978, 259-540. or.

— "La poesía popular vasca" in *Idaz-lan Guztiak*, Kardaberaz Bilduma-22, I, Librería Tecnica de Difusión, Tolosa, 1978, 187-257. or.

— "A" artikuloa noiz jarri ta noiz ez" in *Idaz-lan Guztiak*, Kardaberaz bilduma-28, Librería Técnica de Difusión, Tolosa, 1984, 423-433. or.

LEKUONA, J.M.; "Euskal erromantzeen atarian" in *Linguistika eta literatura bide berriak*, Deusto, Bilbo, 1981, 293-320. or.

— "Lizardiren eskema metrikoak eta puntuak" in *Jakin*, 29, 1983 (urria-abendua), 53-88. or.

— *Ahozko Euskal Literatura*, Erein, Donostia, 1982.

LERTXUNDI, A.; *Xabier Lizardi (1896-1933)*, Erein, Donostia, 1983.

— "Garaiko handikien artean" in LETE, X., ZELAIETA, A., LERTXUNDI, A.; *Xabier Lizardi. Olerkari eta prosista*, Jakin, Oñati-Arantzazu, 1974, 101-124. or.

— "Ai, Marlowe,Marlowe!" in *Jakin*, 29, 1983(urria-abendua), 109-117. or.

LIZARDI, X.; *Itz-lauz*, Euskaltzaleak, Donostia, 1934;

— *Itz-lauz*, Edili, Donostia, 1972 (2. arg.)

— *Xabier Lizardiren Kazetari-Lanak*, Erein, Donostia, 1987.

— *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983.

— "Insistiendo" in *Euzkadi*, 1927-10-21, 1. or.

— "De acción vasca" in *Euzkadi*, 1927-10-9, 1. or.

— "De acción vasca" in *Euzkadi*, 1927-10-14, 1-2. or.

— "Euskeraren aldezko asmoak dirala-ta" (I eta II) in *Euzkadi*, 1927-10-18, 5. or. eta 1927-10-22, 5. or.

— "La escuela vasca de Tolosa" in *Euzkadi*, 1927-10-22, 1-2. or.

— "La moda del euskera" in *Euzkadi*, 1927-10-26, 1. or.

— "Parte de situación" in *Euzkadi*, 1927-11-1, 1.or.

— "Un héroe mal estimado" in *Euzkadi*, 1928-7-27, 1.or.

— "Petra Gorraenean" in *Argia*, 365, 1928-4-15, 1. or.

— "Uste gabeko euri-zaparra" in *Argia*, 382, 1928-8-12, 1. or.

— "Traducciones-diccionarios" in *Euzkadi*, 1928-8-7, 1. or.

— "De nuestro mundillo literario" in *Euzkadi*, 1928-8-30, 1. or.

— "Chismorreo literario" in *Euzkadi*, 1928-9-9, 1. or.

— "Zizka-Mizka" in *Argia*, 386, 1928-9-9, 1. or.

— "Baratza azi bearra" in *Euzkadi*, 1929-3-13, 5. or.

— "Euskel-Egunkaria" in *Euzkadi*, 1929-3-16, 4. or.

— "Egunkaria" in *Euzkadi*, 1929-4-26, 5. or.

— "Ez sari eta ez eskupeko" in *Argia*, 419, 1929-5-5, 4. or.

— "Un proyecto que no debe fracasar" in *Euzkadi*, 1929-5-5, 1. or.

— "Euskel-Egunerokoa" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 42, 1929-6-27, 12-22. or.

— "Tormesko itsu-mutilla (I eta II)" in *Euzkadi*, 1929-6-17, 1. or.; eta 1929-7-26, 1. or.

— "Kirikiño saria. Oñarau-gaiak" in *Argia*, 1929-11-10, 1. or.

— "Donapaleura joan-etorria" in *Euzkadi*, 1929-12-25, 1. or.

— "Memoria y faro" in *Euzkadi*, 1930-2-16, 1. or.

— "Egia ikus dezagun ama!" in *Argia* 471, 1930-5-4, 4. or.

— "El poeta" in *El Día*, 1930-6-5, 2. or.

— "Laño ta Izar" in *El día*, 1930-7-30, 12. or.

— "Arrasateko itzaldia", *Euskeltzaleak* (1930-7-30) in *Itz-Lauz* Edili, Zarautz, 1972 (2. arg.)

— "Olermen irakite" in *Euzkadi*, 1930-6-1, 1. or.

— "Bi milloiez zer egingo euskeraren alde?" in *Euzkadi*, 1930-9-9, 1. or.

— "Eusko Ikaskuntza"ren bost-garren batzarra" (1930) in *Itz-lauz*, Edli, Zarautz, 1972 (2. arg.), 115-119. or.

— "Arrasateko itzaldia" (1930-7-30) in *Itz-lauz*, Edili, Donostia, 1972 (2. arg.), 129-136. or.

— "Euskera andiki soñekoz" (I eta II) in *El Día*, 1930-9-25, 12. or. eta 1930-9-27, 2. or.

— "Batzar iraunkorrari agurra Agirre Joseba Mirena jaunak" in *Eusko Ikaskuntzaren Deia*, 48, 1930-9-8, 27-28. or.

— "Elkar bidean" in *El Día*, 1930-10-13, 12. or.

— "Gramáticas euskéricas" in *Euzkadi*, 1930-11-2, 1. or.

— "Aitaren erreal bikoak" in *El Día*, 1930-11-12, 12. or.

— "Sabino poeta" in *Euzkadi*, 1931-11-25, 1. or.

— "Rumbos nuevos (I eta II)" in *Euzkadi*, 1931-12-17, 1. or. eta 1931-12-30, 1-3. or.

— "Bide berriak. Bide guztiak" in *Euzkadi*, 1932-2-11, 5. or.

— "Nuestra conversión" in *Euzkadi*, 1932-3-27, 1. or.

— "Rumbos peligrosos" in *Euzkadi*, 1932-2-27, 1. or.

— "Gure bideko mugarriak" in *El Día*, 1933-2-12, 6. or.

— "Biztu da Josu" in *Euzkadi*, 1932-5-2, 1. or.

— "Erdi-bearra" in *Euzkadi*, 1930-5-8, 5. or.

— "Etxe barne-bizia. España-Legebiltzarrea nere begipean" in *Euzkadi* 1932-5-24, 1. or.

— "Pro Araba y Nafarroa. Gravísimo deber" in *Euzkadi*, 1932-7-21, 1. or.

— "Lizardi eta Larreko ziranek elkarri egin-gutunak" in *Euzko Gogoa*, VII, 1956 (Ilb-Otsail), 94-99. or.

— "Txindurriak" in *Yakintza*, II, 1933, 84-87. or.

LETE, X.; "Xabier Lizardi edo lirika gailen" in LETE, X., ZELAIETA, A., LERTXUNDI, A.; *Xabier Lizardi. Olerkari eta prosista*, Jakin, Oñati-Arantzazu, 1974, 11-43. or.

— "Aintzin-solasa" in LIZARDI, X.; *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 9-11. or.

MAETERLINK, M.; *La vida de las abejas*, Losada, Buenos Aires, 1990 (6. arg.)

MITXELENA, K.; "Biotz-Begietan. Olerkiak". Lizardi'tar Xabier" in *Egan*, 1956(2), 84-86. or. eta in *Idazlan Hautatuak*, Etor, Bilbo, 1972, 174-177. or.

— "Sarrera-itz batzu" in ALVAREZ ENPARANTZA, "TXILLARDEGI"; Leturiaren egunkari ezkutua, Euskaltzaindia, Bilbo, 1957, 5-17. or.

— *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madrid, 1960.

— *Textos arcaicos vascos*, Minotauro, Madrid, 1964.

— *Fonética histórica vasca*, Seminario Julio de Urquijo, Donostia, 1976.

— "Euskal hizkera eta euskal neurkera" in *Euskera*, XXII, 1977, 721-733. or.

— *Orotariko Euskal Hiztegia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1989.

MARKIEGI, J.M.; "Itzaurrea" in *Itz-Lauz*, Edili, Zarautz, 1972 (2. arg.) 9-15. or.

MUJIKA, L.M.; *Historia de la literatura euskérika*, Itxaropena. Zarautz, 1979.

— *Lizardiren lirika bideak*, Haranburu, Donostia, 1983.

OIHENARTE, A.; *Les proverbes basques, recuellis par le sieur d'Oihenart plus les poésies du même auteur*, Paris, 1657.

ONAINDIA, S.; *Euskal Literatura*, Etor, Bilbo, 1975.

ORIXE-OIARTZABAL "Axular, Mendiburu, Lizardi" in *Euskera*, III, 1958, 17-20. or.

"ORIXE"; "Euskal literaturaren atze edo edesti laburra" in *Euskal Esnalea*, 1927, XVII, 149-156, XVIII 169-173; XIX, 191-196 or.; XX, 205-215. or.; XXI, 228-237. or.; XXII, 246-252. or.

— "Itzak nola neurtu" hitzaurrea in GOIKOETXEA, J.I., "GAZTELU"; *Musika ixilla*, Auñamendi, Donostia, 1963, 48-49. or.

— "Acento vasco" in *RIEV*, IX, 1918, 1-15. or.

— *Bertso kontuak* gutun-sorta. Euskaltzaindiaren Bilboko Azkue liburutegian.

— "Oraindañoko Euskal-Neurtitzak" in *Itzaldiak VI*, Donostia, Euskal Esnalean argitaratua, 1930, 124-168. or.

— "Muga-itz edo artikulua euskaraz" in *Euzko-Gogoa*, 2, 1950, 15-16. or.

— "Eusko Olerkitzaz" in *Lenengo Euskalegunetako Itzaldiak*, Bilbo, Euzko-Argitaldaria, 1922, 43-53. or.

— "Lizardiren azken-olerkiak" in *Yakintza*, 4, 1933(11-12), 94-99. or.

— "Lizardiren azken olerkiak" in *Yakintza*, 6, 1933, 405-419. or.

— "Lizardi" in *Olerti*, I-II, 1963, 106-114. or.

— "Zaitegi jauna" in *Euzko-Gogoa*, 5-6, 1950, 8. or.

— "Lizardi Ameriketan" in *Euzko-Gogoa*, 7-8, 1950, 8. or.

— "Markiegi zana" in *Euzko-Gogoa*, 9-10, 1950, 9. or.

— *Euskaldunak poema eta olerki guztiak*, Auñamendi, Donostia, 1972.

ORMAETXEA, N.; Ikus "ORIXE"

ORKAIZTEGI, P.; *Observaciones para escribir tolerablemente en nuestro idioma eúskaro*, E. López, Tolosa, 1906.

ORTEGA Y GASSET, J.; "Los hermanos Zubiaurre" in "El espectador" 1920 (urria) in *Obras Completas*, II, Revista de Occidente, Madrid, 1961-83, 267-270. or.

OTAEGI, L.; *Lizardiren poemagintzaren azterketa formal bat.* Argitara gabea, Donostia 1981-82. Deustuko Unibertsitatearen Donostiako kanpusean.

— "Aitzolen proiektu kulturalaz" in *Jakin*, 29, 1983, 18-27. or.

— "Lizardiren poetikaz" in *Jakin*, 29, 1983 (urria-abendua), 39-52. or.

— "Hitzaurrea" in *Xabier Lizardiren Kazetari-lanak*, Erein, Donostia, 1987, 15-37. or.

— "El proyecto cultural de Aitzol" in *Aitzol en su tiempo*, Sabino Arana Elkargoa, Bilbo, 1990, 29-43. or.

— "Lizardi gizon eta olerkari" in *Habe*, 129, 1988-6-15, 18-20. or.

— "Orixe eta guda aurreko Pizkunde mogimendua" in *Orixe Mendeurrena (1888-1988), IV, Hitzaldiak*, Etor, Donostia, 1991, 89-104. or.

OTEGI, K.; "Xabier Lizardi, poeta" in *Egan*, XLI, 1983, 11-22. or.

— *Lectura semiótica de Biotz-Begietan* Doktorego Tesia. Argitara gabea, 1990, Deustoko Unibertsitatea.

SARASOLA, I.; "Lizardiren poemagintzaren alde formalen estudio baterako" in *Homenaje a Julio Caro Baroja*, Centro de Investigaciones Sociológicas, Madrid, 1978, 973-963. or.

— "Euskal abertzaletasunaren argiak eta itzalak: olerkariak" in *Gabriel Aresti. Obra Guztiak*, I, Kriselu, Donostia, 1976, 22-28. or.

— *Euskal Literaturaren historia*, Lur, Donostia, 1970.

SUAREZ MIRAMON, A.; *Modernismo y 98: Rubén Darío*, Cuadernos de Estudio-18, Cincel, Madrid, 1980.

TUSON, V, LAZARO, F.; *Literatura del siglo XX*, Anaya, Madrid, 1989.

URKIJO,J.; *Refranero Vasco I. Los refranes de Garibay*, Martin, Mena y Cia., Donostia, 1919.

UGALDE, M.; *Historia de Euskadi*, Planeta, Madrid, 1982.

— "Biografía de Aitzol" in *Aitzol. Idazlan Guztiak*, I, Erein. Donostia, 1987, 19-105. or.

URKIAGA, E.; Ikus "LAUAXETA".

UROLA, M.; "Aztuko etzaigun Lizardiri" in *Argia*, 624, 1933-3-26, 2. or.

VALVERDE, J.M.; "Prólogo" in HUMBOLDT, W.; *Escritos sobre el lenguaje*, Península, Barcelona, 1991, 5-24. or.

VELEZ DE MENDIZABAL, J.M. *Jokin Zaitegi*, Izarra, Arrasate, 1981.

VILLASANTE, L.; *Historia de la literatura vasca*, Sendo, Bilbo, 1961.

— "Hitzaurre gisa" in ALTUBE, S.; *Erderismos*, Indauchu, 1975, III-XII. or.

— "Lizardi en la literatura y en la poesía vasca" in *Fontes Linguae Vasconum*, 20, 1975 (Mai-Ap), 227-236. or.

ZAITEGI, J., "ETXETXO"; "Aitzolen gizaldia" in *Eusko gogoa*, 1, 1950, 5-7. or.

ZARATE. M.; "Lizardi, euskal lirikaren ezaugarri" in *Euskal Literatura I. Azterbidea, Azterketak, Aztergaiak*, Zugaza, Durango, 1977, 9-24. or.

ZELAIETA, A.; "Lizardiren pentsamolde nagusiak" in *Xabier Lizardi*, Jakin, Arantzazu-Oñati, 1974, 45-99. or.

— "Orixe eta Arana Goiriren eragina Lizardirengan" in *Jakin*, 29, 1983 (urria-abendua), 28-38. or.

ERANSKINAK

0. SARRERA ERANSKINETAKO DOKUMENTAZIOAZ

1. LIZARDIREN ESKUTITZAK

2. LIZARDIREN OLERKIEN EDIZIO KRITIKO BATERAKO

0. SARRERA ERANSKINETAKO DOKUMENTAZIOAZ

Xabier Lizardiren biografia pertsonala eta poetikoa, nahiz bere garaikide izan ziren olerkarien belaunaldiko beste askorena behar bezala ezagutu ahal izateko eragozpenak ugariak izan dira.

Alde batetik, gerrate zibilaren eraginak eta haren ondoriozko zentsuraren izuak errotik altxa ditu literatura azterlearentzat behar beharrezkoak diren baliabideak, hala nola, idazleen eskuizkribuak, liburutegiak, ikasketa agiriak, etabar; horietako asko, izkutatu beharraren beharrez, sakabanatuak izan ziren gerra hasierako zalapartan. Senitartekoek eta adiskideek jasorikoak alde batera utzita, gainerakoak atzerrian hondatu dira behin betiko.

Lehen zailtasuna denboraren joana bera da, Jose María Agirre "Xabier Lizardi" eta bere belaunaldiko zenbait idazleren kasuan, guda hasi aurretik hila izana, orain berrogei eta hamazortzi urte eta bere lankide eta adiskide gertukoenak izan zirenak gudaldian erahilak izana dira lehen eragozpenak; bestetik, gerra garaian eta gerraostean haien lanek eta jabegoek izan zituzten konnotazio politikoak zirela eta, dokumentu gehienak ostendu eta are suntsitzea ekarri zituen.

Gutun, eskuizkribu eta bestelako dokumentu pertsonalez gain, argitarazi zituzten liburu, eta aldizkarietako artikuluen testigantza ere aipagarria dugu. Horiek ere, ordea, oso sakabanaturik izan ditu azterleak duela oso gutxirarte; nekagarria egiten zen haien idazlanen bilketa lana egiteke bait zegoen hein handi batean, eta egina dagoen kasu urrietan ere bilduma hori aztertzeke bait dago eskuarki.

Zailtasun hauek gainditzearren osatu nuen *Xabier Lizardiren kazetari-lanak* izeneko artikulu bilduma.

Azken hamarkada honetan Lauaxetaren egunkarietako idazlan zenbait eta Aitzolen egunkarietako artikuluen bilduma egin eta argitaratu izanak berregituratzeko bidean jarri du euskal literaturaren epe garrantzitsu hori, eta ni abiatu nintzenean baino dokumentaketa aukera ugariagoak eskuratu zaizkio gaur egungo azterleari.

Berriki, aldiz, Orixeren Idazlan Guztien argitaralpena burutu da azkenik, ikerlariari lehen mailako aztergaia eskuratu zaiolarik, ene ustez egiteke dagoen haren ideia literarioen nondik-norakoa finkatzeko.

Bada ordea, Lizardiren kasuan, beste dokumentazio iturri bat, hil berria zelarik jadanik Aitzolek, 1933ko *Yakintza* aldizkariaren hirugarren alean "El poeta Xabier de Lizardi" izeneko artikuluan aipatu zuena:

> "Su nutrida correspondencia, clasificada en varias carpetas con el nombre de "Eskutitzak", es una documentación inapreciable para esta época del renacimiento euskaldun. Y casi todas esas cartas, las por el escritas y recibidas, están en su casi totalidad redactadas en euskera" [1].

Hau da Lizardiren dokumentazio pertsonal horri buruz, jasoa dagoen lehen aipamena eta noren eskuetan geratua ote zen galderak erantzunik ez du. Jokin Zaitegik [2], seguraski Aitzolek aipaturiko gutunen artean zeuden zenbait gutun pertsonal argitaratu zituen, ordea, 1956ean, inolako sarrera oharrik gabe eta honako izenburu honen pean: "Lizardi eta Larreko ziranek elkarri egin-gutunak", Fermin Irigarai "Larreko" eta Lizardik 1929ko urritik hasita, 1930eko abuzturarte elkarri bidaliriko zenbait eskutitz eman zituen ezagutzera.

Lizardik garai horretan buruan zerabilen Euskal Egunkaria sortzeko languntzaile gisa deitu zuen Larreko, aldi berean, urte horretan zehar Euskaltzaleak erakundea egiten ari ziren lanen berri ematen ziolarik.

---

1 "AITZOL"; "El poeta Jose María Agirre 'Xabier de Lizardi'" in *Yakintza*, 1933, III, 163-177. or. Ikus *Aitzol. Idazlan guztiak. Literaturaren inguruan*, III, 137. or.

2 *Euzko Gogoa*, 1956 (Ilbeltza-Otsaila), 94-99. or.

Zaitegik 1956an *Euzko Gogoan* argitaratu zituen gutun pertsonal hauek erantzunik gabeko beste galdera bat eginarazten digute: nola, zein bidetatik eskuratuak zituen Jokin Zaitegik Lizardi eta Larrekoren arteko gutun hauek? Horiek bakarrik eskuratu al zituen, ala Aitzolek aipatzen dituen "Eskutitzak" izeneko karpeta horiek helerazi zizkioten?

Ez daukagu erantzungo digunik. Hala ere, eta hipotesiaren bidetik jo beharra dagoenez, errezena litzateke Jokin Zaitegi 1950ean argitaratzen hasia zen *Euzko Gogoa* aldizkariarekin laguntzera urte hartan bertan joan zitzaion Nikolas Ormaetxea "Orixe"k eskuratu zizkiola uste izatea. Biografian azalduko denez, azken urteetan literatura aholkulari hurbilekoena izan bait zuen Lizardik Orixe.

Ez dugu ordea, Orixek Lizardiri buruz idatziriko artikuluetan zehar behin ere eskutitz horiei buruzko inolako aipamenik aurkituko. Orixe bere oroitzapenez baliatzen da, baina ez du dokumenturik aurkezten olerkari zarauztarrarekin izandako harremanen lekukotza egiteko, pentsatzekoa da Lizardik berari idatziriko gutunak gordeak izango zituela baina ez du inoiz, Lizardiren gutun pertsonalen berririk ematen. Bada ordea 1963ko *Olerti* aldizkariko aipamen bat gutunen gordetzaile nor izan zen sumatzeko aukera ematen duena:

> "Eriotzondoan, zanaren moldezko paper batzuk miatzen ari nintzala —eskuzkoak apaiz Markiegi Jaun zanari eman genizkion— nere artikulu bat, Egunkari'tik goraiziz ebakia..."[1].

Aitzolek bezala, Orixek ere Lizardiren "paperak" banatu egin zituztela esaten du, eta gutunen aipamen zehatza Aitzolek berak egiten duen arren, Orixeren hitzek Markiegiren eskuetan geratu zirela pentsatzeko bidea ematen dute. Berriki argitaratua den Paulo Iztuetaren *"Quiton arrebarekin" irakurriz* liburuan zehar agertzen diren aipamenen bidez jakin daiteke Lizardi eta Orixeren arteko eskutitzetako batzuk gorde zituela Orixek, baina haien artekoez bakarrik hitzegiten duenez, gehiagoren berririk ez zuela pentsa daiteke.

Jokin Zaitegik, aldiz, *Euzko Gogoa*ko 1956ko argitalpen horren bidez ezagutzera emandakoez gain, bere eskumenean izan zituen bizitza osoan Lizardirenak izandako zenbait gutun eta agiri.

Jose María Vélez de Mendizabalek *Iokin Zaitegi* izenburuaz Arrasaten 1981ean argitaraturiko liburuan eman ditu ezagutzera gutun horietako bi: Jokin Zaitegik Belgikan zegoelarik, 1931-38 urteen artean, Lizardiri eginiko gutuna eta honen erantzuna.

Jokin Zaitegik idatzirikoa 1932ko azaroaren 14koa da, eta berak idatziriko zenbait olerkiri buruzko irizpidea eskatzen dio Lizardiri, nahi izanez gero, Labaien eta Arreseri ere erakus diezazkiola esanez [2]. Lizardiren erantzuna hilabete baten ondoren iritxi zitzaion Zaitegiri, bere idazlanak hobetzeko hainbat oharrez horniturik.

Jokin Zaitegik Lizardiren gutunetarik zenbait gehiago izan zitzakeelako usteak zuzendu ninduen 1982an haren bizitzari buruzko liburuaren egile den Josemari Velez de Mendizabalengana, ea haren dokumentu pertsonalen artean horrelakorik bai ote zen galdetzera. Baiezkoa eman zidan. Hauxe da Lizardiren gutun pertsonalek gure begien aurrera iristeko egin duten bidea.

Duela gutxi, ordea, eta gutun horien gorabeheraren gaia agortua zegoela uste nuelarik, Patxi Altuna euskaltzainak argitaraturiko artikulu batek berri jakingarriak erantsi dituela deritzot.

Olerkarien taldeko idazleek literatur kritiko eta literatur irakasle eta adiskide izan zuen Aita Estefaniari eskainiriko artikulua argitaratu berri du Patxi Altunak. Benetan pizgarria, Lizardiren gutunetan eta egunkarietako artikuluetan literatur gidari eta irizle jakintsutzat aipatzen zen Aita Estefaniari buruz gehiago jakin ahal izateko Aita Altunak eskainiriko datu-sorta jakingarri hau: Bilbon 1989ko azaroaren 24ean "Jose María Estefania Zabala (1989-1942)" izenburua duen hitzaldiaren transkriptzioa.

---

1 ORIXE; Idazlan Guztiak, III, Artikulu eta Saiakerak, Etor, Donostia, 1991, 462. or.

2 VELEZ DE MENDIZABAL, J.M.; *Iokin Zaitegi*, Izarra, Arrasate, 1981, 49. or.

Aita Estefaniak San Salvadorren zegoelarik, Aita Juantxu Goikoetxeari eginiko aipamen interesgarri bat du jasoa Aita Altunak:

> "...San Salvadorren Igande eta jai egunetan bixita egitera joaten omen zitzaion maiz, lauzpabost urte lehenago Belgikako erbeste aldian bere literatura irakasle izan zenari, eta honek behin honela esan omen zion: 'Anai Goikoetxea, nere gela onetako zenbait paper, gutun, lan eta agiri gabe ezin idatziko da XX.garren mendeko euskal literaturaren historia'" [1].

Patxi Altunak berak Aita Estefaniak aipatzen dituen paper horiek eskuetaratzeko biderik bai ote zegoen jakin nahi izan zuelarik, itxaropen guztiak galdu zituen.

> "...irakurria bait nuen Aita Goikoetxea beraren paper mutur batzutan, hura San Salvadorren 1942an ia batbatean hil eta egun gutxiren buruan, etxeko ganbarara eraman zituztela, kutxa handi batean sarturik, haren paper guziak eta handik bizpairu urtetara ganbaratik betiko izkutatu zirela" [2].

Aurrerago, eta Juantxu Goikoetxeak Aita Estefaniarekin izandako elkarrizketa konfidentzial haien berri ematen duelarik, Lizardiren gutun batzu aipatzen dira:

> "Orixe jaunak sarri idatzi ohi zion (Aita Estefaniari) ta barrengo asmo, kezka ta lagun arteko katramillen berri eman. Gogoan dut oraindik, eskutitz oiek irakurria bainaiz, Estefaniari nola azaltzen zizkion Euskalerritik Eskualerrirako joan-etorri (Lizardik "Itz-Lauz" bere liburuan eman digun) artakoxe araberak (sic)... Lauaxeta ta Lizardi ere Estefaniakin artu-emanetan zeuden, Lauaxeta leendik, jesuita izan zanekotik alegia, ta Lizardi Orixek erakarrita. Alaxe zion itzez-itz Lizardik Estefaniari bere lenengo eskutitzean. Orixek Estefania kritiku edo iritzi-emalleagan fede itsu-itsua karta ontan (edo beste batean, ori eztakit) ageri zan, eta fede ori Lizardiri Orixek erantsi ziola ere bai..." [3].

Bada, Aita Altunaren ustez San Salvadorren behin betiko galdu diren Aita Estefaniaren artxiboko paper sortak, gure idazle gorenen eskutitz, olerki eta agiriak, baliteke erabat galduak ez izatea.

Aita Estefania 1931ean atera zen Loiolatik Belgikaruntz Errepublikak Josu Lagundia desegiteko emandako aginduaren ondorioz. Jokin Zaitegi bera ere Venezuelako Meridan deserriraturik hiru urte igaro ondoren, Beljikara joan zen Teologia ikasketak osatzera, Marneff-era zehazki. Aita Estefania aldiz, Tournain kokatu zuten eta bost urte eman zituen han erretorikoen literatur irakasle lanetan.

Aita Estefaniak 1937an jaso zuen Ertamerikara abiatzeko agindua, aurrenik Nikaraguara, baina 1938tik, 1942an hil zen arte, San Salvadorreko ikastetxean izan zen literatura eta gaztelera irakatsiz.

Aita Altunak dioskunez, Jokin Zaitegi ere ikasturte horretatik aurrera hiri bereko apezgai nagusien ikastetxean ari zen, eta Juantxu Goikoetxea ere bai. Jose María Vélez de Mendizabalek ematen dituen datuek ere hala ziurtatzen dute:

> "San Salvadorreko Apaiztegia nuen jomuga, haraxe izan nintzen bidalia. 1938ko Uztailaren 15ean hasten da" [4].

Aita Estefania 1942ko urtarrilaren 10ean hil zen, eta haren artxibategia gorde eta urtetara galdua dela esaten zen.

Aita Estefania eta Jokin Zaitegi. Bi euskaltzale jakintsu hauek aipatzen dituzten eskutitz, agiri eta idazkiak baten eskuetatik bestearenetara heldu zirela pentsatzea ez dirudi ausartegi. Bitartekotza inork egin al zuen ez dakigu. Lekukotza ematen ari zaigun Josetxu Goikoetxeak berak gutun, agiri eta idazki garrantzitsu horiek erabat galduak direla uste du.

---

1 ALTUNA, P.; "Jose María Estefania Zabala (1989-1942)" in *Euskera* 1990, XXXV, 76. or.

2 *Ibidem*, 76. or.

3 ALTUNA, P.; *Ibidem*, 84. or.

4 VELEZ DE MENDIZABAL, J.M.; *Iokin Zaitegi*, 62. or.

Bestalde, berriz, Euskal Herrian gerratea hasi zenean agiri guzti horiek jaso eta Beljikara eraman zituena nor edo zein erakunde izan zen jakitea ere ezinezkoa izan zait. Halere, kontsolagarri da behin betiko galdua uste genuen artxibategi horren zatitxo bat bederen ez dela galdua jakitea, 1944 urteaz geroztik Josu Lagundia utzi eta artxibategi hori gorde zuen Jokin Zaitegi eta haren ondarea jaso duen Jose María Velez de Mendizabali esker.

1. LIZARDIREN ESKUTITZAK

1.1. AITZIN-OHARRAK

Jokin Zaitegik hamarnaka urtetan zehar gorderiko gutunak sailkatu eta hurrenez-hurren jartzerakoan, aldez aurretiko zehaztapen batzuk egin beharra ikusten dut:

1.- Vélez de Mendizabalek niri eskuraturiko gutunak 1931ko martxoaren 21ean hasi eta 1932ko irailaren 1erartekoak dira. Azkenengoa Lizardik berak idatzia den arren, lehenengoa Villalongak Lizardiri zuzendurikoa da eta berez, abuztuaren 17rarte, hots, Lizardik Madrilen bizi den Ramón lehengusuari erantzunez gutuna idatzi zuen arte, ez da Lizardiren eskuz idatziriko gutunik aurkitzen ahal nik eskuraturiko gutun-sortan.

2.- Jokin Zaitegik hauez gainetiko beste zenbait gutun ere bazituen, noski. Lehen froga *Euzko Gogoa* aldizkarian [1], argitara eman zituen bi multzo txikiak, hots, Lizardi eta Larreko ziranen artekoak dira, eta, bigarrena, gerora, Vélez de Mendizabalek *Jokin Zaitegi* liburuan argitaraturiko beste biak, Jokin Zaitegik berak Lizardiri eginikoa eta haren erantzuna.
Bi sortak guk ditugun bi muga-datetatik at daude. Zehazki esanez, Larreko eta Lizardiren artekoak, 1929ko urriaren 4an hasi eta 1930ko abuztuaren 21erartekoak dira, eta bestalde, Velez de Mendizabalek argitaraturikoa, Jokin Zaitegik Lizardiri eginikoa, 1932ko Azaroaren 14koa da eta Lizardiren erantzuna berriz, abenduaren 14koa.

3.- Aitzolek "El poeta Jose María de Lizardi"[2] artikuluan aipatzen dituen "Eskutitzak" izenburupean bildutako karpeta txukun haietako bat osatu bide zuten eskuratu ditugun gutun hauek eta Jose María Velez de Mendizabalek 1981ean ezagutzera emandako biak. Gainerakoak, aurrekoak eta geroagokoak, galduak bide dira.

4.- Gutunak gordetzerakoan, Lizardik igorleak bidalirikoa -jasotze-data eta guzti- eta berak idatzirikoaren kopia gordetzeko ohitura zuen, lantegiko bulegoan ohitura izan bide zuenari jarraikiz, eta, ondorioz, ia kasu guztietan igorle eta hartzailearen iritzien lekukotza interesgarria ere badugularik.

5.- Ez da bere gutunen artean lan arlokorik batere nahasten, guztiz pertsonalak, alderdiari dagozkionak, Eusko Ikaskuntzari loturikoak eta literatur harreman eta argitaralpenei buruzkoak bakarrik daude.

6.- Bostgarren puntuan aipaturiko lau arlo horietan Lizardiren nortasunaren prisma ezberdinak agertzen zaizkigu: arlo pertsonalean, sentibera eta oso maitekorra emazte eta semealabekiko; umoretsu lehengusu eta adiskideekiko. Alderdiari dagozkionetan, berriz, zernaitarako prestu eta politika egoeraz kezkatsu. Eusko Ikaskuntzarenetan lantsua eta ekintzak antolatzeari emana, ordenu handikoa. Literaturaren arloan berriz, zorrotza, nabardura bakoitza neurtuzalea eta oso ideia garbikoa, nortasun handikoa da arlo honetan.

7.- Eranskin honetan transkribatzerakoan letra italikaz adierazten dira egileen azpimarrak. Azento eta ortografia okerrak orijinalean bezala jaso dira.

---

1 1956, Ilb-Ots, 94-99. or.

2 in *Yakintza*, 1933, III, 163-177. or.

1.2. GUTUN ZERRENDA

1.2.1. Gutun pertsonalak

1. Dok.	1931-8-11	Madrileko Ramón lehengusuak Lizardiri.
2. Dok.	1931-8-17	Lizardik Ramóni erantzunez.
3. Dok.	1931-9-24	Ramón lehengusuak Lizardiri.
4. Dok.	1932-1-1	Georges Charon jaunak Lizardiri eguberriak zoriontzeko gutuna.
5. Dok.	1932-1-5	Erregei gutuna Lizardiren seme-alabek, Lizardik idatzia.
6. Dok.	1932-2-23	Ricardo Zabalak Lizardiri.
7. Dok.	1932-5-31	Lizardik Albizu'tar Pantzeskari.

1.2.2. Gutun politikoak

8. Dok.	1931-8-21	GBB-ren idazki orokorra. Gaia: Alderdi barruko gutunetan euskara ere erabiltzen has dadila gomendatzen da.
9. Dok.	1931-8-27	Lizardik Barrena jaunari eginikoa. Gaia: *Ami vasco* liburuaren itzulpenaren arazoaz.
10. Dok.	1931-10-28	Lizardik Barrena jaunari eginiko gutuna. Gaia: EAJ-k antolatzeko asmoa duen Idazkaritza Orokorraren antolakuntzarako Aitzolek idatziriko gutun batez hitzegiten du, haren kopia bat dirudiena ere bidaliaz bat.
11. Dok.		Aitzolen idatziaren kopia (?).
12. Dok.		Bizkai -Buru-batzarrak Alderdiaren Idazkaritza Orokorra sortzeko duen asmoa azaltzen duen "zirkularra" edo idazki orokorra.
13. Dok	1931-11-5	Barrena jaunak Lizardiri eginikoa. Gaia: Barrena jaunak GBBko lehendakaritza utzi egin nahi duela adierazten dio lehendakari-orde den Lizardiri.
14. Dok.	1931-11-11	Lizardik Barrena jaunari. Gaia: Ez dezala kargua utzi eskatuz.
15. Dok.	1931-11-24	Lizardik J.A. Agirreri. Gaia: EBBren batzar baten deia egiteko eskatzen du Estatutuaz hitzegiteko.
16. Dok.	1931-12-11	GBBren idazki orokorra. Gaia: Gabon-saria biltzea.
17. Dok.	1932-1-10	Barrena jaunak Lizardiri. Gaia: Eusko-Ikasbidearen banaketaz.
18. Dok.	1932-1-14	Abandoko "Sabin Etxea"ko Carlos de Billalabeitiak Lizardiri. Gaia: Lizardik bidaliriko diru-laguntza eskertzea.
19. Dok.	1932-2-7	Lizardik BBBko lehendakariari. Gaia: Bigarren Estatutuaz aritzeko bilera baterako onespena.
20. Dok.	1932-( )	Lizardik Jose Antonio Agirreri. Gaia: Bigarren Estatutuaren propagandaz.
21. Dok.	1932-4-5	Barrena jaunak Lizardiri. Gaia: Gipuzkoako Idazkaritzarako izendapena berresten duen gutuna.
22. Dok.	1932-4-8	Jose Ignazio de Lizasok Lizardiri.

Gaia: Gipuzkoako Idazkaritzaren izenean gutun bat idazteko eskatuz erdaraz eta euskaraz, eta beste zenbait gai ere bai.

23. Dok. 1932-6-6 Debako Eusko Gaztedi Jeltzalearen izenean Berasaluze lehendakariak Lizardiri.
Gaia: Deban egin nahi dituzten ospakizun batzuetarako laguntza eskatuz.

24. Dok. Pilartxo Sansinaneak "Erregiñetan" antzespenaren aurrekontua Lizardiri.

25. Dok. 1932-7-16 Debako Eusko Gaztedi Jeltzaleari Lizardik.
Gaia: "Erregiñetan" delakoa antzesteko.

26. Dok. 1931-9-30 Segundo Bilbao apaizak Argentinatik Lizardiri eginiko gutuna.
Gaia: Egoera politikoaz diharduen gutuna.

27. Dok. 1932-6-13 Lizardik Aita Segundo Bilbaori erantzuna.
Gaia: Azken bi urte horietako euskal politikaren gorabeherak azaltzen dizkio, bere iritzi eta itxaropenak tartekatuz.

1.2.3. Eusko Ikaskuntza erakundearekiko zereginak eta kultur arloko harremanak

28. Dok. 1931-3-21 Villalonga konde jaunak Lizardiri.
Gaia: Irakaskuntza eta euskara. Bilatu behar diren irtenbideei buruzko gutuna.

29. Dok. 1931-5-16 Anjel Apraizek Lizardiri gutuna.
Gaia: Uda Ikastaroaz.

30. Dok. 1931-10-29 Lizardik Angel Apraizi.
Gaia: Lopez-Mendizabalen *Xabiertxo.*

31. Dok. 1931-10-29 Lizardik Julian Elortzari eginikoa
Gaia: *Xabiertxo* liburua berrargitaratzeaz.

32. Dok. 1931-10-30 Bernardo Estornés Lasak Lizardiri.
Gaia: Testugintzaz.

33. Dok. 1931-10-31 Bernardo Estornés Lasak Lizardiri gutuna.
Gaia: Lopez-Mendizabalen *Xabiertxo*

34. Dok. 1931-12-25 Jabier Mintegiagak Lizardiri.
Gaia: Euskal eskoletako testugintzaz.

35. Dok. 1932-1-26 Luis Sesé jaunari Emakume Abertzaleen Batzak zuzendua.
Gaia: Irakaskuntza kristauaz.

36. Dok. 1932-3-23 Estornés Lasak Lizardiri.
Gaia: Testugintzaz.

37. Dok. 1932-6-6 Lizardik Jabier Mintegiagari.
Gaia: Euskal eskoletarako testugintza.

38. Dok. 1932-6-17 Lizardik Jabier Mintegiagari.
Gaia: Testugintzaz.

1.2.4. Euskal hizkuntza eta literaturaz

1.2.4.1. Euskal hizkuntza: Fonetika, ortografia...

39. Dok. 1931-11-16 Tomás Jayok BBBren izenean Lizardiri.
Gaia: "Sabin poeta" artikularen ortografia aldaketaz.

40. Dok. 1931-11-17 Lizardik Tomás de Jayori erantzuna.

Gaia: Ortografiaz.

41. Dok. 1931-11-23 Keferin Jemeinek Lizardiri.
Gaia: Ortografia.

1.2.4.2. Literaturaren inguruko zereginetaz

a) Tolosako Olerti Saria dela eta zorion-agurrak eta erantzunak

42. Dok. 1931-8-30 Daniel eta Garmendiak Lizardiri.

43. Dok. 1931-10-7 Lizardik Daniel eta Garmendiari eskerrak

44. Dok. 1931-10-2 Lizardik Aita Estefaniari.

b) Literatur interesak eta aktibitateak

45. Dok. 1931-10-29 Lizardik Estornés Lasari.
Gaia: Eusko Ikaskuntzako gaiez eta Etxeparez.

46. Dok. 1932-9-1 Lizardik Venanzio de Amezti apaizari egina.
Gaia: Liburu batzuen eskabidea eta azalpenak.

47. Dok. 1931-11-21 Plazentziako Dionisia Oruetak Lizardiri.
Gaia: Lizardiren *Laño ta Izar* antzespenaren kopia bat eskatuz.

48. Dok. 1931-11-24 Lizardik Dionisia Oruetari erantzunez. *Laño ta Izar* antzespenaren gorabeherak aipatuz.

1.2.4.3. Biotz-Begietan liburuaren argitaralpenaz: Verdes Elorriaga eta Lizardiren arteko gutunak

49. Dok. 1932-1-31 Lizardik José Verdesi gutuna.
Gaia: Liburuaren hitzaurrearen bigarren zuzenketak eginak daude. Liburuaren tamainaz, tipografiaz, formatoaz.

50. Dok. 1932-2-12 José Verdesek Lizardiri.
Gaia: Liburuaren lehen pruebak bidaltzen dizkio. Bai eta liburuaren itxurari, formatoari buruzko xehetasunak ere.

51. Dok. 1932-( ) José Verdesek Lizardiri.
Gaia: Liburuaren azalaz.

52. Dok. 1932-5-7 José Verdesek Lizardiri.
Gaia: Liburua amaitua da eta aleak banatzeko prest daude.

53. Dok. 1932-5-10 Lizardik José Verdesi.
Gaia: Lizardiri ez zaio liburuaren azala batere gustatzen. Kritika gogorrak egiten ditu.

54. Dok. 1932-5-11 Lizardik José Verdesi.
Gaia: Azal berri batez argitalpen saio bat egitea proposatzen dio.

55. Dok. 1932-6-3 Lizardik José Verdesi.
Gaia: Azal berria eginarazi eta lehen bait lehen atera dezala eskatzen dio.

56. Dok. 1932-6-17 Lizardik José Verdesi.
Gaia: Liburuaren banaketaz.

1.2.4.4. Biotz-Begietan liburuari buruzko gutunak

57. Dok. 1932-5-19 *La Gaceta del Norte* egunkariak argazki bat eskatzen dio Lizardiri, Bonifazio Etxegaraik "Xabier de Lizardi" izeneko artikulu bat argitaratzeko asmoa duelako.

58. Dok.	1932-5-21	Feli Areitiok Lizardiri. Gaia: Aita Estefaniaren berri ematen dio, Tournain izan dela eta beste kontatuz. Liburua dela eta, zorionak ematen dizkio.
59. Dok.	1932-6-4	Lizardik Feli Areitiori erantzuna. Gaia: Areitiok erabilitako gaiei erantzunez.
60. Dok.	1932-6-6	Lizardik Manu Sotari zorion-agurra eskertuz.
61. Dok.	1932-6-6	Lizardik Lauaxetari. Gaia: Liburua ateratzeko zailtasunez eta *Euzkadi*ko "Tcheca"ren aipamena.

1. DOKUMENTUA

1931-VIII-11

R. Aguirre [1]

Calle del Prado 29, Madrid

Querido lengusu J. Mari:

Por aquí todos con osasuna y suponemos que por esa andareis lo mismo que es lo que deseamos. Te mandé recuerdos con mi lagun zarra Emeterio Arrese [2] ésta primavera pasada y se comprometió en darlos y me dijo tendría mucho gusto en charlar contigo pues le gustas mucho como escritor vasco dice que le satisfaces mas que ninguno de los actuales pero dudo cumpliera lo ofrecido pues su burua está arrac jota y ni se acordaría ya de lo prometido, quizas dentro de unos años se acuerde y te los dé y muy cumplidos y en verso. Tengo que molestarte y perdóname deseo una mano o dos si es que lo encuentras que seguramente no lo encontrarás pues no existirá un folleto o escrito sobre la vida y andanzas de Iparraguirre y si no lo encuentras y te fuese fácil tomar datos en algun librote de los que seguramente tu conocerás por dedicarte al estudio del vasco me mandases una relación por escrito de lo que buenamente puedas, lo necesito no para mi pues en el otro mundo ya me contará Iparraguirre sus eroaldis lo necesito para un escritor enamorado del vardo vasco. Todo ésto si tienes tiempo que perder y ganas de gastarlo, si te causa la mas minima extorsión *nada* pues no están los tiempos para sentimentalismos se terminaron los actuales son de pistolerismos eta jota aurrerá eta artzen duana beretzat. Darás mis recuerdos a tu Sra. amary eta anñe arrebary y tu mandas cuanto gustes al lengusu de los 100 y no quiero decir + kilos

Ramón

---

1 Madriden bizi zen Jose Maria Agirreren Ramón Agirre lehengusuak bidaliriko bi gutun pertsonal aurkitzen dira sorta honetan. Lehenengo honi erantzunez idatzi zuen Lizardik 1931-9-17ko erantzunezko gutuna, 2. Dokumentua.

2 Emeteri Arrese Bauduer (1869-1954) Poeta tolosarrak haurtzaroa Tolosan eman bazuen ere, Gasteizen ere zenbait urtetan bizi izan zen, helduaroan urte luzetan Ameriketan ibili zen, fortuna egin nahiez. Ariurri bizikoa eta abentura zalea, hiru olerki liburu argitaratu zituen: "Nere bidean" (1913), "Txindor" (1928) eta "Olerki berrizte" (1952).

2. DOKUMENTUA

Jose María Aguirre
Tolosa
Teléf. 13-64
17 Agosto 1931

Querido primo Ramón: A su debido tiempo recibí tu *xelebre* carta, que en efecto como supones nos ha cogido a todos en plena salud, a Dios gracias.

Enseguida averigüé que algo existe escrito acerca de Iparragirre, bien que aún no haya podido dar con el librejo en las librerías en que he preguntado. Sin embargo, por medio de dos amigos a quienes tengo encargada su busca y captura espero poderte complacer. Me haces recordar que el verano pasado se paseó por aquí una *atsua* grande-grande, americana ella, hija del "bardo" segun me aseguraron; aquellá ya era mas que un folleto, un tomo muy cumplido, aunque creo que tu amigo no hubiera sacado de él un punto a lo que desea saber, porque, si no me equivoco, el de la guitarra, añorando sus montes, vínose por aquí dejando a su prole poco menos que abandonada [1] *larru-gorriyan.*

Lo que supusiste acerca de la personalidad de Emeterio Arrese [2] es totalmente injusto, pues el amigo me transmitió tus recuerdos muy cumplidamente, hace una infinidad de tiempo; creo que en tiempos de la dinastía borbónica; con que calcula... Lo que pasa es que, aunque yo te los agradecí de veras, no he tenido ocasión de manifestarlo.

Ayer precisamente le volví a ver. Está pasando una temporada en Lekunberri, la cabeza "arin-xamarra" dice que le dan "txorabiyos" al menor esfuerzo; así se trate tan sólo de buscar un consonante. Ya le dije que tenía noticias tuyas. Aquí estamos todos bien: Mi mujer y mis crios, que son tres, dos *mutikos*, y una *nexka-motza*, con tendencia convertirse en cuatro dentro de poco. Mi madre la mar de rolliza. Hermanos, hermanas, todo el mundo bien. Aquel rubiales, que tanto te recuerda a mi padre, anda con novia: una de las chicas del célebre *Xekre*, actual Gobernador republicano de Nabarra.

Sabrás (supongo, no me atrevo a asegurarlo) que tía Victoria murió en Zarauz, a principios de año, de cancer de matriz. Y se acabó por hoy, hasta que dé con el librejo. Muchos recuerdos de toda esta gente para tí y los tuyos, y sabes te quiere tu primo

Josemari

---

1 Tatxatua ageri da, eta euskarazkoaz ordezkatua.

2 Lizardik eta Ramon lehengusuak Emeterio Arrese olerkariaz egiten dituzten aipamenak hurbileko harremana zutela frogatzen dute. Ramonentzat "lagun zaarra" da: Arresek 64 urte ditu garai horretan, Lizardik, 35. Lizardiren gutun hauetan Emeterio Arreserekiko harremana hurbilekoa zela ikus daiteke, eta 1931-8-11ko gutunean Ramon lehengusuak adierazirikoaren bidez antzeman daiteke bi idazleon arteko afinidade literariorik bazela, elkar estimatzen zutela. Gogora 1931ean Tolosan ospatu zen II. Olerti Sariketa Emeterio Arreseren omenez izan zela, eta Lizardik zilarrezko aritz abarra irabazi zuenean urriaren amaieran, epai-mahaiko izan zela Emeterio Arrese "aintzazko burugoaz" (*El Día*, 1931-2-22, 16. or.). Bestalde, Jokin Zaitegik Lizardiri 1932-11-14ean bidaliriko gutunean bere poemak Arreseri ere erakusteko iradokitzen dio, bi olerkari tolosarren arteko tratuaren hurbiltasunaz baliaturik. Ikus *Iokin Zaitegi*, Izarra, Arrasate, 1981, 49. or.

3. DOKUMENTUA

Ramón Aguirre
Calle del Prado, 29, Madrid
IX-24-1931

Querido lengusu Jose Mari:

Recibí una caja conteniendo dos bandejas, supongo serán para mi chica Anita que se casó el Viernes 16 y me sentó el casorio como una mala digestion pues aunque es cosa que la mayoria lo hace y así es el mundo yo no puedo mas que sentirlo porque quisiera que los chicos no crecieran y tenerlos siempre cerca de mi pero siempre niños y no que un dia aparece uno que te la pide y se la lleva y que se hizo la pascua todo aquel cariño, chico, en la familia parece que sonó la campana del casorio hoy sabado por la tarde se casa Maria mi sobrina la mayor de las de mi hermana ya casi casi neskasarra o cosa así, casi lepotik pasia como decia Paskualita fin fin kayota cuando se casaba alguna algo madurita y en tu ultima me [1] que resulta ya repique del eskontza en la familia ya lo pagarán pobrecillos no siempre estan los tiempos color de rosa, si tu futura cuñada es tan salada como la mongita Natalia su hermana le felicito, la conocí en Segovia juntamente con otra de Orio apellidada Loidi al hacer una visita a una sobrina de mi muger de la misma comunidad, éstas pobres si que no lo veran todo color de rosa.

Un millón de gracias de parte de todos para todos por el regalo que se estima aún mas cuando estando ausentes se acuerdan de uno y causa gran satisfacción el que uno cuente aún en éste mundo con buenos parientes desmintiendo lo de parientes y trastos viejos lejos. Parecerá que aun estoy chorua estado comun en mi, pero creo que ésto toca ya al fin pues desde Abril estámos sin dar golpe se me escapó toda la clientela y espero no hagan lo que las golondrinas, pues tengo noticias de que muchos se quedan por el Pirineo vasco, ambas vertientes, dichoso del que anida en ellos.

Siento tus andanzas tras Iparraguirre que parece que lo que se escribió de él estaba destinado ha tener el mismo espíritu del golfo cantor, ya no me interesa pues el artículo referente a Iparraguirre se publicó ya en Estampa y ya te decia en la mia que si buenamente podias adquirirlo no que te preocupase dando tantos pasos siempre molestos lo cual lo siento pues en el tomo de Guipúzcoa de la Geografia del Pais Vasco Navarro y referente al pueblo de Villarreal trae bastante sobre lo mismo.

Sin mas con muchos recuerdos de todos para todos y repitiendo las gracias por el regalo nunca arlote al contrario muy estimable queda tu primo

Ramón

1 **Ezin da irakurri.**

4. DOKUMENTUA

Georges Charon
Rue de la Madelaine à l'Etang
à
Gond-Pontouvre
(Charante)
Angulema, el 1 de Enero 1932

Muy señor mio,

Desde muchos dias antes las vacaciones me habia escrito Vd. y todavia no le habia contestado. Me excuso y ahora le presento a Vd., a su Señora, y a sus lindos niños mis mejores votos de felicidad, de salud y de prosperidad por el nuevo año 1932.

Lo siento mucho no poder escribirle más a menudos, pero soy tan ocupado que tengo pocos ratos libres. Uno de mis amigos tolosanos, (quizá le conozca Vd., se llama Juan J. Abad) me manda de tiempo a otro alguna novela española y asi, como me gusta la lectura, no olvido tan rapidamente, lo que Vd., el Padre Daniel y otros amigos me aprendieron. ¡Con qué alegria volveria en Tolosa!

¿Que tal se va su pequeñita familia, esos graciosos chiquillos?

Dentro de pocos dias recibira Vd. dos paquetes y me alegraría mucho que les gustáse, sobre todo a su Sra. y a sus niños. Me prohiben las dificultades del correo mandarle cosas más importantes; lo siento en el alma.

Cumple Vd. con su Señora Esposa, besa sus niños por parte mia y recibe Ud. un afectuoso apretón de manos del que se reitera de Vd. su siempre agradecido,

Charon [1]

---

1 Georges Charon "Perot" entrepresako lanpostuari loturiko harremana da Lizardirentzat. Antonio Maria Labaienek adieraziaren arauera, "Perot" entrepresak jatorrizko lantegia Anguleman zuen eta Tolosakoa haren filiala zen. Jose María Agirre Tolosako filialaren gerentzia lanetarako akuratu zuten 1923an gutun honetan ugazabak Angulemara itzultzeko, George Charon ere enpresa berean Tolosan urte batzuez lanean ihardun ondoren Angulemara itzuli zen. Antza denez, Lizardi eta George Charonen arteko harremanak lan giroari loturikoak ez ezik, pertsonalak ere izan ziren azken honek Tolosan egin zuen denboran, espainiera harekin eta Aita Danielekin ikasia zuela adierazten duenez.

5. DOKUMENTUA

JOSE MARIA AGUIRRE
TOLOSA'tik 1932' gko- Ilbeltzak 5-g.
TELEF. 13-64

Meltxor Gaspar ta Baltasar errege jaunak: Gu iru mutiko ta nexka bat gera etxean, baña Mikeltxo oso txikia da, ta aurtengoz ez du ezer bear. Beti-beti ez gera oso txintxoak izan, baña emendik aurrera bai, izango gera: aitatxok eta amatxok agindu guzia egingo degu.

Nik nai nuke, beorrei ondo badatorkie, bizicleta bat, lau irrakikoa, bi aundi ta aurrekoari erantsita, alboetara, bi txiki.

Xabier.

Nik nai nuke tren edo bultzi polit bat, beok dutenetako politena.

Yontxu.

Nik nai nuke andare aundi bat, al dala musugorria ta lurrera erorita puskatzen ez diranetakoa.

Miren Arantxaxu [1]

1 Lizardik eskuz idatziriko gutun honek Jose María Agirreren lau seme-alaben aipamena egiten du Xabier, Yon, Miren Arantzazu eta Mikel. Gutun honi darion etxe-giroak "Etxeko Sagastia" poema edo "Etxe-barne bizia" (*Argia*, 573, 1932-6-17, 9. or.) idazlan literarioak gogora arazten ditu.

6. DOKUMENTUA

Ricardo Zabala
Paseo de las Acacias, núm. 31
Madrid
23 febrero 1932.
Sr. Don. José Maria Aguirre.
TOLOSA (Guipuzcoa.)

Mi querido amigo:

Recibí su carta de 18 del corriente, cuyo contenido le agradezco vivamente, pues ella me demuestra la gran estimación en que nos tiene.

Ya mi tio Tomás, hermano de mi padre (q,e,p,d,) le enteraría del bárbaro y brutal atropello de que fue víctima, atropello si Vd. quiere lo califique de imprudencia por parte del mecánico que conducia el taxi, pero al fin asesinato, toda vez que estaba delante de casa pagando al taxi que lo conducia y en esa operación otro que bajaba hacia la pradera de San Isidro, dicen que con las luces apagadas, choco con el de mi padre, lo destrozo, arrastró a él y al chofer tambien lo dejó mal herido. Esto fue todo lo que ha traido a mi casa todo el dolor que hoy experimentamos.

Le repito nuevamente las gracias por sus sentidas frases, y esperando verle por aquí para el mes de abril, según indica [1], le saluda cariñosamente su buen amigo y s,s, q,e,s,m,

Ricardo Zabala

1 Famili arteko harremana adierazten du gutun honetako gorabeherak. Interesgarria da gutunaren azkenaldera aipatzen den apirila inguruko bidaia, hain zuzen ere *Biotz-Begietan* argitaratu zuen garaiko bidaia luzea, Verdes Elorriagari hainbatetan atzeratua zuela esaten duen bidaia bera izan bait daiteke. Ikus Lizardik José Verdesi 1932-5-10ean idatziriko gutuna, 53. Dokumentua.

7. DOKUMENTUA

1932-gko. Orrillak 31-g.

Albizu'tar Pantzeska jaunari.

LAZKANO'n.

Adiskide ona: Larrañeta'tar Bingen, orain Ataun'goa daramana, izan nun atzo etxean, orko aberesendakintzakiko arloa adirazten.

Gizon, oso zuzen, zintzo ta langillea dezute ori: argatik, eta aspaldiko adiskide dedalako, enetako pozez ikusiko nuke bere naia irixtea.

Badakit or guretakoak zeratela nagusi, ta, gizalegez egin al ba'ledi beintzat, nere ustea da, Larrañeta jaunari laguntza emanarekin erriari etzeniotekela batera lan txarrik egingo.

Zuek ikus, ta zuzenena erabaki. Baña, nere itz auek adiskide utsarenak bitez zuretzako: etzazula neregan iñola G-B-B'ren itzalik sumatu; erki-agintea ezin baititeke arlo oietan sartu [1].

Azketsi, ta eskarrak aurretik. JEL-pean beti zure:

Agirre'tar JM

1 Errekomendazio-karta bat da Bingen Larrañeta lagunaren aldeko laguntza eskatuz Pantzeska Albisuri. Aipagarria Lizardik arlo pertsonala eta politikoa banatzeko egiten duen azken oharra.

8. DOKUMENTUA

Gipuzkoa osoan barrena, aldez-alde, ainbeste batzar aberkoi ari diran garai pozgarri ontan, zerbaitek begia jo digu ta G-B-B onen mendeko U-B-B guziei oar bat egitera beartzen gaitu [1].

Batzar aberkoirik eratu nai duten batzordeak gañontzeko U-B-B'ei ta Batzokiei zuzendutako zabalkunde-idazki asko irakurtzen ditugu, bai agiriko edo argitalduak, bai bidaiezko edo ixilikakoak.

Begia jo diguna ez atsegiñez, alegia auxe da: idazki oietarik geien-geienak erdera utsez egiñak dira. Ta G.B.B. onen iritziz, Gipuzkoa'n bidaiezko guzi-guziak egin ditezke, ta dira eginbearrak, euzko-elez: agirikoak, bietara, nai ba-da.

Abertzaleon artean baderik, [euzkotarron izkera bakarra] [2] gurtzen ezpa-degu ta zor zaion itzal maitagarriaz inguratzen, abertzaletasunak ezartzen digun bearkunik estuenetako bati uts ematen diogu.

Zerura bitarteko orma luzeaz baño obeto bakartuko ta zeinduko genduke Aberria, euzko-ezpañetako mintzo bakarra euzkera lediñean; artarako ordea, eten gabe jo bear aurrera gure bidean barrena.

G.B.B. onek dei dagizute bada, ta arren-arrenez eskatzen, Gipuzkoa'ko abertzaleekiko idazki oro euzkera utsez egin ditzazuten, ta agiri-bearrekoak bietara (euzkeraz ta erderaz) nai baldin ba-da.

Idazki orokar au U-B-B guziei bialtzen diegu, zeñek oar-bearrik duan ta zeñek ez bereiztu gabe.

Aberriagandiko eskar ona aurrez.

G-B-B'aren ordez,
Lendakariak:
1931 - Dagonillak 21 [3]

---

1 Izenbururik gabe eta makinaz idatziriko gutun hau Gipuzko Buru Batzarreko Lehendakari gisa alderdikideei bidaliriko "zirkular" edo, berak dioen moduan, "idazki orokar" bat da. Lizardik erakunde euskaltzaleetan euskara erabil zedin 1930 inguruan Eusko Ikaskuntzaren esparruan eta gero egunkarietan Bonifazio Etxegarairekin izandako eztabaidaren kanpainaldi berean kokatzen ahal da, eta ondorioz, idazki orokar honen egilea bera zela baitetsi.

2 Parentesi artekoa eskuz erantsia dago.

3 Lizardik eskuz idatziriko data.

9. DOKUMENTUA

JOSE MARIA AGUIRRE
TOLOSA ' tik, 1931- gko. Dagonillak 27.
TELEF. 13-64

Barrena adiskidea [1]: Bera'ren "Ami Vasco" [2] bidaian bidali dizut orrera. Zuzendu-lanean asi nintzan, baña nik uste baño askoz zallagoa da: egonarria galdu-erazten dit zearo. Neroni itzultzen asi naiz, ta zuzentzea baño errezago iruditzen zait; bi atal ezin zuzendu izan ditut, eta itzuli berriz, iru parra-parra bukatu ditut. Lenengoa Bera'rena an barruan bialtzen dizut.

Bera'ren orri erriarentzako gogor-samarra irizten diot, eta nai-ta-naiez jendeak ulertuko duan gauza antolatu bear degu; gañerakoan lan alperra da. Nerea, ez nizuke esango errezago dagoan; ortan norbera epaile motxa da; zuek esan bear dezute ori.

Auxe buruak eman dit: Bera'rena Zinkunegi'ri eman zaiozu, ta errez zuzendu ditekela iruditzen ba-zaio, berak artu dezala lan ori, iñola al ba-du. Nereari errezago irizten ba-dio, nik artuko det nere gain itzulpena ta ekingo diot atertu gabe, ditudan txolarteetan. Edo-ta berak itzuli nai ba-lu, ni pozik.

Esango didazu - garbi gero; aiskide artean bear dan eraz- zuen iritzi erabakiak zeintzu izan diran.

Agur. Agindu Jel-pean.

Lizardi

---

1 Polikarpo Barrena Lizardiren gutun politiko gehienen hartzailea da. 1930ean etorri zen Euskadira Argentinako euskaldunen ordezkari gisa eta Zarautzen bizi izan zen 1936ean berriro atzerriratu arte. Polikarpo Barrenaren alabetako bat Arantza Barrenak Euskaltzaleak erakundearen ospakuntzetan partaide izaten zen demaklatzaile gisa eta 11. Dokumentuan froga daitekeenez, Emakume Abertzaleen Batzaren ordezkari ere bazen. Polikarpo Gipuzko Buru Batzarreko lehendakaria zen Lizardi, Barriola eta Olasagasti zituelarik batzarkide. Berari eskeini zion Lizardik 1931ean *Asaba zaarren baratza* olerkia: "Barrena'tar Polikarpa, adiskide min ta abertzale yatorrari, biotzez" (*Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 185. or.)

Polikarpo Barrena da era berean 1933-3-14ko *El Día* egunkarian Lizardiren azken orduen kronika zehatza egiten duena hurbileko adiskidea. Polikarpo Barrena kimikaria zen eta Añorgako Rezola lantegian jarduten zuen.

2 Lizardik aipatzen duen "Ami Vasco" (Bilbo, 1906) obra hau Evangelista de Ibero "Iber"en obra da eta 1932an argitaratu zen euskaraz Zarautzen, Euzko-argitaldarian, "Euzko-Ikasbidea" deituraz (ikus 17. Dokumentua).

Euskarazko itzulpen honek ez du zehazten nor den itzultzailea "G-B-B'k euskaraz argitaratatua" dio, baina hitzaurreak eta itzulpenaren tankerak Lizardiren ikutua eta taxua badute.

10. DOKUMENTUA

JOSE MARIA AGUIRRE
TOLOSA' tik 1931'gko. Urrillak 28.
TELEF. 13-64

Adiskide Barrena: Emen dijoakizu Goikoetxearen orri ori, azpian iru izen ditularik. Euzko Ikasleena ere (Langilleena bezela) *apolitico* da ta ezin jarri [1].

Labayen'ekin-ta itz egin det: orri orren *redaccioa* etzaiote biziro atsegin, len nik egin nizun ura (Tesoro del Partido) egokiagoa omen zan; baña ikusi det berriro nik, eta ark ere, oraingo, ikutu bearra luke franko, ta gañera abertzaleei bakarrik zuzendua da. Ikustazu arazo au, nik ere alegiña egingo det Ariztimuño'rena obetzen; egin bear nun onezkero, baña beti lanpean.

Gañera, emengoak zioten bost pezetako kuota bakarra ez ote litzaken obe.

Izketan-izketan, atera gendun oraintxe litzakela garaia G.B.B'k orri batzuk egin ta Batzoki guztietara zabaltzeko, arpide bat zabaldu dezaten: arpide orrek *Abertzalearen Gabon-saria* izango luke izena (Aguinaldo del Patriota), ta illeroko kuotaz beste, ori urteroko emaitz bakarra jarri diteke, oitura bezela. ¿Zer derizkiozu?

Ta antzerki-jaiei-ta G-B-B'k impuesto koxkor bat ezartzea? ¿Zer derizkiozu?

Damu det gauzok osatuago zuri ezin bidalia, baña tarte ezin arturik nabilzu, ta geiago ez det luzatu izan nai.

¿Astelenean-edo elkar-ikusiko ote-genduke?

Oraingoz beste gabe, agur, adiskide miña.

Ta garai bateko "amarrekoak", iganderako zakur aundi ura?

---

1 Lizardik aipatzen duen "Goikoetxearen orri ori" propaganda gisa erabiltzeko eta Jose Ariztimuño "Aitzol"ek erredaktaturiko idatzi bat zen —ziurrenik 11. Dokumentua—, eta gutun honekin batera bidali zuen. Era berean Lizardiren eskutitzen artean gai honi beroni loturiko Bizkai-Buru-Batzarraren idatzi bat jasotzen da, Eusko Alderdi Jeltzalearen barne-antolakuntzan Idazkaritza sortzearen garrantzia azpimarratuz eta alderdikideen laguntza ekonomikoa eskatuz (Ikus 12. Dokumentua).

11. DOKUMENTUA

Muy Sr. mio. El Pais Vasco se halla, quizas, en el momento mas critico que haya atravesado a lo largo de su existencia. De la actitud que ahora tomemos los vascos y de la acción que desarrollemos dependera la suerte de nuestro pueblo. Una acción constante, decidida y actuante podrá salvarlo. La desidia y la apatia de hoy puede traer aparejada en un futuro, bien proximo, la desaparicion de Euskalerria, como pueblo.

Por esto urge intensificar nuestra accion politica, cultural y social vasca, encuadrada dentro de los dictados religiosos-catolicos tradicionales.

Debemos intensificar la enseñanza del euskera creando escuelas y editando libros; debemos fomentar toda obra de caracter social vasco, v.g. Solidaridad de Obreros Vascos, organizando, tambien, circúlos de estudios sociales adaptados a Euzkadi; desarrollar y propagar las caracteristicas propias de la raza cantos, bailes, costumbres típicas, etc.etc.; y, sobre todo, debemos en cada cerebro vasco, despertar la preocupación del destino de nuestra patria y el sentimiento de su responsabilidad política en la hora presente.

Se impone, antes de nada, una potentísima labor de proselitismo político, para defender los derechos seculares de Euzkadi. Toda esta ingente labor debe llevarla a cabo una organizacion fuerte, robusta y extendida por todo el Pais Vasco. Ninguna mas adecuada para ello que la del Partido Nacionalista Vasco. Pero dentro de esta organizacion, dentro del Partido Nacionalista Vasco, es necesario hallar, y con máxima urgencia, personas capacitadas y aptas para desarrollar esta misión de vida o muerte en la actualidad.

Unos cuantos hombres total, plena y absolutamente dedicados durante todo el dia, sin otra preocupacion que laborar en favor de EUSKALERRIA, en el terreno social, politico y cultural, es lo que como el remedio mas eficaz pretendemos ahora establecer.

Mas para obra de tamaña envergadura urge el recaudar una cantidad importante que permita al Nacionalismo Vasco organizar esta empresa de actividad, propaganda y proselitismo, llamado Secretariado.

Secretariado del Partido Nacionalista Vasco, que no sera otra cosa que un centro orgánico, vital, propulsor y directivo de toda iniciativa y accion vasquista, y a cuyo afan esten absolutamente consagradas personas convenientemente preparadas.

Para conseguir tan elevada como urgentisima organizacion y tan necesaria al propio tiempo en Guipuzcoa, nos atrevemos a solicitar su ayuda económica, su entusiasta cooperación y apoyo personal.

Espero confiadamente verme favorecido con la doble aportacion que de Vd. solicito.

¿Como se ha de llevar a cabo esta ayuda económica.? Cada uno de los simpatizantes debe sin perdida de tiempo llenar el adjunto boletin y enviarlo en el sobre que se incluye, por lo que Euskalerria, nuestra madre Patria, le quedara muy agradecido.

Comisión delegada del Gipuzko - Buru - Batzar

Seccion - Juventudes Vascas. Emakume Batza

Ramón de Zapirain. Arantza Barrena

Constitución 11.

Sección Enseñanza Vasca

Antonio Maria Labayen

12. DOKUMENTUA

BIZKAI - BURU -BATZARRA
CORREO, 17 - 4. - TELEFONO 14740
BILBAO

Bilbao,.....

Sr. D.....

AGUR:

Reconocido es ya por todos -tan a la vista está- el trabajo de resurgimiento que en la entraña de nuestro Pueblo ha conseguido llevar a cabo el Partido Nacionalista Vasco.

Pero también es evidente que en las actuales circunstancias -históricas, porque no ha pasado la raza vasca por otras tan transcendentales en el correr de los tiempos- aquella organización patriótica debe redoblar su esfuerzo e intensificar su actuación, debe superarse a sí misma, porque los instantes son preciosos y decisivos; porque en cada momento actual puede encerrarse el arcano de la vida futura de nuestra Patria, feliz o desgraciada, para muchos años, tal vez para muchas generaciones.

El Partido Nacionalista Vasco -en alto la bicrucífera enseña de JEL- tiene que actuar hoy más que nunca, denodadamente, incesantemente, con la plenitud de sus arrestos, de su experiencia, del empuje soberano que le presta su imbatible Juventud.

Compulsados los problemas que más imperiosamente solicitan nuestra atención en estos momentos, el que constituye una preocupación inmediata por todos sentida, es el de la creación del *SECRETARIADO* u *OFICINA GENERAL* del Partido; oficina montada con todos los adelantos técnicos de organización moderna; oficina a cuyo servicio pueden consagrarse por entero los elementos de mayor valía que en el seno del mismo Partido Nacionalista han de seleccionarse: .

Sin la resolución satisfactoria de este problema preliminar, es inútil pensar en la intensificación eficaz de las actividades del Partido. Resuelto él, en cambio, se facilitará extraordinariamente la solución de todos los demás; y pronto veríamos cómo la consagración de aptitudes seleccionadas, al servicio exclusivo del Ideal, habría de dar un rendimiento maravilloso.

No olvidemos que, aún consolidada la República Federal en el Estado español, los problemas magnos de Euzkadi, el de su propia cultura, el de su total reconstitución política y social, con las aspiraciones supremas del Nacionalismo Vasco en orden a la felicidad de la Patria Vasca, quedarán todavía en pie.

Pues bien, vasco amante de tu hogar, de tu tierra y de tus hijos: Para poner en marcha esta oficina, lo, primero que nos hace [1]

[1] Orriaren jarraipenaren kopiarik ez dago.

13. DOKUMENTUA

JEL
EUZKO-ALDERDI-JELTZALEA

GIPUZKO-BURU-BATZARRA

ZARAUTZ
(URRUTIZKIÑA: 104, ZARAUTZ)

Zaraitz'tik, 1931'g. Azilla 5'an
GIPUZKO-BURU-BATZARRA'ko Lendakari-ordeko Jaunari
Donosti'ra

Agur Jaunoi:

Gipuzko-Buru-Batzarrako Lendakaritza utzitzea erabaki detala adieraztera natortzu [1].

Ezin atzera-egiña dan asmo sendo onen zioak auetxek dira: Osasunez txiro zamar nabil. Ameriketara juan-etorri bat egin bearrean ere izan nindeke, an baitauzkat nere ogasun diranak, asko ezpa-dira ere. Gaurko Euzkadi'ko ispilluan nere irudia begiratzen detan bakoitzean txikiago dakust. Gaurko Euzkadi'k gizon adimen-argidunak, azkarrak, yakintzaz apaindubak, urrutiyak begiratu ta urrutira dakustenak bear ditu.

Gure Aberri maiteari eskubide ori ezin ukatu, ezta ziaro itxutua ba-gengozke ere.

Gipuzko-Buru-Batzarratik gizon argidun edozeñek, asko-bai-asko dezake JEL-aldez.

Azalpen billa, otoi, ez etorri nigana. Iñork-ez-ezerk ez dit atzera-egiñaraziko. Ona emen, berriro, nik eman nezazken eta nerez demaitudan azalpen oro:

Osasunez ez nabil aberats, Atzerrirantz juan bearrean ere arkitu nindeke. Garrantzi aundiegiko bearkunez gañezka dakust Gipuzko-Buru-Batzarra'ko Lendakaritza, ta bearkun oik bete ta, asmoak aurrera eramateko bear dan gaitasunik nigan ez izaki, ta au neronek, iñork esan gabe, dazagut eta daitort.

Zeure eta zure batzarkide beakurgarri oyen otsein apal onek, nai gabe baiki, zerbaitetan uts-egin baldin ba-du, azketsi, arren, eta agindu beti JEL-aldez

Barrena'tar Polikarpa

---

1 Polikarpo Barrenak Gipuzko-Buru-Batzarra uzteko asmo sendoa ageri duen gutun honetako lerro artean kargurako bere burua desegoki sumatzen hasia dela ikusten da, "gizon adimen-argidunak", "azkarrak" eta "yakitunak" behar ditu, bere ustez, alderdiak Errepublikaren ondoriozko giroan helburu eta perspektiba berriei erantzuteko.Era berean, zehaztasunik ematen ez den arren, alderdi barruko gertarari edo norbaiten esanaren ondoriozko erresumiña izan bide zen kargu-uzte honen arrazoia, 14. Dokumentua den Lizardiren erantzunean antzeman daitekeenez.

14. DOKUMENTUA

Tolosa'tik, 1931-gko. Azaroak 11.

Barrena'tar Polikarpa,

Gipuzko-Buru-Batzarraren Lendakari jaunari.

ZARAUTZ'en.

Aberkide bikaña ta adiskide miña, agur: Eranegun jaso det, zuk il onen 5-gn. G-B-B'ri zuzendutako idazkia.

Berala, atzo, iru batzarkideok bildu giñan Donostia'n: Barriola jauna, Olaziregi ta lerro auen egilea.

Zure arazo orretaz luzaroan jardun gendun, ta an esandakoak entzun al-izan ba'zenitu, irugarren ziotzat dagertzun beldurra agian aienatuko zitzaizun zearo.

Baña, bide orretan barrena luzatu-gabe, gure erabakiaren berri eman dizaizudan. Gure erabakia auxe izan zan: nik guzien izenean zuri idazki au zuzentzea, urrena ikusiko dituzunok adiraziz.

Lenbizi. - G-B-B'k, ao batez ta biotz-biotzez, eskarrik beroenak damazkizu, aren burugoan egin dezun lan ezin-neurtuzkoagatik. Gipuzkoa'ko abertzaletasuna ongi eraldu bearrean zegoan, ta zuk eraldu bidean jarri dezu, jatorki; besterik iñork egingo ez genduan neurriz, zere asti osoa emanik, eta dirua ere erruz aurreraturik. Aurtengo udako itzaldi ta batzar aberkoi sail ikaragarria zerorrek zuzendua izan da, ta beti noranaiko arkitu izan zaitu Aberriak, zere lagunok ez bezela. Auek, jakin ezazu, G-B-B'k eztauzka azturik eta eztitu aztuko. Orregatik, zernai gerta, Gipuzkoa'ko abertzaletasunaren ta Aberri berberaren izenean berrio eskarrik samurrenak damakizugu.

Argatik ere, asmoz gibelatu ezin zaitezkela diozun arren, otoi ta otoi dagizugu, burugo ori, aurrera ere, zenezaken artean, zere gain euki dezazun. Bestela, zu nork ongi ordezkatu arkitzen ez-ta, beldur gera G-B-B onek bere bearkuna bear bezela bete eztezan.

Bigarren. - Len esanekin, zere buruaren txikitasuna dalakoa, ezereztuta gelditzen da. Atzerrirabearra, berriz, oraindañokoan agizkoa dezu ta ez eskierrezkoa, dirudienez: bertaragotu artean, bada, eztezu eragozpen. Osasunarena, zerorrek bide-dakizu ta ez guk, baña, alaz guztiaz ere, zure joan-etorriak eta lan geiegizkoa bakanduz, agian ez litzake zio larria.

Irugarren. - Esanak esan zure erabakiaz gibelatu ezin ba-ziñezke, batzarkidetzakoan beintzat badarraizula dulergu, "lendakaritza utzitzea" besterik ezpaitezu aipatzen. Beraz, gure batzarretara deituko zaitugu ostera ere, aurrerakoan.

Laugarren. - Barriola jaunak esan zun: len-lenetik adirazi zula G-B-B'ean etzegoala bidez, Bergara'ko batze-batzarrak lengo agintaritzarik Erki-Buru berrietan ez sartzea agindu baitzun. Alaz ere, jarraitu egin nai izan dula, G-B-B'ri oztoporik ez jartzearren. Lengo uzte-asmo ura orain gutxi berritu zitzaiola, "Euzkadi" izparringian egin diran notin-aldatze batzu dirala bide, ziotzat Bergara'ko erabakia Urriolabeitia'k aipatu omen-zion-ta. Alaz ere, jarraitzeko gertu dagoala, zuk ere jarraitzekotan:
bestela, bertan-bera utzi-bearra dula [1].

Auek dira, Barrena adiskidea, neri aginduak.

Nik, niketz, zer geiago esango nizuke? ... Zerbaitetan guri uts egin ba-diguzu, azkesteko, diozu. Izanenean ere guk, zere batzarkideok, nekarazi ta gogaitarazi al-izan zaitugu zu, ta au ez diot zuribidez ez-ta ere itz-putzez: asketsi zaiguzu ba zuk, Barrena, ta Aberriaren onez jarrai ezazu, iñon baño ta iñor baño egokiago zauden tokian.

Agindu JEL-aldez, egiazko adiskide dezun oni.

Agirre'tar Yoseba Mirena

1 Lizardiren erantzun honetan sumatzen da hitzez-hitz adierazten ez den haserraldi baten ondorio dela Barrenaren kargu-uzte adierazpena, Barriolaren jarreraren azalpenean: "Euzkadi" izparringian egin diran notin-aldatze batzu dirala bide, ziotzat Bergara'ko erabakia Urriolabeitia'k aipatu omen-zion-ta" esaten du Lizardik. Azalpen ilun honek alderdi barruko karguen arteko konponezinak adierazten dituzte eta Lizardi jarrerak ḫiguntzearen aldeko agertzen da kasu guztietan.

15. DOKUMENTUA

GIPUZKO-BURU-BATZARRA

Alameda n 7 - 3

DONOSTIA

18'garren

IDAZKI OROKARRA

Donosti'tik, 1931'g. Lotazilla 11'an.

BURU-BATZARRA'ko Lendakari jaunari.

Agur:

Gipuzko-Erki'ko eusko-abertzale oiri, dan-danari, txindi bearrian aurkitzen dala-ta GIPUZKO-BURU-BATZARRA "GABON-SARI" eske datorkizute gaur.

Asko ala gutxi, edozer gauza, al-dana, Gipuzko-Erkiyari ukatuko dionik, gure artean izango ote da gero? Ezetzian gaude.

Gure aurtzaro-urrutiko Gabonetan atzaparkada bat gaztaña bederik, atez-ate, ume-pozgarri, izan oi genduban.

Gaur, atez-ate, maitasun-atez-ate, zisku-zar bat, buruki-azala bizkarretik zintzilik, gure biotzetarantz, apalki, datorkiguna, ez da auzoetako aurtxo-aldra-jostalaria, !GEURE AMA BAIZIK!

Urtian bein, bederik, seme-onak izan gaitezen, bada.

Gai onetzaz Euzko-Alderdi-Jeltzalea'ren Eralguntzak 136'garren Atalgian diyona, ona emen:

136'garren Atalgia.- Beste emakun bat eskañiko da Lotazilla'n, bakoitzak nai duana emango duala, ta emakun au osorik izango da Erki-Buru-Batzarraentzat.

Art. 136 .- Habrá también un donativo ANUAL VOLUNTARIO que se racaudará en el mes de diciembre, el cual será íntegro para los Consejos Regionales.

Ipiñi idazki au (edo izki aundiz egindako berridazki bat) Batzoki guzietako leku-agirienetan.

Ondo iritzi ezkeroz, abertzale bakoitzari idazkitxo bat bidali.

Al-daan geyena biltzen leyatu.

Emaille bakoitzaren abizen-izen eta Gabon-sariaren zerrendakin batera, bildu daana igorri geuri, URTE-ZAR BAÑO LEN, zuzenbide onetara: Gipuzko-Buru-Batzarra, P. Alameda 7, 3º, San Sebastián.

Luzienera jo-ta, URTE-BERRI egunerako eskuratu nai giñuzke Euzkadi-aldezko Gabon-sari oek [1].

Idazki-orokar au irakurriko dezuten guzi oiri, Eguberri-zoriontsubat dopazkitzute JEL-pian

GIPUZKO-BURU-BATZARRA'k.

---

1 Alderdi barruko "idazki orokar" edo "zirkular" honek Lizardik Polikarpa Barrenari 1931-10-28an, 10. Dokumentuan jasoak dauden bi gaiak garatzen dira 11., 12. eta 15. Dokumentu hauetan, beraz, pentsa daiteke Gipuzko-Buru Batzarreko lehendakari-orde gisa ez ezik, ideai hauen sortzaile eta antolatzaile zela.

16. DOKUMENTUA

Tolosa 24 Noviembre 1931

Sr. Presidente de Bizkai-Buru-Batzar [1]

Correo, 17, 4

BILBAO

Muy Sr. mío y buen compatriota: Ayer tuvimos una nueva reunión en G-B-B, y tratando de la conveniencia de que el Partido decida una orientación en cuanto al problema del Estatuto, acordamos rogar ustedes procuren una reunión del E-B-B.

Como lugar, principalmente para no obligar a los navarros a un desplazamiento muy largo, pensamos en Zumarraga o Tolosa. Día, creemos que cuanto antes mejor. Por mi parte no me convendría dentro de esta semana, si bien mi presencia en esta reunión no entraña importancia alguna, así que no haga caso de ello.

Tengo cartas de Iruña y Gasteiz conviniendo en la oportunidad de la reunión. Convendría que a esta pudieran asistir representación nacionalista de Diputados a Cortes y Comisión de Alcaldes.

En espera de sus gratas noticias, le saluda su afmo. en JEL

A'tar JM

---

1 Lizardik Bizkai-Buru-Batzarreko lehendakaria zen Jemein'dar Keperini zuzenduriko lehen gutun honetan gai politiko hutsez dihardute, beren alderdi barruko karguetatik eta Errepublikaren aldarrikapenaz geroztik bizi duten egoera politiko berriari buruzko hausnarketa egiteko eta Estatutuari buruzko norabide garbiak zedarritzeko bilera egiteko egokitasunaz. 39., 40. eta 41. Dokumentuetan berriro aurkitzen da Jemein eta Lizardi arteko harremana baina kasu horretan arazo linguistikoez dihardute.

Jemein'dar Keferin (Abando 1887-Bilbo 1965) 1910ean Bilboko "Euskeltzale Bazkuna"ren sortzailetariko bat izan zen. "Jadarka" eta "Amandarro" ezizenak erabiltzen zituen eta Lizardik lehen idazlanak argitaratu zituen *Euzko-Deia* argitaratzen zuten. 1921ean EAJ alderdiaren baitan gertatu zen banaketan Eli Gallastegiren jarraitzaile izan zen, Aberri joerakoa, bai eta 1931en izan zen bateratzeko batzordetako partaide. Primo De Riveraren diktadura garaian Calahorran atzerriratua egon zen. 1930z geroztik, Euskadi-Buru-Batzarreko lehendakari izan zen eta 1932an Gallastegi, Errazti eta beste zenbaitek bultzaturiko Jagi-Jagi joeraren partaide izan zen, baina ez zuen alderdia utzi bere mentore izandako Gallastegik bezala. Arlo kulturalean "Pizkundia" elkarte kulturalaren sortzaile izan zen 1930ean eta *Euzkerea* aldizkariaren suztatzaile. Gutun-sorta honetan beste hiru gutun aurki daitezke Lizardi eta Jemeinen arteko harremanen lekuko gisa: 39., 40. eta 41. Dokumentuak hain zuzen ere.

17. DOKUMENTUA

JEL
EUZKO-ALDERDI-JELTZALEA

GIPUZKO-BURU-BATZARRA

ZARAUTZ
(URRUTIZKIÑA: 104, ZARAUTZ)

Zarautz'tik, 1932'g. Ilbeltza'k 10
Agirre'tar Yoseba Mirena jaunari
Tolosa'ra

Agur, Lizardi:

Euzko-Ikasbidea Tolosa'ko Mendigoizaleen bidez eskatu dutenai neuk idatziko niyela esan nizun atzo. Asmo orren lekua, ordea, beste asmo berri batek bete du. ¿Ez al deritzazu birritan ezkatu duten oyeri, ortik, Tolosati'k zuzen idaztea egokiyago litzakela? [1].

Nik ala uste. Lenbailen garbitu ta kito.

Ona emen neri ta Orko Mendigoizalieri eskatu diyotenak:

		NERI	ZUBERI
Andoain.....itzez	1931-XI-10'an	500	500
Alegi.....itzez	" -XII-10 "	25	250
Ataun.....idazkiz	" -XII-17 "	200	200
Azpeitia.....idazkiz	" -XI-25 "	250	600
Soraluze.....idazkiz	" -XI-24 "	250	250

Dakuszunez, irutan kopuru berdiñak, bitan berdingabeak

Esayezu bada, otoi, orko gazte oyeri, bost erri auetara idatzi dezatela garbitasun-eske.

Aurrerantzean olakorik izan ez deigun emen dijuakizu oraiñarte saldu diranen zerrenda. Goiko bost erri oyek neri eskatu diratenakin dagerz, zubena geitu gabe.

Agur, anai, urte-berriz zorion JEL-pian

Barrena'tar Polikarpa

---

1 17. Dokumentu honek Lizardik eta Barrenak alderdi barruko kargudun gisa zuten zereginetako batez dihardu, "Euzko-Ikasbidea"ren banaketaz alegia. Ikus 9. Dokumentuan 2. oharra.

"EUZKO-IKASBIDEA"

Amasa						
Abaltzizketa						
Alegi.....itzez	12-10'an	25	+	250?	- Bai	
Altza.....						
Andoain .....itzez	11-10'an	500	+	500 =?		
Anzuola.....						
Aretxabaleta						
Arrasate.....						
Astigarraga .....Lizardi	1-10'an	500				
Ataun.....idazkiz	12-17'an	200	+	200 =?	+ Ez.	
Azkoitia.....						
Azpeitia.....idazkiz	11-25'an	250	+	600?	+ 600 Bai	
Beasain						
Bergara.....idazkiz	11-26'an	1000	+	1000 3000 tot		
Beraztegi.....Lizardi	1-10'an	250		beste 1000 ere bialiko ote dituan		
Deba.....						
Donostia.....itzez	12-1'an	3000				
Eibar						
Elgoibar.....						
Elgeta.....						
Ezkoriatza.....						
Ernani.....Lizardi	1-10'an	1000				
Gatzaga.....						
Getaria.....idazkiz	12-12'an	100				
Ibarra						
Idiazabal.....						
Irun.....Lizardi	1-10'an	250				
Irura .....Lizardi	1-10'an	300 -50 serán los mismos				
Isasondo.....						
Lasarte.....						
Lazkano.....						
Legazpia.....						
Legorreta.....itzez	11-1'an	100	+	50		
Lezo						
Mendaro.....						
Motriko .....idazkiz	12-1'an	250				
Ondarrabia.....Lizardi	1-10'an	1250				
Olaberria .....idazkiz	12-4'an	50				
Oñate						
Orio.....						
Ormaiztegi.....						
Oyarzun.....						
Orereta.....						
Ordizia.....						
Pasai Antxo.....						
" Doniane						
" DeunKepa..						
Soraluze .....idazkiz	11-24'an	250	+	250=?		
Segura .....Lizardi	12-12'an	100				
Tolosa.....Lizardi	1-10'an	4000				

Urnieta.....itzez 1-8'an 50
Usurbil.....
Urretxu.....idazkiz 11-25'an 50
Zaldibi.....
Zarautz.....idazkiz 12-8'an 250
Zumarraga.....
Zumaya.....
Zestona.....idazkiz 12-5'an 100

-X- BIZKAYA -X-

Lekeitio.....idazkiz 12-1'an 300
Zeanuri.....idazkiz 6-6'an 100
Bilbo.....Verdes Atx. 12-22 100

-X- NAPARRA -X-

Yturen.....idazkiz 1-6'an 100

-X- ARABA -X-

600

18. DOKUMENTUA

"SABIN-ETXIA"

"Abando"

Bilbao, 14 de Enero 1932

Sr. Don José María de Agirre

Tolosa

Estimado compatriota, Agur:

Tenemos el gusto de acusarle recibo delas 100 (Cien) Pesetas que se sirvió Vd. entregar ayer en el "Secretariado General Vasco" para el embellecimiento del Batzoki "Sabin-Etxia" quedándole por ello muy agredecidos [1].

Sin otro particular por hoy, quedamos suyos attos. y ss. ss. en JEL

EL PRESIDENTE

Carlos Billalabeitia

1 Lizardik Gipuzkoako Idazkaritza Orokorraren arduradun gisa Abandoko "Sabin Etxia" batzokirako alderdikideek emaniko dirua bideratze-lanen lekukotza ematen du.

19. DOKUMENTUA

7 Febrero 1932

Sr. D. José Antonio de Agirre [1]

BILBAO

Mi querido amigo y compatriota: Ayer recibí su interesante carta y seguidamente me entrevisté con mis compañeros de G-B-B (Barrena y Barriola) [2] y después de meditar su contenido nos es grato decirle que lo encontramos acertado, y estamos a disposición de ustedes para el momento preciso.

Claro, es una opinión particular nuestra, a reserva de la actitud que se acuerde por el E-B-B una vez conocido el Estatuto, pero no hay que decir que en todo ello estaremos de acuerdo, siempre que, como es de esperar, el Estatuto que salga en Gasteiz sea potable.

Adelante, pues, y que Jaungoikoa vele por nuestros destinos en una hora tan grave para la Patria. Y usted, firme siempre hasta el fin, que ella va a deberle mucho aunque no consiguiésemos lo que buscamos, pero mucho más si lo alcanzamos.

Guardamos todas sus confidencias con la mayor discreción, y agradeciéndoselas profundamente.

Le abraza (en nombre propio y en el de los compatriotas referidos) su afmo. amigo en JEL.

---

1 Jose María Agirre "Lizardi"k José Antonio Agirreri zuzenduriko lehen gutuna da sorta honetan eta Gasteizko Estatutuaren prestaketa garaiari dagokio. Lizardik Agirrek bidaliriko gutun bati erantzuten ari delarik, hari buruzko erreferentziak egiten ditu baina haren faltan ez dago argitzerik zein den zehazki mintzagaia.

Jose Antonio Agirre (Bilbo 1904- Donibane Lohitzun 1960) Lizardik gutun hau idatzi garaian 27 urteko abogadua zen eta Getxoko alkate. 1931eko ekainaren 28ko hauteskunde orokorretan Korte Nagusietarako diputatu hautatua eta "minoría vasco-navarra" deitzen zen koalikzioaren idazkari. Gutun honen gaiari loturik, Jose Antonio Agirre Autonomi Estatutuaren onarpenaren aldeko alkate batzordearen buru zen. 1932-11-19ko hauteskundeetan berriro hautatu zuten diputatu. Guda Zibila hasia zelarik, eta 1936-10-1ean Estatutua Korte Nagusiek onartu berria zutelarik, Euskadiko Lehendakari hautatu zuten 1936ko urriaren 7an.

2 Lizardirekin batean Gipuzko-Buru-Batzarreko kide ziren Polikarpa Barrena eta Barriolaren aipamenak 9., 10., 11., 13., 14. eta 17. Dokumentuetan aurki litezke. Lizardik 14. Dokumentuan Olaziregiren izena ere aipatzen du G-B-Bko partaidetzat.

20. DOKUMENTUA

Por estos días, hablando con P. Barrena, me indicaba este que a su juicio, y al de muchos otros, no se está haciendo una verdadera propaganda del estatuto actual, como se hizo del de Estella, y que corríamos no sólo el peligro de que entre (socialistas [1]) izquierdas y ultracatólicos nos ahoguen a aquél, en cuyo caso el verdadero derrotado, además del País, sería el nacionalismo.

Yo le prometí molestar a usted, por si, en concepto de autoridades del nacionalismo en G. y bajo las necesarias reservas, nos podía informar de si se obedece con ello a alguna táctica, o si cree usted también y sus compañeros nacionalistas de minoría que, sean los aliados, sea el PNV., deba alguien emprender una mayor publicidad de las ventajas del estatuto, obligación de votarlo etc. etc.

Le traslado a usted los términos generales de la conversación por si cree usted podemos decir alguna palabra tranquilizadora, o lo contrario, que aun el amargor de la verdad es malo para demorarlo [2].

---

1 Hitz hau tatxaturik ageri da zirriborroan.

2 Datarik eta izenbururik gabeko Lizardiren eskuzko zirriborro hau, 19. Dokumentua bezala, José Antonio Agirreri zuzendua da, noski. Gasteizko Estatutuaren aldeko kanpainaldiari buruzkoa da eta Estellako Estatuaren patu beltzaren ondorengo urduritasuna eta ezinegona nabari zaio.

21. DOKUMENTUA

JEL
EUZKO-ALDERDI-JELTZALEA

GIPUZKO-BURU-BATZARRA

ZARAUTZ
(URRUTIZKIÑA: 104, ZARAUTZ)
=========

Zarautz'tik, 1932'garren Jorrailla'k 5
GIPUZKO-BURU-BATZARRAREN Lendakari-ordeko
Agirre'tar Yoseba Mirena yaun gurgarriari
Tolosa'ra

Agur, ene adizkide ta batzarkide ori: Gipuzko-Buru-Batzar onek Gipuzko-Idazkaritza sortu ta eraltzea erabaki zuanean, Bazkun sortu-berri onetan izango giñuzen iru ordezkarietatik bat zerori izango ziñala esan gendun, eta zuk ondo eritzi [1].

Ala-bañia, izendapen auek itzez baño idazkiz benagoak dirala-ta, batzaldi artako erabaki ura indartubaz, sendetsiaz natortzu.

Neuk bezin ondo dakizunez, Gipuzko-Buru-Batzarraren ordezkari auetxek zerate, Gipuzko-Idazkaritza sortu-berri orretan: zerori, Urreta'tar Mikel yauna, eta Mendizabal'dar Gaspar yauna.

Agur adizkide miña (zeurea, pelota) ta agindu JEL-aldez

GIPUZKO-BURU-BATZARRA
Barrena'tar Polikarpa
Lendakaria.

1 10., 11. eta 12. Dokumentuetan aipatzen den Idazkaritzaren Gipuzkoako atalerako Jose María Agirre bera, eta Mikel Urreta eta Gaspar Mendizabal izan ziren izendatuak. Ohar bedi gutunaren amaieran "zeurea pelota" esanez Lizardiri bizkarreratu zaion erantzunkizunaren aipamena.

22. DOKUMENTUA

GIPUZKO-IDAZKARITZA
Secretariado Patriótico de Guipúzcoa
ALAMEDA, 7
DONOSTIA
TELEFONO 10.510
==========

Donostía, 8 de Abril de 1.932

Sr. D. José María de Aguirre
Tolosa

Agur,

De acuerdo con lo que ayer tratamos, te adjunto la carta que dirigimos al Euzkadi Buru Batzar solicitando se celebre en ésta, el 11 Día de la Patria. Tu la firmas y la echas.

Hasta el presente se han presentado dos concursantes para la plaza de auziliar del Secretariado. El uno de Ataun, y de tu "txoko" el otro. Este último lo conoces bien, y en verdad que yo no me suponía que optase a este modesto puesto. Se trata de Germantxo Iñurrategui. ¿Verdad que es una sorpresa.

Te puedes figurar lo contento que estoy, pues el poder contar con todo un abogado en la oficina es toda una garantía. ¿No?.

No sé, en cambio si será capaz de sujetarse a las horas que habremos de fijarle, en el supuesto claro es que él ganase la plaza. Sin embargo creo que al solicitarla habrá pensado bien lo que hace.

Estoy preparando una circular que enviaré a todos los delegados preguntándoles, según convinimos si en sus respectivos pueblos hay donantes "rumbosos". Una vez que tengamos las listas, será preciso preparar una circular bien hecha en euskera y erdera a la que añadiremos el boletín de suscripción.

Esta circular merece que esté hecha con todo cuidado. Yo he pensado, en un principio mandársela hacer a Lucear [1], pero me siento un poco cohibido para encargarle este nuevo trabajo.

Por ello prefiero una vez más abusar de tu amabilidad seguro que no habrás de negarte a preparar una carta cuyo contenido se asemeje a la que dirigió el Secretariado de Vizkaya [2]. Ya sé que estás muy ocupado pero es preciso que estos impresos los tengamos preparados cuanto antes para que cuanto antes, también nos hagamos con recursos económicos.

---

1 Gipuzko-idazkaritza sortu ondoren haren funtzionamendurako dirubideketa eta langileak hartzeko prozesuez dihardu gutun honek. Jose I. Lizaso ez da Idazkaritzarako hautaturikoetako bat baina Lizardirentzat Donostiako gestioak egiten zituen pertsona zen. *Diccionario Enciclopédico Vasco* delakoan ohar biografiko labur bat besterik ez da eskeintzen: 1936an Londresen Eusko Jaurlaritza sortu berriaren ordezkari izan zela. Gutunean aipatzen den Luzear, aldiz, Ander Arzelus zeritzan eta euskal kazetaritzan izen handia zuen guda aurrean. Lizardiren kidea zen 1927z geroztik Eusko Ikaskuntzan.

2 12. Dokumentuaz ari dela dirudi.

Espero, pues que una vez hecho lo que de ti solicito me devuelvas la circular y a ella acompañes la versión en euskera de la misma.

Ayer mismo entregué la carta que me diste a Ariztimuño.

Esta mañana hemos asistido al juicio que se ha celebrado contra el director de "El Día" por supuesto delito de calumnia contra Marcelino Domingo por un suelto que publicó el referido periódico dando la noticia de que el actual ministro de Agricultura se había fugado con 900.000 allá por el més de Diciembre del año 1.930.

La acusación ha estado muy deficiente y en cambio el defensor Usandizaga ha hecho un informe brillantísimo. Es pues más que probable que salga absuelto nuestro amigo Lecároz.

Esperando tus prontas noticias aprovecho esta oportunidad para ofrecerte mi cordial amistad y quedo tuyo en J.E.L.

José J. de Lizaso

Tu casa - Usandizaga, 21 - 2- D.

Teléfono, 15.383

23. DOKUMENTUA

EUZKO GAZTEDI JELTZALEA
DEBA, 6 Junio de 1932
URI - BURU - BATZARRA

BATZOKI

EMAKUME ABERTZALE BATZA

MENDIGOIZALES

Sr. Dn. José Maria de Agirre
Tolosa

Muy estimado compatriota:

Pensando celebrar el día 2 de Agosto, en la Plaza de Toros, una gran fiesta vasca, al estilo del año pasado, formulamos la presente para rogarle su cooperación con el "ingurutxoa eta sagardantza" [1].

También pensamos celebrar una velada en la que quisiéramos organizar a base de cuadros finos de sabor vasco, para el cual nos ha recomendado "Las Mayas".

Como suponemos, Vd. sabrá orientarnos sobre el particular [2] rogamos nos mande a la brevedad presupuesto.

Referente a los dantzaris, estamos dispuestos a pagar el viaje y comida o merienda.

Con gracias anticipadas, quedamos de Vd. affa s.s. en Jel

el Presidente

Berasaluze

---

1 Lizardi "Erregiñetan" edo "Las mayas" izeneko errepresentazioaren antolatze arduradun gisa idatzi zioten eskutitz hau Debako Euzko Gaztedi Jeltzalekoek. Antzespen hauek XIX. mende bukaeran eta XX. hasieran Baztan eta Irun-Lezo-Oiartzunen artean ospatzen omen zen maiatzeko nesken festa Euskaltzaleak erakundeak eginiko berpizteko ahalegina zen. "Erregiña eta saratzak" izena hartzen omen zuen zenbait tokitan. Europako herrialde guztietara hedatua egon zen eta greziar nahiz erromatarren garaian ospatzen omen zen kantu eta dantza ospakizun hau. XVI. mendeaz geroztik festa honen aurkako eliz eta herri-agintarien debekuak dokumentatzen dira.

2 Lizardik dantza eta errepresentazioen arloan izaniko zereginen berriek 1930 urteaz geroztikoak dira: *Laño ta Izar* antzeslana (*El Día* 1930-7-30) eta *Artaxuriketa* (*Antzerti*, 1935 (azaro-abendua).

Tolosan "dantzari-aundi" talde bat udaletxeak dirubidetu dezan eginiko eskaria ere gorde da Tolosako artxibategian, 1930-10-6koa Jose María Agirre eta Domingo Mokoroaren izenpez. Beraz, 23., 24. eta 25. Dokumentuetan antzeman daitekenez, antolatzaile zeregin hauetan iharduten zuen. Lizardik eta Domingo Mokoroak eginiko eskabidea euskaraz eta erdaraz egina dago. Euskarazko bertsioak Lizardiren eskuera nabaria du eta eranskin honetan sarreraztea erabaki dugu Zaitegiren dokumentuetako bat ez den arren.

TOLOSA'KO UDAL-BURU ALKATE JAUN ARGIARI.

Agirre Egaña'tar Jose Maria ta Mokoroa Zubieta'tar Domingo, adiñez gai ta bertako auzokide geralarik, begirunez berorri agur egin ondorean, urrengo adierazpenak zuzentzera gatozkio.

Bai-baita "Euskaltzaleak" deritzaion Bazkun bat, euskal-izaerari dagokionik oro ernarazteko ta bizkortzeko jarria, eskarrik beroenak gure aoz agertu nai dizka, Tolosa'ko Ordezkaritza'ri "Centro Musical" delakoaren sarbidea eman zaiolako.

Onginai orreri eskarrak, dantzauri-aundi-sail bat gerturik du, Gipuzkoa'n oi-ditugun dantza ezagunenak dagoaneko ikasi ta Euskal-erri osoko ikusgarrienez jabetzeko asmotan dana.

Euskal-erria'n TOLOSA'k duan otsari badagokio, gure uste apalez, euskal-alaitasunaren agerbide ain jator diren dantza zaar oiek bear bezin bikainki ta eraz eusteko ta edertzeko Bazkun bat sortzea.

Artarako, berorren adimen garaiari urrengo asmo au aurkeztu nai diogu:

Dantzari-talde sortu-berri ori ta leendanik dagoan txiki-salla, biok elkarturik, "TOLOSA'KO EUSKAL-DANTZARIAK" leritzaioken Bazkun bat egin bezate.

Tolosa'ko Udal agurgarri orrek erabaki auetxek ar bitza: oraindaño bereak ditun dantza-jantziez, makillez ta abarrez Bazkun berria jabetzea; ta, gañera, beroni urteroko diru-laguntza bat ematea. Diru-laguntza orretarako MILLA pezetako bat aski jotzen degu, erakustalleei urtero sari bana eman bear baitzaie, soñeko ta dantza-gaiak berritu, ta -bidezko dirudienez- mutil dantzariei urtean jolas-egun bat, edo elkarrekiko bazkari bat bderik, eskeñi.

"TOLOSA'KO EUSKAL DANTZARIAK" bere eginbearrak zuzentzeko ta erriaren diru-emaitza bear bezela banatzeko, Batzorde Zuzendari bat bezate. Batzorde ori zenbait errikoseme jatorrez osatu diteke, bertarako batzarkide ziñegotzi bat Udalak autatzen dula.

"TOLOSA'KO EUSKAL-DANTZARIAK" beti legozke Udalaren mende, beronek aurretik betirako izendatu lezazken jaietarako, alegia, ta besterik bat edo bestetarako ere, bear ainbat adiz-aurretik adiraztez-gerotan. Adibidez, talde orren gain lirake Juan Done egunez oi-diran goizeko tiroketa ta arratsaldean Igarondo zumardi aundiko aurreskua. Artara, erriko jaien apaingarri oiek beti lirake erriko mutil ezagunek egiñak, eta bear bezin tajuzki agertaraziak.

Oiek guztiak aotan artzen ditugula, onâ gure ...

ESKARIA: Berorren irizmen argiari ta euskaltasun goriari ala baitagokio, gure asmoa betarte onez ar beza, ta berorren burutzapeko Udal agurgarriak bertatik, urterorako, leen aitatu zillar-laguntza ematea erabaki beza, ta bai-ta ere ziñegotzi bat aukera, arekin izketatuz gañontzeko Batzorde -Zuzendari-lagunak izendatu aal-ditzagun.

Ala dugu itxaropen osoa.

Jainkoa'k gorde zaitza luzaroan.

Tolosa'n, milla-bederatzireun-ta-ogeitamargarreneko Urrila'k 6.

"EUSKALTZALEAK"

Tolosa'ko Ordezkaritza'ren izenean:

Agirre'tar JM

Mokoroa'tar D

24. DOKUMENTUA

Joatia erabakitzen ba-dute, emen jarriko dizkitzuten gauzak an bertan arkituko ote lizkiguteke

sulla bat
kaiola (baserri-tankerakoa)
"Maya" rentzat 2 1/2 metroko "guirnalda"
urdina edo gorria.
"Sagar-dantza" 3 amabiko sagar musu gorriak
rentzat obe
"Zagi-dantza" ta
3 zagi
berebilla = 65'00 l.
"Mayak" (gauez bada 10 afari)

---

berebila ta abar = 150 l.
"Ingurutxo"
"Sagar dantza" 30 askari (merienda)
(txokolatia; al bada egiña)

220'00 laurleko
Guzira 30'00 askari
10 - afari?

Zer deritzazu Jose Mari?

Pilartxo [1]

1 Pilartxo izenez izenpeturiko ohartxo hau Pilartxo Sansinanea Goñi andreak, Doroteo Ziaurrizen iloba eta Antonio Maria Labaienen koinatak egina da, antzerki eta antzerako ekintza kulturalen arduradun izaten zen, eta Elbira Zipitriarekin batera ikastoletako lehenengo andereñoetako bat izan zen Tolosako ikastolan. "Los mayas" edo "Erregiñetan" errepresentazioaren arduraduna zen eta Dokumentu hau Jose Mari Agirreri prestaturiko presupuestoaren zirriborroa da.

25. DOKUMENTUA

'tik, 1932-gko. Uztallak 16-g.

Euzko-Gaztedi-Jeltzalea'ren Lendakari jaunari.

DEBA

Agur, aberkide ona: Il onen 6-gn. zuzendu zenidana jasorik nago.

Eskatzen dezuna eskañi genezaken, eta zenbatean eskañi, erabakitzeko, joan-etorri asko egin bear izan ditugu, ta argatik lenago ez erantzuna.

– "Erregiñetan" ("Las Mayas") egiteko amar lagun joango lirake. Auen berebilla, joan-etorria, 65 lko.

Ori, noski, gauez izango litzake (Dagonillaren 21-gn. ori ere?), ta amar lagun oen apariak ere zuen gain lijoazke.

Or sortuko zenitukete, noski, urrengo ipintzen ditudan gauzak: sulla itxurazko bat, kaiola bat (baserri-tankerakoa) ta bi metro t'erdiko "guirnalda" urdin eta gorria (ostozko ta lorezko katea, erregiña aulkira lotzeko).

Eresi-arloan, zer zendukete or, orkesta ala piano utsa? Ori ere, zuen gain lijoake, antolatzea ta guzti: guk partitura emango genizukete, aldaki edo kopi bat atera zenezaten.

Ingurutxoa, sagar-dantza ta zagi-dantza egiteko, ogeitamar bat nexka-mutiko joango lirake.

Oiek gauerako etxera bearko leteke, ta beraz berebil berezia bear. Berebillaren joan-etorria, 150 lko. Gañera, azkari edo meriendatxo bana (txokolatea, al dala egiña, ta ogia).

Or gertatuta euki-bearrak: 3 amabiko (dozena) sagar, musu-gorriak ba-dira obe, ta iru zagi ez oso aundiak.

Orra nik atera al-izan ditudan xetasunak. Zer-erabaki, berala adiraztea bear genduke, gure gertupenak egiten asteko.

Agur, bada, ta JEL-aldez agindu.

Lizardiri [1]

[1] Izenpea ez da Lizardiren jatorrizko izenpea eta norbaitek berak izenpetu dezan makinaz idatziriko gutuna dirudi, baina erredakzioa berea da ziurtasun osoz.

26. DOKUMENTUA

Formosa, 30 Setiembre 1931
PARROQUIA DE
NTRA. SRA. DEL CARMEN
FORMOSA
(R. ARGENTINA)

Estimado Sr. J.M. Aguirre:

Estos días recibí oharras del País Vasco, y veo la persecución de que ha hecho objeto a los nacionalistas y católicos el Gobierno Español. Buena señal! Felicito muy de corazón a todos los buenos vascos, y ojalá se mantengan firmes en sus ideas y en sus puestos. Es el principio del triunfo sobre los energúmenos que imperan hoy en España. ¡Venga la persecución, las cárceles, el martirio, la muerte! En pos llegará infaliblemente el día de la gloria. A Sabino Arana le persiguieron a muerte, y ello bastó para que se retemplara en sus ideas Euzkadi. Primo de Rivera creyó haber matado el espíritu vasco, y surje ahora más vigoroso que nunca. (A quien le habrán matado es a él, de pena y de rabia; Dios le perdone!)

Yo supongo a Vd. buen vasco. Pues desde este rincón de Formosa le envío un expresivo parabién. Saludos a la Sra. Francisca su señora, hijos, etc. Afmo. s. y hº en Xto [1]

Fr. Segundo Bilbao [2]

---

1 Aita Segundo Bilbaoz informaziorik jasotzerik izan ez badugu ere, gutunari erreparatuz gero Hegoameriketatik Euskal Herriko egoera politikoaren berri jakin nahirik Jose Maria Agirreri zuen ardura politikoaren izenean idatzia dela esan daiteke. Dena den, Lizardiren familia ezagutzen duela irakur daiteke gutunaren amaieran. Familiko ezaguna ere bazuen baina zenbait urtetan harremanik izan gabeak zirela ere adierazten du Lizardik bere erantzunean (27. Dokumentuan) berri zehatzak ematen bait dizkio azken urteetako gorabeherei buruz.

2 Eskutitzaren ezkerreko alboan "13 Junio 1932" data ageri da Lizardiren letraz idatzia eta hauxe da hain zuzen ere 27. Dokumentua den bere erantzunaren data.

27. DOKUMENTUA

13 Junio 1932, fiesta de S. Antonio

Mi buen Padre Segundo: Tengo que empezar, como de costumbre, pidiéndole perdón por este vergonzoso pecado de ingratitud de no haber contestado antes a su cariñosa y entusiasta carta del 30 de Septiembre del año pasado.

Ninguna razón me excusa: debo confesar paladinamente q. las preocupaciones de mi trabajo, y las no menos graves que se derivan de la marcha de la política en este periodo grave, no sólo para nosotros los vascos sino para el mundo entero, han llegado a hacerme olvidar casi de continuo a los buenos amigos como usted, y las veces que le recordaba la labor del momento a sido antepuesta al deber de amistad y aun de caridad de comunicarse con el ausente. Siempre esclavo del "Geroko gero".

De casa, gracias a Dios, sólo buenas nuevas tengo que comunicarle. Tenemos cuatro pequeños (tres varones y una niña), de 5 1/2, 4 y 2 años (la niña) y el último de 9 meses escasos de edad, todos los cuales gozan hasta ahora de buena salud. Paquita muy bien, y llevando alegremente la carga de su reiterada maternidad.

En cuanto a la política de nuestro Pais, le supongo bastante enterado del curso de los acontecimientos. Aquel estatuto (proyecto), llamado de Estella, que se confeccionó en la esperanza (no muy firme en el fondo) de que pudiese ser elevado por los gobernantes a fórmula autonómica vasca, quedó taponado irremisiblemente por los términos en que se concretó la Constitución del Estado Español.

Entonces surgió el problema de si se debía ir o nó en busca, no ya del mal menor, sino del BIEN MENOR (menor que el deseado) que supone la consecución de otro estatuto, encajable dentro de la Constitución q. no tenemos otro remedio que acatar precisamente porque en lo político formamos parte integrante del Estado q. nos la impuesto.

Los nacionalistas nos pusimos sin titubeos del lado de la afirmativa. Pero el conglomerado monárquico que se formó a medida que a sus componentes se les aliviaba el pavor enorme que les produjo el advenimiento de la república, y en cuyo puchero se cuecen más o menos armoniosamente carlistas, apetistas, integristas y los alfonsinos liberales de todo color, emprendió una campaña despiada contra nosotros, que hemos cargado con los calificativos de "masones", de "gente peor que el comunismo", etc. Afirmaban que la colaboración en el segundo proyecto de Estatuto (que aun sólo desde un punto de vista católico debiera ser acptedo a ojos cerrados) y el voto a su favor eran "ofensa gravísima a Dios". Hasta tal punto que, hace unos días, Vitoria ha tenido que hablar oficialmente, confirmando la absoluta licitud de la posición estatutista.

Después de eso, aquellos grandes espiritualistas tan dados a considerarlo todo a través del prisma divino, se derrumban de sus celestiales castillos, y, sin transición, descienden a combatir el proyecto de Estatuto desde el lírico punto de vista del bolsillo. Dicen, absteniéndose de toda prueba, que el estatuto va a resultarnos muy caro: ninguna consideración de orden más espiritual les sugiere el que, por ejemplo, la enseñanza en todos sus grados pueda estar organizada por nosotros, el que los soldados vascos no hayan de servir fuera del pais, el q. por fin la unidad vasca peninsular (Navarra incluida) se esté fraguando definitivamente en lo político, el que nuestra lengua nacional

entre en franca vía de florecimiento, declarándosela oficial a la par que el castellano y teniendo honrosa entrada en las escuelas.

En fin, querido P. Segundo: perdóneme usted si en todo esto puede haber algo de murmuración, aunque yo entiendo que nó; pero de qué le voy a hablar si todo nuestro ambiente actual está saturado de eso?

Yo veo cada vez más claramente que la misión de Sabino A-G. fué providencial: asusta pensar qué sería hoy de los vascos sin la doctrina que aquél les legó. Ya ésta va infiltrándose en todos los estratos de nuestro pueblo: la mujeres se nos unen valientemente y los obreros vascos son legión. Nadie que de verdad quiere CONSTRUIR para Euzkadi un porvenir cristiano y pacífico parece que pueda perder el tiempo en soñar con revueltas y conspiraciones de tipo dictatorial español. Y sin embargo hay vascos que desean ardientemente y no lo disimulan, otro "mesías" (con minúscula) estilo P. de R. Es lo más cómodo para ellos: que un nuevo espadón les apañe para otros cuantos años la dulce -la triste!- paz material del pueblo que no grita porque le han puesto una soga al gaznate.

Agur, Aita Segundo. Markiegi'tarren bitartez 1, badakit tokiz aldatua zerala. Bai-ta ere, badakit, orko zenbait lekutan sumendien autsak egin ditu kalte ikaragarriak. Jainkoa'k nai beza, gizadia pixka bat zuzendu dedin, eta mundua goibeltzen duten lañoak noizpait ere urratu ditezen.

Osasunez ongi? ... Euzkadi aldera noiz? ... Emazteak eta amagiarrebak goraintzi maitekorrak. Otoi-egiozu Jaunari gure alde 2

Eskumuñak:

---

1 Aita Segundo Argentinako Formosan zegoelarik 1931-32eko giro politiko nahasiaz Lizardik zuen ikuspuntua ezagutzeko aukera ematen du: abertzaleek monarkikoak dituzte etsai nagusi eta hauen erasoak erantzun beharrean gertatzen dira Gasteizko Estatutuaren ideia aurrera ateratzeko eta honen bidez lortu asmo dituzten helburuak eskuratzeko.

2 Markiegitarrak bi anai ziren Florencio eta Joseba Mirena. Debarrak ziren, Florenzio Debako alkate eta Joseba Mirena (1893-1936) Lizardiren adiskide mina izan zen azken urteetan. Markiegi apaiza zen Arrasaten eta bera izan zen Lizardi hiltzean haren eskuizkribuen ondarea jaso zuena Orixek dioenez. 1934ean Lizardiren kazetarilanen bildumaren argitalpenari hitzaurrea ipini zion. Arrasaten atxilotu zuten frankistek eta 1936-10-24ko gauean Donostiako Ondarretako espetxetik atera eta Oiartzunen afusilatu zuten.

28. DOKUMENTUA

Las Arenas 21 de Marzo de 1931

Sr. D. Jose M. Aguirre
TOLOSA

Mi estimado amigo:

Dirijo a V. esta carta a la dirección que me dan como suya en Estudios Vascos pero espero que V. me la confirme o rectifique para lo sucesivo.

Es una pena que la distancia no me permita estar en comunicacion mas directa con V. pues creo que estamos en situacion de poder colaborar con actividad en varios asuntos de primordial interes para el Pais, desde la Sociedad de Estudios Vascos.

He preguntado hoy a San Sebastian para que fecha piensan convocar la Junta Permanente que habitualmente se reune hacia Semana Santa, y me han contestado que la reunion será la semana proxima pero que todavia no han recibido la orden de pasar la convocatoria ni les han fijado la fecha.

Yo desearia poder tener una entrevista con V. antes de la citada reunion, y quizá fuera conveniente, ademas, que nuestra Comision de Primera Enseñanza se reuniera antes que la Junta Permanente.

Mi punto de vista es este:

1.- La Comision ha empezado a funcionar con ocasion de determinado encargo recibido de la Junta, pero creo que hay motivos sobradamente justificados para uqe siga funcionando de un modo permanente y con las más amplias facultades.

2.- La Comision debiera presentar a la Junta Permanente en su reunion proxima un estudio mas o menos detallado de la situacion actual de la enseñanza primaria en el Pais Vasco. Si este estudio no puede aun presentarse en forma completa, como probablemente sucederá, convendria que se hiciese en el un avance del trabajo que la Comision se propone realizar en este primer paso de llegar a conocer y a registrar la verdadera situacion de este grado de la Enseñanza.

3.- La Comision en el citado escrito necesitaria recabar de la Junta Permanente su conformidad en considerar el problema de la Primera Enseñanza en el Pais Vasco fundamentado en dos aspectos primordiales y simultaneos,

   A) educacion pública, y
   B) defensa del idioma vasco

4.- Considero que el desarrollo *aislado* del primer aspecto, educacion o instruccion, es el mayor peligro imaginable para la existencia del idioma y, ampliando la idea, para todo aquello que el uso de la lengua materna representa: lo natural y lo afectivo, base de la defensa y de la existencia estable de los pueblos. Asi vemos que iniciativas magnificas de enseñanza como algunas de las establecidas en el Pais Vasco, funcionando en el interior del pais, en las regiones en donde aun se mantenia el idioma vasco, estan resultando las armas mas eficaces para la destruccion de la lengua del pais.

5.- Por una parte, los convencionalismos politicos por los que se rige la Administracion Publica, y por otra parte, las consecuencias de estas arbitrariedades en la conducta a seguir

por parte de padres y maestros, son los dos frentes de oposicion con que se tropieza para afrontar resueltamente el problema.

Los administradores publicos por razones de estrategia politica y los pedagogos por sugerencias cientificas a la moda admiten ya la posibilidad de que se use el idioma vasco como medio de comunicacion en las primeras relaciones entre maestro y discipulo, solo para conocerse e iniciar la labor de la escuela; puede usarse como 'vehiculo', dicen ellos, para llegar a encarrilar al niño en el idioma 'oficial'. ¡Concepto bien pobre, es este, del destino de la lengua de un pueblo! Pero, en fin, no está por ahí, por el lado oficial, creo yo, el camino a seguir. Bien esta, es necesario, urgente, si se quiere, que se consiga, como paso siguiente en ese terreno, el reconocimiento de una cooficialidad de idiomas en toda la extension de la enseñanza, pero mi opinion es que el bilinguismo, donde no hay maestros, ni libros, ni ambiente favorables, seria una conquista absurda y esteril. En el otro frente de oposicion que he señalado está todo por hacer y por conocer, y precisamente ahi es donde debemos trabajar y luchar unificando la direccion de las gestiones de cada uno de los interesados, para el mantenimiento de la enseñanza en su camino natural. Y entiendo que este camino natural es, no solo la conservacion y perfeccionamiento de la lengua propia en donde aun se habla, sino tambien su propagacion y extension a todo el territorio del Pais Vasco como recuperacion obligada del terreno perdido.

6.- Los maestros tienen libertad para enseñar en vasco pero no hacen uso de dicha libertad por alguna de estas razones,

a) por indiferencia
b) por oposicion sistematica
c) por desconocimiento del idioma
d) por temor a los resultados de una inspeccion o comprobacion de su trabajo a base de examen de sus alumnos en castellano
e) por falta de medios de enseñanza (libros, mapas, y lexico modernizado reconocido, o admitido)

Asi enumerados los motivos de resistencia queda bien definida la labor a realizar. Los estimulos, la persuasion, la formacion de maestros vascos, el funcionamiento de cursos de euskera en las escuelas de magisterio, obtener un mayor respeto al idioma natural en las corporaciones aministrativas del Pais, fomentar las ediciones en lengua vasca, proponer y costear obras de enseñanza, darlas a conocer, etc. etc., y sobre todo establecer y mantener estrecha y cordial relacion con maestros, inspectores, corporaciones y cuantas personas hayan de resultar colaboradores eficaces en la campaña que se emprende.

7.- Y a este propósito, ¿puede Eusko Ikaskuntza permanecer indiferente, y retraida por respetos o consideraciones mal entendidas, ante el nombramiento de inspectores que desconocen el vascuence, por parte de una Diputacion vasca? Puedo citar, en cambio, el caso de la Diputacion de Vizcaya, -en cuya region está mas restringida que en Guipuzcoa la poblacion en lengua vasca,- y, sin embargo, el inspector de enseñanza, que no habla el vasco, trata de procurarse un sub-inspector, por nombrar, que domine el idioma del Pais.

8.- Hemos de hacer resaltar la excelente actitud de la Academia de la Lengua Vasca, en una consulta hecha recientemente por la Comision de Primera enseñanza sobre fijacion del léxico a adoptar en determinadas materias de estudio. Actitud practica y razonable de atenerse al uso de las expresiones adecuadas y recomendarlas luego para fijarlas mas tarde como definitivas. Es este principio, -de colaboracion de la iniciativa popular con la intervencion cultural,- el que debiera prevalecer en la creacion y desenvolvimiento de toda la obra de la Sociedad de Estudios Vascos.

9.- La Comision necesitaria disponer de fondos especiales destinados a Primera Enseñanza dentro del Presupuesto de la Sociedad y que le sean reconocidas atribuciones para recabar las aportaciones o contribuciones particulares u oficiales que pudiera obtener.

10.- A continuacion vendria, en el escrito, una exposicion de los primeros pasos que la Comision a dado en el sentido de obtener una relacion de obras, reimpresion de libros de enseñanza ya agotados, aportacion de datos y en general de fijar e iniciar la labor que le corresponde.

11.- Creo que convendria proponer la inclusion en la Comision de alguna persona que representara a Navarra.

12.- Es imprescindible que podamos contar con la colaboracion de la oficina de la Sociedad. Esta necesidad la he de exponer en la Junta Permanente en relacion tambien con otros asuntos que se han de suscitar en su proxima reunion. Es verdaderamente inexplicable que al cabo de 12 años de existencia de la Sociedad nos encontremos con que la oficina no puede proporcionarnos datos, ni referencias, ni archivos, ni nada que puedas ernos útil y necesario en nuestra mision. ¿Donde está centralizada y concretada la labor realizada en Primera Enseñanza en torno a la Sociedad de Estudios Vascos, donde estan los catalogos de obras existentes y desaparecidas con destino a las escuelas del Pais, los registros de escuelas, colegios, maestros, censos escolares, y señalamiento de centros de enseñanza euskerica, donde las colecciones de articulos de Prensa sobre materias de Primera Enseñanza, sobre magisterio, en donde tenemos clasificada y a la vista una referencia de las legislaciones, de disposiciones sobre administracion de enseñanza en España, ni en el extranjero, ni tan siquiera lo que se ha hecho y lo que se hace en el Pais Vasco?

Estos puntos son los que considero que deben exponerse ante la Junta Permanente y mucho me alegraria y me honraria que fuesen tomados en consideracion por la Comision.

Sé que está V. animado, si no de un gran optimismo, de un extraordinario entusiasmo hacia todo lo que tienda a mejorar y elevar la situacion de este pueblo. Y en este sentido deseo que me cuente como un colaborador convencido y tenaz.

Hay otras dos cuestiones en que espero poder intervenir en la Junta y en las que creo que podré contar con su apoyo: la desdichada cuestion Universidad y la reforma de la organizacion interna de Eusko-Ikaskuntza.

En espera de su contestacion me repito su afectisimo amigo y s. s.

q. e. s. m.

Villalonga

P.S. Empezada esta carta el dia 21 me he visto precisado a interrumpirla por varios dias. Hoy 25 recibo de San Sebastian la convocatoria a Junta para el dia 30. Tambien recibo una carta pidiendome noticias de unos libros premiados en 1918 por la Diputacion de Vizcaya. ¿Le pareceria a V. conveniente que la Comision se reuniera el mismo Lunes a las 10? Espero sus noticias [1].

---

1 Villalonga kondeak Lizardiri zuzenduriko gutun hau Eusko Ikaskuntzaren erakundearen barruan 1930ean hartu zuen ardurarekiko harremanean dago. Lizardi 1930ko Irailaren 8.ko aktetan Eusko Ikaskuntzaren Batzar Iraunkorrerako ordezkari izendatu zuten eta "Enseñanza Primaria" zeritzoten batzordearen buru. Izendapen horren ondorioz "Batzar iraunkorrari agurra Agirre'tar Joseba Mirena jaunak" izeneko hitzaldia eman zuen (Eusko Ikaskuntzaren Deia, 48, 1930). Berez 1931-1-1tik aurrerakoa zen izendapena eta Eusko Ikaskuntzaren deiaren 49. alearen 9-10 orrialdeetan azaltzen den aktaren arauera. Lizardiren ekintzak Villalongak aipaturiko gaien inguran zebiltzan:

"El señor Echegaray dió cuenta de los acuerdos de la Academia de la Lengua Vasca, que hanbían sido confirmados en la sesión celebrada aquella mañana por la federación de APE relativos a que los Ayuntamientos de zona euskaldun que tienen establecidas escuelas municipales de parvulos hagan que en ellos sea usado el euskera proponiendo igualmente el sr. Echegaray que el sr. Agirre (J.M.) se encargase especialmente, como representante de

la Sección de Enseñanza Primaria de dirigir la acción necesaria para la consecución de tal finalidad. Et sr. Agirre indicó las gestiones que en unión de otras personas está realizando y al parecer con éxito, para que en los colegios privados se facilite la enseñanza euskérica que chos padres desean y que acaso una vez lograda esta aspiración sería más fácil lograr lo que se pretende en los Ayuntamientos, indicando tambien otras medidas muy urgentes que habría que adoptar en pro de la enseñanza euskérica, como la edición de varios textos entre ellos un compendio que sirviese para los exámenes de los niños en los Días del Euskera".

Jose Villalonga andaluza zen jatorriz eta Manu Sotaren arreba batekin ezkondua zegoen. Euskaraz ikasi zuen eta euskal kulturaren gaietan jardun zuen benefaktore gisa.

29. DOKUMENTUA

ASMOZ TA JAKITEZ Barcelona, 16 Mayo de 1931

Consejo de Ciento 246

Adiskide ona: Recibí, agradecí y entendí muy bién sus dos cartas en las que me daba Vd. solución al problema de las conversaciones euskericas de nuestros Cursos de Verano. Lo que no resultaria tan bien seria mi contestación en euskera. Y la causa de que esta contestación se haya retrasado ha consistido en el retraso de todo el programa de los Cursos, debido a las combinaciones que ha habido que hacer en él, especialmente en lo que se refiere a los que se celebrarán en Iruña, sobre los que espero aun una carta de D. Bonifacio de Echegaray [1]. De todas suertes voy a llevar ya el programa a la imprenta de aquí, en que lo hago para mayor rapidez y dentro de unos días corregiré sus últimas pruebas, pues hay que repartirlo enseguida, dado que los Cursos comienzan el 29 de Junio.

Respecto a lo que Vd. me decia de la hora para las conversaciones euskéricas, he dado muchas vueltas al modo de alterarla, pero como ya están comprometidas para ambos días las horas de las 5 1/2 de la tarde y de las 12 del mediodia, [2] con conferencias anteriores; y también la hora de las 3 y 1/2 de la tarde, (que además no sería adecuada para conferencias), está ocupada para visitas a Museos y danzas al aire libre, que no pueden tampoco trasladarse. En cambio la hora de las 11 para las conversaciones euskericas tiene la ventaja de ser a continuación de la de las 10 en que todos los dias hay clase de Gramática Vasca y a los alumnos de esta les conviene esa práctica y asistirán así mejor a las conversaciones, que otras veces también se han visto muy concurridas a esas horas, de las que ya vé Vd. ahora las dificultades que hay para cambiarlas, a pesar de mi deseo de complacerle.

Por consiguiente, si Vd. no me dice otra cosa antes de esos ocho dias, anunciaremos para los dias 4 y 5 de Julio a las 10 de la mañana "*Euskera ikastaldia*: "Euskal - Elerti leenaz ta etorkizunaz". Jauregi'tar Koldobika, Idazle JK." = *"Conversación en euskera sobre el pasado y porvenir de la literatura euskérica"* por D. Luis de Jaúregui, Publicista.", anunciando el segundo dia "*Euskeraz ikastaldi bigarrena*"

Agur, bada, eskarrik asko, ta agindu zure adiskide

Apraiz'tar Angel'i [3]

---

1 Bonifazio Etxegarai azpeitiarra Madrideko Tribunal Supremoko 2. salako Idazkaria zen eta Madriden bizi izaten zen. Eusko Ikaskuntza erakundean itzal handikoa zen eta Lizardirekiko harremanei buruz euskararen erabilera praktikoaz guztiz iritzi aurkajarriak zitutztela erakutsi zuten 1930an *El Día* egunkarian izan zuten eztabaida luzean.
Ikus 1. Partean 2.2.2. Normalkuntza soziolinguistikoa deritzan puntua.

2 Eskuratu dugun kopian ezin da irakurri esaldi hau.

3 Anjel Apraiz gasteiztarra Eusko Ikaskuntzaren sortzaileetako bat izan zen, Arte Ederretako eta Estetika irakasle zen Bartzelonako Unibertsitatean. Eusko Ikaskuntzaren Idazkari Orokorra zelarik, Udako Ikastaroen arduradun nagusia zen. Eskutitz honetan ikusten denez, Lizardik 1931koen antolakuntzan zeregin berezia izan zuen eta 1932-6-8ko kronikan Luis Jauregi "Jautarkol"en hitzaldiaren ondoko eztabaidan eskuhartu zuen (Ikus *El Día* 1932-6-8, 1. or.) euskara idatziaren batasun premiari buruz.

30. DOKUMENTUA

29 Octubre 1931

Sr. D. Angel de Apraiz

Secretario General de la Sdad. de Estudios Vascos

BARCELONA

Muy Sr. mío y distinguido amigo: Me ha hablado Isaac Lopez Mendizabal acerca del caso del libro de lectura "Xabiertxo" [1], agotado ya y cuya reedición es urgentísima, pues estos días de principio de curso están lloviendo pedidos del mismo, que no se pueden atender, lo que es una pena.

L. Mendizabal quisiera que "Eusko-Ikaskuntza" se decidiera a una nueva edición , o que, de no interesarle, le conceda la oportuna autorización para que él la haga por su cuenta.

Yo le he dicho que no me cabe duda de que la sociedad accederá rápidamente a una cosa o a otra, probablemente (le he apuntado) a la segunda, y, vista la urgencia extraordinaria del caso, le he aconsejado disponga desde luego los preparativos para la edición.

La espera hasta la junta de la Permanente sería matante, por lo larga, y el niño euskeldun carecería por todo este curso de aquel precioso auxiliar. Por ello, me parece que el asunto debería ser fallado, en cuestión sólo de días, por el Comité Ejecutivo, quien incluso, sin tomar una determinación concreta, (aunque esto último sería lo mejor) podría limitarse a autorizar la edición, a reserva de que la Permanente determine si a de ser a cargo de E-I o del autor.

Mucho le agradeceré tome las disposiciones que crea convenientes para una rápida y favorable resolución del asunto expuesto, y en espera de sus gratas noticias, le saluda su afmo. s.s. y amigo q.e.s.m.

1 Isaak Lopez Mendizabal Tolosako euskal argitaletxe ospetsu baten jabe eta hainbat euskal idazlanen argitaratzaile izateaz gain, Roman Bera kaputxinoarekin batean euskara-erdera eta erdara-euskara hiztegi ospetsu baten egile izan zen. Horrezaz gain, eskoletan erabiltzeko irakurketa liburu ospetsu bat ere sortu zuen *Xabiertxo* delakoa. Diktaduraren debekuaren ostean eskoletan euskaraz erakusteko askatasuna hedatu ahala eta ikastolak sortu ahala testu-liburuen arloan dagoen premia nabarmenago bilakatzen ari da.

31. DOKUMENTUA

1931-gko. Urrillak 29.

Elortza'tar Julian jaunari [1]

*AZPEITI*n

Jaun agurgarri ta adiskidea: Lopez-Mendizabal'ek "Xabiertxo" 'tzaz itz-egin dit. Eskabideak sarri omen-ditu egun auetan, ta alerik ez, emateko.

Berala atera-bearra da, beraz, liburutxo ori, bigarrenez, ta zerbait ikututa. Egilleak berak aterako omen-luke, "Eusko-Ikaskuntza" 'k ez nai-izatezkerotan; baña, artarako ere, bazkun orren baimena bear.

Eguarritako batzarrearen begira ere ez gaudeke: bereala erabaki-bearreko gauza da. Nere ustez, Comité Ejecutivo dalakoak erabaki dezake, bereala biltzen dala.

Estornés'i ta Apraiz'i jakinarazi diotet arazo onen berri, ta zere aldetik ere, lenbait-len erabaki dedin al-egitea, eskatzen dizut, ta erabakiaren berri neri bialtzea: nik adiraziko baitiot L-Mendizabal'i.

Nik esan diot, "Eusko-Ikaskuntza" 'k berak ez argitaratzezkero, baimena beintzat ez diola ukatuko, ta beraz gaurdanik asi ditekela bere eginbearra gertutzen.

"Umearen Laguna" 'rekikoa (cartilla) , leen-leenean izketatu bezela erabaki degu. "Eusko-Ikaskuntza" 'k 3.000-ko edizioa ateratzea, ta ortik gora alerik ez egitea.

Zere berri zai, ta aurretik eskerrak emanik, zure zerbitzari

---

1 30. Dokumentuan bezala, Lizardik eskoletarako testuliburuen gaiaz arduradun egin dutenez Eusko Ikaskuntzaren "Enseñanza Primaria" deritzan batzordean *Xabiertxo* liburuaren berrargitaralpena lehen bait lehen egiteko beharrezko diren tramiteak egiten dihardu Eusko Ikaskuntzako kargudun nagusi ziren Angel Apraiz eta Julian Elortza presidentearengana joaz.

Julian Elortza (Azpeitia 1878-Donostia 1964) Gipuzkoako Aldundiko diputatu izan zen 1911, 1919 eta 1930ko hauteskundeetan eta Eusko Ikaskuntza erakundearen presidentea.

32. DOKUMENTUA

ASMOZ ETA JAKITEZ EUSKO -IKASKUNTZA

SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS

OFICINAS: PALACIO DE LA DIPUTACION DE GUIPUZCOA

DONOSTIA (SAN SEBASTIAN), 30 de Octubre de 1931

Sr Dn. José Maria Aguirre:

Tolosa

Ene adexkide arrulloa: Como complemento a la conferencia telefónica de ayer, le dirijo estas lineas para aclarar algunos puntos.

Este libro de lectura que estoy publicando ha nacido en un momento de entusiasmo al ver que no se publicaba el Xabiertxo, para lo cual indaqué si Lopez Mendizabal pensaba editarlo, averiguando que si; pero como en la edición anterior empleó creo que cerca de tres años segun el archivo de E. V., y pensando que por muy rápido que quisiera hacerlo, habiendo anunciado además que iba a reformarlo, tardaria unos meses, me decidí a escribir con los materiales que de antes poseia para diversos fines, un libro de lectura que llenase los fines de esta y no habiendo ningun libro de texto de Geografia e Historia, pudiera suplirlos provisionalmente. Tambien me movió a hacerlo el pensar que que con saber euskera y leer euskera, y tener el alma extranjera o neutra se conseguia muy poco o nada. Por esas razones me decidí a escribirlo y lo escribí en unos dias y al mismo tiempo se hacia la traducción y la corregia don Ramón Inzagaray.

Es mi manera de ser, de trabajar por impetus, y este ha sido uno de tantos, de los dados y de los por dar; además no me gusta que se enteren de mis cosas hasta el momento en que salen a flor de agua. ¿Que conseguiria con hacer esperar la aparición del libro y anunciarlo con bombo y platillo si solo ha de servir para después criticarlo? Prefiero publicarlo calladamente haciendo uso de mi perfecto derechos y lanzarlo al mercado para que compita con los quieren salir para el mismo fin. Claro que tambien quiero que tenga aceptación, pues solo aspiro a cubrir los gastos de edición que para mi es uno de tantos riesgos de los que me he metido en mas de una ocasión. Con ello me contento, me basta y me sobra. A intención patriotica no me ganarán otros publicistas, pues quiero cubrir los gastos para dedicar ese importe a otra edición de otros materiales que poseo.

Le suplico actue en la forma que mas se aproxime al bien de la Patria, que espera que hagamos PATRIA.

Sin mas por hoy, reciba un saludo afmo. s. s. en JEL.

BERNARDO ESTORNES LASA [1]

---

1 Bernardo Estornés Lasa (Isaba 1907-) 1929an kokatu zen Donostian, "Estornes Ikastetxea" zeritzan komertzio ikasketetarako ikastetxea sortu zuen eta Eusko Ikaskuntzaren barruan "Bulego eta Liburutegiaren arduradun" izan zen.

Gutun honetan editore gisa gerora izango zuen zeregin nagusiaren esparruan diharduela ikus genezake eta *Xabiertxo* liburuaren argitalpenaren ordezkotza egin lezakeen liburu bat argitaratzear dagoela jakinarazten dio Lizardiri 33. Dokumentu honetan eta hurrengo egunean bidaliriko gutunean, 34. Dokumentuak 1931ean Zarauzko Itxaropena argitapetxean argitaratu zuen *Sabin euskalduna* zeritzan liburuxkaz dihardu. Gaztelaniazko erredakzioa berea zuen eta euskarazkoa Agustin Zumalabek prestatua da. Aurkibideak euskal kulturari buruzko hainbat gaiez dihardu, historia, geografia, ipuinak...eta koloretako ilustrazioez osaturik ageri da.

33. DOKUMENTUA

EUSKO -IKASKUNTZA
SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS
OFICINAS: PALACIO DE LA
DIPUTACION DE GUIPUZCOA

ASMOZ ETA JAKITEZ

DONOSTIA (SAN SEBASTIAN),
31 de Octubre de 1931

Sr Dn José Maria Aguirre
Tolosa.

Ene adexkide zintzoa: Supongo recibiria la mia de ayer y he de manifestarle que como me indicaba la del Sr Apraiz llevó su camino para Barcelona. También he convocado para Comité, para esta tarde para resolver el caso del Xabiertxo, y después me he fijado que no es propiedad de la Sociedad de Estudios Vascos, sino de Euskalerriaren Alde, por lo cual pueden considerar la autorización como dada.

Hoy escribo a Lopez Mendizabal, pues no quisiera que por causa mia se perjudicara nadie, es decir, que comenzara los preparativos de edición y es posible que después la retirara.

Creo firmemente que ha llegado el momento de dejarnos actuar a los que por una vez siquiera, nos exponemos en el campo de Patria, a introducir en las escuelas algo que no solo esté escrito en euskera sino que constituya uan especie de semilla de patriotismo, discreta y pausada 1.

Desearia se entrevistase con Lopez Mendizabal y le hablara en este sentido. La ocasion es unica.

Con este motivo le saluda su afmó. S. S. y amigo en JEL.

Bernardo Estornés Lasa (firma)

1 Bernardo Estornés Lasak *Sabin euskalduna* liburuak duen helburua azaltzen jarraitzen du 32. Dokumentuan bezala, ikasleengan abertzaletasuna ereiteko helburua duen liburua sortzeko asmoz egina du.

34. DOKUMENTUA

J. M. J.
J. B.
ESCUELAS DE LEGAZPI
HERMANOS DE LAS ESCUELAS CRISTIANAS

ZUMARRAGA (GUIPUZCOA)
TELEF. 14-78

---

25 de Diciembre de 1931
Sr. D. José María Aguirre

Tolosa

Muy Sr. mío y apreciado amigo: Con sumo agrado he recibido su atta. de ayer; le agradezco sinceramente su felicitación y se la devuelvo a lo menos tan afectuosa y sincera.

En cuanto a los libros de textos euskéricos, debo decirle que el trabajo va a-delante; deseo vivamente que este curso, si mis cálculos no me engañan, tengamos ya impresos: Aritmética, Gramática, Geografía, y método; en estos cuatro textos estamos trabajando con mayor intensidad por creerlos de mayor importancia. También deseo tener cuanto antes un libro de lectura explicada; la idea la tengo totalmente esbozada, la pondré en ejecución en cuanto pueda dedicarme a ello.

Según entendí conviene sacar las obritas esas en Euskera y en castellano; claro, en libros separados, salvo la Gramática que debe ser exclusívamente euskérica.

Estos días he estado en Madrid hablando con nuestros editores y parecen haber tomado la cosa con cariño; creo que podremos hacer cosa, a lo menos decente. Quizás uno de estos días me ponga al habla con V. para hablar un poco más detenidamente sobre el particular, para que se dé cuenta del estado de la cuestión y del modo de proceder.

Le doy la enhorabuena por el éxito obtenido en el presupuesto, todo será poco para difundir la cultura tan descuidada, hasta ahora del euskera; encontramos dificultades a granel en la clases para enseñarlo, todo por falta de textos adecuados y cómodoz; con todo los cursos se dan con entusiasmo y se siguen de igual modo; poco a poco se hará algo; todos lo deseamos.

Reiterándole mi felicitación, queda siempre de V.

affmo. y s,s,

Javier Mintegiaga [1]

---

[1] Javier Mintegiagak Lizardirekin 1931-32 urteetan izaniko harremana testugintzari loturik dago eta Lizardik Eusko Ikaskuntzaren barruan duen "Enseñanza primaria"ko batzordeko lanarekin du zerikusia. Legazpiko "Hermanos de las escuelas Cristianas"eko irakasle talde batek Aritmetika, Gramatika, Geografia eta Metodo ikasgaietarako testuliburuak prestatu zituzten eta Javier Mintegiaga haien izenean mintzatzen da Lizardirekin.

35. DOKUMENTUA

26 Enero 1932

Sr. D. Luis Sesé

Presidente de la Asociación Católica de Padres de Familia.

Muy Sr. nuestro: En presencia de la legislación y proyectos del Gobierno español, las mujeres que constituimos esta asociación creemos de la mayor urgencia e interés para los católicos vascos el ir fundando escuelas confesionales particulares.

Desde que la santa Cruz y el Catecismo van siendo arrancados de la escuelas públicas, conocemos a muchos padres que a cambio de no ver privados a sus hijos de aquel pan espiritual, los enviarían gustosos a centros de enseñanza particulares.

Según voz pública, esa Asociación de su digna presidencia cuenta con importantes donativos a los que aún no ha dado empleo, y ello nos ha movido a dirigirnos a usted para hacerle partícipe de nuestros deseos.

Grande sería nuestra alegría y la de muchísimos padres de familia católicos, si esa asociación se creyese llamada aquí a hacerse cargo de la idea apuntada. Quizá en este momento la necesidad de no privar de enseñanza religiosa a nuestros niños se sobrepone por mucho en importancia y en urgencia a la conveniencia de procurar a nuestros jóvenes centros de honesto esparcimiento.

Perdone nuestra osadía, y, si estimase Ud. deber dar curso a este escrito, vivamente le agradeceremos lo dé a conocer a sus compañeros de Junta, para que no se haga esperar una resolución que tan beneficiosamente influiría en el porvenir espiritual de este pueblo nuestro [1].

Mande a sus afmas. s.s. q.e.s.m.

E-A-B, presidenta, Secretaria,

1 Jose María Agirre Lizardiren dokumentuen artean gorderiko eta Emakume Abertzaleen Batza deritzan elkarteko lehendakari den Arantza Barrenak Luis Sesé jaunari zuzenduriko gutun honek Lizardik guraso katolikoen elkartean partaide zela iradokitzen du.

Luis Sesé (1885-1964) injeniaria zen eta Lizardik lan egiten zuen Perot enpresako kontseilaria. Lan harreman honezaz gain, biak Tolosako Eskolapioetan ikasiak ziren eta Errepublika denboran ordena erlijiosoei irakaskuntzan aritzeko ezarri zitzaien debekuaren ondorioz, bertako ikasle izandako zenbait ikasle-ohiren zuzendaritzapean balihardute bezala agertzen ziren fraideen izenak irakasle gisa. Tolosako Eskolapioen zuzendaritza taldekoa zen Luis Sesé eta horregatik zuzendu zioten gutun hau Emakume Abertzale Batzakoek. Lizardik gutun hau bere dokumentuen artean gorde izanak zera adierazten du, bera ere zuzendaritza horretako partaide zela, nonbait.

36. DOKUMENTUA

EUSKO-IKASKUNTZA
SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS
OFICINAS: PALACIO DE LA
DIPUTACION DE GUIPUZCOA
TELEFONO 11222

ASMOZ ETA JAKITEZ — DONOSTIA (SAN SEBASTIAN), 23 de marzo de 1932

Sr Dn José Maria Aguirre
Tolosa

Querido amigo: Le agradeceré no deje de comunicar a nuestro comun amigo Labayen, las suscripciones a Antzerti, que son las siguientes:

Mariano Estornés Lasa.- Espoz y Mina, 7-ZARAGOZA. 1 ejemplar.

SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS. 10 ejemplares.

Ya habrá Vd. podido comprobar mis temores referentes a la Historia de Euskadi, que elaboraban en Vitoria. Según hablé con el Sr. Barandiarán, será una historia de la Civilización Vasca, no una Historia de la nación o pueblo vasco. Es decir, un texto de universidad o de Instituto a todo tirar, pero no un libro para niños *menores de 14 AÑOS.* Qué capacidad tiene el hijo del casero o el niño de las aldeas y pueblos que van por primera vez a la escuela para poder adentrarse en la finalidad y significado, ante la vida, de la historia de las técnicas de las diferentes industrias, de las costumbres, del origen del pensamiento, y de la educación científica y artística de los vascos a través de los tiempos. Una historia de la Civilización vasca es urgentísima y de una utilidad enorme, pero yo creo que es tarea a llevar por la Sociedad, aparte de los textos euskericos de *enseñanza primaria.*

Yo, particularmente, como cada vez soy más individualista, confío menos en el el apoyo ageno, que ni en broma lo he pedido nunca, publicaré [1] ... mostrar no solo la *Historia externa,* sino muy especialmente cómo vivieron nuestros mayores y cómo se han ido transformando por la acción del tiempo y la influencia del ambiente o de otras causas, los modos de ser y de pensar de las generaciones que ocuparon antes que nosotros este solar vasco, resultando así el libro no una mera yuxtaposición de datos, sino una Historia orgánica y viva [2].

..... la historia externa, ha hecho, hace y hará patria, mientras que la interna hace, casi exclusivamente *cultura.* Y a mi me parece que la ALTA CULTURA VA subiendo mucho y la popular se queda en el mismo sitio. Por eso mi finalidad es hacer Patria y a ello va encaminada y a nada más. Resultará una obra más o menos perfecta o imperfecta, pero patriotica: otro lo hará después mejor.

1 Gutunaren zati hau ez dago irakurtzerik.

2 Testu zati hau liburu batetik ebaki eta gutunarekin batera bidalia da.

Adjunto le envio un ejemplar del Sabin, pues siempre acostumbro regalarlo cuando ya lo han comprado los amigos, porque el dinero hace falta que se reintegre a esta clase de publicaciones, para emprender otras, y el regalo es solamente por amistad o por simpatia.

Espero que para la próxima sesión tendré ya el texto editado y en condiciones de emprender la edición euskerica que la haré tambien por mi propia cuenta, aunque salga más abundante en lagunas o peor presentada.

Esperando mi encargo al Sr, Labayen será cumplimentado, le saluda su afmo. S.S. q.e.s.m. y a. en Jel.

Bernardo Estornés Lasa [1]

1 32. eta 33. Dokumentuetan bezala Bernardo Estornés Lasak Lizardiri *Sabin euskalduna* liburuaz hitzegiten dio eta ale bat opari gisa bidaltzen. Era berean prestatzen ari den *Historia del País Vasco* liburua iragartzen dio 1933an idatzia irakasleek erabiltzeko eta Zabalkunde sailean haurrentzat argitaratu zen *Euskal Edestia*ren osagarri dena.

37. DOKUMENTUA

6 Junio 1932

Hno. Javier Mintegiaga

Escuelas de Legazpi

ZUMARRAGA

Muy Sr. mío y estimado amigo: Mucho le agradeceré me comunique noticias concretas acerca del estado de la redacción de textos euskéricos 1.

La cosa se va alargando, seguramente porque se trata de una labor excesiva para ustedes, en cuyo caso sería preciso ver la manera de procurarles los auxiliares precisos.

He oido que D.J. Iruretagoyena, de Zarauz, tiene prohibido todo trabajo intelectual, y ello me hace pensar si quizá estará estancada la traducción del texto de Aritmética.

Tendría mucho gusto en poder hablar con usted detalladamente de todos esos extremos, bien sea aquí o en San Sebastian, si tuviera usted ocasión de pasar en breve por cualquiera de los dos sitios.

En espera de sus agradables noticias, le saluda su afmo. s.s. q.e.s.m. 2.

1 34. Dokumentuaren ostean bost hilabete joan dira eta Javier Mintegiagari benetan testuliburuen erredakzio egoeraren berri zehatza eskatzen dio Lizardik, behar baino motelago doala iritzita ziurrenik.

2 Gutun honen eskuzko eta hitzez-hizko zirriborroa ere badago dokumentuen artean.

38. DOKUMENTUA

17 Junio 1932

Hermano Jabier Mintegiaga

ZUMARRAGA

Muy Sr. mío y amigo: Ayer le envié un paquete conteniendo:

IPUIAK eta ..., que es el libro de fábulas de Iturriaga.

JOLASAK, del mismo autor, que contiene articulillos acerca de diversas cosas, en prosa.

IPUI ONAK, de Vicenta Mogel, fábulas en prosa.

El primero de los citados libros es de Isaac Lopez Mendizabal, y lo necesita irremisiblemente en término de una semana, por lo menos le ruego a usted me lo devuelva en ese plazo. Los otros corren menos prisa.

Ya en "Xabiertxo" hay media docena de fábulas de Iturriaga seleccionadas, más algunas de otros autores.

D. José de Ariztimuño tiene una lista de más de 300 fábulas publicadas en la revista "Euskal-Erria". Estaba trabajando con ella, y por eso no se la puedo enviar a usted, pero está en todo momento a nuestra disposición. La revista se puede consultar en "Estudios Vascos". Ya me dirá usted si para el avance de Gramática va a ser preciso consultar eso, o si se dejará para ir formando más despacio el texto completo.

Con esta carta le adjunto la terminología de Geometría aprobada por la Academia Vasca.

Tengo recibidas del Sr. Lekuona la primera parte de la Historia Sagrada (en la segunda está haciendo algunas correcciones) más el texto en francés que le dió usted para los grabados. Caso de que le convenga a usted recibirlos, dígamelo. Yo he pensado que para hacer la consulta acerca de los grabados no necesitará usted esos materiales, en cuyo caso puedo tenerlos yo hasta que empecemos a hacer las gestiones de publicación.

Así que tenga usted noticias acerca de eso, como también de la imprenta de Madrid a la que iba a consultar, tenga la bondad de avisarme sin pérdida de tiempo, pues se nos va echar el verano encima y apenas va a quedar tiempo para editar con calma todo lo que queremos [1].

Escribo muy de prisa esta carta, no sé si su expresión es muy exacta, pero seguramente se habrá dado buena cuenta de todo.

Siempre suyo afmo. s.s. y amigo q.e.s.m.

---

1 Jabier Mintegiagak emandako informeari erantzuten dion gutuna da 38. Dokumentu hau, eta banan banan Escuelas Critianas delako elkartekoek egiten diharduten lanerako beharrezko ziren liburu eta materialez dihardu gutunak.

39. DOKUMENTUA

BIZKAI - BURU - BATZARRA
Correo, 17, 2'g - 14740 Urrutizkiña
BILBAO

Secretariado General Vasco
0FICINAS PROVISIONALES
Correo, 17 - 1 T. 10.001
BILBAO

Bilbao, 16 Noviembre 1931

Sr. D. José María de Agirre

Tolosa

Muy Sr. mío:

Por encargo del Sr. Jemein me dirijo a Vd. ya que los muchos asuntos que tiene a él se lo impiden, para rogarle nos dé su conformidad a retocarle algunas pequeñeces en su trabajo "Sabino poeta", tales como escribir con z las palabras Euzkadi y euzkera en lugar de con s, pues tratándose de un número extraordinario dedicado a Sabin, desea la "Comisión de Prensa" que todo él se ajuste a la fonética Sabiniana.

Asi mismo la citada Comisión me indica que veria con mucho gusto que no solamente en lo referente al trabajo que nos ocupa, sino que en todos sus escritos, adoptase Vd. dicha fonética [1].

En espera de sus gratas impresiones, queda de Vd.

afmo. y s. s. q. e. s. m.

Tomás de Jayo

---

1 Gutun honetan aipatzen den "Sabino poeta" artikulua 1931-11-25ean, Sabino Aranaren hil-urteurrenaren egunean argitaratu zen *Euzkadi* egunkarian. Lehen partean eta Lizardiren ekintza kulturalaren alorrean azaldu dugun Kirikiño sariarekiko auzian jadanik aipatuak geratu diren jarrerak agertzen dira gutun honetan. Bilboko *Euzkerea* aldizkariaren inguruko Tomas Jayok, Keferin Jemeinen izenean idatziriko gutun honetan, talde hartakoak Euskaltzaleak taldekoekiko zuten jarrera sabinozale ortodoxoaren erakuskarri da.

40. DOKUMENTUA

17 de Noviembre 1931

Sr. D. Tomás de Jayo.

Correo, 17, 1º

BILBAO

Muy Sr. mío y compatriota: Recibo su atta de ayer [1].

Pueden desde luego retocar el artículo "Sabino poeta" libremente, en cuanto suponga adaptarlo a la fonética Sabiniana.

En cuanto a mi actuación general, es natural que quiera conservar mi libertad de acción en materia opinable, quizá aun no definitivamente fijada. Ahora bien, creo que la cuestión S-Z, por ejemplo, es de importancia muy secundaria, y que no debemos hacerla consubstancial con nuestra veneración por Arana Goiri, quien será siempre providencialmente grande para Euzkadi por eso más o menos [2].

Es ésa, en mí, muy sincera opinión, que espero no me ha de hacer sospechoso de antisabinismo. Por ello, no encontrarán ustedes en mí obstáculo para correcciones como la propuesta, aunque particularmente me suene más la forma contraria.

Goraintzijak Jemein adizkidiari, ta JEL-pian agindu.

---

1 39. Dokumentua.

2 Lehen partearen 2.3.3. puntuan eta "Normalkuntza linguistikoa" izenburupean azaldu dira bere osotasunean Lizardik gutun honetan adierazten dituen ideiak.

41. DOKUMENTUA

BIZKAI - BURU - BATZARRA
Correo, 17, 2' - 14740 Urrutizkiña
BILBAO

Bilbao, 23 Noviembre 1931
Sr. Don José Mª de Agirre.
Tolosa.

Estimado compatriota: Mi amigo Jayo me entrega la carta que Vd. le envia con fecha 17 del actual.

En primer lugar mis más expresivas gracias por la autorización que nos dá para las pequeñas correcciones que me permiti pedirle por mediación del buen amigo Jayo.

Pero quiero aprovechar la ocasión para contestar a alguno de los puntos que expone en su referida grata, con el mayor cariño y por JEL.

Dice Vd.:

1º - Que quiere Vd. conservar su libertad de acción en materia opinable.

2º - Que la cuestión S-Z es secundaria.

3º - Que le suena mejor la forma contraria.

Y contesto yo:

1º - Evidentemente que eso es materia opinable; pero es sensible que las opiniones en cuanto afectan al nombre propio de la Patria sean distintas dentro de los que comulgamos en el mismo ideal y reconocemos a esa Patria como la única de los vascos.

2º - S-Z es secundario; pero por lo mismo que lo es no hay inconveniente en usar la Z que nos la dió el Maestro y la sigue la mayoria de sus discípulos. ¿Por qué han de ser éstos los que la cambien y no los otros, los que se adapten a la forma primitiva y tradicional? ¿Que razones hay para el cambio, si es secundario?

3º - El que suene mejor ó peor no es una razón, si no hay argumentos científicos en contra. Al español que le suene mejor y pronuncie por ejemplo, Vayadolid, no lo escribirá así, sino Valladolid.

Y aunque hubiere argumentos cintíficos, si son secundarios, no merecía la pena de corregir al Maestro, introducir modificaciones, romper la unidad, suscitar discrepancias, armar confusión y provocar disgustos.

Y ahora, por mi cuenta, fuera de sus manifestaciones.

Me complazco en enviarle la colección de los trabajos de Arana-Goiri tar Sabin publicados en su revista "Euzkadi" donde nos dió a conocer el por qué de este nombre, aceptado entonces por todos los compatriotas sin distinción. Si no lo conoce Vd. léalo y vea si le conviene.

Pero si no le convence, lea Vd. también lo que decía "Kizkitza" hace poco en el diario "Euzkadi" (con Z también). Hablaba de la raza, y afirmaba: "Tenemos además la seguridad de una solución

que no puede ser rechazada por ningún nacionalista, por ser dictada por nuestro Maestro Sabino Arana-Goiri".

La cuestión de raza será para algunos tan opinable como el euzkera; pero para "Kizkitza" y para todo fiel discípulo suyo "no puede ser rechazada, por ser dictada por nuestro Maestro".

Pero voy a suponer que el euzkera es más opinable todavía. Por serlo, podemos seguir precisamente las enseñanzas de los mejores maestros.? Y quién fué en euzkera el mejor Maestro?

El mismo "Kizkitza" nos lo dice en el referido artículo, que es del día 15 del actual: "Este pensamiento del *eminente euzkerálogo máximo, sin par* exaltador del idioma racial".

Ya vé Vd.: Sabino el eminente euzkerálogo, el sin par euzkerálogo, el euzkerálogo MAXIMO.

Y, sin embargo, "Kizkitza" le corrije y Vd. le corrije también.

"Kizkitza" no da las razones.? quiere Vd. darme alguna que no sea la de que "le suena mejor"; alguna razón científica que destruya las aportadas en su grandioso trabajo que le envío, por el euzkerálogo máximo?

Por que habrian de ser de mucho peso para atreverse a rectificar, lo que el euzkerálogo máximo. Pues no se pueden admitir esas modificaciones por razones de importancia secundaria, máxime si provocan excisiones en el seno del Partido Nacionalista.

Perdóneme la tabarra y mande en JEL a su afmo. y s. s.

Jemein'dar Keperin

[1] Txarto esana azketsi, gogorik eztot ixan-eta. Poz-pozik zeure erantzuna artuko neuke, Euzkeraz egidazu, neuk, astirik ezaz, erderaz egin dautzudanarren

Keperin

[2] Adiskide on ta abertzale jatorra: Zurea aspaldi jasorik nago, ta, ez zabarkeriz, lan geiegiaren nekez baizik, eztizut oraindañoan erantzun. Azketsi

Gaur ere, ezer gutxi esan dezazuket, baña bederik eskarrak eman bear dizkizut bidali didazun idaztiarengatik. Aleginduko naiz, arteka-marteka, ta alako lanei zor zaien axolaz, idazti ori irakurtzen eta ausnartzen.

Bitartean eskar beroak berriro ta Jel-alde agindu.

---

1 Jemeinen gutunak eskuz jarraitzen du hemendik aurrera.

2 Puntu honetatik aurrera Lizardiren erantzuna da, eskuz idatzia eta Jemeinen gutunaren jarraian ageri da.

42. DOKUMENTUA

CAFE LA CONCORDIA

tik 1931 gko Agorra'ren 30'an

BILBAO

Gure adiskide maite orri agur: Atzoko Euzkadin ikusi degu saritua izan zerala Tolosan izan dezuten olerti jaian eta biotz biotzez poztutzen gera adiskide ori, ta artu zazu gure zorion ugaria eta jarrai gure izkuntza maitearen alde

Centro Basko'tik

Daniel eta Garmendia

Daniel Berasategi [1]

1 Daniel Berasategi eta Garmendia Lizardiren Tolosako adiskideak ziren. Lehenengoa 4. Dokumentuan, Georges Charonek 1932-1-1ean eginiko gutunean ere aipatzen du "Padre Daniel y otros amigos" espainiera ikasten lagundu ziotenak zirela esanez.

43. DOKUMENTUA

JOSE MARIA AGUIRRE
TOLOSA' tik, 1931-gko- Urrillaren 7-g.
TELEF. 13-64

Daniel ta Garmendia, adiskide onak:

Zorion-agiria garaiez jaso nizuen, ta *literaturik* jantziena izan ba'litz ere baño betarte alaiagoz irakurri ere, ezpaitu ezerk poz aundiagorik ematen gutaz adiskide piñak gogoratzen dirala jakitea baño.

Eskarrik-asko, bada, bioi. *Deskuiduan* nere olerki biurri ura ulertu ezpa-dezute, zurituko dizute "Orixe" jakintsuak [1].

Onezkero or dezute ori ere, ta Zallo'nerako itz-arturik al-zerate, *antzua*-rena ta *pentzua*-rena nork obeto kantatzera [2].

Emaizkatzute goraintzirik miñenak niketz eta etxekoeketz. Emaztea jaikitzen asia dedala. Agur. Zallo'nean zuekin saio bat egitea ez ote zait bada egokituko, gure Mikolax basora baño lenago? [3].

---

1 Bilbon zeuden "Orixe", Garmendia eta Daniel Berasategi Lizardiren lagunartekoak bide ziren gutun honetan elkarrekin Zalloenean elkartzeko egiten duen aipamenarengatik. Gutunaren azkenaldera berriro aipatzen du Orixe "Mikolax" deituraz eta harentzako goraintziak bidaltzen lagunen bidez.

2 Lizardik egiten duen "antzua eta pentzua"ren aipamena txantxa pribatua bide zen.

3 "Mikolax basora baño lenago" esanez Orixek Orexara *Euskaldunak* poema burutzera aldegin baino lehenago berarekin izateko duen gogoa adierazten du Lizardik.

44. DOKUMENTUA

JOSE MARIA AGUIRRE

TOLOSA 'tik, 1931'gko. Urrilla'k 2.

TELEF. 13-64

Estefani'tar J.K. Abari.[1]

Loyola'n

Jaun agurgarri ta adiskide miña: Zure atzokoa gaur jaso det, eta poz aundia eman dit.

Zu bezelakoen adorezko itzak biotza azi egiten dute.

Zure gogorako erazkoa ezta nere olerki ori: erriarentzat zalla da, aitortzen det. Baña, nik uste, guzietatik izatea on da. Nork-bere eskuerara landu beza euskera. Erriarentzat, nik baño eun bider obeto egin lezaketenak eta egingo dutenak badira amaika: "Orixe", Jaka-Kortajarena, Jauregi, ta abar. Gaitza da olerkariarentzat barrengo joera ta zalea biurritzea. Ez al derizkiozu?

Zuk lengoan erakutsitako bideak ingitxo batean idatzita dauzkat, eta alegiña egingo det "Euskaltzaleak"ek aintzat artu ditzan [2].

Besterik ez gaurkoz, ene eskar biziak erakustea baño.

Zure adiskide ta mendeko.

Lizardi

---

1 Jose María Estefania (Bilbo 1889- San Salbador 1942) Patxi Altunak "Jose Maria Estefania Zabala (1889-1962) hitzaldian dioen moduan "Lauaxeta eta beste zenbait poetaren gidaria" izan zen Lizardiren gutun honen hartzailea eta bien arteko harremana Orixeren bitartekotzaz hasia zen:

"Ezagunak ere dira Orixe, Lizardi eta bere antzinako ikasleekin hil arte izan zituen harremanak. Honela kontatzen ditu horiek Juantxu Goikoetxeak beste paper mutur batean: "Gerora ere, jesuita izateari utzi zionean ere" -Orixez ari da- "lagunak leehngoak zituen, ta oien artean artuena Estefania gernikarra (sic!). Au klasikozale purrukatua izaki, zaletasun bere orotan Orixeri su eman eta aizatzen zuan. Orixe jaunak sarri idatzi oi zion ta barrengo asmo, kezka ta lagun arteko katramillen berri eman. Gogoan det oraindik, eskutitz oiek irakurria bainaiz, Estefaniari nola azaltzen zizkion Euskalerritik Eskualerrirako joan-etorri (Lizardik Itz-Lauz bere liburuan eman digun) artakoxe araberak (sic!)... Lauaxeta eta Lizardi ere Estefaniarekin artu-emanetan zeuden, Lauaxeta lehenik, jesuita izan zenekotik alegia, ta Lizardi Orixek erakarrita. Alaxe zion itzez-itz Lizardik Estefaniari bere lenengo eskutitzean. Orixek Estefania kritiku edo iritzi-emalleagan zuen fede itsu-itsua karta ortan (edo beste batean, oro eztakit) ageri zan, eta fede ori Lizardiri Orixek eranstsi ziola ere bai...".(84. or.)

Jokin Zaitegik gorderiko gutunen artean 59. Dokumentutzat ageri dugun 1932-6-4ko gutunean Estefaniarekiko harreman honen zehar-aipamena egiten du Lizardik:

"Aba Estefania'rena ere irakurri det pozik. Gogoz irakurriko det nere lantxoaz dasakena, bai-baitakit ark egia esango didala, ta elerti-gaietarako begi-zale dana".

2 Tolosako sariketan irabazle izan delako bidali dion zorion-agurraren erantzun honetan hitzez-hitz aipatzen ez bada ere, *Bide Barrijak* liburuaren inguruan izan zen eztabaidaren oihartzunak entzuten dira. "Zuk lengoan erakutsitako bideak" aipamen lainotsuak ez du zehazki esaten zein den sariketaren arazoari Estefaniak proposaturiko irtenbidea, baina Lizardik ontzat eman eta Euskaltzaleak erakundeari proposatuko ziola dioen "bidea" badaiteke bi sari irastea, bat literatura jantzia eta eta bestea herrikoiarentzat izatea jadanik pentsatua izatea Estefaniak bi joerei aintza ematearren.

45. DOKUMENTUA

1931-gko. Urrillak 29.

Estornés Lasa'tar Bernarta jaunari [1]

DONOSTIA'n

Adiskide ta aberkide zintzo: Emen alboan dijoakizun Apraiz jaunarentzako egin dedan idazki bat.

Egunik galdu gabe, otoi, biali zaiozu.

Nik ez det gogoan Comité Ejecutivo'koak nortzu diran orain. Diranak dirala, ta Apraiz'en erantzupena artuz aurretik ere, adirazi bear litzaieke arazoa: nik uste det, guziek iraduzko ta errez erabakitzekoa joko dutela. Adirazte ori zure gain uzten det bada.

Arazo orren beri jakinarazten diot gaur bertan Elortza jaunari ere [2].

NERE ESKARI BAT - Bernard Echepare'tzaz zerbait ikuskatzen ari nauzu.

J. Vinson'en BIBLIOGRAPHIE BASQUE or al-dezute? Ta idazle berorren VOCABULAIRE DES MOTS CONTENUS DANS LES POESIES BASQUES DE DECHEPARE? [3]

Gañera RIEV'en Etxepare'tzaz esandakorik oro ikusi nai nuke. Otoi, betarik artuko al-zenuteke, RIEV'eko arkibidea asieratik aztertuz, zein iyekietan Etxepare'tzaz mintzo dan?

Ni orrera noaken batean irakurriko nituke lan oiek.

Aurretik eskerrak, eta zuk ere agindu bear nauzunetarako.

---

1 32., 33. y 36. Dokumentuetako elkarrizketakide bera.

2 Gutunaren lehen zati honetan zehatz-mehatz esaten ez bada ere, Apraiz eta Elortza zuzenduriko gutunetan 29., 30. eta 31. Dokumentuetan aipatzen dien gaia Lopez-Mendizabalen "Xabiertxo" argitaratzeko premiaz ari da.

3 Lizardik aipatzen duen Julien Vinsonen *Bibliographie de la langue basque* lana 1891ean argitaratu da eta 1898n argitaratu zuen bigarren alea *Complément et Supplément.*

Vinsonen idazlan hauek Eusko Ikaskuntzaren liburutegian zeuden Lizardik haien galdera egin zuenean Bernardo Estornés Lasak, Eusko Ikaskuntzaren bulego eta liburutegiaren arduradun zenak elkarrizketan adierazi didanez.

46. DOKUMENTUA

I Septiembre 1932

Sr. D. Venancio de Amezti

Presbítero

ZARAUZ

Respetable amigo y Cap.: Hace unos días pasé por esa, sin otro objeto que charlar un rato con usted acerca de tradiciones y casos curiosos de nuestro pueblo.

Deseaba tener una nota-esquema de sucesos por así decirlo novelables o poetizables, propios para figurar accidentalmente en una especie de cuadros literarios, que de momento están sólo en mi pensamiento, pero cuya acción, si alguna vez les diese cima, se desarrollaría en Zarauz [1]. Nunca pensé en nada que se parezca a usurpación ni uso abusivo de los datos que se me proporcionasen. Hubiéralos, eso sí, agradecido en el modo y medida acostumbrados entre gente amiga y de buena fé, sin olvidar la grata obligación de citar a mi comunicante al hacer uso de sus revelaciones.

Apenas llegué ahí, su sobrino y amigo Félix me puso an antecedentes de que mi ingenuo deseo había despertado suspicacias, no sé de qué orden ni me importa averiguarlo. Automáticamente renuncié a pedirle a usted nada, pero no al placer de una entrevista en que pudiera sincerarme, dejando bien sentada la transparencia de mis intenciones. También a la entrevista hube de renunciar, pues, habiéndome presentado en su casa dos veces, se me aseguró que no estaba usted en ella, ni estaría hasta las ocho y media, hora a la que, casualmente, los últimos trenes de salida han abandonado Zarauz. [2]

A falta de cosa mejor, quiero que llenen estas letras el objeto de la fracasada entrevista, siquiera no tan cordialmente como me permití figurarme aquélla. Ya ve usted que no es mía la culpa.

No he de ocultarle, finalmente, que su actitud me ha parecido doblemente inexplicable, cuando he sabido que para sus noticias se ha servido repetidamente de documentos pertenecientes al archivo de D. Francisco de Egaña, mi abuelo materno, q.e.p.d., prestados por mano de mi tío Conrado.

Sabe le aprecia su afmo. amigo y s.s. q.l.b.l.m.

---

1 Lizardik gutun honetan bera hil ondoren Jautarkolek "Lizardi. Su personalidad literaria" (*El Día*, 1933-3-26, 1. or.) artikuluan aipatzen duen nobela aipatzen duela pentsa daiteke: "...planeaba el argumento de una novela de gran envergadura literaria".

2 Arrazoi politikoak izan zituen nonbait Lizardi ez errezibitu nahi izateko.

47. DOKUMENTUA

Congregación de Hijas
de la Purísima e Inmaculada
Virgen María
Placencia (Guipúzcoa) 21 de Noviembre 1931

Sr. D. José Mª Aguirre
Tolosa

Muy Sr. mío: Por referencia del Sr. D. Secundino Alberdi capellán de un colegio de esa villa me he enterado que V. es autor de la obra Laino eta izar [1] y como nosotras deseamos adquirir una obra de esas, agradeceríamos nos diga lo que cuesta para enviarles el importe por giro postal. En espera de su contestación queda su S.S.

Dionisia Orueta
Presidente de Hijas de María

1 Lizardiren *Laño ta Izar* antzerkia 1930ean uztailaren 19ean errepresentatu zen eta *El Día* egunkarian argitaratu hurrengo egunean. Ikus *Lizardiren olerkien edizio kritiko baterako,* 2.1.2. Antzerki-lanak puntua.

48. DOKUMENTUA

1931-gko. Azaroak 24-g.

Orueta'tar Dionisia andereñoari. (Presidenta de Hijas de María)

SORALUZE

Andereño begikoa: soraluzetarra zeralarik, euskaldun jatorra zaitut, noski. Argatik, ba, onez artuko al-didazu euskeraz erantzutea, oitura ala baitet [1].

Zure idazkia jaso det, eta pozik bialtzen dizutet nere "Laño ta Izar" dalakoa.

Baña, orrekin ezer gutxi aurreratzen dezute. Orren eresia (musika) eztago garbian jarririk, erdilardazkan baño. Egia, guzia zarra du ta edozein ereslari edo musiko euskaldunarentzat ezaguna: or bear diran abesti guziak emen-or argitara emanak daude ("Artizarra zeruan", "Nik badut maiteño bat", "Ingurutxoarena, Sagar-dantzarena, Ezpata-dantzarena.) Musikaz ondotxo jantzia legoken bat izanezkero, ori tajutu zenezakete [2].

Baña, baditu antzerkitxo orrek beste zenbait maratil: dantza oiek ikasi-bearra, jantzi apañez agertu-bearra, linterna magica dalakozko irudiak, antzeztokiaren argitzea, ta abar.

Dana dala, irakurri ezazute, ta orren gaitzak ikara eragiten ezpa-dizute, zuetako bi edo onuntza etorriaz ikasi zenitzakete ingurutxoa ta sagar-dantza, ta gañerakoaz ere lagunduko genizukete al-ainbat.

Orrelako gauzak moldatzeko Don Poli, zuen erritarra, ezta makala, baña ura Eibar'en egoten...

Zuek ikusi: gu laguntzeko gertu gaude, baña alaz guziaz ere, antzerki ori dan ziztriñarentzat lan aundiak ematen ditu.

Agur, andereño begikoa: agindu nola-nai.

---

1 Ceferino Jemein (41. Dok.), Anjel Apraiz (29. Dok.), Bernardo Estornés Lasa (45. Dok.) eta beste zenbaiti erantzutean ohartuko zenez, gehienetan badago hizkuntza-aldaketari, hauek gaztelaniaz egin eta Lizardik euskaraz erantzuteari buruzko aipamenen bat. Ohargarria da, besterik ez bada ere, garai hartan hain arrunta ez den konszientzia linguistikoa duela frogatzen bait du eta zenbait artikulutan aipatzen zuen "egitezko euskaltzaletasuna"ren lekukotza ematen bait du. Ikus I Partean, 2.3.2. "Euskararen normalkuntza soziolinguistikoa".

2 *Laño ta Izar* obraren testua ezaguna bada ere,Lizardik gutun honetan ematen dituen musika, kanta eta dantzei buruzko erreferentzia bakarrak dira.

49. DOKUMENTUA

31 Enero 1932

Sr. D. José Verdes Elorriaga

Libreria de Verdes Atxirika

BILBAO

Muy Sr. mío y buen compatriota: Ormaetxea me ha entregado la segunda prueba del prólogo de mi proyectado tomito. Se la devuelvo adjunta indicando algunas correcciones [1].

Le agradeceré que, sin pérdida de tiempo, me vaya remitiendo más pruebas, y me gustaría corregir éstas dos veces, para evitar toda errata.

Ya sabe usted que, una vez puesto a ello, tengo interés, por circunstancias especiales, en que la cosa salga cuanto antes, adelantándose a cualquier otro similar en preparación [2]. Por eso, le agradeceré que en lo posible active la composición.

Veo por el prólogo que prepara usted un libro de formato bastante mayor del que me gustaría. Quizá la cantidad de texto le obligue a ello, pero sin embargo quiero insistir en mi opinión de que estos libros deben ser lo más pequeños posibles de tamaño, y en mi ruego de que procure usted hacerlo todo todo lo más no mayor que "Eusko-Olerkiak", aunque yo lo quisiera aún más reducido. El tipo de letra también más bien menudo, como le indiqué, encontrando algo grande el del prólogo. En fin, usted que entiende bien de esto, ya procurará hacer una cosa lo más agradable posible.

Me gustaría que seguidamente me remitiese usted una muestra del formato, pues supongo que la prueba del prólogo no es muestra de paginación definitiva. También sería interesante ver desde luego alguna prueba en el papel definitivo, sólo para formarme una idea del aspecto que ha de presentar [3].

Perdón por tanta menudencia y queda esperando sus envíos su afmo. s.s. y amigo q.e.s.m.

---

1 Lizardi *Biotz-Begietan* liburuaren argitalpenaren prestaketaz ari da. Orixek "Lizardiren azken olerkiak" (Yakintza, VI, 1933) deritzan artikuluan argitaratze prozesuaren lehen zereginak berak egin zituela esaten du eta bigarren zuzenketak bakarrik egin zituela Lizardik:

"Alabearrez, noizen bein Bilbaora yoan oi nintzan, andik ez bai ninduten oso nere eskuko utzi. Liburua artaraño ekartzea gosta zitzaidan, neronek dakidan ainbat; baña aurrera ere enûn ondotik utzi. Gezurrik izpirik ez diot berreun aldiz baino geiago Verdes'en lantegitan sartu nintzala ba diot. Lan asko zeukan beti bezela, ta eragin-bearra nedukan. Aurreneko irartokerrak neronek zuzendu eta bigarrenak Tolosara bialtzen nizkion" (in *Idazlan Guztiak*, III, 393-394. or.).

2 Ez dugu argitzerik izan zein liburuz ari zen Lizardi, zehazki baina Joseba Zubimendiren *Aberri Oyuak* liburuaz ari zen agian, honen joera herrikoiagoa zela medio Aitzolek goraipatua zelako eta atera zen urte berean 5.000 aleko tirada osoa agortu zuelarik gainera. Aitzolek 1932-6-10ean *El Día* egunkarian "De oficinista a trovador. Cumplimiento de una misión" titulupean. Aitzolek artikulu horretan dioenak iragartzen duen *Eusko Olerkiak 1931* liburuari aurre hartu nahi zion Lizardik, seguruenik, egun horietan ateratzekoa zenez eta Zubimendirenak lehenagoztik aterea dirudienez?

"En este terreno, del gusto estético popular es en el que hay que juzgar a Zubimendi. Ni su pretensión fué otra que la de escribir para el pueblo ofreciéndole para su recreo unas poesías delicadas. Y ciertamente, lo son dentro de ese marco tan digno para un artista. Léanse sus poesías ¡Kontuz Miren! ¡Ua... Ua! y otra que no figura en "Aberri Oyuak" pero aparecerá uno de estos días en el tomo II de las poesías "Eusko Olerkiak", del certamen de Tolosa, titulada "Seme". El pueblo ha sabido hacer justicia a este poeta popular y, por lo tanto, suyo. Se han agotado ya los cinco mil ejemplares de la edición de "Aberri Oyuak" (AITZOL. *Idazlan Guztiak*, V, 295. or.).

Nolanahi ere gutuna urtearen hasieran idatzia dagoelarik bietako edozein izan zitekeen, eta Lizardik "por circunstancias especiales" lehenbait lehen ateratzeko asmoa duela adierazten duenean, ene ustez *Bide Barrijak* eztabaidaren inguruan Lizardik eta Aitzolek hartu zituzten jarrera kontrajarrien ondorio da, zalantzarik gabe. Ikus I. partean 2.4.3. "Aitzolen proiektua eta euskaldungoaren erantzunaren arteko dialektika" eta II. partean 2.3.3. "Lizardiren abangoardiari euskaltzaleek eginiko harrera".

3 Formatoaren gai honetaz antzerako iritziak aurki litezke 1930-5-8ko *Erdi-Bearra* artikuluan (*K-L* 303. or.).

50. DOKUMENTUA

TELEFONO Nº 250

EMETERIO VERDES

Antigua Casa de Juan E. Delmas
TALLERES DE IMPRENTA-LITOGRAFIA
Y ENCUADERNACION

LIBRERIA
ESPECIALIDAD EN TRABAJOS COMERCIALES
FABRICACION DE LIBROS RAYADOS
(COSIDO ESPECIAL)
TRABAJOS EN RELIEVE
Bilbao 12 de Febrero de 1932
CALLE DEL CORREO, Nº 9
SUCURSAL: CALLE DE LA CRUZ, 5

Sr Don Jose Maria Aguirre
Tolosa .

Muy señor mío: Tengo el gusto de adjuntarle las primeras pruebas del texto de su obra. Juntamente le envio un formato en el mismo papel que ha de ir la obra, indicando la colocacion de las paginas por si tiene usted que modificar algo.

El tamaño como ve despues de cortar los bordes sera un poco menor al tomo de poesias de Renteria. El papel es de clase buena y tono muy agradable. La impresion creo yo que se debia hacer sin ninguna orla y en tono azul fuerte.

Respecto a las primeras pruebas que le mando le advierto que la colocacion de la traduccion de las distintas estrofas debia ir a la misma altura de la pagina, que el original, para lo cual habra que estrechar las lineas del castellano para que hagan el mismo numero de ellas que en euzkera. Esa correccion vera usted en las segundas pruebas, pues es un detalle que hasta ahora no he advertido.

El numero de paginas que hara el libro no he calculado aun exactamente, pero será bastante respetable. Por de pronto las primeras (prologo, dedicatoria etc.) ocupan como verá por el formato 22 paginas que llevan numeracion romana.

Creo que nuestro amigo Urkiaga le habra indicado algo sobre el titulo, pues de querer poner la traduccion como titulo en la portada, convendria saber ahora [1].

Tan pronto como reciba las primeras correcciones le devolvere los dos o tres pliegos (de 16 paginas) ya preparados para tirar. Le aseguro que sera una cosa rapida y un trabajo esmerado.

En cuanto a la cubierta dejamos para mas adelante, pero siguiendo su idea me parece muy elegante.

Siempre a sus ordenes su atto. s.s. y amigo.

José Verdes

1 "Nuestro amigo Urkiaga", Estepan Urkiaga "Lauaxeta" zen eta adiskidantza horren lekukotza ematen duenik 61. Dokumentua soilik aurkitu badugu ere, bien arteko harremanean zegoen konfidantzaren lekukotza aski ematen du.

51. DOKUMENTUA

LIBRERIA, IMPRENTA, LITOGRAFIA
Y ENCUADERNACION
- DE -
EMETERIO VERDES ACHIRICA
Calle del Correo, 9.- Teléfono 10127
Sucursal: Calle de la Cruz, 5.- Teléfono 9970
BILBAO

Le remito distintos modelos para que una vez escogido el que mas le agrade se proceda a imprimir. Es de tener en cuenta que los bocetos están hechos, sin ninguna precision en las lineas, por lo tanto en el cliché quedaran limpios.

En todos ellos falta la firma que ya esta hecha de antes. A mi modo de ver los mas lucidos son los señalados con el numero I y 2.

La tira de fuera [1], para el escaparate he pensado que quedaria bien en una tinta llamativa en el papel gris que la mando adjunto. Seria algo especial. Espero su decision para inmediatamente empezar a vender al precio que me diga. De Vds atto. s.s.

Jose Verdes

Sr Don Jose Mª de Aguirre
Tolosa

1 Verdesek aipatzen duen "la tira de fuera" delakoa Lizardiren aspaldiko ideai zen, alegia, liburua biltorri deigarriaz aurkeztea:

"Saltokian biltorri (bildu-orri) nabari bat jantzita agertuko nituke: bertan itz arro baztuk, erderaz" ("Erdi-Bearra", 1930-5-8, *Euzkadi*, 1. or., K-L 303. or.)

Erderazko hitz arro horiek honako hauek izan ziren 1932ko argitalpenean atera ziren bezala:

"LÉEME

Poesías Vascas con traducción castellana. Ensayo de modernidad en una de las lenguas mas viejas del mundo. Si el fenómeno de su floración en el siglo del comunismo y del cubismote interesa,

LÉEME"

52. DOKUMENTUA

LIBRERIA, IMPRENTA, LITOGRAFIA Y ENCUADERNACION
EMETERIO VERDES
Correo, num. 9 *BILBAO* Cruz, num. 5
Teléfono 12.093 Teléfono 12.603
TARJETA POSTAL PARA PEDIDO DE LIBRERIA
(Reglamento de Correos, artículo 29, indicación 10ª)

Sr. Dn. José Mª de Aguirre
Tolosa

Bilbao 7 de Mayo de 1932

Sr Don Jose Maria de Aguirre Tolosa

Muy estimado amigo y compatriota: Sin ninguna noticia de Vd. despues de su carta que crei, quedaria contestada por el propio Orixe en su ida a esa y teniendo dispuestos los ejemplares para la venta le cito para el lunes a conferencia al mediodia que llamare a su telefono [1].

Espero que asi podré servir a pedidos pendientes. Para que Vd. reciba el primero le he mandado por correo unos ejemplares que espero sean de su agrado.

De Vd. atto. s.s.q.s.e.m.

José Verdes

1 Lizardiri data gabeko ohartxo bat izan ezik 1932-2-12z geroztik 1932-5-7ra arteko denboran ez du Verdesen berririk izan. Gutun honen lehen zatiak Orixek bitartekotza egiten darraiela azaltzen du.

53. DOKUMENTUA

Sr. D. José Verdes Elorriaga
BILBAO
10 de Mayo de 1932

Mi estimado amigo y compatriota: Recibi anteayer por fin su tarjeta postal [1]. Le tenía escritas dos cartas, insistiendo siempre en que consultase usted conmigo hasta el último detalle de presentación. No tenía respuesta. "Orixe" sólo pudo decirme que usted se las había arreglado solo para la cuestión de cubierta, y que estaba usted ya cosiendo el libro. Me tocaba, pues, esperar. Además, no se debe nunca fijar precio a un libro sin haber examinado su presentación: necesitaba verlo [2].

Hoy ha llegado a mis manos su paquete, y le diré con absoluta franqueza que su presentación exterior me ha defraudado completamente. Esa cubierta es pobrísima. Da la impresión de que se trata de una simple prueba, o de una primera tirada, que espera una segunda para detallar y perfilar. Está muy lejos de lo que yo pensaba hacer, y lo hubiese evitado a toda costa si usted me hubiese enviado una prueba, como pedía y esperaba. La cosa es tanto más sensible cuanto que el interior del libro es rico en presentación y densidad de texto. Esto quiere decir, que el libro, tal como está, parecerá caro a 3 pesetas, y que con diez céntimos más de costo por ejemplar se hubiese podido ofrecer honradamente por 4.

Si usted me hubiese enviado una prueba le hubiese dicho: el tono de la impresión debe ser ORO (no ese matiz rojizo que ha puesto V) y letras del título perfiladas en negro, en rojo, en azul, en algo que venga bien con el tono que se elija. (Era cuestión de ensayar). Del título para abajo, la impresión no está bien horizontal. Hubiera hecho suprimir la mención del prologo, que aunque entraba en mis primeras indicaciones, en la práctica, con esa letra al menos no cae bien. Y finalmente, hubiese elegido una cartulina rica, no sé de qué color, pues era cuestión de elegir entre varias muestras, pero siempre algo de más categoría y elegancia que lo que se ha puesto.

En fin, creo que la cosa ya no tiene remedio. Lo dejo en sus manos. Igualmente, la cuestión de precio, aunque, con esa cubierta, repito, no creo que se puede honestamente pasar de tres pesetas. Yo me ausento pasado mañana para el viaje ya excesivamente retrasado, y espero que usted tomará la decisión que más acertada le parezca, para no retrasar la aparición.

Otra cosa de importancia. Ha hecho usted alguna indicación a "Euzkadi" para que no adelantase demasiado la propaganda iniciada por "Orixe" ...? De ser así, nada: avisa usted que prosigan, en el momento oportuno, y asunto concluido. "Orixe" tiene enviados unos 4 artículos. El primero no se lo publicaron. De los demás, nada ha aparecido. Caso de que usted no haya tenido que ver con esta suspensión, le agradecería tuviese la bondad de ponerse al habla con "Euzkadi", para ver si hay algún motivo especial para no admitir esa clase de colaboración, que hasta ahora tuvo acogida franca, y

1 1932-5-7ko Verdesen postalaz ari da, 52. Dokumentuaz, hain zuzen ere.

2 Lizardik azken hiru hilabete horietan liburuaren prestaketan nahi besteko kontrolik ez du izan, dioenez, Verdesen erantzun faltaz.

para rogarles la admitan. Se lo agradezco de antemano, pues ya no podría verificar por mí las gestiones, con un pie en el estribo como estoy, hasta fin de mes [1].

He esperado ayer y hoy a que me hablase usted por teléfono, segun me anunciaba.

Yo he repartido hoy por correo, a amigos que puedan hacer algo de crítica, casi todos los ejemplares que me ha remitido.

Espero arregle usted las cosas de la mejor manera posible, y me reitero suyo afmo. amigo y s.s. q.e.s.m.

1 Orixeren kritika artikuluak ez zituztela argitaratu eta, zenbait aipamen aipa litezke eranskin honetako dokumentuetan, bereziki 55. eta 61.etan, Verdes eta Lauaxetari zuzendurikoetan. Orixek ere gudaosteko zenbait artikulutan aipatua du gorabehera hau, baina ez behar hainbateko zehaztasunez; aipagarriena "Lizardi Ameriketan" (Euzko-Gogoa, 7-8, 1950, 6-8. or.) egiten duena da eragozpena jarri zuen Aitzol bera izan zela iradokiz.

54. DOKUMENTUA

11 Mayo 1932.

Sr. D. José Verdes Elorriaga

BILBAO

Mi estimado amigo y compatriota: Le confirmo mi carta de ayer, y, dando vueltas en la cabeza a la cuestión de la cubierta, creo que el poder vender por 4 pts. en vez de por 3, da margen para pensar rápidamente en una sustitución, que quizá no fuese cosa tan costosa, ni en tiempo ni en dinero [1].

Yo le rogaría que estudiase usted rápidamente eso con números sobre el papel, y, caso de que sea factible buenamente, la derecha seria presentar a "Hermes Grafic" "Pisarrin" o cualquiera que entienda de esas cosas una serie de muestras de cartulinas buenas, y las instrucciones de mi carta de ayer. Explicarle bien que se quiere algo de novedad, que dé sensación de elegancia y aun de cierto lujo dentro de la mayor sencillez. Las letras en oro amarillo (bien las de antes o alguna otra composición más atrevida) deben tener algun perfil vivo de otro color para destacar sobre el fondo-cartulina que se elija. Suprimir la indicación del prólogo. En vez de la firma que han puesto, utilizar la que envié para "Aberri-Eguna".

Creo que poniendo manos a la obra todo eso se podría hacer rápidamente.

Usted podría escribirme aquí seguidamente acerca de su decisión, cálculos, etc., e igualmente para enviarme el diseño o prueba correspondiente. Dejo instrucciones de que sus cartas me sean retransmitidas sin pérdida de tiempo a donde me encuentre en cada momento.

Quedo esperando su decisión, y me reitero suyo afmo. amigo q.e.s.m.

1 53. Dokumentuan, bezperako eskutitzean aipaturiko gaiez dihardu.

55. DOKUMENTUA

3 Junio 1932

Sr. D. José Verdes Elorriaga

BILBAO

Amigo y compatriota: Recibí sus muestra de cubierta. Utilizando ideas apuntadas en alguna de ellas he arreglado la que le envío adjunta, que le ruego reproduzca exactamente.

Téngase en cuenta que el color amarillo quiere decir oro. Le ruego le ponga verdadero pan de oro, y no purpurina. En cuanto al verde, elijo el más claro, el de "Olerkiak" y el del corazón. La firma quizá queda un poco descentrada en el proyecto: creo que debe ir ligeramente más a la derecha. Es cuestión de probar. También hay que probar si la firma queda bien, si destaca, en oro, tal como está indicada: si nó, se podría probar el negro [1].

En cuanto a la faja creo que no casa bien con ese proyecto. Quizá una en color de rosa, o en verde claro, muy finos, fuese mejor. Pruebe usted. La letra de la faja creo que debe ser, aunque no grande, de bastante volumen, de mucha tinta. Le adjunto la faja antigua para rogarle corrija una errata: la "coma" que pusieron Us. a continuación de "cubismo" se ha de suprimir, trasladándola a después de "interesa".

Ahora bien, he de rogarle con el mayor encarecimiento que haga un esfuerzo por verificar el trabajo de la portada y sacar el libro a la venta en un plazo ínfimo, que creo puede ser de escasos días. Si ello no ha de retrasar mucho, podría remitirme una prueba definitiva. Si nó, tírela sin consultarme con tal que se atenga escrupulosamente a mis indicaciones y al proyecto.

Estamos perdiendo el mejor tiempo para vender, pues la propaganda se ha hecho en buena parte (menos los artículos de "Orixe", que en "Euzkadi" *se han perdido*, yo me sé por qué) [2] y ahora viene una época en que otras atenciones reclamarán en absoluto la atención pública. Se lo vuelvo a rogar: haga usted un esfuerzo "record" [3].

El precio, creo que bastará con 3,75.

Espero com impaciencia sus últimas noticias, suyo afmo. s.s. en Jel y amigo

Jose Maria Agirre

---

1 Lizardik 55. Dokumentu honetan finkatu bezalakoa izan zen liburuaren azala: Kartulinak kolore urdin-grisekoa, titulua osorik: *Biotz-Begietan olerkiak* hizki larri eta koadratu gisakoez idatzia. Hizki bakoitzak ezkerraldetik perfilatu lodia du eta "itzala" urre kolorez betea, azkenik, tituluaren bi lerroen fondoa kolore berdeaz inguraturik ageri dira membrete baten gisa. Lizardiren izenpea beltzez egina dago eta okertua dirudi; titulua eta izenpearen artean perfil beltzik gabeko eta tituluaren enkuadrearen kolore berde argi bereko bihotz txiki bat ageri da.

Liburuaren lehen orrian: "Biotz-Begietan Olerkiak. Poesías vascas con traducción castellana). Lizardiren izenpea. Aurre-itza "Orixe"k".

Liburuaren atzeko azalean argitaletxea eta salneurria ageri dira: 3,75 ptas.

2 52. Dokumentuko aipamen bera egiten du (ikus 3. oharra) baina oraingoan zer dela eta gertatu den badakiela dirudi, aipamena zuzenagoa egingo da 61. Dokumentuan "orko Tcheca" esapideaz aipatzen duelarik.

3 Lizardik duen presak bi iturri ditu, bata, aipatu dugun *Eusko Olerkiak 1931* liburua baino lehenago ateratzea eta arlo politikoan euskaldunen arreta erakarriko duten hauteskundeak.

56. DOKUMENTUA

1932 - Junio - 17

Sr. D. José Verdes Elorriaga

BILBAO

Amigo y compatriota: Le ruego me remita 100 ejemplares más seguidamente, de "Biotz-Begietan" [1].

Dígame a qué precio hace factura a libreros, es decir qué comisión les reserva a ellos.

Usted tiene relación con la Librería Internacional de Donostia. Convendría que remitiese usted seguidamente unos ejemplares, 10 por ejemplo. No es que me hayan pedido, pero sé que algunos han ido a buscar allí, y han salido sin el libro.

Valeriano Mokoroa, de esta, recibió su factura hace días, pero nada sabe aún del paquete. Ayer le tuve que entregar media docena de ejemplares para que atendiese a algunos compradores.

Quedo esperando sus prontas noticias, y anticipándole las gracias, me reitero suyo afmo. s.s. y amigo.

1 Bi asteko epea besterik ez da 55. eta 56. Dokumentuen artean, beraz Lizardik eskatu bezala, azal berriaz eginiko argitalpena benetan azkar egin zen, hemen banaketa arazoez hitzegiten denez.

57. DOKUMENTUA

La Gaceta del Norte
Diario de la mañana

Bilbao 19 de Mayo de 1932
Henao, 8
Sr. Don José María de Aguirre
TOLOSA

Muy Sr. mio:

Nuestro colaborador, don Bonifacio de Echegaray [1], nos anuncia para pronto el envio de una crónia suya, sobre la obra de "Xabier de Lizardi" y seria nuestro más vivo deseo el ilustrarla con una fotografia del aludido en ella, que me atrevo a pedirle nos envie.

En espera de que no habrá Vd. de hallar objeción a nuestro deseo por lo que la crónica del Sr. Echegaray habrá de tener, seguramente, de aleccionador para nuestros lectores al enjuiciar la admirable obra de Vd., aprovecho la ocasión para ofrecerme suyo affmo. S.S.

q. s. e. m.
firma A. Puente
(Subdirector)

1 Bonifazio Etxegaraik (1878-1956) *La Gaceta del Norte*n ez ezik *El Día* egunkarian ere sarritan argitaratzen zituen artikuluak, eta Eusko Ikaskuntza erakundenaren barruan zuen partidetza dela medio aipatzen da bere izena 29. Dokumentuan.

58. DOKUMENTUA

HOTEL YZARRA — Propietaria: Doña Natividad Acha
AVENIDA DE LOYOLA — Teléfono 102
AZPEITIA

1932- Orrillaren 21-gnean jasoa
4- Garag [1]

Agirre-Egaña'tar J.M. Jaunari
Tolosa'n

Arpegiz ezauge baña biotzez maite zatxatazan eusko-olerkari on ori: Neure lagun mami ta anai maite Ab. Estefania'gandik artu neban atzo zuretzako txarteltxo ori [2].

Berakin gaztetxotatik alkar ibiliaz, gero barriz urtetan, emen, Loyola'ko irakasle-lanetan batean ekin-ezkero, erbestera be biok joan giñan Urtarrillaren azkeneko egunetan.

Orain, ogeiren bat egun dirala, Journai'tik etorri nintzan angoen alde zeregin batzuk batetzera, gure ikasle-gazteen buru ta ikasketaen zuzendari nintzala-ta. Baña begietatik bi urte azken oneitan gaixo nengoalako, neure begi-osagilleekin be egon bear nintzan; eta oyen esanak entzunda bitartean beintzat lurralde oneitan gelditzeko agindu dauste gure nausiak.

Sarri baño sarriago Ab. Estefania'ren eskutitzak artzen dodaz, ta bioen alkar-izketan askotan zure izena entzun da. Zure idaztiñoa ere bai-daukat, begien osasunaren zai, gogo bizienaz gero irakurtzeko. Zure aurre-izlari "Orixe" be oso ezauna dot. Orri onen ikurra begira bada, ta Azpeiti alderuntz bein edo bein urreratzen ba'zara, bai-dakizu nun dozun ezautu nai zaitun Josulagun bat.

Orixe berberari ere emen nagola esan zineyo ikusi orduko, ta baita (zure nekerik gabe izanik) orko Mokoroa-sendi maiteari; bere seme Austintxo guretartean Journai'en dauke-ta.

Agur ba, ta zuk gura-arte. Bitartan nere zorionik beroenak eta txalorik aupagarrienak artu, zure lan ederrean jarraitzeko.

Josukristo'gan adiskide beti

Areitio'tar Pelik [3]

---

1 Data hau Lizardik eginiko erantzunarena da, 59. Dokumentuarena, alegia.

2 Aita Estefaniak Lizardiri bidaliriko txarteltxoaren kopiarik ez zaigu geratu Lizardiren eskutitzen artean.

3 Peli Areitiori buruzko ohar biografiko gutxi aurkitu ahal izan dut. Josu Laguna zen, 1920an Konpainiaren *Jesusen Biotzaren Deia*n agerturiko "Nire anaitxo Joseba-Mirenari bere ziñitz-egun zoriontsuban" izeneko poemaren ostean Bogotan zegoela adierazten da. Aita Estefania eta orixeren ezaupidea badu, gutun honetan adierazten duenez, eta Estefaniarekin batean Loiolan irakasle izan ondoren, Beljikara aldegin behar izan zuen Josu Lagundia desegiteko agindu errepublikarraren ondorioz. *Diccionario Enciclopédico Vasco* delakoan 1940an Bilbon bizi zela jasotzen du.

59. DOKUMENTUA

Areitio'tar Peli Abari:

Azpeitia'n

Aba agurgarria: Eskarrik-asko zure idazki maitekorrarengatik. Nik ere zu ez ezagutzen aurpegiz, baña, Jainkoa'k ala nai ba-du, orreraño iritxiko al-natzaizu, elkar-ezagutzeko.

Azketsi, berandutxo erantzutea. Zure idazkia eldu zanean bidaldi luze-samar bat egiten nenbillan, eta itzuli arte ezin jaso izan det [1]. Aba Estefania'rena ere irakurri det pozik. Gogoz irakurriko det nere lantxoaz dasakena, bai-baitakit ark egia esango didala, ta elerti-gaietarako begizale dana [2].

"Orixe" Bilbao'n da orain, Euskaltzaindia'n. Il onen azkenalderako ikusiko dedala uste det eta zure berri emango diot. Mokoroa'ri ere gaur bertan al ba-det.

Lan ederra egiten ari da "Orixe". Bere poemaren [3] [gar]bian ipiñi duan. Esango diot jarri bezain laister kopia bat biali dezaiola Estefania'ri edo zuri orrera [4].

Agur, bada, ezagunberri ezaguneza: lanpetu-samar nabillen arren, alegiña egingo det egunen batean orreraño iristeko.

Eskumuiñ beroak

Lizardi'k
1932 Garagarrillak 4

1 Lizardik aipatzen duen bidaldi luze xamar hori bera da José Verdesi 53. Dokumentuan 1932-5-11ean aipatzen diona eta liburuak atera behar zuenean aldegin arazi ziona.

2 Aita Estefaniaren gutuna ez da Lizardiren Eskutitzen artean jasoa.

3 Ezin da irakurri.

4 Lizardik Orixeren *Euskaldunak* poemaz dihardu zati honetan, zatiren bat "garbian jartzeaz" hitzegiten du eta Aita Estefaniari kopia bidaltzeaz.

60. DOKUMENTUA

Adiskide ona: Bidaldi luze-samar bat egin bear izan det, eta itzuli berri naizelarik, nere olerki-idaztiñoaz egin duzun goralbena irakurri det [1]. Biotzetiko eskarrak bereala biali gabe ezin nengoke. Zure itzak iñorenak baño eskar obez ordaindu bearrak ditut, zere aldez, nik eskatzeke eginak baitituzu.

Gañera poza ematen dit zuri bezalako elerti zale yaioari nere (izneurtuak atsegin emana) [2] lantxoa atsegin izanak.

Euskeraz poliki ari zera. Epeldu-gabe jarrai-ezazu ta burua jaretsiz, bide berriak (?) [3] lantzen asko lagundu lezaikezu.

Eskarrik-asko berriz ere, ta Jel-pean agindu

Lizardi

A Manu Sota.

6 Junio 1932

1 Lizardik Imanol Sotak *Euzkadi* egunkarian, 1932ko Maiatzaren 25an, 5. or. argitaraturiko "Bijotz-Begietan" izeneko artikuluaren aipamena egiten du.

2 Parentesi arteko esaldia tatxatua dago originalean.

3 Parentesi artean Lizardik jarri zuen galdera ikurrak zalantza adierazten du eskuzko zirriborro honetan dioen moduan Manu Sotari "bide berriak lantzen" edo beste esamolderen bat idatzi, agian Lauaxetari hobeki zegokion esaldia zelakoan.

61. DOKUMENTUA

(...) [1] egin zenizkidan goralben geiegizkoak irakurririk nago, ta biotz-biotzez eskarrak emanbearrik.

Tamalez, Verdes'en erruz idaztia salgai ateratzeke dago oraindik. Beldur-naiz, ez ote dedan alerik salduko, garai-zârtuarengatik.

Azal berrian atera dediñean pozik irakurriko det erderaz agintzen zenduan iritzia. Argitaltzen uzten ba-dizute noski, bai-baitakit orko Tcheca'ri "Orixe"ren idazkiak "galdu egin zaizkiola". (Ori ta Verdesen atzerapena, alderdi ederrak) [2]

Manu Sota'ri, otoi, emaiozu alboko idaztia ari ere eskarrik-asko zor diot-eta.

Ekin, aspertu gabe, bide barrijetan zear lankide bikain orrek, eta jaso berriz ere nere eskarrak. Jel-aldez agindu

Lizardi'ri [3]
1932-Garagarrilla-6 [4]

---

1 Eskutitzaren hasiera ez dago irakurtzerik, baina egiten duen aipamenarengatik Lauaxetak *Euzkadi* egunkarian, 1932ko maiatzaren 11ean (1. or.) argiatraturiko "Biotz-Begietan" artikuluaz ari dela pentsa daiteke.

2 Parentesi arteko esaldi hau tatxatua ageri da.

3 Lizardik eskuzko zirriborro honetan Lauaxetaren izena ipini beharrean, berea idatzi zuen. Gutuna Estepan Urkiaga "Lauaxeta"ri zuzendua dago, zalantzarik gabe. Alde batetik "bide barrijetan zear" esanez Lauaxetaren liburuaren zehar-aipamena egiten ari delako, eta Urkiaga eta Manu Sotaren arteko adiskidantza datu ezaguna izanik, guztiz arrunta dirudi Lizardik bi gutunak Sotari eta Lauaxetari zuzendurikoak azken honi bidali izanak.

4 Ohar Lizardik Manu Sotari eta Lauaxetari bidaliriko gutunek data bera dutela eta ingurumari beretsuan idatziak direla: bidaia luze batetik heldu berria da, lagunek egunkarietan idatziriko "goralbenak" eskertzen ari da. Bestalde, Orixek "Lizardi Ameriketan" kontaturikoaren aipamena egiten dio "Lauaxetari":

"Baña goazen Lizardi'rekin, aren izketa askatu lana aztertzen asi gabe. Ez naiz oroi liburu ontaz tutik esan nunik (etzait iduritzen), ordurako baztertu baininduten *El Día*tik. Ondar bat dut esateko. *Biotz-Begietan* dalako liburu artaz ez nun azken-itza esan, eta ala, beste zenbait artikulu bialdu nitun. Saskira bota zizkidaten; ez itzuli ere. "Ya es mucho Jose Mari" esan omen zun jauntxoak (*Euzko-Gogoa*, 7-8, 1950, 6-8. or.)

2. LIZARDIREN OLERKIEN EDIZIO KRITIKO BATERAKO

2.1. POEMAGINTZA LIZARDIREN LAN LITERARIOEN TESTUINGURUAN

2.1.0. Sarrera

Lizardiren poemagintzaren edizio kritiko baterako materialeak eskuratzeko asmoa duen eranskin honetan, lehen sarrera gisa haren poemagintza bere lan literario guztien testuinguruan kokatu behar da.

Lizardik landu zituen genero literarioak lau dira, kazetaritza, antzerkia, olertia eta ipuingintza.

Edizio Kritiko honetan azkenengo biak jasotzea erabaki da, elkarren arteko harremana datu argigarria bait zaigu Lizardiren olerkigintza hobeki ezagutzeko.

Literaturaren alorrean landu zituen beste zenbait genero: kazetaritza (ehun artikulutik gora) eta antzerki lanak (lau obra ezagun) ditugu aipagai, bada, sarrera honetan.

Era berean, Lizardiren zeregin literarioaren barruan, *Biotz Begietan* liburuaren sorrera eta *Umezurtz olerkiak* liburua, bera hil ondoren Euskaltzaleek argitaratuaz ere zenbait azalpen eman behar dira.

2.1.1. Kazetari-lanak eta narrazioak

Lizardiren kazetari lanek zerikusi estua dute bere ekintza kulturalekin, hots, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaleak taldearen barruan izan zituen zereginekin.

Bietan ere prensa eta propaganda lanetan aritu zenez, esan liteke, 1927-1930 urte bitartean argitaratu zituen artikuluetatik asko, berrogei inguru, erdia baino gehiago ekintza kulturalen arloan aipatu ditugun hiru jomuga nagusi haiek sustatzeko izan zirela: euskal eskolak, Kirikiño saria eta Euskal Egunkariarena. Horretaz gain, jakina, urtean zehar ospatuz joan ziren Euskararen Egun eta eta Haur Euskaldunaren Egunak etabar promozionatuz idatzirikoak ere badirelarik.

Lizardiren kazetari lanetan atal berezia merezi duten hiru sail edo multzo berezi azpimarkatu behar dira. Horietan lehena "Berriketak" izenburuaz argitaratu zituen hamairu narrazioak eta bi lagun mutil zaharren gorabehera farregarriak kontatzen dituztenak.

2.1.1.1. "Berriketak"

"Berriketak" direlako narrazioak *Argia* astekarian argitaratzeko idatzi zituen 1928 urtean Urtarrilaren 22tik hasi eta Irailaren 23a bitartean. Narrazio horietako batzuk ilustrazio grafikoaz batera, Lizardik berak eginiko marrazkiaz batera argitaratzen ziren *Argia* astekariaren lehen orrian, eta helburu nagusitzat euskaraz irakurtzeko ohitura handirik ez zuen irakurlegoari irakurgai errez eta farregarriak eskeintzea zuen helburutzat, gorabehera xelebre batzuetako protagonista bilakatuz Patxi Ardatz eta Peru Eltze.

2.1.1.2. "Glosas Triviales"

Kazetari lanen artean, prosa literarioaren tankera berezia hartzen duten artikuluez osaturikoa da azpimarratu nahi nukeen bigarren artikulu saila: "Glosas Triviales" direlakoek osaturikoa.

Biografiaren atalean esana dugun bezala, "Glosas Triviales" artikulu saila Lizardik 1929an Zarautzen gaisoaldi ondorengo sendotze hilabeteetan izandako orduetan egindako lanez osatua da. Gaiak era askotarikoak dira eta bere garaiko gai arruntetaz zuen ikuspegia erakusten digute,

beltzekiko bereizkeriaz, emakumeen laneratze prozesoaz edo borreroaren zereginaz eta heriotza zigorraz zituen iritziak azaltzeko aukera du sail horretan, "trivial" adjetivo horrek ematen dion askatasunaz eta erreztasunaz baliatuz. Zarauzko egotaldi horretako artikulurik hoberena, eta erderaz idatzi zituenen artean, gailenena dena zalantzarik gabe, "Tristezas de un jocoso sentimental" delakoa dugu, gaztelaniaz Lizardik iritxia zuen deskrizio eta narrazio poetikorako mintzairaren lekukotza diztirantea bait da bere dotoretasun osoan.

2.1.1.3. Narratiboak

Azkena aipatu dugun artikulu horren tankera deskriptibokoa da 1929ko "Hora triste" delakoak ere, Kirikiño idazlearen ehorzketa eta elizkizunen narraketa intimistak irakurlea bertaratzea erdiesten duelarik.

"Tristezas de un jocoso sentimental" eta "Hora triste" bezalako artikuluek Lizardirengan baitan narradore baten zantzua darakuste, egoera pertsonalen deskripziorako eta inguruen azalpen zertzelatua jasotzeko joera gero eta nabarmenagoa.

Ia-ia esan liteke, aipaturik geratu diren azken horiek 1932an ezagutzera eman zituen bi "Etxebarne bizia" direlakoekin batera Lizardiren baitan prosa literarioa, narrazio nahiz deskrizio tankerakoaren sorrera iragartzen ari direla.

Hain zuzen ere, Lizardiren narraziorako joera honek bere heldutasun aroan gero eta gauzatze konkretuagora zeraman. Hil ondoren egunkarietan Jautarkol eta Aitzolek eginiko zenbait aipamenek, Lizardik azken urte horietan narrazio luze bat osatzeko zuen proiektuaren berri ematen digute.

El Día egunkariaren 1933ko martxoaren 26ko alean Luis Jauregik argitaratu zuen "Lizardi. Su personalidad literaria" deritzan hitzaldian aurki genezake zantzurik utzi ez duen nobela bat idazten hasteko asmoa zueneko aipamena.

Antza denez, *Umezurtz olerkiak* argitalpenean jasoa dagoen *"Maitea*ren apurñoak" poema luzearekin batera, eta aldi berean, Lizardik nobela baten argumentua osatzen ziharduen

> "Nos lo ha llevado el Señor, cuando estaba fraguando en su mente la composición de un poema originalísimo, extraído de los recuerdos de su vida y planeaba el argumento de una novela de gran envergadura literaria" [1].

Jautarkolek eginiko aipamen honen bitartez ezagutzen duguna, Aitzolek ere, bidenabar bezala, aipatzen du Lizardiren heriotzaren hurrengo egunean *El día*ren 1933ko martxoaren 14ean argitaraturiko "El patriota, el poeta, el cristiano" deritzan artikuluan. Aitzolek ere Lizardik azken urte horretan zituen bi proiektu nagusiok batera aipatzen ditu: bata "Maitearen apurñoak" delakoa, umetango ta gaztaroko oroitzapenez osaturiko poema luzea, eta bestetik, nobela baten proiektua:

> "Un poema que no podrá terminarse... Una novela, cuyo desenlace será para nosotros un misterio... yacen entre los papeles de nuestro gran vate" [2].

Jautarkolek eta Aitzolek aipatzen duten narrazio horren zantzu idatzirik ez zaigu iritxi, nahiz eta horrekin batera aipatzen den poema proiektuaren eskema eta zatiak argitaratu egin ziren Euskaltzaleak erakundeari esker, "Umezurtz olerkiak" deiturapean.

Lizardik asmotan zuen nobela proiektu horren beste aipamen bat Lizardiren beraren gutun pertsonal batean aurki genezake. Zalantzarik, gabe Zarauzko herrian kokaturiko gertakizunei buruzko argumentua zuen buruan eta narrazio hori osatzeko beharrezkoak zituen datuen bila Zarauzko erretore zen Venancio Amezti aipazarengana jo zuen. Ez zuen ordea errezibitu nahi izan. Eta gora-behera honi

---

1 JAUREGI, L., "JAUTARKOL"; "Lizardi. Su personalidad literaria" in *El Día*, 1933-3-26, 1. or.

2 AITZOL; "El patriota, el poeta, el cristiano" in *El Día*, 1933-3-14, 1. or.

esker jakin genezake 1932ko irailaren batean Lizardik idatziriko gutun batean, balizko nobela horren berri:

> "Deseaba tener una nota-esquema de sucesos por así decirlo novelables o poetizables, propios para figurar accidentalmente en una especie de cuadros literarios, que de momento están sólo en mi pensamiento, pero cuya acción, si alguna vez les diese cima, se desarrollaría en Zarauz. Nunca pensé en nada que se parezca a usurpación ni a uso abusivo de los datos que se me proporcionasen. Hubiéralos eso sí, agradecido en el modo y medida acostumbrados entre gente amiga y de buena fé, sin olvidar la grata obligación de citar a mi comunicante al hacer uso de sus revelaciones" [3].

Beraz, olerkari lanez gain, Lizardik azken urteetan berriro atxiki zion 1916-19 epeko zaletasun narratiboari.

Nobela gisako edo berak dioen bezala, "cuadros literarios" gisako horien tankera prosa poetikotzat defini zitekeela igarri genezake, gaztaroko nahiz helduaroko narrazioetan zuen deskriptziorako joerari jarraituz.

2.1.2. Antzerki-lanak

Egunkarietan agertzen diren kazetari lanez gain eta olerkigintzari dagokion atalean aztertuko ditugun poemez gain, Lizardik beste literatur genero batean ere saiatu zuen bere luma: antzerkigintzan, alegia.

Lau antzerki-lan ezagutzen dira: *Laño ta Izar*, *Bi aizpak* eta *Ezkondu ezin ziteken mutilla*ren berri zehatza dugu eta testuak ere eskuratu ahal izan ditut; laugarrena, aldiz, *Artaxuriketa* egunkarietako erreferentzien bidez bakarrik ezagutzen da eta testuaren edo argumentuaren berririk ez zaigu heldu.

2.2.1.1. Laño ta Izar

1930 urteaz geroztikoak dira Lizardiren antzerki lanei buruzko argitaralpenak. Lehenengoa, 1930eko uztailaren 30ean argitaraturiko antzerti pieza labur bat da, *Laño ta Izar*, urriaren 19an Donostian antzestu eta hurrengo egunean *El Día* egunkariak argitaratua. Argitalpena egin zen eguneko kronikek diotenez, Lizardik *Laño ta Izar* deritzan "maitagarri ipuin" hau Emakumeek euskerari egindako "Maite-agur"aren ospakizunetan antzestua izateko idatzi zuen.

Kontalaria Lardizabal andereñoa izan zen eta kronikek diote atzean apaingarri gisa irudien proeikzio modernoak egin zirela:

> "La leyenda fué ilustrada con unas proyecciones bellísimas de dibujos adecuados a la narración, realizados por Juan de Aldazábal y don José de Mendizábal, estampas de tono moderno..." [4].

Lizardiren lehen antzerti lan txiki hau Antzerti aldizkariaren 2-3 zenbakian argitaratu zen eta gure dokumentazioa eta egunkarietako oharren bidez dakigunez, beste bi aldiz antzestu zen, gutxienez. 1931ko azaroaren 21ean Dionisia Orueta anderenoak Lizardiri bidaliriko gutunean eta Lizardik azaroaren 24ean bidaliriko erantzunaren bidez dakigu obratxo hori argitaratua zela eta gutun horretan ematen ditu musika, kanta eta dantzei buruzko zehaztasunak [5].

1932-4-27an *Euzkadi* egunkariak Lizardiren "bi ballet polit" antzestu ziren berria ematen du. Bata *Laño ta Izar* dela zehazten du baina besteari buruzko zehaztasunik ez du ematen.

---

3 Ikus "Lizardiren eskutitzak" eranskinean 46. Dokumentua

4 *El Día*, 1930-7-31, 1. or.

5 Ikus "Lizardiren eskutitzak" eranskinean, 47. eta 48. Dokumentuak eta haiei atxikiriko ohar kritikoak.

2.1.2.2. Bi aizpak

Antzerti aldizkariaren 5-6 zenbakiak Lizardiren beste antzerki lan baten berri ematen digu: *Bi aizpak* izenburua daramana, alegia.

Bi aizpak izeneko antzerki lan honen tankera iadanik biografian aipatua dugun *Ezkondu ezin ziteken mutilla* antzerki lanaren paretsukoa da: Ohituren komedia deitzen den teatro motaren sailekoa, alegia.

Argumentuak bere gisa bizitzen ohiturik dauden bi ahizpa neskazaharren bizitzan aldi baterako bi ume etxean hartu beharrak sortzen dituen egoera farregarriak jasotzen ditu.

Antonio Maria Labaienek elkarrizketa pertsonalean adieraziaren arauera, antzerki pieza hau frantzesetik eginiko itzulpen eta egokipena da. Labaienek berak eman omen zion Lizardiri antzerki obra hau frantzesetik euskara itzul zezan, *La petite illustration* zeritzan aldizkaritik harturik. Ez dago Lizardiren idazlan honen antzespenaren berririk.

2.1.2.3. Artaxuriketa

Bi ahizpak antzerkitxoa *Ezkondu ezin ziteken mutilla* delakoaren taxuera berekoa den bezala, Lizardirena dela esaten den *Artaxuriketa* antzerkia *Laño ta Izar* delakoaren kidetsukoa zela dirudi.

Artaxuriketa deritzan obra argitaragabea da, eta haren berri ematen diguten bi aipamen labur baizik ez zaizkigu geratu. Horietan lehenengoa *Antzerti* aldizkariaren 1935eko azaro-abenduko alean agertzen da:

> "Abesbatzaren lehenengo agerketa zuala'ta "Artaxuriketa" Lizardi'ren antzerkizun lilluragarria jarri zuten".

*Antzerti*n 1936-1-28an, abenduan eginiko antzespen horren iruzkinean *Artaxuriketa* delakoa "olerki uts den laukia" dela esaten da, beraz, ez dirudi obrak elkarrizketarik edo argudio korapilotsurik zuenik. Antonio Maria Labaieni obratxo honen berri galdetu nionean elkarrizketan, Orixek ordurako idatzia zuen *Euskaldunak* poemaren izen bereko zatiaren errepresentazioa besterik ez zela adierazi zidan, bere oroimenean fidaturik.

1932-4-27an *Euzkadi* egunkariak Lizardiren "bi ballet polit" antzestu zirela dioenean, baliteke izenik aipatzen ez duen bigarrena honako hau izatea.

2.1.2.4. Ezkondu ezin ziteken mutilla

Antonio Maria Labaienek bakarrik ezagutzen zuen Lizardiren antzerki-lan hau eta guda ondoren argitaratu zuen *Egan* aldizkariaren 1953ko 2-4 alean, senitartekoen baimenaz.

Lizardiren antzeslanik ezagunena da; Labaienek dionez, gertakari autobiografikoetan oinarritua da eta ohitur komediatzat har daiteke.

Argudioak ezkondu nahi duen mutil baten gorabeherak kontatzen ditu: etxekoen euskarri bakarra da eta ama-izebek ez dute nahi ezkontzerik, are gutxiago neska pobre batekin.

Halere, maitasun-harremanak eragozpen guztiak gaindituko ditu osaba baten amarruen laguntzaz, zenbait gorabehera farregarriren ondoren.

2.1.2.5. Antzerki lanen taxuera

Aipatu diren lau antzerki-lan horiek bi tankera nagusi zedarritzen dituzte: bata, poesia eta narrazioaren artean dauden deklamazio pieza laburrek eta dantza, kantu eta musikaz osaturikoa, "ballet" gisakoa, eta bestea, garaian hain garatua zegoen ohitura komediaren tankerakoa.

Literatur kritikoek Lizardiren lan hauei buruz iritzia eman izan dutenean, Lizardik garaian ohizkoak ziren moldeak erabili baizik ez zuela egin esaten dute, olerkigintzan egin zuen berriztaketa eta bide pertsonalak bilatzeko ahalegina antzerkigintzari itsatsi ez ziolarik.

Lizardiren antzerkigintza alorreko iharduna Gipuzkoan, bereziki, Donostian XIX. mendearen amaieraz geroztik garatzen ari zen antzerki zaletasunaren esparruan kokatzen da.

1880an Marzelino Soroak [6] ekindako antzerkigintzaren bideari jarraitu zitzaion *Euskalerria* aldizkariak sorturiko "Consistorio de los Juegos Florales Euskaros" delakoaren barruan antzerki saiaketa Santo Tomas egunean ospatzeko ohitura. Soroaren eta *Euskalerria* aldizkariaren ekimen honi esker, Donostian euskarazko antzerkiaren inguruan zaletasun eta ikuslego bat osatu zen, 1915ean antzerkizaletasun xume honi indar emateko Donostiako udaletxeak bertako zinegotzi zen Abelino Barriola antzerkigilearen proposamenaren ondorioz, "Escuela de Lengua y Declamación Eúskaras" delakoa sortu zen Toribio Alzaga bera buru izendatu zutelarik.

Gipuzkoan antzerkigintzari eman zitzaion indar hau Luis Villasanteren ustez, abertzaleek kultura politikaren barruan antzerkigintzari ematen zioten lehentasunaren ondorioa da. Taxueraz, orokorrean, abestiez eta musikaz hornituriko antzerki motaren finkapenaren bidetik jo zuen, eta zituen osagarri folkloriko eta ikusgarriei esker, ikuslego multzo zabala erakarri zuen.

Villasantek XIX. mendearen amaierako eta XX. mendearen hasierako bi antzerki epean arteko alderaketa eginez, bigarren aldi honetakoei heldutasun eta arnas gehiagokoak deritze, nolanahi ere, Europan egiten ari zen goi mailako antzerkigintzaren pareraino irixten ez zirelarik, halere. Bigarren garai honetako autore nagusitzat aipatzen ditu Ibon Sarasolak *Historia social de la literatura vasca*n Toribio Alzaga, Abelino Barriola eta Katalina Elizegi [7].

Euskaltzaleak taldeak ere antzerkigintzak Gipuzkoan zuen garapenaz baliatuz, Antzerti deituriko errepresentazio saioez gain, izen hori bera zeraman aldizkari bat, hilabetekari bat argitaratzeari ekin zion Antonio Maria Labaienen eskutik, Antzerti saioetan errepresentatzen ziren obra nagusinen berri emateko eta obra osoak ere argitaratzeko [8].

Beraz, Lizardiren lau antzerki lanak Euskal Herrian mende hasiera horretan egiten zen antzerkiaren esparruan doi-doi egokitzen dira, bai bere osagarri musikal eta ikusgarriengatik, eta bai osagarri folklorikoengatik.

Laño ta Izar antzerki lanean Lizardiren helduaroko lirikaren ezaugarriak nabarmentzen dira, baina baita, era berean, gaztaroko olerkietako zenbaitetan antzematen den ipuin magiko, narrazio mitologiko eta folklorikoen zaletasuna ere.

Ohitura komedietan aldiz, pertsonaien mintzatzeko moldea bereziki karakterizatzeko gaitasuna azpimarratu behar da, batez ere, bi ahizpen arteko elkarrizketaren karakterizaketa bizia eta farregarria, bai *Bi aizpak*, bai *Ezkondu ezin ziteken mutilla* antzeslaneko ama-izeben artekoa.

---

6 VILLASANTE, L.; *Historia de la literatura vasca*, Sendo, Bilbo, 1961, 281-2. or.

7 SARASOLA, I.; *Historia social de la literatura vasca*, Akal, Madrid, 1976, 145. or.

8 SARASOLA, I.; *Ibidem*, 152. or.

2.2. LIZARDIREN POEMAGINTZAREN PERIODIZAKETA

2.2.0 Sarrera

Jose María Agirrek, lau ezizen ezberdin erabiliz, 1917tik 1933rarte izenpetu zituen olerkiak 54 dira, guztira. Olerki horiei buruz tesi-lan hau burutzeko beharrezko izan dugun edizio kritikorako materialeak eskuratzea da eranskin honen helburua, baina olerkiei berei heldu aurretik, edizio kritiko mugatu horretan funtsezko deritzedan bi gai azaldu nahi nituzke: lehena Lizardiren olerkiak sailkatzeko saioetan ene ustez periodizaketa kronologikoak duen garrantzia, eta bigarrenik, Lizardiren olerkien argitaralpen ezberdinen kronologia zehatzaren gaia.

2.2.1. Lizardiren poemagintzaren periodizaketa kronologikoa

Lizardiren idazlanaren kronologia egitean bi epe nagusi aipatu izan dira: lehenengoa, 1917-1919 bitartekoa, *Euzko Deya* bilbotar aldizkarian garatu zuena, eta bigarrena aldiz, 1925etik 1933rartekoa, hastapen eta heldutasun arotzat jo daitezkeelarik, era soilean harturik. Edizio kritiko baterako materiale bilduma honetan, ordea, trantsiziozko epe bat ere berezitzea erabaki da, 1919ko azken olerkietatik eta 1927ra arteko epean ezagutzera emaniko olerkietan nabaritzen den gaien eta taxueraren alorrean aldaketa bidean dela nabarmendu arren, olerkariaren ikuspuntuari dagokionez batasuna suma daitekeelako epe horretako olerkien artean.

2.2.1.1. Lehen epea

Lizardiren lehen idazlan literarioak, Aitzolek "El poeta Jose María de Agirre" izeneko dioen moduan, *Euzko Deya* aldizkarian argitaratzen zituen.

Aldizkari hau Bilboko "Euskeltzale Bazkuna" elkarteak argitaratzen zuen eta Aitzolek arestian aipaturiko artikulu horretan dioenez, Lizardi laguntzaile literarioa ez ezik, aldizkari haren laguntzaile grafikoa ere bazen. Aldizkaria 1916an hasi zen argitaratzen eta 1923rarte iraun zuen, 1920tik 1921era bitarteko epean ixilik egon bazen ere.

Aldizkarian denetariko gaiak erabiltzen baziren ere, euskararen eta abertzaletasunaren inguruko artikuluak ziren nagusi, hasieratik amaieraraino euskaraz idatzia egotearen ezaugarria zuen.

Aitzolek Lizardiren eskuizkribuak ikusi zituen, eta haren eskuzko idazlanak bi karpeta edo kuadernotan banaturik zeudela gogoratzen zuen:

> "Sin embargo en un cuaderno titulado "Ropavejero" de una de las varias carpetas en las que cuidadosamente ordenados ha dejado Lizardi sus trabajos hay poesías, notas, anécdotas, dibujos y cantos frutos de sus primeros afanes de literato. Era a la sazón colaborador poético-gráfico de *Euzko Deya*. Este cuaderno lleva la fecha de marzo de 1916" [9].

Aitzolek aipatzen duen lehen epe horretako idazlanik gutxi bidali zuen *Euzko Deya*ren erredakziora, batzuk ez zizkioten argitaratu ala izenpetu gabe bidali zituela pentsa daiteke. Nolanahi ere den, Jose María Agirrek erabili zituen ezizenen artean zaharrena "Samaiko Zulo" deituraz izenpeturik 1917ko Martxoaren 16koa da, 26. alean: *Aldakeri*ren prosazko bertsioa da. Lehen kuaderno horretan agertzen ziren lanen artean egon zitezkeen era berean, 1917ko apirilaren 16ko, 28. alean argitaratu zuen *Nere lenengo matte-ibilketa* izenburudun poema eta baita *Euzko Mendiya* izenburuaz, 1917ko maiatzaren 1ean argitaratu zuena ere.

---

9 AITZOL; "El poeta Jose Marí de Agirre" in *Yakintza*, 1933, III, 166. or.

Ez litzateke harrigarria izango 1917ko Uztailaren 1ean argitaraturiko *Zelai urdiña* deritzan olerkia ere lehen epe horretakoa izatea, alde batetik dataren gertutasunarengatik, ez bait zuen bigarren kuadernoa 1917ko maiatzaren 18rarte hasi, eta bestetik hauxe bait da, "Samaiko Zulo" ezizena erabili zuen azken aldia, 1973ko Valverderen edizioan jasoriko "Jaun errukitsuboi" poemaren esku-izkribuzko bertsioa alde batera utziz gero, datarik gabe ageri denez.

Beraz, eta tamalez Aitzolek aipatzen duen "Ropavejero" hori guretzat behin betiko galdua bada ere, pentsa genezake Lizardik berak bere zeregin literarioaren alditxo bati zegokion batasunari eutsiz, ezizenez aldatzea erabaki zuela, lehen epeari amaiera ematea erabaki zuela izenpetzeko erabiltzen zuen deitura aldatuz.

Lehen kuaderno horretako lanek euskeraz eta erdaraz eginak eta landuak behin eta berriro orraztuz, bere hizkuntza literarioa moldatzeari ekin zion.

Bigarren koadernoan, aldiz, Aitzolek dioenez euskaraz bakarrik idazteaz gain, "Zarautz'ar Sabin" ezizenaz izenpeturik uzten zituen:

> "El 18 de mayo de 1917 empieza un nuevo cuaderno. Lo titula "Naste-Borraste". Todo lo que en el escribe es ya en euskera. No hay tampoco un solo dibujo. Contiene sólo poesias y trabajos en prosa; el esfuerzo total de varios meses, quizás de varios años de paciente aplicación. Así se forjó, paulatinamente, el gran escritor. No como alguno ha creído repentina y bruscamente" [10].

1917ko Abenduaren 16an argitaratu zuen gaztaroko bigarren epe honetako lehen poemak hain zuzen ere jadanik izenpe berria dakar: "Zarautz'ar Sabin". *Jaun errukitsuboi* deritzan olerkiaren pean, hain zuzen ere, *Biotz-Begietan* libururako hautatu zen bakarretako bat.

Ezizen berriak joera nabarmenki "abertzalea" aitortzen duen era berean, idaztankerak ere, eta zenbait poemen taxuerak Sabino Arana Goiriren poemagintza gogora arazten du hiru ezaugarri nagusitan: lehenik, bertso librea erabiltzen du, lerro motz eta ugarikoa; bigarrenik, erabiltzen duen hizkuntza moldea hestuki aranazalea da, eta hirugarrenik, gai abertzaletako eta otoitz tankerako olerkiak ugaritu egiten dira, maitasunezko gaia duten eta naturaren zaletasuna adierazten duten gaien aldean.

Lino Akesolok 1987ko *Karmel* aldizkarian "Lizardi gaztearen olerki-mordoa" izenburupean argitaratu zituen garai horretako olerkiak 18 dira zehazki [11] eta 1917-1920 arteko epeko olerkiak biltzen ditu. Horietaz gain, beste hiru narraziok osatzen dute *Euzko deya* aldizkarian Lizardiren sorkuntza literarioaren lehen epea.

"Ropavejero" koadernoari dagozkionak, beraz, *Aldakeri* narrazioa, eta gerora poema bilakaturik bi bertsiotan ezagutzera emana, lehena 1925 eta azkena *Biotz-Begietan* liburuan, eta jadanik aipatuak ditugun *Nere Lenengo matte-ibilketa*, *Euzko Mendiya* eta *Zelai urdiña*.

"Zarautz'ar Sabin" izenpetzen duen gaztaroko bigarren epeari dagozkion "Naste-Borraste" koadernokoak aldiz, bi ipui dira: *Ipuyak eztiran ipuyak* deitura orokorraren azpian *Jauregi zarra* Urtarrilaren 1ean argitaratua, eta bestea *Amonatxo zimel maitagarriya* deritzana, uztailaren 1ekoa, eta 15 olerki.

Olerki gaiei dagokienez maitasunezkoak dira ugarienak epe honetan:

—*Nere maitiak ditu*, 1918-ekainean argitaratua.
—*Mattasunaren illetea*, 1918-azaroan argitaratua.
—*Maiteder* 1919ko Urtarrilean.
—*Maite izaneri* 1919ko martxoan.

---

10 AITZOL; *Ibidem*, 166. or.

11 AKESOLO, L. (ed); "Lizardi gaztearen olerki-mordoa" in *Karmel*, 180, 1987 (1), 6-15 or.; "Lizardi zanaren beste lau olerki" in *Karmel*, 181, 1987 (2), 25-32 or.; "Lizardi-ren gaztetako olerkiak (Azkena)" in *Karmel*, 183, 1987 (4), 57-84 or.

—*Aztu, biotz orrek* 1919ko apirilean.
—*Izarkitako sua* 1919ko Uztailekoa.

Behin eta berriro darabilen erantzunik gabeko maitasun minduaren gaiaren aldean, badira beste zenbait gai iraunkor, umorezkoak: *Idazkiya* (1919ko abuztukoa),eta *Oia* (1919ko apirilekoa) , edo erlijiosoak, *Jaun errukitsuboi* (1917ko abendukoa), *Otoitza* (1919ko Azaroakoa).

2.2.1.2. Bigarren epea: igesi joan nahia, kezka, yorana

1919ko zenbait olerkitan helduaroko Lizardiren poemagintza karakteristikoa izango denaren lehen zantzuak sumatzen dira, eta hori dela eta, trantsiziozko epea dela esan liteke bigarren hau.

Maitasunaren gaia ez da jadanik gai ardatza eta haren aipamena "mundua"ren gainerako gauza guztien desengainoarekin batera aipatzen hasten da, eta munduak olerkariaren itxaropenak zapuztu baizik egiten ez dituenez, ideal "handi"agoetan jarri behar ditu begiak: aberria eta Jainkoagan. Horixe da, *Aztu, biyotz orrek* poemaren mezua, eta trantsiziozko epe honetako olerkiek gai sakonetarako zaletasuna eta ausnarketa giro nabariagoa dute.

Euzkera deritzan 1919ko abuztuko poemak eta *Amona* 1919ko irailekoak badute kidetasunik, biak esperientzia pertsonal benetakoaren bidetik abiatzen bait dira, gero hain ugaria izango denaren bidetik alegia, baina lehenengoak irudipenari askatasuna ematen dion neurrian, bigarrenean errealismoari loturik dihardu.

Aipa ditzagun azkenik, *Gaiztuen itzala,* 1919ko uztailekoa, eta *Igesi* deritzan 1919ko abenduko olerkiak, gerora jarraipena izango duten desengainoaren gaiaren lehen tratamendu argiak dira, gaiak alegorikoki erabiltzeko joera nabarmentzen hasten delarik. *Gaztiaren otoitzak* ere barne-kezka eta urduritasuna adierazten du, batez ere, norberaren bizitzaren zentzuaren bilaketa..

Aitzolek Lizardiren zeregin literarioez ematen digun irudikapenean, argitaralpen literarioak lehen epe horretatik aurrera, hau da, 1919tik aurrera 1930ean Errenteriko Olerti Egunean esku hartzen hasi arteko epean, bestelako ekintzetara emana aritu zenez, isilaldi luze bat izan zela ematen du aditzera, "durmió su lira durante estos años" [12] esanez.

Halere, eta Lizardiren *Euzko Deya* aldizkariko lehen epea eta 1930ko Olerti Egunen inguruko olerki argitaralpenen artean, bada tarteko epe bat, Aitzolek aintzakotzat izan ez duena, hau da 1925ean 1926an eta 1927an egunkarietan, *Euzkadi* egunerokoan eta *Argia* astekarian argitara ematen joan zen obra.

Bigarren epe honek, 1919ko azken poemen artean ikusi ditugun gaien garapena dakar, izan ere, 1925ean *Argia* astekarian argitaratu zituen hiru olerkietatik bi, 1919an jadanik argitaraturiko biren berralgitaralpenak dira, apur bat aldaturik: *Gastearen otoia* (*Argia*, 1925-6-12) eta *Igesi* (*Argia*, 1925-7-9an berrargitaratua).

1925ean argitaraturiko hirugarrena *Mendi gallurra* deritzana da, 1926ko Irailaren 17koa, eta oso aldaketa gutxiz *Biotz-Begietan* libururako bigarren olerkitzat hautatu zen *Mendi-gaiñaren* lehen bertsioa.

1925ean *Argia* aldizkarian ezagutzera eman zituen hiru olerki hauek, tarteko epe honen esistentziaz eta garrantziaz oharterazteaz gain, orain arte ezezaguna zen Lizardiren beste ezizen bat ematen digute ezagutzera, "Txolarre" delakoa, alegia.

Olerki hauek Jose María Agirrerenak ote diren zalantzarik ez dago, alde batetik, lehendik izenpeturiko olerkien bertsio berriak besterik ez direlako azken biak, eta lehenengoa aldiz *Biotz-Begietan* libururako hautatu zen bakarretakoa delako. Bestalde, "txolarre" hegaztiaren irudia bere buruarekin identifikatzen zuela badakigu *Parisko txolarrea* deritzan eta Erreteriko Olerti sariketara aurkezturik ezagutzera eman zuen olerki batean adierazten duelako:

---

12 AITZOL; *Ibidem*, 166. or.

"Labur: nere burua
Paris'en ikusiz
ain lotu ta arlote,
otoi nizun zerua,
zeatz adiraziz
gizon baiño naiago nukela txolarre"
(PT 55-60, 101 or.)

Lizardik Parisen, Tolosan edo beste nonahi bezain lasai ibiltzen den txori hori bezalakoa izan nahi lukeela adieraziz idatziriko olerki honetan 1926ko olerki argitaralpen bakan horietan ezizen hori hautatu izanaren arrazoia azaltzen du, zehar bidez.

Aitzolek "Xabier de Lizardi" ezizena lehenengo aldiz 1927an Euskaltzaleak erakundearen sorreraren ondorioz Lizardik ekin zion propaganda eta suztapen kanpainaren barruan idatziriko artikulu horietan erabili zuela esaten du:

> "Entonces salió al campo de acción Jose Maria de Agirre usando, por primera vez, su seudónimo de Xabier de Lizardi. El mes de octubre inició una campaña de prensa, en euskera y en erdera, sobre acción euskerista, que explanó en diez artículos" [13].

Ez da ordea, datu hau guztiz zuzena. Lazkaoko Beneditarren liburutegian, Bilboko Aldundiaren liburutegian eta Derioko "Labairu" liburutegian ikertuz, aztertu ahal izan ditudan garai horretako egunkari, aldizkari eta astekarietan "Xabier Lizardi"ren ezizena 1927ko urria baino lehenagoko argitaralpen batzuetan ageri da.

Hain zuzen ere, 1926an *Euzkadi* egunkarian eta *Argia* astekarian argitaratu ziren Lizardiren bi poemaren izenpea hauxe bait da, jadanik.

1926ko Azaroaren 3an argitaratu zuen Lizardik *Udazken* deritzan olerkia, *Urte Giroak ene begietan* poemarekin ez ezik, *Aldakeri* ipui/poemarekin zerikusi tematiko nabaria duena.

Gai bera, hau da, bizitzaren desengainoaren gaia darabil, *Euzkadi* egunkarian 1927ko azaroaren 20an argitaratu zen *Ar uts* deritzan olerkiak ere, eta gero, *Urte giroak ene begietan* olerkiko pertsonaietako bat izango den tximeletaren bizitza efimeroaz diharduena.

Beste bi olerki ere argitatu zituen trantsiziozkotzat jo dudan epe honetan, bata, 1926an *Xabiertxoren eriotza* delakoa, *Euzkadi* egunkarian Abenduaren 26an argitaratua, eta urte bete lehenagoko Eguberrietan hildako bere lehen semetxoaren heriotzaren gaia darabilena.

*Xabiertxoren eriotza*ren lehen bertsio hau ez dago olerki tankeran argitaratua, prosa poetikoaren tankeran emana baizik; gero, ordea, 1932ko *Biotz-Begietan* liburuan ikusiko dugu olerki tankeran ebakia eta aldaketa apur batzuk eragina.

Tarteko epe honetan azpimarragarria den laugarren poema, frantseseratik eginiko itzulpen-egokipen bat da, *Zeruko azpia* eta 1927ko Urriaren 12an argitatu zen lehen aldiz *Euzkadi* egunkarian, eta *Biotz-Begietan* libururako epe honetakoen artean hautatu zen bietako bat da.

1926 eta 1927ko olerki hauetan jadanik helduaroko epean karakteristikoa izango den "min etsia", sentimendu eta enteleguaren arteko oreka, mintzaira poetiko zaindua, etabar. aski finkaturik daude, baina prozesu poetiko gisa, 1929ko *Aldakeri*ren bertsozko bertsiorarte luza liteke trantsiziozko epe hau.

Tematikoki, etsipena, munduak zapuzturiko sentsibilitatearen barne-kezka existentziala, ihesi joan nahia, heriotza eta bizitzaren eta sufrimenduaren zentzuaren misterioari buruzko barne-itaunketak nagusitzen dira trantsiziozko epe honetan.

---

13 AITZOL; *Ibidem*, 166-167. or.

2.2.1.3. Hirugarren epea

Xabier Lizardiren jarrera bital osoan heldutasun eta finkotasun handiagoa sumatzen den epea dugu hau.

Atal biografikoan azaldua dugunez, aktibismo politiko eta kultural handiaren garaia da, eta maila pertsonalean, gaixoaldiek eta bizitzaren alderdi garratzek baikortasun gehiegietan erortzeko arriskutik aldentzen badute ere, olerkari gisa, bere benetako boza aurkitua duenaren konfidantza sumatzen zaio: 1929an *Bultzi-Leiotik* eta *Neskatx urdin yantzia*, 1930ean *Agur, Parisko Txolarre, Biotzean min det...*

1931an Tolosako Olerti sariketan lehen saria jaso du *Urte-Giroak ene begietan* poemaz, eta zatika-zatika *Euzkadi* egunkarian argitaratu ondoren, *Eusko Olerkiak 1931* liburukian agertzen dira.

1931ko *Euzkadi* egunkariaren orrietan eman zituen ezagutzera, *Euzko-Bidaztiarena* eta *Asaba zaarren baratza* poemak ere.

Eskutitzei buruzko eranskinean gertu-gertutik jarrai litezken *Biotz-Begietan* liburuaren prestaketa garaiko gora-beherak.

Lizardik Orixeri eskuratu omen zizkion bere eskuizkribuak hoberenak hautatu eta liburua presta zezan. Beraz, prestaketa lanaren zati bat Orixeri egokitu zitzaion eta olerkien itzulpenak egitea ere bai. Lizardik azken probak zuzendu eta azpiohar labur-laburretan egin zituen beharrezko zeritzen zertzeladak [14].

1932ko apirilaren 26an argitaratu ziren, 21 olerkiez osaturiko liburutxo zaindua. Liburuaren prestatze prozedura azaldua dugunez, edizio kritiko honen sarreran gaingiroki bakarrik aipatuko dugu.

21 olerki hauetatik 18 lehendik argitaratuak zituen eta bertsio aldaketa batzuk baizik ez zituzten aurreko argitaralpenen aldean. Hiru ziren, honaino aipatu ditugun argitaralpen ezagunen arauera, liburu honetan lehen aldiz agerturiko poemak: *Zuaitz etzana, Izotz Ondoko Iguzki* eta *Gure Mintzo.*

Biotz Begietan liburuaren elaborazioari buruzko ohar ugari eskaini dituen Orixeren hitzaurre eta egunkarietako iruzkinei jarraituz gero, azkenengo biak berriak zirela ziurta daiteke: azken aldian Lizardik berak sarrerazi zituela esaten du Orixek eta landuak izanarren, besteak bezain legunak ez direla dio. Horren arauera, logikoa da pentsatzea *Zuaitz Etzana* lehenagotikoa edo ezagunagoa zela Orixerentzat. Beharbada, argitalpen horren zantzurik oraindik aurkitu ez arren, non edo han argitaratua ere egongo zen...

Lizardik 1933ko martxoaren 14ean hil ondoren beste zenbait olerki eman zituzten ezagutzera Euskaltzaleak taldekoek. Horietako batzuk, *Yakintza* aldizkarian, *Argi egidazu, Egamin, Etxeko kea* eta *Arrats gorri* direlakoak, datarik gabe argitaratu ziren.

Olerki hauek Lizardiren paperen artean aurkiturikoak dira, esate baterako, *Gazteren esnatzea* (1932) olerkia *Yakintzan* 1933ean argitaratu zutenean ipini zioten azpioharrak iturria *Maitea* poema amaigabea osatzeko aurreratuak zituen "apurñoak" zirela salatzen du:

> "Agirre'tar Joseba Mirena (Oroitza Sail batetik bakandua)" [15].

1934ko *Umezurtz olerkiak* bilduman jaso zituzten Euskaltzaleek Lizardiren azken olerkiak. Batzuk *Maitea*ren apurñotzat eta beste lau, *Yakintza*n 1933an argitaraturikoak, bereizirik, *Etxeko*

---

14 1932ko *Biotz-Begietan* liburuaren edizioan Lizardik batez ere Orixek bere olerkiez eginiko itzupenei buruzko iruzkinak eta zuzenketak daude jasoak eta Edizio Kritiko baterako material sorta honetan zehatz-mehatz jaso dira zegokien olerkiari buruzko oharren artean.

15 in *Yakintza*, 1933, XII, 27. or.

keea, Argi egidazu, Egamin eta *Arrats Gorri,* nahiz eta *Maitea*ren zati izatearen taxua baduten 1934ko Umezurtz Olerkiak liburuan lehen aldiz argitaratu zen poema-hariari erreparatuz gero [16].

Maitea poema amaigabea helduaroko idazlana zuen, inolaz ere, mintzairaren eta ezaugarri poetikoen taxuak hala adierazten du, alde batetik, eta bestetik, olerkariaren ikuspuntua gaztaroko "oroitza" gisakoa egitea izan zen.

Halere, poema hau osatzen aspaldidanik ari zela pentsatu behar da, ez zela azken hilabeteetako zeregina soilik. Errenteriako Olerti Sariketara aurkeztu zuen *Agur* poemari ezarri zion azpitituluak garbi adierazten du *Agur* ere *"Maitea*ren apurñoa" zela, hala esaten bait du *Eusko Olerkiak 1930*ko bertsioan [17].

"Tristezas de un jocoso sentimental" artikuluan, esate baterako, *Ondaurtz* abestiaren aipamena egin zuen:

> "Antes de terminar, yo tengo una penosa declaración que hacer, y es *que amo a este pueblo con amor semejante al que inspira la primera novia...* Otro pecadillo tengo asímismo de confesar, y por cierto que !me da una vergüenza!... se trata de que en locos esquemas poemáticos, que el sol, por fortuna para el sol, nunca verá, he nombrado a este pueblo con el nombre de Ondaurtz, avaro de guardar para mí solo el sabroso secreto de su nombre" [18].

"Locos esquemas poemáticos" deritzen horiek dira urtetan zehar hausnartuz joandako oroitzapenen moldaera poetikoa. Noiztik hasia zuen ez dago zehazterik, baina zenbait gai eta irudi oso aspaldidanikoak direla esan behar da, esate baterako, Lizardik bere buruari "Gazte" ezizena ematea lehen epeko olerkietan agertzen da jadanik.

Bestalde, *Umezurtz Olerkiak* bilduman agertzen ez den eta 1935ean *Yakintza* aldizkariak 13. alean argitaratu zuen azken poema bat *Etxeko sagastia* izenburua duena ere *Maitea*ren apurñoetako bat bide da, utzi zuen eskema poetikoaren VII. jalkiaren arian egiten den "Lau aurtxoena" aipamenari ohartuz gero [19].

Hil ondoren argitaraturiko olerki hauen bertsio bakarra ezagutzen da eta bizi zelarik argitaraturikoetan *Maitea* poema amaigabeaz egin zitezkeen ohar kritikoak aipaturik utziko ditudanez, Erein argitaletxeak 1983an argitaraturiko *Olerkiak* edizioari atxekiko natzaio, azterketa-lan honetan zehar eginiko aipamen guztietan.

2.2.1.4. Poema ezezagunen erreferentziak

Ezagunak diren horiez gain, beste batzuen erreferentzia soltea badugu. Manuel Lekuonak *Cincuenta años de nacionalismo vasco* libururako Eugenio Ibartzabalek eginiko elkarrizketan jasoa dago, Lizardik bere ezkontza gauaz eginiko poema erakutsi ziola Orixeri eta honek argitaratzeko ausartegia irudituz atzera gordetzeko esan arren, Aitzolek argitaratu egin zuenekoa.

> "El P. Lekuona, don Manuel, considera a Orixe otra cumbre, la de la poesia vasca en toda su profundidad; pero, "por lo demás, el espíritu de serenidad de su poesía clásica, le llevaba a huir en su obra de toda concesión a lo sexual; era exageradamente escrupuloso en esta materia, y, precisamente, una de las acaloradas disputas que tuvo con Aitzol fué motivada por este género. Lizardi, espíritu delicado, consultó con Orixe la conveniencia o no de la publicación de un poemita que el zarauztarra,

---

16 Xabier Letek *Olerkiak* (Erein, 1983) liburuaren hitzaurrean *Umezurtz Olerkiak* liburuko olerkiak argitaratzeko erari buruzko zalantza ugari izan dituztela adierazi zuen, eta azkenean "ziurtasun osorik ezean" Aitzolek bezala ateratzea erabaki. Ikus "Aintzi-solasa", 7-8. or.

17 Ikus *Eusko Olerkiak 1930,* Euskaltzaleak, 1930, 52-55. or.

18 LIZARDI; "Tristezas de un jocoso sentimental" in *Euzkadi,* 1929-2-24, 1. or. Azpimarrak gureak dira. Aldera bedi 1934ko *Umezurtz olerkiak* liburuan argitaratu zuen Maitea poemaren hariaren amaieran dioenarekin: "Ondaurtz, antziñako andregai artu-ez baten antzeko zait orain" (*Olerkiak*, 219. or.)

19 LIZARDI, X.; *Olerkiak,* Erein, Donostia, 1983, 219. or.

con toda delicadeza, habia dedicado a su noche de bodas. Orixe le disuadió de su publicación. Pero Aitzol opinó (...) que la categoría de la pieza no sólo merecía la publicación, sino que era cometer un fraude a la poesía total vasca el recatar su publicación, y sin más, la publicó en la página literaria de El Día" [20].

Bigarren erreferentzia 1932ko abenduaren 14ekoa da *El Dia* egunkarian eginiko kronika batetik datorkigu: Lizardiren *Ke urdiña* olerkia Arantza Barrena andereñoak bezperako euskarazko irrati-saio batean irakurri duela esaten du, baina ez da olerkiaren argitaralpenik ezagutzen izenburu horrezaz. *Etxeko kea* olerkia bera ote den susmatzea da logikoena.

2.2.2. Olerkien sailkapenen irizpideak

Lizardiren olerki argitaratuak 54 dira denetara, eta arestian aipaturiko bi horien erreferentziak beste bat edo biren posibilitatea luzatzen dute.

Zenbait kritikok aztergaitzat *Biotz Begietan* liburuko 21ak soilik har litezkela defendatu izan du, hain zuzen ere, *Euzko Deya*n argitaraturikoetako asko ez zituelako *Biotz-Begietan* libururako hautatu. Karlos Otegik esate baterako, zera dio:

> "Los poemas de *Euzko Deya* no recogidos en la colección no son considerados por Lizardi exponentes genuinos de su actitud poética presente" [21].

Eta *Biotz-Begietan* liburuan ez sartuak izanaren arauera banatzen ditu, Lizardik liburuko olerkiak, bere ustez, "burutu"tzat jotzen zituen eta. Honela, *Euzko Deya*, *Biotz Begietan* eta *Yakintza*koak autoreak onarturikoak ziren, baina *Umezurtz Olerkiak*oak, aldiz ez.

Hauei buruz zera esaten du;

> "Pertenecen a un segundo nivel en la escala de autenticidad, y parecen pertenecer al inicio de una nueva etapa poética que quedó truncada" [22].

Sarreran eta tesi-lanean zehar iradoki dugun moduan, olerkien hautapenean Orixek zerikusia izan zuela frogatu denez, ordea, zerk bereizten ditu batzuk eta besteak?

Ene ustez, Lizardiren olerkigintzan bi arlo nagusi bereizi litezke, Lizardi bizi zelarik argitaratuak eta argitara gabeak. Argitaraturikoen artean, *Biotz-Begietan* liburuaren egitura barruan sartu zirenak eta banaka-banaka argitaratu zirenak bereizi litezke, bigarren maila batean.

Bizi zelarik argitaratuen artean, kronologia, taxuera, gaia, edo, nahiago bada, kalitatea irizpidetzat harturik, mailaketa eta sailkaketa modu ezberdinak egin litezke, baina beti ere kritiko literarioek ezarririko mugak izango dira, eta ez autoreak.

Bestalde, pentsa liteke Lizardik bere onespen osoa eman ziola Orixeren hautapenari, erabateko adostasuna iritxia zutela. Baina modu berean pentsa liteke Orixek ez argitaratzeko esan zion ezkontza-gauari buruzko poema "galdua", bere ustez, liburutik kanpo argitaratzeko modukoa izango zela, Lizardik onetsia zuela. Halere, ez zen *Biotz Begietan* liburuan sartu.

Liburuaren argitaralpenaren inguruan jaso ahal izan dugun informazioak pentsa arazten digu, *Biotz-Begietan*go olerki ezagunenak 1929-32 bitartekoak egiten ziharduen garai beretsuan, eta aldi berean, *Maitea* poema sortzen ari zela eta beraz, mintzaira poetikoari dagokionez, ez dezakegula besterik gabe *Ama Gau Beltxaran, Gazteren Esnatzea, Liorko, Amona, Muño-Txiki, Gora-Dei, Onkiren billa, Ondaurtz abestia* edo *Maitale Berriak Biotz Begietan*go azken olerkiak ez bezalakoak direnik

---

20 UGALDE, M.; "Biografia" in *Aitzolen Idazlan Guztiak*, I., 74. or.

21 OTEGI, K.; *Lectura semiótica de "Biotz-Begietan"*, "El corpus de trabajo", I, 19-21. or.

22 OTEGI, K.; *Ibidem*, 21. or.

esan eta epe poetiko ezberdinekoak zirenik. Horietako batzuk ez dute *Izotz Ondoko Iguzki* edo *Gure Mintzo* edo *Agur*ek ez bezalako taxuerarik mintzaira poetikoari dagokionez.

Halere, Karlos Otegirekin bat nator "no sabemos hasta qué punto se hallaban concluidos" [23] esatean. Lizardik argitara gabe zituen lanak ziren, eta zenbaitzuk nabarmenki burutugabeak, behar bezala borobildu gabeak dirudite.

2.2.3. Lizardiren poemen argitalpenen zerrenda kronologikoa

		1917	
Aldakeri Ipuya	1917-3-16	Euzko Deya	26. alean
Samaiko-Zulo			
Nere lenengo matte-ibilketa	1917-4-16	Euzko Deya	28. alean
Samaiko-Zulo.			
Euzko Mendiya	1917-5-1	Euzko Deya	29. alean
Samaiko-Zulo.			
Zelai urdiña	1917-7-1	Euzko Deya	33. alean
Samaiko-Zulo			
Jaun errukitsuboi			
Samaiko-Zulo	------	Olerkiak, Valverde, 1973 (63. or.)	
Zarautz'ar Sabin	1917-12-16	Euzko Deya	41. alean
		1918	
"Ipuyak eztiran ipuyak"			
Jauregi zarra	1918-1-1	Euzko Deya	42. alean
Zarautz'ar Sabin			
Nere maitiak ditu edo Axariya dantzan			
Zarautz'ar Sabin	1918-6-16	Euzko Deya	53. alean
"Ipuyak eztiran ipuyak"			
Amonatxo zimel maitagarriya			
Zarautz'ar Sabin	1918-7-1	Euzko Deya	54. alean
Mattasunaren illetea	1918-11-16	Euzko Deya	63. alean
Zarautz'ar Sabin			
		1919	
Maiteder aselia	1919-1-1	Euzko Deya	66. alean
Zarautz'ar Sabin			
Maite izaneri	1919-3-16	Euzko Deya	71. alean
Zarautz'ar Sabin			
Aztu, biotz orrek!	1919-4-1	Euzko Deya	72. alean
Zarautz'ar Sabin			
Oia	1919-4-16	Euzko Deya	73. alean
Zarautz'ar Sabin			
Izarkitako sua	1919-6-1	Euzko Deya	78. alean
Zarautz'ar Sabin			

23 OTEGI, K.; *Ibidem*, 19. or.

Gaiztuen itzala Zarautz'ar Sabin	1919-7-16	Euzko Deya	79. alean
Euzkera Zarautz'ar Sabin	1919-8-1	Euzko Deya	80. alean
Idazkiya Zarautz'ar Sabin	1919-8-16	Euzko Deya	81. alean
Gaztiaren Otoitza Zarautz'ar Sabin	1919-9-1	Euzko Deya	82. alean
Amona Zarautz'ar Sabin	1919-9-16	Euzko Deya	83. alean
Otoitza Zarautz'ar Sabin	1919-11-16	Euzko Deya	87. alean
Igesi Zarautz'ar Sabin	1919-12-1	Euzko Deya	88. alean

1925

Mendi gallurra Txolarre	1925-9-17	Argia	213
Gastiaren otoia Txolarre	1925-6-12	Argia	221
Igesi Txolarre	1925-7-9	Argia	225

1926

Udazken Lizardi'tar Xabier	1926-11-3	Euzkadi
Xabiertxoren eriotza Lizardi'tar Xabier	1926-12-26	Argia

1927

Zeru-azpia Lizardi'tar Xabier	1927-12-12	Euzkadi
Ar uts Lizardi'tar Xabier	1927-10-20	Euzkadi

1929

Neskatx urdin jantzia Lizardi'tar Xabier	1929-III	Euskal Esnalea 303
Aldakeri Lizardi'tar Xabier	1929-VI/VII	Euskal Esnalea 306-307
Bultziko leiotik Lizardi'tar Xabier	1929-XII	Euskal Esnalea 312

1930

Agur

Lizardi'tar Xabier	1930	Eusko Olerkiak 1930	
Parisko Txolarre	1930	Eusko Olerkiak 1930	
Lizardi'tar Xabier			
Otartxo utsa	1930	Eusko Olerkiak 1930	
Lizardi'tar Xabier			
Biotzean min det!	1930-VII	Euskal Esnalea 319	
Lizardi'tar Xabier			

1931

Baso-Itzal	1931-9-29	Euzkadi	
Lizardi'tar Xabier			
Eusko-Bidaztiarena	1931-11-24	Euzkadi	
Lizardi'tar Xabier			
Asaba zaarren baratza	1931-12-6	Euzkadi	
Lizardi'tar Xabier			

1932

BIOTZ-BEGIETAN	1932-6-1	Verdes Atxirika	
Lizardi'tar Xabier			
Zuaitz Etzana (1930)	»	»	
Izotz Ondoko Iguzki (1931)	»	»	
Gure Mintzo (1931)	»	»	
Ke urdiña	Irratiz emana	1932-12-14	El Día
Lizardi'tar Xabier			
Biotz-Begietan	1932-6-1	Verdes, Bilbo.	
Ondar gorri	1932	Eusko Olerkiak 1931	

1933

Gazteren esnatzea	1933-I/II	Yakintza 1	
Agirre'tar Joseba Mirena			
1932ean dataturik.			
Argi Egidazu	1933-III/IV	Yakintza 2	
Lizardi'tar Xabier			
Egamin	1933-V/VI	Yakintza 3	
Etxeko keea	1933-V/VI	Yakintza 3	

1934

Umezurtz Olerkiak	1934	Euskaltzaleak	

Lizardi'tar Xabier
1933an argitaratuez gain beste 9 poema argitaratu ziren bilduma honetan:
Arrats Gorri
Ama Gau Beltxaran
Liorko
Amona
Muno-Txiki
Gora-Dei

Onki'ren billa
Ondaurtz-abestia
Maitale berriak

1935

Etxeko sagastia — Yakintza

1970

Euskal Pizkundea — in Biotz Begietan — Itxaropena
Lizardi'tar Xabier

ALDAKERI

BERTSIO ALDERAKETA ETA OHARRAK

Hiru bertsio ezagutzen dira: Lehenengoa prosazkoa *Euzko Deya* aldizkarian 1917-3-16koa, 26. alean argitaratua.

Bigarrena *Euskal Esnalean* 1929an, 306-307, VI/VII-1929, 105-109 or., eta hirugarrena *Biotz Begietan* liburuan jasoa dagoena. Azken bi hauek bertso moldean emanik.

Prozedura gisa, hiru bertsioen alderaketa egiteko lehen bertsioa hartu oinarritzat eta beste biak dituzten aldeak adieraziko dira, *Biotz Begietan*go 1925ko bertsiotik 1929kora aldaketak alborik albo adieraziz.

Hiru bertsioak aipatzeko era:

1917ko *Euzko Deya*koa 1917ED
1929ko *Euskal Esnalea*koa 1929EE
1925ean dataturiko *Biotz Begietan*goa 1925BB

(1917ED) *(Gipuzkeraz)*

Edestitxo au aspaldikoa dan ala ez ezin esango dizutet, ezta nork ikasi beartu zidan, atsegin ez naizelako esatiaz; bañan, ori berbera ezpa-da ere, orren antzeko asko beintzat egunero gerta oi-dirala, bai, noski.

(1925BB) *Maitezko ipui minkatza*

(1929EE) ----------

Ipuinean egiten den aipamen honen bidez lehenengo epeko olerkietako gai nagusiaren esparruan aipatu beharreko narrazioa dela oharterazten digu: erantzunik gabeko maitasunaren gaiaren barruan.

Bestalde, ordea, gertakari biografikoa ote den ere adierazten du norbaitek ikasi arazi ziola iradokitzen duelarik.

Bertsioen alderaketa eginez, berriz, *Biotz Begietan*go bertsioan egiten duen laburpenak olerkiaren jatorri narratiboa eta gaia era lakonikoan aipatzen ditu.

(1917ED)

"Bai omen zan bein, urrezko gereta edo kayola polit-polit batian bizi zan txori arre zatar-samartxo bat, arritzekua bada ere, gustiz zoriontsuba bizi zana. Ez deritzat, bada, egiya danik, beti giltzapekuak beren menpekotasuna gorroto-dutela. Asko maite bai-zuen beria gure txoritxo onek".

1929EE *1925BB*

Leioa. Kaiola, bertan.
Urrezko ariz *lotuta pozik txoria:*
ez, margo, ez eztarria:
ederrik gaxoa, nekez, ezertan...

Ipuiei dagokien hasiera topikoa "Bai omen zan bein" delakoa kendua dago. Poesiak impresioka azaltzen du eszenarioa "Leioa" eta bertan dagoen kaiola. Olerkian ez du zuzenean esaten urrezko kaiola denik, baina zeharka, hurrengo bertsoan, txoria "urrezko ariz lotuta" dagoela esaten du. Kaiolaren barrak "ari" bilakatu dira, txoria lotzen bait dute eta lotura hori urrezkoa, aberats eta ederra, disdiratsua dela azpimarkatzen du. Olerkian lotura dela urrezkoa eta ez gereta edo kaiola, horrek jabeen urrezkoa azpimarratuko bait luke eta ez txoriak askatasuna nahi ez izateko duen loturaren kalitatea.

"Lotuta, pozik, txoria" hiru hitzak, berez krontaesanean egon beharko luketenak, paradoxan ipini ditu bertsoaren alde batean, adierazi nahiz txoriaren poza lotuta egon arren, ipuiak zehatz-mehatz azaltzen du bertsoaren laburtasunak paradoxa horren bitartez adierazi nahi duena: "Ez deritzat bada, egiya danik, beti giltzapekuak beren menpekotasuna gorroto dutela. Asko maite bai-zuen beria gure txoritxo onek". Ipuinean aurrerago, neskarekiko harremanen berri emanda gero, azaltzen edo deskribatzen du txoria: "Orrela itsus-samarra izan-arren, eta margo politik beste txori askoek lez ezpa-zuen ere, eta abesti samurretako ezpa-zan erebere eztarritxua...dana dala, bera pozik zegoen beti, ta ludiko txoriyetan auxe, iñolaz zoriontsuena bizi zan". Itsusitasuna "ederrik gaxoa(k) nekez ezertan" adierazpideaz jasoa dagoa lehen ahapaldi honetan, gertatuko denaren arrazoietako bat iragarriz; ez du ez margorik, ez eztarri ederrik. Aurrerago, eta ipuinak daraman narrazio-hurrenkerari jarraituz, olerkiak ere pare horretan badago, itsusitasunari buruzko aipamen berri bat: beste txolarreak kaiolakoaren "yasoa" eta bestaldetiko itsusitasuna aipatzen bait du.

Txoriaren zatartasunaren aipamena zeharkakoa, bigunagoa bilakatzen da, ez da zuzenean zatar denik esaten ipuinean bezala, baizik eta ez duela margorik, ez eztarririk, nekez dela ederra ezertan...

(1917ED)

"*Leyo aundi batian egon oi-zan gereta zintzilika, lore usaitsuetaz inguratu eta apaindutako leyo eder batian. Eta andik agertzen zan azkatasuna, beste edozein kayolapetutako txoririk gogo-miñez erailko ba-zan, noski... Ibar zabalak errekatxo argitsuetaz ziarkatubak , saroi gereitsu bikañak, lore-zelai gustiz alayak, eta an, azkenian, urruti amesgarriartan, mendi luze batzuek, margo urdiñantzeko garbi batez estaliyak. Urtzian eguzki sutuba, ta aizian, oro beterik, uda-sortitzaren asnasa gozo-gozoa...*
Danori agertzen zan leyo artatik, eta alaz ere, pozgarriagotzat zuen gure txoriyak bere kayola itxiya".

(1929EE) *(1925BB)*

Itzalgarri matsondoa.
Ikusgai, berriz ibai,mendi, baso, zelai,
udaaren *ta udaren urrea non-nai (...)*
askazaletu *Bazun zerk aska-zaletu gogoa!*

Ipuinaren lehen zatian ahalegin guztian lehio inguruaren edertasuna, eta lehio hartatik ikusten diren elementu egonkorrek eta biziek, ibar zabalak, errekatxoak, saroi gereitsuak, lore-zelaiak, mendi luze batzuk... Elementu horiek eta gero egingo duen hegaztien aipamenak haiengana askatasunez joateko irrikiaren eragile izan beharko lukete.

Eguzkiaren dirdai beroak eta haizeak ere eragin bera izan beharko lukete, "Beste edozein kayolapetutako txoririk gogo-miñez erailtzeko ba-zan andik agertzen zen edertasuna". Olerkian aldiz, askatasun egarriaren sortzaile izan beharko luketen osagarri horiek, izen huts bilakaturik daude: ez da zehazten non dauden, ipuian bezala, gertutasun eta urruntasun planoan, ordenaz aldaturik daude gainera, adibidez, ipuinaren agerpen hurrenkera hauxe zen: ibar zabala, errekatxo argitsubak, saroi gereitsubak, lore-zelai guztiz alaiak, mendi luze margo urdiñantzeko batez estaliyak. Osagarri horiek: ibai, mendi, baso, zelai olerkiaren hurrenkeran agertzen dira efekto erritmikoarengatik agertzen dira.

Osagarri berri bat ere erantsi du olerkian, ipuinean aipatzen ez duen matsondoa du itzalgarri leioak. Mahats hostoek erortzean udazkenaren etorrera adieraziko dute, udazkenaren metaforetako bat da, enarak joatea *Biotzean min dut*en bezala, eta olerki honetan ere enarak dira urte-garaiaren adierazlerik nagusienetakoak. Olerkiaren lehen zati honetan udaberriaren indarra nabari da.

Bigarren ahapaldiaren hirugarren bertsoan dago Lizardiren olerkigintzaren leit-motiv konstanteenetako bat: eguzkiaren argitasuna. Bi modu ezberdinez aipatzen du eta horretan bilakaera antzematen da, *Aldaker*iren bigarren bertsioan eguzkiarekiko lotura estuan dagoen hitzaz ordezkatua dago jadanik. Hemendik aurrera konstante bat izango da Lizardiren olerkigintzan.

"Urtzian eguzki sutuba" deskripzio zuzena da, eguzki hitza bera aipatzen da eta sutuba dagoela esaten da, olerkian aldiz, haren aipamena "udaren urrea" metaforaz aipatua dago. Giro eta ingurumari horren kaiolako txoriari egin beharko liokeen eraginaz aipatzen du azkenik, hori bait da elementu-zerrenda hori aipatzearen funtzioa, alea txoriaren poztasunaren harrigarrikeria hareagotzea, 1925ko olerkietatik aurrera ohizkoa den bezala, konklusioak esklamazio baten bitartez azaltzen ditu:

"bazun zerk aska-zaletu gaxoa!"

Lehenagoko 'lotuta, pozik, txoria:" delako paradoxa hura osatzera eta areagotzera baletor bezala exklamazio bakar honetan biltzen du, edozeinen ustetan lotuta dagoen txori batek guzti hori ikusita senti lezakeen askatu-nahia. Baina oraindik ez du arrazoia azalduko, gorde egingo du oraindik, inguruan darabilzkion txoriekiko inbidiaz suspensea areagotzeko. Bi bertsioek ipuinekoak eta olerkikoak ez dute alderik horretan, berdinak dira narratiboki honaino, nahiz eta ikusi dugunez, olerkia askoz ere sintetikoagoa den eta izen selekzio taxuzkoa egina duen esanahiari eusteko eta narrazioaren giarrari eusteko.

Alferriko deritzen esaldi osoak, adjetiboak, aditzak ezabatu ditu narraziotik olerkira. bestalde lehen zati honetan gerora bi aldiz aipatuko den mahotsondoaren hostoaren ugaritasuna aipatzen du lehen apunte gisa, udaren adierazgarri gisa, gero aldiz hostoa galtzean udazkena eta azkenik, txoriaren beraren azken mogimendu zorabiatuak ere haizeak darabilen hosto horrekin asimilatuko dira. Beraz, Lizardiren "eraiketa" poetikoan teknika bilakatuko denaren lehen zantzua ikus daiteke hemen, poemaren zati klabeetan kokaturiko hitzak dira bilakera azpimarratzearen funtzioa izango dutenak, eta kasu honetan bezala, naturaren bilakera naturalarekin identifikatuko du naturaren jokabideekin bat etorri ez den txoriaren zortea.

(1917ED)

Askotan txolarre bizkor berritsuak leyoraño elduten ziran, geretan zegoen janariya eraso-asmuan; einar abeslari lirañak, berriz, aren aurretik oso poliki agur polit bat eginaz, egaka jolasten ziran,, leyoaren goi-aldeko baztertxo batian zeukaten kabiyari begiratu ta zainduaz. Baita ere illunabar-aldian laister-laisterka ibilli oi-diran sorbeltz-talde oyulariak, euren ego beltz luzietaz leyo-ormak ukutzeko-zorian... Etzan baña, gure txoritxua, danau ikusita ere, bere lagun zoridun ayenganatz beñere naikeri izaten.

(1929EE) *(1925BB)*

maitiar	*Maaitiar zitun txolarre*
	biurriak, maiz; iñarak aiskide, berriz;
irra-ka	*ta irraka yoan-etorriz,*
	illuntzeak ditun sorbeltzak.

Narrazioak jasotzen dituen hiru hegazti motak udarari dagozkion hegazti alaiak dira: txolarreak, enarak eta sorbeltzak, azken biak antzerakoak. Ipuinak zehaztasun handiz azaltzen du zergatik dituen inguruan: txolarreak bere askatxotik jan nahi dutelako: "maatiar zitun txolarre/ biurriak maiz;". Erabiltzen duen adjetiboek tonu ironikoa azaltzen dute "askotan txolarre bizkor berritsuak leyoraño elduten ziran, geretan zegoen janariya eraso-asmuan' ipuiak kontatu egiten du gertatzen zena.

Olerkiak ere gertakizunaren berri ematen du baina ikuspuntua ez da narratiboa adjetibo horrek kalifikatu egiten bait du kontaturikoa eta ironikoki azaltzen azken batez txoriaren borondatezko mahaikide ez zirenak; enarak aldiz, txolarre burlosoak ez bezala, adiskide zitzaizkion, ez du azaltzen zergatik deritzon hala, aurrerago elkarrizketan esango dioteenak argitzen du. Hirugarrenak sorbeltzak dira , ipuiak azaltzen duenez beren hegadaren azkartasunagatik eta ohiu ozenarengatik ezagutzen dira iluntzeetan. Hauen kasuan ere, mogimendu horien deskripzioa murriztua dago enaren kasuan bezala, eta gainera txolarren kasuan bezala, ikuspuntua aldatua da: ez dira sorbeltzak berak dabiltzanak "illuntzeak ditu"-ela esaten du olerkian, eta beraien hegada laisterren unea soilik dena beraien jabe egiten da, haren propietate eta ezaugarri bilatzen dira: illuntzeak ditun sorbeltzak.

Haien nolakotasuna ere soildua dago, ipuian "laister- laisterka ibili oi-diran sorbeltz-talde oyulariak, euren ego beltz luzietaz leyo-ormak ukutzeko zorian...", oraingoan aldiz fokoa aldatua izateaz gain "irraka yoan-etorriz" bakarrik azaltzen dira. Honetan "irraka" hitzak "korri- korrika" sinonimoa den irra-irra, hau da, laisterka ibiltzearen onomatopeia hartu du, aldi berean hitz joko bat eratzen duelarik, izan ere, Donostialdeko euskaraz sorbeltzei "irra-irra" esaten bait zaie, Azkueren hiztegiak jasoa duenez.

(1929EE)	*(1925BB)*
	Txolarreak diotsana:
gaixoa	*"Oi, ene lagun gaxoa! Lotu-gaberik,*
	"eure mai gizen bera nik!...
dedan	*"Oi zein maite dudan askatasuna!..."*
	Iñarak: "Ene laguna,
ezpaitek	*"errukarri aiz; ezpaituk iñon kabirik*
laztanek	*"ume laztanez beterik!"...*
dedan	*Oi, zein maite dudan askatasuna!.."*
eztek	*Sorbeltzak: "Ez duk biguna*
	ire zoria; begitu nazak, emen-or,
	laister bai zabalak mozkor!...
dedan	*"Oi zein maite dudan askatasuna!..."*
	Txoriak: "Ez zuen ele
	maitekorrak, ez emendiko ikuskizunok...
	iñork ez ezerk, lagunok,
	ezin naute eginen askatu-zale".

Laugarren, boskarren, seigarren eta zazpigarren ahapaldi hauek ez dute ipuiaren barruan garapenik. Olerkiaren eraikuntzetan 1925.ko beste zenbait poemek ere *Aldakeri* poema honek hartu duen elkarrizketa egitura beraz baliatzen dira, esate baterako, *Xabiertxoren eriotza* eta *Asaba zaarren baratza* delakoak. Han ere elkarrrizketak barietatea eta kontrasteak egiteko ahalbidea eskeintzen ditu, beraz, narrazioari bizitasuna eta aktualitatea emateko modua.

Narrazioan, eta aurreko ahapaldian agertu diren hurrenkera eta jarrera-modu berarekin agertzen dira: txolarrea bizkorra eta bihurria erdi-burlaka mintzatzen zaio, lotu-gaberik dagoelarik haren mahai beretik jan dezakeelako. Enarek, aldiz, errukarri irizten diote kabirik egin ezin duelako, ume laztanez beterik". Narrazioan aipatzen du etxearen sabaian kabia egina dutela enarek, eta hura zainduaz eta begiratuaz egoten direla inguruetan. Aurrerago aldiz, eta Udazkena etortzean aldegin behar dutenean ere, enarak bere kabiarekiko eta umeekiko harremanean aipatzen ditu: "Ai zeinen luze zuen urreneko/ maitaldiaren beroa!...Ai zuen kabi goxoa / berriz beterik daneko!...

Ipuian aldiz, lotura hori ez dago hain azpimarraturik, eta umeen eta maitasunaren aipamena ez dira olerkian bezain esplizitoak. Maitasuna ipuinean neskari eta txolarre gaisoari dagokion maitasun historia minkatzera mugatzen da 1917.ko bertsioan, 1925.koan aldiz, haurrak eta familiaren berotasunezko maitasuna azpimarkatzen dira. Lizardiren ikuspuntua aldaturik dago.

Hirurek "Oi,zein maite dudan askatasuna" diote goraki. Hiru egaztiek protagonista den txolarreari bere lotura, bakardadea eta egon-beharra oharterazten diote. Hiruen esklamazio horrek lelo baten efekto erritmikoa du eta olerkia eraiki ahala narrazioaren aritik askatuz autonomia hartzen hasten da poesia.

Sarrera zati honetako zazpigarren ahapaldiak txoriaren erantzuna jasotzen du, txorien esanek zekarten erritmoa, leloa hausten du, motelagoa da, ziurra, tinkoa eta zatiaren ondorioa borobiltzen du: txolarreak ez du askatasuna nahi.

(1917 ED)

"Ez da, noski, ulergaitz egiya ori, jabetzat neskatxo agitz polit eta zoragarri bat zuela dakiñarentzat. Urre utsazkoa zirudien ille-zuena; begi aundi beltzak, argizai bera ere baño legunagoa musua, ta gorputz osoa, azkenik, txit lirain eta doatsua.

Goizero joan oi-zan gotzontxo ori txoriyarengana, ta parre-zalapartazka arenganaturik, geretatartetan bere biatzzuri-gorri ariñak sartu ta eskeintzen zizkiyon, txoriyak mokokatu zizazkiyon".

(1929EE)	*(125BB)*
leiora	*Leyora bat-batean, nor?* *Eder-ametsik eziñena, aragituta!* *Neskatxak: "Ega", dio, ta* *kaiola zabalduz: "maiteñoa, ator"...*
	Aren begikun gozoa! *Burni-tartetik giltzape beltzean sartzen,* *askatasun-egunaren*
eztan	*urratzea ez dan bezalakoa...*

Poetak orain artekoan lehen ahapaldian oinarrituriko paradoxa hura "lotuta, pozik, txoria" garatzen du. Paradoxa horren handitasuna zertzeladen bitartez, askatasunaren ederra eta txoriaren kaiolarekiko atxikitasuna hasieratik bukaeraino azpimarkatu duen kontraesan da.

Sarrera narratibo logiko batez egiten du paradoxa horren azalpena ipuiena: "Ez da noski, ulergaitz egiya hori, jabetzat neskatxo agitz polit eta zoragarri..."

Olerkian ordea, olerkiaren lehen zatiaren tonoa paradoxa horren argibide emateko, sorpresa adierazten duen galdera erretoriko baten bidez egiten du. "Leiora bat-batean nor?" Bat-batekoak ustegabea eta aldaera iragartzen eta gero neskatxa dela esan baino lehen, haren izaera paregabearen eta paradoxaren argibidea bera dela iragartzen duen hiperbolea erabiltzen du: "eder-ametsik ezinena

aragituta". Ipuinean edertasun hori frogatu eta deskribatu egiten du. Konkretoki halako hile horia eta begi beltzak eta azala, berriz, argizaria bezain zuria,.. ditu. Poesian ezaugarri konkretu horiek desegin egiten dira eta nolabait abstrakto bilakatu "eder-amets" bat da, haragituta.

Olerkian neskatxa ez da deskribatzen, ez eta ipuian azaltzen diren neskatxa horren beste zenbait ekintza ere. Baina olerkian garrantzia hartzen du ipuinean bigarren mailako den zerbaitek: neskatxaren begirada gozoa giltzape beltzean dagoenarentzat "askatasun-egunaren urratzea ez den bezalakoa da". Aipamen politiko bat da zalantza gaberik, eta Euskal Aberriaren askatasunaz ari da abertzale konprometitua zen Lizardiren konparazio hau egitean eta lehen epeko olerkien taxuera bera du, honi dagokionez.

Jostatzean txoria buru gainean jartzea... etabar izkutatu dira bertsozko bertsioetan. Neskatxaren jostaketa deitzea eta atzitu nahi izatea da, jolas horien alaitasuna eta poz sentimendua olerkian hobeki azaldurik daude, berriz ere elkarrizketa bidez esklamazioek enfokatu egiten dute bi jostalagunen espresibitatea: neskatxa ipuian pertsona oso bezala aipatzen da, olerkian, begikun bat da, ao gorri bat da, txoriaren tamainutik ikusita izango lukeen dimentsio ezberdintasuna isladatu nahiz bezala.

(1917ED)

"Gero kayola-atia irikiyaz (janari aldatzeko aitzakiz) igesten zan egaka poz-pozik txoriya, ta neskaren buru-gañiangelldituaz lendabizi, gero ostera ark zabaltzen ziyon eskuan,bere maitetxiak egin oiziyon mun gozoa, oso atsegin artu tabiurtzen ziyon.

(1929EE)

bainagok

(1925BB)

Txoriaren poz-ikara!...
Ur-ontzitxoan murgildu ta astinduz-gero,
matetasunarren ero,
badoa dei-dion ao gorrira.

"Ega adi, maiteñoa, arin,
neri biraka; eskuaz bainegok erne...
Laisterrago! Orrelaxe! Ene!
Ukaldia yaurti, ta atzitu ezin!"

Gaiztoa Geldirik! Ator!...
Nerea aiz, noizbait! Laztan bat, orain bestea;
yan nai aut, ene maitea!...
Orra, gaurkoz, neri berreun musu zor..."

Hegazti askeek txolarreari egiten dioten elkarrizketa bezalaxe, neskatxak esaten dizkion hitzak ere olerkiaren zati bilakatu dira, afektuaren, maitetasunaren adierazle dira erabiltzen dituen hitzak, atzizki txikigarriak, palatalizazio afektiboak, etabar. Kontalari den poetak neskatxari hitzegiten utzi eta akzioa haren hitzen bidez azaltzen du. Ipuian narradoreak esaten du txorian neskatxaren inguran hegaldatzen dela eta azkenean haren eskura joaten dela, olerkian aldiz, neskatxak esaten du musu bat eman diola eta eskuan hartu duela. Ondorioz, olerkian errepresentazio zuzenagoa, narraziotik antzerki gisako adierazbidera jo duela esan daiteke.

(1917ED)

"Orrela, itsus-samarra izan-arren, eta margo politik, beste txori askoek lez ezpa-zuen ere, eta abesti samurretako ezpa-zan bere eztarritxua...dana dala, bera pozik zegoen beti, taludiko txoriyetan auxe, iñolaz zoriontsuena bizi zan.

(1929EE)	*(1929BB)*
	Leio-gaiñeko iñarari
	ona zein oar zioskan, ezin obeak,
	txolarre lotsagabeak,
	biurki eragiñik begiari:
Ikusi al-den	*"Ikus dun ori, laguna!*
orreatik	*Ez din, orratik, orretxek yaso makala,*
edergaiz	*ederrez ain motza dala..."*
Sosoak	*(Zozoak beleari... dakiguna).*[24]

Ipuiak une horretan afektuaren eta egiten dioten aprezioaren arteko desoreka azpimarratzen du ipuian lehen zatiaren amaiera bezala. Beraz, askatasuna eta kaiolaturiko txoriaren pozaren paradoxa agertzen duen arrazoiak beste paradoxa bati irekitzen dio atea: itsusia den arren,"ez du yaso makala", ez dute gutxi estimatzen. Olerkian ideia bera azpimarratzen da, baina ez du zuzenean narradore orojakile horrek azaltzen, ikusten dauden beste pertsonaietako batzuk, txolarre bihurriek eta enarek. Protagonista diren berak mintzo dira eta ipuiko narradoreak zeharka esan beharra ekiditen du.

Bigarren zati honetan bertso barruko etena, lehen bertsoan bakarrik ematen da, bosgarren silabaren ondoren. Lehen zatian aldiz, bigarrenean izan da.

II

(1917ED)

Igaro zan udea bein-edo bein. Leyoko loriak ari ziren igartzen. Einaren eresiya pizkanaka osoro ixiltzeko antzian zebillen, baita txolarrien zalapartak ere zetorren gabetasunak atsekabe-samarturik zerabilzkien, ba. Sorbeltzakere beste erri bero urrutietarontz abiatuak edo-ziran... Bein, aiziak zeramazkien osto illak leyoa oritu zuten, eta zugatzak iya adar-utsik ageri ziran.

(1929EE)	*(1925BB)*
	Uda yoan da. Marduldu zaizka mordoak
Beñola	*beiñola matsondoari.*
	–egari mozkorra– yo du kaiola
	gazteenik ildako ostoak.
	Agur iñarok... Ai, zuen kabi goxoa
	berriz beterik daneko!...

24 *Biotz-Begietan* liburuaren 1932ko bertsioan Lizardik Orixeren itzulpeneei azpioharretan erantsirikoan honela dio azken bertso-lerro honen argigarri:
"La reticencia refiérese al refrán vasco "Zozoak beleari ipurbetz" Eguivalentea a "Dijo la sartén a la caldera: "Quita allá culinegra" (31. or.).

Ai, zeiñen luze zuen urreneko
mailtaldiaren beroa!...

Narrazioaren eta olerkiaren zati honek iragartzen dute ongienik Lizardiren poetikan gertatu den aldaketa nagusienetako bat: estazioaren aldaketa diren eta naturan gertatzen ari diren aldaketen berri ematen azalpen edo ohar askoz egiten du narrazioan: loriak igartzen ari ziren, osto hilek lehioa horitu zuten, zuhaitzak adar-huts gertatzen ari dira, hegaztiak aldiz, aurreko zatian protagonista izan diren hiru moetak aldegiten dutela azaltzen du zergatik eta nora doazen.

Olerkian hautapen lana egina du. Iragarpen soila: Uda yoan da. Eta ondoren, ipuian aipatzen dituen guztietatik olerkiaren lehen zatian berrirotik sarrerazi duen mahatsondoaren bitartez adierazia dago aldaketa: Lizardik konkretatu egiten ditu naturaren aldaketaren zikloaren eragina eta guztira jo gabe lehendik ezagunera jotzen du azaltzeko: mordoak marduldu zaizkio, eta "beiñola gazteenik hildako ostoak jotzen du kaiola".

Txoriari dagokion espazioan sartzen da dekadentziaren iragarpen den hosto hori: ez da aurrenik hila bakarrik, hostoa ez aurrenik erori dena bakarrik, gazteenik pertsonen arteean lagun edo anai-arreben artean erabiltzen den esamoldea aukeratu du, heriotzaren aipamena egiten duelarik. Honen bitartez, bizipidearen mundua, Lizardiren bizitzaren esperientzia sakondu egin dela sumatzen da: heriotzaren lehen aipamenetako bat da, naturaren zikloan hosto erortzeak duen gustu melankoliko eta dekadentea sumatzen da lehen aldiz, *Urte Giroak ene Begietan* eta *Biotzean min dut*en ere bilatuko ditugu honelakoak. Aipamen berezia merezi du hostoa erortzean, intziso gisa, -EGARI MOZKORRA- metafora erabili izana, ez dago ipuian iragarrita, berria da eta olerkian bilatu nahi duen irudien oihartzun efektuaren zerbitzuan sarrerazia dago, gero ikusiko dugunez, txoriaren azken hegada zorabiatua, hots, honenarekin konparatzen bait du, ene ustez olerkiaren irudi nagusia, bi irudiak elkarren gainean jartzen dira.

(1917ED)

"*Beste egun batian, elurrak landa-mendi gustiyak osoro zuritu zituen.*

(1929EE)	*(1925BB)*
xuriz	*Egunak iges, ta goiz bat, zuriz yantzia,*
	dar-dar yaio zan... Negua.
	Zertan ago, gogo miñak puztua,
illun	*zer dala-ta itun, txoria?...*

Udazkenetik negura bitarteko egunak pasa direla adierazteko, eta egunen iragankortasun hori azpimarratzea axola zaio olerkian, ipuian beste egun batian gertatzen dena azaltzen du, olerkian aldiz, egunak ihesi doaz, azkar eta olerkariak nahi ez duelarik Neguaren etorrera aldiz, ipuian elurrak seinalatzen du, negua aipatzeke, elurrak inguruak zuritu dituela besterik ez du esaten.

Urte Giroak ene begietan eta *Biotzean min dut* ,hala nola, *Euskal Pizkundea*n eta *Neskatx Urdin-Yantzia*n ezagunak diren naturaren elementuen pertsonifikazioak aurki daitezke 1925 eta 1929ko bertsioetan. *Aldaker*iren bertsio honetan dagoeneko haren zantzuak sumatzen dira: Negua hizki larriz hasten du izen propioa balitz bezala, eta hurrengo erabileratan mugagabean agertuko badira ere, hemen oraindik, edo errimak beharturik, mugatuan ageri da. Pertsonifikazio honek geroago ere izango dituen ezaugarri berak ditu: zuriz jantzia egotearena eta elurraren hotzak eraginiko dardara duelarik.

Hurrena aldiz, ipuian aipatzen duen iragarpena dago olerkian, txoriak gogo-miñak puztua eta itun dagoela esaten digu, olerkariak ez dakielarik zergatik, ondoren datorrena eta negu hotz horrek iragartzen duena txoriak senez sumatu balu bezala eta olerkariak ez. Hala ere beti bezala, eta

iragarpen triste horren kontra egiten duen neskatxaren etorrera, beti bezain pozgarria da eta esklamazio batez aipatua dago, txoria ernetu nahiez bezala.

(1917ED)

*"Goiz artan ere, **oi-zuenez, etorri zan, urre-ille zuen neskatxoa. Etzerabilkien ordia, parrerik ezpañetan, etzan txoriyarekin bere biatz bizkorretaz, bestetan bezala, jolastu...Nik jakin detanez, etziyon begiratu ere egin!...Oso kopeta-illunez ordia, leyora zuzen-zuzenian juan eta zabalik utzi zuen. Orduan aize-ats izoztu izugarri bat sartu zan gelara.***

(1929EE) *(1925 BB)*

Oar, baña, non datorren ire maitea!
Ene!...zerk, ordea, zimur(-)
eragin ezpañei? ...Ene?...nork lapur
begien irriparrea?...

kaiolok *Leio-kaiolak zabaldu ditu, bat-bana...*
Sartu du Neguak sudur
ospeldu *ozpeldu-zorrotza. Txoria, beldur,*
ega da maiteagana...

Ondoren gertatuko dena txorientzat lazgarriena eta ulergaitzena da, poetak ere txoriaren ezjakintasun eta inuzentzia jarrera bera onartzen du;exklamazio eta galderen bitartez azaltzen du gertatzen ari dena, txoriak egingo lituzkeen esklamazio eta galderak balira bezala.

Olerkian eraikuntza edo egituratzeari eginiko beste kontzesio bat suma genezake hemen: neskatxaren presentzia lehenago ere aho gorriak eta begikun gozoak osatzen zuten, orain ere ezpainak zimur dira, eta begirada aldiz irrifarrerik gabekoa da. ipuian kopeta iluna, ile horia, parra ezpainetan... aipatzen dira olerkian hautapen prozesu hori eman da eta beharrezkoenak iruditu zaizkionak bakarrik, adierazgarrienak bakarrik aipatzeaz gain, sinestesiak gertatu dira bi elementu horien artean, bestalde berriz, eta lehioa irekitzean, sartu den haize hotza: "aize-ats izoztu izugarri bat sartu zan gelara" esan ordez, olerkian eta lehenago sortu duen pertsonifikazioaz baliatuz "sartu du Neguak sudur ozpeldu-zorrotza" esaten du.

Elurra egin duen goiz horretan jaio den Negua hotzak bait dago eta hori gertatzen denean sudurrak ozpeldu egiten dira. Lizardik pertsonifikazio hau egitean Neguak hotza jasan eta pairatu egiten duen pertsonaitzat aipatzen du, eta ez eragile gisa. Beraz, txoriari eragiten dio beldurraz ere ez da gaiztakeriazko erantzule, nahigabezkoa baizik. Gero ere ez da izango txoriaren zorigaiztoaren eragile nagusitzat azalduko.

(1917 ED)

*"Berealaxe txoriari atea **iriki ziyon...Jalgi zan ikara-antzian gixaxua, bere jabiaren illun-aldiya igerri bai-zuen, eta areganontz egatu zanian, eskukada zakar batez izutu ta leyotik alde-egotzi zuen neskak, beriala itxiyaz...***

(1929 EE) *(1925 BB)*

Ai,aren esku laztankor igaz izana.
Lore-orria arantz biur!...

lengoa edur auana *Leengoa ditekek, zakarki elur-pera egotzi auena?*

Ipuinean eta olerkian gertatzen direnak ez dira xehetasun txikienean ere aldatzen: txoria lehiotik ateratzen da, baina berriro sartzen ahalegintzen denean neskatxak kanpoan geldiarazten dio eskuei eraginez: "eskukada zakar batez izutu ta leyotik alde-egotzi zuen neskak".

Olerkian aldiz, esku horri buruzko erreflexio poetiko gehiago erantsi du, esku hori bera da lehen laztankor zena.

"igaz" denbora aipamenak ez du ohizko "joan den urtea"ren esanahia, Azkueren hiztegiak, Lopez Mendizabalenak bezalaxe bestalde, igaz-i "aintzina"ren esanahia ere ematen diote,"

Metafora baten bitartez azaltzen du eskuaren jokabidean gertatu den aldaketa: lore-orria, petaloa arantza bihurtu da. Ez dago horren aipamenik ipuian eta olerkiaren hornigarri gisa erantsia dago.

(1917ED)

*¡Aren **etsipena!** Asi zan oyuka,... ¡Alperrik! **Bere eskergabeko maitiaren arpegiya leyotik barrurontz itzaldu zan,** ta aize izoztu zorrotzak txoritxuaren gorputz biguna josi zuen...*

(1925BB)

Negargarria! Leio-ostean itzalia
bizitz-bizitza uan garra!...
Ire eguzkiaren illunabarra!...
Betiko il argi guztia!...

Txoriaren etsipena adierazten da olerkian ipuinean baino areago; sentimenduen adierazpena exklamazioen bidez egina dago, eta bestalde, neskatxari buruzko hiru metaforek argiarekin identifikatzen duten hiru metafora erabiltzen ditu: garra, eguzkia, argia dira harekin identifikatzen diren hitzak, txoriarekin aldiz, lehenengoan iraganaren erabilera, bigarrenean illunabarra eta hirugarrenean "hil betiko" hitzek markatzen dute.

(1917 ED)

"Oñazez erotzeko zoriyan, baldar-baldarki, zortitz illaren gañez zebillen egaka: dana elur-estalki eder-izugarri arek estalita zeukan, eta etzuen zorigaiztokuak adartxo legor batere arkitzen nozgetzeko, ezta bere gosia asetuko zuen azitxobat ere... Bizi-biziro oroitzen zan une mingarri artan bere kayolatxuan jaki gozoz betia egoten jantokiyaz ta bere neskatxo mattiaren mate-egin mattagarriyetaz... Eta negarra zerauntsan zorigabetuak...".

(1929EE) *(1925BB)*

Ega bai ega! oro zegok otz bai bakar;
oro, bai, ene! zuria!...
Non yana, ta aterperik non, txoria,
billa arren adarrik-adar?...

Gose-nekeak auldurik, elur-gaiñean
etzin da; ta arin, geldiak
deituta, gogapen negargarriak

egotzi zaizka taldean.

Ipuian atal berri baten hasierari dagokiona, olerkian bi "zubi" gisa eratua da: bi ahapaldi hauek jasotzen dute, mamiz, ipuinaren zati hau, baina lehenak olerkiaren II partearen lehen atala amaitzen du eta bigarrenak bigarrenari hasiera ematen. Beraz, dramatismo bereziaz ematen dio amaiera II. partearen lehen atal honi, hiru ahapaldi osatu ditu esklamazio eta itaun erretorikoez.

Berriro ere olerkian ipuineko esaldi luzeek adierazirikoa laburturik eta hitz konposatu aditibo baten bidez (gose+neke) eraso duten bi osagarriek auldurik, "elur gainean etzin da" dio olerkiak, ipuian lehenaldian kontaturikoa: zebillen, zeukan, etzuen, zuen, oroitzen zan, zerauntsan. Olerkian askoz aditz gutxiago daude, orainaldian daude, eta txoria lehen aditzetako sujeto aktiko eta eragile bazen ere, orain kanpotik datozkionek eraginda dabil:

gose-nekeak auldurik > etzin da geldiak deituta
gogapen negargarriak
egotzi zaizka taldean-> berari

Txoriaren inguruko elementuak, kasu honetan esango genuke behar fisiko eta izpiritual abstraktuak gorpuztu egiten direla, eta pasiboa den txoria hartzen dutela objetu gisa, geldiak, berez, "txoria geldirik egoteak" abstraktizatu egiten da, orokortu eta zentzu konkretu hartatik gertakizun orokor bilakatzen da. Lizardiren beste poema batean: Uda: "geldiak gizendu, egonak goza, nagiak noizpait jalkiaraz bitza..." (*Baso-Itzal* 20-22, 157).

Egotzi aditzaren semantikan dagoen biolentziaren objeto dela txoria, gogapen negargarri horiek ere eraso egiten dute, eta gose-nekeak berak baino erakosorrago dira, mingarriago. Aldea dago, ez da hautapen arbitrario bat sortu nahi den ezberdintasun nagusi baten lehen pausu baizik: txoria neguak baino gehiago lehengo biguntasunaz gogoratzeak, eta maitasun ukatuak hilko dute.

(1929EE)	*(1925BB)*
	Iñoiz ikusi dezute tximirritarik,
	iltzeko yausitakoan,
xomorroak/dagoan	*xomorroek yana nola dagoen*
	azkenak egin eziñik?

Konparaziorako ekarri duen eszena lazgarriaz Lizardik metafora egiten du: "gogapen negargarriak" xomorroak dira, xomorroek tximirritari bezala, txoriari bakean hiltzen uzten ez diotenak. Ahapaldi honek ez du parekorik ipuinean, eta 1925 urte inguruko gaiekin du zerikusia, lehen epeko olerkien tankerarekin baino.

Ahapaldi honetan, 1927.ko beste poema batean, garatuko duen gai baten ohiartzuna entzun daiteke: tximirritarena, heriotzaren gaia, ametsen heriotzarena tximirritaren kasuan hil nahia eta ezin hilaren arteko borrokaren adierazle dugu txoriaren eta tximirritaren irudien antzekotasuna.

Aipagarria da, txoriaren kasuan tximirritaren kasuan baino irudia gordinagoa dela, hurrengo ahapaldietan datorren higuintasunarekin kontraste egiteko izan liteke, ala bere horretan, 1926an era batera eta bestera lantzen ari den tximirritaren gai honen barruan tximirritaren olerkian isiltzea erabaki duen alderdi bat. Ikus *Ar Uts* izenekoa:

AR UTS

Tximirrita
Tximirrita arin polita...
Atzo egaka
zu ziñan eder

gorri-urdiñez yantzita!

Gaur lurrean
usteltzen zakustanean
Ar utsa zeran
berri ikas-
arazi didazunean...

tximirrita!
igaz arin -bai- polita,
ainbat amets zar
datozkit, ego
zoragarriak autsita!...

Zu bezala,
ene tximirrita ustela,
ar uts izan, oi!
ene ametsa...!
ar-satar-egamotela... (527-9-5)

Gogoratu behar da, bestalde, tximirritak, gero inguma, mitxeleta eta beste izen batzuez aipatuko dituenak, hainbat olerkietako gai direla Lizardiren poemagintzan, bai *Otartxo utsa, Urtaroak ene begietan Sagar lore* eta *Ondar Gorri*n. Bizitzaren efimerotasunaz ez ohartzearen sinbolorik konstanteena dira, Lizardiren poetikan.

(1929EE)	*(1925BB)*
goxoa	*Bero gozoa! Yantoki alez betea!* *Laztan eztiak goizean!* *Agur, agur!... Oi¡Eriotz-aurrean* *etsipenaren nekea!*
	Inoiz kabirik egin gabeko gaxoa! *Elurretan, or, txoria,*
sakonduta	*epelak ogetuta, ire kabia...* *leenen bai azkenengoa!...*

Bi ahapaldi hauek ez dute ipuinean parekorik. Lehenengoan, gainera egotzi zaizkion gogorapen negargarri horietako batzuk dira, ipuian ere jasoak daude. Tratamentua ordea, batez ere hirugarren eta laugarren bertsoetakoa, ezberdina da, guzti horiei agur eragiten dio poetak txoriari. Eta ondorio gisa, aurreko ahapaldiaren amaieraren beste bertsio bat ematen digu:

- *azkenak egin ezinik*

- *Eriotz-aurrean etsipenaren nekea!*

Eta zati honetako ahapaldiei erantsi dien bertsoak ere ideia bera jasotzen du heriosuar dagoenaren paradoxa latza:

- *Il nai, ezin il...Gauaren azkengabea.*

Bigarren ahapaldiak aldiz, enarek ipuian ez eta olerkian esan dioten, kabia egin gabeko txori gaisoaren aipamena dugu berriro hemen, kabiarena txoriaren berotasunak elurretan "ogetu" duen txoriaren lehen eta azken kabia dugu.

Lizardik kontrajarritako elementuen kontrastea azpimarratzea bilatzen du olerkian:

kabirik egin gabeko txoria -> elurretan
kabia elurra> epelduta
leenen> azkenengoa

(1917ED)

"Gau-aldiyan eriyotza urbiltzen zitzayola igerri edo-zuen, noski. Gelditu-gabe ari zan elurra, ta bere indarra, berez argal-samarra izanez gain, gero ta geyago ari zitzayon orainmoteltzen, soñetik elurra ezin astindu arteraño".

(1929EE) *(1925BB)*

Elur eta elur elurra etengabean:
iluntze beldurgarria!
Astindu nai... Ega nai... Ai, txoria!,
soñean *elurra beti soiñean!*

Aleak une, diardu, nagiz, Aldiak
aletzen *yalkitzen artaburua...*
Agurea baita, dar-dar eskua,
logura, berriz, begiak...
* * *
Il nai, ezin il... Gauaren azkengabea!

Elurtearen ugaritasuna adierazia dago bietan, olerkian aldiz, errepikapenaren errekurtsuaz baliatu da, ahozko mintzairan ohizkoak diren errepikapenaren erabilpenak, olerkian helburu erritmikoa ere badu. Txoriaren ahaleginaren alferrikotasuna olerkian esklamazioen bidez egina dago, olerkariak deskribitu ez ezik, bere izate guztia txoriaren ezintasun horren penaz bilduko balitz bezala, prosazkoan baino askoz partizipazio gehiago hartzen du olerki honetan poetaren sentimenduak.

Osagarri berri bat agertzen da olerkian, ahapaldi oso bat denboraren iragorkotasunari buruzko hausnarketa geroko olerkietan zalantzarik gabe Lizardiren gai poetiko nagusia bilakatu zena: erabiltzen duen irudia ere errepikatu egiten da *Asaba zaarren baratza* deritzan olerkian beste forma bat hartzen duelarik: denbora Aldia izenez pertsonifikatua dago eta bere "eten gabeko joatea", kasu honetan, artoa aletzen ari den agure dardartiaren irudian finkatua dago: poliki geldiegi pasatzen dela adieraztea du helburu. *Asaba zaarren baratza*n amonarekin topo eginda eriotzaren egarri biraka hasten denan:

Ta asi zan biraka berriz
il zaarrei oska, negarrez,
eriotzaren egarri...
Bizitzaren ondar-aleak
larraiñean eultzen ari!
(AZB 71-75, 191)

Denboraren aipamen honetan ere, hil aurreko denboraren aipamena egitean aletze edo eultze lanei buruzko metaforaren bidez egina dago. Lehenengoan, geldotasuna adierazten du, esku dardarti batek jaulkitzen du alea eta unearen metafora da. *Asaba..* delakoan artoaren aletzea, eultzeaz, gariaren eultzeaz ordezkatzen du Aldia bera aipatzeke, lan neketsu horren metaforaz, agoniaren larritasuna adieraziz. Metafora konstante honek eultze edo aletzearekin identifikatze honek badu interesik, alde batetik erabiltzen duen irudi agrarioarengatik, beste zenbaitetan bilatzen duen bide bera bait da, eta heriotzaren eskaka dagoenaren agoniaren errepresentazioa delako bietan.

(1917ED)

Egunabarraren lenengo argiyarekin batez, azken-indar-aldi bat egiñaz, bere leyo maiterontz egatu zuen, eta itxita idoro-arren, sartu-nai ba'litz bezala, egoetaz asi zan, suminkiro, beirakiak jotzen...

(1929EE) *(1925BB)*

Il nai, ezin il... Gauaren azkengabea!

******

Eguna?... Bai, nekezkoa;
ur-esnea baiño motelagoa...
Eguna noizbait, ordea!

Il-aurreko indarrak zuzpertu?...Beintzat
txoria leioruntz doa,
mozkorki -alatsu udazken-ostoa-
egun nekez yaioaz bat.

Mokoz bai egoz otoikor astindu ditu
leiarki lausoz beteak..
Ai, beiñere ezpalu zorigabeak
begiaz laiñoa urratu!

Lehen ahapaldia zatikaturik ageri da bi olerki bertsioetan: hain zuzen ere ipuian egina dagoen puntu berean. Halere ahapadiaren egitura metrikoa osoki mantendu du, bai eta narrazioaren erritoma ere.

*Aldaker*iren olerki bertsioak *Xabiertxoren eriotza* olerkiaren antzerako teknikez baliatzen da: bat batean eta nork egina ez den ez dakigun galdera labur bati erantzuten dio olerkariak:

"Berandu? -Bai, maitea;
illuntzea den...
Atsekabeak ez din
astiaren neurtzea
yakiten."
(XE 116-120, 73)

Gau luzearen ondoko eguna olerkian motela izan dela esateko konparazioa erabiltzen du Lizardik, ur-esnea baino motelagoa dela esaten du zuritasun edo argitasun gutxikoa zela adierazteko. Eguna da, azken batean. Olerkian lehenago ohartu den bezala, esklamazioen bidez eginiko olerkariaren sentimenduen adierazpideak ugaritu egin dira lehengo narrazioaren aldean, bai eta galdera erretorikoak ere, zalantza edo ezinezkoa gertatzearen arrazoia galdetuz.

Txoriak altzatzea lortu du eta mozkorki, egaldi baldarra eginez doala adierazteko, olerkiaren hasieran erantsi duen irudi nagusi baten oihartzuna jasotzen du hemen. Udazken hasieran eroritako ostoak txoriaren kaiola jo zuen bezalako egaldia egin du txoriak etxearen lehioruntz. Eta egaldiak zentzu bera du: erorka bat da, kontrolatzen ez den mogimendua heriotza aurrerko azken keinua: "Beiñola/ -egari mozkorra- yo du kaiola / gaztenik ildako ostoak".

Mogimenduaren deskripzioa da txoriaren eta udazkeneko lehen hosto eroriaren artean ezartzen duen antzekotasuna: hegaldi mozkorra, kontrolik gabea egiten dute biek eta heriotza iragartzen du bientzat. Lizardik hostoaren eta txoriaren artean antzekotasuna bilatu du, baten mogimenduak

bestearenaren ohiartzuna izan dezala bilatuz, biak heriotzaren erritualaren barruan kokatuz, eta bien heriotzaren naturaltasuna azpimarratuz bezala.

Narrazioa hitzez-hitz doa hirugarren ahapaldian, gertakizunak berberak dira, aldatu dena aditzaren kontatze denbora lehenalditik orainaldira ekartzea izan da, eta kontatzen duena esaldiaren barruan kokatzeko modua ere aldatua da: 1."Egunabarraren lenengo argiyarekin batez" olerkian: egun(nekez yaio)az bat bilakatzen da eta 2. leiarkiak> leiarki (lausoz bete)ak bilakatzen dira.

Honelako sintagmak izenlagun moduan erantsiak egon beharko zuketen "nekez yaiotako egunaz bat" eta "lausoz beteriko leiarkiak", baina era horretara baino adjetibazio poetikoagoa lortzeko helburuz sartuak dira aposizio eran.

(1917ED)

"Orduntxe ikusi zuenak, ordia, biyotza geldi-erazi ziyon: antxe, gela-barruan, zegoen bere urre-gereta, ez utzik baña... Bertan lo zegien, lasai-lasai beste txori batek... !baño ederragua, bera baño abeslari obia zen txori bat, nonbait!...".

(1929EE) *(1925BB)*

bigundo

Margoz bikaiña; eztarriz, abeslaria;
bigunki, barru gozoan,
zatarretsiaren kaiolan,
lo dago beste txoria...

Errukarria! Bein eta berriz, alena!
Nondiko gezi zorrotza
bat-batez eldu zaik egan, biotza
yosteko guztiz zuzena?

* * *

Zatarretsia izan den txoriaren ordezkoaren edertasuna, koloreetan antzematen da eta haren eztarria dira ahapaldiari hasiera ematen diotenak, hiltzera doan txoria lehenengo ahapaldian "ez margo, ez eztarria/ ederrik gaxoa nekez ezertan" esanez aurkeztu zitzaigun bezala.

Lizardik azpimarratu nahi duen elementu hauen arteko oihartzuna eraikitzen du eta eragin sinfonikoa, armonia musikala eta semantikoa bilatzen du: bata deskribitzeko erak bestearena gogoratzen du, txoriaren mogimenduak hostoaren mugimenduaren ohiartzuna aurkitzen du.

Kontakizuna lehenalditik orainaldira aldatua da, esklamazioak ordezkatzen dute txoriaren sendimenduen adierazpena, eta poetarenak bilakatzen dira, galdera erretorikoak zuzentzen dizkio txoriari poesian elkarrizketa kidetzat hartzen duelarik. Narrazioko hirugarren pertsona bigarren bilakatu da.

(1917ED)

Txori arre gaxua!. Leyo-arri-gañian erori zan bat-batez, gezi zorrotzen batek, uste-ezta, zauritu ba'lu bezela... Begiyak betiko illunduaz, pustu-nastuta egakiyak, ankatxuak tente, biyurriturik biatzak, zabalik egoak...

(1929EE) *(1925BB)*

laño begiak *Leio-arrian yausi zan; lauso begiak,*
zutiturik errotxoak:
beatzak biurri, zabal egoak,
arroturik egakiak...

Begiyak betiko illunduaz > lauso begiak

Menpeko esaldi modala, deskriptiboa, aposizio bilakatua da, adjetibazioaren alorreko bilakatzen da, eta gainerakoan, txoriaren heriotz irudiak ezaugarri berberak ditu, baina adjetibo bilakatu dira aditzaren partizipioak partitiboan izatetik, erabilera adberbialean dauden adjetibo bilakatu dira:

biyurriturik beatzak > beatzak biurri
zabalik egoak > zabal egoak

Aldaketaren helburuak bikoitza dirudi kasu honetan: Alde batetik, errepetitiboa gertatuko litzatekeen partitibo atzizkiaz arintzea, barietatea, laburtasuna eta neurri metrikoa bete ahal izatea.

(1917ED)

Eguna osoro sartu zanian azaldu zan neskatilla, taalgara pozkor andietaz txori berriyarekin ederki ta luzaro jolastu zan, lenguarekin oi-zuen bezelaxe. Leyora urbildu zan batian, ordia, landa-mendi elurtubak begiratu-asmuan, arri-gañian zegoen txoritxo illa ikusi zuen... Baita ere agudo ezagutu, ta, zirudiyanez, pizkatxo bat ere atsekabetu al zan; askarki ireki bai-zuen leyua, ta bere eskuetan gorputz otza arturik, geldi-geldirik egon bai-zitzayon begira, erruki-antzian. Eta, azkenik, begi zabaletatik malko aundi bero batek igesi ziyon txoritxuaren bular-gañera...

¡Zoriontsu izan zatekian txori gixaxuak, eriyotza-aurretik bere matte-matiaren azken emaitz ori igerri ba'lu...

Bitartian, ordian, arrotza, danau ikusirik, aserretuta,neskatillari deika asi zitzayon, eta onek orixe entzunda, azkar-azkar esku batez begiyak igortxi ta bestiaz, bere naigabia bat-batian aztuta, kayola irikitzera juan zan laisterka, leyua itxi ondoren. Eta matte-berria polliki-polliki bere inguruetan egatzen ikusiyaz, eta aren abesti samurrak entzunik, zorginduta zegoen... eta azkenik, eskua zabalik eskeñi ta bertan gelditu zitzayonian !bai muntxo gozua mokuari egin ere¡

****

Bitartian, elur-maindire-gañian, txori arre gaxua zetzan... Itzalita begiyak, egakiyak pustu-nastuta, ankatxuak tente, zabalik egoak... Eta urtzirontz (goira) biurtuta zeukan bular-gañian izoztuten ari zan eskergabeko mattiaren malko ixuri-berriya..."

1929ko Euskal Esnaleako bertsioak ohar hauek erantsi zituen:

Iñara: golondrina
Sorbeltz: vencejo
Txolarre: gorrión.

Ipuinaren amaiera hau olerkian ez du jaso, horretarako arrazoi nagusia zera izan daiteke, alde batetik, ipuiaren amaieran txori hilaren irudiaren deskripzioan elementu berberak errepikatu izana, beraz, olerkari bezala, txori hilaren irudi hori da garrantzitsua bizigabeko gorpu hil horren irudia, bere begiak, hankak (errotxoak), behatzak eta hegoak.

Neskatxak ikusi, penatu eta ahaztu izanak ez du olerkaria interesatu, urteak pasa eta gero. Txori hilaren irudiak berak indar gehiago izan du melodramak baino.

Eta horixe bera antzematen da gainerakoan ere, olerkariak ez dituela ipuian dauden irudi nagusiak aldatu, hautatu baizik, eta elemento poetiko berriak ez dira irudiei dagozkienak

orokorrean, konparazioak, adjetiboak, metaforak orokorrean berberak dira, baina hautatuak, bere indar ebokatzaile edo estetikoaren arauera, melodramatikoa edo sentimentalegia, "emeegia" iruditu zaiona baztertuz. Txoriari dagozkion sentimenduak bere egiten ditu, esklamazioak poetarenak bihurtu dira guztiak eta galdera erretorikoek txoria bigarren pertsonatzat hartzen dute; bestalde aditzaren denbora orainaldira aldatu du, akzioa gerturatuz eta indar gehiago emanez.

Narraziotik olerkira igarotzean eginiko aldaketek Lizardiren olerkigintzaren sortze prozesuaren zenbait konstante nabarmenerazten dituzte:

Kontatze eta deskripzio teknikei dagokienez aldaketa nabariak ematen dira. Narrazioak bizitasun berezia hartzen du: olerkian aditzak isildu dira, leku, giro eta bestelako datu kontestualak ez dira zehatz-mehatz deskribatzen hurbiltasun eta urruntasunaren planoan, txaplastaka bezala izendatu egiten dira eta horietako zenbaiten kolore, argi edo bestelako zertzelada plastikoz margotzen.

Kontatze-motari dagokionez, zeharkako estiloa bakarrik erabiltzen du ipuinean, olerkian berriz, elkarrizketak sarrerazi ditu, hegaztien artean, neskatxaren eta txolarrearen artean, eta baita olerkariaren eta txoriaren artean. Zeharkako estiloa eta zuzena konbinatu ditu.

Era berean, narrazioaren espresibitatea eta emozio indarra areagotu nahi duen unetan lehenalditik orainaldira igarotzen da.

Ipuinean dagoen giro melodramatikoa gailentzen ahalegintzen da, amaiera laburtu eta ipuinean dituen tinte kargatuegiez arintzen. Baina txoriaren azken gauaren azalpena zehazkiago deskribatzen du eta lehio-harrian eroritako gorpuztxo hilaren dramatikotasuna bereziki azpimarratua ageri da olerkian.

NERE LENENGO MATTE IBILKETA

Samaiko-Zulo

!Ura aro alaya
Ta ajolakabe
Amabost urte
nitun garaya!

Gizondu guraz
Bururatu zat
Andregaitxo bat
billatutia.

Uritik bertan
Oi-zan, urtero
Erromeri bat
ezin alaigo...

Juan naiz, bada, apain
Ta ernai begiya,
Edozein neska
Zoratzeko lain.

Alako pozkun
Osagarririk!...
Baña nik banun,
Bai, zer-egiñik!

Lagun-dei-otsa
nun-naitik dantzut:
Batzubek "Agur!"
Bestek:"Nora ua?"

Jaramon-ezik,
Darrait aurrera,
Jakiz beteta
Mayen artetik;

Ur gozua emen...
An erroskilla...
Ni, ordia, ben-ben
Andregai-billa!

Arkituko ez nun
etsi-zoriyan,
Neska bat dakust
Zuaitz-itzalpian...

Gelditu nintzan
Eta aztertu nun:
Matrail gorridun
Neska ederra zan...

Ura aukerako
emaztia nitzat...!
¿Beste alako bat
al nun idoro?...

Nere biyotzan
(Bat-batez noski)
Su-gar bat, ezti,
Piztu zitzaidan.

Mingaña ikaraz
Ta arpegiyan lotsa
Geldi-geldizka
urreratu naz.

– "Matrail gorridun
Neska motz ori:
Nere autik entzun
Itz laburtxo bi."

– "A zein loretxo
Bota didazun..."
Lotsarik ez dun
Mutil-koskortxo...!"

– "Zelai-lilitxo
Lirain, apaña...
Gotzon-antzedun
mattagarriya!..."

– "Auxe den mutil
Parregarriya...!"
Estutxo nabil
Andregai-billa..."

– "Ez ba larritu
Mattati ori, arren,
Billa bai-dezu
Andregaya emen!"

Algara zegin
Ori esatian;
Ni pozez, bañan,
Negon, ta atsegin.

– "Beraz nerekin
Dantzara zatoz?"
– "Izerdiz zagoz,
Pizka bat itxoin..."

Ta parre zegin
nere mintzatzez...,
Ta, noizian-bein,
Zai ba'lego lez,

Atzeko aldera

Begiratzen zun.
Urrezko illedun
zoragarriya,

Nere loretxo
Nere kutuna...!
– "(Auxen da lana...
Ez-ote etorriko?...)"

– "Entzun bada, entzun
Nere bildotsa..."
– Ederki ai zera:
jardun bai jardun."

– "Tuntuna asi da
dantzara goazen..."
Ta alako baten,
Urruti-antzian:

– "Mantoni, atoz ia,
Dantza gatezen,
Tuntun-jo-aldiya
Buka baño len!..."

Begiratu zun
Deya dantzunantz,
Ta esan dit:"Agur!
dantzara nua."

– "¿Nor da ori baño?
(Galde diyot nik)
– "Nor neu- biyotzeko
jabia baizik!

Dantzan nekatu
Ta egarri izan da:
Juan danian, zu
Azaldu zera,"

– "Ta ain benaz esan...
Gezurti alen bai!!
Zugan andregai
billa-nubela?.."

– "Ori bai noski!
Zeuria ez, baño;
Mutiltzar sendo
Orrena baizik...!

Agur ba, gaste,
Ta esker ugari..."
Iñakaz neri?
Etzatut matte!!!"

ta algara zegin
Ori entzutian...

Ta arin baño arin
Juan ziran dantzan!...

Ona emen bada,
nere lenengo
Zorigabeko
Matte-ibilketa.

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra, *Euzko Deya*, 1917-4-16, 28. alean, 4 or.

Ohar metrikoak:

Ahapaldiak: ahapaldi isomentrikoa: 5a/5b/5b/5a eta 5a/5b/5a/5b.
Errima: ugaria baina erraza, bokale bakarrean oinarritua.
Loturak:

Bokale berdinak:	a+a	11 aldiz
	e+e	0
	i+i	1 aldiz
	o+o	0
	u+u	0 aldiz
Bokale ezberdinak:		
Diptongoa osatzen dutenak:	a+u	1 aldiz
	e+u	0 aldiz
	o+u	0 aldiz
	a+i	0 aldiz
	e+i	1 aldiz
	u+i	0 aldiz
	o+i	1 aldiz
Diptongo antzekoa:	a+e	9 aldiz
	a+o	1 aldiz
	e+o	1 aldiz
	o+e	1 aldiz
Erdal diptongoak sinalefan:	e+a	2 aldiz
	o+a	3 aldiz
	i+a	4 aldiz
	i+o	2 aldiz
	i+e	1 aldiz
	u+a	1 aldiz
Hitz barruan diptongo erdaldunak:	ua	2 aldiz
	ia	1 aldiz

Beraz, loturei buruzko jokamoldea sistema zaharrari dagokiona da.

Ohar tematikoak:

Maitasun gaia duten lehen epeko olerkietan lehena da, nahiz eta ipuinen artean *Aldakeri* narrazioa aurretik argitaraturiko den.

1932an *Biotz-Begietan* argitaratu zenean jarri zion azpitituluan dioen moduan, maittezko ipuin minkatza da Aldakeri, *Nere lenengo matte ibilketa* aldiz, irrijorran idatzia da eta Bilintxen *Ja-jai* famatua gogoratzen du.

Lizardiren poemagintzaren lehen epe osoan protagonista izango den emazteki eder baina trufari eta mukerraren eredu bera ageri da olerki honetan ere: edertasunak iritxi-ezinezko bilakatzen du olerkariarentzat, honek bere irudia erkin, "zatar" edo itsusitzat aurkezten bait du; bestalde, emaztekia muker, ukakor agertzen da beti, *Aldakeri*n aizea baino arinagoa eta aldakorragoa: "la donna e móvile" pentsatzen du olerkariak ere, baina beti bere kalterako.

Lehen epeko emaztekiaren irudia aldatu egiten da hirugarren eperako. *Neskatx Urdin-yantzia* lehen epe honetako "reminiszentzia"tzat har baliteke ere, jadanik, olerkarian lilura sortu du bereziki. Handik aurrerako emaztekiak Lizardiren poemetan izaki sinbolikoak dira: Itzala, *Euzko Bidaztiarena*ren lagun den Maiteder berria 1919ko izen bereko poemakoa ez bezalakoa da, eder da, eta basokoa, lehenengoa bezala, baina olerkariaren "ezkon xuria" da eta elkar maitasunaren eta ederrestearen fruitu izango diren aur begi-argi ugarien aipamena egiten du.

Lizardiren olerkigintzan maitasunaren gaiak garapenik adigarriena, ene ustez, *Maitea* poema amaigabean dagoen *Maitale berriak* izeneko poemaren ahapaldietan aurkitzen da,

"Maitasuna dator azi izkutu batez
guziok baitaukagu barnean yaiotzez:
ez edozein eguzkik ernerazgarria,
autuaren begiek bear dute ukia;
ta oartzen ez gera danik ernetua
arik eta biotz dan arte loreztua"
(MB 32)

Helduarotik, esperientzia pertsonalaren hausnarketatik sorturiko bertsoek adierazten dute 1928ko "Ustegabeko euri-zaparra" artikuluan adieraziriko bera da:

> "Maitetasuna giza-biotzean noa sortzen daan eztizute gaurdañoko pillosopoak, egiñalak eginda ere, somatu. Dana dala, askoek diote gizakumeak bere artean, igerri gaberik eta azitarako gordea bezela, euki izaten duala bete betean dagokion maitagarriaren, emaztegaiaren iruditxo ezkutu bat: ta irudi orren kidako emakumerik iñoiz begien aurrean ikusiezkero, bat-batean biotza artzen diotela sugar kiskalkor batzuek" (*K-L* 92. or.)

EUZKO-MENDIYA

Samaiko-Zulo

Lau arranuak bizi ziraden
Zure arkaitz gogor-artetan
Gau eta egunez begi zoliyaz
Euzko-Aberriya-zainketan...

Arrotz-gudozte-burni-diztira
Urrun-ibarran sortzian
Euzkel-erriko gaztigu-deya
Arrano-oyuba oroimen zan.

Ta agure, eme ta ume
Ots ori entzunik, batian
Zure arkaitzetan, Aberriyarren
Garai-eziñak ei-ziran...!

Ta arranuakin elkartzen ziran,
!Berok be arrano bai-ziran...
Erromatarren arrano-gañez
Euzko-arranua ega bai-zan...¡

Gaur zure aitzetan, arrano-oyubak
ixildu ziran osoro...
Bele zitalak, zure gain-gabe,
ega ta krazka dagi arro...

Berdin arrotzak, bele-irudiyan,
Gure-gain dabiltz txit-ernai
Euzkel-erriya illotz ustela
Noiz biurtuko danik zai!

Euzko-belarriyak gortu dira...
Mendi-arranua aldendu zan...
Banakaturik gabiltz euzkuak,
Battuta egon biarrian!...

* * * * * *

Mendi-ixuriko errekatxuak
Tamal orren berri eztaki;
Ta, lore-janzkiz, jayo-berriya,
Berontz dijua, lasterki...

Mendi-garaiko zuaizpe-garitzak
Estaltzen duen itturri bat,
Euzkera garbiz abes-dagiña,
Du errekatxuak amatzat...

Ta ala duala, lorai musuka,
Emen igeska ta or jolasti,
Amagandikan ikasittako
Euzko-ots gozuaz dabezki...

Baño, bat-batez, zelaira elduta,

Bertan lotu da, geldurik,
Berak ulertzen ez dittun itzak
Euzko-ezpañetan entzunik...

"Ai!...al ba'nuke eziña dana
Gorantz igesi al ba'nuke...!
Nere ur garbiyak al ba'nittuke
matte-itturriyan berriz gorde...!

Ta orixe esanda, goiko lañiaz
bere ur garbiya geriztu du...
Ta ixil-ixilik, ikeraz dua,
Zorion-oroyaz negartsu...

Urittik ziar sartu da gero
Ortik lotuta aldendu da...
Ta atseden-guraz, azkenik dario
Itxasuan bere malkotza.

Itxasuak, berriz, uintzar aztunaz,
Zigorka diardu izugarki,
Asabeagaz aiztuta dagon
Erri errukigarriyari...

* * * * *

Euzko mendiyan, ori ikusitta,
Olerkariyak negar-dagi...
Baño, bat-batez, biyotz-ikaraz,
Jeiki da arrano otsa entzunik!

– "Euzkadi dezu zure Aberriya:
Esna zatte ba, Euzkel-erri,...
Ta elkarturikan, igaz bezala,
Ekin zayozu arrotzari!"

Zutik mendiyan, ero-poz-garraz
Olerkariyak be ots-egin du!...
Oyartzun-otsak, gain gustiyetan
Erantzun diyo argi-sutsu...

Ta, beko ibarra begiyaz jorik,
Orko zarata ulertzen du...
Lotan zegoen Euzkel-erriyak
Bere logurea astindu du!

Bertsioak:

Bakarra, *Euzko Deya*, 1917-5-1, 29. alea, 5 or.

Ohar metrikoak:

Ahapaldia: 10-8a-10-8a errima bikoitzaz.

Arau metrikoak: Sistema zaharra darabil:

Bokale berdinak a+a, e+e, i+i eta o+o elkartzen ditu beti, behien e*e izan ezik.

Bokale ezberdinak aldiz, komeni bezala:

a+e	6	bider	i+o	1	bider
a+i	1	»	i+u	0	»
a+o	2	»	o+a	3	»
a+u	1	»	o+e	1	»
e+a	4	»	o+i	1	»
e+o	1	»	o+u	0	»
e+i	3	»	u+a	2	»
e+u	2	»	u+e	1	»
i+a	4	»	u+o	0	»
i+e	3	»	u+i	1	»

Lotura egin gabe:

a+i	1	»
a+u	1	»

Ohar tematikoak:

Olerkiaren gaia hemeretzigarren mendeko erromantiko eta foruzaleen artean arrakasta handia izanikoa da, eta iturri tematikotzat Jean Batiste Elizamburu edo Felipe Arrese-Beitia aipa litezke, beti ere, jakina, abertzaletasunaren sinbolo, hiztegi eta hizkera garbizalean bermoldaturik.

Zehazki, lehen atalean eginiko arrano eta beleen arteko identifikazioa Jean Batista Elizambururen poema batean aurki liteke, *Arbasoak* [25] izenekoan:

1 "Mila bat zortzirehun eta hogoiean
Bertsu berri hauk eman dire aire zahar batean
Gure guraso kantabrear lo bait daude lurrean
ez ote dire atzarriko aire hau aditzean

12 Nork ez ditu gure gurasoen balentriak aditu
Zelaietako zenbait etsai hek ez zituzten suntsitu
semeak aita dik iduri zeren inork ez baitu
bere herrian egundaino euskalduna garaitu

20 Erreka zepo ziloetan bizi bada belea
Toki goretan arranoak egiten ohantzea
Hala du mendi bizkarretan euskaldunak etxea
Biek handizki dutelakotz maite libertatea"

Ohar literarioak:

Poemaren egiturak lau zati nabari ditu marra lerroz banaturik, baina binaka eratua: lehenengo biak eta azken biak daude parekaturik.

Lehenengoa eta bigarrenak euskaldunen aintzinako egoera gaurkoa aurkajartzen dituzte.

Hirugarrena eta laugarrenak aldiz, naturako elementuak eta olerkaria kontrajartzen ditu: errekatxuak igesi joan nahi luke, mendietara itzuli. Olerkariak aldiz, ez du amore ematen, negar egiteaz gain, Elizanbururen "semeak aita iduri du" berari atxikiz, euskaldunak etsaiari ekitera deitzen ditu.

25 LABAIEN, A.M.; *Jean Batista Elizamburu*, Auñamendi, Itxaropena, 1978, Zarautz, (198-199. or.)

ZELAI URDIÑA

Samaiko-Zulo

Mendi goitxu batian
izerdiz, itzalpe-billaka ibillitta gero,
aize otzantzaren musu osasungarriya arpegiyan
exeritta nago
¡Nere begi aurrian
dagerren edertasuna! Jainkuaren almena!
zelai bare gelgarri urdin berdiña!
!Itxaso zabala!
Emendik ikusitta
bezin gelditun eta egokor dirudizu:
ta, margo argitsubagaz, legorreko ibayai be
antz emateyezu.
Zelai amaige urdiña:
ere ba ote dituzu nekazariyak?
Bai-dakust zure gain lauba ixontzitxuz beteta...
¡berok bai txitxarrak!
jostallu irrigarriyak
itxas amaigabian iltzez josita letxe!
Goyaz alkar jotzen dun ibar ameskarriyan
¿Zerbait bai-al-zarete?
txikitasuna!"
Ikuskizun ori dela ta oldoztillun diyot
Ta nik neure buruba goitxu ontan dakustelako.
Ala ba-deritxot.
Goi-goikuaren aurrian
gizonak, naiz goyenak be, zertzu ete gera?

.....

Argiya, iltzen, urre-ille-janzkiz; sarkalderantz badua
Berako garaya.

.....

Kai-ondotik nuala
bateltxo bat dator zapiya zabal-zabalik...
Berton datorren itxastar bizkar-sendo bakarrak
au diyo abesturik:
Ni naiz, ni naiz.
Zelai urdiñ, zure nekazariya!...
Ni naiz, ni naiz,
Jaun-Goikuari eskerrik dagiyotena;
Zelai urdiñaren emaitz ugariyak
Matteki eskuratu dizkitenari...
Ni naiz, ni naiz
Zabal urdiñ abetan nekazari.
Amaika nekien saritzat nere
emazte ta seme-alabatxok eztira
izango goseok?

.....

Ni naiz, ni naiz
Zelai urdiñeko nekazariya...
Goiko-Jaun onari esker eta aintza

.....

¡Oi ni naizen zorua!
zure kaltez oldozka goiko abaro atsegiñan
nengoenaren aldian, neke larriz zenbiltzanoi
Aundiyagoa ziñan!
Aundiyagua bai ziñez,
Jaun Goikuaren begiyetan, neu geruago egonik.
itsas zelai urdiñeko nekazari kementsu
bildur-gabeko ori...

OHARRAK:

Bertsioak:

Bakarra, *Euzko Deya*, 1917-5-1, 33., 2. or. Errazti'tar Joseba'ri eskeinia.

Ohar metrikoak:

Ahapaldia: ahapaldi finkorik gabea. Neurriz 4 eta 15 silaba bitarteko bertso-lerroen konbinaketa luzea da.

Errima: bikoitza baina finkotasunik gabea.

Loturak: Sistema zaharra.

Erritmoa: leloa du arrantzalearen kantua:

"ni naiz, ni naiz.."

Eta metrikoki ere aldaketa gertatzen da arrantzalearen hitzak jasotzen dituen hirugarren zatian, 4, 11 eta 12 silabako bertsoen konbinaketa da.

Ohar tematikoak:

Mendira igo naturari begira: itsasoari, itsasoko ontziak txiki iruditzen zaizkio. Arrantzale baten kantuak Jaungoikoari eskerrak emanez, poemaren lelo bihurturik. Eta ondorioz, poetaren "konturatzea" Jainkoaren begien aurrean beherago eta eskertsuago zenaren handitasunaz.

Aipagarria da Maitea poemaren aria azaltzen duenean, poema honen gaiaren antza handia duen puntu baten iragarpena egiten duela bosgaren jalkian: "Ondaurtz ikustera mendiz: lurrari atxiki yausiko ez banintzan". Baliteke ohizko ibilaldia izatea Lizardik Tolosatik mendiz Zarautz ikustera joatekoa.

Ohar literarioak:

1.- Egiturari dagokionez, bi zati bereizten dira garbi: alde batetik menditik ikusitakoa: metafora nagusia da itsasoa zelai urdin/ibar amesgarria dela eta berak ere badituela nekazariak, arrantzaleak. Bigarren zatian itsaso ondoan arrantzaleari entzuniko kantaren umiltasuna.

Ondorioan bi elementuak biltzen dira: itsasoa zelai urdina da eta arrantzale kementsu bildur bakoa haren nekazaria da.

2.- Metafora nagusia da benetan poemaren gaia

itsasoa= zelai urdina

ibar amesgarriya
zelai bare gelgarri urdin berdiña!
bezin gelditun eta egokor dirudizu:
ta, margo argitsubagaz, legorreko ibayai be
antz emateyezu.
Zelai amaige urdiña:

arrantzale= nekazaria
ere ba ote dituzu nekazariyak?
Bai-dakust zure gain lauba ixontzitxuz beteta...

Ni naiz, ni naiz.
Zelai urdiñ, zure nekazariya!...
Ni naiz, ni naiz,
Jaun-Goikuari eskerrik dagiyotena;
Zelai urdiñaren emaitz ugariyak
Matteki eskuratu dizkitenari...
Ni naiz, ni naiz
Zabal urdiñ abetan nekazari.
Amaika nekien saritzat nere
emazte ta seme-alabatxok eztira
izango goseok?

Euzkera sarkundia poeman ere metafora bera darabil, baina honetan bere arima da nabigatzailea, noragabe eta galdurik badabil ere:

Zerek zelai urdiñan itsasozti gaxua
maite begi-argiyak ainbat zeraroran?..."
(ES 21-22)

Eusko bidaztiarena olerkian agertzen den epitetoaren jatorria berbera da:

Itxaso bare: zelai urdiña,
muga-biribil, belar-berdiña:
goizaldea duk sorgiña!
Dirdaiez ikus egiña
mende-neurle dugun kurpil ariña
(EB 35-39, 179)

3.- Narrazioa da: Mendira joan da, ikusten duena kontatzen du, bera nola dagoen, non eta noiz, *kontatu egiten du* baina geroagoko *Urte Giroak ene begian* poemetan egingo duena baino zehatzago, han sugerentzien bitartez ematen zaigu informazioa, hemen hasierako lehen ahapaldiak itzalpea, izerdia, goi mendiaz etabar. aipatzen ditu hitzez-hitz.

Poemaren egiturari dagokionez, aipagarri da bigarren zatirako zubi gisa, iluntzen ari du, *Maite izaneri* eta *Mattasunaren illetea* olerkietan bezala. Iluntzeak olerkaria bere baitara etortzeko eta egiaz edo errealitateaz ohartzeko giroa prestatzen du, sarritan oharpen etsikorra delarik.

Argiya, iltzen, urre-ille-janzkiz; sarkalderantz badua
Berako garaya."

Itsaso ondoan dago, kaian, ontzi bateko arrantzalea kantuz entzuten du, ontzia batela da, eta zapiak hedaturik dator, arrantzalea ere sendo eta zabala da.

Arrantzale honek, *Bultzi-Leiotik* poemako nekazaria gogorarazten du: sendoa, langilea, eredu bat da, arketipo bat.

JAUN ERRUKITSUBOI!

Samaiko-Zulo

- (Amalauduna) -

(VV) Dongiak edenduriko loidi iguingarriyan
narrez nun gogua; zeure iduriz sorturiko
gokarbitasuna; zeure eskubak jantziriko
soindako zuriya... Goikoi, oben-egin nuban!...

(BB) Txerren'ek lardaskatuzko loidi iguingarrian
narras dut gogoa: zere iduriz sorturiko
anima garbia: zere eskuek jantziriko
soñeko zuria... Yauna, ogen egin nuan!

(ED)
obenak;...Garratza
bildur-izan
ostotsaren

(VV) Lor-atsekabe larriya sortu zuban nigan
obenak, garratza bai-da eztitsuba baño!
Beldur izan nintzan, Jaunoi, bai-nekiyelako,
tximist-ortziriyen jabe, Zu zeudela goyan...

(BB) Lor-atsekabe larriak sortu zitun nigan
ogenak; miñago baita, eztizkoa baño.
Beldurrez ninduzun, Yauna, banekielako
tximist-ortzirien yabe zu zeundela goian.

(ED) asperkunde tximist
begiz-jo
Orrek

(VV) Ta zeu asperkunde-tximist ikaragarriya
uste nula, begiz jo nuban goya, izu-izurik...
Etziñidan eguzkiya aurti, Jaun on orrek!

(BB) Ta zure zigorbidezko oñaztarri larria
usterik, yo dizut begiz ortzia, izu-izuan...
Etzenidan, Yainko on orrek, eguzkia yaurti!

(VV) Etziñidan ukatu bez beraren argiya...!
Erruki-argiya zeneriyodan oraindik,
Maitasun-Iturri bizi amai-ezin Orrek!!

(BB) Etzenidan uka ere berorren argia!
Errukizko izpia zeneriodan, artean,
ezin-agortuzko Maitasun-Iturri bizi!...

OHARRAK

Bertsioak:

Hiru aipa litezke, bata esku-izkribuzkoa Valverderen 1973eko edizioan 61 orrialdean jasorikoa eta zaharrenatzat jotzen duguna izenpea Samaiko-Zulo dakarrelako, edizio kritiko honetan (VV) deitu duguna. Hurrena argitaratu zituen olerki eta ipuinetan Zarautz'ar Sabin erabili zuelako. Bigarrena, *Euzko Deya*n 1917-2-16an, 41, (2. or.) argitaratua, (ED) deitu duguna, eta azkena, 1932ko *Biotz-Begietan* liburuan 1917kotzat ematen duena, (BB) deitu duguna.

Lehen bi bertsioak ia berdinak dira, bigarren ahapaldiaren eskuineko margenean aipaturiko aldeak izan ezik, horregatik funtsean *Biotz-Begietan*goarekiko dituen aldeak, adierazi dira bereziki edizio kritiko honetan. Edizio kritikoa egitean Valverderena hartu oinarritzat eta ondoan jarri ditugu beste bi bertsioetako aldeak, eskuinean eta *Biotz Begietan*goa azpian.

Lizardik Biotz-Begietan liburuaren 1932ko bertsioaren ondoan gaztelaniazko orijinala argitaratu zuen eta poema hau gaztelaniatik itzulia zuela azaltzen zuen.

Bertsio ezberdintasunak:

Ortografian aldaketa: j>y

Fonetismo gipuzkoarrak kentzea: larriya... larria
eskubak... eskuak

Hitzen-forma aldatzea: narrez...narras

oben... ogen
bez... ere ez
etziñidan... etzenidan

Hitz aranazalea baztertzea eta Azkuerenaz ordezkatzea: gokarbitasun... anima garbia

Bizkaiera joerazko hitza ekialdeko hiztegira hurbildu dongia... txerren
edendu... lardaskatu
soindako... soñeko
ostotsa... ortziri
tximist... oñaztarri
goya... ortzia
amai-ezin... ezin-agortuzko.

Ez dago esanahi, irudi edo inolako zentzu aldaketarik, zenbaitetan konkrezioren bat eransten dio aldaki berriak, esaterako erruki-argia > errukizko izpia, baina gainerakoan esaldi barruko zenbait aldaketa egiten baditu ere errimari eutsi ahal izateko, esate baterako azkeneko bi ahapalditan, gainerakoetan, dena aldagaitz geratzen da: itzulpen bat da, izan ere. 1932.ko liburuan agertzen den bertsioan gazteleratik itzulia dela esaten du.

Ohar metrikoak:

1 ahapaldia 14 A/ 14 B/ 14B / 14A
2. ahapaldia 14 A/ 14 B/ 14B/ 14A
3. ahapaldia 14 A/ 14 B/ 14 C
4. ahapaldia 14 A/ 14 B/ 14 C

Loturak: i+i, e+i , e+e, a-e, a+i, u+i, i-a eta i-e. Valverderen eskuizkribuan eta *Euzko Deya*n ageri diren bertsioetan jadanik Sabino Aranaren arauak betetzen direla ikus daiteke, eta betetzen dituen lehena dela esan daiteke.

Errima:

Lehen bertsioan:

iguingarriyan/nuban asonantea sorturiko /jantziriko atzizki bera erabiliz. igan/ goyan asonantea (deklinabide atzizkia erabiliz). baño/ nekiyelako bokalez luzea ikaragarriya/ argiya bokalez luzea izurik/ oraindik bokalez luzea orrek/ orrek errepikapena

Bigarren bertsioan:

larria/ argia bokalez luzea izuan/ artean asonantea yaurti/ bizi

Bigarren bertsioan dauden errima aldaketak gramatikari dagokionez, okerra zuzentzeko lehenaldian oraindik, artean bait da, eta gero artean hitzarekin errima egiten duen "izuan" bilatu du.

Ohar tematikoak:

1.- Jaungoikoari mintzatzen zaiola, aurreneko bertsioan, tratamendua errespetozkoa eta urruna da, maila ezberdintasuna adierazten duen adierazmoldea erabiltzen du:

Jaun errukitsuboi, Yaunoi... > Jaun errukitsua, Yauna

Horren ordezko azaltzen diren zenbait aditz etikok modu objetiboa galdu eta zutano tratamendua hartzen dute:

bildur-izan nintzan... bildur ninduzun
begiz-jo nun... yo dizut begiz

Tratamendu honek errespetua adierazten du baina gertutasun eta afektibitate gehiago ere bai. Eta *Biotz-Begietan*en agertzen diren beste poemetan ere errekurtsu honek erabateko indarra du. Hemen ikus daiteke aldaketa garbia eta gertutasuna artikulu hurbilaz egin beharrean aditzaren modu etikoak, ekialdeko euskalkien moduaz ordezkatu du. 2. Narrazioa 1917.ko poema honen lehen bertsioan oso-osorik lehenaldian egina dago: 1932.ko bertsioan aldiz lehenalditik orainaldira aldatzen du aditzaren denbora:

narrez nun... narraz dut
begiz-jo nuban goya... yo dizut begiz ortzia

Aldakeri poemaren narraziotik olerkirako bidean aldaketa hau bera suma zitekeen: Lizardik lehenaldiko narrazioetan orainaldiak duen funtzio intentsiboaz baliatzen da, dramatikotasuna lortzen du lehenaldian gertaturiko orainaldira ekarriz, eta orain gertatutakoak duen indarra emanez.

IPUYAK EZTIRAN IPUYAK

JAUREGI ZARRA

Zarautz'ar Sabin

"Etxagille ospetsuba zan.

Bera bizi zan uri-billaldetan, jauregi zarra gelgarriya zirauben, antzin-antziñetik -inork ez inork noiztikua zan etzekiyala ta iñun ez-iñun dauden jauregi ederrenak baño ederragua. Aldiyaren zigorrak jota -uritarren axolagabetasuna lagun-, erdi-amilduta zeguan; eta gauza iraungarriya zalako uriyak, bein-edo-bein, berreraiki egin biar zala erabaki zuban, eta bertokua zan etxagille ospetsubari egikizun ori agindu ziyon.

Juan zan berau, jauregira, zer jagon eta zer amildu biar izango ete-zan ikustiarren. Billalde guziyan, eroritako gayak oso estalirik zuben lurra: gai bikaña, gogorra, zar-zarra, ta beraz etxagillearen lanerako ezin obiagua, ordeziña... Arri bakoitza ziatz landuta zeguan, eta gabeukatz (erloju) baten zatiyak bezela, alkarri zegokiyotenak berezi ta batu besterikabe, aski zuban, jauregiya bere aitzin-usai eta edertasun osora biurtzeko.

Ori guziya ikusi ta gogalduta, ordia, etxagilliak agindu zuban, ben-ben, gai ura andik urrun botatzeko, ezertarako gai etzala ta; alaxe, langilliak, arri bilduma ederra nolanaika ta ardurikabe jasorik, koskatu, autsi ta alperrik galduta leiza-zulo batetik bera jaurti zuten.

Gero, erbestetik, gurdikada ta gurdikada askorik arri erakarri zituban etxagilliak, arri aulagua, ordia, jauregikuarena baño, arritu-berriyagua bai-zan, askoz-eta aren aldian alik bestelakua...Ta, ori gaitzat, berreraiki zuban jauregiya, orma-zati bat beltza, zurizkua urrengua, onako au zarra, onunzkua berriya, oro naspilduta, lendabiziko jauregi-egilliak, ziñez, ezagutuko etzuen eraz, bera ikusteko berpiztu ba'lira...

Au izan zan etxagille ospetsubaren lana. Bere urikidiak erotzat izan zuten.

* * * * * * *

Ori gertatzen zan aldiyan, etxagilliaren auzo ta urikidia zan gizon jakitun-jakituna. Onek ere jauregi aintzinar eder bat kaldelatzen ziarduban... Bere elia, ta urikide orona, zar laztangarriya zan; aldiaren irañak ordia —ta, aldiyarenak ezezik, bere seme eskergienak ere— erdi galdurik zuten...

Aberri-mattasunak gure jakittun oni, ba, barren-barrendik dei-egin ziyon, bere elia osotu zezan; eta alaxe, gizon zindo au, autsez josiriko idazti antzi-bidez... mendi-mendiyan bizi ziran baserritar adintsubenai galdezka... oyan bakartsu ta lekaro idor-ziar, bere ele-jauregiraño eldu zan; eta, berton, sakabanatuta, goldiyuak janda, gai-andel yori-gelgarriya arkitu zuban, iñun-ez-iñun, an ezik, idoro izango al-zubana...

Pozaren-pozaz, ardura-arduraz, oro jaso ta mailkatu zuban: ta, gai abekaz, bere ele-jauregiya berriragi ere.

Osorik izan zubanian, bere aberkidiak ederretsi zezayoten, idazti argitxu-sakonak-bitartez erakutsi ziyen. Aberkidiak, baño- beren eliaz ziaro aiztuta etziranak- jakittunak billaturiko gainik aski ezetsiyaz, atzerri- arrobitik ornitzen ziran aspalditxozkeroz: eta... jakittunari ere eroiritizi izan ziyoten!

* * * * * * * *

Ez ete-ziran oyek, etxagillia bera baño ergelaguak...?

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra, *Euzko Deya,* 1918-1-1, 42., 8. or. Lizardiren zenbait jarrera poetiko eta olerkiren iturria seinatzen duelako jaso da edizio kritiko honetan.

Ohar tematikoak:

Ipuin honetan gai literario ezaguna erabiliz Lizardik hizkuntzaren garbizaletasunaren alorrean hartu duen jarrera azaltzen du.

Jauregia eta bertan gorderik dagoen altxorraren gaia da. Literaturan gizakia bere jatorri eta helburuarekin lotzen duen espazioa da. Ipui eta alegi folklorikoetako errege zaharraren jauregiak ganbara sekretuak izan ohi ditu, inkonszientearen sinbolo gisa, eta hauetan altxorran egon ohi dira ostendurik, egia izpiritualen sinbolotzat.

Gaia:

Lizardik euskararen garbizaletasunaren aldeko alegatoa, aintzinako hitzen bila dabilen jakitunarengan mamitzen du. Jakintsuak ere jauregi zaharraren altxorra aurkitzen du "oyan bakartsu eta lekaro idor-ziar", gai-andela, "depósito, tesoro" edo altxorra osatu arte.

Lizardik erabiliriko osagarriak ipuin folklorikoetatik hartuak dira, desertuan zehar egiten duen aldiak purifikazio edo garbiketa egiteko lekutzat aipatu ohi bait da.

Aldakeri ipuian bezala, Lizardik *Jauregi zarra*ren honetan ere paralelotasuna bilatzen du, oihartzuna, parekotasuna, edo irudia, han txoriaren heriotza udazkeneko hostoen erorketarekin parekatu du, txoriaren kolore, kantu eta itxura txori berriarenarekin parekatu duen moduan.

Ipuin honetan ere, bi protagonisten aktibitatea, eraikitzailea da, jauregi bat berreraiki nahiean dabiltza, baina jokabide ezberdina dute bat berrizalea da, atzerriko harria eta zahar itxurak ezabatu nahirik dabil, bigarren jakitunak aldiz, hizkuntza berreraiki nahirik dabil, eta horretarako gai zaharren bila dabil, aberrian eraginik dabil, eta haren aztarnak bilatuz zaharren ahotan eta liburu zaharretan azkenean iristen da bere *ele-jauregi*raino heldu zen, altxorra han zegoen, egonaren egonez, goroldioak jana, eta gai horrezaz ele-jauregiya berriragi zuen.

Hizkuntzaren balore galduen bila ibili da jakituna baina bere kideak "atzerri- arrobitik ornitzen ziran aspalditxozgeroz" beraz maileguak dira prestamoak dira hemen aipatzen dituenak. Jakitunaren bilaketa lan hori, eta bilatzen duena "ele-jauregia" eraikitzeko gaia da.

Lizardiren beste poema bat, Sabino Aranari eskeiniriko *Gure mintzo* delakoa ere gai honekin lot daiteke. Bilaketan diharduena poeta bera da, bere baitan bilaka dabil "zurubi biurrez poliki ninyoan./ Guri argi ematearren/ itzaliarena, eskuan nenkarren.../ Orra noizpait ere beeraiño el/ ta leotza arki dut ondoaren sabel;/ ta leotzean, il-iduri/ gizalaba eder odol-gabez zuri./ Ipuin zaarrak, atozte gogora!/ Atozte erregingai begizkoak zora!/ Bazterrean ikus nerea,/ ene ta ene asaben oarrezak botea.../ eta azken ahapaldian, "Ene leozpetu yare-berri/ eusko orok zaitzagu miñen eztigarri/ ta besteren gogo-menbetik/ yare-gagizu usu, geurea gaiturik!/.

Narrazioan jakituna da bila dabilena eta erotzat jotzen dute, poeman protagonista poeta bera da, gaztelu bateko, bere barne-muinetako leotza batera jeitsi eta han il-iduri dagoen neskatxa bat aurkezten du...

Harremanik badute bi testu hauek, jauregiaren irudiaren barruan gordea dagoen altxorra edo leozpekoa balore espirituaren sinbolo dira, baina narrazioan euskal gizarte osoari dagozkion baloreak dira, eta gutxi edo gehiago Sabino Aranaren hizkuntza eta aberriarekiko salbamenduaz dihardute

biak; lehenengoak gertuagotik jarraitzen dio errealitateari, metafora ez da gehiegi urruntzen eta gero bere olerkietan tipikoak izango diren "ele-jauregi" bezalako konposatuen bitartez oso hurbileko lotura eskeiniko dio metaforari edo alegoriari.

Gure-mintzo 1931.koak poetizazio maila handiagoa du, irudi erromantikoa: gartzeleraturiko printzesa bat, ia hilurren dagoelarik, salbatzen du poetak. Protagonismoa beraz orain poetari berari, ni lirikoari dagokio:

"Aren argibidez ni yabetu
enegan bazala norbait atxilotu
Ordun, yetxi nazu lezera;
nork gere muiñean dugun itzalera"
(GM 14-16, 207)

Ohar literarioak:

1.- Aipagarria da Lizardiren irudi garatuenetako baten oinarria jadanik ipuin honetan aurkitzea: Aldia edo Denboraren pertsonifikazioari dagokiona: "Aldiyaren zigorra/ Aldiaren irañak". Beste poema batzuetan ere aurkitzen den pertsonifikazioa eta kontzeptoa da, gogora esate baterako, *Asaba zaarren baratza*ko azken aleak eultzen ari den Aldia, eta *Aldakeri* "Aldiak yalkitzen artaburua... Agurea baita, dardar eskua/ logura, berriz, begiak..." (Ald 109-112, 53).

2.- *Jauregi zarra* ipuin honek ipuin folkloriko ugariren tradizioarekin lotzeaz gain, zehazki Frederi Mistrali buruz Alphonse Daudet idazleak guztiz ezaguna den *Lettres de mon moulin* izeneko liburuan agertzen den "Le poéte Mistral" izeneko narrazioarekin du zerikusia.

Alphonse Daudetek Mistrali eskainiriko narrazio honetan bai Aitzolengan, bai Orixegan eta bai Lizardirengan aurkitzen dugun ikuspegi bera dugu: literaturak jasotzen dituen hizkuntzak, kultuak, ohiturak, Herriak, aurrerakuntza guztiek arbuiatu arren iraunkor, behin-betirakoak bilakatzen direla, ez ditzakeela inork hil.

> "Voilà l'histoire de Calendal ... Mais qu'importe Calendal? Ce qu'il y a avant tout dans le poème, c'est la Provence - la Provence de la mer, la Provence de la montagne -, avec son histoire, ses moeurs, ses légendes, ses paysages, tout un peuple naïf et libre qui a trouvé son grand poète avant de mourir... Et maintenant, tracez des chemins de fer, plantez des poteaux a télégraphe, chassez la langue provençale des écoles! La Provence vivra éternellement dans Mireille et dans Calendal" [26].

Literaturan olerkariak duen zereginari buruzko ikuspuntu honetzaz gain, Daudetek dioenak eta Lizardiren ipuin honek badute haruntzagoko zerikusirik. 1866an argitaraturiko obra honetan jasoa dagoen olerkariaren jokamolde bera da Lizardiren ipuiko eraikitzailearena:

> " Tandis que Mistral me disait ses vers dans cette belle langue provençale, plus qu'aux trois quarts latine, que les reines ont parlée autrefois et que maintenant nos pâtres seuls comprennent, j'admirais cet homme au-dedans de moi, et, songeant à l'état de ruine où il a trouvé sa langue maternelle et ce qu'il en a fait, je me figurais un de ces vieux palais des princes des Baux comme on en voit dans les Alpilles: plus de toits, plus de balustres aux perrons, plus de vitraux aux fenêtres, le trèfle des ogives cassé, le blason des portes mangé de mousse, des poules picorant dans la cour d'honneur, des porcs vautrés sous les fines colonnettes des galeries, l'âne broutant dans la chapelle où l'herbe pousse, des pigeons venant boire aux grands bénitiers remplis d'eau de pluie, et enfin parmi ces décombres, deux ou trois familles de paysans qui se sont bâti des huttes dans les flancs du vieux palais.
>
> Puis, voila qu'un beau jour les fils d'un de ces paysans s'éprend de ces grandes ruines et s'indigne de les voir ainsi profanées; vite, vite, il chasse le bétail hors de la cour d'honneur; et, les fées lui venant en aide, a lui tout seul il reconstruit le grand escalier, remet des boiseries aux murs, des vitraux aux

26 DAUDET, A.; *Lettres de mon moulin*, Hachette Jeunesse, 1989, 147. or.

fenêtres, relève les tours, redore la salle du trône, et met sur pied le vaste palais d'autre temps, ou logèrent des papes et des impératrices.

Ce palais restauré, c'est la langue provençale. Ce fils de paysan, c'est Mistral" [27].

Daudet-ek egiten duen irudikatze honetan agertzen diren alegoriak Lizardiren gaztetako ipuin honekin zerikusi zuzena du,oinarrian dauden identifikazioak berberak dira. Lizardik ipuiarekin aurrera jotzen du halere, bere garaian bizi dituen beste arazo batzuetaraino. Baina, funtsean elementu berak ikus genitzake:

1.- jauregia = hizkuntza da, ele-jauregia hitz konposatuaz adierazia.
2.- aintzinatean handikien ibileku (printzeak, enperatrizak, aita sainduek)
3.- gaur egun = artzaiak bakarrik bizi dira han, eta hauek bakarrik ulertzen dute probentzera.
4.- egoera tamalgarrian dauden jauregia eta hizkuntzaren deskriptzioa egiten da.
5.- erreraikitzaile bakartia poeta da.

3.- Alphonse Daudeten narrazio honetan "las feés" dira olerkariari laguntzan datozkionak, eta, beharbada, honen oihartzuna izan daiteke Lizardik *Gure mintzo* olerkian laguntzan deitzen dituen ipuin zaharretako erregingai liluratuak:

"Ipui zaarrak, atozte gogora!
atozte erregingai begizkoak zora
Bazterrean ikus nerea,
ene ta ene asaben oarrezak botea...!"
(GM 25-28, 209)

27 *Ibidem*, 149-150. or.

NERE MATTIAK DITU
edo AXARIA DANTZAN

Zarautz'ar Sabin

Nere maitiak ditu
begiak orlegi...
Neguba biotzan, begiyetan udaberri...
Euzkadi'ko zelai ta
basuen argiyak
margoztu ei-dizkiyo berari begiyak...
Nere maitiak ditu
me-miak ezpañak,
euzkeraz mintzatzeko bakarrik egiñak.
Etzadazute eskatu,
arren, ortzen berri
ezpai-dizkit ozkirri-bidez, erakutsi.
Nere maitiak ditu
beste lau maitale,
ta ni baño geyago edozein du maite!

* * * *

Zenbat maite zaitudan
iñoiz esan dizut?
Kanpandoja ximela baño nayago zaut...!
Bañan zuk neretzako
eztezunezkero
beazuna ta ozpin-garratz-miña baño
nere malkuak-arren
ezpai-nazu maite...
negarra biarrian ein dezadan parre!

* * * *

Nere maitiak ditu
begiyak orlegi...

Bigun ba'litzaizkit biziya udaberri!

1) Nere erriyan esaten da ori, eguzkiyaz-bat euri-zaparra danian (Lizardiren oharra).

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra, *Euzko Deya* 1918-6-16, 57, 4 or.

Ohar metrikoak:

Ahapaldia: neurri txikia 7/6a/14a.
Hamalauko bertsoak 7/6 banatzen da, beraz, ohizko neurri txikiko pareatuez eginik dago olerki hau.

Errima: Pareatua eta azken bokalean oinarritua.

Loturak: Sabino Aranaren arauen arauera, eta lizentzia bakar bat erabiliz: e(g)in (24. bertsoan).

Erritmoa: Bereziki markatua dago "estribillo" moduko batez:

"Nere maitiak ditu... Hasierako hiru ahapaldien hasieran dago eta ritornello modura jokatzen du. 1917ko *Zelai urdiñak* ere badu antzerako baliapide erritmikoa, leloa: "Ni naiz, ni naiz..." delakoa.

Baliapide erritmiko honek jatorri herrikoia duela esan daiteke eta abestien tankera ematen dio olerkiari.

Olerkia isten duen ahapaldian lehen ahapaldiaren egitura osoa errepikatzen du ondorioa izan ezik, eta *Neskatx urdin yantzia*n erabiltzen duen teknika bera da.

Ohar tematikoak:

Maitasuna da gaia, maitasun aitorpena, baina epe honetako olerki gehienetan bezala, guztiz ederra den maiteak, "beazuna eta ozpin-garratz-miña" baino ez du maitalearentzat, eta olerkariaren erreakzioa *Nere lenengo matte-ibilketa* olerkian bezalakoa da, irria.

AMONATXO ZIMEL MAITAGARRIYA

II
(Ipuiyak eztiran ipuiyak)

Zarautz'ar Sabin

Bai-zan ludiyan erri bat, aundiya gogoz, lur eta biztanlez urriya izan arren, iñoizko aldi zoriontsubetan bere burubaren jabe izana, baño nik ezagutu nubanian beste baten menbian zegona.

Jausi-ondorengo aldi luzetxuban bere izakeraz aztuta bizi izan zan, baño beiñ-edo Goi'ko Jauna'k zorigaiztoko orrek ukittuta, seme gorengo bat bidali ziyon, bere antzin- azkatasun-agiriyak erakutsi ta berori berrartu-bidetik bultza biar-ziyona.

Diyodan erri onek ele eder-bakarra zeukan, seme askoek ezezaguna, zoritxarrez, eta baztartzaliak, -erritar batzubek lagun- amorru aundiz ostikopetuta.

Beñola, erri orretako erki-bururik batera juan biarra izan nuban, aldi luzetxuba igaro-asmoz, erki-burubori zan beste erri artakuen artian bere elerik oso galdu etzubana, uri oraindarra polita iñon politik bazan, eta politegiya zalako-edo, arrotzai atsegiñagua bere osotasunari onura zitzayona baño... Neskatilla ta loria ere, noiz eta ederraguak, garbirik bai osorik jagoten zallaguak oi-dira.

Iñulako baten eldu, ta beriala, lendik itunduta neukan bizitetxera jo nuban. Bertako neskatilla gastetxo lirain batek zabaldu zidan atia.

— Agur, polit ori -esan niyon erriyaren elez- Emen da noski, olakuenea...? Ta berak, ulertu bai, baño baita erderaz erantzun ere, egin zidan...

Sartu nintzan, etxeko andera ta bere senarra ezagutu nitun: biyok erritar utzak, euren elia besterik etzekitenak.

Gauzok ikusita, gogoa illundu zitzaidan; eta neretzat gertutako gelan sartu nintzaneko, oyaren gañean exeri ta bide-zorrua azkatzeko astirikabe, goibel-goibel, oldozpetu nintzan. Zenbat belaunaldi (generación) biar-ziran uri artan erri-elia lurpetzeko, ordurarteko euste geyago gaberik, beñipein...? Bat...bi...? Erri-eledunen umiak arrotzena ba-darabilte, gurasuena doi-doyan ulertzen dutela, izan lezakete umien umiak aton-amonen eliaren oroipenik ere...?

Apalorduan etxeko semia etorri zan: onek ere, bai ba! erderaz zegiyen... Orren negargarriya...! Gurasuak euren elez: atzerritarrenaz seme-alabak... Eta ori nenkusala, ele mattagarri aren azken-buruketa nenkusala neritxon, eta, atsekabez areriyuaren gurendea nigarren... Ilko ziran zarrak etxe artan, eta berakaz abenda-elia ere bai...; eta, zenbait etxetan berdin!

Apariya bukatzeko geundela, abots makalaz, erantzunaren beldur denaren antz, asi zitzayon attea semiari esaten, larunbata zala ba, alegiya, ta apalonduan irteten bazuan ere, arren, goiz etxeratzeko, batere ez irtetiari obeto zeritzon arren; urrengo egunian, goiz, jaupa entzutera juan biar-lukela-ta, berak bai-zekiyen ba gerorako lagata zer gertatzen zan...

Bai semiak aguro erantzun lotsagabekiro: etzubala berak jaupa-biarrik eta irtenagatik berriz, ez artegatzeko, goiz etxeratuko zala ta bai ba goizeko irutan edo... Goizago nai ba-zuban orratik...! Eta beste orlako astakeri batzubek esanda, atearen onubari jaramon gabe [28] aundiyaz eta era gaiztoz atia arrapatu ta alde-egin zuben.

Atteak, erdi-negarrez, niganantz begiyak biurtuta esan zidan:

— Ikusi dezun ori azketsi... Amasei urte edo zittun-arte juaten zan jaupara-ta...Arrezkeroztik ordia...!

Ta nik neure burubari:

---

28 Ezin da ulertu.

—Euzkerea galdu... Oittura deunak berarekin batez.

Uritik ata irten nuban txaideko (kaleko) larritasunak ittotzen nindubala. Bai nijuan uri billaldiak ziar, toki gentzatsubetatik; illunabarra zan eta urrun itxasuan eguzkiyak bere suba itzaltzen ziarduben.

Nijuala nijuala, nigan oso barrenduta, usterik ezaz bide-ertzeko arri baten exerita amonatxo zimel bat dakust bekoki matrail eta ezpain zimurtubetan aldiyaren irain- agiriya sakon-askorik zaraman-arren, arenak ziran arpegikera ta begirakun eder-maitagarriyak! Etengabe negarrez zegon gaxua...

— Nor zera...? Nora zuaz...? Zergatik dagizu negar...? Galde niyon.

Eta berak erantzun:

— Euzkerea naiz. Neronen semeak uri eder orretatik botatzen naute, izena bera ere zor ditan uri mattiatik. Negar-egiteko ziyorik bai-det, beraz...

Eta... izontzitsubak legun-legun ziarkatzen zuten itxaso urreztubaren ertzian... gasterik... ederrik... arrorik bere bura zerakusen uriyantz begi bustiyak itzulirik...

— Agur -ziyon, diadar mingots batez,- Agur, alaba eskarge ori...! Eguzki-jaustiaren urregorriyak bilduta, iñoiz baño distitsu, ameskarri ta sotillagua akustan ori...Bai ba! jaurti bai-naun euregandik...nerau! ire apaña itsusitzen niñan orban bakar au...!

Ta ixilune bat eginda, neri berriro bularren zeuzkan lore eder erdi-igartu batzubek erakutsiyaz:

— Ok dira -esan zidan- euzkotarren oittura garbiyak; jaurtitzen nauten tokiyetatik neronekin eraman oi-dittut, ezpai-dittuzte berok ibazi euren ama ezesten duten semiak... orrela zigorkatzen ditu Goikua'k...

* * * *

Ori izan zan gau artako nere ametsa. Naigabiak esnarazi zidan eta amets utza zala igerri nubanian, poz aundi batek bete zidan biyotza.

Baño, geroztik ere, uri-billaldetan nenbillela, eguzkiyaren itzaltze argitsuba ikusten, bat-batez jo izan-dit buruba oldozkun itzaltsu batek...

—Ez ete det iñoiz, esanik nabillela, gau artako amonatxo zimel mattagarriya, bide onetantxe, uritik igeska, negarrez eta bular-gañian lore igarrak daramazkila, aurkituko...?

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra [29], *Euzko Deya*ko 1918koa.

Ohar tematikoak:

Lizardik 1918an "Ipuyak eztiran ipuyak" izenburu orokorraren baitan bi narrazio atera zituen *Jauregi zarra*(1), *Amonatxo zimel mattagarriya* [30]. *Eiztariyak sukaldari* [31] izenburudun irri-jorrazko kontakizuna ere urte berean argitaratu zuen.

---

29 *Euzko Deya*, 1918-7-1, 54, (6. or.)

30 *Euzko Deya*, 1918-1-1, 42, (8. or.)

31 *Euzko Deya*, 1918-12-16, 65, (6. or.)

Izenburuan adierazten duen kontraesanak iragartzen du narrazio hauen tankera, fantasia dira, "ipuiak" dira alde horretatik, baina ez dira ipui huts, irakatsia dute, moraleja gisako bat eta ez dira kontu hutsalak.

Kontakizun hauetan Lizardik bere kezka euskaltzaleari ematen dio adierazbidea. Hizkuntzaren zoriak kezkatzen du, bereziki.

*Amona ximel maittagarria*ren ipuin honek Lizardiren beste zenbait kazetari artikulutan erabiltzen den gaia hartzen du era narratiboan: Zarauzko herrian euskarak daraman atzeratze prozesu azkarra, euskara galtze horrek erlijio eta beste zenbait ohitura "on"ekin duen zerikusi estua, eta belaunaldi batean euskara galtzearen arriskua. Esate baterako, "Zarautz erdelerri" izenburua daramaten hiru artikuluak [32].

Belaunaldi gazteak euskararenganako duen berotasun eskasiari buruzko gaia erabilienetakoa da garaian. Esate baterako, Lizardiren zenbait idazkien "hartzaile" den Mendi-Lautak 1917-1918 urte horietan *Euzko Deya* aldizkarian idazten dituen artikulu erdi-komiko erdi-"pedagogiko"ekin zerikusi handia dute Lizardiren ipuin hauek; ikus, esate baterako, "Zarautz'ko bi zantzail, edo txulo..." [33], edo "Arrotzaliak" [34].

Bietan Mendi-Lautak abertzaletasun inozente samarrez neska gazteei atzerritarren aurrean ez liluratzeko eta euskarari irmo eusteko gomendioa luzatzen die eredu eta adibide komikoen bidez. Lizardik ere arazo bera, gazteek euskarari eta aintzinako ohiturei dieten atxikipen eskaxarengatiko kezka azaltzen du.

Baina gaiaren arruntasunak eta dagoen bertsio bakarra prosazkoa izateak garrantzi gutxikoa bilakatuko luke ipuin hau, "amonatxo zimel maitagarria" eta euskararen identifikazioarengatik izango ez balitz, alegia, geroago *Asaba zaarren baratza* (1930), eta *Euskal Pizkundea* (1932) poemetan berriro erabiliko duen identifikazio bera.

Ez da ezagutzen garai hartako olerkarien artean identifikazio honek prezedenterik duenik, euskara hizkuntza senide arteko harremanen artean identifikatzerakoan "ama euskara" delakoa da hedatuena.

Lizardiren erabilera honen aitzindaririk gertukoena Felipe Arrese-Beitiaren "Ama Euskeriaren azken agurrak" izango genuke, Hego Euskal Herrian ospatu ziren lehen Lore Jokoetan 1880ean Elizondon, lehenengo saria irabazi zuen olerkia, eta gero urte berean Mauleon-en ospatu zirenetan "Bizi da ama euskera" delakoaz irabazi zuen.

Arrese Beitiaren Ama Euskera [35] ere "ama zaarra" da, "antxinako ama Euskera, hainbat gerra goitu ezinda/ amatxo zuaz iltera". Euska Herria dena "gaztelatuta jarria" ikusten duelako kezkaz dago olerkaria. Gero ordea, Arrese-Beitiaren olerkiak Foruen galeraren aipamena egitera jotzen du, eta

"Agur illun bat egin deuskue
Guraso zarren legiak.
Umezurtz batzuk gelditu gara
Billosik foru bagiak
Izan bagiña eurak legetxe
Euskeriaren zaliak
Oso ta garbi gordeko ziran
Oitura ain miragarriak"

(26-34, 17-18 or.)

32 *Euzkadi*, 1929-2-3,10 eta 24)

33 *Euzko Deya*, 1818-9, 58, (5. or.)

34 *Euzko Deya*, 1918-10, 60, (5. or.)

35 ARRESE-BEITIA, F.; "Ama Euskerariari azken agurrak" in *Olerkiak*, Euskal idazleak (Euskaltzaindia), Bilbo, 1956, (2. or.)

Lizardik bezalaxe, beraz, Euskara ohitura onen gordailutzat jotzen du, bai eta foruen guztizko heriotza galerazi lezakeen gauza bakartzat ere:

"Baldin euskera biztzen ezpada
Illtzat daukadaz foruak

(65-66, 18 or.)

Arrese-Beitiak olerki horretan egiten duen Ama Euskararen metaforaren erabileran ez dago garapen alegorikorik, Ama euskara, funtsean maite den hizkuntzari ama izena ematea afektibitatea adierazteko era bat da eta hura dela guri bizia ematen diguna adierazteko era bakarrik da.

Funtsean haren atributu guztiak hizkuntza, hau da figuraren alderdi errealetik datozkionak dira:

Geure erruz bada, ekarri dogu
Eriotzako unera,
Berbeta eder gozo ta leun au
Beste munduko atera;
Norbait ezpada laster minduten
Osasun emotera,
Mundutuik laster juan bear dau
Ama Euskerak bestera

(67- 74, 18-19 or.)

Gernikako Arbolaren oinetan jartzen du "etzinik/ Estu ta larri iya illian/arnasaz bete eziñik (83-84, 19 or.)

Arrese-Beitiak, ama hil delarik, haren semiak izan behar dugun samina kantatzen du. Foruen galeraren ondorengo gaiak darabiltza erlazioan Iparragirrek bezalaxe, baina amaren irudian ez da amatasunaren ezaugarrietan, ez emakume izateari dagozkionetan sakontzen. Ez da metaforaren beste aldean dagoen "ama" delakoaren sentimendu, ez ezaugarrietan sakontzen, nolabait, nagusi dena olerkaria edo seme ohartu bakarraren sufrimendua da nagusi haren olerkietan.

Mauleonen urte berean lehen saria irabazi zuen Arrese-Beitiaren "Bizi da Ama Euskera" olerkiak [36] harreman tematiko estua du Lizardiren *Izotz-ondoko eguzki* 1931ko olerkiarekin. Bietan suma daiteke berriro euskara edo Euskal Pizkundearen bizi ezinaren agonia eta hura salbatzera datorren zerbaitek argituriko haren piztuera. Berriro dago han ere amona gaisoa hilurren, eta Arrese-Beitiaren honetan ere Ama Euskeria bera da hilurren dagoena eta Tubal aitak pizten du.

Beraz, eta Lizardik egiten duen euskara eta amonaren arteko identifikazioa bere berea duen arren, eta pertsonalki bizi izandako harreman baten ondorio, halere, XIX. mendeko eta XX. hasierako poeta erromantiko foruzaleetan landurik agertzen den identifikazio batean oinarritzen da, hiltzen dagoen ama/amonaren sinboloan. Lizardik hezur-gihar gehiago ematen dio sinboloari, errealitatearen zati den hizkuntzarenean baino gehiago ahalegintzen da metaforaren sinbolo alderdiari mami ematen.

Lizardik ziurrenik ezagutuko zituen Arrese-Beitiaren olerki bi hauek mende hasierako giro euskaltzaleetan oso hedatuak egon bait ziren [37].

Jon Juaristik *La literatura vasca* liburuan Arrese-Beitiak erabiliriko gai honi buruzko ohar interesgarriak egiten ditu:

---

36 "Bizi da Ama Euskera" in *Olerkiak*, 21 or. eta hurrengoak.

37 Orixek "Euskal Literaturaren atze edo edesti laburra" in *Euskal Esnalea*, 1927, XXI, (235. or.)

"Au dugu euskaldun poetarik bizkorrena: erritarra, erritik ateria. Irakurtzen ere ez dakiten ardandegiko bertsolariek baino ikasiagoa, ta alere ez landua. Nork ez daki buruz eta nork irakurri ez du biozminarekin "Ama Euskeriari azken-agurrak"? Xamurtasun goxoa, negar-min barnea, iduripen aundikorrak, Jeremias'en eiagorak eta Shakespeare'n aienak berekin ditu, Euskalerrian berdinik ez duen eresi onek".

"Las elegías a la próxima (y a lo que parecía por entonces) inevitable extinción del viejo idioma eúskaro se valieron de un recurso utilizado ya a comienzos del siglo XVII por el apologista Baltasar de Echave en sus *Discursos sobre la Antigüedad de la Lengua Cántabra Bascongada*: la personificación del euskera como madre común de los vascos. Los poetas de este renacimiento - que tomaba progresivamente la apariencia de un definitivo crepúsculo- no cesaron de reprochar a sus paisanos el abandono y olvido en que habían dejado a la madre moribunda. En el certamen de Elizondo, celebrado en 1879, se dió a conocer el poeta vizcaino Felipe Arrese-Beitia (1841-1906), cuya composición "Ama Euskeriari Azken agurrak"(Ultimos saludos a la Madre Euskera), que resultó ganadora en dicha ocasión, contiene ya todos los tópicos en que abundaría la poesía euskérica durante los años siguientes:(...)

Arrese Beitia constituye un caso típico de poeta semi-culto, de formación y estilo marcados por el bersolarismo. Era, en todos los sentidos, un artesano (incluso su oficio -imaginero- lo predisponía, en cierta manera, a una análoga concepción artesanal de la poesía). No obstante, su influencia se dejo sentir entre poetas de condición social e intelectual muy distinta de la suya. Asi, Antonio Arzac (1855-1904), bibliotecario municipal de San Sebastian y sucesor de Manterola en la dirección de Euskal-Erria, reproduce en su poema "Illak gera" (Hemos muerto) los motivos centrales de la elegía de Arrese-Beitia:

Guk: gurasoak eta semeak
gaurko euskaldun erbalak:
Zer erakusten diotegu? Ai!
Non dira Euskal-oiturak?
Eraso beltza ba-datorkigu,
azitzen datoz aurtxoak,
oitura on aek ba-daramatzi
berekin ama gaixoak!

Las invectivas y reproches de Arrese-Beitia no tuvieron efecto sino en el sector de sus contemporáneos más sensibilizado ante la desaparición del viejo orden tradicional y de "los buenos usos y costumbres" de antaño. En otras palabras, suscitaron un intenso sentimiento de culpabilidad y reforzaron unas tendencias regresivas y edípicas, en lo que a la relación con la lengua se refiere, entre aquellos que estaban más dispuestos a dejarse ganar por el desaliento y el pesimismo ante los enormes cambios que empezaban a producirse en la sociedad vasca o, dicho de otra forma, entre los elementos más reaccionarios de la misma.

Pero la época no era propicia para las añoranzas jeremíacas. La industrialización, la proletarización de amplias capas de la sociedad vasca y una inminente ruptura social que ya comenzaba a insinuarse en los grandes centros urbanos, dejaban poco espacio a la nostalgia. Sin embargo, la literatura euskérica no logró desembarazarse de una visión del mundo pasatista y melancólica y perdió así el tren de la historia. Lo pagaría caro, y nunca conseguiría recuperar las oportunidades desaprovechadas [38]".

Lizardik *Amonatxo zimel maitagarriya* deritzan ipuin honetan kontatu nahi duenak gai hau bera du eta ez da bere tesietan gehiegi urruntzen Arrese-Beitia eta Arzaken olerkien gaietatik; halere, Lizardiren sentiberatasun poetikoaren ezaugarri berezia da metaforari gorputz gehiago eman eta bere esperientzia pertsonalaren zertzeladen aberastasunaz hornitzea. Esate baterako, ama amona bihurtu du, eta ez halabehar hutsez, alde batetik, antzintasuna eta zahardadea hobeto ezkontzen direlako edade handiarekin, eta bestetik, bere bizitza pertsonalean amona izan zelako euskararen gordetzailea eta ez ama.

Horrezaz gain, Lizardiren "amona euskara" aldentzen ari da, ez hiltzen, orain aztertzen ari garen ipuin honetan. *Euskal Pizkundea* delakoan bai, hilurren dagoen amona da, *Asaba zaarren baratzan* azken urteetan dago eta *Biotzean min dut* delakoan berriz, hila da, nahiz eta azken honetan amona hori euskararen sinboloa denik zeharka bakarrik suma dezakegun, "El tema del día" in *Euzkadi*, 1929-6-13.ko artikuluan adierazirikoaren bidez. (Ikus *Biotzean min dut*).

1919ko *Amona* [39] poemak, modu pertsonalean garatzen du gaia, harreman pertsonalak eta amonaren nortasuna agertzen ditu haren hil beharraren kezkarekin batean. *Maitea*ren apurñoen artean

38 JUARISTI, J.; *Literatura vasca*, Taurus, 1987, 81-82-83 or.

39 *Euzko Deya*, 1919, 83.alean.

dagoen izen bereko poemak ere amona erreala, afektiboki olerkariaren haurtzaro eta gaztaroari loturiko senidearen nortasuna deskribatzen dira.

Ipuin honetan haren ezaugarri fisikoak deskribatzen ditu adjetibo ugariz. Amona aurkitzen duen unean, larritasunak, kale arteko larritasunak itotzen du. Toki paketsuetatik, herri inguruetatik ("billaldean") dabilelarik, illunabarreko orduan, gainbehera eta melankoliaren orduan topatzen du: "urrun itsasuan eguzkiyak bere suba itzaltzen ziarduben" unean, *Zelai urdiña* poeman bezala hausnarketarako ordua da.

Bidean dihoala "arri baten gainean exerita" "amona zimel bat dakust bekoki matrail sakon-askorik zaraman-arren arenak ziren arpegikera ta begirakun eder-maitagarriak etengabe negarrez zegoen gaxoa".

Ipuin honetan amonatxo, andere zaharren sinonimoa da, Jon Juaristik aipatzen duenez, Baltasar de Echave-k lehen aldiz aipatu, eta gero Arrese-Beitiak eta Arzak-ek olerkietan erabilitako Ama Euskaeraren metafora horretatik hurbilago dago, geroago poemetan bere harreman pertsonalen konnotazioez baliatuz eginiko poemetan baino. Hain zuzen ere, Lizardiren ipuiko kontalariak amonatxoari nor den eta zergatik dagien negar galdetzen dionean, haren erantzuna hauxe da:

> — Euzkerea naiz. Neronen semeak uri eder orretatik botatzen naute, izena bera ere zor ditan uri mattiatik. Negar-egiteko ziyorik bai-det, beraz... Eta izontzitsubak legun-legun ziarkatzen zuten itxaso urreztatubaren ertzian... gasterik...ederrik... arrorik bere buruba zerakusen uriyantz begi bustiyak itzulirik...
>
> —Agur -ziyon, diadar mingots batez,- Agur alaba eskarge ori...! Eguzki jaustiaren urregorriak bilduta, iñoiz baiño distitsu, ameskarri ta sotillagua akusten ori... Bai ba! jaurti bai-nau euregandik... nerau...! ire apaña itsusitzen niñan orban bakar au...!

Bestalde eta euskerari ohitura onak atxikirik doazkion uste hori Arzak nahiz Arrese-Beitiak aipatzen duten era berean, Lizardiren lokamutseko amonatxoak ere bota duten hiritik ohitura onak eraman egiten ditu berarekin:

> "Ta ixillune bat eginda, neri berriro bularren zeuzkan lore eder erdi-igartu batzubek erakutsiyaz:
>
> — Ok dira —esan zidan— euzkotarren ottura garbiyak; jaurtikitzen nauten tokiyetatik neronekin eraman oi-dittut, ezpai-dittuzte berok ibazi euren ama ezesten duten semiak... Orrela zigorkatzen ditu Goikuak...".

Ez ditu Lizardiren amonatxo honek Foruak aipatzen Arrese-Beitiaren "Ama Euskeriaren Azken Agurrak" delakoan egiten duen bezala, aldaketa hau ez da ordea, besterik gabeko baztertze kasuala, Lizardi, Aranaren jarraitzaile denez, eta errealitate abertzale batean eta ez foruzalean kokatzen denez, metaforari alde hori kendu egiten dio.

Juaristik aipatzen duen euskara eta ohitura onen arteko harremana eta euskal kulturaren jarrera nostalgikoaren baitan ulertzen da Lizardiren narrazioa. Baina, 1927z geroztiko artikuluetan sumatzen den jarrera aldaketa ere bereziki azpimarragarria da.

Munduaren aurrean kokatzeko era kulturala Lizardiren helduaroko obretan berariz kontrajartzen zaio nostalgiari eta "Jeremiasen eiagorak eta Shakespeareren aienak" ixuriz malkotan urtzeari.

Lizardiren jarrera linguistiko eta kulturaleetan I. Partean azaldu denez, egoera eta jarrera hori gainditzeko bidean jarri nahi du konszientzia osoz; bere garaian ohizkoak ziren ikuskera modu nostalgiko hauek hausten saiatu zen. Ikus bitez, esaterako, euskara eta ohitura onen arteko identifikazioa gezurtatzen duen "Egia ikus dezagun, ama!" artikulua [40], Bonifazio Etxegarairekiko eztabaida "euskaltzale praktikoa" direla bide, edo olerkari bakar baten obra gurenak euskal literaturaren eta hizkuntzaren salbamenduaren posibilitatei buruz azaltzen dituen ikuspuntu errealistak "Olermen-irakite" [41] artikuluan.

---

40 LIZARDI; "Egia ikus dezagun ama!" in *Argia*, 1930-5-4, 471., 4 or.

41 LIZARDI; "Olermen-irakite" in Euzkadi, 1930-6-1, 5. or.

MATTASUNAREN ILLETEA

Zarautz'ar Sabin

Mattetasun gaxua	7
Iñoiz nik neskatxa bati	8
eskeñitako bakarra...!	8
Jayo-berriyari	7
amaren bularra;	6
bidekatuari,	6
nekez iltzen zala arkitutako	11
abaraska bera baño	8
gozuago izan ziñidan ametsa...	11
Il ziñan gaxua!	6
Il bai...baño illotza	6-7
—obitzat biyotza-	6
nigan dirau oraindik,	7
lurrintsu-ustelgaitza	6
Nere mattetasun-illotz gaxua	11
Iñoiz-bein oroikun mattetsu baten indarrak,	14
—noizpait Josuren deyak bezela-	10
obi-arriya jaso-oi-dik...	8
Ordun dariyok ik	6
bularraren zabalian, atson zoragarriya!	15
Ordun ikusten aut nere mattasun-illotza	14
garbi-eder-ustelgaitza...!	8
Betiko orrela ba'nego,	8
ene-enetxuba...!	6
Ezpa'litz iñoiz obiya itxiko.	11
Bart matte-izan nubena	7
det, ametsetan, ikusi...	8
ta amets onek obi-arriya	9
jaso dit...	3
Geldi! Geldi! neure burubau!	9
eztedin geyago jausi!	8
ildako mattasunaren oroyaz	11
obe bai-deritzot buruboni...!	10
Betiko orrela ba'nengo,	8
ene enetxuba!	6
Ezpa'litz iñoiz obiya itxiko...!	10
Aguro, ordia,	6
jausiko da arriya, ta illun itunak	11
egunoroko illunak	7
nigan bere ego itzalgorrak zabalduko ditu	14
Nere mattetasun-illotz gaxua...	11
al-ba-induket nik berbiztu!!!	8

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra, *Euzko Deya*, 1918-11-16, 63. alean [42].

42 AKESOLO, L. (ed); "Lizardiren gaztetako olerkiak (azkena)" in *Karmel*, 183, 1987(4), (60. or.)

Ohar metrikoak:

Bertso librea, neurriz 6tik 15 bitartekoak, eta tartekako errima bikoitzak ere badira.

Metrikoki *Neskatx urdin yantzia* gogora arazten du:

"Il ziñan gaxua!
Il bai...baño illotza"

Bertso parea *Neskatx urdin-yantzia*n bezalakoa da:

"bira ditut begiak
bira, baina inor ez!
(NUY 71-72, 87)

Ohar tematikoak:

Gaiaren aldetik kutsu erromantikoa, Becquer-en errima eta alegien tankera hartzen zaio.

Ohar literarioak:

Beste zenbait olerkitan bezala, egunaren iluntzean kokatzen du etsipenaren unea. Poema honetan gauaren etorrera psikologiokoa da: "eguneroko illunak/ nigan bere ego itzalgorrak zabalduko ditu". *Maite izaneri* delakoan, aldiz, urretxindorraren azken kantuaz dator gaua, "nere biziko lorategiyan/ udaberriya itzali da..." [43].

43 (*Maite izaneri* 9-10)

MAITEDER ASELIA [44]

Zarautz'ar Sabin

Maiteder,
Maiteder...!
A zan eguzkiya!
A zan ederrenetan ederra!
Izar nagusiya...
Iñularraz aurrena agertzen dan lakua...!

Etzinan
Maiteder,
eusko-neskatillik
eder-bakalduna lapurtuko!
Euzkadi'ko izanik
ederrena, berriz, bai-intzanan ludi guziko...

Etzinan
Aitzarre'k
Lotazila'n biltzen
ire arpegiyaren elurra...
Eztin erakusten
eguzkiyak, goizian, ire illien urria...

Ortziak
bekaitzik
izan al'baliken,
etzinan bere urdiña agertuko,
ez aitortziarren
ire begiyena zala gustiz ederrago...

Oyanan
txoriyen
txiru-lia baño
ire marrubizko ezpañetan
zoragarriyago
euzkerazko mintzaketa bigunak itunan

***

Auxe zan
Maiteder,
Iñoiz, irakurle,
Aitzarre-mendiyan bidekari,
ekaitzaren menbe
arki ba-dek ire buruba, auzotik urruti:
ta ikazkin-
—txabolan,
(zato mardulari,
azaleko buztiya aztu-nayan,

44 Aselia: Leyenda (Bera-López Mendizabal).

zurrut bat... ala bi
kenduta) abitu ba-atzayok ari berriketan ,

naparren
izkera
garden-eresdunaz,
Maiteder'en asele mingatza
entzunik aiz, aujaz,
atako euri-ots naigabetsuaz nastuta...

****

Maiteder
bizi zan
antzin-antziñian
guztiz zoriyontsuba zalarik,
bere biyotzian
ezpai-zeukan Maiteder'ek maitasun-kezkarik.

Beñola
mutil bi,
Urden eta garden,
egun bai ama bateko señak,
neska zerdenaren
ederrak biyurtu zitun bere maitaliak ...

Anayok
alkarri
ixildu ziyoten
biyotzeko berri, maitasunez...
Neskak bai-zekiyen...
¡Emekik sortarazi dun suba igerri ez...!

Maitasun-
—zalantza...!
Maitakari biyak berdinian ziran maitagarri...
Ezin ba, biyotzak
maitasun-anziyau zuzendubez erabaki..

"Berama
zoriyak...!
Ta aitz goren batetik
zabalari buruba damayo,
oyubau jaurtirik:
"Artuko nabanak izango nau beretzako!"

Besuak
zabalik
maitale bizkiyak
basauntzaren ariñak daramaz...
Une lazkarriyak!
Zeñek eutsiko-ote erorki kutuna, laztanaz...?

Maiteder Aize zabalian
ujauzi biyur da. Bizkiyak aitz
aitz nagusipian...!
Maitetasun-azken gorri...! Zori errukigaitz!

Betiko
negarka
diran Maiteder'ek
Bidazkari, bere zilarrezko
negarra ikusi dek,
erruz jariyoten bizkiyai mun-egiteko...?

Ta anayok,
(maiteki,
goldiyo biyurtu
zitzayoten amak laztanduta)
urrundik begiztu
dituk, maitiaren negarra artzen asetzeka...?

Besuak
zabalik,
belaunikatuta,
dirauz beti; ta artzayak diyote
oraindik dutela
maiterik Maiteder, alkar gorrotatugabe.

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra *Euzko Deya*n 1919-1, 66. alean [45].

Ohar metrikoak:

Ahapaldia: 3/3/6a/10B/6a/14b.

Errima: bokale bakarrean oinarritua eta pareatua.

Loturak: Sabino Aranaren arautegiaren arauera zilegizkoak diren loturak bakarrik daude, baina zenbait lotura egiteke uzten ditu.

Ohar tematikoak:

Lehen epeko olerkietan sarritan agertzen diren bi ezaugarri tematiko betetzen dira olerki honetan: lehenik maitasuna du gaitzat, eta bigarrenik, narrazioa da.

Lehenari dagokionez, lehen aroko maitasun gaiaren garapenean zenbait ezaugarri konstante nabarmentzen dira: emaztekia beti da ezin gehiagoko ederra, bere fisikoa goraltzen du beti, aurpegikera elurra baino zuriago, begi urdina, zerua baino areago, illedia urre kolorekoa, ezpainak marrubizkoak... Neskatx urdin yantzian darabiltzan deskriptzio elementurik gehienak agertzen dira

45 AKESOLO, L. (ed); "Lizardi zanaren beste lau olerki" in *Karmel*, 181, 1987 (2), 29. or.

jadanik lehen epeko emaztekien deskriptzioetako konparazioetan, baina adierazteko era pertsonalagoa da eta topikoak diren metafora ezagunetatik aldenduz egiten du.

Bestalde, *Maiteder* olerki honetan izen propioa baino areago da, basoko maitagarri, Agustin Chahoren *Voyage en Navarre* (260. or. eta hurrengoak) delakoan jatorria duen izaki miragarri eta guztiz eder horietako bat dela ere iragartzen du, eta alegi edo ipuinen mundura eramaten du irakurlea, Aitzarre mendian bidekariari ekaitz egunetan kontatuko diote, beharbada.

Bestalde, bigarren ezaugarriari dagokionez, narrazio bat da olerki hau eta bi zati nabari ditu. Lehenegoa maitagarri honen aurkezpena deskriptzioa, liluragarritasuna azaltzen zaizkigu azken ahapaldian izaki mitologikoetako bat dela iradokitzen da. Bigarren zatian, alegia edo ipuina aurkezten da maitasun arazoa konponezina da eta naturaren elementu gisa inmortalizatzen da leia hori: Urjauzia eta hari begira dauden bi harkaitz bilakatu dira maitaleak, hauen ama, berriz, goroldio.

MAITE IZANERI

Zarautz'ar Sabin

Nere gogoko lore bakarra,
nere gabeko izarra...
Samin-eztiya zeran oroya
nere parre bai negarra ...

Nik zu bakarrik maite-izan zaitut
maitetasun bereziyaz:
norbere aurren ama-gayari
zor-zaion gurtze garbiyaz...

Nere biziko lorategiyan
udaberriya itzali da...
Gaba da; illunaz, urretxindorrak
dabes azken-abestiya...

Agur betiko, nik maite-izana...
Bemozu Jauna'k zoriya!
Españak -Maiteizane- deritzu,
biyotzak, baño ... -Maitia!

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra *Euzko Deya*n, 1919-3- 16, 71. alean, [46].

Ohar metrikoak:

Aranaren arautegia. o+i lotura behin egin gabe utzia.
Ahapaldia: 10/8A/10/8A.

Ohar tematikoak:

Erantzunik gabeko maitasunaren gaia, era neurtu eta dramatismorik gabean idatzia.

46 AKESOLO, L.; "Lizardi Gaztearen olerki-mordoa" in *Karmel*, 180, 1987(1), 11-12. or.

AZTU, BIYOTZ ORREK!...

Zarautz'ar Sabin

Biyotz, oroi zar batek ago naigabetuta,
eztiz ta beazunez nastutako oroia...
Maitetasun etzi bat bere gezi zorrotza
eugan sarturik ziok, biyotz maitagarriya...

Oroikun zar eztiyok zauri senda-gabiak
dituk, ta i aiz, biyotza, zauridun zorua...
I aiz bere zauriyak azkazalaz urratzen
atsegiñik uste-dun gaxua lakua.

Bizitz-bide-ertzan lore bigun bat arki-uban
lora ezin, ordia, ebaki izan uban!...
Arrezkero, negarka, sarriyegi begiyak
biyur-dituk, loria berrikusi-nayan...!

Bizitz-bidian, baño, eztagikek atzerantz...
Lore guri-maitia eten eztezakek...!
Arren, biyotz, bidian atzerantz ez begiztu,
biderik zori-onez ibilli nai ba-dek!...

Autzi, biyotz, kemenez, lotzen auan estuntza [47],
lore bai lantzeko estuntza zail ori!...
Indargeturik aukan oroi samiña aztu zak!
Egaztiya aiz: egaka, goyan galdu adi!...

Entzun: bai-dek iretzat beste maitagarririk,
ta beroni zor-diyok eure su guziya...
Aberriya!... Berak dun maitetasun-iorana
ta alperrik dariyoken odol-egarriya!!!

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra *Euzko Deya*n 1919-4, 72. alean [48].

Ohar metrikoak:

14/13A/ 14/13A
Eten finkoa: 7/7// 7/6A
Loturak: Aranaren arautegiaren arauerakoak.

Ohar tematikoak:

Olerki honen amaierak 1926an argitaturiko *Mendi-gallurra* eta *Igesi* olerkiek bezala ihes egin nahia, hegaldatzeko gogoa adierazten dute. Maitasunaren gaiaren tratamendu berri bat nabari daiteke poema honetan, munduko gainerako gauzek dakarten desengainuen arteko bat da eta goragoko joranak, transzenditu nahiaren gaia agertzen hasten da tematikatzat.

47 estuntza: katea (Bera-López Mendizábal)

48 AKESOLO, L. (ed); "Lizardi gaztearen olerki-mordoa" in *Karmel*, 1980, 1987(1), 12. or.

ziñez, gure guraso
Adan eta Ebe...

Noizpait! Gerturik nago!...
Aitaren egin-eta
jo dezadan murgil...
Bat, bi, iru, lau...!aguro!
negu-gabaren otzak
ez nazan bertan il!

* * *

Barrenen naiz ba, jaunak
maindire leun-artian
bilduta, buru-oin..
Sartzerako otzikarau,
baño, bigundu-arte,
arren, pixkat itxoin.

Oraintxe ba, muturra
zerbait atera daiket,
berriketa-jarrai...
Zu goraltzen, oe ori,
logurak autsi-arte
eztet ixildu-nai!

A nolako kertenak
gabaz kalerik-kale
ibiltzen diranak!
Arkiko al-dituzte aal
jostorratzez josirik
iñoiz beren oiak!.

Atan aizia dabil
aserre... Noski!..Berak
ortik ezpaitauka!
Leyuan txingor-otsa
da, neri lua, nunbait,
galerazi-bila...

Lan gaitza, gaitzik ba-da!
Atako giro txarra
lotarako onena;...
seaska utzi genduban
aur polit-azitxuon
"Lo-lo" biguñena...

Biyar?.. Gogapen txarrok
urrun! Egun banari
gau bat darraikiyo,
egiñaz atsartzeko,
ez eginkizunarren
kezkatzeko, baño...

Ta... irakurle maitia,
laburrerako oraintxe

dituk ene guraso
Adan eta Ebe!

"Aitaren"
murkil

Orra barruan, yaunok
artean

Sarrerako otzi-ikara
baiñan, samurtu arte,

,maitea,

ez dut ixildu nai.

Ai, nolako zoroak
gauez kalerik-kale
ibili oi-diranak!

asun miñez beterik

Atean aize latza
dabil, aserre ...Noski!
oirik ezpaitauka...
Leioan
loa , nonbait

bada.
Ateko

ustu genduan
samur-azitxuon
llo-llo

Biar

darraikio

orde, kezkatzeko.

maitea,

berriketan nazu...	nuzu...
Begiyak itxi zaizkit...	Begiak
burutzarrau moteldu...	burutzar au
arnasa bakandu ...	arnasa ba...kan...du...
Ames-dagit, oyanan	Ames dagit, basoan
il naula, irriparriaz	il nauela, parreaz
maitagarri batek;	
ta, iletia, gozaro,	ta, gozorik, illeta
abesten didatela	
berreun-mila lorek	
...Ames dagit nautela	
tximirritak eortzi	tximirritek
abaraska baten;...	
ta, illobiya, lasairo	illobia, lasaki
ta ixilka, ari naizela,	
parra-parra jaten...	
...Ames...Baña ¿Zer dantzut!	Baiña
irakurle gustiyok	guztiok
zurrungaka lorik!?	
Nere neurtitzok orrein	orren
lo-erazle bizkorrak	
uste ez nun ziranik.	
Beraz, gabon, mutillak...	
Baño! ¡Nere burubau	buru au
ezin lei burutu! yas...!	nola burutu?
Oe-sumatzalliaren	Oi-asmatzaillearen
aldez agindutako onez	
Aitaguria aztu!	"Aita-gurea"
Gizajo ori, ordia,	Gizagaxoa..., noski,
otzan-onutsa, noski,	on-utsa bide zanez,
zanez, goyan dago...	zeruan aal-dago!
nere Aitagurien	"aita-gureen"
biarrik, beraz, eztu,	bearrik, beraz, ez du
agiyan, izango...	alegia, izango.
Gauzok orla dirala ala	
utzi dezaket Aita-	laga dezaket "aita-
guria biyarko... gurea"	biarko...
Atan, euriya..., otza...	Atean euri-otsa
aize-zotin luziak	aize-zotin luzeak
Agur... Da gi...dan looo...	lo..o..o

OHARRAK

Bertsioak:

Bi, lehenengoa Euzko Deyan, 1919-4-16, 73. alean 21-31 or.[49], eta bigarrena, *Biotz Begietan* 1932an argitaratua, 1919ko dataz.

49 AKESOLO, L. (ed); "Lizardi zanaren beste lau olerki" in *Karmel*, 181, 1987 (2), 27. or.

Ohar metrikoak:

Ahapaldia: 7/7/6a/7/6/6a.

Loturak eta lizentziak Sabino Aranaren arautegiaren arauerakoak.

Bigarren zatian anaforak (Ikus III Partean "1.4.5. Beste zenbait baliapide erritmiko".

Ohar tematikoak:

Narratiboa eta deskriptiboa, 1919ko *Idazkiya*ren taxuera farregarri bera du, baina baliapide erritmiko eta metaforiko "lirikoagoaz".

Neskatx urdin yantzia eta 1919ko *Euzkera Sarkundia* poemetan bezala, ametsen bidez sarrerazten ditu irudiak, gero errealitatearekin kontrastatzen dituelarik eta sorpresa efektua bilatuz.

IZARKITAKO SUBA

Zarautz'ar Sabin

Neskatxa bat
maite nuban,
ederrago
Orril-goiza baño...
Maite nuban...
Berak... ¡iñoiz!
bai-nun uste
ote-nindun maite!
Ala uste nun ...
Bai-ziteken
egiya izan...
Bai-ziteken..., baiñan!
Ezpai-geziz
biyotza bein
arkitu nun
odolez, zauridun...
Ezpai-geziz...
Uste-izan nun
ez nindula
maite, len bezela!
Ez nindula
maite!... Jauna...
Zuri ordun
maitasun au nizun
eskeñi... Bai...
Ongi naroi...
Itz abekaz,
negarrez ta gabaz:
—Arren ito
biyotzian,
maite ezpa-nau,
maitetasun-gar au!...

***

Zenbait bider
berbiztu zait
maite-garra
itotzat neukala!
Zenbat bider!
Biyotzaren
oroimena ...
Il besteko zaila!...
Ai, oroitzapen
deunatzai lez
mun goguak
ein oi-dizutenak!...

Auts otz-pian,
igertzeka,
bai-ziraudan
txingarrak, bularran...
Ta, maiz, zubek,
oroipenok,
autsa astintzen
arkitu zinduzten...
Ta, iñoiz, iltzat
jo nun subak
ustegabe,
berriz nindun erre!...

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra, 1919-7, *Euzko Deya*, 78. alean [50].

Ohar metrikoak

Ahapaldia: 4/4/4a/6a

Errima: pareatua eta azken bokalean oinarritua.

Bokale-loturak: Aranaren arauetako diptongo loturak.

Lizentzia: e(g)in.

Ohar tematikoak:

Aztu, biyotz orrek! olerkian bezala, zapuztutako maitaleak Jaunagana itzultzen ditu begiak.

Ohar literarioak:

*Neskatx urdin yantzia*ren teknika erritmikoetako batzuk nabari dira olerki honetan (Ikus III. Partean "1.4.5. Beste zenbait baliapide erritmiko".

50 AKESOLO, L. (ed); "Lizardiren gaztetako olerkiak (Azkena)" in *Karmel*, 183, 1987 (4), 62. or.

GAIZTUEN ITZALA

Zarautz'ar Sabin

Eguzkiyaren
goriyari igestiarren,
baso-basuan
bidazti ona bein baten
babespetu zan.
Zetzala, txori bat duar,
adarrik-adar,
ixil-urduri
kabira-yoranez, noski,
arra ba'takar...

— "Ez gaitzik uste..."
(legun diyotsa
gizonak errukituta)
— "Uake, maite
kabira, bildurrikabe"
— "¿Nun dan ikasi
ta gero lapurtzeko?"
— "Ezetz, ba, txori!"
— "Ua, ba, ta urrun,nik ori
ziñistatzeko..."

****

Gizonak, zutitzen zala,
leundo diyo:
— baten gaiztua
edonun aski, galtzeko
eunen izena!.."

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra, 1919-7- 16, *Euzko Deya,* 73. alean [51].

Ohar metrikoak:

Ahapaldiak: 5 eta 8 silabako konbinaketa diren bertso-lerro kopuru ezberdineko ahapaldiak.

Errima: bokale bakarrean onarrituriko errima zenbait badira, baina finkotasunik gabe.

Loturak: Sabino Aranaren arauak betetzen ditu.

Ohar tematikoak:

Maiteder edo *Aldakeri* bezala, moraleja edo irakasken morala duen ipuietan, alegietan izango luke poema honek ere jatorria. Hiruretan ipui gisako bertsioa iritxi zaigun bakarra *Aldakeri* da.

51 AKESOLO, L.(ed); "Lizardi gaztiaren olerki-mordoa" in *Karmel,* 180, 1987 (1), 14. or.

EUZKERA
SARKUNDIA

Zarautz'ar Sabin

Gizatza [52] jaiotako gabaren goiz-aldian,
ames-itxaso-ziar egazti zuriya,
soinge nabaitu nuban burubau, jakin-ezik
nundik ertena nintzan, ez nora niñuan.

Egun-urratziaren argiskak ikutua,
noizpait igerri nuban urrunen legorra;
ta arrigarri-susmuak bultzata, aruntz zuzendu
nuban ames-itxasoko ontzi zorakorra...

Izan ere lur aren itzalak, goitik bera,
zillar-une garbi bat, argiz, zerakustan,
bat-batez sutu zana, diztir lilurakorraz,
aurrez-aurre eguzkiyak muga autsi zunian.

¿Zer zan?... ¿Aujaz, urrungo atsegindegi [53] baten
emeder-soinbiango aintzindariya: ala
Sarkaldetik arrorik eguzki Sorkaldarra
goitu-leyaz zetorren eguzki berriya?...

¿Ez ote-zan, agiyaz, nik nekusan unia
Urtzi'ren begizkuntza zetzan lur-unia:
ala burestunetik eten zitzakiyoken
izarrik sortutako tximist egokorra?...

¿Zerek zelai urdiñan itxasozti [54] gaxua
maite-begi-argiyak ainbat zeraroran?...
Itxon... Nere ontziyak, nere egazti zuriya,
yoran esigaitzaren lasterrak zeraman ...

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra, , *Euzko Deya*ren 80. alean, 1919-8-1ean argitaratua [55].

Ohar metrikoak:

14/13A/14/13A ahapaldia.

Beste zenbaitetan 7/7/7/6a/7/7/7/6a ahapaldi bera da, baina grafikoki etena adierazi gabe.

---

52 Gizatza: Gizadia

53 Atsegindegi: Paradisua.

54 Itsasozti: Marinela

55 AKESOLO, L. (ed); "Lizardiren gaztetako olerkiak (Azkena) in *Karmel*, 183, 1987(4), 63. or.

Araua metrikoak: Sabino Aranaren arautegiaren arauerako loturak.

Ohar tematikoak:

Ametsezko itsasoan zehar doan nabigatzaileak urruntasunean ikusitako lurraldearen gaiaren lehen formulapena aurki genezake Lizardiren poema honetan.

Gure Mintzo olerkian aurkitzen den itsasoaren eta lur urrun eta berezi baten aipamena, haruntz jotzen duten usoak... Irudien mugagabetasuna modu beretsuan adierazirik daude bi poemetan eta gaia berbera da. Olerki honetan izenburuak iragartzen duen urruntasunean olerkariak ikusten duenak zerikusia du euskararen berpizkundearekin, baina 1931ko *Gure mintzo*n sinboloak gardenagoak dira.

Ene ustez gaia berbera da: *Gure mintzo*n adierazten duen legor hori, Pizpundearen ondoko Euskadi da:

> "Itzuli zetozen aapaldiak;
> itzuli zetozen nere uso txuriak
> Aberriarentzat damesgun
> legor gizenetik, yai-ostoa lagun..."
>
> (GM 45-48, 211)

*Gure Mintzo*n mugarik gabeko itsasoan doan mariñelak Bibliako dilubioan legorraren bila dabilen Noeren tankera hartzen du, berak bertsoak, uso txuriak hegaldatzen ditu ea etorkizuneko lur horren basoetako ostoak ekartzen dizkioten.

Euzkera Sarkundia poeman olerkaria bera da hegaztia eta itsasoztia "amets-itxaso-ziar". Olerkariak lurralde hartan ikusten dituen gauza harrigarriek Bibliako profetek zituzten bisioen tankera du hein batean:

> "Izan ere lur aren itzalak, goitik beera,
> zillar-une garbi bat, argiz, zerakustan,
> bat-batez sutu zana, diztir lilurakorraz,
> aurrez-aurre eguzkiyak muga autsi zunian".

Lizardik hurrengo ahapaldian aipatzen duen "atsegindegia" paradisuaren beste izena da, eta "soinbiango emeder aitzindaria" lurralde hartako lehen ordezkari miragarria.

Ametsen itsasoan zehar doan olerkariak pertsonifikatu duen Urtziren, euskaldunen jainkoaren begirada dagoen unea ote den ere badago, edo haren koroatik heldu zaion izpia.

Olerkiaren egitura ere interesgarria da eta sarritan erabilia: lehenik aurkeztu egiten du arazoa, bigarrenik azalpen posibleak aurreratzen ditu itaunen bidez gehienetan, eta azken ahapaldian argitu egiten du korapiloa.

Beste zenbaiten artean, *Neskatx urdin yantzia, Oia* olerkietan bezala, Lizardik azken ahapaldian, ametsetako lilura hautsirik errealitatearekin egiten du topo:

> "Itxon... Nere ontziyak, nere egazti zuriya,
> yoran esigaitzaren lasterrak zeraman".

Menderatu ezin duen nahikari, gogo sutsuak eraman du, joranaren lasterrak, korronteak erakutsi dio lurralde hura olerkariari.

Neskatx urdin yantzia edo *Sagar-lore* olerkietako eskema bera da, eta ametsen lasterra gelditzeko erabiltzen duen formula *Oia* olerkian bezalakoxea da. Baina lehen bi horietan amaiera argigarriagoa da, eta bereziki *Sagar-Lore* delakoan sortutako irudiek edertasun konparaezina dute.

IDAZKIYA

(Mendi-Lautari)

Zarautz'ar Sabin.

Ai "Mendi Lauta"
aizkide ona
ta adar jotzalle
bikaña...
Bai-nitxekiyan
asto nitzala:
txori nitzanik
ez baña!...

Ia uste orretan
bizi-izan-arren
eniyan poza'
makala,
gogoratzian
astuak ere
zerbaiterako
dirala...

Gaur, bat-batian,
ille zakartzat
nitxeuzkan luma
bigunak
arropuztuta
jarri zizkidak
ire zuritze
legunak.

Baña, gauz batek,
Txomin neria,
gustiz samindu
natxiok...
Alkondara-utzik
leyoratzia,
Txomin, egoki
etziok!..

Su-kanpayarren
ba'litz e... tira!
eztiyat ezer
esaten...
Baña asto bat
ari dalako
entzun-aldi bat

ematen?...
Alde batetik,
aize gaiztua...
Bestetik, aujaz...
!auxe bai!...
atso goiztarrik
auzuan ba-dek
berritsukeri-
—gairik-zai?...

Ez, Txomin txiki...
Alkondara utza
gustizko jantzi
motza dek
ta i bezelako
zaldun benari...
etzegokiyok
orretxek!

Zer?... Txorkatillak
ukutzeraño
bai-dala ire oi-
—atorra?
Ortaz, Pilipa'k
berriz e, jaitan,
erreko al dik
txokorra!

Baiña, jolasak
alde batera,
ezin gerraikek
onela...
Ala ik oitura
txar ori laga...
ala ni ixildu
bestela!...

Zergatik nagon
galdetzen didak
ain luzaruan
ixilik:
nere lagunoi
adirazteka
bizirik naizen
ala illik?

Txoriya ba'nintz
esango nikek
kayolpetuta
nagola,
lanaren neke
nagigarriya

dalarik nere
kayola...

Ta kayolpeko
txori lotubak
eztik abesten
egundo
azkiak ainbat
sarritan... ezta
basuan bezin bigundo!

Txoria ba'nintz
esango niek
zelai kutun bat
neukala,
ta antxe bakarrik
abestutziak
pozik ematen
zidala...

Bein, ekaitz batek,
ego-ekaitzak,
zelai orixe
jo ziyan,
ta ango txoriyak
igesi ziyen
urrun, egada
biziyan ...

Baña, zelayan
aize zakarrak
baretu diran
garayan,
berriz txoriyok
pozaren-pozez
batzartu dituk
zelayan...

Esan-biarrik
eztiyat, noski,
nungo zelaya
dan ori...
EUZKO-DEYA dek...
Naiko bidertan
izan aiz bertan
eori...

***

Agur... Bai-niak,
onenbestez ba
jardun al-diyat
naikua...

Ta nere otsik
entzutiarren,
ez geio iriki
leyua.

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra, 1919-8-16, *Euzko Deya*n, 81. alean argitaratua [56].

Ohar metrikoak:

Ahapaldia: 5/5/5/3a/5/5/5/3a.

Neurri nagusia eta errima pareatuaren idazkeran bostekoaren ondoko hemistikoa adieraziz.

Bokale loturak: Sabino Aranaren araudiaren arauerakoa, eta lizentzia bakarraz: "aizkide".

Ohar tematikoak:

Narratiboa da lehen epeko beste hainbat olerki bezala, baina gaiez, taxuz eta moldez *Oia*ren antza du, umoretsua, erraza...

*Euzko Deya*ren bidez lagunei zuzenduriko bertsoen tankerako honek, "Eiztariyak sukaldari"[57] narrazioaren eitea du, lagunarteko txolartetarako txantxa gisa idatzia.

---

56 AKESOLO, L. (ed); "Lizardi Gaztearen olerki-mordoa" in *Karmel*, 180, 1987(1), 6-15 or., (14-15 or.) Lino Akesolok dioenez, "Zarautz'ar Sabin"ek, *Euzko Deya*ren 80. alean Mendi-Lautak idatzi zion "Ixildu da txori abeslariya"ri erantzunez idatzirikoa da.

57 in *Euzko Deya*, 1918-12-16, 65. alean.

GASTIAREN OTOITZA	GASTEAREN OTOIA
Zarautz'ar Sabin	Txolarre
1918	1925
Jauna, nere otoitzak,	otoiak
arren, entzun itzazu...	
Gogo neketuari	
eman,arren, gentza...	
Osertz-illuna autsita	
gaban izar bat jarri...	gauan
Eguzki-izpiz argitu	
nere etorkizuna!	
Ongi nekiyen, Jauna,	nekien
umetan ikasita,	seaskan
zuk dezula bakarrik	
pozkidaren giltza:	
Iñoiz aztuta ibilli	ibili
ba-naiz, azketsi, Jauna:	
gaur bai-nator, eztiya	
billatzen Zu'gana...	
Zaurituta, gaxorik,	
gasterik nekatuta,	gazterik
listor-eztiz aseta	
samiñez gogua,	gogoa
zeure eztiya nai-det	Ezti zeurea nai-det
ezti goitar-gozua,	
ludiko loriena	
ez bezelakua...	bezelakoa
Nere udaberriyaren	udaberriaren
egunik gozuenak	gozoenak
ega zaizkit, usteta	
betiko nitula...	
Eta ametsak etenda,	amesak
zimelduta loriak,	
arkitu det gogua	
goizegi zartuta...	
Bizitzako bidia	bidea
arantzezkua dala	
igertzen asten geran	
bide unian nago...	unean
Atzian..., lore etenak	Atzean
estalita bidia; bidea	
Aurrez..., goya beltzago	goia
negu-gaba baño ...	gaua
Ta illunpian ¿nora da	illunpean
bidiaren txurizka?	

Arren, zein da ta, Jauna
nun nere bidia?..
Osertz-illuna autsita
gaban izar bat jarri
zazu... Ta, arren, argitu
nere etorkizuna!...

NERE BIDEA

Oarrak:

otoia, otoitza:orazioa
gogo: anima
gentza: pakea
osertz: ortze-ertz,
ortzi-ertz
zeru-ertz
(horizonte)
azketsi: barkatu
zauritu: eritu
ludi: mundua

OHARRAK

Bertsioak:

Bi ezagutzen dira: lehena *Euzko Deya*n, 1918ko irailean, 82. alean argitaratua [58], eta bigarrena izenburua aldaturik, 1925-6-12an *Argia* astekariaren 221. alearen lehen orrialdean argitaratua.

Ohar metrikoak:

Ahapaldia: 7/7/7/6a/7/7/7/6a.

Sinalefa loturak Aranaren diptongo arauen araueraakoak dira. Baina 1918kotik 1925ekora aldaketa bat suma daiteke:

"zeure eztiya nai-det" > "ezti zeurea nai-det"
Zazpi silabakoa izan dadin eragin du ordena aldaketa.

Erritmoa: Lehen eta azken ahapaldietako bigarren parteak, lelo baten moduan, gaztearen otoitzean dagoen eskaera nabarmenerazten du. *Biotzean min dut* olerkian bezala, lelo hori aldatu egiten da, ez da hitzez-hitz berdina.

Ohar tematikoak:

Ohargarria da olerki honek darabilen gaiaren iraunpean, bilaketa, Jainkoari seinale baten eskea azpimarratua dagoela bigarren bertsioan: "NERE BIDEA" hizki larriz agertzen da bigarren bertsioan. Desengainoa, bilaketa, ihes egin nahia eta gisako gaien nagusitasuna nabari den epearen hasiera markatzen dute olerki honek eta *Euzkera Sarkundia* delakoak.

58 AKESOLO, L. (ed); "Lizardi gaztearen olerki-mordoa" in Karmel, 180, 1987(1), 6-15 or., (13 or.).

AMONA

Zarautz'ar Sabin

Amonatxo bat bakarra daukat
iñoiz ez lukena il biar...
itzaltzen, baña, bai-dakust eta
barrenak dagidat negar...

Antzin-Orain-arteko zubiya,
ai, zenbatzutan zu-bidez
egun urrunen, egun obien
usaiya aitu det, yoranez!

Orri oridun idazti zarra
zera, ta zugan billobak
ia, zenbait ipui billatu ditun
eztitasunez betiak!

!Au neke latzak! ¿Zergatik-ete
biyotzak dagidak negar?
!Amonatxo bat bakarra daukat...,
ene! !ta berak... il biar!

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra, 1919-9-16an, *Euzko Deya*ren 83. alean argitaratua [59].

Ohar metrikoak:

Ahapaldia: 10/8A/10/8A da.

Errima azken bokal+kontsonantean oinarritua.

Erritmoa: *Biotzean min dut* olerkian bezala lehen ahapaldia eta azkena berdinak dira, baina kasu honetan ordena aldaturik du, gaiari azken muturrean intentsitatea ematearren.

Ohar tematikoak:

Biotzean min det eta *Euskal Pizkundea* olerkietako gai berbera darabil.

1919ko poema honek jadanik amonarengan sinbolizaturik du iraganaren eta geroaren arteko lotura: "zubia"ren metaforak adierazten du, *Asaba zaarren baratza* delakoan "lokarri zaarra"z metaforizatzen dena. Bestalde, tematikoki, *Euskal Pizkundea* olerkiarekin loturik dago: amona bera edo hark izekitako sua olerkariarentzako "ipuin zaarren", "erriaren pitxien" iturri da. Gaiari buruz, ikus, 1918ko *Amona zimel mattagarria* ipuinaren ohar kritikoa.

59 AKESOLO, L. (ed); "Lizardi Gaztearen olerki-mordoa" in *Karmel*, 180, 1987(1), 13. or.

OTOITZA

Zarautz'ar Sabin

Gurutzian
zakusagu
Jauna, geronek ilda...
gure eskubak
irain dute
Goiku'aren Semia!...

Garbai 60 gera:
Betorkigu,
Jauna, zure laztana...
alperrik il
etziñan-ta
Besuak zabalita!...

Ta gerekin
aberri au,
gure Euzkadi kutuna,
zai-zazu gaur,
jun gaitian
biyar Goi-Aberrira!

OHARRAK

Bertsioak: Bakarra, *Euzko Deya*n, 1919-11-16an, 87. alean [61].

Ohar metrikoak:

Ahapaldi klasikoaren idazkera berria dirudien 4/4/7a/4/4/7a.

Loturak: Sabino Aranaren arauak betetzen ditu.

Ohar tematikoak:

Jaun errukitsuboi eta *Gastiaren otoitza*ren linean dago olerki honen tematika, Jaunagandik urrundurik ibiliz geroko damua eta barkamen eskaera.

Otoitzaren gisako eskearen artean norberaren alde ez ezik, aberriaren aldeko laguntza ere sarritan agertzen da gai bezala. Sabino Aranaren eragina nabari daiteke gai erlijiosoa eta abertzalea batzen dituzten eta otoitzaren taxuera hartzen duten olerki hauetan.

60 Garbai gera: damu gara

61 AKESOLO, L. (ed); "Lizardi zanaren beste lau olerki" in *Karmel*, 181, 1987(2), 32. or.

IGESI

1919 Euzko Deya	*1925 Argia*
Zarautz'ar Sabin	Txolarre
Beñola, uxo bat, nere amesen goi urdiñetik jetxita, otzan-otzanik geldi zitzaidan zabaldu niyon eskuban.	 nion eskuan
¡Aren ederra..! Biyotz-Biyotzez maite-izan nuben bertatik... ¡Ai, nere pozaren poza berak izan ba'nindu maite ni...!	 nuben , berak Ala ba'nindu maite ni!...
Baña, bat-batez, atsedenduta, zabaldu zitun eguak, eta amesezko zabalaz-ziar arin ostendu zitzaidan...	 egoak zabala-zear zitzatan
Nere amesen urtza, arrezkero urdingetuta goibel da, ta nerau beti geldi-geldirik urtza-mugari begira.	ortzea, geroz ta ni betiko ortze-mugari
¡Uxo txuriya...! Berriz atorkit, arren, ames-goya urratzen...! ¡Ai, lur aztun au ezin-utziya...! ¡Ai, ba'neki nik egatzen...!	Uxo lazatana, berriz ezin-utzita!
	Oarrak: atseden: deskantsua ostendu: ezkutatu (desapa.) Ortze: zerua (firmamento) Urdingetu: urdin-gabe-tu.

OHARRAK

Bertsioak:

Bi ezagutzen dira, lehenengoa, *Euzko Deya*ren 88. alean, 1919-12-1ean [62] eta bigarrena, 1925-7-9an argitaratu zuen *Argia*n.

Ohar metrikoak:

Loturak Aranaren araudiaren arauerakoak.

62 AKESOLO, L. (ed); "Lizardiren Gaztetako olerkiak (Azkena) in *Karmel*, 183, 1987(4), 64. or.

Ahapaldia: 10/8a/10/8a.

Errima: azken bokalean oinarriturikoa, azkenekoa izan ezik.

Ohar tematikoak:

Gaiaren aldetik ihesi joan nahiaren gaia du olerki honek *Mendi gaillura/Mendi Gaiña* poemak bezala, ametsezko zeruetan zehar eskapo egiteko gogoa. Esan liteke kronologikoki garai beretsukoak direla poema hauek Lizardik *Biotz-Begietan* jasoriko *Mendi-Gaiña*ren bertsioa 1920an datatzen bait du. Nolanahi ere *Argia*n 1925ean biak argitaratu zituen *Gaztearen otoia*rekin batera. Hirurak bilaketa, zalantza, eta ihesi joan nahiaren adierazle dira.

Lino Akesolok ortografia aldaketa dagoela ohartzen du 1919ko olerki honetan. Euskaltzale Bazkuna-koen ortografia utzi duela dio, beraz alde horretatik ere, aldaketa giroan trantsizioan dago.

Ohar literarioak:

Azpimarragarria da olerki honen amaiera eta *Mendi-Gaiña* olerkiarena oso kidekoa dela, ideia bera eta bietan esklamazio bidez adierazia, baina *Mendi Gaiña* olerkian lehen ahapaldian ere errepikatzen du. 1919ko beste zenbait poemetan, *Nire maiteak ditu, Amona* delakoetan saiatzen ari den poema egitura zirkularraz baliatzen da azken horretan.

MENDI GALLURRA

Txolarre

Maite ditut gallurrak
Argiak ez beste...
Ai, egaztia ba'nintz,
Gañik-gain nenbilke!...

***

Ai, udaberri-goizez
Mendiaren gallurra!..
Ai, aren amesezko
Zorakortasuna!...
Zein ezkutuzko indarrez,
zein atseden-egarriz,
zein gorago-joranez
Narakark igana?...

Egiz, maitagarriak
Dituk ire basotan?
Egiz dek asnaskai bat
Ezilkortzen duna?...
Egiz, eguzkiaren
Lendabiziko muñaz
Sortzen dek zorunaren
Lore ezezaguna?...

Nik amestan bezela
Ete-aiz, mendi gaña?... ote-
Goi-jauregiko malla?
Gotzonen urbilgo?...
Egiz, Jaun-goikoaren Yaungoikoaren
Esku ta aunditasuna
Ete-dituk an goitik
Nabaitzen bertago?...

Ire goi urdiñaren
Urre lañotsupean
Beko txikerkerion
Azkaia ba'legok,
Arren, aizkide urruna,
Otoi, mendi maitea,
Negar-aran beltz oni
Kendu nazakiok!

Maite ditut gallurrak,
Argiak ez beste...
Ai, egaztia ba'nintz,
Gañik-gain nenbilke!...

MENDI-GAIÑA

Lizardi'tar Xabier

arnaskai

ote-
sumatzen

adiskide

1925 *Argia* Oarrak:
yoran: nahi edo gurari bizia
asnaskai: asnas-gai
zoruna: zoriona
amestan: amesten, amestutzen auten
gotzon: aingeru
urbilgo: urreko (cercanía)
azkai: aztu-gai
Urrun: urruti (urbil-urre bezela)
Arren Otoi: faborez

OHARRAK

Bertsioak:

Bi ezagutzen dira 1925-9-17an *Argia*, 213. alean argitaratua eta 1932ko *Biotz Begietan*goa.

Bi bertsioen aldeak hiztegiari dagozkio batez ere, izenburutik hasirik, baina alde ortografikoak ere badira, bere olerki guztien lehen bertsiotik 1932kora aldatu zuen j>y grafiaz gain.

Ohar metrikoak:

Ahapaldia: Lizardiren olerkietan erabilienetako bat 7/7/7/6a/7/7/7/6a.

Loturak: Sabino Aranaren araudia betetzen du eta bertsio batetik bestera lizentziak gutxiago erabiltzeko ahalegina suma liteke: naba(r)itzen jarri beharrean sumatzen dago *Biotz Begietan*go bertsioan.

Eta silaba bat gehiago ateratzen bazaio ere "aizkide"ren ordez, adiskide idazten du.

Erritmoa: Kanta erritmorik markatuena duen bigarren epeko olerkietako bat da, bereziki nabarmenak diren baliapide erritmikoez hornitua dago.

Hasiera eta amaierako esklamazioek 1919ko *Igesi*ren amaiera gogoratzen dute, eta ez da harrigarri bigarren epe honetan, Txolarre izenpea darabilen honetan olerki hura berriro argitaratu izana *Argia* aldizkarian *Mendi gaillurra* olerki hau bezalaxe. Ikus III. Partean, 1.4.5. "Beste zenbait baliapide erritmiko".

Ohar tematikoak:

1919ko olerkietako bertsio berriak diren 1925eko *Gastearen otoia* eta *Igesi* olerkien bidetik jotzen du tematikoki olerki honek ere: "izkutuko indar" batek, "yoran esigaitzak" darabil olerkaria, ihesi joan nahirik eta gorago jo nahiz darama.

Bestalde, hirugarren epean, helduarokoan ere konstantea izango den sinbolismoa agertzen da olerki honetan: Lizardik gailurrak maite ditu eta gainik-gain ibiliko litzateke hegan egin ahal izango balu. Naturaren mailaketan bere barrenak eskatzen diona ahalik eta mailarik altuenera jotzea da eta gora-nahi horrek perfekzio izpirituala eta morala errepresentatzen du: goi maila horietan bere egonezinaren asegarria bilatzen du, dibinitatearengandik hurbilago egotea.

Lizardik zerurako edo mendi gailurretarako nahia, mendi gainetarako zaletasuna eta hegaztien askatasunaren eta arintasunaren goralpenak egiten dituenean zorionari hurbiltzeko lehia pertsonala, grabedadearen eraginetik aske dauden izakien mogimenduaren atsegintasunean gauzatu ohi den perfekzio izpirituala eta morala sinbolizaten du, mundu osoko sinbologian naturaren elementu horri,

zeruak eta lurrak bat egiten duten gune horri munduaren hasieraren eta ardatz izatearen baloreak eratxekiz [63].

63 Ikus CIRLOT, J.E.; *Diccionario de símbolos*, Labor, Barcelona, 6º arg., 1985, 308-310. or.

UDAZKEN

Lizardi'tar Xabier

Osto igar bat aizeak
biali dit leioraño...
Galena ala, biziak
dakar, giza biotzaganaño.

Iñara-talde urdiña
erbesterutz bai-diyoa
Alatsu urre-ametsak
lagatzen dute giza-gogoa.

Ez bekit biotzean
Yauna, osto'orririk yausi!...
Ez, iñara taldeok,
otoi! neri gogotik igesi...

Iraun, udaberria
betiko nere gogoan,
Yauna ta aberriari
eskeintzeko loreak ditzadan.

Idazlearen oharrak:
galen: desengaño
iñara, enara: golondrina

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra, *Euzkadi*n, 1926-11-3an, (1. or.)

Ohar metrikoak:

Sabino Aranaren arau metrikoak betetzen ditu, bokale berdinen arteko loturak:a-a,o-o eta u-u bezalakoak eta gero diptongoa osatzen duten bokaleen arteko sinalefak bakarrik egiten ditu. Sabino Aranaren arau metrikoak lehen aldiz agertzen dira olerki hauetan guztiz beterik.

Errima: Pareatua da eta azken silaban oinarritzen da.
leioraño A / ganaño A
diyoa B / gogoa B
yausi C / igesi C
gogoan D / ditzadan D
Ahapaldia: 7/8A/7/10A

Ohar tematikoak:

1.- Olerki honek *Aldakeri* poemaren II. zatiko lehen ahapaldiarekin du zerikusia: txoriaren geretaren ondoraino eroritako mahatsondoaren lehen ostoak bezala heriotza iragartzen du,

udazkenaren hasiera. Baina zehazkiago egiten dio erreferentzia *Biotzean min dut* olerkiaren enarak, orduan udaberrian "haiek etorri garaiez" aldegina bait da amonatxoa.

2.- Lehenengo bi ahapaldiek udazkena iragartzen duten bi elementu nagusien aipamena egiten dute, *Aldakeri* poeman ere aipatu ziren bi ezaugarriak gainera: ostoak erortzea eta enarak aldegitea:

II

Uda yoan da. Marduldu zaizka mordoak
matsondoari. Beiñola
—egari mozkorra- yo du kaiola
gazteenik ildako ostoak.
Agur, iñarok... Ai, zuen kabi goxoa
berriz beterik daneko!...
Ai, zeiñen luze zuen urreneko
maitaldiaren beroa!...

(Ald. 57-64, 49)

Baina kasu honetan udazkena ez da bere horretan olerkiaren gaia, bizitzan ametsak eta ilusioen itzaltzeari buruzkoa da gai nagusia: Udazkena, horren metafora besterik ez da, garai beretsuko *Ar uts* olerkiko tximirritaren bizitza efimeroa eta heriotze lazkarria ere amets hauskorren galtzearen metafora den era berean.

3.- Ikus poema honetako lehen bi ahapaldietako paralelotasun tematikoak:

Osto igar bat aizeak/ biali dit leioraño...
galena ala, biziak / dakar, giza biotzaganaño.
Iñara talde urdiña/ erbesterutz bai-diyoa
alatsu urre-ametsak/ lagatzen dute giza-gogoa.

Poema honetan erritmoa ez dago elementu fonikoetan oinarritua egitura sintaktikoaren paralelotasunean eta esanahiaren parekitasunean, baizik; konparaburutzat hartzen dituen osagarriek elkarren artean duen egituraketatik dator erritmoa.

Hirugarren ahapaldiak konparazioan edo alderaketan parte hartzen duten bi aldeetako elementuak hartu eta elkartu egiten ditu:

"Ez bekit biotzean/ Yauna, *osto'orririk* yausi!..."
"Ez *iñara taldeok*,/ otoi!, nere gogotik igesi... "

Gurutzaketa egin du konparatzen dituen elementuen artean eta konparazioa metafora izatera pasa da. Beste elementu erritmikoa erregu-eskea egiteko diren "Yauna" eta "otoi" exklamazioen paralelotasuna da, egitura sintaktikoek, bestalde, paraleloak izaten jarraitzen dute.

Azkeneko ahapaldiak paralelotasun egitura hori hautsi eta eskaera egiten du: udaberriak eta haren loreak iraun dezaten.

Olerkiak helduaroko hirugarren epeko olerkien tankera iragartzen du garbiro:

1.- Arau metriko guztiz zainduak.

2.- Ahapaldi gutxiagoko olerkiak azaltzen dira.

3.- Poemaren egiturak lehen postua hartu du erritmoaren osaketan.

4.- Errimak arruntak eta motzak

5.- Gaiak irudi gutxi batzuen inguruan bilduak eta haiekin jokatuz.

6.- Urre-ametsak konposizio modua: urrezko ametsak ala urre izatearen ametsak, ala amets doratuak? Konposizio abstraktoa da eta esan nahi zehatzik gabekoa, urrengo poemetan ugaritu egingo dira honelako hitz-elkartuak.

7.- Koloreetan garbiro nagusitu dira urdina eta urrea, edertasunaren eta balore positiboaren koloreak:

iñara talde urdiña
urre-ametsa

GABON - IPUI - BERRIA

XABIERTXO'REN ERIOTZA

(Nere leenengo Xabiertxo'ren eritoz-egunean: 1925'gko. Lotazilaren 24'g.)

Lizardi'tar Xabier

I

Gabon-egun-goizean/ Jaun Aita pozik/ jeiki, ta aingerutxoak/ orra nun bildu ditun,/ esanik:
"Poztu, ene txikiok,/ gaur, arratsean,/ aurtxorik ederrena/ jaiotzekoa bait'da/ lurrean.
Apaindu ta zoazte/ guztiok beera/ berri ona zabalduaz,/ z*(e)*uen Jainkotxoa*(ri)* gurtzera.
Zenbat zerate, baña?/ Bat, bi, iru, amar,/ ogei, eun, mila... Gutxi!/ Jai ortako, geiago/ nik bear!
Entzun: ega lurreko/ seasketara,/ ta aur zoragarrienak,/ ene maiteok, bertan/ aukera.
Masallean laztan bat,/ ezitz betea:/ eskutik ar, ta abia.../ orrela ugalduz z*(e)*uen/ taldea.
Ta lurbira guztia/ egin ondoren,/ jaiez jantziz biotzok/ bildu, iñularrerako/ Belen'en."
Zalaparta bizian,/ txalo jo ta jo,/ Jainko zaarrari oro*(k)*/ billaldean *(baranoan)* egatu/ zaizkio.
Ta, arutz lagun-eginda,/ puska batean,/ emen datoz berriro,/ ega-iraulka pozaren/-pozean.
Jauna'ren baratzako/ iturrietan/ murgildu, ta asi dira/ beren buruon eder-/lanetan. [64]
Ura jolaska astinduz, aien argiarri-joste dizdikaria, ego bigun-arrotan, alkarri!...
Emen-or, ur-ertzeko osto-itzalpetan, eguzki-izpizko orraziz dituzu iñortzuk, ille-leunketan.
Asko, esku betean ura jasorik, mami zurigorriak igurtzika daude, eten gaberik...
Ta usai zoragarririk bai-dariote!, artu-alan ur mea miritz gozo biur bait zaiote...
Gertu-ta-gero, urrezko/ txilibitoak/ aoratu, ta abia / ziran, zabala arrotuz/ egoak.
Nun(*non*) dira?... Antxe, urdiñaren/ sakonean,/ ezer ez dezu ikusten/ argizko auts-irakin-/antzean?
Noratsu?... Iñun ez. Oro/ lengoraturik,/ begiak ez du jotzen/ urdin baztergabea/ besterik.

II

Gabon-egun-goizean,/ seaskatxoan,/ Xabiertxo gaixoa/ gaitzak ito-zorian/ zegoan.

—Zer dek, eguzki orrek,/ gure ederrena?/ Nork min-egin, esaidak,/ biotz biren zatirik/ maitena?

Itxo(i)n!(...) Ustez, arnasa/ baretu zaio:/ parre-antz gozo batek/ ezpaintxoak argitu/ dizkio...

— Iñoren itz emeak/ entzuten ago,/ geldi-geldirik eta/ bular eztian baño/ pozago? ...

Ene! Bildur! Ez, il, ez,/ arren, txikia!/ Ez joan, gure poza,/ ez, gure biziaren/ argia!!

Ene! Gure biotzon/ erdibitzea!/ Nekez(,) arterañoan,/ itotako negarra/ lertzea!...

Ene! Amen begien/ negar-obiak/ ondoa jo-eziñak/ egin (*ote*)ete-ditu Jaun/ aundiak?...

Bular yoritik ez aut,/ ene!, ikusiko/ zalapartan edaten! / gosea aserik bait'dek/ betiko...

baituk

64 Hurrengo lau "ahapaldiak" ez daude *Biotz-Begietan*go bertsioan.

Eguzkiak inguma/ bezin maitea!,/ maitariak maiteak, berriz, mun-egindako lorea!...*(ala, maiteminduak,/ maite-ezpaiñek ukitu/ lorea!...*

Igan ipiñitako/ amesak, ba*(i)*ña,/ auskorrak *(o)*ete-ziran,/ inguma ta loreak/ ez a*(i)*ña?...

III

—Berandu?

—Bai, maitea;/ illuntzea den.../ Atsekabeak ez din/ astiaren neurtzea/ jakiten.

—Ixo... Nortzu*(k)* ditezkek/ atadikuok?.../ Nor zetorkek, algaraz,/ miñagotzera gure/ malkuok?

Ataditik:	*(Ataritik)*
'Etxeko-andre ona:	
Abesterik nai?...	*kantatzerik*
Jaiotz-zaleak gera,	*jaiotzadunak*
Begirunez beteak,	
Zure zai."	

—Nortzuk dituk?... Esaio(e)k,/ alde egiteko!/

—Gorriz argitutako/ jaiotzaz, de(u)n sorta bat/ mutiko...

Ataditik:	*(Ataritik)*
'Etxeko-andre ona:	
Abesterik nai?...	*kantatzerik*
Jaiotz-zaleak gera,	*Belen-zaleak gera*
Begirunez beteak,	
Zure zai."	

—Bijoaz!

—Ez, maitea...,/ begitu zaien.../ Gurea, iñoiz, azita,/ oiek bezela ibiltze'/al-uken!...

Ataditik:	*(Ataritik)*
'Etxeko-andre ona:	
Abesterik nai?...	
Jaiotz-zaleak gera,	*Gabon-zaleak gera*
Begirunez beteak,	*ezin-etsiz beteak*
Zure zai."	

—Zuzen diok. Aur Onak/ onetsi bitza!/*(...)* Sartu, mu*t*il ederrok,/ seaska-alderaturik/ jaiotza.

Sartu, ta jo bildurrik/ gabe. Gaixoa/ lotan dezute, ba*(i)*ñan/ otsak astindu-gaitza/ du loa.

Jo, bai, gaur bait'da Aur Ona/ jaiotzekoa!/ Jeiki, biotz autsia,/ pozezko jaia bait'dek(*baituk*)/ gaurkoa!

Jeiki, gure maitena/ Belen'en bait'da!(*baita*)/ ortze izartuan zear/ ego bigun arroek/ bultzata!...

Oska bait'dago, urrezko/ txilibitoaz,/ zeuen Gabon-abesti/ berberok Belen'en/ jo-ta-joaz!...

Jo, bai, maiteñoaren/ oroiz, mu*t*illok/... Gurtu gatzaion Jainko/ aurtxoari biziok/ eta illok...

Aintza goian Jauna'ri,(Yaunari)/ askigabea;/ ta, bere naia ontzat/ etsitako lurtarroi...*(,)*/ pakea!

OHARRAK

Bertsioak:

Bi bertsio ezagutzen dira: lehenengoa: 1926koa, 1926-12-26an, *Argia*n 297., 1. or. argitaratua eta bigarrena: *Biotz Begietan* liburuan jasorikoa eta 1926kotzat dataturikoa, (*Olerkiak* ,1983, 61-82. or.)

Lehenegoan prosa poetiko gisa argitaratua da, eta lehen zatian lau esaldi/ahapaldi gehiago ditu. Bigarren bertsioan esaldiak bertso-lerroetan ebakirik daude eta zenbait aldaketa ditu eraginik.

Olerki bertsiora aldatzean eginiko aldaketak parentesi artean eta letra italikaz adierazi dira oinarritzat lehen argitaraturikoa hartuz, eta aldaketak bigarren argitaralpenari dagozkiolarik.

Ohar metrikoak:

Ahapaldia: 7/5a/7/7/3a

Errima: azken bokala edo azkeneko bietan oinarritua.

Erritmoa: Anaforak lehen eta bigarren zatien sarreretan, azken zatian, berriz, lelo aldakorra den gabonzaleen kantua. Ikus III. Partean, 1.4.5."Beste zenbait baliapide erritmiko".

Ohar tematikoak:

Zeru Azpia poeman bezalako sinbolizazioa egiten du aingeru eta haur hilaren artean. Garai beretsukoak dira eta olerkariaren bizitzaren gertakari errealetan oinarriturikoak.

Ohar literarioak:

Aldakeri poema bezala narraziotik olerkira igarotzen da, eta bi bertsioak ditugun bi kasu bakarrak dira, olerki gehiagoren sortze-prozesua hau izan zela pentsa baliteke ere *Biotzean min det* edo *Gure Mintzo*n bezala. Ohargarria izenburuaren gainean ezarririkoa: "Gabon ipui berria" izenburua, ipuingintzan sail berezia osatzen duten Eguberrietako ipuinen artean kokatu nahirik.

Kasu honetan, narraziotik poemara aldatzeak naturalago eginik dago: errima bakanagoa da eta errazagoa, eta trinkotasun eta "bitxitze" ahalegina naturalagoa, *Aldakeri*n baino, metrika aldetiko askatasun gehiagoko ahapaldia hautatu duelarik.

Aipagarria da era berean, lehen zatiaren amaierako aingeruen jostaketei buruzko zertzeladak kendu izana, eta Orixek "Lizardiren azken olerkiak" delakoan zenbait bertso bakandu ere egin zizkiola esan zuenean, poema honezaz ari zitekeela pentsa daiteke. Dena den, gaiaren intentsitate emotiboaren zerbitzuan eginiko ezabaketa da, eta Lizardik *Aldakeri* olerkian ere egin zituen joera bereko laburtzeak.

AR UTS

. Lizardi'tar Xabier

Tximirrita
Tximirrita arin polita
Atzo egaka
zu ziñan eder
gorri-urdiñez yantzita!

Gaur, lurrean
usteltzen zakustanean
Ar utsa zeran
berria ikasi-
arazi didazunean...

tximirrita!
igaz arin -bai- polita,
ainbat amets zar
datozkit, ego
zoragarriak autsita!...

Zu bezela,
ene tximirrita ustela,
ar uts izan, oi!
ene amesa...!
ar-satar-egamotela...

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra, *Euzkadi* egunkarian 1927-9-5an dataturik eta 1927-10-20ean, 1. orrialdean argitaratua.

Ohar metrikoak:

Ahapaldi laburra: 4a/8a/5/5/8a.

Errima: silaba eta erdikoa eta hiru puntutara hedatzen da.

Erritmoa: errepikatzen diren sintagmek markaturiko erritmoa "tximirrita" eta "ar uts"en semantikek markaturikoa.

Aipagarriak dira punturik gabeko bertsoetan gertatzen diren zangalatrauak.

Ohar tematikoak:

Gaiaren aldetik, *Ar uts* garai beretsuko, *Udazken, Aldakeri* olerkiekin batera aipatu behar da. Behar bada, desengainoaren gaiaren formulaziorik hitsena da poema hau. *Udazken* olerkian bezala, naturaren gainbeheran bilaturiko metaforek adierazten dute olerkariaren sentimendua, baina olerki honetan hautatu duen irudiari hartu dion taxuera bereziki mingotsa da *Aldakeri*ren 1925 eta 1929ko bertsioetan bezala (Ikus *Aldakeri*i buruzko ohar kritikoak).

BULTZIKO LEIOTIK	BULTZI LEIOTIK
Euskal Esnalea 1929	*Biotz-Begietan* 1932
1929an dataturik Lizardi'tar Xabier	Lizardi'tar Xabier
!Oi lur, oi lur! !Oi ene lur nerea!... !Oi, goiz eme, parre gozoz ernea!...	
Arto musker, mendi, baserri zaarrak; ale gorriz abailduta sagarrak:	abaildutako
oro laño mee batek estalia, urrez oro eguzkiak yantzia...	
Nekazari, gizandi bat iduri soroan zut: !beyondeizula zuri!	
Zure bazter gurazko aberria doa zoro ta (bertan ni) bultzia...	(ta bertan ni)
!Oi, ene lur, ba'ninduzu zerea, zu landu, ta zure sariz asea!...	zu landu, ta zure sariz asea
Baiñan... ezin: beeko bizitz goriak narama... ¡Agur, soro, sagar, mendiak!...	bañan bear goriak

OHARRAK

Bertsioak:

Bi ezagutzen dira, lehenengoa *Euskal Esnalea*n 312., 1929-XII, 221. orrialdean argitaratua eta urte berean dataturiko *Biotz Begietan* liburukoa (91-93 or).

Bi bertsioen artean dauden aldeak ortografikoak dira, alde batetik, j >y bihurtua da eta bertsoa idazteko erari ere afektatzen dio: parentesiaren irekitzen gunea zentzuaren aldetik hobea da *Euskal Esnalea*koa eta *Biotz-Begietan*goak okerra dirudi..

Ohar metrikoak:

Ahapaldia: 4/7a/4/7a.

Bertsio aldaketan *Biotz-Begietan*go bertsioan eginiko aldaketa morfosintaktiko batek "abailduta sagarrak"> "abaildutako sagarrak" zortzi silabakakoa egiten du bigarren ahapaldiaren azken lerroa. Aipagarria da aldaketa hau, izenburuaren aldaketak alderantzizko

bide morfosintaktikoari ekinez hitz elkartu gisa agertzen bait du azken bertsioan lehenengoan *Bultziko leiotik* zena.

Erritmoa: bereziki nabarmena da olerki honetan, batez ere aliterazio, anafora eta errepikapenei dagokienez.

Bestalde, Lizardiren poemetan korrelazio kasurik ageriena ikus daiteke lehen ahapaldietan aipaturiko osagarriei agur eginik osaturiko azken ahapaldiaren bidez.

Ene ustez, olerkiaren barne egitura korrelatibo hauxe bide da Lizardik poema honezaz diharduela "un poema gongorino" esan izanaren arrazoia:

"Luego que se encontró con algunas fuerzas, vino la sobrealimentación imprudente: vino a leerse un drama de mi amigo y una poesia gongorina -una en que llamaba lagarto al maíz- del otro; esto es como quién dice: vino a tragarse de golpe un bote de "Glaxo" o de harina lacteada -¡cómo no iba a venir!- una indigestión formidable" [65].

Ohargarri da era berean, ahapaldiaren egitura hausturak ugariago direla *Biotz-Begietan*go bertsioan, lehentasuna ematen dio barne erritmoari, horregatik zangalatraua eraginez azken lerroko egitura morfosintaktikoa banatuz, elkartu ditu "*zu* landu, ta *zurel sa*riz a*sea*!..."

Ohar tematikoak:

"Gurazko aberria"ren ondotik doan bultzi zoroak sinbolizatzen du Lizardiren nahiareneta "bear goria"ren arteko konponezintasuna. "Bizitz gorri"aren formulazio legunagoa den "behar goriak" behera darama, alegia, beti gora nahian sumatu dugun olerkaria urrundu egiten da maiteen dituen goi aldeetatik. Ezintasunak darama, bai eta bizimodu eta gurazko aberri horren bizimoduak ez asetzeak ere, aitortzen duenez.

Lizardiren formulazio honek dakarren berritasuna nabarmena da garaiko idazle erromantikoen aldean, mundu tradizionala utzi behar duela esaten du, damu da baina hartan irautea ezinezko zaiola aitortzen du.

Ohar literarioak:

1.- "gizandi bat iduri" konparazio ber bera darabil Emeterio Arresek 1928ko *Txindor* liburuan argitaraturiko "Aralar" poeman:

"¡Aralar, Aralar otoi-mendi...!
Kementsu ta betigarai
gizandi jator baten antzera
goi-goiyen zakust abertzai."

2.- Baliteke Lizardik bere poema hau gongorinoa dela esaten duenean, "musker" izena adjetibo gisa artoari eratxeki izanari buruzko sinekdokearen berritasunaz eta ausardiaz aritzea. Kolorez dute zerikusia bi elementu horiek, beren berdetasun bizia udaren koloreen erdian. Lizardiren adjetibaketaren berritasunari buruzko azterketa sakon baten premiaz gaude, baina zalantzarik gabe haren poesigintzaren modernotasunaren ardatzetako bat da adjetibaketaren alorrean berak eraginiko berrikuntza.

Esate baterako elurra zuri eta ikatza beltz izatea adjetibaketa pertinentea bada, Lizardiren hirugarren epeko poemagintzan adjetibaketa inpertinenterako joera nabari liteke, nahiz eta ugaritasunaren aldetik adjetibo kopurua soiltzera jo duen.

Zentzumenen sentsazioak adieraztean erabiliriko adjetibaketa eta epitetoen azterketa egin nahiez 1981eko "Lizardiren olerkigintzaren azterketa formal bat" zeritzan azterlanaren maila lexiko-sinbolikoan eginiko inkurtsioaren laburpen gisa, esan liteke ikus-entzunezko sentsazioen adierazpena dela nagusi Lizardiren olerkigintzan eta horri dagokion adjetibaketa nagusitzen dela obra osoan zehar, eta bereziki bat aipatzearren, begiena eta koloreena gailentzen dela.

65 "Gramáticas euskéricas" in *Euzkadi*, 1930-11-2, 1 or.

Sentsazioei buruzko adjetibaketari dagokionean zentzumenen arteko sinestesia efektuz sorturiko adjetibaketa aipagarria da Lizardiren poema honetan. Zapore sentsazioei dagokien "goxo/gozo" eta "eztitsu" adjetiboak oso sarritan ageri dira zaporerik ez duten osagarriei loturik: parre gozo, lagunarte gozo, ez-uste gozoan, zeru goxoa, amets eztitsu... Baina sentsazio alor bereko den "ezti" izena sarritan erabiltzen du adjetibo gisa, "gozo"ren balore beraz: "laztan eztia" (Ald), "bular eztia" (XE), "burruka eztia" (Egamin), kezka beldur-eztia (NUY)...

Ukimenezko sentsazioei dagokien latz, gori, zakar.. bezalakoak euskaraz sarritan erabiltze dira sinestesian eta Lizardik ere jasotzen ditu molderik ezagunenak: aize latza, gau latza.. Berritasunik handiena ikusmen eta entzumenei dagozkien adjetiboak dira ugarienak eta berrizaleenak direlako.

Lizardiren obra modernismoarekin konektatu izateko ezaugarri nagusia dugu kromatismoa, *Urte Giroak* poemakoa nagusiki. Carlos Bousoñok *Teoría de la expresión artistica* delakoan adierazten duenez [66], Erdi Arotik datorren adjetibaketaren balore finkatuaren hausketa dakar inpresionismoaren ikusmolde berriak. Naturaren inpresio plastiko objetiboa bazterturik, artistaren "ni"eta "orain"aren arabera erabiltzen da.

Subjetibitatearen eta momentuko inpresioa da errealitatetik olerkariari interesatzen zaiona, hura da esentzialeena, horregatik, aldagunean dagoen natura da inpresionisten artean ohizkoena, ilunabarrean, egunsentian, edo lausoturik, amets giroan duten itxura mugagabe eta erdi-ezabatuan, orduan ñabardurak elkar nahasirik sumatzen direlako eta olerkariaren sentimenduarentzat duten balore kromatikoa, auditiboa, zapore edo usaina har bait lezakete. arrazoirik nagusienetako bat izan da korronte hartakoek eta Lizardik berak duten kromatismo bizia. Rubén Daríoren urdinak, urreak eta gorriak (escarlata, bermejo, púrpura...) edo Juan Ramón Jiménezen bioleta kolorea haien olerkigintzan duten azalpen ugaria eta joria euren olerkigintzaren bereizgarrietako bat da.

Lizardigan ere koloreak, modernisten lanetan bezala, elkargainka pilatu, nahastu edo bereziki nabarmendu egiten dira sarritan deskriptzioan balore sustantiboa eskuratuz.

Beltzak (gau beltza, yantzi beltza), urdinak (zeru urdiña), oria (argizai oriak), zuriak (odei zuriak), gorriak (orbel gorriak) sinestesian erabilirik koloreei balore sinbolikoa erasten zaiela adierazten dute: "negar-aran beltz", "giltzapen beltzea", "eguzki gorritan"... Euskal hiztunei harrigarri egiten ez zaizkien sinestesiak genituzke gorri eta beltz hauen erabilerak, ezagunak dira. Bestalde, urdin arjetiboak sentimendu baikor, itxaropentsu eta ederren adierazgarri gisa Lizardiren idazlanetan duen sarritasuna: "izar urdiñetaraiñoko asmoz" edo "urte urdin igesak" eta bereziki sinbolista eta modernisten kolorea dela gogoratu behar da.

Modernista eta sinbolisten aldean Lizardiren adjetibaketak pertinentzia handia du oraindik, Jean Cohenen *Estructura del lenguaje poético* delakoari lotzen bagatzaizkio, baina bere garaiko euskal olerkigintzaren aldean modernotasun nabaria duela esan daiteke okerrik egin gabe.

Zenbaitetan, Lizardiren adjetibazioa bereziki harrigarria ez bada ere, idarokizun guztiz aberatsen iturria dela sumatzen da; esate baterako, arrunta den "lore zimela" sintagmako adjetiboa bestelako izenei loturik, amonaren "musu ximela" edo *Arrats Gorri* poeman egunaren "bekaitz zimelak" ñabardura interesgarriak lortzen ditu lorearen plastikari loturiko adjetibaketa hedatuz. Aipatu behar da, bestalde, euskaraz mintzaira arruntean erabilia den palatalizazio fonetikoak baliatzen dela maisukiro eta neurriz adjetiboari berak nahi duen zentzua emateko: ximela da amonaren musua, maite denaren azala lore zimeldua bezain delikatua delarik, egunaren bekaitza zimela da, ordea, eta beharbada Azkuek zimel hitzari ematen dion hirugarren adieraren zentzua du: "estéril" alegia, bekaitzari sarritan erantsi ohi zaion "la estéril venganza" epitetoa.

66 BOUSOÑO, C., Teoría de la expresión poética, Gredos, Madrid, 1976.

NESKATX URDIN-YANTZIA

E. Esnalea 1929

Biotz-Begietan 1932

1927an datatua

Udaberri, uste-ezik,
arki det basoan.
Neskatxa da, ta urdiñez
yantzita ziyoan.
Urdiña yazkia, ta
begia areago:
alako itsaso
barerik eztago.

dut

ez dago

Begi eder-goseok,
ase zakidate!,
iñon ezpaiditake
ederrik, au beste.
Mamia du naasian
oretua, iñolaz,
Loreil laiño goiztar ta
marrubi-odolaz.
Arbazta igarrarena
bezin su zolia
Egunak biztu dio
yorik illedia.

laño

Egun'ek

Aren oñak ikutzen oiñek
ote dute lurra?
Ezetz diot: ezpaita
malgutu belarra.
Billuzik zan basoa
negu-azkenean,
neskatx urdin yantzia
basora danean.
Zebillela, ats epel bat,
usaiez yoria,
dama; ta adar beltzetan
erne da bizia.
Orriz-orri yazten da
basoa, gozoro...
Bakan-bakanka, leenen...
Sarri-sarri gero.
Eguzki itzulberriak
(maitari goiztarrak)
munkatu du basoa,
Emazte ezkonberria
dala uste basoa...

negu-ondarrean

bertara

leenen

Aren dardar emea...
Aren par gozoa!

Ustez, buru gañean	gaiñean
gaua dut, argia,	
amaika izar urdiñen	
dirdirak yosia...	diztirak
Ustez, ur orlegiak	
nituen oiñean,	oñean
izarrok ziralarik	
islatzen urean...	
Gezur ameskarria,	amesgarria
lillurak sortua!	
Goien urdiña nuan,	
ostoak xeetua;	xetua
beean, berriz, urrezko	
yarioz argiak	
belarrean oi-ditun	
begibil zoliak.	
Marmara dabil goien,	goian
ezin daikezuna	
ots ezti dan igerri,	
ala isiltasuna.	
Bat-batez, eun txoriek	
eztarriak eten,	
ta, aberaski, zabala	ta aberaski zabala -
bitxiz yantzi zuten ...	
Egun-eunez yantzia	
berrikusi-nairik,	naiez
itzul ditut begiak,	bira
itzul... baña, alperrik!	bira, baña... iñon ez!
Non da, non da sorgiña,	
basoak maitea?	
Ikus-arterañoan	Begiaz dut, alperrik
utsik da bidea...	
yo aren bidea.	
Yoana zan... Yoana,	
neri, biotzean,	
kezka beldur-eztia	
yosi ondorean...	
Maitetasun-azia:	
ene Udaberria;	udaberria
nexkatx-tankeraduna	tankerakoa
ta urdiñez yantzia!...	

OHARRAK

Bertsioak:

Biotz Begietan liburuan agertzen den *Neskatx urdin-yantzia* poema 1927kotzat ematen da [67], baina 1930ko *Negu* edo *Biotz-Begietan* liburuan *Bizia lo* deitzen duen olerkiaren tankera metrikoa duenez, *Euskal Esnalea* aldizkarian 1929an argitaratu zuen [68] bertsioa baino geroagokotzat jo behar da, eta 1927koa lehenego aldiz burututzat eman zuen datatzat hartuz.

Ohar metrikoak:

Ahapaldiaren egitura eta ahapaldiak multzokatzeko era aldatu egin zuen *Euskal Esnale*ako 1929kotik 1927kotzat ematen duen *Biotz Begietan*gora.

Zaharragotzat ematen dugun 1929ko bertsioan ahapaldiak ez dira bertso errenka luze eta kopuru ezberdinekoak, BB.ko bertsioan agertzen diren bezala. EE.ko 1929ko bertsioan bertsoak lauko ahapaldietan multzokatzen dira hasieratik amaieraraino errima binarioaz:

Zebillela, ats epel bat,	7-
usaiez joria,	6a
dama; ta adar beltzetan	7-
erne da bizia.	6a

Gainerakoan, ahapaldiak multzokatzeko era aldatzeke geratuko da, orainarte ikusi ditugun bertsioen arteko aldaketetan beti gertatu ohi den moduan (gehienetan poema osoaren egitura aldakaitza da). Poema honetan hiru zati bereizten dira lehen bertsioan eta bigarrenean. Lehen zati batean sei ahapaldik osatua, bigarrena hamaika ahapaldiz eta hirugarrena, berriz, lau ahapaldiz.

Ohar literarioak:

Bi bertsioen arteko ezberdintasun nagusiak:

1.- Ahapaldien egitura: EE1929koa klasikoa, BB1927ko *Urte-Giroa*k poeman erabilitakoaren tankerakoagoa bilakatzen du.

2.- Maiuskulek pertsonifikazioak adierazten dituzte olerki honetan ere:

Loreil-laño goiztar
Egunak biztu dio *Egun'ek*
Eguzki itzulberriak
Egun-eunez
Udaberria

Ohargarri da 1929ko bertsiotik *Biotz-Begietan*gora doan aldea, mugatutik mugagabera aldatu du, izen propioa balitz bezala hartuz BB.ko bertsioan. Hala ere gainerako pertsonifikazio guztiak aldatu gabe utzi zituen. Ezberdintasuna nabarmentzen duen bakarra azkenekoa da "Udaberria" eta 1927ko BB.ko bertsioan minuskulaz ageri da, beraz ez du pertsonifikaziotzat ematen.

3.- Aldaketa ortografikoak eta dialektalak daude, sortu nahi duen mintzaira literarioaren batasunaren alde:

arki det > dut
eztago > ez dago
laño- > laiño
oñak > oiñek (erg. pl)
lenen > leenen
gañean > gaiñean

---

67 83-87. or.

68 in *Euskal Esnalea*, 303, III-1929, 39-41. or.

diztirak > dirdirak
oñean > oiñean
ameskarria > amesgarria
xetua> xeetua

4.- Beste zenbait aldaketa funtsezkoago dira, esate baterako,

Bilutsik zan basoa
negu-azkenean
neskatx urdin-jantzia
basora danean

negu-azkenean > negu ondarrean bihurtu du, ondar hitzak azkena esateaz gain, idarokizun gehiago eransten dizkiolako adierazbideari: ondarra zerbaiten azken kondar, edo arrastoak ere izaten dira, beraz denbora zehaztasunarekin batera plastikoagoa den irudia ere ematen du: neguarenak diren ezaugarrien azken zantzuak idarokitzen ditu.

Ahapaldi honetan egiten duen bigarrean aldaketa:
basora> bertara da

Helburua basoa hitza ez errepikatzea bide da.

Egun-eunez jantzia	
berrikusi-nairik,	
itzul ditut begiak,	*bira*
itzul...! baña	*alperrik bira*

Lizardik ahapaldi honetan kokatua duen baliapide erritmikoa, anafora, mantendu egiten da, poemaren egitura bezain finkoak da. Erritmoa, *Aldakeri*ren bertsioetan ikusi ahal izan dugunez, narrazioaren egitura eta horretan erabiliriko figura literarioak guztiz finkoak dira.

Anafora egiteko erabiliriko hitzak *Biotz-Begietan*go bertsioan hitz ozenagoa, leunagoa darabil, eta gainera, adierazbide arrunt gisa errepikaturik erabili ohi dena: bira-biraka. "itzul" hitza aldiz gogorrako izateaz gain (afrikatuarengatik), bortxatuagoa den soiltzea egitera behartzen du: hots, partizipioaren -i nekezago galtzen baitu -tu baino.

Partizipioaren markaren soiltze joera honen barruan aipa liteke "arki dut" forma bera ere lehen ahapaldian, edo "bertara danean", edo azkenekoak "ikus-arterañoan" delakoan nabari liteke joera hau. Bi kasutan eta "bira" rena gehituz, hiru, -tu marka galduz eginak dira, "ikus" aditzarekin aldiz azkenik aipatu duguna. Beste kasu askotan ikusiko denez, ikus aditza da aldaketa hau gehienik jasaten duena, bai eta gaur egun ere, eguneroko hizketan oker arrunta izaten da, baina oker morfologikoa eta ez poetaren lizentzia Lizardiren kasuan bezala, "ikus ahal izango duzue" bezalakoak esatea.

5.- Bertsio batetik besterako aldaketarik nabarmenenetakoa azken zatian ematen da:

Egun-eunez yantzia	
berrikusi-naiez,	*nairik*
bira ditut begiak,	*itzul*
bira, baña ...iñon ez!	*itzul ..!baña alperrik!*
Non da, non da sorgiña,	
basoak maitea?	
Begiaz dut, alperrik,	*Ikus-arterañoan*
yo aren bidea.	*utsik da bidea...*

Lehen aldaketa, "alperrik" espresioak ahapaldi batetik bestera jauzi egitea, eta bi ahapaldietan ukapenaren adierazpiderako aukera eskeintzen da bigarren bertsioan:

iñon ez!
alperrik

1929ko bertsioan "ikus-arterañoan/ utsik da bidea..." espresioak duen zentzua eta bigarren bertsioko "begiaz dut, alperrik/ yo aren bidea." ezberdinatsun nabaria dute.

Lehenengoan, bidea ikus ditekeen neurriraino begiraturik bidea hutsik dagoela besterik ez du adierazten eta sintaxia ohizkoa da. Bigarrenean aldiz, hiperbatonaren bidez "begiaz dut, alperrik/jo aren bidea", aditza eta bere laguntzailearen artean hitz bat ez ezik bertso banatan kokatzeak tankera poetiko landuagoa, tarteko"alperrik" hitzak pausaldia eragiteaz gain ahaleginaren alferrikakoa azpimarkatuago egiten duelarik.

Bestalde Lizardi morfologiaren arloan bere errekurtsoak gero eta gehiago zaintzen ditu, eta kontzeptua ahalik eta zuzenenik adieraztea da bilatzen duena:

tankeraduna ...>. tankerakoa

aldatu du, bertsio batetik bestera, bigarrena ohizkoagoa da eta argiagoa, zuzenagoa ere bai 1928ko Seber Altuberen *Erderismos* delakoari erreparatuz gero (Ikus 262-283. or.).

6.- Azken ahapaldian egiten duen "maitetasun azia"ren formulazioak *Nere lenengo maite-ibilketa* olerkiaren ohar kritikoetan aipatu dugun maitasunaren gaiaren formulazioarekin du zerikusia. Lizardirentzat maitasuna noiz-nola erneko den ez dakigun hazia da, gure baitan dago jaiotzadanik, eta hautuaren, "predestinatua"ren begiek ukitzen duten arte ez da ernetzen.

7.- Lizardiren *Neskatx urdin yantzia*n agertzen diren zenbait irudi eta adjetibo kalifikatzailek Emeterio Arreseren *Txindor* [69] liburuko olerkiak oroitarazten dituzte, eta bereziki "Ulia" izenburua daramaneko ahapaldi hauek:

Eguzkiaren
dizdiz alayak
sarritan muxu damaio,
eta muiñ aratz
onegaz indar
bero bat osatu zaio.

Udaztearen
arnas epela
legunki zetorren garaiz
goi-aldi eder
luzean antxe
amaika bider egon naiz!".

("Ulia" 7-19, 13)

69 ARRESE, E., *Txindor*, Leizaola, Donostia, 1928.

ZERU-AZPIA

Euzkadi 1927

Mamia pantzerazko olerki batetik artua)

I

Esan amatxo: aingerutxoak
egoa urrezko badute,
zeru urdiñean urre-dirdira
nik nola ikusten ez-ote?...

Parre gozo bat amak eginda,
aurrari ala diotsa:
— Beetik dakusgun urdiña zeru-
azpia baizik ezpaita.

— Ene, ba!...azpia -mutillak dio-
orren ederra dalarik,
nolakoxea ote-da, gero,
zerua goi-aderditik!...

II

Gautu zanean, ortzi zabalña
bare-ozkarbi zegoen,
ta izar argien zillar-dirdirak
aurrari par-zegioten.

Aur-kezka oro amets eztisu
biur oi-diran garaian,
aurrak, amaren biotz-alboan,
berriro onela ziotsan:

—Zerua azpitik orren ederra
dalarik, amatxo maite,
ai nere poza, zeru-gainkia
ikustera aal-baningoke!...

III

Aurraren naia zeruratu zan,
(alatsu otoitz garbia),
ta aingerutxoak eska zioten
Yaunari lagun berria.

Eguzkiaren urrezko yaia
berriro izeki zaneko,
begia itxirik zeukan aurtxoak

Biotz-Begietan 1925

Frantzeratik itzulia, mamiz.(BESSE DE L.)

zeru-azpia ikusteko.

Seaska-aldean ama gaxoak
otoi-zegian, negarrez,
semea igoa baiztun, zeruko
goikia ikusi-bearrez.

OHARRAK

Bertsioak:

Bi dira ezagunak, baina ez dago bien artean batere ezberdinatsunik. Lehenengoa Euzkadi egunkarian 1927ko urriaren 12an argitaratu zen, lehen orrialdean eta bigarrena *Biotz-Begieta* liburukoa da.

Ohar literarioak:

Biotz-Begietan liburua argitaratu zenean eman zitzaion sortze data 1925. urtea delarik are nabarmenago egiten da tematikoki eta literarioki poema honek eta Xabiertxoren eriotza poemak duten harremana.

Ohargarria iruditzen zait lehenengo bertsioan Lizardik egin zuen sarreratxoa eta Biotz-Begietan liburuan agertu zenaren artean dagoen ezberdintasuna. Lizardik gaia frantsesez irakurria zuen olerki batetik hartua zuela dio, eta beraz, bere gisara moldatua zuela pentsatzeko bidea ematen du. *Biotz-Begietan*go oharrean, aldiz, itzulpena dela dion oharrak erreferentzia ezberdina ematen du.

Carlos Otegik *Lizardi: Lectura semiótica de "Biotz-Begietan"* Lizardik erabili zuen poemaren originala ere aurkitu du Alfred Besse de Larzes frantses poetaren olerkien artean *L'envers du ciel* delakoa eta *Xabiertxoren eriotza* baino lehenagokoa ote zen iradokitzen (II, 822-826. or.)

Horretarako bide ematen du itzulia edo, izan zen poema honetako funtsezko identifikazioa haur hila = aingeruaren eta Lizardiren tragedia pertsonalaren arteko harremana. Baina bestalde, gogan izan behar da Lizardik *Xabiertxoren eriotza* poema ia urte bete lehenago argitaratu zuela *Zeru-azpia* baino, eta haur hila eta aingeruen arteko identifikazioa topos literario bat dela mintzaira erlijiosoan.

Lizardik poemak sortutako dataren aipamenaz argitaratzen zituen, eta *Biotz-Begietan* liburuan Zeru-azpia 1925ekotzat ematen du eta Xabiertzoren eriotza, aldiz, 1926kotzat.

¡AGUR!

("MAITEA"'ren apurño) — Biotz-Begietan

¡Adiskide kuttun, lagun zorigabe,
azpildu gabeko biotzaren jabe,
onerako zabal, ederrak su-bera:
atorkit, Onuzki, gaur oroimenera!

Elkar-ordañaren ezti berdiñaka — ordainaren
bein ta berriz uka maitasunak baitik,
t'ez eskein bizitzak beazuna baizik
(nola baita mikatz sagar bat elduka); — ala
aldegiña aiz urrun, lagun biotz-bera,
adi-mugaz aruntz-erbeste itzalera.

¡Adiskide laztan, eun bider gaxoa:
gogapenak elkar bil-ari meeñoa
beñola zaik eten... Adi-jauregia!,
jabe dituk, geroz, gaua ta naasia.

Irudimena uan giarra, yoria;
bañan, ega-baldar baitabil txoria
lurrera-bearka zauri doanean,
orren antzo zian ark oi, maizenean.
Odol eri batek ezetua iduri,
beltz-ikusbera uan, izukoi, urduri...

¡Gaberik gabëen-gaupean ba'ago;
gaztetzaro-ogiaz maikide ninduken — ogitik yakide
onen onginaia ezpaitek siñisten; — ezpaituk
ai, nik aal-ba'nezaik, nik aal (eztiago
loak-basoan illargia baño)
ene oiu au sar biotz illeraño!

¡Ene oiu au sar ta biotza biztu,
ta itzal-jauregian giz-argia izetu!

Ezin aal-ba'ledi, Jaun errukiorra,
barkatu zaiozu zizukean zorra;
ta Argi-Aberrian ikus aal-nezake
lauso-eziñezko adiaren jabe;
ta aal-bezat, Jaun, otoi, besarka negarrez,
beste iñon ez ainbat negarra dan emez!

OHARRAK

Bertsioak:

Bi ezagutzen dira, lehenengoa Errenteriako Olerti jaiko sariketara aurkezturikoa eta *Eusko Olerkiak 1930,* [70] eta bigarrena 1930ean dataturiko *Biotz-Begietan*goa.

Aldeak oso txikiak dira:

Ortografikoak:	j> y (BB) ordañaren > ordaiñaren (BB) ezpaitek > ezpaituk
Morfosintaktikoak:	nola baita mikatz...> ala baita mikatz.. gaztetzaro ogiaz > gaztetzaro ogitik
Lexikoak:	maikide > yakide

Ohar tematikoak:

1.- Ohargarri da 1930ko bertsioaren izenburuaren azpian egiten den azalpena: Lizardik bidaliriko poemaren bertsio honetan *Agur Maitea*ren "apurñoa" dela argitzen du; itzulpenak argitzen duenez azpititulu horretako "apurñoak" hitzak fragmento esan nahi du, beraz, Lizardik amaitzeke utzi zuen poemaren benetako izenburua *Maitea* zen soil-soilik eta zati bakoitzari apurño edo fragmento zeritzen berak. Horregatik, 1934ean argitaratu zen *Umezurtz Olerkiak* bilduman ere agertzen da, *Onuzki erotu, Agur* izenburuaz.

2.- Aipagarria da era berean *Eusko Olerkiak I* liburuan agertzen den itzulpena, bere-berea dela eta III partean, sintaxiari buruzko 2.4.3 eta 2.4.4. puntuetan aztertu diren zenbait esaldi eztabaidagarriri buruzko argibide interesgarriak eskaintzen ditu; hala nola, azken bi bertsoen egitura sintaktikoaren zentzuari buruz:

> *"ta aal,bezat, Jaun, otoi, besarka negarrez,*
> *beste iñon ez ainbat negarra dan emez!"* [71]
>
> (Ag 33-34, 115 or.)
>
> *y con lágrimas dulces, cual no puede sino ser allí*
> *el llanto, abrácelo, oh Señor!...*

70 Euskaltzaleak, Donostia, 1930, 52-55. or.

71 LIZARDI, *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 113-115. or.

PARIS'KO TXOLARRE

Lizardi'tar Xabier

Eusko Olerkiak 1930 — Biotz-Begietan 1930an datatua

Txolarretxo, txolarre
Paris-erdikoa:
Bourse'ko iskanbilla
(gizon zoro batzarre)
ez ote naikoa
i izutzeko, ajolakabe biribila? — axolakabe

Farol itzali baten
txapel-gallurrera — gaillurrera
etorri aiz txuxen — xuxen
apur ostu bat jaten: — yaten
batetik bestera,
txapelaren muturrak arin dituk gaintzen.

Salto banakin, begi
ernaiak lurrera:
ez aiz i makala:
begiraldi luzeegi
gabe, baator beera:
ez, alearen ordez, jasotzera azala. — yasotzera

Kafetxean bainago
astiaren jabe.
zer egin oberik,
(ezer ez gogarago)
muñak urtugabe, — muiñak
zerbait, alarik ere, gogo-jolas baizik?

Leioak lauso dira,
eguraldiaren
antzo. Barrenean,
giroaren arira,
loxustak egiten
morroi mantal-zuriak daude bazterrean.

Begira, beetik gora
berriz txolarrea.
Keñuka begiak, — keiñuka
irentsi du, gerora,
luzatzeka, alea.
Esku-(?)-peko guri bat boteaz, an'tziak!

Paris'ko txolarrea:
¿zertan aiz berezi
nere erriko batez?

Azalez, soin-arrea;
barrenez, biurri;
kideago zaitezten... ¡eztakik prantzesez!

Kanpantorre xaarrean
bata bezin lasai,
bestea da maistar maiztar
Tuilleri goitarrean.
Egingo nuke, bai,
angoa lotsa ezetz onuntza ba'nekar.

Nun-naitar izan-miñez,
ostera, gizona
bai txori baldarra!
Alegiñak egiñez
bebil andik ona: onaa
etxez kanpora beti da baserritarra.

Labur: nere burua
Paris'en ikusiz
ain lotu ta arlote,
otoi nizun zerua,
zeatz adiraziz
gizon baño naiago nukela txolarre.

Oarrak: txolarre: gorrión.
Garbizaleak alda ditzakete itz batzuk, onelatsu:
farol: dizpil (foco, arco voltaico, Neol.)
txapel: ginbail.
Mutur: erpin.
Salto: jauzi.

OHARRAK

Bertsioak:

Bi ezagutzen dira, lehenengoa 1930ko Errenteriako Olerti Sariketara aurkezturikoa eta *Eusko Olerkiak 1930*ean argitaratua [72], eta 1932an *Biotz Begietan* liburukoa [73].

Bertsioen arteko aldeak oso txikiak dira:

Ortografikoak: ajolakabe> axolakabe
gallurrera> gaillurrera
txuxen> xuxen
maistar> maiztar
onaa> ona

Morfosintaktikoak: da baserritarra> duk baserritarra

72 Euskaltzaleak, Donostia, 1930, 56-63 or.

73 LIZARDI; Olerkiak, Erein, Donostia, 1983, 97-101. or.

1930ko bertsioak ohartxo batzuk erantsi zizkion olerkiari garbizaleentzako ordezko hitzak proposatuz, eta, bestalde, olerkiaren izenburua mugatzaleaz ageri zen 1932ko bertsioan, eta 1930koan aldiz, gabe.

OTARTXO UTSA

Lizardi'tar Xabier

Eusko Olerkiak 1930
Alaba bakar zunari,
aita-alargunak.

Biotz-Begietan 1930
(Alaba bakar zuenari,
aita-alargunak).

Zumezko otartxoa,
bazterrean utsik...
¿Noizdanik, gaixoa,
ez duzu lorerik?
Udaberriero
baizenkustan ikus
lore-ontzi naro,
¿zergatik gaur ain uts?...

Mendian ari da
kukua kantari;
Basoa ta Itzala
elkarren maitari:
mitxeletak, ilkor-
ezik beren ustez,
badabiltza an ta or
lur apaindu-gainez...

Zumezko otartxoa:
udaberria izan
ta, ¿nola, gaixoa,
zaude bazterrean?

otarñoa_

baxterrean

¡Yun baita, betiko
yun, aitaren poza!
¡Loreak biltzeko
ez izaki gauza!
¡Beso biguin aiek
gogortu baitziran,
ta itzali begiek
gau etengabean!...

Zumezko, otartxoa,
erraidazu, arren
uts duzun ondoa.
Ez ote, bederen,
loreño bat aaztu
zure sabelean;
aita dadin poztu
bere negarrean?...

Ondar ximelenik
gabe zen otarra...
Yaso dut geldirik...
Ari dut negarra...
Geroztik, iñoizka,
urbiltzen natzaio:

begira nagoka,
begira, luzaro...
Ta sarri (gogoan
iduritu bizi)
lore bat, ondoan,
eginik du mami.
Lore bat gorria,
mardul, eze, beti;
erts-ezin zauria
odolezko iduri...

Oroitzezko lore,
laztan biotzeko,
itzali den nere
izarrarentzako.

OHARRAK

Bertsioak:

Bi ezagutzen dira, lehenegoa 1930ko Errenteriako Olerti Sariketara aurkezturiko eta *Eusko Olerkiak 1930*ean argitaratua [74], eta bigarrena, 1932ko *Biotz-Begietan* liburuan jasorikoa eta 1930ean datatua [75].

Bertsio ezberdintasunak:

ortografikoak: j > y
otartxoa> otarñoa
apaindu-gainez> apaindu gaiñez
baxterrean> bazterrean

Grafikoa: 1930ko bertsioan ahapaldiak binaka elkarturik: 1-2, 3-4, 6-7, 8-9 datoz batera; 5, 10 eta 14 banaka eta 11, 12 eta 13 elkarturik.

1932koan, aldiz, guztiak banaturik daude.

Ohar literarioak:

Ahapaldien eraketa ezberdin hau Lizardiren olerkien ezaugarri nagusienetako baten kaltetan dela esan daiteke: lehenengo bertsioaren eraketa gaiaren erritmoaren adierazbide ere bada, narratzailea, aitaren itaun eta erreflexioen arteko ezberdintasunak tonu aldaketak grafikoki ohartzeko balio bait du.

74 Euskaltzaleak, Donostia, 1930, 64-69. or.

75 *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 105-109. or.

¡BIOTZEAN MIN DET!

Euskal Esnalea 1930

Biotzean min det, min etsia,
negar ixilla darion miña.
Amonatxo bat nun: gaur, enarak
etorri garaiez, aldegiña.

Eguzkirik eztute
leiotan zapiak;
aur-jolasik eztago
gaur zure kalean.
Ortzia lits urratuz;
Itsasoak orro.
Gizaldi bat geldirik;
gero bat-batean:

Ots,
ots,
bizion oñok...!

Erreska bi gizonek
argizai oriak;
gorputza lau bilobok;
atzetik andreak.
Ai, ene lor arin au
zein dedan larria!
Besoek ez lan arren,
biotzak nekeak...

Ots,
ots,
bizion oñok...!

Mendea ia betea
ta ain illaun gorputz xaar!
!Bezak gogoa goien
i bezin ariña,
ta bezat nik nerea,
dei nazatenean,
ezin-itzal-Argiruntz
egatzeko diña!

Ots,
ots,

BIOTZEAN MIN DUT

Biotz Begietan 1930
(ILLETA-ERESI)
(Amona zanaren
eortz-egunean).

dut

ez dute

ez dago

Odeiek lits urratu;

Gizadi

Errezka

dudan

Orain larogei urte
kale poz-gabeok
eguzkiak zitun ta
zure aur-jolasak
alai. Gaur, baña, arriek
ere baitira itzal,...
!Nork lekuskez ikusi
urte urdin igesak!

Ots,
ots,
bizion oñok...!

Egun zaarrak joan ta
berriak etorri,
gaur poz biar oñaze,
noiz burni noiz zillar,
!zenbaitek ondamendi
baituten katea
lore-sorta bekizu
goi-muñoak zear!

Ots,
ots,
bizion oñok...!

Bat-batean eten da
bizion ots ori.
Gorputza laga degu
nunbait. ¡Al-dakit nun!
Bultza naute barrura...
ñir-ñir aunitz argi...;
ordia-antzo sar nazu,
begi-lauso ta urgun.

Ots,
ots,
enegan, biotz!

!Amonatxo! Bakarrik
zagoku atean.
otz ta gogor entzuten
zure azken-Meza.
Zerraldo-olen artetik
(negu-gaua iduri)
¿ez al-datorzu, uluka
aize erruki-eza?

Ots,
ots,
enegan biotz!

alaitzen. Gaur arriak

nork

otz ta gogor, entzuten

Begiok ero ditut,
noranai doazkit;
dantza naasi bat dabilt
irudimenean.
Goruntz egik, biotza:
!otoika lasa adi!
!Ixilla sor ba'ledi — badadi
nere barrenean! — ire

Ots,
ots,
enegan, biotz!

Ordu bete luze bat — luzea
igaro zan. Noizbait,
berriro lor illauna
besoek... Urrena,
muño baten gañean — gaiñean
uri ixil bat arki...
Poz-oñaze-kateak — oiñaze
emen dik etena.

Ots,
ots,
bizion oñok...!

--- — *********

Ol bat jaso ta ikusi
det musu ximela: dut
parre-antxa, bizirik
ba'lirau beza: — balirau

(¡Ots,
ots,
ler adi, biotz!)

Ordun izar bat biztu — ixar
du nere gau beltzak.
Begiok malko ixil bat — Begioi malko ixil bat
dardarka dixurte. — dardarka darite.
Noizbait itxaro-kabi
biur dan biotzak:

(¡Ots,
ots,
jauzika, biotz!)

"¡Agur- oiuka dio-,

gorputz ximur maite!
¡Agur, amonatxoa!
Egun Aundirarte...!"

---------- *********

Biotzean min det, min etsia, dut
zotiñik-gabeko negar-miña.
Alatsu txoriak, uda-ondoz,
negua du galazi-eziña.

OHARRAK

Bertsioak:

Bi ezagutzen dira: lehenegoa, *Euskal Esnalea*n, 319, VII-1930, 145-149 orrialdeetan argitaratua eta bigarrena *Biotz-Begietan* liburukoa.

Aldaketa nagusiak

1.- Ortografikoak eta euskalki aldaketak:

det > dut
eztute > ez dute
eztago > ez dago
dedan > dudan
arriek > arriak (nor plurala)

2.-Palatalizazio edo bustiduraren erabilkera adierazgarrira jotzen du:

EE bertsioan: izar bat biztu du nere gau beltzak
BB bertsioan: ixar bat...
Argiaren xumetasuna azpimarratzeko.

3.- Poemaren egituraketaren arloan aldaketa gutxi nabarmentzen dira bertsio batetik bestera, ohizkoa den gisan. Ahapaldiak multzokatzeko era ezberdina da bertsio batetik bestera, eta adierazkorra den aldaketa da.

*Euskal Esnalea*ko bertsioan zazpi multzo bereizten ditu:

1.- Sarrera 1
2.- Kaleetan 5 eta "ots/ots/ bizion oñok"
3.- Elizan 3 eta "Ots, ots, enegan biotz"
4.- Kanposantura bidean 1 "ots, ots, bizion oñok"
5.- Kanposantuan 1 eta "Ots/ ots/ ler adi biotz"
6.- Agurra 2 eta "Ots/ ots/ jauzika biotz!"
7. Amaiera 1

Biotz Begietan liburuko bertsioan zati gutxiago egiten du:

1.- Sarrera 1
2.- Kaleetan 5...
3.- Elizan 4 (EE.ko 3. eta 4.enaren baterakuntza)
4.- Kanposantuan 3 (EEko 5 eta 6. bateratuak)
5.- Amaiera

Ahapaldiak biltzerakoan Lizardik eragin dion aldakuntzarekin lehen bertsioan nabarmentzen ziren eraikuntza irizpideetako batzu aldatu egiten dira: zati bakoitzak ia ia berezitasun metrikoa eta emozionala du, ahapaldi tankerak aldatu egiten dira multzotik multzora eta leloa beti bera da multzo bakoitzaren barruan, poetaren une bakoitzeko barne-egoeraren adierazgarri.

4.- Bigarren ahapaldian bosgarren bertsoan hitz, zentzu eta sintaxi aldaketa bat dago:

EE. bertsioan: Ortzia lits urratuz
BB bertsioan: odeiak lits urratu

Prosaz eta gaztelaniaz ematen duen bertsioarengatik, jakin genezake ekaitza zela Zarautzen amona ehortzi zen egunean eta horregatik zerua laino ilunez estalirik zegoela

> "Y un día muy gris hinchadas nubes hendían el cielo espacio, goteando a intervalos pesada y amenazadoramente... Seco y desgarrado era el estruendo del desgarrado mar..." [76].

Biotz-begietan liburuan jaso zuen bertsioak prosaz azalduriko irudi bera da, hodeiak dira sujeto ergatibo gisa zerua urratzen dutenak litsetan, *Euskal Esnalea*ko bertsioan zerua da sujeto pasiboa, Osagarri Zuzena, beraz, lits urratuak dituena, zerbaitek urratua.

EEko bertsioan Ortziak eta Itsasoak naturaren osagarri teluriko nagusi gisa pareko dira eta biak adierazten dute dramatikotasuna, zeruak urratua ageri du, plastikoki koloreez eta hautsiaz dramatikotasuna adierazten duena, itsasoak aldiz, bere hotsaz. *Biotz Begietan*go bertsioan aldiz, hodeiak eta itsasoak ez dute maila teluriko bera, baina badute sintaktikoki eta beraz, poemaren beste ardatz bati dagokion paralelotasuna biak dira eragile, biak nork markaz eragiten dute amonaren heriotzarengatiko oinazearen adierazbide modu bat, kolore, eta itxura plastiko hautsia, desgarratua, itsasoak aldiz, hotsa.

5.- Boskarren ahapaladian ere bada beste aldaketa bat.

Hain zuzen ere, amonaren gorputza daramaten kaleetan sumatzen den giro kontrastea, hura gazte zen eta ehortz eguneko tristuraren artean.

*Euskal Esnalea*ko bertsioan, sintaktikoki, konjuntzio adbertsatibo batek azpimarratzen du ezberdintasuna:

> "Orain larogei urte/ kale poz-gabeok/ eguzkiak zitun
> ta/ zure aur-jolasak/ alai. Gaur, baña, arriek/ ere baitira itzal.../

Lehenengo eta behin nor pluralaren marka -ak ipintzen dio "arriak" hitzari BB.ko bertsioan "dira" aditz iragangaitza bait da.

Bestalde, aurkakotasuna azpimarratzeko sarrerazitako "baiña" ere ezabatu egiten du bi arrazoirengatik: bata, bertso hasieran dagoen "alai" sintagmaren funtzioa ez baita behar bezain garbi agertzen aurreko esaldiaren barruan, eta ulerkera erraztu egiten bait du "alai" adjetiboak zukeen "complemento predicatibo" funtzioa "alaigarri" aldatuz, alai aditz bihurturik ageri da. "alai" "alaigarri"ren ordez bezala, beste zenbait adibide aurki litezke III: partean, azterketa morfosintaktikoaren atalean 2.1.3. "Atzizki eratorleaz soilduriko lexemak" deritzan puntuan.

Ohar metrikoak:

Ahapaldiak: Bi mota nagusi: poemaren lehen eta azken ahapaldia 10/10A/10/10A egituraz eta tarteko guztiak, aldiz, 7/6a/7/6a/7/6a/7/6a.

Erritmoa: bereziki adierazgarria den estribilloa du, poemaren gaiaren erritmo bera daramana. (Ikus III. partean, 1.4.5. puntua "Beste zenbait baliapide erritmiko).

---

76 LIZARDI; "El tema del día" in *Euzkadi*, 1929-6-13, 1.or., *K-L* 176-178. or.

Ohar tematikoak

Lizardik poema honetako gaiaren eta inpresioei buruzko zenbait zantzu adierazi zituen egunkarietako zenbait artikulutan:

1.- *"Begiok ero ditut,*
noranai doazkit;
dantza naasi bat dabilt
irudimenean.
Goruntz egik, biotza:
!otoika lasa adi!
!Ixilla sor ba'ledi
nere barrenean!"

"Mirámoslo largamente, en tanto que en el pensamiento nos bailaba una danza loca y lúgubre, mezcla de dorados recuerdos y de actuales consideraciones desoladas". [77]

Lizardik Evaristo Bustintza "Kirikiño"ren ehorzketan izaniko inpresioen azalpen eta hausnarketa gogoratzen du ahapaldi honek.

2.- Urte bereko "El tema del día" [78] artikuluan aldiz, olerki honetan agerturiko sentimenduen agerpen zehatza egiten du, eta zenbait puntu argitzeko interesgarri izan daiteke:

"Yo tenía una pobre abuela vieja y arrugada, único lazo vivo que me unía con ese tiempo digno que la buena ilusión que el soñador desea con prestigio de preciso retablo cubierto de venerable polvo que posó sobre ingenuas figuras... Y hacia el final de su dilatada carrera, flaqueóle la razón; vimos amenguarse hasta acabarse ese divino rayo que pone en nuestras mentes reflejos del sol inefable que brilla en lo alto sobre el manantial, y convirtiendose la abuelita en una como niña octogenaria, pero niña muy poco razonable que se movía sin cesar, que cometía mil y mil travesuras, que desoía cualquier género de juiciosas recomendaciones, y que, en fin, daba en la casa un trabajo ímprobo.

Sin embargo, y con qué doliente amor la veíamos declinar, con qué pena tan honda pénsabamos que había de morir sin volver a reconocernos. !Y qué no hubieramos dado y hecho porque aún sin esperanza de sanar, siguiera viviendo años y años, tantos siquiera como hayamos de contar sus nietos!.

Mas, por fin murió... Y un dia muy gris hinchadas nubes hendían el cielo espacio, goteando a intervalos pesada y amenazadoramente... Seco y desgarrado era el estruendo del desgarrado mar... Y los nietos de la pobre abuela hollamos las calles del pueblo, aquellas que en lejanos dias de sol fueron azules para ella y lo han sido también para nosotros en otras más recientes. Y pendientes de nuestros brazos iba la carga frágil, del despojo triste de la madre de nuestras madres... ; en medio del largo cortejo que iniciaba en alto la cruz rematada por cien negrísimos mantos de mujer, las pisadas de los vivos resonaban con un eco extraño y estremecedor...

Ese momento ha quedado gravado hondamente en mi mente, porque sufrí de pronto como una alucinación y pensé que asistía a las exequias del euskera. En fuerza de aquella visión interior, la analogía de casos, la personalización del "viejo e inutil" en el cadaver liviano que nuestros brazos sostenían, fueron, por un instante de claridad maravillosos. Entonces se me apareció con trazos serenamente acusados, con perfiles como de pesadilla, como de súbita explosión de magnesio, la naturaleza inconsciente a medias, sí, pero repulsiva sin atenuaciones, del delito que cometen los euskaldunes que en el día de hoy cortan el hilo que nos une, tal vez, a los orígenes del hombre...

Es como si nosotros los nietos de aquella pobre abuela, al verla inútil para nada de provecho, gravando a quienes la rodeaban con la obligación de cuidados extraordinarios... hubiésemos decidido extrangularla sigilosamente" [79].

---

77 LIZARDI; "Hora triste" in *Euzkadi*, 1929-2-8, 1 or.

78 LIZARDI; "El tema del día" in *Euzkadi*, 1929-6-13, 1. or.; *K-L* 176-178. or.

79 LIZARDI; "El tema del dia" in *Euzkadi*, 1929-6-13).

Ohargarri da prosazko zatian Lizardik kontatzen duen "epifania" moduko hura, bisio edo aluzinazio hark zuen zentzua, hau da euskaren hiletetan zegoen irudipen haren aipamenik ez dela egiten poema honetan. *Biotzean min dut* olerkiak ez du horrelako interpretaziorik egiteko zantzurik eskeintzen, nolabait esateko eliz barrenean izandako impresio gogor horren eta sorgorturik maite zuen amonaren ehorzketa egunean izaniko impresioaren handiak eraginik dagoela adierazten da, baina azkenean itxaropen eta fede erlijiosoa da oinazea eta egoera sorgor horretatik ateratzen duena.

Egun horretan izaniko bisioak eta amona eta euskararen eriotzari buruz dituen irudipen etsigarriak beste bi poemetan ageri dira askoz nabarmenago: *Asaba zaarren baratza* eta *Euskal Pizkundea* direlakoetan. Han datu errealak, Lizardiren amona zenaren heriotza eta azken urteetako egoeraren zantzu konkretuak daude jasorik, baina sinbolizazio mailak alegoria bilakatzen du, 1918ko *Euzko Deya* aldizkarian argitaratu zuen *Amona ximel maitagarria*ren ipuinean bezala.

Biotzean min dut, aldiz, amonaren bizitza eta heriotzaren oroitzapen eta harekiko harremanen adierazgarri afektibo hutsa da. Ez da bakarra, ordea, 1919ko *Euzko Deya*n *Amona* deritzan poeman eta hil zenean prestatzen ari zen *Maitea*ren apurñoak zeritzan poema nagusian kokatzen den izen bereko *Amona* poemak ere tankera hau dute. 1919koak iadanik amonaren heriotzaren gertatu beharraren patuari buruzko ausnarketa egiten du, azken urteetakoak, 1933koak aldiz, berarekiko harremanei buruz dihardu eta oroitzapen pertsonalez josia dago, janzkera, eginbeharrak, ...

Bertsioak:

Euzkadi, 1931-11-24ean, argitaratu zuen lehen aldiz olerki hau Sabino Arana-Goiriren heriotzaren urte-urrenaren bezperan, haren omenez idatziriko beste zenbait lanen artean atera zelarik lehen orrialdean. Bigarrenez, *Biotz Begietan* liburuan, 1931kotzat dataturik [80].

Bertsio ezberdintasunak ortografikoak baizik ez dira.

Liburuko bertsioak jatorrizkoan agertu zen eskeintza jasotzen du: Unamunori eginiko eskeintza, hain zuzen ere, eta zehaztasunez, 1930-31 urteetan idazle hark euskararen gaieztasunari buruz eginiko adierazpen batzuei erantzunez egina dirudi.

Ohar tematikoak:

Lizardik poema honetako protagonistatzat hautaturikoa *Maiteder* da, 1919ko poemaren protagonistaren deitura bera duen emaztekia, baina nortasuna berria da. Maiteder berria olerkariaren adimenaren "ezkon xuria" den hizkuntza da, Orixek esaten duenez, zarpazu esan dioten andere aberats batek aterako luken yantziz yantzia.

Lizardik hautatu duen metaforak zerikusirik baduke beste zenbaitetan bezala Frederi Mistralen obrarekin.

Engrazio Aranzadi "Kizkitza"k "Mistral" [81] izenburuko artikuluan Lizardiren irudiarekin zerikusia duen Mistralen idatzi bat aipatzen du:

> "Escribía Mistral al comenzar su empresa patriótica: En los apriscos y majadas pastoriles, vimos a la lengua provenzal vestida con toscos harapos, pues la pobre, yendo a apacentar las ovejas, había visto tostar su rostro y no tenia otra cosa más que su luenga cabellera para cubrir sus espaldas desnudas. Pero he aquí que unos jóvenes apuestos, al verla tan bella, se sintieron subyugados por su hermosura. Sean bienvenidos ya que han acertado a vestirla con los atavíos propios de la más hermosa dama".

80 in *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 175-183 or.

81 in *Euzkadi*, 1930-6-17, 1. or.

URTE GIROAK ENE BEGIAN

I - NEGU I

1930 Euska Esnalea

Otsail-erdiruntz ikusia

Egur ezearen kea
goiak du kolore:
egunaren atariruntz
zauri bat gordiña,
odol-bearrean urre.
Sakoneko lañoz gora
tontorrak elurrez:
itsasoa iduri,
ametsezko ontziez.

Bide-ertzean, ez marrubi
ez belar gizenik.
Otalorea, bakanka,
goiztxo karraxika,
udaberriari deika.
Or pago bat, lerden-aski,
igazko apaingarriak
(gaur orbel gorriak)
oso jaregin nai-ezik,
nola baituten oi
neskazar ezin-etsiak.
Ostobakandu-sasian
kabi bat, uts, urratua...
Arru-beetik errekak ots,
euriteak bulartua...

Basora naiz. An-or,
goldiozko ogean,
joan-elurte gaitzaren
ondarrak nabari:
kabidun usoak, ala
emazte zuurraren
zapiak iduri.
Aritzak, eundaka,
aier zazkio goiari,
argi-leenenkia
egarri baitute,
arako urrezko zauria
izanik iturri.
Orregatik daude
luze-luze egiñik,

I - BIZIA LO

Biotz Begietan

1930ko dataz

Otsail-erdi

laiñoz

Udaberria

artean oñak illunik,
azken-arbazta-begiez
udaberrirako biziez.

!Oi zein aizen eder, loa:
eriotzaren anaitzakoa:
bizitzazko urloa!...

OHARRAK

Bertsioak:

Hiru ezagutzen dira, lehena *Euzkadi* egunkarian "Erdi-bearra" [82] artikuluan, urte bereko *Euskal Esnalea*koa [83] eta 1932ko *Biotz begietan*goa [84].

Lizardik *Negu* edo 1932ko bertsioan agertzen den bezala *Bizia Lo* olerki honen sortzeko egokiera eta unea deskribitu zuen "Erdi-bearra" deituriko artikuluan.

Han ematen duen bertsioa ez da bertso tankeran idatzia, prosa tankeran baizik, baina etenak, bertsoen neurriak markatuak daude jadanik, eta 1930ko EE nahiz BB bertsioetan daudenekin erabat dator bat. Udaberria ez da pertsonifikazioa bihurtua maiuskularen bitartez BB.ko azken bertsiorarte. Gainerakoan aldaketa ortografiko bakarraz gain, izenburua eta azpititulua soilik aldatu zituen: lehen bi bertsioetan olerki autonomotzat du eta "Negu" du izenburutzat eta inpresioak "Otsail-erdian ikusia" dela zehazten du.

Azken bertsioan aldiz, "Urte giroak ene begian" poema orokorraren lehen atala da poema hau eta horregatik azpitituluan dagoen "-n ikusia" erredundantetzat kendua dago. "Negu" enuntziazio zuzena zeharkako batez ordezkatu du eta urte-giro bakoitzaren izendapena bere begietan nagusi den inpresioaz ordezkatu du: neguan *Bizia lo*, udaberrian *Sagar-lore*, udan *Baso-Itzal*, udazkenean *Ondar gorri*.

Lizardik olerki hau bere sorketa prozeduraren adibidetzat aurkezten du:

> "Goia, mendi-gaillurrak, bideko zernaitxoak, basoa, elur-ondarrak: laburki, begiragarri oro, nortu eta eraski olertsuez mamitu zitzaidan. Sorginkeriazko nortze ta mamitze orren indarrez. Goiak bazirudidan Egunak urrezko azkonez zauritutako norbait. Karraxika nentzun bide-ertzean otalorea: aots bizi-pitzatu batek eztarri meea lakartu eta eten-bear ziolarik. Pago bakarti bati neska pertxentaren tankera artu nion. Basoa, ez aritzez zirudidan osatua, baizik... norbaitzuez: oin-oñeen gañean luze-luze egiñak, erne-indarra goi argi-jario artatik egarriz edaten.." [85]

Ohar metrikoak:

8/6a/8/6/8a/8/6b/6/6b .

Ahapaldiak: Zortzi eta sei silabako bertsolerroen konbinaketaz eginiko ahapaldi asimetrikoak hiru bertso errimadunez osaturiko ahapaldi motzaz burutzen da.

Ohar literarioak:

---

82 LIZARDI; "Erdi-bearra" in *Euzkadi*, 1930-5-8, 5. or.; *K-L* 299-303. or.

83 LIZARDI, X.; *Euskal Esnalea*, 316, IV-1930, 66-67. or.

84 LIZARDI; *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 141-143. or.

85 LIZARDI; "Erdi-bearra" in *Euzkadi*, 1930-5-8, 5. or.; *K-L* 300. or.

Lizardiren 1930 urte inguruko olerkietako zenbaitetan Emeterio Arreseren *Txindor* liburuko poemen oihartzuna sumatzen da, batez ere irudietan, metafora eta konparazioetan.

Zehazki, *Negu* izeneko olerki honen azken ahapaldiak Arresek udan bilaturiko itzalpeari egokitu dion irudia darabil "Ibai-ertzean" [86] poeman:

"Bizitzaren itxasoa
kerizpe ontan ugeldi"

(Ibai-ertzean 25-26, 93 or.)

Lizardik udaz *Baso-Itzal* olerkian ere "suzko itxasoa" den uda Basoko itzala den "untzi geriza ontan nai aut igaro" esaten du.

Arreseren poema honen oihartzunak entzun daitezke *Gure mintzo* olerkian ere:

"Berriz-yaio-poza suma nuen
gezal mugagabez bide-ginyoazen:
bizitza-itsaso otxan barea
goiz-eguzkiaren txinpartez ernea!".

(GM 33-36, 207-211).

"Bizitzaren itxasoa
kerizpe ontan ugeldi;
nere atseden zakonak
osin bat ziñez dirudi:
ibaiko auxe bezela
otxan, bare, geldi-geldi,..."

("Ibai-ertzean" 1-6, 93 or.)

Emeterio Arreseren idazlanetako adjetibazioa eta zenbait irudi Lizardiren olerkietan aldatuak eta sarritan eraldatuak aurkitzen ditugularik nabarmenago egiten da Lizardiren nortasun poetikoa: gaien depurazioa nagusitzen da, Arreseri irudi erakargarriren aldean sarritan isurtzen zaizkion prosaismoak, Lizardik "bertso zabarrak" deitu zituenek ez dute Lizardiren irudi hautatu eta adjetibo zainduen diztira itzaltzen.

II - SAGAR-LORE

Bertsioak:

Bi ezagutzen dira, *Eusko Olerkiak 1931* [87] eta *Biotz Begietan* liburukoa [88].

Bertsio aldaketak grafikoak dira, koma eta puntu eta koma aldaketa zenbait. Lexiko alorreko bi hauek soilik:

giarki > zain-giar (BB)
Bizitze-erditze > Bizi-erditze (BB)

Ohar literarioak

86 ARRESE, E.; *Txindor*, Leizaola, Donostia, 1928.

87 *Eusko Olerkiak 1931*, Euskaltzaleak, Donostia, 1932, 7-11 or.

88 *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1931, 147-151 or.

Poema honen laugarren ahapaldiaren egitura erritmikoak Emeterio Arreseren "Lozorroa" [89] izeneko poemaren amaierako ahapaldia gogoratzen du:

Goiznabar-zori, goiznabar-zori!
leiza-zuloa erraldoi-obi!
Mendi-tontorra len bezin alai;
!garaitots, garai!
Egun argitzez andik amildu
osin-basoko mamutzar ori! (25-30)
Sagasti berri, sagasti zuri,
inguma-atsegintokia iduri,
elurte arian geldia!
Ezin urtuzko txingor ugari,
azpi gizenean duk nabari
zelai-bitxizko loredia... (25-30)

III - BASO-ITZAL

Bertsioak:

Hiru argitaralpen izan zituen Lizardiren poema sarituak. Lehenengoa, *Euzkadi*n, 1931-9-29an argitaratu zen *Baso-Itzal*, Tolosako Olerti-sariketaren irabazletzat [90].

Eusko Olerkiak 1931 liburuan argitaratu zen *Urte Giroak* poema oso-osorik, *Baso-Itzal* olerki sarituarekin batean [91].

Bertsio ezberdintasunak oso gutxi dira:

Ortografikoak: j > y

Bestelakoak: dedan>dudan
gorriak astundu-tantai arrizko> goriak
zaika geldi> zaizka geldi

Ohar literarioak:

1.- *Baso Itzal* olerkiaren zenbait ahapalditan Emeterio Arresek 1928an argitaraturik Txindor poema liburuaren oihartzunak suma daitezke.

Esate baterako, Txindoki mendia "goriak astundu-tantai arrizko" iruditzen zaiola esatean, Arreseren "Aralar" eta "Uzturre" poemetan [92] aurkitzen den konparazio berbera da:

ARALAR

Aralar, Aralar, otoi-nedi...
Kementsu ta betigarai
gizandi jator baten antzera
goi-goyen zakust aberzai. (1-4)

UZTURRE

89 ARRESE, E., Txindor, 153 or.

90 in *Euzkadi*, 1931-9-29, 7 or.

91 *Eusko Olerkiak 1931*, Euskaltzaleak, Donostia, 1931, 2-25 or.

92 ARRESE, E.; *Txindor*, Leizaola, Donsotia, 1928, 7. eta 12. orrialdeetan.

Negu beltzean ere biziro egoki,
naiz tximistaz argitu, naiz elurrez jantzi,
buru ta soin Uzturre jator dago beti.
Arkaitz biyurtutako zantzo bat dirudi!" (5-8)

Lizardiren esamoldea metafora bilakatua da eta azterketaren maila sintaktikoan zehatz-mehatz aipatu den egitura sintaktiko bereziki trinkoaren bidez adierazia du.

Lizardiren "Itzal, pagadiaren ume jaukal" (SL 37) eta "Basoren ume jaukal" (BI 43) pertsonaia sotila, arraia, andereño otxana... ere Arreseren poemetan maitekor datorkio olerkariari "Illunabarreko zoria" [93] izeneko poeman:

"Erabat emen
ixildu dira
kantari zeuden txoriak,
sorginkerizko
lillura dakar
arratsaldeko zoriak.

Keriz otxana
maitale dator
illun-aurreko aroaz; (7-15)

Emeterio Arreseren olerkietako irudi eta adjetibaketaren zantzuak ere aurki litezke *Urte Giroak ene begian* poeman ez ezik, *Neskatx urdin yantzia, Arrats Gorri...*: "Urte urdiñak", "laztan urdiña"

Esate baterako, "Etxalar" [94] deritzan poeman

"Udazkena da... Egurats epel
ariñak usai gozoa dakar;
eguzki orail irten-berriak
Atxurmendi gañez irripar
alaya dagi..." (25-29)

IV - ONDAR GORRI

Bertsioak:

Bi ezagutzen dira, Eusko Olerkiak 1931 eta Biotz-Begietangoa.

Aldaketa xume bat besterik ez dago bien artean, boskarren ahapaldiko "mitxeleta" hitza hizki larriz agertzen da 1932ko bertsioan.

Biotz-Begietan liburuan eta *Eusko Olerkiak 1931*ko bertsioen artean alderik ez badago ere biei eginiko itzulpenetan aldeak nabaritzen dira.

ONDAR GORRI "PLAYA BERMEJA" da *Eusko Olerkiak 1931* eta "ROJA ARENA" *Biotz-Begietan* delakoan.

Era berean,

93 ARRESE, E.; *Txindor*, Leizaola, Donostia, 1928, 16. or.

94 *Ibidem*, 103-104. or.

"Azaro-leena" "Principios de Noviembre" da *Eusko Olerkiak* 1931koan eta "A principios de la sementera" *Biotz-Begietan* liburukoan.

Ezberdintasun hauek argitzen dituen ohar bat aurki daiteke 1932ko *Biotz-Begietan* liburuaren lehen edizioan:

> "(Había titulado yo la traducción de esta poesía "Playa Bermeja" (Principios de Noviembre). Pero luego he preferido sustituirla por otra que, esponáneamente, me tenía hecha mi buen amigo señor Ormaetxea ("Orixe") que es la que va a continuación, de la que yo mismo utilice bastantes elementos para la mía). - El autor. (127. or."

Lizardiren ohar honek liburuko itzulpenak Orixerenak direla frogatzeaz gain bien itzulpenen artean dagoen aldea nabarmenerazten du: Lizardik hitzez-hitz egiten du, Orixek "multzoka", inpresioka baina zehaztasun gutxiagoz.

Ondar Gorri poema honetan Orixeren itzulpenei lau ohar erantsi zizkien: bi azpiohar gisa eta beste bi itzulpenetan bertan sarreraziriko parentesi arteko azalpen laburretan.

Hona hemen azpioharrak. Lehenegoa 72. bertso-lerroaren itzulpenari dagokio:

1.) "urrezko itsasoa bebiltz urduria"

Lizardik "navegé yo en el dorado mar inquieto" azpioharra erantsi zuen eta Orixek zera erantsi zion azpioharrari:

> "Me gusta mas la traducción literal de esta frase: "gire aun en mi derredor el dorado mar inquieto" (El traductor)".

Orixek berak egiten duen itzulpena hitzez-hizkoa dela dioen arren, Lizardik *Eusko Olerkiak 1931* libururako eginiko itzulpenak dioena "sobre el aúreo mar hirviente vuelva a navegar" dioenean itzulpen literala egiten ari da, ene ustez, eta Orixe "bebilkit" balitz bezala itzultzen ari da, Lizardik berez "ibil bezat"en esanahiz, alegia, ibili aditza nor-nork gisa erabili nahi duela ohartu gabe.

2.) *Ondar Gorri*ren azken ahapaldiaren itzulpenari dagokio bigarren azpi oharra:

> "Ta udazken-atsarreko goiz batean,
> esnatu nadi Yainkozko Betean!

Lizardiren itzulpena "Y en una mañana de principios de Otoño" da, *Eusko Olerkiak 1931*en bezalaxe. Orixek erantsiriko azpioharrean: "Comienzo de sementera..." dio, azpitutuluan bezala.

133. orrialdeagertzen diren itzultzailearen bi ohar hauekin batera Argitaratzailearen ohar bat ere irakur liteke:

"Los paréntesis en cursiva son del autor en los contados pasajes en que, a su juicio, el pensamiento no ha sido vertido completamente".

Verdesen ohar honek guztira hiru diren parentesi arteko Lizardiren ohartxoen aipamena egiten du. Izan ere Orixek eginiko itzulpenak aldatu beharrean, Lizardik nahaigo izan zuen zenbait zehaztasun parentesi arteko ohartxoez ematea.

Ohartxo horietako hirurak *Ondar Gorri* poema honi beroni dagozkio. Poema honen itzulpenari Lizardik bere itzulpenean (127. or.) (*Eusko Olerkiak 1931*koan) gehiago gustatzen zaizkion esamoldeak sarrerazten ditu:

5 *(Itsasoak bai-baitu, urrun-ertzean,*

urre gorizko bide-goenean, [95]
legor bat -odol-uts iñularrean-
Eguzki nondik sar atsedenean...)

9 *Aingura bota dut Arratsaldean:* [96]
oña dut ezarri Udazkenean..."

Hirugarren oharrak (133. or.) OG 62-63 bertsoen itzulpenari dagokio:

62 *Bekusat sagasti gazte elurgiro,*
udalen-sortoge dana.

Orixek "Véate joven manzanal de flor de nieve..." dionean Lizardik "(como nevado)" erantsi du, zehazteko asmoz hain zuzen ere. Lizardiren irudiak ez bait du esan nahi sagarrondoaren loreak elurraren kolorekoak ikusi nahi dituenik, sagastian elurra egin balu bezala baizik.

95 Orixek eginiko itzulpenari -al cabo de una hirviente vía de oro- erantsi dio Lizardik intzisoaren bidez sarrerazi nahi izan zuen irudia zehatz-mehatz itzuliz.

96 Orixek "Al atardecer" dio eta Lizardik parentesi artean erantsi "(En la Tarde)" kasu honetan Lizardiri bereziki interesatzen zaio zehatzasun hau, Arratsaldea hizki larriz idatziz Udazkena, edo Uda edo Udaberriari bezala balore semantiko berezia eman nahi dio: Uda "Estio" esanez itzuliz itsaso baten metaforaz pareka lezakeen bezala, Arratsaldea leku bat da metaforikoki hondartza bat, Uda den Itsasoa eta Udazkena den lurraldearen arteko bazterra edo hondartza.

Bertsioak:

Lizardik *Euzkadi* egunkarian argitaratu zuen [97] *Biotz-Begietan* [98] liburuan baino lehenago, baina ez dago bien artean ezberdintasunik.

Lizardik 1932ko *Biotz-Begietan* liburuan olerki honetaz Orixek eginiko itzulpenari ohartxo bat erantsi zion 153. orrialdean.

Ta leen ikusi-gabeko
zuaitz berri bat zegoan
erdian, guzien buru ...
Aren gerizak erri-baratzak
ezin-ilkor egin ditu.
(AZB 96-100, 197)

Orixek eginiko itzulpenean "los huertos-pueblos" delakoari oharra erantsi zion Lizardik

"(1) El patriotismo."

Lizardik ohartxo honen bidez orixeren itzulpenak eta olerkiak berak ere zehazten ez duen alderdi bat azpimarkatu nahi zuen: Olerkiak euskararen transmisio kateaz dihardu eta kate hori ez hausteak baratzari udaberria ekarri dion modu berean, lehenago ikusi gabeko zuhaitz bat ere berpizten du, guzien buru dena eta herriaren, nazioaren baratza ezin-hilkor bilakatzen duen abertzaletasuna da. Lizardik olerki honen maila sinbolikoaren ulerpenerako giltza eskaini nahi izan zuen ohartxo honen bidez.

Ohar metrikoak eta tematikoak:

Jadanik aipatu dira azterketa metriko-fonikoan eta edizio kritiko honetan *Amona zimel maitagarria* deritzan ipuinaren oharretan, aurreratu dira ohar garrantzitsuenak.

97 *Euzkadi*, 1931-12-6an, 6. or.

98 in *Olerkiak*, Donostia, Erein, 1983, 185-197. or.

ZUAITZ ETZANA

Bertsioak:

Biotz-Begietan liburuan [99] argitaraturiko poemen artean aurretik argitaratu gabeko hiruetako bat dugu hau. Orixek liburuaren hitzaurrerako eginiko oharren artean *Izotz ondoko Iguzki* eta *Gure Mintzo* soilik aipatzen ditu azken ordukotzat, beraz, ezagutzen ez den arren, baliteke lehenagoztik ezaguna eta argitaratua izatea.

IZOTZ ONDOKO IGUZKI

Bertsioak:

Bakarra, *Biotz Begietan* liburuan argitaraturikoa [100].

Mintzaira poetikoa *Maitea* poemako zenbait olerkirekin aldera liteke. Trinkotasuna bere azken ondorioetaraino eramana, ausardia morfo-sintaktikoak, yustaposizio sintaktiko erradikala...

Ohar tematikoak:

Gaien aldetik azken epeari dagokio osoki, natura, olerkariaren ni lirikoa eta biografikoaren presentzia sendoa, poemaren amaierako sinbolizazioarekin.

GURE MINTZO

Bertsioak:

Bakarra ezagutzen da, *Biotz Begietan* liburuan argitaratua [101].

Ohar metrikoak eta morfosintaktikoak:

Azterketa metriko eta morfosintaktikoan jasorik.

Ohar tematikoak eta literarioak:

Jauregi zarra izeneko ipuinaren iruzkinean jasoak, bai eta *Euzkera sarkundia* delakoan.

---

99 *Ibidem*, 133-137 or.

100 *Ibidem*, 199-205 or.

101 *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 207-211 or.

UMEZURTZ OLERKIAK

Lizardi hil ondoren beren paperen artean aurkitu ziren poemen argitaralpena egin zen 1934ean [102]. Hauez gain, gerora beste bi poema eman dira ezagutzera *Euskal Pizkundea* eta *Etxeko Sagastia.*

Bertsio bakarra dugu 15 olerki hauei buruz eta beraz, Erein argitaletxeak 1983an argitaraturiko *Olerkiak* bilduman jasoak dauden gisan aipatu dira lan honetan.

Poema hauei zegozkien ohar kritikoak edizio honen hitzaurrean jasoak dira, eta aipamen puntualak ere aurki daitezke beste poemei eginiko ohar kritikoetan.

ETXEKO SAGASTIA

OHARRAK

Bertsioak:

Bakarra, *Yakintza*, 1935, 14.(III-IV), 95 or.

Ohar metrikoak:

Aranaren araudia.

Ahapaldia: 7/7a/7/6a/7/6a/7/6a.

Errima: bi bokaletan oinarritua sarritan, bai eta azken silaba osoan ere.

Ohar tematikoak:

Olerki honek "*Maitea*ren apurñoak" izeneko poema amaigabearekin du zerikusia gaiari begiratzen bazaio.

Umezurtz olerkiak delakoan argitaraturiko VII. jalkian aipatzen den "Lau aurtxoena" izeneko zatia, beharbada, olerki honezaz osatzeko asmoa zuen [103].

Aipagarria da *Maitea*ren arian, olerki honetan eta *Etxe barne bizia* [104] ausnarketa beraz amaitzen duela gogoratzea, eta baliteke poema osoaren amaieratzat moldatua izatea poema hau.

"Neguak elurrez zurituko gaitu, baiño nere naia, aur ok beti olaxe irautea litzake". (*Maitea*ren apurñoen aria).

---

102 AGIRRE, J.M., "LIZARDI"; *Umezurtz Olerkiak*, Euskaltzaleak, Donostia, 1934, 11-58 or. Aitzolen hitzaurrea, 3-10 or.

103 in *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 219 or.

104 in *Argia*, 1932-5-17, 573., 9. or.

Bertsioak:

Bakarra, *Biotz Begietan* liburuaren hirugarren argitaralpenari erantsiriko poema soltea eta 1985ko *Olerkiak* bilduman ere jasoa dago [105]. Labaienek dioenez, hil baino aste batzuk lehenagokoa da eta 1933ko martxokotzat ematen du [106].

Ohar metrikoak:

Ahapaldia: 7/6a/7/6a/7/6a/7/6a.

Errima: silaba eta erdikoa.

Ohar tematikoak:

Felipe Arrese-Beitiaren "Bizi da Ama Euskera" poemarekin du zerikusi zuzena olerki honek eta 1919ko *Amona* olerkian jadanik agertzen diren identifikazio berak erabiltzen ditu funtsean narratiboa den olerki honetan.

BIZI DA AMA EUSKERA

(Saritua izan zan 1880.an Mauleon-en) Felipe Arrese-Beitia

Iru gaubela Amari egiñaz
Nenguan arbolapian,
Neure begiak liortu ezinda,
Bere buruko zapian;
Jaunak ez baleust gorde bizia
Ainbeste miñen erdian,
Bakezko lotan arimau ta
Gorputza neukan obian.

Eguzki ederrak ikuste ez arren
Negargarri au lurrian,
Odei illun bat ipini eban
Arpegiaren aurrian;
Baltzez jantzirik agertu oi zan
Damuz goizian goizian,
Gorde illargia, lotsaz izarrak
Gabaz azaltzen etziran.

Ni gizajo au, Amari munka
Bekoki ta begietan,
Sur, ezpan, okotz, matralla biai,

105 *Olerkiak*, Erein, Donostia, 1983, 315-321 or.

106 LABAIEN, A.M.; "Azken-adierazpena" in *Bioz-Begietan*, Itxaropena, Zarautz, 1970, LETE, X.ek aipatua in "Aintzin-solasa" in *Olerkiak*, Erein, DOnostia, 1983, 6-7 or.

Esku eta oin otzetan;
Erdeldun askok ikusi arren
Estura samin orretan.
Ezer-ez utsa bazan legetxe
Aurrera euren bidetan.

Irugarrengo gau erdirako
Eztarri au zarratu zan,
Begiak agor, pultsuak geldi,
Ozta-ozta bizi nintzan;
Gizon argitsu bizi eder bat
Nun dakustan zeruetan,
Zuriz jantzita odei gain baten
Lauburugaz eskuetan.

Ule luze ta bizar urdiñez
Agura itzaltsu bat zan,
Odei gañian puzkaten geldi
Ikusi neyan egon zan;
Asi zanian baña beruntza
Ez dakit nola ez zelan,
Oñaztarri bat baño lenago
Jausten jat albuan bertan.

Justuri batek alako otsik
Ez dau ez iñoz atera,
Mendiak dar-dar, aitzak lokaka
Euskel-erria ikara;
Arri bat legez ni otz ta gogor
Iya zentzun asko baga,
Ots gozo batek bertatik diñost:
"Jaunak gorde zagizala.

Bakia zugaz, baita anayakaz
Natortzu iragartera;
Tubal aita naz, zerutik nator
Amatxo osatutera,
Atsegin ta pozez beterik
Zerutar danak batera,
Kantetan dabe: izketa artian
Garbiena da Euskera.

Omen artian baña nituzan
Entzun nik zure negarrak,
Aitu nituzan zerurañoko
Zure dei ta deadarrak;
Beian itxirik illargia ta
Eguzkia zein izarrak,
Oraindik gora igoten eben
Amodio orren sugarrak.

Baña nasaitu, atseden zaite,

Seme maitea, ez da ill Ama;
Ume gaiztuen atsekabiak
Gaisotu dabe orrela;
Orain guztiak negar dabe egin
Ezaguturik okerra
Ill dalakuan beti betiko,
Euskera Ama laztana.

Negar dabe egin Bizkayak eta
Araba ta Gipuzkoak
Negar dabe egin Naparrak eta
Euskeldun Franziakuak;
Oraiñ arteko uts egitiak
Daukazuez parkatuak,
Baldin bazare aurrera izaten
Anatok alkar artuak."

Auxe esanda putz egin eutsan
Ama gaixuari aotik,
Eta bertatik gazte bat legez
Oñen gañera zan zutik;
Eta dirautsa: "Ama, jatsi naz
Zeruetatik zugaitik,
Seme leyal au ill ziñala ta
Neukalako otsez lurretik [107].

Lizardi ilobari bezala, Arrese-Beitiaren atsegabea ematzera datorren bisioak ama/amona euskara ez dela hil iragartzen dio VIII. ahapaldian.

Gaiaren bilbaketan datu pertsonalak eta metaforikoak biltzen dira: 1919ko *Amona* poeman aipatzen diren amonaren ipuinak, aintzinako garaien usaina zekarkioten ipuinen bila dabil olerkaria *Euskal Pizkundea*n, eta hark gordetako suaren aipamena egitean *Maitea*ren apurñoen artekoa den *Amona* poeman deskribaturiko nortasun urduriaren oihartzuna entzun daiteke. Bestalde, berriz, Arrese-Beitiaren olerkiaren sinbolizazio bera erabiliz, minaren adierazpena askoz neurtuagoa da, Arrese-Beitiaren erromantizismorik gabea. Lizardiren mezua baikorragoa da, bizkorragoa.

107 ARRESE-BEITIA, F.; *Olerkiak*, 1956, 21-25 or.